

«Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak, LI

GRAMATIKA JAIETAN
PATXI GOENAGAREN OMENEZ

Xabier Artiagoitia, Joseba A. Lakarra
(arg.)



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco
Bilbao

Euskal Herriko
Unibertsitatea
Bilbo

2008

ASJU-REN GEHIGARRIAK
ANEJOS DEL ASJU
SUPPLEMENTS OF ASJU

- XI. LUIS MICHELENA-IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 12 €.
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 8 €.
- XIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 36 €.
- XV. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. mendeak*, 1992. 18 €.
- XVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de "Charlemagne"*, 1990. 18 €.
- XVII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. mendeak*. Prestatzen.
- XVIII. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, 1994. 10 €.
- XIX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, II. Ardun-Beuden*, 1990, 1993. Agotado.
- XX. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1990 (1963, 1986). 8 €.
- XXI. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación*, 1991. 12 €.
- XXII. LASZLÓ K. MARÁCZ, *Asymmetries in Hungarian*, 1991. 15 €.
- XXIII. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 10 €.
- XXIV. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, III. Beule-Egileor (Babarraso-Bazur)*, 1991. Agotado.
- XXV. JOSÉ M.^a SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 15 €.
- XXVI. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, IV. Egiluma-Galanga*, 1991. Agotado.
- XXVII. JOSEBA A. LAKARRA - JON ORTIZ de URBINA (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, 1992. 18 €.
- XXVIII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailaren 2-6)*, 1994. 21 €.
- XXIX. JOSÉ I. HUALDE - XABIER BILBAO, *A phonological study of the Basque dialect of Getxo*, 1992. 8 €.

GRAMATIKA JAIETAN
PATXI GOENAGAREN OMENEZ

Xabier Artiagoitia, Joseba A. Lakarra
(arg.)

GRAMATIKA JAIETAN
PATXI GOENAGAREN OMENEZ

Xabier Artiagoitia, Joseba A. Lakarra
(arg.)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

oman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen hau lagundu duten erakundeak:

- UPV/EHUko Letra Fakultatea,
- UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetza,
- UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetza,
- Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila (AE 2007-1-12),
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (HUM2007-30023-E/FILO).

- © X. Artiagoitia & J. A. Lakarra
- © Atal bakoitzaren egileak
- © «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia
- © Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-085-8

Depósito legal / Lege gordailua: BI - 1.423-08

Fotocomposición / Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)

Impresión / Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45 (20800 Zarautz-Gipuzkoa)

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	xi
<i>Curriculum vitae Patxi Goenaga Mendizabal</i>	xv
AXUN AIERBE MENDIZABAL, Euskal estilo-liburuetako gramatika-arloko itzulpen- gomendioez	1
GONTZAL ALDAI, Patxi Goenagari 30 mila esker	13
IZASKUN ALDEZABAL ROTETA, Aditz-azpikategorizazioa	29
IÑAKI AMUNDARAIN, <i>Behar izan</i> + partizipioa: geroaldiko balioaz	47
M. J. ARANZABE, J. M. ARRIOLA AND ARANTZA DIAZ DE ILARRAZA, Theoretical and methodological issues of tagging noun phrases structures following dependency grammar formalism	57
XABIER ARTIAGOITIA, Some arguments for complement-head order in Basque DPs .	71
MIREN AZKARATE VILLAR, Gertaera- eta emaitza-izenak	93
ANDONI BARREÑA, MARIJOSE EZEIZABARRENA ETA IÑAKI GARCÍA, Entzundako hiz- kuntzaren eragina haur euskaldun txikien gramatika-garapenean	107
GIDOR BILBAO, Claude Maugerren eskuliburua Urteren eredu	129
KLARA CEBERIO, ITZILAR ADURIZ, ARANTZA DIAZ DE ILARRAZA ETA INÉS M. GARCIA AZKOAGA, Erreferentziakidetasunaren azterketa eta anotazioa euskarazko corpus batean.	153
KARLOS CID ABASOLO, Gramatika Atxagaren literatur bideetan (I)	173
MAIA DUGUINE ETA ARITZ IRURTZUN, Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez.	195
LUIS EGUREN, Clíticos léxicos y elipsis nominal	209
JOSE LUIS ERDOZIA, Burundako hizkera, Arabako ekialdekoaren hondar euskalkia . .	225
MAITENA ETXEBARRIA AROSTEGUI, Análisis y evaluación de la vitalidad sociolingüís- tica del euskera en la C.A.V.	237
URTZI ETXEBERRIA ETA RICARDO ETXEPARE, Izen eta gertakarien gaineko kuantifika- zioa.	259
RICARDO ETXEPARE AND MYRIAM URIBE-ETXEBARRIA, On negation and focus in Spanish and Basque	287
JUAN GARZIA, <i>Bada arazoriketetik arazoak dauderaino</i> : existentzia-predikazioa eta in- espezifikotasuna	311

RICARDO GÓMEZ, Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: xvii-xviii. mendeak	329
LUÏSA GRÀCIA Y BERTA CROUS, Sobre algunos predicados con <i>fer</i> y <i>tenir</i> en catalán: <i>fer un infart</i> vs. <i>tenir un infart</i>	351
BILL HADDICAN AND PAUL FOULKES, Mid Vowel Raising and Second Vowel Deletion in Oiartzun Basque	363
JOSÉ IGNACIO HUALDE ETA OIHANA LUJANBIO, Goizuetako azentuera	377
ORREAGA IBARRA MURILLO, Sobre estrategias discursivas del lenguaje de los jóvenes vascoparlantes: aspectos pragmáticos y discursivos (conectores, marcadores)	395
ITZIAR IDIAZABAL, Gramatika eta hizkuntzaren didaktika	413
ITZIAR LAKA, Senezkotasuna hizkuntzan: Gramatika Unibertsalaren inguruko hausnarketa	433
JOSEBA A. LAKARRA, Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)	451
MIKEL LERSUNDI, IGONE ZABALA ETA AGURTZANE ELORDUI, Aditzetiko izenen emankortasunaren azterketa morfopragmatikoa euskarazko corpus orokor eta berezituetan	491
ÁNGEL LÓPEZ GARCÍA, Sobre una propiedad superestructural de la lengua vasca.	507
JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE, Erronkaribarko oikonimia, mitoak eta elezaharra	523
JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE, Ahozko jarduna komunikazioaren lagungarri: ekarpen bat ahozkoaren estrategia komunikatiboez.	545
ROGER MARTIN AND JUAN URIAGEREKA, Competence for preferences.	561
JUAN CARLOS MORENO CABRERA, Alokutibotasunari buruzko zenbait hausnarketa hizkuntzalaritza orokorraren ikuspegitik	573
CÉLINE MOUNOLE, Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: Inperfekziozko perifrasiaren sorreraz.	585
JOSE ANTONIO MUJIKI, Adlatiboaren berbalizazioaz.	605
JUAN CARLOS ODRIOZOLA PEREIRA, Quantifying compounds.	615
MIREN LOURDES OÑEDERRA, Izan edo ez izan: Fonologiak fonetikari ordaintzen diona afrikatuekin.	631
JAVIER ORMAZABAL, Kausatibo aldizkatzeak euskaraz eta inguruko hizkuntzetan	643
B. OYHARÇABAL, Naturalist conceptions about agglutinative languages: Vinson's ideas about Basque and linguistic Darwinism	665
GEORGES REBUSCHI, On older Northern Basque exclamatives in <i>ala</i>	691
MILAN REZAC, The forms of dative displacement: From Basauri to Itelmen	709
PATXI SALABERRI, <i>Satznamen</i> direlakoen inguruan. Erlatibozko perpausetan jatorri duten toponimoak aztergai	725
PELLO SALABURU, Hiztegi kontuak Baztan aldean.	743
ITZIAR SAN MARTIN, Defective domains in Basque nominalized dependants	753
IBON SARASOLA, Iparraldeko hiztegitzintza Larramendiren paradigmaren garaian	769
ESTHER TORREGO, Revisiting Romance <i>SE</i>	785
ITZIAR TÚRREZ, Ideas acerca de la lengua de Tomás Tamayo de Vargas: Una lectura de sus <i>Anotaciones</i> a Garcilaso	793
BLANCA URGELL, Berriemaileen gaitasuna eta eredu lexikografikoaren eragina Landuciren hiztegian.	805
VIDAL VALMALA, Topic, focus and quantifier float.	837



Patxi Goenaga eskola ematen 1985eko Donostiako Udako Ikastaroetan

HITZAURREA:
ARAZOAK BOTATZEN ZITUEN HIZKUNTZALARI
AUSARTAREN KASUA

Pozarren eta erratzeko beldur handirik gabe esan dezakegu liburu honen prestatzaileok gutxitan izan dela honen moduko lan mardul bat atontzea oraingoan bezain erraza eta atsegina, eta ekarpen-egileen aldetik hain aho bateko erantzuna eta konplizitatea jaso duena. Eta erraztasun eta aho batekotasun horren errudun, bai omendutako pertsona, eta bai haren obra izan direlakoan gaude. Bada, begi bistan dagoena eta azalpen beharrik ez duena azaltzeko arriskuan eror gaitezkeela jakitun, berrikus dezagun labur zergatik ohoratu behar ditugun bata eta bestea.

Gramatika Bideetan bere bakantasunean

Orain dela hogeita hamar urte plazaratu zen Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* liburuaren lehen argitalpena. Urte horretako (1978ko) irailaren 10eko *Zeruko Argia* astekarian jasotzen da horren berri, Donostian egiten ari den euskal liburuen azokaren harira: “EREINek aurkeztu digun beste liburua ere hizkuntza sailekoa da. *Euskara lantzen I*-en egileetariko bat izan den Patxi Goenagak —EUTGko hizkuntz eskolako zuzendariak— bigarren hau, *Gramatika Bideetan* [bataiatu du]. Euskal gramatika landu nahi dutenentzat da”. Astebete beranduago kaleratutako erreseinan, ideia bera azpimarratzen da, liburu hau irakasleentzat delakoa alegia: “Liburua, gaueskoletan, ikastoletan edo nonahi euskara irakasten ari diren irakasleentzat prestatua da. Ibon Sarasolaren ustez, oso apropos datorkie”. Sarasolak berak, hitzaurre-egileak alegia, ohartarazten du liburu ezin hobeto etorriko zaiela *Euskalduntzen I* eta *II* bezalakoak “erakusten aski ongi moldatzen diren” baina *Euskalduntzen III* “itxuraz emateko gai” ez diren hainbat irakasleri, eta “euskal irakaslearen lagungarri” plazaratzen dela. Baina, hau ere garrantzitsua da ikertzaileentzat, aurretik hauxe esana du: “...hizkuntzalaritzaren teoria orokorrean eta bereziki gramatik teoriaren arloan funtsezko aldaketak gertatu dira azken hamarkada hauetan, batez ere gramatika sortzaile eta transformatzaileen eskutik. ... Hortara dator ... Patxi Goenagaren liburu hau. Orain arte hizkuntzari buruz dakiguna egungo gramatik teoriaren arabera berrinterpretatzen eta sailkatzen”. Hortxe daude, beraz, laburbilduta 1978ko *Gramatika Bideetan* liburuaren bi ezaugarri nabarmen: hura Noam Chomskyren gramatika sortzailearen eredura egindako euskararen lehen deskribapen eta azterketa sistematikoa

izan zen, eta, aldi berean, Euskal Herriak bizi zuen garaia bizi zuelako, hezkuntza eta irakaskuntza munduan sumatzen zen premia handi bati erantzun nahi zion euskal gramatika ere izan zen.

Liburu haren hirugarren ezaugarria *ausardia* izan zela dirudi; hala diote, edo horren irudipena dute behintzat, bai hitzaurre-egileak (“Patxi Goenagak esker gaiztoko aurrelan horri ekiteko ausardia izan du”); eta egileak berak eskaintzan:

Ausartzia handia behar da gaur gramatika bat edo gramatika antzeko bat ateratzeko. Are ausartzia handiago behar dela uste dut Euskal Herri honetan. Hemen denok (!) baitaramagu geure barrenean holako gramatikalari koxkor bat, eta honekin batera, inksidoretxo bat ere. Denak ditut begien aurrean eta ez da broma holako liburu batekin plazaratzea gure Herri honetan, baimenik eskatu gabe.

Egia esan, garai hartako prentsari begiratu arin bat emanez gero, ez zirudien 1978, 1979 eta 1980 urteetako giroa oso aproposa zenik gramatika gaietarako, ez behintzat gramatika sortzailea lantzen zuen liburu baterako. Politika gaiak eta kezkek ziren nagusi gizartean (trantsizioa, konstituzioa, errepresioa, estatutua); hizkuntzari dagokionez, *Bai Euskarari* edo *Korrika* bezalako kontzientziazte ekitaldiek hartzen zuten indar handiagoa gramatika kontuek baino. Gramatika gaietan eurretan ere, euskal prentsak besteri begiratzen zion (ikus, bestela, *Nazioarteko Euskalarien Lehen Biltzarra* izan zenari eskainitako arreta); lehen begiratuan oihartzun zabalagoa izan zuen euskal prentsan, esaterako, Txillardegik 1979an argitara eman zuen *Euskal gramatika* liburuak *Gramatika Bideetan* liburuak baino. Hor ere, bai *Zeruko Argiako* iruzkin-egileak bai *Anaitasuna* aldizkariko J. R. Etxebarriak halako banaketa osagarri bat ikusten zuten: “(*Euskal gramatika* argitara berriaz) Berez, sintaxi arloa Patxi Goenagak prestatuturiko *Gramatika Bideetan* sakonki aztertua dagoelarik, ez zuen izateko arrazoi handirik, gai berberaz beste antzeko liburu bat ateratzeak, bai ostera haren osagarria prestatzeak” (*Anaitasuna* 388, 1979).¹ (Bide batez, ez dago gaizki gogora ekartzea 1978-79 urteen inguruan argitaratu zirela Atxagaren *Etiopia*, Izagirrerren *Guardasola abantzia*, Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*, Saizarbitoriaren *Ene Jesus!*, edota *Hitz egin!* eta *Jalgi Hadi* bezalako euskara ikasteko metodoak, eta abar).

Testuinguru horretan, zein patu izango zuen Patxiren *Gramatika Bideetan* liburuak? Ezin hobea, egia esan. Euskal ikasle eta irakasle askoren elikagaia bihurtu zen liburua, euskarazko *morfosintaxia* lantzeko tresna ezinbestekoa, hala *D-B tituluak* eta antzekoak atera nahi zituen jende samaldarako, nola gramatika teoriara euskaratik abiatuta hurbildu nahi zuenarendako. Izan ere, 1979. urtean, kultura giroan ospe handia zuen Bilboko *Galeria del Libro* liburudendak euskarazko liburu salduenaren saria eman zion Patxi Goenagari, *Urrezko Lauburua* delako saria, hain zuzen. Ez zen sari makala edukiz urratzailea eta tankeraz ausarta zen lan batentzat. Alde horretatik, esan liteke seguruenera gutxitan ikusi dela beste inon gramatika hutsezko lan bikain baten eta gizartearen arteko hain harreman estu eta berehalakoa; ohiz kanpoko gertakaria zalantzarik gabe, are ohiz kanpokoagoa lan zientifiko hori Chomskyk hasitako gramatika sortzailea bezalako esparru teoriko eta (orduan behintzat) iraultzailearen barruan kokatzen zelarik.

¹ Iruzkina harrigarria ere bada, bai baitaude, ugari, flexio-morfologiazko ohar aberatsak GB liburuan.

Ondoren, ondo ezaguna denez, *Gramatika Bideetan* liburua agortu egin zen, eta egileak 1980an bigarren edizio bat, *zuzendua eta osatua*, paratu zuen, hainbat urte-tan, guk dakigula, behin eta berriro argitaratu zena eta, dela eskolan dela unibertsitatean, euskaldun eta ikertzaile, etxeko nahiz kanpoko, askok, irakurri, ezagutu, erabili eta are *praktikatu* duguna. Izan ere, nork ez du aditz laguntzailearen berridazketa erregelekin inoiz borrokan egin? Nork ez du behin eta berriro halako transformazioa (erlatiboarena, partitiboarena, galderarena...) berrikusi nola eta zein hurrenkeratan aplikatu behar zen zehatz-mehatz jakiteko? Nork ez du besterik gabe *Gramatika Bideetan* eskuan hartu egitura jakin batek zein itxura har zezakeen edo *nola analizatu* behar zen kontsultatzeko? Aurten, 1978ko ahalegin hartatik 30 urte betetzen direlarik, lan horrekin alde edo moldez zordun sentitzen garenok pozik eta esker onez bildu gara, bai baitugu euskal gramatikagintzaren urteurren berezi hau ospatzeko arrazoirik franko. Nagusia hauxe da: gutariko asko *Gramatika Bideetan* liburua gabe nekez abiatuko ginen hizkuntzalaritza formalaren (edo, besterik gabe, *serioaren*) bideetan zehar, eta nekezago iritsiko ginen gaur egun euskal gramatikako lan askok ustez duten heldutasun, sofistikazio eta bikaintasunera.

Patxi Goenagari gorazarre

Laurogeigarren hamarkadaren hasierako *Zeruko Argia* aldizkariaren ale batean, kazetariak aurreko urtearen hondarrean izandako Euskaltzaindiaren IX. Biltzarraren berri ematean, hauxe irakurtzen dugu:

Eman diezaiogun txanda gazte bati, Patxi Goenagari, hain zuzen:

Mundu guztiko linguistikan hemengo bezalako mugimendu bat... zalantzak eta problemak sortzen ari dira nonahi. Eta, beharbada, gaur arte linguistika beste ikuspegi batetik planteatu duen jendea ez da lasai geldituko guk ekar dezakegun joera berri hontaz.

Lehen klasea bukatzean, nere aurrean nuen neska batek galdetu zidan: "horrela jarraitzeko asmoa duzu egun guztietan, problemak bota eta bota...?". Baietz erantzun nionean, ... eskema tradizionalarekin ideiak askozaz garbiagoak zituela berrerrantzun zidan berak, nere planteamendua zela eta bere egitura guztia deseginda uzten niola eranstean zuelarik... (Velez de Mendizabal, 1980-01-13ko *Zeruko Argia*, 31. orr.).

Istoriotxo honek ederto asko erakusten du liburu honetan omendu nahi dugun hizkuntzalariaren ezaugarri bat: *irakasle sena*. Ez dakigu zer gertatu zitzaion neskari, baina badakigu Patxi Goenagak, behintzat, jarraitu egin zuela, eta jarraitzen duela oraindik ere, *arazoak bota eta bota*, maisu on batek egin ohi duen bezalaxe. Irakasle sena, hots: arazo irekiak dogmatismorik gabe eta zorrotzasunez plazaratzeko gaitasuna, ikasleek sekula hausnartu gabeko anbiguitate eta egitura puzzleekin harritzeko eta zirikatzeo ahalmena, ikasle horiek beroriek hizkuntzaren zirrikitueta barrera eraman, engaiatu, eta liluratzeko trebezia... osagai horiek orok bihurtu dute irakaslea maisu, liburu honetan hainbat egilek aitortzen duten zor interlektualak agerian uzten duen bezala.

Irakasle senari hizkuntzalari sena ere gehitu behar diogu: etxeko nahiz bestelako euskararen doinuak eta egiturak arrotzetatik bereiztea; lehendik ohartu gabeko datu berriak eta ezkutuan dautzan paradigma enpirikoak azaleratzeko eta berauek eredu teoriko trinko batean txertatzeko kemena izatea; beste gramatikarien zirikatzaile

eta bultzatzaile gertatzea; gramatikarekin jolasean bezala gozatzea eta gozaraztea... horri guztiari esaten diogu hizkuntzalari sena eta gure artean ez du inork izan, Patxi Goenagak ez badu. Gauzak horrela... nola ez hartu *Gramatika Bideetan*-en hogeita hamargarren urtea eta Patxiren beraren hirurogeigarrena aitzakiatzat omenaldi xumea egiteko eta geure begirunea eta esker ona adierazteko?

Azkenik, ezin dugu ahaztu Patxi Goenaga irakasleak Euskal Herriko Unibertsitate honetan eta kanpoan egin dituen zerbitzuak: Filologia eta Historia-Geografia Fakultatearen (orain Letretakoaren) sorreratik bertatik ia izan da irakaslea, baina bertako dekanordea eta dekanoa ere izana da; Arabako Campuseko errektoreordea ere bai; bai eta Euskal Filologia saileko zuzendaria ere. Gainera, ondo gogoan daukagu Euskaltzaindian harrera egin zion euskaltzainak esandakoa, gaurkotasanik galdu ez duena: "Gramatika batzordeak izan ditu kide berriak; Patxi Goenaga hor izan dugu beti, gaur ere hor dugu, batzordeko idazkari, beti bultzatzaile, beti eragile". Eta, noski, ez dugu ahaztuko berriki Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikako kontseilariordea ere izana dela. Ezin esan, beraz, unibertsitatearen eta herri honen egituratze eta erakundetzean ekarpena egin ez duenik, inguruko erantzukizunen aurrean axolagabe jokatu duenik. Gizon hurbil honena ez zen izango lan zaratatsua, baina bai eraginkorra. Ardura horietan guztietan eta eguneroko bizimoduan erakutsi dituen dotorezia eta xalotasuna nahiko genituzke geuretzat, eta bilera amaigabeetan *zentsuna* ezarri eta bilera horien ondoren tentsioa baretu eta irribarrea eta umorea azaleratzeko dohaia ere bai. Baina, oraingoz, alboan dugun maisu zintzoa mirestera eta harengandik lezio gehiago ikastera mugatu beharko. Denbora luzean, espero dugunez. Zorionak eta eskerrik asko, Patxi.

Gasteizen, 2008ko martxoan.

Xabier Artiagoitia eta Joseba A. Lakarra

CURRICULUM VITAE

PATXI GOENAGA MENDIZABAL
(Azpeitia, 1948-05-05)

Ikasketak

1974 Filologia Erromanikoan lizentziatua, Deustuko Unibertsitatea
1984 Euskal Filologian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatea

Irakasle lanpostuak


1976-1980 Irakasle laguna, Deustuko Unibertsitatea
1980-1982 Irakasle laguna, UPV/EHU
1982-1985 Irakasle laguntzailea, UPV/EHU
1986-1991 Irakasle titularra, UPV/EHU
1991-gaur Irakasle katedraduna, UPV/EHU

Euskaltzaindiako ibilbidea

1995tik Euskaltzain osoa
1980tik Gramatika Batzordearen kidea
1980-1996 Gramatika Batzordearen idazkaria
1996-2002 Euskaltzaindiaren idazkaria

Bestelako zerbitzuak

1986 UPV/EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko dekanordea
1986-1990 UPV/EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko dekanoa
1991-1995 UPV/EHUko Arabako errektoreordea
1999-2001 Euskal Filologia Saileko zuzendaria
2002-2005 Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea



Argitalpenak

- 1978 *Gramatika Bideetan*, Erein, Donostia.
- 1978 “Txillardegiren Oinarri bila”, *Mundaiz* 10, 36-37
- 1978 (askoren artean) *Euskara Lantzen I*, Erein, Donostia.
- 1979 (askoren artean) *Euskara Lantzen II*, Erein, Donostia.
- 1980 *Gramatika Bideetan. 2. edizioa, zuzendua eta osatua*, Erein, Donostia.
- 1980 “Perpauk konpletiboei buruz”, *Euskera* 25, 581-596.
- 1981 “Ohizko euskal sintaxia eta sintaxi berria”, in *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, 139-161
- 1981 (askoren artean) *Euskara Lantzen O*, Erein, Donostia.
- 1982 “Morfosintaxia”, *Hizkuntzalaritza Hiztegia*, UZEL, Donostia, 328-338.
- 1982 “Euskal Nominalizazioari buruz zenbait ohar: “zail da”, “erraz da” predikatuen errejimena”, *Euskera* 27, 623-637
- 1983 “Lengua Vasca”, *Nuevas Maravillas del saber*, Bibliograf, Barcelona, 51-92.
- 1985 (askoren artean) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1985 “Complementación y nominalización en euskara”, *ASJU* 29· 2, 493-570.
- 1985 “Nahi eta behar”, in Jose Luis Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena oblatae*, UPV/EHU, Bilbo, 943-953.
- 1986 “Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak”, in P. Goenaga (arg.), *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, UPV/EHU, Bilbo, 155-189

- 1986 *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, UPV/EHU, Bilbo.
- 1987 “Kale-izenez ohar pare bat”, *Administrazioa euskaraz* 5, 10-11.
- 1987 (askoren artean) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I (Eranskina)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1987 (askoren artean) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1988 “Baldintzazko perpausei buruzko zenbait ohar”, *Euskara Bitzarra-Congreso de la Lengua Vasca*, Gasteiz, 141-149.
- 1990 (askoren artean) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak III. Lokailuak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1990 “BEZALA morfemaren inguruan sortzen diren zenbait egituraz”, *Patxi Altunari Omenaldia*, Deustuko Unibertsitatea, 129-157.
- 1990 “Dialectos vascos y euskara común: el proceso de estandarización de la lengua vasca”, *Estudios de Lingüística de España y Mexico*, 489-509.
- 1991 “Izen sintagmaren egituraz”, In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, ASJUren Gehigarriak 14, 847-865.
- 1992 “Orixeren gramatika lanez”, *Orixeren omenaldia*, Etor, Donostia, 535-553.
- 1993 “*Ukatu egin du etorriko denik ala Ukatu egin du etorriko dela?”, *Administrazioa euskaraz* 3, 16.
- 1993 (askoren artean) *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1994 *Euskal Gramatika. Lehen urratsak IV. Juntagailuak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1995 “Euskararen batasunaz eta duintasunaz”, *Euskera* 40, 651-682.
- 1997 “Euskal Gramatika”, *Lur Entziklopedia Tematikoa*, Lur, Donostia, 37-166.
- 1997 “Subjunktiboaz eta aginteraz zenbait ohar: *-en* eta *-ela* atzizkien erabileraz”, *Federico Krutwig-i omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 109-132.
- 1999 (askoren artean) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak V. Mendeko perpausak-1*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1999 “Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. 80 años de trabajo por la normalización del vasco”, *Arbor* 641, 77-98.
- 2000 “Euskaltzaindia eta euskararen arautzea”, *RIEV* 45: 1,11-41.
- 2000 “Victoriano Huiziren *Manual de Gramática Bascongada*”, *Euskera* 45, 199-209.
- 2001 “Extracción masiva de información sobre subcategorización verbal vasca a partir de corpus”, *SEPLN 2001*, 199-209.
- 2001 “Baskijski jezik” *Hrvatska revija* I: 3-4, 25-36.
- 2002 “Euskal gramatikaren puntu batez: ahalaz eta ezinaz”, in X. Artiagoitia, J. A. Lakarra & P. Goenaga (arg.), 261-275.
- 2002 (X. Artiagoitia eta Joseba A. Lakarrarekin batera) *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. De Rijk*, ASJUren Gehigarriak 44, UPV/EHU, Bilbo.
- 2003 “-EN eta -KO atzizkiez berriro”, *Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*, Euskaltzaindia, Bilbo, 279-303.
- 2003 (I. Aldezabalekin batera) “Analyzing verb subcategorization aimed at its computational application”, *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*, ASJUren Gehigarriak 46, Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, 95-126.

- 2004 “Hizkuntza erronkak Euskal Autonomia Erkidegoan”, *Revista Vasca de Administración Pública* 69, 17-33.
- 2004 “Fronteras que dividen y fronteras que separan. Una mirada a Europa desde el Euskara”, in J. A. Argenter & R. McKenna Brown (arg.), *Endangered Languages and Linguistic Rights*, Proceedings of the Eighth FEL Conference, Barcelona, 119-129.
- 2005 (askoren artean) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak VI. Mendeko perpau-sak-2*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 2006 “Behar-en lekua euskal hiztegian eta gramatikan”, in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, Bilbo, 397-416.
- 2008 “Euskal neurri sintagmen azterketa baterako: zenbat X, zenbat X-ago, zenbat X gehiago”, in *Jean Haritschelhar-i Omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 211-240.
- Prestatzen *Euskal Gramatika: sintaxi egiturak eta osagaiak.*

EUSKAL ESTILO-LIBURUETAKO GRAMATIKA-ARLOKO ITZULPEN-GOMENDIOEZ

Axun Aierbe Mendizabal
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. Sarrera

Azken urte hauetan estilo-liburuak gero eta ohikoagoak dira gure inguruko hizkuntzetan. Euskararako estilo-liburuak ere gero eta gehiago ditugu duela urte batzuetatik hona; izan ere, euskararen estandarizazio- eta normalizazio-prozesua abian denetik, eta euskara gero eta esparru gehiagotan —irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan, etab.— erabiltzen denetik, beharrezkoak dira erabiltzaileentzako estilo-aholkuak; eta estilo-liburuetan, estilo-gomendioez gain, zalantzak eragiten dituzten hainbat arlotako aholkuak ere ematen dira, hala nola, gramatika-arlokoak, beste hizkuntzetarako argitaratzen diren estilo-liburuetan bezalaxe.

Euskararako estilo-liburuak gorago aipatu ditugun hiru eremu horietarako eman dira argitara bereziki, hain zuzen ere, administrazioarako, hedabideetarako eta irakaskuntzarako, nahiz eta estilo-liburu orokorrak ere izan badiren, eremu jakin baterako edo besterako berariaz paratuak izan gabe. Nolanahi ere, eremu jakin baterako presaturiko estilo-liburuak gainerako esparruetan ere balia daitezke eta baliatu ohi dira, erabilgarri diren neurrian.

Gainera, ezin ahantz genezake, azken urte hauetan, gorago aipaturiko eremuetan nahiz beste batzuetan lanean diharduten profesionalek testuak idazteko edota itzultzeko material lagungarria behar dutela: gramatikak, hiztegi orokor nahiz berezituak, glosategiak, etab. Izan ere, euskaraz ekoizten diren testuak askotan eta askotan beste hizkuntza batzuetatik itzultzen dira —eta batik bat, gaztelaniatik—, eta zuzenean itzultzen ez denean ere, beste hizkuntza batzuetan jasotzen da informazioa eta ondoren euskaraz berridatzi, beste hizkuntza batzuen bidez barneratu eta jasotakoa euskaraz kanporatu eta emanez, gogoan izan behar baitugu euskarazko testuak ekoizten edo itzultzen dituzten profesionalak eleaniztunak edota elebidunak direla gutxienez —gehienbat, euskara- eta gaztelania-hiztunak Hego Euskal Herrikoak, edota, kopuruz gutxiago badira ere, euskara- eta frantses-hiztunak Ipar Euskal Herrikoak.

Bestalde, ezin ahantzizkoa da baita gurean Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak mende honetan abiatu direla ere. Hori horrela delarik, itzulpengintzako eskuliburuaren gabezia nabaria dela agerian jartzeaz gain, nabarmendu nahi genuke baita itzulpengintzako ikasketetan estilo-liburuak material osagarri gisa erabil daitezkeela eta baliagarri direla ere.

2. Estilo-liburuez eta euskal estiko-liburuen berezitasunaz

Estilo-liburuen nolakotasunari arreta hartuz gero, alabaina, bada ezberdintasun nabari bat beste hizkuntza batzuetarako argitara ematen diren estilo-liburuen eta euskararako plazaratzen direnen artean: hainbat euskal estilo-liburutan —guztietan ez bada ere— itzulpen-aholku esplizituak aurki genitzake, gaztelaniarako, frantseserako edo ingeleserako estilo-liburuetan ez bezala. Gomendio horien bidez, esplizituki esaten zaigu nola itzuli euskarara halako egitura, adierazpide, etab., edo nola saihestu gaztelaniatiko kalkoak edo jadanik jatorrizko hizkuntzan, hots, gaztelaniaz, traketsak edo agramatikalak diren egiturak, beste hizkuntzetatik itzultzeko gomendiorik ez baita egiten, eta frantsesetik edo ingelesetik euskaratzen dutenentzako gomendio zehatz eta zuzenik nekez aurki baitaiteke. Beste estilo-liburu batzuetan, berriz, itzulpen-aholku espliziturik ageri ez den arren, egiten diren gomendioen atzean, hauteman daiteke badela itzulpen- edo egokitzen-gomendio inpliziturik ere (gaztelaniatik itzultzeko edo egokitzeko).

Estilo-liburuak, oro har, hizkuntza eta esparru jakin batean lan egiten duten profesionalentzat izan ohi dira, eta euskararako estilo-liburuek ere xede hori dukete. Haatik, euskal estilo-liburuetan, beste hizkuntza batzuetarako estilo-liburuetan ez bezala, hainbeste itzulpen-gomendio agertzeak pentsarazten digu euskal estilo-liburuak idatzi eta argitaratu ote diren euskaraz diharduten profesionalengan pentsatuz bene-tan ala testuak euskaratzen diharduten itzultzaileengan pentsatuz.

Berezitasun horretan oinarrituz, eta itzulpengintzarako estilo-liburuek duten balio erantsi hori kontuan harturik, beste lan batean aztertu dugu itzulpengintzaren eta euskal estilo-liburuen arteko harremanaren auzia (Aierbe 2008). Oraingoan, berriz, euskal estilo-liburuetan ageri diren gramatika-arloko itzulpen-gomendioez jardun nahi dugu, oso antzekoak baitira maiz estilo-liburuetan egin ohi diren gomendioak.

3. Euskal estilo-liburuetako gramatika-arloko aholkuez

Euskal estilo-liburu orokor eta berezituaren arteko bereizkuntza-marra nonbait jartzen hasiz gero, hiztegi- eta terminologia-gomendioetan edo bestelako estilo-gomendioetan aurki daiteke, baina egiten diren gramatika-gomendioak edota gramatika-arloko itzulpen-gomendioak oso antzekoak dira; alabaina, zenbaitetan eremuren batean osagai jakin baten itzulpen traketsa egiteko arriskua handiagoa bada, indar gehiago egiten da horrelakoak saihestearren.

Atal honetan, euskal estilo-liburuetan aurkitu ohi ditugun gramatika-gomendioez arituko gara, eta berariaz mintzatuko gara itzulpen-gomendio inplizitu gisa ageri zaizkigun aholkuez; eta, aldiz, hurrengo atalean jasoko ditugu euskal estilo-liburuetan itzulpen-gomendio esplizitu gisa formulaturik ageri zaizkigun aholkuak. Nolanahi ere, zehaztu beharra daukagu, estilo-liburu batean itzulpen-gomendio esplizitu gisa ageri dena beste estilo-liburu batean euskararako gomendio orokor gisa ager daitekeela, nahiz eta hauteman daitekeen itzulpen-gomendio inplizitu bat dagoela gomendio horren atzean. Horrelakoetan, estilo-libururen batean itzulpen-gomendio esplizitu gisa aurkitu baldin badugu, hurrengo puntuan jasoko dugu, zehaztuz zein estilo-liburutan ez den ageri itzulpen-gomendio esplizitu gisa.

Ditugun estilo-liburuen artean, berrienak izateagatik, XXI. mende honetan argitarara eman direnetan ageri diren gramatika-arloko itzulpen-gomendio esplizitu nahiz inplizituak ekarri nahi genituzkeenez hona, aipatu beharrean gaude, besteak beste, honako hauek:

- a) *Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia* (Alberdi & Sarasola 2001)
- b) *IVAPeko estilo-liburua* (Arakama et alii 2005)
- c) *Kalko okerrak* (Garzia 2005)
- d) *Berria: estilo liburua* (Arrarats 2006)

Aipatzekoa da hainbat estilo-liburu Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek argitarara emanikoak direla, eta beraz, estilo-liburu horiek prestatu direla pentsatuz liburu horiek baliatuko dituzten profesional eta itzultzaileek lan egiten dutela sarritan gaztelaniazko jatorrizko testuetatik abiatuz, euskara xede-hizkuntza izan ohi baita maiz testuak gokitu nahiz itzultzeko orduan.

3.1. *-(r)en vs. -ko*

Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia liburuak orrialde ugari eskaintzen dizkio auzi honi (Alberdi & Sarasola 2001: 89-101), hain zuzen ere, bi genitiboan esanahiak argitu eta bata nahiz bestea noiz eta nola erabili behar diren gomendatzen du. Atal honetan sartu dugu erdarekiko erreferentzia *ñimiñoren* bat kenduta, ez delako interferentziaren ikuspegitik aztertzen, baina gaztelaniaz eta frantsesez sarri bietarako ordaina *de* preposizioa izatean, euskaraz ere *-ko* leku-genitiboa behar baino maizago eta behar ez bezala erabiltzea dakarrelako *-(r)en* jabetza-genitiboaren kaltean.

3.2. *Erdia*

Multzo baten *erdia* nola erabili adierazten du *IVAPeko estilo-liburuak*, batetik, multzo horretako elementuak zenbakarriak direnean eta bestetik zenbakaitzak direnean.¹ Honako adibide hauek dakartza estilo liburu horrek (Arakama et alii 2005a: 73):

Dokumentu(en)² *erdiak* errekuperatu ditugu.
Ez jan eta ez lan dabil munduaren *erdia*.

Adibide horietatik ondoriozta daitekeenez, itzulpen-arazo inplizitu baten aurrean gaude, izan ere arazoa sortu baita gaztelaniazko *la mitad de* euskaratu behar izatetik,

¹ Zenbakarri vs. zenbakaitz bereizkuntza geuk erantsi dugu, *IVAPeko estilo-liburuak* ez baitu ezauzgarri hori aipatzen.

² Adibide honetan ageri den parentesiak interpretazio-arazoak sor ditzakeela uste dugu, ez baita gauza bera *dokumentu erdiak* eta *dokumentuen erdiak*, lehenean 'dokumentu (guztietatik) bakoitzaren erdia' berreskuratu dela eta 'dokumentu horien (beste) erdia' ez dela berreskuratu ulertzen baita, eta bigarrenean, berriz, falta ziren 'dokumentu guztietatik erdiak' (dokumentuak osorik direla) berreskuratu direla, baina beste erdiak falta direla ulertzen baita.

izan ere, gaztelaniaz multzoko elementuak zenbakarriak ala zenbakaitzak izan, beti izan ohi baita *la mitad de* singularra.

Berriaren estilo-liburuan ere antzeko gomendioa egiten da, eta komunztadurarako erreferentea singularra (*gazta*) ala plurala (*ikasle*) den bereizten da (Arrarats 2006: 54).

Gisa honetako multzokariak direla-eta, erregistro jasorako, komunztadura ere singularrean egitea gomendatu ohi da —betiere salbuespenak salbuespen— gaztelaniazko hainbat estilo-liburutuan: hain zuzen ere, *El País* egunkariaren estilo-liburuan *un grupo de* multzokariarekin dakarren adibidean ikus daitekeen gisan (El País 1996: 170), edo EFE agentziaren *Manual de español urgente* liburuan (Agencia Efe 1992: 50); baina ez guztietan, izan ere, logikazko komunztadura singularrean nahiz pluralean egin daitekeenez, bada komunztadura bakoitzerako interpretazio bana egin ohi dela adierazten duenik (Martínez de Sousa 2000: 107-108), edo baita Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakunderako edo IVAPERako gaztelaniazko estilo-liburuan -komunztadura singularrean nahiz pluralean egin daitekeela esateaz gain, batzuek —nork zehaztu gabe— komunztadura pluralean egitea aholkatzen dutela adierazten duenik ere (Arakama et alii 2005b: 117).

3.3. *Nagusia vs. nagusi*

IVAPeko estilo-liburuak dioenez, “*nagusi* hitza adjektiboa denean, berez da goren mailakoa” (Arakama et alii 2005a: 82), eta horrenbestez, superlatiboa erabili behar izanez gero, hots, “*-(e)na*-dun bat jarri nahi izanez gero, beste adjektibo bat aukeratzea” (Arakama et alii 2005a: 82) gomendatzen du. *IVAPeko estilo-liburuak* emaniko adibideak ikusirik (“ordezkaritza-organu *nagusia / gorena*”, “helburu *nagusia / garrantzitsuena*” eta “zati *nagusia / handiena*”), estilo-liburuak berariaz adierazi ez arren, argiro ikus daiteke izenondo horien atzean itzulpen-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *supremo*, *superior* eta *principal* adjektiboen ordain baliokideak eman nahi baitira euskaraz.

3.4. *-gatik*

IVAPeko estilo-liburuak honako hau dio: “ez erabili *norengatik* kasua salneurria, trukaketa... adierazteko” (Arakama et alii 2005a: 87); eta *-gatik* kasuaren honako erabilera trakets hauek dakartza: “↓Hamar *eurogatik* erosi dugu jertsea” eta “↓Nire *bizikletagatik* eman dit dirua” (Arakama et alii 2005a: 87). Ordainetan, *-(t)an*, *-(r)en truke* eta gisakoak baliatzea gomendatzen du. Oraingoan ere, estilo-liburuak berariaz adierazi ez arren, argiro ikus daiteke *-gatik* horren atzean gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *por* preposizioaren adieren eta erabileren ordain baliokideak euskaraz ematerakoan.

3.5. **pena merezi izan*

IVAPeko estilo-liburuak ere, Euskaltzaindiak eta beste hainbatek bezala, *pena merezi izan* erabili ordez, *merezi izan* erabili behar dela gogorarazten du (Arakama et alii 2005a: 89). Berriro ere, estilo-liburuak berariaz adierazi ez arren, argiro ikus daiteke *pena merezi izan* horren atzean gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *merecer la pena* fraseologia-unitatea hitzez hitz itzultzearen ondorio baizik ez baita **pena merezi izan*.

3.6. *Daukazu sua?

IVAPeko estilo-liburuak, Euskaltzaindiaren gramatiketan eta beste zenbaitetan bezala, gogorarazten du galderetan “*Ba-* jarriko zaie[la] aditz trinkoei [...] esaldian azpimarratzen duguna (galdegaia) baieztapena bera denean” (Arakama et alii 2005a: 91). Berriro ere, estilo-liburuak berariaz adierazten ez duen arren, argiro ikus daiteke goiko galdera horren atzean gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *¿Tienes fuego?* perpausa hitzez hitz itzultzearen ondorio baizik ez baita **Daukazu sua?*

3.7. Gaztelaniazko *que* menderagailuaren ordainak eta interferentzia-arazoak

3.7.1. *IVAPeko estilo-liburuak baietz* eta *ezetz* erabili behar direla adierazten du zenbait adibideren bidez, bestelako azalpenik gabe; honako hauek dira adibideak (Arakama et alii 2005a: 93):

<i>*Harrapatzen dudala</i> txori hori bizirik!	<i>*Ez duzula egiten</i> pase hori berriz!
<i>Baietz harrapatu</i> txori hori bizirik!	<i>Ezetz egin</i> pase hori berriz!

Berariaz adierazi ez arren, argiro ikus daiteke ematen dituen adibideen bidez, gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *a que sí (pillo)* eta *a que no (haces)* hitzez hitz euskaratzearen ondorio baizik ez baitira **harrapatzen dudala* eta **ez duzula egiten*.

3.7.2. -(e)na erlatiboa vs. -(e)la osagarria gaztelaniazko *que* menderagailuaren ordainetan

IVAPeko estilo-liburuak euskarazko -(e)la osagarria nola ez den erabili behar adierazten du honako adibide honen bidez: “*Goian badago bilera gela bat ez *dela* hain txikia”, eta bestelako azalpenik eman gabe, euskarazko ordain egokiak ematen ditu (Arakama et alii 2005a: 93). Berariaz adierazi ez arren, argiro ikus daiteke adibide horren bidez, gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *que / la cual (no es tan pequeña)* erlatiboa euskaratzean sorturiko nahasmenduaren ondorio baizik ez baita.

Puntu berean aztertzen ditu *IVAPeko estilo-liburuak* euskarazko *susmo, berri, uste* eta horien gisako izenen osagarri diren elementuen ordainak (Arakama et alii 2005a: 93). Oraingoan ere, berariaz adierazi ez arren, estilo-liburuak ematen dituen adibideak ikusirik, argiro hauteman daiteke gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela, gaztelaniazko *la sospecha de que* euskaratzean sorturiko nahasmenduaren ondorio baizik ez baita **direnaren susmoa* (Arakama et alii 2005a: 94).

Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia liburuak arazo berberaz dihardu *-t(z)earen* eta *-(t)zeko* zein izenen aurretik ipin daitezkeen aztertzerakoan, betiere *-(r)en* eta *-ko* genitiboan erabileraren barruan (Alberdi & Sarasola 2001: 98-101). Estilo-liburu honetan, puntu honetaz mintzo direlarik, *IVAP*enean bezalaxe, ez da berariaz nabarmendu gaztelaniarekiko interferentzia-arazo bat dagoela. Aldiz, perpaus osagarri izenlagunez mintzatzerakoan, gaztelaniako *la impresión de que* eta *la noticia de que* eta antzekoen euskal ordain egokiez mintzatu dira berariaz (Alberdi & Sarasola 2001: 173-176).

4. Euskal estilo-liburuetakoko gramatika-arloko itzulpen-gomendioez

Gramatika-arloko itzulpen-gomendioak egiten dituzten estilo-liburuak gaztelania-tik euskarara hainbat osagai eta egitura itzultzeko moduez mintzo zaizkigu. Datozen puntuotan horietako hainbat jasoko ditugu:

4.1. *-a* mugatzailea vs. *bat* zehaztugabea

Luze mintzo zaizkigu puntu honetaz bi estilo-liburu (Garzia 2005: 26-31, Alberdi & Sarasola 2001: 72-80). Bietan egiten zaie erreferentzia inguruko erdaretako erabilerei eta euskararen tradizioari, eta euskaraz bata nahiz bestea noiz eta nola erabili behar diren gomendatzen dute, eta erabilera desegokiak adierazten dituzte, inguruko erdarekiko interferentziak direla bide, gerta daitezkeen mimetismoak eta kalkoak saihesteko.

4.2. Gaztelaniazko hainbat preposizio itzultzeaz

Gaztelaniazko ‘izena + preposizioa + (artikulua) + izena’ egitura dugunean, hainbat arazo sortzen dira preposizioaren ordaina euskaraz ematerakoan. Horrelako egiturak itzultzeak eragiten dituen arazoez mintzatu dira Alberdi eta Sarasola, eta *-ekiko* atzizki konposatuak dituen balioak eta erabilerak zein diren jaso ondoren (Alberdi & Sarasola 2001: 127-134), *-ekiko* hizkuntza teknikoetan nola baliatu eta zein ordezko egoki erabili proposatu dute (Alberdi & Sarasola 2001: 135-139). Halaber, *-gatiko* atzizki konposatuarekin ere hainbat arazo sortzen denez, bide beretik jo dute proposamenak egiterakoan, “erabilera mimetiko gehiegizkoa salatu” ondoren (Alberdi & Sarasola 2001: 139-140).

4.3. *Bere(n)* izenordaina

IVAPeko estilo-liburuak gaztelaniaz *su* izenordaina agertzen den bakoitzean euskaraz *bere* balioak ez erabiltzeko gomendatzen du, eta anbiguotasunik izanez gero, beste eraren batean desanbiguatzea gomendatzen du (Arakama et alii 2005a: 77). Halaber, *bere(n)*, *haren/beraren* eta *haien* noiz eta nola erabili ere adierazita dago estilo-liburuan (Arakama et alii 2005a: 78), eta *Kalko okerrak* aztertzen dituen liburuan ere gomendio zehatzak egiten dira noiz zein izenordain erabili eta nola baliatu jakiteko (Garzia 2005: 76-78), eta *Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia* liburuak ere luze aztertzen du auzia, euskararen tradizioa sakon aztertzearekin batera (Alberdi & Sarasola 2001: 113-121).

4.4. Erakusleen balioak eta erabilerak

Lehen, bigarren eta hirugarren graduko erakusleen erabilera dela-eta, hirugarren graduko erakusleez mintzatzean “gaztelaniazko artikuluekin —*el, ella...*— parekatuta” ikusten dute IVAPekoek (Arakama et alii 2005a: 79).

Garziak, aldiz, anafora- eta katafora-erabilerei loturik azaltzen digu auzia, eta nabarmentzen du euskararen eta gaztelaniaren erakusle-sistemek ez dituztela balio eta erabilera berberak, eta euskaraz nola baliatu jasotzen du (Garzia 2005: 78-81).

4.5. Gaztelaniazko gerundioaren erabilera (okerra)k itzultzeaz

Gaztelaniazko gerundioaren adierak eta erabilerak itzultzeak makina bat lan ematen du. Gainera, kontuan izan behar dugu, askotan gaztelaniazko gerundioa ez dela behar bezala erabilia jatorrizko testuetan, eta oharkabean gerundioaren erabilera trakets horiek euskaratzen direla maiz. Hori dela-eta, *IVAPeko estilo-liburuak* —gramatika-arloko gai bat estilo-arazotzat azterturik ageri da— ordain trakets batzuen berri eman ondoren (Arakama et alii 2005a: 134-135), lehenik “erdal gerundioak euskaraz adierazteko moduak” zein diren adierazten du (Arakama et alii 2005a: 135-136), eta, ondoren, gaztelaniazko gerundio desegokietarako konponbideak proposatu (Arakama et alii 2005a: 137-139).

Alberdik eta Sarasolak ere laburzki salatu dute erdal gerundio okerren eragina euskal testuetan eta ordainak proposatu dituzte (Alberdi & Sarasola 2001: 319). Garziak ere gisa berean jokatu du *gerundio narratibo* izendatu duen erabilerarako (Garzia 2005: 84).

4.6. Gaztelaniazko baldintzako adizkiak eta adizki hipotetikoak euskaratzeaz

Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia liburuan, bereziki, ahalarako adizkien erabilera desegokiez mintzatu dira posibilitate epistemikoak eta ez-epistemikoak kontuan harturik (Alberdi & Sarasola 2001: 164-166). Garziak ere antzeko arazoak eta ahalararekin zerikusia duten beste batzuk gehiago ere jarri ditu agerian eta ordainak proposatu (Garzia 2005: 68-72).

IVAPeko estilo-liburuak hainbat adiera eta erabilera bereizten ditu eta gaztelaniazko esaldiak oinarri gisa harturik —erran gabe doa, gaztelaniazko esaldiak ere ez direla beti egokiak, estilo-liburuan adierazi bezala—, euskarazko erabilera oker eta egokien berri ematen du hainbat puntu kontuan harturik: “beste batek esandakoa edo zurrumurrua adierazten dugunean [...], modulatu beharrak eragindakoa [bada] [...], baldintzak ez diren baldintzak [daudenean] [...], baldintzaren ordeztu beste forma batzuk erabiltzea [...] eta baztertu beharreko formak” (Arakama et alii 2005a: 98-100). Horieta guztietan ikus daiteke, arazoa sortzen dela gaztelaniazko adizkien adierak eta erabilerak euskarazko —itzuraz— kideko diren adizkien adiera eta erabilerekin bat ez datozelako, edo hainbat lokailuren itzulpen desegokiak egiten direlako, interferentzien ondorioz.

4.7. Aditzaren aspektuaren erabilera okerrak

Aditzaren aspektuaren erabilera okerrak gertatzen dira maiz euskaraz, gaztelaniatik euskaratzerakoan hitzez hitzeko itzulpena eginez gero. Gramatika-arloko horrelako arazoei aurre egiteko, arazoak multzokatzeaz gain, ordain egokiak proposatu ditu *IVAPeko estilo-liburuak* —estilo-arazoez mintzatzean, berriro ere— (Arakama et alii 2005a: 160-161): gaztelaniazko orainaldia lehenaldian ematea; gonbitak, proposamenak edo eskaerak egiteko geroaldia erabiltzea; gertatutakoak eta amaitutakoak lehenaldi burutuan ematea; denborazkoetan, ekintza bat etorkizunean kokatzeko gomendioak; gaztelaniazko orainaldi neutroa emateko formak; aditza + *izana* erabiltzea iragana adierazteko; eta *bizi izan*, *nabi izan* eta *falta izan* aditz-perifraziak nola erabili.

Aditzen aspektuarekin loturiko antzeko arazoez eta beste batzuez mintzatu da Garzia. Gorago aipaturikoez gain, Garziak zorrotz aztertu ditu *orainaldi narratiboa*

deiturikoaren balioa, *-t(z)en* forma burutugabearen erabilera puntukaria eta aditz trinkoen erabilera ez-puntukaria, eta erabilera-proposamen zehatzak egin ditu kasuz kasu (Garzia 2005: 51-61).

4.8. Nominalizazioen erabilera

Euskal estilo-liburuetan, salbuespenik egin gabe, nominalizazioak saihesteko gomendioak egiten dira, estilo-liburu batzuetan erdaren eragina kontuan hartuz eta beste batean, berriz, horrelakorik aipatu gabe. Hauexek dira gomendioak laburbildurik:

Berriaren estilo-liburuak izen-estiloa saihestu eta aditz-estiloa erabiltzea gomen datzen du hainbat adibide baliatuz (Arrarats 2006: 25-26), gatzelaniari ia-ia erreferentziarik egin gabe.

IVAPeko estilo-liburuak administrazioko hizkeran gatzelaniaz erabili ohi den *estilo nominala* —aditzetik eratorritako izenen metaketan oinarritua— saihestea aholkatzen du (Arakama et alii 2005a: 98-131). Estilo-liburu horretan estilo-arazotzat jotzen bada ere, gramatikarekin zerikusi zuzena duen gaia da nominalizazioena.

IVAPekoak bezalaxe, Garzia ere nominalizazio-estiloaren gehiegikeriez aski luze mintzatu da *Kalko okerrak* liburuan (Garzia 2005: 86-89), eta haren iritziz konponbidea da “aditzean oinarrituriko sintaxi arruntetik izenean oinarrituriko nominalizazio-bide horretara itsu-itsuan ez jotzea da” (Garzia 2005: 88). Garzia mintzatu izan da lehendik ere auzi honetaz *Joskera lantegi* liburuan (Garzia 1997: 489-517).

Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia liburuan ere antzeko aholkuak ematen dira alboko erdaretako nominalizazio-joerari aurre egiteko (Alberdi & Sarasola 2001: 223-229).

Zabalak, ordea, nominalizazioei buruzko artikulu luze batean estilo-liburuen jokabide hori auzitan jartzen du, nominalizazioak saihestearen arriskuez ohartarazten du eta nominalizazio-estrategien balioak eta erabilerak aldarrikatzen ditu (Zabala 2007).

4.9. Erreferentziako adjektiboak itzultzeaz

Euskarak berez erreferentziako adjektiborik ez izateak —alde batera utzita *-(t)ar* atzizkiaren bidez eraturikoak (Zabala 1997: 541-543)— adjektibo horien ordainak emateko garaian arazoak eragiten ditu, hainbat bidetara jo beharra dagoelako. Erreferentziako erdal adjektiboen euskal ordainen gaia sarri ageri da estilo-liburuetan, gorago aipatu dugun Zabalaren artikularen bidetik (Zabala 1997), hala nola, *Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia* liburuan (Alberdi & Sarasola 2001: 145-155) eta *IVAPeko estilo-liburuan* (Arakama et alii 2005a: 155-156).

4.10. Egitura pasiboak eta inpersonalak itzultzeaz

Erdarazko egitura pasiboak direla-eta, euskarazko ordainak mimetikoki emateko dagoen arriskuaz ohartarazten gaitu Alberdi eta Sarasolaren *Euskal estilo libururantz: Gramatika, estiloa eta hiztegia* deritzan liburua, eta euskarazko testuetan nahiz itzulpenetan egitura pasiboen ordez estilo aktiboa erabiltzeko gomendia egiteaz

gain, *-gatik* kasuaren bidezko interferentziak onartezinak direla nabarmentzen du (Alberdi & Sarasola 2001: 44-45). Bestalde, “gaztelaniaren eta inguruko hizkuntzen eraginez eta itzulpen zaindugabeen eraginez” (Alberdi & Sarasola 2001: 160) zabaldu diren egitura pasiboan erabilera okerrak ere agerian utzi dituzte egile berberak, eta horien ordezkoko egokiak proposatu (Alberdi & Sarasola 2001: 160-164).

IVAPeko estilo-liburuak, estilo-arazoez mintzo delarik, honako hau dio: “gaztelaniaz gaur egun joera handia dago egitura pasiboak eta inbertsonalak erabiltzeko” (Arakama et alii 2005a: 132), eta eranstean du egitura horiek “baliagarri dir[el]a, gainera, egilea ezkutatu beharra dagoenean; esate baterako, Administrazioak bada-kienean hartzaileak ez duela gustuko izango mezua, edota lege bat idazterakoan” (Arakama et alii 2005a: 132). Euskaraz “herritarrari idazten zaionean komeni da, ahal den guztietan, egitura aktiboak erabiltzea, horrela argi gelditzen baita egilea zein den” (Arakama et alii 2005a: 132).

Berriaren estilo-liburuan ere antzeko gomendioa egiten da (Arrarats 2006: 25-26, 28), adibideetan ikus daitekeen moduan, egiletasunaz eta inbertsonaltasunaz honako hauek baieztatzearekin batera: “egiazko agentea edo egilea agerian uzten du aditz estiloak” (Arrarats 2006: 25) eta “esaldi inbertsonalek indarra kentzen diote testuari, eta ezkutatu egiten dute agentea edo egilea” (Arrarats 2006: 28).

Las oraciones de relativo constituyen uno de esos (fascinantes) temas de investigación que parecen tender un puente entre los estudios psicolingüísticos (de la *performance*) y los estudios gramaticales. Esto se ve acrecentado tal vez más en el caso de las oraciones de relativo del euskera, por cuanto son relativas con un *gap*, o relativas [-case] en la nomenclatura de Keenan & Comrie (1977). Es tan estrecha la relación entre *performance* y gramática en el caso de las relativas con *gap* en euskera que a veces es difícil asegurar si una relativa dada es gramatical o agramatical. Esto, por supuesto, es más obvio en las relativas donde es un caso oblicuo el que está relativizado, y sobre todo si se trata de un caso local (locativo, ablativo, adlativo). Pero tampoco es siempre sencillo medir la a/gramaticalidad de algunas relativas donde se relativiza el dativo.

Hay varios estudios sobre las oraciones de relativo en euskera que presentan gran interés. Entre ellos se encuentran de Rijk (1972), Oyharçabal (1989), Artiagoitia (1992). Aunque siento gran estima por los tres trabajos mencionados, en el funcionalismo las cosas se podrían ver desde otra óptica. Es sobre todo el trabajo de Hawkins el que nos puede inspirar otro tipo de planteamientos. Si aceptamos (como hacen Hawkins y el funcionalismo) que la gramática, o al menos partes de ella, se estructura como una convencionalización de la *performance* (es decir de preferencias psicolingüísticas), entonces la explicación última de los hechos gramaticales vendría dada al encontrar el tipo de preferencia psicolingüística que está gramaticalizada en cada caso. No está claro que esto se pueda aplicar a todas las partes de la gramática, pero, como he dicho arriba, las oraciones de relativo son construcciones que parecen acomodarse perfectamente a este tipo de explicaciones.

Desde esta perspectiva, los mecanismos sintácticos que de Rijk, Oyharçabal o Artiagoitia presentan para explicar la relativización en euskera serían en realidad un reflejo (un intermedio) de otra explicación más profunda (externa a la gramática) que vendría dada en términos de complejidad psicolingüística. Así, por ejemplo, las categorías vacías serían un reflejo del procesamiento que el hablante tiene que hacer de la traza que deja el elemento relativizado al ser omitido. Varios factores pueden contribuir a esa complejidad psicolingüística. Sin embargo, como suele ser común, las explicaciones generativistas tienden a basar la posibilidad de relativización en un

solo factor sintáctico. Es por este motivo que los tres estudios mencionados arriba no me convencen totalmente. Por esto y por el problema de la recogida de datos, que luego menciono. Oyharçabal, en realidad, se acerca mucho a un tipo de explicación funcionalista, cuando propone en la primera parte de su artículo una jerarquía para describir la relativización en euskera. De Rijk y Artiagoitia, por el contrario, dan desde un primer momento una descripción más discreta con sólo dos posibilidades (en realidad, de Rijk deja otra posibilidad al mencionar la existencia de dos dialectos, pero son siempre posibilidades discretas). En cualquier caso, Oyharçabal también se inclina por una explicación discreta cuando presenta su mecanismo formal en la segunda parte del artículo.

Más recientemente, EGLU-5 (también debido a Oyharçabal, según creo) vuelve a un tipo de explicación más gradual y más externa a la gramática. No hace falta insistir que me veo mucho más cercano a este tipo de explicación psicolingüística, por encontrarla del todo intuitiva. El trabajo desarrollado por Hawkins para explicar este tipo de factores externos a la gramática, creo que es de hecho uno de los mayores logros del funcionalismo.

Pero, sin embargo, el mayor problema que me preocupa ahora mismo referente a las relativas del euskera es el problema de la recogida de datos. He llevado a cabo una encuesta (que no he publicado todavía, dada su pequeña gran complejidad) en donde la jerarquía planteada por Oyharçabal parece confirmada, aunque no exactamente en los términos en que él la presenta (ni tampoco en los términos de de Rijk o Artiagoitia). Según esta encuesta, la relativización del caso locativo alcanza altos porcentajes de aceptación, aunque sin llegar a los del dativo, ni mucho menos a los de ergativo y absolutivo. Pero lo más importante es que los demás casos oblicuos, incluidos el ablativo, el adlativo y el instrumental, alcanzan porcentajes muy pequeños de aceptación (a no ser que estén ayudados por un contexto claro o por la subcategorización del verbo).

Por todo ello, creo que la primera tarea que hay que llevar a cabo para tratar de entender la relativización en euskera es una recogida exhaustiva de datos. Esta recogida de datos se debe de hacer, creo yo, siguiendo los consejos metodológicos sobre sintaxis experimental propuestos en libros como Schütze (1988) o Cowart (1997).

Además de esto, hay un (relativamente) nuevo campo de estudio en lingüística por el que yo me siento particularmente entusiasta. Me estoy refiriendo a la experimentación psicolingüística. Aunque este campo está todavía en mantillas, creo que es uno de los que más fructíferos puede resultar en el futuro, especialmente en temas como el de las oraciones de relativo (cf. Carreiras *et al.* 2007). Seamos optimistas y pensemos que por medio de la experimentación psicolingüística podremos algún día alcanzar a relacionar de una manera más directa los fenómenos lingüísticos con el procesamiento que de ellos hace la mente del hablante. De esa manera quizá podamos llegar a un acercamiento y un entendimiento cordial entre los mundos formalista y funcionalista.

9. Para concluir

En este escrito he repasado de una manera muy informal (y quizá no muy rigurosa) algunos de los reparos que el mundo funcionalista, y yo concretamente, suele

encontrar en los trabajos generativistas. No he pretendido ofender a nadie, pero pido disculpas si esto se ha producido. Mi objetivo principal, más bien, era dejar constancia de todo un mundo alternativo para el estudio de la lingüística (el llamado “funcionalismo”, con todas las variantes que este término pueda tener) que se abre para el que quiera acercarse a él.

En cualquier caso vuelvo a repetir mi más sincero reconocimiento y agradecimiento a los trabajos de lingüística vasca que se han escrito en el campo generativista en estos últimos 30 años. Sin ellos, ni yo ni ningún funcionalista podríamos haber avanzado tanto en nuestro humilde conocimiento del estudio de la lengua vasca.

Vaya mi más sentido agradecimiento a Patxi Goenaga, porque (como Nebrija) abrió escuela para que otros pudiéramos recorrer tras él el largo camino que lleva hacia el descubrimiento del mundo lingüístico de cada uno. Horregatik, Patxi, 30 mila esker.

Bibliografía

- Albizu, P. & L. Eguren, 2000, “An optimality theoretic account for ‘Ergative Displacement’ in Basque”, in W. U. Dressler et al. (eds.), *Morphological analysis in comparison*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia, 1-23.
- Aldai, G., 2007, “Discreteness and nondiscreteness in the design of tense-aspect-mood”, in M. Miestamo & B. Waelchli (eds.), *New challenges in Typology: Broadening the horizons and redefining the foundations*, Walter de Gruyter, Berlin, 271-291.
- , in press, “Is Basque morphologically ergative?: Western Basque vs. Eastern Basque”, *Studies in Language*.
- Artiagoitia, X., 1992, “Why Basque doesn’t relativize everything”, in J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, Supplements of *ASJU* 27, Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia-San Sebastián, 11-35.
- Bates, E. & B. MacWhinney, 1989, “Functionalism and the Competition Model”, in B. MacWhinney & E. Bates (eds.), *The crosslinguistic study of sentence processing*, Cambridge U. P., Cambridge, UK, 3-73.
- Bybee, J., 1985, *Morphology: A study of the relation between meaning and form*, Amsterdam / Philadelphia, John Benjamins.
- , 1988, “Semantic substance vs. contrast in the development of grammatical meaning”, *Berkeley Linguistic Society* 14, 247-264.
- Carreiras M., J. A. Dañobeitia, M. Vergara, I. Zieza, & I. Laka, 2007, “Object Relative Clause preference in Basque: Subject Relative Clauses are not universally easier to process”. Talk delivered at the Architectures and Mechanisms for Language Processing (AMLaP 2007) Conference, Turku, Finland, August 2007.
- Chomsky, N., 1981, *Lectures on government and binding*, Foris, Dordrecht.
- , 1995, *The minimalist program*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Comrie, B., 1976, *Aspect: An introduction to the study of verbal aspect and related problems*, Cambridge U. P., Cambridge, UK.
- , 1989 [1981], *Language universals and linguistic typology: syntax and morphology* (2nd edition), University of Chicago Press, Chicago.
- Cowart, W., 1997, *Experimental syntax: Applying objective methods to sentence judgments*, Sage, Thousand Oaks / London / New Delhi.

- Deaño, A., 1974, *Introducción a la lógica formal*, Alianza, Madrid.
- Dowty, D., 1979, *Word meaning and Montague grammar*, Reidel, Dordrecht.
- , 1991, “Thematic protores and argument selection”, *Lg* 67, 547-619.
- Dryer, M. S., 2006, “Descriptive theories, explanatory theories, and basic linguistic theory”, in F. Ameka, A. Dench & N. Evans (eds.), *Catching Language: Issues in grammar writing*, Mouton de Gruyter, Berlin, 207-234.
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal gramatika: Lehen urratsak (EGLU) I*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- , 1987, *Euskal gramatika: Lehen urratsak (EGLU) II*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- , 1999, *Euskal gramatika: Lehen urratsak (EGLU) V*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- van Gelderen, E., 2004, *Grammaticalization as economy*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia.
- Goenaga, P., 1980 [1978], *Gramatika bideetan* (2. argitalpena, zuzendua eta osatua), Erein, Donostia.
- , 1981, “Ohizko euskal sintaxia eta sintaxi berria”, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbao, 139-161.
- Greenberg, J. H., 1966 [1963], “Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements”, in id (ed.), *Universals of Language* (2nd edition), MIT Press, Cambridge, MA, 73-113.
- Haspelmath, M., 1999, “Optimality and diachronic adaptation”, *Zeitschrift für Sprachwissenschaft* 18, 180-205.
- Hawkins, J. A., 2004, *Efficiency and complexity in grammars*, Oxford U. P., Oxford.
- Hernanz, M.^a Ll., & J. M.^a Brucart, 1987, *La sintaxis: Principios teóricos. La oración simple*, Editorial Crítica, Barcelona.
- Hualde, J. I., G. Elordieta, & A. Elordieta, 1994, *The Basque dialect of Lekeitio*, Supplements of *ASJU* 34, Diputación Foral de Gipuzkoa, Donosti-San Sebastián.
- , & J. Ortiz de Urbina (eds.), 2003, *A grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin / New York.
- Keenan, E., & B. Comrie, 1977, “Noun Phrase accessibility and Universal Grammar”. Reprinted in E. Keenan (1987), *Universal Grammar: 15 essays*, Croom Helm, London 3-45.
- Laka, I., 1988, “Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque”, *ASJU* 22: 2, 343-365.
- , 1993, “The structure of inflection: a case study in X⁰ syntax”, in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (eds.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 21-70.
- Levin, B., 1983, *On the nature of ergativity*, PhD dissertation, MIT.
- , & M. Rappaport Hovav, 1995, *Unaccusativity*, MIT Press, Cambridge, MA.
- Lightfoot, D., 1991, *How to set parameters: arguments from language change*, MIT Press Cambridge, MA.
- , 1999, *The development of language: Acquisition, change, and evolution*, Blackwell, Malden / Oxford.
- MacWhinney, B. & E. Bates, 1989, “Preface”, in B. MacWhinney & E. Bates (eds.), *The crosslinguistic study of sentence processing*, Cambridge U. P., Cambridge, UK, xi-xvi.
- McMahon, A., 1994, *Understanding language change*, Cambridge U. P., Cambridge, UK.
- Mitxelena, K., 1977 [1961], *Fonética Histórica Vasca* (2.^a edición), Diputación Foral de Gipuzkoa, San Sebastián.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.

- Oyharçabal, B., 1989, "Prodrop and the resumptive pronoun strategy in Basque", in L. Márcz & P. Muysken (eds.), *Configurationality: The typology of asymmetries*, Foris, Dordrecht, 63-83.
- de Rijk, R. P. G., 1972, "Relative clauses in Basque: A guided tour", in P. Peranteau, J. Levi & G. Phares (eds.), *The Chicago which hunt: Papers from the Relative Clause Festival*, Chicago Linguistic Society, Chicago, 115-135.
- Rosch, E., 1978, "Principles of categorization", in E. Rosch & B. Lloyd (eds.), *Cognition and categorization*, Lawrence Erlbaum Associates, Hillsdale, 27-48.
- Salaburu, P., 1984a, *Hizkuntzaren soinuiegitura*, UPV/EHU, Bilbao.
- , 1984b, *Arau fonologikoak*, UPV/EHU, Bilbao.
- Saltarelli, M., (With M. Azkarate, D. Farwell, J. Ortiz de Urbina & L. Oñederra), 1988 *Basque*, Croom Helm, New York. Reprinted in London / New York, Routledge.
- Schütze, C., 1996, *The empirical base of linguistics: Grammaticality judgments and linguistic methodology*, University of Chicago Press, Chicago.
- Seidenberg, M., 1994, "Language and connectionism: the developing interface", *Cognition* 50, 385-401.
- Trask, R. L., 2002, "Ergativity and accusativity in Basque", in K. Davidse & B. Lamiroy (eds.), *The nominative & accusative and their counterparts*, John Benjamins, Amsterdam, 265-284.

ADITZ-AZPIKATEGORIZAZIOA

Izaskun Aldezabal Roteta

IXA taldea, UPV/EHU

1. Sarrera

Patxi Goenagaren *Gramatika bideetan* lanean irakurri nuen, hain zuzen, lehenengo aldiz *azpikategorizazio* terminoa; zehatzago esanda, *subkategorizapena*, orduan erabilitako terminoari estuki jarraiki. Hantxe ibiltzen ginen gustura “Euskal Morfosintaxia” ikasgaian, esaldien zuhaitzak egiten eta, besteak beste, aditzek (garai hartan *aditzen* azpikategorizazioaz mintzo baitzizaizkigun soilik) azpikategorizatu-tako *nor*, *nori* eta *nork* sintagmekiko komunztadura-erregelak aplikatzen. Esaldiko zuhaitzak egiterakoan, ordea, ez genuen berez aditz horren azpikategorizazioa lantzen, baizik eta delako aditzak esaldi horretan erakusten zuen azpikategorizazioa “egiaztatzen”; hots, esaldian ageri zuena zuhaitzetan deskribatzen saiatzen ginen. Erraza zirudien.

Ikasle garaiak bukatu-edo eta lanean hasteko unea iritsi zenean, Hizkuntzalaritza Konputazionalaren arloan beka batekin jarduteko parada suertatu zitzaidan Ixa taldean; gainera, aditzen azpikategorizazioa hartuta ikerketa-lan ildo bezala. Nik gustora asko hartu nuen proposamena, eta pentsatu nuen, “orain bai azpikategorizazioa zehaztu egin beharko dut, eta ez soilik egiaztatu”. Erronka polita zen.

Eta, hala, edozein ikerketa bezalaxe, lehenengoz bere definizioaren bila jo nuen. Ez zailtasunik gabe, jakina.

Hizkuntzalaritza aplikatuan, definizio zehatzak behar-beharrezkoak dira, zehazgabetasunik leku gutxi baitu “ordenagailuari” informazioa zehazteko garaian. Ustez argi eta finkaturik dauden —edo finkatutzat jotzen diren— kontzeptuak, esaterako “hitza”, “subjektua”, “objektua”, “sintagma”, “elipsia”, “anbiguotasuna”... berrikusi eta azterketa automatikoei begira finkatu beharra daude. Ordenagailu baten begietatik ez baitugu hitzik, sintagmarik, subjekturik...; guztiak dira karaktere-segidak, elkarren artean konbinatuz unitate linguistiko orokorrak osatzen dituztenak. Hizkuntzalaritza konputazionalon zeregina, hain zuzen, horixe da: orotariko unitate linguistiko horiek arakatu eta definitzea. Azpikategorizazio kontzeptuarekin, beraz, gauza bera gertatzen zaigu. Alde batetik, ikusi beharra dago historiari zer esaten duen eta, bestetik, hori nola gauzatzen dugun ordenagailuarentzat.

Definizioaren bila egindako lanean (2 atala), historiari begiratu labur bat eman diot lehenik, euskaraz zer aurkitzen dugun aztertu dut gero, eta azkenik definizio zehatz bat ematen saiatu naiz nire ikerkuntza-jardunean aztertutakoaren ildotik (Aldezabal 2004).

Azalpenak, arazoak, hipotesiak eta irtenbideak kasu erreal baten gainean ikusteko, adibide bat erabili dut: *eman*. Horrekin batera, lan bat hartu dut konparagai: Morante-k (2004) *dar* aditzari buruz (*eman* aditzaren baliokide orokortzat jotzen denari buruz) egindako azterketa. Horiek denak 3. atalean azaldu ditut.

Eta azkenik, 4. atalean, laburki bada ere, baliabide konputazionalek eskaintzen dizkiguten aukerak azpimarratu ditut: alde batetik, eskura jarriko dizkigute azpikategorizazioaren azterketan sakontzeko datuak, eta bestetik, azpikategorizazio-informazioa tresneria konputazionalan txertatuta, beste zenbait atazetarako bidea irekiko digute. Azken batean, alor konputazionala etorkizunean ustiatu eta baliatu beharreko lerro gisa aldarrikatuko dut.

2. Zer da aditz baten azpikategorizazioa?

2.1. Ibilbide historikoa, labur

Azpikategorizazioaren historiari begiratu bat emanez gero, badirudi argi dagoela azpikategorizazioa zer den: oro har esanda, “aditzak eskatzen dituen osagaien gauzaren sintaktikoa”. Ordea, hori baldintzatzen duten ezaugarriak zeintzuk diren eta nola errepresentatu behar diren ez da gauza hain argia.

Ikuspegi tradizionalan, Chomskyren *Aspects of theory of Syntax* lanean (1965), aditzak aztertzerakoan objekturik onartzen zuten ala ez kontuan hartzen zen. Informazio hori lexikoan zehazten zen, eta baita erregela sintaktikoetan ere; lexikoa sintaxian txertatzen zenean, murriztapenak aplikatu, eta *aditz iragankorrak* eta *iragangaitzak* bereizten ziren. Aditzak iragankor eta iragangaitzetan “azpikategorizatzen” zirela esaten zen.

Hurrengo teoriar, Gobernu eta Uztarduran, Chomskyk berak proposatutakoan (Chomsky 1981), ez da dagoeneko azpikategorizazioaz hitz egiten, baizik eta argumentu-egituraz. Aditzek lexikoan egitura tematikoa definituta dute, eta sintaxian bi printzipio aplikatuta (Kasu Iragazkiaren Printzipioa eta Egituraren Gauzatze Kanonikoaren Printzipioa), ale lexikalaren gauzaren sintaktikoa bideratzen da. Lexikoa idiosinkratikotzat jotzen dute, eta sintaxia orokortzat, sistema konputazionaltzat, Lexikoa eta Sintaxia argi bereiziz. Printzipio hauen arabera, *aditz iragankorrak*, *aditz ez-akusatiboak* eta *aditz ez-ergatiboak* bereiziko dituzte.

Teoriak aurrera egin ahala, zenbait autore (Hale & Keyser 1987, 1991, Jackendoff 1990, Levin 1993, Pustejovsky 1995, besteak beste) hasiko dira proposatzen sintaxia eta semantikaren artean harremana badagoela, eta egitura sintaktikoek motibazio semantikoa dutela. Horrekin lexikoan egiturarik badela eta orokorragoa dela defendatuko dute. Hala, autore hauek lexikoan hainbat ezaugarri proposatuko dituzte, eta gauzaren sintaktikoa ezaugarri horien guztien konbinazioz sortuko da. Aditz-motak normalean semantikoak dira (gehienetan mota gutxi aztertzen dira) eta bakoitzari hainbat gauzaren sintaktiko egokitzen zaizkio.

Ildo konputazionalari dagokionez, hasierako formalismoetan —LFG: Lexical Functional Grammar (Bresnan eta Kaplan 1982), GPSG: Generalized Phrase Structure Grammar (Gazdar et al. 1985), eta HPSG: Head-Driven Phrase Structure Grammar (Pollard eta Sag 1987, 1994)— sintaxia eta semantikaren arteko harremana onartzen da, eta informazio hori lexikoan bertan edota erregela sintaktiko konplexuetan kodetzen da. Formalismo hauek normalean goiko teoretatik edaten

dutenez, aditz-motak semantikoak edo/eta sintaktikoak izan ohi dira: aditz bakoitzak bere kodeketa du eta garrantzia batez ere mekanismo sintaktikoari ematen zaio.

Beste zenbaitetan, eta gaur egun oraindik ere garapenean segitzen dutelarik —Framenet (Fillmore et al. 1976, 2000), Verbnet (Kipper et al. 2000, Palmer et al. 2005), PDT (Hajic et al. 2003), besteak beste—, sintaxiaren eta semantikaren arteko harremana onartuta, ale lexikal bakoitzean informazio semantiko eta sintaktikoa zehazten da, eta paraleloki corpus bat etiketatzen da informazio horren arabera. Horrela, lexikoa corpusean agertzen diren datu berriekin etengabe aberasten doaz. Azken batean, corpusa, lexikoa behar bezala definitzeko alderdi beharrezkotzat jotzen dute.

Gauza da, terminologia gorabehera, adostasuna dagoela azpikategorizazioaren kontzeptuan, baina ez hori adierazteko eta gauzatzeko moduan. Gauzapean sintaktikoaz gain, ezaugarri semantikoak ere aipatzen dira (rol tematikoak, mota semantikoak...), eta horiek nola erreprestatu eta interpretatu da buru haustea.

Oro har esanda, batez ere hiru osagaien gauzapena aztertzen da: rol tematikoen bidez *kausaa*, *agentea* eta *gai gisa* jotzen direnena. Tratatzen diren egitura sintaktiko arruntenak pasiboa, inpersonala eta inkoatiboa dira. Eta bestetik, lan masibo gehien-gehienak ingeleserako eginak dira. Horrekin asko geratzen da aztertzeke, eta euskaraz, betiere azpikategorizazioari gagozkiola, ia dena egiteke.

2.2. Euskaraz zer?

Arestian esan dugu lan masibo gehienak ingeleserako egin direla eta teoriak lehenik hizkuntza honetan aplikatu direla. Beste hizkuntzetan —areago euskara bezalako eremu urrikoetan eta guztiz normalizatugabeetan— hipotesien egiaztapenak eta egokitzapen-lanak egiten bakarrik badugu lanik. Zeregin honetan jada sortzen dira zalantza ugari, hizkuntza guztiei dagokiena orokortzen eta hizkuntza bakoitzari bereziki dagokiona zehazten hasten garenean.

Segidan, aditzaren inguruan euskarari buruz egin diren zenbait lanen zertzelada batzuk ematen saiatuko naiz.

Goenagaren *Gramatika bideetan* bertan ageri zaigu jada perpaus batzuen gramatikaltasuna konpontzeko “beste era bateko erregelak” beharra: “Guk orain ditugun erregelak bakarrik ezin gara oso urruti joan. Beraz, beste era bateko erregelak behar ditugu” (Goenaga 1980: 36).

Goenagak sintaxiaren atal nagusi bat moldatzen du euskararako, erregela sortzaile eta bihurtzaileez osatutako gramatika bat, baina ohartarazten du oinarrian egongo litzatekeen hiztegia osatu beharra dagoela, gero sintaxian eraikitako zehazten tasunekin bat etorri ahal izateko. Hiztegiaren hitzen tasunak egotea “subkategorizapen-arazo”ekin lotzen du, eta horrekin batera gramatikak hori nola jaso behar duen zalantza planteatzen du:

Hitz egokia txertatu ahal izateko, hiztegiaren hitz horrek dituen tasunak eta zehaztean SK-ak dituenak ados etorri behar dute. Esan beharrik ez dago era honetako hiztegi oraindik ez dagoela, ez euskaraz ez beste hizkuntzetan. Baina, gero agertuko diren zenbait arazo hobeto ulertu ahal izateko, egoki iruditu zait subkategorizapenaren arazo honetaz zerbaite esatea. (Goenaga 1980: 41)

Arazoa da ea nola jaso dezakeen kontu hori gure gramatikak. (Goenaga 1980: 36)

Gatozen, bada, euskararen gramatikan, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika labur*-rean (Euskaltzaindia 1993) zehazki, jasotzen dena aztertzeraz.

Hasteko, ohartarazten zaigu aditzen sailkapena mota askotakoa izan daitekeela zein ezaugarri hartzen dugun oinarritzat. Sailkapen-mota bat “aditzak onartzen dituen kasu gramatikalen” arabera da:

...aditzoinak beste modu batera ere sailka daitezke: aditz bakoitzak onartzen dituen kasu gramatikaletan (hau da, nor, nork eta nori kasuetan) oinarritzen da beste sailkapen irizpide hau, aditzak erabakitzen baitu perpaus batean nork edo nori sintagmarik agertu behar duen edo ager daitezkeen. (Euskaltzaindia 1993: 205)

Aditzak zein kasu onartzen dituen “aditzak erabakitzen” duela diote; beste modu batera esanda, aditzak hautatzen ditu, azpikategorizatzen ditu kasuok.

Eta segidan, sailkapen bat proposatzen dute.

Aditzak onar ditzakeen sintagmak kontuan hartuz, hortaz, sailkapen nagusi hau egin daiteke: aditz batzuk nor motakoak dira; beste batzuk, berriz, nor-nork motakoak:

(34) Koldo berdur da ez ote den berriz ere eroriko

(35) Mirentxuk bidean agurtu gaitu

(Euskaltzaindia 1993: 205)

Nor-nork sailean, lehendabizi joera orokorra aipatzen dute:

Nor-nork sistemako aditzetan absolutiboan eta ergatiboan dauden sintagmak behar izaten ditugu normalean (nahiz hizkuntzak sintagma hauek izkutuan uzteko aukera ere baduen):

(36) [gure osabak] erosi omen du [etxea]

(37) [guk] hiru bider bazkaltzen dugu [txakurra] egunero

(Euskaltzaindia 1993: 205)

Eta ondoren, joera orokor horretatik kanpo geratzen diren azpimultzo batzuk bereizten dituzte:

— *Nor* “izuna” (faltsua) dutenak:

- *Nor* sintagmaren ordean inesiboa agertzen denean objektu bezala:

lanean dihardu

josten ikasi du

- *Nor* sintagma, berez, sintagma adberbiala denean:

filmak hiru ordu iraun ditu

- *Nor* sintagmarik ez duenean:

— *Nor-nori-nork* motako laguntzailea izanik:

amari deitu diot

— *Nor -nork* motako laguntzailea izanik:

urak irakin du
 nik bazkaldu dut
 ordulariak ez du funtzionatzen (aditz mailegatueta, askotan)

— *Nork* sintagmarik hartzen ez dutenak:

euria hasi du
 ez du merezi joatea(k) / lagunak ez du hori merezi
 horrela jokatzeari(k) ez du balio

Nori sintagma ez dute aditz-sailetan aipatzen, baizik eta aparteko puntu batean:

Gehienetan *nori* sintagma aukerakoa da perpausa eratzeko orduan:

- (87) Joan da mundu honetatik
- (88) Joan zaigu mundu honetatik
- (89) Berandu iritsi zen berria
- (90) Berandu iritsi zitzaigun berria
- (91) Auto berria erosi dut
- (92) Auto berria erosi dit aitak
- (...)

Badira, hala ere, *nori* sintagma eskatzen duten aditzak. Horrela, *nor-nori* sailekoak ditugu *bururatu* eta *jarraiki*. Aldiz, *nor-nori-nork* sailekoak dira *ekin*, *iritzi*, *eutsi* eta *eragin* (gaur egun *jarraiki* ere sail honetan erabiltzen da):

- (93) Ideia onik ez zaio bururatzen ume honi
- (94) lehenbailehen ekingo diogu lanari

Beste aditz batzuekin, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: ez dute inoiz ere *nori* sintagmarik onartzen. Batetik ditugu *lotsa izan*, *bizi izan* eta horrelako egiturak dituztenak. Bestetik, *jakin* eta *uste ukan/izan*:

- (95) *Horrenbeste jenderen aurrean hitzegin behar duelako lotsa zaigu
- (96) Berehala jakin du egia osoa
- (97) *Berehala jakin dio egia osoa

(Euskaltzaindia 1993: 214)

Horren ildotik, eta *nori* sintagma aditz-sailak osatzeko elementu gisa hartuta, Oregik bere “Euskal aditzaren sailkapen jator baten bila” lanean (Oregi 1975) proposamen bat egiten du: adizkiak erakusten dituen *nor*, *nork* eta *nori* marketan oinarritzea. Eta, hala, ondoko sailak proposatzen ditu:

— NOR-(NORI): *izan*, *etorri*, *ibili*, *joan*, *egon*, *etzan*...

— NOR-(NORI)-NORK: *ukan*, *ekarri*, *eraman*, *erabili*, *egin*, *ikusi*...

— NOR-NORI (*izeki*, *jarrai*, *atxiki*,...), horietako batzuk gerora aldatu direnak:

- NORK-NOR (HURA izuna): *izeki*, *jarrai*, *irakin*, *iraun*, *jardun*, *irudi*...
- NORK-NORI-NOR (HURA izuna): *jarrai*, *eutsi*, *ekin*, *iritzi*, *eragon*, *inotsi*, *erion*...

Honenbestez, bai Euskaltzaindiaren bai Oregiren sailkapenak oinarri hartuta, ondoko sailak ditugula esan daiteke:

— *nor*: *berdur izan...*

— *nor(-nori)*: *etorri, izan, ibili, joan, egon, etzan...*

— *nor-nork(-nori)* (*ekarri, eraman, erabili, egin, ikusi...*) eta bere azpimultzoak:

- objektua inesiboan azaltzen denean (lanean dihardu)
- *nor* sintagma, balio adberbialekoa denean (filmak hiru ordu iraun ditu)
- *nor*, izuna denean (*irakin, bazkaldu*)
- *nork* sintagma hartzen ez dutenean (euria hasi du)
- aditz esapide batzuk (*merezi izan, balio izan*)

— *nor-nori-nork* (*ekin, eutsi*) eta bere azpimultzoak:

- *nor* izuna denean (amari deitu diot)

— *nor-nori* (*bururatu, jarraiki*)

Aditz bakoitza zein sailetakoa den zehaztea hiztegiaren ardura dela dio Euskaltzaindiak.

Argi dago ez dagokiola gramatikari, baizik hiztegiari, aditz bakoitza zein sailetakoa den zehaztea... (Euskaltzaindia 1993: 205)

Hori da euskal aditz-*sail* buruz aurkitzen duguna. Baina bestetik bada beste alderdi bat: *sail-aldaketak*:

Aditzak sailka multzokatu ditugun arren, sail batetik besterako aldaketak gertatzen dira. (Euskaltzaindia 1993: 208)

Euskaltzaindiak ohikoenak proposatzen ditu (Euskaltzaindia 1993: 208):

— Inpertsionala, *nor* eta *nor-nork* sailekoentzat:

- *nor-nork* → inpertsionala

saltzaileak sagarrak garesti saldu ditu → sagarrak garesti saltzen dira

- *nor* → inpertsionala

hemendik joaten da autobusa egunero Donostiara → hemendik joaten da Donostiara

— Arazlea, *nor inkoatiboentzat*

- *nor inkoatiboa* → arazlea

aitona zaharra hil da → aitona zaharra hil dute

Eta azken sail-aldaketari dagokionez hauxe dio:

Aditzen semantika kontuan hartzen badugu, mota askotako aditzak ditugu (informazio hori, hain zuzen, hiztegiak eman behar digunez, ez dugu guk hemen kontuan hartuko, aditzen forma edo itxuran eraginik ez duen bitartean). Horietako batzuk inkoatibo deitzen ditugu. Aditz inkoatiboak dira egoera aldaketa bat adierazten dutenak edo ekintzaren hasiera adierazten dutenak: ontzia bete da diogunean edo aitona

hil da diogunean, argi ikusten da hor egoera aldaketa bat suertatu dela: hutsik zegoen ontzia lehenik, eta orain betea dago; aitona bizirik zegoen, baina orain ez da bizi. (Euskaltzaindia 1993: 210)

Beraz, hiztegiak esan behar du alde batetik aditz bat gorago aipatu ditugun zein sailetakoa den, eta bestetik, zein mota semantikotakoa den.

Hiztegietara jotzen badugu, sail hauek errepresentatzeko, laguntzaile-motak aurkitzen ditugu: DA, DU, DIO, ZAIO. Eta beroietan ez dira ondo bereizten ez aipatutako sail eta azpisailak, ez sail-aldaketak, ez mota semantikoak. Esaterako:

- *Euskal Hiztegi*an (Sarasola 1997) eta *Hiztegi Batuan* (Euskaltzaindia 2000) DA, DU, DA-DU, DIO eta ZAIO erabiltzen dira. DA laguntzailea *nor* nahiz *nor(-nori)* aditzentzat erabiltzen da; DU, *nor-nork(-nori)* eta honen azpisailekoentzat; DIO, *nor-nori-nork* eta bere azpisailekoentzat; ZAIO *nor-nori* sailekoentzat; eta DA-DU, bai DA bai DU sailekoak direnentzat, dirudienez, goian aipatu diren “nor inkoatiboa” eta bere arazlea adieraziz.
- *Elhuyar hiztegi*an (Elhuyar 2006) DA, DU, DA/DU, DIO, ZAIO erabiltzen dira, goiko bi hiztegien moduan.
- *3.000 Hiztegi*an, aditzaren forma eta kategoria gramatikala ageri zaizkigu.

Jakina, hiztegiotan mota semantikoak ez baizik eta aditzen adierak zehazten dira, eta horien barruan zenbaitetan beste ezaugarri batzuk ere aipatzen dira; hala nola: [zerbait], [usaina], [norbaiti], ‘osagarriak *-i* kasu-atzizkia duela’... Ezaugarri horien bidez, adiera horretan sintagma jakin batek har ditzakeen hitzen multzoa edo sintagma-mota murrizten dute.

2.3. Estuguneak

Proposamen hauek aztertu ondoren, eta aditz bat sailkatzeari ekiten diogunean, ebatzi gabeko zenbait alderdirekin topo egiten dugu.

2.3.1. Aditzaren eskakizunak direla-eta

Aditzak erabakitzen du perpaus batean *nork* edo *nori* sintagmarik agertu behar duen edo ager daitekeen. Honenbestez, horrek esan nahi du *nor* sintagma aditz guztiek onartzen dutela beti?

Nor-nork saileko azpimultzotan ikusi dugu ez dela horrela, zenbait aditzek *nor izuna* dutelako. Beraz, *nork* eta *nori* sintagmez gain, *nor* ere beharrezkoa ote den aditzak erabakitzen du. Edo bestela, erregela orokor bat izan beharko genuke aditz guztioi *nor* onartzeko, salbuespenak aditz konkretu bakoitzean zehaztuz.

2.3.2. Sintagmen aukerakotasuna dela-eta

Nor-nork sistemako aditzetan absolutiboan eta ergatiboan dauden sintagmak hiztunak *ezkutuan* uzteko aukera duela dio Euskaltzaindiak; eta bestalde, *nor izuneko* (deitu dio, irakin du) azpimultzoak ditugu. Zein da “ezkutuan uztea”ren eta “nor izuna izate”aren arteko aldea? *Nor* ezkutuan egotea, zer da berez, *nor* beharrezko elementua izatea baina beti agertu beharrik ez izatea? *Nor* izuna, berriz, *nor* ezinezkoa izatea?

Esaldi batean *nor* gabe ageri zaigun aditz bat berehala sailkatu beharko dugu hauetako sailen batean: *ez du abesten* moduko esaldi batean zer pentsatu behar dugu, nor ezkutuan dagoela? Eta zer da ezkutuan dagoen *nor* hori?

Izan ere, ordenagailu baten begietan bi fenomeno horiek berdin agertzen dira: *nor* elementua ez dago esaldian. Aditz berrien sailak automatikoki eskuratzekoan, ez genituzke mota horiek bereiziko bestelako informaziorik gabe esaldian. Desberdinu nahi baditugu, zerbait gehiago erantsi beharko dugu: elipsia, esaterako, baldin eta badago.

2.3.3. *Sail-aldaketak direla-eta*

“Sail-aldaketa” zer den ez da guztiz argi geratzen. *Nor-nork* sailekoa den aditz bat (*saldu*) *nor* saileko izatera pasatzen denean, ez da besterik gabe *nor* saileko bihurtzen, baizik eta *nor* sailez adierazten den *inpersonal*a izatera pasatzen da. Izatez, *nor* sailean sailkatuta dauden aditzak (*berdur izan, etorri, egon...*) ez dira *inpersonal*ak. Beraz, “sail” hitzari, eta orobat “sail-aldaketa”ri ematen zaion estatusa argitu beharra dago.

Bestetik, sail-aldaketa ohikoenak bakarrik azaltzen ditu Euskaltzaindiak, eta hauek *nor* eta *nor-nork* sailekoei dagozkie bakarrik. Aditzak esaldietan aztertzen hasterakoan, ordea, kasuistika ugariagorekin aurkitzen gara berehalakoan.

Euskaltzaindiak *nor* izunekotzat jotzen ditu *josten ikasi du* eta *bazkaldu* du modukoak (azken hauek Iparraldean *ɔ*arekin erabiltzen direla ohartaraziz). Baina badakigu *ikasi* aditzak *nor-nork* erabilera arrunta ere baduela (*matematika ikasi du*); eta bestalde, zenbait hiztunek *oilaskoa bazkaldu dut* modukoak ere onartzen dituztela. Orduan, aditz bera bi sailetan ageri zaigu. Bi sailetakoa bada, bi aditz desberdin dira? *Josten ikasi duko ikasi matematika ikasi dukoaren* desberdina da? Sintaktiko bai, argi dagoenez, baina *ikasi*, sarrera gisa aztertu behar badugu, bi sarrera emango dizkiogu? Edo sarrera bakarra eta bi homografo, sintaxiari loturikoak?

Literaturan hainbat sail-aldaketa aztertu izan dira (Levin 1993, Vazquez et al. 2000, De Rijk 2003, besteak beste). Lan hauetako askotan *alternantzia* terminoa erabiltzen da sail-aldaketa adierazteko. *Objektu inespezifik*oaren *alternantzia*, esaterako, askotxo aztertu den beste sail-aldaketa ezaguna dugu; *haurrak ez du abesten* edota *ume honek jaten du* modukoak horrelakoxetat jotzen dituzte. Aldaketa honetan zehazki, *informazio orokor / informazio zehatz* oposizioa dagoela aldarrikatzen dute (Vazquez et al. 2000, Levin 1993). Beraz, hemen ere ez da, berez, sail-aldaketa hutsa gertatzen. Izatez, laguntzaileari begira ez da aldaketarik gertatzen, baizik eta aldaera horietako bakoitzak *ɱ*abardura bat eransten dio aditzaren erabilera horri: *nor* dagoenean, objektu jakin bati buruzko informazio zehatza ematen da (*haurrak bertso bat abestu du*); *nor* gabekoan, berriz, ez du zehaztasun horrek axola, baizik eta aditzak adierazten duen ekintza bera azpimarratu nahi da (*abestea* haurren gaitasunen eta aukeren artean dago, baina honakoan *haurrak ez du ekintza hori egiten*). *Nor* izuneko aditzen artean sailkatuta dauden batzuek ez dute horrelako *ɱ*abardurarik adierazten.

Argi dago denak ez direla maila bereko sail-aldaketak, baina hain zuzen Euskaltzaindiak ere horixe esaten du aztertzen dituen *alternantzia*etan. Bata semantikoki esanguratsua da: inkoatiboa; eta bestea, besterik gabe *inpersonal*a, horrek esan nahi duena zehaztu gabe.

Gauza da, seguruenez sail desberdinak planteatzerakoan sail horretako jokaera sintaktikoa *bakarrik* erakusten duten aditzak izaten direla gogoan. Baina testu errealek erakusten digute aditz berarekin egitura anitz agertzen zaizkigula.

2.3.4. *Sailak eta azpimultzoak bereizteko ezaugarriak*

Nor izuneko aditzen artean, hiru azpimultzo daude:

- *Nor* sintagmaren ordeztu *inesiboa* hartzen dutenak: *jardun, ikasi...*
- *Nor* sintagma, berez, *sintagma adberbiala* denean: *iraun, pisatu...*
- Objekturik hartzen ez dutenak: *irakin, funtzionatu...*

Argi dago azpimultzo hauen arteko desberdintasuna azaltzeko, *nor, nori* eta *nork* kasuez gain bestelako ezaugarriak ere izan behar direla kontuan:

- *jardun, ikasi*: *non* kasuak desberdintzen du besteetatik
- *iraun, pisatu*: *nor* sintagma, sintagma *adberbiala* da. Objektua ez den beste zerbait da: *zenbat* edo *neurria* adierazten duen osagai bat. Ezaugarri semantiko bat sartzen dugu, eta horrek ematen du desberdintasuna
- *bazkaldu, dimititu*: *nor* benetan izuna da; hots, ez dago bestelako sintagmarik *nork* sintagmaz gain.

Ondorioz:

— *Nor* izuneko azpimotak adierazteko ezaugarri gehiago zehaztu behar dira:

- *nor* izuna - *nork* - *non*: *jardun, ikasi*
- *nor* zenbat - *nork*: *pisatu, iraun*
- *nor* izuna - *nork*: *bazkaldu, dimititu*

— *Neurria* (edo *zenbat*) erabiltzen dugun bezalaxe, beste osagai sintaktikoak ere (*nor, nori, nork, non...*) modu horretara zehaztu behar genituzke, aditzak maila berean deskribatzeko. Izan ere, “bi urte”k *iraun* aditzarekin *zenbat* adierazten du (iraupena, zehatzago esateko), baina *bi urte ditu* moduko esaldi baten aurrean, ez zaigu bururatzen *ukan, pisatu* eta *iraun* aditzen multzokoa denik. Adibide horretan objektua ikusten dugu, komunztadurari begiratuta, bederen. Beraz, sintaktikoki elementu bera dela dirudi, baina aditz batekin eta bestearekin duen balio semantikoa da aldatzen dena.

2.3.5. *Ondorioak*

Esan dugun guztiarekin:

— Badirudi *saila* aditzaren beraren sailkapenari dagokiola, eta *sail-aldaketa* egitura mailako zerbait dela. Alegia, egiturek beraiekin *ñabardura* sintaktiko-semantiko batzuk dituzte (DA-inpertsionala / DU ez-inpertsionala, DA-inkohatiboa / DU-arazlea, DU-orokorra / DU zehatza e.a.) eta aditzek, diren sailekoak direla, batzuk onartzen dituztela eta beste batzuk ez. Edo besterik gabe, ez dute *sail-aldaketarik* erakusten. Goldberg-ek (1995) —eta García-Miguelek (1995) eta Rebolledok (2002), harena onartzuz—, ikuspuntu honetatik aztertzen dituzte

aditzak eta egiturak. Hala, aditz horrek esaldian lortzen duen balio semantikoa bere sailak eta egiturak ematen dionaren arteko batura da. Hori da *Construccionismoaren* korrontean aztertzen dena.

- Sailak egiteko garaian NOR, NORI, NORK eta batzuetan NON kontuan hartzen diren bezala, zergatik ez hartu beste sintagma-motak ere?
- Sail-aldaketa batzuk orokorrak dira (aditz askok onartzen dituztelako) eta beste batzuk, partikularrak (aditz gutxi batzuek onartzen dituztelako). Izatez, autore batzuek, alternantzia orokor batzuk (euren ustez semantikoki esanguratsuak direnak) sailak definitzeko erabiltzen dituzte (Vázquez et al. 2000, Levin 1993): alternantzia esanguratsu berak onartzen dituzten aditzak, multzo edo sail berekoak dira, sail hauek semantikoak gertatzen direlarik.

Hala, Levin-en (1993) abiapuntua erakargarria irudi, eta Vázquez et al.en (2000) eskarmentua oinarri, 100 aditzen azterketa burutu nuen (Aldezabal 2000, 2004), autore hauek sailez eta alternantziez esaten dutena kontuan hartuta.

Azterketa horretatik, hurrengo ondorioak atera nituen:

Aditz guztien erabilerak aztertzerakoan (eta ez aditz bakarrarenak edota erabilera bakarra hainbat aditzetan) argi ageri da aditz bakoitzak egitura *usu* bat (egitura prototipiko bat) edo batzuk erakutsi ohi dituela, aditz guztietan errepikatzen diren *balio semantiko orokorren* bat adierazteko. Balio semantiko orokor hauek ez dira adierak, hiztegiatan agertzen diren modukoak, baizik eta kategoria kognitibo oinarritzakoak, predikatu-mota orokorrak, *sailak* osatzeko baliagarri izan daitezkeenak.

Zehazki esanda: aditz bakoitzean badira egitura batzuk hitz desberdinekin askotan errepikatzen direnak, eta egitura horietako bakoitza, oro har, balio semantiko bati lotzen zaio. Zenbaitetan egitura *usu* bat baino gehiago dago balio semantiko beraren alderdi desberdinak adierazteko; hori da, hain zuzen, alternantzietan gertatzen dena. Honenbestez, delako aditzak onartzen dituen egitura horiek guztiak dira bere *azpikategorizazio-patroiak*. Patroi hauek, azken batean, egitura sintaktiko-semantikoak dira, bietatik (sintaxitik eta semantikatik) dutelako.

Aditz batzuek, orduan, bat egiten dute adieraz ditzaketan predikatu-motetan. Horri begira sail berekoak dira. Baina horrek ez du esan nahi horretarako egitura sintaktiko berak erabiltzen dituztenik, nahiz eta askotan berdina izan. Ez eta alternantzia berak onartzen dituztenik, askotan halaxe izan arren.

Aditzak bere ohiko patroi sintaktikoetan parte hartzeari, *sintaxi aske* izaera aitortuko diogu. Hots, aditz horrentzat horiek dira jokaera sintaktiko arruntak. Hortik abiatuta, patroi horietatik aldentzen diren hainbat esapide edo unitate konplexu daude, eta geroz eta gehiago aldendu horietatik orduan eta *ez-askeagoa* da sintaxia aditz horrentzat. Gerta daiteke, hala ere, patroietatik aldendu gabe (hots, sintaxi askeari eutsiz) hitz bat aditz berorrek askotan agertzea eta denborarekin unitate konplexu gisa finkatzea. Edota besterik gabe, finkatu egiten da, azterketa sakonagoa behar duten arrazoiak direla medio. Eta jakina, batzuetan ez dago argi patroi baten aurrean gauden edota esapide batenean. Nolanahi ere, azpikategorizazio-patroien azterketarekin era berean esapideena (edo unitate konplexuena) ere egiten dugula esan nahi dut, albo-ondorio gisa.

Hori guztia hobeto ulertuko dugu 2. atalean. Orain, ikus dezagun, azpikategoriazioa ikuspuntu honetatik aztertuta, zein ezaugarriekin eta nola definitu beharko genukeen.

2.4. Definizioa, azkenean

Esandako guztiak kontuan hartuta, aditzen azpikategoriazioa da, hasieran ikusitako definizioari jarraiki, aditzak eskatzen dituen elementuen gauzapean sintaktikoa, baina eskakizun horiek *predikatu-mota orokor gisa zehaztuta*.

Aditz bakoitzak ez du jokoera bera predikatu-mota jakin bat gauzatzeko, ez deklinabide-kasu aldetik, ez osagai semantiko/sintaktiko kopuru aldetik, ez osagai semantiko horien azpian ager daitezkeen ale lexikalen aldetik, ez osagai semantiko horiek esaldian agertzeko eta berreskuratzeke duten gaitasun aldetik. Beraz, azpikategoriazioa definitzeko:

- Lehenengo pausua, aditz bakoitzak zein predikatu mota adieraz ditzakeen zehaztu behar da, predikatu mota horiek gauzatzeko beharrezkoak dituen osagaien kopurua eta beren izaera semantikoa definituz; azken batean, *rol semantikotzat* har daitekeena definituz.
- Behin hori eginda, predikatu mota bakoitza syntaxian gauzatzeko aukerak zehaztu behar dira:
 - Osagai bakoitzaren gauzapean desberdinak, deklinabide-kasuz zehaztuta.
 - Rol semantikoarekin batera, hautapen-murritzapenak (ezaugarri semantiko zehatzagoak, ale lexikalari berari dagozkionak berez), murritzapena argia denean eta betiere predikatu motak edota alternantziak bereizten baditu.
 - Osagaiak syntaxian ageri ez direnean berreskuratzeke mekanismoak; hotz, elipsi- eta inespezifikazio-gaitasunak.
 - Osagaien artean dauden dependentzia-fenomenoak (osagai bat agertzeko bestea agertu behar izatea nahitaez).

Ildo honetan kokatzen dira lan ugari. Lehengo atalean aipatutakoez gain (Verbnet, PDT, Framenet) gaztelania aztergai duten beste hainbat badaude: ADESSE (García-Miguel 2005), SenSem (Alonso et al. 2005). Euskaraz ere hainbat saio eginak ditugu Ixa taldean: Propbank gidalerroei jarraiturik bata (Aldezabal 2006) lankide katalanekin batera (<http://clic.ub.edu/cessece/index.php>), eta SenSem-eko gidalerroak jarraiturik bestea. Azkeneko honen emaitza, hain zuzen, VOLEM (CTP-2003-R4)¹ deritzan proiektu batean garatu genuen, eta ondoko web-orrian ikusgai jarri: <http://grial.uab.es/multi/>

3. Adibide batekin hobeto: *eman*

Saia gaitezen esan duguna *eman* aditzarekin eta honen baliokidetzat jo ohi den gaztelaniazko *dar* aditzarekin aplikatzen. Konparaketak are argiago uzten du fenomeno hauen orokortasuna.

¹ Eusko Jaurlaritzak 2003an Pirinioetako Lan-Elkarteak (CTP) sortzeko emandako dirulaguntzari esker burutu zen proiektu hau.

Zergatik itzultzen dugu berehalakoan *eman* aditza *dar* aditzarekin gaztelaniaz? Bi aditzok bi hizkuntzetan oinarrizko kategoria kognitibo bera adierazten dutelako (adieraz ditzaketen beste hainbat gauzen gainera) eta horixe delako aditzon esanahi usuena edo ustez arruntena: *transferentziatzko* kategoria kognitiboa. Baina beste hainbat ahalmen ere konpartitzen dituzte: transferentziatzko eskematik abiatuta beste-lako xehetasunak dituzten esanahiak sortzeko, eta baita, beste hitzekin konbinatuz, unitate konplexuak osatzeko ere.

Horixe ikus dezakegu Morante-k (2004) *dar* aditzarekin eta Aldezabalek (2004) *eman* aditzarekin egindako azterlana konparatuz. Bi lan hauetan, aditzon egiturak eta esanahiak sailkatzeko ikuspegia guztiz berdina izan ez arren, azpiko fenomeno askotan bi hizkuntzetan berdina dela ikusiko dugu.

Abia gaitezen euskarazko corpusean² aurkitu ditzakegun adibide batzuetatik:

- (1) Marrazkiak maite dituzenez gero, paper zuria eta koloretako lapitz batzu eman dizkiot. [NIK] [HARI] (EusCor)
- (2) Urte askoan kontzertu asko eman dut berarekin. [NIK] (EG)
- (3) (...); eta orduan izan zen Ixidro anaia txikia marruka hasi zenean, karraixi bizian, narrua kendu izan baliote bezala, amatxok azkenik muturreko eder bat eman zion arte. [HARI] (EusCor)
- (4) Jakintsuak esanda, mozorrozteia errutina hautsiz gure izaera adierazteko bide ezinobea dela uste dugu eta gainera horrela beste urte guztian betiko formak gordetzen jarraitzeko indarra ematen digu [HARK] [GURI]. (EusCor)
- (5) Onartezina da eta herritarrei nazka ematen die [HORREK] (EG)
- (6) Otaegik harri-jasotze munduan lehen pausuak eman ditu. (EG)
- (7) Gipuzkoako Caritasetik jakinarazi digutenez, kontu korronteetan diru dezente bildu da jada eta eskura ere askok eman dute laguntzatxoa. (EG)
- (8) Minutu pare bat besterik ez dut horretan eman, baina atetik irten ondoren ez dut kalean Altdorfer jauna ikusi. (EusCor)
- (9) Delikadezak, sentiberatasunak, fineziak... izuturik, hemendik ihes egin du-tela ematen du. (EusCor)

Zein azpikategorizazio-patroiren azpian sailkatu behar ditugu adibideok?

Corpusaren maiztasunari begiratzen badiogu, (1) adibideko egitura (*nork-nori-nork*) oso ugaria da, eta ondoko ezaugarri orokorrak ditu: *nork* izaki biziduna izaten da, *nor* objektu konkretu bat eta *nori* beste izaki bizidun bat. Hona horrelako beste bi adibide:

- (10) Gero Pistorius organista zaharrak paperezko pezeta, hogerleko eta bosdu-rokoak eman zizkidan [NIRI] horiekin batera gordetzeko, baina mesede baten truke. (EusCor)
- (11) Beso ezkerrez besarkatuko du, gizonak berak eutsiko dion kopa batean emango dio edaria [HARK] [HARI] hitz goxoak murmuriatzen dizkion bitartean. (EusCor)

² *Euskaldunon Egunkaria* eta *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa* izan dira corpus-iturri nagusiak, EG eta EusCor laburtzapenez adieraziak, hurrenez hurren. Ohar bedi, ordea, zenbaitzuk artikulurako laburtu edo moldatu egin ditudala, eta beraz ez daudela corpusean bezalaxe.

Hauetan erraz uler dezakegu transferentzia bat gertatzen dela: 'norbaitek zerbait (konkretua) ematen dio norbaiti'. Gaztelaniaz ere halaxe gertatzen da.

(2)ko adibidean, ordea, goian aipatu dugun egitura horretako zenbait elementu aldatu egiten dira: *noririk* ez dago eta *nor* ez da objektu konkretu bat (*kontzertu*). Corpusaren maiztasunari begiratzen badiogu, horrelakoak maiz agertzen zaizkigu, eta askotan objektua abstraktua da eta aditza aspektu burutugabeko formaren batean doa. Horrelakoetan badirudi ekintza bera azpimarratu nahi dela helburu zehatza zein den gorabehera. Nire ustez hauetan inpersonal moduko bat egin nahi da: *nor-nori-nork* egitura horretako *nori* inpersonalizatu nahi da, *nor-nork* egiturakoetan *nork*ekin gertatzen den moduan. *Nor* objektu konkretua den adibide gutxi batzuk ere badira:

- (12) kartzeleroak, medikuak, psikologoak, irakasleak... Medikuen asistentzia ezin da deskribatu, lotsagarria da, edozer gauzarentzat pilulak **ematen** dituzte [HAIEK] eta kito. (EG)

(2)ren modukoak Morante-k (2004) transferentziatzko eskema usutik aldentzen diren *unitate*tzat jotzen ditu (*dar un concierto / dar una conferencia*), eta baliokidetzat hau egiten du: dar = producir. Nire ikuspegitik, ordea, transferentziatzko eskema bera izango genuke, baina helburua desagerturik, *nor-nori-nork* eskemarekiko aldaera osatuko luke.

(3)ren moduko adibideetan *nor-nori-nork* eskema ageri zaigu, baina objektuaren izaerak *eman* aditzaren esanahi "arrunta" aldatzen duela dirudi. Morante-k hain zuzen horrelako erabilerak (*dar una patada / dar un golpe*) "dar = ejecutar" esanahia duten *unitate*tzat jotzen ditu. Gauza da *muturreko* ekintza bat dela (ez behintzat objektu konkretua), negatibotzat jotzen duguna gainera; baina azken batean transferentzia baten berri ematen da, dela negatiboa, dela positiboa.

Gauzak are gehiago zailtzen dira (4) eta (5)en moduko adibideetan, non *nor* nahiz *nork* kasuan dauden entitateak abstraktuak diren, eta *nori* kasuan dagoen entitatea gizakia edo behintzat izaki biziduna, borondatez egiten ez duen ekintza batean murgilduta aurkitzen dena. *Nor* kasuan doan entitateak izaki bizidunei dagokien egoera edo sentimenduak adierazten ditu, eta ondorioz *eman* aditzak transferentzia esanahia galdu eta egoera psikologiko bat adieraztera pasatzen dela dirudi. Morante-k "dar = provocar" balioa ematen die hauei.

Balio hauetan, eta baita (3)koen modukoetan ere, badirudi parte-hartzaileen borondateak garrantzia duela: (3)koetan hartzaileak ez du borondatez jokatzeko; alderantziz, badirudi borondatearen aurkako zerbait jasaten duela, (4) eta (5)en modukoetan hartzailearen aldetik (eta batzuetan ez eta igorlearenetik ere) ez dago borondatezko asmorik; besterik gabe ekintza gertatu egiten da eta hartzaileak jasan egiten du. Horregatik hartzen du hartzaileak "jasale" zentzua.

Baina zein neurritan hartu behar dugu kontuan borondatearen ezaugarria aditz baten osagai semantikoak definitzeko garaian? Transferentziatzko eskeman beti ulertu behar al da hartzaileak eta igorleak transferentzia borondatez (borondate onez) egiten dutela? Hori esatea gehiegizkoa da nire irudiz, esaldiz esaldi testuingurua erabat aztertzea ekarriko bailuke horrek. Testuinguru hori nolakoa den oraindik zehazteko dagoen honetan, aukera orokorraren alde egin dut: transferentzia eskema planteatu guztientzat, baina azpimarratuz egituraren arabera eta entitateen arabera *ñabardurak* daudela batetik bestera. Nolanahi ere, badira transferentziatzko balio hau izanik uni-

tate konplexu bilakatu direnak, objektuak ez duelako ohiko mugatzailea ageri; *min emanen* gertatzen dena, esaterako.

Gauza argi bat badela dirudi, hala ere: *nor* sintagman doan izena abstraktua denean, objektua transferentzia-ekintzarekin batera une horretan sortzen da. Objektua konkretua denean, objektu hori dagoeneko sortua dago, eta transferentziaren berri ematen da. *Al-daketa*³ kategoria kognitiboan (beste aditzen azterketatik bereizten den beste oinarritzko kategoria bat) ez dirudi hori gerta daitekeenik: *nor* kasuan dagoen entitateak sortua egon beharra du aldez aurretik; ezinezkoa dirudi aldez aurretik sorturik ez dagoena izaeraz edo lekuz aldatzea. Horixe da Vazquez et al.ek (2000) *afektazioaz* mintzo direnean diotena:

Por otro lado, distinguimos entre entidades afectadas y efectuadas, es decir, las de nueva creación. Así, consideramos que no podemos hablar de la afectación de una entidad que no existe con anterioridad al evento. (Vázquez et al. 2000: 163)

Eta horrexegatik zehazten dute aldetakako objektua *gai ukitu* (afektatu) gisa (gai hutsaren ordeztu). Baina aztergai honek beste aditz batzuetara eramango gintuzke.

Itzul gaitetzen adibideetara. Goiko guztien aldean, (6) eta (7) modukoak ez dira sar-tzen transferentziatzko eskema usuaren barruan. Hauetan eskema usu horretatik kanpo geratzen diren elementuak ditugu. (6) adibidean zehazki *nori* elementua ez da auke-rakoa; ez dago eliditurik edo inespesifikaturik. “Pausuak eman” diogunean, *nori* agertzea ezinezkoa da; *eman* sintaxi asketik urrundu egiten da. Eta horrekin batera baita trans-ferentziatzko esanahitik ere. Hori dela eta, hor unitate konplexu baten aurrean gaudela dirudi. (7)an ere *eskura* elementua ageri zaigu, *emanen* transferentziatzko eskema usutik aldenduz. Esanahia transferentziatzkoa da, baina eskema ez da usua. Hori horrela, *eskurak emanekin* unitate bat osatu eta gero transferentzia adierazten duela dirudi. Ohar bedi, gainera, *nora* sintagman ageri den entitatea *nori* sintagman doan entitatearen jabetzakoa dela (kasu honetan *zati-oso* harremana dugu, zehazki), eta hori gertatzen da transferen-tziatzko eskeman *nori* eta *nora* sintagmak batera ageri diren guztietan (aztertutakoetan, bederen); gainera, orduan bakarrik dirudi onargarri *nora* sintagmak. Erabilera hauen modukoak gaztelaniaz ere bereziak dira eskema usuarekiko (*dar un paso (* a alguien); dar en mano*).

(8) eta (9) adibideetan, bukatzeko (eta gehiago luza gintezke), ez dago transferen-tziatzko esanahirik; eta egitura sintaktikoak ere erabat desberdinak dira transferentziatzko-tik. (8)an *jarduera* bat dugu, norbaitek zerbaitetan denbora jakin batean egiten duena, eta (9)an, mendeko konpletibo batez baliatuta, *ustezko adierazpen* bat egiten da. Beste hizkuntzetan, gaztelaniaz adibidez, balio hauek ez dira *dar* aditzarekin itzultzen.

Hala izanik, eta adibide hauek aztertuta, *eman* aditza 3 predikatu-mota adieraz ditza-keen aditz gisa definituko genuke, eta predikatu hauetan gauzape sintaktikoak honelaxe definituko genituzke:

- ‘Zerbaitek (bizidun edo bizigabe) zerbait (ez nahitaez konkretua) zerbaiti (ez nahitaez bizidun) eman’ → Transferentzia: abiapuntua_ERG⁴, gaia_ABS, hel-burua_DAT

³ Egoerazkoa nahiz kōkapenezkoa izan daitekeelarik.

⁴ Hauek dira laburtzapenen adieraziak: ERG: ergatiboa, ABS: absolutiboa, DAT: Datiboa, INE: inesiboa eta ELA_KONPL: -ela erlazio-atzizkiak gauzatzen den konpletiboa.

ERG eta ABS elidi daitezke. DAT eta ERG inpersonaliza daitezke.

— ‘Denbora zerbaitetan eman’ → Jarduera: *esperimentatzailea_ERG*, *denbora_ABS*, *jarduera_INE*

INE elidi daiteke eta baita inespezifikatu ere. ERG elidi daiteke.

— ‘iruditu’ → *gaia_ELA_KONPL* -> Ustezko adierazpena

Aipatu gabe geratu diren beste hainbat erabilera badira, eta horietako askok unitate konplexuekin eta esatera finkatuekin dute lotura. Izan ere, erabilera batzuetan ulertutzat ematen diren elementu ezkutu asko daude, eta horrek egitura —eta askotan balio semantikoa bera— aldatzea dakar, ondorioz unitate konplexuei edo esapide luzeagoei bidea irekiz: *Eman egingo dizut!* edota *Nor da ematen?* Esaldietan ditugu horren adibideak, non lehenengoan [kolpea] ulertutzat ematen dugun eta bigarreanean [kartak].⁵

Baina, jakina, askotan zalantzan jartzen dugu predikatu-mota baten aurrean gauden edo unitate konplexuen aurrean, maiztasunak eta finkatze lexikoak ondo aztertu arte. Horrelakoak dira, adibidez, leihoak *iparraldera ematen* du modukoak, edo beste aditzetan ere aurkitzen ditugunak (*gurea bildu*; *herrira ezkondu*...). Hauetan ez dago argi unitate konplexu gisa aztertu behar diren (*iparraldera/begoalderalekialdera/mendebaldera eman*; *gurea bildu*; *herrira ezkondu*) edo beste predikatu orokor edo usu bat proposatu behar den: -ra eman (kokapena?): -ra bildu / -ra ezkondu (kokapen- eta egoera-aldaketa?).

Argi dago hemen esandako guztia hautatutako ikuspegiaren eta sistemaren barruan ulertu behar dela, eta aukera bat besterik ez dela. Gauza bera aztertzeko ikuspegiak desberdinak izan daitezke, jakina. Morantek, esaterako, proposatzen dituen unitate eta balio semantikoak bigarren hizkuntzaren ikasketari begira egiten ditu. Nire ikuspegia euskara bera eztertzea eta ezaugarriak nolabait modu sistematiko batean biltzea izan da, horrela beste maila linguistikoko atzetan baliagarri izan dadin; edo, bederen, ustez hala izango delakoan.

4. Bukatzeko, nolabait esateko

Orain arte esandakoak eta hemendik aurrera esan beharrekoak egiaztatu eta sakon berraztertzeko, datu errealak behar ditugu; areago, gure helburua datu errealak aztertzea bada. Eta orain arte Ixa taldean egindako tresneria konputazionalak⁶ horretan asko lagundu dezake.

Corpus-adibideak eta datu estatistikoak eskaintzen, esaterako. Azpikategorizazio-patroietan zehaztu ditugun deklinabide-kasuak eta konbinazioak delako aditzean maiztasun handienarekin agertzen direla esan dugu, baina era berean horietako batzuek elipsirako joera handia dute. Hori benetan horrela den berraztertzeko, patroia osorik jarraitzen duten adibideak, eta patroiko elementuren bat falta dutenak konpara daitezke. Datu horiek automatikoki lor ditzakegu, aldez aurretik maila morfosintaktikoan *etiketatuta* dagoen corpus batean bilaketak eginez. Patroian jarrita ez dauden deklinabide-kasuen maiztasuna ere atera daiteke, agerian agertzeko euren

⁵ Elhuyar hiztegi elebiduneko (Elhuyar 2006) adibideak ditugu hauek.

⁶ <http://ixa.si.chu.es>

artean joera desberdinak ote dauden ikusteko. Agerkidetza-maiztasunak ere atera daitezke, unitate konplexu baten aurrean edota patroio orokor batenean gauden aztertzeko.

Azpikategorizazio-informazioa lexiko konputazionalan txertatuta, berriz, aukera hauek egon litezke:

Hasteko, aditzak corpuseko testu batean informazio horrekin hornituta izanez gero, esaldian bertan ageri dituen sintagmekin konparatu eta bat egiteak konproba daitezke analizatzaile sintaktiko automatikoen bidez. Horrekin predikatu-moten artean aukeratzea posible izan daiteke: esaterako, *emanen* esaldi batean *nori* baldin badago, zuzenean transferentziazko eskema, eta beraz balioa, esleituko litzaioke, besteak baztertuz.

Itzulpenei begira, eta helburuko hizkuntza iturburukoaren antzera zehaztuta badago, itzulgai diren hitz guztien artean, predikatu-mota mailako bat egiteak egiazta daitezke. Horrela, seguruenez, itzulpen-aukerak murriztu egingo dira.

Honek guztiak, hala ere, azalpen eta ikerketa sakonago bat beharko luke. Hemen, besterik gabe, etorkizunean jorratzeko bideak plazaratu ditut, ildo automatikoa ezinbestean baliatu, aberastu eta birbaliatu beharra dagoela azpimarratuz. Gai batean geroz eta gehiago sakondu orduan eta aztergai gahiago sortzen dira ikertzeko; horixe baita azken batean, ikerkuntzaren funtsa.

Bibliografia

- Aldezabal, I., 2004, *Aditz-azpikategorizazioaren azterketa, sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean. 100 aditzen azterketa zehatza Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta metodo automatikoak baliatuz*, Doktoretza-tesia, UPV/EHU.
- , 2006, “Estudio preliminar para la creación de Euskal PropBank”, *Seminario SERES, Perspectivas de análisis de la unidad verbal*, in I. Castellón & A. Fernández (arg.), Universitat de Barcelona.
- , Aranzabe, M., Atutxa, A. & Lersundi M., 2002, *Levin-ek English verbs classes and alternations (1993) liburuan ingelesezko proposatzen dituen alternantziak euskararekin parekatuz*, Barne-txostena, LSI saila, EHU.
- Alonso, L., Capilla, I., Castellón, I., Fernández, G., Vázquez G., 2005, “The SenSem Project: Syntactico-Semantic Annotation of Sentences in Spanish”, *Proceedings of the International Conference RANLP*, 39-46, Borovets, Bulgaria.
- Aurten Bai fundazioa, 1996, *Diccionario 3000 hiztegia. Euskara-gaztelania, gaztelania-euskara*, Bostak bat.
- Chomsky, N., 1965, *Aspect of the Theory of Syntax*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- , 1981, *Lectures on Government and Binding*, Mouton de Gruyter, Berlín, New York.
- Elhuyar fundazioa, 2006, *Elhuyar hiztegia. Euskara-gaztelania, castellano-vasco*, Elhuyar edizioak.
- Euskaltzaindia, 1993, *Euskal gramatika laburra. Perpaus bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fillmore, Ch. J., 1976, “Frame semantics and the nature of language”, in *Annals of the New York Academy of Sciences: Conference on the Origin and Development of Language and Speech*, Volume 280, 20-32.
- , & C. F. Baker, 2000, “FrameNet: Frame semantics meets the corpus”, Poster session at The Linguistic Society of America.

- García-Miguel, J. M., 1995, *Las Relaciones gramaticales entre predicado y participantes*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela.
- , & F. J. Albertuz, 2005, “Verbs, semantic classes and semantic roles in the ADESSE project”, *Proceedings of the interdisciplinary Workshop on the Identification and Representation of Verb Features and Verb Classes*, Saarland University, Saarbrücken. 50-55, <<http://webs.uvigo.es/adesse/textos/saarb05.pdf>>.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- Goldberg, A., 1995, *A Construction Grammar approach to argument structure*, University of Chicago Press, Chicago.
- Hajic, J., J., Panevová, Z., Urešová, A., Bémová, V., Kolárová & P., Pajas, 2003, “PDT-VALLLEX: Creating a Largecoverage Valency Lexicon for Treebank Annotation”, in *Proceedings of The Second Workshop on Treebanks and Linguistic Theories*, Sweden, 57-68.
- Hale, K. L. & Keyser, S. J., 1987, “A view from the middle”, *Lexicon Project Working Papers 10*, Center for Cognitive Science, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- , 1991, “On the Syntax of Argument Structure”, Unpublished ms., MIT, Cambridge, MA.
- Jackendoff, R. S., 1990, *Semantic Structures*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Kipper, K., H. Trang Dang & M., Palmer, “Class-Based Construction of a Verb Lexicon”, AAAI-2000 Seventeenth National Conference on Artificial Intelligence, Austin, TX.
- Levin, B., 1993, *English Verb Classes and Alternations. A preliminary Investigation*, The University of Chicago Press, Chicago and London.
- Morante, R., 2004, *Conocimiento lingüístico y recursos computacionales para una aplicación de aprendizaje de vocabulario asistido por ordenador: VOCABLE*, Doktoretza-tesia, Universitat de Barcelona.
- Oregi, J., 1975, “Euskal aditzaren sailkapen jator baten bila”, *Euskera* 25, 359-372.
- Palmer, M., D., Gildea, P., Kingsbury, 2005, “The Proposition Bank: A Corpus Annotated with Semantic Roles”, *Computational Linguistics Journal* 31:1.
- Pollard, C. & I., Sag, 1987, *An Information-Based Approach to Syntax and Semantics: Fundamentals*, CSLI, Standford.
- , 1994, *Head-Driven Phrase Structure Grammar*, The University of Chicago Press, Chicago.
- Pustejovsky, J., 1995, *The Generative Lexicon*, MIT Press, Cambridge, MA.
- Rebolledo, M., 2002, *Estructura sintáctica y significado verbal*, Tesina, Universidad de Santiago de Compostela.
- Rijk, R. P. G. de, 2003, “Euskarazko antipasiboez”, in J. M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*, Iker-14, Euskaltzaindia, Baiona.
- Sarasola, I., 1997, *Euskal Hiztegia*, Kutxa fundazioa, Donostia.
- Vázquez, G., A. Fernández, M. A. Martí, 2000, *Clasificación verbal. Alternancias de diátesis*, Cuadernos de Sintagma 3, Edicions de la Universitat de Lleida, Lleida.

BEHAR IZAN + PARTIZIPIOA: GEROALDIKO BALIOAZ

Iñaki Amundarain

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea

0. Sarrera

Behar izan aditz perifrasiaren artean sailkatzen du EGLUK. Osagarri modura izena, partizipioa edo aditz izena har ditzake:

- (1) a. Ordenagailu berria behar dut
- b. Auzokoak behintzat garaitu behar ditugu
- c. Lan horiek zuk egitea behar dugu erakundean.

Gramatika lanetan sarriena *behar izan* perifrasi-multzoak partizipioarekin duen jokabidea aztertu da, eta ikuspegi sintaktikotik garrantzitsuak diren zenbait puntutan sakondu da: erabiltzen den laguntzaile mota, aspektua adierazteko bideak, multzo osoak dituen ezaugarri sintaktikoak... Lan honetan gaiaren beste alderdi bati helduko diogu: *behar izan + partizipioa* erabiliz adieraz daitezkeen balio/esanahi desberdinei egingo diegu behako bat, eta arreta berezia jarriko dugu geroaldia adieraziz azaltzen diren adibideetan. Auzi semantiko/pragmatikoekin ariko garenez, mugari zehatzak finkatzea ez da erraza: adibideak eskaintzen eta norabide nagusiak markatzen saiatuko gara.

1. Balioak

Behar izan aditz perifrasiaren *behar* izena azaltzen da, eta izen horren esanahitik eratorrita, bistakoa da adieretako bat 'beharrarena' edo 'obligazioarena' izango dela. Baina gramatiketan aski aipatua da ez dela hori har dezakeen balio bakarra.

'Beharraren' balioari buruz ari garela, bi mota behintzat aipa daitezke: kanpotik ezartzen zaigun beharra, eta bakoitzak norbere buruari ezartzen diona. Kanpotik ezartzen den beharra askotan 'obligazio' bezala hartzen da:

- (2) Auto gidariak 90 baino mantsoago joan behar dute errepide honetan

Alegia, legeak edo trafikoko arduradunek agindu dute nola ibili behar den errepide horretan. Horrelako kasuetan, gerta liteke subjektua pertsona ez izatea:

- (3) Egoera onean daudela ziurtatuko duen ikuskapena pasa behar dute autoek bi urtez behin

Kanpotik ezarritako beharraz ari garelarik, adibideak ezezkoak direnean, testuinguruaren arabera interpreta ditzakegu debeku modura, edo obligaziorik eza bezala:

- (4) a. Ez da 120 baino bizkorrago joan behar (debekua)
 b. Gure enpresan ez da gorbatarekin joan behar (obligaziorik eza)

Bakoitzak norbere buruari ezarritako beharra, berriz, askotan komenigarritasuna bezala interpretatzen dugu:

- (5) Argaldu egin behar dut

Komenigarritasuna adierazi nahi denean, subjektua pertsona izan ohi da gehiengotan (6), baina ez beti (7), eta askotan alegialdiko aditzak erabiltzen ditugu:¹

- (6) Gutxiago jan eta edan behar genuke
 (7) Legeak herritarron eskubideak errespetatu behar lituzke

Gomendioak emateko (8a) edo hitzunaren desioak era orokorrean adierazteko (8b) erabiltzen ditugu askotan horrelakoak:

- (8) a. Mirenekin adiskidetu behar zenuke
 b. Orixe izan bear litzake mundu onetako gure eginkizunik nausiena. Irai-zoz. *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itz atera ta.*²

Ezezkoetan ere berdintsu, komenigarritasun eza adierazten da, eta iraganeak ez direnean askotan gomendioak emateko erabiltzen dira:

- (9) a. Ez egin negar, / orlakorik ez nizun esan bear. Bilintx. *Bertso ta lan guziak*, 80.
 b. Ez zenuke gauzez bakarrik ibili behar
 c. Ahul zaude, eta ez duzu orain baino gutxiago jan behar
 d. Egin dizutena ez da zuzena, baina ez duzu haserretu behar

Nolanahi ere, 'beharraren' eremuko adiera hauetan guztietan, *behar izan* aditz perifrasiak kasuaren arabera lehiakide ditu *beharra izan*, *beharrean egon*, *beharrik ez izan*, *ezin izan*..., eta esan liteke ziurrenera azken hauek sarriago erabiltzen direla. Hizkuntza askotan gertatzen dira antzerako fenomenoak: nozio bera adieraz dezaketen forma desberdinak ditugunean, forma horietako batzuk adiera konkretu batzuetara gehiago lerratzen dira, eta nolabaiteko espezializazioa gertatzen da.

Bestalde, beharraren ideia indargabetuta edo era berezian ulertuta, harridurazko perpausetan, kexua edo atsekabea adierazteko ere erabili ohi da *behar izan*:

- (10) a. Zuek izan behar orain ere!
 b. Oraintxe etorri behar bisitan lehengusu hori ere, lanpetuena genbiltzanean!
 c. Beti tontakeriatan ibili behar!
 d. Biurria mutilla; zer galazi uratxe egin bear. Anabitarte. *Polikarpo*, 13.

¹ Adiera honetan, subjektua bizigabea denean, aditz izena edo izena bera errazago hartzen ditu osagarri modura *behar izan*-ek:

Teilatuak konpontzea behar du / teilatuak konponketa bat behar du / *Teilatuak konpondu behar du

² Tradizoko adibide guztiak *Orotariko Euskal Hiztegitik* ateratakoak dira. Aipatutako obren erreferentzia osoagoa han aurkitu daiteke.

Horrez gain, kanpoko iturriei jarraituz ematen den informazioa, probabilitatea, ustea, aukera... ere adieraz lezake *behar izan*-ek. Begira ondorengo adibideari:

(11) Mirenen amak Albizturkoa izan behar du³

Badirudi hiztunak honelako zerbait adierazi nahi duela: “informazio hau ez dizuet neurez ematen, baina hori da esaten dena/jakin dudana, eta hala dela dirudi”. *Izan* aditzarekin aurkitzen dira sarrien horrelako adibideak, egitura atributiboetan, eta euskalki guztietako lekukotasunak ditugu:⁴

- (12) a. Berak uste beziñ ederra etzuan izan behar. Urruzuno. *Euskal-Erritik Zerura*, 89.
 b. Burni-aldikoak (agian lenagokoak) izan behar dute (...) agertu diran lur-ontziak. J.M. Barandiaran, *Euskalerriko Leen-gizona*, 66.
 c. Hogoï urte etzituen izan behar Mariak [...], Johanek aldiz gehixeago: hogoïta-hamar bat? Narbaitz, P., *San Frantses Jatsukoa*, 59.
 d. Eskualde berekoak izan behar gira, emaztekoa! Jean Etchepare. *Berebitez*, 115.
 e. Dugun ikus bertze barne ttikia; hau baino ere pullitagoa behar da izan. Barbier, *Supazter chokoan*, 159.

Bestelako aditzekin ere aurki litezke adibideak:

- (12) f. Lanetik etorri behar zuen Joxek, etxea sutan ikusi zuenean.
 g. Ez diogu deituko afaltzera: lur jota egon behar du, eta hobe dugu bakean utzi.
 h. Edanda joan behar zuen, istripua izan zuenean, eta isun gogorra izango du.

Alegia, (f)-n, diotenez Joxe lanetik zetorren; (g)-n norbait lur jota dagoela jakin dugu; eta (h)-n, gidaria dirudienez edanda zihoan.⁵ Adiera honetarako, badirudi perifrasi osoak adierazten duena burututzat sumatu behar dugula, ezin dela etorkizunerako proiektiorik egin.

Erabilera honen oso antzerakoa izango litzateke, hiztunak zalantza adierazten dueneko, baina zantzuek-edo ondorio horretara ‘behartzen’ gaituztela dirudienekoa:

- (13) i. Enago ziertu ziertu nok ostu edo kendu izango deustan, baña neure irizijan urlizjak edo urlizizjak izan biar eban lapurreta au egin eustana. Pedro de Astarloa, *Urteco Domeca gustijetarako verbaldi icasbidecuac* II, 177.
 j. Hoin beltza izaiteko, ebenazkoa du izan behar. Jean Etchepare. *Berebitez*, 64.

³ Horrelakoetan, batzuetan *edun* laguntzailearekin subjektuak ez du ergatiboko markarik izaten: Eskribauaren jantziya izan biar du jaun batena, bañan arras antziñakua. (Soroa, *Antton Kaiku*, 110)

⁴ Bizkaiko eta Gipuzkoako testu batzuetan, *behar izan* adiera honetan erabiltzen denean, atributuak *-k* marka izaten du:

Urteten deuta bidian gizon lotsa ta itzal andiko batek, zeñek izan biar eban bere Aingeru jaoliak. Uriarte. *Marijaren illa edo Maijatzeco illa*, 83.

⁵ Baina aditzaren ezaugarri semantiko eta aspektualen arabera zailtasunak aurki ditzakegu:

- i. Mirenek (??konpondu/ ?konpondu izan) behar du teilatu hori
 ii. Bere aurka zabiltzala (??pentsatu / ?pentsatu izan) behar du hasieran

Lehenean zalantzan dago, baina zerbaitek darama pentsatzera lapurrak horiek di-rela; bigarrenean, ezaugarri jakin batek darama nolakoa izango den esatera.⁶

2. Geroaldiko balioa

Gramatika gehienetan aipatzen da, *behar izan* + *partizipioa* erabiliz geroa ere adieraz litekeela. Hona nola agertzen duen Lafittek (348. or.): “*Behar ukan* marque parfois un futur certain: Ex.: *uria egin behar du*, il va pleuvoir (litt.: ça doit pleu-voir)”

Horrelako egoerak euskaraz kanpoko hizkuntzetan ere gertatzen dira: geroaldia adierazteko aditz modalak erabiltzeko aukera dago, nahiz aditz modal horiek agian jatorrian beste esanahi bat zuten:⁷

It has often been observed that, in a variety of languages, some meanings which are not logically connected are nevertheless expressed by the same syntactic or morphological means. This is particularly noticeable in the area of modals. (...) Fleischman's (1982) study of the development of future-tense forms in Romance languages makes clear the considerable variety of source constructions from which new future forms developed to replace the latin inflectional features...” (Carstairs-McCarthy 1992: 180)

Adibidez, frantsesez eta gaztelaniaz, latinen inflexio-marken bidezko geroaldiaren alboan, oinarrian *habere* zuena sortu zen, eta une honetan *il va pleuvoir* / *va a llover* modukoak ugaritu dira; errumanieraz latineko *velle* ‘nahi izan’ hartu zen oinarritzat, eta sardinieraz latineko *debere* ‘behar izan’. Euskararen kasuan ere antzerako zerbaite izango genuke: aditz perifrasi edo aditz modal baten oinarrian izen bat dago (kasu honetan, *behar izena*); beharra adierazten duen *behar izan* aditzarekin, geroaldia adierazteko aukera dago. Hona tradizioetik ekarritako adibide batzuk:

- (14) a. Itsuak egin du amets ikusi behar duela, baña amets utsa da (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, 356)
- b. Egiten duzunean iuramentu hautsi behar diozula presuna bati burua, edo bertze gaizki bat egin behar diozula, bekhatu egiten duzu... (Axular, *Guero*, 256)
- c. Ezpata artu, ta etxeakoak ill bear zituela zebillen. (Cardaberaz, *Justuen ispi-llu arguia*, 72)

Hauetan guztietan beharra edo obligazioa ez, baizik eta geroaldia adierazten da: Mendibururen adibidean itsuak amets egiten du ikusiko duela, eta Axularren eta Kardaberaz adibideak etorkizunean egin nahi dutenaz ari dira.

⁶ Hitzunaren beraren iritziak pisu handiagoa duenean, hitzunek joera handiago dute geroaldiko *-ko* aspektu marka duten egiturak erabiltzeko, *behar izan* dutenetaz baliatzeko baino: “*Miren izango zen hau egin duena*”.

⁷ Zenbait hizkuntzalari esanahiaren eta morfologiaren arteko erlazioez gehiago arduratu dira, eta aztertzen dituzten puntuen artean daude, adibidez, zergatik amaitzen duten geroaldia adieraziz mota jakin bateko aditz perifrasi eta aditz konposatuak, edo baita, zein diren inflexio marken, eratorpenaren edo elementu lexikoen bidez adierazten diren nozioak.

Baina hori horrela izanik, ohartzen gara, baita ere, *behar izan*-en bidez ezin direla geroaldiko kasu guztiak adierazi. Adibidez, ondorengo hauek guztiak geroaldiko aspektu markaren bidez emango genituzke, ez *behar izan* erabiliz:

- (15) a. Etorriko al zara nirekin zinemara?
 b. Ezkonduko zara nirekin?
 c. Nekazarien batzarra igandean izango da
 d. Segi etxera, eta gero deituko dizut
 e. Bilera amaitzen hitz egingo dugu
 f. Eguna luzea izango da
 g. Nahi duzuna egingo dut zuri laguntzeko
 h. Zuk esango didazu zer nahi duzun
 i. Segituan itzuliko da Miren
 j. Laster jakingo dugu irabazlearen izena

Guztietan ere geroaldiko gertaerak adierazten dira, baina ez dirudi *behar izan* aditzaren bidez emango genituzkeenik. Beraz, *behar izan*-en bidez geroaldia adieraz liteke, ez ordea edozein motatako geroaldia. Lafittek 'futur certain' aipatzen zuen, eta nozio hori zehazten, barnean edo hurbil egon litezkeen erabilera eta adibideak agertzen saiatuko gara ondorengo lerroetan.

Geroaldiaren eremuan *behar izan*-en bidez zer esparru bete litekeen aztertuan, begira diezaiegun ondorengo adibideei: itxura batean, aurreko (15a) eta (15b) adibideen antzerakoak dira, baina oraingo hauetan, askoz errazago erabiliko genuke *behar izan* etorkizuna adierazteko:

- (16) a. Joan behar al duzue zinemara? b. Norekin ezkondu behar duzu?

(15a-b)-koekin alderatuz, desberdintasuna izan liteke (16)-koetan, geroari buruzkoak izan arren, aurretik ezaguna duten informazio edo hizketagai bat, edo aurretik hartutako erabaki bat dagoela tarteko: (16a)-n, aurretik mahai gainean dago zinemara joatea, aurretik aipatu delako, beste batzuetan antzerako egoeran joan ohi direlako...; (16b)-n, solaskideak jakinaren gainean dira norbaitek ezkontzeko asmoa duela. Aldiz, (15)-ekoetan, une horretan bertan egiten da geroko ekintzei buruzko adierazpena, eta ez dago aurretiaz ezaguna/bideratua den hizketagairik, edo aurretiazko erabakirik edo asmorik.

Honi lotuta, ohartzen gara, baita ere, (15c) adibidean, ziurrenera batzarraren data aurretiaz finkatua izango dela, ez dela une horretako kontua izango, baina aurretik hizketagai ezaguna ez balute bezala ari dira solaskideak, eta subjektuak ere ez du erabaki gaitasunik, ez du intentzionaltasun edo asmorik;⁸ horregatik, solaskideek beren arteko jardunean batzarraren inguruko gaia aurretik hizketagai izango dela badakite, orduan (17a-b) zuzenak izango genituzke *behar izan* perifrasiarekin:

- (17) a. Batzarra irailean egin behar dugu b. Noiz egin behar duzue batzarra?

⁸ Albistegietan, egunkarrietan... ez da erabiltzen *behar izan* geroaldia adierazteko.

Etorkizuneko asmoaren inguruko adibideak ere asko izaten dira *behar izan*-ekin:

- (18) a. Jan behar baldin banauzue, hil nazazue lehenik. *Euskal Baladak*, 2. liburukia.
 b. Bazkaldu gabe joan bear ote zun galdetu zion. Etxaide, *Joanak Joan*, 131.
 c. Iru gizonek eraso bear al diozue mutil oni? Tomas Agirre, *Uztaro*, 47.
 d. Jonek erizaintza ikasi behar omen du.
 e. Esan behar nizun, baina ez nintzen ausartu.

Jateko asmoaz, bazkaldu gabe joateko asmoaz, hiru lagunen artean erasotzeko asmoaz, erizaintza ikasteko asmoaz edo esateko asmoaz ari dira aurreko adibideak. Horren oso antzerakoa da hurrengo adibidea ere:

- (19) Ez al den esnatu bear beste etxeko guztiok jaikita gaudela? Nemesio Etxaniz, *Lur Berri Bila*, 16.

Era zabalean, esnatzeko asmoaz edo erabakiaz ari dira.

Hauengandik nahiko hurbil, subjektuaren erabakirik edo asmorik gabe, beste adibide batzuetan aurretik badakigu zerbaiz gertatzekoa dela/zela, edo hala izatea dago-gokio, edo hala gertatuko dela esan da:

- (20) Zu zera etorri bear dana, edo besteren baten zai egongo gera? Lardizabal. *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 396

Aurretik badakigu norbait etortzekoa dela, hori da ezarria dagoena edo dago-kiona, eta horri buruzko galdera egiten da. Horrelakoak sarri agertzen dira *behar izan* erabiliz:

- (21) a. Ezarri zion galdu behar zuen beso hura egundaino minik izatu ezpalu bezala. Joannateguy. *Sainduen Bicitzea. Lehen zatia*. 108
 b. Lehen ere aitziañetik gintuen abisatu /Antekrist gaixtoak behar zuela munduratu. Joannes Etcheberri, *Manual devotioñezcoa* I, 70.
 c. Ill bear ez banu bezala bizi naiz. Cardaberaz. *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioak*.
 d. Munduak bukatu behar duan azkeneko egunean etorriko da, biziak eta illak juzgatzen. Ubillos. *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 138.

(21a)-n, berez besoa salbatzeko aukera gutxi zuen, normalena galtzea zen; (21b)-n, erabakia zegoen 'antekrist gaixtoa' munduratzekoa zela; (21c)-n, hiltzea guztioi dagokigu; (21d)-n, onartua dago izango dela munduaren bukaerako azken eguna.

Geroaldia adieraziz tradizioan aurkitzen ditugun adibideen artean, Lafittek bere gramatikan emandakoaren ildokoak ere baditugu:

- (22) Bihar euria egin behar du

Horrelako zerbaiz esatean, etorkizunaz ziurtasun osoa baino gehiago, adierazi nahi izaten da badirela nolabaiteko datuak/zantzuak hori esatera garamatzatenak (eguraldia hartzen ari den itxura, meteorologoen iragarri dutena...), aukera handia ikusten dugula horretarako. Bide horretatik esplikatu litezke ondorengoak ere:

- (23) a. Agintari honek hondamendira eraman behar gaitu!
 b. Orretzek galdu bear au i! Orretxegatikan ustelduko aiz i kartzelan batean! Apaolaza. *Patxiko Txerren*, 47.
 c. Orixe da etxe onetako Judas. Orretzek kendu bear digu danori biziya. Apaolaza. *Patxiko Txerren*, 47.
 d. Ume guztiak elkaturik, ez dakizu zein gustura ibili behar duzuen udalekuetan!
 e. A zer nolako arratsaldia / pasatu bear deguna! Uztapide, *Noizbait* 49.
 f. Aizeak ekarren indarrean [...] igarri genduan itxasoak irakiñ bear ebal. Agirre, *Kresala*, 90.

Hauetan ere, 'ikusten duguna/aurretik dakiguna kontuan izanik...' edo horrelako zerbait dago atzean, aurretik hartutako erabakia, asmoa edo guztizko ziurtasuna baino gehiago.

Horrez gain, segituan gertatu behar duena, une horretantxe gertatzear dagoena... adierazteko ere erabili ohi da *behar izan*. Begira, adibidez, ondorengo adibide hauei:

- (24) a. Musu eman behar dizun unean, gogora zaitetz nik esandakoaz
 b. Etorri nirekin, zer gertatu zaidan kontatu behar dizut!
 c. Ai ama, bihotza lehertu behar zait!
 d. Oi, jan behar nau! Irentsi behar nau! Hel zakizkit! Jean Elissalde. *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo*. Eliza. 61.

Eratsu honetakoak komunikabideetan ere entzuten dira:

- (25) a. Traineru baten aldea du dagoeneko, azken paladetan dira... eta Oriok irabazi behar du gaurko estropada!
 b. Areara inguratzen ari da, arearioari iskin egin, jaurti egin behar du...

Ekintza hori bat-batean gertatuko dela adierazi nahian erabili da adibide hauetan *behar izan*. Eta beste batzuetan, etorkizun hurbilaz gain, hiztunaren ustez ekintza egokia litzatekeela iradokiz erabiltzen da *behar izan*:

- (26) Pitxerditxo bat ardo edan bear degu elkarrekin. JB Aguirre, *Eracusaldiac II*, 121.

Adibide honetan ez da esaten beharra edo obligazioa dutela, baizik eta egokia edo polita litzatekeela; etorkizun hurbilari buruzko eskaintza bat edo iradokizun bat egiteko erabili da *behar izan*.

Eta orain arte aipatu ditugunez gain, galdera erretorikoetan eta harridura perpauzetan ere ikus ditzakegu *behar izan* daramaten adibideak:

- (27) a. Gure Azkoitiko Eleiza ederrean kantatzen diranak illunpean gelditu bear debe? *Gavon sariac*, 6.
 b. Zeñek esan bihar zian neri ontan arkitu bear nintzala. Soroa. *Au ostatuba!*, 79.
 c. Gu baino gehiago dire Ezpeletarrak. Nork behar zuen erran! Hiriart-Urruty. *Zezenak Errepublikan*, 131.

(27a) adibidean ez du galdetzen soilki abesti horiek ilunpean geldituko al diren, baizik hala al dagokien, edo baita, neurri batean, iradokizuna egiten du hala gera ez daitezen.

Nolanahi ere, geroaldia aditz perifrasiaren bidez adierazteko aukerei dagokionez, aipatu behar da Hegoaldeko gazteen artean *behar izan*-entzat ohikoak izan ez diren erabilerak ere ari direla ugaritzen. Gorago esan bezala, gaztelaniaz historikoki *haber de + infinitiboa* etorkizuna adierazteko erabili izan da, eta gaur egun *ir a + infinitiboa* (*voy a jugar...*) oso sarri erabiltzen da geroaldia adierazteko. Gaztelaniazko *ir a + infinitiboa* perifrasiaren erabiltzen den adiera askotara *behar izan* hedatzen ari da, gutxienez hurbil ditudan Gipuzkoako Goierriko gazteen artean. Hona zenbait egoera:

- A) Pentsa dezagun norbait ospitalean gaixo dagoela, eta bisitatzera joateko asmoa dagoela. Gainera, gaixo dagoen horren urtebetetze-eguna da, eta ez litzateke egokia izango oparirik gabe joatea. Hori adierazteko, taldeko norbaitek:

Ez dugu oparirik gabe joan behar!

Horrelakoak adierazteko, eskualdeko hizkeran erabili izan dena, “*Ezin joango gara oparirik gabe!*”,⁹ edo horrelako zerbait izango litzateke, baina ez *behar izan* daraman adibidea.

- B) Adibide desberdin bat: Ikastetxean erretzea debekatua dago, bai barnean bai jolas-lekuetan. Baina ikasle batzuek ezkutuka erretzen dute. Behin eta berriz gertatzen da. Beraiekiko elkarrizketan, honakoa diote: “*Arau hori aldatzen ez baduzue, beti eduki behar dituzue arazoak!*”; etorkizuneko iragarpen bat egiten ari dira, eta *beti* adberbioarekin etorkizunearan iraungo duen edo errepikatuko den egoera bat adierazi nahi da.
- C) Hirugarren egoera: ikasleren bati zerbait ostu diote; irakaslea zerbaiten az-tarnak aurkitu nahian ari da, ikasleei galdezka, baina ez dute ezer handirik aurreratzen; ikasle batek esaten du: “*Alferrik ari gara, errudunak ez du aitortu behar!*”; geroaldiaz ari da soilik, normalean geroaldiko aspektu markaren bidez ematen dena *behar izan* perifrasiaren bidez ematen da: ikasleak hizketagai berri bat ekarri du mahai gainera une horretantxe bertan.
- D) Beste kasu bat izan liteke, liskar bat gertatu dela bi gaztetxoren artean. Irakaslea arrazoitzen eta egoera lasaitzen saiatzen da, eta liskarra amaitutzat emateko, elkarri barkamena eskatzeko agintzen die. Orduan, gaztetxoetako batek erantzuten du: “*Ba nik ez diot barkamenik eskatu behar!*”; ez bereziki barkamena eskatzea berari ez dagokiola adierazi nahian, baizik eta berak ez duela eskatuko garbi uzteko.

Guztietan ere, ikusten da *ir a + infinitiboa* gaztelaniazko egitura dagoela euskarazko adibideen atzetik. Era honetan, *behar izan* aditz konposatuak euskaraz geroaldia adierazteko tradizionalki izan duen esparrua zabaltzen ari da.

⁹ Goenagak (2002) ezinaren eta ahalaren adierazpen gramatikalak aztertu zituen: han aipatzen da ezinaren etorkizuna adierazteko bi aukera dituela hiztunak: *ezingo/(ezin izango) naiz joan; ezin joango naiz*. Goierriko hizkeran, bigarren aukeraren bidez, gaur egun, ahalari buruzko ezina baino gehiago, ekintzaren egokitasunik/komenigarritasunik eza adierazten da: ez da egokia oparirik gabe joatea. Beste adibide bat jartzeko:

Errenta aitopenaren garaia da; ezin egingo dugu iruzurik. (Izan ere, harrapatzen bagaituzte...)

Benetan, iruzurra egiteko gaitasuna/ahala badugu, baina egoera nolakoa den ikusirik, ez dugu egoki ikusten iruzur egitea.

3. Laburpena

Behar izan perifrasi-multzoaren bidez, beharraz edo obligazioaz gain beste balio batzuk ere adieraz daitezke. Izan ere, askotan oso hurbileko esparru semantikoak ditugu: nahitaezkotasunak edo beharrak sarri etorkizuneko ekintza dakar (*guztiok hil behar dugu / guztiok hilko gara*); norbere barne beharrak asmo edo komenigarritasun bezala uler litezke; edo erabilera epistemikoan, zantzuak/egoera ikusirik, hiztunak ondorioztatzen du, ziurtasuna maila desberdinekin, jarraian beste zerbait gertatuko dela, eta hori interpreta liteke behar modura, geroaldiko ekintza modura edo probabilitate modura.

Hizkuntza askotan gertatzen da geroaldia adierazteko inflexio markez gain aditz modalak erabiltzea. Baina ohartzen gara, baita ere, euskaraz geroaldiko aspektu marka erabiltzen den kasu guztietarako ez dela erabiltzen *behar izan* (15)-eko adibideak). *Behar izan*-en bidez nagusiki aurretik mahai gainean dagoen hizketagai baten inguruko ekintzak, aurretiaz erabakitako ekintzak, asmoa edo komenigarritasuna adierazten dutenak, segituan gertatzera doazenak, zantzuen bidez gertatuko direla pentsatzen dugunak... adierazten dira. Baina azken urte hauetan, gaztelaniazko *ir a + aitzoina* egituraren eraginez, *behar izan* perifrasiaren erabilera esparrua beste adiera batzuetara zabaltzen ari da.

Bibliografia

- Agirre, J. M., 1991, *Euskal gramatika deskriptiboa*, Labayru ikastegia, Bilbao.
- Artiagoitia, X., P. Goenaga, & J. A. Lakarra (arg.), 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJUren Gehigarriak 44, EHU, Bilbao.
- Bosque, I., & V. Demonte (arg.), 1999, *Gramática descriptiva de la lengua española*, Real Academia Española, Espasa, Madril.
- Carstairs-McCarthy, A., 1992, *Current Morphology*, Routledge, New York.
- Cartagena, N., 2002, "Los tiempos compuestos", in Bosque & Demonte (arg.), 2935-2976.
- Euskaltzaindia, 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II. Aditza*, Bilbo.
- Goenaga, P., 2002, "Euskal gramatika puntu batez: ahalaz eta ezinaz", in Artiagoitia, Goenaga, & Lakarra (arg.), 261-275.
- Gómez, L., 2002, "Los verbos auxiliares. Las perífrasis verbales de infinitivo", in Bosque & Demonte (arg.), 3253-3323.
- Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina (arg.), 2003, *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin/NewYork.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque*, Baiona.
- Michelena, L. & I. Sarasola, 1987-2005, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*, Mensajero, Bilbo.
- Ortiz de Urbina, J., "Semiauxiliary verbs", in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 2003.

THEORETICAL AND METHODOLOGICAL ISSUES OF TAGGING NOUN PHRASE STRUCTURES FOLLOWING DEPENDENCY GRAMMAR FORMALISM

M. J. Aranzabe, J. M. Arriola and A. Diaz de Ilarraza

IXA Group & UPV/EHU

1. Introduction

A Treebank is a text corpus in which each sentence has been annotated with its syntactic structure. Although the construction of a treebank is an expensive task, we believe that it is indispensable for the development of real applications in the field of Natural Language Processing (NLP) and also for the development of the Information Society. At a purely linguistic level, the Treebank is an essential database for the study of a language given that it provides analyzed/annotated examples of real language. The linguistic study directly results in an improvement in the quality of several applications, such as Part-Of-Speech (POS) taggers and parsers (Collins 1997, 2000; Charniak 2000), because it provides common training and testing material allowing different algorithms to be compared and improved.

In the last few years, treebank corpora such as the Penn Treebank (Marcus et al., 1993) and the Prague Dependency Treebank (Böhmová et al. 2003) have become a crucial resource for building and evaluating natural language processing tools and applications. As Abeillé (2003) sets out, there are efforts underway for Czech, German, French, Japanese, Polish, Spanish and Turkish, to name just a few. In Kakkonen (2005) we can find the state of the art of dependency-based treebanks.

The Basque Dependency Treebank (BDT) is actually the Reference Corpus for the Processing of Basque (EPEC) annotated at syntactic level. The EPEC is a 300,000 word corpus of standard written texts which aims to be a training corpus for the development and improvement of several NLP tools. It has been manually tagged at different levels: morphology, lemmatization and surface syntax (Aduriz et al. 2006). The next level of tagging —annotation of dependency relations— is currently being carried out in BDT.

In this paper, we describe the annotation of noun phrase (henceforth, NP) constructions in detail following the Dependency Grammar theory (Tesnière 1959). For a better understanding of our work it should be noted that for us, NP is a purely descriptive term. We are not concerned with understanding the internal structure of NPs. The syntactic description of Basque NPs has been mainly developed within the generative framework by Goenaga (1980), Eguzkitza (1993), Laka (1993), Artiagoitia (2002),

Trask (2003), and other attempts have been made in applied linguistics (Odriozola & Zabala 1992).

Mention should be made of Goenaga (1980), as being the first work in which the Basque NP structure is analyzed in detail using generative theory. He characterizes the syntactic structure in terms of hierarchically embedded constituents or phrases: more precisely, they are all derived from the same abstract linguistic approach: phrase-structure theory. Similarly, we present in this paper our work on syntactic annotation based on the dependency model. Specifically, this marks the first formalization for the annotation of Basque NP tagging.

Phrase-structure theory and dependency theory are two different methods of conceptualizing the linguistic structure of sentences. Focusing on the second of these, we should stress that in grammars constructed within the dependency theory (e.g., Hudson 1990, Mel'cuk 1988), syntax is handled in terms of grammatical relations between pairs of individual words, such as the relation between the subject and the predicate or between a modifier and a common noun. Grammatical relations are seen as subtypes of a general, asymmetrical dependency relation: one of the words (the head) determines the syntactic and semantic features of the combination. In addition, the head also controls the characteristics and placement of the other word (the dependent). The syntactic structure of a sentence as a whole is built up from such dependency relations between individual pairs of words.

In mathematical terms (Nugues 2006), the dependency relation imposes a hierarchical structure on the words of a sentence that has the characteristics of a directed tree. A directed tree is a completely connected, two-dimensional, directed acyclic graph with a single root. Each node of the tree represents a word, and directional arches between the nodes represent the dependency relation, leading from head to dependent. The tree is headed by the highest word in the sentence, the root, which is the word that does not possess a head of its own.

We opted for annotating syntax following the dependency annotation rather than phrase-structure. We give more detailed reasons for our choice of dependency annotation in Section 2.3. The rest of Section 2 sets out the basic ideas of our annotation scheme and the annotation hierarchy. In Section 3, we describe some noun phrase constructions in detail. We propose the annotation procedure for coordination in Section 4, and we conclude with a discussion of future work in Section 5.

2. Framework for the syntactic annotation of the corpus

Syntactic annotation is the practice of adding syntactic information to a text by incorporating markers that give information on the syntactic structure of the sentences: e.g. labelled bracketing, or symbols indicating dependency relations between words. Although they differ in the labels and, in some cases, the function of various nodes in the tree, most annotation schemes provide a similar constituency-based representation of relations among syntactic components (see Abeillé 2003). In contrast, dependency schemes (e.g., Sleator & Temperley 1993, Tapanainen & Järvinen 1997, Bunt et al. 2004) do not provide a constituency analysis but rather specify grammatical relations among elements explicitly.

2.1 Constituency-based formalism

In this type of formalism, every single constituent that makes up a syntactic constituent is tagged, including the syntactic category itself; thus, the final result derives from defining the emerging constituents and their categories (noun phrases, sentences, etc.).

The most complete and most widely-used English corpus, namely the *Penn Treebank* (Marcus et al. 1993), employs this sort of tagging. The following is an illustration of how a sentence would be represented in this corpus:

- (1) *John tried to open the window*¹
 (S (NP (N1 (N John_NP1)))
 (VP (V tried_VVD)
 (VP (V to_TO)
 (VP (V open_VVO)
 (NP (DT the_AT)
 (N1 (N window_NN1))))))))))

This method has three outstanding properties:

1. It is based on linear word order; that is to say, the order of syntactic components reflects the order in which they appear in the sentence.
2. Hierarchical information is made explicit.
3. The information function which is implicit, is irrelevant.

2.2. Dependency-based formalism

Unlike the constituency-based approach, dependency-based formalism (Järvinen & Tapanainen 1997) describes the relations between the components. This tagging formalism has been used for German (*NEGRA*) (Brants et al. 2003) and Czech (*PDT*) corpora,² among others. In this formalism, the representation for (1) above would be as follows:



The properties of this method include:

1. The relevance of word order is minimized.
2. It is a method strongly based on hierarchical relations.
3. The functional information is extremely important.

2.3. Constituency-based vs. dependency-based formalism

There is still an ongoing debate as to whether a constituency-based or a dependency-based formalism should be employed in completing the Treebank. Some

¹ Example taken from Carroll et al. (1998).

² http://ufal.mff.cuni.cz/pcedt/doc/PCEDT_main.html

researchers have taken the middle-ground between these two options, as in Montemagni et al. (2003), who employ the dependency-based approach only to combine the basic components of the sentence (noun phrases, prepositional phrases and the verb), without reaching the word-level for dependency purposes.

The formalisms described above may be generally suitable, but the success and influence may exert on applications highly depends to a great extent on the language under consideration.

Based on a number of tests set out in Skut et al. (1997), Tapanainen & Järvinen, (1998) and Oflazer et al. (1999), to deal with the free word-order displayed by Basque syntax, we have decided to follow the dependency-based procedure. The following issues also had a critical influence on our decision:

- Dependency-based formalism provides a way of expressing semantic relations that will constitute a good base tackling the next steps in the analysis-chain such as verb valence and thematic role studies (Agirre et al. 2006).
- We consider that the computational tools developed thus far in Natural Language Processing for Basque will serve to achieve dependency relations. Besides, the rich information involved would allow transformation from trees to other ways of representation.
- From our viewpoint, it is more straightforward to evaluate the relation between the elements that make up a sentence than the relation between elements included in parentheses, since the latter involves the additional task of determining where the parenthesis start and end.
- In our opinion, dependency-based formalism is a more accurate method for annotating empty elements, such as *pro*,³ long-distance dependencies and discontinuous constructions.

2.4. Theoretical and methodological basis

Taking into account the literature on tagging corpora in different languages, we decided to address certain parameters for determining the theoretical and methodological basis that are needed to build the Treebank. The basic decisions include the following:

2.4.1. Which elements will be tagged?

Our object of study is the sentence; i.e., the text enclosed between two full stops (and also some other punctuation marks such as the exclamation marks, question marks and so on). Furthermore, as well as the explicit elements making up the sentence, we have also considered certain elided elements such as the “*pro*”. Empty elements, such as *pro*, long-distance dependencies and discontinuous constructions can be intuitively annotated. In theoretical terms, we could annotate the empty elements following the dependency model. We also consider multiwords, entities and com-

³ *pro*: elided syntactic arguments that typically arise when the predicate displays agreement with the elided argument *pro* itself.

plex postpositions as analysis units. The sentences below exemplify different types of analysis units, shown in bold:

- (2) *Proposamenarekin **bat egin** zuen Espilondok.*
(Espilondo joins the proposal.)
- (3) ***Henriette Airek** olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak azalduko ditu.*
(Henriette Aire will explain her thoughts about universal poetry.)
- (4) *Leihoko **kartelen artetik** begiratzen du.*
(He/she looks through the posters affixed to the window.)

2.4.2. *Do we follow any theory?*

An annotation scheme usually has to be *theory-independent* in order to allow different interpretations of the tagged texts in different linguistic frameworks. The advantage of assuming a particular theory is that it may solve many problems. The disadvantage, however, is that theories are unable to predict many aspects contained in a corpus. In general, however, there is always a way to overcome the theory's occasional shortfalls when it comes to handling real texts. Consequently, considering as we do that the advantage outweighs the disadvantage in absolut terms, we have to some extent follow the generative approach in certain aspects, for instance, when analysing empty categories (such as *pro*).

2.4.3. *Definition of the annotation scheme employed*

In order to define the tagging system we have assumed the hierarchy proposed in Carroll et al. (1998). They propose an annotation scheme in which each sentence in the corpus is marked up with a set of grammatical relations, specifying the syntactic dependency which holds between each head and its dependent(s). Following this line of work, we have developed a tag set based on hierarchies of grammatical relations (see Figure 1). In this paper we will focus on those related to NP.

The dependency grammatical relations corresponding to NP can be described from two perspectives: i) NP head non-clausal relations (explained in detail in Section 3): *ncsubj*, *ncobj*, *nczobj*, *ncmod*, *ncpred* and *itj_out* (see Table 1) and ii) the non-clausal modifiers of NP heads: *detmod*, *ncmod*, *aponcmod* and *gradmod* (see Table 2).

3. Noun Phrase structure: noun heads with their dependents

As we have already stated we are not concerned with understanding the internal structure of noun phrases. NP stands for a dependency relation headed by a noun although, as Artiagoitia (2002) points out, the definition fails fully to explain the structure of NPs.

Our approach is intended to provide consistent argument labelling that will facilitate automatic extraction of relational data, without attempting to justify any theory.




Figure 1
Hierarchy of grammatical relations

3.1. Which component of the NP will be the Head?

Basque is what is known as a ‘head-final’ language, since heads tend to be placed at the right hand end of phrases. If we look at the structure of phrases in Basque, we can see that this morphological marker is placed in the last component of the phrase that carries it, regardless of the POS. Thus, the case marker can be attached to the head as in (5) or to a modifier of the head (such as an adjective) as in (6) and sometimes to the determiner, as in (7)

- (5) *Zenbait zalantzak ezusteko bidetik lortu zuten argia.*
(Some doubts were solved in an unexpected way.)
- (6) *Edozein mutil altuk (ergative case marker) egiten du.*
(Any tall boy does it.)
- (7) *Zalantza horiek ezusteko bidetik lortu zuten argia.*
(Those doubts were solved in an unexpected way.)

In (43a) the prenominal quantifier *hainbeste* 'so much/many' and *oso* 'very' compete for the same and one specifier position of the QP-layer; in (43b), on the other hand, the quantifier/degree word *nahiko* 'enough, rather' is incompatible with the numeral *bat* 'one' in the head position.

The head status of the adjective is the key to account both for the order of the degree word with respect to the noun-adjective pair and for the degree's incompatibility with any quantifier;¹⁶ if adjectives were not heads, we could explain neither

¹⁶ The only way to have this structure is resorting to relativization or having the adjective in post-nominal predicative position (Oyharçabal 2006):

- (i) a. oso onak diren hainbeste liburu b. hainbeste liburu, oso onak
 very good.art are.comp so many book so-many book very good.art
 'so many books that are very good' 'so many books, very good'

the canonical position of the degree word nor its incompatibility with quantifiers.¹⁷

In sum, the behavior of degree words inside DPs is fully predicted by the proposal in Artiagoitia (2006a): if adjectives are simple heads, they cannot form a constituent with a corresponding degree word; the latter, if present at all, must be located on a different layer (here, the one reserved to prenominal quantifiers) and is, therefore, in conflict with overt quantifiers.¹⁸

Argument #2. Basque attributive adjectives cannot take lexical complements:

- | | | | |
|---------|--|----|--|
| (44) a. | emakume harroa
woman proud.art
'the/a proud woman' | b. | *emakume bere lanaz harroa
woman her work.inst proud.art
'the/a woman proud of her work' |
| (45) a. | poema zailak
poem tough.art
'(the) tough poems' | b. | * poema irakurtzen zailak
poem reading tough.art
'(the) tough to read poems' |

The impossibility of taking complements is expected if adjectives are merged as functional heads; their complement will be another functional phrase (headed by a second adjective) or NP; this is exactly what we find.

Argument #3. This is related to the behavior of adjectives with proper names. If Longobardi (1994) is right in claiming that universally proper names are Ns that get interpreted under the D position, the following paradigm is revealing:


- | | | | |
|---------|--|----|--|
| (46) a. | Aresti (N in D) | b. | * t _i zahar Aresti
old
'Old Aresti' |
| c. | * Aresti zahar (N <i>in-situ</i>)
old
'Old Aresti' | d. | Aresti zaharr-a (not restrictive)
old.art
'Old Aresti' |
| e. | gure / aspaldiko Aresti (*a) (not restrictive)
we.gen / long ago.of
'our Aresti, Aresti of long ago' | | |

¹⁷ So we have some kind of *doubly filled Q filter*: degree words cannot occupy the same position as quantifiers. As A. Elordieta (p. c.) points out to me, it seems that [spec, F/A] should be an option for degree words: there is, however, no room for that in Scott's proposal. For him, F is just a bunch of abstract syntatico-semantic features, which can be checked by an entire AP in spec or be realized as heads, but an F projection doesn't license discontinuous adjectival constituents. One option would be to generate degree words in [spec, F/A] and have them obligatorily raise to [spec, Q], perhaps due to some quantification requirement. The outcome would be the same: both degree words (many true Qs) and quantifiers compete for the same structural layer. I leave this issue for future research.

¹⁸ The order N-degree modifier-A (% *emakume oso jatorra*, lit. 'woman very nice-article') is marginal for some speakers; see Artiagoitia (2006a-b) for arguments that this order is derived via scrambling. Interestingly, having degree words occupy [spec, Q] predicts that the such words will be limited to one per DP, regardless of where they show up; this prediction is correct:

- | | | | |
|---------|---|----|---|
| (i) a.* | [nahiko [oso neska garai] jatorr]-a
quite very woman tall nice.art
'the/a quite nice very tall woman' | b. | *[oso neska garai] [nahiko jatorr]-a
very girl tall quite nice.art |
|---------|---|----|---|

In other words, Basque adjectives display a clear *intervention effect* in that they block overt N-D movement in proper names (but not with left, phrasal, modifiers):



The insertion of the article would be an instance of what Longobardi (1994) calls *last resort* (i.e. in cases where N cannot reach D).

Oyharçabal (2007, p. c.) objects to this argument that proper names also require the presence of the article in contexts (=48a) other than the one just mentioned:

- (48) a. Etxeberri Sarako-a
 Sare.of.art
 ‘Etxeberri of Sare’
- b. Sarako Etxeberri
 Sare.of Etxeberri
 ‘Etxeberri of Sare’

But the word order pattern in (48a) is not neutral or without nuances: the DP *Etxeberri Sarakoa* has a restrictive reading (Mujika 1999: 1149), and usually implies that there are Etxeberris other than the one from Sare. So, why do we find the article in (48a)? To my mind, the special syntax and interpretation of these phrases may arise as a result of NP-scrambling to the left, namely:

- (49) [_{DP} Sarako Etxeberri \emptyset] → [_{DP} Etxeberri_i Sarako t_{NP} \emptyset] (← -a)¹⁹

The reason of this scrambling movement would be to treat the NP constituent as a given set and focalize whatever is left behind, pretty much in the same fashion described for Romance by Bernstein (2001).²⁰ There is a difference, then, between the orders *proper N-A-article* (46d) and *proper N-PP-article* (49a): while the first one is unmarked, the second one is marked and similar to the one found with regular nouns. The only common feature is the presence of the article, needed in both cases,

¹⁹ Similar considerations apply to alternations like *bigarren Isabel* ‘second Isabel’ (unmarked) and *Isabel bigarren-a* ‘Isabel the seconth’ (marked); see Artiagoitia (2008) for details.

²⁰ This NP scrambling may also take place with common nouns:

- (i) a. lapikoko okela (unmarked order)
 stew.of meat
 ‘stewed meat’
- b. % okela lapikoko-a (marked order)

The implication of *okela lapikokoa* for the speakers that accept that word order is that, out of all possible meats, we are referring to *stewed* meat. In other words, it is restrictive (there are other meats which are not stews). But (ia) has no such interpretation, i.e. need not be restrictive at all.

because the proper noun cannot target D (due to the blocking effect of A in 41d; as a result of the entire NP being scrambled to a higher position in 49a).

Argument #4. We have tasted the flavor of this negative argument in (46e): all phrasal modifiers other than adjectives are to the left of NP in Basque. Let us see some more examples:

- (50) a. *etxe honetako biztanle-ak* vs a'. **biztanle etxe honetako-ak*
 house this.of resident.art
 '(the) residents of this house'
- b. *Rayuelaren itzultzaile-a* vs b'. **itzultzaile Rayuelaren-a*
 .gen translator.art
 'the translator of Rayuela'

This datum, although not decisive by itself, suggests that the reason for adjectives being to the right of the noun could very well be their head status.

So all in all, once we accept the validity of the head-parameter, the idea that Basque adjectives stand in the head position of a fixed hierarchy of functional heads seems well supported: from that point of view, there is no necessary correlation between the existence of that functional hierarchy and the Cinque-Scott antisymmetric approach. Moreover, the NP- $\{F_1/A_1\}$ - $\{F_2/A_2\}$... $\{F_n/A_n\}$ -Q-D order is derived with no movement, a feature that perfectly matches the lack of N-A concord in Basque.²¹

One final note of caution: it may well be that the cartographic approach to adjective ordering restrictions is poorly founded, as Zwart (2006) and Truswell (2008) argue. Under this hypothesis, we would be left with the notion that Basque attributive adjectives are heads to the right of NP, period; this location would be independent of a set of functional heads, and perhaps independent of the head parameter *per se*.²² Be that as it may, the evidence for the head status of Basque attributive adjectives seems to be robust.

5. Conclusions

To summarize, I have pointed out that the head-parameter can adequately handle three salient features of the Basque DPs (quantifiers are pre- and post-nominal; adjectives are distributed to the right of NP and have head-like features; there exist *demonstrative-complement-D* word orders in Western Basque). So we are left with the following internal structure for the Basque DP:

- (51) $[_{DP} [_{PosP} \text{Gen}_{sub}, \text{Gen}_{obj} [_{QP} \text{XP/QP} [_{FP}\dots [_{NP} \text{S O N}] \dots F_n] \text{Q}] \text{Possessive}] \text{D}]]]$

Where the sequence F_n corresponds to the different kinds of adjectives and Gen(itive) to subject or object genitive phrases, obviated for the purposes of this article. Cinque's antisymmetry approach, on the other hand, requires a double and even con-

²¹ One could in principle reconcile antisymmetry with the idea that adjectives are heads: nevertheless, this solution would still be problematic for several reasons. See Artiagoitia (2006a) for details.

²² For a classical $[_{NP} \text{NP-AP}]$ adjunction analysis, the lack of modifiers and complements might be related to Emonds' (1976) *Surface Recursion Restriction*. See Artiagoitia (2006b) for discussion.

- Bernstein, J., 1997, "Demonstratives and reinforcers in Romance and Germanic languages". *Lingua* 102, 87-113.
- , 2001, "Focusing the "right" way in Romance determiner phrases", *Probus* 13, 1-29.
- Brugè, L., 1996, "Demonstrative movement in Spanish: A comparative approach", *University of Venice Working Papers in Linguistics* 6: 1, 1-53.
- , 2002, "The positions of Demonstratives in the Extended Nominal Projection", in Cinque (ed.), 15-53.
- , and G. Giusti, 1996, "On Demonstratives", *Glow Newsletter* 36, 24-25.
- Cinque, G., 1994, "On the evidence for partial N-movement in the Romance DP", in Cinque 1994, (ed.), 85-110.
- , (ed.), 1994, *Paths towards Universal Grammar. Essays in honor of Richard S. Kayne*, Georgetown U. P., Washington DC.
- , 1999, *Adverbs and Functional Heads. A Cross-Linguistic Perspective*, Oxford U. P., Oxford.
- , (ed.), 2002, *Functional Structure in DP and IP. The Cartography of Syntactic Structures, Volume 1*, Oxford U. P., Oxford.
- , 2005, "Deriving Greenberg's Universal 20 and Its Exceptions", *LI* 36.3, 315-332.
- Elordieta, A., 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, LOT series 47, Utrecht. Leiden University PhD dissertation.
- Emonds, J. E., 1976, *A transformational approach to English syntax*, Academic Press, New York.
- , 2008, "What is a letter? Which is the Extended Projection above N?", University of the Basque Country ms.
- Etxepare, R., 2003, "Negation", in Hualde and Ortiz de Urbina (eds.), 516-564.
- Euskaltzaindia, 1993, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- Fukui, N., 1988, "Deriving the differences between Japanese and English: A Case Study in Parametric Syntax", *English Linguistics* 5, 249-270.
- Giusti, G., 1997, "The categorial status of determiners", in L. Haegeman (ed.), *The New Comparative Syntax*, Longman, London, 95-123.
- , 2002, "The Functional Structure of Noun Phrases. A Bare Phrase Structure Approach", in Cinque (ed.), 54-90.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika Bideetan* [Thru the paths of grammar], 2nd revised edition, Erein, San Sebastián.
- , 2008, "Euskal neurri-sintagmen azterketa baterako: zenbat X, zenbat X-ago, zenbat X gehiago" [For an analysis of Basque measure phrases: how much X, the more X, how much X more], in *Jean Haritschelhar-i omenaldia. Iker-21*, Euskaltzaindia, Bilbao, 211-240.
- Greenberg, J., 1963, "Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements", in J. Greenberg (ed.) *Universals of language*, MIT Press, Cambridge MA, 73-113.
- Haddican, W., 2004, "Sentence polarity and word order in Basque", *The Linguistic Review* 21, 87-124.
- Hetzron, R., 1978, "On the relative order of adjectives", in H. Seiler (ed.), *Language Universals*, Gunter Narr Verlag, Tübingen, 165-184.
- Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina, (eds.), 2003, *A grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Kayne, R., 1994, *The Antisymmetry of Syntax*, MIT Press, Cambridge MA.
- Laka, I., 1990, *On the Nature of Functional Categories and Projections*, MIT PhD dissertation.
- Longobardi, G., 1994, "Reference and Proper Names: A Theory of N-Movement in Syntax and Logical Form", *LI* 25: 4, 609-665.

- , 2001, “The structure of DPs: some Principles, Parameters and Problems”, in C. Collins and M. Baltin (eds.), *The handbook of contemporary syntactic theory*, Blackwell, Oxford, 562-601.
- Mujika, J. A., 1999, “Erlatibo arrunta zehaztaile? Teoriak eta datuak” [Standard relatives restrictive? Theories and data], *Euskera* 44: 2, 1139-1158.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- , 1999, “Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque”, in J. Franco and A. Landa (eds.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 179-194.
- Oyharçabal, B., 2006, “DSaren barneko zenbait ordena kontu” [Some issues regarding the DP internal order], in B. Fernández & I. Laka (eds.), *Andolin Eguzkitza gogoan. Essays in honor of professor Eguzkitza*, UPV/EHU, Bilbao, 741-756.
- , 2007, “Antisimetriaren bidetik zenbait proposamen izen modifikatzaileen arteko ordenaz” [Some proposals on the order of noun modifiers using antisymmetry], talk given at the seminar *Antisimetria vs Buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbian*, Vitoria, February 14th.
- Rebuschi, G., 2000, “À propos d’une construction non-standard du basque”, *Lapurdum* 5, 237-282.
- Roca, F., 1996, *La determinación y la modificación nominal en español*, Universitat Autònoma de Barcelona PhD dissertation.
- Scott, G.-J., 2002, “Stacked Adjectival Modification and the Structure of Nominal Phrases”, in Cinque (ed.), 91-120.
- Sproat, R. & C. Shih, 1988, “Prenominal adjectival ordering in English and Mandarin”, in *Proceedings of the Eighteenth Annual Meeting of the North Eastern Linguistics Society*, 465-489.
- & —, 1991, “The cross-linguistic distribution of adjective ordering restrictions”, in C. Georgopoulos & R. Ishihara (eds.), *Interdisciplinary approaches to language*, Kluwer Academic, Dordrecht, 565-593.
- Trask, R. L., 2003, “The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names”, in Hualde and Ortiz de Urbina (eds.), 113-171.
- Truswell, R., 2008, “Attributive adjectives and nominal templates”, University College London ms, to appear in *LI*.
- Zuazo, K., 1998, “Euskalkiak gaur” [Basque dialects today], *FLV* 30, 191-233.
- Zwart, J.-W., 2006, “Uncharted territory? Towards a non-cartographic account of Germanic syntax”, Groningen University ms.

GERTAERA- ETA EMAITZA-IZENAK

Miren Azkarate Villar

UPV/EHU eta Euskaltzaindia

0. Sarrera

1968a hartzen dugu, oro har, euskararen batasun bidearen hasierako urtetzat. Ordutik hona, buru-belarri murgildu da herri hau Euskaltzaindiaren gidaritzapean euskara batu, estandar baterako ereduaren bila. Eta ahalegin horretan, azken 30 urte hauetan, unibertsitatearen ekarpena izan dugu ez bakarrik bidelagun, baita bide-erakusle ere. Izan ere, literatura-ondareari begiratzean (hori izan baitugu oinarri eta euskarri ibilbide honetan) nahitaezkoa izan zaigu hizkuntzalaritza teorikoaren ekarpena, hark eman dizkigun lanabesak baliatzea gure ondarea behar bezala aztertzeko. Bietan nabarmendu da Patxi Goenaga Mendizabal, hurrengo mendeetarako tradizioaren araberako euskara estandarra finkatzeko ahalegin eta ikerketan eta, horretarako ezinbesteko diren lanabes teorikoak euskararen zerbitzura jartzeko ahaleginean.

Euskararen estandarizazioari eta ikerkuntzari eginiko ekarpenaren berri ematea besteren esku utziaz, bi datu xume baino ez 1978ko *Gramatika Bideetan* hura gogora ekartzeko: hizkuntzalaritza teorikoaren bide berriak urratu zituen Chomskyren 1957ko *Syntactic Structures* gu guztion eskura jarri zuen saioa; eta handik urte gutxira, 1980an, berriro ere Chomskyren lanei jarraiki, *Gramatika Bideetan* berrikusia. Gero etorriko ziren doktore-tesia, edo Gramatika Batzordeko 25 urte luzeko lana.

Bide beretik landu eta jorratu nahi izan dugu hitz-eraketaren arloa ere, eredutzat ditugun euskal autoreen testuak eta hizkuntzalaritza teorikoaren argibideak uztartuaz. Landuxeagoa dugun Hitz-elkarketaren alorretik Eratorbidearen eremura etorriaz, hor ditugu lehenik Euskaltzaindiaren LEF batzordeak erator-atzizkiez landutako txostenak liburu gisa argitaratu ez, baina ikertzaile bati baino gehiagori bide eman diotenak, gaurko hizkuntzalaritza teorikoak baliatzen dituen azterbideak aplikatuaz, ikerlan teorikoa egiteko,¹ batetik, eta, horri esker, hainbat atzizkiren erabilera zuzena argitzeko, bestetik. Zer esanik ez, azken urteetan sortutako hainbat hitz eratorriren zuzentasunaz erabakiak hartu ahal izateko erabakigarriak izan dira azterketa hauek.

Eginkizuna, ordea, ez da amaitu. Esku bete lan dugu oraindik ere argumentu-egitura, theta-rolak, 'herentzia', egitura lexiko kontzeptuala, aditzen aspektu lexikoa, esanahiaren araberako aditz motak... kontuan harturik atzizkiak eta hitz elkartuak ikertzen. Egiteko dugun bide horretan pausu txiki bat eman nahi dut lan honetan, eta, horretarako, lerro hauek Patxi Goenagaren omenez moldatzen ari naizenez, *ger-*

¹ Ikus, besteak beste, Artiagoitia (1995), Gràcia et al. (arg) (2000), Perez Gaztelu et al. (2004).

taera eta emaitza izenak hartuko dituk aztergai, lotura baitute hark bere tesian landuriko nominalizazioekin.

1. *Gertaera eta emaitza izenak*

Gai korapilatsua da aditzari erantsirik *gertaera* edo *emaitza* adierazten duten atzizkien azterketari dagokiona. Ikus dezagun, lehenik, zeri deitu dioten hizkuntzalariek *gertaera* edo *emaitza* izen. Aditzoinei erator-atzizkiren bat erantsirik sortzen diren izenen artean, Levyk (1978), esaterako, hiru motatako nominalizazioak bereizten ditu (egilea adierazten dutenez gain), Goenagak (1984) gainera baino ez bada ere aipatzen dituenak:

- Ekintza nominalizazioak, 'aditzak adierazten duen ekintza egitea' esanahi dutenak (ingelesez 'act of' parafasia luketenak).
- Produktu nominalizazioak, norbaitek egindako ekintzaren ondorioztat har daitezkeenak, parafasi pasibodunak ('the outcome of an act of...', 'that which is produced by the act of...').
- 'Paziente' nominalizazioak, ekintzaren baten ondorio liratekeenak, baina parafasi aktibodunak ('y such that x makes y').

Azken bi nominalizazio-moten arteko desberdintasunik nabarmenena aditzaren objektua litzatekeenarekin batera erabili ahal izatean omen datza: *musical critique*, *critiques of music*, *constitutional amendment* edo *amendments to the constitution* gramatikalak dira, baina ez **student inventions of paper clips* edo **presidential appointees of women* adibidez.

Hala ere, oro har, *ekintza* nominalizazioen eta besteen arteko bereizketa izan dute askotan aztergai hizkuntzalariek. Eta guztiek aitortu dute atzizki beraren bidez sortutako izenak balio bat baino gehiago izan dezakeela. *Ikerketa* edo *erosketa*, esaterako, testuinguruaren arabera, izan daitezke 'ikertzea' zein 'ikertzearen ondorioa, emaitza'; 'erostea' zein 'erosi dena'. Azken urteetan, *argumentu egituraren* eta *herentziaren* argitan saiatu dira hizkuntzalariak azalpenak ematen.

1.1. *Gertaera-izenak / emaitza-izenak: gertaera argumentua*

Aditz baten argumentuak, eta hauek hartzen dituzten theta-rolak (rol semantikoak) aldatu egin daitezke, morfologia-eragiketen bidez. *Event changing-operations* deitzen die Haspelmath-ek halako eragiketei (2002: 211). Williams-ek (1981) ohar-tarazi zuenetik argumentu egitura duen oin bati atzizkia eranstean zer aldaketa gerta daitezkeen, artikulu-sorta mardula bil daiteke gai honi buruz idatziak bilduz gero.² Gai honetaz jardun duten hizkuntzalariak bat datoz esatean argumentu bat gehitu edo gutxitu ordez, aditzetik eratorriak izanik, ekintza edo gertaera adierazten duten izenek heredatu egiten dutela aditzaren argumentu-egitura. Eta aditzak argumentu jakin bat gauzatzeari eskatzen badu, hala eskatuko du 'ekintza' edo 'gertaera' adierazten duen izen eratorriak ere:

² Beste askoren artean, Booij (1988), Levin eta Rappaport (1988), Varela (1990), Piera eta Varela (1999).

- (1) a. el decano asistió a la asamblea > la asistencia del decano a la asamblea
 b. destruyeron *(el puente) (de madrugada) > la destrucción *(del puente) (de madrugada)
 c. coloca *(los libros) *(en la estantería) > la colocación *(de los libros) *(en la estantería)

Baina, horretaz gain, Fabb-ek (1984), Higginbotham-ek (1985), Grimshaw-ek (1990) edo Sadler eta Spencer-ek (1998) defendatu dute, kanpo eta barne-argumentuei loturiko theta-rol ez gain, aditzek badutela beste argumentu bat, *Event* rol tematikoa (Artiagoitiak (2000) *gertaera* deitu diona). Rol tematiko hori agertzen dela erakusten du, besteak beste, lokatiboak edo instrumentalak agertzeak (Fabb 1984). Hori izango litzateke *gertaera* adierazten duen *destruction* eta 'gertaeraren ondorioa' adierako *destruction* bereizteko modu bat.

Gainera, aditzak *eman* egin behar ditu theta-rolak modu batean edo bestean. Horregatik da nahitaezkoa *the destruction of the city*, barne-argumentua emanaz, eta agramatikala **the destruction* soila. Honek esan nahi du ezinbestekoa dela izen eratorri horiek beren ingurunean aztertzea; hau da, izen eratorria buru duen sintagma osoa kontuan hartzea.

Izen batek noiz duen *gertaera-egitura* eta noiz ez jakiteko irizpide-sorta bat eskaintzen du Grimshaw-k (1990), Artiagoitiak euskararentat moldatu duena (2000: 138-9).

1.2. Euskal gramatikarien sailkapenak

Euskaraz, *gertaera* izen dei diezaiekegu, aditzoinari *-era*, *-keta*, *-kuntza*-, *-menl/-pen*, *-dura*, *-tza*... atzizkiak erantsiz sortzen ditugun izenei. Oro har euskal gramatikarien artean gutxi aztertu izan den puntua da *nominalizazio* atzizki deitu izan direnena, baina, hala ere, ohartzen gara modu desberdinean sailkatu dituztela:

- Azkuek (1923-25) batetik “derivativos operativos” sailean ematen ditu *-era* eta *-keta*; “derivativos nominales efectos” sailean, *-ada* eta *-dura*; izen abstraktuak sortzen dituzten atzizkien artean sartzen ditu *-men* eta *-kuntza*.
- Lafittek (1944) bi sailetan banatzen ditu atzizki hauek: 'ekintza' edo 'gertaera' adierazten dutenak ('action' dio berak): *-keta*, *-kunde*, *-kuntza*, *-menl/-mendulpen*, *-te*, *-tza* eta *-tze*; 'ondorioa' adierazten dutenak, berriz, *-menl/-mendulpen*, eta *-dura*.
- Hualdek (2003) atal bakarrean bildu ditu guztiak, 'ekintza' edo 'ondorioa' ('action' or 'result') adieraz dezaketena atzizkien atalean hain zuzen ere. Batzuek gehien bat 'ekintza' adierazten omen dute (*-pen*, *-keta* edo *-mendu-k*); beste batzuek, batik bat 'ondorioa' (*-dura*), baina bereizketa ez omen da zorrotza. Gainera, aditz jakin bati atzizki bat baino gehiago erants diezaiekegu (*hedadura* 'extension, space that is covered', *hedaketa* 'act of spreading', *hedakuntza* 'diffusion, propagation', *hedakunde* 'act or effect of spreading'). Areago, “In recent neologisms, in particular, there is often great fluctuation for a single meaning. Thus, 'negotiation', for instance, may be rendered as *negoziazio* or *negoziaketa*, whereas 'federation' can be *federazio*, *federakunde* or *federakuntza*” (Hualde 2003: 343).

- De Rijkek (2008), azkenik, gramatikaren kapitulu desberdinetan sakabanaturik aztertzen ditu atzizkiok:
1. *-era* atzizkiak “manner acts” adierazten omen ditu; hau da, atzizki honen bidez sorturiko izenek adierazten du nola, zein modutan gertatzen den aditzak adierazitakoa; beste batzuetan, gertaera bera adierazten omen dute.
 2. *-keta* atzizkiak, aditz ez-estatiboei erantsirik ‘ekintza’ izenak (‘action nouns’) sortzen omen ditu, jarduerak eta prozesuak (‘activities and processes’) adierazten dituzten izenak. Baina behin baino gehiagotan ekintzaren ondorioa nabarmentzen omen da ekintza bera baino (adibidez, *erosketa* ‘purchase’, *irakurketa* ‘interpretation’ edo *salaketa* ‘denunciation, accusation’ izenen kasuan).
 3. *-men* atzizkiak, gaitasuna, ahalmena edo ‘state of mind’ adierazten omen du.
 4. *-pen* atzizkiak, aldiz, oro har, ekintzaren ondorioa edo emaitza adierazten du; zenbait urte lehenago, aldiz, (De Rijk 1991), “procès ou activité d’ordre psychologique” adierazten zuela *-pen* atzizkiak defendatu zuen. Bi atzizki desberdin balira bezala aztertzen ditu, beraz, De Rijkek (1991, 2008) *-men* eta *-pen*.
 5. *-dura* atzizkiak ere ekintzaren ondorioa adierazten du De Rijken iritziz eta *-pen* atzizkiak bezalakoxe esanahia du.

Hiruzpalau euskal gramatikari hartzea nahikoa da, batetik, zein atzizki-multzoz ari garen ikusteko; bestetik, sailkapenean dituzten desberdintasunez jabetzeko; hirugarrenik, euskalkien eragina ere kontuan hartu behar dela ikusteko;³ eta, azkenik, baina ez atzen, oso kontuan hartzekoa da Hualderen oharra, azken urteetako hitz berrietan sortzen diren zalantzak, bi edo hiru atzizkiren arteko aukerak, azpimarratzen dituen.

2. Gertaera eta emaitza izenak nola aztertu

Aditzetik eratorritako hitzetan, izen zein izenondo, ohikoa da azken 25 urte hauetan, Chomskyren (1981) ereduaren eta hortik aurrera landutako proposamenetan oinarriturik, funtsezkoak diren honako elementuak eta kontzeptuak bereiztea.

2.1. Argumentu-egitura, theta-rolak eta berentzia

Aditz bakoitzak eskatzen dituen ‘argumentuak’, nahiago bada aditzaren ‘balentzia’, eta argumentu horietako bakoitzari aditzak ezartzen dion theta-rola edo interpretazio semantikoa hiztegian jasotzeko orduan proposatu diren moduak alde batera utzita,⁴ aski zaigu lan honetan hizkuntzalariek aipatzen dituzten θ -rolak berrikustea (Artiagoitia 2000tik hartua):

- *egilea*, predikatuak adierazten duen ekintza edo gertaeraren egilearen rola jokatzeko duena. Egiletasuna nahimen edo borondatearekin lotzen da oro har; beraz, nekez izango dira egileak izaki bizigabeak.

³ *-era* atzizkia, esaterako, Hegoaldean ageri da, ez Iparraldean, *-tze* izanik baliokidea: *sorrera-sortze*, *sarrera-sartze*, etab.

⁴ Ikus Spencer (1991) edo Grimshaw (1990).

- *thema* edo *gaia*, predikatuak adierazten duen gertaerak edo ekintzak mugitzen duen pertsonak edo izakiak jokatzen duen rola.
- *jasaillea* (ingelesez *patient*), predikatuak adierazten duen gertaera edo ekintza gertatzen zaion pertsonak edo izakiak jokatzen duena. *Egoera aldaketarekin* lotu ohi da, baina praktikan ez dira *gaia* eta *jasaillea* gehienetan bereizten. Guk ere, oro har, ez ditugu bereiziko.
- *esperimentatzailea*, predikatuak adierazten duen *egoera psikologiko* bat jasaten duen izakiak jokatzen duena.
- *onuraduna*, ekintza batetik onura ateratzen duena; kaltea atereaz gero, *kalte-duna* genuke.
- *bitartekoa*, zeinaren bidez zerbait gertatzen den.
- *lokatiboa*, zerbait gertatzen edo kokatzen den lekuak edo izakiak jokatuko lukeen theta-rola.
- *helburua*, zerbait norantz mugitzen den adierazten duen lekuari edo izakiari dagokiona.
- *iturria*, lekua edo izakia zeinetik zerbait mugitzen den.
- *proposizioa*, perpauk arruntek izan ohi duten theta-rola izendatzeko erabiltzen dena.

Batzuetan ez da erraza izaten argumentu batek zein theta-rol duen esatea, rol bat baino gehiago jokatzen duela ematen baitu:

- (2) Mirenek Amaiari loreak eman dizkio.

Adibide honetan, *Amaia*, aldi berean, onuraduntzat eta helburutzat har dezakegu. Baina Jackendoff-ek (1972) ohartarazten duen bezala, zailtasunak, aditzaren beraren esanahitik sortzen dira, ez rol tematiko horiek bereizteko zailtasunetik.

Horretaz gain, kontuan hartu behar dugu 1.1. puntuan aipatutako *gertaera* rol tematikoa ere, gertaera-egitura duten izenen kanpoko argumentua, alegia:

- (3) Leizarragaren itun berriaren itzulpenak luzaro iraun zuen.

Antzeko adibide bat hartuz, Artiagoitiak (2000: 138) dio izen-sintagma horretako kanpo-argumentua “itzultzearen beraren gertaera genuke”. Beraz, *itzulpen* izenaren argumentu-egitura honela irudika dezakegu:

- (4) itzulpen: E, egilea, *gaia*.

Itzulpen izan daiteke, ordea, emaitza-izen; kasu honetan, izenaren kanpo argumentua ez da gertaera bera, izenak adieraz ditzakeen gauzen multzoari zuzentzen zaion R argumentua baizik:

- (5) itzulpen: R, egilea, <R = *gaia*>: “norbaitek itzultitako gauza(k)”
 (6) Arestiren itzulpen guztiak liburu batean bildu dituzte.

Erabilera honetan, *itzulpen* izenak, ez du “itzultze”aren gertaera ematen aditzera, baizik “itzultzearen ondorio diren ekoizpenak edo objektuak (norbaitek itzultitako gaiak)” (ibidem).

Argumentu-egiturari eta rol tematikoei dagokienez, eragin handikoa da ez-akusatibo / ez-ergatibo bereizketa, argumentu bakarreko aditzetan. Bi aditz-klaseek argumentu

bakarra eskatzen dute, baina lehen motako aditzen argumentuak *gaia* rol tematikoa hartzen duen bitartean, bigarren motakoetan, *egilea* izango da argumentu bakar hori.⁵

2.2. Aditzen aspektu lexikoa

Vendler-ek (1957) lau mota nagusitan bereizi zituen aditzak aspektu lexikoaren arabera: jarduera adierazten dutenak, lorpenak (*accomplishments*), burutzapenak (*achievements*) eta egoera adierazten dutenak.⁶ Aldi berean, adierazten duten ekin-tzak amaierarik baduen ala ez kontuan hartuta, lorpenak eta burutzapenak aditz telikoak direla esango dugu (*aurkitu* edo *bete*, esaterako), eta egoera zein jarduera adierazten dutenak, aldiz, ez-telikoak (*jakin*, *ibili*).

Modu batera baino gehiagotara irudikatu da Vendler-ek bereizitako aditz-mota hauetako bakoitzaren esanahi-zatikatzea (Van Valin 1990, 1993; Pustejovsky 1995). Funtsean, onartzen badugu burutzapenek egoera dutela barruan, eta lorpenak gertaera konplexuak direla, jarduera eta burutzapena inplikatzeko dutenak, honako esanahi-zatikatzeak proposatuko genituzke:

- a) EGOERA: predikatu' (x) edo (x, y)
- b) BURUTZAPENA: BILAKATU predikatu' (x) edo (x, y)
- c) JARDUERA C+/- Agentiboa: (DO (x)) [predikatu' (x) edo (x, y)]
- d) LORPENA: ϕ ARAZI ψ , ϕ jarduera predikatu izanik, eta ψ burutzapen predikatu

2.3. Esanahiaren araberako aditz-motak

Orain arte ikusi ditugunak baino ugariagoak dira hizkuntzalariek bereizi dituzten aditz-mota semantikoak (Levin 1993, Campos 1999, Oyharçabal 1992, 2003, Artiagoitia 2000, Alberdi 2003 edo Etxepare 2003). Autore hauetako batek baino gehiagok, eta beste askok, argumentu-egitura, batzuetan theta-rolak, eta esanahia ere kontuan hartuaz sailkatu dituzte aditzak.

Euskal hizkuntzalarien sailkapenak kontrajartzean ohartzen gara badela auzi bat euskaraz oraindik guztiz konpondu gabe dagoena, ez-akusatibo / ez-ergatibo bereizketari dagokiona. Bi aditz klaseek argumentu bakarra izan arren, argumentu bakar hori barne-argumentua da ez-akusatiboaren kasuan, *gaia* theta-rola hartzen duena; ez-ergatiboetan, ostera, kanpo-argumentua, *egilea* theta-rola hartzen duena.

Bereizketa hau euskarara aplikatzean, bat etorri dira hizkuntzalariak *hitz egin* modukoak ez-ergatiboak direla esaterakoan; *dimititu* edo *eskiatu* bezalakoetan ere ez dago zalantza handiegirik, argumentu bakarrari dagokion theta-rola *egilea* baita (hau da, borondatezko ekintzaz ari gara). Baina Oyharçabalek (1992) erakutsi du Ipar-Ekialdeko hainbat hizkeratan ez-ergatibo lirakeen aditz sorta badela *da* laguntzailea hartzen duena (*jolastu*, *mendekatu*, *oldartu*, *bazkaldu*, *afaldu*...). Bestetik, *iraun*, *irakin*, edo *distiratu* ("borondaterik gabeko estimulu-isurtze aditzak", Artiagoitia 2000) aditzek *du* laguntzailea hartzen dute (eta horregatik sailkatu ditu Etxeparek "aditz

⁵ Bi aditz-mota horiek bereizteko zein irizpide balia daitezkeen hizkuntza desberdinetan ikusteko, Sadler eta Spencer (1998).

⁶ Aspektu lexikoaren araberako beste sailkapen bat ikus daiteke de Miguel (1999).

trantsitiboen” artean), baina θ -rola *gai*a izango litzateke (eta horrek ez-akusatiboen artean sailkatzera eramango gintuzke). Nolanahi ere ez da oraingo helburua auzi honi irtenbidea ematea.

Eman dezagun, laguntzaile-mota hartzen dugola oinarri euskaraz.

2.3.1. Da laguntzaile-dun aditzak (argumentu bakarreak)

- a) *izan* eta *egon*, izaki mailako eta egoera mailako predikazioa adierazten dutenak hurrenez hurren; edo adimen-egoera edo egoera fisikoa adierazten duten predikazioak (*bero/hotz egon*, *haserre egon*...).
- b) gertaera, agerrera adierazten dutenak:
 - (7) a. gertatu, pasatu, jazo
 - b. suertatu, tokatu, fortunatu (zoriaren ondoriozko gertaera)
 - c. agertu, azaldu (inkoatibo/kausatibo oposizioa izan dezaketenak, *da / du*)
 - d. desagertu (ez du onartzen inkoatibo/kausatibo oposizioa)
- c) egoera-aldaketa adierazten dutenak:
 - kausatibo/inkoatibo oposizioa era dezaketenak (izenondoetatik eratorriak horrelakoak izaten dira):
 - (8) sortu, garatu, ugaltu, ondu; bihurtu, bilakatu, erre, ito, puztu, zuritu, nabarmendu, nahastu, hondoratu, gogortu, txikitu, lehertu, ireki, apurtu, berotu, hil, itxi, hautsi, zabaldu, arraildu, belztu, edertu, hoztu, puskatu, idortu, urtu, gorritu, gizendu, argaldu...
 - kausatibo/inkoatibo oposiziorik era ezin dezaketenak:
 - (9) jaio, loratu, lilitu, heldu...
 - emozio-erreakzio aditzak:
 - (10) harritu, izutu, nahasi, haserretu, aspertu... (rol tematikoa ‘esperimentatzailea’ dela pentsa daiteke)
- e) leku-aldaketa adierazten dutenak (Artiagoitiak ‘norabide jakineko mugimendua adierazten dutenak’ moduan sailkatuak):
 - kausatibo/inkoatibo oposizioa era dezaketenak:
 - (11) agertu, amildu, atera, elkarretaratu, etxeratu, goititu, hurbildu, igan, ilki, jaitsi, jalgi, joan, sortu, urrunditu, gelditu...
 - kausatibo/inkoatibo oposiziorik era ezin dezaketenak:
 - (12) ailegatu, etorri, joan, erori, partitu, jaiki, itzuli, irten; kabitutu; ibili
- f) ez-ergatiboak:
 - (13) gogoetatu, jolastu, dantzatu, borrokatu, jokatu, mendekatu, mintzatu
- g) erreflexiboak:

(14) garbitu, orraztu, jantzi...

h) *eguraldi* aditzak:

- predikazio ez-ebentiboak, *egon* aditzarekin osatzen dira (*berolhotz/ateri... dago*)

i) aspektu eta kontrol aditzak:

(15) ari(tu), hasi, ibili (idazten ibili), joan (ohitzen joan), saiatu, ahalegindu

2.3.2. Zai^o laguntzaile^{dun} aditzak (*bi argumentukoak*)

a) mugimendua adierazten duten aditzak: *joan, baliatu*. Datiboa hartzen duen argumentuak, mugimenduaren *helburua* adierazten du; beste batzuetan, jabetza erlazioa adierazten du, subjektu absolutiboaren eta datiboa hartzen duen argumentuaren arteko jabetza erlazioa.

b) aditz psikologikoak, barne-egoeraren aldaketa adierazten dutenak; erlazioa, beraz, prozesuaren eta esperimantatzailearen artekoa da. Bi azpisail bereizi ohi dira, esperimantatzaile theta-rola sintagma datiboak adierazi (Artiagoitiak (2003) *gustatu* klase deitu diona, Belletti eta Rizziri (1988) jarraituaz), edo sintagma absolutiboak:

(16) damutu, gustatu, interesatu, bururatu, otu, urrikaldu, errukitu

2.3.3. Du laguntzaile^{dun} aditzak

a) ez-ergatiboak, *du* laguntzailea hartu arren, eta subjektua ergatiboarekin markatu arren, objekturik ez dutenak:⁷

(17) bozkatu, eskiatu, nabigatu, eutsi, bazkaldu, afaldu, dimititu, kantatu

Aditz ez-ergatiboak dira, halaber, 'izena + *egin*' egiturako predikatu konplexuak,⁸ subjektuak ergatiboa hartzen baitu.⁹

Hemen sar daitezke *eguraldi* aditzak ere, *eguraldi*-aldaketaren ondorioa adierazten dutenak (*hoztu/ilundu/ateru... du*).

b) ez-akusatiboak (goian esana onartzen badugu):

(18) distiratu, irakin, iraun, usaindu; dir-dir egin, diz-diz egin, ñir-ñir egin

(Artiagoitiak ez-akusatiboan artean sartzen dituenak)

c) kausatibo / inkoatibo alternantzia duten aditzak (balio arazlean): askotan ize-nondoetatik eratorritako aditzak, egoera-aldaketa adierazten dutenak:

(19) garbitu, zikindu, arindu, ilundu...

⁷ Ikus bereziki Alberdi (2003).

⁸ Ikus Ortiz de Urbina (1989) edo Laka (1993).

⁹ Esanahiari dagokionez modu askotakoak izan daitezkeen arren (ikus Etxepare 2003), gertaera adierazteko aukera bakarra dute guztiek, *egite* izena, alegia (*eztu/egite, marmar egite, gogoeta egite, etab.*). Bestalde, badira bestelako predikatu konplexuak ere, 'izena+ eman/hartu' egiturakoak, baina hauek ere *hartz*e eta *emate* beste aukerarik ez dutenak (*min hartze, atseden hartze, min emate...*).

- izenondoetatik eratorriak izan ez arren, badira aditzak alternantzia hau erakusten dutenak, ‘norabide jakineko mugimendu’ adierakoak: *sartu, atera*
- (20) autoa sartu du / autoa atera du
- mugimendu baten helburua adierazten duen izena oinarri duten aditzekin ere alternantzia bera aurkituko dugu:
- (21) etxeratu, oheratu, kaleratu, azaleratu...
- d) *erakutsi* motako aditzak (Artiagoitia 2003), subjektuak *instrumentu* rola hartzeak bereizten dituenak:
- (22) agertu, akuilatu, apaindu, astundu, atzeratu, aurreratu, azkartu, babestu, begiratu, behaztopatu, eragotzi, erakutsi, estali, ezeztatu, gorde, kutsatu, laburtu, kitatu, leundu, lagundu, mehatxatu, osatu, zulatu...¹⁰
- e) subjektuari *agente, egile* rol tematikoa ematen dioten aditzak:
- (23) libratu, babestu, zaindu, defendatu, armatu, bota, prestatu, saldu, erosi, ekarri, eskaini, eman¹¹
- esate, pentsatze* edo *epaitze* aditzak:
- (24) aditu, adierazi, adostu, agertu, azaldu, agindu, aholkatu, aipatu, salatu, sortu, zabaldu, amestu, asmatu, aurreratu, iragarri, aldarrikatu, entzun, erabaki, esan, erakutsi, erantzun, eskatu, galdetu, idatzi, irakurri, ihardetsi, ikasi, jakin, kontatu, igarri, pentsatu, ukatu...
- iragangaitzak (bi argumentukoak izan arren, barne-argumentuak -z kasu-marka hartzen du):
- (25) akordatu, jabetu, ohartu, mintzatu; gogoratu, gomutatu (*da* nahiz *du* izan daitezkeenak)
- *irudikatzea* adierazten duten aditzak:
- (26) irudikatu, errepresentatu, margotu
- f) predikatu psikologikoak:
- hauetako batzuetan esperimendatzailerola beti subjektu ergatibo moduan azalduko zaigu, eta estimulua edo bitartekoa izango da objektu absolutiboa:
- (27) etsi, miretsi, ederretsi, gurtu, gutxietsi, gaitzetsi, onetsi, estimatu, errespetatu, desiratu edo irrikatu, onartu, jasan
- Aspektuari dagokionez, hauetako batzuek egoera adierazten dute (*errespetatu, desiratu, irrikatu, jasan*); beste batzuek, ostera, *etsi* bigarren osagai dutenek,

¹⁰ Hauetako batzuk *da* laguntzailearekin ere erabiltzen dira.

¹¹ Eztabaida daiteke ez ote litzatekeen egokiago hurrengo sailean sartzea, guztiak onartzen baitute *onuraduna* argumentua. Beste modu batera esanda, zein da benetako argumentu-egitura, bi argumentuko ala hirukoa? Nolanahi den, syntaxian askotan datibo-sintagmarik gabe ageri direnez, hemen sartu ditut.

iritzia, eta iritzi horren amaiera den egoera adierazten dute (beraz, iritzi-aditza dute, *etsi*, eta iritzi horren amaiera adierazten duen adjektiboa).

— beste batzuetan, Belletti eta Rizziren (1988) *kezkatu* klasea osatzen dutenentan, objektua da *esperimentatzaile* rol tematikoa hartzen duena, eta *bitartekoa* edo *kausa* subjektuak adierazten duena:¹²

(28) harritu, izutu, liluratu, poztu, enoatu, kezkatu, aspertu, beldurtu, arduratu, engainatu, entretenitu, erakarri, ernatu, ernegatu, erotu, esutu, larritu, ikaratu, mindu, nahastu, nekatu, penatu, sumindu, sutu, tristatu, txunditu, zoratu, harrotu, gogaitu, hunkitu, lotsatu, asaldatu, urduritu, alaitu, zapuztu, haserretu...¹³

2.3.4. Dio laguntzailea hartzen duten aditzak

a) hiru argumentuko aditzak, datiboa hartzen duen argumentuak *onuraduna* izanik rol tematikoa. Mota honetako aditz gehienek dute oinarritzkoagoa den erabilera bat, trantsitiboa, bi argumentukoa:

(29) erakutsi, kontatu, erantzun

b) bi argumentukoak izan arren, *dio* laguntzailea hartzen dutenak:

(30) ekin, iritzi, eutsi, eman (*negarrari eman*)

c) alternantzia duten aditzak, *du* / *dio* laguntzailearen arteko alternantzia, euskalkien arabera:

(31) deitu, lagundu, bultzatu, jarraitu, begiratu, barkatu, esetsi, itxaron, abisatu, utzi

Alderdi hauek guztiak aztertu beharko genituzke gertaera eta emaitza-izenetan (eta, jakina, hauen oin diren aditzetan). Tesi baterako edo gehiagotarako emango lukeen lana izanik, oraingo honetan, argumentu-egitura, theta-rolak eta sailkapen semantikoa biltzen dituen aditzen sailkapenetik abiatuta saiatuko gara *-era*, *-keta* edo *-men* / *-pen* atzizkien azterketan aurrera egiten.

3. *-era*, *-keta*, *-men* / *-pen*

Ez dira hauek guztiak, jakina, baina bai emankorrenak, azken urteetan aditz-izenak sortzeko gehien baliatu ditugunak. Nolanahi ere, atzizki hauek zein motatako aditzak hartzen dituzten aztertzen hasi aurretik, hiruzpalau ohar egitea komeni da.

¹² Ikus Oyharçabal (2003) horrelako aditz bikoteen azterketa kausatiboak dituen zailtasunez jabetzeko.

¹³ 'izena + **edun*' egiturakoak ere izan daitezke predikatu psikologikoak, adimen-egoera adierazten dutenak (*desio izan*, *gorroto izan*, *maite izan*, *erruki izan*...), baina gertaera adierazteko modu bakarria dutenak (*desio izate*, *etab.*).

Lehenik, erdaretan aditz-izena aurkitzen dugun bakoitzean euskaraz ere aditz-izena behar dugun ala perpaus egituraren aldeko hautua egitea egokiago ote genukeen aztertu behar genuke.

Bigarrenik, gogoan izan behar genuke erdaretan *-ción* azaltzeak, esaterako, ez duela esan nahi nahitaez *-keta*, *-pen* edo *-kuntza* atzizkien bidezko ordaina behar dugunik. *Edición*, adibidez, *argitaraldi* izan daiteke egoki asko, testuinguruaren arabera. Ondoko adibidean, *elección*, *bozkaldi* den bezalaxe:

- (32) “Sukarra gorenean izanen da igandean, deputatuen bozkaldiarekin Hegoaldean, herrietako eta kantonamenduetako bozkaldiekin Iparraldean” (*Herria*, 2008-03-06)

Hirugarrenik, ez genuke arazorik edo konplexurik izan behar tradizioan ongi errota dugun *-zio* hartzeko, batez ere maileguetan: *manifestazio*, *ebaluazio*... Euskal oinei ere erantsiaz *amorrazio*, *asmazio* edo *ukazio* sortu baditugu, zergatik ezin ditugu *manifestación* edo *evaluación* bere horretan geureganatu *ebaluaketa* bezalakoak sortzen ibili gabe?

Laugarrenik, *-ción* edo *-miento* bezalako atzizkien bidez sorturiko erdal izena ordezkatu nahi dugunean, merezi luke Mitxelena hitzak, Sarasolaren *Euskal Hiztegiaren* atariko gisa idatziak, gogoan izatea:

Egia da (...) delako *unificación* goitar hori azaldu daitekeela euskaraz. Aski genuke, adibidez, *batze* edota nik neronek usatu izan dudana *bateratze*. Honek ere badu, ordea, bere koska: norbaitek esan omen du hizkuntza landuetan (...) *-te*, *-tze* bezalako gramatika-atzizki arrunt batek ordezkari hoberik eta berezirik izan ohi duela.

Tira, ingelesa aski landua eta ikasia da eta *-ing* ez dabil hain urruti gure atzizkitik. Halaz guztiz, ordez, barra-barra erabiltzen dute *-ing*.

Izan ere, 2.4. puntuan ikusi ditugun aditz guztiek, euskal aditz guztiek, onartzen dute *-tze* atzizkia erantsi eta izena sortzea, *gertaera* adiera izango duena. Eta askok eta askok, horixe dute aukera bakarra.

3.1. *-era* atzizkia

Oro har *da* motako aditzak dira *-era* atzizkia hartzen dutenak, ez-akusatiboak:

- a) kokapena edo norabide jakineko mugimendua adierazten dutenak:

(33) etorrera, igoera, jaitsiera, joanera, itzulera, irteera, sarrera, jaikiera; ibilera, bilera

- b) gertaera, agerrera adierazten dutenak (baina ez zoriaren ondoriozko gertaera):

(34) gertaera, jazoera, agerrera

- c) egoera-aldaketa adierazten dutenak; baina sail honetako gutxi batzuk baino ez direnez, komeniko litzateke xehekiago begiratzea (izenondoetatik eratorriko aditzek, adibidez, ez dute *-era* atzizkia hartzen):

(35) sorrera, bilakaera, itxiera

- d) izaki mailako eta egoera mailako predikazioa adierazten dutenak:
 (36) izaera, egoera
- e) bihurkariak:
 (37) orrazkera, janzkera
- f) badira, baina, aditz iragankorrek ere, *egilea-gaia* egiturakoak, edo *onuraduna-gaia*; batzuk *esatea*, *pentsatzea*... adierakoak:
 (38) idazkera, hautaera, erabilera, kontaera, pentsaera, eskaera, esaera

3.2. *-keta* atzizkia

Oro har, *du* motako aditzak dira *-keta* atzizkia hartzen dutenak, trantsitiboak, baina ez predikatu psikologikoak; ezta ez-ergatiboak ere:

- a) *egile-gaia* rol tematikoak dituzten aditzak dira, oro har, *-keta* atzizkia hartzen dutenak:
 (39) erosketa, erakusketa, zainketa, zapalketa, prestaketa
- b) kausatibo/inkoatibo alternantzia dutenak, balio arazlean:
 (40) garbiketa, zuriketa, leherketa, hilketa, erreketeta, apurketa, nahasketa, aldaketa
- c) *erakutsi* motako aditz batzuek ere onartzen dute *-keta*, nahiz Artiagoitiaren (2003) iritziz subjektuak batzuetan *instrumentu* rola hartu, eta ez *egilearena*:
 (41) apainketa, erakusketa, osaketa, zulaketa, leunketa

Oro har, badirudi *-keta* atzizkiak, subjektuari *egilea* edo *kausa*, *arazlea* rol tematikoa ematen dioten aditzak eskatzen dituela.

3.3. *-men/-pen/-mendu* atzizkia

Gertaera ala *emaitza* adiera duten azterkizun utzirik ere, aurreko bi atzizkiak baino azpikategorizazio zabalagokoa da *-men/-pen*. Oro har predikatu psikologikoak dira atzizki honen oinak.

- a) *esperimentatzaile* rola subjektu ergatiboak adierazten du:
 (42) miresmen, gaitzespen, onespén, onarpen
- b) *kezkatu* klasea osatzen duten aditzak:
 (43) harrimen, liluramen, erakarmen, eromen, zoramen
- c) *esperimentatzailea* subjektu absolutiboak adierazten du:
 (44) urrikalmen; harrimen, nahasmen, izumen

- d) predikatu psikologiko ez izan arren, *esatea*, *pentsatzea*... adierazten duten aditzak:
- (45) adierazpen, ihardespen, aipamen, asmamen, iragarpen, aldarrikapen, azalpen
- e) izaki bizidunen zentzuak adierazten dituzten aditzak:
- (46) usaimen, entzumen, ikusmen, dastamen, ukimen

“Eginkizuna ez da amaitu” idatzi dut hasieran. Horixe bera azpimarratu beharko dut amaieran. Hizpide izan ditudan atzizkien azterketari dagokionez ere eginkizuna ez baita amaitu: *gertaera* izenak ala *emaitza* izenak osatzen dituzten, azterkizun geratu zaigu; eta aditzei dagokienez ere xehetasun eta zehaztasun gehiago eman beharko dira. Urrats txikitxo bat izan da saio hau. Hizkuntzalaritzan askotan ikusten dugun *work in progress* edo zinemaldi batean edo bestean ikusten ditugun *cine en construcción* horien antzerakoa. Egiten ari garen, baina oraindik amaitu gabe dagoen ikerlana, alegia. Izena bera, euskal gramatika lantzean, Gramatika Batzordeak aukeratu duen *Gramatika. Lehen urratsak* horretatik hartu duena. Eta keinu bat ere izan nahi duena Patxi Goenagarengandik ondorengo urteetan ere uzta joria espero dugula esateko; haren lana eta ekarpena *garabidean* dela, ez duela bidea amaitu. Urte askoan jarrai dezala euskararen bideetan barrena!

Bibliografia

- Alberdi, X., 2003, “The transitivity of borrowed verbs in Basque: an Outline”, in Oyharçabal (arg.), 23-46.
- Artiagoitia, X., 1995, “-*Garri* atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den maitagarria bezain mingarria”, *ASJU* 29: 2, 355-405.
- , 2000, *Hatsarreak eta parametroak lantzen*, Arabako Foru Aldundia-EHU, Gasteiz
- , 2003, “The case of an enlightening, provoking and admirable Basque derivational suffix with implications for the theory of argument structure”, in Oyharçabal (arg.), 147-183.
- Azkue, R. M., 1923-25, *Morfología Vasca*. Berrarg. 1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Belletti, A. eta L. Rizzi, 1988, “Psych-Verbs and θ -theory”, *NLLT* 6, 291-352.
- Booij, G., 1988, “The Relation between Inheritance and Argument Linking: Deverbal Nouns in Dutch”, in M. Everaert, A. Evers, R. Huybrechts & M. Trommelen (arg.) *Morphology and Modularity. In honour of Henk Schultink*, Foris, Dordrecht, 57-73.
- Campos, H., 1999, “Transitividad e intransitividad”, in I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid, 1519-1574.
- Chomsky, N., 1981, *Lectures on Government and Binding*, Foris, Dordrecht.
- Extepare, R., 2003, “Valency and argument structure in the Basque verb”, in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 363-425.
- Fabb, N., 1984, *Syntactic Affixation*, Doktorego tesia, MIT.
- Gràcia, LL., T. Cabré, S. Varela, eta M. Azkarate (arg.), 2000, *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, UPV/EHU, Bilbo.
- Goenaga, P., 1984, *Euskal sintaxia: Konplementazioa eta nominalizazioa*, Doktorego tesia, UPV/EHU.

- Grimshaw, J., 1990, *Argument structure*, MIT Press, Cambridge MA.
- Haspelmath, M., 2002, *Understanding Morphology*, Arnold, London.
- Higginbotham, J., 1985, "On Semantics", *LI* 16, 547-621.
- Hualde, J. I. eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Jackendoff, R., 1972, *Semantic Interpretation in Generative Grammar*, MIT Press, Cambridge MA.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Berrarg. 1979, Elkar, Donostia.
- Laka, I., 1993, "Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative", in J. Bobaljik eta C. Phillips (arg), *Papers on Case & Agreement I*, Cambridge MA: MIT Working Papers in Linguistics, Volume 18, 149-172.
- Levin, B., 1993, *English verb classes and alternations: a preliminary investigation*, University of Chicago Press, Chicago
- , & M. Rappaport, 1988, "Non-event *-er* nominals: A probe into argument structure", *Linguistics* 26, 1067-1083.
- Levy, J., 1978, *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*, Academic Press, New York/San Francisco/London
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- Oyharçabal, B., 1992, "Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque", in J. Lakarra eta J. Ortiz de Urbina (arg), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, ASJU-ren Gehigarriak 27, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 309-342
- , 2003, "Lexical causatives and causative alternation in Basque" in B. Oyharçabal (arg.), 223-253.
- , (arg.), 2003, *Inquiries into the Lexicon-Syntax Relations in Basque*, ASJU-ren Gehigarriak 46, EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.
- Perez Gaztelu, E., I. Zabala, eta Ll. Gràcia (arg.), 2004, *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Piera, C. eta S. Varela, 1999, "Relaciones entre Morfología y Sintaxis", in I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madril, 4367-4422.
- Pustejovsky, J., 1995, *The generative lexicon*, MIT Press, Cambridge MA.
- Rijk, R. P. G. de, 1991, "Deux suffixes capricieux: *-pen* et *-men*", in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren gehigarriak XIV, Donostia, 709-751.
- Berrarg. bere R. P. G. de Rijk 1998, *De Lingua Vasconum: Selected Writings*, Supplements of the *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* n° XLIII, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1998: 301-345.
- , 2008, *Standard Basque. A Progressive Grammar*, The MIT Press, Cambridge MA.
- Sadler L. eta A. Spencer, 1998, "Morphology and Argument Structure", in A. Spencer & A. Zwicky (arg.), *The Handbook of Morphology*, Blackwell, Oxford, 206-236.
- Van Valin, R. D., 1990, "Semantic parameters of split intransitivity", *Lg* 66, 221-260.
- , 1993, "A synopsis of role and reference grammar", in R. D. Van Valin, Jr (arg.), *Advances in Role and Reference Grammar*, John Benjamins, Amsterdam, 1-164.
- Varela, S., 1990, "Composición nominal y estructura temática", *RESL* 20: 1, 55-81.
- Vendler, Z., 1957, "Verbs and times", Berrar. Z. Vendler, 1967, *Linguistics in philosophy*, Cornell U.P., Ithaca, NY, 97-121.
- Williams, E., 1981, "Argument Structure and Morphology", *The Linguistic Review* 1, 81-114.

ENTZUNDAKO HIZKUNTZAREN ERAGINA HAUR EUSKALDUN TXIKIEN GRAMATIKA-GARAPENEAN

Andoni Barreña

Universidad de Salamanca

Marijose Ezeizabarrena

UPV/EHU

Iñaki García

Mondragon Unibertsitatea

1. Sarrera

Joan den mendearen azken laurdenean hasita, oraindik ere oso aipatua den eztabaida sortu zen elebitasun goiztiarraren ikertzaileen artean, haur elebidunek dituzten bi hizkuntzak bereizteko gai ote direnaren gainean. Bi joera oso desberdin nabarmendu ziren. Alde batetik, haur elebidunen datuak aztertuta, Volterra eta Taeschner (1978) edota Redlinger eta Park (1980) bezalako zenbait ikertzailek zioten haur elebidunek, txikitan, gramatika eta hiztegi bakarra izanik, ez dituztela bi hizkuntzak hasiera-hasieratik bereizten, nahiz onartzen zuten, beranduxeago, hiru urteak aldera edo, bi hizkuntzak egoki bereizten dituztela.

Ugariak dira, ostera, aurkako jarrerari eutsi izan dioten ikertzaileak (De Houwer 1995, Genesee eta beste 1995, Deuchar eta Quay 2000, Bel 2001, Genesee 2003), hots, bereizketaren hipotesiaren aldekoak. Hipotesi horren arabera, bi hizkuntzak aldi berean eta bereizita entzunez gero, bereizita garatuko ditu haurrak hasiera-hasieratik.

Ildo honetatik, euskara eta gaztelania aldi berean garatu dituzten haur elebidun orekatuen inguruko ikerketetan haur elebidunek euren hizkuntzetako bakoitza elebakarrek garatzen duten antzera garatzen dutela ondorioztatu da behin eta berriro (Meisel 1994, 2001; Barreña 1995, 1997, 2001; Ezeizabarrena 1996, 1997; Almgren eta Barreña 2001; eta abar), elebakarrek egiten dituzten urrats eta akats bertsuak egiten baitituzte.

Edozelan ere, bereizketaren hipotesiaren aldeko emaitzak elebidun orekatuengan aurkitu dira bereziki, hots, bi hizkuntzak jaiotzatik era orekatuan entzun dituzten haurrengan, gurasoek 'lagun bat, hizkuntza bat' leloa jarraituz hazi nahi izan dituzten haurrengan. Hala eta guztiz ere, badira ikerketak haurrak entzundako hizkuntzen artean orekarik ez egonik ere bi hizkuntzak bereizita gara daitezkeela erakutsi dutenak (Pérez-Vidal 1995, adibidez), haurrak hizkuntza bata bestea baino goizago bereganatu arren.

Aipatutako azken lanok, haatik, ez dute hizkuntzen artean eragina egon daitekeenik baztertzen (Meisel 2001). Müller-ek eta Hulk-ek (2000) urrats bat gehiago egin dute aurrera hizkuntza arteko eragina azaldu eta aurrirusteko proposamen zehatza egiterakoan, pragmatika eta sintaxia uztartzen diren zenbait gune jakinetarako (CP, klitikoak...). Bestalde, fonologiaren garapenearen ikerkuntzak ere erakutsi du bi hizkuntzetako segmentu sistemak nahasi gabe bereganatzen dituztela uste izateko nahikoa adibide. Eta emaitzok ez dirudi hizkuntza batek bestearen garapenean izan dezakeen eraginarekin kontrajarrita daudenik. Eragina egitura baten garapena azkartzean edo mantsotzean ikus daitekeela kontuan izanda, Lleok eta bestek (2003), haur elebidun eta elebakarren gatzelaniako eta alemaneko silaba-koden garapena ikertzean, hizkuntza batek bestearen silaba-egituraren menperatzea bizkorraz dezakeela ikusi dute.

Goian aipatutako ikerketak luzetara bildutako datuetan oinarritutakoak dira, hots, lehen hitzak esaten dituztenetik hiru urte edo lau urtera arte grabatutako haur gutxiren bat-bateko ekoizpenetan. Baina badira bestelako datu biltze moduak ere.

MacArthur-Bates Communicative Development Inventories (euskaraz *Komunikazio gaitasuna neurtzeko zerrenda*) testa osatzeko erabilitako zeharkako metodologiak ehunka haurren datuak biltzea eta erkatzea ahalbidetu du, 30 hilabetez beherako haur txikienak, eta hari esker, emaitza interesgarriak aurkitu dira haur elebakarren zein elebidunen lexikoaren eta gramatikaren garapenean; eta hainbat hizkuntzetan, gainera. Batetik lexikoaren garapena gramatikarena baino goizago gertatzen dela erakutsi dute (Arratibel eta beste 2005, Bassano 2000, Pérez-Pereira eta García Soto 2003, Serrat eta beste 2004, eta abar). Bestetik, lexikoaren eta gramatikaren arteko korrelazio handia ikusirik bien arteko kausazko erlazioa ere badela baieztatu dute, 30 hilabeteak arte behintzat (Bates eta Goodman 1997, Bassano 2000), eta masa kritikoaren hipotesia eraiki dute, ondorioz. Hipotesi horren arabera, haurrak beharrezkoa du gutxienezko hitz-kopuruaren ezagutza gramatikaren garapenean abiatzeko (Marcham eta Bates 1994, Bates eta beste 1998). Masa kritiko hori 400 hitzetan zehaztu dute ingelesaren garapenean, behintzat (Bates eta beste 1994). Galizieraren zein euskararen garapenean, aldiz, erlazio handia aurkitu dute jada 100 hitzeko hiztegia eta lehen gramatika-atzizkiak ekoiztearen artean (Pérez-Pereira eta beste 2006). Zehatzago esanda, Marchman eta Bates (1994) ikertzaileek korrelazio ez-linealak aurkitu dituzte masa lexikoaren eta aditz-morfologiaren garapenearen artean, eta ildo horretatik gramatika-elementu ezberdinek, hala nola izen-morfologiaren eta aditz-morfologiaren arloetakoek, korrelazioa, beharbada, masa lexiko ezberdinekin izan dezaketela ondorioztatu dute. Ondorio bertsura iritsi dira hizkuntza erromanikoetako emaitzen ikertzaileak ere (Caselli eta beste 1999, Pérez-Pereira eta García-Soto 2003, Devescovi eta beste 2005).

Haurtxo elebakarren datuak ez ezik elebidunenak ere aztertu dira MacArthur-Bates testaren bidez. Esaterako, De Houwer eta Bornstein (2005) ikertzaileek 13 hilabetez gorako haur elebidunek hizkuntza baten zein besteren hautua nola egiten duten ikusi dute frantsesa edota nederlandera bereganatzen ari diren haurrengan. Galiziera eta gatzelania garatzen ari diren haur elebidunen kasuan, galizieraz elebakarrek baino esaldi luzeagoak eta konplexuagoak ekoizten dituztela ondorioztatu da (Pérez-Pereira eta García-Soto 2003).

Beste ikerketa-mota batzuk, esaterako hizkuntzaren pertzepzio goiztiarra arakatzen dutenek, erakutsi dute elebidunek eta elebakarrek ez dituztela eredu berak

jarraitzen. Hizkuntza bietako baten bakarrik dauden zenbait fonemaren ezagutza (bereizketa) beranduago gertatzen ei da elebidunengan elebakarren baino. Elebakarrekin erkatuta, badirudi haur elebidunek bitarteko urrats berezia behar dutela zenbait hots-bikote helduek bezala bereizteko; elebakarrek, ostera, zenbait hilabete goizago erakusten dute hots-bikoteak bereizteko gaitasuna (Sebastián Gallés 2006).

Oro har ikusita behintzat, badirudi haur elebakar eta elebidunen artean hizkuntzaren ekoizpenean ikusi diren ezberdintasunak ikerketa-lerro baten abiapuntutzat har daitezkeela, eta ikerketa-lerro horren premia azaleratzen dutela. Oro har, jasotako inputak (entzundako hizkuntza-kantitatea eta kalitatea) elebitasun-erari eragin egin diezaiokela pentsatzea bidezkoa dirudi. Era berean, elebidun orekatuek eta ez-orekatuek hizkuntza-ekoizpen goiztiarrean eredu ezberdinak izan ditzaketela eta, beraz, era bateko edo bestelako elebitasunean era bateko edo bestelako garapen-ereduak ere izan daitezkeela pentsa daiteke.

Ikerlan honetan euskara beste hizkuntzen aldean entzuteko aukera gehiago edo gutxiago duten haurren ekoizpen-datuak aztertuko dira, ehunka haur elebakar eta elebidunenak, alegia. Haurrek entzundakoak euren lexikoaren eta gramatikaren garapenean izan dezakeen eragina neurtzea da helburua. Alabaina, entzundako euskararekin zerikusia duten hiru aldagai bereiziko dira: batetik, haurrak hizkuntzaren bat(zuk) entzuten ematen duen denboran, euskarak duen denbora-proporzioa, ehunekotan; bestetik, euskaldunak guraso biak ala guraso bakarra izatea; eta, azkenik, gurasoek beren artean euskara erabiltzeko ohitura.

Zilegi dirudi pentsatzea haur elebidunek bizitzako lehen hilabeteetan entzuten duten euskararen kantitateak eragin zuzena izan dezakeela euskararen lexikoaren eta gramatikaren garapenean: zenbat eta euskara gehiago entzun orduan eta goizago garatuko dira lexikoa eta gramatika.¹

Hizkuntza-inputaren inguruan arakatuko diren beste bi aldagaiei buruz, zera aurreikusten da: gurasoen euskara-ezagutza eta gurasoek euren artean euskaraz hitz egitearen sarritasuna ere eraginkorra dela haurren garapenean. Gainera, zentzuzkoa dirudi hiru aurreikuspenok 30 hilabeteko adinera iristerako egiaztatuko direla pentsatzea ere, alegia, hiru aldagaiok eragina izango dutela haurren lexikoaren eta gramatikaren garapenean.

Hala bada, datozen ataletan 30 hilabetez beherako haur elebakar eta elebidunen lexikoaren eta gramatikaren garapenean inputak duen eragina erakutsiko da, beti ere, goian aipatu diren hiru aldagaiak kontuan izanik. Bigarren ataletan, ikerlan honetako metodologia azalduko da, hots, datu-bilketa egiteko modua zein datuak eratzekoa, jasotako hizkuntzaren arabera eginiko haur-taldean sailkapenaren zergatiak eta nolakotasunak, eta, azkenik, aztertutako lexikoaren eta gramatikaren ezaugarriak. Hirugarren ataletan emaitzak erakutsiko dira, lexikoaren eta gramatikaren arloetakoak, aipatu hiru aldagaien arabera bereizita. Laugarren eta bosgarren ataletan, amaitzeko, eztabaida eta ondorioak aurkeztuko dira.

¹ Haurren arteko aldakortasuna handia dela egiaztatu da hainbat alorretan (Barreña eta beste, agertzeko). Nolanahi ere, inputaren eraginaren aldakortasuna aztertzea lan honen helburuetatik at geratzen da.

2. Metodologia

MacArthur-Bates Communicative Development Inventories (CDI) izeneko testa (Fenson eta beste 1993) euskarara dago egokituta *Komunikazio garapena neurtzeko zerrenda* (KGNZ) izenarekin (Arratibel eta beste 2003, Barreña eta beste agertzeko).² CDI zein KGNZ direlakoak bina galdesortek osatzen dituzte, zeinen bidez haurren ezagutza komunikatiboa neurtzen den. Ikerlan honetan, aldiz, KGNZ-2 deitutako galdesortaren bidez jasotako datuak baino ez dira aztertuko, 16tik 30 hilabetera bitarteko haurrenak, alegia.

KGNZ-2 delakoak hiru informazio-mota biltzen ditu. Lehenik eta behin, lexikoaren ezagutza biltzen du: horretarako guztira 657 item jasotzen dira, 21 eremu semantikoetan bereizita. Gurasoei euren seme-alabek erabiltzen dituzten hitzak markatzea eskatzen zaie emandako hitz-zerrendan. Bigarrenik, gramatika biltzen du: 5 azpi-ataletan antolatutako 88 morfologia-arloko item. Azkenik, sintaxia jasotzeko azpi-atal bat ere badu, non gurasoek euren seme-alabak ekoizten dituen hiru esaldirik luzeenak idatzi behar dituzten. Azken azpi-atal hori guztiz beharrezkoa da haurren garapen sintaktikoa kalkulatzeko. Horiez gain, haurren eta gurasoen informazio orokorra biltzen duen atala dago, zeinean, besteak beste, gurasoei haurrak entzuten dituen hizkuntzak (asteko ordu-kopurua), gurasoen euskara-ezagutza eta euren arteko hizketaldietan euskarak duen erabilera zehaztea eskatzen zaien.³

Guztira 1.110 haur euskaldunen gurasoek betetako galdesortak bildu badira ere, 975 haurren galdesortetako datuak aztertu dira, 135 baztertu ondoren, besteak beste, garaiz aurretik jaioak, jaio berritako hilabeteetan belarriko infekzio ugari izan edo bestelako arazoengatik.

Datu-bilketa hegoaldeko zein iparraldeko euskal herrietan egin da. Galdesorta gehienak eskualde euskaldunetan bildu badira ere, badira hamaika euskararen bizitasuna apalagoa den eskualdeetan bilduak ere. Haurren sorterriari dagokionez, % 7,2 arabarrak dira, % 30,4 bizkaitarrak, % 50,1 gipuzkoarrak, % 2,2 iparraldekoak eta % 10 nafarrak.

Laginari buruzko xehetasunekin amaitzeko, hara hemen beste zenbait ezaugarri ere, labur-labur:

- haurren sexuari dagokionez, % 50,7 neskatoak dira, eta % 49,3, aldiz, mutikoak;
- seme-alaben arteko zenbatgarrentasunari dagokionean, % 58,6 premuak, % 36,9 bigarrenak, % 3,8 hirugarrenak, % 0,2 laugarrenak eta % 0,4 bosgarrenak;

² *Komunikazio garapena neurtzeko zerrenda* egitasmoa ondoko lankideek osatzen dute: Margareta Almgren (Durangoko Frai Juan Zumarragako Batxiler Institutua), Nekane Arratibel, Julia Barnes eta Iñaki Garcia (Mondragon Unibertsitatea), Andoni Barreña (Salamanca Unibertsitatea), Marijose Ezeizabarrena (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Alazne Petuya eta Amaia Colina (SEASKA). Eskerrak adierazi nahi dizkiegu datu-bilketan lagundu duten haurrei, gurasoei, irakasleei eta zaintzaileei. Egitasmoaren garapenerako funtsezkoak izan dira ondoko erakundeen laguntzak: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Ikerkuntza eta Unibertsitate Saila (PI2004-16), Espainiako Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia Ministeritza (BFF2003-05196, Hum2006-11862-0c03-01/filo, Hum2006-11862-C03-02/filo), Euskal Herriko Unibertsitatea (9/UPV00033.130-13614/2001), Mondragon Unibertsitatea eta SEASKA.

³ Galdesortei buruzko zehaztasun handiagoak izateko Arratibel eta beste (2005), Garcia eta beste (2005) eta Barreña eta beste (agertzeko) lanak ikus daitezke.

— gurasoen ikasketa-mailari dagokionean, unibertsitate-ikasketak amen % 56,1ek eta aiten % 33,4k dituzte, bigarren hezkuntzakoak amen % 33,6k eta aiten % 48k, eta lehen mailakoak amen % 10,3k eta aiten % 18,5ek.

2.1. Haurren hizkuntza-ingurua

Galdesortan haurrek entzundako hizkuntzei buruzko informazioa jasotzen da. Horretarako, seme-alabak norekin zenbat ordu igarotzen dituen astean zehaztea eskatzen zaie gurasoei, eta zein hizkuntzatan egiten dion bakoitzak haurrari. Informazio horrek kalkulatzea ahalbidetzen du haurrak entzundakoaren zenbat (ehunekotan) dagokion zein hizkuntzari. Edozelan ere, 947tara mugatu da ikerketa aldagai honetan, baliagarritzat jotako 975 galde-sortetatik 947tan bakarrik dago-eta haurrak entzundako hizkuntzari buruzko informazio zehaztu hau.

Hiru haur-talde bereizi dira, entzundako euskararen arabera. Batetik, euskaldun elebakartzat jo direnak, euskara entzundakoaren % 90 edo gehiago izan denean. Guztira 589 haur dira multzo honetan sartzen direnak (% 62). Bestetik, elebidunak izanik euskara hizkuntza nagusitzat dutenen multzoa osatu da, euskara entzundakoaren % 60tik % 90era izan dutenena. Bigarren talde honetan 209 haur sartu dira (% 22). Azkenik, elebiduntzat jo direnen multzoa eratu da, euskara entzundakoaren % 60 baino gutxiago izan dutenena. Hirugarren multzo honetan 150 haur sartu dira (laginaren % 16). Euskara gutxiago entzundako haurren daturik ezin izan da jaso galdesorta honen bidez, beharrezkoa baita gurasoetako batek euskara jakitea galdesorta bete ahal izateko. Datu horiek guztiak 1. taulan ikus daitezke, hiru adin-taldetan sailkatuta.

1. taula

Laginaren banaketa haurren adinaren eta entzundako hizkuntzaren arabera

Entzundako hizkuntza	Adina (hilabeteak)			
	16-20	21-25	26-30	Guztira
	n	n	n	n
A taldea. Elebakarrak	162 (% 68,6)	193 (% 60,5)	234 (% 59,2)	589 (% 62,0)
B taldea. Euskara nagusitzat duten elebidunak	42 (% 17,8)	64 (% 20,1)	105 (% 26,6)	211 (% 22,2)
C taldea. Elebidunak	32 (% 13,6)	62 (% 19,4)	56 (14,2)	150 (% 15,8)
Guztira	236 (% 100)	319 (% 100)	395 (% 100)	950 (% 100)

Bestalde, haurren gurasoen euskara-ezagutzaren aldagaiaren eragina ere aztertu nahi izan da. Kontu hau ikertzeko 941 galdesortetako datuak aztertu dira, aldagai honi buruzko informaziorik ez zekarten 34etakoak baztertu ondoren. Aldagai honen arabera haurrak talde bitan banatu dira. Batean, bi gurasoak euskaldunak dituzten

haurrak multzokatu dira. Guztira 747 haur izan dira (laginaren % 79). Bestean, gurasoetako bat erdalduna duten haurrak sailkatu dira, erdalduna ama zein aita izan arren. Guztira 197 izan dira horrelakoak, lagin osoaren % 21. Datu horiek, 2. taulan ikus daitezke, hiru adin-taldetan bereizita. Kontuan izan datuak biltzeko metodologiagatik ezinezkoa gertatu dela guraso biak erdaldunak dituzten haurren datuak jasotzea.

2. taula

Laginaren banaketa gurasoen euskara-ezagutzaren eta adinaren arabera

Gurasoen Euskara-ezagutza	Adina (hilabeteak)			
	16-20	21-25	26-30	Guztira
	n	n	n	n
Guraso biak euskaldun	197 (% 83,5)	250 (% 79,4)	300 (% 76,3)	747 (% 79,1)
Gurasoetako bat erdalduna	39 (% 16,5)	65 (% 20,6)	93 (% 23,7)	197 (% 20,9)
Guztira	236 (% 100)	315 (% 100)	393 (% 100)	944 (% 100)

Azkenik, gurasoek euren arteko hizketaldietan darabilten hizkuntzaren aldagaia aztertu da, haurren hizkuntza-garapenean eraginik ote duen ikusteko. Galdesortan gurasoei hiru aukera ematen zaizkie euren arteko euskararen erabilera hautatze-rakoan: 'euskara beti edo gehienetan', 'euskara batzuetan' edo 'euskara inoiz ez'. Guztira 938 izan dira jasotako erantzunak. Euskara 'beti edo gehienetan' darabiltzaten gurasoek laginaren % 39 osatzen dute; euskara 'batzuetan' darabiltzaten gurasoek laginaren % 36, eta euskara 'inoiz ez' darabiltzatenek % 25.

3. taula

Laginaren banaketa gurasoek beren artean euskara erabiltzeko ohituraren eta adinaren arabera

Gurasoek darabilten euskara	Adina (hilabeteak)			
	16-20	21-25	26-30	Guztira
Euskara beti	107 (% 45,9)	122 (% 38,7)	137 (% 35,1)	366 (% 39,0)
Euskara batzuetan	79 (% 33,9)	116 (% 36,8)	146 (% 37,4)	341 (% 36,4)
Euskara inoiz ez	47 (% 20,2)	77 (% 24,4)	107 (27,4)	231 (% 24,6)
Guztira	233 (% 100)	315 (% 100)	390 (% 100)	938 (% 100)

Laburbilduz, beraz, hiru aldagai aztertu dira: haurrak entzundako euskara-kantitatea, haurraren gurasoen euskara-eragutza eta haurraren gurasoek euren arteko hizketaldietan euskara erabiltzeko ohitura.

2.2. Aztertutako hizkuntza-arloak

Aztertuko diren hizkuntza-arloak lexikoa eta gramatika izango dira. Lexikoaren datuak biltzeko 657 hitzeko zerrendatik ea euren haurrak zein esaten dituen galdetu zaie gurasoei. Item lexikal horietako gehienak haurrek entzuten edota esaten dituzten lehenengoetako hitzak dira, maiztasun handikoak haurrari edo haurrak berak zuzendutako hizkuntzan. Item-zerrenda hau aurretik beste haur batzuen luzetarako ikerketetan aurkitutako hiztegian dago oinarrituta, hein handi batean.

Gramatikaren arloan aztertutako unitateak izen-morfologiako eta aditz-morfologiako zenbait hizki edo hitz dira, maiz agertzen direnak hauek ere, haurrari, oso txikitik zuzendutako edo haurrak berak ekoiztutako esaldietan. Izen-morfologiaren arloan pluraleko *-k* markaren, ergatiboko *-k* markaren, datiboko *-(r)i* markaren eta genitiboko *-(r)en* markaren erabilera da aztertuko dena. Aditz-morfologiaren arloan, osteria, *-t(z)en* eta *-ko* aspektu marken eta hainbat adizkiren ekoizpena aztertuko da.⁴ Morfologia-itemak aukeratzeko aurretik burututako luzetarako zenbait ikerketetako emaitzak izan dira kontuan (Ezeizabarrena 1994, 1996, Barreña 1995, Zubiri 1997, Elozegi 1998).

3. Emaitzak: haurren ekoizpenak

Atal honetan haurren garapen lexikoaren zein gramatikaren emaitzak aurkeztuko dira, eta beti gorago zehaztu diren hiru aldagaien arabera, hots, haurraren hizkuntza-inputaren elebakartasun/ elebitasunaren arabera (3.1. azpi-atala), gurasoen euskara-eragutzaren arabera (3.2. azpi-atala), eta gurasoek beren arteko elkarrizketetan euskaraz aritzeko ohituraren arabera (3.3. azpi-atala).

3.1. Euskararen maiztasuna haurrek entzundako hizketaldietan

Lehenago zehaztu denez, entzundako hizkuntzaren araberrako aldagaia kontuan harturik haurrak hiru taldetan sailkatu dira: A- *euskaldun elebakar* deitutakoak (entzundakoaren >% 90 euskaraz izan dutenena), B- *elebidunak* izanik *euskara nagusidun elebidun* deitutakoak (entzundakoaren 60tik % 90era euskarazkoa izan dutenena) eta C- *erdara nagusidun elebidun* deitu direnak (euskara, entzundakoaren % 60 baino gutxiago izan denean).

Emaitzak orokorrean harturik, nabaria da hiru haur-taldeetan artean gertatzen diren ezberdintasunak (4. eta 5. taulak). Beti, aztertutako arlo guztietan, erdara nagusi duten elebidunek (C taldekoek) beste bi taldekoek baino emaitza apalagoak dituzte, salbuespenik barik. Gainera taldeetan artean dagoen aldea esanguratsua da beti, eta beti zentzu berean: euskara nagusi dutenek, elebakarrek (A taldea) zein elebidunek

⁴ Adizkiak honako hauek izan dira: *naiz, zara, da, gara, zarete, dira, nintzen, zen, nago, dago, goazen, zait, zaizu, zaio, dut, duzu, du, ditut, dituzu, ditu, nuen, zuen, nituen, zituen, daukat, dauka, dauzkat, dauzka, dakit, daki, diot, dizut, dizkiot, dizkizut, nion eta nizun.*

(B taldea), erdara nagusi duten elebidunen taldeari alde esanguratsua ateratzen diote. Lexikoan nabaria da A eta B taldeetakoek, beti batez beste, hitz-kopuru handiagoa darabiltela C taldekoek baino, eta aldea esanguratsua da ($F = 7,28$; $p < 0,01$). Morfologian ere, nabarmen da handiagoa aztertutako marken erabilera A eta B taldekoen artean; gainera, C taldekoekiko alde esanguratsua derakusate beti: *-k* pluralaren erabilera ($\chi^2 = 24,49$; $p < 0,001$), *-k* ergatiboarenean ($\chi^2 = 44,81$; $p < 0,001$), *-(r)i* datiboarenean ($\chi^2 = 19,69$; $p < 0,001$), *-(r)en* genitiboarenean ($\chi^2 = 20,71$; $p < 0,001$), *-t(z)en* aspektu burutugabearenean ($\chi^2 = 22,98$; $p < 0,001$), *-ko* etorkizuneko aspektuarenean ($\chi^2 = 14,17$; $p < 0,01$) eta adizkienean ($F = 6,79$; $p < 0,01$).

Bestalde, A eta B taldeetako haurren artean, hots, elebakarren eta elebidun izanik euskara nagusitzat dutenen artean ez da behin ere alde esanguratsurik aurkitu. Badira aldeak bi taldeen artean, baina ez dira garrantzitsuak, ezta esanguratsuak ere. Batzuetan elebakarrek dituzte balio altuagoak, lexikoaren garapenean esaterako, baina beste batzuetan elebidun izanik euskara nagusitzat dutenek dituzte emaitza onenak, hala nola, ergatiboaren, datiboaren eta aspektuen marken ekoizpenetan. Edozelan ere, talde hauen arteko aldeak txikiak dira beti, eta esan bezala, ez esanguratsuak.

4. taula

Lexikoaren eta adizkien ekoizpena entzundako hizkuntzaren arabera


	A taldea Elebakarrak	B taldea Euskara nagusidun elebidunak	C taldea Erdara nagusidun elebidunak
Lexikoa (hitz-kopurua)	252	244	186
Adizkiak (adizki-kopurua)	5,04	5,33	2,97

5. taula

Artizkiak ekoizten hasita dauden haurren ehunekoak entzundako hizkuntzaren arabera


	A taldea Elebakarrak	B taldea Euskara nagusidun elebidunak	C taldea Erdara nagusidun elebidunak
Izen-morfologia			
<i>-k</i> plurala	% 39,3	% 38,5	% 17,5
<i>-k</i> ergatiboa	% 47,8	% 49,2	% 17,7
<i>-(r)i</i> datiboa	% 51,5	% 59,8	% 31,0
<i>-(r)en</i> genitiboa	% 49,4	% 56,1	% 31,7
Aditz-morfologia			
<i>-t(z)en</i> aspektua	% 37,2	% 39,6	% 17,0
<i>-ko</i> aspektua	% 26,9	% 29,4	% 12,8

Orokorrean aurkeztu diren emaitzak haurren adinaren arabera aztertuz gero, zehatzago ikusi ahal izango da taldeen artean gertatzen diren aldeak zein adinetan gertatzen diren esanguratsu. Horretarako haurrak bosna hilabeteko datuak barne hartzen dituzten hiru multzotan sailkatu dira: 16tik 20ra hilabete dituztenak, 21etik 25era dituztenak eta 26tik 30era dituztenak. Emaitza hauek 1., 2., 3. eta 4. grafikoetan agertzen dira: lexikoaren garapena, adizkien garapena, pluralaren garapena, ergatiboaren garapena, datiboaren garapena, genitiboaren garapena, aspektu burutu-gabearen garapena eta etorkizuneko aspektuaren garapena, hurrenez hurren.



1. grafikoa



Lexikoaren eta adizkien erabileraren garapena, entzundako hizkuntzaren arabera



2. grafikoa



Pluralaren eta ergatiboaren erabileraren garapena, entzundako hizkuntzaren arabera

Guztietan ikus daitezke ezberdintasun nabarmenak 26tik 30 hilabetera bitarteko haur-taldeen artean. A eta B taldeetako emaitzak askoz ere handiagoak dira C taldekoenak baino, eta alde hori beti izan da esanguratsua: ekoiztiko lexikoan



3. grafikoa

Datiboaren eta genitiboaren erabileraren garapena, entzundako hizkuntzaren arabera



4. grafikoa

Aspektu burutugabearen eta etorkizunekoaren erabileraren garapena, entzundako hizkuntzaren arabera

($F = 12,08$; $p < 0,001$), adizki-kopuruan ($F = 7,59$; $p < 0,001$), *-k* pluralaren erabileran ($\chi^2 = 24,71$; $p < 0,001$), *-k* ergatiboarenean ($\chi^2 = 54,17$; $p < 0,001$), datiboarenean ($\chi^2 = 28,48$; $p < 0,001$), genitiboarenean ($\chi^2 = 19,80$; $p < 0,001$), eta baita aspektu burutugabearenean ($\chi^2 = 23,74$; $p < 0,001$), edota etorkizuneko aspektuaren ($\chi^2 = 15,34$; $p < 0,001$) erabileran ere.

Haur txikiagoetan ere, 21etik 25 hilabetera bitarteko taldeen artean, A eta B taldekoek balio handiagoak lortzen dituzte C taldekoek baino, gehienetan behintzat, baina aldeak ergatiboaren erabileran ($\chi^2 = 7,93$; $p < 0,05$) eta aspektu burutugabearen erabileran ($\chi^2 = 8,81$; $p < 0,05$) bakarrik dira esanguratsuak.

Ostera, 16tik 20 hilabetera bitarteko taldean behin ere ez da agertu alde esanguratsurik hiru taldeen artean.

3.2. Gurasoen euskara-ezagutza

Gurasoen euskara-ezagutzaren arabera haur-talde bi bereizi dira laginean: bi gurasoak euskaldunak (*bikote euskalduna*) dituztenenena, eta gurasoetako bat bakarria euskalduna (*bikote mistoa*) dutenena.

Haurren adina zehaztu barik, emaitza orokorretan, nabaria da haur-taldeen artean aurkitzen diren ezberdintasunak (6. eta 7. taulak).

6. taula

Lexiko- eta adizki-item-kopurua gurasoen euskara-ezagutzaren arabera

	Bi gurasoak euskaldunak	Guraso bakarria euskalduna
Lexikoa (hitz-kopurua)	243	213
Adizkiak (adizki-kopurua)	5,1	3,4


7. taula

Atzizkiak ekoizten hasita dauden haurren ehunekoak gurasoen euskara-ezagutzaren arabera

	Bi gurasoak euskaldunak	Guraso bakarria euskalduna
Izen-morfologia		
- <i>k</i> plurala	% 38,4	% 25,7
- <i>k</i> ergatiboa	% 46,6	% 32,8
-(<i>r</i>) <i>i</i> datiboa	% 50,4	% 49,7
-(<i>r</i>) <i>en</i> genitiboa	% 50,9	% 38,6
Aditz-morfologia		
- <i>t(z)</i> <i>en</i> -aspektua	% 37,0	% 24,7
- <i>ko</i> aspektua	% 27,4	% 17,0


Emaitza hobeak lortzen dituzte bikote euskaldunen haurrek bikote mistoenek baino, lexikoaren zein morfologiaren arloetan. Gainera, bi talde hauen artean ageri diren aldeak ere esanguratsuak dira. Badirudi, beraz, eragin garrantzitsua duela aldagai honek lexikoan ($t = 2,33$; $p < 0,05$), adizkietan ($t = 4,04$; $p < 0,001$), *-k* pluralaren erabileran ($\chi^2 = 10,11$; $p < 0,01$), *-k* ergatiboarenean ($\chi^2 = 11,20$; $p < 0,01$), datiboarenean ($\chi^2 = 6,64$; $p < 0,05$), genitiboarenean ($\chi^2 = 8,88$; $p < 0,01$), aspektu burutugabearenean ($\chi^2 = 9,59$; $p < 0,01$) eta baita etorkizuneko aspektuarenean ($\chi^2 = 8,26$; $p < 0,01$) ere.

Aurreko aldagaiarekin egin den bezala, aldagai honetako emaitzak adinaren arabera aztertuz gero nabarmena da aldea bereziki 26tik 30 hilabetera bitarteko haurren multzoan gertatzen dela. Adin-tarte horretan beti da aldea esanguratsua ekoizitako lexikoan ($t = 5,75$; $p < 0,001$), adizki-kopuruan ($t = 5,58$; $p < 0,001$), *-k* pluralaren erabileran ($\chi^2 = 26,27$; $p < 0,001$), ergatiboaren erabileran ($\chi^2 = 29,88$; $p < 0,001$), datiboarenean ($\chi^2 = 28,45$; $p < 0,001$), genitiboarenean ($\chi^2 = 31,80$; $p < 0,001$), aspektu burutugabearenean ($\chi^2 = 8,14$; $p < 0,01$) eta baita etorkizuneko aspektuaren erabileran ere ($\chi^2 = 18,02$; $p < 0,001$). Haur txikiagoen kasuan, ostera, aldea 21etik 25 hilabetera bitarteko tartean da soilik esanguratsua eta han, aspektu burutugabearen erabileran bakarrik ($\chi^2 = 14,85$; $p < 0,001$).




5. grafikoa

Lexikoaren eta adizkien erabileraren garapena, gurasoen euskara-ezagutzaren arabera




6. grafikoa

Pluralaren eta ergatiboaren erabileraren garapena, gurasoen euskara-ezagutzaren arabera



7. grafikoa

Datiboaren eta genitiboaren erabileraren garapena, gurasoen euskara-egagutzaren arabera



8. grafikoa

Aspektu burutugabearen eta etorkizunekoaren erabileraren garapena, gurasoen euskara-egagutzaren arabera

3.3. Gurasoek euren artean euskara erabiltzeko ohitura

Gurasoek euren arteko hizketaldietan euskaraz egitearen aldagaiaren eragina ikeritzeko 938 haurren datuak aztertu dira, hori baita informazio zehatz honi buruzko erantzuna emandakoen kopurua. Haurrak hiru taldetan sailkatu dira: beti edo gehienetan egiten duten gurasoen haurrak, batzuetan egiten dutenenak eta, azkenik, inoiz egiten ez dutenenak. Emaitza orokorrak 8. eta 9. tauletan daude.

Haur guztien datuak batera hartuta, alde esanguratsuak hiru marka hauetan bakarrik aurkitu dira: pluralean ($\chi^2 = 9,29$; $p < 0,05$), ergatiboan ($\chi^2 = 19,35$; $p < 0,001$) eta etorkizuneko aspektuan ($\chi^2 = 8,34$; $p < 0,05$). Euskara noizbait ('beti edo gehienetan' eta 'batzuetan') erabiltzen duten bikoteen haurrek puntuazio altuagoak lortzen dituzte euskara erabiltzen ez duten ('inoiz ez') bikoteen haurrek baino.

8. taula



Lexiko- eta adizki-item-kopurua gurasoek beren artean
euskara erabiltzeko ohituraren arabera

	Beti	Batzuetan	Inoiz ez
Lexikoa (hitz-kopurua)	239	245	220
Adizkiak (adizki kopurua)	5,0	5,0	4,0

9. taula

Atzizkiak ekoizten hasita dauden haurren ehunekoak
gurasoek beren artean euskara erabiltzeko ohituraren arabera

	Beti	Batzuetan	Inoiz ez
Izen-morfologia			
-k plurala	% 39,3	% 36,9	% 27
-k ergatiboa	% 51,5	% 42,4	% 32,6
-(r)i datiboa	% 50,0	% 48,6	% 44,0
-(r)en genitiboa	% 41,7	% 51,4	% 49,8
Aditz-morfologia			
-t(z)en-aspektua	% 35,8	% 36,3	% 27,6
-ko aspektua	% 24,6	% 29,8	% 18,8




9. grafikoa

Lexikoaren eta adizkien garapena, gurasoek beren artean
euskara erabiltzeko ohituraren arabera


Alabaina, datuak adin-tarteetan azterturik, arakatutako arlo guztietan aurkitu dira alde esanguratsuak 26tik 30 hilabetera bitarteko taldeetan, eta alde esanguratsuok euskara erabiltzen duten bikoteen haurren aldekoak dira ('beti edo gehienetan' edota 'batzuetan'): ekoitzitako lexikoan ($F = 10,88$; $p < 0,001$), adizki-kopuruan ($F = 8,87$; $p < 0,001$), pluralaren erabileran ($\chi^2 = 19,42$; $p < 0,001$), ergatiboarenean ($\chi^2 = 36,96$; $p < 0,001$), datiboarenean ($\chi^2 = 15,38$; $p < 0,001$), genitiboarenean ($\chi^2 = 21,99$; $p < 0,001$), eta baita aspektu burutugabearen ($\chi^2 = 9,40$; $p < 0,01$) zein etorkizuneko aspektuaren ($\chi^2 = 17,31$; $p < 0,001$) erabileran.

Gainerako adin-tarteetan aldea 21etik 25era bitarteko adinekoetan soilik gertatzen da esanguratsu, eta orduan aspektu burutugabearen erabileran bakarrik ($\chi^2 = 6,36$; $p < 0,05$).




10. grafikoa

Pluralaren eta ergatiboaren garapena, gurasoek beren artean euskara erabiltzeko ohituraren arabera



11. grafikoa

Datiboaren eta genitiboaren garapena, gurasoek beren artean euskara erabiltzeko ohituraren arabera



12. grafikoa

Aspektu burutugabearen eta etorkizunekoaren garapena, gurasoek beren artean euskara erabiltzeko ohituraren arabera

4. Eztabaida

Ikerlan hau inputaren eragina neurtzeko saio bat izan da, elebkarren eta elebidun mota desberdinen arteko alde neurgarriarik dagoen ikusteko.

Euskararen presentzia-mailak, hots, haurrak euskara entzuten pasatzen duen denborak, eragina du bere hizkuntzaren garapenean. Hala erakusten dute aztertu diren datuek.

Arakatutako hiru aldagaien arabera (euskararen presentzia haurrek entzundako hizkuntzan, gurasoen euskara-egazutza eta gurasoen euren artean euskara erabiltzeko ohitura) haur taldeen garapena kuantitatiboki desberdina dela esan daiteke. Hiru aldagaiek dute eragina hiztegiaren zein morfologia ekoizten hasteko adinean, hizkuntza-arlo batzuetako eragina goizago nabaritzen bada ere. Ondorengo 10. taulan ikus daiteke zein adin-tartetan eta zein talderen artean aurkitu diren alde esanguratsuak.

Hiru aldagaiek erakutsi dute eragina ez dela berdina aztertutako adin-talde guztietan, haurrak zenbat eta koskortuagoak izan, orduan baita nabarmenagoa, bereziki 26tik 30 hilabetera bitartean, eta orduan arlo guztietan aurkitu dira, gainera, lexikoan zein morfologian. Zenbait arlotan —ergatiboa eta aspektu burutugabea— 21etik 25 hilabetera bitartean ere ikusi dira ezberdintasun esanguratsuak, baina arlo batean ere ez da halakorik aurkitu 16tik 20 hilabetera bitartean. Emaizta hau, 21 hilabete aurreko adin txikienerako taldeetan alde esanguratsurik ez agertzearena, alegia, ez da berez hain harritzekoa, hizkuntza-ekoizpena orokorrean horren urria den garaian (batez beste, hitz kopurua <70 hitz, atzizki-ekoizpena <%20).

Espero zitekeen bezala, alde esanguratsuak beti izan dira euskara gehiago entzun duten haurren alde (entzundakoaren % 60 edo gehiago euskarazkoa izan dutenena) eta alde esanguratsuak beti aurkitu dira euskara asko / gutxi (<% 60) entzun dutenen artean ere. Espero zitekeenaren kontra, ordea, ez da aurkitu alde esanguratsurik inguruan euskara hutsa entzundako haur elebkarren eta euskara nagusi duten haur elebidunen artean, aztertutako hizkuntz elementu baten ere, ez lexikoan, ez izenmorfologian, ezta aditz-morfologian ere.

10. Taula

Datuen laburbilketa. Aldagai bakoitzean eta aztertutako hizkuntza-elementu bakoitzerako alde esanguratsuak aurkitu diren lehen adin-tarteak

	Euskara kopurua >% 60 / <% 60	Guraso euskaldunak biak / bakarra	Gurasoen artean euskaraz beti & batzuetan / inoiz ez
Lexikoa	26-30 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete
Adizkiak	26-30 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete
- <i>k</i> ergatiboa	21-25 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete
- <i>k</i> plurala	26-30 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete
-(<i>r</i>) <i>i</i> datiboa	26-30 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete
-(<i>r</i>) <i>en</i> genitiboa	26-30 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete
- <i>t(z)en</i> burutugabea	21-25 hilabete	21-25 hilabete	21-25 hilabete
- <i>ko</i> etorkizuna	26-30 hilabete	26-30 hilabete	26-30 hilabete

Gurasoen euskara-ezagutzaren aldagaiari begiraturik ere, orokorrean ez da alderik ikusi guraso biak / bakarra euskalduna dutenen artean. Baina 21 hilabetetik aurrera alde txiki bat hasten da agertzen, arlo guztietara hedatu dena 26tik 30 hilabetera bitarteko aldian. Adin-tarte horretan, aztertutako arlo guztietan agertu dira puntuazio altuagoak guraso biak euskaldunak dituzten haurrengan.

Azkenik, gurasoek euren arteko hizketaldietan euskara erabiltzeko ohitura bai/ ez izatearena ere esanguratsua gertatu da. Baina, orain arte ikusi den legez, bereziki 26tik 30 hilabete bitarteko haurrengan. Adin-tarte horretan aztertutako elementu guztietan, lexikoa zein morfologian, alde esanguratsuak ikusi dira euskara erabiltzeko ohitura (batzuetan edo beti) duten gurasoen haurren alde. Nabaria da elkarri euskaraz egiteko ohiturarik ez duten gurasoen haurren emaitzak apalagoak direla, batez bestekoetan. Amaitzeko, euskara 'beti edo gehienetan' eta 'batzuetan' darabilten gurasoen seme-alaben taldeen artean ez da batere alde esanguratsurik aurkitu.

Hiru aldagaiek jokaera bertsua erakutsi dute aztertutako hizkuntza-elementu gehienetarako eta antzeman dituzten desberdintasunak adin-tarte beretan gertatu dira, nagusiki 26-30 hilabete bitartean. Ergatibo-marka izan da aztertutako guztien artean jokaera berezia erakutsi duen hizkuntza-unitate bakarra, izan ere, euskara gehiago / gutxiago entzutearen eragina goizago nabaritu baita (25 hilabete aurretik), gurasoen euskara ezagutza-mailarena edo gurasoen arteko hizkuntza-ohiturarena baino (26-30 hilabete).

5. Ondorioak

Ikerketa honek betidanik uste izan den zerbait baieztatu du, alegia, haurraren inguruan egiten d(ir)en hizkuntzak eragina duela haurraren hizkuntzaren garapenean.

Halere, eragin hori hobeto ezagutzen hasteko saioa izan den honetan, euskarak gure etxeetako giroan beste hizkuntzekin egun bizi duen egoeran duen presentzia neurtzen hasteko ahalegin honetan, zera aurkitu dugu, lehenengo, euskara hutsean bizi diren haurrek zein euskara beste hizkuntza batekin batera bereganatzen duten haurrek garapen bertsua erakusten dutela aztertutako hizkuntza unitate guztietan, baldin eta etxe elebiduneko haur horiek nahikoa euskara entzuten badute (inputaren % 60tik gora).

Ondorio nagusi hori euskarak haurren inguruko esparru osoan hizkuntza bakarra den edo esparru hori beste hizkuntzaren batekin partekatu beharrean gertatzen den neurtuta atera da. Egin ez dena, ordea, haurrak hizkuntza bakoitzerako zenbat ordutako entzuketa-saioak egin dituen neurtzearena izan da, horrelako neurketa bat ez baitzaigu oraingoz egingarri. Eta zabalik dirau, besteak beste, haur elebidun horien erdararen garapena zertan den aztertzearena.

Ikerketa honetan B taldeko haurren emaitzak ikusi ondoren, zilegi dirudi pentsatzeak ikerketa honetan euskara apalago garatu duten C taldeko haur elebidunek beren erdara, beste haur elebatarrek erdara garatzen duten antzera garatu izango dutela.

Horregatik, gutxienez aukera bi otutzen zaizkigu: a. ikerketa honetan euskara apalago garatu duten haur elebidunek agian erdara erdaldun elebatarren antzera garatu dute, nolabait erdara hizkuntza indartu legez garatu dutelako; b. ikerketa honetan euskara apalago garatu duten haurrek, elebidunak izanik, denbora gehixeago behar dute hizkuntza biak elebatarren antzera garatzeko.

Lanaren mugen jakitun izanda ere, 30 hilabeteak egin arteko haurrengandik bildutako datuok nabarmen erakutsi digute, ordea, bereizi ditugun taldeen artean gertatzen diren aldeak esanguratsuak direla adin jakin batetik aurrera, 26 hilabetetik aurrera, alegia, hizkuntza-ekoizpena orokorrean emankorra izaten hasten den garaian. Adin horretatik aurrera bereizten dira era nahikoa argian euskara inguruan nagusi duten haurrak inguruan erdara nagusi dutenengandik.

Gai honetan sakontzeko, bi bide ireki dira: batetik, haur elebidunen hizkuntza biak aztertzea, elebidunek bi hizkuntza garatzean euretako bat indartu legez garatzen ote duten ikusteko. Bestetik, haurren adin-tartea 30 hilabetetik aurrera luzatzea, elebidunek bi hizkuntzez jabetzeko denbora gehiago behar ote duten ikusteko.

Sarreran aipatutako elebitasun goiztiarraren inguruko nahasketa / bereizketaren eztabaida jada klasikoan gure emaitzok adierazpen kategoriko bat egiteko adinako indarrak ez badute ere, ez dirudite, halere, bi aukeren alde berdin egiteko erabil daitezkeenik. Haur hauen euskara-ekoizpena bakarrik aztertu da, ez baitugu aztertu haur elebidunon ekoizpen-maila entzuten dituzten gainerako erdaretan, ezin dugu beraz jakin hizkuntza biak (edo gehiago, kasu batzuetan) abiada berean bereganatzen ari diren, eta gutxiago oraindik hizkuntza batek bestearen garapenean duen eragina. Halere KGNZko datuok erakutsi digute elebatarrek eta mota jakin batzuetako elebidunek, euskara inguruan nagusi dutenek, alegia, garapen-eredu berdina erakusten dutela. Zehazki neurtu ez bada ere, antzekotasun honek entzundako hizkuntza-kantitatearekin lotura zuzena duela pentsarazten du: euskara asko entzuten dutenek (bera bakarrik, edo beste batekin batera) garapen-eredu jakin bat erakutsiko du: batez beste, 26 hilabeteak aldera, hiztegi ugaria eta hainbat marka morfologiko

menderatzen dituztela (Barreña eta beste 2007). Euskara gutxiago entzuten dutenek, berriz hilabete batzuk beranduago osatzen dute, salbuespenak salbuespen, ekoiztiko hiztegi neurri eta atzizki-sorta bera. Inputak, badu, beraz eragina, ikusgarri 26 hilabete aurrera, eta euskara nahikoa (>% 60) / gutxitxo entzuten duten haurren artean (<% 60).

Bibliografia

- Almgren, M. eta Barreña, A., 2001, "Bilingual Acquisition and Separation of Linguistic Codes: Ergativity in Basque Versus Accusativity in Spanish", in K. E. Nelson, A. Aksu-Koc eta C. E. Johnson (arg.) *Children's Language, Volume 11: Interactional Contribution to Language Development*, Lawrence Erlbaum Associates, Mahwah, New Jersey, 27-48.
- Arratibel, N., Barreña, A., Garcia, I. eta Markaide, E., 2003, "Komunikazio garapena neurtzeko zerrenda' tresnari buruzko zenbait jakingarri", *Jakingarriak* 49-50, 56-61.
- , —, Pérez-Pereira, M. eta Fernández, P., 2005, "Comparaciones interlingüísticas euskara-gallego del desarrollo léxico y gramatical infantil", in M. A. Mayor, B. Zubiauz eta E. Díez (arg.), *Estudios sobre la adquisición del lenguaje*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 983-996.
- Barreña, A., 1995, *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak* [Grammatical development and Basque children], doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , 1997, "Desarrollo diferenciado de sistemas gramaticales en un niño vasco-español bilingüe" in W. Glass and A. T. Pérez-Leroux (arg.) *Contemporary Perspectives on the Acquisition of Spanish*, Cascadilla Press, Somerville, 55-74.
- , 2001, "Grammar Differentiation in Early Bilingual Acquisition: Subordination Structures in Spanish and Basque" in M. Almgren, A. Barreña, M. J. Ezeizabarrena, I. Idiazabal eta B. McWhinney (arg.), *Research on child language acquisition*, Cascadilla Press, Somerville, 78-94.
- , García, I., Arratibel, N., Ezeizabarrena, M. J., Almgren, M., Petuya, A. eta Colina, A., 2007, "Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan", *Uztaro* 60, 67-87.
- , García, I., Ezeizabarrena, M. J., Almgren, M., Arratibel, N., Olano, I., Barnes, J., Petuya, A. eta Colina, A. (agertzeko) *MacArthur-Bates komunikazio garapena neurtzeko zerrenda. Euskarara egokitua. Erabiltzaileentzako gida eta eskuliburu teknikoa*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Bassano, D., 2000, "Early development of nouns and verbs in French: Exploring the interface between lexicon and grammar", *Journal of Child Language* 27, 521-559.
- Bates, E. and Goodman, J. C., 1997, "On the inseparability of grammar and the lexicon: Evidence from acquisition, aphasia and real-time processing", *Language and Cognitive Processes* 12, 507-586.
- , Marchman, V., Thal, D., Genson, L., Dale, P., Reznick, J. S., Reilly, J. eta Hartung, J., 1994, "Developmental and stylistic variation in the composition of early vocabulary", *Journal Child Language* 21, 85-123.
- Bel, A., 2001, *Teoria lingüística i adquisició del llenguatge. Anàlisi comparada dels trets morfològics en català i en castellà*, Universitat Pompeu Fabra, Barcelona.
- Casselli, M. C., Casadio, P. eta Bates, E., 1999, "A comparison of the transition from first words to grammar in English and Italian", *Journal of Child Language* 26, 69-111.

- De Houwer, A. eta M. Bornstein, 2005, "Asymmetry in early bilingual lexical development: more evidence for dissociations between comprehension and production", *X International Congress for the Study of Child Language* biltzarrean aurkeztutako ikerlana, Berlin.
- De Houwer, A., 1995, "Bilingual Language Acquisition", in P. Fletcher eta B. Mac Whinney (arg.), *The Handbook of Child Language*, Blackwell, Cambridge MA, 219-250.
- Deuchar, M. eta Quay, S., 2000, *Bilingual Acquisition: Theoretical Implications of a Case Study*, OUP, Oxford.
- Devescovi, A., Caselli, M. C., Marchione, D., Pasqualetti, P., Reilly, J. eta Bates, E., 2005, "A crosslinguistic study of the relationship between grammar and lexical development", *Journal of Child Language* 32, 759-786.
- Elosegi, K., 1998, *Kasu eta preposizioen jabeakuntza-garapena haur elebidun batengan*, doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Ezeizabarrena, M. J., 1994, "Primeras formas verbales de concordancia en euskera". In J. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Vervuert, Frankfurt am Main, 181-229.
- , 1996, *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.
- , 1997, "Infinitivos verbales en el lenguaje de niños bilingües", in L. Díaz & C. Pérez (coord.), *Views on the Acquisition and Use of a Second Language*, Universidad Pompeu Fabra, Barcelona, 177-190.
- Fenson, L., Dale, P., Reznick J. S., Thal, D., Bates, E., Hartung, J. P., Pethick, S. eta Reilly, J., 1993, *MacArthur Communicative Development Inventories: User's guide and technical manual*, Brookes, Baltimore.
- García, I., Ezeizabarrena, M. J., Almgren, M. eta Errarte, I., 2005, "El desarrollo léxico infantil en euskera: Una nueva adaptación del Test MacArthur", in M. A. Mayor, B. Zubiauz eta E. Díez (arg.) *Estudios sobre la adquisición del lenguaje*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 955-967.
- Genesee, F., E. Nicoladis eta J. Paradis, 1995, "Language differentiation in early bilingual development", *Journal of Child Language* 22, 611-631.
- , 2003, "Rethinking Bilingual acquisition", in J. M. Desakem, A. Housen eta L. Wei (arg.) *Bilingualism: Beyond Basic principles*, Multilingual Matters, Clevedon, 204-228
- Lleo, C., Kuchenbrandt, I., Kehoe, M. eta Trujillo, C., 2003, "Syllable final consonants in Spanish and German monolingual and bilingual acquisition", in Müller, N. (arg.), *(In) vulnerable Domains in Multilingualism*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia, 191-220.
- Marchman, V. eta Bates, E., 1994, "Continuity in lexical and morphological development: a test of the critical mass hypothesis", *Journal of Child Language* 21, 339-366.
- Meisel, J. (arg.), 1994, *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuert-Iberoamericana, Frankfurt am Main.
- , 2001, "The simultaneous acquisition of two first languages: Early differentiation and subsequent development of grammars", in J. Cenoz eta F. Genesee (arg.) *Trends in Bilingual acquisition*, John Benjamins, Philadelphia / Amsterdam, 11-41.
- Müller, N. eta H. Hulk, 2000, "Crosslinguistic influence in bilingual children: object omissions and root infinitives", in C. Howell et al. (arg.) *BUCLD 24 Proceedings*, Cascadilla Press, Somerville, 546-557.

- Pérez Pereira, M. eta García Soto, X. R., 2003, "El diagnóstico del desarrollo comunicativo en la primera infancia: adaptación de las escalas MacArthur al gallego", *Psicothema* 15: 3, 352-361.
- , Almgren, M., Resches, M., Ezeizabarrena, M. J., Díaz, C. eta García, I., 2006, "Cross-linguistic comparisons between Basque and Galician". Dubrovnic Meeting on the Adaptations of the MacArthur-Bates Test. May 2006.
- Pérez-Vidal, C., 1995, *La adquisición del Inglés de un niño bilingüe (Catalán / Inglés)*, Universidad de Barcelona, Barcelona.
- Redlinger, W. y Park, T., 1980, "Language mixing in young bilinguals", *Journal of Child Language* 7, 337-352.
- Sebastián, N., 2006, "Native-language sensitivities: evolution in the first year of life", *Trends in Cognitive Sciences* 10: 6, 239-240.
- Serrat, E., Sanz-Torrent, M. eta Bel, A., 2004, "Aprendizaje léxico y desarrollo de la gramática: vocabulario verbal, aceleración morfológica y complejidad sintáctica", *Anuario de Psicología* 35: 2, 221-234.
- Volterra, V. eta Taeschner, T., 1978, "The acquisition of language by bilingual children", *Journal of Child Language* 5: 2, 311-326.
- Zubiri, J. J., 1997, *Izen Sintagmaren determinazioa eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebatarren jarraipena*, Doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

CLAUDE MAUGERREN ESKULIBURUA URTEREN EREDU

Gidor Bilbao
JUMI, UPV/EHU

1. Pierre Urteren *Grammaire Cantabrique - Escaldun gramarioa*

Duela ehun urte baino gehiago (1900.ean)¹ moldiztegitatu zuen Wentworth Websterrek Pierre Urteren *Escaldun gramarioa* osorik, *Grammaire Cantabrique Basque* izenburuarekin.² Baldintza eskasetan egin zuen Websterrek edizio-lana, ezin izan baitzuen erabili Urteren jatorrizko eskuizkribua,³ haren eskuzko kopia bat baino; gainera, Urteren eskuizkribua bera ere ez dago, euskalari ingelesak dioenez, erraz-erraz argitaratzeko moduan antolatuta eta atonduta.⁴ Agian horregatik ez zuen Websterren lanak jarraitzailerik izan, eta gaur ere ondo aztertu barik segitzen du Urteren *Gramario* hark.⁵

¹ Egoki iruditu zait Patxi Goenagaren gramatikaren 30. urteurrenean beste bide-urratzaile bati buruz jardutea. Patxi Goenagaren gramatikak bide luzea egin zuenean ezagutu nuen nik egilea, irakasle lanetan, Fakultatean. Hala gramatikak nola egile-irakasleak bidean segitzen zuten: eskola haietan oharrez beterik geratzen zen orri zuria, baina ez zen izaten modurik ikasleak hain atsegin duen diskurtsu egituratua antolatzeko; eskola haietan, beste inon baino hobeto ikasi nuen hizkuntzari buruz hausnartzen, bideetan. MEC-2005 ikerketa-proiektuen deialdian 2005-2008 aldirako onarturiko "Fundamentos para unos *Monumenta Linguae Vasconum*: Historia, crítica y edición de textos vascos" proiektuaren babespean egin ahal izan da lan hau; Ricardo Gómezek irakurri eta aberastu du, argitara eman baino lehen.

² *Grammaire Cantabrique* da liburu aipatzeko gehien erabili den izenburua, hori delako eskuizkribuaren hasieran datorrena. Baina euskarazko izenburua ere Urtek berak erabilia da, frantsesezkoaren ordain gisa: «... Je lis la *Grammaire Cantabrique // Escaldun Gramarioa* iracurtcen dut» (Webster 1900: 517).

³ Earl of Macclesfielden biblioteka pribatua zen orduan, Watlingtonen (Oxfordshire, Ingalaterra), eta orain ere han bide da. Ondoko lokalizazio-datu hauek bide ditu Shirburn Gazteluko bibliotekan: «Pierre D'Urte, *Grammaire Cantabrique-Basque*, North Library, 112, H18». Guk ere ez dugu ikusi eskuizkribua, baina haren kopia eskuratzeko zuzemenak egiten ari gara.

⁴ «... les feuillets manuscrits n'étaient pas numérotés. A une époque indéterminée, en les unissant pour les donner au relieur, le bibliothécaire de Shirburn Castle les laissa tomber: il s'empressa de les ramasser, de les arranger, de les numéroter, aussi bien que pouvait le faire quelqu'un qui ne savait pas le premier mot de la langue Basque. Si Pierre d'Urte avait observé un ordre quelconque, cela n'aurait pas eu de conséquence, mais ce n'était pas le cas. C'est pourquoi les feuillets (c. a. d. de la copie), lorsqu'ils sont arrivés entre nos mains, portaient dans certains endroits des traces certaines de désordre» (Webster 1900: III).

- & Festeau, P., 1713, *Nouvelle grammaire Française-Angloise et Angloise-Française - A new double grammar French-English and English-French*, Haga.
- Oyharçabal, B., 1989, "Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)", *ASJU* XXIII-1, 59-73.
- Sáez Rivera, D. M., 2002, "Vida y obra de Francisco Sobrino (con breves noticias sobre Félix Antonio de Alvarado y Fray Gerónimo de Gracián)", in *Francisco Sobrino. Diálogos nuevos en español y en francés (1708)*, Valentzia, <<http://parnaseo.uv.es/Lemir/Textos/Sobrino/Index.htm>> (*Anexos Revista Lemir*).
- , 2006, "L'Interprect ou traduction du François, Espagnol & Basque (1620) de Voltaire en el marco vascorrománico y europeo", *Oihenart* 21, 441-452.
- Sagarzazu, Tx., 1996, "Urteren azentuaz", *ASJU* XXX-1, 159-171.

- Urkizu, P., 1989, *Pierre D'Urteren Hiztegia. Londres 1715*, Deustuko Unibertsitatea (Mundaiz. Unibertsitatea Saila), Donostia.
- Urte, P., [c. 1712], 1900, *Grammaire Cantabrique - Basque*, W. Webster (arg.), Extrait du Bulletin de la Société Ramond, Bagnères-de-Bigorre.
- Webster, W., 1900, "La Grammaire Basque de Pierre d'Urte. Préface", in P. D'Urte, *Grammaire Cantabrique - Basque*, Bagnères-de-Bigorre, I-VIII.

ERREFERENTZIAKIDETASUNAREN AZTERKETA ETA ANOTAZIOA EUSKARAZKO CORPUS BATEAN

Klara Ceberio
Ixa Taldea, UPV/EHU

Arantza Diaz de Ilarraza
UPV/EHU

Itziar Aduriz
Universitat de Barcelona

Inés M. Garcia Azkoaga
UPV/EHU

1. Sarrera

Ia hogeita hamar urte igaro dira Patxi Goenagak *Gramatika Bideetan* liburua argitara eman zuenetik, euskarak ofizialtasuna bereganatu zuen beste urte, eta denbora luze honetan euskarak aurrera egin du indartzearen, estandarizazioaren eta normalizazioaren bidean; poliki-poliki, lehen mugatuak zituen esparruetako ateak zabaldu zaizkio gizartean, besteak beste, hedabideetan, heziketan, unibertsitatean, eta zientzia eta teknikaren arlo askotan.

Era berean, zientziak eta teknikak sekulako aurrerapausoak eman ditu azken urteotan, eta horrekin batera erabilera eta azterketa esparru berriak sortu dira euskarentzat hizkuntzak eta teknologiak bat egiten duten eremuetan.

Hizkuntzaren erabiltzaileak gara, baina hizkuntzaz baliatzeko modu asko daude, eta informazio eta komunikazio teknologiarik esker lehen pentsaezinak ziren bitartekoak ditugu euskara idatziari zein ahozkoari tarte berriak eskaintzeko eta gure hizkuntza mundu zabalean ibilarazteko.

Garai batean ahotsa grabatzeko erabiltzen genituen magnetofoi eta kasetek lekua utzi diete bitarteko digital eta informatikoei; telefonoz hitz egiteko dagoeneko ez dugu zertan egon hari bati lotuta, are gehiago, zenbaitetan telefonoz deitu eta gizaki baten antzean hitz egiten digun makina batek erantzuten digu; konputagailuen laguntzaz idazten dugu, eta konputagailuak ahotsaren bidez lan eginaraztea dugu amets; hizkuntzen arteko mugak apurtu nahi ditu gizakiak itzulpen automatikoaren bitartez, etab. Horren guztiaren ondorioz bide ugari hartu du hizkuntzalaritzak, eta gaur egun gauden jakintza eta informazioaren gizarte honetan, hizkuntzak modu naturalean egin du bat teknologiarekin. Azken batean, hizkuntza eta teknologia ez daude hain urrun, eta Lengoaia Naturalaren Prozesamendua (LNP) saiatzten da bi arloak uztartzeko.

Hizkuntzalaritza eta informatikak bat egiten dute makina bati hitz egiten/hizkuntza ulertzen erakusteko orduan. Hizkuntzalariak tratatzen ari den hizkuntzako datuak

¹ Argitalpen hau EHUk babestutako 1/UPV 00033.130-H-15286/2003 ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da.

bildu, aztertu, xehatu eta programek erabiltzeko moduan deskribatu eta antolatzen ditu. Hau da, informazio linguistikoa automatikoki prozesatzeko moduan jartzen du. Informatikariak dira programen egileak, informazio linguistikoa erabiltzen dutenak testua prozesatzeko, testua ulertuko duten analizatzaileak lortzeko helburuarekin ala aplikazioak egiteko helburuarekin. Esate baterako, hizkuntzalariak erregela bidezko gramatika sintaktiko bat osatzen badu, informatikoak informazio hori prozesatuko lukeen analizatzaile sintaktikoa egingo luke, eta aplikazio bat eratu, zuzentzaile sintaktiko bat, adibidez.

Alegia, adituek aldeztu aurretik prestatu eta antolatutako informazioari esker makinak eta gizakiak hizkuntzaren bitartez elkarrekin dezan. Elkarrekin horiek hizkuntzaren maila guztietan gerta daitezke, hala nola, morfologikoan, sintaktikoan, semantikokoan ala testualean. Maila hauek guztietan analisi osoa eta sendoa egin nahi bada, nahitaezko baldintza da elementu oro deskribatua egotea. Hala, morfologikoan postposizioen deskripzioa egingo eta lexikoaren kategoriaz eta azpikategoriak emanak izatea, adibidez. Sintaktikoan, egitura sintaktikoak ezagutuak izatea, sintagmatik hasita esaldietaraino, eta helburuaren arabera, mendekotasun-erlazioak azaleratuak. Semantikokoan, adieraren desanbiguazioarekin batera, paper tematikoen eta predikatuen berri izatea. Testuaren mailan sare erreferentziala aztertzea izatea; izan ere, testu bat ekoizten dugunean erabiltzen dugun diskurtsoan ageri diren zenbait zantzuren bitartez gaiak harilkatzen dira eta informazioak aurrera egiten du, horri esker irakurleak edo entzuleak interpretatu egin dezake zeri buruz hitz egiten edo idazten ari garen. Gaiak harilkatze hori anaforen eta sare erreferentzialen bitartez egiten da.

Euskarazko Lengoia Naturalaren Prozesamenduaren arloan hamaika lan egin dira (eta egiten ari dira) batez ere maila morfologikoan eta sintaktikoan (Urkia 1997) (Gojenola 2000), maila semantikoko azterketa gaur egun pil-pilean dagoen gaia da eta euskaraz ere oraintxe lantzen ari den gaia da (Aldezabal 2004). Hutsune handiena arlo honetan testu mailako lanetan dago, ez baita euskaraz inongo azterketarik gai honi buruz, eta ondorioz, ez dago corpusik sare erreferentziala etiketatua duenik.

Hutsune hori betetzera dator lan hau. Orain dela bizpahiru urte EHUren barruan Euskal Filologia saila eta IXA taldearen artean hasitako lanen helburuak, ondorioak eta birplanteamenduen berri ematera gatozenak.

Artikulu honetan lehendabizi erreferentziakidetasunaren eta anaforen arteko harremanaz arituko gara. Ondoren, hizkuntzaren prozesamendu automatikoaren esparruan anafora eta erreferentziakidetasuna markatzeko ikerketan zertan diren azalduko dugu labur. Jarraian etiketatzeko dauden tresnak eta egin ditugun aukerak azalduko ditugu. Gero, lan egingo dugun corpusaren ezaugarriez arituko gara eta lan honen ardatza izan den erreferentziakide eta anaforiko diren adierazpideak nola etiketatzen den azalduko dugu hurrengo puntuan. Azkenik, lan honen ondorioak eta etorkizuneko lanak aipatuko ditugu.

2. Erreferentziakidetasuna eta anafora

Erreferentziakidetasunaz hitz egiteak edo termino hori mugatu nahi izateak ezinbestean eramaten gaitu, besteak beste, anaforen eta erreferentziakidetasunaren artean dagoen harremana tratatzera.

Garbi dago erreferente jakin bat izendapen ezberdinen bitartez berreskura daitekeela testuan zehar, adibidez:

- (1) Abuztuaren 17an gorpua bat topatu zuten, deskonposizio egoeran Lodosako (Nafarroa) ubidean. 33 urteko emakume espainiar batena zela jakinarazi zuten ikerketa iturriek. *Emakume hori* Raquel Sanchez Suñen zen eta Calahorrrakoa zen, Errioxa erkidegokoa. Gorpua topatu zutenean, deskonposizio egoeran zegoen, eta ADN frogak egin behar izan zizkioten. Hilabete lehenago desagertu zen *errioxarra bere* etxetik. *Raquel Sanchez Suñen-en* senideak eta polizia aspaldi ari ziren *haren* bila. [Berria-tik (2007-09-08) moldatua]
- (2) ... Emakume hori → izena determinatzaile erakuslearekin
 ... Gorpua → izena artikuluaarekin
 ... Errioxarra → jentilizioa
 ... bere → izenordaina
 ... Raquel Sanchez Suñen → izen berezia
 ... haren → erakuslea

Adierazpide horien artean erreferentziatzeko lotura dago erlazio semantikoa dagoelako, eta horretaz gain, harreman anaforikoa dago aurrekariarekiko, *emakume hori*, *gorpua*, *errioxarra*, *bere*, *Raquel Sanchez Suñen*, *haren* adierazpideen erreferentzia zentzua argitzeko sorburuan dagoen *gorpu bat* adierazpidera jo behar dugulako.

Aurrekari baten eta hura izendapen ezberdinarekin berreskuratzen duen adierazpide erreferentziakideren baten artean harreman anaforikoa egon daiteke, baina horrek ez du esan nahi anafora eta erreferentziakidetasuna beti parekideak direnik; hor daude, esate baterako, asoziazio bidezko anaforak, zero anaforak, izen berezien bitartez egiten diren berrartzeak, edo erreferente ebolutiboan kasuak. Halaber, erreferentziakidetasuna eta harreman anaforikoa bat datozen kasuetan ere, anafora uztartuen eta askeen (diskurtsiboan) artean bereizi beharko dugu.

Asoziazio bidezko anaforaren kasuan, adibidez, aurrekariaren eta adierazpide anaforikoaren arteko harremana ez da oinarritzen erreferentziakidetasunean, elementu biek baitute erreferente ezberdina:

- (3) *Herri batera* iritsi ginen. *Eliza* tontor batean zegoen

Adibide klasiko horretan (3) ikusten den bezala, aurrekariak (*herri bat*) eta anaforak (*eliza*) erreferente ezberdina dute, adierazpide horietako bakoitzak errealitate ezberdin bat izendatzen baitu. Hala eta guztiz ere, harremanetan dauden bi adierazpide ditugu, bigarrenaren interpretazioa lehendabizikoaren bitartez egin behar dugulako, inferentziatzeko arrazamenduaren bitartez; horregatik, bien artean dagoen harreman anaforikoa asoziazioaren bidezkoa dela esaten dugu.

Beste bi adibide hauetan ere nabaria da erreferentziakidetasun eza:

- (4) *Istripu bat* egon zen... *Anbulantzia* iritsi zenean...
- (5) Pablok *bost lehoi* hil ditu eta nik *hiru* (Kleiber 1994)

Istripuak erreferente bat du eta *anbulantziak* beste bat. Hurrengo adibidean (5) aipatzen diren lehoiak ere ez dira erreferentziakideak, lehoi ezberdinak baitira. Pablok hil dituen lehoiak eta nik hildakoak ez dira berberak. Identitate bakarra izendatzeko

moduan dago, kasu bietan izen berdina erabiltzen delako. Erreferentziakidetasun birtuala esaten dio Milnerrek (1982) horri. (3) eta (4) adibideetan asoziazio bidezko anafora baten aurrean egongo ginатеke eta (5) adibidearen kasuan anafora lexikal edo nominal baten aurrean (Kleiber 1994).

Zero anaforaren kasuan ere zalantzazkoa izan daiteke erreferentziakidetasuna dagoen edo harremana anaforikoa den.

- (6) *Mirenek sagarrak* bildu ditu. Bihar merkatuta eramango ditu $\emptyset \emptyset$

Anafora berrartze erreferentzian oinarrituta dagoela abiapuntu gisa hartuz gero, ezingo genuke kokatu elipsia fenomeno anaforikoen barruan, baina ikuspegi zabalago batetik, anafora baten aurrean egongo ginатеke, elipsiaren interpretazioa hizkuntzatestu inguruan agertzen den beste adierazpide baten bitartez egin behar dugulako (Charolles 1991). Ikuspegi honetatik elipsiak ere harreman anaforikoaren adierazle izan daitezke.

- (7) “Jakingo duzunez, *ura* ez da beti puru-purua izaten; hainbat hondakin eduki ditzake disoluzioan edo partikula solidoak eraman. Batzuetan \emptyset oso zikina izan daiteke (euri zaparrada baten ondorioz, putzu batean, etab.) eta beste batzuetan badirudi \emptyset garden edo garbi dagoela”. (*Natur Zientziak*. “Ostadar” Proiektua, Elkar-G.I.E., DBH-1, 1996, 85. or.; García Azkoagan, 1999)

Era berean, litekeena da adierazpideak erreferentziakide izatea baina haien artean harreman anaforikorik ez egotea. Hori gertatzen da, hain zuzen, *izen berezien* kasuan:

- (8) *Mikel* eta *Andoni* Gasteizko jaietara joan dira. *Mikel* goiz itzuli da etxera baina *Andoni* ez da agertu oraindik.

Bigarrenaz aipatuta agertzen diren *Mikel* eta *Andoni* eta hasierakoak berdinak dira. Erreferentziakideak dira, baina lehendabiziko aipamenaren eta bigarrenaren artean ez dago harreman anaforikorik. Bigarren agerpeneko *Mikel* edo *Andoni* zuzenean interpretatzen ditugu, lehendabizikoak bezala; izan ere, izen berezia erreferentzia zuzenean izendatzeko modua da.

Beste adibide honetan ere harreman anaforikoa zalantzazkoa litzateke:

- (9) *Ibarretzek* bere agintaldiaren urte bukaerako lehendabiziko diskurtsoa irakurri zuen. *EEAko lehendakariak* esan zuenez..

Adierazpide biak erreferentziakideak dira erreferente berbera dutelako, baina era berean, *Ibarretxe* eta *EEAko lehendakariak* adierazpideak beregainak dira eta zuzenean interpreta ditzakegu. *Lehendakaria* hitzak pertsona jakin bati egiten dio erreferentzia eta dugun jakintza komunari esker ez dugu informazio gehiagorik behar *Ibarretxe* izenarekin lotzeko, hau da, lehendakaria zein den jakiteko ez da beharrezkoa aurrekarira jotzea. Hortaz, bigarren adierazpidea, *EEAko lehendakariak*, ez dugunez interpretatzen lehendabizikoaren bitartez, bien arteko harremana ez litzateke anaforikoa izango. Kleiber-en (1988) esanetan, anafora identifikatzeko orduan testuinguru linguistikoaren irizpidea hartzen badugu kontuan, ezin dira onartu anaforikoak ez diren erreferentziakidetasunak, alegia, berez interpreta daitezkeen adierazpidez osatuta dau-

denak; horrenbestez, adibide horretan autonomoak diren bi adierazpideren arteko erreferentziakidetasun erlazioa besterik ez genuke izango (Kleiber 1994). Corblin-ek (1983) anafora auresuposizionalak deitzen die anaforikoak ez diren erreferentziakidetasun hauei.

Ez dira hor bukatzen erreferentziakidetasunaren inguruan sortzen diren arazoak. Erreferente ebolutiboen kasuan ere zalantzak dira nagusi:

- (10) Har itzazu *lau sagar*. Zuritu eta zatitu. Eduki egosten ordu erdiz. Txiki-txiki egin. Hoztu ondoren, zerbitzatu *konpota hori* gailetatxoekin.
- (11) *Ur garbitan* egosi, honako hauekin batera: *gatz pixka bat, tipula erdia, porrua, azenarioak, bi baratxuri-atal, txortetik gabeko tomatea, eta patata zuritua eta pusketan txikitua...* *Pureari* laguntzeko, ogi-azal batzuk friji daitezke... (Pedro Subijana (1994): *Denok Sukaldari*, ETB, S.A., 78 or.)
- (12) *Arratoitxoa* begien itxi-ireki batean *adats ilegorridun eta begi distiratsudun neskatxa* bilakatu zen... *Neska gazteak* ibiltzeari ekin zion basotik irteteko asmoz... (Eguzkia baino ahaltzuagoa. *Ilargi Erditxoaren ipuinak*, 1993)

Denboran zehar gertatzen den itxuraldaketak, edo materiaren transformazioarekin (naturalak edo eraginakoak) gertatzen diren aldaketak adierazterakoan oso zaila da anaforaren mugak jartzea. Esate baterako, tartean prozesu bat azaltzen denean guztiz gal daiteke adierazpide baten identitate erreferentziala, lehen *sagarrak* zirenak *konpota* bihur daitezke prozesua bukatzerakoan, edo osagai sorta bat pure bilaka daiteke, etab., baina *sagarrak* eta *konpota* izaera ezberdina dute eta baita erreferente ezberdinak ere, beste horrenbeste gertatzen da lapikoan jartzen ditugun osagaiekin eta bukaeran lortzen dugun *purearekin*.

Ipuinaren adibidera (12) jotzen badugu, hasieran *arratoitxoa* zena *neskatxa* bihurtzen da, baina *arratoiak* erreferente edo errealitate batera garamatza eta *neska ederrak* beste batera. Halere, ez da horrela gertatzen pertsona bati buruzko kontaktuzuna egiten denean; horrelakoetan bilakaera bat gerta daiteke: *umea* → *gaztea* → *gizona*, baina kasu honetan izaki bera da, pertsona berbera da kasu guztietan, jatorrizko erreferentea hiperonimo ezberdinen bitartez berreskuratzen da.

Kasu hauetan guztietan adierazpideen arteko harreman anaforikoa justifika daiteke, baina inola ere ez haien artean erreferentziakidetasuna dagoela.

Bestalde, erreferentziakidetasuna dagoen harremanetan jartzen badugu arreta, askotariko adierazpideak aurkituko ditugu eta bereizketa mota ezberdinak egin ahal izango ditugu, anafora pronominalak eta ez pronominalak, eta anafora uztartuak eta askeak kasu.

Anafora pronominalen artean izango genituzke pertsona izenordainak eta beste hizkuntza unitate batzuk ere: aditzondoak (han, hantxe, bertan...), elkar, X-en burua, eta izenordain genitiboak.

- (13) *Gizon hark bere burua* hil nahi zuen

Adibide honetan *gizon* eta *bere burua* erreferentziakide dira eta gainera, bigarren adierazpidea uztartuta dago bere gobernu kategoriaren barruan, perpausean bertan baitu aurrekaria.

- (14) *Andoni bere* etxera eramán nuen

Beste adibide horretan, Zabalak (1996) nabarmentzen duen bezala, *bere* izenordainaren erreferentzia zalantzazkoa izan daiteke Andoniri edo beste pertsona bati egin diezaiokeelako erreferentzia. Perpausaren barneko elementuari erreferentzia egiten badio, kasu honetan *Andoniri*, izenordainaren erabilera bihurkariaren aurrean gaude.

Mota horretako izenordainen funtzionamendua gramatikaren bitartez azaldu behar da. Kasu horietan izenordainak anafora uztartuak dira. B elementuak aurrekari bat (A elementua) behar du txertaturik dagoen perpausan; A eta B erreferentziakideak dira eta uztartuak daude. Anaforaren funtzionamendua perpausaren barnera mugatzen da eta elementuen arteko harremana gramatikala da sintaxia eta semantikak baldintzatzen dutelako.

Hurrengo adibidean, ordea, izenordainaren funtzionamendua bestelakoa da, eraikuntza askea izango genukeelako; izenordaina eta aurrekaria erreferentziakideak dira baina izenordain anaforikoak ez du bere erreferentzia gauzatzen perpausa berean dagoen aurrekari baten bitartez.

- (15) *Ozono geruza* oso garrantzitsua da lurraren bizitzarako. *Bera / hura* da erradiakzio kaltegarrietatik babesten gaituen filtro naturala.

Izenordain anaforikoa semantikoki osatu gabea den neurrian testuan agertu den elementuren bat behar du esanahia hartzeko, eta bi elementuren arteko harreman hori linguistikoa da. Hala eta guztiz ere, aurrekari egokia aukeratzeko orduan irizpide pragmatikoak hartzen dira kontuan sorburu esanguratsuen aukeratzeko.

Nolanahi ere, egile batzuen ustez uztartu/aske bereizketa horrek ez du balio praktikoa handirik; Kempson-en (1986) arabera anafora aske baten izaera pragmatikoa agerian jartzen duen ezaugarria anafora uztartuetan ere agertzen da. (Kleiber 1998: 32).

Bestalde, izenordainen erabilera dela eta, euskarak aditzaren flexioan markatzen ditu subjektua, objektu zuzena eta zeharkako objektua, eta frantsesez edo ingelesez ez bezala, izenordainen erabilera ez da hain beharrezkoa hurrengo adibidean ikusten dugun moduan.

- (16) *Ura* oso garrantzitsua da gure bizitzan. Ø Gure gorputzaren osagairik nagusia da.

Eraikuntza askeetan anafora pronominalak ez ezik pronominalak ez direnak ere baditugu, eta hauen artean leialak direnak eta ez-leialak direnak.

Anafora leiala, zentzu hertsian, aurrekariaren berrartze lexiko-sintaktikoan datza. Kasu honetan adierazpide anaforikoak honako forma hauek har ditzake:

— Termino berberaren errepikapena (deklinabide-marka aldatu arren).

- (17) ...*haurtzaindegiak* hazkuntzarako gune dira... *haurtzaindegietako* profesionalen lana ez da erraza...

— Izen-sintagma zehaztugabea (Izena + bat) lexema berdina duen izen-sintagma artikuludun baten bitartez berreskuratzen denean: 'Izena + (elem. atrib.) + bat' → 'Izena + (elem. atrib.) + -al/-ak/-ok'.

- (18) ...*hiztegi berri bat* argitaratu dute... *hiztegiak*...

— Izen-sintagma zehaztugabea (Izena + *bat*), lexema berdina duen izen-sintagma erakusledun baten bitartez berreskuratzen denean: ‘Izena + (elem. atrib.) + *bat*’ → ‘Izena + (elem. atrib.) + erakuslea’. Egile batzuek testu barneko erreferentziatze deiktikoa esaten diote aurrekaria berreskuratzeke modu honi.

(19) ...*hiztegi bat* argitaratu dute... *hiztegi berri honek*...

Anafora ez-leialen kasuan adierazpide anaforikoaren lexema eta aurrekariarena desberdinak dira. Hauen artean kokatzen dira anafora kontzeptualak; adierazpide hauek laburbildu egun dezakete aurrekariaren edukia:

- (20) “Itsasoan *organismo mota desberdinak* aurki daitezke beren konplexutasun mailaren arabera eta bizi direneko sakontasunaren edo kostatik dagoen distantziaren arabera. Bizi direneko sakontasunari dagokionez, *itsasoko izakiak* honela sailkatzen dira: *planktona...*, *nektona...*, *bentosa...* (García Azkoaga, 1999: Natur Zientziak DBH-1, Ibaizabal 1996: 95)
- (21) [...] Automobila, *alkilaturiko etxearen parean* gelditu zenean, anai-arrebak korrikan irten ziren maleten bila, irrika bizian baitzeuden *bizileku hura* ikus-teko. [...] (García Azkoaga 2004: NE-DBH2-13)
- (22) Bainatzen ari ginela, *izurde bat* agertu zen gugandik gertu. *Ugaztun hauek* normalean ez dira horrenbeste hurbiltzen hondartzetara.

Horretaz gain, zenbaitetan aurrekariari buruzko balorazioak adierazten dituzte:

- (23) [...] Baina benetako damua gero etorri zitzaigun gogora, *bat-batean atea itxi zenean haize bolada handi bat* eragin zuen. *Egoera beldurgarri hura* artean sinestezina zen!! [...] (García Azkoaga 2004: NE-DBH2-5)

Gainera, adibide horietan ikusten den bezala aurrekaria sintagma labur bat zein enuntziatu osoa izan daiteke.

Ikusten ari garenez, harreman anaforikoa erreferentziakidetasunean oinarritzeak arazo bat baino gehiago dakartza. Haatik, kasu horiek guztiek, hertsiki anaforiko izan ala ez izan, testuaren kohesioa eraikitzen eta elementu ezberdinen artean gerta daitezkeen erreferentzia sareak harilkatzen laguntzen dute. Lan honetan interesatzen zaiguna da testu batean elkarren artean lotura erreferentziala edo anaforikoa duten elementuak identifikatzea, eta horretarako kontuan hartu beharko genituzke erreferentziakidetasunezko harremanak zein erreferentziakidetasungabeak.

Alabaina egun eskura ditugun tresna informatikoez ez digute oraindik ahalbidetzen erreferentziakide ez diren elementuak elkarren artean zalantzagarritasunik gabe lotzea. Hortaz, oraingoz erreferentziakidetasunezko harreman anaforikoen eta ez-anaforikoen esparrura mugatu beharko dugu azterketa eta, adibidez, horrelako adierazpide anaforikoak identifikatzen saiatuko gara: izen bereziak, izenordainak, erakusleak eta forma hauek hartzen dituzten anafora fidelak: lexema berberaren errepikapenak [izena + (elem. atrib.) + *-a/-ak/-ok*] forma duten adierazpideak, [izena + (elem. atrib.) + erakuslea] forma dutenak. Horietaz gain, orain arte aipatu ez dugun arren, aurrekariaren bitartez interpretatu behar diren zenbait aditzondo dugu, esate baterako lekua adierazten duten batzuk.

- (24) *Koba-zuloan sartu ginen. Barruan oso ilun zegoen dena eta hango isiltasuna beldurgarria zen.*

3. Erreferentzialki zein anaforikoki etiketatutako corpusak

Badira zenbait urte Lengoia Naturalaren Prozesamenduan anafora eta erreferentziakidetasunaren azterketarekin dihardutela. Erreferentziaren edo anaforaren ebazpen automatikorako tresna sendoa bat garatzeko ezinbestekoa da corpus etiketatua izatea (Mitkov 2002) prozesuaren lehen urrats moduan. Alegia, corpusean eskuz markatu ohi dira erreferentziakidetasun-erlazioak. Horrela, oinarri horren gainean ebazpenerako garatutako aplikazioak modu automatikoan ikasiko ditu erlazio horiek gidatzen dituzten erregelak eta hala, markatuta ez dauden beste corpus batzuetan aplikatu ahalko dira.

Puntu honetan ikusiko dugun bezala, hainbat hizkuntzetan anaforak (mota batzuk), nahiz erreferentziakidetasunak markatuak dituzten corpusak badaude.

Lancaster-eko unibertsitatean dugu soilik anaforikoki etiketatua dagoen corpus bakarrenetakoa: Lancaster Anaphoric Treebank (UCREL) (Garside et al. 1997). Corpus honek 100.000 hitz inguru ditu eta Associated Press (AP)etik hartutako egunkarietako testuek osatzen dute eta UCRELeko markaketa sistema jarraitzen dute. Hasierako motibazioa, corpora osatzerakoan anaforaren ebazpen automatikorako alde probabilistikoa trebatzea izan zen, hau da, eskuz etiketatutako corpusetik patrioiak ateratzea aplikazio informatikoak ikasi ahal izateko. Corpus honetan kohesiozko erlazio ezberdinak etiketzeko aukera dute, elipsia barne. Erreferentzia non dagoen adierazi dute, alegia, elementu anaforikoa baino lehenago agertzen den edo ondoren, hau da, anafora edo katafora den esaten digu. Horretaz gain, corpus honetan etiketa bat ere darabilte, elementu anaforiko eta erreferentziaren artean zein erlazio semantiko dagoen adierazteko.

Baditugu bestelako testuak korreferentzialki etiketatutako; MUC Coreference Task (Hirschman & Chincor 1997) corpora egunkarietako testuek osatzen dute. Eskema hau jarraituta osatutako corpusean anafora eta bere aurrekaria, eta horien arteko erlazioa markatua dute. Halere izen-sintagma eta aurrekariaren arteko identitate-erlazioa adierazten dute bakarrik. 65.000 hitz inguru korreferentzialki markatutako corpus honen helburuetako bat, anaforaren ebazpenerako algoritmorako trebakuntza eta ebaluaziorako baliagarri izatea da. Honetaz gain informazio erauzketarako sistema automatikoetan ere erabili ahal izan dute. Sistema hauek eremu jakin bateko, zein produktu espezifiko baten inguruko hitzak erauzteko gai izaten dira, horregatik, garrantzitsua da testu bateko erreferentziakidetasunak ondo markatuak izatea.

Wolverhampton unibertsitatean, aurrekoaren antzeko eskema (MUC) jarraituz 60.000 hitz dituen corpora osatu dute. Markatutako testuak zenbait tresna elektronikoko arrunten eskuliburuetakoa dira. Corpusaren markaketarako ClinKa (Orasan 2000) izeneko tresna baten laguntza izan dute, unibertsitate horretan bertan garatutakoa.

Estatu Batuetan Brown-go unibertsitatean Penn Treebank-en zati batean (93.000 hitz inguru) agertzen diren 2.463 izenordain korreferentzialki markatu dituzte.

Ingelesez korreferentzialki markatuak dauden corpusen aipamena bukatzeko DRAMA *Scheme* corpora aipatuko dugu. MUC-en eskema bera erabiltzen da anafora eta aurrekariak identifikatzeko eta euren arteko korreferentzia erlazioak markatzeko.

Honaino ekarri ditugun corpusen adibideak ingelesa dute aztergai baina badira beste hizkuntza askotan korreferentzialki markatutako corpusak. Alemanerako adibidez, TIGER proiektuan (Kunz & Hansen-Schirra 2003) markaketa morfologiko, sintaktiko eta semantikoaz gain korreferentzia erlazioak ere markatu dituzte. Antzera egin dute Pragako unibertsitatean (Hajič & Urešová 2004) corpora pragmatikoki markatzeko saiakera egin dutenean.

Gaztelaniaren kasuan, Alacanteko Unibertsitatean arlo honetan egiten ari diren lana aipatu behar da. Anaforaren ebazpen automatikoan lortutako emaitzak hobetzeko asmoz anaforikoki etiketatutako corpora osatzen ari dira unibertsitate horretan (Navarro et al. 2003).

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi hemen aurkezten dugun lanaren aitzindari izan den corpora (Aduriz et al. 2007). 50.000 hitz inguru dituen corpus honek egunkarietako testuak ditu oinarri, eta anaforaren fenomenoaren azterketa alde konputazionaletik egiteko lehen urrats moduan, anafora pronominalak ditu markatuak, bakoitza dagokion erreferentziarekin lotuta. Markaketa hau eskuz burutu da.

Erreferentziakidetasunaren eta anaforaren fenomenoak hainbat hizkuntzatarako corpusetan markatu direla ikusi dugu orain arte. Corpus hauek guztiak baliagarri izango dira etorkizun batean, ez bakarrik erreferentziakidetasun edo anafora (erdi) automatikoki ebazteko, baizik beste helburu batzuetarako garatutako tresnetarako ere (laburpen automatikorako sistemak, termino erauzle automatikoak, galdera-erantzun sistemak, etab).

4. Etiketatzeko tresnak

Hastapenetan egindako lanetik abiatuta pauso bat haratago eman nahi izan dugu. Lehen pauso batean, anafora fenomenoaren alor espezifiko batean bakarrik zentratu ginen, hau da, anafora pronominalaren markaketa egin genuen, eta oraingoan urrutirago joan nahian, anafora multzo bakarra ez ezik, derrigorrez anafora ez diren erreferentziakidetasunak ere markatzeko asmoa dugu, honela testuaren ulermen zabalago batera iritsiko garelakoan gaude.

Corpusen etiketatze lan hauetan lagungarri izaten dira helburu horretarako garatutako tresnak. Honela guri ere etiketatze lana erraztuko digun tresna bat hautatu dugu zeregina bideratzeko, izan ere, aurreko lanean ikusi genuen interesgarria izango litzatekeela fenomeno hau etiketatze tresna aurreratua izatea.

Zenbait ezaugarri hartu ditugu kontuan tresna aukeratzeko orduan, besteak beste, honako hauek: zein mailatarainoko etiketatzea eskaintzen duten, gure tresnetara ondo egokitzen diren, formatu kontuak, etab.

Ikusi eta aztertutako guztien artean, aipagarrienak hurrengo hauek dira: Wolverhampton-go Unibertsitatean garatutako ClinkA tresna (Orasan 2000) sendoa izan

arren, batez ere egitura edo eskema aldetik ez digu gehiegi laguntzen, haiek MUC-7 Coreference Task Definition (Hirschman & Chinchor 1997) definitutako eskema jarraitzen baitute guk ez bezala. Guk erreferentziakidetasuna markatzeko ezarritako gidalerroak haiengandik urrun geratzen dira.

Aipatzeko beste tresnetako bat Alembic Workbench¹ etiketzaile orokorra da. Beste maila batzuen artean erreferentziakidetasuna markatzeko aukera ere badu. Honetan ikusi dugun abantailetakoa bat etiketak zabaltzeko aukera ematen duela da. Hala ere, nahiko nahasgarria gertatzen da etiketa hauekin lan egiterakoan, testua bera eta etiketatzea nahasiz.

MATE Workbench-en (Dybjær and Bernsen 2000) testuinguruan ahalmen handiko tresna garatu dute. Teorikoki gure etiketatzea gauzatzeko plataforma ideala izan zitekeen, baina testu handiekin zailtasunak izan dituztenen esperientziak irakurri ondoren, tresna hau ez erabiltzea erabaki genuen.

Tresnen zerrendatze honekin bukatzeko MMAX aplikazioa (Müller and Strube 2001) aipatuko dugu. Arina eta erabilerraza izateaz gain, norberak bere beharretara egokitzeko erraztasunak eskaintzen ditu. Bestetik, 'stand-off' deritzon informazioa metatzeko sistema erabiltzen du, hau da, oinarritzko datuak (testua bera) fitxategi batean eta bigarren mailakoak (informazio gramatikala zein testuala) beste fitxategi ezberdin batean gordetzen ditu. Horrez gain, etiketatze prozesuan pertsona batek baino gehiagok parte hartzeko aukera ere badu, eta etiketazaileen arteko adostasun eta desadostasunak agertzeko aukera ematen du. Aztertutako tresnetatik gure eskakizunetara hoberena egokitzen denez, gure lana aurrera eramateko MMAX aplikazioa aukeratu dugu.

5. Corpusa

Lan honetarako oinarritzen garen corpusa EPEC izeneko da (Aduriz et al. 2006). Corpus hau 3LB proiektuaren barruan sortu zen, gaztelaniazkoarekin eta katalanekoarekin batera (Palomar et al. 2004). Proiektuaren helburua corpusen etiketatze sintaktikoa eta semantikoa egitea zen. Euskarazkoari dagokionez, egunkarietako berrogeita hamar mila hitz anotatu ziren sintaktikoki, dependentzietako anotazio-sistema erabiliz (Aranzabe et al. 2003). Ondorengo lerroetan azalduko dugu corpusaren analisi-prozesu modularra (Aduriz et al. 2006), modulu bakoitzean zein informazio gehitzen zaion ikusteko, anaforaren eta aurrekarien markatzera iritsi baino lehen.

Lehen-lehenik corpusa morfologikoki analizatzen da Morfeus analizatzaile morfologikoa erabiliz (Aduriz et al. 1998). Morfeus-en lana da corpuseko hitz guztiak² analizatzea bere testuingurua kontuan hartu gabe. Lehen prozesu honen ondoren, analizatutako hitzek informazio morfosintaktikoa izango dute: kategoria gramatikala, azpikategoria, numero mugatasunari buruzko informazioa, kasu atzizkiarena, eta gehienetan, funtzio sintaktikoari dagokion informazioa ere. Hona hemen morfosin-

¹ <http://www.mitre.org/tech/alembic-workbench/>

² Zuriunetik zuriunera doan hitza nahiz hitz anitzeko terminoa.

taktikoki etiketatutako esaldi baten adibidea: “*Udaberrian hegazti ugari pasatzen da gure mendien eta herrien gainetik.*”³

- (25) /<Udaberrian>/<HAS_MAI>/
 (“udaberri” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG)
 /<hegazti>/
 (“hegazti” IZE ARR DEK ABS MG @OBJ @SUBJ @PRED)
 (“hegazti” IZE ARR @KM>)
 /<ugari>/
 (“ugari” ADJ IZO DEK ABS MG @OBJ @SUBJ @PRED)
 (“ugari” ADJ IZO @<IA>)
 (“ugari” DET DZG MG DEK ABS MG @SUBJ)
 (“ugari” DET DZG MG @ID>)
 (“ugaritu” ADI SIN AMM ADOIN @-JADNAG)
 /<pasatzen>/
 (“pasatu” ADI SIN AMM ADIZE DEK INE @OBJ @-JADNAG_MP_OBJ)
 (“pasatu” ADI SIN AMM ADOIN ASP EZBU @-JADNAG)
 /<da>/
 (“izan” ADL A1 NR_HU @+JADLAG)
 (“izan” ADT A1 NR_HU @+JADNAG)
 /<gure>/
 (“gu” IOR PERARR NUMP GU DEK GEN DEK ABS MG @IZLG>
 @<IZLG @OBJ @SUBJ @PRED>)
 (“gu” IOR PERARR NUMP GU DEK GEN @IZLG>)
 (“guretu” ADI SIN AMM ADOIN @-JADNAG)
 /<mendien>/
 (“mendi” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM DEK ABS MG @IZLG>
 @<IZLG @OBJ @SUBJ @PRED>)
 (“mendi” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG>)
 /<eta>/
 (“eta” LOT JNT EMEN @PJ)
 (“eta” LOT MEN KAUS @PJ)
 /<herrien>/
 (“herri” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM DEK ABS MG @IZLG>
 @<IZLG @OBJ @SUBJ @PRED>)
 (“herri” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG>)
 /<gainetik>/
 (“gain” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABL @ADLG)
 /<.>/<PUNT_PUNT>/

Lehen urrats honen ondoren sortzen zaigun arazorik handienetakoa anbiguotasunarena da. Alegia, analisia testuingurutik at egiten denez, askotan gertatzen da hitzek anbiguotasuna izan dezaketela, lexikoak berak eraginda, kasuak eraginda ala funtzioak eraginda.

³ Esaldiaren analisian agertzen diren laburduren azalpena 9. puntuan azaltzen da, glosarioan.

Desanbiguazio prozesua beste modulu batek eramaten du aurrera, EUSTAGGER izeneko analizatzailearen bitartez. Bere zeregin nagusia anbiguotasun morfosintaktikoa murriztea da, desanbiguatzea, alegia, testuinguru bakoitzean zuzena den aukera uzten du. Funtzio etiketa sintaktikoa ere esleitzen du. Ikus dezagun lehengo adibide bera morfosintaktikoki desanbiguatua.

- (26) /<Udaberrian>/<HAS_MAI>/
 (“udaberri” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG)
 /<hegazti>/
 (“hegazti” IZE ARR @KM>)
 /<ugari>/
 (“ugari” DET DZG MG DEK ABS MG @SUBJ)
 /<pasatzen>/
 (“pasatu” ADI SIN AMM ADOIN ASP EZBU @-JADNAG)
 /<da>/
 (“izan” ADL A1 NR_HU @+JADLAG)
 /<gure>/
 (“gu” IOR PERARR NUMP GU DEK GEN @IZLG>)
 /<mendien>/
 (“mendi” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM DEK ABS MG @IZLG>
 @<IZLG @OBJ @SUBJ @PRED)
 (“mendi” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG>)
 /<eta>/
 (“eta” LOT JNT EMEN @PJ)
 /<herrien>/
 (“herri” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG>)
 /<gagnetik>/
 (“gain” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABL @ADLG)
 /<.>/<PUNT_PUNT>/

Analisiaren puntu honetan aztergai izango dugun corpusa morfologikoki analizatu dago, funtzio sintaktiko nagusiak esleitura, eta ia erabat desanbiguatua. Prozesua azken urratsa burutzeko, zatitzailea ala “chunker”-a aplikatzen da. Modulu honek kateak ala sintagmak ezagutzen ditu. Ezagutuko diren egitura sintaktiko oinarrikoak hauek izango dira: entitateak,⁴ postposizio konplexuak⁵ eta kateak⁶ (sintagmak eta aditz kateak), ondoren dugun adibideak erakusten digun bezala.

- (27) “<Udaberrian>”<HAS_MAI>”
 “udaberri” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG HAS_MAI
 % SINT
 “<hegazti>”
 “hegazti” IZE ARR @KM> % SIH
 “<ugari>”

⁴ Entitateak: *Euskal Herria, Txomin*, etab.

⁵ Postposizio konplexuak: *-ren ondoren, O gisa ...*

⁶ Izen-sintagma: *udaberrian* edo *etxe berri bat*; aditz-kateak berriz: *pasatzen da*, etab.

“ugari” DET DZG MG DEK ABS MG @SUBJ % SIB
 “<pasatzen>”
 “pasatu” ADI SIN AMM ADOIN ASP EZBU @-JADNAG NOTDEK
 % ADIKATHAS
 “<da>”
 “izan” ADL AI NOR NR_HU @+JADLAG % ADIKATBU
 “<gure>”
 “gu” IOR PERARR NUMP GU DEK GEN @IZLG> % SIH
 “<mendien>”
 “mendi” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG>
 “<eta>”
 “eta” LOT JNT EMEN @PJ AORG
 “<herrien>”
 “herri” IZE ARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG>
 “<gaisetik>”
 “gain” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABL @ADLG % POS % SIB
 “<\$.>”<PUNT_PUNT>”
 PUNT_PUNT

Maila morfolo­giko zein sintaktikoa automatikoki egin dugula ikusi dugu. Maila testualeko etiketatzea aldiz, eskuz burutuko dugu, lehen aipatu dugun tresnaren laguntzaz.


6. Etiketatzeko lana

Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, corpus analizatutik abiatuko gara, ez testu hutsetik. Lehenagotik egindako analisiak testu egituratua emango digu. Honek etiketatzea errazteaz gain, gerorako baliagarri izango zaigun informazio linguistikoa emango digu.

Anafora pronominalak etiketatzeko egin genuen antzera (Aduriz et al. 2007), aditz kateak alde batera utzi eta izen kateetan jarriko dugu arreta. Halere, lan honetan gure aztergaia zabalduko dugu: izenordain funtzioa betetzen duten determinatzaile anaforikoez gain, erreferentziakidetasuna adieraz dezaketen izen kate guztiak markatuko ditugu, ondoren azalduko dugun bezala (ik. 6.1.1 atala). Horretarako, goian aipatutako MMAX tresnaren laguntza izan dugu.

6.1. MMAX tresna

MMAX izeneko tresnaren itxura eta funtzionamendua azaltzen saiatuko gara puntu honetan. Esan bezala, tresna honek etiketatzea erraztuko digu eta lehenagotik informazio linguistikoa automatikoki esleitu zaionez, testuak izen-sintagmak markatuak izango ditu ondorengo irudian (1. irudia.) ikus dezakegunez.



1. irudia


Erreferentziagai den izen-sintagma

Tresnak kolore kodea erabiltzen du testuaren ezaugarriak adierazteko (hemen ikusten ez bada ere), adibidez, kolore urdina erabiltzen da erreferentziakidetasunen bat izan dezaketen izen-sintagmak markatzeko. Kolore horia, berriz, izen-sintagma bereko parte denean.

6.1.1. 'Markables' kontzeptua

Etiketatzearen lehen fasean erreferentziakide edo anafora izan daitezkeen izen sintagma guztiak ondo markatuak dauden egiaztatu beharko dugu. 'Markables' kontzeptua diogunean, erreferentziakidegai diren izen sintagmez ari gara. Makinak berez markatuak etorriko dira, horrek ez du esan nahi guztiak ondo markatua izango dugunik. Baliteke zuzendu behar izatea, edota izen sintagma batzuk baztertzea, adibidez, 2. irudian ageri den *era berean* esamoldeak ez du testu honetan erreferente konkreturik izango, ez behintzat guk etiketatu nahi ditugun erreferentziakidetasunen artean.

Bestalde, gure tresnek sintagma osoak markatzeko gaitasuna dute, baina gerta daiteke izen sintagma horien azpian beste izen-sintagma motzagoak zein mendeko perpausak egotea. Izen-sintagma baten barruan beste osagai bat 'markable' bezala etiketatzea ahalbideratzen du tresnak, hurrengo irudiak erakusten digun moduan.



2. irudia

“Azpisintagma” posible bat

Izen-sintagmaren parte diren ‘azpisintagmak’ guk markatu beharko ditugu, gerora erreferentziak ezartzerakoan baliagarri izan baitaitezke, batzuetan erreferentziakidea ‘azpisintagma’ bakarrik izango delako.

(28) Castroren gobernuo kide gazteena da Perez Roque. Hark gobernuan dirauen artean Atzerri ministro lanetan arituko da.

6.2. Gidalerroak

Corpusa etiketatzeko erabili dugun tresnaren nondik norakoak eta beste konzeptu batzuk argitu ondoren etiketatzailiek beharko dituzten gidalerroei buruz arituko gara. Hauek osatzeko aurretik egindako lanaren esperientzia erabili dugu (Aduriz et al. 2007), eta baita lan honetan egindako azterketa-lan teoriko-deskriptiboa.

Gidalerroak zehatzak eta argiak izatea ezinbestekoa da, kontuan izanda batzuetan, etiketatze lanaren kalitatea bermatze aldera, bi etiketatzaille baino gehiago aritzen direla. Hala ere, ezinezkoa izango da erabateko adostasuna gertatzea etiketatzaille guttien artean.

MMAX programa erabiliz etiketatzea bi fasetan egingo dugu, lehenengoan erreferentziakide izan daitezkeen izen-sintagmak identifikatuz eta bigarrean erreferentziakideak direnak euren aurrekariekin markatuz.

Artikuluaren hasieran (ik. 2. puntua) aipatutako anafora fidelak ere markaketa hone-tan kontuan hartuko ditugu. Lehen fasean, erreferentziakide izateko aukera duten izen-sintagmek ondorengo ezaugarri gramatikalak izango dituzte eta honela sailka genitza-ke:

1. Pronominalak
 - a. Izenordainak.
 - b. Erakusleak, izenordain funtzioa betetzen dutenean eurak bakarrik izen-sintagma osatuz.
2. Termino berberaren errepikapenak
 - a. Izena + (elem. atrib.) + artikulua (-a/-ak/-ok)
 - b. Izena + (elem. atrib.) + erakuslea
 - c. Izen berezia + (kasu marka)
3. Aditzondo zenbait (lekuzkoak)

Honako elementu hauek guztiak testuan lehenago aipatutako zerbaiti egin die-zaiokete erreferentzia, honek hainbat erlazio mota ezarriko ditu testuko osagaien artean. Hurrengo ataletan erlazio mota hauen ezberdintasunak eta markatzeko irizpi-deak azalduko ditugu.

6.2.1. Erreferentzia sareak markatzen: erlazio motak

Behin balizko erreferentziakide osagaia eta bere aurrekaria markatuta daudela, bien arteko erlazio-mota zein den erabaki behar da. Aipatutako tresnak aukera ematen digu erreferentziakide osagaia eta bere aurrekaria modu eroso eta argian lotzeko. Hau guzti hau, 'xml' formatu estandarrean gordetzen du, honela, beste edozein aplikazio informatikoetan erabili ahal izango dugu.

Erreferentziakidetasun anaforikoen artean, adierazpide pronominalak eta nominalak markatuko ditugu, baina azken hauen artean, oraingoz, anafora leialak bakarrik; beste baterako utziko ditugu fidelak ez diren anaforen markatzea. Bestalde, balore anaforikoa duten lekuzko aditzondoak eta izen bereziak ere hartuko ditugu kontuan. Harreman anaforiko mota gehiago baldin badago ere, ez ditugu corpus honetan markatuko, izan ere, etorkizunera begira modu automatiko batean detektatzeko era-gozenak ikusten baititugu, giza-ulermen inferentzia beharrezkoa gertatzen delako.

Hona hemen laburki, etiketatzaileak ezarri beharko dituen erlazio motak:

— *Pronominalak*: izenordain funtzioa betetzen duten determinatzaile erakusleak, pertsona izenordainak, aditzondoak (jakin batzuk), *elkar*, *X-en burua*, eta izenordain genitiboak.

(29) *Ura* oso garrantzitsua da gure bizitzan. *Bera ihura* da gure gorputzaren osagirik nagusia.

— *Anafora fidelak*: lexema bera duen hitza errepikatzen denean, nahiz eta honek atributuren bat edo deklinabide morfema ezberdinen bat izan.

(30) Igandean mendira igo zirenean, hango iturriko *ur freskoa* edan zuten. *Ur horrek* egingo zien kalte nonbait.

— *Lekuzko adberbioak*: testuan zehar aipatutako zerbaiti erreferentzia egiten diotenean.

(31) *Koba-zuloan* sartu ginen. Barruan oso ilun zegoen dena eta hango isiltasuna beldurgarria zen.

— *Izen bereziak*: aurretik edo atzetik erreferentziakide den elementuren bat agertzen denean.

(32) *Perez Roque...* Kubako diplomazia-buru berria... *Felipe Perez Roque*

7. Ondorioak eta etorkizuneko lana

Euskarazko corpusetan erreferentziakidetasun erlazioak nola gauzatzen diren aztertu dugu artikulu honetan, halaber, erlazio hauek modu emankorrango batean tratatzeko ahaleginean, EPEC izeneko corpusean erreferentziakidetasun horiek marrazten bigarren urratsari ekin diogu.⁷

Alderdi teorikotik egindako hausnarketa da lehen hurbilpenetik hona suma daitekeen ekarpenik handiena, gaia anafora pronominal soiletik beste erreferentziakidetasun kasuetara zabaldu dugulako.

Alderdi teorikotik gaia zabaltzeak, ezinbestean izan du alderdi praktikoan eragina. Honek eraman gaitu laneko gidalerroak aldatzera, eta era berean osatzera ere. Bestetik, corpusaren markaketari dagokionez, etiketatze tresnaren beharra eta honen hautaketa egin beharrak ere hamaika erabaki hartzera bultzatu gaitu. Puntu giltzarria da markatzeko tresnarena, izan ere, oinarrian erabiltzen dugun informaziora egokitu behar baitu modu erraz batean.

Oinarritzen garen corpusari dagokionez berriz, informazio morfologiko eta sintaktikoa bere baitan edukitzeak erraztuko du ondorengo etiketatze automatikoa, izan ere, soilik hasierako fasean egingo da eskuzko markaketa. Esan bezala, oinarritzko corpusak eskaintzen duen informazio morfologiko eta sintaktikoak batetik, eta markatzeko tresna egokiak bestetik, ahalbidetuko dute etiketatze automatikoa, azkartasuna emanez markatze-prozesuari. Izan ere, artikulu honetan azaltzen ari garena proiektu orokor baten barruan kokatzen da, alegia, EPEC corpusaren anotazio erabat semantikoa helburu duena.

Euskaraz horrelako corpus semantikoki anotatua izateak helburu bikoitza izango luke: ikuspegi konputazionaletik, erreferentziakidetasuna (erdi-) automatikoki ebartziko lukeen tresna baten garapena. Eta testuinguru horretan, corpora tresna horren probaleku litzateke. Eta hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, euskarazko erreferentziakidetasunaren berri izaten lagunduko digu, anaforaren erabilera zehazten eta horren erresoluziorako bideak jartzen.

Azkenik, eta epe luzeragorako, euskararako garatuko diren hainbat aplikazio informatikoetan, hala nola galdera-erantzun sistema automatikoetan, laburpen sistemetan edota itzulpen automatikoko aplikazioetan aztertutako hau guztia txertatzeko aukera ikusten dugu.

⁷ Lehen urratsaren nondik norakoak (Aduriz et al. 2007) argitalpenean azalduta daude.

Bibliografia

- Aduriz, I., Aranzabe, M., Arriola, J. M., Atutxa, A., Díaz de Ilarraza, A., Ezeiza, N., Gojenola, K., Oronoz, M., Soroa, A. & Urizar, R., 2006, "Methodology and steps towards the construction of EPEC, a corpus of written Basque tagged at morphological and syntactic levels for the automatic processing". *Corpus Linguistics Around the World. Book series: Language and Computers*. Vol 56 (1-15. or.). Ed. Andrew Wilson, Paul Rayson, and Dawn Archer. Rodopi. Netherlands.
- , Ceberio, K., Díaz de Ilarraza, A., 2007, "Pronominal Anaphora in Basque: Annotation issues for later computational treatment", *6th Discourse Anaphora and Anaphor Resolution Colloquium. DAARC2007*, Lagos Portugal.
- Aldezabal, I., 2004, *Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean. 100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta metodo automatikoak baliatuz*, Euskal Filologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aranzabe, M. J., Arriola, J. M., Atutxa, A., Balza, I., Uria, L., 2003, "Guía para la anotación sintáctica manual de Eus3LB (corpus del euskera anotado a nivel sintáctico, semántico y pragmático)", UPV/EHU/LSI/TR-13.
- Charolles, M., 1991, "L'Anaphore. Definition et classification des formes anaphoriques", *Verbum* 14: 2-3-4, 203-216.
- Corblin, F., 1983, "Défini et démonstratif dans la reprise immédiate", *Le Français moderne* 51, 118-133.
- Dybkjær, L. and Bernsen, N. O., 2000, "The MATE Workbench", *Proceedings of the LREC'2000 workshop on Data Architectures and Software Support for Large Corpora*, Athens, 33-37 (a).
- Garcia Azkoaga, I. M., 1999, "Elementu anaforikoak eskolako testuetan", *FLV* 82, 393-417.
- , 2004, *Kohesio anaforikoa hiru testu generotan. Adinaren arabeko azterketa*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Garside, R., Leech, G. & McEnery, A. (arg.), 1997, *Corpus Annotation. Linguistic Information from Computer Text Corpora*, Longman, London.
- Gojenola, K., 2000, *Euskararen sintaxi konputazionalerantz. Oinarritzko baliabideak eta beren aplikazioa aditzen azpikategorizazio-informazioaren erauzketan eta errorearen tratamenduan*, Donostia, Informatika Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hajič, J. & Urešová, Z., 2004, "The Prague Dependency Treebank", IXA taldeari egindako aurkezpena, Donostia.
- Hirschman, L. and Chinchor, N., 1997, "MUC-7 coreference task definition", in *MUC-7 Proceedings*, Science Applications International Corporation.
- Kempson, R., 1986, "Definite NPs and Context-Dependence: a Unified Theory of Anaphora". In T. Hyers et alii (arg.), *Reasoning and Discourse Processes*, Academic Press, London, 209-239.
- Kleiber, G., 1988, "Peut-on définir une catégorie générale de l'anaphore?", *Vox Romanica* 47, 1-13.
- , 1994, *Anaphores et pronoms*, Louvain-la-Neuve, Duculot.
- Kunz, K. & Hansen-Schirra, S., 2003, "Coreference Annotation of the TIGER Treebank". In *Proceedings of the Workshop Treebanks and Linguistic Theories*, Växjö, Sweden.
- Milner, J. C., 1982, *Ordres et raisons de la langue*, Paris, Seuil.

- Mitkov, R., 2002, *Anaphora resolution*, Longman, London.
- Müller, C., Strube, M., 2001, "MMAX: A Tool for the Annotation of Multi-modal Corpora". In *Proc. of the 4th SIGDIAL*, Sapporo, Japan.
- Navarro, B., Civit, M., Martí, M. A., Marcos, R., Fernández, B., 2003, "Syntactic, semantic and pragmatic annotation in Cast3LB", in *Proceedings of the Shallow Processing of Large Corpora. A Corpus Linguistics Workshop*, Lancaster, UK.
- Orasan, C., 2000, "CLinkA a Coreferential Links Annotator", in *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'2000)*, Athens, Greece.
- Urkia, M., 1997, *Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz*, Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zabala, I., 1996, "Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoetan", in Zabala I. (koord.). *Testu-loturarako baliabideak. Euskara Teknikoa*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 15-44.

Glosarioa

- % ADIKATBU: aditz-kate edo sintagma jarraitu bateko azken elementuak darama;
- % ADIKATHAS: aditz-kate edo sintagma jarraitu bateko lehenengo elementuak darama;
- % SIB: sintagmaren bukaera;
- % SIH: sintagmaren hasiera;
- % SINT: hitz bakarreko sintagma;
- @+JADLAG: aditz laguntzailea;
- @+JADLAG_MP: aditz laguntzaile mendekoa;
- @+JADNAG: aditz nagusi jokatua;
- @+JADNAG_MP: aditz nagusi jokatu mendekoa;
- @<IA: eskuineko adjektiboa;
- @<IZLG: eskuineko izenlaguna;
- @ADLG: adizlaguna;
- @ID>: ezkerreko determinatzailea;
- @IZLG>: ezkerreko izenlaguna;
- @-JADNAG: aditz nagusia ezjokatua;
- @-JADNAG_MP_OBJ: objektu funtzioa duen aditz nagusi ezjokatu mendekoa;
- @KM>: kasua daraman formaren modifikatzailea;
- @OBJ: objektua;
- @PJ: perpaus juntadura;
- @PRED: predikatiboa;
- @SUBJ: subjektua;
- A1: DA / DU: izan / *edun-en orainaldia (indikativozko orainaldia);
- ABL: ablatiboa;
- ABS: absolutiboa;
- ABZ: hurbiltze-adlatiboa;
- ADI: aditza;
- ADIZE: aditz izena;
- ADJ: adjektiboa;

ADL: aditz laguntzailea;
ADOIN: aditzoina;
ADT: aditz trinkoa;
AMM: aditz-mota morfema;
AORG: -a organikoa daukan hitzak darama;
ARR: (izen) arrunta;
ASP: aspektu-morfema;
DEK: deklinabidea;
DET: determinatzailea;
DZG: determinatzaile zehaztugabea;
EMEN: emendiozko juntagailua;
EZBU: aspektu-marka ezburutua;
GEN: genitibo edutezkoa;
HAS_MAI: letra larriz hasitako hitza;
INE: inesiboa;
IOR: izenordaina;
IZE: izena;
IZO: izenondoa;
JNT: juntagailua;
KAUS: kausala;
LOT: loturazko elementua: lokailu eta juntagailuak hartzen ditu bere baitan;
MEN: mendekoa;
MG: mugagabea;
MUGM = M: mugatua;
NOTDEK: deklinabidetik pasatzen ez den aditza;
NR()HU: NOR paradigmako HURA;
NUMP = PL = P: numero plurala;
NUMS = S: numero singularra;
PERARR: izenordain pertsonal arrunta;
PUNT_PUNT: puntua;
SIN: aditz sinplea.

GRAMATIKA ATXAGAREN LITERATUR BIDEETAN (I)

Karlos Cid Abasolo

Universidad Complutense de Madrid

0. Sarrera¹

Aspalditik naiz Atxagaren literaturaren zale, eta aspalditik ibili zait buruan bueltaka asteasuarra ardatz hartuta literatura eta hizkuntzalaritza batu egin litzakeen artikulua bat idaztea. Eta iritsi da unea, hobeto esanda, iritsi dira hilabeteak, zenbait hilabete eman baitituz Atxagaren hainbat liburu aztertzen eta haietatik neure ikerkuntzarako adibi-deak ateratzen.

Lan honen abiapuntua honako galdera hau da: Atxaga hain idazle arrakastatsua baldin bada, bere literatur dohain hutsengatik al da? Ala horretan ba al du zerikusirik bere hizkuntz dohainak ere? Eta, bigarren galderaren erantzuna baiezkoa izatera, beste galdera batzuk letozke: zeintzuk dira idazle gipuzkoar honen obra erakargarri bihurtzen duten hizkuntz baliabideak? Sistematiza al daitezke? Berberak al dira liburu guztietan, ala batetik bestera halakoxe bilakaera bat antzeman daiteke?

Atxagaren liburuak irakurrita burura datorkidan lehenengo hausnarketa honako hau da: bi erregistro oso desberdin erabiltzen dituela, hots, ahokotasunari lotutakoa eta literatur adierazpideari dagokiona. Liburu (BLJN, STXB) eta ipuin (OBBko *Jose Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza*) batzuk gertuago daude lehenengotik,² eta beste liburu (ZIU, BEBM, GBB, SJS) edo ipuin (OBBko *Esteban Werfell*) batzuk bigarrenetik. Ahokotasunari lotuta daudenak³ lehenengo pertso-

¹ Patxi Goenaga irakasle eta euskaltzainaren omenezko liburu honetan parte hartzeko eskaintza egin zitzaidanean, ez nuen bi aldiz pentsatu behar izan: nire oroimena, ahula bada ere, esker onekoa denez, askotan gogoratzen dut Patxi estreinako aldiz ikusi nuenekoa. Duela hogeitatu urte joan nintzaion unibertsitateko bulegora, tesirako argibide eskean. Eta oso harrera ona egiteaz gain, lana burutzeko hainbat norabide iradokigarri adierazi zizkidan, gerora oso baliagarriak gertatu zitzaizkidanak. Pasa den irailean ikusi nuen berriz, aspaldiko partez, eta, nire harridurarako, esan zidan gogoan zuela elkar ezagutu genueneko hura. Eskerrik asko, Patxi, zure laguntzarengatik eta, batez ere, zure memoriagatik.

² Pello Esnalek azpimarratzen du ahokotasunaren bi baliabide garrantzitsu darabiltzala Atxagak *OBBn*: elipsia eta aditz jokatugabea.

³ Olaziregik (2001: 116) honela dio *OBB* liburuaren gainean:

No podemos dejar de mencionar los cuentos *De soltera*, *Laura Sligo* y *Wei Lie Deshang*, que poseen un ágil ritmo narrativo provocado por la oralidad: los narra de viva voz el personaje llamado Samuel Tellería Uribe y están impregnados de una gran musicalidad y vivacidad. Ese hecho (el ser narrados oralmente) salpica dichos cuentos de características que facilitarán la comprensión al oyente. Entre esas ayudas, tendríamos que destacar las repeticiones (sobre todo de frases) y la sintaxis sencilla (que se vale de la coordinación). Junto con ello, en el cuento de Laura Sligo, la repetición de nombres de pájaros del Amazonas da un ritmo vivo al relato (...). En definitiva, con el empleo de todos esos recursos que Walter J. Ong considera propios de la oralidad (...) se pretende atraer la atención y facilitar la memorización del lector/oyente.

nan idatzitakoak izan ohi dira, eta pertsonaietako baten ahotsa da mintzo zaiguna, hau da, pertsonaietako baten ikuspuntutik datorkigu istorioa. Euskara estandar eta jasoagoa duten liburuetan, ordea, hirugarren pertsona da nagusi, eta Atxaga idazle orojakile eta guztiahalduna gailentzen zaio kontakizunari. Horrek, jakina, ondorio nabarmenak ditu hizkuntz maila guztietan eta lexikoan. Hortaz, esan dezakegu idazle honek “bi euskara” darabiltzala, bakoitzak bere hizkuntz ezaugarri propioak dituelarik. Eta lan honek zenbait ezaugarri partekatzen dituzten *bi euskara horiek* aztertzea du xede.

Lan honek bi parte ditu. Eta hartu dut gogo, sintaxiari eskainitako lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Honek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko: eta fonetika, morfologia eta lexikoari eskainiriko bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko.

1. Perpausaren hitzurrena

1.1. Erakusle kataforiko eta anaforikoak

Galdegai legea zintzo-zintzo bete ohi du Atxagak, zenbaitetan horretarako “triki-mailu” bat edo beste baliatu behar badu ere: erakusle kataforikoak behin eta berriz erabiltzen ditu, agian galdegai legea (galdegaia aditzaren aurre-aurrean jartzea agintzen duena) betetzeko, beti ere ulermenari kalte egin gabe: izan ere, galdegaia luze samarra denean, aditzaren atzean jartzen da, eta, aditzaren aurrean, galdegai-kokalekuan, galdegai luze horren erreferentziakide den erakusle kataforikoa, zeina forma indartuan ere ager daitekeen.

- (1) *Horixe gara artzai guztiak: inorante hutsak* (BLJN).

Galdegaia perpaus oso bat izan daiteke, funtzio ugari bete ditzakeena:

— subjektua:

- (2) *Hori ere kontu zelebrea da, alegia nor bere buruarekin hitzegiten hastea* (BLJN)
 (3) *Eta niri horixe gertatzen zitzaidan, Ameriketara joateak egundoko gaiak ematen zizkidala pentsatzeko* (BLJN).
 (4) *Horrek ematen dit pena gehiena, oso berandu izan zela Mariarentzat* (BLJN)
 (5) *Hori dun txarrena, bera hain izutia izatea* (BIA)

— objektua:

- (6) *Bere alabak ere horixe esaten du, ezin dela Jainkoaren borondatea okertu* (BLJN)

Erakuslearen orde, jatorri galdetzailea duen *zera* kataforikoa ere agertzen zaigu sarri askotan.

- (7) *Zera esatera ausartuko ginateke, isatsa galdu duen katagorriaren antzera zebilela Piolet* (ETI)
 (8) *Zera ematen zuen, herriaren erdia herriaren beste erdiaren etsai amorratua zela oso aspaldi batetik* (BLJN)

- (9) *Zera gertatzen duk, Martin, hi zintzoegia haizela* (BLJN)
 (10) *Eta orduan zera jakin genuen, neska guzti haiek goxogintza ikastera joaten zirela (...), eta probak egiten zituztela* (BIA)

Balio kataforiko hori [*beste zenbatzailea + izena (kontu, pentsamendu...*) + kasu partitibo] delako sintagmak ere bete dezake ezezko perpausetan, “hori baino ez” zentzua hartuz:

- (11) *Seguraski zu dagoeneko ohituta zaude Mediterraneoko tenperaturetara. Gainera, telebistak beste konturik ez du esaten, hau dela aspaldiko udarik beroena* (GBB)
 (12) *Ez nuen bide guztian beste pentsamendurik eduki, nork salatu ote ninduen* (SJS)

Bestalde, aintzat hartzekoa da erakusle kataforikoa batzuetan ez dela bakarrik ageri, izen baten osagarri gisa baizik, eta forma indartuan gainera.

- (13) *Manuelek ilusio horixe zeukan, amuarrain nazkante hori etxera ekarriko ote zuen* (SJS)

Gutxiagotan, erakusleak ez du balio kataforikorik, anaforikoa baizik.

- (14) *Seta neukala letter horiekin, horretan nengoen* (BLJN)
 (15) *Ez dudala lapurretarik egin, horrekin salbatzen naiz* (BLJN)
 (16) *Baina zerbait bazuela hori gauza segurua da* (OBB)
 (17) *Zein modutakoa den, hori ez dakit* (OBB)
 (18) *Baina nolakoa zaren, hori badakit* (BEBM)
 (19) *Ordubete inguru aritu zirela zaldia kargatzen, hori izan zen belarriek erakutsi zidatena* (BEBM)
 (20) *Aitak gehiegi mimatzen zaituela, horixe duk iruditzen zaidana* (GBB)

Dena den, askotan ez da erraz erakuslea anaforikoa ala kataforikoa den erabakitzen, eta hori, duda izpirik gabe, Atxagaren erredundantziarako joerari leporatu behar zaio. Alegia, erakuslearen erreferentzia askotan errepikatu egiten du asteasuarrak, bai erakuslearen aurrean, bai erakuslearen atzean jarriz eta, ondorioz, erakusleari balio anaforiko-kataforikoa emanez.

- (21) (...) *eta estimatzekoa da, horrela entretenimendua dauka zaharrak, eta ez da aspertzen. Izan ere, larogei urtetara ailegatzeak hori du txarrena, aspertu egiten dela* (BLJN)

— helburua:

- (22) *Kendu oroitzapen horiek burutik pentsatzen zuen gero. Horregatik, pentsamendu ilun haiek burutik kentzeko, (...)* (BIA)

— zergatia:

- (23) *Horregatik jartzen naiz pentsatzen, beste erremediorik ez dudalako, eta ohitura dudalako ere bai* (BLJN)
 (24) *Eta horregatik, apartamendu hori ilusio bat delako* (BLJN)
 (25) *Horregatik etorri naiz berorregana, zerbait argituko didalakoan* (BIA)

- (26) *Horregatik pasatzen ditu gau txarrak Paulok (...) begiak zabalik edukitzen dituelako* (BIA)
- (27) *Eta horregatik izango zion amorrazioa Joxeri, Joxek askotan gogor egiten ziolako* (OBB)
- Zergatizko balioa duen erakuslea gutxitan da anaforikoa.
- (28) *Baina besterik esaten ez genekielako, horregatik bakarrik* (BLJN)

1.2. Galdegai-legearen haustea

Beste batzuetan, erakusle kataforikoa bazter utzi eta galdegai legea besterik (eta gupidarik) gabe urratzen du Atxagak, idatzizkoan ez baina ahozko euskaraz oso ohikoak diren esaldiak sortuz.

- (29) *Neronek jarriko zionat eraztuna hire zintari / Ez, Carmen, jarriko zionat nik* (BIA)
- (30) *Nik gauza asko ikusten dizkiat, ikusten diat itsasoa, ikusten dizkiat arrai beltzak* (BIA)
- (31) *Izena dut Mary Lanford* (HBI)
- (32) *Baina sekretua ez dago osagaietan. Sekretua dago zaintzeko moduan, prozesua bertatik zaintzen duzun ala ez* (GBB)
- (33) *Banuen beste arrazoi bat etxe inguruetan geratzeko, eta hori zen Genoveva, gerran gizona galdutako gure nagusia* (BEBM)

1.3. Aditza perpaus bukaeran?

Ezagun da euskarari buruz bala-bala dabilen mito faltsu bat, aditza beti perpau-saren bukaeran jarri behar delakoa, alegia. Eta Atxagaren liburuek faltsutasun hori egiaztatzen dute. Liburuek ez ezik, haren hitzek ere.⁴ Mendeko perpau-setan, kasu, ulergarritasunaren hobe beharrez, aditza lasai asko aurreratzen du idazle gipuzkoarrak.

⁴ Horren argigarri, hona hemen bi adibide: lehenengoa, euskaltzain sartzeko hitzalditik ("*Antzarak, zenbakiak eta letrak*", Asteasu, 2007-3-17) ateratakoa. Bigarrena, Euskadi Irratiko Goiz kronika saioan hiru egun geroago egin zioten elkarrizketatik:

Esan beharrik ere ez dago utopia lortzearren, gero eta gehiago, hobeto, ederrago adierazteko gai izatearren, hizkuntzak baliabide asko behar dituela, eta, ahal den neurrian, bortxatu egiten duela hizkuntzaren naturaltasuna, hizketan azaltzen dena. Euskarak, esate baterako, aditza bukaeran jartzeko joera omen du. Baina Juan Bautista Agirrerentzat joera hori muga bat da, eta horregatik idazten du honela Jesusen eta bere dizipuluen arteko elkarrizketa bat: *Nere semechoac, maite izan ezazue elcar: Filioli, diligite alterutrum. Aspertu ciran icasleac, beti gauza bera adituaz, eta esan cioen: Maisua, cergatik beti gauz au esaten digu? Erantzun cien: Ceren Jaunaren Aguintea dan, eta au ongui eguiten bada, bera bacarrak asco dan.* Bistakoa da. Aditza aurrera ekartzen du.

MANU ETXEZORTU: Beraz, gaur egun badira garbizaleak, nolabaiteko puristak.

ATXAGA: Badira ez, giro bat dago erabatekoa. Oraindikan dago... zenbat hitz? Nik ezagutzen dut hemen hurbilean irakasle bat eta pertsona nagusiei klaseak ematen dizkiena, eta berak esaten dit ehuneko hirurogeita hamarrek oraindikan pentsatzen dutela aditza, berboa, euskaraz azkenean jarri behar dela eta bekatu izugarria dela, larria, aditza esaldiaren hasieran jartzea eta holako gauzak. Jende hori benetan asko estimatuko genuke beste eginkizun batzuetara zuzenduko balu bere bizitza.

- (34) *Ez dut ametitzen inork (...) “lasto motxordo” izena erabiltzea izendatzeko Jainkoak dohain eman digun habia* (ETI)
 (35) *Eta aldi berean keinu bat egin zion Paulori, ateratzeko lehen bait lehen jostundegitik* (BIA)
 (36) *Harrapatuta paretaren eta egurraren artean (...)*, (HBI)
 (37) *Bukatuta dantzaldia, (...)* (SJS)

2. Perpaus elkartua: alborakuntza eta juntadura

2.1. Alborakuntza: lokailuak

Jakina denez, alborakuntza ahozko hizkeraren ezaugarri nagusietako bat da, eta hortaz, sarritan agertzen da ahozkotasanaz gainezkako testu atxagarretan.

- (38) *Hurrengoan, berriz, guztia joan egin da, ezin liteke hutsune beltz bat baizik sumatu* (STXB)

Baita ahozkotasanaz elikatu gabekoetan ere, baina urriago:

- (39) *Baina betaurrekoak falta zitzaizkion, ezin zuen irakurri* (SJS).

Alborakuntzan, entzuleak/irakurleak berak antzeman behar du (testuinguruari esker-edo) esaldien arteko lotura semantikoa, eta sarritan lokailuek errazten diote lan hori. Esnalek (2002: 24) gogorarazten digunez, *ordea* lokailua perpaus hasieran —eta atzean komarik jarri gabe, erantsiko genuke guk— erabili ohi du Atxagak, gaur egungo joeraren aurka, eta Axularren bideari jarraiki.

- (40) *Ordea ez zen bihotz huts* (OBB)
 (41) *Ordea marruka hasita ere, berdín da* (BEBM)

Zenbait lokailuk ahozko hizkeren elipsiek eragindako informazio-hutsak betetzeko funtzioa dute.

- (42) *Herrian bazen bat, neska bat, alegia, aurreneko errebueltan bertan ttitti jolasa onartzen zuena* (BLJN)
 (43) *Igual ikusten zuen, apaiza alegia, bidetik paseatzen* (BLJN)

Beste batzuek —*ba* lokailuak, kasu— diskurtsoan atsedean laburra hartu eta segidakoa pentsatzeko aukera ematen dute, ahozko hizkeran —eta ez idatzizkoan, jakina— gertatu ohi den bezalaxe.

- (44) *Nola ez neukan dirua egiteko proportzio onik, ba dantzan egiten nuen* (BLJN)
 (45) *Gu etxeko gelaren batean ikusiz gero, bada makila bat hartu (...)*(BIA)

2.2. Juntadura

2.2.1. Emendioa

Jakina denez, ahozkotasanak emendiotik asko “edaten” du.

- (46) *Eta denak konforme etorri ziren nirekin, eta mendiska hura igotzeari ekin genion denok hileran jarrita, eta luze gabe buruan kanta ttiki bat besterik ez zeukan mutilaren etxe aurrean egokitu ginen* (BIA)

Emendioa da Atxagaren hizkuntz ezaugarririk berezkoenetakoa da: normalean ezin du adjektibo bakar batez zerbait definitu (bi, hiru edo gehiago behar ditu). Normalean ezin du kausazko perpaus baten bidez gertakari baten kausa azaldu (bi edo hiru behar ditu). Norbaitek zerbait esaten badu, gauza bat baino gehiago (perpaus osagarri bat baino gehiago) esango ditu, eta adjektibo horiek edo mendeko perpaus horiek, nola ez, emendiozko juntagailuaren bidez loturik ageri dira.

Perpaus osagarriei dagokienez, honako egitura hau hobesten du Atxagak ulermena errazteko asmoz:

[1. perpaus osagarria + aditz nagusia + 2. perpaus osagarria + ...]

- (47) *Salako mahai txapalari zartako bat ematea lortu zuen oraingoan, eta errebisten ontzia iraultzea* (GBB)
- (48) *Bera ere hala moduz zegoela adierazi nion, aldatua ikusten nuela arratsalde harez gero, beste bat ematen zuela* (SJS)

2.2.2. Hautakaritza

Atxagak oso-oso maiz darabil *edo* juntagailua, idatzitako zerbait hurrengo esaldia- ren bidez ñabartzeko —ahoz hiztunek egin ohi duten bezala— edo pentsatutakoaren eta errealitatearen arteko aldea adierazteko. BIA liburuan parra-parra aurki dezakegu baliabide hau.

- (49) *Ordurarte ia ez du izenik eduki, edo eduki du baina ez da konturatu izen horrek seinalatzen duen diferentziaz* (STXB)
- (50) *Bi bider pentsatuko bere grina txar horri segitu aurretik. Edo hiru bider* (BLJN)
- (51) *Eta oso ondo, baina ez hain ondo halere* (BIA)
- (52) *Behar bada orain kanta ttikia itzuli egingo da bere burura, pentsatu genuen, baina ez, ez zitzaion itzuli* (BIA)
- (53) *Eguraldi txar haren zalaparta eta hotsek esnatu egin ninduten azkenean. Esnatu edo erdi esnatu* (BEBM)

2.2.3. Aurkaritza

Oso aurkikuntza polita egin dugula uste dugu: Atxagaren genero desberdinetako bi testuren bi pasarteren arteko antzekotasun sintaktiko-semanticoa. Bietan pertsonaiaren bizitzaren bi fase zeharo desberdinen berri ematen zaigu. Eta bien arteko lotunea (edo, hobeto esanda, etena) *baina* juntagailua da. Paralelismo sintaktikoa paralelismo semanticokoaren menpe. Eta badira aldaketaren erakusgarri diren beste bi hitz garrantzitsu, bi testuetan ageri direnak: *bapatean* eta *ohartu*.

- (54) *Baina egun batean, bere gogo eta nahiek ehun eta larogei gradutako jira ematen dute: bapatean bere izenaz ohartzen da, nola partikularra eta berezia den, nola berdinek ez daukan* (STXB)
- (55) *Baina gaua dator... (...) Eta bapatean, zeharkatu egiten du / belardiaren eta kamio berriaren arteko muga, (...) ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere* (Trikuarena poema).

Baizik juntagailua oso gutxitan erabiltzen du asteasuarrak dagokion hitzaren atzean.

(56) *Ez baita egilea zerarik inportanteena literaturan, egin duen obra baizik* (ETI)

(57) *Ez zuen ematen basurdeak zirenik, zakurrak baizik* (STXB)

Aurrean, ordea, sarriagotan, *eta* juntagailuaz lagundurik edo ez.

(58) *Bere helburua ez da nabigatzea, baizik eta portu batera ailegatzea* (HBI)

(59) *Ez zen nirekiko adeitasun berezirik horretan, baizik eta ohitura* (SJS)

3. Perpaus konplexua: menderakuntza

3.1. Perpaus osagarriak

3.1.1. Aditz bat gobernatzaile duten perpaus osagarriak

Perpaus osagarriaren gobernatzailea aditz bat denean, mendeko perpausa predikatu nagusiaren aurrean zein atzean ager daiteke. Lehenengo posibilitatea “zenbaiten ustez dotoreago” bada ere, bigarrena “askotan hobesten da” (EGLU-V (I), 39). Eta biak topatu ditugu aztertutako testuetan.

(60) *Piezarik arruntena zela esan zidaten* (ZIU)

(61) *Langileak egur kanpamendua prest zegoela esan zien* (BIA)

(62) *Gaurko egunetik begiratuta, bizitzak eman didan esperientziarekin, Pauline Bernadetteren kontrako izpiritua zela iruditzen zait* (BEBM)

(63) *Zubia zeharkatzerakoan, autoaren faroek atarian zeuden lagunak bost zirela erakutsi ziguten* (SJS)

(64) *Pentsatzen niagok aurki lur horren azpira joan beharrean nagoela hemeretzi urterekin* (BIA)

(65) *Entzuna zion (...) bere lehenengo lana herri batera sartzean etxe aberatsetako ispiluez jabetzea izaten zela* (SJS)

Baldin *eta* predikatu nagusi batek perpaus osagarri bat baino gehiago badu, Atxagak maiz erabiltzen du —emendioaz aritu garenean aipatu dugun bezala— honako egitura hau:

[1. perpaus osagarria + predikatu nagusia (+ *eta* juntagailua) + 2. perpaus osagarria]

(66) *Txoriak gaua etorri zaiola pentsatzen du, eta gau horren erdiko izar batena dela bera hainbeste itxutzen duen diztira malizios hori* (STXB)

(67) *Beraiek ere Mintzoaren berri bazutela iruditu zitzaidan, eta horregatik zeudela han* (BIA)

(68) *Setatsuak bere arrazoia bazuela iruditu zitzaidan, zerbait bazela gaikalde hartan batere ikararik gabe egoten jakitea* (BEBM)

(69) *Gorroto ninduela iruditzen zitzaidan, ez zitzaiola ahazten (...)* (SJS)

Bestalde, gobernatzailea predikatu konplexu bat izan daiteke, osagarria + aditza itxura duena, baina, azken finean aditz soiltzat funtzionatzen duena.

- (70) *Segituan hartzen zioan usaina, organizazio politiko klandestinoren batekoa izango zela* (GBB)
- (71) *Irudipena izan nuen, bataren eta bestearen espresioa ikusita, handiak ezin izango zuela txikia borroka batean hautsi* (SJS)

3.1.2. *Izen bat gobernatzaile duten perpaus osagarriak*

Atentzioa eman digu Atxagak atzizki bat baino gehiago erabiltzeak: liburu batzuetan, EGLUn aipatzen ez den bat erabiltzen du (*-neko*), beste batzuetan *-lako*, eta beste batzuetan, irizpide finkorik ezean, *biak*.

- (72) *Sebastianek marrubiak bilatzen ari zeneko itxura egiten zuen* (STXB)
- (73) *Burutazio honek susmo bat ekarri zidan, Mintzoak mutil haren begiak itxeko bakarrik bidali ninduelakoa* (BIA)
- (74) *Lana uztera zihoaneko keinua* (BIA)
- (75) *Jonek berriz ez zuen katakume goxo bat zelako inpresiorik ematen* (GBB)

3.1.3. *Gobernatzaile "berezia" duten perpaus osagarriak*

EGLUn (V-(I): 56) *eskerrak* aipatzen da perpaus osagarrien "gobernatzaile berezi" gisa. Ahozkotasanaren paradigma den *Jose Francisco* ipuinean, idazle gipuzkoarrak, erregistroarekiko koherentziaz, *grazik* erabiltzen du.

- (76) *Grazik oraindik zu bezalako damak badirela mundu nigargarri honetan* (OBB)

Beste gobernatzaile batzuk hain dira "bereziak", non guk interferentzien multzoan sailkatuko baikenituzke.

- (77) *Eta gainera ni ez nago batere gaixo, bakarrik gozoa ez zaidala komeni* (BLJN)

3.1.4. *Gobernatzailea isilpean duten perpaus osagarriak*

Horrelako egiturak ahozkotasanaren zerbitzuan daude, nabarmen. Hurrengo adibidean, gainera, beste bi baliabidek indartzen dute ahozkotasuna: *ba-* lokailuak eta *irakurri-*ren ordez *letu* agertzeak.

- (78) *Joaten nintzela drugstore-ra? Ba bazter batetan eseri eta letu egiten nituen* (BLJN)

3.2. **Adjektiboak; perpaus erlatiboak**

Atxagaren hainbat testu aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu perpaus erlatiboek dagokienez:

a) *-n* da erlatibatzailerik erabiliena; *-tako* ere maiz agertzen da; *-riko* gutxiagotan (baina *ETI* liburuan maiz); askoz gutxiagotan *non*; *zein* bizidun bakarra topatu dugu, Iparraldeko euskaraz mintzo den BIA-ko sugearen ahotan.

- (79) *Baziren baita ere bihotz ahulekoak beren artean, zeinak buru haundiarekin kupitu eta bakarrik ez uzteagatik plazara joan eta eztenarekin itxura egiten bait zuten*

Aditz erlatiboa partizipio soila deneko egitura ekialdekoaren adibideak ere gutxi-gutxitan ediren ditugu.

- (81) *Izkribuaren aipatu egoeragatik* (OBB)
 (81) *Txirrina-pantika deitu zomorroa* (OBB)
 (82) *Neronek esango dizut otsoengandik aldegin egunean agindutakoa* (BEBM)

Erlatiboetan euskalkien arteko aldea nabarmena da, eta Atxagak aintzat hartzen du hori: BIA-ko sugeak Iparraldeko mintzoa darabilenez, *-riko* erlatibatzailea baliatzen du. Genero konturik ere bada tartean, antza: *-riko* ugari ageri da *Etiopia* liburuko poemetan.

b) *-n* eta *-tako* honako kasu hauek erlatibatzeko erabiltzen dira: absolutua, ergatiboa, datiboa, eta inesiboa. Kasu komunztadura dagoenean, ordea, gainditu egiten da murrizketa hori, edozein kasu erlatiba daitekeelarik.

- (83) *Azkenean heldu zen nahi bide zuen lekura* (BIA)

c) *-n* / *-tako* erlatibatzaileek badute “arazo” estruktural bat ulergarritasunari kalte egin diezaiokenea: erlatiboa izen ardatzaren aurrean agertzea. Horrek sarritan behartzen gaitu erlatibo labur samarrak egitera edo, bestela, Atxagak hain kuttun dituen perpaus erlatibo apositiboak erabiltzera.

- (84) *Bada Mintzo bat barnetik sortzen zaiguna* (BIA)
 (85) *Eritegi eder askoa, makina bat gaixo sendatutakoa* (OBB)

Perpaus erlatibo apositibo horiek badute murriztapen bat, salbuespenak salbuespen idazle gehienek betetzen dutena: izen ardatza kasu absolutuan dago, perpaus nagusiak hala exijiturik. Bestelako kasu bat baldin bada, asteasuarrak erlatibo librea baztertu eta izen ardatza errepikatzea hobesten du:

- (86) (...) *esaten zion gizon hark mutil ttiki bati, Paulo bera zela antzematen ziztaion ume ttiki bati* (BIA)

Topatu dugun beste adibide batean, ordea, arrisku handiagoa hartu du, izen ardatza edutezko genitiboan dagoelako; *-n* menderagailuari atxikitako kasua, ordea, absolutua da.

- (87) *Neskatila baten itxura zuen, helduagoa ematearren takoizko oinetakoekin ibiltzera behartuta zegoena* (BEBM)

Perpaus erlatibo apositiboetan erlatibatzen den funtzioa denborazkoa bada (eta izen ardatza *aldia* bada), euskaldun askok nahasi egiten dituzte, gaztelaniarekiko interferentziaz, perpaus erlatiboa eta perpaus osagarria. Esan dezagun, Atxagaren izen onaren alde, ondoko adibidea elkarrizketa batetik ateratakoa dela, eta litekeena dela gure idazleak berriaz egin nahi izana akats hori, ahozko euskararen egiten direnen lekuko.

- (88) *Bigarren aldia da zakurren janagatik kargu hartzen didazula* (GBB)

Egitura ez-apositiboa erabiltzen duenean, argiago geratzen da perpausaren erlatibo izaera, eta ez dago interferentzietarako tokirik.

(89) *Hau da norbait ogia egiten ikusten dudan aurreneko aldia* (GBB)

d) zenbait belarri fin asaldatuko badira ere, Atxagak, batzuetan, *zein-* ekiditeagatik, [-n /-tako + izen ardatza] egitura erabiltzen du erlatibo ez-murrizgarrietan. Bigarren adibidean erakusleak errazten bide du aukera hau.

(90) *Aitonak kopeta zimurtuz begiratu zion zer esan asmatu ezinez zebilen Sebastiani* (STXB)

(91) *Paulori adio goxoa egindako Teresa haren belauna* (BIA)

(92) *Auskalo zertan pentsatzen ari zen aldian behin salara etorri eta musika jartzen zuen Genoveva* (BEBM)

e) jakina da euskaraz ez dela oso arrunta erlatiboaren izen ardatza perpaus oso bat izatea. Atxagak halakorik adierazteko honako prozedura hauek baliatzen ditu:

e.1.) [perpaus nagusia + -n menderagailua duen perpaus erlatiboa + *gauza* izen ardatza]

(93) *Jakina, hamabost urtez mutiko guztiek arbuiatzen dute amaren laguntza, gero gertatzen ez den gauza, noski* (ETI)

(94) *Anitz lagunek, behintzat, hori esaten zidaten lantokira hurbiltzen nintzen bakoitzean; azken aldian oso gutxitan gertatzen zen arazoa, bestalde* (ETI)

(95) *Hori esan eta pudding txokolatetza kentzen dit aurretik, bere aitaren kontuak bakean uzten dizkiodanean egiten ez duen gauza* (BLJN)

(96) *La Vacheri baso usaina antzematen zitzaion, behi batek oso gutxitan izaten duen gauza* (BEBM)

e.2.) perpaus erlatibo librea, absolutu singularrean. Egitura hau zilegi izatekotan, perpaus erlatiboa atributuzkoa izan behar da eta izen ardatz-edo den perpausa erlatiboaren atzean agertu.

(97) *Bazekien gutxi gorabehera Barcelona inguruko zein tokitan zegoen. Eta askozaz ere okerragoa zena, Pascalek bazekien* (GBB)

Aurrean agertuz gero, ordea, guri behintzat, emaitza ez zaigu onargarria iruditzen.

(98) ? *Bazekien gutxi gorabehera Barcelona inguruko zein tokitan zegoen. Eta Pascalek bazekien, askozaz ere okerragoa zena*

e.3) esaldi bakar batean bildu beharrean, bi perpaus bereizi erabiltzea, erlatiboaren ordez bigarrenean *hori* erakusle anaforikoa sartuz.

(99) *Neskaren agurra entzun bezain azkar bere pentsamendua entzun nuen, oso garbi, Paulorena berarena bezain garbi. Harritu egin ninduen horrek* (BIA)

(100) *Ez zuen pentsu bankete harena konprenitzen, eta urduritasuna ematen zion horrek* (BEBM)

(101) *Behi makalen konpainia uzten dut, eta horrek desertura eramaten nau* (BEBM)

(102) (...) *bere zerebroaren zati erabat esnatu gabekoa, eta zati horrek* (...) (GBB)

Hori erakuslea kataforikoa izan daiteke, haren esaldia tartekietan agertzen bada.

- (103) *Gizon hura argia iruditzen zitzaidan, berarekin konparatzeko modukoa edo —horrek ematen zion beldurrik haundiena— bera baino azkarragoa oraindik* (BIA)

f) badago erlatibo atxagatar peto-peto bat, zenbaitek erdarakadatzat hartuko luketena, baina, finean, adierazkortasun handikoa dena: erlatibo libreari sozietibo kasua eranstea, edo erlatiboaren izen ardatza sozietibo kasuan dagoen adjektibo edo partizipio bat izatea —gaztelaniazko “con lo (...) que” delakoaren pareko. Balio semantiko ugari izan ditzake, hala nola kontzesio- eta ondorio-perpausena.

- (104) *Dolarrek han balioko dutenarekin, gainera* (BLJN)
 (105) *Iharrak ere egin zuen zerbait, bera zen serioarekin* (BLJN, kontzesio balioa)
 (106) *Hik balio duanarekin* (BIA)
 (107) *Nagoen aspertuarekin, edozein gauza entzungo nuke* (BEBM, ondorio-perpausaren balioa)
 (108) *Nire barruko ahotsak berak, den borrokazalearekin, zahar horrengandik apartatzeko esaten dit* (BEBM, kontzesio balioa)

g) badago euskaraz erlatibo berezi bat, adjektibotik gertu-gertu dagoena, eta honako ezaugarriak dituena: izen ardatzik ezean “erakusle ardatz” bat” agertzen da (bigarren gradukoa eta plurala, hots, *horiek*), nominalizaturik; erakusle ardatza leku-genitiboan dago; kasu horri absolutu kasua eransten zaio, aditz nagusia *izan* aditza baita. Bada, hor atentzioa ematen diguna da subjektua singularrekoa bada, aditz erlatiboan ez dagoela absolutu pluralaren markarik, “erakusle ardatza” plurala izan arren. Izan ere, aditz erlatiboak ez baitu komunztadurarik izen ardatzarekin, perpausu nagusiaren subjektuarekin baizik.

- (109) *Baina Old Martin ez da ixiltzen den horietakoa* (BLJN)

“Erakusle ardatza” isil daiteke, bi kasuak (leku genitiboa eta absolutua) mendera-gailuari erantsiz.

- (110) *Iharra ez zen erronkan ibiltzen zenetakoa* (BLJN)

Badakigu horrela esaten eta idazten dutela euskaldun gehienek, baina, gure uste apalean, eta errealtatea desiratik urruti egon ohi dela jakinik ere, perpaua sintaktikoki zuzena izatekotan komunztadura egon beharko litzateke aditz erlatiboaren eta izen edo erakusle ardatzaren artean (*Baina Old Martin ez da isiltzen diren horietakoa*). Eta hala jokutzen du Atxagak berak ere batzuetan, guri lasaitu handia emanez.

- (111) *Javier (...) noiz nai ehetic aldeguiten dutenetakoa guenian* (OBB)

h) Atxagak batzuetan “cleft” delako erlatiboazko perifrasiak erabiltzen ditu galdegaia azpimarratzeko, kontuan hartu gabe hitzurrena aski izango zatekeela galdegaitasun hori adierazteko.

- (112) *Bera izango duk barregarri geldituko dena* (BLJN)
 (113) *Eta askotan neroni izaten nintzen zurrumurruak bidean jartzen zituena* (BLJN)

(114) *Oraingoan gizona izan zen begiak lurrera jarri zituena* (BIA)

(115) *Huraxe zen jakin nahi nuena* (BEBM)

i) Asteasuarrak bakanka erabiltzen du [izen ardatza + perpaus erlatiboa + kasua] delako egitura.

(116) *Zuek orduan basamutil ezer ikusi gabekoak zineten* (BLJN)

j) Zenbait aldiz, *-tako* erabiltzean, aditz erlatiboaren eta izen ardatzaren artean *izan* aditza tartekatzen da (eta horri *-tako* eransten), iraganalditasuna nabarmentzeko-edo.

(117) *Bi anaiak egon izandako lekurantz* (BIA)

(118) *Berak ezagutu izandako emakume edadetuen ereduan* (GBB)

k) Atxagak euskaldun askoren “bekatua” egiten du inoiz edo behin: perpaus erlatiboa eta zehar galderak nahastea. Hurrengo adibidean, guk behintzat, apal-apalik badarik ere, *hik badakik hor barruan zer daukaan* idatziko genukeen.

(119) *Hik badakik hor barruan daukaana* (BEBM)

l) Jakina denez, *-(e)nean* menderagailu denborazkoa, berez, perpaus erlatibo libre bat da, inesibo kasuan dagoena. Menderagailu denborazkoa bihurtuta, esan dezakegu nolabait “fosildu” egin dela. Bada, idazle gipuzkoarra, berriz ere arriskua hartuz, lekuzko balioa ematera ere ausartzen da, baldin eta izen ardatz isilduaren erreferentzia lehenago (eta ez urrutiegi) aipatu badu. Hurrengo adibidean *mahaiei* da lekuzko izen hori.

(120) (...) *mahaiei begiratuz (...) Haietako batean, gainera —luzeenean, jokalariaik eseriko zirenean— (...) bandera gorri eta izarduna ikus zitekeen* (GBB)

3.3. Perpaus adberbialak

3.3.1. Kausazko perpausak

Kausazko perpausak eta osagarriak badute ezaugarri komun bat, Atxagaren estilistikari dagokiona: ez ohi dela perpaus bakar bat agertu, bi edo hiru baizik, emendiozko juntagailuaren bidez lotuak. Izan ere, lehenago ohartarazi dugun bezala, asteasuarraren obran norbaitek zerbait esaten badu, gauza bat baino gehiago esaten du, eta zerbait gertatu bada, arrazoi batengatik baino gehiagorengatik gertatu da.

(121) *Iluntzen ari zuelako eta hastear egongo zelako (...) partidua* (GBB)

(122) *Haizeak freskatu egiten baitzizkion (...) eta aldi berean uxatu egiten baitziren* (GBB)

Atxagak erabiltzen dituen kausazko perpaus motak honako hauek dira:

a) ZERENGATIK (...) BAIT-

Usu topatzen da ahozkotatasuna islatu nahi den testuetan (BLJN eta BIA liburuetan batez ere), Atxagaren estilo errepikakor samarraren erakusgarri.

(123) *Zerengatik umore txarrean nagoenean ez baitut gardena zaintzen hasteko gogorik izaten* (BLJN)

- (124) *Zerengatik gehienek ikusiak baitzituzten aipatzen zizkidaten gauza haiek* (BIA)

Zerengatik lokailua *bait-* menderagailua gabe ere azaltzen da askotan BLJN liburuan, eta gutxiagotan BIA n.

- (125) *Oso ondo, ama! –dio Jimmy gizarajoak, zerengatik, esaten diet beti, ume hori bakar xamar dagoela etxean, anaiarrebaren bat beharko lukeela* (BLJN)
 (126) *Suak lagundu egiten dizu, zerengatik horrelakoxea da sua,* (BLJN)
 (127) *Zerengatik erakusten zidan Obabatik hain urrun zegoen itsaso hura* (BIA)

Harrigarria badirudi ere, ez Villasantek ez EGLUK ez digute lokailu horren berri ematen.⁵ Atxagaren asmakizuna ote? Ez: ekialdeko euskalkietako idazle zahar bazuengan [*zerengatik... bait-*] egitura agertzen baita.⁶

b) ZERGATIK (...) BAIT-

EGLUn (VI-2, 207) *zergatik* lokailua aipatzen da, baina *-n* menderagailuarekin batera (eta ez aditzari *bait-* erantsita), euskalki arrazoiengatik (*zergatik*, lokailu gisa, mendebaldeko euskalkiari dagokio). Atxagak, ordea, *bait-* menderagailuarekin batera erabiltzen du.

- (128) *Zergatik etxe asko baitzeuden zerrategi haren inguruan* (BIA)
 (129) *Zergatik han ez baitago niretzako ezer egokirik* (OBB, *Post tenebras* ipuineko gutun batean)

Bait- menderagailua gabe, ordea, apenas agertzen den *zergatik* lokailua.

- (130) *Ume horri... zergatik ume bat duk ezta?* (BIA)

c) NOLA (...) BA (...) -n / NOLAZ ETA -n

Sarri askotan erabiltzen du Atxagak zioa adierazteko modu hau.

- (131) *Nola apustuak oso fuertek ziren, laster aurkitu nintzen* (ZIU)
 (132) *Nola laburra egin nahi zuen* (STXB)

Nola adberbioaren *nolaz* aldaera ere erabiltzen du (batzuetan testu berean) *eta* juntagailua eskuinean duela.

- (133) *Nolaz eta bi hilabete baigeneramatzen hire berririk gabe* (HBI)

Gutxitan topatu dugu lokailu hau *bait-* menderagailuarekin.

- (134) *Karrerista batek, nola baitzen trebe, (...)* (BIA, Iparraldeko mintzoa duen sugearen hitzetan).
 (135) *Nolaz eta oso gaztea baitzen* (OBB, *Post tenebras* ipuina)

⁵ Sarasolak, ordea, haren aipua egiten du, baina galdetzaila izaera emanez.

⁶ Hona hemen adibide bat: "Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Arriba de Seillasen idukazu esteko partearekin zerengatik uesteko parte urak usten baitu" (Piarres d'Etcheverry, *Ixasoco Nabigacionecoa*, 1677).

Ahokotasuna indartzeko, perpaus nagusiaren aurre-aurrean *ba* lokailua tartekatu ohi da.

(136) *Nolaz eta mardulagoa zen, nolaz eta atrebituagoa zen, ba jendeak irabazleztzat jotzen zuen* (BLJN)

(137) *Nolaz eta alde onak bakarrik azaltzeak lotsa ematen zion (...) mutu gelditu zen* (BIA)

d) ZEREN (...) BAIT-

Estilo jasoari eta ekialdeko euskalkiei lotuta dago, eta, beraz, BLJN edo STXB liburuetatik ia erabat aparte dago, salbuespenak salbuespen.

(138) *Zeren eta izebak goizeko bederatzietan jaiki erazten baitzuen egunero* (STXB)

Atxagaren azken bi nobeletan, ordea, maiz ageri da.

(139) *Zeren halaxe adierazten baitzion* (GBB)

Baita —eta harrigarria gertatzen zaigu hori— BEBMko elkarrizketetan ere. Liburu horretako animaliek euskara jasoagoa dute aurreko nobeletako pertsonaiek baino

(140) *Ez daude inon, zeren ihes egin baitute*

Ziur gaude hori Atxagak nahita sortu nahi izan duen efektua dela.

GBB liburuan *zeren* lokailua maiz erabiltzen da elkarrizketetan, aditzari menderagailua atxikita edo atxiki gabe.

(141) *Zeren niretzat oso kuestio desberdinak dituk*

e) BAIT-

Menderagailu hau bakanka azaltzen da aztertutako testuetan lokailurik gabe.

(142) *Inor ez baita niri kontra egitera atrebituko* (BLJN)

(143) *Legea berbera baita munduan arnasa hartzen duten guztientzat* (STXB)

(144) *Baina goiz hura ez zen beste goizak bezalakoa izan. Goiz hartan morroiak Heriotza ikusi baitzuen azokan* (HBI)

f) EZEN (...) BAIT-

(145) *Ezen ezinezkoa baitzitzaien (...) arreta jartzea* (STXB)

(146) *Ezen lanturuekin luzatzea besterik ez baitzuten egiten* (BIA)

Adibide bakarra topatu dugu (gehiago egongo dira baina), non *ezen* lokailua menderagailurik gabe ageri den: Atxagak Agirre Asteasukoaren euskara imitatzen duen *Camilo Lizardi* ipuinean, hain zuzen.

(147) *Ecen ba zequiat (...) cein griña vicico guizasemea aicen* (OBB)

g) ZE (...) BAIT-

Lehenengo eta behin, nabarmendu beharra dago *ze* lokailua ahozko euskarari dagoikiola (Villasante 1980: 144) eta, agian horrexegatik dago EGLUtik deserriturik.⁷ Behin baino gehiagotan erabiltzen da HBI liburuan, eta —harrigarrien gertatzen zaigun gauza—, aditzari *bait-* menderagailua eransten zaio. Harrigarri, bai, *ze* hori bizkaierazkoa delako (mendebaldekoa, beraz), eta *bait-* ekialdeko euskalkiena.

- (148) *Ze nere ahalegin guztiak kondenatuak baitaude hemen*
 (149) *Heriotza harritu egin zen behin ere ez bezala, ze denda hartan ez baitzuen morroi bakar bat ikusi, baizik eta bost, zazpi, hamar morroi berdin ikusi baitzuten*

3.3.2. Denborazko perpausak

Espero izatekoa den bezala, Atxagak tipologia zabaleko denborazko perpausak baliatzen ditu bere literaturan. Hemen ezaugarri esanguratsuak baino ez ditugu aipatuko. Eta, gure ustez, hauxe da esanguratsuena: jakina da denborazko perpausak perpaus nagusiarekiko aldiberekotasuna, lehenagotasuna edo gerokotasuna adieraz dezaketela; bada, askotan erabilera —kasu honetan, idazle gipuzkoarraren erabilera— ez dator bat gramatiketan esaten zaigunarekin.

a) PARTIZIPIOA + KASU INSTRUMENTALA

Denborazko perpaus honek modua ez ezik, aldiberekotasuna ere adierazten du. Kontua da askotan ez dagoela muga garbi-garbirik lehenagotasunaren, aldiberekotasunaren eta gerokotasunaren artean. Hurrengo adibidean, adibidez, “atea irekitzea” eta “kaleratzea” ez dira aldi bereko gertakariak. Aurrena bata gertatzen da, eta gero bestea.

- (150) *Atea irekiz, ezer ere esan gabe, kaleratu egin nintzen (ZIU)*
 (151) *Txabolaren ateari danbateko bat emanetz, Paulok Obabako plazaren bidea hartu zuen (BIA)*

Hortaz, gure ustez —barka bekigu atrebentzia—, hor *atea irekita / danbateko bat emanda, atea irekitakoan / danbateko bat emandakoan* edo antzeko zerbait idatzi behar harko zukeen Atxagak.

b) -TZERAKOAN, -TZEAN, -TAKOAN

Antzeko zerbait gertatzen da hurrengo bietan: *-tzean* dio asteasuarrak. Guk *-takoan* proposatuko genioke, gerokotasuna adierazi behar baita, eta ez aldiberekotasuna.

- (152) *Apustua bukatzean Beltzak —Beltza zen gogorrarekin— negar eta guzti egiten zuen (BLJN)*
 (153) *Eskerrik asko afariagatik. Bukatzean, hona igoko ditut bandexak (GBB)*

Ondoko bietan *-tzerakoan* jartzen du, baina guk, apal-apalik, *-tzean* proposatzen dugu aldiberekotasuna azpimarratzeko. Izan ere, *-tzerakoan* hurbilago dago —eus-kaldun askoren erabilera gorabehera— lehenagotasun hurbiletik (Zubiri & Zubiri 1995: 733-734).

⁷ Behin bakarrik aipatzen da hor (EGLU III, 178).

(154) *Etxe ataritik pasatzerakoan, katiatutako txakurrek utzi egin zioten zaukan egiteari* (STXB)

(155) *Norbait preso egiterakoan, harrapalariak ble esaten zion* (STXB)

Dena den, aitortu beharra dago Atxaga “ez dagoela bakarrik” puntu honi dagokionez. Villasantek (106) dio *-tzerakoan -tzean*-en baliokidea dela, hots, aldiberekotasuna adierazten duela. Eta horretarako, Axular maisuaren hainbat adibide damaizkigu.

C) ERREDUNDANTZIAK DENBORAZKO PERPAUSETAN ERE

Ikusi dugun bezala, idazle gipuzkoarrak, ahozketasunaren zordun, erredundantziarako joera garbia du, errepikak, kataforak eta anaforak lekuko. Hurrengo adibidean, denborazko perpausaren anafora den *orduan* adberbioa darabil, indargarri soil gisa. Bera —eta *ba* lokailua— gabe ere, zuzena litzateke esaldia, baina galdu egingo litzateke ahozko euskararen kutsu hori.

(156) *Azkenean, Kathleneek hori esaten duenean, ba orduan Old Martinek (...)* (BLJN)

Esana dugu Atxagak oso gustukoak dituela hitz edo esaldi osoen errepikapenak. Bada, ildo horri jarraiki, aliterazioak ere atsegin ditu, dudarik gabe, eta morfologiak horretarako bidea ematen dio: hurrengo adibidean, aditz izen bat eta izen bat inesibo kasuan egoteak ahalbidetzen du aliterazio efektu hori, Olaziregik aipatutako “memorizazio” horren mesedean sortua.

(157) *Baina trumoi hori entzutean niri zerbait tratatu zait eztarrian* (STXB)

Esaldi hau *letu* duenak, gure idazlearen liburuak arreta minimo batekin *letu* baldin baditu, berehalaxe gogoratuko du antzeko egitura bat, HBI liburuan behin eta berriz errepikatua. Hona hemen adibideetako bat:

(158) *Ez al dugu aduanan problemarik izango, esan zigunean / guri zerbait hautsi zitzaigukean bihotzean, KRA!*

D) MAIZTASUNA

Usu topatu ditugu Atxagaren testuetan inesibo kasua duten perpausak (*-nean, -tzean, -tzerakoan*), eta usu kasu sozietiboaren bidez sortutakoak (aditza jokaturia zein jokatu gabea izanda), batik bat BIAN.

(159) *Hitz egitearekin batera damutu zen* (STXB)

(160) *Hori bururatu zitzaidanarekin batera, gogoratzen hasi nintzen* (BLJN)

(161) *Hitzegiten ari zenarekin batera* (BIA)

E) HITZURRENA

Euskal sintaxiaren menderakuntza gai korapilotsua da, dudarik gabe. Zenbaitek —zurrunezi— diote menderakuntzan elementu menderatuak elementu menderatzailearen aurrean agertu behar duela. Horrek, gure ustez, kalte egin diezaioke sarritan ulergarritasunari, eta, hori dela eta, ahozko eta idatzizko praxian kontrako joera nagusitzen bide da. Hala jokatzen du Atxagak, naturaltasun eta ulergarritasunaren hobe beharrez.

(162) *Baina Isidro bere semeari besotik heldu zionean eskailerak igotzen laguntzeko, eta esan, "hik duan artearekin horrela ibili beharra ere, Adria", bere atsekabearen benetako arrazoiak jabetu ginen (SJS)*

Askoz ulergaitzagoa gertatuko zatekeen, ordea, batzuentzat "eredugarri" izan litekeen hau:

(163) *Baina Isidro eskailerak igotzen laguntzeko bere semeari besotik heldu eta "hik duan artearekin horrela ibili beharra ere, Adria" esan zionean, bere atsekabearen benetako arrazoiak jabetu ginen*

Azkenik, hizpidera ekarri nahi dugu ez Villasantek, ez EGLUk, ez Zubirik aipatzen ez duten denborazko perpaus mota bat, *-n bakoitzean* edo *-n aldikal* perpaus moten balio berekoa: *-nero*. GBB liburuan zenbait adibide aurkitu ditugu.

(164) *Trafikoa ahula zen telebistak mundialetako partidu bat ematen zuenero bezala*

(165) *(...) galdetzen zion bere anaiak astindu haietako batean harrapatzen zuenero*

Gramatiken arabera, *-ero* atzizkia izenei erants dakieke (*astelehenero, gauero*), baina ez *-n* menderagailua itsatsita daukan aditz bati. Dena den, Atxagak ez ezik, beste autore batzuek ere *-nero* hori erabiltzen dute.⁸

3.3.3. Baldintza perpausak

Atxagaren baldintza perpausen tipologiak honako ezaugarri hauek ditu:

a) *-tzera* baldintzazkoa, guk dakigula, gipuzkeraz erabiltzen da. Bada, Atxagak oso gustukoa du bere literaturara ekartzea, batez ere BEBM liburuan, sintaxi errepikakorrarenganako zaletasunaren erakusgarri.

(166) *Egoera hain fastikagarrian ez aurkitzera, agian zer bait bururatuko zitzaidakeen (BEBM)*

(167) *Bere ametsekoa bezalako saguzar erraldoiak esistitzera, eta haietako bat zeru izartsu hartan galduta eta jaisteko gogoz ibiltzera, seguru eliza haren teilatua aukeratuko zenukeela pausalekutzat (GBB)*

(168) *Ez nituen jada nire ume eta gazte denboretako zerrenda sentimentalak egiten, baina egin izatera Virginiak jarraituko zukeen haien buru (SJS)*

b) baldintza irreal etako apodosietan (baita *bezala* postposizio moduzkoaz lagundurik dauden horietan ere), Atxagak *izan* aditza tartekatatu ohi du aditz nagusi eta laguntzailearen artean,⁹ beharbada denborazkotasuna azpimarratzeko.

(169) *Sebastian artean umea izan balitz, ez zatekeen errebelatu izango (STXB)*

(170) *(...) esan izango zukeen bezala (GBB)*

⁸ Hurrengo adibidea Harkaitz Canoren *Beluna Jazz* eleberritik ateratakoa da: "Estreinako Gauloises zigarroari sua erantsiz Belunan tea eskatzen zuenero irribarre ttiki bat ateratzen zitzaion Ieregiri".

⁹ Esan gabe doa perpausa ezezkoa bada *izan* hori ez dela tartekatzen, baizik eta perpaus bukaeran ezartzen.

c) baldintza perpausaren (protasiaren) eta ondore-perpausaren (apodosiaren) arteko ordena eta *baldin* lokailuaren agerpena ulergarritasunaren arabera erabakitzen ditu asteasuarrak. Hurrengo adibidean, kasu, protasia apodosiaren atzean agertzen da eta lokailua du hasieran, agian perpaus erlatibo bat tartekaturik duelako.

- (171) *Eta apika ez zen bere aldartea mudatu izango baldin eta beltzez jantzitako gizonak bisita bat egin izan ez balio* (BIA)

Hortaz, *baldin* lokailua egokia da atzean datorkiona baldintzazkoa dela ohartzazteko. “Nabigatzaileentzako abisu” bat da, “kontuz, hurrena baldintza perpaus bat dator” gaztigatzen diena.

- (172) *Beti hegaletan (...) pausatzen ginen, eta orduan ere ahalik eta denbora laburrenez, supitoki eta denok batera aideratuz baldin eta desoizko soinuren bat sentitzen bagenuen ingurutan* (BIA)

d) Atxagak ez du batere zimikorik euskarazko baldintza aldi ugariak errazteko orduan.

- (173) *Egia esan, hizkuntzak ematen dit beldurrik handiena. Horrek atzeratu ninduen lehenago ere. Bestela han nintzen honezkero* (SJS)

3.3.4. Kontzesio perpausak

Esanak garen bezala, Atxagaren naturaltasuna (hots, ahozkotasuna) eta gaztelania-rekiko interferentzia eskutik lotuta doaz zenbaitetan. Eta kontzesio perpausak ez dira horren salbuespen: izan ere, oso gustukoa baitu egitura bat, gure ustez “jatorra” ez dena, gaztelaniatik gordin-gordinean mailegatuta baitago: *Eta hori... -(e)larik* (gaztelaniazko “y eso que...”-ren itzulpena).

- (174) (...) *eta hori handik haur bezala atera zelarik* (BLJN)
 (175) (...) *eta hori elkarrekin ibiltzen zirelarik* (OBB, Jose Francisco)
 (176) (...) *eta hori animatzaile sutsuena bera izaten zelarik* (GBB)

Bestalde, oso kontzesio perpaus bitxia topatu dugu, balio generikoa duen erlatibotzat ere har dezakeguna: [galdetzailea + aditz erroa + ere].¹⁰

- (177) *Non gorde ere, harrapatu egingo haut beti!* (BIA)
 (178) *Etorkizunak zer ekar ere, ezin izango zion lekuari inolako erantzukizunik eskatu* (GBB)

Aitor dugu ez dugula sekula horrelakorik entzun ez irakurri, baina, hala ere, gogora dakarkigula Leizarragak maiz erabiltzen zuen erlatibo bat, non aditza jokatz den (*Non ere gordetzen baihaiz, harrapatu egingo haut beti!*). Eta, esanahi aldetik, gertu-gertu dago *-na (...)* *-la (datorrena datorrela)* esapidetik.

Honenbestez, hitz batean —edo bitan— esan dezagun: [ZER + aditz izena + ERE] egitura ez da inongo gramatikatan ageri kontzesio perpausen atalean. Gu ez gara az-

¹⁰ EGLUn (V,1, 257) perpaus erlatiboeri eskainitako atalean, badago Leizarragaren adibide bat non aditz erroa ageri den, baina aditz perifrastiko bat osatzen du, *bailedi* laguntzailearekin batera.

tiak, jakina, baina egingo genuke adibide horretan idazle gipuzkoarrak analogiaren bidetik jo duela: badago esapide fosildu bat kontzesio kutsua duena: *zer gerta ere*. Eta horrek bide eman dio, nonbait, Atxagari, hizkuntzarekin esperimentatzeko.

Azkenik, SJS eleberrian honako esaldi hau topatu dugu:

(179) *Nahiz haren ile luze eta manson itxura orokorra, amak begiko zuen*

Esaldi hori edozein euskaldunek ulertuko luke, jakina, baina gure obsesio gramatikalak ziririk sartu ez badigu behintzat, esango genuke *nahiz* kontzesio lokailuak aditzaren beharra duela beti, bai partizipioan, bai forma jokatuan (*-n* eransten zaion aditz laguntzaile eta guzti). Aditzik ezean, gure ustez, kontzesio-modu jatorrena (bakarra ote?) *gorabehera* da (*Haren ile luze eta manson itxura orokorra gorabehera, amak begiko zuen*).

3.3.5. Moduzko perpausak

Badago moduzko perpaus bat, Atxagaren sintaxiaren ardatzetako bat bihurtu dena. Erdi moduzkoa da (*bezala* postposizioa duen heinean), eta erdi baldintzazkoa (*ba-* aurrizkia duen heinean), eta sarri askotan erabiltzen du asteasuarrak, ia-ia kli-txe moduan, batez ere BIAN (*banintz bezala, egin izan balitzait bezala, banu bezala, etab.*).

Perpaus erdi moduzko eta baldintzazko horren aldaera bat —aditz jokatu gabea duena— ere oso atsegin du gure idazleak, batez ere BIAN, eta batez ere *esan* aditzarekin (*esanez bezala* usu ageri da bertan).

Poesiari dagokionez, esan beharrik ez dago oso ohikoak direla aditz jokaturik gabeko perpausak. Hala gertatzen da, adibidez, *Etiopia* liburu hunkigarrian, non instrumental kasua eransten zaion partizipioa barra-barra aurki dezakegun (*tximinien loa zainduz*).

Eta orain, ohar txiki bat *bezala* eta *gisa* postposizioei buruz: euskara irakasleek eta gramatikariek gogor ekiten diete ikasleei, bereizteko eta bereizteko. Eta Atxagak, zeinak eleberri bati *Bi anai* izenburua jartzeko batere bihotz-zimirikorik izan ez zuen, erabilera arrunt (eta gramatikalki kondenatua) hobesten du normalean:

(180) *Dolar bat eman nion sari bezala* (BLJN)

(181) *Okin bezala aritutako azken tarte hura* (GBB)

Bestalde, Ziutateaz testuan honela esaten zaigu pasarte batean: *Eta ilargiak, printze bakartien legez, bere txelo kontzertua eman duen bakoitzean*. Eta honatx gure galdera: ez al litzateke *bakartiek legez* izan beharko? Hau da, ez al du *legez* postposizioak *bezala*-k bezala funtzionatzen (hau da, funtzio sintaktikoak eskaturiko kasu marka errespetatuz), eta ez *moduan*-ek bezala (hau da, kasu marka hori genitibo markak ordezkatzuz)? Izan ere, honela dio asteasuarrak zenbait orrialde geroago:

(182) *Puztu egingo zaio bere lepo lodia (...) suge bati lez*

3.3.6. Konparazio-perpausak

Konparazio-perpauetan ohiko tipologia baliatzen du Atxagak. Dena den, erraztasunak —ezen ez errazkeriak— hala eskaturik, ez du arazorik beste mendeko perpau-

setan ere erabiltzen duen estrategia bera erabiltzeko: aposizioa, hau da, konparazioa aditzaren atzera —eta, hortaz, konparazioak ardatz duen izenetik urrutira— mugitzea.

(183) *Artean ez nenkien Paulok anaia zuenik, bera baino zaharragoa, Daniel* (BIA)

4. Ondorioak

Bernardo Atxaga euskal idazlerik entzutetsuena da zalantzarik gabe, gurean zein atzerrian. Eta horretan badu zerikusirik, bere istorioak asmatzeko gaitasunak ez ezik bere idazteko modu bereziak (bere hizkuntz estrategiek, alegia) ere. “Estrategia” horiek ezagutu nahian, asteasuarraren sintaxia aztertzen saiatu gara. Eta saiatze horretan, arakatutako testuek hainbat ezaugarri partekatzen dituztelako ondorioa iritsi gara. Honatx ezaugarriok:

Bi erregistro erabiltzen ditu Atxagak, ahozkoa eta idatzizkoa, eta haietariko bakoitzak bere sintaxi propioa du. Ahozko erregistroan gehien erabiltzen duen eta ulergarritasuna erraztea xede duen baliabide nagusia honako hau da: aposizioa, hots, elementuak (adjektiboak edo partizipioak eta mendeko perpausak) aditzaren atzean kokatzea. Galdegai legea ulergarritasunari kalte egin gabe betetze aldera, hiru aposizio mota darabiltza Atxagak:

a) baldin eta galdegaia emendio edo alborakuntzaren bidez lotutako zenbait elementu¹¹ (bi, hiru...) badira, Atxagak egin ohi duena hau da: haietako lehenengoa aditzaren aurrean paratzea, eta gainerakoak aditzaren atzean, emendioaz edo alborakuntzaz josiak. Ikus (66)-(69) adibideak.

b) beste batzuetan, ordea, galdegai kokalekura aurreratzen duen osagaia kataforiko —eta gutxiagotan anaforiko— bat (*hori, horregatik, horretarako, zera...*) da, eta aditzaren atzean paratzen du galdegaia, elementu batez edo gehiagoz osatua. Ikus (1)-(28) adibideak.

c) perpaus erlatibo apositoetan izen ardatza erlatiboaren aurrean paratzen da, eta menderagailuari izen ardatz horren kasu marka eransten zaio, komunztadura sortuz. Ikus (84)-(85) adibideak.

Atxagak erabilitako menderakuntza sintaktiko mota bat edo beste ez da kontsultatu ditugun gramatiketan ageri, baina bai euskal literaturako beste testu batzuetan. Bestalde, haren zenbait esaldi, besterik gabe, gramatikaltasunaren erreinuaz haratago bizi dira. Baina ziur gaude ez dela horregatik Atxaga begirik batu gabe egongo: arriskatzen duen idazleak hori du onena, (hizkuntz) aurreiritziei jaramon egin gabe burutzen duela idazketa lana. Irakurleen (eta editorearen) mesedean.

Laburdurak

BEBM: Behi euskaldun baten memoriak

BIA: Bi anai

(18a) etsenpluan baitezpadako langilea eta beste nonbaitera joan nahi duena langile berbera izan daitezke. (18b)n ordea gauzak ezin daitezke horrela ulertu. Arazoa

⁸ Homogenoak diren predikatuak kumulatiboak eta banagarriak (*divisive*) dira (ikus Link 1983).

⁹ (17)-ko perpausak gramatikalak dira baldin eta ardo klaseak (Errioxakoa, e.a.) edo ardo kantitateak (edalontzi bat eta beste bat) zenbatzen baditugu, baina jakina, hori ez da masa irakurketa.

ez da *langile bakoitza* sintagma, honelako sintagmak aitzindari izan baitaitezke bestela ere:

(19) Langile bakoitzak/mundu guztiak_i pentsatzen du ___/berak_i beste lantegi batera joan beharko duela

(18)-(19)-tik sortzen den orokortzea hauxe da: izen sintagma erreferentziadunak ez bezala, erreferentzia zuzena ez duten elementuek perpaus beraren barnean baizik ez dezakete joka aitzindari gisa. Orain itzul gaitezen *harri askol/bezero* asko parera:

(20) a. * Bezero asko_i sartu da gaur. Halere ____i ez da oso pozik atera

b. Harri asko_i ekarri dute gaur. Halere ____i ez da nahi genuen modukoa

(21) a. * Bezero asko_i ez da aspaldian agertzen. Baina ezin diogu ____i etxera deitu

b. Harri asko_i ekarri digute gaur. Baina ezin dugu ____i erabili

Harri asko bezalako zerbait, singularreko komunztaduran, perpausaz kanpo ere aitzindari izan daiteke. *Bezero asko* bezalako zerbait ez. Azken hau, zenbatzaile bortitza bezala portatzen da (*bakoitz e.a.*, ikus Etxeberria 2005). Lehenaren azpian singularreko masa izen bat dago. Bigarrenaren azpian ez. *Bezero asko* bezalako zenbatzaile sintagmak aitzindari gisa joka dezake perpaus barnean:

(22) Bezero askok_i [____i beherapen bat izango duela] uste du

Bezero asko eta *harri asko*-ren artean beste diferentzia bat bada: lehenak gurutzaketa efektuak erakusten ditu; bigarrenak ez. Gurutzaketa efektuak zenbatzaile bortitzen ezaugarria dira.

(23) a. Bizilagun bakoitzak_i [____i kalean agurtzen duen auzokidea] gorrotatzen du

b. * [____i kalean agurtzen duen auzokideak] bizilagun bakoitza_i gorrotatzen du

(24) a. Gure bizilagunak_i [____i kalean agurtzen duen auzokidea] gorrotatzen du

b. [____i kalean agurtzen duen auzokideak] gure bizilaguna_i gorrotatzen du

(25) a. Bezero askok_i [___ genero txarra saltzen dion dendaria] engainatzen du

b. * [____i Genero txarra saltzen dion dendariak] bezero asko_i engainatzen du

Uztardura erlazioen ikuspegitik beraz, komunztaduragabeko zenbatzaileak zenbatzaile distributiboak bezala portatzen dira.

5.2. Irakurketa kolektibo eta distributiboak

Har dezagun (26)-ko perpausa, non *asko* zenbatzaile ahula aditzarekin komunztatzen den:

(26) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuten harria

Perpaus honek bi irakurketa izan ditzake: kolektiboa, non gazteek elkarrekin altxatu zuten harria; eta distributiboa, non taldeko gazteek harria bakarka altxatu duten eta hala egin zutenak *asko* ziren.

Har dezagun orain (27)-ko perpausa, non zenbatzaile komunztaduragabe bat dugun:

(27) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuen harria

Zenbatzaile komunztaduragabeek portaera desberdin bat erakusten dute. Izan ere, zenbatzaile hauek irakurketa distributiboak bakarrik bultza dezakete, hau da, gazteek harria banaka altxatu zutenekoa. Ezin uler daiteke, (27) esanik, gazteek harria elkarrekin altxatu zutenik.¹⁰

5.3. Predikatu klaseak

Zenbatzaile komunztaduragabeak distributiboak badira, hemendik jarraitzen dena da banakako interpretazioa onartzen ez duten predikatuekin ez direla ondo joango. Predikzioa, ondorengo adibideek garbi erakusten duten bezala, betetzen da:

- (28) a. Ikasle ohi asko(k) festa horretan topo egin zuten/topatu ziren
b. *Ikasle asko(k) festa horretan topo egin zuen/topatu zen
- (29) a. Lantegian, langile asko batzartu ziren
b. * Lantegian langile asko batzartu zen
- (30) a. Mozio hori, zinegotzi askok adostu zuten
b. * Mozio hori, zinegotzi askok adostu zuen
- (31) a. Jonek liburu asko ordenatu ditu
b. ??Jonek liburu asko ordenatu du

5.4. Elkarkariak

Asko zenbatzaileaz hornituriko sintagmek beti interpretazio plurala duten arren, elkarkariak ezin txerta daitezke komunztaduragabeko testuinguruetan:

- (32) a. Ikasle askok elkarren antz handia dute
b. * Ikasle askok elkarren antz handia du
- (33) a. Ikasle askok elkar/bata bestea iraintzen dute
b. * Ikasle askok elkar/bata bestea iraintzen du
- (34) a. Ikasle askok elkarri/bata besteari loreak oparitzen dizkiote
b. * Ikasle askok elkari/bata besteari loreak oparitzen dizkio
- (35) a. Ikasle asko elkarrekin/bata bestearekin joan dira haur eskolara
b. * Ikasle asko elkarrekin/bata bestearekin joan da haur eskolara

Problema elkarkariekin da, ez orohar erlazio anaforikoekin:

- (36) a. Irakasle askok bere burua goraiatzeko joera dauka
b. Irakasle askok beren burua goraiatzeko joera daukate

Zenbatzaile distributiboek ez dute elkarkaririk onartzen, pluraltasuna adierazi arren, bai ordea *X-ren burua*-ren tankerako bihurkariak:

- (37) a. * Ikasle bakoitzak elkar ikusi du
b. Ikasle bakoitza bere buruaz mintzatu da

¹⁰ Gauza bera gertatzen da gainontzeko zenbatzaile komunztaduragabeekin ere.

(i) Zenbait ikaslek altxatu du harria vs. Zenbait ikaslek altxatu dute harria
(ii) Ikasle gutxik altxatu du harria vs. Ikasle gutxik altxatu dute harria

Desberdintasuna argia da gure ustez.

Heim, Lasnik eta May (1991) lanaren arabera, elkarkariak badute (elkarkari izate hutsagatik, hots beren egitura logikoan) distributiboa den atal bat, zenbait hizkuntzatan agerikoa dena (*each other*). Zenbatzaile distributiboek plurala den multzo baten baitan operatzen dute. Distribuzio operadorearen zeregina multzo plurala banakako aletan banatzea da eta ale bakoitzari buruz predikazio bat ahalbidetzea. Honek esan nahi du ezin dela bi aldiz distribuzioa egin. Lehenengo banaketak multzo plurala banako aletan desegin du dagoeneko, eta banako ale horietan ezin da berriro distribuziorik egin. Komunztaduragabeko *asko* distributiboa da berez. Heim, Lasnik eta May-k arrazoia badute orduan bi distribuzio operadoreen aurrean gaude, eta horietako batek ez du banaketarik egiten ahal. Problema beraz semantikoa da. Ez da gauza bera gertatzen pluraleko formekin: hauek ez dute nahitaz interpretazio distributiborik. Hortaz operadore distributibo bakarra elkarkariak berak ekarritakoa da.

6. Predikazio kategorikoak eta thetikoak (Kuroda 1972)

Zenbatzaile komunztaduragabeak ezin dute agertu predikazio kategorikoetan (subjektuaren berezko ezaugarri bat agertzen dutenetan).¹¹

- (38) a. Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
b. *Ikasle asko altua/azkarra/argia da

Egoera bati buruzkoetan ez dago arazorik:

- (39) a. Ikasle asko gaisorik dago egunotan
b. Ikasle asko gaisorik daude egunotan

Antzeko zailtasunak aurkitzen dira *bakoitz*-ekin:

- (40) a. *Ikasle bakoitza oso argia da
b. Ikasle bakoitzak bere aulkia hautsi zuen

Arazoa ez da zuzen indibiduo-mailako predikatuekin, izan ere, *jakin* bezalako indibiduo mailako predikatuekin konbinatzeko ez dute arazorik.¹²

- (41) Sukaldari askok ez *daki* txokolatzeko souffle onik egiten

7. Behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzak

Har ditzagun (42) adibideko bi esaldiak:

- (42) a. Polizi askok kolpatu dute manifestaria
b. Polizi askok kolpatu du manifestaria

Kolpatu bezalako aditz batek ez dio gertakari bakar bati bakarrik egiten erreferentzia, izan ere manifestaria behin baino gehiagotan kolpatu ahal izan dute poliziek.

¹¹ Ikus 11. atala murriztapen honen azalpen posible batentzat.

¹² Ikus 11.4 atala honen azalpen posible batentzat.

Egoera honetan, zenbatzaile komunztaduradun zein komunztaduragabea erabil daitezke (42)-n ikus daitekeen moduan.

Aldiz, nahi eta nahi ez gertakari bakar bat denotatzen duten aditzekin (i.e. (hondar-gaztelua) hautsi, (putrea) hil, e.a.) ezin ager daitezke zenbatzaile komunztaduragabeak (43b) eta (43b)k erakusten duen bezala. Aldiz, komunztaduradunak gramatikalak izaten jarraitzen dute testuinguru honetan, (43a) eta (44a)-k erakusten duten bezala.

- (43) a. Ume askok hautsi dute hondar-gaztelua
- b. * Ume askok hautsi du hondar-gaztelua
- (44) a. Baserritar askok hil zuten putrea
- b. * Baserritar askok hil zuen putrea

8. Zeren gainean kuantifikatzen dute zenbatzaile komunztaduragabeek?

Orain arte ikusi ditugun adibideei begiratu ohar gaitezke komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulek murriztapen batzuk badituztela aditz sintagma desberdinekin konbinatzeko garaian. Murriztapen hauek gainera, pluraleko komunztadura erabiltzen duten zenbatzaile ahulen portaeratik aldentzen ditu. Komunztaduradunak eta komunztaduragabeak ondorengo propietatei (gutxienez) dagokienean portatzen dira desberdin:

- (45) a. Gertakari bakarra denotatzen duten aditz sintagmekin (*hil, hautsi, e.a.*)
 - (i) Ume askok hautsi dute hondar-gaztelua
 - (ii) * Ume askok hautsi du hondar-gaztelua
- b. Predikatu kategorikoetan (*altua/azkarra izan*)
 - (i) Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
 - (ii) * Ikasle asko altua/azkarra/argia da
- c. cf. Ikasle askok daki biderkatze taula erabiltzen
- d. Irakurketa distributibo/kolektiboak bultzatzen dituzten predikatuekin
 - (i) Lantegian, langile asko batzartu ziren
 - (ii) * Lantegian, langile asko batzartu zen

Aditzarekiko murriztapen hauek aditzera ematen dutena zera da: zenbatzaile komunztaduragabeak aditz sintagman ere eragina dutela eta ez dutela izenaren gaineko zenbaketa hutsa egiten (i.e. badirudi aditzak denotatzen duen gertakariaren gaineko zenbaketa egiten dutela). Zenbatzaile komunztaduragabe bat subjektu posizioan agertzen den (46a)-ko esaldiaren interpretazioa (46b)-ren antzeko zerbit izango litzateke.

- (46) a. Ikasle asko etorri da gaur
- b. Ikasle etorrera asko egon da gaur

Halere, komunztaduragabeek egiten duten zenbaketa ez da aditzaren gainekoa bakarrik. Aditzaren gaineko kuantifikazioa egiten duten elementuen artean adberbioak aipatu genitzake.

- (47) Ikasle batek *bi aldiz* ez tul egin du azken hamar minutuetan

Esaldi honek esan nahi duena zera da: *ikasle bakar batek bi aldiz eztul egin duela*, hau da, *bi aldiz* denbora adberbioak *eztul egin* aditzak denota ditzakeen gertakarien gaineko zenbaketa soila egiten ari da eta ez du inolako eraginik *ikasle* izen sintagma-ren zenbaketan (i.e. esaldia ezin daiteke *bi ikaslek eztul egin dute hamar minutuz* moduan interpretatu inolaz ere).

Argi eta garbi, (48) bezalako esaldi baten interpretazioa ez da (47) esaldian lortzen dugunaren pareko eta ezin dezakegu *ikasle batek askotan eztul egin du* bezala interpretatu. Kasu honetan, zenbatzaileak aditzaren gainean eduki dezakeen eraginaz aparte, ikaslez ari da esaldia nahita nahi ez, eta ez irakaslez edo beste edozeinez.

(48) *Ikasle askok eztul egin du gaur*

Beraz, bada desberdintasun garbi bat zenbatzaile ahul komunztaduradun eta komunztaduragabeen artean, eta orain artekoak ikusita, badirudi desberdintasun hau aditz sintagma denotaturiko gertakariak zenbatzeko ahalmenean dagoela.

9. Analisi posible bat: Herburger-en “fokuak birmoldaturiko irakurketa” (Herburger 2000)

Zenbatzaileek (Zenbatzaile Orokortuen Teoria ontzat ematen badugu behintzat, ikus Barwise & Cooper 1981) izenak denotatzen duen indibiduen multzoaren eta aditzak denotatzen duen indibiduo multzoaren erlazioa adierazten dute.

(49) [[Zenbatzailea [Izen Sintagma = murriztapena]][Aditz Sintagma = besarkadura]]

Herburger (2000) ohartzen da badirela testuinguru jakin batzuk non (ingelesko) zenbatzaile ahulek gertakarien gaineko zenbaketa egiten dutela ematen duen. Beste modu batetara esanda, badirudi batzutan zenbatzaile ahulek Aditz Sintagma hartzen dutela murriztapen bezala, Izen Sintagma hartu beharrean (ikus (49)); gu tratatzen ari garen kasuen antzekoa beraz.

(50) [[Zenbatzailea [Aditz Sintagma = besarkadura]][Izen Sintagma = murriztapena]]

Herburger-ek (2000: 5. kapitulua) honako kasuak ematen ditu:

- (51) a. Few incompetent cooks applied
 gutxi ezgai sukaldari-pl eskaria-egin-irag
 ‘Sukaldari ezgai gutxik egin zuten eskaria’
 b. Few INCOMPETENT_{fok} cooks applied

Lehen perpausak ingelesez, bi adiera ditu: batean, esaten da eskaria egin zuten sukaldari gauzaez horien zenbatekoa ttikia dela. Bigarren adiera batean, “gogorra” edo “partitiboa” deitzen dena, sukaldari ezgaien multzoaren azpimultzo batek (haietako gutxik) egiten du eskaria. Bigarren perpausak, non *incompetent* adjektiboa fokalizatua agertzen den, badu bestelako esanahi bat: honen arabera, eskaria egin zutenen artean gutxi dira sukaldari ezgaiak direnak. Adiera honetan, esaldia beste honen pareko da (Herburger 2000: 127):

- (52) a. Few cooks that applied were incompetent
 b. [Few(x): Applied (x) & Cook(x)] Incompetent(x) & Applied(x) & Cook(x)

(52b)-ek esaten du kontestualki mugaturiko gertakari batean, eskaria egin zuten sukaldari gutxi zirela sukaldari ezgaiak. Deskriptiboki, zenbatzaile sintagmaren barneko fokuak osatzen du determinatzailearen besarkadura, eta fokua ez den gainerakoak haren murriztapena. Hirugarren irakurketa hau gainera, zenbatzaile ahul deituak izan direnekin eta testuinguru jakin batzuetan bakarrik lortu daiteke.

Herburger-en ustez, fokuak birmoldaturiko irakurketa hauetan, zenbatzaileak zenbaketa adberbio batek bezala jokatzen du. Gauza jakina da zenbaketa adberbioek foku egituraren arabera moldatzen dituztela haien murriztapen eta besarkadurak:

- (53) a. Members of minorities rarely trust THE POLICE
 b. MEMBERS OF MINORITIES rarely trust the police
- (54) a. [Few(x): members of minorities (x) & trust (x, someone)] trust (x, the police)
 b. [Few (x): trust (x, the police)] members of minorities (x)

Nola gertatzen da hau? Herburger-en arabera, zenbatzaile ahulak bereizi egiten dira forma logikoan beren izenezko osagarritik "Q-raising" (zenbatzaile-igoera) deitzen duen prozesu baten bitartez:

- (55) [D_i [[_{XP} t_i NP] YP]]
- (56) a. [Few INCOMPETENT cooks] [applied] (azaleko sintaxi-egitura)
 b. [Few [INCOMPETENT cooks applied]] (zenbatzaile-igoera)
 d. [[Few cooks applied] [INCOMPETENT cooks applied]] (foku-birmoldaketa)
 e. [Few(x): Applied (x) & Cook(x)] Incompetent(x) & Applied(x) & Cook(x)

9.1. Herburger-en analisiak ez ditu komunztaduragabeen propietateak azaltzen

9.1.1. Zenbatzaile ahul komunztaduragabe guztiak ezin dira adberbio gisa erabili

Herburger-en esanetan, zenbatzaile ahulen igoerak zenbatzaileak adberbio bilakatzeko ditu. Komunztatze eta ez komunztatze alternantzia jasaten duten euskarako zenbatzaile gehienak adberbio bezala ere erabili daitezke:

- (57) a. Jonek asko/anitz jaten du c. Txanponak ugari aurkitzen dira lurrean
 b. Jonek pilo bat jaten du d. Errealak gehiegi barkatu du atzealdean

Ez ordea guztiak:

- (58) *Txanponak hainbat/zenbait aurkitzen dira lurrean

Ohar gaitzen baita ere, ingeleseko *zenbatzaile igoera* onartzen duten zenbatzaile ahulak ezin daitezkeela adberbio moduan erabili.

- (59) a. *Jon eats many b. *Jon eats few c. *Jon eats some

9.1.2. Zenbatzaile komunztaduragabeak ez dira beti foku posizioan agertzen

Euskarako zenbatzaile komunztaduragabeek ez dute zertan beti foku posizioan agertu beharrik. Euskaraz, aditz aurreko posizioa da foku posizioa; honek gainera aldaketa dakar hitz-hurrenkeran SOV-tik SVO-ra (ikus beste askoren artean Altube

1929, De Rijk, 1978; Eguzkitza 1986, Ortiz de Urbina 1983, 1999; baina baita Hidalgo 1995 ere, ikuspegi kontrajarri baterako):

- (60) a. * [JULENEK]_{fok} txirrindua hautsi du.
 b. Txirrindua [JULENEK]_{fok} hautsi du.
 c. [JULENEK]_{fok} hautsi du txirrindua.

Hau ez da nahita ez zenbatzaile ahul komunztaduragabeen agertu beharreko tokiak:

- (61) a. Hainbat ikaslek arazoak izango ditu aurtan
 b. Zenbait artistak ez daki zer egin bere diruarekin
 c. Ikasle asko berandu etorri da gaur

Adibide hauetan guztietan, zenbatzailea ez da aditz aurrean agertzen eta esaldia erabat gramatikala da. Foku posizioan agertzea baitezpadakoa denean, arrazoiak beselakoak dira (ikus Etxepare 2003a):

- (62) a. Ikasle gutxi etorri da berandu gaur
 b. * Ikasle gutxi berandu etorri da gaur

9.1.3. “Fokuak birmoldaturiko irakurketa” ez da komunztaduragabeen propietate hutsa

Herburger-en analisia erabiliz gero argitu nahi ditugun datuen berri emateko gutxienez arazo bat sortzen zaigu (ikus 10. atalaren bukaeran *oharra 1* non beste arazo bat aurkezten den). Izan ere, irakurketa hau ez da komunztaduragabetasunak ematen digun zerbait (i.e. ez da komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulen propietate bereizle bat) eta zenbatzaile ahul komunztaduradunak “fokuak birmoldaturiko irakurketa” hau lortzeko arazorik ez dute. Horretarako, izena (edo izenarekin agertzen den adjektibo bat) foku posizioan agertzearekin nahikoa da. (63a) eta (64a)-ren fokuak birmoldaturiko irakurketak (63b-64b) adibideetan eskaintzen direnak lirateke.

- (63) a. SUKALDARI_{fok} gutxi egin dute eskaria
 b. Eskaria egin dutenetatik gutxi dira sukaldariak
 (64) a. Sukaldari EUSKALDUN_{fok} gutxi egin dute eskaria
 b. Eskaria egin dutenetatik sukaldari gutxi dira sukaldari euskaldunak

Zenbatzaile komunztaduradunak irakurketa hau lortzeko gai badira, hauen eta komunztaduragabeen arteko desberdintasunak nondik datozen azaltzeko ahalmena galtzen dugu. Erantzun gabeko galderen artean hau legoke: zerk bultzatzen ditu zenbatzaile komunztaduragabeek aditzarekiko erakusten dituzten murriztapenak (i.e. predikatu kolektiboekin, predikatu kategorikoekin eta behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten predikatuekin ezin agertua)?

Aipatu berri ditugun propietate hauek ikusita haxe da ondoriozta genezakeena: komunztadura eza ez da fokuak birmoldaturiko irakurketen erantzule.

Hurrengo ataletan zenbatzaile ahul komunztaduragabeek aditzarekiko erakusten dituzten murriztapenak zeren ondorio diren azaltzen saiatuko gara. Horren aurretik halere, goazen beste hizkuntzetan antzeko propietateak erakusten dituen egiturarik baote den ikustera.

10. ...eta beste hizkuntzetan zer?

Ez dugu aurkitu (momentuz) beste hizkuntzarik non komunztadura ezak (zenbatzaile ahulekin) euskarari bezalako efektuak bultzatzen dituen. Hala ere, badira euskaraz zenbatzaile komunztaduragabeek aditzaren gainean bultzatzen dituzten efektu berdinak beste modu batean lortzen dituzten hizkuntzak.

Japonieraz adibidez neurri sintagma moduan ezagutzen direnak¹³ bi modutara erabili daitezke. Neurria (edo kardinaltasuna) adierazten duen hitza izenaren aldamenean edo izenarengandik aldendua agertu daiteke: (65a) eta (66a) adibideetan neurri sintagma eta izena bata bestearen aldamenean agertzen dira, eta hauek *banatu-gabeko neurri sintagma* (non-split Measure Phrase) deitzen dira. (65b) eta (66b)-n egitura konplexuago bat dugu non neurri sintagma ez den izenaren aldamenean agertzen, eta hauek *banatutako neurri sintagma* (split Measure Phrase) dute izena.

Japoniera:

- (65) a. [*Gakusei san-nin*]-ga ie-ni kaet-ta
[ikasle hiru-CL]-nom etxe-ra joan-irag.
'Hiru ikasle etxera joan ziren'
- b. *Gakusei*-ga ie-ni *san-nin* kaet-ta
ikasle-nom etxe-ra hiru-CL joan-irag.
- (66) a. [*Mizu san-rittoru*]-ga tukue-nouede kobore-ta
[ur hiru-litro]-nom mahai-ines isuri-irag.
'Hiru litro ur mahaia gainera isuri ziren'
- b. *Mizu*-ga tukue-nouede *san-rittoru* kobore-ta
ur-nom mahai-ines hiru-litro isuri-irag.

Badaude desberdintasun batzuk (65-66)-ko bi egituren (banatu-gabeko eta banatutako neurri sintagmen) artean, izan ere, banatu gabeak edozein aditz sintagmekin agertzeko gai diren bitartean, banatuek badituzte murriztapen batzuk:¹⁴

(i) Banatutako neurri sintagmak ezin daitezke agertu behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin:

- (67) a. [*Gakusei san-nin*]-ga kinoo Peter-o korosi-ta
[ikasle hiru-CL]-nom atzo Peter-akus hil-irag
'Hiru ikaslek Peter hil zuten atzo'
- b. ?? *Gakusei*-ga kinoo *san-nin* Peter-o korosi-ta
ikasle-nom atzo hiru-CL Peter-akus hil-irag.
- (68) a. [*Gakusei san-nin*]-ga kinoo Peter-o tatai-ta
[ikasle hiru-CL]-nom atzo Peter-akus jo-irag
'Hiru ikaslek Peter jo zuten atzo'

¹³ Hauen artean numeralak (*bi, hiru*, e.a.), neurri bat adierazten duten elementuak (*bi litro, zazpi kilo*, e.a.) eta zenbatzaile ahulak (*asko, gutxi, hainbat*, e.a.) sartu behar dira.

¹⁴ Murriztapen hauek ez dira banatutako neurri sintagma izatearen eta izenaren ondoan ez agertzearen ondorio soila. Izan ere, ohar zaitezte banatutako neurri sintagmek ere klasifikatzaile (glosetan CL bezala adierazia) deituarekin agertzen direla eta klasifikatzaileak izenarekiko harreman zuzena adierazten duela honen masa edo zenbakarri izaera erakutsiz.

- b. *Gakusei-ga* kinoo *san-nin* Peter-o tatai-ta
ikasle-nom atzo hiru-CL Peter-akus jo-irag.
- (ii) Banatutako neurri sintagmak ezin agertu daitezke predikatu kategorikoekin konbinatuta, predikatu thetikoekin konbinatzeko arazorik ez duten bitartean:
- (69) a. Uti-no doobutuen-de-wa *kaba-ga* mada *san-too* genki-dearu.
gure zoo-ines-top hipopotamo-nom oraindik hiru-CL osasuntsu
'Gure zooan, hiru hopopotamo osasuntsu daude oraindik'
- b. * Uti-no doobutuen-de-wa *kaba-ga* zannentakotoni *san-too* osu-dearu.
gure zoo-ines-top hipo-nom zoritxarrez hiru-CL ar
'Gure zooan, zoritxarrez, hiru hipopotamo arrak dira'
- (70) a. Uti-no doobutuen-de-wa [kaba san-too]-ga mada genki-dearu.
gure zoo-ines-top [hipo hiru-CL]-nom oraindik osasuntsu
- b. Uti-no doobutuen-de-wa [kaba san-too]-ga zannentakotoni osu-dearu.
gure zoo-ines-top [hipo three-CL]-nom zoritxarrez ar
- (iii) Banatutako neurri sintagmek irakurketa kolektiborik ez dute onartzen eta irakurketa distributiboak bultzatzen dituzte:
- (71) a. [Otokonoko san-nin]-ga kinoo isu-o tukut-ta
[mutil hiru-CL]-nom atzo aulki-akus egin-irag
'Hiru mutilek aulki bat/aulkiak egin zuten/zituzten atzo'
√ kolektiboa
√ distributiboa
- b. *Otokonoko-ga* kinoo *san-nin* isu-o tukut-ta
mutil-nom atzo hiru-CL aulki-akus egin-irag
* kolektiboa
√ distributiboa
- (72) a. [Tomodati huta-ri]-ga kyonen kekkonsi-ta
[lagun bi-CL]-nom iaz ezkondu-irag
'Bi lagun iaz ezkondu ziren'
√ kolektiboa = bikote bakar bat
√ distributiboa = bi bikote
- b. *Tomodati-ga* kyonen *huta-ri* kekkonsi-ta
lagun-nom iaz bi-CL ezkondu-irag
* kolektiboa = bikote bakar bat
√ distributiboa = bi bikote

Japonieran ikusi ditugun banatu gabeko eta banatutako neurri sintagmak beste hizkuntza batzuetan ere aurkitzen ditugu, hala nola, alemanez, grekeraz edo katalanez.

Alemaneko banatutako neurri sintagma hauek *banatutako topikalizazio* (split topicalization) deituak ere izan dira. Izan ere, kasu hauetan, izena topiko posizioa mugitzen dela asumitu izan da (topiko kontrastibo deituan bihurtuz) zenbatzaile ahula foku posizioan geldituko litzatekeen bitartean (ikus Krifka 1998, Nakanishi 2004, 2007). Japonierako kasuentzat ere antzeko zerbait proposatu izan da, halere, kasu horietan, topikoak ez du zertan kontrastiboa izan behar (honetan ez datoz denak bat, ikus Takimi 2001).

Alemana:

- (73) a. [Drei Studenten] haben gestern getanzt.
[hiru ikasle.pl] have atzo dantza egin.irag
'Hiru ikaslek dantza egin zuten atzo'
b. *Studenten* haben gestern *drei* getanzt.
ikasle.pl have atzo hiru dantza egin.irag
- (74) a. [Viele Bücher] hat er viele gekauft
asko liburu.pl has bera asko erosi.irag
'Berak liburu asko erosi zituen'
b. *Bücher* hat er *viele* gekauft
liburu.pl has bera asko erosi.irag
- (i) ezin agertu daitezke behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin
- (75) a. [Drei Studenten] haben Peter geschlagen.
[hiru ikasle.pl] have Peter jo.irag
'Hiru ikaslek Peter jo zuten'
b. *Studenten* haben Peter *drei* geschlagen.
ikasle.pl have Peter hiru jo.irag
- (76) a. [Drei Studenten] haben Peter umgebracht
[hiru ikasle.pl] have Peter hil.irag
'Hiru ikaslek Peter hil zuten'
b. ?? *Studenten* haben Peter *drei* umgebracht.
ikasle.pl have Peter hiru hil.irag
- (ii) ezin agertu daitezke predikatu kategorikoekin konbinatuta
- (77) a. *Wildschweine* sind *viele* verfügbar.
basurde.pl izan asko erabilgarri
'Basurdez ari garela, asko daude erabilgarri'
b. * *Wildschweine* sind *viele* intelligent.
basurde.pl izan asko azkar
'Basurdez ari garela, asko dira azkarrak' (Diesing 1992: 40)
- (iii) irakurketa kolektiborik ez dute onartzen
- (78) a. [Drei Jungen] haben ein Modellboot gebaut.
[hiru mutil.pl] have bat untzi eraiki
'Hiru mutilek untzi bat eraiki dute'
√ kolektiboa
√ distributiboa
b. *Jungen* haben *drei* ein Modellboot gebaut.
mutil.pl have hiru bat untzi eraiki
* kolektiboa
√ distributiboa

Grekera:¹⁵

- (79) a. [*Tris fitites*] htipisan ti mitera tu Petru.
[hiru ikasle.pl] jo.3pl D ama D Peter.gen
'Hiru ikaslek Peteren ama jo zuten.'
- b. *Fitites* htipisan *tris* ti mitera tu Petru.
ikasle.pl jo.3pl hiru D ama D Peter.gen
- (80) a. [*Tris fitites*] skotosan ti mitera tu Petru.
[hiru ikasle.pl] hil.3pl D ama D Peter.gen
'Hiru ikaslek Peteren ama hil zuten.'
- b. ?? *Fitites* skotosan *tris* ti mitera tu Petru.
ikasle.pl hil.3pl hiru D ama D Peter.gen

Katalana:

- (81) a. [*Tres estudiants*] han colpejat el Pere.
[hiru ikasle.pl] have jo D Pere
'Hiru ikaslek Pere jo zuten.'
- b. *D'estudiants*, han colpejat el Pere *tres*.
part-ikasle.pl have jo D Pere hiru
- (82) a. [*Tres estudiants*] han matat el Pere.
[hiru ikasle.pl] have hil D Pere
'Hiru ikaslek Pere hil zuten'
- b. ?? *D'estudiants*, han matat el Pere *tres*.
part-ikasle.pl have hil D Pere hiru

Hurrengo atalean gure datuen berri ematera pasa aurretik, bi ohar egin nahi genituzke:


Oharra 1: Euskararen komunztaduragabeko zenbatzaile ahulak eta alemaneko banatutako topikalizazioak (baita akaso japoniera, grekera eta katalanekoak) kasu berdinak baldin badira; ondoriozta genezake euskarako tratatzen ari garen datuak ezingo lirakeela Herburger-en analisiaren bitartez azaldu. Herburger-en analisisan fokalizatua agertzen den elementuak izena edo izenarekin agertzen den adjektiboa behar du izan (i) adibidean erakusten den bezala, eta ez zenbatzaile ahula, euskarako kasuetan gertatuko litzatekeenaren moduan, ikus (ii).

- (i) Few INCOMPETENT_{fok} cooks applied (=51b)
(ii) Ikasle ASKO etorri da gaur

Oharra 2: Banatutako neurri sintagmak (eta banatutako topikalizazioek) Krifka-k (1990) tratatzen dituen *gertakarien gaineko irakurketak* (*event-related readings*) deituekin antza dutela pentsa genezake. Krifka ohartzen da (iii) bezalako esaldiek 4.000 itsasontziren existentzia aurreuposatzen duen irakurketaz gain baduela bigarren irakurketa bat non 4.000-k gertakarien kantitateari egiten dion erreferentzia (i.e. gerta liteke 4000 itsasontzi desberdin baino gutxiago pasa izana portutik).

¹⁵ Ez ditugu hemen grekera eta katalaneko banatutako neurri sintagmek aditzarekiko erakusten dituzten murriztapen guztien adibideak emango. Ikus horretarako Nakanishi (2004).

Izen batek parte-osotasun egitura bat duela adierazteko moduetako bat *saretxo* (lattice) egitura bitartez da (Link 1983). Saretxo bat partzialki ordenaturiko multzo bat da; adibidez (86) adibidean x , y eta z indibiduo atomikoak izango dira, \cup indibiduo batuketa operatzaile bat da, eta marrek *-ren parte* antolaketa bat adierazten dute \leq .



Izen baten hedadura semantikoa indibiduen saretxo bat baldin bada, izenaren denotazioaren kide batzuk beste kide batzuen azpi-atal izango dira. Adibidez, x , y eta z *ardoa* baldin badira,¹⁶ hauen batuketek ere $\{x \cup y, x \cup z, y \cup z, x \cup y \cup z\}$ *ardoa* izaten jarraituko dute. Izenaren denotazioa $\{x, y, z, x \cup y, x \cup z, y \cup z, x \cup y \cup z\}$ baldin bada, bere kideak *parte* erlazio batean antolatu daitezke (e.g. $x \cup y$ denotazioko beste kide baten $x \cup y \cup z$ azpi-parte/atal izango da).

Ohar gaitzke, izenaren gaineko murriztapen hauek komunztatzen zein komunztatzen ez diren zenbatzaileei aplikatzen zaizkiela, izan ere biek portaera berdina erakusten dute kasu hauetan. Beraz, ez ditu murriztapen honek zenbatzaile mota hauen arteko desberdintasunik erakusten.

11.2. Aditzaren gaineko monotonizitatea

Lehenago ikusi dugu (8. atala eta aurrekoak) komunztatzen diren eta komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulen artean badirela desberdintasun batzuk aditz sintagma desberdinekin konbinatzeko garaian. Komunztatzen ez diren zenbatzaileek murriztapen batzuk erakusten dituzte:

- (87) a. Gertakari bakarra denotatzen duten aditz sintagmekin
- (i) Ume askok hautsi dute hondar-gaztelua
 - (ii) * Ume askok hautsi du hondar-gaztelua
- b. Predikatu kategorikoeekin
- (i) Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
 - (ii) * Ikasle asko altua/azkarra/argia da
- c. cf. Ikasle askok daki biderkatze taula erabiltzen
- d. Irakurketa distributibo/kolektiboak bultzatzen dituzten predikatuekin
- (i) Lantegian, langile asko batzartu ziren
 - (ii) * Lantegian, langile asko batzartu zen


Nakanishi-ri (2007) jarraituz, aditzak ere, izenekin egin dugun bezalaxe, parte-osotasun egitura baten bitartez adierazi genitzake. Aditzen kasuan, zera asumitzen

¹⁶ Ikus Chierchia (1998), non masa izenek ere izaera atomikoa dutela erakusten den.

dugu: aditz baten denotazioak gertakari argumentu bat (e bezala adierazia) daukala barnean (Davidson 1967) eta neurri funtzioa aditz sintagma horren hedaduraren gertakari bati aplikatzen zaiola. Ondorioz, izenetan bezala, μ neurri funtzioak monotonikoa izan beharko du aditz sintagmak ematen digun parte-osotasun egiturarekiko.

- (88) μ neurketa funtzio bat monotonikoa da E eremuari dagokionez baldin:
- (i) E eremuan bi gertakari badaude e_1 eta e_2 non $e_1 e_2$ -ren azpi-atal bat den, eta
 - (ii) $\mu(e_1) < \mu(e_2)$

Gauzak horrela, aditz sintagma baten denotazioa partzialki ordenaturiko gertakarien saretxo bat izango da, (89)-n adierazten den bezala: e_1 , e_2 eta e_3 gertakari singularrak izango dira, \cup_E gertakari batuketa operatzaile bat da, eta marrek *-ren parte* antolaketa bat adierazten dute \leq .



Izenekin gertatzen den bezalaxe (hauen kasuan indibiduen saretxo bat izango dugu), aditz sintagma baten hedadura semantikoa gertakari saretxo bat baldin bada, aditzaren denotazioaren kide batzuk beste kide batzuen azpi-atal izateko aukera izango dute. Adibidez, e_1 , e_2 eta e_3 gertakariak baldin badira, hauen batuketek ere $\{e_1 \cup_E e_2, e_1 \cup_E e_3, e_2 \cup_E e_3, e_1 \cup_E e_2 \cup_E e_3\}$ gertakari izaten jarraituko dute. Aditz baten denotazioa $\{e_1, e_2, e_3, e_1 \cup_E e_2, e_1 \cup_E e_3, e_2 \cup_E e_3, e_1 \cup_E e_2 \cup_E e_3\}$ baldin bada, bere kideak *-ren parte* erlazio batean antolatu daitezke (e.g. $e_1 \cup_E e_2$ denotazioko beste kide baten $e_1 \cup_E e_2 \cup_E e_3$ azpi-parte izango da).

Aditzek (89) bezalako gertakari saretxo bat denotatzen dutela onartuz, monotonizitatearen propietatea *astoa jo* (edo *manifestaria kolpatu*) eta *astoa hil* (edo *hondar-gaztelua hautsi*) bezalako aditzen eta hauek zenbatzaile batzuekin konbinatzeko edo ez konbinatzeko duten aukeraren berri emateko gai da. *Astoa jo* aditz ateliko bat izango da (deskribatzen duen gertakariak bukaera punturik ez duen predikatu bat) eta ondorioz gertakari saretxo bat denotatzen duela esan genezake. Izan ere, *astoa jo* aditz sintagmak bata bestearen azpi-atal diren bi gertakari denotatu ditzake. Gertakari saretxo bat denotatzeko gai bada aditz ateliko bat, aplikatuko zaion neurri sintagma (kasu honetan μ : kardinalitatea litzateke) monotonikoa izango da parte-osotasun egiturarekiko. *Astoa hil* bezalako aditz sintagma bat aldiz predikatu teliko bat izango da (deskribatzen duen gertakariak bukaera puntua duen predikatu bat) eta *astoa hil* aditzak ez du parte-osotasun xume bat baino denotatuko; izan ere, *astoa hil* gisako gertakari batek ez du bere azpi-gertakari izango den beste *astoa hil* gisako gertakariarik izango. Honen ondorio da, μ : kardinalitatea bezalako neurri funtzio bat *astoa jo* bezalako aditz batekiko monotonikoa izatea; *astoa hil* bezalako aditz batekiko ez monotonikoa izango den bitartean.

Predikatu kategorikoekiko zenbatzaile komunztaduragabeek duten murriztapena ere azal daiteke monotonizitatearen propietatearekin. Kratzer-ek (1995) predikatu kategorikoen eta thetikoen arteko desberdintasuna gertakari argumentu bat edukitzean edo ez edukitzean zegoela argudiatu zuen: thetikoez gertakari argumentua dute, ez ordea kategorikoez. Predikatu kategorikoez gertakari argumenturik ez badute, aditz sintagma horrek ez du aukerarik gertakarien parte-osotasun erlazio bat sortzeko, eta ondorioz monotonikoki aplikatuko litzaiokeen neurri sintagmarik ez da egongo.

Azkenik, zenbatzaile komunztaduragabeak irakurketa distributiboak bul-tzatzen dituztela ikusi dugu. *Mutilek aulki bat egin zuten* bezalako esaldi baten irakurketa distributiboaren pean pentsa genezake aulkia-bat-egin gertakari asko leudekeela eta gertakari bakoitzak mutil desberdin bat hartzen duela egile moduan. Hemendik jarraitzen dena da irakurketa distributiboan aditzak parte-osotasun egitura bat edukiko duela. Aldiz, irakurketa kolektiboan, *aulki-bat-egin* gertakari bakarra egongo da eta mutilak egile talde bakar bezala hartuko genituzke. Kasu hauek *astoa hil* eta horrelakoen parekoak dira, eta aditz hauen denotazioak ez dute neurri sintagma bat monotonikoki aplikatzeko behar duen parte-osotasun egiturarik.

Aditzaren gaineko monotonizitate murriztapen honek azaldu bi gauza azaldu ditzake beraz (i) (87)-ko murriztapenak nondik letozkeen eta (ii) zergatik komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulak parte-osotasun egitura denotatzen duten aditzekin konbina daitezkeen komunztatzen direnak aditz mota guztiekin konbinatu daitezkeen bitartean. Azken hauek (komunztaduragabeek ez bezala) ez dute aditz sintagmarekiko monotonizitate murriztapena bete beharrik.

11.3. Homomorfismoa (Nakanishi 2004, 2007)

Ikusi eta erakutsi dugu dagoeneko euskarazko zenbatzaile ahul komunztaduragabeek (berdin gertatzen da japonierako, alemaneko, grekerako eta katalaneko *banatutako neurri sintagmekin*) izenaren gaineko zenbaketa egiteaz gain aditzaren gaineko zenbaketa ere egiten dutela (ikus (46) eta (47) adibideak).

Erantzun beharreko galdera ondorengoa da: Nola azaldu daiteke zenbatzaile bat aldi berean izenei eta aditzei aplikatzea? Nakanishi-k (2007), japonierako datuen berri emateko gertakarien eta indibiduen arteko islapen mekanismo bat proposatzen du. Islatze prozesu honen bitartez, neurri funtzioa gertakarietatik proiektatzen diren indibiduoari aplikatzen zaie. Modu honetara, banatutako neurri sintagmak zeharka zenbatzen ditu gertakariak indibiduoak zenbatuaz. Mekanismo berdina aplikatuko dugu euskarazko kasuetan.

Krifka-k (1989) denborazko adberbioen (e.g. *John slept for two hours*) portaera azaltzeko, gertakarien eta denbora tarteen arteko homomorfismo funtzio bat proposatzen du. Izan ere, Krifka-ren ustez, denborazko adberbioak ezin zaizkie gertakariari zuzenean ezarri, baina bai gertakariarekin harremana duten beste entitate batzuei: denbora tarteei. Horrela, *bi orduz* bezalako adberbio batek zeharka neurtzen du lo-egite gertakaria, gertakariaren denbora iraupena neurtuz. Formalki, Krifka-k, (90)-n adierazten den bezala, E gertakarien multzotik T denbora tarteen multzora *h* homomorfismo bat badela asumitzen du, non

$h(e_1 \cup_E e_2) = h(e_1) \cup_T h(e_2)$, \cup_E eta \cup_T gertakari eta denborentzako batuketa operatzaileak direlarik. (90)-ko adibidean ikusi dezakegun bezala, h homomorfismo bat domeinuan (domain) eta barrutian (range) antzeko erlazioak mantentzen dituen funtzio bat da.

$$(90) \quad E \xrightarrow{h} T \quad \text{non } h(e_1 \cup_E e_2) = h(e_1) \cup_T h(e_2)$$

Krifka-k argudiatzen du denborentzako μ neurri funtzio bat eta E-tik T-rako h homomorfismo funtzio bat ditugunean, μ' neurri funtzio deribatu bat sortu dezakegula gertakarietzako, (91)-n adierazten den bezala.

$$(91) \quad \forall e [\mu'(e) = \mu(h(e))] \quad (\text{Krifka 1989: 97})$$


Neurri funtzio deribatu bat jatorrizko aplikazio domeinutik desberdintzen den domeinu batentzako erabiltzen den neurri funtzio bat da (e.g. denbora tar-teentzako den baina gertakarietzako erabiltzen den neurri funtzio bat). Honela, (91)-n adierazten den bezala, gertakarietzako μ' neurri funtzioa μ eta h bitartez definitu dezakegu: gertakari guztientzat, μ' funtzioak E-n neurtzen duen e gertakarien kantitatea μ funtzioak T-n neurtzen dituen $h(e)$ -ren kantitatearekin berdintzen da.

Nakanishi-k (2007) Krifka-ren analisi hau banatutako neurri sintagmetara zabal-tzen du eta guk Nakanishi-k proposatua euskarako komunztaduragabekoen portaera azaltzeko erabiliko dugu.


Nakanishi-k aditz sintagmak denotatzen dituen E-ko gertakarietatik izenak de-notatzen dituen I-ko indibiduoetara h homomorfismo bat dagoela argudiatzen du, $h(e_1 \cup_E e_2) = h(e_1) \cup_I h(e_2)$ betez. Honela beraz, komunztatzen ez diren euskarako zenbatzaile ahulen datuak ikusita badakigu indibiduoeki aplikatzen zaien neurri funtzio bat badela. Krifkari jarraituz, indibiduoentzako μ neurri funtzio bat eta E-tik I-rako h homomorfismo bat baldin baditugu, E gertakarietzako μ' neurri funtzio bat deri-batu dezakegu.

(92)-ko adibidean, komunztatzen diren zenbatzaileei lotutako μ neurri funtzio bat eremu griseko indibiduoeki aplikatzen zaie; hemen, monotonizitate murriztapena indibiduoaren saretxo bati aplikatzen zaio kantitate neurtuak bueltatuz. Aldiz, (93) adibidean, komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako μ' neurri funtzio bat eremu griseko gertakarietara aplikatzen zaie kantitate neurtuak bueltatuz. (91)-n azaldua gogoratzen badugu, (93)-eko gertakarietzako deribatutako μ' neurri funtzioa $\mu(h(e))$ -ren pareko da, eta ondorioz, (93)-eko neurketa (94)-n bezala irudika daiteke. Beste modu batetara esanda, gertakarietzako deribatutako μ' neurri funtzio bat h homomorfismoaren eta indibiduoentzako μ neurri funtzio baten konbinaketa bat da. Gertakariak indibiduoetara proiektatuz eta proiektzio horren barrutia (grisez (94)-en) neurtuz, μ -k aldi berean indibiduoak (μ neurri funtzioa $h(e)$ -tik ateratzen denari aplikatzen baitzaio) eta gertakariak (deribatutako μ' neurri funtzioa e -ri aplikatzen baitzaio) zenbatzen ditu; hau da, komunztaduragabeek gertakariak zeharka zenbatzen dituzte indibiduoak zenbatuz. Hemendik jarraitzen dena da μ -k zerbaiten gainean monotoniko izan behar badu gertakarietatik proiektatutako indibiduoaren domeinuarekiko izan behar duela.


(92) Komunztatzen diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



(93) Komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



(94) Komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



Proposamen hau onartuta, aldaera bat dago aurretik aipatu dugun aditzarekiko murriztapenez ari garenean: orain arte zenbatzaile komunztaduragabeak monotonikoak izan behar zuten aditzaren esanahiak eman zezakeen parte-osotasun egiturarekiko, hau da, gertakarietarako. Orain ordea, zenbatzaileak aditzaren domeinutik proiektatu edo eratorritako izenaren domeinuarekiko izan behar du monotonikoa.

Ikus dezagun bada, murriztapenen berri nola eman dezakegun. Zenbatzaile komunztaduragabeek behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin ezin konbinatu izatea berdin azaldu daiteke. Batera ezintasuna h homomorfismoaren barrutiarekiko eman behar den monotonizitatearen ondorio izango da. Zehazki, gertakarietatik h funtzioaren bitartez proiektatzen diren indibiduoek parte-osotasun egitura bat eduki behar dute, gero egitura honi neurri sintagma (zenbatzailea) monotonikoki aplikatuko zaiolarik. Behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin, h -ren domeinuak (i.e. aditz sintagmaren denotazioak) elementu bakar bat izango duenez, h -ren barrutiak ere elementu bakar bat izango du h egitura mantentzen duen funtzio bat baita. Horrela, zenbatzailea ez da h -ren barrutiarekiko monotonikoa izango.

Komunztaduragabeak predikatu kategorikoekin ez agertzearen murriztapena aurretik azalduaren bidetik doa. Predikatu klase hauek gertakari argumenturik ez badute, gertakariak domeinu bezala hartuko dituen h funtziorik ere ez da egongo.

Azkenik, badakigu komunztaduragabeek irakurketa distributiboak bultzatzen dituztela, irakurketa kolektiboak onartzen ez dituzten bitartean.¹⁷


(95) Mutil askok aulki bat egin zuen

* kolektiboa

√ distributiboa

Suposa dezagun *aulki bat egin* bezalako aditz bat pluralizatu eta aulki-bat-egin gertakariaren saretxo bat sortzen duela, eta gertakariaren saretxo honetatik mutilez (indibiduoek) osatutako beste saretxo batetara h homomorfismo bat dagoela.

¹⁷ Ikus 5.2, 5.3 eta 5.4 atalak.



Honela μ : kardinalitatea h -ren barrutiari aplikatzen zaio, hau da, $x, y, z, x \cup_1 y, x \cup_1 z, y \cup_1 z, x \cup_1 y \cup_1 z$ elementuak barruan dituen indibiduo multzo bati, (96)-ko eskuineko saretxoari. Monotonizitatea μ funtzioa saretxo honekiko monotonikoa izatea eskatzen du. h homomorfismoak gertakarien parte-osotasun egitura mantentzen duenez, monotonizitatea bete egiten da. (95) bezalako esaldi batean zenbatzaile komuntaduragabeak gertakarien kardinaltasuna *asko* dela zehazten du (demagun $e_1 \cup_E e_2 \cup_E e_3$ gertakari *asko* denotatzen dituela), eta hau $x \cup_1 y \cup_1 z$ indibiduoetara proiektatzen da. $x \cup_1 y \cup_1 z$ dituen indibiduo bat x, y, z indibiduo ez osatua dago, eta hauetako bakoitza aulki-bat-egin e_1, e_2, e_3 gertakari atomikoen egile bat izango da; hauxe da hain zuzen ere irakurketa distributiboa ematen diguna hain zuzen ere.

Irakurketa kolektiboa ez onartzearen arazoia aurretik azalduaren bidetik dator baita ere: irakurketa kolektiboan aulki-bat-egin e gertakari bakarra egongo da eta multilak ere egile talde bakar bezala hartuko genituzke. Neurri funtzioa (i.e. zenbatzaile komuntaduragabea) h -ren barrutiari aplikatuko zaio eta barruti horretan elementu bakar bat besterik ez da egongo. Elementu bakar batek parte-osotasun egiturarik ez duenez, neurri funtzioa ezingo zaio monotonikoki aplikatu eta honek irakurketa kolektiboaren ez-gramatikaltasuna agerian uzten du.



Laburtuz: Nakanishi-k japonierarako proposatzen duen mekanismoa euskarara aplikatu daitekeela ikusi ahal izan dugu. Mekanismo honen arabera, neurri funtzioa gertakarietatik datorren homomorfismoaren barrutiari aplikatzen zaio, hau da, gertakarietatik eratorritako indibiduo ei. Neurri funtzioa gainera, monotonikoa izan behar da gertakarietatik eratorritako indibiduo hauekiko. Análisi hau komuntaduragabeek izenarekiko zein aditzarekiko erakusten dituzten murriztapenen motibazioa nondik datorren azaltzeko gai da.

11.4. Egoeren gaineko monotonizitatea

Zenbatzaile komuntaduragabeek zeren gainean kuantifikatzen duten begiratzen aritu garenean zenbatzaile hauek murriztapen batzuk dituztela ikusi ahal izan dugu. Hauen artean bat predikatu kategorikoekin ezin konbinatu izana zen.

- (98) a. Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
 b. * Ikasle asko altua/azkarra/argia da

Egoera bati buruzko predikatuekin ez dago arazorik, eta komunztaduradun zein komunztaduragabeak azaldu daitezke:

- (99) a. Ikasle asko gaisorik daude egunotan
 b. Ikasle asko gaisorik dago egunotan

Hala ere, arazoa ez da zuzen indibiduo-mailako predikatuekin, ondorengo adibideen gramatikaltasunak erakusten duen bezala, i.e. *jakin* eta *gorroto izan* indibiduo mailako predikatutzat hartzen dira:


- (100) a. Ikasle askok *daki* biderkatze taula erabiltzen
 b. Ume askok *gorroto du* txirrinduan ibiltzea

Badakigu zenbatzaile komunztaduragabeek izenaren domeinuaren eta aditzaren domeinuaren gainean kuantifikatzen dutela eta horretarako bataren eta bestearen saretxoak h homomorfismo bidez erlazionatu behar direla (eta monotonikoak izan behar dutela). Aurretik ikusi dugu baita ere Kratzer-ek (1995) predikatu kategorikoen eta thetikoen arteko desberdintasuna gertakari argumentu bat edukitzean edo ez edukitzean zegoela argudiatu zuela: thetikoeak gertakari argumentua dute, ez ordea kategorikoeak. Predikatu kategorikoeak (eta indibiduo mailakoeak) gertakari argumenturik ez badute, aditz sintagma horrek ez du aukerarik gertakari parte-osotasun erlazio bat sortzeko, eta ondorioz monotonikoki aplikatuko litzaiokeen neurri sintagmarik ez da egongo. Gauzak horrela, ez dago modurik h homomorfismo bidez indibiduen saretxoa gertakariaren saretxotik proiektatzeko.

Hemendik jarraitzen dena da, zenbatzaile komunztaduragabe bat indibiduo mailako predikatu batekin konbinatzen den (100)-ko esaldiak ez-gramatikalak izan beharko luketela. Ikus dezakezuen bezala, aurreikuspena ez da betetzen eta esaldiak gramatikalak dira. Gramatikaltasun honek pentsarazten diguna zera da: predikatu hauek gertakari argumenturik eta ondorioz gertakari saretxorik ez duten arren, badutela h bidez indibiduen saretxoa beste saretxoren batetik proiektatzeko aukerarik.


Baina, zein da homomorfismoa baimentzen duen saretxo horren izaera? Badirudi, euskarazko indibiduo mailako predikatu batzuk (ez predikatu kategorikoeak) *egoera* (state) argumentu bat dutela eta argumentu horrek baimentzen diola aditz sintagmari parte-osotasun egitura bat edukitzean (101)-n adierazten den bezalaxe. Hau da, *jakite* egoera unitate minimoak egon daitezkeen bitartean (eta beraien batuketak minimoak ez diren unitate haundiagoak sortu $s_1 \cup_S s_2$, $s_1 \cup_S s_3$, $s_2 \cup_S s_3$, $s_1 \cup_S s_2 \cup_S s_3$), ez du ematen posible denik *azkarra izate* egoera (ezta gertakari) unitate minimoak esistitzea.¹⁸

¹⁸ Hau Nakanishi-k (2007) proposatzen duenaren aurka doa (ikus Nakanishi (2007: 13. oinoharra), izan ere, berak ez du *gertakari* saretxorik ez den beste saretxorik onartzen indibiduo mailako predikatuentzat. Badirudi, euskaraz *egoera* saretxo baten beharra dugula datuen berri emateko.



S egoera saretxo bat denotatzen baldin badute aditz mota hauek, egoera saretxo honek baimenduko digu aditz sintagma denotatzen duen *egoera* saretxoaren eta izen sintagma denotatzen duen indibiduo saretxoaren artean homomorfismo erlazio bat sortzea eta indibiduo saretxoa egoera saretxotik proiektatzea. Azken finean, egoeretatik indibiduoetara proiektatuz eta proiektzio horren barrutia (grisez (103)-en) neurtuz, zenbatzaileak aldi berean indibiduoak (μ neurri funtzioa $h(e)$ -tik ateratzen denari aplikatzen baitzaio) eta egoerak (deribatutako μ' neurri funtzioa s -ri aplikatzen baitzaio, ikus 104) zenbatzen ditu; hau da, komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulek egoerak (gertakariekin gertatzen zen moduan) zeharka zenbatzen ditu indibiduoak zenbatuz. Hemendik jarraitzen dena da zenbatzaileak monotonikoa izan behar duela egoeretatik proiektatutako indibiduen domeinuarekiko.

(102) Komunztatzen ez diren zenbatzailei lotutako neurri sintagma



(103) Komunztatzen ez diren zenbatzailei lotutako neurri sintagma



12. Laburpena

Lan honetan euskarako zenbatzaile komunztaduragabeen propietateak eta portaera erakutsi dugu: izenaz gain aditzaren domeinuaren gaineko kuantifikazioa egiten dutela (bietan murriztapenak erakutsiz) argi utzi dugularik. Hizkuntza desberdinetako datuak ere begiratu ditugu eta euskarako zenbatzaile komunztaduragabeen portaera eta propietate berdinak erakusten dituzten egiturak badirela ikusi ahal izan dugu. Datuen berri emateko homomorfismoa oinarritzen den Nakanishi-ren (2004, 2007) analisia hartu dugu oinarritzat euskarako datuetara aplikatuz.

Bibliografia

Altube, S., 1929, *Erderismos*, Bermeo.

Arregi, K., 2003, *Focus in Basque movements*, Doktoradutza tesia, MIT.

Barwise, J. & R. Cooper, 1981, "Generalized Quantifiers and natural language", *Linguistics & Philosophy* 4, 159-219.

- Chierchia, G., 1998, "Plurality of Mass Nouns and the Notion of 'Semantic Parameter'", in Rothstein, S. (arg.), *Events and Grammar*, Kluwer, Dordrecht, 53-103.
- Chomsky, N., 2000, "Minimalist inquiries: The framework", in R. Martin et al. (arg.), *Step by Step: Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*, MIT Press, Cambridge.
- Coyos, B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*, LHarmattan, Paris.
- Davidson, D., 1967, "The logical form of action sentences", in N. Rescher (arg.), *The logic of decision and action*, University of Pittsburgh Press, Pittsburgh, 81-95.
- De Rijk, R. P. G., 1978, "Topic fronting, focus positioning and the nature of the verb phrase in Basque", in F. Jansen (arg.), *Studies in Fronting*, De Reidel Press, Lisse, 81-112. [De Rijk (1998)an berrargitaratua]
- , 1998, *De Lingua Vasconum. Selected Writings*, Supplements of ASJU, University of the Basque Country, Bilbao.
- Eguzkitza, A., 1986, *Topics in the syntax of Basque and Romance*, Doktoradutza tesia, UCLA.
- Ettxeberria, U., 2005, *Quantification and domain restriction in Basque*, Doktoradutza tesia, UPV-EHU.
- , 2007, "On quantification in Basque and on how some languages restrict their quantificational domain overtly", in L. Matthewson (arg.), *Quantification: Universals and variation*, Elsevier Limited, Oxford, 225-275.
- Ettxepare, R., 2000, "Asko-ren zenbait alderdi", *Lapurdum* V.
- , 2003, "Negation", in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin, 387-421.
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*, Iruñea.
- Heim, I., H. Lasnik eta R. May, 1991, "Reciprocity and plurality", *LI* 22: 1, 63-101.
- Herburger, E., 1997, "Focus and weak noun phrases", *NLS* 5, 53-78.
- , 2000, *What counts: Focus and quantification*, MIT Press, Cambridge.
- Hidalgo, B., 1995, *Hitzen ordena euskaraz*, Doktoradutza tesia, UPV-EHU.
- Hornstein, N. eta J. Uriagereka, 2002, "Labels and projections: a note on the syntax of quantifiers", in J. Uriagereka (arg.), *Derivations*, Routledge, London.
- Irigoiien, A., 1985, "Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez", *Euskera* XXX, 129-139.
- Koslicki, K., 1999, "The semantics of mass predicates", *Noûs* 33: 1, 46-91.
- Kratzer, A., 1995, "Stage-level predicates and individual-level predicates", in G. Carlson eta F. J. Pelletier (arg.), *The generic book*, The University of Chicago Press, Chicago, 125-175.
- Krifka, M., 1989, "Nominal reference, temporal constitution, and quantification in event semantics", in R. Bartsch, J. van Benthem eta P. van Emde Boas (arg.), *Semantics and contextual expression*, Foris, Dordrecht, 75-115.
- , 1990, "Four thousands ships passed through the lock: Object-induced measure functions on events", *Linguistics & Philosophy* 13, 487-520.
The focalized element in (46) is an adjunct. Since negative islands prevent adjunct movement, this accounts for the impossibility of (46a). Under Ortiz de Urbina's premises, this also account for the impossibility of (46b) —this is so because (46a) is an intermediate step in the derivation of (46b). In contrast with (46), the focalized element in (47) is an argument. As the grammaticality of (47a) shows, the contrastive focus can cross a negative island when it is an argument. The prediction is that its rightmost counterpart will also be possible, and as the grammaticality of (47b) shows this is indeed the case.

ii. The second argument that Ortiz de Urbina presents in defense of his hypothesis is that the rightmost focus position hosts elements which are independently known to undergo obligatory focus movement to a preverbal position. One such case are quantified NPs headed by *gutxi* "few", which cannot remain in their base position and require focus movement (see Etxepare 2003):

- (48) a. [Neutral word order: * S_{GUTXI} O V]
 **Ikasle gutxik liburu hori irakurri dute*
 student few-erg book that read have
 "Few students have read that book"
- b. [Focalization: ✓ S_{GUTXI} V O]
IKASLE GUTXIK irakurri dute liburu hori
 Student few-erg read have book that
 "Few students have read that book"

- (51) a. I don't believe that John stole anything
 b. *I don't believe that everybody stole anything
- (52) a. Ez dut uste Jonek ezer irakurri duenik
 Neg Aux believe Jon-Erg anything read Aux-Comp
 "I don't think John has read anything"
 b. *Ez dut uste guztiek ezer irakurri dutenik
 Neg Aux believe all of them anything read Aux-Comp
 "I don't believe that all of them have read anything"

Keeping all these facts in mind, let us now analyze how they interact in the configurations of free and bound focus under analysis.

Consider the example in (53a) below, with a free focus construal of the postverbal subject *GUZTIEK* ('all of them'). Following the analysis we have put forth above for the free reading of focus in Spanish, we propose the derivation in (53b) for this example (see also Ortiz de Urbina's analysis in Section 4.1. above).

- (53) a. *Ez dute ezer erosi GUZTIEK eta ez bakar batzuk*
 Neg have anything buy all of them and not few some
 "It's all of them who haven't bought anything, and not just some of them"
 b. *Free reading of focus in Basque*
 $[[_{\text{TopP}} [_{\text{NegP}} \text{Neg}_{\text{EZ}} \text{V}_{\text{DUTE}} \text{t}_{\text{GUZTIEK}} \text{NPI}_{\text{EZER}} \text{erosi}] [_{\text{FocP1}} \text{guztiek} [\text{t}_{\text{NegP}}]]]]$

The derivation in (53b) directly explains why the universal quantifier *guztiek* takes wide scope over Neg (see discussion in Section 3.1. above). Further, since *guztiek* is out of the scope of negation at LF, we can also explain why this quantifier does not interfere in the licensing of the NPI by Neg in (53a).²⁰

Consider now the paradigm in (54-55) below. The ungrammaticality of these examples shows that the bound reading of focus is not possible in either (54) or (55a). Why is this so? On the basis of what we have seen above regarding the intervention effects of universal quantifiers in negative polarity item licensing, we argue that (54) is out because the universal quantifier prevents the licensing of the NPI *ezer*.

- (54) *Ez dute guztiek ezer erosi (bakar batzuk baizik)
 Neg have all of them anything bought (few ones only)
 (All of them have not bought anything, but only some of them)

²⁰ Notice that, in line with our analysis, focalization of the sentence initial universal quantifier in (i) below —with the quantifier (preceding and) taking scope over matrix negation—, makes licensing of the NPI *ezer* ('anything') in this example possible. This is so because the universal quantifier *guztiek* ('all of them') will remain in Spec/FocP1 at LF and consequently will not intervene between Neg and the NPI *ezer* at that level of representation, which we assume is the one where NPI licensing takes place (Uribe-Etxebarria 1994, 2004a). Crucially, if the sentence initial quantifier is not focalized, as in (ii), the sentence becomes ungrammatical. This follows because, as we have discussed above in the text, the universal quantifier would be interpreted under the scope of Negation at LF and would, therefore, interfere with the licensing of *ezer*. As (iii) shows, other operations that ensure that the sentence initial quantifier does not reconstruct at LF, as for instance topicalization, also make licensing of the NPI *ezer* possible.

(i) *GUZTIEK_{FOC} ez dute ezer erosi*
 all of them Neg Aux anything buy
 "It's all of them that didn't buy anything"

(ii) **Guztiek ez dute ezer erosi*
 (iii) *GUZTIEK_{TOP} ez dute ezer erosi*

What about (55)? (Notice that in (55) *guztiak* does not even intervene linearly between Neg and the NPI). Since we are dealing with bound focus, let us assume for the bound focus in the Basque example (55a) the same derivation we have proposed for bound focus in Spanish (Section 3.1.). This structure is given in (55b). Why is (55a) bad? Because, as shown in (55b), it involves scrambling the NPI *ezer* over the subject *guztiak* in Spec/FocP2; however, as we discussed above in Section 3.1., this is not a licit operation because indefinites resist scrambling.

- (55) a. *Ez dute ezer guztiak erosi
 Not have-3.p.pl anything all of them bought
 b. *Bound reading of focus (Basque)*
 $[_{\text{NegP}} \text{Neg Infl} [\text{O}_{\text{NPI-EZER}} [_{\text{FocP2}} \text{S}_{\text{GUZTIEK}} [\text{t}_S \text{ t}_o \text{ V}]]]]]$

By assuming that the structure underlying bound focus is the same in Spanish and Basque, we can provide a uniform account of the ungrammaticality of the Basque example in (55) and the Spanish example in (31).

Under our analysis we can also explain why the bound reading of focus is possible in (56a) and why (56a) contrasts with (55a). The derivation we propose for (56a) is given in (56b).

- (56) a. Ez dute liburua guztiak erosi, baizik eta bakar batzuk
 Not have-3.p.pl the book all of them bought
 b. *Bound reading of focus (Basque)*
 $[_{\text{NegP}} \text{Neg Infl} [\text{O}_{\text{LIBURUA}} [_{\text{FocP2}} \text{S}_{\text{GUZTIEK}} [\text{t}_S \text{ t}_o \text{ V}]]]]]$

Since *liburua* is a definite NP, nothing prevents that this object scrambles over the subject in Spec/FocP2 in (56).

5. Conclusions

Based on the discussion of focus in Spanish and Basque, we have argued that the semantic scope of focus directly derives from its syntactic scope. The asymmetries in the interpretation of focus in negative sentences follow from differences in the syntactic structures associated to the logical form of syntactic focus. Each construal is associated to a particular syntactic configuration at LF. Further, we have shown that the derivations involved in the free and bound reading in both languages are the same. The complex set of phenomena we have analyzed cannot be easily captured under a p-movement analysis of focus, and provides strong evidence for a movement analysis of (certain types of) focalization

References

- Ambar, M., Obenauer, H-G., Pereira, I., Tapazdi, J., & Veloso R., 2000, "From Wh-questions to Wh-exclamatives: The internal structure of Wh-phrases and the left periphery. Evidence from Portuguese, French and Hungarian". Article posted at "Chomsky internet Celebration".

- , & Veloso, R., 2001, "On the nature of wh-phrases - word order and wh-in-situ. Evidence from Portuguese, French, Hungarian and Tetum", Ms. University of Lisboa.
- Arregi, K., 2003, *Focus on Basque movements*, Ph.D. Dissertation, MIT.
- Artstein, R., 2005, "Quantificational arguments in temporal adjunct clauses", *Linguistics and Philosophy* 28: 5, 541-597.
- Beghelli, P. & Stowell, T., 1997, "Distributivity and negation: The syntax of *each* and *every*", in A. Szabolcsi (ed.) *Ways of Taking Scope*, Kluwer, Dordrecht, 71-108.
- Belletti, A., 2005, "Extended doubling and the VP periphery", *Probus* 17, 1-36.
- Cinque, G., 1993, "A null theory of phrase and compound stress", *LI* 24, 239-298.
- Contreras, H., 1976, *A theory of word order with special reference to Spanish*, North Holland, Amsterdam/New York.
- Davidson, D. D., 1967, "The logical form of action sentences", in N. Rescher (ed.), *The logic of decision and action*, Pittsburgh U. P., Pittsburg, 81-95.
- Demirdache, H., & Uribe-Etxebarria, M., 2005a, "Quantified temporal PPs", talk delivered at the Linguistic Colloquium Series, Fédération "Typologie et Universaux Linguistiques", U. Paris VII, April 2005.
- , & —, 2005b, "Quantified PPs: implications for the syntax of tense and aspect", talk delivered at the Linguistic Colloquium Series, Fédération "Typologie et Universaux Linguistiques", U. Paris VII, May 2005.
- , & —, 2007, "The syntax of time arguments", *Lingua* 117, 330-366.
- Diesing, M., 1992, *Indefinites*, MIT Press, Cambridge.
- Domínguez, L., 2004, *Mapping Focus: the syntax and prosody of focus in Spanish*, Ph.D. Dissertation, Boston University.
- Elordieta, A., 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Ph.D. Dissertation, Leiden University, The Netherlands.
- Etxepare, R., 2003, "Negation", in Hualde and Ortiz de Urbina (eds.), 516-563.
- , & Ortiz de Urbina, J., 1998, "Focalization", in Hualde & Ortiz de Urbina (eds.), 459-515.
- , & Uribe-Etxebarria, M., 2000, "On the properties of Spanish wh-in situ questions", *Minimal Elements of Linguistic Variation Workshop*, Paris, 15-16 December 2000.
- , & —, 2001, "On the hidden syntax of wh-questions in Spanish", talk delivered at the XXXI *Linguistic Symposium on Romance Languages*, U. of Chicago, April 2001.
- , & —, 2005a, "In situ wh-phrases in Spanish: locality and quantification", in H. Obenauer (ed.), *L'architecture propositionnelle: La syntaxe de la périphérie gauche* Special issue of *Recherches Linguistiques de Vincennes*, vol. 33, Presses Universitaires de Vincennes, Saint Denis, 9-35.
- , & —, 2005b, *Word Order in Interrogative Constructions*, talk delivered at the *3rd Workshop on Syntax and Semantics* (III WoSS), U. of Nantes, September 2005.
- , & —, in progress, "The syntax-semantics mapping of focus", ms. CNRS/IKER & UPV/EHU.
- Gallego, A., 2007, *Phase theory and parametric variation*, Ph.D. Dissertation, U. Autònoma de Barcelona.
- Herburger, E., 2000, *What counts. Focus and Quantification*, MIT Press, Cambridge.
- de Hoop, H., 1992, *Case Configuration and Noun Phrase Interpretation*, Ph.D. Dissertation, U. Groningen.
- Higginbotham, J., 2000, "On events in Linguistic Semantics", in J. Higginbotham, F. Pianesi and A. C. Varzi (eds.), *Speaking of events*, Oxford U. P., Oxford, 49-80.

- Hualde, J. I. and J. Ortíz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Iruztun, A., 2007, *The grammar of Focus at the Interfaces*, Ph.D. Dissertation, UPV-EHU.
- Jiménez, M. L., 1997, *Semantic and Pragmatic Conditions on Word Order in Spanish*, Georgetown University Ph.D. Dissertation.
- Kaiser, E., 2006, "Non Canonical Negation and Information Structure", ms. U. Pennsylvania.
- Laka, I., 1990, *Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections*, Ph.D. Dissertation, MIT.
- Ogihara, T., 2003, "A scope theory of tense and adnominal modifiers", in S. Chiba et al. (eds.), *Empirical and Theoretical Investigations into Language*, Kaitakusho, Tokyo.
- Ordóñez, F., 1997, *Word Order and Clause Structure in Spanish and other Romance Languages*, CUNY Ph.D. Dissertation.
- Ortiz de Urbina, J., 2002, "Focus of correction and remnant movement in Basque", in X. Artiagoitia, J. A. Lakarra & P. Goenaga (eds.), *Erramu Boneta: A festschrift for Rudolph P. G. De Rijk*, Supplements of *ASJU* 44, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV-EHU, Donostia, 511-524.
- Partee, B., 1973, "Some structural analogies between tenses and pronouns", *Journal of Philosophy* 70, 601-609.
- Poletto, C. & J.-Y. Pollock, 2000, "On the Left Periphery of Some Romance Wh-questions", ms. U. Padua/U. Picardie, Amiens.
- Pratt, I., & Francez, N., 2001, "Temporal prepositions and temporal generalized quantifiers", *Linguistics and Philosophy* 24: 2, 187-222.
- May, R., 1977, *The Grammar of Quantification*, Ph.D. Dissertation, MIT.
- Munaro, N., C. Poletto & J.-Y. Pollock, 2001, "Eppur si muove! On Comparing French and Bellunese Wh-movement", unpublished ms. University of Padua & University of Picardie à Amiens.
- Reglero, L., 2004, *A'-Dependencies in Spanish and Basque*, Ph.D. Dissertation, U. of Connecticut.
- Reinhart, T., 1983, *Anaphora and semantic interpretation*, Croom Helm, London.
- Späth, A. & Trutwein, M., 2003, "Events under Negation", in M. Weisgerber (ed.), *Proceedings of the Conferences "sub7-Sinn und Bedeutung"*, Arbeitspapier Nr. 114. FB, Spachwissenschaft, Universität Konstanz, Germany, 29-3009. <http://ling.uni-konstanz.de/pages/conference/sub7/>
- von Stechow, A., 2005, "Temporal prepositional phrases with quantifiers: some additions to Pratt and Francez (2001)", ms. U. Tübingen.
- Uribe-Etxebarria, M., 1994, *Interface Licensing Conditions on Negative Polarity Item Licensing: A Theory of Polarity and Tense Interactions*, Ph.D. Dissertation, U. of Connecticut.
- , 2000, "Optional Operations and Covert Overt Movement", talk presented at *Colloquium on Generative Grammar*, Alcalá, April 2000.
- , 2001, "A review of Jiménez (1997)", *GLOT International*, vol 5, n.6, June 2001.
- , 2002, "In situ Questions and Masked Movement", in P. Picá and J. Rooryck (eds.), *Linguistic Variation Yearbook* 2, Elsevier, 217-257.
- , 2003, "Euskararen eta Hizkuntza Erromanikoen Foko Egituren arteko zenbait paralelotasunez", in J. Makazaga et alii (eds.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko*

- ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika Gaiak. Iker-14 (1)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 437-457.
- , 2004, *Interface Licensing Conditions on Negative Polarity Item Licensing: A Theory of Polarity and Tense Interactions*, UPV-EHU, Bilbao.
- Zubizarreta, M. L., 1998, *Prosody, Focus and Word Order*, MIT Press, Cambridge.

BADA ARAZORIKETIK ARAZOAK DAUDERAINO: EXISTENTZIA-PREDIKAZIOA ETA INESPEZIFIKOTASUNA

Juan Garzia

UPV/EHU

Batzuetan, askotan, kontrajarri egiten dira gramatikaren ikuspegi arauemailea eta deskriptiboa. Arauen beharra sumatzen (edo eskasia nozitzen) duenak hizkuntzalarikeriatzat jo dezake gramatika-ikertzaileen sakontze- eta zehazte-lana, hizkuntzaren benetako premia larrietatik urrundutzat. Beste muturrean, mesfidantza zorrotza erakuts dezake hizkuntzalariak nolana hiko erabileren arteko inolako hobespena egitearen aurrean, gainerako aukeren gaitzespenaren edo estukeria eta gehiegikerien beldurrez.

Bi aldeek izan dezakete beren arrazoi-partea, baina, sokatira zakarrean tematzea baina, hobe dialektikazko lankidetzat bilatzea bi ikuspegiaren artean.

Patxi Goenaga eta biok, besteak beste, burkide gara jokabide horretan, eta horregatik aukeratu dut gai eta tratamendu nabarmen hibrido bat idazki honetarako: mutur batean, euskararen gramatikako xehetasun sotilak, eta bestean, berriz, gaurko euskara batu estandarren arau-zalantzak. Eta bien tarteko kontu asko. Loturik baitaude guztiak, ikuspegi bereziak gorabehera.

Ukituko ditugun puntuen zerrenda hutsak ere garbi erakusten du ez direla aztergai arin eta errazak: existentzia-predikatua, partitiboaren erabilera, euskalkitik euskalkirako aldeak... Handikeria litzateke nire aldetik, edo zorakeria, dozenatxo bat orrialdetan argiturik eta erabakirik uztea auziok guztiok. Askoz apalagoa dut asmoa, baina ez —asmoa behinik behin— hutsala: auzion arteko lotura bistaratzeko, eta, horren harian, aztertze edo sakontze ditugun puntu batzuen bilduma egitea, hartara deskripzioa eta, agian, araugintza ere hobetzen laguntzeko.

Bigarren aldiz aipatzen ditut bereizirik bi alderdiok, baina garbi esan dezadan niretzat ez dela hain berezikuntza garbirik: euskara osoaren deskripzio on batek aski oinarri eman ohi du estandarren bidea(k) markatzeko. Euskararen tradizioaren enbor erkidetik albait ez aldentzea dugu funtsezko irizpidea euskara batu estandarrentzat. Horretan guztiok bat gatozelakoan dihardut nik hemen, nahiz gero beti ados ez izan kasu jakinean. Nire esperantza, hain zuzen, azalpen egokiak funtsezko irizpide hori aplikatzeko elementuak ematea da: horratx deskripzioaren eta *arauaren* arteko lotura (letra etzanez ematen dut *arau* hitza, gramatika-adostasunaren zentzua baitu hor, arau-erabaki formaletik bereizteko). Izan ere, zer da deskripzio egokia, ez bada berezko *arauaren* azalpena? Alegia, beste modu batera esanda, araua hor dugula, hizkuntzan berean, inork erabakirik hartu aurretik.

Elementuak eta auziak azaldu, eta haien arteko loturak: horrenbesterekin konformatzen naiz. Nire iritzia ere hor joango da azalpenekin batera. Ebazpenik, ordea,

inork ez dezala espero. Beste probetxurik ez balu ere, nahi nuke pentsatu eman dezakeela honek abiapunturik aski hari bakoitzetik tiraka luzeago eta sakonago aztertzeko hemen aipatuko den kontu bakoitza.

1. Existentzia-predikatua

Hizkuntza bakoitzean hartzen duen moldea gorabehera, badirudi adigai oinarri-oinarrizkoa dela zerbait (nonbait) badela (edo ez dela) adieraztea. Horretarako, nagusiki, *izan* aditzaz baliatzen dira euskara eta beste hizkuntza batzuk, hala nola ingelesa. Aditz horrek baduenetz beste adierarik (atribuzio arruntarena bereziki), beste markaren batek lagundu ohi du existentzia-predikazioa bereizten; ingelesez, *there (is)*. Frantsesak eta gaztelaniak ere antzeko lokatibo bat darabilte (*y*), kasu horretan *ukan* (edo, nahiago bada, **edun*) aditzaren baliokidearekin konbinaturik: (*il*) *y* (*à*), (*ha*)*y*. (Gaztelaniako *y* hori galdu egiten da adizki gehienetan (*hubo*, *hubiera*...), baina garbi bereizten da existentzia-adiera, *haber* aditza bestela laguntzailea baino ez da-eta gaur egun).

Hiru auzo-hizkuntzon aldean, euskarazkoak ez du hain garbi markatzen beti *izan* aditzaren existentzia-adiera berezi hori. Berezko marka *ba-* dugu (*bai*, funtsean), baina jakina da marka hori aditz trinkoei baino ez zaiela erantzen (eta menderatu batzuetan ez dela ageri adizki trinkoen aurrean ere):

- (1) bada
- (2) izaten da
- (3) ez dakigu den(etz)

Horiek horrela, *ba-* markarik ezean, forma beraz baliatzen dira atribuzio arrunta eta existentzia-predikatua. Nola liteke, bada, noiznahi ez gertatzea nahasteak bi adieron artean? Horri erantzun aurretik, itzul gaitezen ingelesera, hark ere badu-eta antzeko kontu bat.

Ongi erreparatzen badiogu, aipatu dugun *there (is)* horrek ere bi adiera ditu. Guk hemen existentzia-adiera aurkeztu dugu aurrenik (*ba(da)*), baina berezkoen edo literalena, jatorrizkoa, kokapen-adiera da: *han (da)*. Errepika dezagun galdera: nola ez da gertatzen noiznahi bi adieron arteko nahasterik?

Bada, bistan da, aditz horrekin doazen osagaiek ebazten dute kontua. Osagaien nolakoak erabaki ohi du, batzuetan ordenamenduekin batera, nola ulertuko den konbinazio bakoitza:

- (4) *there is a cat* (existentzia: “bada katu *bat*”)
- (5) *there is the cat / the cat is there* (kokapena: “hor da katu*a*” / “katu*a* hor da”)
- (6) *izan da istripurik / ez dakigu telefonorik den(etz)* (existentzia)
- (7) (hori) *istripua izan da / ez dakigu (hori) telefonoa den(etz)* (atribuzioa)

Jakina, euskarazko sistemak ongi samar funtziona dezan, baitezpadako dirudi determinazioaren bereizkuntzak (*-rik / -a*) hor bezala garbi egotea (edo/eta ordenamendua ere zorrotz begiratzea). Zoritxarrez, eta horretaz arituko gara luzeen aurki, bada arazo bat baino gehiago kontu horretan, ez baitaukagu guztiz finkaturik puntu hori (ere) euskara batu estandarrean, eta erabilerak ere ez baitatoz inondik inora ere bat gaurko hizkeretan. Sasiarterik bihurrien horretan sartu aurretik, hala ere, itzulinguru-txo bat egin behar dugu beste bi kontu jorraturik uzteko.

2. *Izan ala egon, hor da(go) auzia*

Aurretik eman ditugun adibide gehienetan, mendebaldeko hiztun asko eta askoren hizkeran, *egon* aditza genuke guk *izan* ipini dugun lekuan (eta, paraleloak baitira, *eduki* aditza *ukanen* lekuan). Ezin gara hemen luzatu bi erabilerok bereizten dituen isoglosa nagusiaren arrazoi historikoen peskizan, baina nabarmen ageri da gaztelaniaren eta frantsesaren eraginpekoa dela. (Mendebaldean *izan* gorde duten erabilerak, hain zuzen, gaztelaniak *ser>estar* (eta *haber>tener*) bilakaera izan aurreko aztarnatzat esplika litezke). Kontua da gaur egungo mendebaldeko hizkera nagusian *egon* dela *estaren* ordain ia automatikoa, eta, era berean, existentziazko *haberena*:

- (8) Gasteizen dago autoa/Jaione (“está”)
- (9) badago telefonorik/telefonoa (“hay”)
- (10) Gasteizen da ekitaldia (“es”)

Oraingoz astindu ez dugun erabilera-arazoteria alde batera utzita ere, bada jada hor auzitxo bat. Existentzia-predikatura gabe ere, kokapen-adieran berean (eta berdin egoerazkoetan: *nola izan/egon*), urrunduta daude ekialdeko eta mendebaldeko erabilerak: ekialdean, markatua da *egon* (*egoera batean jarraitu* balioarekin); mendebaldean, berriz (*haberenez gainera*) gaztelaniatzko *estaren* zeinahi balio hartzen du. Eta berdintsu gertatzen da *eduki* eta *ukanekin* ere:¹

- (11) Gasteizen daukagu autoa (mendebalean)
- (12) Baionan dugu autoa (ekialdean)

Nire iritzi eta praktika: batasunaren (eta zorroztasunaren) izenean, aukeran, *egon/eduki* mendebaldekootara ez jotzea, batez ere *izan/ukan* mendebaldean berean ere arrotz ez den (zen?) testuinguruetan. Hutsa, hala ere, hori bakarria balitz, ekialde/mendebalde bitasunaren beste alderdi askotan bezala, “onetsi” edo jasan beharrekoa.² Ez baita, ez, hori bakarrik.

Berez, gaztelaniarekiko paralelismoa ez da, besterik gabe, nire begietan, gaitzes-teko motibo (ez gara ari, gainera, ezer gaitzetsi nahian, euskara batu estandarraren zuhurbidearen bila baizik). Itxura batean, gainera, kokapen-adieran ez bezala, badu joskera horrek abantaila bat bederen existentzia-adiera atribuziotik bereizteko orduan (bestela bereizten ez denean):

- (13) ez dakit auto bat den(etz) (atribuzioa)
- (14) ez dakit auto bat dagoen (existentzia)

Hala ere, ikusi dugunez, *seretik* bereizi bai, baina *estaren* forma bera hartzen du hala *egon* aditzak; batik bat, gero astiroago jorratuko ditugun erabilera batzuetan:

- (15) liburuak dauden tokian [kokapena (“donde están los libros”)?, existentzia (“donde hay libros”)?]

¹ Hots: da = es, dago = está/hay, du=ha (hots, aditz laguntzailea soilik), dauka=tiene. Egungo idazleen artean, Atxaga dateke eredu horri estuen atxikitzen zaiona. Ez da, hala ere, inkoherentziarik gabea mendebaldeko erabilera hori ere: “ez dauka joaterik” baina “ez du joaterik izango”...

² Erabakiak erabaki, ez letorke gaizki norbaitek egitea ekialde/mendebalde joskera-bitasun nagusien katalogoa: ama ikustera / amaren ikustera; haserretu da / haserretu egin da...

Hala ere, berriro diot, nik ikusten dudan arriskua zera da: euskararen batasun-mailan berean, aurrera egin beharrean, atzera egitea. Saiatu behar genukeela, alegia, ahalik eta bortxa gutxien eginik norberaren hizkerari, ahalik eta gehien hurbiltzen batzen gaituen edo batu samartu gaitzakeen horretara. (Alde horretatik, tokian tokiko hizkeraren errebindikazioa ez litzateke nahastu behar, askotan gertatzen den bezala, haietan eta, batez ere, estandarrean joera zentrifugoak bultzatzearekin).

Bada, badenez, oinarrizko egitura horren ekialde/mendebalde desadostasun horretan, askoz ere zer ikertu gehiago, hemen aipatuko dugun apurra baino. Nire aldetik, ohar bat besterik ez: azterketa on batek ez luke alboratu behar gure auzo-hizkuntzekiko (eta haien arteko) konparazioa.

3. *Egon existentzia-predikatua eta joskera*

Gatozen orain zenbat eta mendebalerantzago nabarmenago gertatzen den beste (horren hurrengo) fenomeno batera. Irakurlea hasieratik koka dadin, esan dezagun azken batean honelako segida bat dugula ekialdetik mendebalerantz (eta lehenetik orainerantz, neurri batean):

(16) bada/badago oztoporik > badira/badaude oztopoak > oztopoak daude

(17) badugu/badaukagu oztoporik > baditugu/badauzkagu oztopoak > oztopoak dauzkagu

Lehenbiziko bi aukeren arteko kontuaz, azken atalean mintzatuko gara. Orain, hirugarren molde horrek zer dakarkigun ikusi nahi dugu. Hara:

— Existentzia-predikatuaren marka berezia (*ba-*) galtzen da.

— Ezinezko bilakatzen da *izan* aditzera jotzea, esanahi atributiboa nagusitzen baita (“mamuak dira”); *ukanek*, berriz, ez du halako arazorik (“oztopoak ditugu”).

— Existentzia predikatuaren berezko joskera berezia aldatu egiten da, eta galdegaigunean ematen da izen-sintagma, bestela (existentzia-predikatutik kanpo) nagusi den joskeraren analogia okerrez.³

Joskera horretara erabat emana denak (guztiok darabiltzagu, gutxi-asko, halakoak mendebaldean) lanak izaten ditu sinesteko hain esamolde arrunta ezinezkoa dela ekialdeko euskararen. Eta, horrekin batera, bero-bero aldeztuko dizu ez dela gauza bera adierazten “oztopoak daude” esanda eta “badaude/badira oztopoak” esanda; edo “salda dago/daukagu” eta “bada(go)/badugu-badaukagu salda”.⁴

Ez dut inor engainatu nahi: ez da gauza bera plurala eta singularra, eta existentzia predikatuaren kasuan kasuko gaiaren arabera ere bada alderik. Izenaren izaera semantikoak, besteak beste, erabakigarria izan daiteke: abstraktu/konkretu, zenbakarri/

³ Halako joskeren auzia bereziki larria da deskripzioetan, eta, beraz, literaturan. Esate baterako, “Baziren/bazeuden kamioi batzuk (kamioiak), gorri biziz margotuak eta fusilez eta bestelako armaz gainezka kargatuak”, azkenean, “Gorritz margotutako eta fusilez eta bestelako armaz gainezka kargatutako kamioiak zeuden” bihur baitaiteke eta, tamalez, bihurtzen baita zenbaiten erabileraren itsuan.

⁴ Hala ere, tematuz gero: “olerkiak daude, eta eleberriak ere... *daude?, “... eleberriak daude ere (bai)”, “... eleberriak (ere) baita daude...?”...

zenbakaitz... Hots, ezin liteke besterik gabe estrapolatu adibide bat edo pare bat guztietara.

Eta testuinguruak ere —gramatikalak zein egoera pragmatikoari dagozkionak— eragina du, erabakiorra, adierak ebazteko orduan. Esate baterako, “mamuak izate/egote” horretan, bi gauza desberdin gutxienez adieraz ditzake existentzia-predikatuak berak:

- existentzia absolutua: (munduan) izatea/egotea
- leku batean *aurkitzea*: (etxe honetan) izatea/egotea

Paraleloki, baietak ere —*ba-* markak zein hutsak adierazia— baditu, batera, bi adiera arrunt:

- (18) badator (bai/dagoeneko)
- (19) etorri da (bai/dagoeneko)

Horiek guztiak ez dira nik azalpen hau bihurtzeko asmatuak noski: forma horien anbiguotasun arruntak dira, esaldian-esaldian ageri eta testuinguruak argitu ohi dituenak.

Galdegaiaren kontua ere ez da, askok pentsatzen duen bezala, beti bata-ala-beste erabakitzen dena, eta askotan da aukerako, egoera pragmatiko berean ere, hiztunak galdegai bat *zein* bestea aukeratzea:

- (20) Galanki kostako zaio
- (21) Kostako zaio galanki

Dena dela, konplikazio horiek guztiak aitortuagatik, eta, hain zuzen ere nahasteak ez areagotzeko, pentsatu behar litzateke ez ote den komeni mendebaldeko *berrikuntza* edo aldaera horri tamaina hartzea estandarrean. Besterik ez bada, aditzezko galdegaia markatzeko *egini* buruzko aholku bera eman: aukeran, hobe (hots, batuago) hartara jo gabe. Jakina, *eginen* abusuari adinako kasua egiten bazaio...

Kontuan hartu behar da, bestalde, hitz-ordena izan ohi dela, forma trinkoetatik kanpo, existentzia-adieraren marka bakarra, eta, beraz, berdinduta geratzen direla, erabilera horretan, existentziazkoa eta atribuziozkoa, *izan* erabiliz gero bederen:

- (22) izan dira oztopoak (oztopo batzuk) [existentzia]
- (23) oztopoak (oztopo batzuk) izan dira [atribuzioa ala existentzia?]

Horrek ere bultzatzen bide du *egonen* formetara jotzera. Alegia, *dago-daude* formen barruan legoke, erabilera horretan, bestela *ba-* aurrizkiak adierazten duen existentzia-esanahia. Ondorioz, *ba-rik* ezean, ezin eman aditza hasieran (“*daude oztopoak”), eta, hala, erabiltzen den joskera hori da, bide horretatik, aukera bakarra:

- (24) oztopoak daude (= badira/badaude oztopoak)

Behin analogia (edo interferentzia) lanean hasiz gero, ordea, norik geldiarazi? Hortik ditugu, noski, honelakoak ere (joskera-analogiaren gainetik eragiten du hor, bistan da, *estar* = *egon* automatismoak):

- (25) *Ainhoa dago?

Existentzia-adiera beste zerbaitetara lerratzen da hor, eta ez da harriztekoa. Existentzia-predikatuak hartu ohi dituen izen-sintagmak zentzu inespezifikokoak dira,

eta beste adiera bat hartzen du erreferente espezifikoeziko konbinazioak. Formalki mugatuak izan daitezke izen-sintagmok, baina semantikoki ez dute adierazten erreferente espezifikoko bat (“oztopoak” = “oztopo batzuk”, eta ez “oztopo jakinak”).

Gaztelaniaz, hain zuzen, debeku da (edo zen?) erreferente espezifikoko izen-sintagmak agertzea joskera horretan (*estar* izaten da halakoetan aukera zuzena):

(26) Hay (unos, algunos, varios, *los, *tus) obstáculos.

(27) *Había los ministros y el presidente.

Frantsesak ez du halako debekurik (*estaren* baliokide esturik ere ez), baina ezinbestean dute espezifikoeziko konbinazioek existentzia-predikatuz besteko adiera, jadanik predikaturik baitago existentzia izen-sintagma espezifikoko batean: “Ainhua” zein “lehendakaria” diogunean, sintagma hori erabiltzek berak adierazten du existitzen direla erreferenteok, hiztunaren ikuspegian bederen.

Aztergai dugun erabileran, ordea, ez du hain ongi funtzionatzen bereizkuntzak, sintagma mugatzailedunak berdin erabiltzen baitira adiera espezifikokoan (“ministroak”: ministro jakinak) zein inespezifikokoan (“ministroak”: ministro batzuk). Halakoetan, bada, ezin bereizi gaztelaniazko *haber* eta *estar*:

(28) Ministroak daude. (= Badira ministro batzuk; “Hay ministros”).

(29) Ministroak daude. (= (Los que) están (son) los ministros”).

Horrenbestez, iritsiak gara azken gakora: zer paper jokaten du existentzia-predikatuaren inguruko gorabehera guztian determinazioak? Ikusi ditugu kontu batzuk zeharka, baina atal berezi bat merezi du horrek.

4. Determinazioa eta kuantifikazioa existentzia-predikatuekin

Aipatu berri dugun euskararen berezitasun bat dugu lehen-lehenik nabarmendu beharra: inguruko hizkuntzetan ez bezala, euskaraz, adiera inespezifikoa har dezake mugatzaileak. Euskarazko *-ak* artikulu pluralaren erdarazko ordaina “los/las”, “unos/unas” zein *huts* izan liteke. Zenbat eta mendebalderago, zabalagoa da, bide horretan, mugatzaileak hartzen duen erabilera-esparrua, baina euskara guztiarena da ezaugarri hori hein batean, hitz solteen aipamenetik beretik hasita:

(30) libro(s) / liburua(k) [*liburu]

Existentzia-predikatua, ikusi dugun bezala, determinazio espezifikoarekin gabe, *kuantifikazio* inespezifikoarekin loturik dago. Ikusi dugu, orobat, adiera horretarako *ere* mugatzaileak baliatzeak lausotu egiten duela apur bat hori (zinezko nahasteak eragiteraino, inoiz).

Inespezifikoen gailurra markatzen duena, azken muga (kuantifikazioaren *aurretikoa*, nolabait), partitiboa da. Azkenerako utziko dugu euskaraz partitiboak baieztapenetan dukeen edo ez dukeen lekuaren auzia, baina bistan da nolabaiteko prekario-tasuna-edo ezartzen duela existentzia-predikatuarekin mugatzailedunak erabiltzek:

(31) Bada(go) ministrorik (aurka dagoenik).

(32) Badira/Badaude ministro *batzuk* (aurka daudenak).

(33) ?Badira/Badaude ministroak (aurka daudenak).

(34) ??Ministroak daude (aurka daudenak).

Areago, jakina, perifrastikoetan:

- (35) Izan/egon da ministrorik (aurka agertu denik).
 (36) Izan/egon dira ministro batzuk (aurka agertu direnak).
 (37) ?Izan/egon dira ministroak (aurka agertu direnak).
 (38) ??Ministroak egon dira (aurka agertu direnak).

Sistemak, bistan da, halako prekariotasun-arriskurik gabe funtzionatzen du partitiboekin eta kuantifikatzaile arruntekin (joskera ere libreagoa izan daiteke hala):

- (39) izan/egon da/zen ministrorik / ministro(ren) bat
 (40) izan/egon dira/ziren ministro batzuk/asko / zenbait/hainbat ministro / hiru(zpalau) ministro

Bestalde, nekez gerta daiteke pluralean bezalako ordeztetik singularrean:⁵

- (41) badira/badaude oztopoak (< oztopo batzuk)
 (42) bada(go) #oztopoa (< oztopo bat)

Filologia zorrotzagora jota ere, bada euskara-eredurik mugatzailearen adiera inespezifikoa erabat arrotz zaionik. Halakoak aurkitzeko bidea: denboran, zenbat eta atzerago jo hobe, eta espazioan, berriz, zenbat eta ekialderago. Gaztelaniaren eta frantsesaren sistema dibergenteen eragina sumatzen da hor ere aski nabarmen, baina ez da hori bakarrik, nik uste. Guztiak baturik, Leizarraga dugu adibiderik zabaldu eta ziurrena, ez baitu, ustez, sekula erabiltzen mugatzailearik zentzu espezifikotik kanpo (zentzu espezifikoa adiera generikoa izan dezake, noski: ez da nahastu behar generikoa inespezifikoarekin). Beste muturrean, mendebaldeko erabilera batzuk, non berdin (*ad hoc*) baliatzen baitira mugatzaileak, gero eta gehiago (testuinguru bakan batzuetan izan ezik), espezifikikoetarako zein inespezifikikoetarako.⁶ Kasu ez gutxitan, hiperezuzenketazko jator-ustean, “bat”en eta mugagabeen aurkako gurutzada itsuz.

Garbi geratuko ahal zen ez naizela aldeztan ari orain Leizarragaren erudura *itzultzea* edo biltzea, baina bada zer ikerturik puntu horretan ere, *sasi* mugatzaile inespezifikoen inbasioaren aurretik (edo hura gabe) gauzak nolatsu izan zitezkeen ikusteko eta ikasteko.

Bilatu beharko genuke, hala ere, eredu egoki samar bat (edo, etsiz gero, bi) geure gaurko estandarerako, han-hemengo erabilera zahar-berrien orekan zinez baliagarri izango zaiguna eta ahal bezain koherentea. Alde horretatik, niri neuri, berdin lidake nire iritzia kontrakoena balitz ere eredu adostu hori (ez litzateke lehen aldia halakoetara gogo onez makurtzen naizena eta garena), baldin eta dagozkion eskakizunak betetzen baditu. Hots, eredu bada, eta ez ohar-saltsa.

Bada beste erabilera-dibergentzia bat ere (aurrekoekin lotua), orain arte aipatu ez duguna: perpaus menderatuei dagokiena. Menderatu-menderatuetan, joskera zurru-

⁵ Hala ere, entzun, entzuten da “#beste liburua(k)” ere, “beste liburu bat(zuk)” esateko partez.

⁶ Hala ere, ikus Eibarko kanta zaharra (“asko dagoz”i dagokio noski enfasia, ez partitibooi):

Zeruan asko dagoz	Lirio lorarik eta
olibo adarrik,	Santu ta Santarik;
olibo adarrik eta	ez dala igartuko
lirio lorarik.	zeruko gauzarik.

nagoa izateaz gainera (aditza amaieran), *ba-* markarik ez da ageri adizki trinkoetan ere, eta zalantzazkoa da, bestalde, partitiboak lekurik duenez baiezkoetan (hor eta, neurri batean, joskera guztian):

- (43) izan/egon diren arazoak/ministroak
- (44) diren/dauden arazoak/ministroak
- (45) arazoak izan/egon direnean (?arazorik izan denean)
- (46) arazoak direnean/daudenean (?arazorik denean)

Menderatu arinetan, berriz, perpaus nagusien antzeko jokoa dugu:

- (47) Ziur naiz bad(ago)ela arazorik / badirela/badaudela arazoak.
- (48) Ezin gaitzke lasai egon, bai baita [bada-eta] arazorik / bai baitira/baitaude [badira/badaude-eta] arazoak.

Zehar-galderen kasuan, partitiboaren aukera zalantzagabea da, galdera arruntetan bezala. Hala ere, *ba-* marka eraman dezakete, oraingo erabileran bederen, nahiz eta hura gabeko formak izan tradizio sendo(ago)koak:

- (49) Ez dakigu arazorik (ba)d(ago)en(etz). [??Ez dakigu arazoak (ba)diren/dauden(etz)].

Bada tartean zalantzarik, tentsiorik edo bitasunik:

- (50) ?Arazorik badelako jokatu behar dugu zuhur. / ?Arazoak badirelako/badaudelako... / Arazoak #direlako/?daudelako...

Ereduen (eta desereduen) arteko tirabira horretan, bada auzi bat guztiz loturik dagoena orain artekoekin guztiekin: partitiboarena. Honaino, saihesten eta atzeratzen ahalegindu gara, baina iritsia da unea zezen horri ere adarretatik heltzeko.

5. Partitibo arruntaren esparrua

Inespezifikotasuna garbien eragiten duten hiru testuinguru gramatikaletan, ez da funtsezko zalantzarik gertatzen partitiboaren lekuaz eta erabileraz:

Ezeztapenak: “Ez da(go) oztoporik”. / “Oztoporik gabe lortu”.

Galderak: “Bada(go) oztoporik?”. / “Oztoporik (ba)den/dagoen erabaki”.

Baldintzak: “Oztoporik (baldin) bada(go)”.

Hiruretatik, hala ere, baldintzak uzten du atea zabalenik bestelakorik ere ager dadin (galderak ere ez du erabat ixten):

- (51) Oztopo(ren) bat (baldin) bada(go).

- (52) ?Oztopoak (baldin) badaude.

Uste dut azken adibidetxo hori aski dela ikusteko nolako tentsioa eragiten duen gaztelaniazko numero-bereizkuntza euskarara ekarri nahiak, disimetria bat gertatzen baita bi sistemen artean. Euskaraz, partitiboak ez du singular/plural bereizkuntzarik, esan bezala erabat inespezifikoa baita,⁷ kuantifikazioaren beraren *aurretikoa*: “ha-

⁷ Alegia, erreferentea ez da singular/pluraltasuna bereizteko adina ere irudikatzen.

lakorik (*batere, gutxi, (zati) bat edo beste, aski, asko, ugari...*). Gaztelaniaz, berriz, *mugagabeak* bi forma inespezifiko ditu, markatua baita hor ere numero singular edo plurala:

(53) (algún) obstáculo / (algunos) obstáculos

Izan ere, erdaraz bezala singular-pluraltasuna markatu nahia izan da, itxura guztien arabera, sistema horretaratu duena (puntu horretan eta bestetan):

(54) el pan / *ogia*

(56) los panes / *ogiak*

(55) pan / *ogia*

(57) panes / *ogiak*

Modu teknikoagoan esanda, gaztelaniazkoaren moduko *huts* kuantifikatzailea (artikularik eza) debeku denez, lokuzioetatik kanpo, euskara estandarrean eta ia euskalki guztietan (“badugu *ogi”), eta, nolana ere, singular-pluraltasunik bereiziko ez lukeenez, mugatzaileetara jotzen dugu numeroa markatu ahal izateko, mugatzaileak berezko(en) duen adiera (erreferente espezifikoarena, alegia) *ad hoc* aldaturik (espezifikoaren zentzu generikotik pasaturik, beharbada). Kasu honetan, kuantifikazio minimoaren zentzua hartzen du artikulua, numero singular edo plurala markatuz.⁸

Zentzuz, bada, halakoetan, kuantifikatzaile minimo(ak) dira *sasimugatzaileok*, singular-pluraltasuna baino adierazi nahi ez dutenak. Alegia, erreferente inespezifikoaren adierazle; *numerodun partitiboak*, nolabait esateko. Inoiz, hain zuzen, egitura partitibo formaz markaturen bat aurkitzen dugu halako *sasimugatzaile*ekin sinonimian (kasu honetan, ez *-ik* arrunta, *-tik* baizik, nahiz jatorri berekoak bide diren biak):⁹

(58) Ogitik (=ogia) *jan* zuten eta ardotik (=ardoa) *edan*.

Mugatzaileen zentzu espezifikoa bestelakotzeko joera gutxien (edo batere ez) ageri duen euskalkian, hots, zubereraz, partitibo arruntaren eta guk arestian debekatutzat jo dugun mugagabe absolutu edo *huts* mugatzailearen artean banatzen da adiera inespezifiko horren adierazpena (non eta ez den jotzen kuantifikatzaile esplizitueta, noski). Etxahunek, adibidez:

(59) *ogi eta ardu* geñhatzen / auheren asetzekua

Gehienetan bezala, guztiz argigarria da frantsesaren egiturari begiratzea. Frantsesak, oro har, partitibo formala darabil gaztelaniak *huts* determinatzailea ageri duen lekuan. Euskarazko partitibo arruntak ez bezala, ordea (eta gaztelaniazko *huts* determinazioak bezala), numeroa bereizten du:

(60) le pain / *du pain*

(61) les pains / *des pains*

Logika hutsetik atera daiteke frantsesaren partitibo esplizitu eta nahitaezkoak ai-seago erakar dezakeela bere eredura bere elebitasun-esparruko euskara, gaztelaniaren aldean bederen (nahiz eta numero-bereizkuntzak beste aldera tira egin). Frantsesez, continuum bat dugu, esaldi mota guztiak hartzen dituen, baieztapeak barne:

⁸ Beste batzuetan, hala nola predikatu-osagarriarenean, komuntzadura hutsezkoa da *sasimugatzailea*.

⁹ Zenbakarrien beste aukera ere, pluralaren gainean eraikitako egitura partitiboa, aipamentxo honetan utziko dugu: “*orietarik* ere ba omen da” (Larreko).

- Ezeztapenak: “Il y a pas *du pain*”. —Baldintzak: “S’il y a *du pain*”.
 — Galderak: “Est-ce qu’il y a *du pain*?”. —Baieztapenak: “Il y a *du pain*”.

Espero izatekoa litzateke, beraz, baieztapenetan ere partitiboa maizago aurkitzea esparru horretako euskaran, gaztelaniak eragiten duen eremuan baino. Horra beste ikergai bat, zail bezain interesgarria.¹⁰ Kontuak kontu, oraindik ere martxan den prozesu horrek —hots, mugatzaileei adiera inespezifikoa emateak— baditu ondorioak:

- Batetik, partitiboaren (eta, batez ere, zenbatzaileen) erabilera —ustez— berezko eta egoki batzuk baztertzea.
- Bestetik (edo ifrentzutik), numeroa markatu ahal izateko, adiera espezifikorako erabiltzen diren mugatzaile beretara jotzea, nahasbidea (eta euskalki-dibergentzia) eraginez.
- Hurrengo urratsean, joskera ere aldatzea, hots, galdegaira ekartzea *sasimugatzaile* (zentzuz) partitiboa-edo:

(62) *Ogia* dago.

(63) *Arazoak* daude/dauzkagu.¹¹

Egia esateko, galdegai gisa doan mendebaldeko erabilera berezi horretan, nekez esan daiteke jada partitiboa denik zentzua, berez, ez baita zehazki existentzia-predikatua hor ageri dena, hots, “Zer dugu-daukagu/dago (jateko)?”, “Zer gertatzen da?” eta halako galderei dagozkienak baitira esaldiok, eta ez “Badugu-daukagu/bada(go) ogirik (jateko)?” eta “Bada(go) arazorik?”.

Kontuak kontu, exotikoak lirateke, guztiz, halako esaldi gehienak ekialdean, *egon* aditzaz osatuak bereziki. Gure adibideotan, “*Ogia* dugu (jateko)” bai (hots, adiera generikoan), baina besteak bestela emango lirateke:

(64) Bazen ogirik/*ogia*.

(65) Bad(it)ugu zenbait arazo.

(66) ?Zenbait arazo d(it)ugu. [Baditugu zenbait arazo].

(67) ??Zenbait arazo daude. [Badira zenbait arazo].

Gainera, eta hasierako iruzkinetara itzuliz, esan beharra dago ekialdean halako esaldiak (*egon* darabiltenak) zuzenak izan daitezkeela noski... baina, izatekotan, beste zerbait adierazteko, hots, iraupenezko adieran, ez existentziazkoan:

(68) Oztopoak (baziren, eta) badaude. [= Oztopoek badiraute].¹²

Bada jauzi bat baieztapenetatik (partitiborik ia inoiz ez) beste hiru esaldi molde-tara (partitiboa ia erabat). Horregatik, bietarikoak izaten dira analogiazko nahasteak: baieztapenetan bezala *sasimugatzaileaz* baliatzea partitiboa dagokionean, eta —aldi berean, hitzun batzuen kasuan— ezeztapenetan-eta bezala partitiboa erabiltzea hala

¹⁰ Alde batera utzi beharrekoak dirudite “zerik/besterik da” itzuli bereziek, non galdegaigunean baitoa partitibozko sintagma.

¹¹ Berdin dio, bestalde, zer kuantifikazio-determinazio daraman sintagmak: “Arazo bat daukagu/dugu” esaldia, eredu *berri* horretatik kanpo, ez da existentzia-predikatua (*ba-* falta baitu horretarako); izatekotan, “zenbat arazo ditugun” adieraziko luke, eta ez ea “arazorik dugun(etz)”.

¹² Argiago beharrez, “bada X” joskerari eutsi diogu albait, baina aukerakoa da, noski, “X bada” joskera, baldintzarekiko homomorfismoa gorabehera.

ez dagokionean ere, mugatzailearen (berezko) zentzu espezifikotik alde egin nahirik (hots, frantses eredura lerratuz):

(69) *Arazoak (ba)daude?

(70) *Istripurik egon delako.

Hala ere, demagun ez gaudela oraindik erabat sartuak tamaina horretako nahastean, hots, oraindik desegokitzat jotzen duela gure senak baldintzetan partitiboaren lekuan mugatzailea erabiltzea. Hortxe dagoela muga, alegia:¹³

(71) Oztoporik (baldin) bada(go), gaudituko dugu.

(72) *Oztopoak (baldin) badaude, gaudituko ditugu.

Geratuko litzaigukeen (eta geratzen zaigun) auzi *bakarra*, orduan, zera litzateke (eta da): *erabakitzea* zein den (eredu-tirabira horretatik estandarerako) partitiboari baieztapenezko esaldietan dagokion lekua. Pentsa liteke bide luzea egin dugula hain kontu zahar eta mugatuta iristeko, baina ez dut uste alferrik izan denik, eta, bestalde, jorratu dugun gai bakoitzak badu berez ere bere interesa estandararen nondik norakoa zertzeko orduan.

6. Partitiboa baieztapenean: araua auzi

Dugun dotrina ofizial bakarra, Euskaltzaindiarena, 1995koa da: “Partitiboa perpaus nagusietan noiz eta nola” izenburuko arau (eta azalpen) labur ere laburra.¹⁴ Ezin utziko ditut iruzkinik gabe haren eta nire hausnarketa honen arteko kontrastetik atera ditudan gogoeta batzuk.¹⁵

Horretan sartu aurretik, hala ere, apur bat zabalduko dugu aztergaiaren esparrua. Orain arte, existentzia-predikatuaren egitura prototipiko edo oinarrikoena baino ez dugu aipatu ia. Hots, existentzia predikatzea eduki lexiko-semantiko bakarra duenaz. “Ia” diot, hala ere, *izan/egon* iragangaitz horren aldaera iragankorra ere aipatu baitugu sarri samar (*ukan/eduki*). Kasu horretan (ergatiboazko subjektu baten), nola edo halako *edute* bat da eduki semantikoa, eta, beraz, eduki semantiko horretan bildurik predikatzen da, zeharka, existentzia: norbaitek badu, bada halakorik. Hortik aurrera, sail bietan, aditz askok bilduko dute, gutxi asko, existentzia-predikazio nolabaitekoa, bestelako eduki lexiko-semantikoa gorabehera:

(73) existitzen da

(74) aurkitzen da/dugu

(75) ezagutu dugu

Beste modu batera esanda: existentzia-predikatuaren egitura prototipikoarekin erabiltzen diren determinazio- eta kuantifikazio-aukera bertsuak aurkituko ditugu aditz arrunt askorekin, partitiboa barne. Eta auzi bertsuak: partitiboa/*sasimugatzai*-lea, hitz-ordena...:

(76) Ijito-txaboladi horretan, bizi da *paiorik* ere, baina...

¹³ Hala ere, egunotan aditua aditu bati: “#Orain ez dira sortzen halako liburuak”.

¹⁴ www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0030.pdf

¹⁵ Hasieratik aitortzen du azalpenak gauzak ez daudela “hain argi”, baina horrek ez dio eragozten azkenean “araua” (hots, agindua) ematea. Hala ere, 1995ekoa da irizpena, eta baliteke orain oinarri hobek/hoberik izatea hobeki funtsatzeko azalpenok eta, hala badagokio, araua zehaztu eta hobetzeko.

Hala ere, aditzaren eduki semantikoa nolakoa (eta, harekin batera, testuingurua), ez da beti izango aukerakoa edo ohikoa baieztapenetan erreferente (guztiz) inespezifikoeekin konbinatzea aditz hori, hots, partitiboa aurkitzea (formala nahiz semantikoki zentzu hori duena).

Baieztapenetan partitiboa agertzearen kontua, bada, ez da “ez da halakorik (izan/egon)” ezeztapenari dagokion baieztapenari dagokiona soilik, baizik eta, era berean, “ez da halakorik ageri/ikusten/etorri/aurkitu...” eta abarren baieztapenari dagokiona ere. Eta gaztelaniaren eta frantsesaren arteko eredu-dibergentzia ere lehengo bera da halakoetan: partitiboa frantsesez, *huts* gaztelaniaz.

Gatozen, bada, Euskaltzaindiaren arau aspaldiko horretara, eta seinala dezagun, lehenik, harekin dugun adostasun nagusia:

Partitibo arruntak ez du baieztapen perpausetan beste hiru testuinguru gramatikal tipikoetan (ezeztapenak, galderazkoak, baldintzak) adinako lekurik.

Horren arrazoiak ere ez dut uste desadostasunik legokeenik: hiru testuinguru horietan predikatzen dena ez da existentzia, baizik eta, hurrenez hurren, ez-existentzia, existentziaren galdea eta existentziaren hipotesia. Horregatik jotzen da, sistematikoki, erreferente (guztiz) inespezifikoa adierazteko egiturara, hots, partitibora.

Berez dator, ordea, galdera? Bakarrak ote dira horiek halako (erabateko) inespezifikotasuna eragiten duten testuinguru gramatikal nahiz semantikoak? Aurreko azalpenei kontu egin dienak badaki ez dela hori nire iritzia, jakintzat jo baitugu hemen existentzia-predikatuaren adierazpide tipikoenak erreferente (guztiz) inespezifikoa hartzen dituela: X klaseko ale/puskaren bat gutxienez badela adierazten da, baina espezifikoki zenbat edo zein batere zehaztu gabe. Gero, jakina, zehazte handiago bat etor daiteke, eta hartan bai ez duela partitiboak (definizioz) inolako lekurik.

Arian-arian, hara, adostasunaren gunetik desadostasunarenera etorri gara: gure honetan, erreferente (guztiz) inespezifikoa adierazteko egitura da, besterik gabe, partitibo arrunta, besteetan bezala baieztapenaren ere: “bada(go) halakorik”. Horrek ez du ukatzen beste egituraren bat *ere* erabiltzea horretarako, hala nola, kuantifikatzera jo nahi ez bada, *sasimugatzailea*: “bada(go) halakoa”, “badira/badaude halakoak”. (Existentzia-predikatuaren txertatua egoteak ematen dio hor duen zentzu ez-espezifikoa *-a(k)* artikuluari). Ikus partitiboaren egungo erabileraren adibide batzuk, *Ereduzko Prosa Gaur* kontsulta-tresnatik hartuak (kasu batzuetan, bestelako erabilerarik ere ageri da esaldi berean):

- (77) Bada, noski, halakorik bere kabuz egiten duenik, bere burua, erakusleihoa edo ganadua bailitzan, gustura erakusten duenik, propaganda edo fama edo nik ahal dakit zeren bila. (Karlos Linazasoro)
- (78) Nafarroan ere, esate baterako, ezagutu dut *main ttiot* dela berea, eta arrotza zaiola *emanen ditiot* uste duenik, eta nonahi aurkituko ditugu horrelako iriztiak dituztenak. (Koldo Zuazo)
- (79) Azkoitiko udaletxean ere badago horrelako kasurik: itzultzaile bat dago, eta euskaraz ez dakiten zinegotziek itzulpen tramankuluak dituzte. (Enekoitz Esnaola)

- (80) Antza egon badago horrelako gidarik, baina ez dira agerikoak. (www.mugak.eu/gunea/mujer/asilo/bab)

Baieztapenak, bada, *aukera* guztiz nagusi eta zabala ematen du erreferente espezifikogoak ager daitezen, baina ez du zeharo eragozten erreferente (guztiz) inespezifikoa, hots, partitibo arruntez adieraz daitekeena. Eta ez dut nik behinik behin inolako enfasirik nabari, ez adibideotan eta ez beste asko edo gehienetan. Ikusiko dugunez, hala ere, enfasi-adieran oinarritzen du Euskaltzaindiaren arauak azalpen ia guztia. Jakina, ez da halako aukerarik ere mendebaldeko joskera *berrian*, partitiboaren erabateko inespezifikotasunak ez baitu hura gaitzen galdegai izateko: “*arazorik dago/daukazu”.

Bestalde, baiezktotasunak erreferentea beti espezifikoxe)agoa izatea eragiten duela joz gero, horrek esan nahi luke (eta du, nik uste) nolabaiteko sinonimia ez dela gertatzen, berez, *sasimugatzailedunen* eta partitibozkoen artean, haien eta zenbaitzailedunen artean baizik:

- (81) badaude arazo(ren) batzuk = badaude arazoak = ?arazoak daude

Badira beste gorabehera batzuk ere ikertzeko halakoetan, determinazioari eta numero-komuntadurari dagozkionak, baina bego horrenbestean, aztergai dugun puntuaren haritik gehiago ez aldentzearren.

7. Partitiboa, inespezifikotasunaren adierazpide

Nire iritziz, inespezifikotasunaren jokoan bilatu behar da partitiboaren funtsa. Nik hemen *sasimugatzaille* deitu diodan horren mekanismoa zeharkakoa da, nolabait (erdarazko numeroaren kalko hutsa ez bada): mugatzailearen adiera, izatez, espezifikoa da, baina espezifikotasun hori zentzu generikoan har daiteke: “Otsoak ankerrak dira” diogunean¹⁶, ez gara otso *jakin* batzuez ari, eta hortik-edo halako *sasimugatzaille* erreferentzia-karga espezifikoz arinduak, bai aipamen soiletan (“otsoak”), bai predikatu-osagarrietan (“gehienak otsoak dira”) eta bai existentzia-predikatuan ere: (“badira/badaude otsoak (hemen)”).

Partitiboak, berriz, zuzenean markatzen du erreferentzia (guztiz) inespezifikoa. Euskaltzaindiaren arau-azalpenean (baieztapeneko) partitiboaren testuinguru bat nabarmetzen da bereziki: [izen + izenondo (edo, oro har, adjektibo)] egiturari dagokiona. Bada, ildo berean, beste egitura bat, antzekoa baina bitan banatzen dena, partitiboa errepikatuz:

- (82) Bada otsorik bildots-larruz janzten denik. (=Bada bildots-larruz janzten den otsorik).

Jakina, numeroa zehazten hasiz gero:

- (83) Bada otso(ren) bat bildots-larruz janzten dena.¹⁷

¹⁶ Predikatu-osagarrian, are *sasiago* da *mugatzailea*, komuntadura-marka hutsa edo.

¹⁷ Bide batez: Leizarragak ez luke hor ere mugatzailea erabiliko, partitiboa baizik (mugagabeko komuntadura gordez): “... bat... denik”.

(84) Badira/badaude otso(ren) batzuk bildots-larraz janzen direnak.

Existentzia-predikatuaren erabilera hori berezia da, ez baitu egiten existentzia-adierazpena eta gainerako deskripzioa bitan banatu baino. Hots, funtsean, azken adibideko informazio bera dugu beste esaldi honetan:

(85) Otso batzuk bildots-larraz janzen dira.

Zenbatzaileetan koka daiteke inespezifiktasunaren muga. Adibidea aldatu gabe, "otso bat(zuk)" sintagmak bi adiera onartzen ditu. Batean, kuantifikazio hutsa da, eta ez da espezifikotzat irudikatzen erreferentea (baina bai banakotzat noski, partitiboan ez bezala). Bestean, berriz, hiztunak gogoan irudikatzen d(it)u "otso bat(zuk)"; alegia, "(hiztuna zehazteko gai den) otso jakin bat(zuk)" ulertzen da. Bigarren adiera hori, ez da dudarik, hurbilago dago mugatzailearen zentzu (berez) espezifikotik, eta adiera horretan gertatzen da bereziki harekiko sinonimia (zerbaiten existentzia baieztatzen duenak, izan ohi du haren irudi gutxi-asko espezifikoa gogoan):

(86) Badira/badaude otso (jakin) batzuk... = badira/badaude otsoak...

Beste adiera, berriz, partitiboaren sinonimoago da, bi moldeak erabiltzen diren kasuan (partitiboaren inespezifiktasuna, hala ere, erabatekoagoa da, numerorik eza dela eta):

(87) Badira/badaude otso batzuk... = bada(go) otsorik...

Adiera espezifikoa *ere* onartze hori zenbatzaile zehaztu zein zehaztugabe askorena da: bat, bi, hiru... zenbait, asko, hainbat...

Euskaltzaindiaren azalpenean, bada gauza bat hasieratik harrigarri gertatu zitzaidana eta, zenbat eta auzian gehiago barrendu eta lekukotasun gehiago bildu, orduan eta zalantzarriago zaidana:

"Alde batetik, partitiboa baieztoketan erabiltzea *itzuli enfatiko* bati dagokionez gero, ohiz kanpoko erabilera dela, edo bederen erabilera markatua dela esan beharra da, *ugaritasuna edo bizikitasuna adierazten baita haren bidez, edo baieztapena indartzen*". (etzana, nirea)

Gutziz oker egon naiteke noski ni, eta zeharo zuzena izan baieztapen hori, baina ez zaigu azalpenean berean arrazoirik ematen hala sinets dezagun, eta, nahiz eta horretantxe oinarritu ia dotrina guztia, adibideek ez dute frogatzen, nire iritziz, partitiboaren enfatiktasun hori. Ez azalpeneko adibideek eta ez bestela bil daitezkeenek, zahar nahiz berri.

Beharbada, egin liteke interpretazio hala ere behartu samar bat irizpena nire iritzira hurbilagotzeko: alegia, "itzuli enfatiko bati dagokio" dioenean, ez duela esan nahi partitiboak berak duenik balio hori, hura xertaturik ageri den esaldiak baizik. Horretarako, hala ere, "baieztapena indartze" hori ere partitiboaren bizkar-gainetik kendu beharko genuke. (Beste kontu bat ere argitu behar litzateke: enfasia bada, zergatik den enfasi markatu hori ezohiko). Kontzeptualki ere, nekez ezkontzen da partitiboaren beraren ideia enfasiaren adierazpenarekin, nahiz eta partitiboak parte hartu halako beste egitura batzuetan, hala nola (aukeran) superlatiboekin:

(88) Toki(rik) ederrena.

Hala, zer geldituko litzaiguke? Bada, kontuak ondo atera baditut, baieztapena(ren enfasia) eta numeroa(ren enfasia): “ugaritasuna edo *bizikitasuna*”.

Numeroari dagokionez, ongi ezkontzen da eman dugun azalpena: erabat zehaztu gabea izanik, aise bete daiteke *mugagabetasun* hori adiera enfatiko... baldin eta beste zerbaitek eragiten badu enfasi hori. Bestela, zergatik ez dauka partitiboak halako enfasia beti, baieztapenetik kanpo ere?

Beharbada, ez da misterio handirik ere: existentzia-predikazioa (eta hurbilekoak, *edutea* barne), baieztapenean, erraz kargatzen da enfasis (“bada/badu, gero!...”). Hala ere, ez dirudi hala kargaturiko egitura batean partitiboak berez eman dezakeenik areagoko indarrrik:

(89) Badu(, gero) lana (!).

(90) Baditu(, gero) lanak (!).

(91) Badu(, gero) lanik (!).

Hain zuzen ere, antzeko kontua dugu beste egitura enfatiko batzuetan. Besteak beste, “dirutan” ez da berez enfasiarekin lotua, baina egitura jakinean txertaturik hartzen du bere (kasu horretan bai) adiera enfatikoa:

(92) Badu horrek(, baduenez,) dirutan!

Zuzen bagabiltza, beraz, existentzia-predikatuarekin (eta kidekoekin) bateragarria denez, halako esaldien enfasian bildurik joan daiteke partitiboa, eta, hala, bere numero-zehaztugabetasun erabatekoa kuantifikazio era berean enfatikoaz ulertu:

(93) Bazen han trasterik(!) (=trastetan; traste mordo ikaragarria).

Ez dirudi, ordea, ekonomia dotoreaz landa, aparteko erakarmenik duenik hiztunentzat partitiboak horrek, bestelakoen aldean, enfasia markatzeko orduan:

(94) Baziren/bazeuden han trasteak (ugari, nonahi, bazter guztietan)!

Euskaltzaindiaren irizpenean aipatzen diren adibideetariko batzuek, berriz, lexikotik dakarte enfasia, eta ez dirudi halakoetan ere alde handirik dagoenik “ederrik entzun” zein “ederrak entzun” erabili.

“Haurrak baditut” (nahiz zeinahi aldaera, “Baditut haurrak”etik hasi eta “Haurrak dauzkat”eraino), adiera inespezifikoa nekez(en) onartzen duten testuinguru semantikoetariko baten adibide dira, ez baita batere normala, zer, eta nor bere haurrak erreferente inespezifikotzat hartzea! Elizanburuk ere halaxe dio, xeheago:¹⁸

(95) Badut andrea, badut semea, alaba ere badut nik...

Jakina, hor, espezifikoa izanik erreferentea (nahiz zentzu generikoa ere har dezakeen), ez partitiboa eta ez izenondorik ez dago sartzerik (aposizioan ez bada):

(96) #badut andrerik

¹⁸ “J’ai ma femme / mon fils” litzateke frantsesez, espezifikotasun oso(ago)z.

(97) #badut andre ona/onik

(98) badut andrea, ona

Aski litzateke, hala ere, apur bat aldatzea esaldia, inespezifikotasunaren agertokian gerta gaitezen:

(99) Badut andrea, eta izanen dut noizbait, agian, haurrik.

Existentzia-predikatu oinarrizkotik kanpoko adibide bat ekarri nahi dut orain, Axularrena, beste asko bezala nekez interpreta daitekeena enfatikatizat. Orain artekoak baino muturrekoagoa da partitiboaren erabileran, denborazko menderatu batean baitator:

(100) Ihiztari handiak dira begiak, eta bere gogarako ihizirik eraikitzen dutenean, ez dira erdiets arteño baratzen.

Denborazko perpaus horren adiera generikoa da, eta baldintzatik hurbil dago, baina ez dut uste berezi-berezia ere denik denborazko perpausen artean. Kontua da badirela baieztapenean ere, hor bezala (numerorik gabeko) adiera (guztiz) inespezifikoa eskatzen edo onartzen duten testuinguru gramatikal nahiz semantiko batzuk. Esate baterako, baldintzak adierazia alegiazko izanik, ez da gutxiago alegiazkoa baldintza-ondorioa. Eta ahalerak ere *gertatugabeak* ditu aipagai, eta orobat subjuntiboak, geroaldiak nahiz *omenkako* esaldiek. Halakoetan ere gerta daiteke, bada, Axularren denborazko horretan bezala, aukera-aukerakoa izatea partitiboa:

(101) Arreta gutxituz gero, gertatuko da/litzateke noski istripurik.

(102) Hurbil liteke eulirik.

(103) Gauden isilik, usorik sarera(tu) (dadin) arte.

(104) Eta ba omen da *telefonoa katigatu* erabiltzen duenik. (Ibon Sarasola).

(105) Aurkituko du gogobeteko duenik. (Patxi Goenagari aurkezpen batean jasoa).

Estilo-aukeratzat behinik behin, ez dirudi gaitzestekoak direnik, inolaz ere, halakoak. Jakina, “istripu/euli/usoren bat” nahiz “istripu/euli/uso bat edo beste” erabil daiteke, edo mugatzailearen zentzu generikora gomendatu (“euliak hurbil litezke”), baina ez da nahitaz beti aukera bakarra edo hobea.

Eta ez dirudi, datuei begiraturik, enfasiarekin lotua dagoenik, berez. Harrigarria litzateke partitiboa izatea, inespezifikotasun-markatzailea izanik, enfasiaren ardura-duna; jakina denez, debeku zaizkio enfasi-funtzio tipikoak, hots, galdegaiarena zein mintzagaiarena; bestela esanda, ezin liteke izan, ez tema, ez foku: erreferente (guztiz) inespezifikoa ez baitu nahikoa *mami*.

Eta, edozein modutan, Axularrek bederen ez zuen idatzi, nahiz aukerako izan noski, “bere gogarako *zerbait* ihizi eraikitzen dutenean”, “bere gogarako ihizirik eraikitzen dutenean” baizik (“zerbait” ez baita “ezer”). Enfasirik gabe. Halaxe. Esanahi arunt zehatz horrexekin.

Eta berdin Gandiagak Oñatin bilduriko kanta zaharrea ere:

(106) Erregek ez dau behar / gizon ezkondurik /baizikan mutil libre, txikitin parian paina, / ai libre-libretxorik.

Mutilik behar eta / mutilik egon ez / Errege silan dago, txikitin parian paina, / ai jarrita negarrez.

Neskak badaude baina / ez dute balio / Erregeri begitik, txikitin parian paina, / ai negarra dario.

“Mutilik behar”, ez baitago irudikatzerik hor erreferente espezifikorik, baina “neskak badaude”, daudenek bai baitute nolabaiteko espezifikotasuna (generikoki ulerturik ere), segidak erakusten duenez: “(neskek/neskok) ez dute balio”. Jakina, gaur hemen inor ausartuko litzateken baino harago doa erabilera hori...

Gutxi erabiltzekoa? Bai noski (baieztapenezko), testuinguru egokien urritasun erlatiboarengatik eta, haietan ere, bestelako molde sinonimo samarren lehiarengatik (kuantifikatzaileak, *sasimugatzaileak*...). Horrengatik, eta, beharbada, senak agindutakoan ere ez arriskatzeagatik arautzakoa hausten...

Aldeak alde —partitiboa baino debekua da baieztapenean noski—, “inor/ezer” ere erlatiboki gutxi erabiltzen da ezeztapenetik kanpo (edo batere ez, hizkera batzuetan), eta “norbait/zerbait” ditu lehiakide gogor, baina horrek ez liguke eman behar biderik erabilera hori bitxikeriatzat hartzeko. Izan ere, izenordain (guztiz) inespezifikoa hori gabe, hiztun askorentzat muntadun den bereizkuntza edo ñabardura galduko litzateke:

(107) Zerbait (ehizatuz gero): pieza (jakin) bat (edo beste)

(108) Ezer (ehizatuz gero): piezarik, piezaren bat

Halako testuinguruetan, hiztun askorentzat ez-edo dago lekurik “ezer/piezarik (ehizatuz gero)” moldearentzat, “zerbait / piezaren bat (ehizatuz gero)” egingo bailukete beti. Baina, izan, bada alderik bien artean, baten adiera guztiz (eta garbi) inespezifikoa baita, eta bestea, berriz, zehaztugabea baino ez:

(109) Ikusten al duzu ezer? Ala itsutu zara?

(110) Ikusten al duzu zerbait? Esan, bada, zer.

Komunztadura ere bide beretik bereizten da:

(111) Irtengo ote da hortik ezer onik?

(112) Irtengo ote da hortik zerbait ona?

Azkenik, inespezifikoen ezaugarri nabarmena da (galdegai/mintzagai izateko debekua ildo berean) nekez onartzea lotura anaforikorik:

(113) Zerbait ona ikusten baduzu, hura eros ezazu.

(114) Ezer onik ikusten baduzu, *hura eros ezazu. [Eros ezazu ikusten duzun (gauza on) hori].¹⁹

Ez dut uste asko arriskatzea denik esatea horrek ere murrizten duela inespezifikoaren erabilera (komunztadura-arazorik ere sor dezake, gainera, gaizki erabiliz gero):

(115) *Bazen liburu bikainik, eta erosi egin genituen.

¹⁹ Axularren esaldian, hala ere, bada nolabaiteko anafora: “ihizirik eraiki” > “(hura/?halakorik) erdiets”.

Egoki bide den esparrutxo horretan, ordea, aukera hobea eskaini beharko luke aitzakia(rik) jarri nahi dionak (hots, zehazki partitibozkoak dioena *egokiago* esatekoa, ez beste *antzeko* zerbait esatekoa). Eta, esan dezagun hori ere, ez da estiloari dagokiona soilik aukera. Kontzeptualki, filosofikoki eta are ideologikoki, ez dira gauza bera:

- (116) Bada(go) jainkorik. [Existitzen dela(ko) izen hori dagokion zerik (bat gutxienez)].
- (117) Bada(go) Jainkoa [Existitzen dela(ko) Jainkoa (izen hori dagokion zer bat)].
- (118) Badira/daude jainkoak. [Existitzen direla(ko) jainkoak (izen hori dagokien zer batzuk)].²⁰

Edo, existentzia absolututik kokatura etorritz:

- (119) Baze(goe)n ordenagailurik.
- (120) Baze(goe)n ordenagailua. [?Ordenagailua zegoela(ko)]. (zentzu generikoa: ordenagailu *bat*, baina generikotasunez aipatua, ez kuantifikazioz)
- (121) Baziren/bazeuden ordenagailuak. [?Ordenagailuak zeudela(ko)]. (=“ordenagailu batzuk”, ez ezpezifikoki ulerturik, generikoki baizik)

Honatx, bada, nolatsuko aukerak genituzkeen (zentzuz bata besteari gainezarriak batzuk), debekurik ezarri ezean, maiztasunak maiztasun eta estiloak estilo:

[*numero gabea, adiera inespezifikoa*]

(122) *Inor gazterik* bizi litekeen/den etxea.²¹

(123) *Gazte-jenderik* bizi litekeen/den etxea.

(124) *Gazterik* bizi litekeen/den etxea.

[*numeroduna, adiera inespezifikoa*]

(125) *Gazteren bat(zuk)* gazte bizi d(ir)en etxea.

[*numeroduna, adiera inespezifikoa zein espezifikoa*]

(126) *Gazte bat(zuk) / norbait(zuk)* bizi d(ir)en etxea. [gazte bat(zuk) edozein]

(127) *Gazte bat(zuk) / norbait(zuk)* bizi d(ir)en etxea. [gazte jakin bat(zuk)]

[*numeroduna, mugatua, adiera inespezifikoa (generikoa partitibotzat ulertua?)*]

(128) *Gazteak* bizi diren etxea. [gazteren bat(zuk)]

[*numeroduna, mugatua, adiera espezifikoa zein generikoa*]

(129) *Norbait(zuk)* gaztea(k) bizi d(ir)en etxea. [gazte (gutxi-asko) *jakin* bat(zuk)]. *Gazteak* bizi diren etxea. [gazte *jakin* batzuk]

(130) *Gazteak* bizi diren etxea. [gazte-jendea]

²⁰ Ez dugu hemen kontuan hartzen generoaren auzia, nahiz eta “jainko-jainkosak” egokiago litzatekeen, noski.

²¹ Gutxienean, baiezko perpausa txertaturik dagoen esaldia ezezkoa/galderazkoa/baldintzazkoa izanez gero (hori behintzat seinalatu behar litzateke arauan), ohikoa da partitiboa: “Ez da hori gazterik/inor bizi litekeen etxea”.

EUSKAL GRAMATIKAGINTZA ZAHARRAREN HISTORIA LABURRA: XVII-XVIII. MENDEAK

Ricardo Gómez

UPV/EHU eta "Julio Urkixo" Euskal Filologi Mintegia

0. Sarrera¹

Euskal gramatikagintzak ez du corpus zabalegirik, inguruko tradizio handienekin (espainola, frantsesa, ingelesa, etab.) konparatuz gero behinik behin. Baina Europako esparruan ez da inondik ere makalenetakoa, ezta berrienetakoa ere; kontuan har bedi hizkuntza askok ez zutela gramatika idatzirik izan XIX. mendea iritsi arte (norvegiera eta bulgariera, kasu).² Nolanahi ere den, Europako hainbat hizkuntzaren lehen gramatika-lanak Berpizkunde garaian idatzi ziren, euskararekin bateratsu. Izan ere, Berpizkundean Aurouxek (1994) "bigarren iraultza tekniko-linguistikoa" deitu duena abiatu zen: alegia, munduko hizkuntzen gramatizazio masiboa.³ Aurreko garaietan hizkuntza arrunten gramatikak idaztea oso noizbehinka gertatzen zen: Goi Erdi Aroan Irlanda eta Islandiako adibide bakanak ditugu, eta XIII. mendean galesa eta proventzala. Aldiz, xv. mendetik aurrera, bai Europako hizkuntza nagusiak izan nahi zutenak (italiera, gaztelania, frantsesa, portugesa, alemana, ingelesa), bai hizkuntza "apalagoak" (hungariera, poloniera, euskara bera) eta baita lurralde berrietako hizkuntzak ere (nahuatla, kitxua, guarania...) gramatika eta hiztegien bitartez deskribatu eta arautu ziren, XIX. mendea arte luzatuko zen prozesu batean.

Zergatik sortu zen Europan halako prozesua? Lehenik eta behin, hizkuntza erromantzeen sorrera aipatu behar da (VII-X. mendeetan). Goi Erdi Aroan latina da oraingoz administrazioan, kulturean eta erlijioan erabiltzen den hizkuntza, baita hizkuntza erromantzeen eremutik kanpo ere (germaniarrek, zeltikoak, etab.), baina latina gero eta urrunago dago europarren ama-hizkuntzetatik. Gainera, IX. mendetik aurrera latindar kultura berreskuratzeko ahaleginak hasten dira. Egoera horretan, europar batentzat, latina ikasi egin behar zuen hizkuntza zen, bigarren hizkuntza bat.

¹ Artikulu hau nire doktorego tesiaren (Gómez 2007) zati batean oinarritzen da, hemen argitaratzeko emendatu eta zuzenduta. Bestalde, lan hau Joseba A. Lakarrak zuzendutako Espainiako MEC-eko "Fundamentos para unos *Monumenta linguae vasconum*: historia, crítica y edición de textos vascos (II)" (HUM2005-08047) ikerketa proiektuaren barruan sartzen da. Gidor Bilbaok eta Blanca Urgellek zirriborroa irakurri zuten eta beren oharrez zuzendu eta biziki aberastu zuten; bihoakie nire esker ona.

² Europako gramatikagintza tradizioen agerpenaz, ik. Aurouxek (1992: 74-75) dakarren taula.

³ Lehenbiziko iraultza tekniko-linguistikoa, Aurouxen ustez, idazketaren asmakuntza (K.a. 3000) izan zen.

Latinaren gramatikak baziren, batez ere Donato eta Priszianoren arteetan oinarrituak.⁴ Eta latina ikastearekin batera, gramatika apurka-apurka hizkuntza —edozein hizkuntza— ikasteko lanabes bihurtu zen, baita ama-hizkuntza bera ere. Beste alde batetik, ix. mendetik aurrera Europako hizkuntza nagusiak idatziz jasotzen hasi ziren; harrezkero hizkuntza arruntetan idatzitako literatur tradizioak pixkanaka sortuko ziren. Eta, azkenik, garai hartan latinaren gramatika tresna pedagogiko guttiz garatua zen.

Orduan, zergatik itxaron behar da xvi. mendea arte hizkuntza arrunten gramatikak orokortzeko? Bada orduantxe sortu zelako interesa edo beharra. Bi arrazoi nagusi aipa daitezke hizkuntza baten gramatika egiteko beharra sor dadin: hizkuntza arrotz bat ikasi behar izatea eta hizkuntz politika.

Hizkuntza arrotz bat ikasteko interes praktikoa batzuk biltzen dira, hala nola (1) administrazioaren hizkuntza ezagutzea; (2) testu sakratuen corpusa ezagutzea; (3) kultur hizkuntza bat ezagutzea; (4) merkatu eta politika erlazioak; (5) bidaiak, esplorazioak eta espedizio militarrik; (6) erlijio ideien inportazioa edo esportazioa, eta (7) kolonizazioak.

Halaber, hizkuntz politika funtsean bi interesetan biltzen da: (1) literatur hizkuntza bat arautzea eta antolatzea eta (2) hizkuntzaren zabalkunderako politika garatzea, bai barnean, bai kanpoan erabiltzeko.

Interes hauetako batzuk latinarekin (edo are greko eta hebreerarekin) lot daitezke eta zenbaitetan Erdi Aroan indarrean zeuden. Hala ere, Berpizkundean latinak jarduera intelektual guztietan (literaturan, zientzian, administrazioan, etab.) zuen lekua hizkuntza arruntei egokitzeko mugimendua gertatu zen, nazio modernoek sorrerarekin lotua eta “nazio bat, hizkuntza bat” leloa gauzatzeko asmoz.

Izan ere, hizkuntza gehienek gramatizazioa helburu politikoeekin lotzen da: nazio berrien justifikazioa, boterearen zentralizazioa eta lurralde-eskubideen aldarrikapena. Nazioaren hizkuntza gramatika-erregelen moldeetan sartu nahi zen —kodetu nahi zen—, administrazioan eta politikan erabiltzeko tresna egokia izan zedin. Kontuan har bedi Europako hizkuntza asko mende batzuk lehenago hasi zirela literaturan eta administrazioan erabiltzen, esan bezala. Hala ere, botere politiko zentralista berriak ezin zuen erraz bat egin nobleen eta elizgizonen gizarte feudalean erabiltzen zen latinarekin, Erdi Aroko latinarekin alegia. Latinaren nagusitasuna, neurri handi batean, Elizak gizartean zuen leku gailenagatik gertatzen zen.

Horrela, xvi-xvii. mendeetan —estatuei mailegatutako dirutzari esker— merkatari-burgesiak noblezia eta Eliza gainditu zituen gizarte eta politika hierarkian; beraz, hizkuntzen erabilera eta irakaskuntza berrantolatu ahal izan zituen: pixkanaka latina baztertu zen, hizkuntza arrunten alde. Orobat, humanistek Erdi Aroko latina kritikatu zuten.

Bukatzeko, gramatizazio prozesuaren beste bi eragile aipa daitezke: (1) inprimategiaren erabilerak areagotu zuen hizkuntzaren arautze ortografiko eta morfologikoa eta (2) Erreforma protestanteak jatorrizko testu erlijiosoak ezagutzeari emandako garrantzia. Honen guztiaren ondorioz, hizkuntza arruntak prest zeuden administrazio, literatura eta zientzia zereginetan erabil zitezen.

⁴ Erdi Aroko latin gramatikari buruz, ik., esaterako, Law (1997).

Hurrengo lerroetan euskal gramatikagintza zaharraren historia zirriborratuko dut, XVI. mendeko hastapenetatik XVIII. mendera iritsi arte.⁵

1. Voltaire

Euskara aintzat hartzen duen lehen gramatika-lan ezaguna Voltaireren *L'Interpret ou Traduction du françois, espagnol & basque* hizkuntz eskuliburuan dugu (ca. 1620).⁶ Liburu hau Berpizkundeko hizkuntz eskuliburuaren tradizioan sartzen da bete-betean eta, beraz, halako lan didaktikoetan ohikoak ziren hiru atalak ditu: gramatika, hiztegia eta elkarrizketak.⁷ Voltaireren lanaren lehen edizioa Lyon argitaratu zen eta haren ale bakarra Bordeleko Udal Liburutegian gordetzen da. Hogei bat urte geroago bi aldiz berrargitaratu zen, izenburua aldatuz eta egilearen izenik gabe: *Tresora hirour languaietaqua, francesa, espagnola, eta hasquara. Obra ona eta necessaria nore desiracen baytou eranden lengue horençat* eta *Thresor des trois langues, françoise, espagnolle et basque, ouvre ters utile & necessaire pour ceux qui desirent auoir l'intelligence de susdites langues* (Baiona, 1642). Berrargitalpen gehiago izan ziren XVII eta XVIII. mendeetan, baina hauetan Voltaireren lana arras moztuta agertu zen, elkarrizketak bakarrik —eta ez denak beti— agertzen zirelako.⁸

Lehen edizio moderno osoa Lakarra ondu zuen (1997, 1999), gehienbat Voltaireren interes lexikografikoak eta euskararen historiarekikoak hartaraturik. Hala ere, haren hitzaurrean Voltaireren gramatikaren ("Spece de grammaire") laburpena eskaintzen digu (Lakarra 1997: 11-12). Lakarrak dioenez, gramatika erabat lexikoa da; berrogei orrialdetan, eta frantsesetik abiatuz, Voltairek zenbait kategoria eta azpikategoriaren hitz zerrendak besterik ez du ematen: lehenik, adberbio, preposizio eta juntagailuak (1620: 1-11), gero izenordainak (11-13. or.) eta, horien ondoren, aditz denborak eta moduak (13-40. or.); azkenean, singular eta pluralaren adibideak ematen ditu, denak absolutiboan.⁹ Hortaz, Voltairek ez du deklinabideaz deus esaten, ez bada zeharka eta inolako loturarik gabe, frantsesezko preposizio eta izenordainen itzulpenek euskarazko deklinabide atzizkiak agertzea eskatzen duten neurrian.

Berriki, Sáez Riverak (2006: 447) Voltaireren lanean agertzen diren elkarrizketen iturria aurkitu du. Gabriel Meurier flandestarraren *Coloquios familiares muy conuenientes y mas prouechosos de quantos salieron fasta agora para qualquier qualidad de personas desseosas de saber hablar y escribir Español y Frances* (Amberes, 1568) izan zen.

⁵ Euskal gramatika-lan zaharrei buruz, ik. bereziki Oyharçabal (1989). Autore honek, Larramendi-gramatika mugarri hartuta, hiru ikuspegi bereizten ditu euskara aztertu zuten lehen lanetan: ikuspegi historiko edota apologetikoa zutenak (Oihenart bereziki), ikuspegi didaktikoa zutenak (Voltaire eta Mikoleta) eta ikuspegi deskribatzailea zutenak (Urte, nahiz helburu didaktikoa ere sumatzen dion, eta beharbada galdurik dauden Pouvreau, Bidegarai eta Oiangueren lanak). Artikulu honetan Oyharçabalen lan bikainarekin dudana aitortu behar dut.

⁶ Alde batera uzten ditut Garibairen gramatikazko ohar bakanak; ik. Zubiaur (1989).

⁷ Hizkuntz eskuliburuaren tradizioaz eta haren euskal ordezkariez, ik. Lakarra (1994a: 8-14).

⁸ Edizioen historiari eta bakoitzaren ezaugarriei, ik. Vinson (1891-1898: 55-63 eta 536-537) eta Sáez Rivera (2007: 258-260, 1348-1350, 1459-1465).

⁹ Jakina, izenen, adjektiboen eta aditzen adibideak —baina ez soilik kategoria hauetakoak— gramatikaren ondoren datorren hiztegi alfabetikoan sartzen ditu.

Orobat, bere doktorego tesian Sáez Riverak (2007: 259, 1244) baieztatu du Tresora-ren 1684ko edizioan agertzen diren bi ipuinak (“Cuento gracioso, y verdedero de una Trucha” eta “Otro de un enamorado, ô Pisaverde”) Julliani-ren *La nomenclature et les dialogues familiers, [...] premiere partie. [...] Les proverbes divertissans et les heures de recreation [...] Seconde partie* (París, 1688) lanetik kopiatuta daudela, aldaketak oso txikiak baitira. Nolanahi ere den, euskalaritzaren historiari dagokionez, Sáez Riveraren doktorego tesiaren ekarpen nagusia Voltoireren eskuliburua garai hartako Europako hizkuntz irakaskuntzaren testuinguruan kokatzea da.

2. Oihenart

Askoz garrantzitsuagoak ditugu Arnaud Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiae* historia-liburuan euskal gramatika aurkezteko idatzi zituen kapituluak, lehen liburuko XI.a eta bereziki XIV.a. *Notitia* lehenik 1638an argitaratu zen eta bigarrenik, gehiketa eta zuzenketa garrantzitsuak sartu ondoren, 1656an.¹⁰ Liburua gaztelaniara itzuli zen *RIEV* aldizkarian (1926-1928) eta, latinezko testuaren faksimilearekin batera, 1992an berrargitaratu zen.¹¹ Historialaria izanagatik, euskal gramatikagintza zaharrean Oihenartek leku berezia merezi du, zalantza izpirik gabe; Oihenart da lehen euskal gramatikarietarik analisi zorrotz eta originalenak eskaini zizkiguna, ondoko euskalariengan eragin ñimiñoa izan bazuten ere. Euskal gramatikari eskainitako kapitulu labur eta mamitsuetan Europako Mendebaldean eredu nagusia zen gramatika greko-latindarraren mendekotasuna nabarmena da. Hala eta guztiz ere, aldiaren behin Oihenart gauza da eredu klasikoa gainditzeko eta euskararen deskribapen beregaina eta egokiagoa burutzeko.

Aipagarri da Oihenarten ideien artean gaur egun erabateko balioa duten hainbat ere aurki daitezkeela; ekarpen hauek, dena den, denbora luzea beharko zuten euskalaritzaren barruan arrakasta eta onarpena lortzeko —batzuetan Oihenarten aitzindaritasuna ezezagun edo isilpean gertatu zelarik ere— eta, ikusiko dugunez, baten bat eztabaidagai zen oraindik XIX. mendearen hondarrean. Hona ekarpen horietariko batzuk:

XI. kapituluaren gaia *-a* eta *-ak* singularreko eta pluraleko artikulua direla erakustea da (xehetasun gehiagotarako, ik. Gómez 2001). Aldiz, garaiko iritzi nagusiaren arabera (Marineo Siculo, Merula, Garibai; geroago Pouvreau, Urte, Harriet eta Etxeberri Sarakoa), izenkien bukaerak edo nominatiboaren atzizkiak ziren. Hala ere, uste hau ez zen euskalaritzatik zeharo baztertuko Larramendik (1729) zorrozki kritikatu zuen arte.

¹⁰ Vinsonek *Notitiaren* argitalpen bakoitzeko aleak erkatu zituen eta diferentziak zerrendatu (1891-1898: 80-82). Hizpide dugun zatiri dagokionez, Vinsonek adierazten du bigarren argitalpeneko XIV. kapituluari plegu bat (zortzi orrialde) gehitu zitzaioela, orrialde berriak zenbatu gabe eta, hortaz, zenbakuntza aldatu gabe; halaber, kapituluak guztiz eraberritu zela. Baina ez du kapituluaren edukian gertatutako aldaketaz deus zehazten; xehetasunak hurrengo lan baterako utziz, funtsean bigarren argitalpenak izenordainei, deklinazineiei eta silaben kantitateari buruzko atalak (“De Pronomine”, “De Indeclinabilibus” eta “De syllabarum quantitate”, hurrenez hurren) erantsi ditu eta aditzari buruzko informazioa askoz luzeagoa da, eta desberdin antolatua.

¹¹ Hala eta guztiz ere, Gorosterratzuren itzulpenak huts eta hutsune franko ditu. Horregatik, eta euskal gramatikagintzaren historian duen garrantziagatik, Oihenarten testuak edizio berri bat merezi luke.

xiv. kapituluaren hasieran, Oihenartek euskal deklinabide mota bi bereizi zituen, artikuluduna eta artikulugabea, egun *mugatu* eta *mugagabe* deituz ezagutzen ditugunak, hain zuzen; lehenbizikoa singularra edo plurala izan daitekeela ere adierazi zuen. Mugagabea, alabaina, ez zen berriz euskal gramatikagintzan azalduko Astarloaren eta Humboldtten lanak iritsi arte. Geroxeago Darrigolek (1827) baieztatu zuen bera izan zela mugagabeaz ohartu zen lehena, eta uste oker horrek gutxienez Villasanteren *Historia de la literatura vasca*-raino iraun zuen, Mitxelena (1973 [1985: 134]) salatu bezala.

Deklinabidearen arloan jarraituz, euskararen kasuen artean latinaren paradigmatak kanpo geratzen diren kasu ergatiboa (*casus agendi* edo *activus*) eta partitiboa (*casus negandi seu dubitandi*) identifikatu zituen eta euskarak akusatibo eta bokatiborik ez duela adierazi zuen. Berriz ere, euskal kasu-sistemaren ezaugarri hauek Astarloaren eta Humboldtten lanen zain geratu beharko dute ezagutza eta onarpen zabala izan dezaten. Oyharçabalek (1993) ohartarazi zuen bezala, Oihenartek deklinabide paradigmak eratzean ikuspegi morfoloikiko formala baliatu zuen. Alta, batetik, artikuludun/artikulugabe aurkaritzan sartzen diren atzizkiak bakarrik onartzen ditu, halakotzat jotzen ez dituen leku-denborazkoak kanpoan utziz (postposiziotzat jo zituen, hain zuzen ere); beste alde batetik, kasu eta atzizkien arteko bana-banako egokitasuna ezartzen du, aipatu bi kasu berezien identifikatzea ahalbidetuz, edo erraztuz bederen.¹²

Aditzaren azterketari dagokionez, euskararen berezko aditz-jokoa trinkoa dela (*coniugatio propria*), eta ez perifrastikoa (*coniugatio impropria*), proposatu zuen (Oihenart 1656: 63). Ondoko gramatikariek, Larramendi buruzagi, perifrastikoaren jatorrasuna eta atzinasuna aldarrikatu zuten eta Oihenarten iritzia ez zen XIX. mende hondarra arte berragertuko, garaile berragertzeko bada ere; jarrera bakoitzaren aldekoen zerrenda ez oso baterako, ik. Gómez (1989: 361). Laguntzaileen sistema aski ongi eman zuen Oihenartek, lau laguntzaile aipatu baitzituen —*nais*, *dud*, *adi* eta *esac*—¹³ eta modu eta denboren arteko euren banaketa egoki bereizi (Oihenart 1656: 69). Van Eysen proposamenak iritsi arte, ez zen lauko eskema hau berragertuko (ik. Gómez 2002).

3. Pouvreau

Silvain Pouvreaux gramatika ohar batzuk utzi zituen bere eskuizkribuetan eta egun Parisko Liburutegi Nazionaleko Fond Basque-Celte-ren 8. eskuizkribuan daude, 1-3. orrietan zehazki. Oharrok Vinsonen argitaratu zituen bi aldiz (Vinson 1881, 1892). Pentsatu izan da testu hau Pouvreaux prestatu nahi zuen gramatikalan baten zatiak edo zirriborroak direla (Oyharçabal 1989: 63) eta hala ematen dute aditzera Pouvreaux idazten dituen kapitulu eta atal izenburuek; ez dakigu, halere, gramatika-lan hura inoiz burutu zuen.

¹² Izan ere, partitiboa paradigma artikulugabeen bakarrik sartzen da, sei kasu dituen bakarrean. Singularrak eta pluralak, aldiz, bosna kasu dituzte.

¹³ Zehazkiago, Oihenartek dioenez, lehenengo biak aditzak ere badira (*nais* eta *dud*) eta beste biak aurrekoen laguntzaileak (*adi* eta *esac*, hurrenez hurren).

Pouvreauren gramatika ideiak ez dira oso originalak: ez du *-a* artikulutzat hartzen, nominatibo singularizat baizik; latinaren komuntadura-ereduari jarraituz, uste du izenak kasua galtzen duela adjektiboarekin edo beste hitz batzuekin (*bat*, *batzuk*, erakusleak) azaltzen denean, salbuespen gisa guretzat berezko *-a* duten hitzak aipatzen dituela (*aita*, *ama*, *alaba*...); jatorrizko adjektiboak eta adjektibo eratorriak bereizten ditu, bigarrenak *-zko*, *-ko(a)* eta *-ren(a)* atzizkiak dituenak izanik; bi nominatibo bereizten ditu, aditz substantibo edo pasiboekin erabiltzen dena (*-a*) eta aditz aktiboekin erabiltzen dena (*-ac*); paradigma mugagabeko atzizki berezietz ohartu zen, baina ez zen konturatu mugagabearen izaeraz. Nabarmenezkoa da gramatika zati hauetan Pouvreauk bere hiztegia aipatzen duela: “Cette petite particule vsurpee par syncope ou abbreuiation du mot d’*Ecina* que vous verrez dans mon dictionnaire sert pour expliquer le défaut du verbe non possum, je ne puis” (ik. Vinson 1892: 7-8).¹⁴

4. Mikoleta

Rafael Mikoleta bilbotarrak *Modo breue de aprender la lengua Vizcayna* idatzi zuen 1653an. Eskuizkribua Londresko British Museum-en dago eta XIX. mende amaieran argitaratu zen estreinakoz (Sampere y Miquel 1880, Dodgson 1897). XX. mendean Zelaietak osorik argitaratu zuen bitan (1988, 1995) eta Mikoletaren lanaren zati batzuek —baina inoiz ez gramatikak— zenbait edizio izan dituzte (Mitxelena 1964: 132-135, Sarasola 1983: 188-208). Mikoletaren gramatika oso laburra da eta ez dago garbi argitaratzeko asmorik izan zuen ala, enkarguz, pertsona bati euskara ikasten laguntzeko ondu zuen (cf. Zelaieta 1995: 6-7).

Mikoletaren gramatika hiru atal bereiz daitezke. Lana hasten da “Modo breue de sauer declinar los nombres vascongados” atalarekin. Bertan, Mikoletak adierazten du euskal izenek eta adjektiboek *-a* eta *-ac* amaiera dutela, izen berezietz izan ezik; izenak, adjektiboarekin agertzean, bukaera galtzen du. *Xaun* izenaren deklinabidea aurkezten du, singularrean eta pluralean; jakina, mugagabeaz ez du deus esaten. Mikoletaren paradigmetan, latinaren sei kasuak agertzen dira. Haren azterketa latinari oso atxikia agertzen zaigu, kasuen funtzioak aintzat hartzen baititu (nahiz eta Larramendiren mailara heldu gabe; ik. beheago): hala, Mikoletak datiboaren azpian egungo destinatiboa ere sartzen du eta ablatiboaren azpian, inesiboa eta soziationiboa; genitiboari artikulua gehitzen dio (sing. *Xaunená* ‘del Señor’, pl. *Xaunenác* ‘de los Señores’); alabaina ergatiboaren atzizkiak ez ditu ematen.

Mikoletaren gramatikaren bigarren zatia “Conjugacion de los Verbos Vascongados” izenburuarekin hasten dena litzateke. Lehenbizi, *equin* aditzaren jokoa aurkezten du eta ohartarazten du aditz ez-ergatibo batzuekin ere (*neutros* deitzen die Mikoletak) erabiltzen dela, hala nola, *loo* ‘dormir’ eta *ossa* ‘haze frio’. *Ysan* aditzaren jokoa eskaintzen du. Atal honen amaieran, Mikoletak adierazten du joko guztien berri ematea ezinezkoa dela eta erabilerak irakasten duela.

Hirugarren atala “Otras reglitas sueltas” izenburuaren ondoren dator. Besteak beste, konparatiboez eta zenbait postposizioen erabileraz (*ra*, *ic* edo *ganíc*) dihardu.

¹⁴ Vinsonek hauxe eranstean du oin-ohar batean: “Au lieu de ‘mon dictionnaire’ le ms. portait d’abord ‘le dictionnaire que je vous fournis’” (1892: 7).

Amaieran, *egon*-en bidez eraturako pasiboak eta *egon* aditzaren orainaldiko eta lehenaldiko paradigmatik agerrarazten ditu.

5. Bela

Jakes Bela politikari eta legegizon zuberotarrak euskal gramatika bat eta hiztegi bat idatzi zituen, egun galdurik daudenak. Esan izan da lan hauek *Tablettes* entziklopedia moduko lan mardulean —plegu-laurdeneko 6 liburuki— eta oraingoz argitaragabea zeudela, antza denez falta den liburukian, hain zuzen ere (Peillen 1988: 98).¹⁵ Halarik ere, Clément-Simonek (1894-1895: 219-220) emandako datuen arabera, badirudi *Dictionnaire basque* eta *Compendium de grammaire basque* lanak *Tablettes*-etatik berezirik zeudela; *Tablettes*-etan aipatzen ditu Belak, baina ez ziren haien zati bat. Beste alde batetik, Peillenen ustez (1988: 128), gramatikari eta hiztegiari zegozkien orrialdeak Joan Felipe birbilobak hartu zituen eta bere gramatika eta hiztegirako baliatu; nolana ere den, Joan Felipe Belaren hiztegian ez da oraingoz birraitonaren hiztegiaren arrastorik ziurtatu ahal izan. Jakes Belak errefrau bilduma txiki bat ere utzi zigun (cf. Mitxelena 1964: 183-186).

6. Bidegarai

Dominique Bidegarai frantziskotarraren gramatika ere galdu da, baina haren lanen arrastoak jarraitu ahal dira Nafarroako Estatuaren Deliberamenduen Erregistroan, lehenik Dubaratek (1914-1917) eta gero Oyharçabalek (1989) egin bezala. Bidegarai, 1675-1679 urteen artean, zenbait diru-eskari aurkeztu zituen bere lanak argitaratzeko. 1675eko agiriek dioskute Bidegarai hogeni urtez euskara-frantses-latin hiztegi hirukoitz bat ondu zuela, gazteek Euskal Herritik atera gabe zientzien ataria den latina ikasteko. Bidegarai 4.000 liberako diru-laguntza eskatu zuen lau urtetan lana argitaratzeko; hala ere, Estatuak uko egin zioten. Hurrengo urtean bigarren eskari bat egin zuen eta bertan hiztegiari gaztelania erantsi zion. Halaber, deliberamenduan azaltzen da euskara ez dela arautu, ezta zientzietan erabili, eta azpimarratzen da euskara dela hebreeraren antza duen hizkuntza bakarra eta, hebreera izan ezik, zientzia eta elokuentziarako egokiena. Bidegaraiaren lanak nazioarteko harremanetarako eta merkataritza erlazioetarako ekar lezakeen abantaila ere nabarmentzen da. Hartara, Estatuak batzorde bat izendatu zuten eskaria azter zezaten.

1677ko batzarrean Bidegarai eskaria berretsi zuen eta batzordeak hiztegia eta *Rudimens* direlakoak —hots, Etxeberri Sarakoak gramatikaren *hatsapenak* deituko zituenak— onuragarri eta erabilgarriak izango zirela baieztatu zuen. Gramatikan euskararen deklinabidea eta aditz-jokoa azaltzen zirela aipatzen da: “Qu’ils fairont enfin rapport sans doute des Rudimens basques qu’ils ont pareillement examinez, où il

¹⁵ Cf. orobat Prevost & d’Amat (1951; *apud* Ajasse 2005: 35): “On conserve de lui *Tablettes*, encyclopédie méthodique en 6 volumes (l’un d’eux est perdu) où il traite *de omni re scibili* et aussi de lui-même”. Bide batez, Ajasse-ren katalogokoa liburuki galdua izan liteke: “Le présent manuscrit est sans doute celui que Roman d’Amat considérait perdu” (2005: 35). Hala ere, katalogokoa laugarren liburukia da (*Jus-Off*) eta Clément-Simonek hirugarren liburukia (*Exemples-Justice*) falta dela dio (1894-1895: 218).

réduit cette langue en règles et que de la manière curieuse et surprenante de décliner et conjuguer qui y est observée”; era berean, hebreerarekiko erkatzeari eusten zaio, bi hizkuntzetan aditzek generoa baitute, latinean ez bezala (ik. Dubarat 1914-1917: 13). Euskara “langue mère” dela ere agertzen da. Ondorioz, Estatuak 600 liberako diru-laguntza ematea onartu zuten, baina Bidegaraik ez zuen sosik jaso, ezta 1679an hil ondoren haren oinordekoek ere. Dubaratek dioenez (1914-1917: 9), hiztegia eta gramatika argitaragabe geratu ziren eta baliteke Iraultzaren garaian Paueko Sokadunen Artxiboekin batera sakabanatu eta galdu izatea.

7. Etxeberri Sarakoa

Joanes Etxeberri Sarako medikuak latina ikasteko *Escuarazco hatsapenac latin ikhas-teco* (Etxeberri 1712) idatzi zituen, euskaraz eta latinez, bere hiztegi laueledunaren “cimenduac, çainac eta erroac” izan zitezen. Etxeberri Lapurdiko Biltzarrari aurkeztu zion bere lana eta 1727an 3.000 liberako aurrerakina eskatu zuen, inprima zedin. Ez zuen lortu eta eskuizkribua inprimatu gabe geratu zen, Julio Urquijok Zarauzko Frantziskotarren komentuan aurkitu zuen arte (Urquijo 1907). Etxeberriren lanak bi parte ditu: lehena *Escuararen hatsapenac*¹⁶ apologi lana da eta bigarrena, *Escuarazco hatsapenac latin ikhas-teco* gramatika-lana. Eskuizkribuaren zati handi bat bi zutabetan antolatzen da: ezkerrekoan euskarazko testua eta eskuinekoan, latinezkoa. Baina Urquijok ez zuen argitaratu Zarauzko eskuizkribuaren latinezko testu gehiena. Geroztik, Xabier Kintanak bertsiio askoz ere laburragoa eman zuen argitara, “latinezko deklinazioak eta aditzen parte luze eta aspergarria alde batera utzirik” (Kintana 1972: 15).

Gidor Bilbaok bere doktorego tesian eta zenbait artikulutan (Bilbao 2006a eta 2006b) Etxeberriren lanen helburuak, egitura, edukia, iturriak eta testu-arazoak bikain eta xeheki aztertu ditu, baita Zarauzko eskuizkribuaren edizioa prestatu ere.¹⁷ Hala, besteak beste, erakutsi du *Escuarazco hatsapenac* Sarakoaren proiektu hirukoitza zaren zutabe bat izan zela eta, orobat, latina irakasteko erabili ziren *rudimenta* esku-liburuaren tradizioan kokatu behar dela; are gehiago, Etxeberri bere gramatika idazteko Hannibal Codret (1525-1599) jesuita eta gramatika-irakasle savoiaerraren lan bat izan zuen eredu: *De primis Latinae grammaticae rudimentis libellus* edo, frantsesezko izenburua duten edizioetan, *Les Rudimens ou les premiers principes de la langue latine* (cf. Bilbao 2006a).

Escuarazco hatsapenacen egituraz hitz bi baino ez dut esango. Etxeberriren gramatika, izenburuan ageri denez, euskaldunei latina ikasten laguntzeko da eta, hortaz, latinaren gramatika eta formak ditu abiapuntu.¹⁸ Gramatikak hiru atal ditu: lehenbizikoa latinezko deklinabide paradigmak ematen ditu (Etxeberri 1712: 307-322); bigarrenean, aditz-jokoaren paradigmak (325-415. or.) eta, hirugarrenean, gramatikaren

¹⁶ Gidor Bilbaok ezarritako izenburua hautatu dugu; lehenengo zati hau Urquijok *Laburdiri escuararen hatsapenac* izendatu zuen eta Kintanak, *Eskuararen ethorkia*.

¹⁷ Guztiarekin ere, Etxeberriren gramatikaren erreferentziatarako Urquijoren edizioaz baliatuko naiz oraingoz, Bilbaorena noiz argitaratuko zain.

¹⁸ Irudi luke, ordea, zenbaitetan euskaratik abiatzen dela, hala nola “Sum vocativoarequin eta generoarequin conj[ug]atua” atalean, non *izan*-en indikatiboaren orainaldiko eta iraganaldiko adizki alokutiboak agertzen diren, latinaren gramatika batean behar ez badira ere (Etxeberri 1712: 337).

zatiei, perpaus-atalei eta komunztadurari buruzko galde-erantzunen bidez azaldutako xehetasunak (416-445. or.). Etxeberriek latinaren ohiko zortzi perpaus-atalak bereizi zituen; hauexek dira eman zizkien deiturak: *icena*, *icenaren ordaina*, *verboa*, *participioa*, *adverbioa*, *preposicinoa*, *juntaguina* edo *juntagaillua* eta *interjecinoa*. Lehen eta bigarren atalen artean zenbait ohar solte sartzen dira (323-324. or.): euskarazko bi nominatiboen (egungo absolutibo eta ergatiboaren) erabileraz, *-ena* eta *-enak* “genitiboan” arteko bereizketaz eta <c> eta <ç> letren banaketaz. Hirugarren atalaren ondoren Urquijoren ustez zirriborroak diren hiru orrialde daude (446-448. or.); azkenik, eskuizkribu osoaren aurkibide amaigabea dago (449-450. or.).

8. Urte

Etxeberriek bere gramatika-lana ondu zuen urte berean, beste lapurtar batek, Pierre Urtek, euskal gramatika luze bat (Urte 1712) idatzi zuen bere sorterritik kanpo, protestantea izanik Ingalaterran erbesteratua baitzen. Urterena dugu, hain zuzen, neurri handiko lehen euskal gramatika ezaguna; gehienbat frantsesez idatzi zuen Urtek, inoiz latina eta oso bakanka ingelesa ere baliatu bazituen ere. Wentworth Webster euskalari ingelesak argitara eman zuen XIX. mende amaieran, originalaren kopia bat oinarri hartuz (Webster 1900). Hala ere, gramatika honek ez du euskalarien arreta gehiegi erakarri, alde batera uzten baditugu Allières-ek Urteren aditzaz utzi zituen bi artikuluak (1985, 1991), Urkizuk Urteren hiztegiaren edizioan idatzitako oharrak (1989: 69-79) eta, jakina, Oyharçabalek Larramendiren aurreko gramatika-lanen aurkezpenean eskaini zizkion orrialdeak (1989: 68-72). Bestalde, Clark eta Vinsonek (1893-1894) Urteren gramatikako hiztegia eta beste zati batzuk argitaratu zituzten; Lakarrak ere Urteren gramatikako hiztegia argitaratu zuen (1994c) eta hari buruzko xehetasun zenbait eman zituen (1994b).

Urteren gramatikaren egiturak guztiz eredu greko-latindarreko gramatikei jarraitzen die. Zehazkiago, Gidor Bilbaok (2008) frogatu du Urtek erabili zuen eredu Claude Mauger frantsesaren gramatika didaktikoa¹⁹ izan zela. Urteren lanaren hasieran ortografiari buruzko orri batzuk daude, Aita Gurearen testuarekin eta zenbait azalpen etimologikorekin amaitzen direnak. Ondoren, testuaren zati nagusia betetzen duen perpausaren atalen aurkezpena dator. Lehenengo atalak kategoriaka antolatutako hiztegi moduan ekartzen ditu Urtek: hurrenez hurren, izenak (gaika antolatuak), adjektiboak eta “akzidente” izendatzen dituenak —hau da, galdetzailak, erakusleak, zenbakiak eta zenbait atzizkiz osatutako hitzak—. Deklinabidearen aurkezpenak hartzen ditu hurrengo orriak, latin gramatikaren ereduari hertsiki lotuak. Aditzaren azalpenak 330 orrialdetik gora betetzen ditu Webster-en edizioan (1900: 77-410), gramatikaren atal luzeena, alde handiz; bereziki atal honek islatzen du Urteren gramatikaren ezaugarri nagusietako bat: hainbat eta hainbat datu eskaintzen ditu, askotan ordena oso argirik gabe, baina analisi eta azalpen oso gutxi kausi daitezke. Adizki jokatu gabeak ere bi zerrendatan antolatuta daude (cf. Webster 1900: 302-410): zerrenda batean, *naiz* laguntzailea hartzen duten aditzak sartzen dira eta, bestean, *dut* laguntzailea hartzen

¹⁹ Lehenago ere Oyharçabalek (1989) iradoki zuen Urteren gramatikaren helburua didaktikoa izan zitekeela, Urtek inon halakorik aitortu ez bazuen ere.

duinak. Zerrenda hauen ondoren perpausaren gainerako atalak datoz: partizipioa, adberbioa, preposizioa, juntagailua eta interjekzioa. Gramatikari buruzko informazioa sintaxiak ixten du, arreta guztia komuntaduran eta joskeran jarriz. Hurrengo orrietan figurak aurkezten ditu, tradiziozko gramatikagintzan oso ohikoa zen atala, alegia; hemen eta sintaxian frantsesaren eta euskararen adibideetan hitz ordena desberdinak markatzen ditu, hitzen gaineko letrak eta bestelako ikurrak erabiliz.

Adostasun nahiko handia dago (ik., esaterako, Vinson 1901, Mitxelena 1960 eta Oyharçabal 1989) Urte gramatikariaren merezimenduak ez direla handiegiak, datu biltzaile gisa ez bada;²⁰ alabaina, horretan ere —haren hiztegi gile lana ezagututa (cf. Lakarra 1994b)— susmo sendoa izan dezakegu ez ote zituena aditz paradigma asko ereduari jarraituz sortu edo osatu, bere herriko hizkerako “altxorretik” idoki beharrean. Datuen bildumatik landa, Oyharçabalek (1989: 72) dioenez, Urte “[est] loin de la sagacité d’un Oihenart ou de la richesse et la fécondité des analyses méthodiques d’un Larramendi”.

9. Larramendi

Manuel Larramendiren *El imposible vencido* (1729), jakina denez, lehenbiziko euskal gramatika-liburu argitaratua da. 1853an berrargitaratu zen eta hurrengo urtean frantsesezko sasi-itzulpen bat izan zuen (Blanc 1854). Hordagoren faksimileen artean ere kaleratu zen 1979an. Damurik, gramatika garrantzitsu honek ez du oraindik edizio modernorik izan. *Artearen* lehen zatiak, luzeenak, egun flexio-morfologia deitzen duguna aurkezten du: funtsean, deklinabidea eta aditz-jokoa (1729: 1-256); bigarren zatia sintaxiari buruzkoa da, perpaus-atal bakoitzaren egitura aztertzen duena (257-335. or.), eta hirugarrenak azentuz dihardu (336-372. or.); liburu amaizten da euskal poemagintzari buruzko eranskin batekin (373-395. or.).

Larramendiren gramatikagintzaren ezaugarri orokorreki kontu egiten badiegu, bi joeraren arteko tentsioa nabari daiteke: alde batetik, orduko gramatikagintza tradizioarekiko —zehazki, eredu greko-latindarrarekiko— atxikimendu hertsia nagusi da; baina, bestetik, zenbaitetan Larramendi eredu horretatik aldendu egiten da, euskararen deskribapen egokiagoa lortzeko asmoz (ik. Gómez 1991). Adibidez, Larramendik, oro har, tradiziozko eredu onetsi zuen arren, eredu hari, garaiko gramatikarien terminologia hedatuenari, iritzi zabalenei, eta abarrei buruz aski kritikiko ere —eszeptiko batzuetan— azaltzen da; ik., adibide gisa, Larramendi (1729: 43, 59, 72, 232, 249 eta 318). Eredu greko-latindarra egitura desberdina duen hizkuntza bati egokitzean, arazoak eta desegokitasunak sortu zitzaizkion, Europako hizkuntzekin apalkiago eta Asia eta Ameriketako hizkuntzekin nabarmenkiago gertatzen zen legez. Larramendik badaki, jakin, ereduak mugak dituela (1729: 85) eta badu, orobat, bere aitzindaritasunaren kontzientzia argia. Ildo honetan, hitzurrean euskararen apartekotasunaren eta honek zekarz-kion zailtasunen berri ematen du, euskararen izaera postpositiboa azpimarratuz.

Zernahi gisaz —eta garaiko jarrera arruntena izanik—, Larramendik itsu-itsuan jarraitzen dio greko-latindar gramatiken ereduari, gehienetan oharkabean bada ere.

²⁰ Webster (1893: 544) eta Urkizu (1989: 79) ez dira iritzi berekoak eta Urte gramatikari handitzat jotzen dute.

Hala, latin gramatikaren ohiko zortzi perpaus-atalak aipatzen ditu, preposizioaren ordezt postposizioa emanez eta artikulua izenaren eta izenordainaren barruan sartuz (1729: 258-259). Halaber, numeroari dagokionez, ez da mugagabeaz ohartzen eta honek, inoiz edo behin, *ad hoc* egindako deskribapen batzuk idatzarazten dizkio (1729: 18-19, 40-41 eta 286).

Izen morfologiaren arloan, Oihenarten irizpide formalaren ordezt, Larramendi irizpide funtzionalaz baliatzen da deklinabide-paradigmak eratzeko. Hau dela eta, latinaren sei kasuak gordetzen saiatzen da, baina kasu bakoitzean ahalik eta euskarazko marka gehienak sartzen ditu. Adibide zuzena dugu kasu datibo eta ablatiboekin gertatzen dena: Lehenengoan, ‘a’ eta ‘para’ itzulpenek behartuta, berezko datiboari (*arí*) destinatiboa ere (*aréntzat*) eranstean dio, Mikoletaren lanean ikusi dugun bezala. Bigarrenean, ablatiboak latinez dituen funtzioak buruan izanik, kasu hau saski-naski bihurtzen da Larramendiren deklinabide-paradigmatan, era askotako atzizkiak metatzen baititu bertan: gure soziationa (*aréquin*), motibatiboa (*agátic*), inesiboa (*án, eán, agán*) eta, harrigarriki, *gabe* postposizioa.

Deklinabide-paradigmak aurkeztu ondoren, Larramendik euskal izen arruntek beste “artikulu” batzuk badituztela adierazten du (1729: 8-11).²¹ Partitiboaren markak (*íc, ríc*) nominatibo eta akusatibo singularrari atxikiko dizkie, egoera zehatz batzuetan soilik erabiltzen direla ohartuz. Genitiboaren barnean sartzen ditu instrumentalaren markak; *áz, záz* eta *z*, *ez* artikulua bereizten ditu eta bigarrenak ablatiboaren antz handiagoa dutela eranstean du. Ablatiboan sartzen du, bestalde, *az* postposizioa, “que corresponde á la preposicion de ablativo *con*, v.g. *espatáz, maquilláz jo-deu, il-zuen*” (1729: 11). Azkenik, leku-denborazko kasu gehienak adberbioen sailean (1729: 323-331) sartzen ditu Larramendik. Izan ere, adberbiotzat ditu inesiboko atzizkiak (berriz ere), ablatiboa, *-ko* atzizkia, *-(t)ar* atzizkia, adlatiboa eta hurbiltze-adlatiboa (*-ronz*). Jokabide honen arrazoia, aldeak alde, Oihenartena-aren antzekoa izan liteke: alegia, atzizkiotan Larramendik artikulurik antzematen ez duenez, ez dagozkio deklinabideari. Gogoratu Larramendiren iritziz euskaraz artikulua deklinatzen direla. Dena dela, adberbio hauetako batzuetan singularraren eta pluralaren arteko bereizketaz hitz egiten du, baina ez adberbioei dagokionez, baizik eta adberbioak atxikitzen zaizkien izenei buruz. Azkenik, Larramendik aurreko hiru atalak —deklinabideko atzizkiak, beste artikulua eta adberbioak— euskararen postposizioen barnean sartzen ditu (1729: 331-334). Hauetaz gain, “genitiboa eskatzen” duten beste postposizio batzuk sartzen ditu: *aurreán, atzeán, contra, ondoán, aldeán, gañeán, azpián, arabera* eta *barrenén*.

² Beharbada, hitzun batzuek (denek ez) singularra eta plurala bereizten dituzte Klase III eta IV-ko hitzekin, azentu mota aldatu gabe baina pluralean silaba azentudunari tonu baxuago bat emanez. Hau ziurtatzeko ikerketa gehiago egin behar da.

Jacobsenek (1975: 84-85) Oiartzunen azentuaz ematen dizkigun xehetasunak, beren laburrean, bat datoz Goizuetako datuekin. Ergatibo singularraren eta absolutibo-ergatibo pluralaren arteko desberdintasunaz mintzo delarik, eta *gizonak*, *txakurrak* adibideak direla-ta, singularrean eta pluralean, hauxe esaten digu: "... both kinds of words give the impression of being stressed on the second syllable, but the pitches of these syllables differ, high in the singular, low in the plural" (84. or.). Eta apur bat beherago: "Another accent seems to be needed to account for the high pitch of the first syllable of a word like *sémea* 'son', ergative singular *sémeak*. Unlike the situation in other dialects we have discussed, this special marking of a singular stem does not inhibit a plural accentuation, which shows the low pitch on this same first syllable: *sèmeak* 'sons'" (85. or.). Gaur egun bereizkuntza hauek Oiartzungo hizkeran galdu badira ere, Goizuetan oraindik ere gorde dira. Esan dezakegu Jacobsenen susmoak ("give the impression", "seems to be needed") oso datu guttitan oinarrituta ("a limited amount of observation" esaten du), orain baieztatu ditugula Goizuetako datuen neurketa akustikoekin (HLT). Jacobsenek ikusi zuen bezala, badugu *gizónak* Erg-sg, goranzko azentuarekin eta *gizónak* Abs/Erg-pl beheranzkoarekin; *sémek* Erg-sg eta *sèmek* Abs/Erg-pl. Honetan ere Jacobsen dugu aitzindari.

Aipamen forman (*citation form*), hau da, hitz soltea esaten denean, badago beste azentu bat azken silaban, Zubirik (2000) ikusi zuen bezala. Hala ere badira arrazoiak pentsatzeko bukaerako azentua esaldi-mailakoa dela eta fokuarekin dagoela lotuta, suedieraz gertatzen den moduan (ikus HLT). Kontuan hartu behar da aipamen forman hitzak esaldi oso bat osatzen duela eta, ondorioz, esaldi deklaratiibo baten prosodia hartzen duela. Hemen bakarrik azentu lexikalaz arduratuko gara eta ez dugu beste prominentziarik adieraziko.

Esan dugu lan honetan Goizuetako azentu-sistema esplikatutako nahi dugula, azentuaren gauzatze fonetikoa alde batera utzita. Azentu-sistema esplikatzeak bi gauza esan nahi ditu, funtsean: alde batetik, azentu klase desberdinen banaketa lexikalaren arrazoiak erakustea eta, bestetik, beste euskal azentuarekin diakronikoki lotzea. Hauetariko lehen lanarekin hasiko gara hemen. Artikuluan zehar, baina, batez ere, azken ataletan, beste euskal hizkerekiko azentuzko korrespondentziak ere erakusten saiatuko gara (bereziki Bizkaiko doinu-azentuzko sistemarekikoak). Korrespondentzia hauen atzetik ezkuta litekeen proto-sistemaz, aldiz, ez dugu gauza handirik esanen, gai hori, nolabait, artikulu honi ezarri dizkiogun mugez kanpo gelditzen baita.

2. Izenak eta adjektiboak

2.1. Oinarri bisilabadunak

Azentu-moten banaketa ikertzeko komeni da bai oinarriaren silaba kopurua eta bai hitzaren jatorria ere kontuan hartzea. Jakina denez, euskal jatorrizko oinarri arruntenak bisilabadunak direnez, hauekin hasiko gara. Ematen dugun azentuera mugagabekoa eta singularrekia da. Ikusi dugun bezala, Klase I eta Klase II-ko hitzetan, azentua beheranzkoa da pluralean; beste azentu motetan singularrak eta pluralak azentuera berbera dute:

(3) Euskal jatorrizko izen-adjektibo bisilabadunak

Klase I [+2, g]: ardó, artó, astó, até, aulkí, basó ('oihan'), besó, burú, buztán, buztín, eró, errí, eulí, gazté, gizon, iél ('igel'), le(y)ó, mandó, mendí, odól, usái, alái, anái, arrái, artzái, unái, zelái, sué ('suge'), ué ('ohé'), uí ('ogi'), usó, xaú ('sagu'), zakúr, zozó...

Klase II [+1, g]: áma, átta, mátte, séme, úme; ári ('ahari'), árdi ('ahardi'), lámot ('larunbat'); ínal ('ahalegin'), zále.

Klase III [+2, b]: ---

Klase IV [+1, b]: àurre, àtze, tàrte, bèste, èya³ ('egia'), èuzki, èuldi ('egualdi'), màlko, mènpe, zìztu

Adibideetan ikusten den bezala, ia-ia euskal jatorriko bisilabadun guztiak Klase I-ean daude. Klase II-koak, hau da, goranzko azentua lehendabiziko silaban dutenak, aldiz, oso gutti dira, eta ia denak klase semantiko berekoak (*áma, átta, séme, úme*). Horretaz gain, kontrakzioa pairatu duten hitzak ditugu talde honetan: *ahári* > *ári*, *ahárdi* > *árdi*, eta maileguetan (*anate* >) *aháte* > *áte*. Baita *lámot* < *larúnbat* kasuan ere, azentua lehen silaban kontrazioaren bidez esplikatzen da, *láun* < *lagún* hitzean bezala. Bestaldetik, *ínal* (< *egin-ahal*) konposatu zaharra da eta horrek esplikatu luke bere azentuera; *zále* ere gehienetan konposatuetan erabiltzen da.⁴ Azkenik, Klase IV-ko adibide gehienek (*àurre, àtze, bèste, èya* ('egia'), *èuzki* (jatorriz hiru-silabaduna), etab.) azentuera berezia dute mendebaldeko euskalkietan ere (ikus, besteak beste, Gaminde & Hualde 1995). Horretaz zerbait gehiago esanen dugu geroago.

Maileguei so egiten badiegu, ordea, oso bestelako egoera aurkitzen dugu:

(4) Mailegu bisilabadunak

Klase I [+2, g]: amú, katé, katú, lekú, pixtí, soró

Klase II [+1, g]: áte ('ahate'), áltu, ánka, árma, árte, báju, dénda, díru, f(i) ésta, fláko, frésko, gástu, gáuza, géla, gíro, káka, kále, kárga, kéja, kóntu, kópa, kréma, lóre, lúma, mérke, míru, méza, mútu, néke, págo, páke, pála, páрте, páuso, píku, píntza, píñu, písu, píxa, pláza, póte, púru, púztu, sóñu, yénde, yóku, zápo

Klase III [+2, b]: purè,⁵ Fermin, Fidèl, Olàtz

Klase IV [+1, b]: àrbol, bàso ('edalontzi'), dènbo ('denbora'), dísko, gòma, gòna, jèrtse, kàfe, kànto, kàña, kàrro, kàsò, kàzo, kilo, kinto, kòtxe, kuàdro, líbru, màilu, màisu, màndo (telebistarena), màpa, mòro, mòto, mùki, pàre, pèna, pùnta, pùntu, pùri(-purin), sàla, sàntu, sílla, sòto, sùsmo, txístu, zèro, zòla

³ <y> hizkiarekin adierazten dugun soinu palatala oso ahula da Goizuetan; hurbilkaria da, ez frikaria. Hizki hau eta ez -i- erabiltzen dugu silaba banaketa argiago erakusteko. Bestaldetik, <j> hizkiarekin beloko frikari ahoskabea adierazten dugu.

⁴ Zenbait adberbio eta galdetzaile ere azentu klase honetan sartzen dira: *zértik* ('zergatik'), *hóla, hála, nóla, nóra*. Lan honetan bakarrik izen-adjektiboak eta aditz forma jokatuak hartzen ditugu aztergai. Adberbioak, erakusleak, juntagailuak, adizki jokatuak eta beste hitz motak beste lan baterako uzten ditugu.

⁵ Hitz honen azentuera ez da berdina hitzun guztientzat.

Ikusten denez, maileguak azentuaz bereizten dira euskal hitzetatik Goizuetan. Mailegu zahar batzuk euskal hitzen eredura moldatu badira ere, jatorrizko azentuera aldatuz (Lat. *cattu* > *katú*, Lat. *sólu* > *soró*), mailegu gehienetan azentua mantendu da jatorrizko silaba azentudunean: Lat. *célla* > *géla*. Ikuspegi honetatik, *katé* hitza, ez da sartzen talde berean *katú*, *lekú* eta *soró* hitzekin, kasu honetan azentu etimologikoa mantendu baita, Lat. *caténa* > *katé*. Esan behar da *lekú* hitza (< Errom. *luéco*) Bizkai-Gipuzkoetako hizkera askotan, aldiz, “markatua” dela, jatorriko azentura mantenduz (Ond. Lek., Gern., etab. *léku*, Gaminde & Hualde 1995). Bestaldetik *kàfe* hitzean azentu-kokagune aldaketa aurkitzen dugu, Bizkaiko kostaldeko hizkeretan bezala (cf. Ond., Lek., etab. *káfe*), nahiz eta erdal iturria, *café*, [+2] izan.

Maileguen azentu-kokagunea, beraz, ia beti jatorriko hizkuntzarena da, nahiz eta salbuespen batzuk aurkitu. Azaldu ez duguna azentu mota da, goranzkoa ala behe-ranzkoa. Hemen aukerarako arrazoia ez da beti hain garbi ikusten, baina behintzat joera, bai. Izan ere, (4)-ko zerrendak konparatuz, badirudi, orokorrean, behe-ranzko azentua duten hitzak mailegu berriagoak direla. Behintzat, erromatarren garaiko mailegu garbi askok goranzko azentua daukate (*míru*, *néke*, *gáuzá*, *géla*, *yóku*, *lóre*, *páke*, *pá(g)ó*) eta mailegu berriek, aldiz, behe-ranzkoa. Hauetariko batzuk berri-berriak dira (*kòtxe*, *mòto*), eta beste batzuk ez hain berriak (*gòna*, *màilu*). Noski, *dènbo* ‘den-bora’ hitza mailegu zaharra da, < Lat. *témpora*, baina pairatu duen silaba galera berria da. Berehala ikusiko dugunez, mailegu zahar hirusilabadunen azentu patroira moldatzen da hitz hau.

2.2. Oinarri hirusilabadunak

Euskal jatorrizko oinarri hisilabadun monomorfemikoak ez dira asko, jakina denez. Gehien-gehienak Klase I-ekoak dira Goizuetan. Hurrengo zerrendan konposatu zahar (fosildu) batzuk ere sartzen ditugu:⁶

(5) Euskal jatorrizko hirusilabadunak

Klase I: alába, anái(a), amóna, arréba, izéba, itsáso, itsúsi, ipúrdi, izérdi, arnása, astíar (‘astigar’), ittúrri, arrántza (astoarena), beláso (< belar + soro), asérre, abé(ra)ts (< Lat. habere + -ats), neskáme, ostégun, ostíel (‘ostiral’), txingúrri, giltxúrdin

Klase II: hálako, nóloko

Klase III: arràno, arrántza (arrantzaleena), arràutza (‘arrantze’), intxàur, basèrri, bazkàri, belàrri, burrùntzi, motiko, ollàsko, illàrgi

Klase IV: lèngusu

Klase II-n ez dugu izenik aurkitu eta aurkitu ditugun adjektibo bakarrak *-ko-z* hornitutako galdetzaileak eta modu adberbioak dira.

Klase III-koak, gehienbatean, mendebaldeko hizkeretan ere azentuera markatua duten hitzak dira. Gehienak hitz elkartu edo eratorri zaharrak dira (adib. *arrain* + *tza* >

⁶ Aukera bezala behintzat, hiztun batzuek azentua hirugarren silaban jartzen dute zenbait konposatutan: *astélen* - *astelén*.

arràntza, *bas-* + *erri* > *basèrri*, etab.). Nolabait, jatorriko egitura morfologiko konplexuak motibatzen du beheranzko azentua hirusilabadunetan (baina ez beti).

Lehen silabako beheranzko azentuarekin adibide bakarra aurkitu dugu, *lèngusu*, eta hitz hau konposatua eta erdi-mailegua da (< lehen + Errom. *cusino*). Mailegu hirusilabadun gehienek, hain zuzen, beheranzko azentua daramate, bai berriek eta baita oso itxura zaharra duten batzuek ere:

(6) Mailegu hirusilabadunak

Klase I: antzára, itxúra, alkáte, errége, elíza, umóre, gerézi, puxíka

Klase II: ---

Klase III: aingèru, eskòla, tipùla, azinda, banàna, babèrna ('babarrun'), be-nèno, biúdo, espillu, garàje, gaztèlu, kayòla, katillu, kazùla, kolùnpio, makìlla, malèta, mobida, pilòta, tomàte, txokòlte, zerbèza

Klase IV: àrima, fàbrica, màkina, mèdiku, mùsika, pèrrilla ('gurpila'), plàtano, plàstiko, silaba, zàngulu, màkulu

Goiko adibide zerrendetan ikusten den bezala, mailegu hirusilabadunetan azentua jatorriko silaban mantentzen da oro har. Azentu hau mailegu zahar batzuetan goranzkoa bada ere, gehienetan beheranzkoa da. Mailegu berri hirusilabadunak beheranzko azentuarekin egokitzen dira. Mailegu zaharretan zaila da patroï garbirik ikustea. Konparaketarako: *uessicca* > *puxíka* dugu, goranzkoa azentuarekin, baina *caepùlla* > *tipùla*, beheranzkoarekin. Badirudi, dena den, lehen silabako azentua ia beti beheranzkoa dela mailegu hirusilabadunetan (bisilabadunetan ez bezala). Aurkitu dugun salbuespen bakarra adberbio bat da, *sékula* hitza hain zuzen.

2.3. Oinarri lausilabadunak

Lausilabadun guztiek azentua bigarren silaban daramate eta azentu hau, ia beti, goranzkoa da. Euskal jatorriko lausilabadun guztiak Klase Ia-ekoak dira; hau da [+2, g] singularrean eta pluralean; Klase I-ekoak bezala baina pluralean azentu mota aldatu gabe. Bestela esanda, [+2, g] hitzekin, azentua beheranzko bihurtzen da pluralean oinarriak hiru silaba edo guttiago badauzka, baina ez luzeagoa bada.

Salbuespen bakarrak leku-izen batzuk izango lirateke, azentua bigarren silaban baina beheranzkoa dutenak.

(7) Euskal jatorriko lausilabadunak

Klase Ia: barátzuri ('baratxuri'), basérritar⁷, bertsólari, emákume, nekázari, txistúlari,

Klase II: --

Klase III: Elizondo

Klase IV: --

Argi dago silaba kopuruak baldintzatzen duela azentu mota: *basèrri* (beti beheranzko azentuarekin) eta *basérritar* - *basèrritar* hitzek eskeintzen digute adibide garbi bat.

⁷ Baita *basèrritar* ere.

Mailegu lausilabadunetan ez dago Klase II edo IV adibiderik (hau da, [+1]). Hau ulertzekoa da, ohiko iturrietan, hots, latin eta erromantzeetan, azentua beti azken hiru silabetariko batean kokatzen baita. Hirusilabadunekin ez bezala, goranzko azentua da nagusi maileguetan ere:

- (8) Mailegu lausilabadunak (eta luzeagoak)

Klase Ia:

Zaharrak: alkándora, errégina, anímali

Berriak: entsálada, Coca-Cola, soziálismo, kapítalista, kalímotxo, demónio, inóxente, abrélatas

Klase II: --

Klase III: apòstolu

Klase IV: --

Jatorriko hizkuntzan azentua hirugarren edo laugarren silaban baldin badago, azentuera Goizuetako sistemara egokitzen da beti, era guztiz sistematikoko batean, bigarren silabara aldatuz: *ensaláda* > *entsálada*, *capitalísta* > *kapítalista*.

Goian ikusi dugu *txokòlte* hitzak beherako azentu duela. Ziur asko, kontrazioak azentu aldaketa eragin zuen, oso lausilabadun guttik baitute beheranzko azentua: **txokóláte* > *txokòlte*.

2.4. Oinarri silababakarrak

Silabakarrekoak bereziak dira azentuaren aldetik. Hitzak singularreko atzizkia daramanean, goranzko azentua darama oinarrian (*lúrra*, *lúrrari*), eta pluralean, beheranzko azentua (*lúrrak*, *lúrrari*).

Absolutibo singularrean, izen silabakakarra *bat* artikuluz/zenbatzailearekin, edo *au*, *ori*, *ora* erakusleekin, doanean, determinatzaileak ez dauka azenturik. Hau da, *bat*, *au*, *ori*, *ora* flexio atzizki bezala portatzen dira (9a). Esan behar da, *bat* artikulua flexio atzizki bezala portatzea ez dela baterere harrigarria, gauza bera aurkitzen baitugu zubereraz ere, adibidez: *gizun* baina *gizúna* eta *gizún-bat*. Erakusleak direla-eta, Zubirik (2000: 86) Aranoko hizkerarako erakusten duen bezala, erakusleak atzizkiak dira *nor* kasuan daudenean segmentu aldaketen ikuspegitik, eta hau azentueran ere ikusten da.

Aldiz, ondoan beste adjektibo edo modifikatzaile bat dugunean eta ondoko hitz honek gorako azentua daramanean, oinarri silababakarrak azentugabeak dira. Hau da, izen silababakarrak eta hurrengo hitzak azentu-eremu bakarra osatzen dute hemen ere, baina izenak azentua galtzen du, (9b).

Azkenik, hurrengo adjektibo edo modifikatzaileak beheranzko azentua duenean, izen silabarrak goranzko azentua darama, (9c)

- (9) Silabakabarrak

a. lúr-bat, lúrr-au, lúrr-ori, lúrr-ora

b. lurr-óntan, lur-txárta, lur-báten, lurr-óntako, lur-báteko, lur-gorría, ur-garbía

c. lúrr òtan 'lur hauetan' lúrr òntan 'lur onetan'

Zer esanik, ez gertakari hauek ikerketa sakonagoa merezi dute.

2.5. Izen-adjektibo eratorriak

Azentua den bezain batean, hitz eratorriek talde heteroegoa osatzen dute. Hitz eratorri gehienetan azentua erroaren silaba azentudunean mantentzen da. Beraz, erroa silababakarrekoa bada, azentua lehen silaban egongo da, bestela bigarren silabarean gehienetan. Zenbait atzizkirekin, dena den, [+1] azentua bigarren silabara pasatzen da. Hau da, bigarren talde honetan azentua eremua hitz osoa da, eta ez bakarrik erroa. Bestaldetik, azentua mota dela-eta, atzizki batzuekin, baina ez guztiekin, azentua beheranzkoa da, erroko azentua mota gorabehera.

Adjektiboen “flexiozko” atzizkiekin hasiz, azentua ez da erroko silaba azentudunetik mugitzen. Aldiz, atzizkiak agintzen du azentua mota. Superlatiboan azentua beheranzkoa da beti. Badira arrazoï sendoak superlatiboa genitibo pluralarekin batzeko diakronian eta azentuzko datu hau bat dator hipotesiarekin. Gehiegizko adjektiboek (-egi) ere beheranzko azentua hartzen dute. Konparatiboek, aldiz, goranzko azentua daramate, adjetiboaren gradu positiboak azentua hau duenean:

(10) Adjektiboen flexioa

Positiboa (sg)	Konparatiboa	Superlatiboa	Gehiegizkoa
béltza	béltzo	béltzana	béltzagi
zuría	zurío	zurina	zurigi
urdiña	urdiño	urdiñana	urdiñagi

Benetako eratorpen atzizkiak direla-eta, Goizuetan, hiru atzizki mota ditugu azentueraren ikuspegitik. Hasteko *-garren* atzizkiarekin, zenbaki sinplearen azentua ez da aldatzen, ez lekutik ezta motaz ere:

(11) Hitz eratorriak, 1: azentua erroan

-garren	bí	→	bíarr(e)na
	láu	→	láurr(e)na
	zazpí	→	zazpíarr(e)na

Bigarrenik, *-tasun* eta *-keri* atzizkiekin azentua goranzkoa da, baina lehen silabako azentua bigarren silabara mugitzen da; hau da, atzizki hauek, *-garren* ez bezala, sartzen dira azentuen eremuan:

(12) Hitz eratorriak, 2: goranzko azentua bigarren silaban

-keri	astó	→	astákeria
	txoró	→	txorákeria
	úme	→	umékeria
	bérde	→	berdékeria
	ttíki	→	ttikíkeria
-tasun	aundí	→	aundítasuna
	áma	→	amátasuna

Hirugarrenik, *-tar* eta *-ti* atzizkiek beheranzko azentua eragiten dute ia beti:

(13) Hitz eratorriak, 3: beheranzko azentua bigarren silaban

-tar	Goizùta	→	goizùtarra
------	---------	---	------------

	Elizondo	→	elizondotarra
	Léitza	→	leitzàrra
	Arántza	→	aràn(a)ztarra
	iría	→	irìtarra
	erría	→	errìtarra
	kàmpo	→	kànpotarra
<i>baina:</i>	basèrri	→	basérritarra ~ basèrritarra
-ti	beldúr	→	beldùrtia
	lótza	→	lotsàtia
	izú	→	izùtia

2.6. Izen-adjektiboen azentuerak: Laburpena

Izen-adjektiboen azentu patroiak laburbilduz, patroï orokorra edo markatugabea, Klase I/Ia da Goizuetan, gaur den egunean. Euskal jatorriko hitz gehienak talde honetan sartzen dira. Gainera, mailegu luzeak, jatorriko hizkuntzan azentua bigarren silaba baino haruntzago dutenak, Klase Ia-ra egokitzen dira. Beste hiru azentu klaseak bereziak eta murrizak dira. Gauzak laburbilduz, erakutsi dugunaren arabera, lau azentu klaseen banaketa lexikala hauxe izango litzateke, beraz:

(14) Azentu klaseen banaketa lexikala

Klase I, [+2, g]: Orokorra edo markatugabea

Klase II, [+1, g]: a) Silababakarrak singularrean (adib. *lúrra*)
 b) Mailegu zahar bisilabadunak (adib. *páke*)
 c) Euskal jatorriko bisilabadun batzuk (adib. *séme*)

Klase III, [+2, b]: a) Batez ere mailegu hirusilabadunak (adib. *tipùla*) eta erdaraz azentua azken silaban duten bisilabadun batzuk (adib. *Fermin*)
 b) Euskal jatorriko hirusilabadun batzuk (adib. *belàrri*)
 c) Hitz eratorri batzuk (adib. *goizùtarra*, *izùtia*)

Klase IV, [+1, b]: a) Mailegu bisilabadun berriak (adib. *silla*)
 b) Mailegu hirusilabadunak, berri zein zaharrak (adib. *ànima*)

Horretaz gain, hurrengo arau morfofonologikoa izango genuke:

(15) Azentu aldaketa pluralean:

[g] → [b] pluralean (baldintza: oinarriak hiru silaba edo guttiago badauzka)

Adjektiboen superlatiboan eta gehiegizko graduan ere arau hau aplikatzen da. Gainera, ikusi dugunez, eratorpen atzizki emankor batzuek ere azentu aldaketa berbera eragiten dute (adib. *-ti* atzizkia: *beldúr* → *beldùrtia*).

Azentu-sistema honetan hitz talde handiena edo markatugabea Klase I-ekoa deitzen ari garena denez gero, esplikatu behar dugu zergatik hitz batzuek beste azentuera bat duten. Zehazkiago, azentuaren bi tasun bereizgarriak bereiziz, bi galdera egin

behar dizkiogu gure buruari: (a) zergatik hitz batzuek azentu-kokagune markatua duten, lehen silaban, eta (b) zergatik hitz batzuek azentu-mota markatua duten, beheranzkoa.

Bi galdera hauetako lehendabizikoarekin hasiz, Klase II-ko hitzek azentu mota markatugabea baina azentu-kokagune markatua dute. Silababakarren azentuera besterik gabe esplikatzeko da azentu eremua oinarria bada. Horretaz aparte, azentu-klase honetan, bakarrik oinarri bisilabaduneko hitzak aurkitzen ditugu eta hauek ia denak maileguak dira, mailegu zaharrak hain zuzen, azentua jatorriko kokagunean gorde dutenak. Oso euskal jatorriko hitz gutti ditugu talde honetan, funtsean ahaidetasuna adieratzen duten bisilabadunak. Esan daiteke, beraz, hau mailegu zahar bisilabadunen azentu patroia dela.

Klase IV-n [+1, b] ere bakarrik mailegu bi- eta hirusilabadunak aurkitzen ditugu, azentu-kokagunea aldatu gabe mantendu dutenak. Hau horrela izanik, azentu kokagune bereziak, lehen silaban, azalpen erraza dauka gehienetan: jatorriko hizkuntzaren azentuera. Azalpenik gabe gelditzen diren hitzek oso talde ttikia osatzen dute: *áma*, *séme*, *úme*... Itzuliko gara talde honetara.

Beheranzko azentuaren azalpena, aldiz, ez da hain erraza edo ximplea. Berriro ere, beheranzko azentua hiru hitz motatan topatzen dugu: (a) euskal jatorriko hirusilabadun batzuetan, gehienak jatorriz elkartuak edo eratorriak, beti bigarren silaban, (b) pluraletan, oinarria oso luzea ez bada eta, (c) mailegu bisilabadun berrietan eta hirusilabadun gehienetan. Xehetasunak xehetasun, hauek dira, hain zuzen, hitz "markatuak" edo azentudunak, azentudun/azentugabe bereizkuntza duten Bizkaiko hizkeretan (ikus Hualde 1997) eta baita ere hitz markatuak Mitxelenaren (1972) Bizkaia-Gipuzkoetako azentuaren deskribapenean. Goian eman ditugun pare minimo batzuk, hala nola *arrántza* (astoarena) eta *arrántza* (arrainena) edo *basóa* 'mendia, oi-hana' eta *bàsoa* 'edalontzia', *iltzéa* 'iltzatzeko' eta *iltzea* 'hiltzea, heriotza' Mitxelenak ere (1988[1958]: 102) aipatzen ditu bere garaiko Errenteriko hizkeran (Mitxelenaren notazioan: *arrantza/arrantzà*, *basoa/basoà*, *iltzeá/iltzeà*)

Urduliz (Gilisasti 2003) eta Lekeitioko (Hualde, Elordieta & Elordieta 1994) hizkerekin, adibidez, egiten badugu konparaketa, ikus dezakegu Goizuetako Klase I-eko eta II-ko hitzak azentugabeak direla Bizkaiko hizkera hauetan. Modu berean, Goizuetan beheranzko azentua dutenak, Urdulizen eta Lekeition azentudunak dira. Mailegu garbiak alde batera utzita, hauetariko askok hitz elkartu edo eratorri zaharrak dirudite:

(16) Hizkeren arteko korrespondentziak

A. Goizuetan goranzko azentua, Urdulizen eta Lekeition azentugabeak

	<i>Goizueta</i>	<i>Urduliz</i>	<i>Lekeitio</i>	
I.	gizón	gixon	gixon	
	artó	arto	arto	
	alába	alabe	alaba	
	ittúrri	itturri	itturri	
	afári	afari	afari	etab.
II.	séme	seme	seme	
	úme	ume	ume	
	áma	ama	ama	

B. Goizuetan beheranzko azentua, Urdulizen eta Lekeitioan azentudunak

<i>Goizueta</i>	<i>Urduliz</i>	<i>Lekeitio</i>	
àurre	áurre	áurre	< -aur
àtze	átze	átze	< -atz
tàrte	tárte	tárte	< -art(e)
bèste	béste	béste	< ber-ez-den? ⁸
èya	égi	é(g)i	< egiia? ⁹
èuzki	egúski	e(g)úski	< egu+z+ki ?
basèrri	báserrri	basérri	< bas- + erri
intxàur	íntxur	íntxaur	< ? + ur
bazkàri	báskari	baskári	< barazkari < *baratz+kari? ¹⁰
belàrri	bélarri	belárri	< belaarri < *behagarri? ¹¹
burrùntzi	burrúntzi		< burni + untzi
ollàsco	óllosco	ollásco	< oilo + -sko

Ikusten denez, antzekotasuna ez da nolabaitekoa. Azalez oso antzeko egitura duten baina azentueraz kontrastatzen diren hitz pare berberak ditugu bi eskualdeetan: Goizuetako *afári* vs. *bazkàri*, *ittúrri* vs. *belàrri*, etabarretan aurkitzen dugun oposaketa, Bizkaiako kostaldean azentugabe vs. azentudun bereizkuntzaren bidez islatzen da. Oro har, honako korrespondentzia dugu, beraz:

(17) <i>Goizueta</i>		<i>Bizkaiko kostaldea</i>
goranzko azentua	→	azentugabea
beheranzko azentua	→	azentuduna

Honi gehitzen badiogu singularraren eta pluralaren arteko azentu bereizkuntzan ere korrespondentzia hau topatzen dugula, argi dago bi sistemen artean lotura diakroniko bat dagoela, garai batean Gipuzkoatik iragaten zen zubia desagertu bada ere, gehienbat.

Hitz eratorri garbien azentueran ere, Goizuetako hizkera bat dator Bizkaiko kostaldeko hizkerekin, baina ez guztiz. Bizkaiko hizkera horietan, adjektiboen hiru forma eratorriak (konparatiboa, superlatiboa eta gehiegizkoa), azentudunak dira. Beste eratorpen atzizkiak ere bi taldetan banatzen dira Bizkaiko hizkeratan: hitz azentudunak osatzen dituenak eta azentugabeak. Lehen taldean, /-tar/, /-ti/, eta /-garren/ ditugu, adibidez. Bigarrenean aldiz, /-tasun/, /-keri(a)/ eta beste batzuk. Berrito ere oso antzeko banaketa bat aurkitzen dugu Goizuetan, baina ez guztiz berdina. Beraz, orokorrean, Bizkaiko atzizki azentudunek beheranzko azentua eragiten dute Goizuetan eta azentugabeek, aldiz, goranzkoa.

Hau dela-eta, argi dago Goizuetako azentueraren diakronia ulertzeko, Bizkai-Gipuzkoetako azentu gertakariekin batera ikertu behar dugula. Dena den, Goizue-

⁸ J. Lakarrak antzeko etimologia bat proposatu du.

⁹ OEH-aren arabera, bokal luzea bi testu bizkaitar zaharretan agertzen da. Frai Bartolomek *egiija* idazten du eta J.J. Mogelek *egiia*. Gainera, Uterbako katixima batean *aigie* dugu.

¹⁰ OEHaren arabera, *barazkari* aldaerarik zaharrena da; ia bakarra 16-17. mendeetan.

¹¹ *belaarri*, *beharri* eta *begarri* aldaerak aurkitzen dira (OEH). Proposamen bat izango litzateke denak **beha-garri* batetik sortzea.

tako berezitasun batek ez dauka islarik Bizkaiko kostaldean: *séme* bezalako hitzen azentuera, hain zuzen. Honetan badirudi Goizuetak arkaismo bat gorde duela. Goizuetakoa ez da, hala ere, azentuera hau duen hizkera bakarra. Gaminde & Hualde-k (1995), hitz honetarako azentuera markatua, lehendabiziko silaban, Bizkai-Gipuzkoetako hiru herritan aurkitzen dute: Oñati, Larrabetzu eta Iurreta.

Badira arrazoiak pentsatzeko bai *seme* eta baita *ume* ere jatorriz polimorfemikoak direla (gogora gaitzen Mitxelena berreraiketan aintzin-euskarak ez zeukala /m/ fonemarik, Mitxelena 1977: 275, 358). Erroa silabakarrekoa bazen, horrek azalduko luke lehendabiziko silabaren azentua. Adibidez, *úme* hitzaren bilakaera diakronikoa hauxe izango litzateke: **ún-be* > **[úmbe]* > *[úmme]* > *úme*. Jakinaenez, VMME forma Lergako erromatarren garaiko inskripzioan agertzen da. Are gehiago, *un-* erroa ere, *inude* - *unide* konposatuan aurkitzen dugu. Mitxelena (1987[1977]: 312, 2, ohar.) esaten digu *unide* hitz honen aldaerik zaharrena dela, bigarren osagaia *-(k)ide* ezaguna delarik. Mitxelena ez digu esaten lehen osagaia zer den (“Se ha reconocido *-ide* ‘co(n)-’, que existe también como forma libre, pero ¿qué puede ser el *un-* inicial?”); halabaina azalpenak gardena dirudi: *un-ide* ‘haur-zain’. *Seme* hitzak antzeko bilakera bat izango luke: **sén(i)-be* > **sémbe* > **sémme* > *séme*, cf. lap. *sehi*, biz. *sein*, Akit. *Sembe*, eta *sen-(h)ar*. Beharbada, Goizuetan azentuera hitz huetatik *áma* eta *átta* hitzetara hedatu zen analogiaz, talde semantikoan.

3. Aditzak

Aditz-partizipioetan honako azentu-motak aurkitzen ditugu:¹²

(18) Aditz-partizipioak

Klase I, [+2, g]: (e)sán, (e)mán, así, artú, autsí, galdú, kendú, (i)kási, (i)kúsi, ikértu, erákutsi

Klase II, [+1, g]: éutsi, yákin, yántzi, yárrri, yétsi, yétzi, yósi, áittu (< aditu), áttu (ahitu)

Klase III, [+1, b]: bòta, tìtu (< tiratu), jìtu (< jiratu), gàltu (< galdetu), pàtu (< paratu), àtzetu (< atzeratu)

Klase IV, [+2, b]: eràman, abitu (< abiatu), altxàtu

Izenekin bezala, Klase I orokortzat hartuz, beste azentu motak azaltzen saia gaitzen. Hasteko, argi dago Klase II-ko partizipio askotan goranzko azentua lehen silaban agertzen dela **/eV/* > */jV/* bilakaeraren ondorioz:

- (19) **e-ákin* > yákin
**e-árri* > yárrri
**e-ósi* > yósi

Hau da, garai batean partizipio hauek azentuera orokorra zeukaten, bigarren silaban. Azentua ez da mugitu, baina hasierako bokalak silabikotasuna galdu du, azentua lehen silaban utziz. Gaur egungo euskal hizkera guztietan partizipio hauek

¹² Ematen dugun azentuera “indikatioarena” da; hau da, adibidez, partizipioak hartzen duena *da/do* laguntzailearen aurrean. Aginteran eta beste zenbait ingurunetan azentu mota aldatzen da batzuetan. Beste lan batean saiatuko gara xehetasun gehiago ematen gai honetaz.

kontsonante batez hasten badira ere, barne-berreraiketak *e- aurrizki bat eskatzen du, Mitxelenak (1985 119) adierazten duen bezala. Goizuetako euskaraz aditz hauek daukaten azentuera markatuak berreraiketaren zuzentasuna baieztatzen du. Bizkaiko kostaldeko hizkeretan ere gertakari hau aurkitzen dugu, baina sistematikotasun guttiagoarekin. Gilisastiren (2003), Urdulizko hiztegian, adibidez, hauetako batzuk azentu markatua daramate: *yáyo* - *yayo*, *yáurta* - *yéurta*, *yáusi* - *yéusi*, baina beste batzuk markatugabeak dira: *yagi*, *yagon*, *yakin*, *yalgi*, *yantzi*, *yaramon*, *yarri*, *yesarri*, *yatzi*, *yosi*.¹³

/e-/ aurrizki zaharra bere horretan edo /i/ bokala bihurturik mantendu denean, azentua bigarren silaban dugu: *esán*, **e-kúsi* > *ikúsi*. Salbuespen bakarra *éutsi* da (Urdulizen ere bai: *éutzi*). Hemen bigarren bokala izan da irristari bihurtu dena, azentua silaba berriaren nukleoan kokatuz: **e-(d)útsi* > *éwtsi*.¹⁴

-tu atzizkia hartzen duten partizipioetan, antzeko kontrakzio baten ondorioz azentua lehen silaban dugu zenbait adibidetan (*ahitu* >) *a.ítu* > *[áj]ttu > *áttu* eta kontsonante erorketa moderno baten ondorioz (Lat. *auditu* >) *adítu* > **a.íttu* > [áj]ttu.

Izenekin bezala, euskal jatorriko partizipioek, orokorrean, goranzko azentua daramate eta mailegu laburrek, aldiz, beheranzkoa (*bóta*, *altxátu*). Beheranzko azentua lehen silaban duten aditz mailegatu batzuk bigarren silaba galdu dute: *titu* < *tiratu*, *jitu* < *jiratu*, etab. Garai batean bigarren silaba azentuduna bazen aditz hauetan, zaila da bokal erorketa azaltzea.

Talde honetan (Klase IV) euskal jatorriko aditz bat ere aurkitzen dugu: *gàltu* < *galdetu*. Mitxelenak (1977: 496) esaten digunez, bere garaiko Errrenteriko hizkeran *galderà* hitzak (bere notazioan) azentu markatua zeukan (vs. *galera*, markatugabea); eta gaineratzen du XIX. mendeko gipuzkeran *galdeera* dagoela dokumentatuta, lau silabakin. Ziur asko guzti honek zerikusirik dauka hitz honen azentuera bereziarekin.

Bizkaiko kostaldeko hizkeretan, *e-ra-* aurrizkidun kausatibo zaharrak markatuak dira. Goizuetan, *eràman* aditzak azentu markatua (beheranzkoa) badu ere, beste kausatiboak (*erákutsi*) Klase I-ekoak dira. Honetan badirudi Goizueta berrizaleagoa izan dela.

Aditzaren beste forma jokatu gabeak direla-eta, Bizkaiko kostaldean, partizipio inperfektiboan (-*t(z)en*), aditz-izenean (-*t(z)e*) eta geroaldiko partizipioan (-*ko*) azentu markatua dugu beti. Goizuetan, Klase I-eko aditz laburretan, partizipio inperfektiboan eta aditz-izenean beheranzko azentua dugu; geroaldiko formak, aldiz, ez du azentu mota aldatzen. Beste azentu klase guztietan partizipio perfektiboaren azentuera mantentzen da beste formetan ere:

(20) Aditz jokatu gabeak

<i>Klase I:</i>	(i)kúsi	(i)kùsten	(i)kúsiko	(i)kùste(r)a
	así	asitzen, astèn	asíko	asítze(r)a

¹³ Lekeition ez dago aditz azentudunik, erregularitu dira guztiak.

¹⁴ *eutsi* aditza *eduki* eta **edun* aditzekin erlazionatzen bada, hots, **e-du-tsi* formatik badator, behar bada /d/ fonemaren erorketa berankorrek esplikatuko luke hiatoaren tratamendua (hau da, zergatik dugun *e.u* > *ew* eta *e.z* > *ju*, cf. *e.o* > *jo*). J. Lakarrentzak (Lakarra 2006: 599), *j-z* hasten diren partizipioetan ere /-d-/ bat galdu da (**e-da-khin* > *jakin*). Hipotesi honetan, hiatoaren bi konponketa desberdinek beste azalpen bat behar dute.


	(e)sán	(e)sàten	(e)sáin, (e)sángo	(e)sàte(r)a
	artú	artzèn	artúko	artzè(r)a
<i>Klase Ia:</i>	erákutsi	erákusten	erákutsiko	erákuste(r)a
	arrápatu	arrápatzen	arrápatuko	arrápatze(r)a
<i>Klase II:</i>	yákin	yákitten	yákingo, yákinen	yákितte(r)a
<i>Klase III:</i>	eràman	eràma(t)ten	eràmain	eràma(t)te(r)a
<i>Klase IV:</i>	bòta	bòtzen	bòtako	bòtze(r)a

4. Ondorioz


Ziur asko, Goizuetako azentu sistema gaur egungo Euskal Herrian dugun konplexuenatarikoa da, bertan, bai azentuaren kokagunea eta baita azentu mota ere (goranzkoa vs. beheranzkoa) ezaugarri bereizgarriak baitira. Artikulu honetan erakutsi ditugun banaketa lexikalak eta Bizkaiko hizkerekiko korrespondentziek galdera asko pizten dituzte. Beste askoren artean, hurrengoak: Zergatik dugu goranzko azentua mailegu bisilabadun zaharretan baina beheranzkoa berrietan (adib. *míru* eta *mòro*)? Zergatik beheranzkoa mailegu hirusilabadun zahar zein berrietan (adib. *tipùla*, *banàna*)? Nola azaltzen da hizkeren arteko korrespondentzia nagusia, Goiz. [b] = Bizk. [+azentuduna]?, etab.¹⁵ Ez dirudi, beraz, gai hau ahitzeko arriskuan gaudenik. Hizkuntzaren deskribapenean sakonduz, gero eta azaldu beharreko datu gehiago agertuko zaizkigu eta azalpen-bilaketak aurrerago eramanen gaitu gure ezagutzan. Pentsatzen dugu euskararen egituraren hainbeste gertakari hain zehazki eta maisuki azaldu dituen Patxi Goenaga ados egongo dela sentimentu honekin. Itxaropen honekin, behintzat, gauzatu dugu lantxo hau.

¹⁵ Ikusi behar da, adibidez, Hualde (2006b)-an egindako proposamen diakronikoa oraindik ere mantentzeko.


Irudiak




1. ir. ardik yan do. Goranzko azentua bigarren silaban



2. ir. ardik yan dute. Beheranzko azentua bigarren silaban



3. ir. *umek galdu do*. Goranzko azentua lehendabiziko silaban



4. ir. *umek galdu dute*. Beheranzko azentua lehendabiziko silaban

Bibliografia

- Bruce, G., 1977, *Swedish word accents in sentence perspective*, Gleerup, Lund.
- , 2005, “Intonational prominence in varieties of Swedish revisited”, in: S-A Jun (arg.) *Prosodic typology: The phonology of intonation and phrasing*. Oxford: U. P., Oxford, 410-429.
- Gaminde, I., 1998a, *Euskaldunen azentuak*, Labayru Ikastegia, Bilbao.
- , 1998b, “Nafarroako azentu ereduaren sailkapena”, in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak: Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako agiriak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea, 23-48.
- , & J. I. Hualde, 1995, “Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa”, *ASJU* 29, 175-197.
- Gilisasti Fano, I., 2003, *Urduliz aldeko berba lapikokoa*, 2. arg., A. G. Rontegui, Erandio.
- Hualde, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU, *ASJUren Gehigarriak* 42, Donostia & Bilbo.
- , 2006a, “Estado actual de las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca”, *Oihenart* 21 (Actas de las Primeras Jornadas de Lingüística Vasco-Románica), 149-177.
- , 2006b, “Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera”, in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in Honour of Professor Eguzkitza*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 497-511.
- , G. Elordieta & A. Elordieta, 1994, *The Basque dialect of Lekeitio*, *ASJUren Gehigarriak* 34, Euskal Herriko Unibertsitatea & Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo & Donostia.
- , O. Lujanbio & F. Torreira, agertzeko, “Lexical stress and tone in Goizueta Basque”, *Journal of the Internacional Phonetic Association*.
- Jacobsen, W., 1972, “Nominative-ergative synchretism in Basque”, *ASJU* 6, 67-109.
- Lakarra, J., 2006, “*Jaun eta jabe, jaiio eta herio, jin eta joan...*: etimologiaz eta aditz morfologia zaharraz (Hitz hasierez, in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in Honour of Professor Eguzkitza*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 575-611.
- Mitxelena, K., 1972, “A note on Old Labourdin accentuation”, *ASJU* 6, 110-120. Berrag. in Mitxelena 1987: 235-244.
- , 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg., Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo, Donostia. (3. arg., 1985).
- , 1987 [1977], “Notas sobre compuestos verbales vascos”, *Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea: Leioa, 311-335. Lehen argitarapena in *Homenaje a don Vicente García de Diego*, II, 245-271, *Revista de dialectología y tradiciones populares*.
- , 1987-, *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario General Vasco*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1988 [1958], “Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean”, *Euskal idazlan guztiak VI: Hizkuntzalaritzaz* I, 97-196. Lehen argitarapena in *Euskera*, 2. aldia, III, 36-43.
- OEH = Mitxelena 1987-.
- Zubiri, J. J., 2000, “Arano eta Goizuetako hizkera”, in Zuazo, K. (arg.), *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 83-120.

SOBRE ESTRATEGIAS DISCURSIVAS DEL LENGUAJE DE LOS JÓVENES VASCOPARLANTES: ASPECTOS PRAGMÁTICOS Y DISCURSIVOS (CONECTORES, MARCADORES)

Orreaga Ibarra Murillo
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

0. Introducción

Si analizamos el habla de los jóvenes de hoy es patente la diferencia que existen entre el euskera hablado actual, y el de cualquier lugar de habla vasca de, supongamos, hace un siglo. Es obvio que el euskera ha evolucionado en todos los niveles. La unificación de la lengua, el acceso a la enseñanza, los medios de comunicación y la influencia de las dos lenguas fuertes que le rodean, entre otros factores, hacen que estemos ante un euskera diferente. Podríamos decir que es más uniforme, con menos diferencias dialectales y que se desarrolla al lado de dos lenguas fuertes —castellano y francés— cuya influencia es insoslayable y que convierte a todos los jóvenes en bilingües.

Por otra parte, empiezan a surgir diferencias diastráticas, una de ellas sería la correspondiente al lenguaje de los jóvenes vascohablantes. Los jóvenes utilizan un argot propio, juvenil, para reforzar las relaciones vivenciales próximas y la comunicación fática; su finalidad es diferenciarse de otros y reforzar el contacto social y las relaciones entre ellos. Este argot propio se opone al lenguaje dado y surge en parte del incumplimiento de las normas, siendo ésta una manera de identificarse y de dar cohesión al grupo social.

Pretendemos analizar en este artículo algunas estrategias discursivas del euskera oral de los jóvenes de hoy, especialmente algunas pragmáticas (conectores, marcadores), dejando a un lado las lexicales y la alternancia e interferencia lingüística. Los datos se han extraído de un corpus de conversaciones grabadas a jóvenes, la mayor parte realizadas por ellos mismos, por tanto, en un ambiente informal y sin coacciones.

Como expresión del lenguaje hablado, creado en situaciones de la cultura oral, las variedades juveniles muestran todas las características del lenguaje oral. Algunos de estos aspectos, como el cambio rápido y las variaciones continuas, son acentuados por todos los autores que se ocupan del lenguaje juvenil. Por todo ello, en nuestra opinión, es necesaria la investigación del lenguaje juvenil vascófono, porque éste representa sencillamente una de las variedades dentro de un sistema de variedades desarrollado históricamente. Al mismo tiempo, pretendemos estudiar la lengua colo-

quial como específicamente oral, hablada y no como simple desviación negativa de la estándar, ya que esto no la convierte en “modelo” de nada ni de nadie.

1. Marcadores discursivos

Un tipo de signos son los llamados “marcadores conversacionales”, que señalan la continuidad de la relación establecida entre los interlocutores. En este sentido actúan como indicadores de la cohesión dialogal, son mecanismos que la lengua ha establecido, formas específicas para el encuentro entre los interlocutores. Unos son identificadores tanto del *yo* como del *tú* y sirven para señalar su situación respecto a lo dicho en el enunciado. Algunos de ellos son meros conectores de la secuencia dialogal y pueden poseer valores diversos: indicar la iniciación del diálogo con significación fática (*aizu, bai...*), señalar la relación con el otro, formas de tratamiento, llamadas de atención más o menos enérgicas (fórmulas interjectivas), imperativos de percepción inmediata, etc.

El empleo de los marcadores discursivos resulta especialmente relevante en las secuencias de historia. La estructuración que sigue el relato (situación inicial-nudo-resolución) propicia el empleo de este tipo de conectores, especialmente con valor metadiscursivo y estructurador, que organizan la disposición informativa de la historia y guían la inserción de ésta en la información. Los marcadores del discurso se pueden estructurar de la siguiente manera: a) En la situación inicial nos encontramos con demarcativos de inicio y diversos modos de inserción del relato en la conversación; b) En el nudo de la historia con conectores con valor regulativo y reformulativo; c) En la resolución nos encontramos con demarcativos de cierre.

Como hemos dicho anteriormente, en el lenguaje juvenil, en el nudo de la historia suelen aparecer los denominados *reformuladores* que precisan o reorientan una aserción, un argumento o anticipan cambios en los estados de información. En el lenguaje juvenil aparece muy a menudo el conector *o sea*, el cual reformula la idea expresada en estilo directo: ...*eta orduan ez genekien ezer, o sea, ezer*.

Los marcadores del discurso, denominados también enlaces extraoracionales y ordenadores del discurso, constituyen un conjunto heterogéneo integrado por unidades que en la sintaxis oracional funcionan como adverbios, interjecciones, conjunciones, etc. El estudio de estos elementos desborda el marco de la oración y sus constituyentes, dado que los marcadores de discurso son entidades susceptibles de funcionar dentro de los límites de la oración y que, tras sufrir modificaciones que afectan a su morfología, a su distribución sintáctica y a su contenido, pueden operar en un marco trans- o extra-oracional.

Analizaremos los más habituales en el euskera hablado juvenil; muchos de ellos provienen del castellano, pero se han adaptado definitivamente al euskera coloquial general, como son: *hombre, bueno*. Otros, sin embargo, son exclusivos del lenguaje de los jóvenes.

Hombre. *Hombre* es un marcador discursivo con valor de refuerzo argumentativo; es uno de los marcadores más comúnmente utilizado en la conversación: —*Hombre!, noski egingo detela.* —*Hombre ez, baña...* En otros casos, *hombre!* indica expectativa, tiempo para pensar y cierto desacuerdo ante lo preguntado: —*A: eta jaien iraupenei buruz, zer diozue?* —*B: hombre!*

Fijo! El adverbio *fijo* (a veces usado como adjetivo, en plural y femenino) se ha generalizado con el sentido de “seguro, sin duda”, como en estas secuencias conversacionales entre chicas:

A: *Eta an bazegoen eguberri giroa eta horrela?* B: *Ez, ez dute ospatzen.* C: *A fijo!* O estas otras entre jóvenes de ambos sexos: M: *...abisatuak jende guztia.* N: *Bai? Artazkoz eta Muruza eta ... baita? Pues hoiek fijo ez direla agertzen.* —Ya...*fijo* joan direla horiek. Y la siguiente: —...*eta super rubias eta, digo... hauek fijas frantsesak.*

Pues. El *pues* es una conjunción utilizada como *elemento de conexión* del sistema conversacional, paralelo al *ba* del euskera que pocas veces aparece en el corpus de los hablantes euskaldunes: *pues, hasi naiz pedagogia ikasten.* En esta ocasión también *pues* tiene un valor continuativo (derivado, quizá, del significado que tuvo en latín *post* > después) para reflejar la presencia del hablante como sujeto de la enunciación que prosigue en su papel de “emisor”: —*Bai, naiko monotonoa da, pues beti, ba, ba, goizean, aurrentzako ekintzak, arratsaldean, beyak...* También de enlace extraoracional, sirve como de unidad fática, es decir, como elemento de continuidad o de enlace con lo dicho anteriormente, pero sólo como mero recurso fónico destinado a mantener el ‘hilo’ de la conversación o a dotar de una mayor expresividad el discurso; A: *Eta berriz joan behar gara beste egun batetan?* —B: *Bai.* A: *Ei! pues a principios, mesedez.*

Por otra parte, *pues* aparece en el interior de enunciados que podemos denominar “narrativos”. En los casos que ejemplificamos a continuación, *pues* forma parte de la intervención de un hablante que, mediante el elemento del que nos ocupamos, refuerza los elementos “remáticos” que siguen a la partícula: *Pues ni nire amari bai esan ziola ta egun batean ... ta pues el primer dia bai eman ziola dirua ;no? Eske ez naiz oroitzen... eeee pues gero egiten genituen dantzak, eeee pues egiten genuen gero hamaiketako getatan, bakoitzak ekartzen zuen gauza bat, adibidez... pues fruitu leorrak... eta ori eta gero dantzak. Eta gero azken egunean pues janzten genituen eta zeuden pues asko.* —*Hori eman ondoren pues dago dantzaldi bat, bueno!, dantzaldia...juaten dira... talde bat abestera.*

Sin embargo, en este caso sustituye a un interrogativo *zergatik?* Es un claro caso de interferencia: —A: *Abuztuan, ez.* —B: *Nola ezetz?* —A: *¿Pues?*

En otros casos *pues* forma parte de la respuesta a una pregunta. *Pues* encabeza siempre la frase o fragmento de enunciado que contiene la respuesta propiamente dicha: A —*Eta zuretzat euskara institutoko hizkera da edo zerbait geyago?* B. —*Pues, zerbait geyago, da izkuntz bat geyago gustatuko litzaidakena hitz egitea.* A: —*A partir del hogei, eske ni hamaikan hasten naiz lan egiten.* B: —*Pues entre el sei eta el hamaika. El hamaika egon behar naiz gauean ...* A —*Zergatik hitz egiten duzu gazteleraz geyenetan?* B —*Pues ori ez dakit, eske ez dakit...*

Por otra parte, el conector *pues* parcela y realza ciertas partes del discurso, en concreto argumentos y conclusiones y ordena las partes del mensaje con el propósito de mantener el hilo del mismo: —*Pues da como rollitos de primavera.* —*Pues hitz egin nuen berarekin...* —*Eske nengoen zapin egiten eta ikusi nuen eta ya, pues kendu.*

En otras ocasiones observamos el valor de introducción y refuerzo conclusivo que presenta *pues* en las siguientes intervenciones. En alguna ocasión va acompañado de *ya*:

- *Pues ya, berehala ikusten nuen orrela mancha batzuk eta orrela txikiak... —Pues, agian joan emendik amaren etxera berriro...*
- *Pues gero egiten genituen dantzak eeee... pues egiten genuen gero hamaiketakoa geletan. —Eske... eguzkia zegoenean ez, baña justo joaten zenean seietan edo... pues otza otza.. —Gero azken egunean pues janzten genituen eta zeuden pues asko. —Pues da como rollitos de primavera, ez?*

En fin. Lo encontramos en nuestro corpus, sirve para cerrar y concluir un diálogo: *Eta, en fin, hori esan zuen eta gu ixilik.*

Ikusten?, ulertzen? Están bastante extendidos en el lenguaje juvenil, son marcadores que se utilizan como refuerzo y como comprobación, paralelos a los castellanos ¿lo ves?, ¿lo entiendes? y en el lenguaje juvenil carecen del auxiliar verbal: —*Si ez da asteartean... ikusten? —Nik ere suspenditu dut, ulertzen?*

Ahí / hor. En el lenguaje juvenil, abunda este adverbio de lugar en castellano, que es un marcador deíctico. El adverbio *ahí/ hor* se utiliza para hacer referencia no a un lugar determinado, a un espacio, sino a una distancia desde el punto cero de coordenadas (desde el yo-aquí-ahora de los hablantes). Estableciendo unas coordenadas entre espacio y tiempo, marcaríamos la siguiente relación: el *aquí* supondría el ahora, el *ahí* el entonces y *allá* sería el después: —*Baino berari ez zeniola esan ezer y todo mosqueau ahí... pues porque, o sea mosqueau de cabreau no de... —Pasatu dezakezula igual bat destrangis ahí gauza guztiekin, pero paketea horrela ezetz. —O sea, atzo fregatu genuenok ahí en plan.. bai. —Egongo dira hemen, ahí, heladas de frío. —Goazen ahí ...a buscar ofertas de esas. —Baietz ta ratu guztian ahí... —Gaztea eta gero e... baita ere asten da... ahí homo zapin-eko neska. —Baino, eske pasatzen duzu ratu txarra esaten ezetz ta besteak baietz, baietz ta ratu guztian ahí.*

En algunos casos se alternan los dos: castellano y euskera: —*Eta badakit ez zidala egin behar ezer baina nik ez nuen nahi pasatu hor ratu txar bat ahí diciéndole que no.* El fenómeno deíctico fue estudiado por Bühler (1974), que distinguió entre campo mostrativo del lenguaje y campo simbólico. En el primero funcionan los elementos que suponen una señalización, una indicación relativa a la situación en que se produce el hecho comunicativo. Por otra parte, el campo simbólico sería aquel donde los nombres (que funcionan como símbolos) reciben su precisión significativa.

No se qué, y ez dakit zer. Tanto en castellano como en euskera, se han extendido en el lenguaje juvenil estas expresiones de relleno, de duda, de continuidad de la conversación. Una es traducción de la otra, pero las dos las encontramos dentro de nuestro corpus oral, incluso una misma persona alterna una y otra dentro del mismo discurso. Su significado indica que existe algo más de contenido no definido (y algo así), por no alargarse, por no ser más explícito: —*Bai? No se que, baina bueno, behintzat apunteak bildu ditut. —Nola hasten da Los Serrano? no sé qué. —A... bai, ya ikusiko dugu no sé qué, no sé cuántos. —Aber nola ibiltzen naizen, no se qué no se cuántos —Bakarrrik gizonak or daude toreatzen, ez dakizer, eta emakume bat atenatzen bada, ba farra ere bada, eta... ai kontuz! —Ba, azterketen agobioa bukatzen da, eta orduan ya asten gara, bua!! parranda... ez dakizer, ze ondo egongo garen festetan... eta horrela. —E, bueno, bai, leen esan duguna, ba jendeak Batakanak bilatzen dituzte, eta errire... bueno errian zear yoaten dira ba... etxetatik. E aizul! Bajera bat utziko diguzu festetanako, ez dakizer...? —Eske beti gaude: joé, “udalak ez digu ka-*

surik egiten”, *ezdakizer*. . . *beti horrela, baña ez dugu ezer egiten ori konpontzeko*. —*Eta gero zeuden berriak sukaldatzen ezdakit zer*.

El *no se qué* se utiliza como un introductor de la conversación, una muletilla que permite ganar tiempo para pensar y planificar, como elemento que rellena espacios vacíos. Por tanto, se puede colocar en el inicio: A: *Bueno, nahiko gaizki, tio*. —B: *Bai?* A: *no se que...bai, baina, bueno! behintzat apunteak bildu ditut, zeren han rulado por ahí unos apuntes o así de pedagogia eta hola eta behintzat bueno ia liburutik ez dutela atera behar hoi dena, bueno nahi badut, como extra*.

En el siguiente caso, la misma hablante alterna euskera y castellano: —*esanes ee etete (ETT) batera eramateko kurrikuluma esdakit ser esagutzen sula tipa bat.. no se qué aa...sartzen sen sartu bar esun tokian*. Este ejemplo muestra la alternancia de estos marcadores; observamos cómo en el discurso en castellano se intercala un *ez dakit zer*, y en el de euskera *no se qué*: —*Bueno... ta hori... ta orduan pues salió ta eee ... hori hurbildu zitzaien ta... “eh! me das dinero?” no se qué “eske, o sea, no tengo un céntimo” y “—que no, que no, por favor que tengo cancer que... ez dakit zer” —Ta esaten zuten: Ai, eta nafar batek hitz egiten du horren ondo! Eta ez dakit zer...*

Yo qué sé. Asimismo, en el lenguaje juvenil se emplea el conector o la muletilla de relleno o de continuidad *yo qué sé*, como vemos en los siguientes ejemplos: *Era-biltzekotan izan leike... pues ibiltzen zoazenean...o yo qué sé edo bakarka, kirola egiten duzunean... —Gero pececiti... yo qué sé... pues daude olako gauzak ez? ...*

Los marcadores, que también podrían llamarse ordenadores de la materia discursiva, señalan las partes del discurso. En ocasiones actúan como partículas de puntuación (cf. Briz 2000: 207). A este papel demarcativo general, se une el de ir regulando el inicio, la progresión y el cierre de los turnos y movimiento que éstos contienen y de las secuencias que constituyen la conversación en general.

Goian ikusi dugun xede orokorra, hizkuntza modu adierazgarrian erabiltzen ikastea alegia, oro har, edozein herrialdetako eskola curriculumaren helburuetan aurki dezakegu. Kontua, xede hori lortzeko nolako bidea egiten den jakitea litzateke. Besson eta bestek (1979) egituraketa/adierazpena deitu izan den bide bikoitza proposatu zuten. Bi lan arlo nagusi bereizi zituzten hizkuntzaren erabilera osatu horren lorpenerako. Alde batetik, egituraketa deitu zutena. Honek hizkuntzaren sistemaren ikasketari, nolabait gramatikarekin lotzen dugun eraikuntza teoriko abstraktu horri helduko lioke. Bestetik, adierazpena deitzen zutena legoke. Diskurtso eta testu ezberdinen funtzionamendua eskuratuz hizkuntzaren erabilera menderatzeko tresna izango litzateke bigarren ibilbide hau. Banaketa hau, ez beti hain zehazki adierazia, arrakasta handikoa izan da hizkuntzaren didaktikaren berrikuntza mugimenduetan. Oso onargarria suertatu da, konpromiso dotorea, nolabait esateko. Alde batetik betiko gramatikari bere lekua eskaintzen dio, alderdi logiko formalak ziurtatuak geratzen dira, eta bestetik, testua eta diskurtsoaren lanketa ongi justifikatzen dira baita ere, erabilera menderatzeko testua eta testuinguruaren kontrola derrigorrezko baliabidea baita. Alabaina, bien arteko harremana ulertzeko modu asko daude, eta ez da beti erraza izaten nola antolatzen den edo nolako aukerak egiten diren garbi antzematea.

Chartrandek (2005) hiru modu bereizten ditu egituratze eta adierazte eginkizuen uztartetan: lehenengoa, gramatika testuaren beharizanetara erabat baldintzatzen duena; alegia, testuak ematen dituen aukeren arabera egiten da gramatika gogoeta eta edo ariketa; bigarrena, gramatikak bere autonomia mantentzen duena, modu tradizionala nolabait, gramatika programazio zehatz bat irakastea helburu duena eta testu lanak izaera osagarria izango lukeena; eta hirugarrena, berriz, gramatikaren lan sistematikoa bai, baina ezagutza horiek praktika diskurtsiboei lotuta, testuen bitartez gauzatzen direnei nolabait, eta haietzako abildade praktikoa edo funtzional bezala erakusten dituen.

Hirugarren bide honek ere irakurketa eta antolamendu ezberdinak izango ditu, eta geroago berriro helduko diogu gramatika eta testuaren arteko uztartze moduari gurerako proposamen bila hasten garenean.

2. Gramatika zer da? Zer deitzen diogu gramatika?

Baina goazen poliki. Gramatikaz eta testuaz edo diskurtsoaz ari gara, denok gauza bera ulertuko bagenu bezala, eta hau ez da egia. Zertaz ari gara gramatika esaten dugunean? Zertarako balio du gramatikak? Zertarako baliatzen da gramatika gure eskoletan? Nola irudikatzen dute gure irakasleek gramatikaren rola hizkuntzaren, hizkuntzen, irakaskuntzan? Zer da benetan egiten, eginarazten, eta ebaluatzen dena gramatikaren izenean?

Hizkuntzalari batzuentzat, beharbada gure arteko gehientzat, gramatika sintaxia, morfología eta fonologiara mugatzen da. Adibide gisa, eta gauden liburuan gaudela, *Gramatika bideetan* liburuan agertzen denak ez du gramatika deitzen dugun guztia besarkatzen, eta egileak berak argi uzten digu sarreratik. Gramatika hori baino gehiago da. Bereziki sintaxiari heltzen zaio liburu honetan, baina morfologia ere gramatika litzateke eta fonologia ere gramatikaren atal bezala ikusten da gaur. Gure artean, gramatika, bereziki esaldiaren gramatika da. EGLUk ere hala erabakitzen du, nahiz eta IV liburukian (Euskaltzaindia 1994) esaldi arteko zenbait elementu (juntagailu, menderagailu eta lokailu) aztertu asmoz, testua (unitate bezala ?) behin baino gehiagotan aipatzen den.

Gramatika, beraz, esaldia azter unitate bezala harturik, hizkuntza jakin baten sistema azaltzeko egiten den eraikuntza teorikoa litzateke. Historian zehar, eta greziera klasikotik hasiz, hainbat proposamen egin dira helburu honekin. Korrante ezberdinen arabera, eta hizkuntza batzuetan besteetan baino askoz garapen handiagoarekin, gutxi edo gehiago formalizatua izan den jakintza arloa litzateke gramatika.

Eta esaldia esaten dugunean, formazko osagai jakin batzuk dituela ziurtatuz, gramatikariak asmatu edo nonbaitetik hartu duen hizkuntz unitateaz ari gara, beti ere, ekoitze egoera, testuingurua, kontuan hartu (beharrik) gabe. Nork, norrentzat, non, edo zertarako ekoitzi den gutxi axola dio. Hizkuntza jakin horren hitzunik esaldi hori ulergarri, onargarri bezala jotzen badu, nahikoa da aztergai bihurtzeko. Eta azterketa horretarako sortzen, proposatzen den araua, beste edozein esaldiren (beti ere egitura berekoa izanez gero, jakina) azalpenerako baliagarri bihurtuko da.

Gramatika hitzaren zentzurik trinkoena eta onartuena, beraz, hizkuntza bateko esaldien arau morfologiko, sintaktiko eta fonologikoen bilduma dela esan genezake. Nolabait esateko, hizkuntzaren fenomeno arautuak biltzen dituen sistema litzateke. Nolanahi ere, eta beti ere hizkuntza idatziari oso lotua.

Gramatikak, zentzu zabalagoan, hizkuntzari buruzko beste deskribapen eta azalpen asko ere besarka litzake, lexikoari buruzkoak esate baterako. Oro har, gramatika zentzu zabalean, hizkuntza jakin baten funtzionamendua azaltzeko egiten den proposamen oro izan daiteke. Metahizkuntzazko gogoeta oro gramatika bezala har daiteke: testuaren gramatika, semantika bera... Chartrandek (2005) adibidez, xx. mendearen azken laurdenean, hiru gramatika bereizten direla esaten digu: perpausaren gramatika, testuaren gramatika, eta diskurtsoaren gramatika.

Baina ez gara gramatikaren esanahi ezberdin guztiak argitzen ahaleginduko. Guri, eskolan, eta bereziki hizkuntzaren irakaskuntzarekin lotuta, kontuan hartzen den gramatika interesatzen zaigu. Izan ere euskal irakaskuntzan, inguruko hizkuntza erromantzeetako tradizioa jarraituz, gramatikak hizkuntzaren irakaskuntzan leku zentrala baitu.

Gramatikaren zeregina ez da zalantzan jartzen. Gramatikaren azterbidea, metodologia, eguneratu arren, gramatikak irakaskuntzan izan dezakeen eraginari buruzko irizpidea ez da funtsean aldatu. Zentzuan oinarritutako gramatikak bezala balio behar du formalizatua denak ere. Hizkuntza bat zuzen erabiltzea lortu nahi bada ezinbesteko baldintza da haren gramatika jakitea. Are gehiago, gramatika izango da hizkun-

tzaren edozein erabilera ontzat eman ahal izateko daukagun neurri fidagarriena eta bakarra.³

Irakasleak, alabaina, eta bigarren hizkuntzarenak bereziki, aspaldi ohartu dira gramatika asko ikasten duten ikasleak ez direla derrigorrez hizkuntza erabiltzeko gaitasun handiena dutenak. Perpaus mailako gramatika ariketak zuzen egiten ikasteak ez dakar bere baitan hizkuntzaren erabilera menderatzea.

3. Testua eta diskurtsoa

Pragmatikaren eta diskurtsoaren teoriak hizkuntzaren funtzionamendua azaltzeko ikuspuntua aldarazi digute: perpausa unitate formalala litzateke; testua, berriz, komunikazioaren bitartekoa, zentzuduna den heinean hizkuntzaren baliabide nagusia. Esan nahi baita, hitz egitea (edo idaztea) ez dela perpausak gehitze hutsarekin lortzen.

Eskoletan gertatzen dena aztertzeak asko lagundu digu testua lantzearen baliagarritasuna ulertzeko. Ikus dezagun adibide bat.

“Ura gure altxorra” (DBH 1, 12 urteko ikasle batena)

Ura guretzako altxor bat da bizitzeko beharrezkoa delako. Ureztaketan eta etxean erabiltzen dugu. Baina ez dugu behar bezala erabiltzen eta horregatik gutxiago gastatu behar dugu. Adibidez: iturrietako aberiak konpontzea komeni da ura alferrik gastatzen delako. Bainatzen gastatzen dugun urarekin 3 aldiz dutxatu gaitezke eta horregatik hobe da dutxatzea. Hortzak garbitzerakoan iturria itxita edukitzen badugu ur asko aurreztu daiteke.

Ura gaizki erabiltzeaz aparte kutsatu ere egiten dugu, lantegietan, garbitzeko e.a.

Urak lurlean hidrosfera izeneko geruza eratzen du, gainera lurraren hiru laurdenak urez osatuta daude, bai ur gaziz eta ur gezaz. Urak ziklo batean hartzen du parte: Itsasoan, ibaietan eta lakuetan dagoen ura beroarekin lurrundu egiten da eta hodeiak sortzen dira. Ondoren hodeietako ura berriz lurrera erortzen da euri, txingor eta elur moduan.

Uretan ere badago bizia. Adibidez ur gezan: ur gezako arrainak, igelak e.a. bizi dira eta ur gazian berriz: itsasizarrak, baleak, e.a.

Testu hau, gai baten inguruan informazioa emateko esaldi multzoa edo pilaketa litzateke. Esaldiz esaldi, gramatikaren arauak apenas apurtzen dira. Testua, ordea, ez da onargarria. Batek baino gehiagok esango du ikasle honi aritzea falta zaiola, gehiago idatzi eta irakurtzen badu ikasiko duela testu egokiak ekoizten.

Gogoeta berbera egin dezakegu esaldiekin ere. Erabiliaz ikasi egiten dira. Alegia, ikasle honek esaldiak nahikoa ongi josten ikasi badu ez da gramatikaren arauak ikasi ondoren haien legeak aplikatzen saiatu delako. Halere, guztiori normala iruditzen zaigu (esaldiaren) gramatika eskolan erakutsi beharreko zerbait izatea. Hala egin

³ Ikus Idiazabal & Larrigan (2005) lanean nola aztertzen dugun hizkuntzaren kalitatearen eta gramatikaren arteko lotura.

da eskoletan beti. Filosofoek, gramatikariek, hizkuntzalariek, esaldiaren gramatika eraiki dute eta ondoren, hitz egiten, eta bereziki idazten ikasteko gramatika (hori) erakutsi behar dela erabaki da, eta hala barneratu dugu gure eta gure inguruko kulturetan.

Alabaina, hau horrela ez dela erakusten diguten adibideak oso eskura ditugu gure artean. Esaterako, nork ez du ezagutzen euskararen gramatikarik batere irakatsi ez zaion arren, esaldiak nahiz testuak oso ondo ekoizten dituen euskaldun hiztunik? Ez dute inoiz euskararen gramatikarik ikasi, baina euskaraz bai ikasi dute, eta esaldiak eta testuak, idatziz ez bada ere, ongi ekoizten badakite. Guk asmatutakoa ez da hau: “eskolak eta gramatikak sortu direnetik hasi gara gaizki hitz egiten”. Eta ondo begiratu gero, ez zaio arrazoirik falta hau esan duenari.

Ondorioa zein litzateke? Ez dago gramatika irakatsi beharrik?

Geroago etorriko gara gramatikarekin zer egiten den eta zer egin behar litzatekeen aztertzera. Orain, testuaz ari gara, eta testuak ongi ekoizten irakatsi nahi badugu, testuaren teoria bat behar dugu. Ez da aski, lehen esaldi esaten zen lekuan orain testua egon behar duela esatea, tamaina kontua balitz bezala. Testuaz zer ulertzen dugun eta haren ezagutzara nola hurreratu beharko genukeen ikusiko dugu.

3.1. Testuaren teoria bat behar da

Hona hemen zenbait definizio, esan nahi duguna argitzeko:

Un texte peut être défini comme la manifestation concrète d’une activité langagière, produite en modalité orale ou écrite, en exploitant les ressources d’une langue naturelle donnée dans le cadre global d’une activité générale déterminée. (Bronckart 2007: 29)

Le texte est une suite empirique attestée, produite dans une pratique sociale déterminée et fixée sur un support quelconque (Rastier 2001: 21, Bronckartek aipatua, 2007: 39)

Testua, beraz, berbazko ekoizpen kokatua, burutua eta beregaina litzateke. Komunikazio unitatea. Bere baitan mezu antolatua duena eta hartzailearengan koherentziatzeko efektua eragin nahi duena (Larringan 1998: 60). Luzea edo laburra, idatzizkoa nahiz ahozkoa. Forma aldetik, hizkuntza baten osagaiekin egina den heinean, eta aipatu komunikazio baldintzak betetzen dituen bitartean, ez dauka formazko mugara zehatzik. Hori bai, testuak generoaren moldeak jarraituz eta diskurtso moten arabera ekoizten dira, komunikazio egoera edo testuinguruaren baitara uztarturik; eta baldintza horiei esker izango da testu ale bakoitza erabilgarri, ulergarri, eta komunikaziorako berbazko bitarteko nagusia.

Testua hizkuntza egintzaren emaitza da eta hau giza egintzari lotua dago. Giza egintzak askotarikoak diren bezala testuak ere askotarikoak lirateke, beraz. Nolanahi ere testuen aniztasunean kideetasunak badaude, eta aspaldidanik bildu dira multzoetan. Antzinarotik eta xx menderaino, literatur testuak ziren soilik generoetan sailkatuak eta aztertuak izateko aukera edo estatusa zuten hizkuntza ekoizpen bakarrak (Bronckart 2003)

Gaur Bakhtine (1984) dela medio, edozein testu sailka daiteke genero batean edo bestean, eta generoaren kontzeptuak argituko luke edozein hizkuntza ekoizpene-

tara urreratzen garenean (ekoizpenean nahiz ulermenean) aurrebaldintza batzuekin jokatzeko dugula, eta aurre-ezagutza horiei esker garelako kapaz hitz egiteko eta elkar ulertzeko ere. Hitzek eta esaldien gaitetik testu generoa (testuera edo testu moldeak) legoke erabileraren gida moduko bitartekari. Egia da testuena bezala, generoen aldakortasuna ere etengabea dela. Ikusi, bestela, garai bateko testu idatzien eta oraingoen arteko tartea, eta zer esanik ez ahozkoetara jotzen badugu. Eta bitarteko informatikoen bidezko ekoizpenak, berriz, ohartzeko kasik aukerarik gabe ari zaizkigu sortu orduko eraberritzen. Honek guztiak esan nahi du generoen kontzeptua ere eten gabe behar dugula egokitzen saiatu.

Rastierrek (2001) ongi azaltzen du, nolahi ere, generoaren bitartekaritza hau:

Le genre assure non seulement le lien entre le texte et le discours, mais aussi entre le texte et la situation, tels qu'ils sont unis dans la pratique (Rastier 2001: 229)

Tout texte est donné dans un genre, et perçu à travers lui (...) le texte est l'unité fondamentale mais non maximale puisque tout texte prend son sens dans un corpus. Or le corpus de textes d'un même genre s'impose en général (...) (Idem: 232)

Le genre l'importe sur les autres régularités linguistiques (...) Les régularités de genre l'importent sur les régularités idiolectales ou stylistiques (ibid)⁴

Testuaren ezagutzan generoa baliabide pertinentea da oso. Giza elkarreragin diskurtsiboak historian zehar eraiki dituen molde horietan, testuera sozial horietan, gauzatzen baita edozein hizkuntza naturalean ekoiztiko testu oro, eta testuen aniztasun mugagabearen oinarriko erregulartasun maila bat erakusten baitu generoak. Baina askoz gehiago dago testua zer den zehazki ulertu (eta bere erabilera irakatsi) nahi badugu.

Bronckartek eta bere taldeak (Bronckart 1985, 1996) koadro teoriko eta metodologiko osatua eskaintzen digute hizkuntzaren analisis nahiz irakaskuntzan aski ondo frogatu dena, eta bertara joko dugu testua zer den eta nola gauzatzen den azaltzeko. Gaur *interakzionismo sozio-diskurtsibo* (ISD) izenarekin ezagutzen denak planteamentu epistemologiko zehatza egiten du: "giza jokaeren ezaugarri espezifikoak beti ere sozializazio bidean burututako prozesu historikoen emaitza dira, inolaz ere" Larringan (2007: 121). Larringani berari jarraituz, esan dezagun eredu honek hiru teorizazio mota biltzen dituela hizketazko portaera jardura bere konplexutasunean azaltzeko: a) mintzairaz kanpoko teorizazioa, non testuingurua deitu izan den hori parametro objetibagarrietan adierazten den; b) hizkuntza unitateen gaineko teorizazioa, non hizkuntza naturalean ekoiztiko berbazko corpusetatik abiatuz, unitateen formazko eta erabilera (funtziozko) ezaugarriak aztertzen diren; c) mintzaira eragiketen teorizazioa, non hipotesi modura, "hizkuntzaz kanpoko parametroen eta testuetako hizkuntza unitateen arteko lotura eta artikulazioa hizkuntza eragiketa terminotan egiten den." (Idem).

Gogoetaren ardatza irakaskuntza izanda, bada Bronckarten ereduak eskaintzen digun beste zehaztasun bat, lehen aipatu dugun testu generoen markoa eta benetako testuen aniztasunaren arteko tartea ulertze aldera oso baliagarria dena.

"*Testuaren arkitekturaz*" hitz egiten digu Bronckartek (1996: 115, 120), non testuen eraikuntza azalduko lukeen, eta egitura edo teorizazio maila ezberdinak

⁴ Aipu hauek Bronckart (2007) lanetik atera ditugu.

zehazten diren. Ostopilaren antzera, hiru geruza maila bereziko lirateke: a) testuaren azpiegitura orokorra; b) testualtze eragiketen maila; eta c) ardura enuntziatiboa deitzen dena. Geruzarik eta sakonenean testuaren planifikazioa bereizten da, alegia, kasuan kasurako erabaki den egitura tematikoaren antolamendu orokorra. Maila berean diskurtso moten⁵ aukerak berezi behar lirateke eta hein batean, haietan ageri diren segmentuak eta esaldiak ere egituraren osagai lirateke. Bigarren geruzan testualtze mekanismoen eragina ikus daiteke: izen nahiz aditz kohesioa, eta konexio-loturak lirateke mekanismo hauek, eta aurreko diskurtso moten ezaugarriak eta elkarren arteko loturak adierazteko baliagarriak lirateke mekanismo hauek. Azken geruzari ardura enuntziatiboaren eremua deitu izan zaio, eta bertan kokatzen dira testu baten koherentzia pragmatikoa edo interaktiboa ziurtatzeko erabiltzen diren ahotsen ku-deaketa eta modalizazio baliapideak.

Hitz egitea, mintzaira jarduerak, testuak ekoiztea edo ulertzea bada, alegia testuak baldin badira mintzamenaren agerpen enpiriko bakarrak, haietan oinarritu behar du irakaskuntzak. Testuen izaera eta erabilera baldintzak ezagutzeko, lehentxeago aurkeztu dugun teorizazioa pertinentea bada, irakaskuntzaren norabidea nahikoa bideragarria litzateke.

3.2. Testuetan oinarritutako didaktika

Alabaina, testuak, eta generoak ere, lehen ere esan dugun bezala, askotarikoak eta aldakorrek dira. Ze genero eta ze testu erakutsi erabakitzea ez da kontu erraza. Didaktikaren lana da edukien aukeraketa egitea eta baita eduki horiek lantzeko proposamen teorikoen egokitzea ere (transposizio didaktikoa, alegia). Testuan oinarrituta egin diren proposamen didaktikoak asko dira, baina lehentxeago aurkeztu dugun ikusmira teorikoa kontuan hartuz egiten dutenak ez dira hainbeste. Oro har, esalditik testura egiten den jauzia gutxitan justifikatzen da. Esan eta egin izaten da aukera askotan, eta horrekin arazoak konpondu beharrean askotan okerrago ere ipintzen dira.

Aipatu eredu edo arkitekturan oinarrituz garatu dira, bereziki Genevan, saio didaktiko edo sekuentzia didaktiko (SD) zehatzak, eta eskoletan esperimentatu ere egin dituzte material horiek.

Saio didaktiko horietan, jakina, testuak dira hizkuntza irakaskuntzaren helburu nagusia eta haien izaera eta erabileraren baldintzak ezagutu behar dira, hasteko. Aldi berean, derrigorrezkoa da landuko den testu generoaren inguruko gogoeta, haien ezaugarri funtzionalak (zertarako erabiltzen diren) eta egiturazkoak (nola errekonozitzen ditugun) ezagutzeko. Beti ere, testu berri baten ekoizpen baldintzen analisia egiten den bitartean, alegia, zein helbururekin ekoizten den eta zein egoera konkreturi begira. Lan hori egin ostean, SDetan ariketa teknikoagoak egiten dira, testu genero jakin bat egituratzen duten arauak menderatze aldera. Eta, jakina, ariketa hauek esaldiaren gramatika ere lantzen dute.

Didaktikaren beste zenbait arau ere integratzen dira SD hauetan, hain zuzen ebaluaketarekin zerikusi estua dutenak: hara nola, aurre-testuaren ekoizpena, izan ere abia-

⁵ Diskurtso motaren kontzeptua zehatzago ikusteko jo iturrietara (Bronckart 1996) edo Larringanek (1998) ematen duen azalpenera.

puntuaren ezagutza behar da nondik abiatzen garen jakiteko. Aurre-ebaluaketa hau aurrerapena neurtzeko ezinbesteko erreferentzia izango da, eta saioan zehar eta amaieran egin behar den ebaluaketa hezitzailea izan dadin ezinbesteko baldintza gertatuko da.

4. Zer gertatzen da gramatikaren irakaskuntzaren inguruan?

4.1. Eskolako gramatikari gainbegiratu azkar bat

Gramatika irakasteko egon diren joerak aztertzen baditugu, lehenengo programazio sistematikoak konduktisten eskutik etorri ziren, eta proposatzen zuten irakaskuntza programatuaren ardatza dedukzioan oinarritzen zela ikusiko dugu. Arauak eta definizioak buruz ikasi batetik, eta bestetik, aurrez ikasitako arauekin analizagarriak (konpatibleak) diren esaldi aukeratuak landuz bideratzen zen lana. Ondorioz hizkuntza ikasiko zela pentsatzen zen. Ebaluaketan, berriz, erakutsitako nozio eta arauak ikasi diren frogatu beharko da, baina ez da frogatzen hizkuntzaren erabileran zenbat baliatzen diren ikasitako nozio eta erregelak. Zertarako irakasten da gramatika bide honetatik? Bronckartek (2004) egiten duen gogoeta jarraituz, esan dezagun hiru helburu nagusi dituela gramatikaren irakaskuntza honek: 1) Gramatikaren arau eta kontzeptuak unibertsaltzat hartzen diren heinean norberarena ez ezik beste hizkuntzak ikasteko ere baliagarriak izango direla pentsatzen da; 2) Arau hauetatik asko ortografia menderatzeko ezinbestekoak dira, komunztadurarekin zerikusia duten arauak frantsesez, esate baterako; 3) Arau eta ariketa hauek testu onak, filosofiako edo literaturakoak, hain zuzen ere, lantzeko ezin aproposagoak suertatuko dira, ez hainbeste eguneroko testuen azterketarako.

Helburu hauek betetzen diren ez da frogatu, baina aldiz, joera hauetan oinarrituz garatu da eskolako gramatikaren irakaskuntza. Ondorioz hainbat arazo ikus ditza-kegu praktika zabaldu eta arrunt honetan: gramatika tradizionalak erakusten zuten latinaren mendekotasuna ez da desagertu; irizpide logiko-semantikoak (subjektua, aditzaren ekintza nor/nork burutu duen esaten diguna da) asko erabiltzen dira; literaturaren zerbitzuan ageri da askotan gramatika, analisi literarioak ordezkatuz, eta apenas duen hizkuntzaren sistema azaltzeko koherentziarik. Gramatika modernoagoetan, enpirismoaren eragina nabari da, eta hizkuntzak erabiltzen diren bezala aztertzeko edo irakasteko joera agertuko litzateke, eta ez derrigorrez literatur testuetan agertzen den hizkuntza jaso eta hautatua. Halere, esaldiak, haien testuingurua kontuan hartu gabe aukeratu dira, teorizatu gabe, eta sintaxia lehenetsi da morfologiaren gainetik.

4.2. Nola gauzatzen da eskoletan gramatikaren irakaskuntza ?

Nolanahi ere, interesgarria litzateke ikustea eskoletarako prestatu diren hizkuntza curriculumetan, eta haiek bideratzeko egiten diren eskola liburuetan nola integratzen den gramatikaren irakaskuntza.

Berriki kontatzen zigun Crystal irakasleak⁶ Erresuma Batuan, 1965 eta 1985 urte bitartean eskoletatik gramatika erabat desagertarazi zela. Irakasleak eurak ere, garai

⁶ Bilbon 2007ko irailaren 23an, David Crystal irakasleak eman zuen hitzaldi baten harian egindako adierazpenak.

horietan eskolatuak behinik behin, gramatika kontuetan erabat ezjakinak omen ziren. Esaterako, preposizioa zer den ez omen zekiten. Gurean horrelako zerbait pentsa ezina litzateke, baina han, eta hizkuntzaren irakaskuntzaz badakite zerbait ingelesek, ez dirudi halako deskalaborrik gertatu zenik. Hala eta guztiz ere, gaur Ingalaterran eta Erresuma Batuan oro har, Deer (2006) irakasleak dioen bezala, 1988 urtean Curriculum nazionala⁷ eta aldi berean kanpo ebaluaketa sistema jarri zuten abian. Beste jakintza arlo guztiekin batera hizkuntza kontuetan ere erreferentzia puntua curriculum horrek ezartzen du. Bertan, gramatikak leku gehiago du. Gramatika hori halere, testu genero ezberdinen ezaugarri formalak hobeto ezagutu edo haien zerbitzuan lantzen omen da. Alegia, kontakizunak ahoz eta idatziz hobeto egiteko, albisteak ematen jakiteko, antzerkiak edo bestelako literatur lanetan egokiago murgiltzeko, ahozko zein idatzizko eztabaidetan, solasetan, aurkezpenetan, partehartze duinagoak egin ahal izateko irakasten omen da oinarrizko gramatika. Aipagarria da izan ere, curriculum horretan gramatikari ematen zaion balio funtzionala, idatziaren, ortografiaren, eta puntuazioaren zerbitzuan lantzen da gramatika. Nolabait esateko, bere baitan ez da jakintza gaia, baina baliabide bezala bai, badu bere lekua.

Herrialdetik herrialdera, eta hizkuntza batetik bestera alde handiak daude, baina eskolako gramatika zer den eta zertara mugatzen den azaltzerakoan ingelesaren antzeko zedarripena egiten du Chartrand irakasleak ere, kasu honetan, Kanadako frantsesaren irakaskuntzari dagokionez; eskolako gramatikaz ari garenean hizkuntzaren sistemaren zati batez ari garela esango digu: morfologia, sintaxia, puntuazioa, eta ortografiarako baliagarria den morfosintaxiaren arau batzuetara mugatzen da; frantsesaren ereduak norma estandarren zenbait arau ere oso gogoko dira eskolako programetan, eta beti, idatzia da lantzen den hizkuntza. Ahozkoaren gramatika ez da inon erakusten. Berrikiago, testua, enuntziatioa eta diskurtsoaren zenbait kontzeptu ere sartu dira frantsesaren eskolako gramatika horretan. Testu mailako diren zenbait fenomeno arautu ere lantzen omen dira gaur: anaforak eta berrartzeak, deiksiak, modalizazioak, diskurtso erreferitua eta abar (Chartrand 2005: 12).

Gure irakaskuntzan ere, LOGSE legeak ekarritako berrikuntzen haritik, proposamen mailan behintzat, asko aldatu dira gauzak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *Oinarrizko Curriculum Diseinuan*, adibidez, hizkuntza arloan 10 helburu zehazten dira, bai gaztelaniaren kasuan, baita euskararenean ere (ikus 1. eranskina). Legeak egokitzapen bat baino gehiago izan ditu, baina Hizkuntza eta Literaturaren irakaskuntza helburuak, 1997urteko 180 Dekretuan, hamar urte lehenago diseinatu ziren ia modu berean agertzen dira (ikusi 2. eranskina). Eta hamar helburu horietan ia aipatu ere ez da egiten, zuzenean ez behintzat, hizkuntzaren sistemaren arau formalen (sintaxia, nahiz morfologia) inguruko gogoetarik. Ez da ezer esaten metahizkuntza ezagutzen ikasi beharraz, alegia gramatikaren legeak ikasi eta landu beharraz.

Nolanahi ere, gauza bat da legeak dioena edo irakaskuntza erreformatan proposatzen dena, eta beste bat, lege hartan oinarritu arren benetan egiten dena. Adibidetarako edozein eskola liburu har dezakegu zer proposatzen den ikusteko, eta Bosquek (2004), argitaratu duen batxilergoko 2. mailarako Gaztelera eta Literatura

⁷ Zenbait orrialdetan begiratzea aski da *National curriculum for English* deiturikoaren eduki nagusiak nola banatzen diren ikusteko: www.ncaction.org.uk/subjects/english, www.literacytrust.org.uk/Databse

liburuaren aurkibidea ekarri dugu (ikus 3. eranskina). Hiru ataletan banatzen du liburua, bakoitzak 10 gai dituela. Lehenengoa, Gramatika izendatzen da eta bertan ageri dira esaldi bakuna eta konposatuaren azterketari emaniko 5 gai; beste hiru gai lexikoari emanak daude, 9.a “*Más allá de la Gramática. Los estudios pragmáticos*” eta 10.a “*El texto. Coherencia y cohesión*” deitzen da. Beraz, testuaren gramatika moduko zerbait bilduko litzateke azken bi gai hauetan. Bigarren atala “*Comunicación y técnicas de trabajo*” deitzen da eta bertako lehenengo bost gaietan gaztelaniari buruzko zenbait ezagutza aipatzen dira, hizkuntzaren historia, gaurko gaztelaniaren ezaugarriak, aldakiak, elebitasuna eta beste. Beste bost gaiak testu genero ezberdinen ingurukoak dirudite: “*Textos científico-técnicos, humanísticos, periodísticos*”, eta abar. Hirugarren atala, bere osotasunean gaztelaniaraz idatzitako literaturari eskaintzen zaio. Egia da gai zerrenda batek ez duela erakusten benetan zer eginarazteko pentsatua dagoen ikas-liburua, baina nolana ere, badirudi, gramatikaren betiko arloek beti izan duten leku garrantzitsua hartzen jarraitzen dutela. Egia da baita ere, eskola liburuaren artean alde handiak daudela eta lehen esan dugun bezala, euskarazkoetan testuaren ardatza jarraitzen duten proposamenak nahikoa ugariak direla. Nolanahi ere, oso antolamendu eta joera ezberdinak ikus daitezkeela argitaletxe edo ikertalde baten esku egon diren eskola-liburuaren eta beste argitaletxe edo talderen fruitu izan direnen artean. Hezkuntza administrazioak ez du didaktika irizpiderik ezartzen eskola liburu bezala egokitasun ziurtagiria edo baimena ematen duenean. Oro har, gainera, ez dago kontrolrik, ez didaktika ez eduki aldetik. Euskarazkoetan euskara mailako oniritzia ematen da baina gainerako guztia, eta asko da, liburu egileen esku geratzen da.

Ez dugu ezagutzen, gure irakats sistemari dagokionez, lege edo proposamenean esaten dena eta eskola liburuetan eskaintzen denaren arteko azterketarik, ez hizkuntzaren arloan ez besteetan.⁸ Nolanahi ere, aztertu egin behar litzateke kontu hau, ez baitakigu eskoletan, benetan, zer egiten den. Eta aztertu behar litzatekeena bereziki, zera da, zenbateraino programa eta material horiei esker lortzen duten gure ikasleek hizkuntzaren erabileran gaitasun egokia. Alegia, hasieran aipatzen genuen irakaskuntzaren helburu nagusia, hizkuntza eskolan eta eskolatik kanpo behar bezala erabiltzeko gaitasuna lortzen den edo ez aztertu behar litzateke. Baina didaktika esperimentalak oso urruti dago gure inguruko ikerketa intersektatikatik...

4.3. Zer da benetan irakasten dena?

Genevako Unibertsitatean, Schneuwly eta Dolzen zuzendaritzapean, ikerketa garrantzitsu bat garatu dute. Eskoletan irakasten dena aztertzen ari dira, benetako hizkuntzaren didaktika ezagutu nahi da. “*L'objet enseigner*”⁹ izenpean hainbat esko-

⁸ Begoña Bilbao euskal curriculumaren zenbait gai eskola liburuetan zenbateraino jasotzen ziren aztertu zuen bere tesian (Bilbao 2003), baina hizkuntzaren didaktikarekin lotuko litzatekeen beste lan hau ez dago egin ez euskararako ez gaztelaniarako.

⁹ AIRDF (*Asociation internationale pour la Recherche en Didactique du Français*) elkarteak 2004ko kongresuan gai hauxe landu zuen bestalde. Ikus bere web orrialdean (<http://www.Airdf.com>), bertan aurkeztutako lanak.

latako irakats saioak grabatu eta haietan gertatzen diren elkarreragin sekuentziak aztertzen dira oso protokolo zehatza erabiliz. Bi irakasgai nagusi alderatzen dira: erlatibozko esaldien irakaskuntza batetik, gramatikarekin oso lotua dagoen gaia, eta argudiozko edo iritzi testuak, bestetik. Jaso den lagin edo corpus zabal hau aztertzeko bi azterbide nagusi garatu dituzte: batetik, semantizazio prozesuak aztertzen dira, alegia, ikasgai jakin batean erreferente (eduki) bat edo batzuen eraikitzea (atze-matea) nola egiten den, eta hartarako agertzen diren terminoak eta haien isotopiak (sareak) nola garatzen diren ikusten dira. Bestetik, eskola egoeraren giza antolaketa-
ren eraginak aztertzen dira. Bigarren bide honen bitartez, aipatu ikasgaiak erakus-
teko irakasleak erabiltzen dituen forma komunikatibo-diskurtsiboak begiraturako
dira. Makroegitura berezi batzuen bidez bitartekari lana irakasleak nola egiten duen
ikusi, eta aipatu semantizazioan (edo ikaste prozesuan) nola eragiten duen ezagutu
ahal izango da. Ondorioz, jakin daiteke zein efektu duten eskolaren espazioa eta
eginkizunaren “taularatzeak” (“mise en scène”), edukiek, bideratzen diren ariketa
edo eginkizun motek, eta azken baten irakasleak erabiltzen dituen baliabide ezber-
dinak (“outils”). Alegia, dispositibo didaktikoak (baliabideak, ariketak, eginkizunak)
nolako eragina duen zentzuen, ezagutzen eskuratze prozesuan. “Synopsis” deitzen
duten baliabide metodologikoa garatu dute bilketa era sistematikoan eta egituratuan
egiteko.

Ikerketa honen lehenengo emaitzetan (Schneuwly et al. 2005) ikus daiteke, bi arloetan irakasleak zer egiten duen, alegia, nola erakusten duen, nola zatikatzen, nola egokitzen eta eraldatzen duen edukia ikasleak ikas dezan. Nabarmena da nola gramatika irakasten, behatu diren irakasle guztiek, haien arteko aniztasuna handia izan arren, oso keinu edo irakats molde antzekoak erabiltzen dituzten. Iritzi testuak irakasteko, aldiz, oso keinu ezberdinak eta aldakorrek ageri dira, gutxi formalizatuak, irekia den sistema baten inguruan lan egiteko modua nabari da. (Aeby et al. argitaratzeke) Ez da zaila emaitza hauen azalpena: gramatika lantzeko modua kultur ezagutza finkatua eta askoz ezagunagoa da, testu mailako ezagutzen lantzeko erabiltzen dena baino.

5. Proposamen bila

Ikusi dugun moduan, eskolan gramatika irakatsi beharra ez du inork zalantzan jartzen, baina zehaztu behar da zer, zertarako eta nola irakatsi.

Bestalde, gramatika irakastearen helburuak nahikoa argi daude. Bi nagusiki:

- 1) Hizkuntza idatziaren arau nagusiak (komuntadura, ortografia, puntuazioa eta beste) menderatzeko lagungarri izan behar du. Betiko eduki horiek, eta testuetan ageri diren prozedurak, gramatikak azaldu behar du zeintzuk diren, baina beti ere hizkuntza errekurso horiek dituzten efektu diskurtsiboak izango dira ikasi beharrekoak, ez errekurso formalak bere baitan.
- 2) Ikasleen hizkuntza gaitasunak garatzeko, eta zehazki, testu eta diskurtsoetan gauzatzen den hizkuntzaren metaezagutzaren ezaugarriak (erregulartasunak) menderatu eta ikasleek haiek egokiago erabiltzen jakin dezaten. Nolanahi ere, metaezagutza bera, eginkizun erreflexiboa alegia, ez da bere baitan helburua, bai-
zik eta hizkuntzaren praktika edo usu egokiak bideratzea izan behar du xedea.

Eta zer du honek betiko gramatikak duena baino hobe? Hizkuntzaren erabilerari, bereziki idatziari, zerbitzu handia egin diezaiokeela. Baliagarritasuna erraz ikusten zaiola.

Nolanahi ere, ez da kontu erraza helburu honi artez erantzutea. Azken batean, hizkuntzaren didaktikak agindu behar du hemen. Eta didaktika disziplina beregaina da, bere baliabide epistemologiko eta metodologikoekin. Jakintza arlo teknikoa eta praktikoa, edukia, ikaslea eta irakasleak osatzen duten hiruki ardatzaren inguruan baliabide zehatzak garatuko dituen bitartekoa (Schneuwly 2003).

Hizkuntza, edo hizkuntzalaritza, edo gramatika edo literatura asko jakitea ez da nahiko bermea hizkuntza erabiltzen irakasten jakiteko. Eta eskolan hizkuntza forma konplexuak (testuak eta diskurtsoak) irakatsi behar dira eta hori egin ahal izateko behar da didaktika: Hirugarren atalean azaldu dugun bezala, ordea, hizkuntzaren didaktikak aldaketa sakonak nozitu ditu eta gehiagoren beharra ere sumatzen da. Lehen ere esan dugun bezala, hizkuntza kontuetan, eskolari eskatzen zaiona hizkuntzaren erabilera menderatzea baita. Hau geroz eta argiago ikusten da gizartean ere, eta garai bateko gramatikaren definizioak gutxi balio digu gaur. Ikus adibidez, berriki kaleratu diren PISA 2006¹⁰ ebaluaketa jardunaren ingurukoak. Munduko 30 herrialde aurreratuenetan (OCDE erakundekeotan, hain zuzen ere) egiten da ebaluaketa hau hiru urtean behin, herrialde bakoitzeko 15 urteko ikasle lagin esanguratsu bat erabiltziz. Hizkuntza kontuetan, 2006koan adibidez, irakurketaren ulermena neurtu da, eta hartarako kirola egiteko zapatilei buruzko idazki bat irakurri arazi zaie ikasleei. Ez da gramatika noziorik ez analisia morfosintaktikorik eskatzen; testu bat, eta ez literatura testua hain zuzen ere, da irakurri beharrekoa eta ulertzen den edo ez aztertzen dena.

Gramatika erakutsi behar ez denik ez dugu esango, baina irakasten den gramatikak zertarako balio behar duen garbi dago. Hori esatea egitea baino errazagoa izan arren, bada teknologia nahikoa landua helburu horretarako. Ikus bestela Genevako eskolakoek garatu duten sekuentzia didaktiko (SD) bilduma. (Besson et al. 1990, Dolz et al. 2001, eta beste). Dударik gabe, eta SD baliabide didaktikoaren sortzaile izan diren heinean, ezagutzen dugun materialik hoberena. Ildo horretatik, gure artean ere zenbait argitaletxetan sortu dira material interesgarriak: Erein argitaletxeko "Esaizu Proiektua", edo Elkarlanean Ikastolen Elkartek sortu duen "Ostadar" proiektua, edo irakasleen prestakuntzarako Begoñako Andra Mari (2006) taldeak sortutakoa esate baterako. Bestalde, eta lehen aipatu dugun HABEren Programa berrian ere sekuentzia edo ataza didaktikoen zenbait ezaugarri biltzen dira. Ordea, programetan eta materialetan esalditik testura jauzi egin arren, irakasle askok material hori erabiltzeko behar duen prestakuntzarik ez dauka. Hizkuntzalaritzan eta didaktikan behar da prestakuntza zehatza, ohikoa den hizkuntzaren ikusmira logiko eta gramatikala gaingitu, eta ohartu diskurtso arauak direla sintaxia eta morfologiaren hainbat gauza baldintzatzen dituztenak eta ez alderantziz. Esaldiaren arauak eta diskurtsoarenak integratu beharra dago. Bestela, eta Bronckartek arrazoi osoz esaten duen bezala, "la enseñanza textual se ha incorporado en los programas sin que el gramatical se haya modificado sustancialmente. (...) El corpus gramatical se presenta hoy en día como una cantera inacabada sin coherencia de conjunto, en el que restos de objetos de enseñanza antiguos cohabitan con nuevos objetos que todavía no han

¹⁰ Ikus *isei/ivei* erakundearen web orrialdean (www.ivei/isei) PISA 2006ko ebaluaketaren txostena.

sido totalmente asumidos. (...) se observa insatisfacción en el profesorado que tiene dificultades con los nuevos conceptos (...) aprovechada políticamente para justificar una vuelta a la tradición” (2007: 9).

Ondorioz, euskararen irakaskuntzarako gramatika bai, behar da, eta ez legoke gaizki eskolan pentsatuz egindako bat sortzea. Esan nahi baita, goian aipatu ditugun ezaugarriak izan behar dituela batetik, eta bestetik gure ikasleek kontuan hartuz, baliagarria izan behar duela haien dituzten beharrentzat. Lehen aipatu dugun bezala, idatziaren lagungarri behar du batetik, eta bestetik, gure ikasleek beste hizkuntzak ere ikasten dituztela kontuan hartuz, gutxienez terminologia mailan beste hizkuntzetan erabiltzen denarekin batasuna izango lukeena, eta eskatzen hasi ezkerro, gauzak behar den zehaztasunarekin baina alperreko konplexutasunik gabe adieraziko lituzkeena nahiko genuke gure eskolarako gramatika. Hizkuntzaren sistema ezagutzeko eta erabili behar denean, alegia, testua sortu eta/edo ulertu behar denean, ikasleari nahiz irakasleari lagungarri izango zaiona.

Bronckartek (2003) konpromiso moduko bat proposatzen digu. Paraleloki testuekin eta esaldiekin lan egiteko apustua egiten du. Batetik, beraz, testu enpirikoen corpus batetik abiatu, eta sentsibilizazio ariketak egin behar lirateke, testu horiek bere testuinguru komunikatiboan nolako gauzatze edo funtzionamendu baldintzak dituzten ezagutzeko, eta bide horretatik testuen planifikazio eta testualtze legeak ikastera heltzeko. Bestalde, eta aldi berean, esaldi aukeratuaren corpus bat oinarritarako hartuz hizkuntzaren sistemari buruzko nozio eta arau garrantzitsuenak eskuratu behar lirateke, nahi bada, esaldiaren gramatikaren bide arrunta jarraituz. Baina konpromiso hau erronka bati lotu beharko litzaioke. Alegia, gramatikaren ikasgaiak azken batean testuen ekoizpen eta ulermenerako baliagarri izan behar lukete. Eta jakina, erronka hau bideratzeko gramatikaren nozio eta arauen berregituratze edo berreraikitze prozesu bat gauzatu beharko litzateke, eta honek, jakina, luze joko du. Baina horrela dira gauzak, eskolako gramatika eta hizkuntzaren egituratze ekimenak beti berregiten joan behar dutela barneratu beharreko kontzeptua da hala beharrez.

Eta amaitzeko, esan dezagun, edozein interbentzio didaktiko egiteak egoeraren ezaugarri eta baldintzen azterketa kontuan hartzea eskatzen duela. Irakaskuntzaren baldintza egoera horien artean, protagonisten irudikapenak (guraso, irakasle, ikasle) izugarritzeko eragina du. Eta haien, tradizioa jarraituz, hizkuntza lantzea gramatika lantzea bezala irudikatzen dute. Eta irudikapen edo ulertzeko modu hori ez da aldatzen goizetik gauera. Didaktika proposamen berriak, beraz, baldintza horien jakitun izanik egin behar, eta egoera horretan itsatsi beharko bideratu nahi den aldaketa eraginkorra izango bada.

Bibliografia

- Aeby Daghe, S. & Dolz, J., argitaratzeko, “Des gestes didactiques fondateurs aux gestes spécifiques à l’enseignement/apprentissage du texte d’opinion”, in D. Bucheton & J. C. Chabanne (arg.), *Les gestes professionnels de l’enseignant de français*, PUF, Paris.
- Audigier, F., M. Crahay & J. Dolz, 2006, *Curriculum, enseignement et pilotage*, De Boeck Collection. Raisons éducatives, Bruxelles.
- Bakhtine, M., 1984, *Esthétique de la création verbale*, Gallimard, Paris.

- Begoñako Andra Mari, 2006, *Testugintza*, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, Bilbao.
- Besson, M.-J. et al., 1979, *Maîtrise du Français*, Département de l'Instruction Publique, Genève.
- , Canelas-Trevisi, S., I. Nicolazzi-Turian & J.-P. Bronckart, 1990, Vol. 1: *Français 7^e*, Vol. 2: *Français 8^e*, Vol 3: *Français 9^e*. *Pratique de la langue*. Cycle d'orientation de l'enseignement secondaire, Département de l'instruction publique, Genève.
- Bilbao, B., 2003, *Curriculum eta Kultura Euskal Herrian*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Béguelin, M.-J. (arg.), 2000, *De la phrase aux énoncés: grammaire scolaire et descriptions linguistiques*, De Boeck & Larcier, Bruxelles.
- Bosque, I., 2004, *Lengua castellana y literatura. 2.º Bachillerato*, Akal, Madrid.
- Bronckart, J.-P., 1996, *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*, Delacahux et Niéslé, Paris. Gaztelerazko itzulpena, 2005.
- , 2003, *Didactique de la Grammaire*, FAPSE, Université de Genève. (Eskola materiala)
- , 2004, "Commentaires conclusifs. Pour un développement collectif de l'interactionisme socio-discursif", *Caleidoscopio* 2: 2, 113-123.
- , 2005, "Les différentes facettes de l'interactionisme socio-discursif", *Caleidoscopio* 3: 3, 149-159.
- , 2007a, "La actividad verbal, las lenguas y la lengua; reflexiones teóricas y didácticas". Barcelona, 18 y 19 de enero de 2007. I Jornadas de Investigación sobre la educación lingüística y literaria en entornos plurilingües, organizados por la xarxa de recerca LLERA. Conferencia inaugural.
- , 2007b, "L'articulation des déterminismes du social, de la langue et des opérations psychologiques dans l'architecture textuelle. Hommage à Frédéric Rastier", *2èmes rencontres de l'ISD. Lisboa*, 12 octobre 2007. (Document de travail).
- , & Besson, M.-J., 1988, "Et si la grammaire n'était pas inutile?", in D. Bain (arg.), *La recherche au service de l'enseignement?*, CRPP, Genève, 73-93.
- Chartrand, S.-G., 2005, "L'apport de la didactique du français langue première au développement des capacités d'écriture des élèves et des étudiants", in J. Lafont-Terranova & D. Colin (arg.), *Didactique de l'Écrit*, Presses Universitaires de Namur, Namur, 11-32.
- Deer, C., 2006, "Le curriculum national en Angleterre, entre logique politico-idéologique et didactico-pédagogique", in Audigier, F., M. Crahay & J. Dolz (arg.), *Curriculum, enseignement et pilotage*, De Boeck Collection. Raisons éducatives, Bruxelles, 85-97.
- Dolz, J. & J.-C. Meyer, (arg.), 1998, *Activités métalangagières et enseignement du français. Actes des journées d'études en didactique du français (Cartigny, 28 février - 1^{er} mars 1997)*, Peter Lang, Berne.
- , Noverraz M. & B. Schneuwly, (dir.), 2001, *S'exprimer en français. Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit*, De Boeck & Larcier, COROME, Bruxelles.
- , Jacquin, M. & Schneuwly, B., 2006, "Le curriculum enseigné en classe de français au secondaire: une approche à travers des objets enseignés", in Audigier, F., M. Crahay & J. Dolz (arg.), *Curriculum, enseignement et pilotage*, De Boeck Collection. Raisons éducatives, Bruxelles, 143-164.
- Euskaltzaindia, 1994, *Euskal Gramatika lehen Urratsak. IV (Juntagailuak)*, Euskaltzaindia, Bilbao [= EGLU-4].
- Esnal, P. & L. Elozegi, 2004, "Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat", *Hizpide* 57, 3-128.

- Europako Kontseilua, 2001, *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. HABE, Eusko Jaurlaritza, 2005. (*Common european Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment. Education Committee, Language Policy Division, Strasbourg*) (2001).
- Goenaga, P., 1978, *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- HABE, 2000, *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluma* (HEOK), Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- Idiazabal I. & L. M. Larringan, 2005, "Euskararen kalitatea aztertze marko teorikoa eta metodologia", *Ikastaria* 14, 9-29.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Elkar, Donostia. Edition revue et corrigé: 1979.
- Larringan L. M., 1998, "Testuen analisisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean", in I. Idiazabal & L. M. Larringan (arg.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: Testuratzte baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, UPV/EHU-Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 47-95.
- , 2007, "Testu motak eta testu antolatzaileak: zer lotura?", in I. Plazaola & M. P. Alonso (arg.), *Testuak, diskurtsoak eta generoak*, Erein, Donostia, 119-134.
- Oinarrizko Curriculum Diseinua, 1990), *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Gaztelania, Euskara eta Literatura. Atzerriko Hizkuntzak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Rastier, F., 2001, *Arts et sciences du texte*, P.U.F., Paris.
- Schneuwly, B., 2003, "Le modèle didactique du genre: un concept d'ingénierie didactique", *Les cahiers THEODILE* 3, 27-52
- , Sales-Cordeiro, G. & J. Dolz, 2005, "A la recherche de l'objet enseigné: Une démarche multiphocale", *Les pratiques enseignantes: analyse de données empiriques* 14, 77-91.

Aipatu ditugun web orrialdeak

www.ncaction.org.uk/subjects/english,
www.literacytrust.org.uk/Database
 (<http://www.airdf.com>)
 (www.ivei/isei)

1. Eranskina

Erreformatzeko Curriculum Diseinua 1992: 23-24.)

HELBURU OROKORRAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Etapan Gaztelania eta Euskararen irakaskuntzaren helburua ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen laguntzea izango da.

1. Ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertu, beren helburu ezberdinak eta hauek inguratzen dituzten komunikazio egoerak ezagutzeko.
2. Ahoz eta idatziz era koherente eta zuzen batean adierazi, komunikazio helburu eta egoera ezberdinen arabera, eta estilo propioa lor dezan lagunduz.

3. Espainiar Estatuan eta gizartean hizkuntza anitz daudela eta hizkuntza bakoitzean barianteak esistitzen direla ezagutu eta baloratu, estereotipo sozio-linguistikoak gaudituz, eta ukitzen diren hizkuntzek sortarazten dituzten arazoak kontuan hartuz.
4. Bere adierazpen errekurtsoak erabili, bai linguistikoak, bai ez-linguistikoak, beste pertsonekin harreman zuzenak izaten sortzen diren komunikazio harremanetan.
5. Komunikabideen elementu eta ezaugarriak ezagutu eta aztertu, helburu bikoitz batekin: diskurtsogintza trebetasuna hobetu, eta beren mezuen aurrean jarrera kritikoak garatu, beren manifestapenak egungo kulturaren duten garrantzia baloratu.
6. Irakurketa eta idazketaz era autonomo batean profitatu eta gozatu, bi jardueraren horiek komunikazio era bezala, kultur aberaste eta gozamen pertsonal iturri bezala hartzen direlarik.
7. Alde batetik literatur testuak, eta bestetik asmo literarioa duten ahozko nahiz idatzizko testuak interpretatu eta ekoitzi, jarrera kritiko eta sortzaileetatik abiatuz, literatur tradizioaren lan nabarmenak ondasun kulturalaren erakusgarri bezala baloratu.
8. Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartu, bere maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan. Baita mezuen ekoizpen eta hartze baldintzei buruz komunikaziorako testuinguru sozialetan, norberaren ekoizpen linguistikoak erregulatzeko gaitasuna garatzearen.
9. Hizkuntza erabilpen sozial ezberdinak kritikoki aztertu eta juzkatu, hizkuntzaren eduki ideologikoaren onarpenaren bitartez estereotipo linguistikoak saihestuz, baldin eta hauek aurreiritziak (klasistak, arrazistak, sexistak, etab.) suposatzen badituzte.
10. Hizkuntza helburu guzti hauetarako tresna gisa erabili: ikaskuntza berriak lortzeko, errealitatearen ulerpen eta azterketarako, pentsamenduaren finkapen eta garapenerako, eta azkenik, norberaren aktibitatearen erregulapenerako.

2. Eranskina

4.2. *Objetivos generales de la materia: lengua castella y Literatura* (Decreto 180 de 1997)

Si esos son los objetivos que debe lograr el alumno que cursa Bachillerato, algunos de ellos debe alcanzarlos a través de los específicos de la materia de *Lengua castellana y Literatura*, y que, expresados en términos de capacidades, son los siguientes:

1. Comprender discursos orales y escritos de carácter culto: científicos, culturales, técnicos, etc., atendiendo a las peculiaridades comunicativas de cada uno de ellos e interpretando, de manera crítica, el contenido ideológico de los mismos.
2. Expresarse oralmente y por escrito mediante discursos coherentes, correctos y adecuados a las diversas situaciones de comunicación y a las diferentes finalidades comunicativas, desarrollando un estilo expresivo propio.

3. Analizar la situación lingüística en Euskal Herria, en España y en el mundo, observando la diversidad y diferente situación de las lenguas y sus variedades en relación a factores de naturaleza socio-histórica, para favorecer una actitud consciente y respetuosa hacia la riqueza plurilingüe y pluricultural.
4. Utilizar y valorar el lenguaje oral y escrito como medio eficaz para la adquisición de nuevos aprendizajes, para la comprensión y análisis de la realidad y para la organización racional de la acción.
5. Profundizar en el comentario de textos y reflexionar sobre los distintos componentes de la lengua (fonológico, morfosintáctico, lexicosemántico y textual) y sobre el propio uso, analizando y corrigiendo las propias producciones lingüísticas y empleando en ello los conceptos y procedimientos adecuados.
6. Interpretar y valorar críticamente obras literarias, identificando los elementos que configuran su naturaleza artística, descubriendo en ellas el uso creativo de la lengua, y relacionándolas con una tradición cultural y unas condiciones sociales de producción y recepción, apreciando en ellas la proyección individual y colectiva del ser humano y su capacidad de representación del mundo.
7. Conocer los principales rasgos de los períodos más relevantes de la Literatura en español, así como las obras y los autores más representativos de la misma en su marco artístico y cultural, localizando y utilizando, de forma crítica, las fuentes bibliográficas adecuadas para su estudio.
8. Disfrutar autónomamente de la lectura como fuente de nuevos conocimientos y experiencias, y como actividad placentera para el ocio.
9. Analizar críticamente los diferentes usos sociales de la lengua, evitando, de manera reflexiva y consciente, en las propias producciones aquellos usos en los que se manifiesten actitudes discriminatorias.
10. Ser capaz de transferir a otras lenguas objeto de aprendizaje, y particularmente al euskera, aquellas destrezas lingüísticas y textuales que el alumno aprende en esta materia.

3. Eranskina

Ignacio Bosque (2004) Lengua castellana y Literatura. 2.º Bachillerato

INDICE

I. GRAMÁTICA

1. La sintaxis de la oración simple
2. Coordinación y subordinación de oraciones
3. Oraciones subordinadas adjetivas y sustantivas
4. Subordinadas comparativas y consecutivas. La subordinación adverbial (I): subordinadas adverbiales propias
5. La subordinación adverbial (II): subordinadas causales, finales, condicionales y concesivas. Oraciones subordinadas con verbos en forma no personal
6. El léxico castellano. Estructura de las palabras
7. El significado de las palabras. La semántica léxica

8. El caudal léxico de la lengua: origen y evolución de las palabras
9. Más allá de la gramática. Los estudios pragmáticos
10. El texto. Coherencia y cohesión

II. COMUNICACIÓN Y TÉCNICAS DE TRABAJO

1. Origen y desarrollo de las lenguas de España
2. El español actual. Características y tendencias
3. Variedades dialectales del castellano. El español de América
4. Las lenguas constitucionales. El bilingüismo
5. La transmisión cultural (I). Textos científico-técnicos
6. La transmisión cultural (II). Textos humanísticos
7. El lenguaje burocrático: textos jurídicos y administrativos
8. La lengua en los medios de comunicación. Los textos periodísticos
9. El lenguaje de la publicidad
10. La lengua en los textos literarios

III. LITERATURA

1. La literatura del siglo XVIII
2. La literatura de la primera mitad del siglo XIX
3. La literatura de la segunda mitad del siglo XIX. El Posromanticismo y el Realismo
4. El modernismo y la generación del 98
5. Novecentismo y vanguardias
6. La generación del 27
7. La literatura española de los años cuarenta y cincuenta
8. La literatura española desde los años sesenta
9. La literatura hispanoamericana del siglo XX
10. Guías de lectura. Textos de otras literaturas

SENEZKOTASUNA HIZKUNTZAN: GRAMATIKA UNIBERTSALAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Itziar Laka
UPV/EHU

...my challenge to Wunderlich and other proponents of an innate UG —a challenge that may be directed at anyone in any scientific field who proposes any hypothesis— is simply: What exactly is and is not in UG and what kind of evidence could possibly refute the UG hypothesis? (Tomasello 2004: 644)

1. Sarrera

xx. mendearen bigarren erdialdean, hizkuntza eta, oro har, giza gogoaz aztergai zuten pentsamoldeek ia bat-bateko iraultza jasan zuten; Noam Chomsky hizkuntzalariren ideia eta hausnarketek bultzatu zuten aldaketa hau neurri handi batean. Zientzia kognitiboen alorra eratu zuten ideia berrien artean nagusienetako bat hizkuntzaren senezkotasuna dugu: giza hizkuntzak sustrai biologiko garrantzitsua duelako hipotesia. Hitzun egiten gaituen senezko gaitasun hipotetiko honi *Gramatika Unibertsala* deitu zion Chomskyk (1966), xvii. mendeko pentsalari arrazionalistei gorazarre egin nahian, haietako askok ere hizkuntz gaitasuna gizakion sena zela hausnartu baitzuten.¹

Lan honetan, Gramatika Unibertsalaren (GU) hipotesiaren inguruan jardungo dut. Giza hizkuntzak sortzetiko ezaugarri espezifikoak baldin baditu, horiei buruz dakiguna aztertzen hasteko garai egokian gaude, hipotesia aldarrikatu eta mende erdia igaro ondoren. Gaurkoan hona ekarri nahi nituzkeenak, ordea, ez dira hizkuntzalarion artean aurkeztu ohi ditugun hizkuntzetako datuetatik ebidentzia eta argumentuak, baizik eta auzoan ditugun zientzia kognitiboetan hizkuntza artifizialak erabiliaz egindako lan esperimentaletan egin diren zenbait aurkikuntza, hizkuntzaren diseinuari buruzko argi egiten dutenak. Hizkuntzalariontzat guztiz jakingarriak begitantzen zaizkidalako dakartzat gure plazara, hizkuntzaren senezkotasunean zer dagoen sakonago hausnartzen lagunduko digutelakoan.

2. Hizkuntzaren senezkotasuna

Hizkuntzaren senezkotasunaz hausnartzen hasteko, berrogeitahamar bat urte atzera egingo dut, egungo ibilbide eta eztabaidak ulertzeko giltzarri den idatzi batera:

¹ Gurean, Pedro Pablo de Astarloa pentsalariak ere antzeko ideiak zabaltzen zituen. Honen inguruan ikus adibidez Laka (1992).

1959 urtean, Chomskyk B. F. Skinner-en *Verbal Behavior* liburuari egindako iruzkina² argitaratu zuen *Language* aldizkarian. Iruzkinean aurkeztutako zenbait ideia, argudio eta galdera gogoratuko ditugu, eta horien ehundurak itxuratzen duen ikerkuntza egitasmoa.

Skinnerren liburuaren iruzkin sakona argitara eman zenean, giza hizkuntzak oso-osoan gizakion kultur sorkuntzari zor zitzaizkiolako ustea zabal zebilen, bereziki Estatu Batuetako pentsalarien artean, Bloomfield edo Sapir maisuen idatziak irakurtzean errazki antzeman daitekeenez. XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasierako garaietan, hizkuntzalariak hizkuntzen aniztasunaren altxorra zein zabal eta azalgaitza zen jabetu ziren. Aniztasunaren lilura hartan nekez pentsa zitekeen “giza hizkuntza” kontzeptuak berak oinarri interesgarriak izan zezakeenik: nolanhiko hizkuntzak zeuden, nolanhiko kasu, komunztadura, izenordain-sistema, nahi adina gramatika-eraikuntza, eta nekez aurki zitekeen haien aldakortasunean denak lotu zitzaizkeen haririk. Garai hartan burutu ziren hainbat eta hainbat hizkuntza berriren deskribapen, gramatika eta hiztegi; hizkuntzen aniztasunari buruz gaur dakigunaren zati handi eta garrantzitsu bat orduko hizkuntzalari antropologikoei zor diegu, eta haiek urratutako bideak oraindik orain ezinbesteko zaizkigu, bereziki hizkuntzak saldokoa galtzen ari zaizkigun mende honetan.³

XX. mendearen hasierako hizkuntzalaritza hizkuntz aniztasunari begira zegoen; giza talde ezagutu berrien hizkuntzak deskribatu, dokumentatu eta biltzea zen hizkuntzalari gehienen helburu nagusia. Hizkuntza horiek guztiek sakoneko batasunik ote zuten ez zen orduko jakinmin nagusia. Baziren antzekotasunik batere ez zegoela aldarrikatu zuten hizkuntzalariak, hizkuntzak bata besteagandik inolako mugarik gabe alden zitezkeela defendatu zutenak, eta baieztapen horiek inork kontrarik adierazi gabe zabaldu ziren, nolabaiteko adostasun isila sortuz. Ingurumari intelektual honetan, hizkuntzarako gaitasuna gure espeziearen ezaugarri biologikoen arteko bat zela aldarrikatzea, eta hitzun diren organismo barneko faktore sortzezkoek hizkuntzaren forman eraginik izan lezaketela argudiatzeak zorakeria hutsa zirudien, argi izpirik ekar ez zezakeen pentsamolde zaharkitua, munduan barrena hizkuntza berriak ezagutzearekin uxatzen zen aurreiritzi erratua. Baina zorakeria horixe izan zen, hain zuzen ere, Chomskyk iruzkinean plazaratu zuen ideia: bazela hizkuntza guztiak lotzen zituen haririk, hizkuntzak ez zirela oso-osoan kultur asmakuntzak, eta hizkuntzen ehuna senak iruten zuela.

XXI. mendearen atarian, ondare genetikoan eta burmuinaren egituraren egin diren aurkikuntzen itzalean, inor gutxi defendatuko luke aurreko mendean zabal zebilen ideia hura, hizkuntza gizataldeek euren nahieran asmatutako komunikazio-lanabes erabilgarria dela, gorpila, ogia edo zergen parekoa. Ebidentzia sendoek erakusten digute hizkuntza deritzogun sistema kognitiboa osatzen duten ezaugarri eta elementuen jatorria uste genuena baino askoz zaharragoa dela gure ibilbide ebolutiboan, hizkuntzarako berebizikoak diren gaitasun kognitibo batzuk gure ondare genetikoko

² Euskarazko itzulpena: P. Huizi “B. F. Skinnerren *Verbal Behavior* liburuaren kritika”, *Gogoa*, V-1, apirila, 9-50, 2005. Lan honetan eskaintzen diren aipuak itzulpen honetatik hartu ditut.

³ Hizkuntz aniztasunari buruzko berririk izan nahi duen irakurle zaletuak asko gozatuko du beraz Fernandez eta Ortiz de Urbina lagunak (2007) *Hizkuntzari bira 80 hizkuntzatan* UEU, Bilbo. Gozatzeak ez den hizkuntza galeraren arazoak egun duen neurri ikaragarriaz jabetzeko, ikus Martí et al. (2005) *Hizkuntzen Mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, UPV/EHU, Bilbo.

ezaugarriak direla. Gaurko eztabaida nagusia, bada, ez da hizkuntzaren sustraietan biologiararen eraginik ba ote den, hori ez baitu jada hizkuntzan aritzen den ikerlariak zalantzan jartzen. Egungo eztabaida, bizi-bizia, senetz datorkigunaren norainokotasun eta nolakotasunean datza: proposatzen direnetatik zein ote diren egiazki senetzko eta zein ez, eta senetzko diren gaitasunen artean hizkuntzarako soilik sortu denik ba ote den, ala hizkuntzarako nahitaezko izanagatik ere beste esparru kognitiboetara zabalitzen ote diren senetzko ezaugarriok. Senetzkotasanaren hipotesiak piztutako garrak oraino erretzen du, nahiz egungo kezka ez izan horrelakorik *ba ote den* hizkuntzan, baizik eta *nolakoa eta norainokoa* den hizkuntzaren senetzkotasuna.

Plazaratu zenean, hizkuntzaren senetzkotasanaren hipotesiak ez zuen onarpen handirik jaso giza zientzietan, baina bai beste alor batzuetan. Biologian esaterako, hizkuntzaren atal bat senetzko ezaugarrien araberakoa izatea ez zitzaien arrotz egiten geneen garrantziaz geroz eta gehiago jabetzen ari ziren biologiariei. Biologiari askok abegi ona egin zioten aldarrikapen honi, berez biltzen baitzen garai hartan mamitzen ari zen organismo bizidunen ikusmoldearekin, eta faktore genetikoek organismoengan zuten eraginaren garrantziarekin (1994). Adibidez, Piaget eta Chomsky elkartu zituen Royamount-eko mintegia biologiariek antolatu zuten, eta ez hizkuntzalari edo psikologok: “there was every reason (in our opinion) to expect that these two schools of thought should find a compromise, and that this grand unified meta-theory would fit well within modern molecular biology, and the neurosciences. Both systems [Chomsky’s and Piaget’s] relied heavily on “deeper” structures, on universals, on precise logico-mathematical schemes, on general biological assumptions. This was music to a biologist’s ears”⁴ (Piattelli-Palmarini 1994: 322). Gaur egun, oro har, onartzen da badirela senetzko mekanismoak lanean hizkuntzan. Adosteko dago, baina, “hizkuntza” delako sistema kognitibo horren barnean zer biltzen den eta zer ez; argitzeko dago senetzko diren mekanismo edo ezugarri horien artean ba ote den bereziki hizkuntzarakoa denik, eta argitzeko dago baita zer dagokion soilik gure espezie biologikoari eta zer ez.

3. Gramatika Unibertsalerako baldintzak: senetzkotasuna eta espezifikotasuna

Hizkuntzaren senetzkotasanaz jardutean, hasieratik argitu behar dugu senetzkoa den ezaugarria ez dela nahitaez GUko ezaugarria. Senetzkotasuna edo innatotasuna, betebeharreko baldintza da GUko ezaugarri izateko, baina ez da inola ere baldintza nahikoa: hizkuntz espezifikotasuna ere beharrezkoa da. Bakarrik senetzko eta espezifikoko (hizkuntzazkoak soilik) diren ezaugarriek osatzen dute GU hipotesia. Hizkuntzarako gaitasunaren muin hipotetiko honek bakarrik biltzen ditu hizkuntzarako nahitaezko izaki, beste alor kognitibo oinarrizkoagoetakoak ez diren ezaugarriak. Horrelako ezaugarriak aurkitzen ez badugu, ez dugu GU esistitzen dela sustatzeko ebidentziarik izango.

⁴ “Denetariko arrazoiak zeuden (gure ustez) pentsamolde eredu bi horiek erdibideko adostasuna aurkituko zutela espero izateko, eta baturiko metateoria hau ondo egokituko litzatekeela biologia molekular modernoaren, eta neurozientzietan. Sistema biak [Chomskyrena eta Piagetena] “sakoneko” egituretan oinarritzen ziren, unibertsalean, eskema logiko-matematiko zehatzean, onarpen biologiko orokorretan. Soinu gozoa zen hau biologoen belarrietarako.”

Badira hizkuntzarako nahitazeko ditugun baldintzak, argiro hizkuntza bera baino filogenetikoki zaharragoak direnak, eta hiztun ez diren izakietan ere aurkitzen ditugunak; horiek ez lirateke GÜren parte, hizkuntzarako nahitazekoak izan arren. Beharrezkoa da GU hipotesia zorrotzen saiatzea, eta barruan bil ditzakeen ezaugarri horiek sakonki aztertzea, ikusteko GÜren bitartez azaldu beharrean beste nolabait azal ote litezkeen. Jarrera hau bat dator Minimalismo izenarekin zabaldu den pentsamoldearekin (Chomsky 1995): GU zer den eta zer ez den zorrozki hausnartzea, ahalik eta zehatzen egiteko UG hipotesia.

Hizkuntzaren senekotasuna eta espezifikotasunari buruzko hipotesiaren deitura, *Gramatika Unibertsala* alegia, ez da inon aurkitzen 1959.eko iruzkinean. Deitura hori hogei urte geroago azaldu zen.⁵ Izena gorabehera, baina, senekotasunaren hipotesia 1959.ean jaio zen: *sortzetiko (innate)* hitza hiru aldiz azaltzen da liburu iruzkinean, behin animalien jokabidean gertatzen den *inpronta (imprinting)* jokabidea aipatzeko, eta birritan giza hizkuntzari buruzko eztabaidan, hizkuntz jabekuntzaren inguruan. Azken bi horietarik bat, hona lehenengoa:

- (1) Hizkuntzaren eskurapenari dagokionez, argi dagoela dirudi indargarria, ustekabeko behaketa eta berezko jakinmina (imitatzeko joera bortitz batekin batera) garrantzi handiko faktoreak direla, garrantzitsua den bezala haurren gaitasun harrigarria orokortzeko, hipotesiak egiteko eta "informazioa" era askotan prozesatzeko; era ugari horiek oso bereziak eta itxuraz guztiz konplexuak dira eta ezin ditugu oraindik deskribatu, ezta ulertzen hasi ere, eta sortzetikoak izan daitezke neurri on batean, edo baliteke ikaste motaren bati esker edo nerbio-sistemaren heltzea dela medio garatzea.⁶ (Chomsky 1959: 32)⁷

Iruzkinean bi aipu honen gainean: lehenik, ikusten dugunez, Chomskyk ez du esaten imitazioak ez duela inolako garrantzirik hizkuntz jabekuntzan. Hizkuntz garapenaren azalpen osoa emateko nahikoa izango ez dela baieztatzen du, besterik gabe. Izan ere, imitazioa ezaugarri berezi eta guztiz axolazkoa da gizakiongan, eta gure imitatzeko modua oso sofistikatua da ikuspuntu kognitibotik.⁸ Baina gure imitatzeko gaitasunaren sendotasun eta senekotasuna gorabehera, hizkuntz jabekuntzan diharduten ikertzaileek ebidentzia ugari aurkitu dute erakusteko imitazioak bakarrik ezin dezakeela hizkuntz jabekuntza osoan azaldu.⁹

Bigarrenik, aipu honetan azpimarratzen da gizakien organismo barneko baldintzek hizkuntz jabekuntzan duten eragina, horietan erabakitzen dutelako hizkuntz

⁵ Chomsky, N. (1981), *Lectures on Government and Binding*, Foris, Dordrecht.

⁶ "As far as acquisition of language is concerned, it seems clear that reinforcement, casual observation and inquisitiveness (coupled with a strong tendency to imitate) are important factors, as is the remarkable capacity of the child to generalize, hypothesize and process information in a variety of very special and apparently highly complex ways which we cannot yet describe or begin to understand, and which may be largely innate, or may develop through some sort of learning or maturation of the nervous system."

⁷ Ik. 2. oh.

⁸ Meltzoff and Moore (1977), "Imitation of Facial and Manual Gestures by Human Neonates", *Science* 7, 75-78; Meltzoff A. N. & W. Prinz (2002) *The Imitative Mind: development, evolution and brain bases*, Cambridge U. P.

⁹ Pinker, S. (1994), *The Language Instinct* New York: Harper.

jabekuntzaren nolakotasuna neurri handi batean. Organismo barneko ezaugarri horiek innatoak, senezkoak direla aldarrikatzen du Chomskyk, garaian guztiz hai-zearen kontrako hipotesia. Orduan jabekuntza mekanismoak guztiz ezezagunak eta ikertu gabeak baziren ere, ibilbide luze eta aurkikuntzaz betea egin da hizkuntz jabekuntzaren alorrean: haurrek hizkuntza prozesatzeko darabiltzaten bide konplexu eta berezi horietarik asko ezagutu izan dira azken urteotan. Hizkuntz jabekuntza, dakigunez, oso jarduera konplexua da, eta ez dirudi aurkikuntza-bide hori urratzen amaitu dugunik, inondik inora.

Dakardan bigarren aipua, hizkuntz jabekuntzari buruzkoa hau ere. Oraingoan, Chomskyk hiztegiaren jabekuntza darabil mintzagai:

- (2) Litekeena da entzunezko *input* konplexutik fonologikoki garrantzitsuak diren ezaugarriak aukeratzeko gaitasuna neurri on batean indargarriak hor parterik izan gabe garatzea, genetikoki determinatua dagoen heltze-prozesu bati esker. Hori egia den neurrian, organismoaren egitura kontuan hartzen ez duen jokabidearen garapena- ren eta kausen azalpenak ez du eskainiko tartean dauden benetako prozesuen ulertzerik.¹⁰ (Chomsky 1959: 33)

Argitaratu zirenean txinpartak eta eztabaida bizia piztu bazituzten ere, egungo ikusmiratik hitz hauek ez dirudite inolaz ere polemiko: adostasun handia dago, azken urteotan egindako aurkikuntzen buruan, haurrak jaiotzetik aritzen direla entzuten duten hizkeratik ezaugarri jakin batzuk hautatzen, eta hautapen hori hizkuntz jabekuntzaren ernamuina dela. Bestetik, nekez eztabaidatuko luke alorreko inork gaur egun guztiz garrantzizkoa dela burmuinaren egitura eta haren garapena ezagutzea hizkuntz jabekuntzaren irudi osoa izatekotan. Eztabaida-eremua ez da hori dagoeneko. Beste arazo batzuetan daude gaurko desadostasunak: organismo barneko baldintza horien nolakotasuna eta espezifikotasuna dira eztabaida eta ikerketa gaiak, eta ez, orduan bezala, giza ondarearen ezaugarri biologikoek moldatzen ote duten hizkuntzarako gaitasuna, ez eta horrelakorik ba ote den ere.

Iruzkinarekin amaitzeko, hona beste aipu jakingarri bi. Lashley neurologoaren lana aipatzean, Chomskyk ikerketa egiasmo bat irudikatzen du, honez geroz berrogei urte baino gehiago bete dituen:

- (3) Gaur egungo hizkuntzalaritzak prozesu integratzaile, eredu ezarri eta mekanismo selektibo horien azalpen zehatzik ematerik ez badauka ere, gutxienez badauka bere buruari horiek erabat deskribatzeko arazoa planteatzerik.¹¹(Chomsky 1959: 47)

Eta ikerketa egitasmo honek hizkuntzaren mugak gainditzen dituen inplikazioak ditu:

¹⁰ "It is possible that ability to select out of the auditory input those features that are phonologically relevant may develop largely independently of reinforcement, through genetically determined maturation. To the extent that this is true, an account of the development and causation of behavior that fails to consider the structure of the organism will provide no understanding of the real processes involved."

¹¹ "Although present-day linguistics cannot provide a precise account of these integrative processes, imposed patterns, and selective mechanisms, it can at least set itself the problem of characterizing these completely."

- (4) Horrelako ikerketa baten emaitzak, Lashley iradokitzen duenez, interes independentea izan dezake psikologiantzat eta neurologiantzat (eta alderantziz).¹² (Chomsky 1959: 48)

Azken hausnarketa hau erabat arrotza zen orduko psikologia eta hizkuntzalaritzan; haatik, egungo zientzia kognitiboen eta haien artean hizkuntzalaritzaren eguneroko paisaia itxuratzen dute mende erdiaren buruan. Zientzia kognitiboen eta hizkuntzalaritzaren lanak elkarren axolazko izatea, lortzen diren emaitza eta hipotesietan geroz eta konbergentzia handiagoa egotea, hori guztia bizi dugun oraina da: hizkuntzari buruzko ikerkuntzak dagoeneko gainditu ditu hizkuntzalaritzaren mugak, eta esparru zabal batean ikertzen dira hizkuntzaren ezagutzarako axolazkoak diren gaiak. Hizkuntzalariek adi dabilta egiten diren aurkikuntza horietara guztietara eta, alderantziz, beste alorretako ikertzaileek geroz eta jaramon handiagoa egiten diete hizkuntzalariei, eta hizkuntzalaritzan urteen buruan aurkitu ditugun elementu, eredu eta mekanismoen azalpenei.

Laburbilduz, Chomsky liburu iruzkin honetan gai nagusi bi aldarrikatu zituen, eta hazi horiek kimatu egin dira urteen ibilian: lehenengoa, hizkuntzaren ezagutzan badirela senezko ezaugarriak, eta bigarrena, hizkuntzaren jabekuntza ulertzeko hizkuntzaren nolakotasuna aztertzea nahitaezko dela. Azken zeregin hau legokioke hizkuntzalaritzari, beste ezer baino lehenago. Oinarrizko galdera “zer-nolakoa da hizkuntza?” baldin bada, *Egitura Sintaktikoak* liburuan bildu zituen Chomsky honi zegozkion hausnarketa nagusiak. Liburu txiki honek, argitaratzailea aurkitzeko zuziriak eta beltzak igaro zituen arren, berehalako arrakasta izan zuen argitaratu ondoko urteetan. Zer proposatzen zuen liburu honek? Nagusiki, hizkuntza aztertzeke modu berri bat, galdera sorta berri batzuei erantzun ematen saiatuaz. Honela adierazten da zein den hizkuntzalaritzak bete beharko lukeen helburu nagusia:

- (5) Hizkuntzalariek, oro har, gramatika zuzenen oinarrian dauden funtsezko barne ezaugarriak zehazteko xedearekin jardun behar dute. Ikerkuntza honen emaitza nagusiak hizkuntz egituraren teoria orokorra izan behar du, teoria horrek gramatika naturalan erabiltzen diren lanabesak abstraktuki aurkeztu eta aztertzen dituelarik, hizkuntzon aipamenik egin gabe.¹³(Chomsky 1957: 29)¹⁴

Baieztape hau, begi bistako begitandu dakioko egungo hizkuntzalari gazteari, baina xx. mendearen erdi aldera ideia hau ez zen inola ere begi bistako, ez eta zentzuzko ere. Izan ere, inork ez zituen (Europako Saussure, Hjemslev, Jakobson eta beste hizkuntzalari batzuek salbu)¹⁵ hizkuntzak aztertzen haien arteko ezaugarri

¹² “The results of such a study, might, as Lashley suggests, be of independent interest for psychology and neurology (and conversely).”

¹³ “... the fundamental underlying properties of successful grammars. The ultimate outcome of these investigations should be a theory of linguistic structure in which the descriptive devices utilized in particular grammars are presented and studied abstractly, with no specific reference to particular languages”.

¹⁴ Ematen diren orri-zenbakiak euskal itzulpenari dagozkio: Chomsky, N., *Egitura Sintaktikoak*, Bilbo: Klasikoak, 2003.

¹⁵ Antzekotasun intelektual handiak daude, izan ere, hizkuntzalaritza sortzaile eta Europako estrukturalismoaren artean. Gainera, munduko II gerrak sortutako zientzialari migrazio handian Jakobson fonologia, Pragako zirkuluko partaidea, Bostonera joan zen, han Halle eta Chomsky ezagutuaz.

komunak aurkitzeko asmoz, ezaugarri horiek zirenik ere ez baitzegoen galderen artean; ez zegoen hipotesi horren aldeko susmorik, hausnarketarik. Egiazkoago zirudien lurrean mintzatzeko ziren hainbat eta hainbat era, eite eta ohitura ezin deskribatuzko hizkuntzen artean aldeak erabatekoak izatea, inolako batasunik ez egotea.

Orain artean aipatu dugun *Verbal behavior* liburuaren iruzkinak behin eta berriaz aipatzen du biologia, hizkuntzaren sustrai senezkoak ditu gai nagusi. Haatik, *Egitura Sintaktikoak* liburuak gramatikaren arkitektura formala eta haren ezaugarri abstraktuak ditu aztergai, psikologia, jabe-kuntza senezkotasuna edo biologia behin ere aipatu gabe. Urteen buruan, laurogeiko hamarkadan, ikerketa egitasmo orokorraren alde biak, psikologiko/biologikoa eta formala uztarturik agertuko dira, *Knowledge of Language* liburuaren aipu honetan bezala:

- (6) The nature of this faculty is the subject matter of a general theory of linguistic structure that aims to discover the framework of principles and elements common to attainable human languages; this theory is now often called “universal grammar” (UG), adapting a traditional term to a new context of inquiry. UG may be regarded as a characterization of the genetically determined language faculty. (Chomsky 1986: 3)¹⁶

Hemen dugu GU hipotesia; asko dira idatziz eskaini diren formulazioak, eta hau aukeratu badut, esplizituki “genetically determined part of language faculty” (*genetikoki determinatuta dagoen hizkuntz gaitasuna*) esaten duelako da. Hala ere, argi gera bedi itxurapen honen arabera, lehenago esan den legez, hizkuntzaren ezagutza, jabe-kuntza eta erabilerarekin lotuta dauden ezaugarri genetiko guztiak ez direla GÜren parte. Bereziki, hizkuntzarenak bereziki ez direnak GÜtik kanpo daude.

4. Senezkotasuna hizkuntzan: espezifikotasunik gabeko adibide bi

Har ditzagun bada senezkotasuna eta espezifikotasuna eztabaidan. Garrantzi handia du ezaugarri hauek sinonimoak ez direla azpimarratzeak. Lehenik, senezkoa denak ez du zertan espezifikoa izan behar. Esaterako, ezaugarri bat espezie batean senezkoa izan daiteke, baina ez espezifikoa, ugaztunengan suge lako formek sortzen duten beldur zirrara bezala: beldur hori senezkoa da, ez du suge-esperientziaren beharrik, baina espezie askoren artekoa da. Bigarrenik, espezifikotasunak maila asko izan ditzake: espezie maila edo esparru kognitiboaren maila. Honela, ezaugarri bat gizakiongan espezifikoa izan liteke, baina honek ez du nahitaez hizkuntz espezifikoa bihurtzen. Bereziki, hizkuntz espezifikotasunak, giza espezifikotasunaz gaindiko ebidentzia eskatzen du. Honek guztiak argi dirudien arren, sarri askotan nahastu egin dira eta egiten dira GU hipotesiaren eztabaidan.

Hau guztia luzaz eztabaidatu zen dagoeneko Royamount-eko mintegian 1975. ean, Chomskyren hitz hauetatik iradokitzen den bezala: “On this point I agree with Premack. I think he is right in talking about two different problems that enter into


¹⁶ “Gaitasun honen izaera da hizkuntz egituraren teoria orokorraren gaia, eskuragarri diren giza hizkuntzen elementu eta hatsarreen eraketa aurkitzeko xedea duena; teoria honi gaur egun “gramatika unibertsala” (GU) deitu ohi zaio maiz, deitura tradizionala ikerkuntza inguru berrira egokitua. GU genetikoki determinatuta dagoen hizkuntz gaitasuna litzateke”.

this whole innateness controversy. The first is the question of the genetic determination of structures... the second problem concerns specificity” (Piattelli-Palmarini 1980). UG hipotesiak ezaugarri biak agintzen dituenez, bakar-bakarrik *senezko eta espezifikoa* (hau da, bereziki hizkuntzakoak) diren ezaugarri kognitiboak aurkitzeak froga dezake GU baden: “the extent to which humans are innately endowed with specialized capacities to comprehend and produce speech”.¹⁷ (Ramus, Hauser, Miller, Morris & Mehler 2000).

Dakigunez, badira hiztun izateko betebeharreko baldintzak, eduki behar diren gaitasun kognitibo batzuk, hizkuntz garapenaren hasierako unetik lanean dihardutenak. Beraz, hizkuntza bere osotasunean ulertu nahi badugu, mekanismo eta ezaugarri senezko horiek ezagutu behar ditugu. Baina ikusiko dugunez ezaugarri eta mekanismo horietako batzuk ez dira espezifikoa, ez espezie mailan ez eta esparru kognitiboaren mailan ere. Haatik, aurkikuntzaren ibilbidean hizkuntzaren ezaugarri berezitat hartu izan dira hasiera batean. Historiak eskaintzen digun lezioa, bada, argia da: hizkuntzazkoa soilik dirudien zerbaitekin topo egiten dugunean, hobe dugu ziurtatu egiazki hizkuntz espezifikoa ote den lehenik, eta gure espezieari soilik ote dagokion ala ez.

4.1. Lehenengo adibidea: Pertzepzio Kategorikoa

Har dezagun diodan honen lehenengo adibidea, hizkuntzalarien artean baino, psikologoaren artean ezagunagoa dena: *pertzepzio kategorikoa* deritzon mekanismo pertzeptuala. Ondoko grafikoan ikus dezakegu pertzepzio kategorikoa zer den. Grafikoaren oinean agertzen diren tarteek kategoriatu beharreko hots-inputaren arteko distantzia akustikoa erakusten dute. Estimulu batetik besterako tartea berdina da. Kategoriartzeko, hona gai ei egiten zaien galdera: entzuten duzun hotsa aurrekoaren berdina da?



¹⁷ “zein neurritan datozen gizakiak hizketa sortu eta ulertzeko gaitasun espezializatuz horniturik sortzetik”

Lieberman et al. (1957) lana iturri duen grafiko honetan ikusten dugu nola jaiotzetiko ingelesdunek jarraitutasun akustikoan fonema berezi bi antzematen dituzten, kasu honetan /b/ eta /d/. Estimuluen arteko tarte akustikoa proportzionalki berdina izan arren parametro guztiei dagokienez, (a) 1-4 estimuluak berdintsu, antzeko jotzen dituzte hiztunek, denak /b/ fonemaren adibide, eta (b) 5-8 estimuluei, ordea, aurrekoen ezberdin eta haien artean berdin irizten diete, denak /d/ fonemaren adibide. Pertzepzioan izaten den aldaketa bat-batekoa da, marra batek zein besteak erakusten duten bezala. Hiztunaren belarrira, 4 estimulutik 5 estimulurako tartean soinua “aldatu” egiten da, kategoría batetik beste batera, nahiz jarraitutasun akustikoan esparru hori beste estimuluen arteko tarteen adinekoa izan. Grafikoen marrek irudikatzen dituzten aldapa gogorrek bat-batekotasun horren adierazgarri dira. Pertzepzio Kategorikoak (PK) kategoría barneko ezberdintasun pertzepzialak gutxiesten ditu, eta aldi berean kategoriaren “ertzetan” dauden ezberdintasunak handiesten. Gaur dakigunez, kognizioa oro har, bai gizakiona eta baita gainerako animaliena ere, pertzepzio kategorikoaren iragazkiaren bitartez eratzen da neurri handi batean.

Hizkuntza giltzarri izan zen PKren aurkikuntzan. Lieberman eta lankideek aurkitu zuten lehenengo aldiz (Lieberman et al. 1957), eta ikertzaile hauek uste zuten efektu honek frogatzen zuela hizketa-hotsaren pertzepzioa gainerako entzutezko estimuluak ez bezala antzematen dugula gizakiok. Orduan pentsatzen zen bizitzan zehar jabetzen ginela PKz (ikasía zela, alegía, ez senezkoa), eta hizkuntzaren pertzepzioan soilik azaltzen zela efektu hau. Gerora ikusi zen (Eimas et al. 1971) 1-4 hilabeteko haurrek ere bazutela KP, eta beraz sortzetikoa dela, ez esperientzia bitartez garatua. Urte gutxiaren buruan (Kuhl eta Miller 1975) txintxillak trebatu ahal izan zituzten /da/ eta /ta/ silaben arteko alde fonemikoa KP eradura bereiz zituzten. Ordutik hona lan esperimental askok erakutsi bezala, PK sortzetikoa da, baina ez da hizkuntzarako soilik, hizkuntzaren antzik ez duten estimuluetan ere aurkitzen da-eta (Harnad 1987). Izan ere, PK ez da gure espezieak bakarrik darabilen mekanismoa, kilkirrek ere PP araberako pertzepzioaren zantzuak erakutsi baitituzte (Wytenbach et al. 1996).

PK guztiz garrantzizkoa dirudi hizkuntz kategorien zenbait oinarritzko ezaugarri formal azaltzeko, hala nola *diskretutasuna*, bai fonemek, morfemek eta hitzek (baina ez hitzen esanahiek) erakusten duten diseinu ezaugarria, ertz argiko, bai-ala ezko kategoría egiten dituen, zenbakien antzeko, muga lausorik gabe. Adibidez, aurreko grafikoak ondo erakusten duen legez, fonemak diskretuak dira gure gogoantolaeran, nahiz oinarri akustikoa jarraia den. Era berean, izenak izen dira, eta ez daude izentasun jarraitutasun batean antolatuta: izen izatea bai-ala ezko kontua da, ez gradazio arazoa, ez daude beste batzuk baino izenago diren izenak. Bestelako izaera dute hitzen esanahiek (kontzeptuek), maiz kategoría lausoak direnak, prototipikotasun efektuak erakusten dituztenak, adibide onak eta ez hain onak daudelarik kategorian¹⁸ (Rosch 1978). Hizkuntz kategoriak diskretuak dira, eta diskretutasuna gure organismoak sortzen du, ez dago kanpoko errealitatean. Beraz,

¹⁸ Pentsa, esaterako, “txori” kontzeptua zer den: artatxoria txoria da, baina gure ziurtasuna arinduz eta urtuz doa oilo, pinguino edo ostroka bezalako adibideen txoritasuna epaitzerakoan.

PK mekanismo pertzeptualak gure hizkuntz kategoria eraketan eragin erabakigarria dauka, baina sortzezkoa izanagatik, eta hizkuntzaren diseinurako guztiz garrantzizkoa izanagatik, ez da hizkuntz espezifikoa (ez eta ere giza espezifikoa). Honek ez dio interesik kentzen fenomenoari, noski, baina argi eta garbi GUko partaidetza ukatzen dio, hizkuntza baino esparru zabalago batean jokatzeko duelako, eta gizakietan ez ezik espezie askotan aurki daitekeelako.

4.2. Bigarren adibidea: egitura erritmikoa

Har dezagun beste adibide bat, hau ere guztiz garrantzizkoa hizkuntz jabekuntzan: hizketaren ezaugarri erritmiko-prosodikoen pertzeptzioa. Interesgarria da ikustea nola aurkikuntzaren ibilbidean, aurreko adibidearen antzeko eredu antzematen den: hasiera batean aurkitu zen jaio berriek oso ondo bereizten dituztela hizkuntza taldeak (amarena *versus* amarena ez dena) informazio erritmikoaren arabera: jaio eta ordu gutxitara egiten diren esperimientuek erakusten dute amaren hizkuntza taldea ezagutzen dutela erritmo/prosodiari eskerrak (Mehler et al. 1988, Cutler and Mehler 1993, Ramus and Mehler 1999, Nazzi et al. 1998).¹⁹ Gaitasun hau lanean dabil jaiotzez, eta oso hautagai egokia dirudi hizkuntzarakoa soilik den mekanismoa izateko, hizkuntzak erakusten dituen ezaugarri prosodikoak ez baitira aurkitzen gainerako entzutezko input naturaletan. Duela gutxi, baina, jakin dugu tamarin tximinoek (Ramus et al. 2000) eta arratoiek (Toro et al 2003, Toro 2005) kontraste erritmikoak antzeman ditzaketela laborategian trebatu ondoren, nahi ez duten gizakiok bezain finki egiten. Berriz ere, hona hizkuntzarako nahitaezkoa den gaitasun kognitiboa, dirudenez gizakiona bakarrik ez dena, gainerako animalia batzuek gutxienez erakutsi izan baitute. Arazo interesgarria da, noski, determinatzea espezie arteko aldeak zein diren, zergatik trebatu behar diren animaliak eta ez gizakiak, zergatik animaliek bereizkuntza gutxiago egiten dituzten gizakiek baino, baina galdera hauen erantzunek ez digute, ziurrenik, UG ezaugarriak aurkitzeko bidea eskainiko.

Beraz, GU ezaugarriak bilatzeko bidean, ondo berezi behar ditugu gainerako espezieekin partekatzen ditugun gaitasunak, eta hizkuntzakoak bakarrik (beraz giza-kionak bakarrik) diren ezaugarriak. Hauser, Chomsky eta Fitch ikertzaileen hitzetan (2002: 1570), "The empirical challenge is to determine what was inherited unchanged from this common ancestor, what has been subjected to minor modifications, and what (if anything) is qualitatively new".²⁰

5. Espezifikotasuna garatze-bidean: fonemaren adibidea

Egiakizi espezifikoak diren hizkuntz ezaugarriak ba ote diren ala ez, arazo enpirikoa dugu, eta ez dago inongo behar kontzeptualik GU existitu dadin. Gerta liteke

¹⁹ Jaio berriek egiten duten diskriminazio hau ez da egiakizi "amaren hizkuntza" eta "beste hizkuntzak", baizik eta "amaren hizkuntzaren talde erritmikoko hizkuntza" *versus* "beste talde erritmikoko hizkuntzak", baina ulergarritasunaren alde bazter utziko ditut zehaztasun hauek. Ikus bitez aipatutako lanak zehazki bereizkuntza hau zertan den jakiteko.

²⁰ "Erronka enpirikoa da determinatzea zer jaso genuen arbaso komun honengandik aldatu gabe, zerk jasan dituen aldaketa txikiak, eta (ezer balego) zer den kualitatiboki berria".

GU hutsik gelditzea eta hipotesi bezala desagertzea, bertarako proposatzen diren ezaugarri, elementu eta mekanismo guztiak bestelako jatorri eta hizkuntzaz kanpoko azalpenen bitartez ulertu ahal bagenitu.²¹ Aurkikuntza garrantzitsuak egiteko daude argitzeko zer mekanismo erabiltzen dituen gure espezieak, filogenetikoki zaharrak izanik era berezi batean garatu direnak. Normalean, hizkuntza-espezifikokoak diren ezaugarriak buruzko eztabaida bai-ala-ez arazo gisa planteatzen da, baina azpimarratu nahi nuke oso litekeena dela aurkitzea eboluzioaren ondarean garatutako hizkuntza aurreko mekanismoetan, beste espezieekin partekatzen ditugun ezaugarrietan, gure espezieak ezarritako aldaketa txikiak, erabilera berezien ondorio diren moldaera eta mekanismo konbinaketak aurkitzea. Era berean, litekeena da gugandik bai genetikoki eta bai ebolutiboki urrun samar dauden espezie batzuetan antzeko konponbide kognitiboak aurkitzea, batik bat elementu diskretoen kateatze konplexuak tartean direla, txori kantarien kasuan bezala, esaterako.

Hala Pertzepzio Kategorikoaren kasuan nola erritmoaren detekzioan, gizakiak trebeago agertzen dira gaitasunaren erabilerari dagokionez, eta funtzio berrietan (hizkuntza) ezartzen dituzte, objektu akustiko eta bisualak baino abstraktuagoak diren kategoriak eratzeko, hala nola fonemak edo hitzak. Gure lana, moldaera hauek nola gertatu diren ulertzea da, nola eraman ditugun mekanismo hauek gainerako espezieek urratu gabeko bide batean zehar, hots, hizkuntzan zehar, sentsu-pertzepzioetik urrunago dauden kategoria eta errepresentazioak eratzeraino.

Azter dezagun fonemen jabekuntza sakonago, honen adibidea litekeen gertaera bat ikusi ahal izateko. Kilkirren eta txintxilen PK esperimenduetan, eta trebatu ondotik egiten dutena diskriminazio akustikoa da, baina ez fonema bereizketa, hain zuzen ere. Haurrek, ordea, fonema diskriminatzen gaitasun guztiz landua azaltzen dute berez, garapenaren hasieratik. Honela, inguru japonieradun batean jaiotako haurrek ondo bereizten dituzte lehenengo hilabeteetan /r/ eta /l/ kategoriak, nahiz bereizkuntza hori ez den japonieraz erabilgarria, eta inguruan dituzten helduak bereizkuntza hori egiteko gai ez diren arren.

Werker and Tees (1984) ikertzaileek erakutsi zuten haurrak hamar hilabete inguruan “espezializatu” egiten direla, inguruan duten hizkuntzan axolazko diren bereizkuntza fonemikoetarako, eta prozesu horren ondorioz, inguruan dituzten helduen antzeko egiten direla, lehenago bereizten zituzten kategoria fonemikoak antzemateko gaitasuna galduaz. Dakigunaren arabera, espezialtze prozesu hau gizakiongan gertatzen da bakarrik. Dirudienez, gizakiok egiten duguna areagoko kategoria eraikuntza bat da: oinarrikoa den entzumen gaitasunaren gainean, errepresentazio maila abstraktuago bat eratzeko gai gara. Oraindik ez dakigu noraino diren antzeko ala ezberdin animalien diskriminazio fonetikorako gaitasuna eta gizakiona, baina antzekotasuna den bezainbatekoa dela ere, argi da gizakiok hortik abiatuta harantzago egiten dugula bidea, fonema bezalako hizkuntz kategorietaraino, eta animaliek ez.

²¹ “None of this challenges Chomsky’s long held conjecture that children are innately endowed with a universal grammar — a set of mental machinery that would lead all human languages to have a similar abstract character. But that shared abstract character may have as much to do with our lineage as vertebrates as with our uniquely human innovations. In Charles Darwin’s immortal words, “throughout nature almost every part of each living being has probably served, in a slightly modified condition” in some ancestor or another” (Marcus 2006: 1118).

Berriz ere *Egitura Sintaktikoak* liburura jotzen badugu, han egindako baieztapen gako bat hizkuntz irudikapen maileri dagokiena da: giza hizkuntzaren diseinuaren ezaugarri nagusia dugu irudikapen maila, eta irudikapen maila ezberdinak daude hizkuntzan. Fonologia eta sintaxia, esaterako, ekai eta mekanismo ezberdinez osatuta daude, nahiz maila horien artean baden loturarik noski. Hizkuntza mailak ondo sustatutako hizkuntz ezaugarriak ditugu gaur, baina aurreko mendean ez zegoen honi buruzko adostasunik. Maila hauen eraketan legoke gizakiok geure ibilbide ebolutiboan sortu dugun zer “kualitatiboki” berri hori, nahiz kategoria horiek zaharragoak eta oinarritzokoak diren beste kategoria batzuen gainean eraiki ditugun, lehenagotik eskura geneuzkan mekanismoak erabiliaz.

6. Senezkotasuna eta espezifikotasuna: sintaxiko adibidea

Egun dakigunagatik, sintaxiak dirudi hizkuntz sistemako atalik berrien eta bereziena, eta hizkuntzaren atal honek sortzen ditu eztabaidarik gehiena hizkuntzaren eboluzioa aztertzen dutenen artean. Honen arrazoia sintaxiak erakusten duen egituraketa hierarkikoa, osagai egitura eta errekurtsibitatea ditugu. Berriak ote dira ezaugarri horiek? Animaliek ba ote dituzte ezaugarri formal horiek beren konputazio mentaletan, hizkuntzarik izan ez arren, ala giza konputazioaren zantzuak ditugu hauek? Ikusiko dugunez, duela gutxi buruturiko ikerketa esperimenter batzuen argitara, galdera horien erantzunak baiezeko behar luke, ikerketa hauek iradokitzen dutenez, sintaxia deritzogun gaitasun konputazionala gure senide ebolutibo hurbiletan ez baita aurkitzen, eta gure burmuinean neocortexaren atalik berrienen hartzen baitute sintaxiaren prozesamenduaren ardura.


Gramatikak duen izaera konbinatoriala eta errekurtsiboa *Egitura Sintaktikoak* liburuan argudiatzen da hizkuntza naturalen ezaugarri abstraktuen arteko garrantzitsuenetakoak ditugula. Egungo hizkuntzalaritzan onartuta daude ezaugarri hauek, eredu teorikoa gorabehera, ondoko aipu honek erakusten duenez: “There are other universals, which are so basic that they are implicit in every linguistic theory and become most obvious when we compare language with other animal communication systems. These include the fact that language is built up from a set of reusable units, that these units combine hierarchically and recursively, and that there is systematic correspondence between how units combine and what the combination means”.²² (O’Donnell, Hauser & Fitch 2005: 285)

Beraz, mugi gaitzen sintaxiaren esparrura, sentsu-pertzepiotik urrunen dagoen hizkuntz atalera. Berriz ere, *Egitura Sintaktikoak* liburuko argumentu nagusietako bat gogoratzen hasiko gara: giza hizkuntzen ezaugarri funtsezkoa dela osagai egitura, osagaien arabera eratzea egitura, alegia. Hizkuntz teoria batek ezaugarri hau bildu behar du nahitaez, teoria egokia izango bada. Oroit gaitzen han ematen zen arrazoibideaz, laster garrantzizkoa izango da-eta gure aurkezpenarako: hizkun-

²² “Badira bestelako unibertsalak, hain oinarritzekoak ezen hizkuntz teoria guztietan inplizituki onartzen baitira, eta begi bistako egiten zaizkigu hizkuntza gainerako animalien komunikazio-sistemekin erkatzen dugunean. Hauen artean, hizkuntza berrerabil daitezkeen unitate multzo batekin eraikitzen dela, unitate hauek hierarkikoki eta errekurtsiboki konbinatzen direla, eta bana-banako egokitasuna dagoela unitateen konbinatze-eraren eta konbinazioaren esanahiaren artean”.

tza ezin bil daiteke osagai egiturarik ez duen eredu baten bitartez. Adibidez, giza hizkuntzaren sintaxia ezin bil daiteke Egoera Finituko Gramatika baten bitartez (EFG). EFG batean, hizkuntz puska sortzen da egoera/hitz batetik beste egoera/hitz batera igaroaz sistemak eskaintzen dituen bideak erabiliaz, bidearen azken egoera/hitzera heldu arte:

(7) Egoera Finituko Gramatikaren adibide eskematikoa:




Honelako gramatika-eredu batek ez digu inolako osagai-egiturarik eskaintzen, eta hau arazo larria da gure helburua giza hizkuntzaren nolakotasuna azaltzea bada. *Egitura Sintaktikoak* liburuan zehazki erakusten zen ingelesaren zenbait egitura ezin zitezkeela egoera finituko automaten bidez bildu. Giza hizkuntzen egiturek Errusian ezagunak diren *matriuska* izeneko panpinen itxura dute neurri batean, osagai bat beste mota bereko osagai baten barnean bil daitekeelako, behin eta berriz, memoriak eta denborak edo neke fisikoak bakarrik (baina ez gramatikak) mugatzen duten aukera. Esaterako, ondoko euskal adibidean:

(8) [[[aldapeko] sagarraren] adarraren] puntan]

Sintagma bat (aldapeko) beste sintagma baten barruan dugu (() sagarraren), eta sintagma hori, aldiz, beste baten barruan ((())) adarraren) eta berriro ere (((()))puntan). Euskaldun denak badaki beste behin ere egin litekeena; hona gure matriuska txikiak, bata bestearen barruan gordeta. Ikusi dugun hau, noski, ez da ingelesak edo euskarak duten ezaugarri bitxia, baizik eta giza hizkuntzaren ezaugarri unibertsala. Ezaugarri honen izena *errekurtsioa* da, eta egun dakigunaren arabera, esparru honetan aurkitzen ditugu hizkuntzaren berritasun espezifikoen zantzurik fidagarrienak. Hau, da, osagai egitura eta errekurtsioa ditugu GU partaidetzarako baldintza biak betetzen dituzten hizkuntz ezaugarriak.

Fitch eta Hauser (2004) ikertzaileek galdetu dute ia primateek gaitasunik ote duten osagai egituraz jabetzeko. Hizkuntza artifizial bi irakatsi zizkieten tamarin tximino talde ezberdin biri. Hizkuntzen arteko alde bakarra osagai egitura zen: hizkuntzetan bat egoera finituko hizkuntza zen, osagairik gabea, hitz bat besteari lotzen zitzaion lepoko batean bezala, baina beste hizkuntzak osagaiak zeuzkan, ez zen egoera finituko hizkuntza. Fitch-ek eta Hauser-ek aurkitu zuten tamarinek, denbora eta trebakuntzaren ondotik, lortzen zutela ezagutzea zein ziren segida gramatikalak eta zein segida ez gramatikalak egoera finituko hizkuntzaren kasuan, baina ezin zutela, denbora eta trebakuntza gorabehera, osagai egituradun hizkuntzarako gramatikaltasun-gramatikaltasun ezik asmatu.



(9) grafikoan, haien lanetik hartua dena, ikusten dugu gizataldeak hizkuntza bietako segida gramatikal/ez gramatikalak bereiz zitzaizela (kontrol taldea deritzona osatzen zuten), tximinoek nahikoa ondo bereiz zitzaizela segida gramatikal eta ez gramatikalak Egoera Finituko Gramatikan (FSG grafikoan, eskumako goikaldea), baina ezin zituzten bereiz Osagai Egitura Gramatikaren kasuan (PSG grafikoan, eskumaldeko beheko grafikoan).

Aurkitu ote dugu giza kognizioaren ezaugarri espezifiko bat? Aurkitu ote dugu giza hizkuntzaren ezaugarri espezifiko bat? Galdera honi erantzun ahal izateko, gehiago jakin behar dugu. Adibidez, jakin behar dugu ea gizakiok ote garen osagai egituraz jabe gaitzkeen bakarrak, giza hizkuntzaren errekurtsio ahalmenaren iturria den ezaugarri konbinatoriala (Chomsky 1995). Gentner et al. (2006) lanak diosku zozok errekurtsioa konputa dezaketela. Oraingoan ez naiz azterketa honen azalpenean eta eztabaidan luzatuko, baina labur bada ere, esan dezadan ez dagoela oraindik argi zozok esperimendu honetan egin dutena konputazio errekurtsioa den ala zenbaketa, Fitch eta Hauser ikertzaileek azaltzen duten zalantza (2004: 378): "Because limited output from a PSG can always be approximated by a more complicated FSG (at the limit, a memorized list of exemplars), it is difficult to prove conclusively that subjects have learned the former. This is equally true for human or animal subjects. However, failure to master a grammar (as demonstrated by a failure to distinguish grammatical from ungrammatical strings) can be empirically confirmed. Of course, such a failure could occur for myriad reasons, and it is thus imperative to demonstrate success on a similar task, matched in all extraneous respects, before concluding that particular computational constraints are at work." Dena den, txori kantarien konputazio mentalak erabat interesgarriak dira gai honi dagokionean, haien kantuak luze eta egituratuak direlako, eta zenbait espeziatan kantuaren jabekuntzak eta cortexean duen irudikapenak antz interesgarriak erakusten baititu giza hizkuntzarekin erkatutakoan (Bolhuis and Gahr 2006, Uriagereka 2007).

Bada beste biderik osagai egitura UG ezaugarri benetakoa ote den ikertzeko: giza burmuinak modu bereziren batean prozesatzen duen aztertzea, alegia. Neuroirudi teknikak erabili dituzten ikerketa garrantzitsu bik iradokitzen digute horrela litekeela. Musso et al. (2003), eta Friederici et al. (2006) lanetan azaltzen diren esperimientuetan gizakiei gramatika artifizioal mota bi irakatsi zitzaizkien: bata giza hizkuntza bezalakoa zen, osagai egituraduna, eta bestea estatu finituko gramatika, osagai egitura gabea (aurreko esperimientuaren antzera). Ikusi nahi zuten nola erreakzionatzen zuen giza burmuinak horien aurrean. Musso eta lankideek (2003) jaiotzetiko alemanierahiztunei italierazko eta japonierazko egiturak irakatsi zizkieten, batetik, eta bestetik osagai egiturarik gabe eraturako hiru italiara lako eta japoniera lako egitura, hizkuntzetako hitzak erabiliaz. Adibidez, egitura ez naturaletako batek ezeztapen hitza perpausaren hirugarren hitzaren ondotik kokatzen zuen:

(10) Ezeztapen egitura italiara lako hizkuntza ez naturalean:

Paolo mangia la no pera
Paolok jan det ez madari
“Paolok ez du madaria jaten”

Erregela erraza da, baina ez dago honela jokatzeko duen giza hizkuntzarik, hitzen kontaktetan oinarritzen baita, eta ez osagaietan. Beraz, egitura erraza eta konsistentea da, zailtasunak edo konplexutasunak ez du erregela ikastea eragozten. Ikertzaileek aurkitu zuten egitura hauen bortxaketetan hizkuntza naturalak Broca eremuko esparrua areago aktibatzen zuela, hizkuntza ez naturalak baino. Friederici eta lankideek (2006) antzeko emaitzak lortu zituzten; egoera finituko hizkuntzaren bortxaketek *frontal operculum* deritzon burmuin-eremua aktibatzen zuten, baina osagai egituradun gramatikaren bortxaketek, gainera, Broca eremua aktibatzen zuten, aurrekoan ez bezala. Honela azaltzen dituzte ondorioak: “Results indicate a functional differentiation between two cytoarchitectonically and phylogenetically different brain areas in the left frontal cortex. The evaluation of transitional dependencies in sequences generated by an FSG, a type of grammar that was shown to be learnable by non-human primates, activated a phylogenetically older cortex, the frontal operculum. In contrast, the computation of hierarchical dependencies in sequences generated according to a PSG, the type of grammar characterizing human language, additionally recruits a phylogenetically younger cortex, namely Broca’s area (BA 44 45)” (Friederici et al. 2006: 2460).²³

Gramatika errekurtsiboa konputatzen duen burmuin eremua filogenetikoki berriagoa da egoera finituko harremanak konputatzen dituen eremua baino. Honek iradokitzen du litekeena dela ezaugarri hau hizkuntzazkoa eta primatzen artetik gizakiongan bakarrik garatu den gaitasuna izatea. Oraindik ikerketa gehiago egin beharko dira iradokizun hauek egiaztatzeko, baina oraingoz dugun irudiak erakusten digu GU meharra dela, baina ez hutsa.

²³ “Emaitzek bereizketa funtzionala erakusten dute cortex frontalaren ezkerrean dauden burmuin eremu biren artean, eremuok citoarkitektonikoki eta filogenetikoki ezberdin direlarik. EFG-n, gizaki ez diren primatetik ikas ditzaketela erakutsi den gramatika motak sortutako transizio dependentzien ebaluazioak cortex zaharragoa aktibatu zuen, frontal operculum eremua. Aitzitik, OEG baten arabera sorturiko dependentzia hierarkikoen konputazioak, giza hizkuntzaren zantzu denak, erantsi egiten du filogenetikoki berriagoa den cortex eremua, Broca eremua (BA 44 45)”.

Bibliografia

- Baker, M., 2001, *The Atoms of Language*, Basic Books, New York.
- Bolhuis J. eta M. Gahr, 2006, "Neural mechanisms of birdsong memory", *Nature reviews neuroscience* 7, 347-357.
- Chomsky, N., 1957, *Syntactic Structures*, Mouton, The Hague.
- , 1959, "Review: B. F. Skinner's Verbal Behavior", *Lg* 35: 26-58.
- , 1966, *Cartesian Linguistics: a Chapter in the History of Rationalist Thought*. Harper & Row, New York. Gaztelaniaz: *Lingüística castellana*, Gredos, Madrid, 1972.
- , 1986, *Knowledge of Language: Its Nature, Origins and Use*, Praeger, New York.
- , 1995, *The Minimalist Program*, The MIT Press, Cambridge.
- Cutler, A. & J. Mehler, 1993, "The Periodicity Bias", *Journal of Phonetics* 21, 103-108.
- Eimas, P. D., J. L. Miller, eta P. W. Jusczyk, 1987, "On infant speech perception and the acquisition of language", in S. Harnad (arg.), *Categorical Perception: The Ground Work of Cognition*, Cambridge U. P., Cambridge, 161-195.
- , Siqueland, E. R., P. W. Jusczyk, eta J. Vigorito, 1971, "Speech perception in infants", *Science* 171: 303-6.
- Fitch, T. W. eta M. D. Hauser, 2004, "Computational Constraints on Syntactic Processing in a Nonhuman Primate", *Science* 303, 377-380.
- Friederici A., J. Bahlmann, S. Heim, R. Schubotz, eta A. Anwander, 2006, "The brain differentiates human and non-human grammars: Functional localization and structural connectivity", *PNAS* 103: 7, 2458-2463.
- Fisher, S. & G. Marcus, 2006, "The eloquent ape: genes, brains and the evolution of language", *Nature Review Genetics* 7, 9-20.
- Gentner, T. Q., K. M. Fenn, D. Margoliash eta H. C. Nusbaum, 2006, "Recursive syntactic pattern learning by songbirds", *Nature* 440, 1204-1207.
- Harnad, S. (arg.), 1987, *Categorical Perception: The Groundwork of Cognition*, Cambridge U. P., New York.
- Hauser, M. D., N. Chomsky eta W. T. Fitch, 2002, "The faculty of Language: what is it, who has it, and how did it evolve?", *Science* 298, 1569-1579.
- Kuhl, P. K., 1987, "The special mechanisms debate in speech research: Categorization tests on animals and infants", in S. Harnad (arg.), *Categorical perception: The groundwork of cognition*. (355-386. orr.). Cambridge: Cambridge U. P.
- , P. K., & J. D. Miller, 1975, "Speech perception by the chinchilla: Voiced-voiceless distinction in alveolar plosive consonants". *Science* 190, 69-72.
- Laka, I., 1992, "Astarloaren hizkuntzalaritzaz", in R. Gómez eta J. Lakarra (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I.: XVI-XIX, mendeak*, Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Donostia, 367-378.
- Lieberman, A. M., K. S. Harris, H. S. Hoffman eta B. C. Griffith, 1957, "The discrimination of speech sounds within and across phoneme boundaries", *Journal of Experimental Psychology* 54: 358 - 368.
- Marcus, G., 2006, "Startling Starlings", *Nature* 440, 1117-1118.
- Mehler, J., P. Jusczyk, G. Lambertz, N. Halsted, J. Bertoncini & C. Amiel-Tison, 1988, "A Precursor of Language Acquisition in Young Infants", *Cognition* 29, 143-178.
- Meltzoff A. N. eta Printz, W., 2002, *The Imitative Mind: development, evolution and brain bases*, Cambridge U. P., Cambridge.

- Miyawaki, K., W. Strange, R. R. Verbrugge, A. M. Liberman, J. J. Jenkins & O. Fujimura, 1975, "An effect of linguistic experience: The discrimination of (r) and (l) by native speakers of Japanese and English", *Perception and Psychophysics* 18, 331-340.
- Musso M., A. Moro, V. Glauche, M. Rjintjes, J. Reichenbach, C. Büchel eta C. Weiller, 2003, "Broca's area and the language instinct", *Nature Neuroscience* 6: 7, 774-781.
- Nazzi, T., J. Bertoncini & J. Mehler, 1998, "Language Discrimination by Newborns. Towards an understanding of the role of rhythm", *Journal of Experimental Psychology: Human Perception and Performance* 24, 1-11.
- O'Donnell, T. J., Hauser M. D. eta Fitch T. W., 2005, "Using mathematical models of language experimentally", *Trends in Cognitive Sciences* 9: 6, 284-289.
- Piattelli-Palmarini, M. (arg.), 1980, *Language and Learning: the debate between Jean Piaget and Noam Chomsky*, Harvard University, Cambridge.
- , 1994, "Ever since language and learning: afterthoughts on the Piaget-Chomsky debate", *Cognition* 50, 315-346.
- , 2002, "The barest essentials", *Nature* 416, 129.
- Ramus, F. & Mehle, 1999, "Language identification with suprasegmental cues: A study based on speech resynthesis", *Journal of the Acoustical Society of America* 105, 512-521.
- , F. M. D. Hauser, C. Miller, D. Morris & J. Mehler, 2000, "Language discrimination by human newborns and by cotton-top tamarin monkeys", *Science* 288, 340-351.
- Rosch, E., 1978, "Principles of Categorization", in E. Rosch, & B. B. Lloyd, (arg.), *Cognition and Categorization*, Lawrence Erlbaum Associates Publishers, Hillsdale, 27-48.
- Sebastián-Gallés, N., 2006, "Native-language sensitivities: evolution in the first year of life", *TRENDS in Cognitive Sciences* 10: 6, 239-241.
- Skinner, B. F., 1957, *Verbal Behavior*, Copley Publishing Group, Acton, Massachusetts.
- Tomasello, M., 2004, "What kind of evidence could refute the UG hypothesis?", *Studies in Language* 28: 3, 642-645.
- Toro, J. M., 2005, *La extracción de regularidades rítmicas y estadísticas del habla en ratas*, Universidad de Barcelona, Doktorego tesia.
- , Trobalón, J. B., Sebastián-Gallés, N., 2003, "The use of prosodic cues in language discrimination tasks by rats", *Animal Cognition* 6, 131-136.
- Uriagereka, J., 2007, "Chimpancé + Jilguero= Humano? Sobre la evolución de la facultad del lenguaje", *Divulgación, CICNETWORK*, Biogune, 18-21.
- Yang, C. D., 2002, *Knowledge and Learning in Natural Language*, Oxford U. P., Oxford.
- , 2004, "Universal Grammar, statistics or both?", *TRENDS in Cognitive Sciences* 8: 10, 251-256.
- Werker, J. F. eta Tees, 1984, "Cross-language speech perception: Evidence for perceptual reorganization during the first year of life", *Infant Behavior and Development* 7, 49-63.
- Wytenbach R. A., M. L. May, R. R. Hoy, 1996, "Categorical Perception of Sound Frequency by Crickets", *Science* 273, 1542-1544.

AITZINEUSKARAREN GRAMATIKARANTZ (MALKAR ETA OSINETAN ZEHAR)

Joseba A. Lakarra

JUMI-UPV/EHU

0. Duela 30 urte*

Gogoan ditut 1980-81eko “Euskara II”-ko eskolak: aurreko urtean irakurria nuen (ulertzea besterik da) *Gramatika bideetan* “iraultzailearen” egileak berak eman behar zituen, zizkigun hobe, Gasteizko Fakultatean —oraindik Apaizgaitegi apaizgabeko geletan, noski— euskal sintaxi berriaren oinarriak; eta hori, gainera, “hizkuntzalaritza-arkeologia”-ren zale (*Egin dixi*) omen zen Mitxelenak hara deitua.

Nekez ahantz nezake zeinen erakargarri egiten zitzaizkidan Patxiren azalpenak eta, batez ere, haren galdera etengabeak eta —gehienik— haren azalpen eta galderetarik sortzen eta kateatzen ziren galdera eta azalpen askori (eta niri) artean bururatugabeak: “-Ta, esaldi hau onargarria da zuentzat?”, “-Eta aditza aurrera eramaten badugu?”, “-Eta erdi-aldean?”, “-Eta pluralean jartzen baditugu?”, “Esaldi honek esanahi bakarra ala gehiago ote du?”, “-Eta adberbioak tokialdatuz?”, “Ederki, azkenik (??), biak gaizki, baina zein zein baino okerrago ala berdin-berdin?”... ordu osoan honela eta hurrengo egun, aste eta hilabeteen antzera. Bazirudien euskaldunok ere (euskaldun zaharrek batez ere) zeresana genuela euskal gramatika kontuetan, On Seberrek mende erdi lehenago garbi asko arautua eta amaitua utzi ez balu legez, urte haietan-txe arautu eta itxi ziren beste zenbait Araudi edo Arautegi garrantzitsu bezala.

Gutxitan legez, irakurriaren aurrean asko irabazten zuen eskolan entzunak eta ikasiak, aurrera eta atzera, gora eta behera, ezaba eta erants, zuhaitzak altxa, adarrak moz edo txerta... ikerketa borborrean eta pilpilean, (inoiz egun batetik bestera, ez soilik idaztaldi batetik hurrengora!), baten batek zerbait eskolastikoago eta aldazinago nahiko bide zukeen arren. *Erderismos* eta *Aspects of the theory of syntax*, “Galdegaia eta mintzagaia”, “Is Basque a SOV language?”, *Syntactic Structures* eta Victor Sánchez de Zavala madrildar donostiratuaren bilduma bikoitza (Lakoff biak, McCowley eta Ross Chomsky eta Jackendoff-en aurka), Villasanteren harako haiek (Mitxelenaren ohar beraturugabeak eta guzti) eta E. Bach-en *Syntactic theory* bikaina ahaztu gabe..., uste dut gure artean enparatuko ikasgaietan ari ziren irakasleek ez zutela lortu —urte hartan eta

* Lan hau MCyT-ak eta MEC-ak lagundutako bi ikerketa proiektuekin lotzen da: “Monumenta Linguae Vasconum: I” (2002-2005) eta “Monumenta Linguae Vasconum: II” (2005-2008).

Eskerrak bihoazkie Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Julen Manterola, Céline Mounole eta Blanca Urgell taldeko kideei, eta baita Javi Ormazabali ere lan honetan eta berari lotutako nire beste zenbaiteko pundu batzuez izandako gogoeta- eta bibliografia-trukaketarengatik; horrek ez ditu bertako akats eta ga-bezien errudun bilakatzen, noski.

beste hainbatetan ere— Patxik berean lortu adinako zaletasunik ikasleotan eskoletan usaitu edo aditutakoa geure kasa dastatzeko eta are hartzaz betekada on bat egiteko ere.

Geroztik ezin esan nire lanean sintaxia ez asko ez gutxi garatu dudarik, baina bai begiratu dudala, urrutitik bada ere, Patxiren lana berak orduan txertatu zigun interes, errespetu eta are miresmenarekin ere. Itxadoten dut, gainera, oraindik Patxik emango digula urte askoan horretarako arrazoi eta biderik.

1. Aitzineuskararen gramatikaz: nondik norantz?

1.1. Aitzinekoak

Ondorengo orrialdeetan adizki sintetikoan —eta horien ingurumariaren alderdi bazuena— jatorria etorkizunean aztertu ahal izateko zenbait oinarri jarri nahi izan dugu; helburu horrekin hipotesi bat landuaz joateko, ezinbesteko iruditu zaigu gure ikuspegi honetan aitzineuskararekin paralelismoak dituzten edo izan zitzaizketen hizkuntzen egituraz eta historiak ezagutzen ditugun datu eta hipotesi arrazoizkoenak aurkeztea edota horretan saiatzeari bederen. Aditz irregular, ustez soiletan, diren morfema fosilduez aritu (cf. Lakarra 2006b, 2006c, 2007a)¹ eta *e-, *da-, ra- eta *da-ra- aurrizkien bitartez sortu eratorriak ezabatzean gelditzen den enbor soil laburra eta forma sintetikoan berankortasun eta betidaniko urritasuna gogoratu ondoren, “orainaldiko” (hots, jatorriz inperfektiboko) forma sintetikoek nozbait A.Lag.-A.Nag. (*da(C)-CVC) egitura zutela aldarrikatu nahi dugu. Orobat, aditz sintetikoan (*dar/jarri inperfektiboetan, *eden perfektiboetan) gehi hainbat markaren —bereziki aldeez edo moldez datiboari lotutakoan— gramatikalizazioarekiko zenbait hipotesi eskaintzen ditugu, enparatuko hizkuntzetan multzo-aditzez (*serial verbs*)^{1b} eta horien bilakabideaz den bibliografia-

¹ Antzeko hurbilketa orokor baterako ikus § 4 hasieran aipatu Merlan (1979) eta bere lana australiar hizkuntzetako aditzez.

^{1b} Izena edo euskal ordaina Xabier Artiagoitiari zor diot. Beharrik gabe inor ez izutzeko, hara aspaldiko M. Baker-en pare bat pasarte, ene ustez ez hain desegoki ez datuei eta ez hurbilketari berari ere dagokienez:

Many people have observed that notions which are expressed by Serial Verb Constructions (SVCs) in the Kwa languages of West Africa correspond to a large degree to those which are expressed by derivational verb morphology in the Bantu languages of East Africa (...) Givon (1971) argued in a generative semantics framework that Bantu and Kwa have similar underlying structures; the difference between the two was that ‘predicate raising’ takes place in Bantu not in Twa. I will argue that this insight, in an updated Government-Binding theory version, is essentially correct (Baker 1991: 79-81).

Eta bere ondorio gisa:

(...) We have seen that Bantu applicatives can be understood as having the same underlying structures and theta role assignment relationships as SVCs in Kwa, the only difference being that certain elements are affixes rather than independent verb roots. (...) This case study supports the idea that there is more than a functional similarity between serialization and affixation constructions. Indeed, the two types of constructions share the same formal syntactic skeleton as well — a skeleton determined by Theta theory and the Projection Principle (Baker 1991: 99).

Ni axal-axaletik arituko naiz, noski, (harako “local philologist” bati bide legokiokeen bezala edo) eta ez naiz sartuko “teknikakerietan” ez “gramatikakerietan”; bidenabar esan dezadan, kwa hizkuntzak nik (cf. Lakarra 2005, 2006a) aitzineuskara eta euskara zaharrentzat proposatzen dudana deribaren juxtu kontrakoaren bitartez azaldu ohi dela (cf. Hyman 2004).

tik abiatuaz, bereziki. Aspaldixkotik (cf. Lakarra 1995 eta hh.) ohi bezala, hizkuntza-aren historiaurrea aztertzeko morfemen forma kanonikoan eta hitz familien azterketan oinarritutako analisi etimologikoak berezko duen zorroztasunari (cf. Lakarra 2002a, 2003, 2004b) ere lotzen saiatuko gara.

Ezagunegia da luzatu beharrik izateko, euskara zaharraren gramatika eta euskaren gramatikaren bilakabidea bera ere, nolabait esateko, ez direla beren goren gradoan eta ezta horra iristeko punttuan ere. Buruz ari naiz eta baliteke gogoanbeharrekoren bat atzentzea, baina neke zait dozenerdi titulu ezinutzizko hemen aipatzea: *Towards a history of Basque language*-n bizpahiru, demagun, eta baita Trasken 1977koa ere argiro, baina gainerakorik?² Oso urruti gara, jakina, berreraiketa fonologikoan Mitxelenak lortutakotik: ez kategoriak eta euren bereizkuntza (eta bereizkuntza horren aldaketa), ez osagaien ordena zaharra (eta horren aldaketa), ez partikulen sorrera, balio eta erabilera (gehi aldaketa), ergatibotasunaren sorrera eta kronologia ezin esan behin-betikoz argituak direnik... Areago dena, iruditu ohi zait usuegi, ukatu ere egiten dela Tubalek lurralde hauetara ekarri zuenetik zirkinik ere egin duenik bere muinean gure hizkuntza zahar, fosil (!) honek:

Basque is the only surviving pre-Indo-European language in western Europe, and it is typologically very different from its Indo-European neighbors. Consequently, both genetic and typological maps of European languages invariably show the Basque-speaking region as a distinctively colored blob at the western end of the Pyrenees. (...) Typologically, Basque is a rather well-behaved SOV language with almost all of the textbook characteristics of such languages: verb-final order, preposed modifiers, an abundance of non-finite verb forms, a rich case system, a highly regular agglutinating morphology with few alternations, an absence of prefixes, and so on (Trask 1998: 313).

With its SOV word order, with its preposed complex modifiers, with its postpositions, with its periphrastic verb-forms, with its polypersonal verb agreement, with its lack of gender, of noun classes, and of verb classes, with its uniform inflection of noun phrases, and above all with its thoroughgoing ergative morphology, Basque remains today the most typologically distinct language in Europe west of the Caucasus (Trask 1998: 323).

Bada, gainera, edozein aldaketa edo edozein ezaugarri ez-kanoniko kanpoko eragin arrotzen bitartez azaltzeko joera ere (cf. 7. oh.); horrela, esaterako, gure aditz sintetiko eder (hots, 'potolo') ugariak galbidean jarri eta are ordezkatu omen dituzten perifrasiak (cf. 11. oh.). Lehen eta orain ere zeharbideak gogokoago ditu batek baino gehiagok eta bada hizkuntzak berezko duen aldaketa gaur ukatu eta bihar aitzineuskararen sintaxia nola eskura azaltzeko gai denik ere.

Usuko bidea berreraiketari fonologia-lexikoa → morfologia → sintaxia begitartzen zait eta honek dakar, lehen markatu legez, askozaz gehiago jakitea (eta jakinbeharra) katearen lehen begiaz ezen ez azkenaz. Nolanahi ere, badira hizkuntzalaritza historikoaren harmategian hizkuntzalaritza sinkronikoaren esparruan sortu eta dagoeneko bertakotu diren analisi edo azterketa-lanabesak. Bi emankor, artean agortzeko arriskurik ez dutenak hona ekartzekotan, gramatikalizazioa eta tipologia ho-

² Eta, gainera, Trasken azken lanetan (cf. 1997 eta 1998) bertatik nahiz Trask (1981)-etik ateratzen diren ondorio ausart eta interesgarrienak ukatu edo ezetsi egiten dituelarik, oker eta zorigaitzez, nire us-tez.

listiko diakronikoa (THD) bururaten zaizkit. Lehenak eman ahal diezagukeena (hartzeko gogorik balitz, jakina) ez da urria: Campbell bera (1998: 238hh) begiratzea aski da gai-zerrenda sendo-aberatsarekin topo egiteko:

(1) auxiliary < main verb; (2) case suffixes < postpositions; (3) case marking < serial verbs; (4) causatives < causal verb ('make, have, get, cause, force') + clause with another verb; (5) complementiser/subordinate conjunction < 'say'; (6) coordinate conjunction ('and') < 'with'; (7) copula ('to be') < positional verbs 'stand', 'sit' or 'give', 'exist' (Spanish *estar* 'to be' < Latin *stare* 'to stand', Spanish *ser* 'to be'; Quechua dialects *tiya-* 'to be' < **tiya-* 'to sit'); (8) dative case marker < 'give'; (9) definite article < demonstrative pronoun; (10) direct object case markers < locatives or prepositions (for example, a dative marker has become an accusative marker in Spanish, Kwa, Bemba and so on); (11) durative, habitual, iterative < 'stay'; durative aspect < 'remain', stay, keep, sit'; (12) ergative < passive (only one of several sources of ergative marking)...³

Joerak dira, noski, hor bilduak, ez nahi-ta-nahiezko garai eta hizkera orotan lege ezinutzizkoak, eta baliteke kontraesanak —bilakabide edo irispide nahiz abiapuntu ezberdinak— antzematea ere bertan eta benetako hizkuntzetan. Halere, zalantza gutxi *-a* artikulu definitua **(h)a(r)* 3. graduko erakusletik ateratzeko (bada oraindik bietarako erabiltzen duen euskaldun frango—^{3b} edota **edin* laguntzailea aditz nagusi batetik (erka eki. *jin*), nahiz *atze*, *aurre*, *gibel*, *buru* bezalako lokatiboko postposizioek non duten sorrera (cf. Pustet 2002); orobat, lehengo aspektu burutugabea (*da-*, cf. Trask 1977) orainaldi bilakatzea ere ez da harritzekoa, eta ezta \emptyset - (3p) + *da-* / *le-*, etab. (ASP-MOD) → *da-* / *le-*, etab. (3p) bilakatzea ere.⁴

Baliteke —bestelakoak inolaz ere meziprezatzeko asmorik gabe— tipologia holistiko diakronikoa izatea laguntzarik oparoena eman liezaigukeena hizkuntzaren bilakabideari eta haren egoera zaharrenei (hots, berreskura genitzakeen zaharrenei)⁵ argi egiteko orduan. Izur eta hari solteak bilatu eta anekdota etimologikoekin asetu nahi ez genuke-

³ Hemen lehen dozana baino eman ez arren, hor badira beste dozana t'ardi ere bilduak, "(17) indefinite article < 'one'; "(19) locative constructions < body-part terms", "(22) perfect(ive) < 'finish', 'complete', 'have'", "(23) preposition/postpositions < verb (preposition < VO; postposition < OV)", "(24) progressive < locative + non-finite verb [...]" edo "(28) relative clause markers < demonstrative pronouns". Zenbait oso ezagunak dira euskalaritzan eta beste batzuk lanean zehar ezagunago egingo ahal zaizkigu.

^{3b} Manterolaren lanek (2006, prestatzen-a, prestatzen-b) aro berri bat irekitzen dute horren gramatikalizazioan eta morfologiaren kronologian.

⁴ Cf. Kuznetsova (2004: 155) ket, selkup hizkuntzaren (Siberia) dialekto batez:

[...] in the Ket dialect of Selkup a number of monosyllabic, vowel-final stems have 3rd person singular present indicative forms ending in *-ŋ*: [...] In the southern Selkup dialects, this *-ŋ* serves as a person/number agreement/marker (Dul'zon 1969; Khelinskij 1982: 78). Diachronically, this consonant (or its cognates, *-k* or *-ŋV* in other dialects) is not a person agreement ending at all. Rather, it is a vestigial consonant marker (<**-ŋV*) of the present indicative which has come to be perceived as a person/number agreement suffix due to the usual zero agreement morph in the third person (Kuznetsova 1987: 131, 133-134). The essence of this morphological change can be illustrated by the following scheme: stem + tense + \emptyset agreement > stem + \emptyset tense + agreement.

Gure kasuan "ispilu-irudia" genuke, aurrizkiekin eta \emptyset -ren eskubiratzearrekin, Kuznetsovak atzizkiak eta \emptyset -aren ezkerretzea deskribatzen duen lekuan.

⁵ Glotogoniaraino heltzeko asmorik ez dugunok lor genezakeen guztia, alegia.

nentzat THD-ak beharrezko den ikuspegi zabala —“modernoek” “eskenategia” esango bide lukete— eskein liezaiguke, edota hori eraikitzeke hatsarri zenbait bederen. Hitzaren azentutik esaldiaren osagai hurrenkerara, hemendik afijoen kokagunera eta silaba egiturara, hortik komuntadura moldera eta handik fonema kopuru eta distribuziora aztertu eta konbinatu nahi lukeelarik (cf. Donegan eta Stampe 1983 eta 2004, esaterako):

	<i>Munda</i>	<i>Mon-khmer</i>
Phrase Accent:	Falling (initial)	Rising (Final)
Word Order:	Variable-SOV, AN, Postpositional	Rigid-SVO, NA, Prepositional
Syntax:	Case, Verb Agreement ⁶	Analytic
Word Canon:	Trochaic, Dactylic	Iambic, Monosyllabic
Morphology:	Agglutinative, Suffixing, Polysynthetic	Fusional, Prefixing or Isolating
Timing:	Isosyllabic, Isomoric	Isoaccentual
Syllable Canon:	(C)V(C)	(C)V- or (C)(C)V(C)(C)
Consonantism:	Stable, Geminate Clusters	Shifting, Tonogenetic, Non-Geminate Clusters
Tone/Register:	Level Tone (Korku only)	Contour Tones/Register
Vocalism:	Stable, Monophthongal, Harmonic	Shifting, Diphtongal, Reductive

(Donegan & Stampe 1983: 337; cf. 2004: 3 eta 16)

zenbat eta hurbilketa hau humotuago hainbat eta birreraiketa lotuago eta sendoago, fonologiatik landakoa ere bere materialtasunean berreskuratuaz, forma huts eta hutsaletara mugatu gabe.

1.2. Orain arteko berreraiketa eta AE-ko aditzaz

Bai SVO ordenan oinarritutako Trasken (1977) ereduak, bai munda hizkuntzek pairatu isolatzaile → eransle bihurketa azaltzeko Donegan eta Stampek (1983, 2004) egin proposamen holistikoaren antzekoren batek (cf. Lakarra 2005, 2006a) historikoki aurki genezakeen aditz ugari eta ñabarra baino urri eta soilagoa agiantzen digute aitzineuskararako.⁷ Hots, aitzineuskararen garairik zaharrenetarako komuntadura eta morfema gutxiago —partikularzki atzizki gutxiago— itxadoten ditugu, batetik, eta, gainera, V esaldian azken mendeotan aurkitu baino ezkererago (dela SVO, dela VSO egituran) kokatua bide zen, bestetik. Uste dut Lakarra (2007b)-en

⁶ Donegan & Stampe-k (2004: 9) Greenberg (1963)-ren “if in a language the verb follows both the nominal subject and nominal object as the dominant order, the language almost always has a case systems” osatzen dute, “And if not a case system, we could add, then subject and object marking on the verb, as in Munda. There is rarely such marking either of nouns or verbs in Mon-Khmer and other languages of South-East Asia, where the verb precedes the object” erantsiaz.

⁷ Antzeko deribaren aldeko hainbat datu atera dira edo atera litezke beste hizkuntza batzuetarik ere, jakina; ikus orain, soilik, tani hizkuntzei buruzko zenbait ohar § 1.5.6.ren akabuan. Reid-ek erakutsi du ustekabearen eta baldintzarik okerrenetan ere (ingelesarekin “kontaktuan”) ngan’gityemerri hizkuntza australiarrean aditz multzoa hazi litekeela:

In stark contrast to these case studies, the recorded changes in Ngan’gityemerri are clearly in the direction of increased morphological complexity and synthesis. There is nothing about the process of taking a phrasal verb and restructuring it into a polysynthetic complex that can conveniently be viewed as resulting from pressure brought to bear on Ngan’gityemerri from the direction of English (2003: 120).

Traskek (1977) eta Gómezek (1994) aditz inpertsonalaren alde emandako aieruak areagotu egin ditugula, pertsona-marken eransketa lehen uste baino are berantiarrago dela baitirudi; orobat, **da-* aurrizki zahar bat ezagutu dugu hainbat aditzen (bi dozena edo) forma jokatu gabeetan, Traskek AE-ren garai berriago baterako eta euskara historikorako adizki sintetikoetan aurkitu ‘continuous’ marka bera, hain juxtu.

Artean ez deskribatu ez susmatu ere gabeko morfema hori ezagutzeak ondorio nabarmenak ditu: **d- > l-* erregela Mitxelenak bezala izenkietako zenbait kasu azaltzeko (cf. Lakarra 2006b, 2006c) ulertu beharrean erreduplikazio edo aurrizkirik gabeko enbor guztietan suposatzen baditugu,⁸ orduan, beranduagoko *-l- > -r-* ezagunagoaren laguntzarekin, sare morfo-fonologiko berekotzat eman ditzakegu hainbat aurrizki eta atzizki, nahiz izenkietan nahiz adizkietan: **da-*, **-da-*, *-a-*, **la-*, **-la-*, *ra-* eta *-ra-*, gutxienez. Erregela honek berak, bidebatez, —lehen aipatu Traskek frogatu ‘continuous’ balioak eta Lafonek markatu XVI. mendeko hainbat aditzen geroaldiko balioak landa— de Rijkke (1992) aurkeztu eta ikertzaile gehienek onartu hipotesiaren ahuleziak erakusten ditu.⁹

Bestalde, bai barneko analisiak —**e-hVC* aditz errorik ez izanak,¹⁰ unibokalismoa (< erreduplikazioak/harmonia) ISan eta aditz-izenetan bai baina aditz jokatueta ez izanak, hauek pairatu hainbat aldaketaren ondoren baino adizki jokatuak ez sortuak (cf. Lakarra 2006c: § 7.2)— eta baita aditz jokatu sailak bere hertsilaburrean Ameriketara, Australia eta Ginea Berriko hainbat hizkuntzarekin dituen paralelismoek argi erakusten digute funtsean oker eta desegoki dela euskara zaharrentzat aditz sintetiko unibertsal edo ia unibertsal eta aberatsa aldarrikatzen duen ideia.¹¹

Ez da azalpen egokiagoa, orobat, ustezko aditz sintetiko zabal zaharra latin-erromantzeen eragin gaiztoz (zehazki, orduan lehendabizikoz eta aldi berean —cf. Mounole (2006b), Lakarra (2007b)— hizkuntzak hartuko zituen perifrasiaren

⁸ Baita ezker-muturrean zenean **da* aurrizkiarentzat ere.

⁹ Hots, haren ustez (cf. de Rijk 1992) orainaldiko adizkietako *da-* horretan ‘orain’ esan nahi zuen eta aditz-erroen ezkerretara biltzean orainaldiko formak sortu zituen adizlagun zaharra genukeen. Ik. 47. eta 52. oharra.

¹⁰ *Eho* < **e-non* salbuespen bakarrekin, itxuraz; ene aburuz, ez litzateke **e-hVC* errorik faltako era honetako aditzak *Th- > h-* fenomenoaren ondoren ere aditz enbor berriak eratu izan balira hizkuntzan; cf., aldiz, *e-thorr-i*, *e-kharr-i*, *e-kus-i*, etab., baina ez ***ehorri*, ***eharri*, ***ehusi* eta ezta ***ehorri*, ***eharri*, ***ehusi* ere. Bideanabar, **e-nVC* bakarra izanak ere *n* fonemaren erro hasierako urritasunaren alde egiten du (cf. *FHV* § 15.9), Mitxelenak frogatu hau erabili ez arren; ik., orobat Lakarra & de Bernardo (prestatzen) eta Lakarra (prestatzen-3).

¹¹ Cf. “There is a very old discussion on whether synthetic forms in Basque are older than analytical forms or vice-versa. In earlier centuries and up to the beginning of ours, researchers thought, almost unanimously, that the ancient Basque verb had only analytical (“periphrastic”) forms, simple or synthetic forms being a corruption of those [...] Today, in contrast, there is universal agreement that the handful of verbs which have synthetic forms preserve a state of affairs which must have been much more general in older times. In fact, old texts present a greater number of verbs with synthetic forms than are currently used. Nevertheless, the system of analytical forms with an auxiliary appears as perfectly consolidated even in the earliest texts. The use of analytical forms permitted the expression of a greater number of differences in tense, mood and aspect than was possible within the bounds of the synthetic conjugation” (Gómez & Sainz 1995: 237-238).

Ezin horrelakorik espero ere hizkuntza SOV bihurtu baino lehen Donegan & Stampe (1983), eta besteren ustez; soilik orduan “gizen” liteke aditza zein izen sintagma, forma kanonikoak haziaz eta atzizkiak nahiz postposizioak sortuaz eta erantsiaz.

bitartez) hondatuko zela suposatzea ere. Ene ustez, delako latin-erromantzeen ustezko eragin hori baino lehen ere,¹² sintetikoki jokatzeko gai ziren aditzen saila murrizta eta ia emankortasun handirik gabekoa bide zen, izan: ez zuen lortu, esaterako, mailegutan hartu aditz ugarien artean eskukada batek ere adizki sintetikoak garatzea,¹³ eta datu hau nekez uler liteke aditz sintetiko sail unibertsal edo zabal batetik abiatuaz. Hots, euskarazko aditz zaharra bat bide zetorren Ameriketara, Australiarara eta Ginea Berriko hizkuntza modernoetakoekin, guztiek zutelarik sintetiko sail urri eta heresia (cf. Lakarra 2005 “euskal-kanonaz”), dozena batetik ehun bat kidetakoa edo.

1.3. Forma kanonikoa eta aditzaren bilakabidea

1.3.1. Dakigunez, Lafonek aditz erroa askotarikoa, ugaria eta ia muga ezagunik gabea bailitzan aurkeztu zuen:

Pour avoir du verbe basque une connaissance satisfaisante, il faudra joindre à la connaissance de son système celle des rapports de forme, de sens ou d'emploi que certaines racines ont pu avoir entre elles, c'est-à-dire la connaissance de l'histoire et de la préhistoire des racines (Lafon 1943: I, 433).

B. *Racines simples*. Les racines simples du basque se composent d'une ou de deux syllabes. Les types suivants se rencontrent :

1.º RACINES MONOSYLLABIQUES:

une voyelle : *a-* “être”;

consonne et voyelle : *go-* “rester”, *gi-* “être fait”;

voyelle et consonne : *bil-* “marcher”, *kus-* “être vu”.

2.º RACINES DISSYLLABIQUES : *oa-* “aller”; *augi-* “venir”, *aki-* “être su”, *zagu-* “être connu” (Lafon 1943: I, 421).

1.3.2. Aurretiko bi lanetan (Lakarra 2006b, 2006c) erakutsi uste dut ikuspegi hori desegokia eta agorra zela alderdi askotarik, erroen forma kanonikoan oinarritutako analisiaren bitartez. Oraindik gera litezkeen salbuespen eta zailtasunak gorabehera —nolanahi ere, oraintsu baino erruz gutxiago bide dira— bi eratoko aitzinamenduak lortu direla deritzot:

- a) Hainbat etimologia berri, lehen ezagutzen ez genituen zenbait erro zaharagor isolatuaz eta lehen lotura formalik gabekotzat genituen hainbat erro (ustez soil) analisatu eta beren artean errepikatzen diren osagai eta erlazioak argituaz:

Erroa	<i>e-CVC</i>	<i>e-da-CVC</i>	<i>e-ra-CVC</i>	<i>e-da-ra-CVC</i>
* <i>dan</i>	> <i>edan</i>	* <i>e-da-dan</i>	> <i>j(a)an</i>	* <i>e-ra-dan</i> > <i>eradan</i> * <i>e-da-ra-dan</i> > * <i>ardan-</i>
* <i>dats</i>	> <i>jatsi</i>			* <i>e-ra-dats</i> > <i>era(a)tsi</i>
* <i>den</i>	> <i>eden</i>			
* <i>den(ki)</i>	> <i>edeki</i>			

¹² Ohar bedi bai latinean eta baita erromantzeetan ere aditz jokatu saila irekia dela, hots, funtsean jokatuak direla erro guztiak eta ez banaka batzuk euskaraz bezala.

¹³ Lafonek erabat segurutzat zuen *ezagutu* < *ezagun*, rom. *sabut* beharbada? Ez dakust nola analiza litekeen euskal morfologia zaharraz dakigunaren barnean.

*len-i	> erein	*e-da-len-i	> jarein ¹⁴		
		*e-da-len-gi	> jaregi		
*din(-o)	> jin, jo	*e-da-din(-o)	> jaijo	*e-ra-din	> eriden, *e-da-ra-din > jarrain [ediren, ediro, idoro]
				*e-ra-din-o	> eraio
				*e-ra-din-ki	> eraiki
		*e-da-din(-ki)	> jaiki		
*lin(-o)	> (h)erio	*e-da-lin(-o)	> jario		
*dits		*e-da-dits	> jaitsi	*e-ra-dits	> eraitsi
*lits	> eritsi	*e-da-lits	> jaritsi		
*don-i	> hedoil/hodei	*e-da-don	> jagon	*e-ra-don	> errun *e-da-ra-don > *arran-
*dul	> e(u)lki	*e-da-dul-ki	> jaulki	*e-ra-dul	> irauli *e-da-ra-dul > *arraul-
	> jalgi/ki	*e-ra-dul-gi	> eralgi		
*dun	> *edun	*e-da-dun	> jaun	*e-ra-dun	> irauin
			> ja(u)ntzi	*e-ra-duntzi	> era(u)ntzi *e-da-ra-dun-tz-i > ja- rauntsi
*hun	> irun			*e-ra-lun	> irudiliduri
*duts	> eutsi	*e-da-duts	> jausi	*e-ra-duts	> erausi
*dutz	> eutzi	*e-da-dutz	> jauzi	*e-ra-dutz	> erauzi
*gon(ki)	> egon egoki			*e-ra-gon	> eragon
*gor	> egorri	*e-da-gor	> ihaurri/jaurri		
		*e-da-gor-di	> jaurti, aurdi-		
*gotz	> egotzi			*e-ra-gotz	> eragotzi *e-da-ra-gotz-i > urgatzi
*khin	> ekin	*e-da-khin	> jakin	*e-ra-kin	> irakin
*non	> ebo	*e-da-non	> joan	*e-ra-non	> erhol/erhan *e-da-ra-non > eroan, eraman
*san	> esan	*e-da-san	> jasan jaso	*e-ra-san	> erasan/ erran eraso
*sar	> eseri	*e-da-sar	> jarri	*e-ra-sar	> erasarri
*zar	> ezarri ¹⁵	*e-da-zar	> jazarri	*e-ra-zar	> erazarri

b) Lehengo anabasa eta irregularitate ia osoa formula soil batez [(CV)-CVC] euskara zaharragoan erregularitate (ia) erabatekora eramatea, hizkuntz berreraiketari dagokion bezala.^{15b}

1.4. Aurrizki zahar berriak

1.4.1. Aditz-erroen forma kanoniko zaharra bilatzeko azterketa horretan ez da soilik erro soil zaharrago gehiago agertu; orobat, guganaino eta are euskara historikoraino ere iritsi den moduan, ez lexema baizik eta afijo zahar-berri ezagunen bat esku-ratu dugu, *da-, alegia.

Afijo hori aurrizkia genuke bere kokagunearen arabera, beste ezagunen bat (-ra-kausatiboa) baino aurrizkiago, gainera: cf. RS *jaraunsi* 'heredar' (< *e-da-ra-dun-ts-i). Aurrizki horrek lotura formal garbia du *labur* edo *labain*-en ageri den *la-* marka ho-

¹⁴ Mitxelenak aditz hau *jar* + *egin* banatu arren, ikus Lakarra (2007a: § 7.2.3).

¹⁵ Mitxelenak *FHV*-n kausatiboen artean sartzen du, baina ez dakust nola izan litekeen talde horretakoa, bere morfologiaren arabera, bederen.

^{15b} Ikus § 4 hasierako Merlanen aipua.

riekin; hots, kontuan izanik **d- > l-* hots aldaketa emana zela Mitxelena-erako aitzineuskararen (cf. Mitxelena 1957), eta adibide hauetako *la-* hori CV-CVC egitura batean dugularik, aurrizki edo preposizio gisa azaldu behar dugu erro monosilabikoaren teoriaren barnean, baldin eta **CVC- > CV-* proposatzen ez badugu, jakina, 1.000 urte edo gehiago beranduago baino gertatu ez den fenomeno bat *ad hoc* erabiliaz.¹⁶

Semantikari dagokionez, sakontasun handitan sartu gabe, esan dezagun ezkerreko **da-* horrek bi balio (lokatiboa eta aspektu mugagabea) biltzen dituela bere baitan.¹⁷ Bada, bi balio horiek ez dira bateraezinak inolaz ere eta hainbat hizkuntzatan egitura eta jatorri beraren bilakabide bereziak baino ez dira:

Patterns in present-day Benue-Kwa languages suggest two general paths for grammaticalization of locative verbs. One direction is from verb to marker of incompleted aspect. Another is from verb to preposition, proceeding in some cases to prefix and to zero (Lord 1993: 29-30).

1.4.2. **da-* aurrizki zahar-berri hau aurkituak ia bi dozena aditzetan (*jausi, jakin...*) baditu ondorio berriak aditz sintetikoen sailari dagokionez edo, hobe esan, aditz-erro zaharren kopuruaz. Dakigunez, **e-* aurrizkia (> *e-*, *i-*, *j-* baldintza ezagunetan) behar dute izan aditz zahartzat hartzeko hautagaiek: *sartu* edo *apurtu*, horrela, zerrendatik kanpo gelditzen dira eta ez soilik *-tu* horrengatik. Alabaina, *e-* duten edo izan duten horiek guztiak (200 bat) inoiz sintetikoki jokatu direla baieztatzerik ez dugu: *ezarri, itzuli, jan, erosi, ilki, josi...*, egiturari dagokionez zahartzat izan ditza-kegu baina ezin segurta inoiz forma jokaturik izan duten. Bada, kausatibo aurrizkia baliatuaz sortutako aditz zaharrei **da-* aurrizki ezagutu berria daramatenak gehitu eta noizbait **e-* zutenen zerrenda laburtzean zalantzarik gabe jokaturako oso erro soil gutxi gelditzen da, bizpahiru dozena edo (cf. Lakarra 2007b eta hemen 78. oh.).

1.4.3. Are gehiago (edo gutxiago): Mitxelenak (1977b) *jardun/inardun, jardukil/iharduki, jardetsi/ihardetsi* azaltzeko proposatu zuen **jar* ‘izenki zahar balio ezagunekoa’ eztabaidatzean (cf. Lakarra 2007a) ikusi izan dugu horien jatorrian ez dela inongo **jar* ez bestelako izenkirik. Labur esanda, Mitxelenak berak erakutsi zuen lexiko mailegatugabeen hasierako yodak gorago aipatu aditz zaharretariko **e-* hartatik datozela eta, horrenbestez, *jaun* edo *jabe*, azken batean, aditzak izan zirela (cf. Lakarra 2006b eta 2006c). Horrela gauzak, **e-[...ar...]-dun*, **e-[...ar...]-dets-i*, etab., ditugu Mitxelenak azalgai hartutakoak; beste aditz-erro ezagunen batek ere ez digu laguntzen forma horietara iristen (ez dira, beraz, bi aditz erroz osatutako aditz erro konposatuak) eta ezta lehengo *-ra-* kausatiboak ere. Bai, alabaina, **e-da-ra-CVC* egitura konplexuago eta historikoki ezezagun edo agor batek (cf. Lakarra 2007a); eta ez, gainera, Mitxelenaren bizpahiruak soilik, baizik eta are haien ideko diren *jarraitu, inarrosi, jarrugi, urgatzi, *arran, *ardan, arbin*, eta beste ere, —guztira dozena bat edo, eta sintetikoki jokaturako zenbait tartean, bidenabar— azalduaz.

¹⁶ Bestalde, **da-* hori formalki ezin bereiz liteke IS-ren eskubitara ageri den **da* atzizkitik: *etxe-ra-t, du-da(n/la)*, etab. Traskek (1997) euskal hizkuntzalaritzaren arazo larrienetarik duen lokatibo komunztadura, zenbaitetan algonkinoz ere ageri da Céline Mounolek markatu bezala.

¹⁷ Bigarrena (aspektu mugagabea) zen, jakina denez, Traskek (1977) lehendabizikoz forma jokatu modernoetako 3. pertsonako *da-* ezagunean aurkitu zuen bera.

1.5. Euskal aditz sintetikoaren urritasun eta modernotasunaz

1.5.1. Aditz jokatuaren zerrenda (cf. Lafon 1943, Lakarra 2007b) inoiz ez da luzeegi izan —75 edo dira lekukotuak—, nahiz eta “elkarte lorioso” horretan kide izateko bizpahiru adizki eta inoiz are bakarra (gogora RS *diratan* edo *daminda*) baino ez eskatu sartzeko hautagaiari. Goragoko ahapaldietako kenketen ondoren gelditu zai-gun erro soil jokatuaren kopurua bi dozenatik hirutik baino gertuago dela ikus liteke Lakarra (2007b)-n. Inguruko hizkuntzetara so egiteak ez digu laguntzen ez antzeko hertsapenik aurkitzen ez egoera honetara iristeko bilakabidearen inongo eredu edo arrazoirik antzematen. Izan ere, italiko nahiz germaniko, zelta nahiz eslabiar, zenbat aditz sintetiko dute gure auzoek? Ez jakin, edota ezin-konta-ahala, edota, nahi bada, GUZTIAK, salbuespenak salbuespen. Euskarak, aldiz, historikoki salbuespen urri direnak ditu jokatu eta **e*- aurrizkia izan zuten erro soil guztiak forma sintetikoak izan zituztela onartuko bagenu ere —askotxo onartzea dela dirudi— hiru bat dozenatako salbuespena genuke gehienez ere.¹⁸ Eta ohar bedi ez naizela sartu ere egiten adizki jokatuak izan arren sintetikorik aberatsenek ere ez dituzten denbora, aspektu eta aldi sintetikoaren kontuan.

Urrutixegoko joaz, ordea, dela Ipar-Ameriketara, dela Ginea Berrira edota, batez ere, Australiara, ugari dira aditz-jokatuaren saila euskararena bezain murriztutako edota are murriztutako duten hizkuntzak. Hots, dozenardi eta zenbait dozenaren artean, inoiz 100 pasatxo eta bakarren bat hortik gora:

In most of the world's languages verb roots comprise an open class. There are, however, some languages that have a small, closed class of verb roots and, furthermore, lack processes for deriving new, morphologically complex verb bases. (...) We compare verbs and complex predicates in three unrelated languages —one with an open verb class (English) and two with small, closed classes of verb roots that occur as independent verbs and inflecting for subject person-and-number and tense, aspect and mood, one from north central Australia and one from the Trans New Guinea family.

In northern Australia many languages have a closed class of inflecting verbs. Some languages have as few as five to a dozen such verbs, others up to about 250. Jaminjung represents a type in which most inflecting verbs function as independent verbs and have not been strongly grammaticised (Schultze-Berndt 2000). In New Guinea a number of languages of the Trans New Guinea family have between 60 and 150 inflecting verbs (...). Kalam, which has about 130 verb roots, is the best described (...)

Jaminjung and Kalam both make up for their paucity of verb roots by having large, open classes of complex predicates (Pawley 2006: 1).¹⁹

¹⁸ Hots, klase irekia zen eta horrela mantenduko da erromantzeetan, inoiz are sintetiko berriak sortuaz (*amaré* < **amar he*, *amaria* < **amar había*, etc.); hortaz, zergatik pentsa erdaren eraginez galdu zirela sintetikoak euskaraz? Ez al zen justu kontrakoa itxadon beharko? Ik. berrira ere 7. oharreko paralelo esanguratsua.

¹⁹ Nahiz eta aditz generikoak Ginea Berriko gertakartzat jo izan den, Australia, Siberia eta Ipar Ameriketako Ipar-Mendebaldean (i.e., Washington, Oregon eta Idaho) —Sapir eta Boas-ek chinookaz— ere aipatua izan da (cf. Garrett 2004).

1.5.2. Kopuruarekin batera, formari lotzen bagatzaizkio orain, aski nabarmena begitantzen zaigu adizki sintetikoak jokatu gabeen ganean eratuak direla eta, beraz, haien ondoko (eta ez alderantziz —Schuchardtek eta bestek— nahi bezala):

- (1) bokal harmonia eta erreduplikazioa izen, adjektibo eta aditz jokatu gabeetan ematen da baina ez aditz jokatuetan,
- (2) [—'—...] → [—...] gertatzen da azentuan eta, ondorioz, [h—h—h—**h] → [h—h—**h...] hasperenean; alabaina *ethor-*, *ekhar-*, etab. baina *dator*, *dakar*, etab. dugu, hasperenik gabe,
- (3) zenbait ezaugarri edo aldaketa berezi lehenik erroetan eta gero handik forma sintetikoetan jazo bide dira:
 - a) metatesia **janon* > **johan* eta hortik, *doha* [Etx.] ez ***dao*;
 - b) metatesia eta bokal erorketa: **e-ra-san* > **e-sa-ran* > **e-sran* > *erran* (cf. Trask 1997),
 - c) *d - r > r - r* eta *r - r > n - r* en *jardun*, *ihardetsi*, etab.; *n - rn > ø - R*: *jarraiki*, *inarrotsi*, eta gainerakoetan (cf. Lakarra 2007a),
 - d) *i- iraun* eta beste zenbaiten adizkietan (cf. *irabazi*, etab. § 3.4(6)-n).
- (4) *da-* aditz lokatibo gisa eta hortik > “inperfektibo”, “bukatu gabe”: *jausi*, *jauzi*, *jakin...*
- (5) *d- > l-*, gehi *-l- > -r-* eta, beraz, **e-da-duz-i* > *jauzi*, baina **da-la-non* > *daraldarama* eta ez ***darabaol*/**darabo*,
- (6) *-ki/-tsi* partizipio marken garapena ere forma jokatu en orokortasun eta zahar-tasunaren aurka doa (cf. Lakarra 2006c: § 5.2):
 - a) *-gi* aurrizki batetik dator eta, gainera, forma jokaturik gabeko aditzetan izateaz landa, askozaz zabal eta orokorrago da forma jokatu gabeetan jokatuetan baino,
 - b) *-tsi* adjektiboak egiteko *-tz* marka zaharrak leherkari aurrean pairatu aldaketa baten morfologizazioari *-i* eranstetik bide dator; testuinguru hori [-*tz(i)* T-] soilik adizki jokatu gabeetan eman zen, ez besteetan.

Jakina, proposatutako ordenaren frogatzen hainbat eta argiagoa dugu zenbat eta aldaketa azterna gehiago antzeman adizkietan: *dihardut*, *drugatzula...*

1.5.3. Gómezek (1994) —Trask (1977) jarraiki— laburki aipatu zuen euskal aditzaren garai inpersonala ongi dator hizkuntzaren egitura analitikoagoa eta isolatzaileagoarekin. Ikerketa berrion ondotik, are garbiago da hori: ezkerreko pertsona komunzadurak ez ziren hor “betidanik” eta eskubiko berriagoak askozaz gutxiago, jakina; orain, gainera, erakutsi nahi genuke (cf. §§ 3-4) modua, aspektua edo denbora markatzeko afijoak ere ez direla betidaniko baizik eta multzo-aditzen gramatikalizazioaren ondorioz eta ondoren.²⁰

²⁰ Noizbait kontua zehatzago aztertu beharko da, jakina; artean, ikus bedi Hu, Pan eta Xu-ren lana txineraz burutu/burutu gabe bereizkuntzarik ez dela esateko arrazoiez. Horien artean da Stassen-en “tensedness parameter” delakoa:

- a. If a language has a grammatical category of tense which (i) is morphologically bound on verbs, and (ii) minimally involves a distinction between past and nonpast time reference, then that language is tensed.
- b. In all other cases, a language is nontensed (Hu, Pan & Xu 2001: 1118).

1.5.4. Gertakari ezaguna da aditz sintetikorik ez dela mailegatuen artean,²¹ baina hortik abiatuaz latin-erromantzearen eraginaren bitartez azaltzea aditz sintetikoek gailera gehi perifrasiari sorrera eta hedadura guztiz zail eta egiantz eskaseko bide dugu. Hasteko, ez da ikusten zergatik hondatu behar zuen latin-erromantzearen eraginak euskarazko aditz sintetikoak, batez ere hura lehenago oso aberats eta sendoa izan balitz: § 1.3.6-an aurreratu bezala, gogora bedi inguruko hizkuntza guztiek, familia horretakoek eta indoeuropar zabalagoko gainerako leinuetakoek ere aditz sintetiko unibertsala izan dutela beren historian, aditz erro guztiei dagokiela eta euskarazko jokatu urriek izan lezaketen aspektu, denbora eta moduetan den baino gehiagotako adizkiekin, gainera. Horrela ziren gauzak latinez, eta ez dira funtsean aldatu hizkuntza erromantzeetan; ez jakin, bada, zergatik eta nola hondatu behar zuen alde honetatik euskarazko aditz sintetiko unibertsal aberatsa.²²

Perifrasiak ez zirela lehendabizikoz eratu latinak edo erromantzeak zituenaren arabera argi beharko luke (eta zukeen) edozeinentzat, *pace* berriro Gómez & Sainz (1995)-ekin.²³ Dagoeneko Céline Mounolek (2006hh) erakutsi du perifrasi guztiak ez direla garaikide: nekez izan zitezken *etor zedin* eta *etorri zen* edo *etortzen zen*. Bestalde, non da lehendabizikoaren eredu latindarra edo erromanikoa? Azkenengoa, aditz izena inesiboan + copula (cf. Urgell 2006, Mounole 2008a), mundu osoan zehar zabalduriko perifrasi dugu (cf. Bybee et al. 1994, Anderson 2006) eta inguruko erdaren laguntza gutxi zuen (eta horien behar handirik ere ez) euskarak hori sortzeko.²⁴

1.5.5. Australiako hizkuntzetan aditz jokatuak urriak izateaz landa, ikusi izan da (Merlan 1979) horien erro bisilabikoetako zenbait silaba errepikatu egiten direla aditz eta hizkuntza ezberdinetan. Hots, hasiera batean erro monosilabikoak bide ziren izen

Hori guztia, morfema lotuen bitartez eta ez laguntzaile edo partikulen bitartez, noski; bidenabar, Stassen-ek ez du bereizkuntza hori ezagutzeko burmerak duen legezko futuroa/ez-futuroa bezalakorik onartzen, hori usuenik moduaren bitartez gauzatzen baita eta ez denboraren bitartez (1119).

Stassen-en beste irizpide interesgarri bati “tensedness universals of adjective encoding” deritzo:

- If a language is tensed, it will have nouny adjectives. If a language has nouny adjectives, it will be tensed.
- If a language is nontensed, it will have verby adjectives. If a language has verby adjectives, it will be nontensed (ibid.).

²¹ Gorago aipatu (ik. 13. oh.) *ezagutu-z* landa, agian, baina *ezagun* da bere forma zaharra eta gertakari horrek zail edo ezinezko egiten du latinetik edo erromantzetik ekartzen. Schuchardten *intensum* > *entzun* izan zitezkeen beste *-ndun* mailegatu zahar bat aurrekoarena laguntzeko, baina aspaldidanik onartezina da etimologia hori. Agian **e-zun* (cf. *oihar-zun*) > *e-n-zun*, / n /-aren errepikarekin azalpen ekonomikoa izan liteke.

²² **e-* aurritzia nahitaezko bazuten aditz zahar jokatuek (eta gainerako zahar joko-arrastorik gabekoek), badirudi hori erro gutxiri ezartzeaz landa, agortua edo agortzeaz zela K. ondoko III-IV. mendeetarako (ik. § 10. oh.).

²³ Cf. “Contact, first with Latin and then with the Romance languages, must have at least promoted and accelerated the rapid development and expansion of the system of periphrastic forms, *if it did not in fact give rise to it*. It is no clear whether in Roman times the system of synthetic forms was productive [...] The problem would be how to explain that, among the huge number of verbs which were borrowed during those periods, only two, at most, entered the synthetic conjugations” (Gómez & Sainz 1995: 238; etzana neurea da [J.A.L.]).

²⁴ Besterik da “*-tzen izan*” arunt eta orokorretik “*-tzen edun*” batera hedatzea edota, hobe, aldatzea iragankorretan (cf. Mounole 2008b).

nahiz aditzetan (hitzak eurak bisilabo zirelarik), gero baldintza fonotaktikoa hitzetik errora igaroz, Ken Halek aspaldi iradoki bezala. Bestelako fenomenoak (asimilazio, erorketak, etab.) gora behera, aditzetan australiar hizkuntzalaritzan hain famatua den “tamaina aldaketa” horren arrazoi garrantzitsuenetariko bat antzinako aditz laguntzaile batzuk konjugazio marka bilakatzea izan zen.²⁵ Egungo egunean, hainbat hizkuntza ez-pama-nyungatan zenbait aditz banaturik eta esanahi bereziarekin ager litezke edota bilduta eta esanahi abstraktuagoarekin (cf. Merlan 1979: 44hh); bada, badirudi pama-nyunga hizkuntzetan ere aditz bisilaboetako silaba bat —edota konjugazio marka— askea zela, laguntzaileari baitzegokion:

4. CONCLUSIONS. Compound structures in early Australian provid an analogical model for the extensive restructuring of monosyllables known to have taken place in Australian languages. The suggestion (Dixon 1980: 418) that this reshaping accounts for some of the modern bisyllables and polysyllables seems incontrovertible; the idea that some of the reshaped verbs may consist of root plus old inflection may be correct but needs to be shown by reconstruction. (...) I suggest that the compound structures of ROOT + AUXILIARY typical of some modern non-PN languages were also found in early Australian. These were (minimally) bisyllabic verbal constructions which served as model for the reshaping of monosyllabic roots, and progressively became frozen at different times in the different languages. Probably a good number of old auxiliary roots can be detected by comparative work, under the assumption of the existence of earlier compound structures (Merlan 1979: 71-72).

1.5.6. Beste hizkuntza batzuetan multzo-aditzak izan litezke aditzak “loditzeko” joeraren barnean, gero MAE horiek ezabatzen direlarik, dela lexikora igaro diren multzo-aditz simetrikoen, dela —batez ere— gramatikalizazioa pairatu ohi duten asimetrikoen bitartez. Hori da itxuraz, gertatu dena lakotaren postposizioekin: Pustet-ek dioskunez, maila sinkronikoan bertan aurki liteke hainbat lotura etimologiko postposizioen eta aditzen artean, 45etarik 15 homofonoak direlarik erabat, eta beste askotan ezberdintasun fonologiko azalerrazak (2000: 178). Argi da, bada, MAE-tarik ateratako lakotaren postposizioek fede ematen dutela gramatikalizazio teoriaren oinarritzko baieztapen baten alde: “gramatika lexikoitik ateratzen da” (2000: 178). Azkenik,

Assuming that Lakota postpositions originate in serial verbs is helpful in explaining this form-meaning correlation. A well-known corollary of the grammaticalization of serial verbs into postpositions is that the verbs gradually lose their verbal trappings, such as compatibility with person affixes (Heine, Claudi, and Hünemeyer 1991 and Lord 1993). If the postpositional paradigm of person affixes (...) is interpreted as a relic of an obsolete verbal paradigm, the division of Lakota postpositions into two formal classes on the basis of their compatibility with direct affixation appears far less arbitrary. The younger, semantically less-bleached elements still retain the remnants of an earlier verbal person-marking paradigm, while the older, more desemantized postpositions have already lost their inflectional potential (2000: 180).

²⁵ Cf. 75. oharra beharbada euskaraz izan den antzeko garapen baterako.

Bada antzekorik —nahiz eta AS-ko atzizkiekin— tani hizkuntzetan ere, monosilabismotik bisilabismorako deribaren barnean:²⁶

Of the 100-plus derivational verb suffixes attested (...) for Galo and (...) for Mising, between 40-60% can be easily traced to lexical roots (almost always verb roots) with the same segmental phonology and underlying tone (...) Derivational verb suffixes frequently retain many of the semantic characteristics of their lexical source forms, but deploy these productively in the more generalised service of grammatical functions. (...) There is every possibility that the pan-Tani system of derivational verb suffixes originated historically in verb serialisation (Post 2006: 57-58).²⁷

Bada, ondoko orrialdeetan erakutsi gogo dugu badela arrazoirik pentsatzeko aitzineuskarak, geroago euskarak ez bezala, MA egiturak izan zituela, —batez ere MAE asimétrikoak—, eta hor dutela beren jatorria hainbat eta hainbat gramatikalizazioak.²⁸

2. Multzo-aditzen egitura eta bilakabideaz

Azken urteotan eta are azken ehun urtetik gora ere (cf. Lord 1993-n bildu aurreko bibliografia) multzo-aditzez edota multzo-aditz egiturez (MAE) sortutako bibliografia ikaragarria da bere erraldoian —euskarazko hutsaren hurrengo bada

²⁶ Aitzineuskaratik euskarara bidean izan den aldaketa modu eta tamainarekin noizbait erkatzeko izan lezakeen garrantziagatik, osorik ematen dut ondoren Posten hasierako laburpena:

Compounding in Tani appears to have been a process of disyllabification, where monosyllabic forms in Proto-Tani have been lexicalised as compounds. This has resulted in an interesting division in the Tani languages, with nouns and adjectives on the one hand being closely aligned, and verbs on the other behaving quite differently. This division is interesting because of the more usual alignment in Asian languages of adjectives with verbs, not nouns. The story of this division is traced through the lexicon, with evidence from morphology, tone, segmental phonology and syllable structure, all showing a shift towards greater agglutination in Tani languages (Post 2006: 41).

Esango nuke (cf. Lakarra 2006a) izan dela antzekoren arrastorik gure hizkuntzaren historiaurrean, baina etorkizuneko beste lan batzuetarako utzi beharra dut oraingoz. Markagarria da Posten lanaren “historical source of derivational verb suffixes” atalean irakurtzen duguna ere —“It is interesting to note, the, that the serial verbs common to the morphosyllabic languages of Mainland Southeast Asia do this too (Matisoff 1969). Indeed, many of the functions of Tani derivational suffixes recall those of post-head serial verbs in languages like Lahu, Thai and Chinese” (57)— eta horren ondorioa: “There is every possibility that the pan-Tani system of derivational verb suffixes originated historically in verb serialisation” (Post 2006: 58).

²⁷ Postek badu beste lan interesgarri bat ere (2007) non erkaketa zehatza egiten den txinera eta taieren artean batak eta besteak, gutxi-gora-behera tipologia beretik abiatuaz (hizkuntza “morfosilabikotik” cf. Light 1978) noraino iritsi diren konposaketa eta gramatikalizazio bidean. Badirudi txinera dela gehien aitzinatu dena aglutinazio bidean eta bietan —hainbat MAE gorde arren— badirela nahiz lexikalizazioak nahiz gramatikalizazioak aditz horietan.

²⁸ Aurreko zenbait lanetan (cf. Lakarra 2007a, 2007b, prestatzen-2), bidebatez eta zehaztasun gehiagorik gabe, euskarazko edo aitzineuskarazko egituraren baten eta multzo-aditzen arteko antzekotasunen bat aipatu izan dut, esaterako A-KAUS-APLIK bantuen eta euskarazko APLIK-KAUS-A egituren artean, biak “A-A-A” (hiru aditzeko MAE zaharrago) batetik bait letozke; orain, kausatiboari dagokionez nahiago dut pentsatu morfologikoa izan bide zela (< *-la- < *da-) eta ez sintaktikoa, Aikhenvaldek dioenez (2006: 54) ez baita ohiko CAUS serial bat beste CAUS morfologiko bat denean eta, beharbada, hori ere *nin aditzaren gramatikalizazioen artean sartzen zen, § 3.4-ren akabuan laburki aipatzen den bezala.

ere—²⁹ eta haziaz eta riabartuaz doa exponentzialki. Segidan —Aikhenvald (2006a)-ri eta Aikhenvald eta Dixonek (2006) argitaratu bildumako ikerketei lotuaz—, soilik interes nabarmen eta zuzena agertzen duten gaiaren oinarritzko alderdi zenbait ukituko dudan arren, badirudi euskararen eta aitzineuskararen aditz sintetikoaren eta aditz-multzoaren jatorri eta garapena ezingo dela etorkizunean bere osotasunean aztertu multzo-aditzen azterketaren laguntzarik gabe.

Labur esateko, MAE eraginkor edo murrizak era guztietako hizkuntzetan eriden badira ere, Afrika Mendebaleko, Asiako ekialde eta hego-ekialdeko hizkuntza monosilabiko eta isolatzaileetan dirudite ugarien;³⁰ alderantziz, urri dira hizkuntza polisintetiko eta oso polisintetikoko Ameriketakoak.³¹ Orobat, hizkuntza polisintetiko eta isolatzaileetarik kanpo, MAE-k ez dira ugari eransletan eta ezta Australiakoak bezalako hizkuntza ergatiboetan, izan ere Nom-Akus hizkuntzei baitagozkie errazki uler litezkeen arrazoiengatik: egitura horien oinarritzko eskakizuna bertako aditzek argumentu markak eta, batez ere, subjektukoak —direla iragankorrek, direla iragangaitzak— amankomunean izatean baitatza.³²

Irakurleak MAE-n sistema eta erabilera ugaritasuna —eta baita kasu batzuetan eta besteetan duten garrantzia ezberdina— gogoan izan dezan, interesgarri izan liteke hizkuntza zenbaitetan duen egituraren erabilera ezindako estimazioak behatzea:

In many languages with SVCs, these are very common; in others they are quite rare. Surveying the languages described in this volume [= Aikhenvald & Dixon (arg.), 2006], we find that the following approximate percentages of textual clauses include an SVC:

- more than 70 per cent: Tariana
- between 50 per cent and 70 per cent: Ewe, Eastern Kayah Li, Dumo
- between 20 per cent and 50 per cent: Goemai, Thai, Tetun Dili, Olutec, Cantonese
- between 5 per cent and 20 per cent: Mwotlap, Toqabaqita, Lakota
- less than 1 per cent: Khwe

²⁹ Salbuespen bakarra Traskek (1997: 229) “dative flags” delakoez ari zelarik egindako lerro erdiko aipua bide da:

Be all this as it may, it can hardly be doubted that the history just sketched is correct in its essentials, and we can therefore get a glimpse of an important part of the development of the extraordinarily rich verbal morphology of Basque. We still, however, have little idea what the origin of these morphs might have been: if they were either adpositions or serial verbs, the order of elements is absolutely out of line with the postpositional and verb-final syntax of the language.

³⁰ Ikus 81. oharreko Lorden aipua eta, orobat, beheraxeago testuko Dixonen bigarren ahapaldia-aren hasieran etzanaz emana. Austronesioz, halere, egitura oso bestelakoa izanik ere, erruz aurki ditzakegu “verbal preposition” delakoak (< MAE): familia honen egitura aldaketa sakon baten ondorio ote? Gogora Sagarten zenbait lan —Sagarten 90’-etakoak, esaterako, kontrari Wang (1995)-eko hainbat, baina berriro Sagart (2004) ere— sino-tibetera eta austronesioaren jatorritzko ahaidetasuna erakustera zuzenduak, bat edo beste aurrizki amankomunak eta morfologian oinarritutako argudioekin.

³¹ Cf., halere, de Reuse (2006), Zavala (2006) eta beheraxeagoko Dixonen aipuaren bigarren zatia. Itxura batean ez dute horrelakoen beharrik aditzean dituzten afijo aberatsak kontuan harturik (horrelatsu dio de Reusek berak); alabaina, Postek tani hizkuntzekin erakutsi bezala (ik. 26. akabuan aipatua), baliteke goragoko garairen batean delako afijo horiek aurreragoko MAE-tarik sortuak izatea.

³² Errazagoa da, noski, noizbait MAEek asko edo gutxi izan dituzten hizkuntzek horiek gramatikalizatu eta (ia) funtzio-gabetu ondoren ergatibo sistema oso edo zatikazkoei lotzea; baina Dixonen ondoko testuko aipuaren akaburantz oraindik urrutiago jotzen da.

SVCs are not restricted to languages of a particular typological profile. *They are particularly common in languages of an analytic character* but are also encountered where there is a highly synthetic, or even polysynthetic, structure (for example, Tariana, Olutec, and Lakota, described in Chapters 8, 13, and 14). We find SVCs in languages which are verb-final, verb-medial, and verb-initial; in languages that show ergative characteristics (Olutec, among others); and in languages which have switch-reference marking (such as Tariana). As discussed in §8 of Chapter 1, the grammatical property of ‘having SVCs’ is highly diffusible (Dixon 2006: 338-339; etzana neurea [J.A.L.]).³³

Esan genezake, bada, tariana bezalako zenbait hizkuntzatan erabilera erabatekoa dela, ia MA ez diren aditzik gabe (cf. Aikhenvald 2006b) eta beste zenbaitetan, aldiz, oso mugatua, batzuetan erabilera beharrezkoa eta besteetan aukerakoa (edota MAE aukerako eta beharrezkoekin), zenbait hizkuntzatan MAE hitzbakarreko eta asimetrikoa eta beste batzutan MAE hitzbakarreko eta anitzekoa, simetrikoa eta asimetrikoa, lotua edota berezia eta are hurruna duena, etab. Hots, zera genuke Aikhenvald-en definizioari lotuaz:

A serial verb construction (SVC) is a sequence of verbs which act together as a single predicate, without any overt marker of coordination, subordination, or syntactic dependency of any other sort. Serial verb constructions describe what is conceptualized as a single event. They are monoclausal; their intonational properties are the same as those of a monoverbal clause, and they have just one tense, aspect, and polarity value. SVCs may also share core and other arguments. Each component of an SVC must be able to occur on its own. Within an SVC, the individual verbs may have same, or different, transitivity values (Aikhenvald 2006a: 1).

Hara zenbait adibide:

Keoi ⁵	jap ⁶	heoi ³	co ⁵	
3sg	enter	come	sit	
‘He went in and sat down’				(kantonera; apud Matthews 2006: 69)
chuchok ³	tho:ng ³	tae:k ¹	ta:y	
Chuchok	stomach	break	died	
‘Chuchok, his stomach burst and he died’				(thai; apud Diller 2006: 175)
Ade	wahwòng	yih	plih	muhng
Grandparent	woman	sago	3sgfSU.make	3sgfSU.be.seated
‘Grandmother was making sago (porridge)’				(dumo; apud Ingram 2006: 211)

³³ Hara Zavalaren datuak olutekaz:

The counts show that the most common structures are those with two verbs, 91 per cent, followed by the ones with three verbs, 9 per cent. The counts also show that 30 per cent of the total of predicates are formed as SVCs, out of which 9 per cent are symmetrical structures and 91 per cent include a grammaticalized serialized verb. Among the grammaticalized elements, the three most common are those that encode aspect, change of valency, and plural, whereas the least common ones are those functioning as verbal classifiers. When the grammaticalized elements are excluded from the counts, the picture is quite different, since only 3 per cent of the total number of clauses in natural discourse include a serialized verb (59 tokens within the corpus of 2,000 clauses (Zavala 2006: 289).

^{33b} Bestalde, marka bedi MAE → hizkuntza analitikoak inplikazioa betetzen ez bada ere, kontrakoa (h. analitikoak → MAE) erabatekoa edo ia erabatekoa dela.

abó ko'a paun lori tudik
 grandparent cut bread take knife
 'Grandparent cut the bread with the knife' (tetun dili; apud Hajek 2006: 244)

MAE-ak sailkatzeko parametro nagusiak ondokoak lirateke: beren osagaiak, hauen hurbiltasuna, hitz fonologikoak edo morfologikoak³⁴ osatzen dituzten komunztadura edota markaketak; hau da, subjektu marka osagai bakarrean —lehenean edo azkenean— edo orotan, objektu marka bat edo gehiago (usuenik bakarra), orobat aspektu, denbora, ebidentzialtasunekoa, etab.

Historikoki —are susma genezakeen historiaurrerik hurbilenekoan ere— gure hizkuntzak MAErik ez duelarik, baliteke euskalari bezala egitura horien osagaiak eta beren garapen diakronikorako suposa lezaketena izatea interesgarrienik. Ikusi dugunez, MAE-k simetrikoak edo asimetrikoak izan litezke; aurrenekoetan —batez ere horrelako sail murriz edo agorrek dituzten eta MAE simetrikorik izan ohi ez duten hizkuntzetan (cf. Aikhenvald 2006a: 45)—³⁵ maila jerarkiko bereko elementu bi edo gehiago aurkitzen dugu, gehienetan aditz-sail irekietakoak direlarik aditzok.³⁶ MAE asimetrikoetan, aldiz, bi aditz dira, A “larri” bat —MAE simetrikoetako osagaien antzekoa— eta beste A bat “txikia”, zenbait aditz-sail itxitakoa, dela estatiboa, posturakoa³⁷ edo moziokoa.³⁸ Ordena ere ikonikoa izan ohi da aditz simetrikoetan baina gehienbat sintaxi-egituraren edo hizkuntzaren sintaxi orokorraren araberrakoa asimetrikoetan. Bada, MAE simetrikoek lexikalizatze joera duten bitartean, asimetrikoek usuenik gramatikalizatze dute, beren kideen marka gramatikal bilakatuaz, batez ere, sarritan gertatzen den bezala, hitz bakarrean batzen direnean MAE-ren osagai guztiak.

Dixonek eta Aikhenvaldek markatzen dutenez, ez da beti erraz MAE bat beste-lako egituretarik bereiztea:

Care must be taken to distinguish minor members of an SVC from suffixes, or adpositions, or complementizers. However, when a process of change is taking place, two alternative analyses may both be possible. That is, analysis as a grammatical ele-

³⁴ Hizkuntza isolatzaileetan MAE-k ugariago izateaz landa, egitura horien osagaiak askeak izan ohi dira fonologikoki zein morfologikoki eta usu ez dira kokatzen bata bestearen aldean urrutiago baizik; honelako hizkuntzen beste muturrean sintetiko eta polisintetikoak aipatu ohi dira (cf. Aikhenvald 2006a: 53 eta hemen 32-33. oharrek eta dagokien testua).

³⁵ Halaber, MAEdun hizkuntzetan urri dira multzo-aditz ez diren aditz soilak.

³⁶ Gai honek zehaztasun gehiago behar du, konbinaketa oro ez baita zilegi: cf. “Serialisation of roots in a verb stem is restricted to sequences of events which are commonly associated culturally or for which there is a cultural basis or pragmatic reason for their close association” (Bruce, *apud* Aikhenvald 2006a: 11).

³⁷ Cf. “Motion or posture verbs may be used to impart the semantics of progressive, continuative, or habitual meaning” (Aikhenvald 2006a: 23) eta “Verbs of completion usually mark completive aspect, as does *kaba* ‘finish’ in Kristang” (ibid), erreferentzia gehiagorekin bi kasuetan. Cf. hemen *jarri* (§ 3.2) eta *eden* (§ 3.3), eta besteri buruzko zenbait ohar azkenengoan eta baita zenbait ohar beherago aditz txikion (aspektu gisako, ez denbora legeko) gramatikalizazioaz ere.

³⁸ MAE-ko aditz txikiak denbora luzez gorde lezake inoiz bere estatus lexikoa gramatikalizatu den egituratik kanpora, ‘give’ aditzarekin ewez zein hainbat hizkuntza austronesiotan (eta euskaraz, ikus § 3.4), “sit”-ekin ia mundu osoan zehar (eta *jarri*-rekin euskaraz, ik. § 3.2), edo **edin*-ekin ekialdeko euskalkietan (*jin*; cf. Lakarra 2006c), etab.

ment after about time X, with X preceding Y, so that between X and Y either analysis would be acceptable (Dixon 2006: 343-344).

Multi-word SVCs have to be distinguished from coordination, consecutivization, subordinate clauses, and complex predicates (see § 2.2). One-word SVCs may be confused with grammaticalized sequences of a root and an affix (which, in turn, may be a grammaticalized root). Such ambiguity allows discrepancies in the analysis of individual languages. (...) In addition, multi-word and one-word SVCs, on the whole, tend to correlate with different typological characteristics of languages—see § 8 (Aikhenvald 2006a: 39).

Aikhenvaldek (2006a: 45-46) bereizi uste ditu aditz-multzoetarik —oro har esaldi finkatu eta idiomatikoak baitira— (a) denbora, modu, aspektu eta bestelako hertsapenik ez baitute haiek bezala; (b) ez baitira aditz gutxi batzuekin gertatzen (mozio eta postura aditzekin, alegia), (c) ez dute deribazio arazorik alor semantiko jakin batzuekin, (d) ez dira erregistro zenbaitetara mugatzen, oro har herrikoietara, eta (e) aditz multzoetako kideen artean juntagailu bat edota menpekotasun marka bat tarteka daiteke baina ez multzo-aditzetakoen artean.

Aditz hauen gramatikalizazio eta funtziorik ohikoenak ondokoak dira, hurrenez hurren:³⁹ a) zuzenbidea eta orientazioa; b) aspektua, existentzia eta egoera aldaketa;⁴⁰ c) modalak; d) balentzia-gehiketa-morfemak (kausatiboak, aplikatiboak, errezi-prokoak eta bestelakoak);⁴¹ e) konparatiboak eta superlatiboak; f) konplementatzaileak⁴² eta juntagailuak; g) balentzia beharpenak (pasibak bereziki)⁴³ eta h) beste-lakoak, definitutasuna edo argumentu oblikuoak eranstea.

Hizkuntza ez-isolatzaileetan —edota hizkuntza isolatzaile izandakoen berandua-goko garairen batean— MAE asimetrikoetako aditz txikiak morfologia lotu eta konplexua sortu ohi dute eta, horrenbestez, aditzok eta jatorrizko MAEak desagertzen.⁴⁴

In summary: we can posit two opposite tendencies for the two types of SVCs. The minor verbs in asymmetrical verbs tend to become grammatical morphemes, losing their verbal status. This process is pervasive in some languages, exemplified in this volume by Ewe and, to a large extent, Toqabaqita (also see Aikhenvald forthcoming, on

³⁹ Cf. "Asymmetrical SVCs are arranged below, in order from the most frequent and cross-linguistically widespread to the more restricted ones, with an indication (in the order of priority) of the semantic group of verbs likely to occur in such constructions. *The order also reflects the historical development of SVCs*" (Aikhenvald 2006a: 48; etzana neura [J.A.L.]). Azken zatia izan arren niretzat axolazkoena —eta diren hizkuntzak izaki (hots, txinera landa, lekukotasun zaharren arrastorik gabekoak) baita arazotsuena ere— ez dut orain horrezaz luzatzeko astirik ez betarik; nolana ere, Lichtenberk (2002)-n eta beste hainbat tokitan ere Aikhenvalden ondorio horren aldeko frogak biltzen dira.

⁴⁰ "Interestingly, in the data available, they do not include tense, mood, and antipassive" dio Dixonek (2006: 343-344) eta antzera Aikhenvaldek (2006a: 23).

⁴¹ Cf. "Serial verb constructions are often used as valency-increasing mechanisms, to mark causatives, benefactives, instrumentals, and comitatives or sociatives. They are also employed for specifying arguments, that is, to introduce direct objects and various other arguments and obliques. None of these types appears to be restricted to any particular area" (Aikhenvald 2006a: 23); azken hau Givon-en aurka idatzia da, —hark Afrika mendebalean baino ez zirela ematen uste baitzuen— hizkuntza papuetarik eta austronesioetarik emandako adibide ugari bilduaz.

⁴² Cf. "The verb 'finish' in Toqabaqita (§ 8 of Chapter 12) has grammaticalized into a completive marker" (Aikhenvald 2006a: 31); ikus beherago § 3.3 *eden-ez*.

⁴³ Cf. *bei* 'give' kantoneraz eta *-i* atzikiari buruzkoak beherago § 3.4 eta 79 oh.

⁴⁴ Gogora § 1.5.6-ko Posten (2006) aipua tani hizkuntzetako bilakabidez.

Manambu). *As a result of this 'grammaticalizing' tendency, there may be no asymmetrical SVCs synchronically.* We will see in § 6 that, historically speaking, languages develop asymmetrical SVCs prior to symmetrical. But this does not mean that languages keep both intact (Aikhenvald 2006: 34; etzanak neureak [J.A.L.]).

Azkenik, euskarak ere noizbait bi dozena aditz soil eta **da-* eta *ra-* aurrizkien birtartez sortutako hiru dozena eratorritik gora ez duela izan ikusi dugularik (cf. Lakarra 2007b eta hemen § 1.3), interesgarri deritzot Aikhenvalden ondoko ahapaldiari:

In some productively serializing languages, verbs form a largish but closed class —this is the case in Kalam and Kobon, both Papuan. Kalam has under 125 verbs, of which only about twenty-five are commonly used (Pawley 1993; Pawley and Lane 1998). Dumo (under B) in § 1 of Chapter 9) also has a closed set of basic verb roots, with around 100 members. There are a number of verbs with very general semantics, and these 'generic' verbs are combined together with more specific verbs to provide a precise description of an event. The wealth of SVCs in these three languages 'compensates' for having a smallish closed verb class and verbs with highly generic semantics (2006a: 55).

3. Multzo-aditzak aitzineuskaraz?

3.1. Aditz erroetako CVC-ren ezkerretara diren hizkiez

Aurreko lan batean (Lakarra 2007a) Good-ek (2005) bantuaren —kausatiboaren eta/edo aplikatiboaren bitartez— enbor hedatuaren egiturari buruz aurkeztutako proposamena azaltzerakoan euskara zaharrak eta aitzineuskarak egitura berbera baina ispilu-irudi gisa antolatutako izan zezakeela ikusi genuen; halaber, jakin dugu Gooden eta besteren bantuari buruzkoak zein enparatuko anitzen gainerako antzeko hizkuntzen inguruko bibliografia zabal batek aldarrikatzen duela hasieran hiru aditz nagusi zirela, zeinetarik bi enparatukoaren afijo bilakatu ziren ordena eta kronologia jakin batean: 1. A.(KAUS) > ATZIZ.(KAUS); 2. A.(APLIK) > ATZIZ.(APLIK). Baldin eta, dagoeneko aipatu osagaien ispilu-irudiko aldaketarekin, aitzineuskararako ere antzeko analisi-bide bat saia bageneza, —gramatikalizazioa hasiera-hasierako A.(APLIK) — A.(KAUS) / A.(NAG) batetik aitzinatu ondoren—, lehendabizi A.LAG(APLIK) — A.([AURRIZ.KAUS] — ERROA) egitura bat genuke eta A(AURRIZ.APLIK — [(AURRIZ.KAUS) — ERROA]) ondoren.⁴⁵

Aditzen forma sintetikoak forma jokatugabeak baino berriagoak direla onartzen badugu (cf. goian § 1.2.-1.3.) eta, beraz, **da-thor* ([ASPEKT.INDET]-ERROA), **dakhar* ([ASPEKT.INDET]-ERROA), etab., forma jokatugabe gisa zaharrago direla bai *nator* (< **ni-da-thor*) eta bai *nakar* (< **ni-da-khar*) eta are *ø-dator* ([3.p]-ORAIN) edo *ø-dakar* ([3.p]-ORAIN) baino ere, orduan aldarrikatu beharko dugu ondorio gisa aurreko garairen batean *dator* edo *dakar*, ez aurrizki batez (*da*) lagundutako aditz erro banaz (**khar*, **thor*), baizik eta bestelako markarik gabeko bi aditz erroz^{45b} (**daC*⁴⁶ + **thor*,

⁴⁵ Halere, baliteke euskaraz APLIK kategoriarik ez izatea erroaren ezkerretara; horietan aski bide da ASP sintagmarekin (gogora aurreko orrialdeko MAE-n gramatikalizazio bideak); besterik da eskubitara, hots, atzizkiekin, *-tsi* eta *-kil-gi* markekin, esaterako. Honenbestez, gorde ahalko litzateke Beñat Oihar-tzabalek gogoratu zidan Baker-en hertsapena (APLIK ↔ SOV) aplikatiboez.

^{45b} Cf. MAE-z Aikhenvaldek aurreko atalean eman definizioaren hasiera.

⁴⁶ Arrastorik utzi ez duen arren -C eransten dut, CVC baita aurrizki gisa gramatikalizatu baino lehenagoko aditz laguntzailearen egitura (orobat nagusiarena ere, jakina); dakigunez honelako prozesuetan

**daC* + **khar*) osatuak zirela. Hots, adizki inperfektiboa baino lehen perifrasi inperfektibo bat genuke, MAE asimetriko batetik (minor-maior) sortua.

Badira, gutxienez, bi gogoetagai interesgarri kontu honen inguruan. Batetik, gramatikalizazioaren inguruko azterketetan —multzo-aditzen ingurukoetan, bereziki— sarri markatu izan da lokatibo aditzek bi garapen nagusi izan ohi dutela (eta nabarrena dirudi euskaraz bietarik dugula): [1] lokatibo afijo bilakatzen dira (cf. *la-*, *da-*, *-da*, *-la*, *-ra*) eta [2] aspektu-marka, indeterminazio-marka zehazki, bilakatzen dira (cf. Lord § 1.3.3-n aipatua).⁴⁷ Berezilariiek esan eta edozein zaletuk ikus lezakeen legez, progresibo gehienak elementu lokatiboak dituzten esapideetarik etorri ohi dira (ikus § 3.2ko Bybee eta gainerakoen lehen aipuaren akabuan).

Bigarren gogoeta azken honekin zuzenean loturik dugu; Trask (1977) ohartu zen dagoeneko orainaldiko 3. personako adizkietako *da-* ez zela hasiera batean persona marka (ezta *l-*, *z-* edo *b-* gainerako denbora edo moduetan ere) eta “imperfective modal” delakoari zegokiola. Trask aditz aurrizki hau(ek) lehenagoko beste aurrizki bat(zu)etatik edota aditz laguntzaile(eta)rik etor zite(z)keela azaltzera iritsi zen:⁴⁸

Now the prefix *d-* is nearly always followed by *a*: this *a* is often taken to be a buffer vowel, but the buffer vowel in Basque is usually *e*, not *a*. Alternatively, this *a* has sometimes been taken as a characteristics of the present tense. What I propos is that *da-* is a single prefix, and that this was the original full form of the present/continuous verbal affix. It is just conceivable that this *da-* is to be identified with the verb *da* ‘he is’, and the present tense therefore has its origin in a periphrastic construction, but this possibility will not be explored here (Trask 1977: 204-205; letra etzana neurea da [J.A.L.]).

Dakidanez, bigarren aukera ez zuen Traskek ondoko lanetan ere garatu eta ezta gainerako ikertzaileen batek ere, nahiz eta horren interesa euskal sintaxiaren bilakabidearen azterketarako eta are hizkuntzak pairatu aldaketa tipologikorako nabarrena izan.⁴⁹ Egungo egunean, euskararen barneko informazioa eta konparazioaren bidetik eskura genezakeena kontuan izanik, Traskek baztertutako aukeraren aldera egin beharra dugu: hots, yurokean, bantuan, australiar hizkuntzetan edo beste askotan⁵⁰ bezala, aitzineuskaraz ere, noizbait morfologia ageririk gabeko bi aditz, A.LAG

—inoiz erabat—, galtzen da esanahi eta gorputz fonikoa, azken hau, bestalde, gainerako edozein prozesu “arruntetan” baino gehiago: cf. Arratzun *biot be(h)ar dot*-etik baina *zier* [**zi] (< *ze(h)ar*), etab. Bidena-bar, Gooden (2005) proposamena aitzinbantuko laguntzailearen forma kanonikoaren bilakabiderako “is-pilu bidezko” berbera dugu: -CVC > -VC.

⁴⁷ Modu zabalago batean, hara Bybee et al (1994: 127): “For several reasons we view progressive meaning as the specific meaning that feeds into the chain of developments leading eventually to the highly generalized imperfective or present meanings”. Ik. 52. oharra aipuaren jarraipenerako.

⁴⁸ Izan ere hori aski zuen bere helburu nagusirako: argi da aurrizki (lehen aditzeko eta orain baita IS-eko; cf. Lakarra 2003) zein ezkerretako laguntzaile, *da-tor* egitura nekez izan litekeela S.O.V. hizkuntzetan, S.V.O., V.S.O. edo V.O.S. batzutan baizik. Horrela ikusi eta erakutsi zuen Trask (1977) baina ez bera eta ez beste ere ez dira aurrerago joan azken 30 urteotan eta bai atzerago Trask (1997) eta (1998); ik. Lakarra (2006a) eta ondoko lanak.

⁴⁹ Egia esan, aurrizki zein A.Lag izan, alde honetatik berdintsu zaigu, azken finean A.NAG > A.LAG > Aurr gramatikalizazio katea baten aurrean baikara; ez dirudi Jainkoak ez aurrizki ez aditzlagunik sortu zuenik.

⁵⁰ Ikus Anderson (2006: 302hh.) aditz laguntzailearekiko inflexio eredu ezberdinen jatorriaz, eta horren barnean § 7.6 “Synchronic variation and diachronic changes in AVCs”, non ikus bailitezke

eta A.NAG bildu ziren (CVC + CVC); lehenak -C galdu zuen (cf 46. oh.) eta, askozaz beranduago, aurrizki gisa pertsona markak jaso eta, —VO > OV eta Lag-V > V-Lag aldaketaren ondoren— CVCVC forma bildu horiek atzizki (zein aurrizki?) erako gehiketak ere izan zituzten: cf. *jaio* < **e-da-din-o*, *jaitsi* < **e-da-din-tz-i*, *jaiki* < **e-da-din-gi*, *edoski* < **e-don-tz-gi*, *idoki* < **e-i-don-gi*, etab. Hau da “orainaldiko” adizki sintetikoen jatorria: Australiako hizkuntzetako aditz asko bezala (cf. § 1.5.5.), aurretiaz sintetiko horiek perifrasiatarik datoz. Mailegutan hartutako aditzez ikusitakotik abiatuaz, esan beharra dugu era askotako aditz laguntzaileak eta hizkuntzaren historian sortu dituzten perifrasiak ezin direla aditz sistema baten hondamendi gisa har; jakin ere badakigu delako sistema hori ez zela inoiz bere beteginzarre osoan izan, beteginzarretzat aditz sintetikoaren sistema “unibertsala” (orokortua) hartzen badugu, bederen, ezta latin-erromantzearen eragin gaiztoaren ondorio gisa ere, batez ere aditz sintetiko urri horietatik (70?, nozbait 100 edo 125?)⁵¹ asko lehenagoko perifrasiatarik datozelarik.

3.2. “Orainaldi” sintetikoaren jatorriaz

Oraindik *da* partikularen jatorria litzateke argitzeke, hots, lehenik A.LAG-A.NAG egitura eta gero A-rekin batu ondoren orainaldiko —hots, aspektu mugagabeko eta gero horrela aldatutako—⁵² adizkien gutxieneko oinarri bilakatu zen *da*-CVC egiturarena, alegia. Esan dugu dagoeneko *da*-k, gramatikalizatu baino lehenagoko aditz gisa, *da*C behar zuela, -C mutatis mutandis (CVC-CVC > CVC-VC / CVC-CVC > CV-CVC)— bantuan gertatukoaren ispilu-irudi bezala (cf. Lakarra 2007a) galtzen zelarik. -C horiek betetzeko ez -T (p, t, k, b, d, g), ez / h /, ez / m /, ez / f / historikoki baliagarri ez direlarik (cf. Lakarra 1995, 2002a), -r, -n, -l, -ts, -tz gelditzen zaiz-

hainbat adibide interesgarri, dela menpeko formen eta askeen ezberdintasunez, menpekoen artekoen ezberdintasunez, eredu flexiboen artean direnez, edota forma erantsiez eta erantsigabekoez, uralikoz, tzoztilez, tibeto-birmanieraz, hizkuntza papuetan, bantuetan, nilotikoetan, edo karibekoetan.

⁵¹ Erro biluziak (aurrizkiren bat gehitu aitzin) askozaz gutxiago (pare bat dozena?), noski, § 1.5.1ean aurreratu legez).

⁵² Cf. Lakarra (2006c) vs de Rijk (1992); antzeko kasuak hain dira ugari —ikus Bybee et al. (1994)—, non ez duen paralelorik aipatzeak merezi.

Bere luzean, argigarri bide da Bybee et al. (1994: 127-128)-ko hurrengo pasartea, hemen 47. oharrean aipatua:

First, progressive meaning is more specific, and it is included in the more general meanings of imperfective or present. Thus our general theory of grammaticization would predict that progressive is a sense that occurs early in the process of grammaticization and might develop into the more general meanings. Second, historical and comparative evidence exists (...), which shows constructions with progressive meaning developing into presents or imperfectives. (...) Third, our own data contain some cases that appear to be intermediate between the more specific progressive and the more general imperfective or present senses. Finally, our data also show that the same range of lexical sources gives rise to progressive, imperfective, and present.

Ondoren (129hh) progresiboan iturriak ikertzen dituzte, gehienetan elementu lokatiboan bitartez —dela aditz laguntzailean bertan, dela postposizio edo preposizioen bitartez— gauzatzen direla markatuaz, inoiz lokatiboak kopulak bilakatu diren arren: “The meaning of the locative construction which gives rise to the progressive is probably ‘be in the place of verbing’ or ‘be at verbing’. The meaning of the serial construction would be ‘sit verbing’ or ‘stand verbing’” (Bybee et al. 1994: 130).

kigu; zein ote, bada, —**dal, *dan, *dar, *dats, *datz*— aditz erro horren forma zaharra ohiko euskal fonotaktikaren aukerak ezaguturik?

Bestalde, benetako lokatiboez landa, gramatikalizazioaren ikertzaileen artean adostasun handia da *stand, sit* eta *lie* direla munduan zehar hizkuntzetako perifrasi imperfektiboetan gehienik parte hartzen dutenak (cf. Bybee et al. 1994; Newman (arg.) 2002, Anderson 2006):

The majority of progressive forms in our database derive from expressions involving locative elements (...) Our data, then, corroborate as a world-wide trend the strong tendency in Africa for progressives to derive from locative expressions: Heine, Claudi and Hünne Meyer 1991a report that they found over a hundred African languages with locative sources for progressive grams. The locative notion may be expressed either in the verbal auxiliary employed or in the use of postpositions or prepositions indicating location—‘at’, ‘in’, or ‘on’. The verbal auxiliary may derive from a specific postural verb, such as ‘sit’, ‘stand’, or ‘lie’, or it may express the notion of being in a location without reference to a specific posture but meaning only ‘be at’, ‘stay’, or, more specifically, ‘live’ or ‘reside’ (Bybee et al 1994: 129-130).

Lichtenberk are zehatzagoa dugu:

Cross-linguistic studies suggest that of the three main posture meanings it is ‘sit’ that is most often implicated in the development of the progressive aspect. This is not at all surprising when one considers the following. First, the progressive aspect develops first with dynamic, activity verbs, whose subjects are agents (Bybee et al. 1994; also Dahl 1985). Second, humans are the quintessential agents. Third, of the three main postures, it is sitting that is characteristically human. And fourth, verbs with the meaning ‘sit’ acquire semantically unmarked locative (and existential) uses in which they are prototypically used with human subjects. It is the association of such verbs with humanness of their subjects that makes them better candidates for development into progressive markers than either of the other two basic posture verbs are (Lichtenberk 2002: 311).

Gramatikalizazio honen azken emaitzaren adibideak, tarteko pausuenak, edota hasierako egoeraren nahiz gramatikalizazio aurrekoarenak, ugariak dira oso eta Kuteva-k bulgarietatik atera gabe ere ederki bildu du denetarik:

Vizdas li onazi zena tam, v bjalata roklja? Sedi na pejkata, ot ljavo... ‘Can you see that woman in the white dress over there? She is sitting on the bench, to the left...’ →

Ana sedi na divana i pise pismo, a basta i sviri na piano ‘Ana is sitting on the couch and is writing a letter whereas her father is playing the piano’ →

Drexite sedjat v koridora i sabirat prax ‘The clothes are in the corridor and gather dust.’ / ‘The clothes are gathering dust in the corridor’ →

Drexite sedjat i sabirat prax ‘The clothes are gathering dust all time’ →

Krepostta stoi i se rusi s vsjaka izminata godina ‘The fortress is falling to ruin from year to year’ →

Trionat lezi i razdjasva v mazeto ‘The saw is getting rusty in the cellar’ →

Basta mu prez cjaloto vreme stoi i marmori ‘His father continuously grumbles’ →

Starecat sedi i si broi parite s casove ‘The old man has been counting his money for hours on end’ →

Sedi i se oplakva vmesto da se ‘She/he is complaining all the time instead of starting to work’ →

Stoi i gotvi po cjal den v kasti ‘She/he cooks all day long at home’. (2001: 3. atala)

Hots, hasiera batean aditz hauek gizaki subjektuekin erabiltzen dira, gizakien gorputzak espazioan hartzen duen orientazioa adierazteko —gogora Lichtenberken aipuan giza ekintza berezi gisa definitzen dela—, esanahi estatiboarekin eta aditzaren egoerarekiko inongo loturarik gabe. Bigarrenik, aurreko erabilerez landa, objektuen eta aditzen une bereko egoeraren espezifikazioa agertzen da. Egitura klausula-bikoitzak klausula-bakar bilakatu ondoren ‘sit’/‘stand’/‘lie’, koordinazio juntagailuaren eta orain nagusi bihurtu den aditzaren arteko kohesio handiago bat aurki genezake; kohesio horrek azalduko luke, adibidez, aipatutako elementuen periferian aditzlagunak erabiltzea, honela egituraren anbiguotasuna ezabatu eta aspektu interpretazioa hartuaz, hots, kontinuatioa / duratioa / progresioa. Azken unean subjektua animatua izan liteke, baina hasierako aldeberekotasunik ez da dagoeneko: egitura kon. / dur. / pro. markatzaile gisa dakusagu, dela subjektu animatuekin, dela animatuga-beekin. Azkenik, Kutevak dioenez, bulgarieraz, norvegieraz, danieraz edo suedieraz ‘sit’/‘stand’/‘lie’ laguntzaile egitura ohikotasun adieran agertzen da usu; horra iritsirik,

since a development of a continuative/durative/progressive marker into a habitual marker is one of the most frequently observed and described grammaticalization developments in the literature on grammaticalization, we need not go into the details of this development here (2001: 71).⁵³

Gorago ikusi dugunez, erro zaharreko -C betetzeko hautagaii dagokienez, ezaguna da soilik txistukariak eta ozenek bete zezaketela kokagune hori eta ez leherkariak (cf. Lakarra 1995, etab.); hots, **dal*, **dan*, **dar*, **das* edo **daz* baino ezin izan ditzekeela gure hautagaiak. Horien guztien artean, egiatan baliagarri bakarra, bera baita aipatu prototipo semantikoen ordain eta aldi berean ‘sit’ / ‘stand’ / ‘lie’ aditz laguntzaile baten iturri izan zitekeena, hirugarrena dugu: **dar* ‘sit’, hortik baitugu euskarazko kidea: **e-daR-i > jaRi*.⁵⁴

⁵³ Gehi bekizkio Bybe et al. (1994: 132hh)-eko ondokoak:

“The conclusion concerning stative sources for progressives, then, strongly points to location as a necessary semantic element, and no clear cases of progressives formed with a copula without a locative element have been found in our data” (132).

“(…) If we look at the meaning elements that go into the information of the progressive periphrasis, it would appear that the original function of the progressive is to give the location of an agent as in the midst of an activity” (133).

“(…) The fact that progressives are preferred with dynamic verbs—either activity or process verbs—is a consequence of the fact that progressive meaning is originally most compatible with activity predicates and only gradually extends to other predicate types” (139).

“(…) some languages have two grams that we have classified as presents. In all these cases, it is clear that one is an older, more grammaticized (or zero) gram and the other is a younger developing gram, and in three out of four cases, it appears that this younger gram has developed from a progressive” (144).

⁵⁴ *jarri* **dar*-etik datorrela aspaldi markatu nuen (cf. Lakarra 2003), hitz-familiaka egindako etimologiak bilatzean **d- / l- / j-* paradigma zenbait proposatuaz **dar* (—*l larr-i / jarri*), **dats* (—*l lats / jats-i*) edo **e-dutz-i / luz-e / j-a-uz-i* bezalako erro zahar zenbaitetan. Honenbestez, *adar*-ekin lotua ere bada beste zenbait **dVC*-rekin —cf. *adats*, *eder*, *odol* Lakarra (1995a)-z geroztik— amankomunean duen erreduplikazioaren bitartez. Bestalde, badirudi *adar*-en semantika hasiera batean ‘bulto’, ‘hinchazón’, ‘excrecencia’, etabarrekin lotuago izatea ezen ez ‘cuerno’ edo ‘rama’ zehatzekin eta, honenbestez, are zailago gertatzea ustezko zelta kognaduetarik erakartzea (ik. Lakarra 2003 erkaketa horren zailtasun gaindiezinez).

Jarri hizkuntzaren dialekto eta garai guztietan lekukotutako aditza dugu,⁵⁵ *OEH*-ko bere lehen adiera ‘sentarse, tomar asiento’ eta bigarrena ‘poner(se), colocar(se)’ direlarik, baina beste hainbat eta hainbat adiera edo hedadura ere baditu eratorri: ‘posarse’, ‘establecer (una ley, regla, teoría, creencia...)', ‘componer versos’ (‘improvisar’-i kontrajarria), ‘poner(se) (en camino)’, ‘poner, asignar (un nombre, un apodo...)', ‘plantar’, ‘poner, preparar (comida)’, ‘poner (huevos)’, ‘poner(se) algo o alguien de cierta manera’, (tiempo atmosférico), ‘poner(se) (de, como); nombrar (ref. a un cargo, título...)', eta are ‘ponerse, disponerse, inclinarse’, ‘ponerse a hacer algo’, [etzana neurea (J.A.L.)] ‘acostumbrarse, hacerse, adaptarse, acomodarse, aceptar’, ‘dispuesto, acostumbrado’, ‘tomar tierra, arraigar’ eta ‘asentado’. Begibistakoa da aditz honek Kutevak gramatikalizazioaren lehen urratsetarako erakusten duena errazki betetzen duela, agian gutxiago azken urratsak; alabaina, hau ez da harrigarri, erredundantea bailitzateke —perifrasia- ren bitartez— aditz hori sintetiko guztien osagai beharrezko bihurtu ondoren.⁵⁶

Interesgarri zaigu, orobat, hizkuntza ozeanikoetan gertatzen den prozesu bertsuaz Lichtenberken ondorengo iruzkina: “(...) the following scenario emerges: posture meanings give rise to locative/existential meanings and the latter give rise to aspectual meanings: posture > locative/existential > aspectual” (2002: 130).⁵⁷ Honi Kilian-Hatz-ek khoe hizkuntza khoisandarrean gertatua —main verb > copula (auxiliary) > aspectual auxiliary > aspectual suffix (Newman 2002: xi)— gehitzen badiogu, soilik “aurrizki” beharko dugu irakurri “atzizki” ren ordeztu VO hizkuntza batentzat, horrelakoa baitzen euskara gertakari hau jazo zenean eta are beranduago.⁵⁸ Hara Newmannen liburutik hartutako lau adibide argi, hiru hizkuntz familia oso ezberdinetarik:

Siresire	di-bula-bula-i		be	di-soa?i
grass	3PL.REAL-burn.off.vegetation-RED-3SG.OBJ		and	3PL.REAL-sit
‘They are burning off the grass’				

Rakana	ku-em-emak-i		be	ku-soaki?
what?	2SG.REAL-RED-do-3SG.OBJ		and	2SG.REAL-sit
‘What are you doing?’ (Lichtenberk 2002: 278; manam: hizk. ozeanikoa)				

Ti	kx’ó-à-n†ùè			
1SG	eat-I-sit			
‘I am eating (while sitting) or I am eating’ (Kilian-Hatz 2002: 324; khoe: koisan)				

⁵⁵ *OEH*-n (s.u.) aldaera bakartzat GN, Aezk, E *xarri*, dakusgu; hori zuzenago litzateke < j - > grafiak ahoskera bakarra balu lurralde guztietan.

⁵⁶ § 3.5-en beharbada *-tza(t)* prolatiboa *etzan* aditzaren gramatikalizazio batetik etor litekeela proposatzen da.

⁵⁷ Ikus “The ‘sit’/ ‘stand’/ ‘lie’-auxiliation development” laburpen-taula Kuteva (2001: 72)-n.

⁵⁸ Itxura batean hemendik (eta baita ondoren ukitutako ditugun iraganeko forma sintetikoan gramatikalizaziotik) bi eratoko “irakurketa” kronologiko oso ezberdinak egin bide litezke: 1) adizki sintetikoan jatorria aspaldidanikoa delarik —baina cf. Lakarra (2007a) eta (2007b)— hortaz Lag-A Nag egitura ere oso zaharra dugu; 2) adizki sintetikoak zaharrak edo betidanikoa direla uste izateko frogara aske ez delarik, ez da zer pentsatu aspaldi sortu ez galdu direla ere, eta, beraz, Lag-A Nag egitura (eta VO ordena) ere ez. Nik neuk nahiago dut bigarren aukera, iruditzen baitzait ez dela lehena bezain argiro aurreiritzietan oinarritua; gainera, Lakarra (2005), (2006a) eta bestetan defendatutako deriba laguntzen du noski. Nolanahi ere, datu eta ikerketa antz falta da hau eta hizkuntzaren historiaurrearen kronologia eraikitzeko eta hainbat galdera ihardesteko.

Dèe-ké-dèé ndi ndir taa
 woman sits cooking sauce
 'The woman is cooking the sauce'

(Keegan 2002: 347; mbay: hizk. sudanikoa)

Gogora, bukatzeko, hemen bertan (§ 1.1) aipatu dugun Campbellek bildutako gramatikalizazio usukoetariko bat:

- (7) copula ('to be') < positional verbs 'stand', 'sit' or 'give', 'exist' (Spanish *estar* 'to be' < Latin *stare* 'to stand', Spanish *ser* 'to be'; Quechua dialects *tiya-* 'to be' < **tiya-* 'to sit').

3.3. "finish"

Badirudi iraganeko adizki sintetikoek jatorriaz ere orain arte baino urrutiago jo genezakeela multzo-aditzen azterketatik abiatuaz. Bybee et al. (1994)-k esan bezala, 'finish' dugu iraganeko perifrasi eta marken iturri lexiko ohikoena:

The lexical items which evolve into the grams discussed in this chapter ["Anterior, perfectives and related senses"] are almost all verbs, which can be divided into two major types: stative verbs, usually copulas, but also 'have', 'remain', and 'wait'; and dynamic verbs, either movements or verbs meaning 'finish' or 'be finished'. Non-verbal sources resemble movement verbs in being directional, as in the case with the adverbial source 'away', 'up', or 'into' (1994: 55).^{58b}

Bybee et al. (1994: 69)-ren arabera aditz burutuak "anterior" bezala erabiltzea ikertu da baina ez hainbat 'finish' legezko aditz dinamikoena. Haatik, badira txinera (*liao* 'finish'), mon-khmer eta Afrikako hizkuntzetako adibide ezagunak:

hwo-i it an chang veng ta ngar
 finish sleep 3.s will return to fire
 'After sleeping, he will return to the fire'

nang hwo-i pwo
 lady finish birth
 'The lady has given birth'

(Bybee et al. 1994: 72; palaung: mon-khmer)

Ertafrikako sango kreolean⁵⁹ *awe* aditza nagusi bezala erabiltzeaz gain "an action antecedent to that of the verbs in the context" (Samarin *apud* Bybee et al. 1994: 70) adierazteko ere usuko da. Mwera bantu hizkuntzan *-ile* atzizkiak (< aitzinbantu **gid-e* 'finish'), aditz dinamikoekin doanean ekintza iragan hurbilean adierazten du,

^{58b} Interesgarriak dira egileek gramatikalizazio iturrien segurtasunaz hurrengo orrialdean eskeintzen dituzten oharrak:

The richest documentation of lexical sources can be found in the completives, resultatives, and anteriors, where about half the grams coded had indications concerning lexical sources. It must be emphasized again, however, that we do not have a uniform degree of confidence in our pairings of grams with sources. The pasts and perfectives, which are probably much older, had identifiable lexical sources in only one fifth of the cases. However, completives, resultatives, and anteriors develop into pasts and perfectives, and since we do have some evidence of the same lexical sources for these latter grams, we will assume that what we have to say about lexical sources is applicable generally to the grams of this group (Bybee et al. 1994: 56).

⁵⁹ Beste kreole batean, tok-pisin-*ez*, *pinis* (< *finish*) aditza are *awe* baino zabalago erabili ohi da.

hizketaren egun berean gertatu dela; estatiboekin, aldiz, orainaldi bukatua dugu: *nigonile* ‘I am lying down, I am asleep’ (Harries apud Bybee et al. 1994: 74).

Multzo-aditzaren bigarren (edo azken) osagai gisa “finish” usukoa da oso; ijo hizkuntza afrikarrean, esaterako, ez da bere kasa aditz nagusi bezala jokatzen baina bai funtzio honetan:⁶⁰

Ò . kpei dhe me
He wash finish me
‘He finished washing me’

(Lord 1993: 227)

orobat kristang, portugés jatorriko kreolean:

kora yo ja chegá nali eli ja kaba bai
when 1sg PER arrive there 3sg PER finish go
‘When I arrived there he had gone’ (apud Aikhenvald 2006a: 23)⁶¹

edo Toqabaqitan (ozeanikoa, Salomon uhartekoa):

nia qe thau-ngani-a sui naqa luma nia
3sg 3sg:NFUT build-TR-3:OBJ COMPL PER house 3sg
‘He has finished building his house’ (Lichtenberk 2006: 271)⁶²

Euskaraz fonologia eta morfologia aski ez balira, hitzaren historia bera bide dugu guztiz begibistako gogoratzeke *amaitu* aditzak ez duela balio iraganeko aditz sintetikoen jatorria gramatikalizazioaren bidez azaltzeko: *amai* ‘akabu’ *hamabi* + *-tu* ‘adocenado’-tik sorturiko beranduagoko eraketa legez azaldu zuen ederki Mitxele-nak (1972: 337-340); horrenbestez, *hamabi* eta, jakina, Tovarrek berarekin lotu nahi zuen *hamar* baino askozaz berriago dugu. Bere berritasunak azal lezake, halaber, *amai(tu)* bizkaieratik kanpo ezezaguna izatea: *OEH*-n s.u. *amai* esaten zaigunez, berau “Empleada por algunos autores vizcaínos clásicos —sobre todo fray Bartolomé— y modernos. En el s. xx es empleada por algunos autores guipuzcoanos y navarros” dugu;⁶³ eta *amaitu*-n eransten denez,

⁶⁰ Cf. “Its position *after* the verb reflects the position it would have had as a verb in a serial construction in a sentence like this, since within a serial construction the order of verbs is typically iconic with respect to time. A similar verbal or de-verbal aspectual ‘finish’ morpheme in post-verb position is commonly found in Benue-Kwa languages.

Engenni exhibits a range of verblike morphemes which have morpho-syntactic properties distinguishing the from verbs. Clues from their form, function and clause position are consistent with a historical identity as verbs in serial constructions. In this respect Engeni resembles many other Kwa languages (Lord 1993: 227-228).

⁶¹ Aikhenvaldek berak (2006: 42) biltzen du *kaba* aditzarekin saramaccan deritzon beste kreole bateko adibide bat ere.

⁶² Cf. “Another kind of serialization that is common cross-linguistically is for intransitive verbs that mean ‘finish, be finished’ to signal completion of the situation denoted by the other verb. Toqabaqita has a verb ‘finish, be finished’, and it also has a homophonous completive marker (...) it is likely that at an earlier stage the verb *sui* and the preceding verb did form an SVC, and that at a later estage the verb *sui* underwent grammaticalization into a particle when in an SVC” (Lichtenberk 2006: 271).

⁶³ Ikusten ez dudalarik bizkaieraz Elgoibarko dotrina [xviii. mendearen bukaeran, oso] baino lehenagoko lekukotasunik, —ez *RS* eta ezta 1600 baino lehenagoko enparaturik, ezta Kapanaga edo Miko-

(...) antes del s. XIX sólo hemos encontrado dos ejemplos de Urquizu y Olaechea. Hasta mediados de dicho siglo lo emplean casi exclusivamente los escritores de la escuela de Marquina, extendiéndose después a todos los autores vizcaínos. En el presente siglo [XX.ean] casi se generaliza entre escritores peninsulares, pero no hemos encontrado ningún ej. de autor septentrional.

Izatekotan, bada, beste nonbait beharko du izan iraganeko adizki sintetikoen gramatikalizazioaren iturriak. Proposamen berririk egin aurretik Oregiren (1974) aspaldiko bat aztertu nahi nuke. Hark zioenez, iraganeko formek beren barnean zuten *lehen* aditzlaguna;⁶⁴ hitzez-hitz hau ezinezko dugu, noski⁶⁵ —***nire(he)ntorren* (< **ni lehen-torr-en*), nahiz ***etorlehen* edo itxarongo baikenukeen— baina, ene irudiko, nolabaiteko inspirazio iturri izanenez Oregiren ideia hau: gogoan badugu erakutsi denez (cf. Lakarra 2006c) *l- *d-*, batetik etorri ohi dela, *lehen* horretan **denen* batetik abiatu ahal (hobe, behar) gara: hau da, **den-en*, hots, gure **den-en* inesibotik; cf. *barru*, *barren* (eta *barrenen*) **bar-etik*, etab. Uste dut etimologia honek Oregiren hipotesia edo antzeko bat —berak erroaren ezkerretara bilatzen bide zuena eskubitara kokatuaz— are sendoago egiten duela, hau da, oraindik **den* erroa dela gramatikalizatutakoa.

Egokitasun semantikoari eta gramatikalizazio paraleloei begiratzen badiegu, esan behar dut *OEH*-n aditz honetaz (*eden* < **e-den*) ematen den azalpena laburregi iruditzen zaidala. Egia da lau sarrera direla bertan *eden*-entzat: —lehen, izena, “V. apud Azkue: Lar. Añ. H) ‘veneno, ponzoña’, hirugarrena “(G-bet) funerales” eta laugarrena “(Sal) picar (se dice hablando de insectos)”. Nagusi dirudien bigarrenaren lehen adiera gisa “(Aux. intrans.) caber; (aux. trans.) contener”, bigarren ‘tranquilizarse’, eta hirugarren “Vb. intrans., être contenu” [lehendabizikoaren oso antzeko] datozkigu. Alabaina, bada hor *ezin-eden* “(S. apud Azkue) inquietud, desasosiego. “*Ezin-edena du*, no puede contenerse, está fuera de sí” ere, eta hor bertan, Lhanderi jarraiki, ‘inquieto, turbulento’ ere badela dioskute. *Eden-en* ondo-ondoren dugu bitan banatzen zaigun *edendu*: “1. “(vizc. apud Azkue) envenenar(se), corromper(se)” [bizitza eskas eta susmagarrikoa berau] eta “2. (G. ap. Azkue) ‘templado, suave’, ez

leta XVII.ean nahiz Barrutia, Arzadun, Urkizu edo Olaetxea XVIII.ean— beharbada hobeko genuke hizkuntzaren historiaren aldetik, zehatzago, “no documentado hasta finales del XVIII” edo antzeko formularen bat *OEH*-koa baino; izan ere *amaiera*-n esaten zaigunez, “aparece más tarde y ha sido menos usado que *amai*”. Hala dirudi, noski, lehen lekukotasuna 1879 bitartean agertzen ez delarik.

⁶⁴ Zehatzago, “(...) orainaldiko ez diren bukaerako -N gabeek (*baletor*, *letorke*, *betor*) ez dute lehen-aldirik zehatz adierazten; horretarako -N beharrezko dela suma ditek (*etorreN*, *zetorkeen*). Orain-eza emateko beste erak, EN tartekatza alegia, aditzak NOR direnak berebaitaratu ondorengo dirudi; EN horren jatorriaz iritzi garbirik ez dudanarren, oraingo LEHEN-ekin nolabait lotuta dagokelakotan nago” (1974: 270).

Eta hor bertan oharrean: “NORK-dun aditz laguntzailearengan EN(IN)-en bidezko bereizkuntza **na-du* / *n-IN-du* zateken, noski; gero, **na-du* > *nau* laburpena gertatu eta *nau* / *nINDu* itxurako azalzen da. Honek ekarriko zuen, noski, IND hori gero beste aditzetara sartu eta *nator* / *nINDator*; *nago* / *nINDago*; *nabil* / *nINDabil* bezalakoetan agertzea (Ikus nere “Aditzeko askargille batzuei buruz”, *Fontes* 9. alea, 1971)”.

⁶⁵ Badu, gainera, arazo erantsi bat, Bybee et al. (1994)-k azaldu bezala: eslabiarrak bezala beste zenbait hizkuntzatan ere gramatikalizatzen dira adberbioak —nahiz eta horien artean ‘orain’ ez omen den oso arrunta— baina beren hertsapen formal eta semantikoak oso larriak dira; euskaraz ez da horrelako ezer.

aurrekoa baino askozaz ibilbide garbiagokoa. Hau guztia ikusirik ezin ahaztu 3. (“V-arr-oro) desollar” ere, Azkueren lehen eskuko lekukotasun zehatz bakarra dela baitirudi.⁶⁶

Honen konposatua bide den *atseden*-era (“V-ple-m-gip, G-goi, AN”) jo bageneza, *atseren*, *atseen*, *atsedan*, *atseden*, *atxan*, *atxen*, *atsede*, *atsiden*, *atsedon*, *atsaden* aldaerak biltzen dira hegoaldeko hiru euskalki nagusietan eta zera eransten: “propio de la tradición meridional, aunque en el presente siglo [hots, xx.a] lo usan también algunos autores septentrionales”, “descanso, sosiego, reposo, tranquilidad, alivio, pausa” (gehi, argiro, berriago diren “gusto, placer”) adierekin izen gisa eta “descansar, reposar” aditz moduan, beti ere hainbat aldaera fonetikorekin. Mitxelenarentzat (*PT*) eta *DGV*-rentzat jatorria “*hats* + verbo mal identificado, con pérdida de aspiración en el compuesto” litzateke. Gure ustez, *atseden*-en hedadura eta esanahiak esku ematen digu *eden* aditza noizbait ez soilik hegoaldean baizik eta lurralde guztian hedatzen zela pentsatzeko eta baita ‘caber’ edo ‘contener’ ez eze bestelako esanahirik ez ote zuen galdetzeko ere.

Hipotesi eta gogoeta horiei erantzun baino lehen bada *eden*-etik bereiz ezin genezakeen hainbat eta hainbat xehetasun miatu beharreko. Hasteko, *FHV*-n (231) “com. *edeki*, vizc. ant. *edegi* ‘quitar, quitado’ eta “guip. *etekin* ‘utilidad’” lotzen dira aditz zahar zenbaitetako ahostun / ahoskabe alternantziaren bitartez [cf. *ebakil epaite-*, *egotzilekoizten*, *edukil/ituten*, etab.]. Gogoratzen badugu *-gi* (> *-ki*) *-n* aditz enbor zaharragoei erantsi zaiela (ikus Lakarra 2006c: § 5.3), atera beharko dugu, batetik, *eden* dela goiko aditz horien guztien jatorrian dena —baita aurrekoaren *ireki* kausatiboarenean ere seguruenik—⁶⁷ eta, bestetik, baita *eten* eta bere eratorrie-nean ere.

Honenbestez, kontuak asko aitzinatzen dira: hasteko, *eten* (**eden* → *edeten* > *ete-ten* → *eten*) garai eta euskalki orotan lekukotua dugu; jarraitzeko, bere adierak *eden*-enak baino are interesgarriagoak dira gure helburuetarako: “1. romper, rasgar, desgarrar; (menos frec.) cortar (una planta o flor con las manos). Es especialmente frecuente referido a hilos, cuerdas, cadenas y objetos similares, y a la ropa (su sentido principal es ‘romper algo tirando de ambos extremos’); se emplea también referido a las venas” eta, bereziki, “2. (V-m-gip, G-azp, S [baina baita Axular, Pouvreau eta Sarako Etxeberri]) interrumpir(se), cortar, romper” edo “3. (general), quebrantar(se), debilitar(se), extenuar(se), agotar(se), reventar de cansancio; consumir(se)”. Labur, uste dut *eden*-en adieren gunea oso hurbil zela ‘finish’-etik, eratorri modernoak baino askozaz hurbilago, nolana ere.

Aurrekotik iraganeko adizki sintetikoak lehenagoko [CVC aditz nagusia + **eden* ‘amaitu, etab.’] egituratik datozela ondoriozta genezake; laguntzaile gisa gramatikalizatu ondoren, seguruenik, azkenean CVC-VC eman du: **khar*, **thor*, **khus* + (*d*)*en* > **kharren*, **thorren*, **khusen*. Horrenbestez, euskarak munduko hizkuntza askok ibili duten bide bera ibili du perfektoko perifrasiari dagokienez, eta baita, ondorioz, adizki sinte-

⁶⁶ *eden*-en eratorriek (*edendun*, *edengaitz*, *edentsu* edo *edentzaile*-k [baina ez *Z edenehi* “qui est aisément contenu, aisément calmé” (Larrasquet) bitxiak]) berankor eta *Hiztegi Hirukoitza*-ren zordun dirudite, ez herrikoi eta antzinako.

⁶⁷ Orobat, **d-* > *l* ondoren, *erein* ‘sembrar’ eta *jarein* ‘derramar, etc.’ modernoagoek ere (ik. Lakarra 2007a: § 4.3 eta hemen § 1.3.2).

tikoei dagokienez ere,⁶⁸ gorago (§ 3.2) perifrasi inperfektiboez eta dagokien forma sintetikoaz ikusi bezala.⁶⁹

3.4. “give”-en gramatikalizazioaz

“Hizkuntza ozeaniko” [hau da, Pazifikoko hizk. austronesio] askok hainbat eratarata deitutako egiturak dituzte: “verb-prepositions”, “verbal prepositions”, “prepositional verbs”... Deitura edo deizioek eurek argiro erakusten dute formok anbiguoak direla: aditz ezaugarri formalei dagokienez, hizkuntza horietan horrelako asko dituzte baina ez guztiak; funtzioari dagokionez, preposizioak bezalakoak dira, izen sintagmen arteko erlazioak markatuaz.

Badirudi “give” aditzaren gainean eratutako multzo-aditz egituraren gramatikalizazioa oso zabaldurik dela hizkuntza ozeanikoetan:⁷⁰ Lichtenberken artikulua zehatzean (1985: 72-73) ikus litekeenez, aitzin-ozeanikoz baten **pa(nñ)i* ‘give’ aditz bat, gero familiako hainbat hizkuntzaren gramatikako morfema bilakatu zena. Aitzin-aditz horrek ondoko hizkuntzetan dituen gramatika-islek helburu (*goal*) eta ‘hartzailere’ (*beneficiary*) funtzioa erakusten dute beti, baina hainbat hizkuntzatan beste gramatika funtzio zenbait ere erantsi zaie. **pa(nñ)i*-ren isla gramatikalek aditzen propietate bat mantendu dute: helburua, ‘hartzailere’ edo enparatuko partaideak aditz iragankorra kodatzeko erabiltzen den atzizki-sare beraren bitartez kodatzen dituzte. Beste zenbait hizkuntzatan **pa(nñ)i*-ren isla gramatikalek aditz ezaugarriak galdu dituzte eta horien ordeaz izenkien beste batzuk hartu, “posesibo zuzen” egituren buru gisa arituaz eta ja-

⁶⁸ Badakit badela beste gramatikalizazio bide bat ere: \emptyset morfema, alegia (cf. Bybee et al. 1994); horrelako zerbait dirudi Schuchardten hipotesiak, iraganeko *e-* forma jokatugabeetako **e-* (> *e-*, *i-*, *j-*) eza-gunarekin lotuaz. Horrela balitz, iraganeko sintetikoak (< perfektiboak) orainaldikoak baino askozaz zaharrago lirerateke; bestalde, afijoei dagokienez, egiantzeko dirudi inperfektiboak izatea eta ez besteak markatuak (*da-*, cf. Trask 1977), baina ez dakit nahita nahiez horrela izan behar duen Lag > Aurr bihurteta baino lehen. Bada hemen zer ikertu, oraindik; alabaina, aski segurua dena zera da, aditzaren akabuan dela iraganeko marka beste hainbat hizkuntzatan bezala (cf. sei ohar gorago) eta hori dela MAE baten ‘finish’ aditz bati dagokion leku logikoa (“ikonikoa”).

⁶⁹ Cf. “The most common dynamic verb source is ‘to finish’ or ‘to be finished, ready, complete’. In such cases the relation between the lexical meaning and the grammatical meaning is very clear and direct. We find ‘finish’ as a source for completives in seven languages, and for anteriors in two. Similar suggestive evidence is available from other languages as well (...)” (Bybee et al. 1994: 56).

Bilakabideari dagokionez hara apur bat aurrerago:

(...) because we find anteriors with ‘finish’ as a lexical source, we hypothesize that completives, especially those from ‘finish’, may develop into anteriors (...) a difference between the ‘finish’ versus the ‘put into’ completives exists besides the one mentioned above: the ‘finish’ completives become more generalized anteriors, while our evidence suggests that the ‘put into’ completives do not; we have no instances of an anterior from a directional source hinting of ‘into’ (Bybee et al. 1994: 60).

⁷⁰ Lordek (1993: 31) ere bere 3. atalaren (“Verbs and recipient/benefactive marking”) hasieran ohartzen gaitu ezen “The preposition introducing Recipient and/or Benefactive noun phrases is often similar in form to or homophonous with a verb meaning ‘give to’ or ‘show to’”, twi, yoruba, engeni, ewe, awutu, senufo hizkuntzak, karibear kreoleak eta asiar hizkuntzetako adibideekin (mandarina, tai, vietnamita tartean). Azterketaren xehetasunak Lichtenberken artikulua mardulekoak baino urriago diren arren, Lorden aipatu pasartean aurki litezke hizkuntza horietarik ateratako antzeko egiturak eta ‘give’-ren gramatikalizazioaren urrats ezberdinak.

bedunak kodatzeko erabiltzen diren atzizki berberen bitartez kodatzen dira helburu/hartzaile kideak. ‘Give’ aditza izenki-markatzaile bilakatzen da, lehenago **pa(nñ)* *i* aditz marka zela erakusten duen tarteko egoera baten bitartez, aditz-gisako (“verb-like”) izatetik izenki-gisako (“nounlike”) izatera aditz-markaren anbiguitateak eragindako berranalisi batez igaro zelarik.

wan-gau tongo-m momo
give-me POSS-thy tobacco
‘Give me some of your tobacco’ (Gitua: ‘give’; Lichtenberk 1985: 10)

guap uzak lam pan-gau
thou.do knife come PANI⁷¹-me
‘Bring the knife to me’ (Gitua: hartzailea; Lichtenberk 1985: 10)

goko wani-au
speak PANI-me
‘Speak to me’ (Sugu: datibo marka; Lichtenberk 1985: 10)

Was-zen boz- i-sa-e pini-din
W.-noble pig he-stab-it PANI-them
‘Old Was butchered pigs for them’
(Gedaged: “dativus ethikus”; Lichtenberk 1985: 11)

na-na-lam pan ni-ngu rumwag-ei
I-FUT-come PANI.it POSS-my house-in
‘I will come from my house’ (Gitua: jatorria; Lichtenberk 1985: 13)

na-lam pan kar
I-come PANI.it car
‘I came by car’ (Gitua: ibilgailua; Lichtenberk 1985: 13)

m- pilai-n-i?o
I- play-PANI-thee
IRREAL
‘I will play for/instead of you’ (Kairiru: hartzailea; aditz atzizki; Lichtenberk 1985: 16)

lau s -e-hereva-heni-gu
me NEG -he-speak-PANI-me
‘He did not speak to me’ (Motu: aditz-trantsitibatzailea; Lichtenberk 1985: 17)

kai volau-n vati-ani ven ani-s
he he.climb-TRANS tree-coconut PANI coconut-only
REAL
‘He climbed the coconut tree just for coconuts’ (Paama: helburua; Lichtenberk 1985: 21)

Hizkuntza ozeanikoetako gertakarien laburpen honetatik abiatuta (aitzin)-euskaren morfosintaxiaren hainbat alderdiren berreraiketa eta azalpenak burura datozkigu

⁷¹ Adibideetan letra larritan da ‘give’ aitzin-ozeanikoaren oinordekoa.

berehala; hurrengo baterako utziaz zehaztasunak, hara zenbait ohar. ‘Give’ aditzari, zatika edo osorik, legozkiokkeen ordainen artean zalantzarik gabe orain axola diguna *-i(n) dugu. Dakigunez, erro honek adizki jokatu gutxi eta lehen testuetarik atzeraka doazenak baino ez ditu lekukoturik. Bestalde, ezaguna da de Rijk (1985) ekialdeko *jin* ‘etorri’ hartu zuela *indazu*, *ikedak*, *iguzu*, *dikeada* eta gainerako adizki sintetikoan partizipio gisa; alabaina, markatua dut dagoeneko egiantz handiago duela (cf. Lakarra 2003) *jin* hori **edin* ‘(de)venir’ aditz zaharretik eratorria izateak, eta horrenbestez, historikoki erabat gramatikalizatu eta jatorrizko esanahitik hustutako *nadin*, *dadin*, *nendin* *zedin*, etab. direla bere adizkiak. Beraz, goian aipatuek beste erro ia homofono eta oraindik berreraikigaberen batetik behar dute etorri.⁷²

*-i(n) aitzin-aditz horren erroaren gramatikalizazioaren aurretiko forma osoa (CVC) iristeko, beharbada on litzateke *indak*, *indazu* eta besteren -n- horiek (cf. *iguzu* baina baita *ikedak*/**inkedak* eta gainerakoen -ø-) gogoan hartzea. Erroaren forma kanonikoaz ardurarik ez zuen de Rijk arazoari azalpen estandarra eman zion, euskal fonetika zaharraren lege ezagunari jarraiki: cf. **artzani* > *artzain*, *lucanica* > *lukainka* edo *benedicatu* > *bedeinkatu* (FHV). Alabaina, hortik **ni-* (edo **niC*) batera behar zuen iritsi eta ez *jin*-era: izan ere, -nn- horiek ezin izan litezke erroaren -C zaharrak: dagoeneko Trask (1990) azaldu zuen bezala, *egon*-etik *dago* (baina *dagoen*, ez ***dagon*), *joan*-etik *doa* (baina *doean*, ez ***doan*), **edun*-etik dugu (ez ***dungu*), etab., edota, aurreko atalean gehitu dugun legez (*eden* > *edeki*), -n erroetarik *edugilki* (ez ***edunki*), *egogilki* (ez ***egonki*), *idoki* (ez ***idongi*), *jagiljaiki* (ez ***jaingi*), etab.^{72b} Behar dugu pentsatu, bai, kontsonante hori, ez bertan sortua, baizik beste nonbaitetik —zehatzago, erroaren ezkerreko kontsonante kokagunetik— etorria zela horra eta, gainera, mugimendu hori *-n > -ø ondoren (cf. Lakarra 2008b) gertatu dela. Hots, **nin*-etik abiatuko ginateteke (**da-ni(n)-da*, **da-ni(n)-zu*, etab.), eta ondoren silaba akabura (beti ere hurrengoko kontsonantearen aurretik, koda hutsik gelditu eta gero) aldatzen zela *-n-, eta hemen —ondoko kontsonantearen arabera—, noiz gordetzen (*indazu*, *dinden*),⁷³ noiz erortzen zelarik.⁷⁴

Nabarmena da eta edozeinek lekuske euskaraz —aipatu erro honen adizki urri arkaikoez landa— aditz honen gramatikalizazio bilakabidearen hainbat urrats ditugula:

⁷² Comrie & Aldai (2002)-n ez dakust iritziz aldatzeko argudiorik forma sintetikoaren etimologiaz, eta ezta ohar zehatzik aditzaren gramatikalizazio prozesuaz euskaraz edota paraleloak gainerantzekoan, harrigarriro soilik artatzen baitira supletzioari (*eman* / -i(n)) dagokionaz; bidenabar, horretan ere Ax. eta Iparraldeko lekukotasun ugarien indikatiboko -*rau-* / -*i-* aipa bide zitekeen, beharbada, nahiz eta ez dakidan horrek egileen azalpena laguntzen duen.

^{72b} Cf. “(...) one does not clearly see why relating -i-/in- to *jin* can solve the problem of -n- better than relating -i-/in- to *egin*. If the -n in *egin* is the participial ending rather than part of the root, why should the -n in *jin* be part of the root?” (Comrie & Aldai 2002: 149). Arazoaz ohartu arren [nahiz eta Trask (1990) ez aipatu] Comrie eta Aldairen aterabidea ez da asebetekoa, beren buruak “neutralizat” agertzeraz mugatzen baitira. Ikus behegero 75 eta 78. oharra.

⁷³ De Rijk biltzen ditu (1998: 231-234 orr.) erro honen adizkien agerraldi gehienak.

⁷⁴ Bidenabar, **nin* erroa dohainik dugu, ezinbestekoa baita (cf. Lakarra 2003) *ibintz* ‘rocío’ azaltzeko; cf. *ahan-tz-i* ‘olvidar’, *ohol* ‘tabla’, *abal* ‘poder’, etab., hurrenez hurren **nan*, **no*, **nal* eta besteren erreduplikazioak.

- 1) *diguzu, zenion*, etab., *di-* indikatiboko aditz iragankorretako datiboko laguntzailearen adizkiak;
- 2) mendebaleko hizkera batzuetan ikusterrazago izan arren gainerakoetan ere suposatu behar ditugun datiboko hainbat formatako hasierako zenbait palatalizazio: bizk. *dator / jatorko, dabil / jabilt*, etab.;
- 3) datibo etikoarenak: *zettorrek* [**d²*- batetik];
- 4) perfektiboko marka zaharra (*-i*): *etorr-i, ekarr-i*, etab.;⁷⁵
- 5) aditzeko “helburu” (purpose) marka: *nahi dut ekarri*;
- 6) zenbait aditz jokatugabetako *i-* aurrizkia: cf. *inotsi, izeki, irakin, irabazi, *e-i-zan (izan)*.⁷⁶
- 7) adizki sintetikoetako datibo marketako “dative-flag” (Trask) delakoa: *zait, diezaion*, etab.;⁷⁷
- 8) *-i* (sing. *-ari*, pl. *-ei* eta gainerako aldaerak) izenki eta pronominaletako datibo marka;
- 9) partitiboaren oinarria, zeinari eransten zaion ablatiboko edo aditzlagun modaletako *-ka* marka: *etxerik* (ez du);
- 10) orobat, prosekutibo arkaikoetakoa: *harik hona, etxerik etxe*;
- 11) *lan-ari lotu natsaio, hiriari buruz doa*, etab. bezalako zenbait egitura.

Bidebatez, **nin*-en oinordeko gisa, IS-n ez da *-i* bokal hutsa baizik; AS-n bokalaz gainera *n* bat ere —ez beti bera, nahita nahiez—⁷⁸ agertzen zaigularik. Gertakari hau egokiro doa Lichtenberkek (1985) erakusten duen aditz horren gramatikalizazio prozesuarekin: lehenik (higadura gutiagotuz, beraz) AS-n, ondoren IS-n. Logika honek eskatuko luke palatalizazio hutsaz kanpoko segmenturik gorde ez duen datibo etikoa azkena izatea bere gramatikalizazioan; itxura batean ez dirudi guztiz desegoki (cf. Alberdi 1986, 1995, 1996).⁷⁹

⁷⁵ **nin*-en gramatikalizaziotik abiatuaz Trasken (1990) azalpena *-i* eta *-n* konjugazioak aurreko garaietarako bateratzea are errazagoa eta bistakoagoa da, noski, nahiz eta azken analisian ez izan *-i* soila partizipio marka eta (cf. 78. oh.) erroko *-n* zenbaitek ere, beharbada askok, zerikusirik izan kategoria horrekin. Gogora bedi § 1.5.5-ean ikusia australiar aditzen konjugazio marken jatorriaz.

⁷⁶ Oregik dioenez “ba dira euskeraz, egun NORK-dun gisa erabilten diren eta, aditz-gaiz, HURA itxurakoa baizik ez daramaketen aditz batzu, IZEKI eta IRAKIN adibidez [Lardizabalen eta Larramendiren gramatiketako eta Schuchardten datuekin] (...) esanahiz aldatuta hartua dute, noski, oraingo bere NORK-dun itxura. Aditzok ere, egun NORK dena ifoiz NORI-ren bidez eman zitekeenaren egiztagarri ditugu beraz” (1974: 275). Nire zerrendatxotik kanpo uzten ditut haren *jarío, eragon* eta *eraunsi* kontu diferenteak baitira berarentzat ere: Oregi “aditz-jabe” eta “aditz-gai”-ez ari da eta ez aurrizki honetaz (ez du horren inolako aipamenik egiten) pasarte horietan, eta hortik nahastea berezko *i-* dutenak eta soilik bigarren silabako bokal altu edo diptongo baten asimilazioz sortuak (*irudi, iraun*, etab). Bidebatez, *izan* eta *irabazi* ez dira hor ezertarako ageri.

⁷⁷ Honek dakar —Schuchardtek esandakoaren aurka— belarez hasitako formak (*gi* eta, batez ere, *k(i)*), ez soilik berankorrago baizik eta arkaismo gutxiagoko direla, berranalisi edo analogiaz atereak.

⁷⁸ Hemen zehazterik ez dudana arren (cf. Lakarra 2007b) aditz-erro akabuko -C ezberdinen kopuruak begiratuaz badirudi halabehar hutsez eman litezkeen baino *-n* gehiago direla gainerako -C txistukari edo ozenen aurrean: *esan, *ezan, etzan, *edun, *edin, *edon, joan, ipini* eta beste asko —legokiokkeen %20tik gora garbiri (% 50etik hurbilago)— *ibili, *edul, ekarri, etorri, ikusi* eta besteren baten aurrean; gertakari hau ere ez ote **nin* horren, ez soilik *-i* baten, eransketaren alde mintzo?

⁷⁹ Ez naiz hemen arituko *-i* kausatibo eta pasiboaz (cf. txinera eta ekialdeko beste zenbait hizkuntza) eta partizipio markaz; hobe esan, beharko genuke aztertu aditz jokatu / aditz jokatugabe bereizkuntza garbiri ez duten hizkuntzetan zein den infinitiboaren, partizipioaren eta besteren natura edo bilakabi-

4. Amaiera (behin-behinekoa)

Important evidence for earlier states of affairs will probably be found in small, isolated residues, as Indo-European historical linguistics has already shown. For instance, a tiny pocket of several verb forms may tell us more about an earlier stage, than large numbers of regularized or levelled forms within languages (Merlan 1979: 73).

Azken urteotako hainbat lanetan morfemen forma kanonikoan oinarritu eta, gero, tipologia holistikoki diakronikoak (THD) gidatutako aitzineuskararen berre-
raiketa izan dut ikergai nagusi eta, aurrerapenak gora-behera, niretzat ez eze besteren-
tzat ere oraindik alorrean egitekorik bada, zalantzarik gabe. Monosilabismoak (La-
karra 1995hh) eraman ninduen egitura isolatzailerak (2005) eta, horrenbestez, euskara
modernoarentzako onartu ohi den egitura “jatorretik” urrutira: ez SOV, ez atzizki sis-
tema aberats, ez aditz-joko ugari amaitezinik, ez erro jokatuak ehundaka, ez ergatibo-
rik, ez antzekorik... Horrelako ezaugarriak eta horiekin —fonologian, morfologian
eta sintaxian— bateragarriak diren hainbat lotzen eta azaltzen lagundu ahal gaitu
THD-ak eta baita mende luzeetako aldaketa orokor etengabearen ondorioz (Sapirren
deribak hartaraturik Lakarra 2006a-n aldarrikatu lege) hizkuntza isolatzaile morfo-
silabiko egoera batetik beste hurrune-ko batera (eranslera) igarotzen ere (cf. tani hiz-
kuntzez § 1.5.6).

Forma kanonikoak tipologo eta hizkuntzalari teorikoen orokortasun eta abs-
trakzioak hizkuntzaren birre-
raiketa praktikoa eta estandar-
rera bideratzen ditu, hainbat
hizkuntza-familia eta ikerketa tradizio ezberdinetan landu eta trebatutako iragazkien
bitartez: egitura jakin bateko morfemak dira soilik onargarri, ez gorputzik (hankarik
ez bururik esatera nindoan) gabeko kategoriak, munduko gainerako hizkuntza guz-
tietan edo gehienetan kide edo arrastorik izan arren. Hori bai, THD-ak aukera ezber-
dinen artean hautaketa erraz diezaguke eta baita —guretzat garrantzitsuago duguna
dagoeneko Mitxelena-
segmentuz-seg-
mentuzko berreraiketa ia agortzeraino eraman
zuelarik— aurkez diezaguke aukera berririk ere gramatikalizazio teoria eskasago ba-
ten erruz lehen antzeman gabeko berreraiketa-
datu eta gai berriak bistaratuaz eta
erabilgarri bilakatuaz (cf. Lakarra 2006a).

Aurreko lanetan (Lakarra 2007a, 2007b) aditz sintetikoa urria eta —sistema
gisa bederen— aspaldidanik agorra zela, gure gramatikari zaharrek eta euskal-
tzale sutsuek famatu dituzten dozenaka hizki eta komunztadura markak ez direla
betidanikoak eta are artean baino aditz “inpersonal” bateko frogak gehiago bildu
ditugu, nik uste. Orain aditz joko sintetiko oinarritzkoenak (“orainaldiak” eta
“lehenaldiak”) noizbait jokatu eta komunztaduraz —persona, denbora, modu, as-
pektu— josiak ez baizik eta eurak ere —Erroma eta besteren eragin gaiztoak baino
askozaz lehenago, jakina— **dar* (> *jarri*) eta **den* (> *eden*) erroen gainean peri-
frastikoak eta inongo markarik gabekoak izan zirela (multzo aditz asimetrikoak,
zehatzago) aldarrikatze-
ko zenbait frogak aurkeztu dugu. Multzo-aditzen arras-
toak, gainera, ez dira horretara mugatzen: hor da gure “give” aditzaren *-i(n)-* [**e-*

dea (cf. 20. oh.). Lakarra (prestatzen-2)-n nahi nuke atal honetan eta bestetan ukitu MAE-z luzazago aritu.

nin] kide ugariaren ezin konta ahalako gramatikalizazio samalda, dela IS-n, dela AS-n. Badira (baziren)⁸⁰ beste hainbat prozesu ere: “until” (*-raino*), konparatiboak (*-ago, baino/baina*) mozio aditzetatik, “take”-tik sortutako **har* 3. graduko erakuslea, *-tza(i)* prolatiboa, plurala eta *-tze* aditz izena (< *-tz(a)*), “lie” aditzetik, “finish”-etik sortutako “plurala” (*-del-tel-e*),^{80a} etab.^{80b}

Zalantzarik gabe, zer zehaztu, zer azaldu, zer erantsi eta zer aldatu gelditzen da, noski; alabaina, nago aurreko berreraiketa eremuan, THD-rik ez forma kanoniko-rik gabe bere hatsarrietan, ez zirela galdekizun ezta aztergai ere. Bestalde —zuhaitzak fruituetarik ezagutzen baitira—, berreraiketa alor berriotako emaitzek (batez ere sortu eta sortzeko diren galdera berriek) hurbilketa orokorraren, berreraiketa sako-nagoaren⁸¹ eta handik honako deribaren zilegitasuna eta nolabaiteko bidezkitasuna erakusten dutela deritzot.

⁸⁰ Aditz izena eta pluralaren artean izan diren loturez (*-tze*) < *-tza* : *-tza* toponimian zein aditzean, *-eta* (id) : *-eta* (id), gehi *-te* : *-del-tel-e*) aritu beharko dugu noizbait; artean Bybee et al. (“§ 5.9. Iteratives”: 160hh)-n badira horretaz zenbait ohar interesgarri:

The plurality or repetition in iterative meaning does not apply just to the action itself, but often has consequences for the participants in the action (161);

Those iteratives which are also used to signal plural or distributed participants might have come from quantifiers. The Island Carib iterative can also be used to pluralize nouns, and the Baluchi iterative suffix *-an* is the same as the plural definite suffix used on nouns. In some cases of reduplication, the effect on verbs is iteration, while the effect on nouns is pluralization. The implication of this is that plural or distributed meaning is probably original to the constructions and not a later development during grammaticization (164).

Ez dakit azken hau horrela den, erreduplikaziotik landa bederen; (postura aditzeko) MAE-etan kontrakoa iruditzen zait seguruago. Hara liburu eta atal bereko ondorioetan:

A second, less common expression of aspect likens verbal aspect to nominal number; for example, we found many cases of iteratives expressed by reduplication (which is often also used for noun number) and two cases of markers that can also be used to pluralize nouns. Iteratives also sometimes have uses that indicate a plural absolutive argument, or distribution over several entities. However, it should also be remembered that completives (which give rise to anteriors and perfectives) also may have uses indicating multiple participants. Thus although there is some indication that iterative can be viewed as parallel to noun plural, the overwhelming evidence from grammaticization supports the spatial metaphor for the understanding of aspect (175).

^{80a} *-raino, baino/baina* eta *-ago-ri* buruz ikus Lakarra (inprimategian-a: azken atala). Hara orain Zavala (2006: 296)-n olutekeraz (Veracruz): “The grammaticalization of the verb meaning ‘finish’ into a third-person plural marker is common in several languages of the Mixe-Zoquean family. This type of development seems to be an areal feature (...)”. Zergatiaren xehetasunetan (edo azalpenetan) ezin sar naiten —ik. bertan Zavala— baina begibistakoa da euskaraz zein olutekeraz 3p.pl-a eta iraganaren gramatikalizazioa aditz beretik (“finish”) abiatuz garatu dela. Testuan aipatu gainerako MAE-ei buruzko paraleloak aurkitzeko aski da Lord (1993) eta Aikhenvald & Dixon (2006)-ra jotzea.

^{80b} Beharbada *-rantz, -rontz, -runtz* ez dator **ra* + *ontzi*-tik (pace Gómez 2005) **ra* + *dontz* batetik baizik (cf. *-raino* < **ra-din-no* eta ez **-ra-gino*, de Rijk 1992-k nahi bezala); ik. Lakarra (inprimategian-a: azken atala).

⁸¹ Cf. “The languages described here tend to share a number of typological similarities. Most, but not all, have VO (verb + object) ordering with verb serialization. Most prefer only one object per verb, but some permit two objects. Most are isolating, with little inflectional morphology. Syllable structure is typically simple, and many of the languages have lexical and/or grammatical tone distinctions. Verb roots are often monosyllabic; verb compounding sometimes occurs” (Lord 1993: 235).

Patxi Goenaga irakasleari bere aspaldiko eta oraintsuagoko irakatsi ordainezinak bihurtzeko asmotan ez baizik eta bera eta gainerako sintaxilari lagunei, amuren batez euskara zaharraren eta aitzineuskararen gramatika berrirantz erakartzeko gogoz bildu ditut honainoko hasi-masiak. Gai berriren batzuk (multzo-aditzak, demagun) eta gai zaharrak (aditz sintetikoak eta perifrastikoak, esaterako) modu berriren batez ikusteko aukera —beharra eta nahia— erakutsi gura izan dut. Gogaikarri edo aspergarriegi ez baizik eta gogoeta-gai gerta balekizkio asebetarik nintzateke; bide honetarik edo beste batzuetarik historiaurreko euskararen gramatika eta historiak erakusten digun aldaketa etengabea argitzen joateko pizgarri eta bihotz-espertzagarri balira, zer sari hoberik?

5. Bibliografia

- Aikhenvald, A. Y., 2006a, "Serial verb constructions in typological perspective" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 1-68.
- , 2006b, "Serial verb constructions in Tariana" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 178-201.
- & R. M. W. Dixon, (arg.), 2006, *Serial verb constructions. A cross-linguistic typology*. Oxford U. P.
- Alberdi, J., 1986, "Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat", *ASJU* 20, 149-202.
- , 1995, "The development of the Basque system of terms of address and the allocutive conjugation" in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 275-293.
- , 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Andersen, H., 1990, "The structure of drift" in H. Andersen & K. Koerner (arg.), *Historical linguistics 1987*, John Benjamins: Amsterdam-Philadelphia, 1-21.
- Anderson, G. D. S., 2006, *Auxiliary Verb Constructions*. Oxford U. P.
- Artiagoitia, X., 1990, "Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos", *ASJU* 24: 2, 327-49.
- , P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, *ASJU*-ren Gehigarriak XLIV, EHU / UPV, Bilbo.
- Baker, M., 1991, "On the relation of serialization to verb extensions" in Lefebvre (arg.), 79-102.
- Baldi, Ph., 1990, (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Bybee, J., R. Perkins & W. Pagliuca, 1994, *The evolution of grammar. Tense, aspect and modality in the languages of the world*. U. of Chicago P.
- Campbell, L., 1990, "The Mayan languages and linguistic change". In Baldi (arg.), 115-130.
- , 1997, *American Indian languages*. Oxford U. P., New York-Oxford.
- , 1998, *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U. P.
- Carlson, R., 1991, "Grammaticalization of Postpositions and word order in Senufo languages", in Traugott & Heine (arg.), II, 201-223.
- Comrie, B. & Aldai, G., 2002, "Suppletion in the Old Basque verb "to give": a typological perspective" in Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 145-151.
- Craig, C. G., 1991, "Ways to go in Rama: A case study in polygrammaticalization", in Traugott & Heine (arg.), II, 455-492.
- Diller, A. V. N., 2006, "Thai serial verbs: cohesion and culture" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 160-177.

- Dixon, R. M. W., 1977, "The syntactic development of Australian languages" in Li, Ch. N., (arg.), *Mechanisms of syntactic change*. University of Texas, Austin: 365-415.
- , 1980, *The languages of Australia*. Cambridge U.P.
- , 1982, "Where have all adjectives gone?". In *Where have all adjectives gone? And other essays in semantic and syntax*. Berlin: Mouton, 1-62. 1977koaren bertsiio zuzendua.
- , 1990, "Summary report: linguistic change and reconstruction in the Australian language family". In Baldi (arg.), 393-402.
- , 2002, *Australian languages*. "Cambridge language surveys", Cambridge.
- , 2004, "Adjective classes in typological perspective". In Dixon & Aikhenvald (arg.), 1-49.
- , 2006, "Serial verb constructions: conspectus and coda" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 338-350.
- & A. Y. Aikhenvald, (arg.), 1999, *The Amazonian languages*. "Cambridge language surveys", Cambridge.
- & —, (arg.), 2004, *Adjective classes. A cross-linguistic typology*. Oxford U.P.
- Donegan, P. & D. Stampe, 1983, "Rhythm and the holistic organization of language structure" in J. Richardson et alii (arg.), *Papers from the Parasession of phonology, morphology and syntax*. Chicago Linguistic Society, 337-353.
- & —, 2004, "Rhythm and the synthetic drift of Munda", *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*, de Gruyter (Berlin-NY), 3-36.
- Durie, M., 1988, "'Verb serialisation' and 'verbal prepositions' in Oceanic languages", *OL* 27, 1-23.
- Enfield, N. J., 2002, "Semantics and combinatorics of 'sit', 'stand' and 'lie' in Lao" in Newman (arg.), 25-41.
- Frajzyngier, Z., 1997, "Grammaticalization of number: from demonstratives to nominal and verbal plural", *LT* 1, 193-242.
- Garrett, A., 2004, "The evolution of Algic verbal stem structure: new evidence from Yurok", UCB-ko eskuizkribua.
- Genetti, C., 1991, "From postposition to subordinator in Newari", in Traugott & Heine (arg.), II, 227-255.
- Gibbs, R. W., 2002, "Embodied standing and the psychological semantics of *stand*^k in Newman (arg.), 387-400.
- Givon, T., 1991a, "Some substantive issues concerning verb serialization: Grammatical vs cognitive packaging" in Lefebvre (arg.), 137-184.
- , 1991b, "Serial verbs and the mental reality of 'event': Grammatical vs. cognitive packaging" in Traugott & Heine (arg.), I, 81-127.
- Gómez, R., 1994, "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra" in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Izpegi, Baigorri: 93-114.
- , 2005, "De re etymologica: vasc. -(r)antz 'hacia'". In P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. Iker 17, Euskaltzaindia, Bilbo: 273-280.
- , & K. Sainz, 1995, "On the Origin of the Finite Forms of the Basque Verb", in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 235-274.
- Goddard, C. & J. Harkins, 2002, "Posture, location, existence and states of being in two Central Australian languages" in Newman (arg.), 213-238.
- Good, J., 2005, "Reconstructing morpheme order in Bantu. The case of causativization and applicativization", *Diachronica* 22, 3-57.
- Guirardello-Damian, R., 2002, "The syntax and semantics of posture forms in Trumai" in Newman (arg.), 141-177.

- Hajek, J., 2006, "Serial verbs in Tetun Dili" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 239-253.
- Hale, M., 1991, "Misumalpan verb sequencing constructions" in Lefebvre (arg.), 1-36.
- Hopper, P. J., 1991, "On some principles of grammaticization" in Traugott & Heine (arg.), I, 17-35.
- Hu, J., H. Pan & L. Xu, 2001, "Is there a finite vs. nonfinite distinction in Chinese?", *Linguistics* 39, 1117-1148.
- Hualde, J. I., J. A. Lakarra & L. Trask, (arg.), 1995, *Towards a history of Basque language*. John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.
- & Ortiz de Urbina, J. (arg.), 2003, *The Grammar of Basque*. Mouton de Gruyter.
- Hyman, L., 1975, "On the change from SOV to SVO: evidence from Niger-Congo" in Li (arg.), 113-148.
- , 2004, "How to become a 'Kwa' verb", *JWAL* 30, 69-88.
- Ingram, A., 2006, "Serial verb constructions in Dumo" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 202-222.
- Keegan, J. M., 2002, "Posture verbs in Mbay" in Newman (arg.), 333-358.
- Kilian-Hatz, Ch., 2002, "The grammatical evolution of posture verbs in Kxoe" in Newman (arg.), 315-331.
- , 2006, "Serial verb constructions in Khwe (Central-Khoisan)" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 108-123.
- Kuteva, T., 1999, "On 'sit' / 'stand' / 'lie' auxiliations", *Linguistics* 37, 191-213.
- , 2001, *Auxiliation. An Inquiry into the Nature of Grammaticalization*. Oxford U. P.
- Kuznetsova, N. G., 2006, "Morphological reanalysis in the Selkup verb" in E. J. Vajda (arg.), *Languages and prehistory of Central Siberia*, Benjamins: Amsterdam-Philadelphia, 151-156.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au xvième siècle*. 2. arg. Elkar, Donostia, 1980.
- , 1999, *Vasconiana, Iker* 11, Euskaltzaindia: Bilbao.
- Lakarra, J. A., 1986, "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* 20, 639-682.
- , 1995, «Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque» in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- , 1996, *Refranes y Sentencias: ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia-Bizkaiko Diputazioa.
- , 2002a, "Ez zirenez: **TVTV eta haren lagunez: I. So bat erro disilabiko kodagabeez". *ASJU*-n argitaratzeko.
- , 2002b, "Etymologiae (proto)uasconicae LXV", in Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 425-442.
- , 2002c, "Adar, ahuntz, handi: sobre identificación de sustratos y morfología de la protolengua". in M^a J. García Soler (arg.), *TIMES XARIN, Homenaje al profesor Pedro A. Ganzarain*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, 417-429.
- , 2003, "Forma canónica, reconstrucción y etimología". *ASJU* 37, inprimategian.
- , 2004a, "Juan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua (xvi. mendea). Lehen hurbilketa" in Gipuzkoako Foru Aldundia, *Lazarragaren eskuizkribua. XVI mendea*, Edilán-Ars Libris, Madril.
- , 2004b, "¿Bisilabos (proto)-vascos?". Argitaratzeko (inprimategian-a)-n.
- , 2005, "Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco", *Paleohispanica* 5, 407-470.
- , 2006a, "Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica", *Oihenart* 21, 229-322.
- , 2006b, "Jaun eta jabe, jaió eta herio, jin eta joan... etimologiaz eta aditz zaharraz". In B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin Eguzkitza gogoan*. UPV/EHU: 575-611.

- , 2006c, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco”, in Lakarra & Hualde (arg.), 561-621.
- , 2007a, “Causativas y otras extensiones verbales antiguas”. Inprimategian *ASJU*-rako.
- , 2007b, “Sobre los orígenes del verbo sintético vasco”. Inprimategian *ASJU*-rako.
- , 2008a, “Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio”. Inprimategian in J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *K. Mitxelena Katedraren II. Biltzarra, (Gasteiz, 2007ko urria)*.
- , 2008b, “Protovasco: reconstrucción, cronología y periodización”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , Inprimategian-a, *Raíz y reconstrucción del protovasco*. *ASJU*-ren Gehigarriak I, Donostia.
- , Inprimategian-b, *Aitzineuskararen birreraiketa sakonagorantz ASJU*-ren Gehigarriak, Donostia.
- , Inprimategian-c, *Ikerketak euskararen historiaz eta euskal filologiiaz*. *ASJU*-ren Gehigarriak XLV, Donostia.
- , prestatzen-1, “220 etimologías y subiendo”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prestatzen-2, “Verbos seriales en protovasco”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prestatzen-3, “*nagusi, jagon*”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prestatzen-4, “Razones para la reconstrucción de la izquierda”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- & de Bernardo, P., prestatzen, “Forma canónica y etimología: de porqué *neska* ‘chica’ puede y debe ser préstamo”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- & J. I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (= *ASJU* XL, 1-2).
- Lefebvre, C. (arg.), 1991, *Serial verbs: Grammatical, comparative and cognitive approaches*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- , 1991, “Take serial verb constructions in Fon” in Lefebvre (arg.), 37-78.
- Li, Y., 1991, “On deriving serial verb constructions” in Lefebvre (arg.), 103-136.
- Lichtenberk, F., 1985, “Syntactic-category change in Oceanic languages”, *OL* 24, 1-84.
- , 1991, “On the gradualness of grammaticalization”, in Traugott & Heine (arg.), I, 37-80.
- , 2002, “Posture verbs in Oceanic” in Newman (arg.), 269-314.
- , 2006, “Serial verb constructions in Toqabaqita” in Aikhenvald & Dixon (arg.), 254-272.
- Light, T., 1978, “Tonogenesis: Analysis and implications”, *Lingua* 46, 115-131.
- Lord, C., 1993, *Historical change in serial verb constructions*. Amsterdam: John Benjamins.
- Manterola, J., 2006, “-a euskal artikulua definituaren gainean zenbait ohar”. In Lakarra & Hualde (arg.) 653-678.
- , prestatzen-a, “Euskara eranslea ote? Oharrak deklinabidearen morfologia historikoz”. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prestatzen-b, **Artikuluaren gramatikalizazioaz*. UPV/EHU-ko doktorego tesia.
- Matisoff, J. A., 1991, “Areal and universal dimensions of grammaticalization in Lahu”, in Traugott & Heine (arg.), II, 383-453.
- Matthews, St., 2006, “On serial verb constructions in Cantonese” in Aikhenvald & Dixon (arg.), 69-87.
- Merlan, F., 1979, “On the prehistory of some Australian verbs”, *OL* 18, 33-111.
- Mitxelena, K., 1956, “La lengua vasca como medio de conocimiento histórico”, *Zumarraga* 6, 49-70.

- , 1957, “Las antiguas consonantes vascas”. Berrarg., *SHLV*, 166-189.
- , 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg., *ASJU*-ren Gehigarriak: Donostia 1990.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berrarg., *SHLV*, 1-73.
- , 1970, “Nombre y verbo en la etimología vasca”. Berrarg., *PT*, 283-309.
- , 1971, “Toponimia, léxico y gramática”. Berrarg., *PT*, 141-167.
- , 1972, “Léxico vasco y etimología”. Berrarg., *PT*, 337-348.
- , 1974, “El elemento latino-románico en la lengua vasca”. Berrarg., *PT*, 195-219.
- , 1977a [1961], *Fonética histórica vasca*, 2. arg. hobetua eta emendatua. *ASJU*-ren Gehigarriak: Donostia.
- , 1977b, “Notas sobre compuestos verbales vascos”. Berrarg., *PT*, 311-335.
- , 1981, “Lengua común y dialectos vascos”. Berrarg., *PT*, 35-55.
- , 1985, *Lengua e Historia*, [= *LH*], Paraninfo, Madril.
- , 1987a, *Palabras y Textos* [= *PT*], J. Gorrochategui (arg.), UPV/EHU, Bilbo.
- , 1987b, *Orotariko euskal hiztegia-Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak: Donostia, 2 lib.
- Mounole, C., 2006, “Quelques remarques à propos de l’histoire des périphrases basques”. In Lakarra & Hualde (arg.), 745-740.
- , 2007, “Aditzaren mailegaketa euskaraz: prozesu morfonologikoak”. *Actas de las II. Jornadas de Lingüística Vasco-Románica de la Sociedad de Estudios Vascos*. Inprimategian.
- , 2008, “Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfektibozko perifrasiaren sorreraz”. Liburu honetan.
- , prestatzen, **Euskal aditzaren historiaz: perifrasiak*. UPV/EHU-ko doktorego tesia.
- Newman, J., 2002, “A cross-linguistic overview of the posture verbs ‘sit’, ‘stand’ and ‘lie’” in Newman (arg.), 1-24.
- , 2002, (arg.), *The linguistics of sitting, standing and lying*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Noonan, M. & K. Grunow-Harsta, 2002, “Posture verbs in two Tibeto-Burman languages of Nepal” in Newman (arg.), 79-101.
- Oregi, J., 1974, “Euskal-aditzaz zenbait gogoeta”, *FLV* 6, 265-283.
- Pawley, A., 2006, “Where have all the verbs gone? Remarks on the organisation of languages with small, closed verb classes”, Rice University-ko eskuizkribua.
- Post, M. W., 2006, “Compounding and the structure of the Tani lexicon”, *LTBA* 29, 41-60.
- , 2007, “Grammaticalization and compounding in Thai and Chinese”, *Studies in Language* 31, 117-175.
- Pustet, R., 2000, “Lakota postpositions”, *IJAL* 66, 157-180.
- Reid, N., 2002, “Sit right down the back. Serialized posture verbs in Ngan’gityemerri and other Northern Australian languages” in Newman (arg.), 239-267.
- , 2003, “Phrasal verb to synthetic verb: recorded morphosyntactic change in Ngan’gityemerri” in N. Evans (arg.), *The Non-Pama-Nyungan languages of Northern Australia. Comparative studies of the continent’s most linguistically complex region*. Pacific Linguistics 555, The Australian National University: 95-123.
- de Reuse, W., 2006, “Serial verbs in Lakota (Siouan)” in Aikhenvald & Dixon (arg.), 301-318.
- de Rijk, R. P. G., 1969, “Is Basque a SOV language?”. Berrarg., in 1998, 13-38.
- , 1981, “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”. Berrarg., in 1998, 211-224.
- , 1985, “Un verbe méconnu”. Berrarg., in 1998, 225-241.

- , 1992, ““Nunc” Vasconice”. Berrarg., in 1998, 347-376.
- , 1995, “Basque manner adverbs and their genesis”. Berrarg., in 1998, 391-419.
- , 1998, *De lingua uasconum. Selected writings. ASJU-ren Gehigarriak*: Donostia.
- Rude, N., 1991, “Verbs to promotional suffixes in Sahaptian and Klamath”, in Traugott & Heine (arg.), II, 185-199.
- Rumsey, A., 2002, “Men stand, women sit. On the grammaticalization of posture verbs in Papuan languages, its bodily basis and cultural correlates” in Newman (arg.), 179-211.
- Sagart, L., 1999, *The roots of Old Chinese*. John Benjamins: Amsterdam – Philadelphia.
- , 2004, “La parenté des langues austronésiennes” in Zeitoun (arg.), 23-39.
- Song, J. J., 2002, “The posture verbs in Korean. Basic and extended uses” in Newman (arg.), 359-385.
- Trask, L. R., 1977, “Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses”, in Douglass et alii (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217.
- , 1979, “On the origins of ergativity” in Plank (arg.), 385-404.
- , 1981, “Basque verbal morphology”, *Iker-1*, 285-304. Bilbo.
- , 1990, “The -n class of verbs in Basque”, *TPS* 88: 111-128.
- , 1995, “On the history of the non-finite verb forms in Basque” in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 207-234.
- , 1996, *Historical linguistic*. Arnold: London, NY, Sidney, Auckland.
- , 1997, *The history of Basque*. Londres, Routledge.
- , 1998, “The typological position of Basque: then and now”, *Language Sciences* 20, 313-24.
- Traugott, E. C. & B. Heine, 1991, “Introduction” in Traugott & Heine (arg.), I, 1-14.
- & — (arg.), 1991, *Approaches to grammaticalization*. John Benjamins: Amsterdam-Philadelphia, 2 lib.
- Urgell, B., 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco” in Lakarra & Hualde (arg.), 921-948.
- Wang, S.-Y., 1995, *The Ancestry of the Chinese language*. JChL, Monograph Series n.º 8, Berkeley.
- Zavala, R., 2006, “Serial verbs in Olutec (Mixean)” in Aikhenvald & Dixon (arg.), 273-300.
- Zeitoun, E., (arg.), 2004a, *Les langues austronésiennes*. “Faits de Langues” 23-24.
- , 2004b, “Typologie des langues austronésiennes de Taiwan” in Zeitoun (arg.), 41-58.

ADITZETIKO IZENEN EMANKORTASUNAREN AZTERKETA MORFOPRAGMATIKOA EUSKARAZKO CORPUS OROKOR ETA BEREZITUETAN

Mikel Lersundi, Igone Zabala, Agurtzane Elordui

UPV/EHU

1. Sarrera¹

Nominalizazio-estrategiak ezinbestekoak dira jakintzaren garapenerako nahi-taezkoa den diskurtso abstraktua aurrera eramateko. Hori dela eta, testu berezituak areago ustiatzen dituzte nominalizazio-estrategiak testu orokorrek baino eta, testu berezituaren artean ere, testu mota bakoitzean (burokratikoak, teknikoak, zientifikoak...) mota jakin bateko estrategiak eta baliabide nominalak nagusitzen dira. Nominalizazio-estrategien emaitza informazioaren trinkotzea eta abstrakzioa dira, eta estrategia horiek erabiltzen dituzten hizkuntza-baliabideen kontinuumean² izen kategoriako elementu lexikoak dira trinkotze eta abstrakzio hori mailarik altuenean lortzen dutenak. Areago, izen kategoriako elementuak dira kontzeptu eta objektuen denominazioa³ posible egiten duten bakarrak (Zabala 2007). Hori dela eta, testu berezituak aditzetiko izenen dentsitate handiagoa azaltzen dute testu orokorrek baino.

Aditzetiko izenak sortzeko orduan hitzunek egiten dituzten hautapenak baldintza pragmatiko-diskurtsiboek baldintzatuak dira neurri handian. Izan ere, azterketa morfo-pragmatikoek⁴ frogatzen dute aditzetiko izenak sortzeko atzizkien arteko hautapena (*en-*

¹ Lan hau aurrera eramateko EHUKo (EHU06/94) proiektuaren eta RICOTERM-2 (HUM2004.0-5658-CO2-01) proiektuaren diru-laguntzak baliatu ditugu.

² Euskararen kasuan ADITZA < ADITZ IZENA < GENITIBODUN ADITZ IZENA < IZENA elementuez osaturik dago eskala hori. Eskalaren erdiko elementuak deberbalizazioan aurrera egiten badute ere, buru modura aditz kategoriako lexema duten egiturak dira. Egitura hauetan aditzarekin lotutako kategoria funtzionalei eragiten zaie, baina ez egituraren buruaren gramatika-kategoriari. Aditzetiko izenerako urratsa behar da izen kategoriako lexemara heltzeko eta nominalizazioa ikuspegi sintaktikotik erabatekoa izateko (Zabala eta Elordui 2006, Zabala 2007).

³ *Denominazioa* erreferentziazio modu bat da, hizkuntza-unitate kodifikatu bat erabiltzeagatik bereizten dena (Freixa 2003: 88). Denominazioak hitzun-komunitatearen hitzarmena behar du: erreferentzia-harreman egonkor, errepikakor eta memorizatua da.

⁴ Honela definitzen du Dressler-ek (1990: 3) morfopragmatikaren ikerketa-alorra: "the area of general pragmatic meanings of morphological rules". Ondoko alor hauek bereiz daitezke morfopragmatikaren azterketa-gaiaren artean: a) morfologiaren oinarri pragmatikoak, b) arau morfologikoen eta arau horiek interpretatzen dituzten hitzunen arteko harremanak eta c) arau morfologikoen eta testu-aldakortasunaren arteko harremanak. Gallegosek (2003: 79) aldarrikatzen du morfopragmatikaren azken alor honetan arreta berezia jarri beharko litzaikeela testuaren aldagai pragmatiko-diskurtsiboen arabera diren alderdiei, adibidez, erregistro motari edota ahozko / idatzizko dimentsioari, horiek guztiak erabakigarriak baitira hitzunek morfologiaren baliabideez egiten duten erabilerarako.

ganche / enganchado, liga / ligadura, enlace / enlazamiento) oso maiz testuaren erregistroak baldintzatzen duela (Gallegos 2000, 2003).⁵ Ildo honetatik, Gallegos-ek frogatzen du itxuraz baliokideak izan daitezkeen atzizkien arteko hautapena komunikazio-ekintza markatzeko baliabide diskurtsiboa dela: erregistro kolokialek eta orokortzat har daitezkeen kazetaritzako erregistroek atzizkien aukera markatugabeak erabili ohi dituzte (gaztelaniaren kasuan \emptyset , *-e*, *-o*) eta erregistro tekniko eta zientifikoek, aldiz, aukera markatugabeetatik urruntzeko joera dute (*-ado*, *-aje*, *-ción*, *-dura*, *-miento*). Urruntze hori, nolana ere, modu polizentrikoan egiten dela frogatzen du Gallegos-ek eta, beraz, hizkuntza bakar baten erregistro tekniko eta zientifikoetan ere tradizio diskurtsibo desberdinak garatzen direla. Adibidez, gaztelaniaren erregistro tekniko eta semitekniko modernoetan atzizkirik emankorrenak *-ado* eta *-aje* dira, *-ción* atzizkia dateke emankorrenetakoa erregistro zientifikoetan eta, *-zón* atzizkia, aldiz, nekazaritza eta nabigazioaren esparruetan.

Gallegos-ek agerian uzten du testu bakar baten barruan ere, aditz-oinarri bera atzizki desberdinekin konbinaturik aurki dezakegula: kasu batzuetan arrazoi semantikoaren bitartez azal daiteke aldakortasun hori (*corte* «ondorioa» / *cortado* «prozesua»; *carda* «objektua» edo «tresna» / *cardado* «prozesua») baina, beste batzuetan, atzizkien arteko alternantziak ezin azal daitezke arrazoi semantikoaren bitartez. Adibidez, *pela* / *peladura* / *pelado* alternantziako hiru aldakiek «ekintza» adierazten dute. Honelakoetan Gallegos-ek aldarrikatzen du adiztetiko izen hauen nominalizazio-eginkizuna testuaren egituratik abiatuta aztertu behar dela. Adiztetiko izenak testuan zehar garatzen den nominalizazio-programa baten azken estadia dira (Iturrioz 1985, 2000). Testu baten barruan aurki ditzakegun adiztetiko izenen aldakiak nominalizazio-continuumaren maila berean daude gramatika-kategoriari eta egitura sintaktikoari bakarrik erreparatzen badiegu, baina eginkizun desberdina dute egitura komunikatiboaren eta testuaren antolakuntzaren ikuspegitik. Segida horretako elementuek prozesu anaforiko batean parte hartzen dute: *peladura* eratorriaren bitartez, urrats bat egiten da informazioaren trinkotzean *pela* izenarekiko eta trinkotze prozesu horren azken urratsa *pelado* izen eratorria da. Gallegos-ek frogatzen du semantikoki baliokideak diren termino horiek testu baten barruan erabiltzea ez dela alferrikakoa, informazioaren prozesamenduaren instantzia desberdinetara eramaten baikaituzte.

Azterketa morfopragmatikoek atzizki eratorleen jokabideaz agerian utzi dituzten ondorio horiek kontuan harturik, lan honetan euskarazko adiztetiko izenen emankortasuna aztertu dugu. Corpus orokor bat eta corpus berezitu bat konparatu ditugu hurrengo hipotesi hauek egiaztatzeko asmoz:

- a) Adiztetiko izenak diskurtso abstrakturako eta jakintza-alor desberdinetako logogenesirako ezinbestekoak direnez, euskarak bere garapen lexiko-diskurtsiboan askotariko testu orokor eta berezituak sortzen dituen neurrian, espero

⁵ Morfologia lexikoari ikuspegi formal hutsetik begiratzen dioten lanetan onartzen da nozio bate-rako komunitate batean hitz bat (edo batzuk) finkatu direnean, blokeatu egiten direla eraketa-arauak: *sarrera* / **sardura* / **sarketa*; *logura* / *logale* / **lonabi*. Nolanahi ere, batzuetan lexema bat baino gehiago azaltzen dira oinarri beretik abiatuta hainbat motatako arrazoirekin lotuta: aldaki dialektalak (*logura* / *logale*), erreferente semantiko desberdinak (*idazkera* / *idazkera* / *idazkuntza*), erregistroak eta tradizio diskurtsiboak (Ekon. *hazkunde* / #*haziera* baina Biol. *haziera* / #*hazkunde*). Testu motak, erregistroak eta informazioaren testuetan zeharreko antolakuntza kontuan hartzen duen ikuspegia behar da halako motibazio semantiko-funtzionalak detektatzeko.

izatekoa da halako izenak sortzen dituzten arauk emankortasun handia izatea eta hizkuntza, oro har, gero eta nominalizatzaileago bihurtzen joatea (Zabala eta Elordui 2006).

- b) Espero izatekoa da, era berean, aditzetiko izen berri horiek askoz ere maiztasun handiagoa azaltzea testu berezietan testu orokorretan baino.
- c) Azkenik, erregistro tekniko eta zientifikoen garapen polizentrikoaren sintoma dateke mota desberdinetako alor espezializatueta aditzetiko atzizkiak ustiatzeko orduan hainbat joera garatu izana, edo garatzeko bidean egotea.

Gure ikerketaren abiapuntutzat hartu dugu nominalizazio-estrategien azken estadia izen-kategoriako lexemez osaturik dagoela, eta lexema horien artean hizkuntza-komunitatean ondo finkatuta daudenak lan lexikografikoetan kodifikaturik agertuko direla. Nolanahi ere, jakintzat eman dugu, era berean, hizkuntza baten garapen lexiko-diskurtsiboaren diagnosis egiteko erregistro desberdinetako testuez osaturiko corpusak ere aztertu behar direla. Izan ere, testuetan sortzen diren elementu lexikoen parte bat bakarrik heltzen da hizketa- edota diskurtso-komunitate batean finkatzera, eta beranduago gertatzen da finkaturiko elementu horiek hiztegieta kodifikatzea.

Gure hipotesiak egiaztatzeko, bi hiztegiaren konparaziotik abiatu gara: Sarasolaren *Euskal Hiztegia* eta Elhuyarren *Euskal Hiztegi Modernoa* konparatuko ditugu, lehenengo tradizioaren adierazletzat eta, bigarrena, euskara batuaren sorreratik euskarak jasan duen garapenak eragindako berrikuntzen adierazletzat hartuta. Ondoren, hiztegieta lorturiko emaitzak erabileraren berri ematen diguten corpusen datuekin konparatu ditugu. *Zientzia eta Teknologiaren Corpusa* (ZT) corpus berezitua eta *Ereduzko Prosa Gaur* corpus orokorraren prentsako testuez osaturiko azpicorpusa (EPG-P) eta liburuen testuez osaturiko azpicorpusa (EPG-L) erkatu ditugu elkarrekin eta hiztegieta.⁶

Konparazio horietatik ateratako emaitzak hirugarren atalean azalduko ditugu. Baina lehenago, bigarren atalean, nominalizazioak diskurtsoaren garapenean dituen eginkizunez arituko gara: nominalizazio-eragiketen eskalak diskurtsoaren informazioaren antolakuntzan eta jakintzaren garapenean duen zereginaz zehazkiago, aditzetiko izenen ugaritzea hizkuntzaren garapen lexiko-diskurtsiboaren ondorioetako bat dela agerian uzteko asmoz.⁷

⁶ Hiztegieta eta corpuseta datuak era automatikoan erauzi ditugu.

⁷ Estilistikako lan zenbaitek (Egunkaria 2001, Garzia 1997, 2005, besteak beste) nominalizazioa estilo-joera gaitzesgarritzat hartzen dute, eta estilo nominal hori saihesteko bideak eskaintzen dituzte. Beste hizkuntza batzuetan ere aurki daitezke honelako aurreiritziak nominalizazioari buruz. Adibide bat ematearren, Iturriozek (2000) nominalizaziorako hurbilketa desberdinei buruz ari denean, eta alemanierari buruz ari delarik, nabarmentzen du estilistikako esku-liburueta maiz kritika gogorak egin zaizkiola "estilo nominalari". Alemanaren kasuan aipatzen ditu XIX. mendearen bukaeran erabilitako kalifikatiboak: "epidemia de sustantivos", "tumoración lingüística", "destrucción del verbo", "deverbalización", "manifestación típica de la decadencia de la lengua", "insano cultivo en la sobrecalentada atmósfera de las cancellerías", "enfermedad estilística", "substantivitis", "degeneración de la lengua en un mundo administrativo". Iturriozek honela interpretatzen ditu kritika horiek:

Estas críticas están basadas en consideraciones estéticas y en el convencimiento de que construcciones perifrásticas como *zum Abschluß bringen* o *zur Versteigerung kommen* equivalen a verbos simples (*abschießen*, *versteigert werden*), no en el análisis de los aspectos estructurales y funcionales de las mismas... Con frecuencia los mismos autores críticos hacen uso de las expresiones que condenan...una crítica radical del estilo nominal no se puede sostener desde argumentos lingüísticos (Stötzel 1965). (Iturrioz 2000: 67).

2. Nominalizazio-eragiketak eta garapen lexiko-diskurtsiboa

Nominalizazioa morfologia, sintaxia eta semantika lexikoa gainditzen dituen eragiketa linguistiko konplexua da, eta bakarrik uler dezakegu bere osotasunean testuen antolakuntzarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen baditugu. Nominalizazioak predikazioen bitartez adierazitako eduki proposizionalak diskurtsoan objektu modura tratatzea ahalbidetzen du.⁸ Nominalizazioaren emaitzarik begi bistakoena abstrakzioa eta trinkotzea dira. Trinkotze horri esker, progresio tematikoa ahalbidetzen duten topikoak eraikitzen dira diskurtsoan. Topiko berriek predikazio berrien argumentu bezala jokatzen dute eta diskurtsoaren progresio tematikoa ahalbidetzen dute. Nominalizazio-eragiketen bitartez, hizkuntzak entitate (abstraktu) berriak adierazteko gaitasuna ere lortzen du: izen abstraktuak nominalizazio-eragiketan kristaltze lexikala baino ez dira. Izen abstraktuek posible egiten dute pentsamendu konplexu eta artikulatuak garatzea. Hori dela eta, nominalizazioak eginkizun garrantzitsua du testuaren antolakuntzan ez ezik, baita logogenesia ere, bereziki testu tekniko eta zientifiko abstraktuen ekoizpenean (Iturrioz 2000).

Nominalizazioak posible egiten du diskurtso abstraktua garatzea: nominalizazio-eragiketak beharrezkoak dira predikazioen bitartez adierazitako ideiak modu trinkoago eta zehatzagoan formulatzeko ez ezik, ideia berriak formulatzeko ere. Ildo honetatik, nominalizazioaren bitarteko abstrakzioa mota jakin bateko testu-antolakuntzarekin lotuta dago, zehazkiago mota jakin bateko progresio tematikoarekin: gertaera konkretuetatik edo ekintza jakin batzuetatik hasi eta eduki sentsorialetatik eta erreferentzia situazionaleratik gero eta deslotuago dauden mailetara doan progresioarekin. Hona hemen Iturriozek (2000: 86) progresio horretarako eskaintzen duen eskema eta adibidea euskaraturik:

generikotasuna	trinkotzea	erreifikazioa
metalek elektrizitatea eroaten dute		
→ metalek eroaten dute		
	→ metalak eroaleak dira	
	→ eroapena	
		→ eroaletasuna

Goiko eskeman ikus daitekeen bezala, proposizio generiko batetik abiatuta, proposizioak adierazten duen gertaera argumentuetatik askatuz doa, aditzetiko izenei esker. Aditzetiko izenen bidez lortzen den trinkotzeari esker, kontzeptu konplexu bat izen batean enkapsulatzen da, eta erreifikatu egiten da diskurtsoaren objektuan eraldatzeko. Diskurtsoaren objektuak topiko diskurtsibo modura erabiltzen dira.

Nominalizazio-estrategietan hizkuntzaren lexikoian aldeztuak dauden izenak erabiltzen dira maiz baina, hizkuntzaren lexikoian diskurtso-beharrei erantzuteko ize-

⁸ Halliday-k (1985) "grammatical metaphorization" deritzo prozesu honi. Metaforizazio prozesu honen bitartez, perpaus batek deskribatzen duen gertaera baten osagaiak bigarren mailako funtzio semantikoak bete ditzakete. Adibidez, *John arrived yesterday* eta *John's arrival took four hours* segidak konparatzen baditugu, *John's arrival* segidak aurreko perpausaren subjektua eta prozesua osagai bakar batean bildu eta predikazio baten subjektuaren bigarren mailako funtzio sintaktikoa bete dezake. Metaforizazio honen eginkizun pragmatikoa da informazioa esaldian trinkotzea.

nik ez dagoenean, testuen ekoizleek sortu egingo dituzte beharrezkoak dituzten izenak. Ohikoena izaten da izen horiek morfologia-arauen bitartez sortzea (izen deadjetibalak edo denominalak) edo, bestela, beste hizkuntza batetik mailegatzea. Lexema berriak hizkuntzaren lexikoiaren parte izatera hel daitezke hizketa-komunitate batean (edota diskurtso-komunitate batean) finkatzen badira. Behin eratorria finkatuta, adiera berriak sortzen dituzten aldaketa semantikoak gerta daitezke. Gallegos-ek (2000, 2003) “desplazamientos metonímicos o topicalizaciones semánticas” deritze aldaketa horiei. Aditzetiko izen eratorrien kasuan, oinarriko esanahiak «ekintza» (ad. *garbiketa*) edo «egilea» (ad. *garbitzaile*) izan ohi dira eta adjektiboetiko izen eratorrien kasuan “ezaugarria” (ad. *garbitasun*). Aldaketa semantikoak direla eta, “egoera iraunkorra”, “ondorio edo emaitza”, “objektua”, “instrumentua”, “lekua”, “garaia” bezalako esanahiak sor daitezke.

Aditzetiko izenei hizkuntzaren garapen lexiko-diskurtsiboaren ikuspegitik begiratzen diegunean, espero izatekoa da horrelako izenak nabariki ugaritzea hizkuntza diskurtso abstraktua garatzeko erabiltzen den neurrian, eta bereziki diskurtso berezitua garatzeko erabiltzen den neurrian.⁹ Horrelako izenen ugaritzea garapen lexiko-diskurtsiboaren emaitza da, baina lexemen agerpena garapen horren lehen urratsa baino ez da izango. Geroko urratsak dira aldaketa semantikoen bitartez lehengo lexemek edota lexema berriak adiera berriak lortzea, eta lexemak osatzeko erabiltzen diren atzizkien emankortasunak genero, erregistro edota tradizio diskurtsiboen araberrako banaketa azaltzea.

Lexema bakoitzaren inguruan gertatzen den garapena, lan lexikografikoetan islatu ohi da, eta lan horietan azter daiteke. Gainera, hiztegi-elementu desberdinen adiera semantikoak eta erregistro desberdinetan zeharreko erabilerak hiztegietan islatze horrek berak laguntzen dio garapen lexiko-diskurtsiboari. Ondoko adibidean ikus daiteke ondo garatutako hiztegi-elementu baten adierak eta erabilerak nola islatzen diren hiztegi batean: *sarrera* izenak hainbat aldaketa semantiko jasan ditu «ekintza» eta «ondorio» ez ezik, “lekua” eta “objektua” adierazteraino, eta objektuen artean, objektu espezializatuak musika edota hiztegi-gintzarekin lotutakoak. Bestetik, adiera eta erabilerak bereziak lortu ditu zenbait erregistro teknikoren barruan, bereziki, Ekonomiaren eta Informatikaren bereizgarriak diren testuen barruan:

sarrera. *iz* **1.** Sartzea (ekintza eta ondorioa). Ikustekoa izan zen irabazleek hirian egin zuten sarrera. **2.** Toki batean sartzeko lekua. *Sarrera hemendik du hotel honek.* **3.** Ikuskizun batean sartzeko eskubidea ematen duen txartela. *Kontzerturako sarrerak erosi ditut.* **4.** Obra idatzi baten hasieran, gaiaren aurkezpen gisa egin ohi den azalpena. **5.** Hiztegi edo entziklopedia batean, karaktere bereziz nabarmendutako hitz, termino edo izen berezia, berari dagozkion informazioak segidan dagoen artikuluan bildurik dituena. **6.** (Ekon.) Dirutan neurtutako aberastasun-etorria; nonbait jasotzen den diru-kantitatea. *Aurten sarrera handiak izan ditu enpresa horrek.* **7.** (Inform.) Programa bati, beronek prozesa ditzan, ematen zaizkion datuak; datu hauek sartzean datzan eragiketa. (*Euskal Hiztegi Modernoa* 2000)

⁹ Ideia hau ondo ulertu zuen jadanik Jakobi-k (1903) sanskritoaren estilo nominala aztertu zuenean eta edukariaren kondentsazioarekin lotu zuenean. Jakobi-ren arabera, kulturaren aurrerapenarekin batera hizkuntzak nominalizatzaileago bihurtzen dira. Porzig-ek (1930: 68), ildo beretik, aldarrikatzen du eduki proposizionalak nominalizazioaren bidez erreifikatzeko prozesua pentsamenduaren aurrerapenaren oinarrian dagoela.

Laburbilduz, aditzetiko izenak ezinbestekoak dira diskurtso abstrakturako eta jakintza-alor desberdinetako logogenesirako. Euskara esparru berezituak irabazten doan neurrian, espero izatekoa da halako izenak sortzen dituzten arauak emankortasun handia izatea eta hizkuntza, oro har, gero eta nominalizatzaileago bihurtzen joatea. Garapen lexiko-diskurtsibo horren azarnak hiztegien datuak aztertuz iker daitezke: hiztegietan sarrera berriak agertzea testuetan gauzatzen diren prozesu neologiko denominatiboen emaitza izango da, eta adierak ugaritzea neologia semantikoaren aztarna. Nolanahi ere, garapen lexiko-diskurtsibo azkarreko uneetan espero izatekoa da corpusetan askoz ere handiagoa izatea prozesu neologikoen emankortasuna hiztegi-tan islatzen dena baino. Corpusen azterketatik hainbat datu lor ditzakegu: a) prozesu neologikoetan atzizki desberdinek duten emankortasuna eta b) atzizkien banaketa morfopragmatikoa testu moten eta erregistroen arabera.¹⁰

3. Hiztegien eta corpusen azterketa

Azken puntu honetan hiztegien eta corpusen azterketaren emaitzak agertuko ditugu. 3.1. puntuan, Sarasolaren *Euskal Hiztegiaren* eta Elhuyarren *Euskal Hiztegi Modernoaren* erkaketaren emaitzak azalduko ditugu: bi hiztegi hauetako sarrera eta adiera kopuruak eta atzizki bakoitzaren emankortasuna erkatu ditugu. Erkaketaren helburua izan da tradizio idatziaren joerak eta euskara batuaz azken urte hauetan idatzitako testuen joerak erkatzea: Sarasolaren hiztegia tradizioaren adierazletzat hartu dugu eta Elhuyarren hiztegia euskara batuaren sorreratik gertaturiko garapenaren adierazletzat. 3.2. puntuan, hiztegiak corpusekin konparatuko ditugu, ZT corpus espezializatuarekin, eta EPG-P eta EPG-L corpus orokorrekina. Corpusetako datuek ematen digute hiztegietan oraindik kodifikaturik ez dagoen garapen lexiko-diskurtsiboaren berri. 3.3. puntuan, ZT corpus berezitua konparatuko dugu EPG corpus orokorrekarekin eta EPG corpuseko bi azpicorpusak (prentsako testuez osaturiko EPG-P eta liburuez osaturiko EPG-L) elkarren artean. Helburua da aditzetiko izenak sortzeko arauen emankortasuna eta atzizki desberdinen arteko hautapenak esparru ezberdinetako balizko tradizio diskurtsiboekin uztartzea. 3.4. puntuan, atzizkien banaketa aztertuko dugu ZT corpuseko alorretan zehar, atzizki hauen alorrez alorreko banaketa morfopragmatikoaren zantzuak bilatzeko asmoz.

3.1. Hiztegien arteko konparazioa

Atal honetan Sarasolaren *Euskal Hiztegiaren* (EH) eta Elhuyarren *Euskal Hiztegi Modernoan* (EHM) aditzetiko izenak sortzen dituzten atzizki eratorleek (-*dura*,

¹⁰ Aldakortasuna ikertzeko azterketa intratestualak ere egin behar dira, itxuraz erredundanteak izan daitezkeen aldakiek testuko informazioaren antolakuntzaren ikuspegitik banaketa funtzionalik ba ote duten jakin ahal izateko. Lan honetan hiztegien eta corpusen azterketa kuantitatiboa baizik ez dugu egingo. Liburu baten azterketa intratestualerako, ikus Iturrioz (2000). Iturriozek Juan Garmendia Larranagaren *EskuLangintza/Artesania Vasca* liburua aztertu du, nominalizazio-eragiketen ikuspegitik. Bestek beste ondorioztatu du -*tze* atzizkia topiko berriak sartzeko erabiltzen dela nagusiki liburu horretan eta -*keta* atzizkia duten elementuak, aldiz, anaforikoak izaten direla eta funtsezko topikoak adierazteko erabiltzen direla. Nominalizazio-eskalan -*tze* azaltzen da lehenago eta -*keta* geroago.

-era, -keta, -kunde, -kuntza, -men, -mendu, -pen, -tza, -tze eta -zio) dituzten sarrera kopuruak konparatetik lortu ditugun emaitzak eskainiko ditugu. Beheko 1. taulan ikus daitekeen bezala, atzizki gehienek handitu dituzte sarrera kopurua eta adiera kopurua; -kunde, -era, -men eta -tza dira salbuespen bakarrak.


15. taula

Sarrera eta adiera kopuruak hiztegiatan atzizkiz atzizki

	Sarrera kopurua hiztegiatan				Adiera kopurua hiztegiatan			
	EH	EHM	aldea	indizea	EH	EHM	aldea	indizea
dura	101	195	94	1,93	113	267	154	2,36
era	59	58	-1	0,98	88	98	10	1,11
keta	170	316	146	1,86	198	406	208	2,05
kunde	30	29	-1	0,97	40	38	-2	0,95
kuntza	49	66	17	1,35	59	92	33	1,56
men	90	90	0	1,00	125	120	-5	0,96
mendu	73	98	25	1,34	87	132	45	1,52
pen	106	174	68	1,64	153	258	105	1,69
tza	86	76	-10	0,88	120	112	-8	0,93
tze	33	115	82	3,48	48	160	112	3,33
zio	125	380	255	3,04	157	565	408	3,60
OROTARA	922	1.597	675	1,73	1.188	2.248	249	1,89

Nolanahi ere, handitze hori ez dago berdin banatuta atzizki guztietan. Atzizkien emankortasunaren aldaketak ikusteko eta konparatzeko, emendio-indizea kalkulatu dugu atzizki bakoitzerako: EHMko sarrera kopurua / EHko sarrera kopurua (adieretarako ere emendio-indizea bera kalkulatu dugu). 1. taulan ikus daiteke -tze atzizkiaren emankortasuna handitu dela gehien sarrera kopuruari dagokionez, baina -zio atzizkia nabarmentzen dela adiera kopuruaren emendioari dagokionez.


1. irudian ikus daitekeen bezala, atzizki batzuen kasuan (-kunde, -men, -pen eta -tza) eskutik helduta doaz sarreraren kopuruaren emendioa eta adieren kopuruaren emendioa. Honek pentsarazten digu atzizki horiek daramatzaten aditzetiko izen berriek ez dutela oraindik garatu oinarrizkotik urruntzen den esanahirik. Sarreraren kopuruari dagokionez emankorra den -tze atzizkiaren kasuan, adieren emendioa txikiagoa da, sarreraren emendioa baino. Datu hau ondo uztartzen da Iturriozek (2000) egindako azterketa intratestualarekin. Azterketa horren arabera, -tze atzizkiak lehen estadia betetzen du nominalizazio-eskalan. Bestalde, atzizki honen bidez sortutako eratorriek "ekintza" edo "prozesua" adierazten dute, baina nekez onartzen dute esanahi berririk.



1. irudia

Atzizkien emankortasunaren aldaketa EHTik EHMra

Adiera berrien emendio-indizea sarrerren emendioa baino altuagoa duten atzizkiak *-dura*, *-era*, *-keta*, *-kuntza*, *-mendu* eta *-zio* dira. Adieretan emendio handiena izan duen atzizkia *-zio* izan da. Atzizki hori gaur egun euskal erroekin erabiltzen ez delarik, *-zio* daramaten aditzetiko izenak mailegutzaren bitartez heltzen zaizkigula ondoriozta dezakegu eta, beraz, abiapuntuko hizkuntzaren garapenaren aztarnak dakartzatela beren adierekin batera. Kasu honetan emankortasun semantikoa mailegutzarekin berarekin lotuta egon liteke.



2. irudia

Hiztegien eta corpusen sarrera (/ lema) kopuruen konparazioa


3.2. Hiztegien eta corpusen arteko konparazioa

Corpusetako datuak hiztegien datuekin konparatuz ikus daiteke ZT corpus berezituko lema kopurua askoz ere handiagoa dela hiztegietakoa sarrera kopurua baino, eta EPG corpuseko lema kopurua baino (ikus 2. irudia). Oro har, prentsako testuetan lema desberdin gutxiago azaltzen dira liburuaz osaturiko corpusean baino, baina aldea ez da oso handia. Bestetik, ikus dezakegu, oro har, EPG corpuseko bi azpicorpusek gaintzen dutela EH hiztegia lema kopuruan; baina, era berean, lema gutxiago azaltzen dituztela, oro har, EHMk dituen sarrera kopurua baino. EHM hiztegiaren eta ZT corpusaren artean dagoen aldeak agerian uzten du zein den hiztegiaren kodifikatuta ez dauden neologismoen kopurua.

Lau atzizkiren kasuan (*-era*, *-kunde*, *-men* eta *-tza*) EHn EHMn baino sarrera gehiago (edo sarrera kopuru bera) daude, eta kasu horietan, hain zuzen ere, EHko kopuruak EPGkoak baino handiagoak dira, edo oso antzekoak. Corpus horiei begira badirudi egun atzizki horiek ez direla emankorrak aditzetiko izen berriak sortzeko.

3.3. ZT corpusaren eta EPGko azpicorpusek arteko konparazioa

Hasteko, EPGko bi azpicorpusek konparatu ditugu elkarren artean, bietan eta bietako batean bakarrik azaltzen diren lema kopuruak bereizteko asmoz. 3. irudian ikus daiteke bi corpusek partekatzen dituzten aditzetiko izenen kopurua oso handia dela; oso txikia da, berriz, EPG-Pn edo EPG-Ln bakarrik azaltzen diren lema kopurua. EPG-L azpicorpusean bakarrik azaltzen diren lema kopurua altuagoa da EPG-P azpicorpusean bakarrik azaltzen diren lema kopurua baino. Honek agerian uzten du liburuetan diskurtso abstraktuak leku gehiago betetzen duela eta aditzetiko izenen behar handiagoa dagoela prentsako testuetan baino.




3. irudia

EPG-P / EPG-L konparazioa (lemak)


Ondoren, konparatu dugu ZT corpusa EPGko bi azpicorpusekin. Corpusen arteko konparazioa eginda, ikus daiteke EPGn azaltzen diren lema gehienak ZT

corpusean ere erabiltzen direla; gutxi dira EPGren azpicorpusetan baino agertzen ez diren lemak. ZT corpusean bakarrik azaltzen diren lemen kopurua, aldiz, oso handia da (ikus 4. eta 5. irudia). Honek agerian uzten du diskurtso berezitua garatzeko adiztetiko izenen behar handiagoa dagoela mota desberdinetako diskurtso orokorra garatzeko baino.



4. irudia

ZT / EPG-P konparazioa (lemak)




5. irudia

ZT / EPG-L konparazioa (lemak)

Azkenik, hiru corpusetan konparatu dugu atzizkien emankortasuna. 6. irudian ikus daitekeen bezala, EPG corpuseko bi azpicorpusen kurbak gainezarri egiten dira. Horrek iradokitzen du bi corpus orokor hauek atzizkien antzeko erabilera egiten dutela. ZT corpus berezitua aldiz, urrundu egiten da beste bietatik: *-era*, *-keta*, eta, batik

bat, *-tze* atzizkiak gehiago ustiatzen ditu EPG corpusak baino. Aitzitik, *-dura*, *-men*, *-mendu*, *-tza* eta *-zio* atzizkien emankortasuna handiagoa da EPG corpusean ZT corpusean baino. Gainerako atzizkien emankortasuna berdintsua da hiru corpusetan.



6. irudia

Atzizkien emankortasunaren konparazioa corpusetan (%)

3.4. ZT corpusean barruko alorren arteko konparazioa

Azkeneko atal honetan atzizkien banaketa aztertu dugu ZT corpuseko alorretan zehar. Hauexek dira ZT corpusean bereizten diren alorrak:¹¹ Biziaren Zientziak (BZ), Lurraren Zientziak (LZ), Bestelakoak (Ekonomia, Arte-teknologiak, Antropologia...) (BS), Orokorra (OR), Materia eta Energiaren Zientziak (Fisika eta Kimika) (ME), Teknologia (Teknologia Mekanikoa, Teknologia Elektrikoa / Elektronikoa, Telekomunikazioak, Informatika, Aeronautika) (TE), Zientzia Zehatzak (Matematika eta Logika) (ZZ).

ZT corpuseko atzizkien emankortasuna alorrez alor aztertu dugu. Zenbait alorretan (BZ, LZ, BS eta OR) *-zio* atzizkia nagusitzen da (ikus 7. eta 8. irudiak) eta beste batzuetan (ME, TE eta ZZ), aldiz, *-keta* atzizkia da nabarmenena (ikus 9. irudia). Joera morfopragmatikoen ikuspegi xeheago izateko, hiru talde egin ditugu alorren artean, *-zio* eta *-keta* atzizkien nagusitasuna eta alorren arteko hurbiltasun tematikoa kontuan hartuta: a) batetik, Biziaren Zientziak eta Lurraren Zientziak (BZ, LZ); b) bestetik, giza edo gizarte-zientzietan sar daitezkeen alorrak (BS, OR) eta c) azkenik, Teknologia, Fisika eta Kimika eta Zientzia Zehatzak (ME, TE, ZZ).


Atzizkiek atal horietako bakoitzaren alorretan duten banaketa konparatu dugu ZT corpus murriztuko alor guztietan duten banaketa metatuarekiko, alor bakoitzean dauden joerak corpus osoaren joerekin erkatzeko.

¹¹ Orain arteko datuak ZT corpus osoa kontuan hartuta ateratakoak izan dira. Atal honetako datuak, aldiz, ZT corpuseko eskuz zuzendutako zatitik atera ditugu: corpus murriztu hori orekatuaren parte denez, alorrez alorreko emankortasunaren konparazioa finagoa egin ahal izan dugu.



7. irudia

Atzizkien banaketa Biziazen Zientzien (BZ) eta Lurraren Zientzien (LZ) alorretan ZTKo alor guztien banaketa metatuarekiko (%)




8. irudia

Atzizkien banaketa giza eta gizarte zientzien zenbait alorretan ZTKo alor guztien banaketa metatuarekiko (%)

a) BZ eta LZ alorretan *-zio* eta *-pen* atzizkien emankortasuna balio metatuak baino altuagoa da, *-keta* atzizkiaren erabilera oso hurbil dago balio metatuetatik eta *-tze* atzizkiaren erabilera, aldiz, balio metatuetatik behera dago. Aitzitik, *-dura* atzizkiaren erabilerrari dagokionez, desberdin jokutzen dute bi alorrek: LZ alorrek balio metatuak gaintitzen ditu eta BZ alorra, aldiz, balio metatuen azpian dago.

b) ZT corpuseko zenbait alor (BS eta OR) giza eta gizarte zientzietan sailka daitezke, zientzia horien alor guztiak ordezkatuta ez badaude ere. Alor horietan atzizkiek

duten emankortasuna konparatu dugu balio metatuekin. Corpuseko alor hauetan ere, BZ eta LZ alorretan bezala, *-zio* atzizkia gailentzen da, eta atzizki honek dituen balioak bat datoz corpus osoko balio metatuekin. *-dura* eta *-keta* atzizkien balioak, berriz, baxuagoak dira balio metatuak baino, eta gainerako atzizki guztien balioak altuagoak dira balio metatuak baino.



9. irudia

Atzizkien banaketa Materia eta Energiaren (ME), Teknologien (TE) eta Zientzia Zehatzen (ZZ) alorretan ZTko alor guztien banaketa metatuarekiko (%)

c) Azkenik, ME, TE eta ZZ alorretako datuak erkatu ditugu elkarren artean eta datu metatuekiko. Hiru alor hauek ZT corpuseko beste alorretatik bereizten dira *-keta* atzizkiaren erabilera handiagatik. Hiru alorren artean, ZZ alorra bereizten da *-pen* atzizkiaren erabilera handiagatik eta *-dura* eta *-tze* atzizkien erabilera mugatuagatik. TE alorraren bereizgarria da *-tze* atzizkiaren erabilera handia. Azkenik, ME alorra bat dator ZZ alorrarekin *-keta* atzizkiaren erabileran, baina TE alorrarekin bat egiten du *-zio* atzizkiaren erabileran. ME alor honetan, *-tze* atzizkiaren erabilera TE alorrean baino nabariki baxuagoa da, baina ZZ alorrean baino handiagoa. Logikoa da atzizkien banaketa hau; izan ere, Fisikak eta Kimikak matematikaren erabilera handia egiten dute, baina deskribatzen dituzten prozesu asko bat datoz Teknologiek deskribatzen dituztenekin.

4. Ondorioak

Azterketa morfopragmatikoek agerian uzten dute aditzetiko izenak sortzeko eta erabiltzeko orduan hitzunez egiten dituzten hautapenak faktore pragmatiko-diskurtsiboek baldintzatuak direla. Lan honetan frogatu dugu euskara batuaren garapenean espero izatekoak ziren zenbait joera morfopragmatiko zirriborratzen doazela:

- Euskara nominalizatzaileago bihurtzen ari da erabilera-esparru berriak irabaztearekin batera eta, bereziki, esparru berezituak irabaztearekin batera: *Euskal Hiztegi Modernoan* kodifikaturiko aditzetiko izenen sarrera eta adiera kopurua nabariki

- handiagoa da tradizioaren adierazletzat hartu dugun Sarasolaren *Euskal Hiztegia*n azaltzen direnena baino. Areago, corpusetako testuek EH eta EHM hiztegietan kodifikaturik ez dauden aditzetiko izenen kopuru handia azaltzen dute.
- b) Atzizkien emankortasunaren balioak sarreretan eta adieretan konparatu ditugu, neologia semantiko-funtzionalaren joeren berri izateko, eta ikusi dugu bi hiztegi horietan kodifikaturiko aditzetiko izenen artean *-tze* atzizkia izan dela emankorrena sarrera berrien kopuruari dagokionez, baina oso emankortasun txikia izan duela adiera berriak emateko orduan. Datu hori ondo uztartzen da *-tze* atzizkiak aditzetiko izenen oinarrizko esanahia («ekintza» edo «prozesua») bakarrik adierazteko duen joerarekin eta generalizazio-eskalan hasierako estadioak betetzearekin ere. Adieren emankortasunean aldiz, *-zio* atzizkia gailentzen zaie gainerako guztiei. Honek pentsarazten digu aditzetiko izenen emankortasun semantiko-funtzionala mailegutza mendekoa dela neurri handian.
- c) Aditzetiko izenen lema kopurua nabariki handiagoa da ZT corpus berezitan EPG corpus orokorrean baino eta, EPG corpusaren barruan ere, askoz ere handiagoa da liburuez osaturiko azpicorpusean prentsako azpicorpusean baino. Corpusek islatzen duten aditzetiko izenen beharra ere desberdina da: ZT corpusak EPG corpuseko lema gehienak erabiltzen ditu baina, hala ere, beste corpusetan azaltzen ez diren lema ugari sortu behar izan ditu. Datu hauek ondo uztartzen dira aditzetiko izenek diskurtsoan dituzten eginkizunekin: besteak beste diskurtso abstraktua, eta bereziki diskurtso berezitua, garatzea ahalbidetzen duten abstrakzioarekin eta trinkotzearekin.
- d) Atzizkien emankortasunari dagokionez ere, joera desberdinak erakusten dituzte ZT corpus berezituak eta EPG corpus orokorrak. EPG corpuseko prentsako testuetan eta liburuaren testuetan atzizkiek azaltzen dituzte emankortasunaren balioak parekoak dira atzizki guztietarako. ZT corpusak aldiz, *-era*, *-keta*, eta, batik bat, *-tze* atzizkiak gehiago ustiatzen ditu EPG corpusak baino, eta *-dura*, *-men*, *-mendu*, *-tza* eta *-zio* atzizkien emankortasuna, aldiz, handiagoa da EPG corpusean ZT corpusean baino.
- e) Azkenik, ZT corpus orekatuan alorrez alorreko konparazioa eginez, zenbait joera morfopragmatiko detektatu ditugu. Morfopragmatikaren hatsarreen arabera, komunitate diskurtsiboen joera hauek arrazoi funtzionalak dituzte atzean: azterketa intratestualak behar dira arrazoi funtzionalak detektatu ahal izateko. Ondoko puntuetan laburbiltzen ditugu aurkitutako joerak.
- f) ZT corpuseko alorren arteko erkaketaren lehen urrats batean aurkitu dugu zenbait alorretan (BZ, LZ, BS eta OR) *-zio* atzizkia nagusitzen dela eta beste zenbaitetan (ME, TE eta ZZ) *-keta* atzizkia.
- g) Bestetik, alorrak ZT corpus murriztu osoaren joera orokorrekin konparatuz, bereizketa morfopragmatiko finagoak egin ditugu: i) Natur Zientziak (BZ eta LZ alorrak) *-zio* eta *-pen* atzizkien erabilera handiagatik eta *-tze* atzizkiaren erabilera mugatuagatik bereizten dira beste alorretatik. Lurraren Zientziak (LZ) *-dura* atzizkiaren erabilera handiagatik bereizten dira Biziaren Zientzietatik (BZ). ii) Besteak beste, Ekonomia, Arte-teknologiak eta Antropologia giza eta gizarte-zientzien alorrak biltzen dituzten atalek (BS eta OR), *-zio* atzizkiaren emankortasun handia azaltzen dute, Natur Zientziek bezala, baina *-dura* eta *-keta* atzizkiak nabariki gutxiago ustiatzen dituzte ZT corpuseko beste alorrek

baino. Aitzitik, gainerako atzizki guztien (*-kuntza, -men, -mendu, -pen, -tza* eta *-tze*) erabilera handiagatik bereizten dira ZT corpuseko beste balio metatuetatik. iii) Matematika, Fisika, Kimika eta Teknologien alorretan (ZZ, ME eta TE), aurreko bi multzoetan ez bezala, *-keta* atzizkia da erabiliena. Nolanahi ere, Zientzia Zehatzen alorra bereizten da *-pen* atzizkiaren erabilera handiagatik eta *-dura* eta *-tze* atzizkien erabilera mugatuagatik. Teknologien alorraren bereizgarria da *-tze* atzizkiaren erabilera handia. Azkenik, Fisika eta Kimikaren alorrak bat datoz Zientzia Zehatzen alorrarekin *-keta* atzizkiaren erabileran, baina Teknologien alorrarekin bat egiten du *-zio* atzizkiaren erabileran. Fisika eta Kimikaren alor honetan *-tze* atzizkiaren erabilera Teknologietan baino nabariki baxuagoa da, baina Zientzia Zehatzetan baino handiagoa. Atzizkien banaketa honek zentzua du kontuan hartzen badugu Fisikak eta Kimikak matematikaren erabilera handia egiten dutela, baina deskribatzen dituzten prozesu asko bat datozela Teknologiek deskribatzen dituztenekin.

5. Bibliografia

- Dressler, W., 1990, "Morphopragmatics", *Bulletin of the Language Institute of Gakushin University* 13, Tokyo, 3-19.
- Egunkaria, 2001, *Estilo liburua*, Donostia.
- Elhuyar Fundazioa, 2000, *Euskal Hiztegi Modernoa*, Elhuyar / Elkarlanean, Donostia.
- Freixa, J., 2003, *La variació terminològica. Anàlisi de la variació denominativa en textos de diferent grau d'especialització de l'àrea de medi ambient*, Doktoretza tesia, Universitat Pompeu Fabra, Bartzelona.
- Gallegos, A., 2000, "Morfología y registro. Algunas relaciones entre tradiciones discursivas y morfología derivativa nominal en español", *Función* 21-24:1, 142-215.
- , 2003, *Nominalización y registro técnico. Algunas relaciones entre morfopragmática, tradiciones discursivas y desarrollo de la lengua en español*, Doktoretza-tesia, Albert-Ludwigs-Universität.
- Garzia, J., 1997, *Joskera lantegi*, IVAP, Gasteiz.
- , 2005, *Kalko okerrak. Ikasmaterialen Abolku Batzordea. Estilo-liburuaren bigarren atala*, Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzua, Hizkuntza Prestakuntza, Gasteiz.
- Halliday, M. A. K., 1985, *An introduction to Functional Grammar*, Edward Arnold, London.
- Iturrioz, J. L., 1985, "Abstracción substantiva: reificación de contenidos proposicionales", in Melena, J. L. (arg.) *Simbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, EHU, Gasteiz, 396-414.
- , 2000, "Diversas aproximaciones a la nominalización. De las abstracciones a las macrooperaciones textuales", *Función* 21-24: 1, 32-140.
- Jakobi, H., 1903, "Über den nominalen Stil des wissenschaftlichen Sanskrits", *LF* 14, 236-251.
- Porzig, W., 1930, "Die Leistung der Abstrakta in der Sprache", *Blätter für deutsche Philosophie*, 4, 66-67.
- Sarasola, I., 1996, *Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- Zabala, I., 2007, "Izen-sintagmaren egituratik nominalizazio-estrategietara", *Izen-sintagmaren egitura euskaraz: sintaxia eta interpretazioa*, Nazioarteko elkargunea, Donostiako ikastaroak m.s.

— & A. Elordui, 2006, “Specialised Discourse and the Linguistic System of Basque” in B. Fernandez & I. Laka (arg.) *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 233-249.

<http://www.ztcorpUSA.net/>

<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

SOBRE UNA PROPIEDAD SUPERESTRUCTURAL DE LA LENGUA VASCA

Ángel López García

Universitat de València

Todos los estudiosos de la lengua vasca —desde los dilettantes que pueblan las páginas de los periódicos hasta los filólogos más serios y esclarecidos— coinciden en expresar su sorpresa ante lo extraño de su aislamiento genético, el cual es una consecuencia de su pervivencia multiseccular, del hecho de que el euskara haya sobrevivido a sucesivas capas idiomáticas que taparon todo vestigio de las demás lenguas primitivas de Europa. Ya se sabe que de la constatación de esta circunstancia tan notable se han querido extraer todo tipo de consecuencias impertinentes (vale decir: lingüísticamente injustificadas) como la idea, tan extendida, de que el vasco es una lengua más antigua que las que lo rodean, sin reparar en que si su antecesor del siglo I d. J. C. se hubiese llamado de otra manera (como los romances francés, español, catalán o portugués se llamaban latín) a nadie se le habría ocurrido sostener dicha tesis. También es del dominio común que la circunstancia que comentamos ha suscitado todo tipo de extrapolaciones ideológicas más que cuestionables. Es obvio que desde el siglo XVII, y sobre todo desde mediados del XIX, el euskara se ha ido convirtiendo progresivamente en un símbolo de resistencia cultural: se trata de un proceso racionalmente argumentado y socialmente apuntalado. Pero antes de dicha fecha las razones que se dan para explicar la supervivencia de la lengua vasca parecen endebles. Lo que hoy sabemos de la intensidad de la romanización del territorio vascohablante (Echenique 1984, 1997) pone de manifiesto que no fue menor que la de otras zonas del Imperio romano como la Iliria, donde la lengua autóctona desapareció sin dejar otro rastro que algunos testimonios toponímicos (que luego el romance dálmata sucumbiera ante las lenguas eslavas es ya otro capítulo de la historia lingüística). Tampoco parece mayor el aislamiento de los valles pirenaicos occidentales que el de los Täler alpinos de la Retia donde todavía hoy se sigue hablando retorrománico.

Resumiendo, que la pervivencia del vasco constituye un motivo de asombro epistemológico. Las lenguas genéticamente aisladas son excepcionales y siempre aparecen en contextos geográficos y/o culturales marginales. Por ejemplo, en el inventario de Ruhlen (1987) poseen dicha condición, junto al vasco, cuatro lenguas de Asia: el burushaskí, el ket, el gilyak y el tahalí. Todas tienen en común que aparecen en un enclave geográfico inaccesible o muy marginal, es decir, en un espacio de difícil acceso que explica sobradamente el aislamiento del pueblo que las habla:

— El burushaskí lo hablan unas 30.000 personas en un valle de la cordillera del Karakorum rodeado de montañas de más de ocho mil metros en el norte de Pakistán.

- El ket (o queto) lo hablan 1.100 personas al norte de Siberia, en las riberas del río Yenisei donde se da uno de los climas más fríos y duros de la Tierra.
- El gilyak (también llamado nivejí) lo hablan 4.400 personas en la isla Sajalín y en las Kuriles, en el extremo nororiental de Siberia, nuevamente una tierra áspera y con escasos recursos.
- El nahalí lo hablan 1.200 personas en una región inaccesible del centro de la India, en un paraje desértico de la meseta del Dekán.

El aislamiento genético de estas cuatro lenguas no resulta, pues, sorprendente. Los grupos humanos que las hablan han quedado claramente al margen de las grandes corrientes migratorias que se han producido en la historia de Asia y no han tenido ocasión de dejarse influir por las lenguas que les servían de medio de expresión, ya fueran indoeuropeas, dravídicas, altaicas, urálicas o sinotibetanas. El caso del vasco es muy diferente. Es verdad que el vasco (o euskara) es una lengua aislada. Pero ni el grupo humano que la habla ha estado aislado a través de los siglos ni la región, el País Vasco, tiene las características geográficas que a cierto pensamiento mítico le gusta resaltar.

Examinemos con más detalle la cuestión del aislamiento. Una forma de pensar analógica que ha cambiado nuestra visión de las cosas es la reciente equiparación entre la clasificación genética de los pueblos de la Tierra y la clasificación genética de las lenguas del mundo realizada por Cavalli-Sforza (1996). Por sorprendente que parezca, cuando se compara, de un lado, el árbol de las filiaciones de los pueblos, establecido con absoluta fiabilidad empírica gracias al análisis del ADN mitocondrial de una muestra de sus componentes, y, de otro lado, el árbol de las filiaciones de las lenguas, al que se llega con los métodos habituales del comparatismo, resulta que coinciden en al menos un 90% de los casos (!). Esta vinculación tan estrecha entre la Biología y la Lingüística no debería sorprendernos. Al fin y al cabo, la dotación genética que caracteriza a un grupo de organismos pertenecientes a una misma subespecie, en este caso a un grupo de seres humanos, es una función de las relaciones sexuales que han mantenido: a mayor intensidad de estas relaciones, mayor parentesco genético. Dichas relaciones sexuales fueron facilitadas obviamente por la cercanía geográfica. Los seres humanos, al menos en las sociedades tradicionales, se suelen cruzar con seres humanos próximos (de su tribu, pueblo, valle, etc.) y lo hacen mucho menos con los que están más alejados. Pero —y aquí viene lo interesante— algo parecido les sucede a las lenguas: los seres humanos mantienen intercambios comunicativos con otros interlocutores próximos, tan apenas con los que están lejos y como los vascos están relativamente aislados desde el punto de vista genético se ha supuesto que su lengua participa de idéntico aislamiento y por las mismas razones.

El paralelismo se extiende igualmente a las divergencias. Cuando un grupo de organismos queda aislado por alguna barrera geográfica o ambiental del conjunto del que formaba parte, sus miembros dejan de poder cruzarse con dicho conjunto originario y el resultado es que las innovaciones genéticas, fruto de mutaciones o de recombinaciones, ya no son neutralizadas, disolviéndose en el conjunto, sino que terminan por triunfar y por producir a la larga una nueva especie: es lo que el darwinismo clásico llama especiación alopátrica. Pero no de otra manera nacen las lenguas:

cuando un grupo de hablantes queda aislado respecto a hablantes con los que antes mantenía intercambios comunicativos (por ejemplo, cuando los hablantes de latín de las distintas regiones del imperio romano dejaron de relacionarse entre sí al producirse el hundimiento de la estructura imperial), las variaciones lingüísticas que se van produciendo en dicho grupo no son absorbidas por el diasistema originario, sino que terminan por consolidarse y por constituir la norma de un nuevo sistema, de una nueva especie lingüística (López García 2002). En ambos casos, cuando se produce la constitución de una nueva etnia y cuando se produce el nacimiento de una nueva lengua, la razón es la misma, el aislamiento del grupo, por lo que no es de extrañar que sus respectivas taxonomías sean tan parecidas.

El cuadro de Cavalli-Sforza y las razones que subyacen al mismo nos autorizan a examinar el mapa de lenguas de Ruhlen con nuevos ojos. Llama la atención que, junto a los grandes troncos, sólo se señalen estas pocas lenguas aisladas. Evidentemente, el aislamiento de un idioma obedece a que el grupo humano que lo habla ha vivido aislado de los demás, de forma que no sólo no ha intercambiado genes ni patrones culturales (memes) con ellos, sino que tampoco ha intercambiado estructuras lingüísticas (lingüemas). Lo que los biólogos llaman especiación alopátrica responde al mismo principio. Un grupo de individuos, al quedar aislado del resto por una barrera geográfica (un río caudaloso, una montaña infranqueable, un mar), empieza a desarrollar una dirección genética divergente y con el tiempo forma una especie de características singulares.

Pero el País Vasco, un territorio perteneciente a la Galia y a Hispania, las provincias más romanizadas de Europa occidental después de la propia Italia, estaba bastante cerca de los núcleos de decisión del Imperio según pone de manifiesto la fundación de ciudades importantes en su interior. Para colmo, a partir del dudoso descubrimiento de la tumba del apóstol en Galicia, el territorio vascohablante será atravesado nada menos que por el camino de Santiago, la principal vía medieval de transmisión de la cultura y de uniformización lingüística. Por eso han sido tan abundantes los intercambios de lingüemas (y de memes) entre el País Vasco y los territorios circundantes: de material léxico en el sentido euskara < romances, de estructuras fonológicas o sintácticas, más bien en sentido contrario (Michelena 1988), todo lo cual se compadece mal con el (relativo) aislamiento genético de la población señalado por Cavalli-Sforza.

Decían los presocráticos que el principio del filosofar es el asombro: asombro ante los hechos más triviales de la vida diaria como la salida y la puesta del sol a los que, lejos de despacharlos con una metáfora (el viaje de Febo que sale por la mañana y se pone por la tarde) se intenta comprender en varios tratados titulados monótonamente *Sobre la naturaleza*: de aquí a Ptolomeo no hay más que un paso. Pues bien, la pervivencia del vasco suscita un asombro similar: si dejamos de lado las habituales explicaciones metafóricas y voluntaristas a que he aludido, nos queda la sospecha de que el euskara no debería haber sobrevivido a las sucesivas invasiones idiomáticas de los celtas y, menos aún, a la del latín. Y, sin embargo, ahí está. La ciencia se alimenta de este tipo de retos intelectuales. En lo que sigue y habida cuenta de lo vulnerables que resultan las explicaciones contextualistas (políticas, geográficas, socioculturales) intentaré ofrecer una explicación de tipo estructural, es decir, interna a la lengua y no externa.

Antes de continuar, empero, cumple desechar una explicación estructural antigua que creo se halla bastante descaminada. El argumento sería más o menos el siguiente: frente a los idiomas que lo rodean, el vasco tendría una estructura gramatical tan fuertemente trabada que haría imposible su progresiva mixtificación y ulterior pérdida. Esta idea, que entronca con la apología de Larramendi (1729: 8) cuando destaca que el euskara posee una extraña consistencia interna porque:

...sin asambleas y de primera mano, sale el Bascuenze tan primoroso, tan arreglado, tan en solfa de declinaciones, conjugaciones, sintaxis con sus ocho partes, prosodia con sus acentos...

fue recogida curiosamente por Darwin (1871: chap. 3) en términos negativos cuando afirma que, frente a la ductilidad del inglés para tomar en préstamo todo tipo de propiedades lingüísticas de otros idiomas, las lenguas como el euskara y los idiomas amerindios tienen un sistema gramatical cerrado que se derrumba al sustituir una sola pieza por lo que, en opinión del padre de la teoría de la evolución, no pueden transformarse:

The perfectly regular and wonderfully complex construction of the languages of many barbarous nations has often been advanced as a proof either of the divine origin of these languages, or of the high art and former civilisation of their founders. Thus F. von Schlegel writes: «In those languages which appear to be at the lowest grade of intellectual culture, we frequently observe a very high and elaborate degree of art in their grammatical structure. This is especially the case with the Basque and the Laponian, and many of the American languages». But it is assuredly an error to speak of any language as an art, in the sense of it having been elaborately and methodically formed ... With respect to perfection, the following illustration will best shew how easily we may err: a crinoid sometimes consists of no less than 150,000 pieces of shell, all arranged with perfect symmetry in radiating lines; but a naturalist does not consider an animal of this kind as more perfect than a bilateral one with comparatively few parts, and with none of these parts alike, excepting on the opposite sides of the body. He justly considers the differentiation and specialisation of organs as the test of perfection. So with languages: the most symmetrical and complex ought not to be ranked above irregular, abbreviated, and bastardised languages, which have borrowed expressive words and useful forms of construction from various conquering, conquered, or immigrant races.

Permítaseme expresar mi perplejidad ante este tipo de argumentos. Probablemente lo que les subyace es la siempre errónea equiparación entre lengua e ideología. Es cierto que hay idiomas sagrados de determinadas religiones que, por un esfuerzo consciente, se mantienen y depuran hasta constituir un sistema simétrico y cerrado: así el árabe literal del Corán o el sánscrito de los Vedas. Pero, junto a estas modalidades que no evolucionan porque no se quiere que lo hagan, sus variantes populares lo hacen siempre y lo hacen en el sentido de tomar prestado cuanto necesitan de otras lenguas y de desestructurar los paradigmas existentes creando otros nuevos bastante más irregulares. Así ha ocurrido con el árabe vulgar de los distintos países del norte de África y de Oriente Próximo o con los derivados modernos del prácrito (hindí, bengalí, urdu, etc.). En el caso del euskara sucede lo mismo: ha habido numerosos intentos de congelar la lengua en una fase adánica, supuestamente

adecuada a la expresión del alma vasca, pero todos han fracasado como no podía menos que suceder.

Cuando me refiero a propiedades estructurales del euskara que expliquen el misterio de su pervivencia moderna estoy pensando en otra cosa. Vivimos en Lingüística una reivindicación de la oralidad, la cual no deja de tener concomitancias patentes con la ideología del multiculturalismo, igualmente en boga. El argumento es más o menos el siguiente: puesto que todas las culturas tienen el mismo valor y la mayor parte son culturas orales, es necesario privilegiar la oralidad en detrimento de la escritura. Pero esta manera de pensar esconde una falacia: una cosa es que lo oral deba ser atendido en el lenguaje como se merece, puesto que lo escrito constituye siempre un después que lo presupone, y otra que debamos considerarlo como una suerte de ideal primitivo e incontaminado. Esto lo dejó muy claro Ong (1982) en un libro que se suele aducir como Biblia irrefutable de las reivindicaciones oralistas:

En efecto, el lenguaje es tan abrumadoramente oral que, de entre los muchos miles de lenguas —posiblemente decenas de miles— habladas en el curso de la historia del hombre ... la mayoría de ellas no han llegado en absoluto a la escritura ... Hasta ahora no hay modo de calcular cuántas lenguas han desaparecido o se han transmutado en otras antes de haber progresado su escritura... La escritura, consignación de la palabra en el espacio, extiende la potencialidad del lenguaje casi ilimitadamente; da una nueva estructura al pensamiento y en el proceso convierte ciertos dialectos en “grafolectos” (17-18) ... Todo pensamiento, incluso el de las culturas orales primarias, es hasta cierto punto analítico: divide sus elementos en varios componentes. Sin embargo, el examen abstractamente explicativo, ordenador y consecutivo de fenómenos o verdades reconocidas resulta imposible sin la escritura y la lectura. Los seres humanos de las culturas orales primarias, aquellas que no conocen la escritura en ninguna forma, aprenden mucho, poseen y practican gran sabiduría, pero no ‘estudian’ (18).

Las lenguas sin escritura tienen, pues, una debilidad estructural intrínseca para conocer el mundo y transmitir este conocimiento a otros seres humanos. Lo queramos o no, aunque todas las lenguas son igualmente complejas y perfectas, las culturas respectivas que sostienen *no* lo son: las lenguas con escritura siempre sostuvieron culturas muy superiores a las de las lenguas analfabetas. Por eso, cada vez que una lengua oral ha entrado en contacto con idiomas que se escribían, se ha enfrentado a la siguiente disyuntiva: o adoptar un sistema de escritura o desaparecer. Tanto es así que cuando consideramos un mundo lingüístico bien conocido como la dispersión románica que siguió a la fragmentación del latín, nuestra apreciación anterior se torna axioma irrefutable: todos los dialectos románicos que no llegaron a escribirse han desaparecido, y los que se escribieron han terminado por volverse lenguas o están en camino de serlo.

En estas condiciones no es de extrañar la avidez de los pueblos analfabetos por dotar a sus lenguas respectivas de un sistema de escritura. Ello explica que, tras la época clásica (latín, griego, árabe, chino, sánscrito, armenio, georgiano, japonés hiragana...) y tras los primeros balbuceos medievales (francés, catalán, gallego, castellano, italiano, antiguo eslavo, inglés, alemán..., pero también coreano o japonés katakana), se produjeran cuatro avalanchas sucesivas: la renacentista, que

alfabetizó varias lenguas europeas, entre ellas el vasco, así como bastantes idiomas amerindios; la romántica del XIX, la cual, vinculada estrechamente al nacionalismo político y cultural, se preocupó por alfabetizar los idiomas europeos que no se habían escrito todavía (por ejemplo, el nynorsk de Noruega); la colonial de la URSS, gracias a la cual los idiomas del Asia soviética conocieron por primera vez la escritura; la postcolonial que hizo ingresar a numerosos idiomas africanos y asiáticos en la modernidad. Fuera de esta lista no hay salvación para una lengua, salvo si ha permanecido completamente aislada o sólo ha entrado en contacto con idiomas igualmente ágrafos (es el caso de los amerindios antes del descubrimiento de América por los europeos).

En muchos de estos casos hubo aculturación, nadie lo duda, pues la escritura se introdujo con textos que expresaban la religión o la cultura del otro. Sucedió con la alfabetización de los indígenas americanos por los misioneros europeos (las *Artes* se escribieron para enseñarles el catecismo cristiano), con la de los pueblos turcos e iraníes convertidos al Islam y, también, con la propia lengua vasca, cuyos textos primitivos expresan un mundo espiritual protestante bastante ajeno a la tradición del país. Todo esto es lo de menos: aculturadas o no, las lenguas que se escriben entran a formar parte de otra dimensión cognitiva y quedan salvadas para la historia. Sin embargo, la relación de arriba vuelve a poner sobre el tapete la singularidad del vasco. Porque lo notable no es que la escritura lo salvase de desaparecer en el siglo XVI (como al rumano o al albanés), es que, pese a no tratarse de un pueblo culturalmente aislado, sino todo lo contrario, su lengua no hubiese desaparecido mucho antes en contacto con lenguas escritas tan poderosas como el ibero y, a partir del siglo I. D. J.C., con mayor razón, el propio latín. El latín acabó con las lenguas de los territorios fuertemente romanizados, incluso con las que ya se escribían como el ibero. ¿Por qué no desapareció el euskara, una lengua oral antes del XVI, tan sólo atestiguada epigráficamente en las inscripciones aquitanas y en algún resto ocasional como las Glosas Emilianenses?

1642an txakur ezezagun batzuek Erronkaribarko jauntxo bati idi bat hil zioten. Txakurrak norenak ziren ez zekitenez lekukoak bilatu nahi izan zituzten auzia argitzeko. Lekukorik ez zegoen, ordea, eta ezinezkoa izan zen errudunak harrapatzea. Baina idiaren jabea itzal handiko gizona zen eta Inkisizioa bere alde zeukan. Txakuraren jabe ezezagunen kontra agindu bat argitaratu zuten esanez beren burua eman zezatela edo, bestela, zeruko atea itxita izanen zituztela betiko. Hala eta guztiz ere, gaizkileak ez ziren agertu eta, orduan, gaiztakeriak zigorra merezi baitu, Inkisizioak txakuraren jabeen eskumikua aldarrikatu zuen, jabeak nor ziren edo txakur deslailak ote ziren jakin gabe.

1.7. Higanotak eta baskoak

Erronkarin, belagin eta gaizkile ezezagunez gain beste sineste hausle batzuk ere baziren, denak Inkisizioak jazarriak eta, harrapatuz gero, sutara bidaliak. Pirinioz haratagoko lurretan, heretikoak ere jazarriak izan ziren urrikalmendurik gabe. Babeslekurik ez zen lur haietan. Biarnoko edo Zuberoako higanot heretikoak, ahal zutelarik, Nafarroa Garaira igarotzen ziren ihesean. 1596an erregearen kapitain orokorraren aginduz erronkariarrak gerrarako prestatu ziren, mugaz bestaldetik etor zitekeen higanoten uholdea geldiarazteko.

Hala eta guztiz ere, erronkariarrek oso erlazio estua eta, gehienetan, ona izan ohi zuten iparreko beren aldameneko biarnes eta baskoekin (Iparraldeko nafarrak eta zuberotarrak beraiek). Horregatik, Frantziaren aurkako gerra aldarrikatu zelarik, Espainiako erregea mesfidati agertu zen, hegoaldeko nafarrek iparraldekoiei eman ziezaieketen balizko babesarengatik. Iruñeko azokan bertan Iparraldeko sosa (*cornados de bascos y bearne*) onartzen zen hemengoa balitz bezala. Horregatik, erregearen ordezkariak diru horren erabilera debekatzeko saiatu ziren behin eta berriz, ez osoki zorte handiz:

Iruñea, 1593.03.24: «Don PHELipe Por la gracia De dios Rey de castilla de navarra... A quantos la P[rese]nte veran e oyran hacemos saver que se nos a echo Relacion que contraveiniendo a nuestras leyes hordinanças y Provisiones Reales echas cerca de la moneda de algunos dias a esta Parte en esta n[uest]ra ciudad de pamp[lo]na y en otras ciudades Villas y lugares de este n[uest]ro Reyno de navarra se a comenzado a

destrubuir Por personas que no se save çierta moneda de cobre menuda, menor que los cornados que se labran en la casa del amoneda (sic) desta dicha Ciudad de Pamp. que Paresce ser labrada en tierra de bascos y bearn y que pasan y corren por cornados siendo la tal moneda de menos ley y peso y balor que tres Pieças della no balen tanto como un cornado deste Reyno... todos los que tubieren de las dichas monedas de cobre y cornados de bascos y bearne y otras quales quiere de bellon de Reynos estranjeros se desagan dellas y las saquen deste dicho n[uest]ro Reyno.» NPA, Erronkaribar, 4. karp., Miguel Punt notarioa.

Iruñeko Jarauta karrikaren izena bera ere erlazio honen lekuko da (cf. *Chéraute*, eusk. *Sohüta*): *Peyrot de eyendoy (e)t domingo ancaña Vezinos del lug(a)r de xarauta de la Tierra de Sola de françia* (1603.01.02 NPA).

1.8. Agotak

Jendetan den ederrena omen duzu agota. Esaera zaharrak hala omen dio bederen. Izan ere, agotak oso langileak, esanekoak eta apalak izatera behartuta zeuden, beren herrietan jazarriak izan eta beti norbaiten menpe egotera eta obeditzera derrigortuak zeudelako. Hala eta guztiz ere *Joan elizalte agote de garde* (1612 NPA) gizon menderakaitza zen. Erronkariarren iritziz, agot harrotua, bertakoen nagusitasuna zalantzan jartzera ausartzen zen lotsagabea. Joan Elizalde agota hor barna ari omen zen esaten (irain larria eta, gainera, ilegala zela jakin arren) bere guraso, aiton-amona eta berraitona guztiak erronkariarrak bezain onak zirela.⁸ Hori gutxi balitz, Garden bizi zen arren, Joan Elizaldek ez zuen ez Gardeko ez ibarreko bazkalekuak gozatzeko eskubiderik eta, hala eta guztiz ere, ez zuen kasurik egiten. Eta ibarrari baimenik eskatu gabe abereak erosi eta alhatokietara eramaten hasi zen temakeria handiz, erronkariarra balitz bezala, harik eta atxilo hartua izan eta bere errua publikoki aitortu zuen arte.⁹

Gardeko agot hau bezain mutiria zen beste bat bizi omen zen Bidankozen: *Juanes urdin acos agote de vidangoz* (1623 NPA). Hau ere harroputza erronkariarren iritziz, ez baitzuen onartu nahi eskubiderik ez zuela erronkariarrek beren janzkeretan zeramaten azpildura gorria erabiltzeko. Halere, Juanes Urdin Akozek ez entzunarena egiten zuen behin eta berriz, nahiz eta ongi jakin isuna ezar ziezaioketela edota kartzelatua izan zitekeela berehalaxe. Baina bera ez omen zen horregatik beldurtzen. Finean, kartzelatu eta isuna jarri ondoren azpildura gorria kendu omen zioten, baina ez zuten halere agot hezikaitza menderatzea lortu:

⁸ "... parecio pnte. en la casa del Concejo de la dicha villa uno llamado *Ju.o elizalte* abitante en la v.a de garde de la casta y opinion de agotes y dixo que el esta preso por mandado de los alles. de la Junta de la valle de Roncal por auer dicho ante ellos q. el y sus (padres) aguelos bisaguelos son tan buenos como todos los q. estaban en la dicha junta." 1612.06.22, NPA.

⁹ "... en qnto. a lo del ganado tambien Conocia y Conoço no poder gozar las yerbas y aguas de la dicha valle sin su boluntad y Consentim(en)to y por lo que a errado y faltado a Su oblig(aci)on q. tenia de manifestar a la dicha valle, le pidia y Suplicaba Ussen Con el Con la equiedad y buena gra(cia) q. pudieren y q. desde agora promete y se obliga de pag(a)r el erbago de su ganado y q. no Comprara mas sin el Consentim(ien)to y boluntad de la dicha Valle para gozar las dichas yerbas y aguas de la dicha valle." *loc. cit.*

1623.04.12: «En la Villa de Roncal a doze de abril de mil ses[cien]tos veynte y tres años el señor Ju[anc]o Conget al[ca][d]e Juez hor[dinari]o de la dicha villa en Cumplim[en]to de la m[er]ced y privilegio Concedido por el ex[ce]lentisimo Señor virrey deste Reyno a los hijos originarios de la valle de Roncal en que solos ellos y no otri pueda traer en sus capotes el Ribete Colorado y abiendosele notificado la dicha m[er]ced a Ju[an]es urdin agote Residente en la v[ill]a de Vidangoz por p[rese]ncia de her[nan]do Jorje es[criba]no Real para que atendido q. no hera hijo originario de la dicha valle quitase de Su capote el Ribete colorado dentro de dos dias y por q[ua]nto no abia Cump[lid]o con ello ayer martes le quito el dicho Capote y le multo con quatro du[cad]os aplicados la metad para el fisco de su mag[esta]d y la otra metad para la valle Sobre lo qual le tenia preSso en la Carcel pu[bli]ca de la dicha v[ill]a a pag[a]r la dicha multa y assi el dicho sr. alle. en p[rese]ncia de mi el dicho es[criba]no y le dio bolbio y Restituyo el dicho capote al dicho Ju[an]es urdin abiendo quitado del los Ribetes colorados, y en Seguiete domingo ezquer Jurado de la dicha villa de vidangoz por y en non[br]e del dicho Ju[an]es vrdin dio y pago los dichos quatro du[ca]dos de Cuya paga doy fee yo el dicho es[criba]no de aberles Recebido el dicho sr. al[ca][d]e e quien le dio libertada de la prision en que estava y dello me Requerio hazer auto Siendo tes[tig]os p[edr]o aysa alle. de vidangoz y Ju.o Larequi vez[in]o della y firm[a]n los q. sabian con mi el es[criba]no = Joan conget, Pedro Aysa, joan larequi = Passo ante mi, Luys Ros.» NPA, *Auto de la prision de Juanes urdin acos agote de vidangoz*, Erronkaribar, karp. 22, Luys Ros notarioa.

1.9. Pax, Izabako oikonimoa

Erronkaribarren bizi arren etxea izateko eskubiderik ez zutenen aurkako auzietan bakea nola lortzen zen jakin ondoren (longainetik azpildura gorria kenduz, erronkarriarren nagusitasuna onartuz), jakin dezagun orain bakea nola lortzen den etxea izateko eskubidea zutenekin. Izabako oikonimo batek bakea lor daitekeela dio.

Pax Izabako etxe izena Erronkaribarko antolaketa administratiboarentzat garrantzi handikoa den gai batekin erlazionatu behar dugu: bakuetan sinatzen ziren erkidegoen arteko bake akordioen gaiarekin, hain zuzen ere (cf. Polge 1977).

Batzar Nagusiaren bilera garrantzi handikoa zen Ibarraren barnean bakea gorde ahal izateko. Bilera hori ez zen ospea zuen bakarra, beste arlo batzuk antolatuta eta kudeatzeko ere baziren beste bilkura garrantzitsu batzuk. Abereen kudeaketaz hitz egiteko edo inguruko ibarrekin zituzten akordioak berresteko batzarrak egin behar zituzten urtero. Haien artean, sona handikoa zen ibarreko abereen ustiapenari buruzko auziak argitzeko Urzainkin biltzen zen *mesta* izeneko batzarra.

Erronkaribarrek ibarraren barneko antolakuntza arautzeaz gainera, ondoko herrie-kin zituzten lur mugakideen bazkagien gozamina arautu eta hitzartu egin behar zuten, mugaldeko alhatokiak, oro har, eztabaidatuak izaten baitira eta, ondorioz, gaizki ulertuak sor daitezke. Jakina, lurra norenak diren argi ez dagoelarik eta, herrak ahar-rrak pizten ditu. Arazo hauek edota ibarren arteko bestelako liskarrak konpontzeko urteroko batzarrak egiten ziren auzipean zeuden lur horietan. Bilera hauek egiten ziren lekuari, eta luzapenez, bilera berari, *bakuak*, hots, batzeko lekuak,¹⁰ deitzen zitzairen. Konparazio batera, aipa ditzadan bi hauek: Izabako eta Santa Graziko mu-

¹⁰ Txomin Peillenek gutun pertsonalean adierazia.

gan kokaturik den *Bakhu Egingia* aurkintzan egiten zen bakua eta Bidankozeren eta Zaraitzuren arteko mugan dagoen *Bakelekua* edo *Bakuelekua* aurkintzan egiten zena, *Junta de Zaltungorri* izenaz ere ezagutua.

1.10. *Patxaban*, Bidankozeko borda izena, eta *Hiru Behien Zerga*

Bakuaz ari garelarik, Bidankozeko *Patxaban* oikonimoa (edo *Patxapan*, *Paxapan*, batzuek ahoskatzen duten moduan) bake akordio ezin ospetsuago batekin lotu beharko dugu: *Hiru Behien Zergarekin*, hain zuzen ere, borda izen honek ‘bake engoitik’ esan nahi baitu, hots, gaskoieraz, “paz avant”. Izan ere, esapide gaskoi horren garapena edo desitxuraketa da: “lebantando las manos todos los dhos. Jurados digeron y respondieron que Assi Juraban y amen diziendo por tres vezes *paz aVant paz aVant paz aVant*” (1649 NPA).¹¹

Azkuek bere hiztegian jaso zuen bezala, “Erronkaritarrak, Bearnesen kontra burzegitu zrelakotz, urteoroz Ernazera iror beiantxaren txerka xoaitan dra”. Urterorero, inoiz ere hutsik egin gabe, uztailearen 13an. Erronkaribarren eta Bareton ibarraren arteko *bakua*, erdaraz *Junta de Ernaz* izenaz ezagutzen da, izen bereko aurkintzan egiten delako. Fazeria hau oso ospetsua da Pirinio osoan, elezaharra eta tradizioa, hilketak eta mendekuak, zergak eta ordainsariak, bertan nahasten direlako. Izan ere, *Hiru Behien Zerga* balizko liskar baten ondorioz sortu zela diote, Petri Karrika artzain erronkariarrak Peyrot Sans Soulé artzain baretondarra *Pescamou* izeneko iturriaren ondoan hil zuenean. Biek uste zuten iturria berea zela eta beren abereei edaten emateko lehenasuna zutela. Herri mugakideen aharrak maiz gertatuko ziren *patzeriak* sinatu baino lehenagoko garaietan, lurra norena zen edo nork goza zezakeen erabaki zuten arte.

Auzia ebazteko 1375ean sinatu sententzia arbitralaz baliatzen dira. Ebazpenak arau garbiak ematen ditu bi ibarren arteko zedarriztapenez, iturri eta bazkagien erabileraz, abereak bahitzeko eskubideaz eta behien zergaz. Akordioa gaur egun arte gorde da eta osasuntsu dabil, zerga baino gehiago jai bilakatu delako, alde bateko zein besteko alkateak Semartin Harriar urtero biltzeko aitzakian. Hitzarmena guztiz bizirik dago oraindik ere eta historia osoan ez da ia sekula ere bertan behera utzi. Naziek lortu zuten urte batez bilkura debekatzea baina, oro har, inoiz ere hutsik egin gabe egin den bakua dugu honakoa. Erronkariar ospetsuenak ere Semartin Harrira igo dira, bai eta hantxe bestaz gozatu ere; izan ere, 1883koaren aktan, Julian Gayarrek berak bere sinadura gaineratu zuen hara bertaratu ziren lekukoaren artean.

1.11. *Belaiturri* Izabako oikonimoa, urez bete ardo ematen duen iturria

Bakea egitea betiere ona da. Ondoko ibarrekoekin, *Patxaban* oikonimoa agintzen digun bezala, edo etxekoneko, barride eta aldameneko guztiekin, Izabako *Belaiturri* oikonimoa gogora ekartzen digun bezala, *Belaiturri* etxe ondoko putzua hainbat liskarren eta irainen lekuko isila izan baita. Ondoko aipuan jasotzen den

¹¹ *Paz aVant* (1649 NPA), *Paz avant* (id.), *Paçaban* (1650 id.), *Paçaban* (1651 id.), *Pazaban* (1667 id.), *Pazaban* (1675 id.). Cf. Le Blant (1920), Lonné Peyret (1989) eta Papy (1986).

bezala, batzuen iritiz hango ura erabilia izaten omen zen tabernan saltzen zen ardoa bustitzeko pixka bat:

Izaba, 1593.03.22: «Constituydos en persona Joan barricat tanto por si como marido y conjunta persona de maria algarra su mujer y lucia lorro moça... contra anesa ezquer viuda Vz[in]ja assi bien de ysaba sobre que le acusan haber dicho en presencia de muchas gentes que la d[i]c[h]a lucia lorro es una ladrona y alcahueta y mal aportadora de cosas y sobre que acusar a catalina bornat hija dela dca anesa ezquer que por lo mismo publicamente en presencia de muchas gentes ha dicho y tratado a la dca maria algarra que es muger que se cabalga a sombra de cualquier mata y que si es rica es *la fuente de Velayturri* le ha hecho dando a entender q. las vezes q. ha vendido vino por taberna lo ha hecho vendiendole vino agoado...» NPA, Erronkaribar, Izaba, 6. karp., Miguel Punt notarioa.

1.12. *Rey Erronkariko oikonimo eta deitura*

Bada Erronkari Hirian oikonimo adiera garbiko bat: *Casa el Rey*; Jose Primitivo Garateren, Juan Mendigatxaren eta Valentin Torrearen etxea izan dena. Argi dagoen bezala, *Erregearen Etxea* dugu oikonimo honen itzulpena. Duda izpirik ez dago. Gardena omen. Izan ere, *Casa Real* Gardeko etxe baten izena da eta, beraz, zalantza izpirik ez dago erregeari erreferentzia egiten zaiola. Dena den, gauzak ez daude horren garbi *rey* izena aipatzen den kasu guztietan.

Behin baino gehiagotan ahaztu egiten zaigu gure auzo erdara iparraldean ez dela menderen mendetan frantsesa izan, gaskoiera baizik, hau da, biarnesa. Eta frantsesetzat hartzen dugu maiz frantsesa ez dena. Eta frantsesaren bidez azaldu nahi dugu maiz frantsesaren bidez azal ezin daitekeena. Halako gauza bat gertatu da *La Tabla d'eths Tro(i)s Rois* toponimoarekin, denok frantsesaren bidez *La Table des Trois Rois* irakurri eta ulertu egiten baitugu, *Hiru Erregeen Mahaia* balitz bezala. Baina ez da hala. Gaizki itzulitako toponimoa dugu honako hau, oinarria gaskoia duelako eta ez frantsesa. Mendi honen benetako izen nafar-aragoiarra hauxe da: *El Pueyo de Nay* (1623 Anso UA), honela jaso baita alde honetako dokumentazioan.

Egia esan, biarnesez artikulua femeninoa *era* da eta maskulinoa *et(h)*, baina toponimian notarioek, okzitanez eta beste lekuetako gaskoiera ezagutzen zutenez gero, *la* nahiago zuten femeninoan, eta, eskuarki, maskulinoan *et* onartzen zuten. *Tabla* erronkarieraz eta hemengo biarnesez ez da 'mahaia', 'aduna' baizik, edo bigarren adieran, 'lursaila'. Bestalde, *tro(i)s* biarnesez 'zati' da, erdaraz 'trozo' (ikus Burgi, *Zati-berri* 'el trozo nuevo'). Erronkarin hitz hau erabili ohi da Larrako zatiak izendatzeko 'Los Trozos de Larra'. Bukatzeko, derradan *rois* hitzak (hainbat aldaeraz eta grafiaz, v. gr. *royes*¹²) biarnesez 'gorriak' esan nahi duela eta nafar aragoieraz *royos*, *royas* hitzek adiera horixe bera dutela. *Arrigorrieta* toponimoaren adiera 'haitz gorriak' edo 'belarrik gabekoak' den bezala, *La Tabla d'eths Trois Rois* toponimoarena, gaztelaniaz,

¹² Kontuan har, halaber, *-ix* bukaera (edo *-is* hegoaldeko agiritian) *-its* grafia ordezkatzeko erabilia izan ohi dela Biarnon (Erronkarin, oro har, *-tx* bezala garatzen da): *Jean Amoroix* (1838 Borce PADA), *Jérôme Phordoy Arracoix* (1914 Santa Grazi PADA), baina *Phordoy Aracoits dit Jeandoy* (id.), *Baretous et d'Urdaixs* (1466 PADA), *Bassagaix* (Eskiula kart.), *Ubaix errequida* (1832 Larraine PADA), baina *Ubaix gagneco alhorra* (id.). Cf. Anso, *la Espelunga de Beleis* (1750 UA), *la Espelunga de Boneis* (id.)

La Tabla de los Trozos Pelados da eta ez *La Mesa de los Tres Reyes*, non *tabla* lur zati bat baizik ez den.

2. Erronkaribarko oikonimoen zerrenda

Estornes Lasak (1977) ematen duen etxeak izendatzeko ereduari jarraikiz,¹³ kasu guztietan aldaera sinkopatuak erabili beharko genituzke, betiere inesiboaren arrastoa agerian utziaz (cf. halaber, Mitxelena 1973: § 209). Dena den, dokumentazioan ez da bide hori jorratzen eta artikulu honetan nahiago izan da edutezko genitiboaren erabilera proposatzea, aldaera sinkopatua (*rna*) hautazkoa izanik. Bestalde, kontsonante afrikatuen grafiari dagokionez, artikulazio puntu hobietakoak edota bizkar hobietakoak ez dira kontuan izan eta frikarizat edo, bestela, afrikatu sabaikarizat hartu dira, Erronkarin gauzatze afrikatu gehienak azken mota honetakoak baitira (cf. deit. *Krutzaga*).

2.1. Erronkaribarko oikonimian aipatutako pertsona izen bereziak

Bidankoze, iz. berez. ANBROSIORENA / CASA AMBROSIO (e.b.).- *Ambrosio, Antxon, Bernabe, Diego, Fernando, Luis, Pedro, Zezilio*.

Burgi, iz. berez. ALEJANDRORENA / CASA ALEJANDRO (e.b.).- *Alejandro, Demetrio, Esteban, Ferniando, Jorge, Juana, Julio* (Done), *Justo, Karlos, Kristino, Lazaro, Leon, Luperzio, Mariajuana, Martin, Migel, Pablo, Paskoal El Barbero, Paskual, Pedro, Pristino, Ramon, Roman* (On), *Severino* ("es Lázaro").

Erronkari, iz. berez. AGUSTINENA / CASA AGUSTÍN (e.b.).- *Agustin, Andres, Balentin, Bautista, Benilde, Bizente, Domingo, Esteban, Feliziano, Felipe, Felix, Franzisko, Karlos, Katalina, Kosme, Makareno, Marzial, Monika, Paskual, Pedro Franzisko, Petri*.

Garde, iz. berez. DAMASORENA / CASA DÁMASO (e.b.).- *Damaso, Hilarion, Kasilda, Katalina, Kristobal, Martin Txipi, Marzelo, Matias, Paskual, Sabina, Santxo*.

Izaba, iz. berez. ALONSORENA / CASA ALONSO (e.b.).- *Alonso, Andresa, Antonio, Baldomera, Balentin, Baleriana, Basilio, Benigno, Benito, Biktor, Biktorkiano, Dionisio, Estanislao, Eulogia, Faustina, Federiko, Fortunato, Franzisko, Gabina, Gabriel, Gaspar, Gervasia, Jazinto, Joan, Jorge, Jose Antonio, Juan Paulo, Juan Paullo, Juana, Juanengrasi* (Juana Engrazi), *Kasimiro, Kaietano, Klemen, Kuntxa, Leon, Leonides, Lola, Lorenzo, Luzia, Luis, Makario, Magdalena, Marzela, Marzelino, Mariajuna, Maribitoria, Marrijuana, Maripaiskola, Marta, Matea, Matilde, Migela, Paskual, Paskuala, Paulina, Pedro Ziprian, Pelaio, Petri, Petronila, Pio, Plaio* (Pelaio), *Primitiva* (la), *Prokopio, Robustiano, Rogelia, Salbatro, Sanson, Sanzo, Telesforo, Tomas, Zebrian, Zesario, Zezilio, Ziprian Luis, Ziriako, Zoilo*.

Urzainki, iz. berez. ANGELORENA / CASA ÁNGELO (e.b.).- *Angelo, Balero, Bruno, Enrike, Froilan, Gazpar, Juan Migel, Kintin, Nazaria, Pedro Juan, Pedro Martin, Pello, Santiago, Tiburzio*.

¹³ Aip. egil. ('casa' s.v. 2.): «*Baita*: la casa de Pedro, *Betiri Baita*, y por sufijación, *-enea*: sí en casa de Potient, no en casa de Federico, *bai Potientenean*, ez *Federikonean*.» Patxi Salaberrik ohartarazten didanez, *Bait*-dun etxe izenak Euskal Herriko alderdi jakin batean baizik ez dira erabili: Lapurdin eta Bortzerrietan (ez Etxalarren) Iturenaino.

Uztarroze, iz. berez. AGUSTIN BAITA, AGUSTINENA / CASA AGUSTÍN (e.b.).- *Agustin, Andres, Baltasar, Benito, Ciprian, Estebafre* (Esteban (Freñando?)), *Gregorio, Hilarión, Idefonso, Jose Niño, Mariana, Martin, Mixel, Pilar / Pilart* (cf. deit. Bidart), *Roldan, Rufino, Tadeo, Ziprian Antonio, Ziprian*.

2.2. Erronkaribarko oikonimian aipatutako deiturak

Bidankoze, deit. ALGARRARENA / CASA ALGARRA (e.b.).- *Algarra, Aristu, Arlla, Arosa, Arotx, Artutx, Elizalde, Elizalt, Ernaltz, Ezker, Fuertes, Gaiarre, Garro, Iniguez, Iriarte, Jimeno, Labari, Landa, Lareki, Lisalte, Lopez, Mainz, Meabe de la villa de Sarries, Monzon, Navarro, Ornat, Paskel, Salbotx, Torrea, Txerrail, Txoko, Uhalde, Uhalde, Xoko, Zoko*.

Burgi, deit. ABIZANDARENA / CASA ABIZANDA (e.b.).- *Abizanda, Aierra, Anai, Anaut, Arresia, Arros, Arrotx, Artika, Ayerra, Babil, Baiber, Baines, Baraze, Bilejo, Blasquiz,¹⁴ Borro, Bronte, Charles,¹⁵ Dausoa, Eginola, Erlanz (Herlanz), Esparza, Etxegoien, Fayanas, Ganare, Garat mayor, Garate, Garzia de Burgi, Ginda, Glaria, Iglesia, Inza, Larrea, Larreta, Laspidea, Mendibe, Nabarroi, Navarro, Nikotxea, Orduna, Otxoa Zoko, Perez, Periz, Plaza (De la), Portaz, Regoin, Remon, Solana, Torrea, Txarles, Ugalde, Urrelo, Urrutia, Zabalza, Zoko*.

Erronkari, deit. AKERRETARENA / CASA AKERRETA (e.b.).- *Akerreta, Alkazaua (Alcazaba), Andueza, Argonz, Arnaut, Arotx, Arregi, Artutx, Baines, Barrena, Barrikat, Belza, Bernat, Bertol, Billotx, Bon, Bortiri, Brugorri, Burugorri, Cabodevilla, Campasolo, Daspa, Donazar, Eder Salbotx, Esandi, Estrada, Etxandi, Gainza, Gale, Ganbra, Garat, Garate, Garjon, Garzes Molin, Garzia, Gilimotx, Glaria, Indurain, Intxusta, Iriarte, Jabala (Xabala), Jamar (Xamar), Jandua (Xandua), Jauregi, Kanture, Kotxoa, Krutxaga, Laboraria, Landa, Larrenta, Lasala, Lopez, Mainz, Maio, Mantxo, Mariscal, Marko Jabala (Marko Xabala), Marko Sarries, Marko, Martitx, Mayo, Mendigatxa, Molin, Monzon, Orduna, Oria, Ornat, Oset, Perez, Pilart, Rekalde, Remon, Retoza, Rey, Rojo, Ros, Salbotx, Sanz, Sarries, Serrano, Sonavilla, Soteras, Surio, Tetxe, Torrea, Txerrail, Urzainki, Xabala, Xamar, Xandua, Zamargilea, Zapataria, Zarra, Zazu, Zoko*.

Garde, deit. ALFAURERENA / CASA ALFAURE (e.b.).- *Alfaure, Alkat, Alkazaua (Alcazaba), Añaños, Andueza* (Cf. Larraine, top. Andoze), *Anso, Argonz, Artixet, Atotxa, Aznarez, Barrena, Begino, Beltran, Bernat, Bertol Migel, Blalco, Bon, Bradina, Casado, Cortes, Eder, Esparz, Etxandi, Ezker, Fernandez, Fuertes, Gaiarre, Galetx, Galindo, Gallant, Garjon, Garzia, Gillen, Glaria, Gorri, Gorrindo, Huesa, Iglesia, Ignacen, Indurain, Jauregi, Krutxaga, Lamarka, Laporta, Lasaosa, Laseta, Latran, Loigorri, Lopez, Lorente, Mainz, Maisterra, Mantxo, Marko, Masterra, Mehia, Mendigatxa, Navarro, Nikolao, Orduna, Parra, Paskel, Perez, Salbotx, Sanz, Sastre, Surio, Txerrall, Urzainki, Zoko, Zubiri*.

Izaba, deit. ABIZANDARENA / CASA ABIZANDA (e.b.).- *Abizanda, Agerre, Aguado, Albeniz, Algarra, Alkat, Amigot, Anaut Lugea, Andi, Anso, Antxo, Anzaia, Ardatx, Arrako, Arregi, Arrizurieta, Autx, Baines, Baistero, Bake, Ballaz, Baraze Baines, Baraze Petrotx,*

¹⁴ Patronimikoak euskal grafiarekin idatz daitezke (Salaberri).

¹⁵ Zergatik ez *Txarles*? Ohikoak zen gure artean (id).

Bernat, Bidal, Bidar (graf. *Vidar*, cf. *Bidart*), *Bidart, Blasquiz, Bolant, Bon mayor, Bueno, Burugorri* (Burogorri), *Conget* (Konye), *Dronda, Ederra, Egurbide, Errabresa, Esandi, Esparz, Estornés, Ezker, Fernández, Gaiarre, Gale, Garde, Garralda, Gastetx, Gil, Gillen, Gorrindo, Ibarra, Indurain, Intxa, Ipas, Jarra, Jimeno, Karrika, Konjet, Labaire, Labairu, Landa, Lanperez, Larreta, Lasa, Lugea (Luxea), Mainz, Maio, Marcilla, Marko, Menaut, Mendigatxa, Nikolau, Noke, Orduna, Ortiz, Otxoa, Peretx, Perez, Petrotx, Ripalda, Ros, Salanova, Salbotx, Sandi* (cf. *eSandi*), *Santamaria, Santxez, Sanz, Sena, Soro, Tapia, Tutero, Txabarne, Txarrail, Txetxenike* (cf. *Etxenike*), *Txibarro* (cf. *Etxebarne*), *Txiberri* (cf. *Etxeberri*), *Uhalde, Vidal* (cf. *Bidart, Pilar*), *Xarra* (graf. *Jarra*).

Urzainki, deit. ANDREURENA / CASA ANDREU (e.b.).- *Andreu, Argonz, Aroza, Baines, Belea, Bergara, Bergera, Bertol, Braskotx, Conget, Erlex, Esandi, Etxandi, Fernandez, Fuertes, Gaiarre, Galetx, Iñigiz, Jarra, Karrika, Konjet, Krutxaga, Landa, Laporta, Larrenta, Lopez, Lopiz menor, Lorea, Lusar, Mainz, Maio (Mayo), Navarro, Nekotxea* (Nekotx), *Orduna, Paskel, Perez, Salbotx, Solana, Txandi* (cf. *Etxandi*), *Txarrail, Txart* (Cf. *Etxart*), *Txerrail, Urzainki, Uztarroz, Vergara, Xarra / Jarra*.

Uztarroze, deit. AROZARENA / CASA AROZA (e.b.).- *Aroza, Arregi, Arrospide, Ezker, Galán, Garde, Garrido, Gorostordoi, Gorri, Gorria, Irigoien, Jauregi, Karrika, Krutxaga, Laiana, Lanz* (cf. *Erlanz*), *Lorea, Luxea (Lujea), Maio, Maistera, Marko, Mendi, Nekotx, Ollaberri* (cf. *Olaberri*), *Orduna, Otxoa, Sanz, Tapia, Tolosana, Uhalde*.

2.3. Errokaribarko oikonimian aipatutako izen-deiturak

Bidankoze, iz.-deit. ANGEL AROSARENA / CASA ÁNGEL AROSA (e.b.).- *Angel Arosa, Antonio Mainz, Akelino Larranbe, Domingo Ernalz, Fermin Paskual Salbotx, Ignazio Monzon, Joanot Belza, Juan Lareki, Lorenzo Mainz, Luis Mainz, Paskual Uhalde, Pedro Elizalde, Pedro Elizalt, Pedro Iñigez, Pedro Iñigiz, Romualdo Perez, Santxo Ezker*.

Burgi, iz.-deit. DOMINGO GARAT NAGUSIARENA / CASA DOMINGO GARAT MAYOR (e.b.).- *Domingo Garat mayor, Esteban Kamin, Iñigo Txarles, Joakin Ugalde, Joan Portaz, Josef Orduna, Juan Babil, Juan Bronte, Juan de la Plaza, Juanasinza* (Juanes Inza), *Juanko Urrelo, Juanrosillo* (Juan Rosendo), *Luis Perez, Martin Sanz, Martin Solana, Matxin Regoin* (Martin Iregoin), *Migel Angel, Migel Etxegoien, Migel Perez, Pablo Lorente, Pablo Mantxo, Pascual Periz, Pascual Remon, Pedro Arrotx, Pedro Bronte, Pedro Erlanz, Pedro Leon, Pedro Monte* (Pedro Bronte), *Simon Orduna*. || Trataera modua: *Don Pedro*, la Borda de.

Errokkari, iz.-deit. AGUSTIN ANDRESENA / CASA AGUSTÍN ANDRÉS (e.b.).- *Agustin Andres, Agustin Barrikat, Ambrosio Rekalde, Angelo Zamargilea, Antonio Labiano, Atanasio Remon, Balentin Torrea, Baltasar Landa, Bautista Barrera, Bautista Sanz, Benilde Orduna, Biktoria Mainz, Bizente Donazar, Bizente Lopez, Bizente Mainz, Bizente Mendigatxa, Bizente Ornat, Bizente Soravilla, Blas Lopez, Diego Landa, Domingo Eder, Domingo Garzes Molin, Domingo Laboraria, Domingo Lopez, Domingo Monzon, Domingo Oria, Domingo Petri, Domingo Zapataria, Ebaristo Artutx, Estanislao Garzia, Esteban Andres, Esteban Burugorri, Esteban Daspa, Esteban Garjon, Esteban Jamar, Esteban Marko Sarries, Esteban Martin, Feliziano Jorge, Feliziano Serrano, Felipe Andres, Felipe Etxandi, Felix Cabodevilla, Felix Gainza, Fermin Surio, Franzisko Barrera, Franzisko Barrikat, Franzisko Eder, Franzisko Estrada, Franzisko Etxandi, Franzisko Garate, Franzisko Indurain, Franzisko Mantxo, Franzisko Oset, Franzisko Perez...*

GRAZIA GARATENA / CASA DE GRACIA GARAT (e.b.)¹⁶.- *Grazia Garat, Grazian de Larraun, Gregorio Jauregi, Ildelfonso Barrena, Jabier Fermin Ros, Jabier Iriarte, Jabier Simon Burugorri, Joakin Cabodevilla, Joakin Eder, Joan de Lasala, Joan Garde, Jose Bernardo Sanz, Jose Burdaspal, Jose Etxandi, Jose Franzisko Sanz, Jose Gale, Jose Ignazio Andueza, Jose Indurain, Jose Joakin Burdaspal, Jose Manuel Jandua, Jose Maria Belza, Jose Martin, Jose Perez, Josef Eder, Juan Kosme Bernat, Juan Esteban Garate, Juan Ignazio Zazu, Juan Jabier Daspa, Juan Jose Martin, Juan Jose Mendigatxa, Juan Jose Zamargilea, Juan Migel Sarries, Juan Pablo Pilart, Juanko Brugorri, Julian Orduna...*

KATALINA KRUTXAGARENA / CASA DE CATALINA KRUTXAGA (e.b.)- *Katalina Krutxaga, Kontxa Sanz, Lorenzo Bon, Manuel Baines, Manuel Banes, Manuel Intxusta, Manueliko Martin, Maria Arotx, Maria Esandi, Maria Ramona Argonz, Mariano Bortiri, Mariano Ros, Martiginda (Martin Ginda), Martin Sanz, Meltxor Monzon, Migel Felipe, Pablo Mantxo, Paskual Alcazaba, Paskual Marko, Paskual Ornat, Paskual Sanz, Paskual Txerrail, Paskual Urzainki, Patrizia Eder y Salbotx, Paula Ros, Pedro Barrena, Pedro Esteban Arregi, Pedro Esteban Billotx, Pedro Esteban Eder, Pedro Franzisko Perez, Pedro Garjon, Pedro Jose (Martin y) Daspa, Pedro Jose Ornat, Pedro Juan Garjon, Pedro Larrenta, Pedro Lorenzo Perez, Pedro Ramon Lopez, Pedro Tomas Urzainki, Pedro Bizente Ganbra (Don), Pedro Zazu, Pio Glaria, Ramon Andres, Ramon Bertol, Simon Burugorri, Tomas Eder. || Trataera modua: *La Tía Mónica, Don Pedro Vicente Ganbra.**

Garde, iz.-deit. AGUSTIN GLARIARENA / CASA AGUSTÍN GLARÍA (e.b.)- *Agustin Glaria, Agustina Krutxaga, Ambrosio Lopez, Andres Cortes, Angel Casado, Angel Glaria, Bartolome Gaiarre, Bartolome Garzia, Benita Santxo, Benito Mainz, Benito Urzainki, Bernardino Fernandez, Blas Gorri, Domingo Fuertes, Domingo Gaiarre, Domingo Manuel Casado, Domingo Manuel Gaiarre, Domingo Migel Beltran, Domingo Navarro, Elias Barrena, Esteban Bon, Felix Sanz, Feliziano Begino, Fernanda Etxandi, Grazia Nikolao, Ignazio Lorente, Jesus Alfaure, Jose (Maria) Urzainki, Jose Indurain, Jose Ramon Krutxaga, Jose Salbotx, Joset Gorrindo, Joset Ignazio Urzainki, Joset Manuel Iglesia, Joset Ramon Eder, Juan Domingo, Juan Joset Aznarez, Juan Laseta, Juan Mehia, Juan Migel Alkat, Juan Sanz, Juan Soldado...*

JUANKO ALKAZAUARENA / CASA JUANKO ALCAZABA (e.b.)- *Juanko Alkazaua, Juanko Gaiarre de Paskel, Juanko Laseta, Juanko Paskual de Gaiarre, Julian Gillen, Katalina de Eskarez (Ezkaroze), Kristobal Lopez, Leon Barrena, Leon Casado, Manuela Anso, Manuela Salbotx, Maria Angela Bradina, Maria Angela Ignazen, Maria Antonia Jauregi, Maria Isabel Urzainki, Maria Jeronima Gorri, Maria Josefa Orduna, Maria Parra, Maria Teresa Gorrindo, Martina Inés Bernat, Migel de Mendigatxa, Migel Javier Argonz, Migel Ramon Añños, Migelanbra (Migel Ganbra), Pankrazio Gillen, Paskual Zoko, Pedro Alkat, Pedro Beltran, Pedro Esteban Perez, Pedro Gaiarre, Pedro Ignazen, Pedro Indurain, Pedro Lasaos, Pedro Loigorri, Pedro Manuel, Pedro Martin Marko, Pedro Migel Gaiarre, Pedro Migel Lopez, Pedro Uhesa, Petronila Casado, Pio Andueza, Raimundo Anso, Rosendo Beltran, Santiago Aznarez, Tomas Sanz.*

¹⁶ Erronkariko oikonimian jaso diren izen-deituren kopuru handia ikusita, zenbait paragrafotan bannatu dira irakurketa erraztearren. Paragrafo bakoitzaren aurrean, paragrafoaren lehenengo oikonimioa aipatzen da era normalizatuan. Hemendik aitzina honela jokatuko da baldin eta oikonimoen kopurua handiegia bada.

Izaba, iz.-deit. ADRIANO ESANDIRENA / CASA ADRIANO ESANDI (e.b.).- *Adriano Esandi, Agustina Lasa, Alfonso Ipas, Andres Algarra, Andres Bueno, Angel Anso, Angel Noke, Angel Ros, Atanasio Ezker, Bautista Amigot, Benanzio Anaut y Lugea (Luxea), Bizent Landa, Bizente Labairu, Dolores Landa, Domingo Konjet, Domingo Lasa, Esteban Garde, Felipe Ederra, Felipe Marko, Felipe Martxon, Fermin Bon, Fermin Petrotx, Franzisko Ballaz, Franzisko Maio, Jazinto Markon, Jazinto Martxon, Jesus Mainz, Joan Egurbide, Joakin Andi, Jose Peretx, Jose Perez, Josef Baraze Baines, Josef Baraze Petrotx, Josef Leandro Orduna, Juan Algarra, Juan Bizente, Juan Josef Indurain, Juan Pito, Juan Tapia, Julian Baraze, Julian Baraxe, Julian Perez, Kaietano Ezker, Kasimiro Anaut, Kristobal Petrotx...*

LUZIO ANAUTENA / CASA LUCIO ANAUT (e.b.).- *Luzio Anaut, Manuel Amigot, Manuel Anso, Manuel Bueno, Manuel Uhalde, Maria Ezker, Maria Karrika, Maria Paskuala, Mariano Gillen, Matias Andi, Matias Labairu, Migel Bon, Paskual Antonio, Paskual Ederra, Paskual Salbotx, Pedro Agerre, Pedro Angel Ezker, Pedro Antonio, Pedro Ezker, Pedro Marko, Pedro Mendigatxa, Pedro Uhalde, Pierra Gil, Remon Tuteru, Santxo Joan, Sebastian Otxoa, Xabier Anaut, Ziprian Tapia, Zipriano Perez.*

Behin baino gehiagotan izena eta deitura bat eginik azaltzen zaizkigu: KATALINGARDE BAITA, KATALINGARDENA / CASA KATALINGARDE (e.b.).- *Katalingarde, Angelanso, Jualanda (Juan Landa), Manolanso (Manuel Anso), Matiasandi, Paskualandi, Pedrozipian, Pedrogon (Pedro Bon), Petribarra (Petri Ibarra), Santxogarde, Tomasiderra (Tomas Ederra), Zipriansandi.*

Urzainki, iz.-deit. BIZEN LOREARENA / CASA BIZEN LOREA (e.b.).- *Bizen Lorea, Blasko Inigiz, Dionisio Fuertes, Domingo Braskotx, Domingo Esandi, Epifanio Baines, Esteban Uztarroz, Felicia Txerrai(l), Felipe Konjet (Felipe Conget), Felipe Salbotx, Fernando Fernandez, Franzisko Bergera, Franzisko Krutxaga, Hilario Urzainki, Jesus Gaiarre, Joan Belea, Joan Lopiz, Jose Ramon Perez, Juan Erlex, Juan Lopez, Juan Lopiz, Juliana Lopez, Juliano Luser, Justo Solana, Luis Karrika, Madalen Bertol, Manuel Konjet, Maria Esandi, Mariano Nekotxea, Martin Pantxo, Martin Perez, Martin Salbotx, Migel Konjet, Migel Jarra / Migel Xarra, Migel Landa, Nazario Galetx, Onesimo Salbotx, Paskual Landa, Paskual Urzainki, Pero Lopiz, Pilar Salbotx, Salvador Urzainki, Santxo Iniguez, Sebastian Perez, Silverio Perez / Silverio Pera.*

Uztarroze, iz.-deit. ALFONSO MAIORENA / CASA ALFONSO MAYO (e.b.).- *Alfonso Mayo, Antonio Orduna, Antxomarko ((S)antxo Marko), Bisantorduna (Bizente Orduna), Bizente Irigoien, Bizente Marko, Bizente Orduna, Felipe Marko, Gabriel Gorostordoy, Gaspar andres, Inozenzio Martin, Joan Martin Uhalde, Jose Garde, Josistola (Justo Sola), Josotxoa (Jose Otxoa), Juan Galan, Juan Polla, Juan Ramon, Juan Soldao, Julian Marko, Kasimiroguaille (Kasimiro Baile), Martimun (Martin Bon), Martinmoro (Martin Boro(nte)), Paiskolorea (Paskual Lorea), Paskual Gorria, Paskual Lorea, Perikober (Periko Ber(nat)), Ramona Ezker, Santiago Orduna, Santxo Garde, Santxo Tapia, Simon Barreña.*

2.4. Erronkaribarko oikonimian aipatutako goitzenak

Bidankoze, goitiz. BELZARENA / CASA BELZA (e.b.).- *Belza, Bonba, Kostiol, Kurtxo, Larranbe, Maisterra, Makurra, Mendibelza, Mendigatxa, Milikotx, Patxaban, Patxapan, Paxapan, Roscas, Tanborin, Txantxolit, Txapatero, Txestas.*

Burgi, goitiz. BALBUTXARRARENA / CASA BALBUTXARRA (e.b.).- *Balbutxarra, Broxas (las), Calvo, Cebollón, Fillo, Larranbe, Marrakos, Mastuzarra, Milejo, Miskala, Miton, Palikas, Portalatín, Tolon, Txares, Txinko, Txurru.*

Erronkari, goitiz. ARREÑUMERENA / CASA ARREÑUME (e.b.).- *Arreñume, Bizco, Chata, Chino, Mayora, Patxanko, Potot, Sordo, Tenor, Txamar, Txanka, Txanko, Txanpla, Txarja, Rojo.*

Garde, goitiz. GORRIRENA / CASA GORRI (e.b.).- *Gorri, Katalo, Mainate, Mandoma, Manzanas, Marrakos, Martintxipi, Narro, Pasentxa, Pelagallos, Pelikotxorro, Pollar, Tartamudo, Txandi (cf. Etxandi), Txargolo, Txipi. || art. mask. El Calvo.*

Izaba, goitiz. AMANDIARENA / CASA AMANDIA (e.b.).- *Amandia, Aprenye, Bailon, Beltxa, Beltzozurdo, Beluturri (cf. top. Velayturri), Berdaiska, Burugorri (Burogorri), Buruzuri, Callerin, Chatico, Contin, Cuartillo, Fasi, Fortxuna, Gallos, Garatxandi, Gardatxo, Gartxo, Gatxan, Gison, Higuela, Hombres, Irozando (Izb. top. Irrozaldo), Istupa, Jisebles, Juan Txulo, Kallerin, Kapel, Karallot, Kartutxo, Katxao, Katxas, Kaxutxas, Kaxau (cf. deit. Cassiau), Kontin, Konye, Kullo, Kurrimon, Lakuntxa, Largo, Lerden, Letron, Lloro, Luzeno, Machorroyo, Malarres, Malduermes, Mantetas, Marengo, Markon, Marrusuri, Martxon, Menenxa, Merke, Mil hombres, Mintxapan, Modesto, Mojetes, Montxori, Moreno, Moxeko, Muertxo, Otakar, Otatx, (P)aiskoles, Paletas, Pa-solargo, Patx Perenika, Pax, Pedrolo (cf. Pedro Lorea), Pelagallos, Pelakatxas, Perena, Pernil, Perropresa, Pilla, Pito, Portillo, Potxent (Potient, Pottent, Potxen), Potxolo, Presa, Rikaratx, Rioja, Royo, Rugas, Sabuki, Sandunga, Sasi, Sultán (cf. Xoldan), Suri, Tapaculo, Tártaro, Tibal, Traueko, Trifon, Txakil, Txantero, Txapatera, Txapel, Txarranko, Txarrantxulo, Txatiko, Txiki, Txikilan, Txulo, Urondo, Volant (Bolant), Xaxi, Xorrotxa, Zurdo, Zurruples.*

Urzainki, goitiz. AMATXORENA / CASA AMATXO (e.b.).- *Amatxo, Arroñume, Arronyo, Cojo, Joispa, Kapel, Kapelon, Makurra, Marruxuri, Milikotx (cf. Biliotx), Pera, Rojo, Tabernazar, Tanborin.*

Uztarroze, goitiz. ALGRANDARENA / CASA ALGRANDA (e.b.).- *Algranda, Andi, Anzaia, Arraga, Barantxol, Barreña, Bato, Bedut, Ber, Beramendi, Berantxol, Berri, Bollaberri (Ollaberri), Bortiri, Burusuri, Gorri, Gorria, Gorrituandi, Gorritxo, Guaile, Kaltxes, Karrestuetas, Katiron, Kilingo, Lagin, Laguaio, Lain (La(g)in), Lamina, Latxa, Maisterrandi, Malangorria, Mintxarregi (Montxarregi), Moro, Mundugus (Murdukutx), Murixuri, Mutxaga, Nimiñi, Niño (Jose), Onsanai, Palenke, Palotes, Pettit, Polla, Pollo, Ramandio, Roizu, Rose, Roye, Saklo, Saro, Saset, Soldan, Soldao (cf. Soldado, Xoldan), Suanes (cf. iz. ber. Juanes), Suri, Surio, Tellagorri, Tontico (Tontiko), Turse, Txabalo, Txapao, Txarde, Txarko, Txatorra, Txiliongo, Txupe, Txurru (Txurru), Unsanai, Ur-luzia, Uxut, Xabalo, Xangrat (Juan Garat), Xarde, Xarla (Txarles), Xaro, Xaurin, Xausi, Xexenta (cf. deit. Xixant), Xiaro, Xiaurin, Xoldan, Xuri, Xurio, Zakila.*

2.5. Erronkaribarko oikonimian aipatutako lanbideak

Bidankoze, lanbid. AROTXENA / CASA AROTX (e.b.).- *Arotx ‘arotza’, Arosa (id.), Labari ‘labezain, labekari’.*¹⁷ = Erdaraz ere zenbait lanbide: *Casa Calderero, Casa Sacristán.*

¹⁷ Hala eta guztiz ere, eta Patxi Salaberrik ohartarazten didanez, *gortari* edo *kortari* ez da “korteoa” *korte* + *iri* baizik; *atari*, *karrikiri* eta besteren ildotik.

Burgi, lanbid. GLARIARENA / CASA GLARIA (e.b.).- *Glaria* ‘gelaria’, *Arros* eta *Arrotx* ‘arotza’. = Etxe anitzek erdal lanbide baten izena dute: *Casa Barbero*, *Casa Carpintero*, *Casa Mase Paskoal El Barbero*, *Casa Modesto* (‘modisto’), *Casa Panadero*, *Pelayre*, *Sacristán*, *Zapatero*, *Zarrajero*.

Erronkari, lanbid. LABORARIARENA / CASA LABORARIA (e.b.).- *Laboraria*, *Zamargilea*, *Zapataria*, *Arotx*, *Glaria*. = Erdal etxe izenak: *Casa del Abad*, *Cirujano*, *Cucharero*, *Casa vieja del Cura*, *Casa Trujalero*.

Garde, lanbid. ALKATENA / CASA ALKAT (e.b.).- *Alkat* ‘alkate’, *Glaria*, *Maisterra*, *Masterra* ‘maizterra’. = Erdal etxe izenak: *Casa Cucharatera*, *Casa Letrado*, *Casa Molinero*, *Casa Sastre*, *Casa Soldado*, *Casa Tablajero*, *Trujalero*, *Zapatero*.

Izaba, lanbid. ANZAIARENA / CASA ANZAIA (e.b.).- *Anzaia*,¹⁸ *Alkat*, *Labaire* ‘labari’.¹⁹ = Erdal etxe izenak: *Casa Aguado*, *Casa Baistero*, *Casa Carabineros*, *Casa Cerrajero*, *Casa del Cura*, *Casa del Ermitaño*, *Casa El Fraile*, *Casa Hojalatero*, *Casa Modesto* (‘modisto’), *Casa Molinero*, *Casa Pintor*, *Casa Santero*, *Casa Sastre*, *Secretario*, *Sereno*, *Tejero*, *Tutora*, *Casa Viajeros*, *Casa Zapatero*, *Casa Zerrajero*.

Urzainki, lanbid. AROZA BAITA, AROZANEA / CASA AROZA (e.b.).- *Aroza*. = Erdal etxe izenak: *Casa Alguacil*, *Casa Cucharero*, *Casa Donantes*, *Casa Esquilano*, *Casa Meler*, *Casa Organista*, *Casa Tejedor*, *Casa Zapatero*.

Uztarroze, lanbid. MAISTERRA BAITA, MAISTERRANEA / CASA MAISTERRA (e.b.).- *Maisterra*, *Aroza*. = Erdal etxe izenak: *Casa Artillero*, *Casa Fraile*, *Casa Médico*, *Casa Molinero*, *Casa del Párroco*, *Casa Sastre*, *Casa Secretario*, *Casa Zapatero*.

2.6. Erronkaribarko oikonimoen txikigarriak (atzizkiak)

Erronkaribarko oikonimian erabiltzen diren atzizki txikigarriez bezainbatean, ondoko hauek dira gehien erabiltzen direnak:

1. *-iko*, *-ika*. *Burgin*, *Casa Bertolico* (*Bertolico Baita*, *Bertolikonea*), *Casa Manuelico*. *Erronkarin*, *Casa Manuelico* (*Manueliko Baita*, *Manuelikonea*). *Izaban*, *Casa Americanico* (*Amerikaniko Baita*, *Amerikanikonea*), *Casa Anselmico*, *Casa del Curica*, *Casa Ferminico*, *Casa Martxoniko*, *Casa Migeliko*, *Casa Molinerico*, *Casa Paleticas*, *Casa Perenika*, *Casa Pilartiko*, *Casa Rafaelico*, *Casa Txarrailiko*, *Casa Txibarriko*. *Urzainkin*, *Casa Angelico* (*Angeliko Baita*, *Angelikonea*). *Uztarrozen*, *Casa Venturica* (*Benturika Baita*, *Benturikanean*), *Casa Juaniko*, *Casa Maisterrika*, *Casa Periko*, *Casa Tontico*.
2. *-txo*. *Izaban*, *Casa Kintxo* (cf. *Joakin*), *Casa Zipiantxo*, *Casa Zipriantxo*. *Urzainkin*, *Casa Amatxo*, *Casa Migeltxo*. *Uztarrozen*, *Casa Juantxo*, *Casa Maritxo*, *Casa Ramontxo*. 2.1. *Aldaera*, *-xo*. *Uztarrozen*, *Casa Jabroxo*.
3. *-ko*. *Erronkarin*, *Casa Juanko* (*Juanko Baita*, *Juankonea*). *Garden*, *Casa Juanko*, *Casa Lusarko* (*Lusarko Baita*, *Lusarkonea*). *Izaban*, *Casa Loisko* (*Loisko Baita*, *Loiskonea*). 3.1. *Aldaera*, *-eko*. *Zaraitzun*, “*Juaneco Goyena*” (1610 NPA).
4. *-sko*. *Uztarrozen*, *Casa Fedrosko* (*Fedrosko Baita*, *Fedroskonea*, hau da, *Pedroskonea*).

¹⁸ Cf. gorago “domingo *ancaña*... del lugar de xarauta de la Tierra de Sola de Francia” (1603 NPA)

¹⁹ Cf. gorago *Labari* oikonimoari buruz errandakoa eta *Mugari* > *Mugaire* (Salaberri).

5. *-on*. Garden, *Casa Anton* (*Anton Baita, Antonenea*), *Casa Miguelon*. Izaban, *Casa Petró*n (*Petron Baita, Petronenea*).
6. *-ito, -ita*. Burgin, *Casa Pepita* (*Pepita Baita, Pepitanea*). Izaban, *Casa Angelita* (*Angelita Baita, Angelitanea*). Uztarrozen, *Casa Gabrielito* (*Gabrielito Baita, Gabrielitonea*).
7. *-illo, -illa*. Burgin, *Casa Juanillo* (*Juanillo Baita, Junillonea*), *Casa Solanilla*. Izaban, *Casa Cuartillo* (*Kuartillo Baita, Kuartillonea*).
8. *-ete, -eta* (nafar-aragoiera erromantzearen atzizki txikigarria). Izaban, *Casa Barbareta* (*Barbareta Baita, Barbaretanea*). Uztarrozen, *Simonete* (*Simonete Baita, Simonetenea*).

2.7. Erronkaribarko oikonimoen txikigarriak (sabaikaritze adierazkorra)

Atzizki txikigarriez gainera, sabaikaritze adierazkorra bera ere oso erabilia da hipokoristikoak sortzeko: Bidankozen, *Casa Matxin* (*Matxin Baita, Matxinenea*), *Monxonena*, *Zereñando*. Burgin, *Casa Llarri* (*Llarri Baita, Llarrinea*), *Ñigo*. Erronkarin, *Casa Txantxon* (*Txantxon Baita, Txantxonea*). Izaban, *Casa Balenxa* (*Balenxa Baita, Balenxanea*), *Balencia*, *Engrasi*, *Fatxi*, *Frantxo*, *Graxa*, *Intxa* (*Inza*), *Juisto*, *Karboñero*, *Kontxi*, *La Kuntxa*, *Marxelino*, *Pantxo*, *Paullo*, *Pollo* (*Paullo*), *Sipian* (*Zipian*), *Txetxenike*. Urzainkin, *Casa Matxeo* (*Matxeo Baita, Matxeonea*), *Pantxo*, *Pello*, *Txanbolin*, *Txokorro*. Uztarrozen, *Casa Allaman* (*Allaman Baita, Allamanenea*), *Blax*, *Krux*, *Larreña*, *Llaman*, *Marxelina*, *Ofisial*, *Ollaberri*, *Xabalo*, *Xangrat* (*Juan Garat*), *Xarde*, *Xarla*, *Xaro*, *Xaurin*, *Xausi*, *Xexenta* (*Xixant*), *Xiaro*, *Xiaurin*, *Ximoneti*, *Xoldan*, *Xuri*, *Xurio*.

2.8. Erronkaribarko oikonimian aipatzen diren beste hipokoristikoak

Zenbaitetan hipokoristikoak izenak laburtuz, murrizketaren bidez edo mailegutzaren bidez lortzen dira: Burgin *Casa Vitor* (alegia, *Bitor Baita, Bitorrenea*). Erronkarin *Casa Filipina*. Izaban, *Casa Beni*, *Casa Bitoria*, *Casa Trini*, *Casa Zipian*. Uztarrozen, *Casa Pepe*.

2.9. Erronkaribarko oikonimian aipatutako gentilizioak

Etxe anitzen izenak gentilizio bati dagozkio: Burgin, *Casa Gardar* (alegia, *Gardar Baita, Gardarrenea*) eta *Casa Indiano*. Erronkarin, *Casa El Ches*o (*Txeso*), *Casa Indiano*. Garden, *Casa El Ches*o (*Txeso*), *Casa El Chino* (*Txino*), *Casa El Ruso*. Izaban, *Casa Americano*, *Casa Aragueko*, *Casa Ejeano*, *Casa Indiano*, *Casa Jaqués*, *Casa Lecho* (*Casa El Ches*o), *Casa Petillano*, *Casa Sigüesano*, *Casa El Txeso* (*Cheso*), *Casa Urzankiar*, *Casa Zaragozano*. Uztarrozen, *Casa Urzankiar*.

2.10. Erronkaribarko oikonimian aipatutako toponimoak

Jabearen jatorria adierazteko gentilizioa ez ezik, bere jaioterriaren izena ere aipa daiteke: Bidankozen, *Casa Arguedas* (*Argedas Baita, Argedasenea*), *Casa Rakas* (*Arrakas*). Burgin, *Casa Almazán* (*Almazan Baita, Almazanenéa*), *Casa Burdaspal*, *Urdaspal*. Erronkarin, *Casa Burdaspal* (*Burdaspal Baita, Burdaspalenea*), *Casa Garde*,

Casa Sarries. Izaban, *Casa Garde* (*Garde Baita*, *Gardenea*), *Casa Luesia* (*Loesia*), *Casa Santacara*. Urzainkin, *Casa Urzainki* (*Urzainki Baita*, *Urzainkinea*), *Casa Uztarroz* (*Uztarroze Baita*, *Uztarrozenea*). Uztarrozen, *Casa Garde* eta *Casa Izor* edo *Izort* (*Izort Baita*, *Izortenea*); cf. Bareton Ibarrean,²⁰ top. nag. *Issor*, eusk. *Izorra*.

2.11. Morfologia: genitiboaren garapenak oikonimian²¹

Jabego genitiboari dagokionez, oikonimian aldaera sinkopatu batzuk aurkitzen ditugu: 1. *-(e)na*. Bidankozen, *Landarna*, *Laskorna*, *Lengorna*, *Uhalderna*, *Zinpinterna*, *Zinpitarna*. Cf. Anso, top. *Usarna*. 2. *-(e)n*. (alboko kontsonante baten ondoren) Bidankozen, *Danielna*, *Rafelna*. Hala eta guztiz ere, albokoaren atzean ez da sinkopa beti gertatzen: *-en*. Burgin, *Kapalena*. Bestalde, aipatu testu inguruez gainera ez da eskuarki gertatzen: *-en*. (kots.) Bidankozen, *Mainzena*, *Montxonena*, *Santxena*.

Ondoko kasuan, berriz, metatesiak jotako adibide baten aurrean gaude: *-(r)en*. (bok.) Bidankoze, *Borda Mantxonera* (hau da, *Mantxorena*).

Lekuzko genitiboa, bestalde, ez da oikonimian maiz gertatzen, eta agertzen delarik abizen baten zati izan ohi da: *-ko*. “los campos del dicho p.o lopez q. son los que Solian ser de *casa de hechandico*” (1652 NPA).

2.12. Morfologia: artikulua erabilera oikonimian

Finean, lan honi bukaera emateko aipatu behar da Erronkaribarko oikonimian artikulua duen garrantzia. Izan ere, emakumeen izen gehienei artikulua erantsi ohi zaie; esate baterako, Izabako oikonimia adibidetzat hartzen badugu etxe izen hauek aurkituko ditugu: *Casa La Angelita*, *Casa La Barbareta*, *La Klemen*, *La Eulogia*, *La Gabina*, *La Gervasia*, *La Higueta*, *La Jesus*, *La Kuntxa*, *La Leonides*, *La Lola*, *La Lonides*, *La Lucia*, *La Magdalena*, *La Marcela*, *La Maria*, *La Maripaiscola*, *La Marta*, *La Matea*, *La Matilde*, *La Miguela*, *La Paulina*, *La Petronila*, *La Primitiva*, *La Rogelia*, *La Sasi*, *La Trini*, *La Txapatera*, *La Valeriana*.

Gizonezkoen pertsona izenekin gertatzen ez den arren, beraiei dagozkien lanbide, goitizen edota gentilizioekin maiz kausitzen da. Izaban etxe izen hauek artikulua maskulinoa dute: *Casa El Aguau*, *Casa El Americanico*, *El Cerrajero*, *El Chatico*, *El Chesu* o *Casa Lecho*, *El Coso*, *El Ejeano*, *El Gardacho*, *El Hojalatero*, *El Molinero*, *El Petillano*, *El Pintor*, *El Secretario*, *El Sultán*, *El Tejero*, *El Txiki*, *El Zurdo*.

3. Patxi Goenagaren omenaldian oikonimiak bere lekua

Benetan herri baten mundu kontzeptuala barnetik ezagutu nahi badugu, haren oikonimia, toponimia eta, oro har, onomastikaren alde guztiak ikertu behar ditugu,

²⁰ “Valle de *Bareton* del Reyno de Bearn” (1649 NPA). Anson, deitura bezala dokumentatua: “Pedro Perez *Bareton*” (1691 EBNA), “Simon Jusephe Perez *Bareton*” (id.). Aldaera, *Baretones*: “la dca. valle de bal de *baretones*” (1614 NPA), “el balle de *baretones* del principado de bearne” (1624 id.); gentilizioa, *baretones*, *baretoneses* (1883 EBNA). Beste aldaera batzuk, *Baretons*, *Baretous*: “la balle de *baretons*” (1602 NPA); “de *Baretous* et d’Urdaixs” (1466 PADA).

²¹ Patxi Salaberriren proposamena eredu hau ezartzea eta aplikatzea da, Estornesek proposatzen diuen *-nea* edo *Baita* erabili beharrean.

herriak erabiltzen dituen izenen azterketa egitea ezinbestekoa baita herriaren sinesmenak, beldurrak eta sentimentuak —behin baino gehiagotan kontrajarriak— eza-gutu ahal izateko. Herri bateko leku izenak eta bere biztanleen izenak, deiturak eta goitzenak aztertzen baditugu, herri horren mundu kontzeptualari buruzko garrantzi handiko informazioa jasoko dugu eta geure buruetan itzulika dabilen hainbat galde-rari erantzuna emanen diogu.

Irakasle fin eta ikertzaile trebe Patxi Goenagari egiten zaion omenaldi honetan oikonimiak, onomastikaren ordezkari, bere lekua izan du. Patxi Goenagaren ikaslea izan nintzen eta oraindik dut gogoan, gramatikaren bideetatik une llabur batez ateratzen ginelarik, nola hitzen esanahaiaren inguruan edota esapideei buruz egiten zigun hainbat galdera: “Esne behia zer da?” “Zer ote behi esnea...?” “Erdibidean gelditu gara edo oraindik bide erdian gaude lan egiteko prest?” “Esapide honek zer esan nahi du?” “Egitura honek nola du izena?” “Azalekoa ote da edo guztiz sakona?”

Patxiren eskoletatik atera nintzenetik milaka galdera izan ditut buruan eta, ez osoki zorte handiarekin, baina guztiei erantzuna ematen saiatu naiz behintzat. Honela, izenen azterketari ekin nionean hiru errege faltsuei mahaiak kendu eta heriosuhar ihesari emandako hiru esklabuei babesak eman nien.

Patxiren galderen erantzunak eskatu dizkiet guztiei eta Burgiko belaginek erantzunak eman beharrean, galderak egiten jarraitzeko eskatu didate. Ez diezaiogula sekula ere galderak egiteari utz. Oikonimiari esker banakoei gertatzen zaionaz jabetzeaz gainera, giza talde osoari gertatzen zaionaz, besteekin duen hartu-emanek eta haien arteko ohiturez ere jabetu gara, bai eta jakin ere gure kulturari nola eutsi dioten, gure altxorra nola handitu duten. Handik ikasi dugu eta gure aurrekoen jakituriaz aberastu gara.

Hiru behi, hiru mairu, hiru errege eta maisu gogoangarri bat. Eta hori guztia irakasle batek behin galdera bat egin zigulako. Benetan, balio handiko irakaspena.

Bibliografia

- Azkue, R. M., 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*. Facsimile; Euskaltzaindia, 1984 (3).
 Barandiaran, S., 1956, “Roncal, Riñón de Vasconia”, *BAP* XII (4).
 Barbier, J., 1929, *Ichtorio michterio*, Imp. du Courrier [berrarg. *Ixtorio-mixterio*, Labayru, 1990].
 Estornes Lasa, B., 1997 *Diccionario español-uskara roncalés*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
 Idoate, F., 1977, *La Brujería en Navarra*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
 Jimeno Aranguren, R., 2002, *Advocaciones y culto a los santos en la Navarra primordial*, Doktorego Tesia, Iruñea.
 Le Blant, R., 1920, “Le tribut des trois vaches”, in *Aspects de la vie pastorale dans la montagne basque et béarnaise, catalogue et recueil de textes*, Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques et leur Service éducatif. Paue, 1980 berrarg.
 Lonné-Peyret, J.-M., 1989, *Arette, un pionnier raconte*, Arette.
 Mitxelena, K., 1973, *Apellidos vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País (lan honetan erabiltako argitalpena, Txertoa, Donostia, 3. arg.)
 Papy, M., 1986, “Mutilation d’un rite: la junte de Roncal et Barétous et la crise de nationalisme français dans les années 1890”. *Lies et Passeries dans les Pyrénées*, Archives Départementales. Tarbes, 197-233.
 Polge, H., 1977, “Bakiak egin”, *CEEN* 9: 26, 173-178.

AHOZKO JARDUNA KOMUNIKAZIOAREN LAGUNGARRI: EKARPEN BAT AHOZKOAREN ESTRATEGIA KOMUNIKATIBOEZ

Jesus Mari Makazaga Eizagirre

UPV/EHU

0. Sarrera

Hizkera jakin bateko (Deba barreneko) ahozko testuak jasotzen ibili naiz azkenaldi honetan, eta aitortu behar dut asko gozatu dudala hiztun adinekoen kontaktuzunekin, iraganeko istorioak egituratzeko eta haien kontakizunak bideratzeko duten gaitasunarekin, erakusten duten graziarekin. Lehenik eta behin, argi azaltzen dute azaldu beharrekoa, lehen entzunaldian ulertzeko moduan ematen dute kontakizuna; ez hori bakarrik, ordea: badute poetika bat ere, kontaktzen dutena graziaz eta edertasunez kontaktzen dute. Horrekin, komunikazioaren lehen eskakizunaz gain (alegia, ulergarritasunaz gain) bigarren baldintza bat ere betetzen dute: kontakizuna erakarri eginez entzulearen arreta lortzea.¹

Hori horrela delarik, iruditzen zait adineko hiztun horiek badutela zer eskainia ahoz nahiz idatziz euskaraz zerbait adierazi nahi duen hiztun edo idazle gazteagoari, komunikazioan hain trebatua ez denari. Biltzarretan eta hitzaldietan, ez dira ez bat eta ez bi komunikazioen haria galtzen duten entzuleak; hamaikarri dira telebistako albistegietan esaldien luzeragatik eta haien sintaxi konplexuagatik mezua ulertu ezinda geratzen diren entzuleak; aldizkarietan (zientifikoetan nahiz dibulgaziozkoetan) erabiltzen diren esaldi asko eta asko ezin ulertuzkoak dira bigarren (eta are hirugarren!) irakurketa bat gabe.

Belarriz bakarrik jasotzen ditugun mezuetan larriagoa da arazoa, behin bakarrik eta atzera-itzulirik ez duen kate baten gisara jasotzen baitugu halakoetan mezua: katearen begi batean arazo bat baldin badago, katea hautsi egingo da, eta ekintza komunikatiboa ez da guk nahi bezala gertatuko.

¹ Bernardo Atxagaren hitz batzuk etorri zaizkit gogora lerro hauek idaztean; hala dio herri-literatura biltzen duen Auspoa saileko liburuez ari denean: "ohartu nintzen ez zela guztia jaso [hizkuntzaren batasunean, esan nahi du]. Auspoa-ko prosan dagoen dotorezia hura ez zen jaso. Iruditzen zait hor badagoela arnas poetiko bat, mintzotik zuzenean datorrena. Eta prosa horrek badu legitimitate bat. Jartzen duzu Pello Errotaren liburu hori [*Pello Errotaren bizitza*] gaurko ortografian eta zoragarria litzateke edozeinentzat; badu balio literarioak ere" (B. Atxaga, in *Esna* 1987-1989).

Askotan ahaztu egiten den arren, belarria izan behar dugu gidari, batez ere aho-
tik belarrirako komunikazioetan.² Euskara idatziaren eragina gero eta handiagoa da
denetariko komunikazio-ekintzetan, eta ahaztuxeak geratzen dira ahozko jardunak
eskaintzen dizkigun baliabideak.

Lan honetan, bada, baliabide horietako batzuk erakutsiko ditugu, benetako
adibideen bidez argituak. Debabarreneko hizkeretako adibide batzuk bildu di-
tugu, adineko hiztunen ahozko jardunetik hartuak guztiak;³ komunikazioa erraz-
teko kontu honetan pertinenteak iruditu zaizkigun egitura batzuk jaso ditugu:
esan bezala, ahozko nahiz idatzizko ekintza komunikatiboetan (bai eta erdibide-
koetan ere: ahoz emateko idazten diren testuetan) hiztunari lagungarri gertatzea
da helburua.

Ahozko komunikazioaren alderdi testualari bakarrik helduko diogu hemen,
ezinbestean; testuinguruari eta alderdi prosodikoari dagozkion kontuak alde batera
utziko ditugu, beraz. Alderdi testual horietan, batez ere baliabide sintaktikoei eta
erretoriko-poetikoei helduko diegu.

1. Ahozko jardunaren ezaugarri batzuk

Adituen ustez ahozko jardun egoki batek lituzkeen ezaugarri orokor batzuk ai-
patuko ditugu lehenik eta behin.

Erreduantziak dira testuari koherentzia ematen dioten ezaugarrietako bat.
Berez, ahozko jardunerako behintzat, ez da gauza txarra, neurrian erabiltzen bal-
din bada. Idatziz eman eta irakurriz hartu behar ditugun testuetan, berriz, ez du
itxura ona emango erreduantziak, alegia gaiak eta ideiak etengabe errepikat-
zeak.

Hizkera erraza eta sinplea dira ahozkoaren beste ezaugarri orokor bat (positiboki
ulertutako erraztasunaz eta sinpletasunaz ari gara, eta ez, adibidez, haurren hizkerare-
kin zerikusia izan lezakeen sinpletasunaz). Erraztasun eta sinpletasun hori bi mailatan
gertatzen da:

- Hiztegiaren mailan: hitz errazak, laburrak, konketuak erabiltzen dira gehia-
gotan zailak, luzeak eta abstraktuak baino.
- Sintaxiaren mailan: asko erabiltzen dira esaldi laburrak eta etenaldiak; estilo
parataktikoa nagusitzen zaio hipotaktikoari; halaber, nagusi dira estilo zuzena,
egitura anaforiko-kataforikoak, elipsia eta, menderakuntzari dagokionez,
egitura sinpleak eta ulergarriak, besteak beste; hitz-ordena ere malguagoa da
ahozko jardunean idatzizkoan baino.

² Belarria aipatzen du behin eta berriz Pello Esnalek komunikazio-ekintzaren giltzarri, bai ida-
tzizko jardunean ere: "Irakurlerik nahi duenak belarrirako idatz dezala" (*HABE* aldizkaria, 164).
Orixeren kontatzaile-trebetasuna aipatzen duenean ere hala dio: "Hau [*Santa Kruz apaiza*] belarrirako
prosa bait da, ez begietarako Mintza-estiloa" (*HABE*, 144).

³ Hirurogeita hamar urtetik gorako hiztunez ari gara hemen; horietako gehienek ez dute hizkun-
tzaren erregistro idatziarekin harreman handirik izan, eta gaztelaniarekin ere ez. Adibideak ez dira eus-
kara batura egokitu, ia jaso bezala daude transkribatuak, salbu ulergarritasuna kolokan jartzen den ka-
suetan (aditz jakin bereziren bat, esaterako).

Entzulearen arretra lortzeko estrategiak ere ezin ahaztuzkoak dira ahozko testuetan: baliabide erretoriko-poetikoak deituko ditugu.⁴

Badira bestelako ezaugarri batzuk ere ahozko testuetan, baina, horien egokitasuna zalantzan ikusten dugunez, ez ditugu aipatu besterik egingo: anakoluto eta esaldi amaitugabeak ere badira, baina, esan bezala, ez dirudite gomendagarri ez idatzizko ez ahozko komunikazioetarako.

Lan honetan, beraz, alde batera utzirik desegokiak izango diren ezaugarriak, komunikazio-helbururako egokiak iruditzen zaizkigun ezaugarriak ilustratuko ditugu, adibide errealean bidez ilustratu ere.

2. Sintaxiari dagozkion estrategiak

Sintaxian, oro har, egitura sinpleak eta ahalik eta argienak erabili ohi dira, mezua belarriaren bidez jaso behar duenak ahalik eta ondoen eta bizkorren uler dezan mezua.

2.1. Esaldi laburrak

Nagusi izaten dira esaldi laburrak ahozko jardunean. Har dezagun paragrafo hau, esandakoaren erakusgarri:

- (1) —Hamen egon ziran tropa nazionalak ere? —Bai, ba! Bederatzi hillebetian. San Lorentzon ibili ziran eskolan. Eta gero, hemen egon ziran hillebete t'erdixan soldauak. Hemezortzi. Zaldi tta guzti. Da gero, juaten ziran zera eruatera, muniziuera, Karakatera hamendikan. Eta hamen egoten ziran: San Lorentzon lo egitten zeben. Hamen egon ziran lau, eta aldekuaren reketiak bi. Gurian lau soldau lo egitten. Gure sapaixan lo egitten. Eta bestia zerian, San Lorentzon. Eta San Lorentzon batzuek, eta bestiak hamen. Egunero juten ziran txandan zaldixakin jana eruatera; hiru zaldikada. Gero, hamen jarduten zeben, jokuan da.

2.2. Estilo parataktikoa

Sintaxian, perpaus juntatuak eta alboratuak dira nagusi, eta mendeko perpausak ez dira gehiegi erabiltzen: juntagailuak erabiltzen dira asko (etengabea da, adibidez, *eta*-ren erabilera), baina baita lokailuak ere (*eta* bera lokailu erabilera, eta bestelako lokailu asko eta asko). Izan ere, perpaus mendekoez zaildu egiten dute komunikazioa, normalean, eta murriztu egiten da haien erabilera ahozko jardunean.

Estilo parataktikoaren hainbat adibide agertuko dira lan honetan zehar, eta ez dugu hemen berariazko adibiderik jasoko. Egingo dugun gauza bakarra da estilo parataktiko horren erabilera erakusten duen auzi bat aipatu, besterik ez.

Jakina da gaur egungo zenbait testutan (batez ere idatzizkoetan, baina ez haietan bakarrik), eta erdal moldeen eragin gehiegizkoagatik, behar baino perpaus mendeko gehiago erabiltzen direla, baita behar ez direnean ere, berez mendekoa eskatzen ez

⁴ Ezaugarri hauek guztiak egozten dizkio ahozketasunari Daniel Cassanyk, komunikazio-ekintzetan aditua denak (Cassany 2005).

duten testuinguruetan ere. Mendeko perpaus faltsuak dira, Juan Garziaren etiketa gure eginez (Garzia 1997). Hona horren adibide batzuk:

- (2) Amak erosketak egin zituen, aitak bazkaria prestatu *zuen bitartean* (??)
- (3) Loteria egokitu zaio, lana utzi *ez duen arren* (??)
- (4) Lan asko egin du soroan, udan uzta ona *izan duelarik* (??)

Era honetako perpausak kalkoak dira, inondik ere; gaztelaniaren eraginez iritsi zaizkigun kalkoak. Esan bezala, idatzizko jardunean gehiago egiten dira ahozkoan baino. Edozein kasutan ere, erreferentziatzat hartu ditugun adineko hiztun on horien jardunean oso-oso arraroa litzateke halako egiturak agertzea. Batetik, ez dutelako gaztelaniarekiko morrontzaririk; bestetik, ez dutelako batere arazorik mendeko perpaus ustez jasoak erabili beharrean egitura sinpleagoak erabiltzeko, perpaus juntatuak erabiltzeko. Era honetan (edo antzekoan) emango lukete goiko (2-4) adibideetan adierazi nahi den informazioa:

- (2') Amak erosketak egin zituen; aitak, *berriz*, bazkaria prestatu zuen.
- (2'') Amak erosketak egin zituen, *eta* aitak bazkaria prestatu zuen.
- (3') Loteria egokitu zaio, *baina* ez du lana utzi.
- (4') Lan asko egin du soroan, *eta* (, *horren ondorioz*,) udan uzta ona izan du.

2.3. Estilo zuzena

Etengabea da estilo zuzenaren presentzia ahozko testuetan, kontakizunak egitean. Bai beste pertsona baten hitzak jasotzeko, bai kontatzailerrenak berarenak jasotzeko ere:

- (5) Nik aittari galderia: "Aitta, han hola ta hola badago, ba?"
- (6) Hala esan nion nere buruari: "Ez hadi negozio horretan sartu!"
- (7) Eta nere artian: "Hau dok pagotxa, hau!"
- (8) Esan naban: "Hau zela pagatzen juek [ditek]?"

2.4. Egitura anaforiko-kataforikoak

Testuaren kohesioari laguntzeko sareak ehuntzen dituzte egitura hauek: testuan, lehenago esandakoari edo gero esan behar dugunari erreferentzia egiten diote, hurrenez hurren, elementu anaforikoek eta kataforikoek; hala, testua kohesionatzen laguntzen dute. Ahozko jardunean, berebiziko garrantzia dute erlazio anaforiko-kataforikoek:

- (9) (...) baiña *haatik* esaten juat [diat], ba, jatorrixa nik Iriarte-Etxeberrikoa daukatela.
- (10) (...)Eta *haatik* esaten juat, ba, horrek neretzako zerua dirala.
- (11) *Halaxe* zalako bizimodua, *diferentia*.
- (12) Udan *zera*, bedarra ebagi, edo ardixak zainttu, edo beti zeozer.
- (13) Ni akordatzen naiz, aldeko Bittorik, Joxen amak *zela* esan zaban: "gizona gerrara jun, eta soifnuakiñ zatozte hona? Alde hemendik!"
- (14) Geiztua, maldizioka beti. Han ikisitta gizonezkuak: *halaxe* jan, eta *halaxe* ikisi harek.

2.5. Hitz-ordena malgua

Idatzizko jardunean baino hitz-ordena malguagoa ikusten dugu ahozkoan. Mezua jasotzeko moduak (ahoz eman eta belarriz jaso) baldintzatzen du neurri handi batean ezaugarri hau. Kontua da oso ohikoa dela esaldiaren pisua aurrealdean ematea ekartzea, adibidez, aditza (esaldiaren antolatzailea) aurrera ekartzea. Nahi adina adibide aurkituko ditugu edozein testu ahozkotan. Hona hemen batzuk:

- (15) Nik karneta *jaukat*, ba..., “natural de Bilbao”.
- (16) Eta *egin jauen* [zietean] haruntzian papelakin itxi haura.
- (17) Eta gero, *eruan nahi zittuen* hemengo Joxepa zana ta, Nikolasa ta horrek, eruan nahi zittuen aurrera. Eta aittak, ezetz.
- (18) Ondo geunden. *Bageundenen...* hiru lagun ziran eurak, eta beste bost kriau edo bagenguazen.
- (19) Kozineria ere *zan* Fuentarrabixakua, euskaldun jatorra.
- (20) Beste bat *gustatzen zitzatan* geografixia. *Hartzen naban* dana buruz.
- (21) Ni *ibili naiz*, ba, Deba aldian da... Gero *ibili naiz* batian eta bestian, geldittu (ga)be.
- (22) Orduan hori *zan* sagraua.
- (23) Han *egoten zan* eskola bat, eta barrixokuak hara juten giñan.
- (24) Oin batzuek-batzuek *egitten dabe* hamendikan ezkondu kanpora.

2.6. Elipsia

Elipsiaren ugaritasuna ere ahozko testuen ezaugarri berezkoetakoa da: mezuari beharrezko ez diren osagaiak kentzeko balio du elipsiak, eta, azken batean, mezua azkarrago eta errazago bideratzeko (bai eta naturalago ere). Hona adibide batzuk:

- (25) Hogeta hamabostian ezkondu, eta *hogeta hamaseixan, gerria*.
- (26) Da gero, txarren-txarrena zuan, zera, *biderik ez basarrixetara*.
- (27) *Laga ez* harek neskak eruatzen; bestela, bajiezak [bazoazak].
- (28) Eta, holaxe, ba, hamentxe, Barrutianian, geldittu zan ostatuan. Eta gero, ba, automobilla bihar zaban, eta *automobillikan ez orduan!*

Beharrezko ikusten ez den aditz hori emateak edota hura jokatzek astundu egingo luke esaldia, mezua, komunikazioaren eta naturaltasunaren kaltetan, gure ustez.

2.7. Makuluak eta betegarriak: zera

Ahozko jardunean arruntak dira isiluneak: hitz bat ez zaigula burura etortzen, esaterako. Isilune horiek betetzeko, makuluak edo betegarriak ditu eskura ahoz ari den hiztunak. Jakina, hizkuntzaren zein erregistrotan ari garen, balioko digute edo ez digute balioko (ez baitirudite egokiak idatzirako, edota ahozko jardun formal baterako), baina hor ditugu batzuk, zenbait testuingurutan komunikaziorako lagungarri gerta dakizkigukeenak. Aipamen berezia merezi du *zera* betegarriak. Momentuan hitz bat burura (ahora) etorri ez, eta *zera* hori erabiltzen dugu, hitzean eta hortzean erabili ere, haren orde, hark eramango lituzkeen ezaugarri gramatikalak eta guzti: izena baldin bada, hondarkiarekin (*zera, zerean, zereko...*), eta aditza

baldin bada, aditzaren morfemekin (*zertzen*, *zertzera*...)⁵ Esaldia egituratzen lagunduko digute, harik eta ordezkatzan duten hitza burura etortzen zaigun arte.

- (29) Ba, arboliak gero, kerizia. Eta horixe, bueltan etxia pixkat *zertu* egitten dau, ... *babestu* egitten dau.
- (30) San Migel, hamen inguruetan dagan *zererik* edarrena dago oiñ, ... *auzorik* edarrena.
- (31) Jai-egunetan? Ezer ez guk. Juntatzen gera hamentxe lau laguntxo zapatu arratsaldian, eta *zerian*, ... *jokuan*.
- (32) Juten giñuazen eskolara, eta han egoten giñuazen, bestiak aurrian eta gu beti atzeko *zerian*, ... *filan*.
- (33) Ezin, ba, jua *zerera*, ... *bakaziotara*.
- (34) Andra bat dago hamen, Zestuakua da izatez, baiña hor *zerian* bizi da, ... *Markiñan*.

2.8. Mendeko perpaus markatzailedunak

Esan bezala, ahozkoaren estiloa parataxiaren aldekoagoa da hipotaxiaren aldekoa baino, baina horrek ez du esan nahi mendeko egiturak erabiltzen ez direnik. Hori bai, agertzen diren mendeko perpausetan ulertzen errazena dira nagusi. Arreta berezia merezi dutenak dira mendekoaren aurreko buruan markatzaile sintaktikoren bat dutenak, lokailu ere esan izan zaienak:⁶ mendekoaren hasiera-hasieratik perpausa zer eratakoa den iragartzen digutenak dira, askotan hizkuntza erromantzeen bitartez iritsi zaizkigunak euskarara.

2.8.1. Perpaus osagarriak

- a) “Esan dizut eze... *-ela*” / “... ”

Perpaus osagarriaren iragarlea sartu ohi da gure eskualdeko hizkeretan, *EZE*, ondoren perpaus osagarria datorrela iragartzeko; batzuetan, estilo zuzena ere erabili izan da perpausa osatzeko, azken bi adibideetan ikus dezakegun bezala:

- (35) Eta *esaten jardun zien eze* haura egitteko berrogeta bi milloi arbola kendu *zittuela*.
- (36) *Nik esaten dot eze*, injinerua zan eta bazakixan berak ere, edozeiñek haura ezin *zeikiela* ibilli, haura katxarro zaharra.
- (37) Gogoratzen naiz, ba, *esan zidan eze* “Eibarrera jua bi’ok Unzetanera”, eta “Ondo”, muestria edo zeozer emango zidan pieziana, eta hauraxe ekartzeko.
- (38) “Ez jua urrutiregi!”, hola esan zidan. “Geldittu hari, geldittu hari!”, eta, juntu giñan bixok, eta *esan zidan eze* “ez egik pauso bat gehixago eman, zergatik eze beherañe etorritta dauaz tankiak italianuak eta”.

⁵ Beste kontu bat litzateke komunikazioarekin zerikusi handiegirik ez duen “gaixotasun” moduko bat; alegia, zenbait hiztun “alferrek”, behin eta berriz hiztegiara jotzeari utzi, eta *zer-ez* beteriko esaldiak osatzen dituzte. Gauzak mutur-muturrera eramanda, honelako esaldi iragarriez ari gara:

— “Zereko zerak zertu dio liburua zerari, zerian”.

⁶ *Lotura-hitz iragarleak* esaten diete, adibidez, Zubimendik eta Esnalek (Zubimendi-Esnal 1993).

b) Perpaus osagarri izenlagunak: “errezelua daukat... *-ela*”

Era bat baino gehiago dago euskaraz halako perpaus mendekoak osatzeko; haien arteko alde, menderagailu desberdina erabiltzeaz gain, predikatu gobernatzailaren kokapena da: mendeko perpausaren aurretik edo atzetik koka daiteke mendeko perpaus hauen predikatu gobernatzaila:

(39) [Laster ezkonduko den/delako] *zurrumurrua hedatu da*.

(40) *Zurrumurrua hedatu da* [laster ezkonduko dela]

Bada, ahozko jardunean, eta gure eskualdean behintzat, ohikoena eta ia bakarra bigarren egitura da; hala, perpausaren egitura osoaren berri ematen da hasiera-hasieratik. Hona hemen era honetako perpausen adibide batzuk:

(41) *Errezelua naukan* [mutill harek ez zabala aterako atarramentu onik].

(42) Eta gu lelengo *bilddurrak* [hantxe jausiko ete dan].

(43) Eta, *eztakit* nik denpora asko egin naban *zain* [han kaliaz noiz amaittuko bere eginkizuna].

(44) Egualdixan kanbixuetan-da, igerri egitten jako. Eta ni neu ere, ba, *eskerrak* [hantxe moldau nitzan].

(45) *Sospetxa bat* bai txarra: Joño, zer da, ta: -“soldadutzara jua bihar dok datorren hillian”.

c) Zehargalderak: aber/ea... -en

Bai-ez erako zehargalderetan nahitaezkoa ez den arren, maiz agertzen da zehargalderaren buruan partikula bat: *ea* (eta hizkera kolokialagoetan, *aber*):

(46) Baten prentzau nion *ia* “bulegua”k zer esan nahi *dauan*, eta honek, ‘opiziniá’. Eta oiñ bajakixat [bazakiat].

(47) Zera eskatu zaban gure aittak, jornal gehitxuago *aber* eman *leikien*, estu zabilleta ta.

(48) Eta lehen esan doguna, bedarra ebagi bihar dogunian-da *ia* ze esaten *deben* egualdixagatikan; *eztakik*?

(49) Gero etorri jatzun bateron bat balnearixotik zu kontratatzer, *aber* nahi *zendun* juatia.⁷

2.8.2. *Perpaus erlatiboak*: -ena

Perpaus erlatiboetan, haren ardatz elementua aurreratzeke modu bat bada, eta nahiko sarri erabili izan da gure artean: ardatz elementua aurretik eman, eta ondoren erlatiboaren aditza menderagailuarekin eta mugatzailearekin (*-ena*). Letra etzanez eman dugu ardatz elementu aurreratua eta, horren ostean, aditz menderatua:

⁷ Batzuetan bi sarrera-hitzak batera erabili izan dira, zehargalderaren hasiera horri gorputz handiago eman nahian edo: *ea aber / aber ea... -en*.

— Eta honek galdetu zigun *ia aber* iñok antzik ematen giñon [genion] haura montatzeko zer egin bihar izan zan.

- (50) Eta nik Azkarate gaiñian, allegau giñanian, *lelengo lana egin nabana* zan, bueltia eman automobillari, eta kale aldera edo hona herri aldera begira jarri.
- (51) Maltzagan ere egitten zuan erromerixia. Eta *beste erromerixa bat gu izeten giñana*, oiñez jun bihar izeten zuan eta urruti, Usartzan.

2.8.3. Denborazko perpausak

Denborazko perpausetan ohikoa izaten da aurreko muturrean markatzaileak jartzea, abiatzera doan perpausa denborazkoa dela (eta zer eratako denborazkoa den) aurreratzeko. Hona pare bat egitura eta haien adibide batzuk:

a) *Harik eta ... arte*

- (52) *Harik eta* etxeko lan danak amaittu *arte*, ez giñan oheratzen.

b) *Behiñ ... -tuz gero*

- (53) Hori, hor zihar abantau zaitte, eta ixa Tudela alderaiño entzun egitten dozu edarki Arrate [irratia] ere. Asko sartu da lehendikan. Lehen, en kanbio, *behiñ* Bitorixa aldera *pasau ezkeru*, ez zan entzutzen.
- (54) Oiñ, biharbada, eukiko deu atakia sartzeko; igual larra eukiko dau. Baiña *behiñ* atakia *pasau ezkeru*, tente ere ondo juten da, eta hondua garbixa dauka.

Aditzaren elipsia duena ere erabiltzen da:

- (55) Lehen basarrixan *behiñ* urte bi-hiru *ezkeru*, benga: edo atxurra, edo eskubaria, laster izeten zan. *Behin* sei-zazpi urtera *ezkeru*, segia.
- (56) Lo egitten det, baiña esna ere asko. Nik, *behiñ* goizeko hirurak *ezkeru*, gau oso bat ez det egiñ.

2.8.4. Kausazko perpausak

Ohikoak dira mendeko perpausaren hasieran ere kausazko lokailu iragarleak; bat baino gehiago erabiltzen dira ahozko gure jardunean; aditzak ez du menderagailurik hartzen, ez gure hizkeretan behintzat (hori adierazi nahi dugu \emptyset zeinuaren bidez). Hona kausazkoetan ditugun aukerak:

a) *Zergatik eze... \emptyset*

- (57) Ez zan komeni han gelditzerikan, *zergatik eze* berriz ere beste disparo bat ero, neu hantxe naguala igual allegauko zan.
- (58) Lehengo euskeria dagok oinguakin zihero diparentia, edo behintzat asko diparentziatzen dana, *zergatik eze* gaur dauden gauzak asko entendidu ere etxaittugu [ez ditiagu] egitten.
- (59) Eta tabernia gau guztian irikitxa egoten zan. Gau guztian, *zergatik eze* hamabixak aldera arte edo igual egongo ziran normalian, eta ordubatak edo ordubixetarako banaka batzuek hasten ziran egun horretan.

b) *Zergatik(an)*

- (60) Guk ez gendun lan asko egin basarrixan, *zergatik* hamahiru urtekin tallarrera hasten zan.
- (61) Askotan pentsatzen dot herri-kirolak eta, ez ete diran galduko. Oin sostenetzen dira oindiokan baiña, igual... Dantzia, behintzat, gordetzen da. Dantzia seguruago, *zergatikan* dantzia da betikua, segitzen diona da, eta gazterixiak, itxuria, erretz egitten dau.

c) *Ze*

- (62) Eta kastigauta egoten nitzan, matematikarik eman be, ez nakixalako, *ze* maixuak zelakuak ziran orduan!
- (63) Ba (nere semia), derrigor ezagutu bihar dok, *ze* Elgoibarren haura ezagutzen eztaban txakurrik eztagok eta.
- (64) Andria noiz ezagutu naban? Handikan denporara, bastante denporara izango zan, *ze* normalizauta zagan gauzia. Behintzat, gerria ya amaitutzat-edo hamen bueltetan.

d) *Zela/nola ... -en*

Kausazko-azalpenezko beste egitura hau ere badugu, aurreko muturrean moduzko galdetzaille bat daraman hau; gure eskualdeko hizkeretan, buru-markatzailerik ez duen *-enez (gero)* baliokidea bezain erabilia da.

- (65) Ba, zure ama, bueno, ama eta aitta ere, hamen *zela* San Lorentzokuak *diran* bixak, ba, guk ibilli dogun euskeria iguala da.
- (66) Baiña hau *zela dan* landara haundixa, honek lur gehixago eskatzen jok [dik].
- (67) Donostia aldetik eta, ebakuaziuak izan ziran Altzolara. Eta hotelen batzuek rekisatzen zittuen hor, Donostia aldian da; hamen Altzolan ere, *nola* baiñuetxia eta ohiak-eta *zauden*, egokixa zan lekua.
- (68) Ostian ez genduan ordaindu ezer ere, baiña guk eruaten genduan jeneruakin, *nola* askoz gehixago guk bihar genduan baiño eruaten *genduan*, ba, harekin tabernia irikitxa zagan.

e) *Por ke*

Euskaraz berri samarra da menderagailu hau: ez du idatzizko tradiziorik, eta ahozko jardunean ere azken urteetan baizik ez dugu horren lekukotasunik. Batez ere gazteen artean entzuten hasi da, baina ezin aitortuko diogu orain arte aipatu ditugun egitura kausazkoei aitortzen diegun tradiziorik, eta ezin emango diogu aurrerabiderik. Hala ere, hauek gero eta gehiago erabiltzea seinaleztat hartu behar da buru-markatzailedun egituren premia edo behar batena, hiztunek duten premia batena. Hona pare bat adibide, hain gaztea ere ez den hiztun batena:

- (69) Partidu edarrak asko ikusi ditzut, *por ke* nik frontoera juten daruat soldautzatik etorri nitzan ezker. Urte asko. Bai, partidu asko eta politxak.

- (70) —Idi-probena oso gogorra da. —Neri penia ematen die. —Baitta neri ere. Penia ematen dau, *por ke* ezin dabanian ere, oindiok ere han eragitten diue [diete], entenditzen dozu?

f) *Zer ba* menderagailu?

Hona aipatu berri dugun markatzaileen beharraren beste seinale bat, *zer ba* egituraren erabilera lekuz kanpoko bat. Kontua da erabilera jakin bat duela galdetzaile honek (bera bakarrik, huts-hutsean: —*Ez naiz zurekin mendira juango. —Zer ba?*), baina gazte jendearen jardunean beste erabilera bat hartzen ari dela azken urteetan: menderagailuarena, hain zuzen; mendekoaren hasierako buruan ia nahitaez menderagailua eraman beharraren beste sintoma bat dugu hau.⁸ Hogei urtetik beherako hitzunik bakarrik darabilte *ze(r) ba* hau menderagailu gisa: berri-berria da, beraz.

- (71) *Zugana etorri naiz, *zeba* liburu bat eskatu bihar dizut.

Horrelakoetan, buru-markatzaile bat erabili nahi badugu behintzat, baditu euskarak askotariko egiturak, denak tradizio sendoagoa dutenak. Gorago ikusi ditugu. Hau da horietako bat:

- (72) Zugana etorri naiz, *zergatik (eze)* liburu bat eskatu bihar dizut.⁹

2.8.5. *Kontzesio-perpausak*: nahiz eta ... -tu/-en

Kontzesio-perpausetan egitura bakarra dugu kontzesio-balioa aurreratzen laguntzen diguna, *nahiz eta... -tu/-en*. Hain zuzen ere, kontzesio-egituretatik tradizio laburrena duena da, baina (hau ere zerbaiten seinale) azken mendeetan ugalduz eta nagusituz doana. Gainerakoak menderagailua azken muturrean edo kontzesio-perpausaren barruan daramatenak dira: *-en arren, ba-... ere, -tuta ere...*

- (73) Bedarra ebagitzera nua, orduan, *nahiz da* bittartian igual eurixak *harrapau*.
 (74) Bai, baiña orduan pasatzen da batzuk dirala Elgoibarkuak eta bestiak Eibarkuak, *nahiz da* hamen *bizi*.
 (75) Eske, batzuk esaten debe San Rokekuak euren artian egitten debela era batera eta San Lorentzokuak, *nahiz da* antzerakua *izan*, beste era batera egitten debela.

Bereziki lagungarria gertatzen da *nahiz eta... -tu* egitura mendeko perpausa perpaus nagusiaren ondoren doan kasuetan; halakoetan, perpaus osoaren amaie-

⁸ Sintoma horren adibide ditugu gaurko gaxtetxoek erabiltzen dituzten egitura halamoduzko hauek ere:

—*A ke ez dala etorri irakaslea?*

—*Nola jaikiko gara goizeko zortziretan, si oporretan gaude!*

—*Ya ke ez dan iñor irten, etxera juango naiz.*

Halako erabilera gaur goizekoak jasotzen (eta zuzentzen) dituzte Plazaolak, Agirregabiriak eta Bikuñak beren lanean (2005).

⁹ Galdetzaile gisako erabilera oker bat ere badu *zer ba* honek, azkenaldi gorabeheratsu honetan:

—**Ze(r) ba etorri zara hain berandu?* (GAIZKI)

—*Zergatik etorri zera hain berandu?* (ONDO)

rara arte ez baitakigu, bestela, zer eratako perpausaz ari garen.¹⁰ Egokitu dezagun goiko adibideetako lehenbizikoa, beste menderagailu azkenburuko bat jarritz, esaten ari garenen erakusgarri:

(76) Bedarra ebagitzera nua, orduan, bittartian igual eurixak *harrapau arren*.

Perpaus honetan koma bakar bat dago perpaus nagusiaren eta mendekoaren be-reizgarri, eta ez dakigu mendeko perpausa den ere harik eta perpausaren amaierara iristen garen arte, aditza eta menderagailua aurkitzen ditugun arte.

2.8.6. *Baldintzazkoak*: (deskuiduan) baldin ba-

Baldin hori iragarlea izan daiteke, baina hori nahikoa ez, eta batzuetan beste zerbaiten beharrean aurkitzen da hiztuna; horretarako dauka parentesi artean eman dugun hitza edo horren antzekoren bat, mendeko horren baldintza-balioa hasiera-hasieratik markatzeko.

- (77) Eta nik Azkarate gainian, allegau gainian, lelengo lana egin nabana zan, bueltia eman automobillari, eta kale aldera edo hona herri aldera begira jarri, *deskuiduan* estuasun bat sortzen *baldin bazan*, prest eukitzeko alde egitteko.
- (78) Antxobia txakurraundixan *baldin badago*, ekarri. Eta handik gora badago, ez ekarri.
- (79) Neuk ere idea pixkat baneukan, eta onen-onena apaiza edo holakotxia izango zala, egokixena, habittaziua *baldin bazeukan* emateko.

2.8.7. *Egitura korrelatiboak*

Ulermenari mesede handia egiten diote egitura korrelatiboek, eta nahikotxo erabiltzen dira ahozkoan.

- (80) Ura *nundikan* dixen, *handik* juten da agudo aingiria.
- (81) Eguzkixa *nora*, zapixak *hara*.
- (82) Eta beti indiziuak kalenturia ez dediñ egon: *zenbat eta* antibiotiko *gehixago*, *gero ta aguruago* sendau.
- (83) Eske, oiñ baiño pertsonak uste dot sanuaguak gainala, e! Sanuaguak. *Zenbat pobriago*, eta pertsonia *sanuagua* da, nik uste dotena.

3. Morfologiari dagozkion estrategiak

Morfologian ere, syntaxian bezala, badira aipatu beharreko kontutxo batzuk komunikazioa erraztearen arloan ari garelarik.

¹⁰ Hala dio Juan Garziak (Garzia 1997) *nabiz eta... -tu* egituraz ari denean: "(...) sintaxi librexeagoa onartzen du, gainera, egitura horrek (-n *arren* menderatuaren aldean), eta horregatik eta perpaus-funtzioaren marka (juntagailuaren ordezko lotura egiten duen *nabiz* hori, hain zuzen) hasieran darimalako erabiltzen dugu, hain zuzen, barra-barra egitura hori, kontzesiboak posizio horretan [perpaus nagusiaren ondoren] doazenean."

3.1. Sintagma juntatuetan kasu-elipsirik ez

Gaur egun boladan dagoen arren, orain arteko ahozko tradizioan, gure eskualdekoan behintzat, ia ez da erabili izan sintagma- edo izen-juntaduretan egiten den kasu-markaren isiltze hori. Hona berriki irakurri ditudan adibide bi:

- (84) Haurrak *liburu eta irakurketara* hurbildu nahi ditugu.
- (85) Komenigarria da gurasoek ere ardura hori hartzea *eskola eta liburutegiekin* batera.

Ez dago zalantzarik guk inkestatu ditugun hiztun adinekoek ez lituzketela esaldi horiek horrela emango; juntaduraren egitura (juntagaiak zein diren) argi eta garbi utziko lukete, nire ustez, eta halako zerbait esango/idatziko lukete goiko (84) eta (85)-en orde:

- (84') Haurrak *liburueta* eta irakurketara hurbildu nahi ditugu.
- (85') Komenigarria da gurasoek ere ardura hori hartzea *eskolekin* eta liburutegiekin batera.

Hiztun hauek ez diote batere arazorik ikusten hondarkiak errepikatzeari: behin eta berriz aurkitzen ditugu horren erakusgarri diren adibideak. Hona batzuk:

- (86) Ikusi jendia, ezta? Bai, ba, *suekuak eta inglesak eta belgak eta frantzesak* ere bai.
- (87) *Azkoitixak eta Azpeitixak* badauke alkarren antza.
- (88) *San Lorentzokuak eta San Migelekuak* berdintsu egitten debe euskeraz.

3.2. Aditzaren forma jokatugabeak

Aditz laguntzailearen elipsiarekin ere badu zerikusia honek. Kontua da askotan erabiltzen direla aditzaren forma jokatugabeak ahozko testuetan: horrekin komunikazio biziagoa eta naturalagoa lortzen da. Hona adibide batzuk:

- (89) Euskeraz eziñ egiñ, eta erderaz *jakiñ ez*: horrek zittuan komerixak.
- (90) Eta burrukan dabilela, hauraxe *galdu* azkoittiar horri (hogei duroka).
- (91) Eta, esan dotena: aittak bialdu ninddun Unzetanera, baiña zintta-karrerria zaguan, eta hantxe gelditzia *pentsau* nik, neuk ere parte hartzeko!

3.3. Nominalizaziorik ez, oro har

Gehiegizko nominalizazioarena da gaur egungo euskarak duen arazoetako bat; hau ere erdaren eraginagatik eta ustezko dotorezia bat, jasotasun bat bilatu nahi izateagatik, batez ere. Kontua da, ordea, nominalizazioa bere neurrian erabili behar dela, ez dugula behar baino gehiago erabili behar. Zergatik? Bada, batez ere testuari iluntasun erantsi bat ematen diolako. Iluntasun erantsi bat eta, horretaz gain, abstraktutasun bat, eta artifizialtasun bat ere bai, zeren eta askotan euskal tradizioan erabili ez den hitz eratorri bitxi bat erabiltzea baitakar fenomeno honek. Nominalizazioak (aditz bat izen bihurtzeak) dakarren egitura ere konplexuagoa da aditza bere horretan (aditz gisa jokatuta) erabiltzen denean duguna baino; izan ere, aditza izen bihurtzen

badugu, beste aditz esanahiz huts bat (*izan, egin...*) erabili beharrean aurkituko gara. Hona nominalizazioaren adibide batzuk:

(92) *Denda berriaren irekiera* egingo dute gaur arratsaldean. (??)

(93) *Trenaren irteera* bostetan izango da. (??)

Ahozko jarduna ondo menderatzen duen hiztun batek ez lituzke mezu horiek horrela adieraziko. Nola? Ondorengo egiturak hurbilago leudeke, zalantza izpirik gabe, euren estilotik:

(92') Gaur arratsaldean *irekiko dute* denda berria.

(93') Trena bostetan *irtengolabiatuko da*.

4. Estrategia erretoriko-poetikoak

Entzulearen (eta, idatzian, irakurlearen) arreta lortzen laguntzen duten estrategiak dira atal honetan hizpide izango ditugunak. Izan ere, zenbaitek uste duenaren kontra, ez da nahikoa izaten zuzen eta arauen arabera hitz egitea edo idaztea; horrez gain, erretorikak eskaintzen dizkigun baliabideak erabili behar ditugu, baldin eta irakurlearen arreta irabaziko badugu, eta arreta horri eutsiko badiogu.¹¹

Baliabide horiek erretorikoak edo poetikoak ditugu, figurak eta tropoak dira, eta, besteak beste, ahozko hizkuntzak hain gogoko duen konkrezioari laguntzeko erabil daitezke (gauza abstraktuak eta orokorrak baino erakargarriagoak eta ulergarriagoak dira konkretuak): adibideak sartuz, konparazioak eginez, irudi bisualak eskainiz, metaforak eta onomatopeiak erabiliz, eta abar.

Bestalde, hizkuntza poetikoaren ezaugarri funtsezko bat ere badugu, pertzepzioaren automatikotasunaren kontra jo nahi bat; beste era batera esateko, monotonía apurtu nahi bat, edertasuna bilatu nahi bat. Horretan lagunduko digute beste baliabide eta figura batzuek: berariazko etenaldiek, galdera erretorikoek, esaldi eginek, hiperboleek, egituren bariozioak, harridura-adierazpenek (esklamazioek, interjekzioek), eta abarrek.

Figura erretoriko horietako batzuen adibide batzuk jaso besterik ez dugu egingo, lantxo honi amaiera emateko.

4.1. Konparazioak

(94) Bai, danian pasatzen dana da. *Konparazio baterako*, kanpora juan zaitte, eta radixo bat hartu'izu, eta katalana izan, edo Valentziakua izan, diperente egitten dabe.

(95) Ez, *konparazio baterako*, ni han jaixo, baiña hazi hemen.

(96) *Akerran adarrak baiño okerragua* dok ume hori!

¹¹ Hona Cassany-ren hitz batzuk, kontu hau dela eta (Cassany 1995): "Qué hacía que unos (artículos) fueran tan atractivos y otros tan poco?, ¿por qué te enganchabas a leer unos hasta el final?, ¿por qué resistías poco más de un par de párrafos en otros? La respuesta tiene ocho letras: RETÓRICA. O también el arte de convencer, atraer, persuadir...".

4.2. Onomatopeiak

- (97) Amakin juten giñuazen bost lagun edo. Koxkorrak danak, *ttiki-ttaka, ttiki-ttaka*, txarrikumak ama(re)n onduan bezelaxe juten giñuazen.
- (98) Euren artian beti erderaz. Euskeria ahiztu! Eskoletan laga ez, eta gero kalera jun, eta *ttor-ttor-ttor!* Dana erderaz. Etxian ere, erderaz.
- (99) Larogeta hamar urtekin, hor dabil gure Inazio, *ttirri-ttarra*.
- (100) *Di-da* batian amaittu juagu [diagu] lana.

4.3. Hiperbolea

- (101) *Etxagok aman semerik neri musian irabaziko didanik!*
- (102) Elgoibarren ez dago haura ezagutzen ez daban txakurrik!
- (103) *Baria baiño motelagua zuan, motell!*
- (104) Bai, neuk ere lehen euskera gehixago egitten najuan [nian], garbixago, baiña oingua(re)n moduan ez, e! *Jesukristoren denporakua* egitten genduan.

4.4. Egituren bariazioa (kiasmoa...)

- (105) Basarrixan, *lana beti; beti lana*.

4.5. Ironia eta paradoxa

- (106) *Gozua jarriko dok* gure aitta, enteratzen danian!
- (107) (Amak seme-alabei) —*Zintzo ez ibili*, gero, e!
- (108) —Esan diot gehixago halako latarik ez emateko. —*Ez alperrik!*

4.6. Galdera erretorikoak

- (109) Eta, *bazuan, ba, aldeko mutilla?* Gero jun zan Santaeske egunian gerrara.
- (110) Zapatak apurtu samartuta zaukazen. *Eta zer egin zaban?* Brigadiari eskatu berrixak.
- (111) Eskolan, *basarritarrak eta ere zer?* Etorri, eta neguan sei bat hillabete edo egiñ, eta gero fuera.
- (112) *Ba al dago hau aguantauko dabanik?*
- (113) *Zer da, eta azkenian kastigua maixuak!*
- (114) *Zeiñ etorriko, eta etsairik txarrena!*
- (115) *Pilarika eguna, “doze de oktubre” ez dok, ba, izaten?*

4.7. Paralelismoa

- (116) Elur urte, gari urte.
- (117) Kanpuan uso, etxian otso.

4.8. Ondorioak atera, laburbilpenak egin, atsotitzak edo esaldi eginak erabili¹²

Idea bat garatu ondoren, kontakizun bat burutu ondoren, amaieran laburpenak egitea, kontatu dena irudi batekin deskribatzea, esaldi egin batekin edo atsotitz batekin amaitzea modu egoki bat da entzuleari gauzak errazteko, gauzak hobeto ulerrazteko eta gogorarazteko. Ahozkoan askotan erabiltzen den estrategia da:

- (121) Urte batzuetan ibili nitzuan lanian nere kontura; gero, anaixan bittartez hasi nitzuan haren tallarran: *kanpuan hotz egitten juan* [zian].
- (122) Badakitt ez dala idea onegixa, baiña halaxe egin bihar izan dot: *nagusixak esandako lekuan lotu bihar izaten dok astua, nahiz eta gero bertan ittoko dala jakin*.
- (123) Batian eta bestian ibili zuan nobixa billa, baiña eziñ egokixa topau; eziñ iñorekin konformau. *Azkenian, on billa, on billa, bonbilla!* (beste aldaera bat: *Oiñezkorik nahi ez, eta zaldizkorik etorri ez*).
- (124) Mendaroko gazte batek bota juan bertso berde hori. Bai, ba, *sasoian [izaten dittuk] kerixak!* [gereziak]

Orain arte idatzitzako guztiak beharbada balioko du, non eta ez datorkigun, erdal esapide herrikoï batek dioen bezala, “Paco con las rebajas”; Paco, kasu honetan, Patxi da, liburu honetan omentzen dugun lankidea eta, norbaitek zioen bezala, “hala ere, adiskidea”. Gramatika batzordearen bileretan erabili izan dut nik esapide horren bertsio moldatua: “Badator Patxi merkealdiekin, murriztapenekin”; alegia, askotan aritu izan gara honetaz eta hartaz eztabaidatzen, ustez egiak zirenak batzordea ekartzen, eta bakoitza bere ekarpenarekin poz-pezik geratu izan gara; baina, halako batean, Patxi hartzen du hitza, eta, bere konformagaiztasun horrekin, bere irtenbideak detektatzeko “usaimen” berezi horrekin, ordura arte ontzat emandakoa hasten zaigu kolokan jartzen, zalantzan jartzen, eta gauzak beste era batera planteatu eta beste bide batetik eramaten. Maisuek bakarrik egiten dute hori, eta bera horixe izan da (eta da) niretzat, maisu bat, karrerako lehenbiziko urteetatik hasi eta gaur egunera arte.

Bibliografia

- Amonarriz, K., A., Egaña, & J., Garzia, 2004, *Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- “Auspoa” saila (herri-literatura). Antonio Zavalak sortua eta zuzendua. Gaur egun, Sendoa argitaletxeak argitaratzen du.
- Cassany, D., 1995, *La cocina de la escritura*, Anagrama, Bartzelona.
- , 2005, *Describir el escribir*, Paidós, Bartzelona.
- Esnal, P. 1987-1989, “Ahozko euskarari buruz”, Euskararen Kutxa atalean argitaratutako artikulu sorta, *HABE*.

¹² “Las fórmulas ayudan a aplicar el discurso rítmico y también sirven de recurso mnemotécnico, por derecho propio, con expresiones fijas que circulan de boca en boca y de oído en oído: *Divide y vencerás, Fuerte como un roble*. Las expresiones fijas (...) en las culturas orales no son ocasionales. Son incansables. El pensamiento, en cualquier manifestación extensa, es imposible sin ellas, pues en ellas consiste.” (Ong 1987).

- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak-1)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2005, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VI (Mendeko perpausak-2)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VII (Mendeko perpausak-2)*, Material argitaragabea.
- Garate, G., 1998, *27173 Atsotitzak. Refranes. Proverbs. Proverbi*, BBK fundazioa, Bilbao.
- Garzia, J. R., 1998, “Hedabideetako euskara mintzatua”, in F. Rodríguez & I. Esnaola (arg.), *Euskara mintzatuaren erronkak*, UPV/EHU-ren Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- , 1999, *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*, UPV/EHUko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- Garzia, J., 1997, *Joskera lantegi*, IVAP-HAEE, Gasteiz.
- Makazaga, J. M., 2007, *Elgoibarko euskara: berbak, egiturak eta irakurgaiak*, Elgoibarko Udala, Elgoibar.
- Ong, W. J., 1987, *Oralidad y escritura*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.
- Plazaola, E., K. Agirregabiria & K. Bikuña, 2005, *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*, Badihardugu Euskera Alkartia, Eibar.
- Zubimendi, J. R., 1995, *Jokaera-liburua*, Sendoa, Irun.
- , & Esnal, P., 1993, *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

COMPETENCE FOR PREFERENCES

Roger Martin

Yokohama National University

Juan Uriagereka

University of Maryland

1. Introduction

In this paper we treat the phenomenon of syntactic preference as a grammaticality judgment that emerges in situations of structural ambiguity. There seem to be instances where, despite the fact that several relevant structures for some terminal string are grammatical, speakers somehow feel that they do not all have the same grammatical status: one or more are *preferred* over the others. To account for this phenomenon, we presumably need some sort of comparison set as well as a procedure to establish the appropriate choice(s). In this paper we will concentrate only on one well-studied example of syntactic preference, which emerges in the interpretation of scopally ambiguous sentences.

Before presenting our account of preferences, we need to consider the way a *chain* is constructed. For Chomsky (1995), a chain is an n -tuple of phrase-markers linked up by way of a moved item. If L , a sister to K , moves to merge to K' , the object thus formed is the chain $\{\{L, K\}, \{L, K'\}\}$. If something happens to L in one position (link) in the chain, it happens to L *in all* positions. For example, when the 'head' of a chain moves, the entire chain expands. Implicit in this is the idea that chains are objects encoding several derivational stages, all of which co-exist in an array of phrase-markers, and that the computational system somehow has access to all of the stages simultaneously, at least within given domains.

2. The Basic Facts

Consider the example in (1):

- (1) A boy saw every girl.

Apparently speakers that find (1) ambiguous typically prefer the reading in which *a boy* takes scope over *every girl*. However, it is difficult to even state an accurate description of where such preferences arise. It is not the case, for instance, that a quantifier that precedes another, or even that the subject, always has preferred wide scope, as (2) and (3) establish.

- (2) Two salesmen showed a car to every customer.
 (3) A car was shown to every customer.

In (2), although the preferred reading is that on which widest scope is assigned to the subject, there seems to be no preference with respect to relative scope of the two internal arguments of the verb (i.e., either one can take intermediate or narrowest scope), despite the fact that *a car* precedes *every customer*. Similarly, in (3), speakers don't seem to be compelled to assign widest scope to *a car*, despite the fact that it both comes first and is moreover the subject of the sentence. The speaker preferences cited above, and most of those that we refer to in this paper, are taken from Pica and Snyder (1995), who report experimental data from a study by Snyder (1994). Snyder conducted a psycholinguistic experiment to test for preferences and discovered some interesting generalizations, which we seek to account for here. For the purposes of this paper, we will not second guess Snyder's data, aware as we are of the difficulty of coming up with reliable observations in this domain and the need for further experimental studies.

The results of Snyder's study can be summarized as follows:

- (4) a. Subjects take preferred wide scope, except when displaced from a θ -position that is lower than that of other scope-interacting arguments.
 b. Arguments internal to VP do not exhibit noticeable scope preferences, even when linearly arranged in various ways.
 (5) a. Scopal interaction is absolutely limited to local domains (where standard binding effects are manifested).
 b. Dative shift somehow fixes the scope of the displaced argument.

(4) concerns preferences, whereas (5) deals with judgments of absolute grammaticality. Examples (1)-(3) above illustrate claim (4a) and the example in (2) illustrates claim (4b). The claims in (5a) and (5b) are illustrated by the examples in (6) and (7) respectively:

- (6) a. Some boy believes every girl is capable of cheating.
 cf. Some boy_i believes he_i/*himself_i is capable of cheating.
 b. Some boy believes every girl to be capable of cheating.
 cf. Some boy_i believes himself_i/*him_i to be capable of cheating.
 (7) a. Two salesmen showed a customer every car.
 b. A customer was shown every car.

(7b), where *a customer* takes widest scope, contrasts minimally with (3). Assuming that the passivized indirect object first undergoes dative shift, (7b) presumably falls under generalization (5b).

3. Towards a Solution

It is unclear what (5b) follows from. We report it here only in order to compare the examples in (7), where *clear* preferences obtain (in fact, obligatoriness of given readings), to those in (2) and (3), where Pica and Snyder claim speakers do not have preferences that distinguish cars and customers in terms of scope. As for (5a), the

result is expected if the theory of quantifier interaction proposed by Kitahara (1996) and Hornstein (1995) is essentially correct, at least for core scopal interactions.

The Kitahara/Hornstein (K/H) approach does not involve the displacement of quantified elements into scope taking positions. Rather, quantifier scope piggybacks on the possible realizations of A-chains. The LF of (1) has the form in (8) (with so-called copies in *italic*), as a result of A-movement of arguments to Case positions.

- (8) [_{IP} a boy [_{vP} every girl [*a boy* [_{VP} saw *every girl*]]]]

Depending on which copy of the displaced element is interpreted, different scopal relations emerge. The K/H theory predicts that scopal interactions exhibit the locality of A-movement, which is largely according to fact.

Also, consider an example like (2), in particular the reading where the direct object takes widest scope. For such a reading to obtain, the logic of the K/H system forces the subject and indirect object chains to be interpreted in their θ -positions. Assuming the standard thematic hierarchy, when the direct object takes widest scope, *a fortiori* the subject must take scope over the indirect object, which in turn must take narrowest scope. According to our own judgments, this prediction seems to be correct.

More important to our concerns here, the K/H theory may help us provide an account for the preferences noted by Pica and Snyder. Suppose that chains are best represented as being comprised of several *simultaneous* derivational stages, so that in principle they exist in one or the other stage (say, the ‘foot’ or the ‘head’ of the chain), in a manner to be discussed in further detail below. As a matter of terminology, we will say that to interpret a chain in a particular chain-state ρ is to *collapse* the chain in ρ . Intuitively, the chains in (1) can collapse as in (9), which covers the space of possibilities involved in the relevant LF (ϕ signals a Case/agreement site, and θ a θ -position).

- (9) a. [_{IP} a boy [_{vP} every girl [_{VP} saw]]]
 ϕ ϕ
- b. [_{IP} a boy [_{vP} [_{VP} saw every girl]]]
 ϕ θ
- c. [_{IP} [_{vP} a boy [_{VP} saw every girl]]]
 θ θ
- d. [_{IP} [_{vP} every girl [*a boy* [_{VP} saw]]]]
 ϕ θ

75% of the representations in (9) collapse in a reading where *a boy* has scope over *every girl*, whereas only 25% collapse in the inverse reading. This interesting fact should be relevant in determining the observed preference, yet it is unclear how to even state it in standard terms.

4. What are Preferences?

All other relevant things being controlled for, would *populations* of speakers be more likely to simply go with the more probable collapse? How would that model *a given speaker's intuitions* for preference? Populations seem at right angles with the nature of individual preferences.

Is it possible that the reported collapse rates are a matter of individual *performances*? Perhaps, but what would it mean for an individual to have a sense of preference *when examining the sentence in isolation*? Does a speaker carry a history of the times a given representation was somehow highlighted, thus yielding a particular preference?

That seems unlikely, especially for token sentences that speakers may have never heard, and for which preferences remain clear. Surprisingly, even in sentences that, for purely pragmatic reasons, lend themselves more easily to the inverse scope interpretation, standard preferences still obtain; they do not bend to the pragmatic bias. Observe the following:

- (10) a. A rich man cast every vote for the president.
 b. Every vote for the president was cast by a rich man.

The only salient interpretation of (10a) is one that refers to the situation (which would normally be expressed as in (10b)) where each man casts one vote. And yet, as far as we can see, one cannot help but prefer the weird interpretation for (10a), whereby we somehow imagine a powerful man cheating to cast several votes.

How can a person *feel* to prefer one scope over the other—even overriding a pragmatic bias—if both scopes aren't somehow simultaneously evaluated, with one, somehow, winning over the other?

From our perspective, the representations in (9) do not correspond to separate LFs. They are (simultaneous) *states of the same LF*, understood as a collection of phrase markers.

More specifically, the chain created by movement of *a boy* has .5 probability of collapsing in the ϕ -position and .5 probability of collapsing in the θ -position. The same is true of the chain headed by *every girl*. The combined probability of each of the representations in (9) is .25. Three of those states with probability .25 of occurring are equivalent, in that they present the quantificational sequence *a > every*, which means that particular logical interpretation has .75 probability of occurring, as opposed to .25 probability of the *every > a* interpretation. If these representations exist simultaneously in an individual's mind, we can model a 'preference set' in terms of their probabilities. In turn we allow the more probable representation to be preferable, that may help us model the choice itself.

The idea is that chains are dual objects, involving a behavior with regards to configurational position and one with respect to movement. If we consider a chain *qua* the reach of its movement, then we should not reconsider it *qua* position, and vice-versa. This is because the positional modeling and the modeling of the chain's reach are really quite different. In terms of position, a chunk of a chain is a configuration; that is, a phrase-marker (itself a set of word combinations assembled via the Merge procedure). In contrast, in terms of its reach, via various configurations, a chain is a set of configurations; that is, a set *of sets* of word combinations. It is not clear what it would mean for a chain to be *at the same time* considered as a configurational object and as a set of objects thereof. Apparently the language faculty exclusively chooses one state or the other, somehow.

Given this notion of chain, the relevant chains in (8), as sets of phrase-markers, simultaneously face all of the possibilities in (9). Thus, it makes sense to speak of a degree (probability) of preference for this or the other logical array, computed pre-

same as those of corresponding active sentences. Although we have no psycholinguistic evidence to back that claim up, it seems reasonable to say that either the sentence entirely disallows wide scope for *every boy*, or at least makes that reading highly disfavored, as was traditionally assumed. The question, then, is why *every boy* cannot take scope over *a girl*, assuming the chain created by movement of the latter can collapse in the lower θ -position.

Obtaining such a reading would have to involve a higher collapse of *every boy*. It is reasonable to assume that the θ -role of *every boy* is the result of its merging with *by*. Similarly, it would appear that the Case relation between *by* and *every boy* is inherent. If so, unlike the instances we have seen before, *by*-phrases would involve a single ϕ/θ -position, where both inherent Case is licensed and a θ -role is assigned. Alternatively, it could be that the θ -role is assigned in the complement position of the *by*-phrase and Case is checked in its Spec position, in which case all relations are still internal to the projection of *by*. Either way, *every boy* does not c-command *a girl*, regardless of whether the latter collapses in the higher or lower position, due to the intervening maximal projection of *by*. So under any of the possible combinations of collapses, either *a girl* takes wide scope over *every boy* or *every boy* and *a girl* do not interact in terms of scope at all, in which case the interpretation obtained is logically equivalent to one where *a girl* has wide scope. As a consequence we predict either total or overwhelming preference for the reading where *a girl* is assigned wide scope, as seems to accord to fact. Furthermore, under this analysis, (19) is not a counterexample to (4a), which is only about scope *interacting* arguments.

A similar argument can be made for (20) below, which according to our judgments involves either absolute wide scope of *a girl* or a very strong preference for such a reading.

(20) A girl seems to every boy to be nice.

Conceivably, the indirect object in this instance receives inherent Case, differing from the diadic examples above. This analysis is consistent with two other circumstances.

First, despite the fact that indirect objects can in general undergo passive and dative shift in English, the indirect object in constructions like (20) cannot, as the examples in (21) show.

- (21) a. *It seems every girl [that...]
 b. *Every girl seems t [that...]
 c. *There seems (to) every girl [that...]

This is expected if the indirect object position receives inherent Case, since quirky-type movement is not possible in a language like English.

Second, in Spanish, contrary to what we saw for passives in (16), constructions parallel to (20) (to the extent they are even grammatical) do not involve special agreement:

- (22) ??Las chicas les han parecido/*as [t ser agradables]
 the girls to them have.AgrS seemed/*AgrO to be nice

Indeed, the fact that (22) is not so good (regardless of agreement) suggests that the dative phrase induces an intervention effect, particularly because the intermediate step in (15) doesn't seem to be available. Why such sentences are better in English

may relate to the fact that it allows ‘CP-deletion’ in epistemic contexts like this one, whereas that process is independently known to be impossible in Spanish. Indeed, (22) becomes perfect if, instead of a ‘full’ complement clause, a small clause appears as the complement of *parecido*, as in (23).

- (23) Las chicas les han parecido [*t* agradables]
 the girls to.them have.AgrS seemed nice

The intervention effect of the dative in all these instances would be attenuated if the downstairs predicate manages to somehow associate to the upstairs one, in the process extending its local domain (Chomsky 1995: chapter 3). It is not unreasonable to assume that small clauses and IPs (i.e., contexts of ‘CP-deletion’) allow such reanalysis whereas the ‘full’ embedded clause in (22) resists it.

Incidentally, the fact that (22) doesn’t improve if we add the object agreement marker (in fact it gets much worse) indicates that the grammar is not ‘smart enough’ to freely add an agreement marker in order to salvage a derivation. What happens in (16) and similar instances is less teleological than attempting to allow a certain movement. The grammar for some reason has the paradigmatic option of passive participial agreement; given this dull option, a certain movement becomes available, which would otherwise be ungrammatical. However, no matter how useful this extra ‘agreement gate’ would have been in (22), the grammar cannot freely resort to it. This kind of ‘dumbness’, we might add, is not surprising given a minimalist view of the grammar.

If these ideas are on track, the scope facts in (20) are straightforward. The particle *to* introducing the indirect object is a bona-fide inherent Case marker, which means the phrase *every boy* never gets displaced to a (higher) structural Case position. Furthermore, the unique position where *every boy* can be interpreted is not one that allows this element to take scope over *a girl*. Thus, the chain created by *a girl* either collapses in a way in which *a girl* ends up with wide scope or, in a logically equivalent fashion, independent scope with respect to *every boy*. So the LF of (20) looks very similar to that of (19).

8. Conclusions

We have attempted to model syntactic preferences for certain readings in quantificationally ambiguous sentences. To do so, we argued that we first need a preference set, which we were able to base on the sorts of LF representations that arise within the K/H theory of quantifier scope. In addition, we assumed that (for reasons that we have left unclear, but which we will turn to highlight in a moment) one among various possible readings is always chosen for any given LF, which we have called a collapse. The gist of our idea is that the preference set allows for weighted probabilities for given interpretations, and those collapses that are simply more probable will correspond to speakers’ preferences. We argue that this should not be treated as either a population effect or a cumulative performance effect (though it is compatible with population and performance consequences); rather, it is a genuine individual effect. Thus, in our view, it is a systematic part of the language faculty, namely, a part of competence.

We would also like to note here that our approach to preferences is not necessarily limited to quantifier scope interactions, nor is it bound to a particular theory of how the possible LFs for those various interpretations are derived. Preferences for scope interactions turned out in practice to be relatively easy to model, and most of all we were fortunate to have access to Snyder's experimental results. However, in principle there is no reason to limit ourselves to quantifier interactions. There are other domains where preferences seem to arise (e.g., adjunct interpretation, and possibly various 'surface semantic' effects), and these too may well be amenable to our general approach; we further believe that such studies are very much worth pursuing, so long as appropriate probabilities can be computed and the predictions tested against speakers' intuitions. Also, our approach, if on the right tract, can help us explore possible theories of quantifier scope interactions, since only if we can construct a preference set with appropriately weighted probabilities (where what weight, or ratio, turns out to be 'appropriate' is of course an empirical issue), can we possibly explain preferences in our terms. In the cases we examined, the K/H theory of scope works well, but it may well be, however, that other approaches, based on (extensions of) a QR theory, can also be made to work.

We will conclude by noting the curious similitude between chain representations, as understood here, and what happens in quantum mechanics with the collapse of the wave function. In a nutshell, and without attempting to explicate the matter beyond this summary statement, any given particle can be in multiple possible states at once —until we make a measurement. Then it collapses to a single state, the most probable, although others are possible too. Differently put, on the one hand we have stable physical entities whose interactions are, in themselves, perfectly deterministic and rule-based; and yet when that information is measured (thus becoming 'classical'), it literally collapses to one of the many possible states that it could have taken in a way that is probabilistic.

There is a sense in which a chain is like a wave-function, occurrences within it being all the possibilities the chain could collapse to. More generally, and on this model, one could think of an LF as a set of simultaneous derivational stages, or as carrying the probability of finding chain-links in these or the other positions, with interpretive consequences. Of course, to make the analogy concrete, and relevant, one needs *canonically conjugate variables* like momentum and position (in the case of particles). Possibly the duality imposed by the chain *reach* within a given LF —which is the basis of the preference phenomenon discussed here— as compared to the particular semantic interpretation that this, that, or the other collapsed *position* may have within those compatible with the LF, may well be the basis for the necessary 'canonical conjugation' (the quotes denoting still possible metaphoricity).

For what it's worth, the expression of 'positions to be interpreted' is configurationally simpler (lower in a dimensionality for unbounded linguistic representation) than that of 'chain relations to generate preference sets' (which seem higher in dimensionality, if nothing else because they presuppose the configurations and *whatever computes aggregative sets thereof*). If (i) notions of the higher dimensionality could be shown to be appropriately understood in some vectorial fashion, while (ii) objects of the lower dimensionality could be represented as scalars, and (iii) provided that relevant positional representations correspond *only to those comprising preference sets*,

and vice-versa, then it may not be unreasonable to speak, here too, of canonically conjugate variables.

One reason for optimism comes from the fact that, with little imaginative effort, an analogue of the quantum collapse emerges for the cases that occupy us, with pretty much the consequences we expect of such a bizarre mathematical assumption. After all, it remains a non-obvious fact that, out of n possible interpretations that the system affords, the grammar for some reason chooses precisely one in actual interpretive processes; not all, not a few, not even just pragmatically favorable ones, but exactly one.

Familiar functionalist considerations are of little help here, for they basically beg the question: they expect communication to maximize the informative character of the message. However, there clearly are circumstances in which ambiguity would be desirable—for instance in war, love or poetry—but even there one simply cannot simultaneously, and knowingly, collapse into various reasonable interpretations. It seems cognitively impossible, despite the fact that prior to the collapse we can determine particular preferences (or evaluating the situation in a grammatical judgment), which must range over various relevant options.

Now that is exactly what the extension of a quantum collapse to these domains would result in: it should disallow us to precisely ascertain both a preference (calculated over the reach of a chain) and an interpretation (established over a scopally clear position in the LF object). It's one or the other, not both. And so, from this perspective, interpreting a chain is pretty much akin to classically observing a quantum entity, thereby forcing it into one of its multiple states.

Acknowledgements

Our appreciation goes to the late Joel Feigenbaum (who held similar ideas but did not live long enough to develop them), Massimo Piattelli-Palmarini, and especially Joshua Roebke, for helpful clarification. None of them, however, should be held responsible for any of our likely errors. We present this piece—still part of an on-going research—in honor of Professor Patxi Goenaga, the first generative grammarian in the Basque Country. His influence in an entire generation of linguists, who we consider both examples to follow and friends, is only second to his overall commitment to the defense of the Basque language.

References

- Chomsky, N., 1995, *The minimalist program*, MIT Press.
- Hornstein, N., 1995, *Logical form: From GB to Minimalism*, Blackwell.
- Kitahara, H., 1996, "Raising Q without QR", In W. Abraham, S. Epstein, H. Thrainsson and J.-W. Zwart (eds.), *Minimal ideas*, John Benjamins.
- Pica, P. and W. Snyder, 1995, "Weak crossover, scope, and agreement in a minimalist framework", *Proceedings of WCCFL 13*.
- Snyder, W., 1994, "A psycholinguistic investigation of weak crossover, islands, and syntactic satiation effects", poster presented at the CUNY Sentence Processing Conference, CUNY Graduate Center, New York.

ALOKUTIBOTASUNARI BURUZKO ZENBAIT HAUSNARKETA HIZKUNTZALARITZA OROKORRAREN IKUSPEGITIK

Juan Carlos Moreno Cabrera
Universidad Autónoma de Madrid

1. Sarrera¹

Hizkuntz tipologia eta unibertsalei buruzko ikerketak hizkuntzalaritza orokorren eginbehar oinarritzkoen artean daude (Eguzkitza & Etxebarria 2004). Hizkuntz aniztasuna ikertu gabe ezin da benetako hizkuntzalaritza orokorrik egin. Horregatik, hizkuntza ez-indoeuroparrak oso garrantzitsuak dira hizkuntz tipologiako ikerkuntzetan, hauek barik emaitzak nahitaez alderdikorrek izango baitira.

Hizkuntz tipologiaren ikuspegitik, euskarak ezaugarri interesgarri asko ditu, eta haien artean, dudarik gabe, adizki alokutiboek leku garrantzitsua hartzen dute. Hala eta guztiz ere, G. Brettschneider-ek, adibidez, ez ditu aipatzen bere euskararen deskribapen tipologiko laburretan (1979, 1981). Hizkuntzalari germaniarraren artikulua bezala, lan hau hizkuntzalaritza orokorren ikuspuntutik egina dago, eta euskararen deskribapen tipologikoa osatzeko ezaugarri hau aztertu behar dugula uste dut. Horregatik, adizki alokutiboen analisis arituko naiz lan honetan.

Alokutibotasunak hizkuntz sistemaren mailen arteko elkarreragina erakusten du. Hizkuntzaren atal guztiak batera gertatzen dira fenomeno gramatikal honetan. Alokutibotasuna egokiro karakterizatzeko eta deskribatzeko ezaugarri pragmatiko, semantiko, sintaktiko, morfologiko eta fonikoak hartu behar ditugu kontuan. Puntu hau argitzeko ikus ditzagun mailaz maila alokutibotasunaren ezaugarri bereizgarrienak:

- Maila pragmatikoa: hitzunaren eta solaskidearen arteko harremanak adierazten dira adizki alokutiboen bidez.
- Maila semantikoa: adizki alokutiboek solaskidearen sexua adierazten dute, *-k* eta *-n* atzizkiak direla medio.
- Maila sintaktikoa: alokutibotasuna aditz komunztaduraren bitartez adierazten da. Honez gainera, adizkera alokutiboek boz gramatikal eta diatesiaren arteko desberdintasuna erakusten dute (Moreno Cabrera 1998). Bestalde, badaude alokutibotasunean murrizketa sintaktikoak; adizki alokutiboak ezin dira galde-eta mendeko perpausetan agertu (Euskaltzaindia 1999: 7).

¹ Mila esker Karlos Cid Abasolori euskal testua jorratzeagatik.

- Maila morfologikoa: alokutibotasuna aditzaren bitartez adierazten da. Adizki alokutiboek forma bereziak dituzte. Adibidez, adizki alokutiboak eta NORI-dunak desberdinak dira.
- Maila fonetikoa: aldaketa fonetiko bereziak ikusten dira adizki alokutiboetan. Esate baterako, orainaldiko adizkietan hasierako *d*- morfema *z*- bihurtzen da. Gainera, atal honetan, bustidura adierazgarria dugu (Lafon 1959: 116, Oñederra 1990); adibidez, xukako adizkietan (*gizona joan duxu*): "...baxenafarraz, *zu* alokutiboari balio afektibo berezia emanaz *xu* forma eman zaio." (Euskaltzaindia 1987: 388).

Artikulu honetan, ez ditut ezaugarri guztiak aipatuko, alokutibotasunak inplikazio ugari baititu, ikusi dugunez, euskal gramatikarentzat eta hizkuntzalaritza orokorarentzat. Hurrengo orrialdeetan, komunztadura, boz gramatikala eta solaskidearen rol pragmatikoa aztertuko ditut alokutibotasunaren ikuspegitik.

2. Aditz komunztadura eta argumentuak euskaraz, ikuspuntu tipologikotik

Euskal aditzak lau komunztadura eredu ditu: Nor, Nor-Nori, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork:

- (1) Komunztadura euskaraz
 - a. Nor: etorri da
 - b. Nor-Nori: etorri zaio
 - c. Nor-Nork: eman dut
 - d. Nor-Nori-Nork: eman diot

Oso inportantea da konturatzea adizki hauek erreferentzia pertsonal argumentalak dituztela. Horregatik, *etorri da*, *etorri zaio*, *eman dut* eta *eman diot* perpaus osoak izan daitezke. Brettschneider-ek dioen bezala:

Evidentemente, en muchas ocasiones no es necesario mencionar explícitamente a los participantes de la acción por medio de constituyentes básicos de la oración, porque ya están codificados en la forma verbal. Por eso, parece lógico que la estructura básica de la oración euskárica contiene únicamente el complejo verbal como constituyente constitutivo (obligatorio); todos los demás constituyentes son opcionales. (Brettschneider 1981: 226).

Puntu hau erakusteko, Brettschneider-ek adibide hau eskaintzen digu:

- (2) (zuek) (guri) (liburuak) eman zenezazkiguketean

Brettschneider-ek dioenez, *eman zenezazkiguketean* perpaus osoa da; izenordeak eta izena hautazkoak dira. Beraz, hizkuntzalari honen ustez, euskararen perpaus-egitura honela adieraz daiteke:

- (3) (() ... () ADITZ KONPLEXUA () ... ())_p

Brettschneider-en arabera, egoera hau beste hizkuntza batzuetan ere ikus daiteke. Autore honek maya quichezko perpaus bat aipatzen du (Brettschneider 1981: 225):

- (4) Maya Quiché

Manuel	kebuluk'am	lok	ri shila	chke	pa	ri ha
Manuel	ekarri	hona	aulkiak	(ki)e	-ra	etxe.

 'Manuelek berehala etxera aulkiak dakartza'

Aditza izan ezik, osagarri guztiak ken daitezke; horregatik, *kebuluk'am* perpaus osoa izan daiteke, aipatu ditudan euskarazko adibideetan gertatzen den bezala.

Analisi honek aditz morfema pertsonalak benetako argumentuak direla adierazten du, Jelinek-ek (1984) proposatu duenez. Elordietaren hitzetan:

Jelinek claims that in non-configurational languages, where null pronominals are plentiful, the pronominal clitics which appear attached to the verb are the true arguments of the verb. She claims that the clitic pronouns are assigned grammatical Case, which reflects their grammatical function, as opposed to lexical DPs, which she argues are optional adjuncts. (Elordiet 2001: 125)

Jelinek-en ustez, pertsona gramatikalak adierazten dituzten adizkiak dauzkaten hizkuntzei aplika diezaikegu analisi hau. Hizkuntza hauetan, aditzaren hizki pertsonalak argumentuak dira eta aditzekin batera ager daitezkeen izenak edo izenordeak hautazko adjuntuak dira. Puntu hau argitzeko Jelinek-ek gaztelerazko esaldi batzuk ematen dizkigu: (*yo*) *sé lo que pasó, me lo dio (a mí)* eta *llueve* (Jelinek 1984: 48-49), eta honela dio:

If we assume that nominal adjunction is present in Spanish, rather than 'pro-drop', there is no motivation for postulating a 'pleonastic' PRO or *pro* (non-referential, non-phonological) subject in **El llueve* [emphatic]. There is a phonological subject in *llueve*; the verbal suffix is a third person singular subject. But since this subject is non-referential and emphatic referential contrast cannot be adjoined. (Jelinek 1984: 49)

Proposamen hau euskarazko perpaus egitura deskribatzeko erabil daiteke. Aurretik aipatu dugun euskal esaldiak honela azter daitezke, Brettschneider-en proposamenari jarraiki:

- (5) Euskera
(Manuelek_i) etxera (aulkiak_i) (Mireni_k) dakar_ikio_k-Ø_j

Gazteleraz bezala (*se las lleva a casa*), *etxera dakar_ikio* esaldi osotzat har daiteke euskaraz ere. Aurreko esaldiaren gainerako izenak hautazkoak dira, eta adierazitako gertaeraren xehetasunak emateko erabiltzen dira.

Elordietaren (2001: 125) ustez, analisi hau ezin dugu erabili euskal perpausa aztertzeke, IS-argumentalak ez baitira benetako adjuntuak. Autore honek arrazoi duela uste dut. Izenak eta izenordeak hautazkoak dira gazteleraz eta euskaraz, benetako adjuntuak bailiran, baina ezaugarri bereizgarri bat dute: indizekidetasuna:

Es evidente que esa relación de adyacencia es diferente de la que se da entre un adverbio propiamente dicho y un sintagma u oración. La principal diferencia es la existencia de una relación de correferencia. En efecto, suponemos que es la flexión personal deíctica del verbo lo que constituye el argumento principal de un verbo transitivo y lo que contrae, por tanto, la relación sintáctica de sujeto y semántica de agente. Pero además, es claro que en, por ejemplo, *Juan duerme* el nombre propio *Juan* tiene carácter referencial y que esa referencia es la misma en esa oración que la que tiene esa deíxis verbal flexiva de persona. Es decir, hay correferencia entre el sintagma nominal adyacente y el argumento propio del verbo implicado. Esta correferencia es lo que distingue un adyacente relacionado con un argumento de un adyacente no relacionado con un argumento. (Moreno Cabrera 2003: 261)

Izan ere, argumentuak adierazten dituzten izenek eta izenordeek indize erreferentzialak partekatzen dituzte adizkiekin. Horregatik, kategoria berri bati ezarri behar dizkiogu izenorde eta izen hauek; *adjuntu argumentala* dei diezaiokegu. Kategoria hau Alarcos-ek proposatu zuen bere gazteleraren gramatikan (Alarcos 1994: 73, 137, 139, 199, 256-257 eta 266).

Analisi honetan, ez dago komunztadurarik adizkiaren eta izenaren artean; hautzakoak direnez gero, izenek eta izenordeek ez diote beren ezaugarri morfologikorik ezartzen aditzari. Aitzitik, aditzaren (edo aditz sintagmaren) hizki erreferentziales murrizketa semantikoak ezartzen dizkiete aditzarekin ager daitezkeen izenei eta izenordeei. Adibidez, *hitz egiten du* aditz sintagma *Jonek* onartzen du, baina *euria egiten du*-k ez du honelakorik onartzen.

3. Aditz komunztadura eta argumentuak euskaraz, gramatika sortzaile klasikoaren ikuspuntutik

Patxi Goenagak (1980: 168-170) komunztaduraren lehen analisia eskaintzen zigun euskal gramatika sortzailearen arloan. Analisi horretan, perpausean gune argumentaletan agertzen diren izen edo izenordeek beren ezaugarri morfologikoak ezartzen dizkiote aditzari. Hau transformazio erregela baten bidez egiten da, honela formula daitekeena (ikus Goenaga 1980: 170 eta Goenaga 1991b: 282):

- (6) Komunztadura erregela

$$X - ([+erg, \varphi_1]) - Y - ([+dat, \varphi_2]) - [+abs, \varphi_3] - Z - \text{perts} \Rightarrow$$

$$X - ([+erg, \varphi_1]) - Y - ([+dat, \varphi_2]) - [+abs, \varphi_3] - Z - \text{[perts [+erg, \varphi_1], [+dat, \varphi_2], [+abs, \varphi_3]]}$$

$$\varphi = \alpha 1. \text{ perts, } \beta 2. \text{ perts., } \gamma \text{ plur}$$

Gramatika sortzailearen geroko garapenetan, aditz komunztadurak zeregin eginkorragoa betetzen du. *Hatsarre eta Parametroak* teorian euskal aditz komunztadurak kategoria isilak zilegitzen ditu; adibidez, *miresten zaitut* perpausean (Elordieta 2001: 115) bi izenorde isil agertzen dira, eta *eman dizkizut* perpausean (Ortiz de Urbina 1989: 162-163) hiru:

- (7) Euskara
 a. [pro_j] [pro_i] miresten z_iaitut_j b. [pro_k] [pro_j] [pro_i] eman diz_kkizu_jt_k

Analisi honetan, aditz laguntzaileak kasu, pertsona eta numero ezaugarriak ditu eta haren bidez izenorde isilek dagozkien ezaugarriak bereganatzen dituzte.

4. Adizki alokutiboak gramatika sortzailean

Euskal aditzean solaskidearen erreferentzia ager daiteke zuka edo hika hizkeran (ikus, besteak beste, Lafon 1959, Alberdi 1986, Irigoien 1993, Rebuschi 1981, 1984). Esate baterako, *Jon etorri duk* eta *Jon etorri duzu* kasuetan bi erreferentzia pertsonal agertzen dira aditz laguntzailean: Joni dagokiona, *d-* aurrizkiaren bidez adierazia (honi buruz ikus Laka 1993: 45-52) eta *hi* (gizonezkoa)ri dagokiona, *-k* atzizkiaren bidez adierazia.

Forma alokutiboak lortzeko *nor* eta *nor-nork* ereduak *nor-nork* eta *nor-nori-nork* bihurtzen dira hurrenez hurren. Honela, eman ditudan adibideetan *etorri duk etorri da* formatik eratortzen da, eta *eman dut* formatik *eman diat* (gizonezko hika edo toka esamoldean), *eman dinat* (emakumezko hika edo noka esamoldean), eman *dizut* (zuka esamoldean) eratortzen ditugu; *diat*, *dinat* eta *dizut* aditz laguntzaileek hiru erreferentzia pertsonal dituzte, *nor-nori-nork* aditzak baitira.

Nor-nori-nork aditzei dagokienez, laugarren erreferentzia pertsonal bat eranstean adizki alokutiboa lortzeko. Adibidez, *eman diot* formatik *eman zioat* (gizonezkoa), *eman zionat* (emakumezkoa) eta *eman ziozut* (zuka hizkeran) lortzen ditugu. Adizki hauek lau erreferentzia pertsonal dituzte.

Adizki alokutiboek hainbat arazo korapilatsu sortzen dizkiete teoria gramatikalei, alokutiboaren erreferentzia ez baita argumentala. Hizki alokutiboek denotatutako entitateek ez dute parte hartzen esaldiak adierazitako gertakizunetan. Horregatik, aditzek ez diete kasu markarik ez rol semantikorik ezartzen.

Goenagak ez zuen aztertu adizki alokutiborik bere *Gramatika bideetan* liburuan, baina zenbait autoreren ustez, garai hartan alokutibotasunaren analisisia komunztaduraren deskribapenean kokatu behar da gramatika sortzailean. T. H. Wilburek komunztadura alokutiboaren analisi bi proposatu zituen bere euskal gramatikari buruzko liburuan (Wilbur 1979: 127-130). Lehenengo analisisian, egitura sakonean adizki alokutiboa dakarren perpausa mendekoa da eta perpaus nagusiak *hi* izenordea eta *erraiten* aditza ditu. Adibidez (Wilbur 1979: 27), *holako zubi azpian jakin diat, nola hatxemanen nintuen ene mandoak* perpausak honako egitura sakon dauka:

(8) Euskara

[_Snik hiri [_Snik nola hatxeman nintuen ene mandoak]_S jakin [_{aux}] erraiten [_{aux}]]_S

Perpaus nagusia kendu baino lehen, *hi* izenordea mendeko perpausari eranstean zaio eta izenorde honek bere ezaugarri morfologikoak ezartzen dizkio mendeko perpausako aditzari. Honen ondorioz, adizkia alokutibo bihurtzen da.

Bigarren analisisian, egitura sakonean *hi* izenordea adjuntu baten itxura hartuta agertzen da:

(9) Euskara

[hi, [_Snik nola hatxeman nintuen ene mandoak]_S jakin [_{aux}]]

Wilburen ustez, arazo handia dago bi analisisietan. *Hi* izenordeak ez du genero ezaugarriarik; horregatik, ezin da *diat* eta *dinat* arteko aldea atzeman proposatutako erregelaren bidez. Wilburek proposatzen du *hi* izenordearen alboan izen bat agertzen dela, bokatibo gisa. Adibidez, *hi, gizon; hi, Martin* edo *hi, emazte; hi, Emilia*.

Oyharçabalek beste analisi bat eskaini digu alokutibotasunari buruz. Komunztadura alokutiboa azaltzeko, autore honek beste kategoria isil bat proposatzen du: *e_{ALLO}*; Oyharçabalen ustez kategoria hau ez da izenorde isila.

Eskuarki, izenorde isilaren lekuan izenorde arrunta ager daiteke. Elordietak (2001: 115) eskaintzen digu hurrengo adibidea:

(10) Euskara

a. [pro_i] [pro_j] miresten z_iaitut_j b. Nik zu miresten zaitut

Baina *Hi* izenordea ezin da azaldu argumentu gisa adizki alokutiboekin batera: “On ne peut ajouter aucune forme casuelle de *hi* à *dik*. On ne le peut pas davantage à *ziok* « il le lui a » (forme allocutive).” (Lafon 1959: 106). Oyharçabalek adibide bat ematen digu:

- (11) Euskara
*Hi mintza niaitekek

Arrazoi honengatik esaten du autore honek e_{ALLO} kategoria isil alokutiboa ez dagoela gune argumentalean. Kategoria hau perpaus-egituran adjuntu gisa agertzen den operatzailea da. Gainera, analisi honek egiaztatzen du kasu ezarketa eta aditz komunztadura ez daudela beti elkarlotuta. Oyharçabalen ustez, alokutibotasunak erakusten du aditz komunztadura ezin dela perpausen erlazio sintaktikoen adierazpen soila izana:

The allocutive phenomenon, at first glance, seems to represent some language specific stylistic and/or discursive rule performed outside of syntax. But in fact it shows that nonargumental positions existing at the periphery of L-related projections allow to syntactically encode linguistic relations not linked to the selectional properties of lexical and functional projections.

[...] Basque allocutive marking [...] shows that agreement phenomena cannot be restricted to Case assignment and argument position status. (Oyharçabal 1993: 111)

Beraz, alokutibotasuna deskribatzeak eta aztertzeak, dudarik gabe, ondorio garrantzitsuak dakarzkie teoria gramatikalari eta hizkuntzalaritza orokorrari.

5. Alokutibotasuna eta boz gramatikala

Hizki alokutiboak hartzean, *nor* adizkiak *nor nork* bihurtzen dira eta *nor-nork* adizkiak *nor-nori-nork* bilakatzen dira (Zubiri 2000: 591). Adibidez:

- (12) Adizki alokutiboak
a. Etorri naiz ⇒ Etorri naun (alokutiboa)
b. (Hik) (ni) ikusi naun (ez alokutiboa)
c. Eman du ⇒ Eman dinat (alokutiboa)
d. (Nik) (hiri) eman dinat (ez alokutiboa)

Nor-nor-nork formei dagokienez, *nor-nori-nork* forma berriak sortzen dira, lau-garren hizki pertsonala daukatena: *nor-nori-nori-nork*:

- (13) Euskara
Eman diot ⇒ Eman zionat (alokutiboa)

Prozesu morfoloogiko hau aditz erazleak sortzeko erabiltzen da. Txillardegik dioenez, aditz arazleen ereduak “garrantzi handia du ADITZ ETIKOA-ren funtsa ulertzeko” (Txillardegik 1978: 377). Esaldi kausatiboak lortzeko, *Nor* adizkiak *nor-nork* bihurtzen da eta *nor-nork* adizkiak *nor-nori-nork* bilakatzen dira:

- (14) Euskara
a. Etorri da ⇒ etorrazazi du b. Ekarri du ⇒ ekarrazazi dio

Txillardegiren aholkuari jarraiki, oso interesgarria izango litzateke *nor-nori-nork* adizkiak nola bihurtzen diren aditz arazle aztertzea. Kasu honetan, esaldian *nori* izen bi daude, baina adizkiak *nori*-hizki bakarra du. Ortiz de Urbinak dioenez:

Where the basic verb is ditransitive, causativization is usually possible: the causee is then marked dative, so that a dative doubling situation may arise. However, only the causee dative may be marked on the inflection. In fact, quite often, it is the verbal inflection alone that identifies the causee. (Ortiz de Urbina 2000: 608)

Adibidez, Ortiz de Urbinak (2000: 608) ondoko esaldi hauek eskaintzen dizkigu:

- (15) Euskara
 a. Salgai nuen landa Mikeli salerazi didate gurasoek (niri)
 b. Elizak pobreei dirua emanerazten digu (guri)

Lehenengo esaldian *didate* adizkiak ez dauka *Mikeli* dagokion hizki pertsonalik. *Diote* adizkia erabiltzen badugu perpaus honetan, Mikel izango da landa saldu duena eta ez ni saldu diodana. Bigarrenean, *digu* adizkian ez dago *pobreei* determinatzaile sintagmaren markarik. *Die* adizkia agertuko balitz esaldi honetan, pobreak izango lirateke dirua ematen dutenak.

Hortaz, esaldi alokutiboetan, lehenago ikusi dugunez, ezin da agertu adizkiak alokutiboki aipatutako bigarren pertsonaren izenorderik; aitzitik, esaldi kausatiboetan *nor-nori-nork* adizkiek ezin dute esaldian agertzen den bigarren *nori* izena adierazi. Egoera hau argitzeko, oso garrantzitsua da kontuan hartzea diatesi eta boz gramatikalaren arteko desberdintasuna.

Eskuarki, boz gramatikala eta diatesia sinonimotzat jotzen dira:

Boza aditzari eta honen laguntzaileari dagokien gramatika kategoria bat da, eta aditzaren, subjektu edo agente eta objektuaren arteko gramatika-erlazioa adierazten du; boz bakoitzak aditz-flexio espezifikoak ditu [...] (Sin. Diatesia). (Txillardegi & Toledo 1991: 64)

Aditzek rol sematikoa ezartzen diete gune argumental guztiei. Ezarketa honi *sare diatetikoa* dei diezaiokegu. Adibidez, *eman* aditzak honako sare diatetiko hau dauka:

- (16) *Eman* aditzaren sare diatetikoa
 NORK/egilea; NOR/ jasalea; NORI/jasotzailea

Boza diatesiaren adierazpen morfologikoa da. Honela, *eman* aditzak ezartzen duen sare diatetikoa *ukan* adizkien bidez adierazten da:

- (17) Euskara
 Patxiri liburua eman diot

Oso erraza da diatesi eta boz gramatikalaren arteko desberdintasuna ulertzea, zeren eta diatesia fenomeno sintaktikoa baita eta boz fenomeno morfologikoa. Puntu hau hurrengo definizioetan ikus daiteke:

- (18) Diatesiaren definizioa

Aditzek argumentuei haien erlazio sintaktikoen arabera ezartzen dizkieten rol semantikoen banaketa.

- (19) Boz gramatikalaren definizioa
Aditzaren bidezko diatesi adierazpen morfologikoa.

Nahiz eta euskaraz boz gramatikalak ia beti diatesia adierazten duen, badaude kasuak boza eta diatesia elkarren menpekoak ez direla erakusten dutenak.

Aurrena aipatu ditudan *nor-nori-nork* formatik eratorritako aditz arazleek erakusten dute boza eta diatesia beregainak direla. Ikusi dugunez, nahiz eta *salgai nuen landa Mikeli salerazi didate gurasoek (niri)* perpausak lau rol semantikorekiko diatesia eduki, perpausean ageri den adizkiaren (*salerazi didate*) boz gramatikalak hiru erreferentzia pertsonal ditu.

Adizki alokutiboei dagokienez, kontrako egoerarekin egiten dugu topo. Adizki alokutiboek lau erreferentzia pertsonal izan ditzakete, baina solaskidea adierazten duen bigarren pertsonaren izenordea ezin da perpausean agertu:

- (20) Euskara
(Nik) (*hi/*hik/*hiri) (hau) eman zionat (alokutiboa)

Hortaz, adizki alokutiboek erakusten dute diatesia eta boz gramatikala ez direla elkarren menpekoak. Moreno Cabrerak dioenez:

What is important here is that in order to refer to the addressee of speech, a transitive auxiliary has been chosen. Therefore, the *dal duk* variation is a case of voice variation without a corresponding diathetical variation, since as we have seen *etorri da* and *etorri duk/n* have exactly the same diathetical structures. (Moreno Cabrera 1998: 175)

Moreno Cabreraren ondorio nagusia hauxe da:

This shows that the morphological mechanism of voice in Basque is autonomous and can be employed even when no diathetical change has taken place. (Moreno Cabrera 1998: 177)

Ikusi dugun bezala, alokutibotasunari buruzko ikerketek hizkuntzalaritza teorikorako ondorio garrantzitsuak eskaini diezazkigukete.

6. Adizki alokutiboak bakarriketan

Alokutibotasuna ondo ulertzeko, arretaz aztertu behar dugu hizketaren zirkuitua, zeinean protagonista bi aurki baitezakegu: mezuaren bidaltzailea edo igorlea, eta hartzailea edo jasotzailea.



Saussure-ren hizketaren zirkuitua

Guztiarekin ere, eskema hau ongi ulertzeko oso garrantzitsua da konturatzea desberdintasun bat dagoela destinatzailearen eta bidaltzailearen artean alde batetik eta, bestetik, destinatariaren eta hartzailearen artean. Bidaltzailea mezua igortzen duena da, eta hartzailea mezua jasotzen duena. Aldiz, destinatzailea mezua egiten duena da; gainera, destinatzaileak mezua zuzentzen dio destinatariari. Kasu askotan, destinatzailea eta bidaltzailea pertsona desberdinak izan daitezke; adibidez, interpretaria bidaltzailea da, baina ez da destinatzailea; horrez gain, kalean norbaitekin oihuka hitz egiten ari garenean, hartzaile asko izan arren, destinatari bakarra dago. Gainera, bidaltzailea bere mezuaren hartzailea izan ohi da.

Nire ustez, adizki alokutiboek destinataria aipatzen dute eta ez hartzailea. Horrez gainera, ikusi dugun bezala, alokutibotasuna ez da erreferentzia pertsonala, aipamen pragmatikoa baizik. Honela, hobeto uler ditzakegu bakarrizketan agertzen diren forma alokutiboak.

Alberdik dioenez, “bakarrizketan aditz-joko alokutiboa erabiltzeko joera dago” (Alberdi 1986: 426). Autore honen ustez, fenomeno hau harrigarria eta bitxia da:

Euskaraz, hizkuntza gehienetan bezala, bakarrizketan nor bere bururari ‘Hi’ egitea maiz gertatzen da. Baina harrigarriena eta aldi berean bereizgarriena, bakarrizketan aditz-joko alokutiboa sartzeko ohitura dugu. Nor bere burua esan diezaioke:

(a) tontoa naiz! (b) tontoa haiz! (d) tontoa nauk! (Alberdi 1986: 427)

Fenomeno hau argitzeko, Rebuschik (1984: 607) *alter ego*-ri buruz hitz egiten du eta Alberdik esaten du ez dagoela benetako bakarrizketarik, fikziozko elkarriketa baizik. Alberdiren hitzetan:

Posibilitadeok esplikatzeko pentsatu behar dugu eza dagoela benetako bakarrizketarik, nolabaiteko elkarriketa bat baizik: halako alegiazko edo fikziozko elkarriketa bar. Batzuetan fikziozko hizketa-laguna edozein «mugatu gabea» izan daiteke (a), beste batzuetan norbera «bitan banatzen da», behin hizketa-lagunaren lekua (b), behin hizketa-lagunari hitz egiten dion hitzunaren lekua (d) hartzen duela. (Alberdi 1986: 427)

Bidaltzailea/ destinatzailea eta hartzailea/ destinataria bereizketa egiten badugu, oso erraza izango da Saussure-k proposatu zuen hizketa zirkuituaren bidez egoera hau adieraztea, A eta B gizaki bera direnean. Kasu biak hurrengo irudietan erakutsiko ditut:



«Tontoa nauk» esaten dudanean, fikziozko solaskidea pragmatikoki aipatzen dut, eta «tontoa haiz» diodanean, ordea, solaskidearen (nire buruaren) aipamena egiten dut bigarren pertsonaren bidez. Lehenengo kasuan, fikziozko solaskidea destinataria izan daiteke, baina ezin daiteke hartzailea edo jasotzailea izan. Bigarrean, fikziozko solaskidea destinatzailea izan daiteke, baina ezin da bidaltzailea edo igorlea izan. Nire analisia ondoko taula hauetan erakusten da.

(21) TONTOA NAIZ

	Destinatzailea	Bidaltzailea	Destinataria	Hartzailea
NI	BAI	BAI	EZ	BAI
<i>ALTER EGO</i>	EZ	EZ	EZ	EZ

(22) TONTOA HAIZ

	Destinatzailea	Bidaltzailea	Destinataria	Hartzailea
NI	EZ	BAI	BAI	BAI
<i>ALTER EGO</i>	BAI	EZ	EZ	EZ

(23) TONTOA NAUK

	Destinatzailea	Bidaltzailea	Destinataria	Hartzailea
NI	BAI	BAI	EZ	BAI
<i>ALTER EGO</i>	EZ	EZ	BAI	EZ

7. Ondorioak

Artikulu honetan frogatu dut alokutibotasuna kontuan hartu behar dugula eus-kara tipologikoki karakterizatzeko. Ikusi dugun bezala, fenomeno honek oso ondorio interesgarriak dakartzkio teoria gramatikalari ez ezik, hizkuntzalaritza orokorrari ere.

Adizki alokutiboen eta aditz komunztaduraren arteko erlazioak oso arazo korapilatsuak eragiten dizkio teoria gramatikalari. Adizki alokutiboak gramatika sortzailean azaltzeko, Oyharçabalek erakusten digunez, suposatu behar dugu kasu ezarketa eta aditz komunztadura ez daudela beti elkarrekin lotuta. Ondorio hau oso garrantzitsua da teoria linguistiko orokorrarentzat.

Alokutibotasuna ikertzeak oso emaitza interesgarriak eskaintzen ditu boz gramatikala aztertzerakoan. Adizki alokutiboek erakusten dute diatesia eta boz gramatikala desberdindu behar direla. Adizki hauek frogatzen dute diatesia aldatu gabe ere alda daitekeela boz gramatikala. Honen ondorioz, diatesia eta boza ez daude beti elkarrekin lotuta, gauza ezberdinak baitira. Ondorio hau, dudarik gabe, oso garrantzitsua da teoria gramatikarentzat ez ezik, hizkuntzalaritza orokorrarentzat ere.

Emaitza hauek bateragarriagoak dira hizkuntzaren maila guztiak (fonologia, morfologia, sintaxia eta semantika) sortzailetzat jotzen dituzten eredu linguistikoekin

gramatika sortzaile klasikoarekin baino. Adibidez, Jackendoff-en eredu linguistikoa maila guztiak sortzaileak dira; autore honek dioenez:

Each of the major components of linguistic structure —phonology, syntax, and semantic/conceptual structure— is the product of an independent generative system, and each is further subdivided into independent tiers. (Jackendoff 2002: 424)

Azkenik, bakarrizketan agertzen diren adizki alokutiboak aztertu ditut. Erabilera harrigarri hau argitzeko destinatzaile / bidaltzailearen eta destinatari / hartzailearen arteko desberdintasuna baliatu dut, Saussure-ren hizketaren zirkuitua kontuan hartuz.

Bibliografia

- Alarcos, M., 1994, *Gramática de la lengua española*, Espasa Calpe, Madrid.
- Alberdi, J., 1986, "Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko Kasua", *ASJU* 20: 2, 419-486.
- , 1995, "The development of the Basque System of Terms of Address and the Allocutive Conjugation", in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (eds.), *Towards a History of the Basque Language*, John Benjamins, Amsterdam, 275-294.
- Brettschneider, G., 1979, "Typological Characteristics of Basque", in F. Plank (ed.), *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, New York, 371-384.
- , 1981, "Euskara, hizkuntzen tipologia, ta hizkuntza unibertsalak", in *Euskaltzaindia*, 221-239.
- Eguzkitza, A. & M. Etxebarria, 2004 *Hizkuntzalaritza Orokorra: Arazoak eta Ikuspegiak*, EHU, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Elordieta, A., 2001 "The role of verbal agreement in licensing null arguments", in Fernández & Albizu (arg.), 113-132.
- Euskaltzaindia, 1981, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Bilbo.
- , 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*, Bilbo.
- , 1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V*, Bilbo.
- Fernández, B. & P. Albizu (arg.), 2001, *Kasu eta komunztaduraren gainean*, EHU, Gasteiz.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika Bideetan*, Erein, Donostia.
- , 1991a, "Morfosintaxia", in Txillardegui & Toledo, (arg.), 328-338.
- , 1991b "Komunztadura", in Txillardegui & Toledo, (arg.), 282.
- Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina (arg.), 1993, *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam.
- & — (arg.), 2000, *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Irigoién, A., 1993, "Hitanoaz", in A. Irigoien, *Opera Selecta*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo 1997, 209-296.
- Jackendoff, R., 2002, *Foundations of Language. Brain, Meaning, Grammar, Evolution*, Oxford U. P., Oxford.
- Jelinek, E., 1984, "Empty categories, Case and Configurationality", *NLLT* 2: 1, 39-77.
- Lafitte, P., 1978, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Elkar, Donostia.
- Lafon, R., 1959, "Place de la 2^e personne du singulier dans la conjugaison basque", *BLS* 54: 103-129. Berrarg. bere *Vasconiana*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999, 387-409.
- Laka, I., 1993, "The structure of inflection: A case study in X⁰ syntax", in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 21-70.

- Moreno Cabrera, J. C., 1998, "Allocutivity and voice in the Basque verb", in L. Kulikov & H. Vater (arg.) *Typology of Verbal Categories. Papers presented to Vladimir Nedjalkov on the occasion of his 70th birthday*, Max Niemeyer, Tübingen, 169-178.
- , 2003, *Semántica y Gramática. Sucesos, Papeles Semánticos y Relaciones Sintácticas*, Antonio Machado, Madrid.
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. asimilazioa eta hots simbolismoa*, EHU, Zarautz.
- Ortiz de Urbina, J., 1985, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- , 2000, "Causatives", Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 597-613.
- Oyharçabal, B., 1993, "Verb agreement with Non-arguments: On allocutive agreement", in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 89-114.
- Rebuschi, G., 1981, "Autour des formes allocutives du basque", in *Euskaltzaindia 1981*, 307-321. Berrarg. bere *Essais de Linguistique basque*, ASJUren Gehigarriak 35, Donostia, 125-138.
- , 1984, "Les formes allocutives du basque", in id., *Structure de l'énoncé en basque*, Selaf, Paris, 481- 634.
- , 1997, "Autour des formes allocutives du basque", in id., *Essais de linguistique basque*, ASJU-ren Gehigarriak 35, Donostia, 125-138.
- Txillardegi, 1978, *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia.
- , & A. M. Toledo, 1991, *Hizkuntzalaritza*, UZEI/ ELKAR, Donostia.
- Wilbur, T. H., 1979, *Prolegomena to a Grammar of Basque*, J. Benjamins, Amsterdam.
- Zubiri, I. eta E., 2000, *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbo.

SINTAXI DIAKRONIKOA ETA ADITZ MULTZOAREN GARAPENA: INPERFEKTIBOZKO PERIFRASIAREN SORRERAZ

Céline Mounole

UPV/EHU

Sarrera¹

Euskarak perifrasi mota desberdinak ditu eta horietarik bat dugu inperfektibozko perifrasi. Aditz-izena inesiboan eta *izan* / **edun* laguntzaile estatiboek osatzen dute, eta segur aski jatorrian progresibozko egitura bat zen. Biziki gauza arrunta da munduko hizkuntzen artean lokatibozko predikatu baten progresibo gisa gramatikalizatzea (Heine 1993, Bybee & al. 1994), eta euskarak bat egiten du joera horrekin.

Lan honetan, egitura horren garapen sintaktikoa aztertu nahi dugu. Horretarako, tipologia eta gramatikalizazioa lan trenea gisa erabiliko ditugu gure formen azaltzeko eta berreraikitzeko.

Lehenbiziko parte batean, inperfektibozko perifrasi aurkeztuko dugu euskararen sinkronian eta diakronian. Bigarrenik, munduko hizkuntzetako datuak eta euskararenak parez pare ezarriko ditugu ikusteko nola sortzen diren gisa horretako egiturak. Hirugarren zati batean euskarazko egituraren sorrera eta garapenari buruzko hipotesi bat proposatuko dugu.

1. Inperfektibozko perifrasiaren gehiago

1.1. Sinkronian

Inperfektibozko perifrasi ikuspegi sinkroniko batetik begiratzen badugu, ohar-tzen gara biziki egitura gardena duela. Lehenik, haren aditz nagusia aditz-izen bat da inesiboan. Euskalkiz euskalki eta aditzez aditz, txandaketa handiak ditugu aditz-izen horren formari dagokionez. Izan ere, aditzoinetik eratortzen da, *-te*, *-tze*, *-(k)eta*, edo *-tzaitte* atzizkiak gehituz, euskalkien arabera. Gero, aditz-izen horri lotzen zaio inesibozko kasua. Perifrasiaren laguntzaileei dagokienez, *izan* laguntzailea erabiltzen da aditz nagusi iragangaitzekin eta **edun* laguntzailea aditz nagusi iragankorrekin.²

¹ Eskerrik beroenak Joseba Lakarra, Julen Manterola eta Xabier Artiagoitiari beren oharrengatik.

² Lan honetan ez ditugu aipatuko aditz iragankorrekin erabil litezkeen laguntzaile hirupertsonalak (*eradun*, *eutsi*, *-i*). Hortaz ikus Mounole (2008).

Inperfektibozko perifrasi orainaldian nola iraganean erabiltzen da, laguntzaileek *tempus* edo aldi egokia jantzirik ([+ORAI] edo [-ORAI]). Aldi orainean egiturak aspektu jarraikorra edo orinaldi sinplea (1) eta progresiboa (2) adierazten ditu, baita ohitura ere (3):

- (1) Ongi entzuten zaitut
- (2) Eskailerak jausten ditut
- (3) Egun guziz egunkaria irakurtzen dut

Oyharçabalek (2003) azpimarratzen duen bezala, euskalki gehienetan, inperfektibozko perifrasi ez da erabiltzen progresiboaren adierazteko. Trinkoki joka litezkeen aditzek progresiboa adizki trinkoaren bidez adierazten dute, eta inperfektibozko perifrasi baliatzen dute ohituraren adierazteko: *nator* (progresiboa) vs *etortzen naiz* (ohitura).

Batzuetan eta bereziki ekialdeko euskalkietan, perifrasi horrek geroaldia adieraz dezake:

- (4) Bihar, zazpitan abiatzen naiz

Aldi iraganean, berriz, egitura horrek inperfektua adierazten du nagusiki (5), nahiz eta iraganeko ohiturarentzat ere baliatzen den (6):

- (5) Ez zintudan ongi entzuten
- (6) Egun guziz egunkaria erosten nuen

1.2. Diakronian

Euskalari zenbaiten lanetan oharrak agertzen zaizkigu perifrasi horren historiari buruz. Lehenik, jatorriari dagokionez, Haasek (1992) bere tesi lanean proposatzen du euskarazko forma gaskoieraren progresibozko perifrasiaren kalkoa baizik ez dela. Gisa horretan, parez pare ezartzen ditu gaskoierazko *estar a her quaucom* ('estar en hacer algo') eta euskarazko *zerbait egiten du* perifrasiak:

Es kann angenommen werden, daB für die Entstehung dieses Progressivs der lateinisch-romanische Sprachkontakt verantwortlich ist, denn im Gaskognischen wird der Progressiv in vergleichbarer Weise gebildet: Er besteht aus dem Hilfsverb *estar (este)* und einer lokalen Präposition (*a/en*), an die der Infinitiv angeschlossen wird. (Haase 1992: 93)

Perifrasiaren egituraketari dagokionez, Traskek (1995, 1997) ohar andana bat egiten du aditz-izenari buruz, baina, dudarik gabe, Urgellen lana (2006) da daukagun lanik zehatzena perifrasi horren diakronikoki aztertzeo. Urgellek XVI eta XVII. mendeetako eta lehenagoko lekukotasunen azterketa zorrotza burutzen du, eta hortik, aditz-izenaren atzizkiaren banaketa eta erabilpena argitzen ditu. Gorago erran bezala, euskalkiek lau atzizki nagusi erabiltzen dituzte aditz-izena aditzoinetik eratoritzeko:

- (1) *-te* atzizkia: euskara arkaikoan, euskal jatorriko aditzetan erabiltzen da, hots, partizipioak mota horretako bukaerak dituelarik: (i) *-n* (*edate*, 1533); (ii) *ozen +-i* (*irakurte*, a. 1425); (iii) *txistukari + i* (*ekuste*, 1545); (iv) bokal (*ozterate*, XIV. mendea); (v) *-gi l-ki* (*jalgite*, 1545). Bestalde, Urgellek azpimarratzen du 1545 aitzin ez dela aurkitzen lekukotasunik non *-te* erabil litekeen maileguekin edo partizipiozko forma *-tu-z* duen batekin. Proposatzen du 1545 eta 1645 artean, hots ehun urtez, Nafarroa Garaiairen iparralde (Be-

riain, 1621), Nafarroa Beherea (Etxepare, 1545) eta Lapurdi besarkatzen dituen eremuan aldaketa handi bat gertatu zela atzizki horren erabileraren: ordutik aitzina *-te* atzizkia bi kontestutan baizik ez da erabiltzen: oinarria edo *stem-a -n-z* eta txistukariz duten aditzekin.

- (2) *-tze* atzizkia: Urgellen ustez, *-tze* atzizkia partizipioa *-tu-z* duten aditzetan agertuko zen erromantzezko mailegutan nola euskal jatorrizko aditzetan (*hartze, agertze, ezagutze*). Geroxeago, erdialdean *-te* atzizkia ordezkatu zuen aipatu gainerateko kontestuetan. Mendebaldean, *-eta* atzizkia da horren ordaina.
- (3) *-eta* atzizkia: Testuen kronologiak erakusten du *-eta* atzizkia nagusiki mailegu modernoetan erabiltzen dela (*-adu, -idu-z* bukatuak) mendebaldean.
- (4) *-tzaite* atzizkia: mendebaldeko testuetan baizik ez da aurkitzen (Araba eta Bizkaia). Orohar, iduri luke bi eremuetan ozenez bukatu CVC tipoko erroei gehitzen zaiela (*galtzaitze, kentzaitze, sartzaitze*). Bizkitartean, Araban, txistukariz bukatu monosilabikoetan aurkitzen da (ikus Lazarraga 1567 *autsaitze, itsaitze*), eta herskariz bukatu monosilabiko (*batzaitze, lotzaitze*) eta polisilabikoetan (*garbizaitze, gorrizaitze*) (ikus Landuccio 1562).

Atzizki hauen kronologiari dagokionez, Urgellek uste du *-te* eta *-tze* Mitxelenaen Euskara Batu Zaharraren garaioak direla, bien artean, *-te* zaharrena izanik. Erran bezala, hastapen batean, *-tze* aditz modernoagoetan baizik ez zen agertzen, hots, partizipioa *-tu-z* zutenetan. *-(k)eta* atzizkiari dagokionez, hiruen artean berriena liteke erabiltzen horrekin. Euskara Batu Zaharraren garaioa izanik ere, berantago —eta nagusiki mendebaldean— gramatikalizatuko zen aditzen eratortzeko atzizki gisa, *-tze*-ren lekua hartuz. Edozein kasutan, Urgellen ustez aditz-izenaren gramatikalizazioa ez zen batean gertatu hiru atzizki horietan eta *-te*-dun formak lehenik gramatikalizatu ziren.

Egitura horren balio aspektualari dagokionez, Lafonek (1943) proposatzen du, jatorrian, prozesu baten iraupenaren adierazteko erabiltzen zela, nahiz eta XVI. mendean balio hori jadanik galdua zuen.³ Bestalde, Lafonek uste du aditz laguntzaileak duela iraupenaren balioa ekartzen, ez aditz-izenak:

Tandis que, en vieil anglais, la forme périphrastique devait sa valeur durative au participe présent, en basque, c'est pour une bonne part à l'auxiliaire employé que le présent de type *egiten dut* a dû le pouvoir d'exprimer le développement présent d'un procès qui doit aboutir à un terme. Par la suite, l'auxiliaire a perdu sa signification propre de verbe à valeur déterminée. (Lafon 1943, II. tomoa: 43)

Egitura horren balio aspektualaren aldaketa historikoak sakonkiago aztertzen ditu Aldaik (2003) bere tesian. Testuetako lekukotasunean oinarriturik ondoko gramatikalizazio bideak proposatzen ditu aldi oraineko egiturarentzat:

³ “*sartzen da* ‘il entre’, litt. ‘il est en entrée’; *hartzen du* ‘il le prend’ litt. ‘il l’a en prise’: indicatif présent (Syst., II, 40-43). Le présent basque composé a si bien perdu la valeur durative qu’il a du avoir autrefois que déjà, au XVII^e siècle, pour indiquer un procès qui dure, pour marquer que l’on passe du temps à faire quelque chose, on remplace l’auxiliaire ‘avoir’ par l’auxiliaire ‘être’ accompagnée de l’adjectif *ari* ‘occupe à’: *jaten ari da* ‘il est en train de manger’. L’indicatif présent à l’auxiliaire ‘être’ ou ‘avoir’, exprime une assertion relative au moment présent ou une assertion intemporelle (présent intemporel ou de répétition)” (Lafon 1999: 512).

- (7) orainaldi progresiboa > orainaldi iteratiboa > orainaldi frekuentatiboa > orainaldiko ohitura > orainaldi gnomikoa, generikoa

2. Beste hizkuntzetako datuak eta euskararenak parez pare

2.1. Beste hizkuntzak

Ikerketa desberdinek erakusten diguten bezala, (Comrie 1976, Heine & Reh 1984, Bybee & Dahl 1989, Heine 1993, Bybee & al. 1994, Kuteva 2001, Heine and Kuteva 2002, Anderson 2006) hizkuntza askotan progresiboa lokatibozko espresio baten gainean eratzen da:

The location schema has been referred to by Dik (1987: 64) as the Localist channel. It is most commonly used to develop progressive aspects; in fact it probably accounts for more progressive constructions in the languages of the world than all other event schemas taken together (Heine 1993: 32).

Gehienetan egitura predikatibo bat da⁴ [kopula + lokatibo (adposizio edo kasu marka bat) + aditz-izen] gisa osatua. Afrika mendebaldeko hizkuntza askotan aurkitzen dugu, hala nola Ewe, Igbo, Yoruba hizkuntzetan, baita Maninka, Kuranko, Bambara, Dioula, Mende, Bobo-Fing (Mande Hegoaldekoa), Bisa hizkuntzetan ere. Kwa hizkuntzan (Ewe, Niger-Congo) progresibozko egitura gisa horretan eratua da: [*le* lokatibozko kopula + aditz-izen + *-m(e)* lokatibozko posposizioa] (Heine 1993: 121):⁵

- (8) Kofi le xə tu- m
Kofi da etxe eraikitze lok.
“Kofi etxea eraikitzen ari da”

Ondoko adibidean ikusten den bezala, *le* kopula eta *me* lokatibozko postposizioa lokatibozko perpaus arruntetan ere aurki litezke (Heine 1993: 121):

- (9) Kofi le xə me
Kofi da etxe lok.
“Kofi etxean da”

Maninka hizkuntzan, *ye* kopula + aditz-izen bat lokatiboan (zehatzago, aditz izen + lokatibozko posposizio) egitura erabiltzen da aspektu progresiboa edo iraunkorraren adierazteko (Spears 1972: 15-16 apud Heine & Reh 1984: 123):

- (10) A ye né lá
hura da etortze lok.
“Etortzen ari da”

⁴ “The majority of progressive forms in our database derive from expressions involving locative elements [...]. The locative notion may be expressed either in the verbal auxiliary employed or in the use of postpositions or prepositions indicating location- ‘at’, ‘in’, or ‘on’” (Bybee & al. 1994: 129). “The conclusion concerning stative sources for progressives, then, strongly points to location as a necessary semantic element, and no clear cases of progressives formed with a copula without a locative element have been found in our data” (idem 132).

⁵ Heinek P[repositional] P[eriphrasis] deitzen du mota horretako perifrasiak.

Progresibozko forma ondoko egitura predikatiboarekin konpara dezakegu. Aldi honetan, predikatua ez da aditz-izen bat, baizik eta izen bat lokatiboan:

- (11) *A yé bón là*
 hura da etxe lok.
 "Etxean da" (Heine & Reh 1984: 123)

Egitura hau bera hizkuntza germaniko batzuetan ere aurkitzen dugu, hala nola ingelesez.⁶ Jespersen-ek (1949) erraten digu ingelesaren historian ikusten dela progresibozko forma bat [kopula + lokatibozko adposizio + aditz-izen] gisako egitura predikatibotik garatzen.⁷ Denboran zehar, lokatibozko preposizioa *a-* bilakatu zen eta gero betiko galdu:⁸

- (12) *I am on doing that > I am a-doing that > I am doing that*

Bestalde, gisa horretako egituretan askotan ikusten den bezala, aditz izenaren objektua genitiboan markatua da (*'s* inflexio genitiboa testu zaharretan edo *of* preposizioa lekukotasun berriagoetan). Horrek irauten du gutxienez XVII. mendera arte, eta gero emeki-emeki desagertu da:

- (13) *as she was writing of it* (Shakespeare: *Ado* IV.3.10, apud Jespersen 1949: 176) "Horren idazten ari baitzen..."
 (14) *they were carrying of him...* (Bunyan (1678) P 164, apud Jespersen 1949: 176) "Haren eramaten ari ziren..."

2.2. Egitura hauen sortze prozesuari buruz

Hizkuntzaz hizkuntza egitura horren aurkitzeak erakustera ematen du lotura semantiko hertsia dugula lokatiboaren eta progresiboaren artean, eta ez dela kasualitatea lokatibozko egitura progresibo egitura bihurtzea. Subjektuaren kokapena espazioan adierazten zuen egitura zabaldu da, eta orduan erabiltzen da hiztuna bere ekintzan/prozesuan kokatzeko:⁹

The reason that Ewe progressive structure has locative morphology (locative copula and erstwhile postposition) and a nominalizing indicator (the high floating tone) is precisely *because* it evolved historically from a spatial construction ('X is in Y') involving a Subject X as being located with respect to a nominal entity Y (an object

⁶ Holandesez (*Ik ben aan het lezen* 'I am at the reading') eta Alemanieraren aldaera dialektal batzuetan ere aurkitzen dugu. Alemanieraren progresibozko egituraz luzeago mintzatuko gara beheago (II,2).

⁷ Iduri luke egitura hori *-ende* partizipioa + *beon*, *wesan* laguntzaileez osatu egituraren ondoko forma dela: "The modern English expanded tenses are in some vague way a continuation of the old combination of the auxiliary verb and the participle in *-ende*; but after this ending had been changed into *-inge* and had thus become identical with that of the verbal substantive, an amalgamation took place of this construction and the combination *be on* + the sb, in which *on* had become *a* and was then dropped" (Jespersen 1949: 169). Ordezkatze hori nola gerta zitekeen ingelesaren historiaren puntu ilunenetarikoa da.

⁸ Iduri luke holandesez ere lokatibozko preposizioa (*aan*) frankotan erortzen dela.

⁹ Oroit aldaketa sintaktikoak erregularrak direla eta ez direla ezbeharrez gertatzen: "Syntactic change is regular, in the sense that it is rule-governed and not random" (Harris 2003: 532; Harris & Campbell 1995: 325-30). Bizkitartean horrek ez du erran nahi ez dela salbuespenik.

or place). Thus features that are a 'mystery' for a static description become an integral part of the diachronic explanation. (Kuteva 2001: 9)

Despite the variety of specific instantiations of the *co-location* notions ('be on', 'be at', 'be in', 'be with'), in none of these languages can the progressive be traced back to a structure involving an adposition meaning 'out of', 'off', or 'away from', or 'after', or 'before' [...]. *This in itself speaks in favour of a non-arbitrary conceptually-semantically motivated auxiliiation development in genetically and geographically remote languages.* (Kuteva 2001: 24) (etzana gurea da)

2.2.1. Hedatze semantikoa

Proposamen desberdinak aurkeztu dira garapen horren azaltzeko. Hengeveld (1992), euskara adibidetzat harturik, *hedatze metaforikoaren* terminotan mintzo da. Izan ere, proposatzen du *ibiltzen da* bezalako egituran lokatibozko metafora bat erabiltzen dela errateko subjektua 'ibiltzearen prozesuan' dela. Haren ustez, *hedatzea etxean da* gisako egituretan oinarritzen da:

The locative predication type has a further auxiliary use. Unlike the constructions discussed in the previous sections, in order for the locative predication to acquire this auxiliary use, it has to undergo a metaphorical extension. [...]

Example (59) [*Etxean da*] is a regular locative predication in which both the argument term and the predicate term designate first order entities. Example (60) [*Ibiltzen da*] is identical to (59) [*Etxean da*] except for the fact that the predicate term designates a second order entity. The subject is said to be located in a state of affairs in which he himself participates. This locative metaphor has entered the aspectual system of Basque and many other languages and is used to express durative or progressive aspect. [...]

The construction can only be interpreted metaphorically, and this fact may be responsible for the rapid grammaticalization to which this construction type seems to be subjected. (Hengeveld 1992: 274-75)

Kuteva & Sinha (1994) eta Kutevak (2001) ere *hedatze metaforikoaren* alde egiten dute. Bizkitartean, Hengeveld (1992) baino urrunago doaz entseaten baitira urrats desberdinen bereizten lokatibozko egituratik progresibozkora gertatu saltoaren azaltzeko. Horretarako, Koloniako alemanieraren aldaera dialektalean oinarritzen dira, gisa horretako egitura baitu, berriki sortua. Kuteva & Sinha (1994), Kutevaren (2001) arabera, hastapenean lokatibozko egitura hau genuke: *sein* ('izan') + *an* (lokatihoa) + determinatzailea + Izen Sintagma: *Ich bin am (an.dem) Bahnhof* (lit. 'ni naiz lok.geltokia' = 'geltokian naiz'), urratsez urrats progresibozko egitura bihurtzen dena:

1. urratsa: Zabaltze metaforiko bat dugu, egituraren esanahi lokatibo arruntetik, leku batean burutzen den ohizko ekintza baten esanahira: *Ich bin an der Uni* (lit. 'Unibertsitatean naiz') = (i) Unibertsitatean naiz, (ii) Unibertsitatean lan egiten dut.
2. urratsa: Beste zabaltze semantiko bat dugu (metonimia gisa ikus litekeena), leku batean burutu ekintza baten esanahitik, aktibitatearen nozio orokorraren esanahira, aktibitatea entitate gisa harturik: *Bist Du mit dem Aufsatz fertig?* "Idazkia prest ote duzu?", *Nein, Ich bin immer an der Arbeit* = "Ez, oraindik ere lantzen ari naiz" (lit. "lanean naiz").

3. urratsa: Zabaltze semantikoa urrunago doa: aktibitatea, entitate gisa hartua zena, eta izen baten bidez adierazia, performantza gisa hartzen da eta aditz-izen baten bidez adierazten da: *Ich bin am Arbeiten* = “Lan egiten ari naiz” (lit. “lan egitean naiz”). Kutevaren ustez, baliteke progresibozko forma berria zabaltze horrekin batera sorturik: “It could have been this extension that led to the progressive use” (Kuteva 2001: 32)
4. urratsa: Egitura kontestu berri batzuetara hedatzen da, zehazkiago aditz transitiboetara: *Martha ist Flaschen am sortieren* “Marta botoilen ateratzen ari da” (lit. “Marta botoilak ateratzean da”).
5. urratsa: Infinitiboak aditz izena ordezkatzeko du egituran,¹⁰ eta subjektu bizi-gabeak posible dira, orain arte subjektua beti biziduna zelarik: *Der Schmerz ist am nachlassen* “Mina ezitzen ari da”.

2.2.2. Egitura predikatibotik egitura perifrastikora: berranalizatze prozesuak

Hedatze semantikoaren hipotesi horiek laguntzen gaituzte salto kontzeptualaren ulertzerara. Bizkitartean, nahiz eta azaletik ez den ikusten, egiturak berranalizatze prozesu bat pairatzen du.¹¹ Kutevak (2001) aipatzen duen 3. urratseko zabaltze semantikoa gertatu eta, erran nahi baita aditz-izena egitura predikatiboan sartu eta, egitura-ren aldaketa bidean da. Egitura predikatiboa egitura perifrastiko gisa berranalizatzen da: egitura predikatiboko aditz-izena perifrastiko aditz nagusi gisa berranalizatzen da, aditz ezaugarriak bereganatuz, eta izen ezaugarriak galduz; eta kopula zena, egitura perifrastikoko aditz laguntzaile gisa dugu:

- (15) [Subjektu] + [aditz-izena lokatiboan (predikatu nominala)] + [kopula] → [Subjektu] + [aditz-izena (aditz nagusia) + laguntzailea]
 (16) [*Ich*] [*bin*] [*am Arbeiten*] → [*Ich*][*bin am Arbeiten*]

2.3. Euskararen datuak

Gorago erran bezala, euskarazko jatorrizko progresibozko perifrasi hizkuntza hauetan bezala osatzen da: aditz-izen bat (aditz-oina + *-te*, *-tze*, *-keta*...) kasu inesiboan + *izan* kopula. Orduan guk ere parez pare ezar ditzakegu ondoko bi egiturak:

- (17) Jon etxerat etort(z)en da (18) Jon mendian da

Bizkitartean, *izan* kopula aditz iragangaitzekin baizik ez da erabiltzen; aditz(-izen) iragankorrekin **edun* laguntzailea erabiltzen baita:¹²

- (19) Jonek bazkaria prestatzen du

¹⁰ Garapen hau alemanaren barnekoa da arrunt.

¹¹ Berranalisiak ez du aldatzen azaleko egitura: “Reanalysis is a mechanism which changes the underlying structure of a syntactic pattern and which does not involve any immediate or intrinsic modification of its surface manifestation” (Harris & Campbell 1995: 61).

¹² Ikerketa tipologiko askotan euskarazko progresibozko egitura aipatzen delarik ‘verbal noun in locative + be’ egitura gisa aipatzen da eta ez da sekulan ohartarazten aditz iragankorrak desberdin portatzen direla laguntzaileari eta argumentu egiturari dagokienez (Bybee & al. 1994, Hengeveld 1992).

Irakurlea ohartuko zen gorago eman beste hizkuntzetako adibideetan kopula baizik ez dela erabiltzen laguntzaile gisa, aditz nagusia iragangaitza zein iragankorra izan. Hori hala ere bada kontsultatu ditugun azterketa tipologikoetan. Horrek behartzen gaitu guretzat biziki arrunta den euskarazko egitura beste manera batez ikustera.

3. Euskarazko progresibozko egituraren diakroniaz: hipotesia

3.1. Proposamena

Gure proposamena hau da: euskaraz ere ez dela beti hala izan, erran nahi baita jatorrian kopula baizik ez zela posible egitura horretan, aditz iragankor, zein iragangaitzekin. Bi argumentu ditugu horren alde. Alde batetik, euskararen bitxitasuna beste hizkuntzetako datuen aldera: hizkuntza guzietan, salbu batek, patroï bera erakusten badute egitura jakin batean, pentsatu behar dugu ohizkoa ez den egitura eratorria dela, bigarrenkaria dela. Beste alde batetik, egitura horientzat proposatzen den gramatikalizazio prozesuak berak, eta bereziki, prozesu horren iturriak,¹³ **edun* laguntzailea eta kasu ergatiboa bazterratzen dizkigute: oinarrian egitura predikatibo bat dugu, beste edozein egitura predikatibo lokatiboren parekoa dena:

(20) Subjektua + Izen Sintagma lokatiboan (predikatu nominala) + *izan* kopula

Gisa horretako egituretan kopula baizik ez da posible¹⁴ erran nahi baita hitz bat (askotan aditz bat baina erakuslea ere izan liteke), semantikoki hutsa dena, berezko ekarpenik egiten ez diona esaldiaren esanahiari, eta larriki errateko *junta* funtzioa duena. Hengevelden ustez (1992), kopula morfema bat da predikazioa sortzen duena, predikatua ez delarik aditz bat:

The most salient feature of the copula is that it makes no independent contribution to the meaning of the sentence. This feature is reflected in the fact that in some languages and under varying circumstances the copula can be left out without affecting the meaning of the sentence. [...] the shades of meaning often attributed to a copula can be traced back to other characteristics of the sentence, such as the nature of the non-verbal predicate and its arguments. [...]

The fact that a copula is semantically empty immediately raises the question of what its function in the sentence is. Here this function may be broadly defined as a supportive one. A copula enables a non-verbal predicate to act as a main predicate in those languages and under those circumstances in which this non-verbal predicate could not fulfill this function on its own. [...] From its supportive function it follows that the copula itself is not a (part of the) predicate, but an auxiliary accompanying a non-verbal predicate and its argument(s). (Hengeveld 1992: 32-33)

Gehiegi luzatu gabe, argi gelditzen da **edun* ez dela kopulatzat hartzen ahal, eta ez dugula pentsatzen ahal egituraren sortzean laguntzaile gisa erabiltzen zela. Hortik, pentsatu behar dugu hastapen batean, *izan* kopula baizik ez zela erabiltzen euskarazko egitura predikatibo horretan, aditz-izen iragankor zein iragangaitzekin:¹⁵

(21) a. *Jon mendian da* b. *Jon etxerat etortzen da* c. **Jon bazkaria egiten da*

¹³ Ikus Bybee & al. (1994) gramatikalizazio iturrien determinazioaren hipotesiari buruz.

¹⁴ Erabiltzen delarik, naski, hizkuntza batzuek ez baitute kopularik Hengeveld (1992).

¹⁵ Egituraren sortzea lekukotua duten hizkuntzak kontuan hartuz, zilegi ditake pentsatzea hastape-hastapenean egitura soilik aplikatzen zitzaizela aditz iragangaitzei eta iragankortasun maila apala zutenei (Heine & Kuteva 2005: 66).

3.2. Garapena urratsez urrats

Hori hala asumiturik, suposatu behar dugu **edun* laguntzailea eta iragankortasunari dagozkion gainerateko ezaugarriak (ergatiboa, objektu komunztadura...) bigarren une batean garatu zirela egituran. Bizkitartean, bigarren une hori ez da edozein izaten ahal; ezaugarri iragankorrak egitura berranalisa eta gero baizik ez zitezkeen ager, erran nahi baita aditz-izena aditz nagusi gisa berranalisa zelarik, hots, egitura kopulatibo bateko izen-predikatua izatetik egitura perifrastiko bateko aditz-predikatua izatera pasatu zelarik. Hona proposatzen dugun garapena urratsez urrats:¹⁶

1. urratsa: Egitura predikatiboa

- i. [ni] [mendian] [naiz] ii. [ni] [etorten] [naiz]

Urrats honetan, *mendian* (izena lokatiboan) eta *etorten* (aditz-izena lokatiboan), predikatuak dira (ez aditz-predikatuak¹⁷ gorago erran bezala) eta subjektuaren kokapena adierazten dute leku batean (izenaren kasuan, *mendian*) edo bere prozesuan (aditz-izenaren kasuan, “*etortzearen prozesuan*”).¹⁸

2. urratsa: Egitura predikatiboaren berranalisa

- i. [ni mendian] [naiz] ii. [ni] [etorten naiz] iii. *[ni] [bazkaria egiten naiz]

Bigarren urrats honetan, aditz-izena egiturako aditz nagusi gisa berranalizatzen da eta kopula, egitura analitikoko laguntzaile gisa. Egitura predikatibo batetik egitura perifrastiko batera pasatzen gara. Orduan posible bihurtzen da aditz iragankorren erabiltzea egitura horretan (Oroit Kuteva & Sinharren 4. urratsa).

3. urratsa: Egitura iragankorren egokitzapena

- i. [ni mendian] [naiz] ii. [ni] [etorten naiz] iii. [nik] [bazkaria egiten dut]

Aditz-izena egitura perifrastikoaren aditz nagusi bilakatu da. Orduan, aditz-izenak bere azken izen ezaugarriak galtzen ditu (hortaz ikus beherago 3.4.) eta aditzarenak berreskuratzen: rol semantikoen banatzeko eta argumentu egitura erabakitzeko ardua. Horrek eraginen du aditz-izen iragankorrek iragankortasunaren ezaugarrien berreskuratzea eta finkatzea egitura horretan: **edun* laguntzaile iragankorra,¹⁹ kasu ergatiboa subjektuan eta objektuarekiko komunztadura. Campbell eta Harris-en

¹⁶ Gogoan atxiki behar da tarteko garai franko badela horrelako garapen batean, gehienak ezin berreraikiak. Guk berreraiketa eskematiko orokor bat baizik ez dugu aurkezten.

¹⁷ “A non-verbal predicate may be defined negatively as a predicate that is not a verb. A verb may be defined as a predicate which, without further measures being taken, has a predicative use only. A verb can assume a non-predicative function only after undergoing a further measure such as nominalization or participialization, whereas a non-verbal predicate can be put to some non-predicative use without any of these measures being taken.” (Hengeveld 1992: 27)

¹⁸ Trasken intuizioa ere hala zen: ‘The original sense of a participle like *ikusten* must have been literally ‘on seeing’, or ‘at seeing’ (Trask 1995: 224).

¹⁹ Nahiz eta **edun* laguntzailea aditz iragankor gisa aurkezten dugun (arrazoin praktikoengatik beretziki), gogoan dugu Hagège (2005) non zalantzan ezartzen den aditz afektiboen iragankortasuna.

(1995) terminologia berriz harturik, erranen dugu berranalisia gertatu eta egokitzen edo aktualizazio prozesua martxan jarri dela.²⁰

3.3. Eraginak? Hedadura prozesuak

Uste dugu indar batzuek bultza zezaketela progresibozko perifrasiaren berregituraketa: analogia edo hedadurak²¹ hain zuzen. Ebidentziak baditugu pentsatzeko euskarazko perfektuzko perifrasi inperfektibozkoa baino lehenago sortu zela.²² Bali-teke egitura honen hedaduraz inperfektibozko perifrasiak iragankor eta iragangaitzen arteko banaketa sortu zuela, aditz iragangaitzek subjektu absolutiboa eta *izan* kopula laguntzaile gisa harturik, eta aditz iragankorrek subjektu ergatiboa, objektu absolutiboa eta **edun* laguntzailea bereganaturik.²³ Itzul gaitezen aipatu 2. eta 3. urratsetara. Uste dugu hauetan perfektuzko forma gehitu behar dela, eragin handia izan zukeela-koan aipatu egokitzapen edo aktualizazio prozesuan:

2. *urratsa: Egitura predikatiboaren berranalisia*

- | | |
|---|--|
| i. [ni mendant] [naiz] | ii. [ni] [etorten naiz] |
| iii. *[ni] [bazkaria prestatzen naiz] | |
| vs iv. [ni] [etorri naiz] | v. [nik] [bazkaria prestatu dut] |

3. *urratsa: Egitura iragankorraren egokitzapena*

- | | |
|--|--|
| i. [ni mendant] [naiz] | ii. [ni] [etorten naiz] |
| iii. [nik] [bazkaria prestatzen dut] | |
| vs iv. [ni] [etorri naiz] | v. [nik] [bazkaria prestatu dut] |

Gure ustez, ergatibotasunak edo hobeki erranik euskararen eredu ergatiboak ere eragin zezakeen egituraren aktualizazioa edo egokitzapena. Aditz-izena egiturako aditz nagusi gisa berranalisatuko zen heinean hiztunak subjektu ergatiboaren markatzeko beharra sentituko zuen. Orduan, ergatiboa subjektu iragankorretara heda zitekeen eta berekin laguntzaile iragankorra ekar zezakeen.²⁴

Avar hizkuntza (Dagastan familia, Kaukasoko Ipar Ekialdea) hizkuntza ergatiboa da eta gisa horretako garapena ezagutu du bere progresibozko forman (Harris & Campbell 1995: 187-89).²⁵ Hastapenean, partizipioa + kopula gisa eratzen zen, subjektua absolutiboan izanik, aditz iragankor zein iragangaitzekin. Bizkitartean, egitura

²⁰ Aktualizazioa berranaliaren ondotik gertatzen da: "Reanalysis is, in fact, not visible to us directly, and it is only through meaning change (which is not always present) or through the actualization that follows reanalysis that we can see its effects." (Harris 2003: 536); "actualization [is] the gradual mapping out of the consequences of the reanalysis" (Timberlake 1977: 141 apud Harris & Campbell 1995: 77).

²¹ "Extension is a mechanism which results in changes in the surface manifestation of a pattern and which does not involve immediate or intrinsic modification of underlying structure" (Harris 2003: 532; Harris 1996; Harris & Campbell 1995).

²² Ikus gorago 1.2.

²³ Perfektuaren jatorriari dagokionez, erran behar dugu gaur egun perifrasi horretan dugun laguntzaile banaketa bera genukeela hastapenetik. Perifrasi horren sorrerari buruz ikus Mounole (2007a).

²⁴ Artetik errateko, horrek erakutsiko luke aldi honetan laguntzaile hautaketa ez dela aditz nagusiaren semantikari lotua (Bentley & Eythorsson 2003) baizik eta horren argumentu egiturari.

²⁵ Alineazio aldakei buruz ikus Creissels (2008).

perifraisi gisa berranalizatu eta, ergatibozko kasua aditz iragankorretako subjektuetara hedatu da eta objektu zuzenarekilako komunztadura sortu kopulan —kopulari komunztadura aurrizkia gehituz— eta partizipioan —partizipioari komunztadura atzizkia gehituz—. Baliteke hizkuntza ergatiboetan aktualizazio prozesua indartsuagoa izatea mota horretako egituretan. Avar hizkuntzan kasu ergatiboa hedatzen da baina laguntzailea ez da aldatzen —kopula dugu aditz iragangaitz zein iragankorrekin, nahiz eta iragankorretako objektuarekilako komunztadura bertan garatu den—. Beraz alde horretarik euskara avar hizkuntza baino urrunago joan da egituraren egokitzapeanean. Baliteke, euskararen kasuan, kasu ergatiboa eredu ergatiboaren eraginez hedaturik, eta **edun* laguntzailea bigarren une batean agerturik, perfektuzko perifraisiaren hedaduraz edo analogiaz. Ordena edozein izanik ere, uste dugu argi dela bai eredu ergatiboak baita perfektuzko perifraisiak eragin handikoak izan zirela euskarazko progresibozko egituraren berregituraketan.²⁶

Azkenik, pentsatzen dugu laguntzaile txandaketaren bitartez burutzen den inpersonala eta pertsonalaren arteko bereizketak ere bultzatzen zezakeela iragankor / iragangaitzen arteko bereizketa inperfektibozko perifrasian: *Jonek egiten du vs askotan horrela egiten da*.

3.4. Egitura predikatiboa berreraikitza buruz

Sakonkiago pentsatu nahi genuke progresibozko perifraisiaren jatorrizko formari, erran nahi baita, jatorrizko egitura predikatiboari. Gorago erran bezala, uste dugu jatorrian egitura predikatiboa mota horretakoa zela:

(22) Subjektua + aditz-izena + lokatibozko kasua + kopula

Hizkuntza askok erakusten duten bezala, egitura horretan osagarri bat dagoelarik, genitiboan izan ohi da: predikatua aditz-izena izanik, horren osagarria izen-lagun gisa portatzen da, hortik, genitiboan da:

As is to be expected whenever the Location Schema is employed, the main verb is encoded in a nominalized form [...]. When the verb is nominalized, object complements are presented as inalienable possessor noun phrases. In Ewe the possessor pre-

²⁶ Irigoienek (1985) ere proposatu zuen hastapen batean *izan* laguntzailea aditz iragankor eta iragangaitzekin erabiltzen zela eta **edun* berantago hedatu zela aditz iragankorretara. Bizkitartean, haren eta gure arrazoinbideak arras desberdinak dira. Irigoienek uste du euskarazko egitura inperfektiboa latinaren *esse* + 'orainaldiko partizipioa' egituraren kalko hutsa dela, seguraski erlixiozko testuen itzulpenetan sortu eta egunerokotasuneko euskarara hedatu zena: "Las perífrasis del tipo *egozten zuen, egozten ari zen*, son del mismo sentido y formación que la perífrasis constituida por el verbo *ser* + participio de presente en griego y en latín, con adaptación ulterior a la distinción formal de transitivo e intransitivo, bien establecida, por otra parte, en el sistema más antiguo de la lengua vasca, a partir de dicho modelo, *ser* + participio de presente, difundido por la cultura religiosa con base en determinados usos del latín vulgar, y antes del griego, utilizando el sustantivo verbal en caso inesivo como sustituto de dicho participio de presente por carecer de esta última forma la lengua" (Irigoien 1985: 41). Beste lan batean erakutsi dugun bezala (Mounole 2006), gure perifrasien artean, perfektuzkoak baizik *ez du* paralelorik latin klasikoko eta erro-mantzezko egitura batekin. Testu erlixiozkoen garrantziari buruz egituraren hedatzean, erran behar dugu gure lehenbiziko testu erlixiozkoen itzulpen luzeak xvi. mendekoak baizik *ez direla*, xv. mendean, inperfektibozko egitura nahiko gramatikalizatua zelarik bertso sortek erakusten duten bezala (Milia Lastur, Arrasateko erreketak).

cedes the possessed constituent, and there is no formal marking in the case of inalienable possessive constructions. Thus, the phrase *xe tu-tu-* in (6) and (7) means literally 'the house's building'; that is, the object ('house') appears as a possessive modifier on the nominalized verb (Heine 1993: 122).

Goiago erran bezala (2.1), ingelesak bere historian progresibo bat sortu du aditzen, lokatibo eta kopulaz osatu egitura baten bidez. Jespersenen (1949) arabera, ingeles zaharrea aditz-izenaren objektuak ere genitiboan markatzen ziren. Gutxienez, hala zen XVII. mendera arte. (23) eta (24) gisa errepikatzen ditugu, gorago (13) eta (14) gisa eman adibideak:

- (23) *as she was writing of it* (Shakespeare *Ado* IV.3.10, apud Jespersen 1949: 176) "HorREN idazten ari baitzen..."
 (24) *they were carrying of him...* (Bunyan (1678), P 164, apud Jespersen 1949: 176) "HaREN eramaten ari ziren..."

Ingeles modernoan, gerundioak galdu ditu bere izen ezaugarri guztiak eta objektua ez da gehiago genitiboan markatzen progresiboazko egiturari. Bizkitartean, iduri luke piska bat gehiago irauin zuela perpaus jokatu gabeetan, XVIII. mendean oraindik, gerundioaren subjektu iragankorra edo objektua genitiboan marka baitzitezkeen: *I don't approve of his doing that* "ez dut onartzen haREN egite hori", Defoe²⁷ M 16 *they shan't catch me a-kissing of you* = "ezin naute harrapatu zuRE musukatzen".

Euskarari dagokionez, ekialdeko euskalkiek aditz-izen iragankorretako objektua genitiboan markatzen dute, perpaus jokatu gabeetan: *aitaren ikustera noa*.²⁸ Aditz-izen iragangaitzetako subjektuari dagokionez, Lafitteren arabera (1963), ekialdeko testu zahar batzuetan ere genitiboan markatzen da: *aitaren jiteaz atsegin dut*. Bi erabilpen horiek mendebaldeko eta erdialeko testu zaharretan aurkitzen ditugu, horrek pentsarazten baitu garai batean euskalki guzietara orokortuak zirela: (i) objektua genitiboan: *Bergararroc asi dira trajioe baten asmaçean* (Arrasateko erreketak, TAV 83); (ii) subjektua genitiboan: *kukuen kantatzean, euri ta eguzki*, "Cuando el cuco suele cantar, lluvia y sol" (RS 70), *Olasso da ENE-EGOTECO aulquia* (Garibai 1592). Guk, Trasken bezala (1995), uste dugu forma hauek berrikuntzak baino ge-

²⁷ Defoe, Daniel: *Moll Flanders* (The Abbey Classics), xviii-xix.

²⁸ Bizkitartean ez da sistematikoki erabiltzen Lafittek azpimarratzen duen bezala: 'L'infinitif nominal étant à la fois nom et verbe, on sent chez les auteurs une grande hésitation dans la façon de traiter les sujets et les compléments qui s'y rattachent. Les uns regardent l'infinitif comme un "nom" et tendent à mettre sujets et compléments directs au génitif dans tous les cas. Ex. *Aitaren jiteaz atsegin dut*, "je suis content de la venue de mon père (litt.: du venir du père)"; *aitaren ikustean*, "en voyant le père" (litt.: "dans le voir du père"); *aitaren egite hori*, "cette action du père" (litt.: ce faire du père). D'autres regardent l'infinitif comme un verbe et tendent à traiter les sujets et compléments en conséquence, en négligeant "le génitif" dans tous les cas. Ex.: *aita jiteaz atsegin dut*, "je suis content de la venue de mon père" (litt.: "du le père venir"); *aita ikustean*, "en voyant le père"; *aita ikusteko*, "pour voir le père"; *aitak egitean*, "quand le père le faisait" (litt.: "dans le père le faire"). Bestalde, azpimarratzen duen bezala, aditzi zenak "-ean" eta "-ekin" kasuetan deklinatuak direlarik, haiekin doazen objektuak ez dira genitiboan agertzen ahal (absolutiboan baizik): "Le complément direct de l'inessif singulier et celui de l'unitif singulier se construisent chez tous les classiques avec le nominatif. Ex.: *Hura ikhustean*, "en le voyant"; *hura ikhustearrekin*, "en le voyant". Quand ils sont construits avec le génitif, c'est que ces infinitifs doivent être pris comme noms. Ex.: *liburuaren hastean*, "au début du livre"; *liburua hastean*, "en commençant le livre". (Lafitte 1962: 221)

hiago arkaismoak direla, eta salatzen dutela aditz-izenek izen ezaugarri asko gorde dituztela.

Baina zer pentsa progresibozko egitura zaharraren objektuei buruz? Lafittek (1962: 221) dioenaren arabera, subjektua eta objektua ez dira genitiboan agertzen ahal progresibozko egitura zaharrean.²⁹ Bizkitartean, pentsa dezakegu jatorrian euskaraz, ingelesez eta Ewe hizkuntzetan bezala, egitura predikatiboko objektuak ez zirela egitura aruntetan bezala portatzen, erran nahi baita, genitiboan markatzen zirela, eta aditz-izena aditz nagusi gisa berranalizatu zen heinean, izen ezaugarriak galdu zituela,³⁰ eta objektuak kasu absolutiboa hartu:

- * bazkariaren prestatzen naiz
- * jainkoaren entzuten naiz

Bizkitartean, ez dugu horren arrastorik testu zaharretan eta orduan nahiago dugu horretan gelditu gehiegi espekulatzeko ordez. Halere, baldin eta arrasto hori galdu balitz horrek erran nahi luke gure lehenbiziko testuetarako egitura nahiko gramatikalizatua zela eta aditz-izenak bere izen ezaugarriak jadanik galduak zituela (egitura honetan behintzat).

Bukatzeko, perifrasiaren orokortzeari dagokionez, egitura ez zatekeen hastapenetik aditz guzietara hedatua. Traugottek erakusten du ingeles zaharrean egitura aditz-izen dinamikoekin baizik ez zela erabiltzen:

Even when it occurs in translations, it is most commonly found, according to Mossé, with verbs denoting movement, especially those associated with warface, for instance, *winn-* 'fight', *feoht-* 'fight', *herg-* 'harry', *slea-* 'slay', *far-* 'go', *iern-* 'run'. Right from the start, then, it has been primarily associated with action verbs. (Traugott 1972: 90)

Guk ere pentsatu behar dugu egitura ekintza aditzekin sorturik, bigarren une batean heda zitekeela aditz estatiboetara.

Gero, ez dugu erraten ahal egitura *tempus* orainaldian ala iraganean ager zitekeen. Beharbada testuen azterketa kuantifikatibo batek arrapostu bat ekar liezaguke.³¹

3.5. Sinkroniazko datuak

3.5.1. Aditz-izena inesiboan + egon egitura

Ohartarazi nahi dugu zabaltzen ditugun hipotesiak bat datozela gaur egungo euskararen sinkronian aurkitzen ditugun beste egitura progresibo batzuekin. Lehenik,

²⁹ L'inessif archaïque employé comme *élément d'un temps composé* ne reçoit jamais ni sujets ni compléments au génitif. (Lafitte 1962: 221)

³⁰ Aditz-izenen izen ezaugarriak hauek dira: ez dira pasibizatzen ahal, ez dute adverbiorik hartzen ahal, eta subjektu eta objektuek ez dituzte kasu arruntak hartzen. Aditz gisa berranalizatzen direlarik, objektuak kasu arrunta hartzen du (eta genitiboa galtzen).

³¹ Datu interesgarri bat halere: semitikoz egitura gehiago erabilia da *tempus* iraganean iragan iraunkorraren adierazteko, *tempus* orainaldian baino (Cohen 1924).

mendebaldeko euskalkiek³² progresibozko egitura bat dute aditz izena inesiboan + *egon* kopula gisa eratzen dena, aditz irangaitz zein iragankorrekin:

- (25) *Pentsetan nago etortea* (26) *Karta bat idazten nago*³³

Egitura horretan, *egon* perifrasiko laguntzailea da. Hizkuntzako beste egitura batzuetan aldiz, lokatibozko kopula da, *izan* kopula arruntarekin oposaketan dena, gaztelera-*estar*³⁴ lokatibozko kopula, *ser* kopula arruntarekin oposaketan den bezala.³⁵ Izan ere, *izan* aditzak ez bezala, *egon* aditzak, postura eta lokazio ñabardurak ditu: beti erabiltzen da lokazio eta denbora egoeretarako:

- (27) Jon etxean dago (28) Jon haserre dago
(29) Juan está en casa (30) Juan está enfadado

Progresibozko egitura berria gisa horretan eratua da: aditz-izena inesiboan + *egon* laguntzailea. Hau ere egitura predikatibo batetik eratorria da: Subjektua + predikatua (aditz-izena) + lokatiboa (inesibozko kasua) + kopula (*egon*). Egitura hau hertsiki lotua da gorago aipatu Afrika mendebaldeko hizkuntzen progresibozko egiturei (2.1), baita euskararen garai zaharretan aditz izena inesiboan + *izan* kopularen bidez egiten zen egiturari ere.³⁶

Ez du iduri adibide horietan ezaugarri iragankorrak hedatzen ari direnik (**edun* laguntzailea edota ergatibozko kasua aditz-izen iragankorreko subjektuan). Horren arrazoin bat liteke egitura ez dela hertsiki lotua honetan eragina izan zezakeen beste egitura bati: *egon* intransitibo vs **edun* transitibo oposatarik ez da beste forma analitiko batean.³⁷

Azkenik, progresibozko forma horren erabilpena murriztua da. Izan ere ez da aditz mota guzietan erabiltzen ahal: mugimendu aditzak eta aditz estatiboak ez dira erabiltzen ahal egitura horretan.

- (31) ****Peru etorten dago** (32) ****Bueltetan dago**³⁸ (33) ****Egoten nago**

³² Urriki izanagatik, xvi. mendean jadanik agertzen da mendebaldeko autore zaharren testuetan: Lazarraga: *erregutan gagozu*. Erran behar da, euskalki guzietan aurkitzen dugula, nahiz eta maizagoa den mendebaldeko hizkeretan: Leizarraga (*tenplean othoitz egiten nengoela*, Act 22, 17). Lafitteren arabera (1962), *berotzen nago* 'je me chauffe', *berotzen nindagon* 'je me chauffais' bezalako adibideak 'présent' eta 'imparfait continu' dira hurrenez-hurren, ez progresiboak.

³³ Milesker Joseba Lakarrari bere intuizioak emanik zati honetako adibideei buruz.

³⁴ Gaztelera-*estar* kopula, latinezko *stare* postura aditz lexikotik garatua da. Bybee & al. en arabera (1994) jatorrian *estar* lokatibozko kopula bat da, eta gerundizko egitura lokatiboa/aspeltu ez-burutuaren arteko loturaren adibide bat gehiago da: "Since *stare* [latin 'to stand'] is originally a locative verb, this construction could as well be interpreted as having a locative source" (Bybee & al. 1994: 132).

³⁵ *Egon* bizkaieraz gipuzkeraz baino hedatuagoa da gure lehenbiziko testuetan *egon*-en erabilpena inesibo batekin edo leku adberbio batekin hedatuz doala xix. mendean, xx. mendean, *izan* bezain erabilia izan arte (OEH). Azterketa kuantifikatiboek beharrezkoak dira garatze honen zehazki aipatu ahal izateko.

³⁶ Gisa horretako egituretako objektua genitiboan markatzeko joerari buruz, azpimarratu behar dugu horren adibide bat baizik ez dugula aurkitu testu zaharretan: *Benaren etorrera santuaren ichedetean ceuden Anima justu aec* Otxoa Arin (1713: 7). Gaur egun ez dugu erabilpen horren arrastorik.

³⁷ Aditz nagusi iragankorra + **edun* vs aditz nagusi irangaitza + *izan* oposaketa dugularik perfektuzko eta inperfektibozko perifrasiatan.

³⁸ vs *etorten da*, *bueltetan da*, *egoten da*. *Bueltan dago* posible da, baina hori beste egitura bat da.

Murrizketa horiek erakusten dute progresibozko perifrasi hau ez dela guztiz gramatikalizatua. Gorago aipatu Koloniako alemanieraren progresibozko perifrasiak ere ez da kontestu guzietara hedatua. Ez da agertzen ez solas aditzekin, ez mugimendu aditzekin ezta subjektu bizigabea duten egiturekin ere:³⁹

This structure has the morphosyntactic form *sein* ('be') + *am* (*that is, an dem 'at. the'*) + *non-finite form*. It can be used with a relatively small set of verbs in the main verb slot; they are, typically, action verbs like *arbeiten* 'work', *kochen* 'cook', *schreiben* 'write', etc. but not verbs of saying, or very often motion verbs. (Kuteva 2001: 30)

3.5.2. Aditz-izena + *ari* + *izan*

Erdialdeko eta ekialdeko euskalkiek [aditz-izena / izena inesiboan + *ari* + *izan* laguntzailea] egitura erabiltzen dute progresiboaren adierazteko: *bazkaria prestatzen ari naiz*, *dantzan ari naiz*.⁴⁰

Erabilpen hedatuenak *izan* kopula baizik ez badu onartzen aditz-izen iragangaitz zein iragankorrekin, erran genezake **edun* laguntzailea gero eta gehiago erabiltzen dela aditz iragankorrekin, gisa horretan, iragangaitz (*izan* laguntzailedunak) vs iragankor (**edun* laguntzailedunak) banaketa ekarriz.

Lafittek (1962) laguntzaile ordezkatzeko horren berri eman zuen bere gramatikan: *uraren karreatzen ari da* vs *ura karreatzen ari du* bezalako txandaketak aurkeztuz. Gure ustez, bi egiturak arras desberdinak dira: batean Izen Sintagma bat dugu, non *karreatzen* aditz-izen bat den, bere izen ezaugarriekin, besteak beste izenlagun bat genitiboan (*uraren karreatzen*); eta bestean *karreatzen* perifrasiako aditz nagusia da, eta *ari* aspektu marka,⁴¹ *karreatzen* aditzak argumentu egituraren eta rol semantikoen banaketaren ardurak dituelarik. Aditz ezaugarriak bereganatu dituen neurrian, izen ezaugarriak galdu ditu, besteak beste, osagarria genitiboan izatearenak. Gisa horretako txandaketak biziki arruntak dira hizkuntza baten sinkronian.⁴²

Lafittek ez bezala, ez dugu uste genitiboa kentzeak nahita nahiez objektuarekiko komunztadura eta laguntzaile aldaketa ekartzen dituela. To-genitiborik ez duten hizkeretan laguntzailea edo komunztadura ez dira baitezpada aldatzen: *zizak biltzen ari naiz* (Pablo Sastre *Hotel Magikoa*). Bizkitartean, erran bezala, laguntzaile aldaketa gero eta gehiago entzuten da. Hona bi testu ofizialetan aurkitu adibideak. Eusko Jaurlaritzaren web-gunean aurkitu adibide bat:⁴³

Plásticos Bilorea, CAF eta Kutxa enpresek, besteak beste, etorkizuneko zuzendariek *prestatzen ari dituzte*. Etorkizun hau berrikuntzaren gaietan berehalakoa da, IKT-i

³⁹ Iduri luke alemaniarazko egitura euskarazkoa baino murriztuagoa dela, euskaraz solas aditzak agertzen baitira progresibozko forma horretan (*esaten nago ez dela egia*) baita subjektu bizigabeak ere (*bazkaria erretzen dago*). Dena den oraindik aztertzeak dira euskarazko egitura horren erabilpen baldintzak eta murrizketak.

⁴⁰ Perifrasi horren jatorriari buruz, ikus Trask (1995): 'The various progressive auxiliaries like *ari izan* 'be busy (at)' can take either an imperfective participle, as in *egiten ari da* 'he is doing it', but originally and literally 'he is busy at doing it', or the locative case of a noun, as in *lanean ari da* 'he is working', literally 'he is busy at work' (Trask 1995).

⁴¹ *Ari*-ren izaeraz ikus Laka (2004).

⁴² Hortaz ikus Harris & Campbell (1995).

⁴³ http://www.enpresadigitala.net/euskera/noticias/noticia_concreta.jsp?id=2599

esker. Hauek dira apustuaren gai nagusiak: IKT-en bertatzekoa enpresaren estrategian eta merkatuari aurreratzea.

Edo, 2001/05/19ko EGA azterketako ulermenezko parteko erantzun posibleetarik bat:⁴⁴

Oporrak iritsi bitartean, udako *planak egiten ari ditu*

Ohar gaitezen bi adibide hauetan baita entzun ditugun gehienetan ere objektua pluralean dela. Baliteke pluraltasun horrek komuntadura bultzatzea; eta ondorioz **edun* laguntzailearen agerpena baldintzatzea. Horrek pista bat gehiago idekitzen du laguntzaile aldaketaren nondik norakoaren ulertzeko. Dударik gabe, datu hori arras kontuan hartzekoa da gure progresibozko egitura zaharraren berregituraketan eragin duten indar aldatzaileen argitzeko.

Lanaren bigarren zatian ikusi dugun bezala, munduko hizkuntza askotan lokatibozko espresio bat erabiltzen da progresiboaren edo oro har aspektu ez-burutuaren esanahiarekin. Azpimarratu nahi dugu euskararen historian lokatiboa + kopula egitura biziki emankorra izan dela, beti ere aspektu bukatugabearen adierazteko. Izan ere, gorago aipatu perifrasiaren ondoan —(i) *etorten naiz*, (ii) *pentsetan nago*, (iii) *etorten ari naiz*— ekialdeko euskalkietan, beste forma batzuk aurkitzen ditugu gisa horretan eratuak: *kokinean da*, *mintulinean da*, *gaixtoan da*, *pitoan da* vs *kokina da*, *mintulina da*, *gaixtoa da*, *pitoa da*. Lehenbiziko formek momentuko izaera adierazten dute, bigarrenek izaera iraunkorra, nortasuna adierazten dutelarik.⁴⁵

5. Bururapena

Azterketa tipologikoen bultzatu gaituzte beste manera batez ikustera guretzat oso arrunta den erabilpen bat. Aditz-izena inesiboan + *izan* (aditz iragangaitzekin) edo + **edun* (aditz iragankorrekin) ez da egitura arrunta munduko hizkuntzetako progresibozko perifrasiaren artean. Bai tipologiak baita gramatikalizazioaren teoriak ere erakusten digute aditz-izena lokatiboan duten progresibozko perifrasiak egitura bakar bat dutela posible jatorrian: kopuladuna eta subjektu absolutiboduna aditz iragankor zein iragangaitzentzat.

Erakutsi dugu euskarazko inperfektibozko perifrasiak egitura hori zukeela has-tapenean (1. urratsa). Gero, egitura predikatiboa perifrasi gisa berranalizatu eta (2. urratsa), aditz-izen iragankorrek ergatiboa beren subjektuetara heda zezaketan eta **edun* laguntzailea har, *izan* kopularen orde. Erran dugu bi eragin nagusi ikusten genituela prozesu horren gertatzean: alde batetik patroir ergatiboaren presioa, kasu ergatiboa eska zezakeena aditz-izen iragankorretako subjektu guzietan; eta bestetik, perfektuzko perifrasiaren eredu, hedaduraz subjektu absolutibo + aditz iragan-gaitz + *izan* vs subjektu ergatibo + aditz iragankor + **edun* oposaketa ekarriko zuena. Azkenik, gertakari sinkronikoen datuak kontuan harturik, baliteke objektuarekilako komuntadura pluralaren beharrak eraginik laguntzaile aldaketan.

⁴⁴ <http://www.interneteuskadi.org/euskara/ega/20010519.xml>

⁴⁵ Mendebaldeko euskalkietan bereizketa hau burutzen da *izan* / *egon* laguntzaileen erabilpen kontrastatiboari esker: *zoro dago* (momentu honetako ezaugarria) vs *zoroa da* (izaera iraunkorra).

Erran gabe doa hipotesi horrek ondorioak dituela perifrasiaren kronologiarako. Gorago ikusi dugun bezala (1.2), Urgellek (2006) erakutsi du ebidentzia formalak daudela errateko aditz-izena partizipioa baino berriagoa dela: atzizki nominatzaileen hautaketa partizipioaren formaren arabera egiten da, horrek erakusten baitu partizipioa dela zaharrena. Hedaturaren hipotesia beste argumentu bat liteke horren alde. Baldin eta inperfektibozko perifrasiak (aditz-izen iragankorretan) subjektu ergatiboa eta **edun* laguntzailea perfektuzko perifrasiaren eraginez garatu baditu, ez da dudarik inperfektibozko perifrasiaren perfektuzkoa baino berriagoa dela. Azkenik, lan honek berri ere azpimarratzen du euskararen perifrasiak biziki desberdinak direla bata bestearen aldera (Mounole 2006).

Gaskoierak inperfektibozko perifrasiaren sorreran izan zezakeen eraginari buruz, zailtasun handiak ditugu Haaseren (1992) hipotesiaren onartzeko. Lehenik, euskarazko perifrasiaren gaskoieraren perifrasiaren eraginez sortu bazen nola hedatuko zen euskalki guzietara? Euskara eta gaskoieraren arteko kontaktu eremua Aturriren inguruan hasi eta Bidasoaren inguruetan gelditzen zen, ekialderago Biarno eta Zuberoaren arteko mugetan kokatzen zelarik. Orduan, pentsatu behar ote dugu egitura ekialdeko euskalkietan sortu eta gainerateko euskalkietara hedatu zela? Ez zaigu biziki sinesgarria iduritzen. Beste arazo bat pisu handiagoa duena: noizkoa da gaskoieraren forma hori? Ez ditake biziki zaharra azterketa sinkroniko eta diakronikoek ez baitute sekulan aipatzen: Ronjat (1980), Rohlf (1972), Lespy (1986), Jensen (1880). Argiki erakutsia izan da forma bat aski gramatikalizatua eta hedatua izan behar dela beste hizkuntza batek 'kopiatu' ahal izateko (Heine & Kuteva 2005).

Bibliografia

- Aldai, G., 2003, *Grammaticalization of present and past in Basque*, Doktoretzako tesia, University of Southern California.
- Anderson, G. D. S., 2002, 'The languages of Central Siberia: introduction and overview', in E. Vadja (arg.) *Languages and Prehistory of Central Siberia*, John Benjamins, Amsterdam, 1-122.
- , 2006, *Auxiliary Verb Constructions* Oxford.
- Azkue, R. M., de, 1923-1925, *Morfología Vasca*, *Euskera* IV-VI.
- , 1935, "Evolución de la lengua vasca", *Euskera* XVI, 57-120.
- , & O. Dahl, 1989, "The creation of tense and aspect systems in the languages of the world", *Studies in languages* 13: 1, 51-103.
- Bybee, J., R. Perkins, & W. Pagliuca, 1994, *The evolution of Grammar: Tense, Aspect and Modality in the Languages of the World*, University of Chicago Press, Chicago.
- Cohen, M., 1924, *Le système verbal sémitique et l'expression du temps*, Leroux, Paris.
- Comrie, B., [1976] 1981, *Aspect: An introduction to the study of verbal aspect and related problems*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Creissels, D., 2006, *Syntaxe générale: une introduction typologique*, (2 tomo), Levasien, Paris.
- , 2008, "'Direct and indirect explanations of typological regularities: The case of alignment variations", *Folia Linguistica* 42: 1 (agertzeari).
- Bentley D., & T. Eythórsson, 2003, "Auxiliary selection and the semantics of unaccusativity", *Lingua* 114, 447-471.

- Hagège, C., 2005, "De la place réelle de la transitivité, ou la typologie linguistique entre passé et avenir", *Linguistique typologique*, G. Lazard & C. Moysse-Faurie (arg.), *Septentrion*, 55-69.
- Harris, A., 1996, "Extension in Diachronic Syntax and Morphology", *Chicago Linguistic Society* 32, L. M. Dobrin, K. Singer & L. McNair (arg.), 93-109
- , 2003, "Cross-Linguistic Perspectives on Syntactic Change", *The handbook of Historical Linguistics*, B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), Blackwell, Oxford, 529-551
- Harris, A., & L. Campbell, 1995, *Historical syntax in cross-linguistic perspective*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Haase, M., 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*, Helmut Buske, Hamburg.
- Heine, B., 1993, *Auxiliaries: Cognitive Forces and Grammaticalisation*, Oxford U. P., Oxford.
- Heine, B., & M. Reh., 1984, *Grammaticalization and Reanalysis in African languages*, H. Buske, Hamburg.
- Heine B. & T. Kuteva, 2005, *Language contact and grammatical change*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Hengeveld, K., 1992, *Non-verbal predication: Theory, Typology, Diachrony*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Hualde, J. I., J. A. Lakarra, & R. L. Trask, (arg.), 1995, *Towards a history of Basque*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- & J. Ortiz de Urbina, (arg.), 2003, *Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Irigoyen, A., 1985, *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*, Bilbo.
- Jensen, F., 1986, *The syntax of Medieval Occitan*, Niemeyer, Tübingen.
- Kuteva T. & C. Sinha, 1994, "Spatial and Non-Spatial Uses of Prepositions: Conceptual Integrity Across Semantic Domains", in M. Schwarz (arg.), *Kognitive Semantik/ Cognitive Semantics: Ergebnisse, Probleme, Perspektiven*, Gunter Narr Verlag, Tübingen, 215-237.
- Kuteva, T., 2001, *Auxiliation: An enquiry into the Nature of Grammaticalisation*, Oxford U. P., Oxford.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au XVIème siècle*, Delmas, Bordeaux.
- , 1999, *Vasconiana*. Iker 11, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Laka, I., 2004, "Ari progresiboaz: euskararen kasu markak", P. Albizu & B. Fernández, *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 113-132.
- Lakarra, J., 1996, *Refranes y Sentencias (1596): Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2006, "Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica", *Oihenart* 21, 231-324.
- Lazarraga, J. Perez de, 1666, *Eskuizkribua, Iñigo Landaren edizio elektronikoa*.
- Lespy, J. D., 1880, *Grammaire béarnaise, suivie d'un vocabulaire béarnais-français*, Maison-neuve et Cie, Paris.
- Leizarraga, I., 1900, *I. Leizarragas baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, Th. Linschmann et H. Schuchardt (arg.), Strasbourg. Berarg. izenburu berarekin (1990), Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mitxelena, K., [1961] 1990, *Fonética histórica vasca, ASJUren Gehigarriak* 4, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

- , [1963], 1990, *Lenguas y Protolenguas*, ASJUren Gehigarriak 20, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , [1964], 1990, *Textos Arcaicos Vascos*, ASJUren Gehigarriak 11, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , [1981] 1987, “Lengua común y dialectos vascos”, *Palabras y Textos*, UPV/EHU, Bilbo, 35-55.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), Gipuzkoako Foru Aldundia, ASJUren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- , 1987-2006, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mounole, C., 2006, “Quelques remarques à propos de l’histoire des périphrases basques”, *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask -Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz. Larry Trasken Oroitzapenetan*, Lakarra & Hualde (arg.), ASJU 40: 1-2, 725-740.
- , 2007, “Perfektuzko perifrasiaren historiaz” (eskuizkribua).
- , 2008, “Laguntzaile hirupertsonalen sorreraz” (prestatzen).
- Oyharçabal, B., 2003, “Tense, aspect and mood”, in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 249-284.
- Ronjat, J. [1930-1941] 1980, *Grammaire historique des parlers provençaux modernes*, Slatkine, Marseille.
- Trask, R. L., 1977, “Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses”, *Anglo-American contributions to Basque studies. Essays in honor of Jon Bilbao*, W. A. Douglass, R. Etulain & W. H. Jacobsen (arg.), Univ. of Nevada, Reno, 203-217.
- , 1981, “Basque verbal morphology”, *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak, Iker 1*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1990, “The *-n* class of verbs in Basque”, *TPS* 88: 1, 111-128.
- , 1995, “On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque”, in Hualde J. I., Lakarra, Trask (arg.), 207-234.
- , 1997, *The history of Basque*, Routledge, Londres.
- Urgell, B., 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask -Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz. Larry Trasken Oroitzapenetan*, Lakarra, Hualde (arg.), ASJU 40: 1/2, 921-948.

ADLATIBOAREN BERBALIZAZIOAZ

Jose Antonio Mujika

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kidea

0. Sarrera

Gauza jakina da sintagma adlatiboari ondotik *-TU* atzizkia eransten zaionean, edo, nahiago bada, *-TU* atzizkiari aurretik sintagma adlatiboa lotzen zaionean, partizipioa eratzen dela (*argitaratu, bururatu, eskuratu, etxeratu...*). Ez da zer harritu horretan, mota desberdinetako osagaiak hartzen baititu *-TU* atzizkiak: izena (*urtu*), adjektiboa (*zuritu*), adberbioa (*urrundu*)... Lekua adierazten duten gainerako postposizio sintagmek, ordea, ez dute aukera hori (**etxetik-tu, *etxean-tu*). Beste leku-sintagmak ez bezalakoa da horretan adlatiboa.

Gauza jakina da, bigarren, adlatiboak berak, *-TU* atzizkia gabe ere, bete dezakeela perpausean partizipioaren lekua (*etxera orduko, etxera nahi nuen, etxera zenean...*).

Berbalizazio¹ mota bi horiek izango ditut aztergai artikululu honetan. Aurrena, mota bakoitzaren noiz-nolako orokorrak deskribatuko ditut. Eta, ondoren, haien funtsa azaltzen saiatuko naiz.

1. Adlatiboaren berbalizazio motak

1.1. *-RATU* partizipioa

1.1.1. Hasteko esan beharra dago [*adlatiboa -TU*] egitura —laburtuz '*-RATU partizipioa*' deituko dudana—² oso emankorra dela, pentsa baitaiteke berez adlatibo guztiakin dela egingarri. Hiztegietan ez dira, noski, guztiak aipatzen. Hiztunek, eta idazleek, noizbait erabili dituztenak jasotzen nahiko lan izaten dute hiztegiileek, eratorri daitezkeen guzti-guztien bila alferrik saiatu gabe ere.

Erabilera handia edo handi samarra dutenak dira, jeneralean, hiztegietan aipatu ohi direnak. Horietako batzuek adiera berezia garatu dute: horrela, esate baterako, berez 'argitara etorri / ekarri' esan nahi duen *argitaratu* aditza liburuen eta idatzien 'kaleratzea' adierazteko erabiltzen da, adiera horretan finkatu baita; eta *eskuratu*

¹ Bi adiera ditu 'verbalización' hitzak gaztelaniaz. Batetik «acción y efecto de verbalizar», hau da, «expresar una idea o un sentimiento por medio de palabras» esan nahi du (*RAE*); eta bestetik «La 'verbalización' es un proceso de formación de palabras que permite la creación de verbos a partir de bases pertenecientes a diversas categorías» (*GDL* 4685). Euskal hiztegiek lehen adieran darabilte inoiz 'berbalizazio' hitza; hemen, hala ere, bistan denez, bigarrean darabilt.

² Deitura horren azpian bai *-RATU* bai *-GANATU* formak sartzen ditut, noski, bai eta *honatu* eta *horratu* bezalakoak ere.

aditzak ‘eskura ekarri’ ez ezik, ‘zerbait lortu’, ‘zerbaitez jabetu’ ere adierazten du. Gehienak, halaz ere, adiera berezia garatu gabe erabiltzen dira: *elkarganatu*, *etxeratu*, *lurreratu*, *oheratu*... Erabilera urriko batzuk ere aipatzen dira inoiz hiztegieta, *corpusetan* agerpen bakanen bat badutelako edo itzulpenak hartara behartzen dituelako.

Baina hiztegieta aipatuak asko izanik ere —OEH-k ehunka batzuk aipatzen ditu—, agerikoa da irekia geratzen dela multzoa, partizipio berriak sortzeko aukera izango baitute betiere hitzuneak. Ez dakit inork inoiz erabilia izango den, baina, horrela ez balitz ere, zergatik ez esan *ohatilaratu*, *oheratu* esaten dugun bezala? Edo *linboratu*, teologo batzuen pozerako, *infernuratu* bezala? Edo *osineratu*, *sumendiratu*, *anteneratu*, *sateliteratu*, *sakelakoratu* eta auskalo zer beste *noratu*?

1.1.2. Gogora daiteke, bigarren, -RATU *partizipioak* gainerako partizipioen joko bera duela: a) denbora edo modua adierazten duten postposizioekin erabiltzen da (*etxeratu orduko*, *kaleratu baino lehen*, *oheratu gabe*, *bururatu ezinik*); b) *nahi izan* eta *behar izan* aditzen objektu izan daiteke (*kaleratu nahi naute*); c) aditz jokatuena adizki nagusia izan daiteke (*etxeratu dira*, *etxeratuko dira*); d) *-z*, *-ta* eta *-ik* atzizkiak, eta baita *-a* mugatzaila ere, har ditzake (*etxeraturuz*, *etxeratuta*, *etxeraturik*, *etxeratua*).³ Horretan, bistan denez, ez du mugarik edo debekurik.

1.1.3. Badu, halaz ere, egitura honek muga bat, guztiz zehatza ez dena, adlatiboaren neurriari eta osaketari dagokiona. Ohiko egitura [[*izen*-RA]-TU] da, izenak aldean izenlagunik, erlatiborik edo adjektiborik aise onartzen ez duelarik; bestela esanda, oinarrian duen adlatiboa —edo honen barruko izen sintagma—⁴ simplea izan ohi da, ez konplexua. *Etixeratuko naiz* esaten dugu aise, ez, ordea, hain erraz ³*iaz ezagutu nituen Bilboko lagun* *etixeratuko naiz*; *oheratu da* bai, baina ez, nik uste, ³*gela nagusiko ohe dotoreratu da*.

Ez da debekurik, hori ez, izen elkartuentzat (*eliz atariratu*, *itsasertzerratu*...), ez eta ‘elkartutzat’ har daitezkeenentzat ere (*azken hatsetaratu*, *beste munduratu*, *mugaz hunaindiratu*, *lagun arteratu*...).

Badira, gainera, aldean genitiboa aukeratu ohi duten izenak, eta horiek genitibo eta guzti erabiltzen dira maiz -RATU *partizipioa* eratzen duen adlatiboan ere. Hona OEH-tik harturiko adibide batzuk: *bere baitharatu*, *zeure gogaratu*, *neronen kaburatu*, *bere lekuratu*, *euren tokiratu*, *bere xederatu*, *alkarren ondoratu*... Eta are:

- (1) a. Bikendiren ondoratu zen (Orixe, *Mireio* 13).
- b. San Makarioren parreratu zenean (B. Joannateguy, *Sainduen bizitza. Lehen zatia*, 63).

Arteratu aditza areago doa, genitibo luzea eraman ohi baitu aurretik:

- (2) a. [...] naikidari arroante aien arteratu zan gudaren kontaera (Bilintx, 165).
- b. eskualde hartako misioneen arteratu zen (*Fedearen Propagacioneco Urtecaria*, 1897: 97).⁵

³ Erabilera horietara mugatuko naiz neure azterketan. Partizipioak izan ditzakeen bestelako erabilez, ikus *EGLU II*, 81-87.

⁴ Konplexutasuna berez izen sintagmari badagokio ere, adlatibo sintagmaren konplexutasunaz mintzatuko naiz, gauzak errazteko.

⁵ OEH-k honela azaltzen du aditz honen ezaugarria: “Verbalización de un sintagma con (-en) *artera*”.

Era berean, *horretaratu* bezalakoek izen sintagma onartzen dute erakuslearen aurrean:

(3) Era txar orretaratuten bazara (J. I. Iztueta, 37r).

Esan daiteke, ordea, adlatibo sinplearen aldeko joera duela -RATU *partizipioak*, salbuespenak salbuespen.

1.2. Adlatiboa partizipioaren lekuan

1.2.1. Gramatikariak ez diote, nire ustez, behar bezalako arreta eskaini adlatiboaren beste 'berbalizazio' honi, -TU gabekoari.

Lafittek aipatzen du. Partizipioaren formaz ari dela, honela dio:

Quelques vieux verbes n'ont pas de suffixe au participe; le participe se confond par conséquent avec l'infinitif radical. Ce sont [...] c) quelques adlatifs employés comme verbes: *athera*, 'sortir' (*athe*, 'porte'); *leihorrera*, 'aborder' (*leihor*, 'terre ferme'); *lurrera*, 'jeter à terre' (*lur*, 'terre'); *zokora*, 'reléguer' (*zoko*, 'coin').

Honako hau erantsiz, hala ere:

REMARQUE: Quelques-uns de ces participes reçoivent cependant chez les auteurs contemporains le suffixe -tu: [...] *atheratu*, 'sortir'; *lurreratu*, 'jeter à terre'; *leihorrenatu*, 'aborder'; *zokoratu*, 'reléguer' (Lafitte 1962: 201).⁶

Aurrerago, berriz, '*Substituts des formes verbales significatives*' direlako ez ari delarik, hau esaten du:

L'adlatif d'un mot exprimant le lieu équivaut souvent à un participe passé, et son génitif en -ko, logiquement, a une valeur de futur. Ex. *hirira zenean*, 'quand il fut arrivé en ville'; *hirirako denean*, 'quand il arrivera en ville'; *norako da*, 'où va-t-il?' (litt.: 'où arrivera-t-il?') (Lafitte 1962: 340).

Ondo esanak daude horiek, noski.⁷ Uste dut, hala ere, adlatiboaren 'berbalizazio' hau aipamen horietan iradokitzen den baino zabalagoa eta ugariagoa dela, -RATU *partizipioarena* bezain zabala ez bada ere.

Teoriaz, hura bezain emankorra izan daitekeela dirudi. *Etxeratu zenean* eta *etxera zenean*, esate baterako, gauza bera adierazteko hiztunak dituen aukera bi dira. Maiztasunen estadistikara jotzen badugu, ordea, berehala ohartzen gara, aukerak aukera eta teoriak teoria, erabilera urriagoa izan duela, eta duela, zeregin honetan -TU gabeko formak. OEH-ri begiratu bat ematea aski da horretaz jabetzeko: dozenaka eta dozenaka dira testuetan -RATU gisako formak besterik ez duten adlatibo berbalizatuak; dozenaka, halaber, agerpen bat edo beste -RA gisakoa izanik ere, gehienak -RATU gisakoak dituztenak.

Baina badira, horien ondoan, -RA motako agerpen bat baino gehiago dituzten 'partizipioak' ere. Hona adibide batzuk: *adinera(tu)*, *argitara(tu)*, *azpira(tu)*, *begietara(tu)*, *belarrietara(tu)*, *burura(tu)*, *elizara(tu)*, *elkargana(tu)*, *eskura(tu)*,

⁶ 'Quelques-uns' dio Lafittek, baina gero, adibideetan, aurreko paragrafoan aipatutako guztiak ematen ditu -TU atzizkiarekin.

⁷ Ikus, halaber, *EGLU I*, 375 eta *AGOB*, 198.

hona(tu), horra(tu), itsasora(tu), kontura(tu), lehorrera(tu), mendera(tu), mundura(tu), nora(tu), zerura(tu) eta *beregana(tu), elkargana(tu)*...⁸

Badira, gainera, garai eta leku jakinetan bederen, agerpen gehienak -RA gi-sakoak izan dituzten aditzak ere, OEH-k aditzera ematen duenez: *infernura(tu), eskuetara(tu), gogora(tu), hara(tu), kanpora(tu), lurrera(tu)*.

Aipamen berezia merezi dute, azkenik, agerpen gehienak horrelakoak dituen *atera* eta, beharbada, zubererako *horra izan* aditzak.

Ikusi batera, -RA 'partizipioaren' erabilerarik usuena aurreko mendeetan dokumentatzen da, testu zaharrenetatik hasita. Orainagoko testuetan, idazkera jasoa landu duten idazleen lanetan ikusten dira horrelakoak. Orixé, Erkiaga, Zaitégi edo Mitxelena aipa daitezke, beharbada, besteen gainetik.

1.2.2. Bigarren ezaugarriari dagokionez ere, gauza bertsua esan daiteke. Partizipioaren leku eta erabilera gehienak bete ditzake -RA formako 'partizipioak' ere, baina -RATU *partizipioak* baino urriago eta desberdinago, halaz guztiz: a) Denbora eta modu postposizioen aurrean usu samar erabili izan da, eta gaur egun ere badarabilgu (*etxera bezain laster, kanpora orduko, adineraz geroz, elkargana gabe, zerura arte...*); b) *nahi izan* eta *behar izan* aditzen objektu ere izan daiteke (*kalera nahi dutenean, basora behar dugu*); c) aditz jokatuén adizki nagusi moduan ere erabiltzen da, -RATU *partizipioa* bezain ugari ez bada ere (*adineraz zenean, beregana ditu, gogora zaidana*); -RAKO forma geroaldikoa ere erabilia izan da eta, hain zuzen ere, hiztegi-gile batzuek —Pouvreaux, esate baterako— sistemaz eratu izan dituzte horrelako formak beren hiztegian, testuen lekukotasuna horren zabala ez bada ere. Hona, dena dela, adibide batzuk:

- (4) a) Jentilen eskuetarako dute (J. Leizarraga, *Testament berria*, 82).
 b) ez da errana ez dudala eskurako (B. Larreguy, *Testament çaharreco eta berrico historia I*, 278).
 c) Norako bait-zara, eta ni ere harako naiz (*Ibid.*, 245).
 d) ez ahal da polizia hunarako (P. Larzabal, *Senperen gertatua*, 114).

d) Ez da, ordea, horren ohikoa atzizkiekin eta, batez ere, -a mugatzailearekin erabiltzea. Adibide batzuk badira -ik atzizkia dutenak (*barnerarik, gaitzerarik, kanporarik, hartararik...*). Ez dirudi, ordea, -z (-z geroz postposizioaz beste) eta -ta atzizkiekin eraturiko formak erabiltzen direnik ([?]*etxeraz*, [?]*etxerata*). Eta mugatzailearekin adibide bakarra aurkitu dut, *atera* aditzari dagokionaz beste, Pouvreaux hiztegi-giko berbatzat daukan *lurrera* 'aditzarena':

- (5) Etsaia ez da lurreraia baizik (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 121).

Atera aditzak, jakina, erabilera horiek guztiak ditu, baita *ater(e)az, aterarik, aterata* eta *aterea / ateraia* ere.

1.2.3. Berezitasunik handiena, halaz ere, hirugarren ezaugarrian dauka -RA 'partizipioak'. Izan ere, oinarrian dagoen adlatibo sintagma konplexua denean, -RA motakoa

⁸ Berbalizazio bien arteko bereizketa partizipioan (*etxeratu / etxera*), geroaldiko forman (*etxeraturiko / etxerako*) eta atzizkidunetan (*etxeraturik / etxerarik*) egin daiteke, aditz izenean (*etxeratze*) eta aditzoizenean (*etxera*) mota bien sinkretismoa gertatzen baita. Hortaz, aldea duten formei erreparaturiko diet nik artikulu honetan.

izateko joera du berbalizazioak. Adlatibo sinpleekin bietara jokutzen du (*etxeratu da / etxera da*), baina konplexuekin -RA soila hobesten du, gorago aipatu ditudan salbuespenak salbuespen. Hona adibide batzuk:

- (6) a. Betsames'ko baten lurrera ziranean (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, 154).
- b. Guraso antziñakoai eskeñitako lur eder aren ateetara ezkerro (*Ibid.*, 93).
- c. bere jauregiko atarira zanean (G. Arrue, *Santa Genovevaren vicitza*, 94).
- d. Erri sonatu artara ziranean (G. Arrue, *Mayetzeco ill*, 196).
- e. itsu haren aldera zenean (B. Joannategi, *Sainduen bicitzea*, 24).

1.3. Laburtuz

Hauek dira, bada, labur bilduta, aipatu berbalizazio bien ezaugarriak: a) biak emankorrek izanik ere, -RA motakoa urriagoa eta desberdinagoa da; b) partizipioaren jokoari dagokionez ere, -RA motak erabilera urriagoa du: atzizkiekin gutxitan edo ia batere erabili gabea da; c) oinarrizko adlatibo sintagmari dagokionez, berriz, -RA 'partizipioaren' erabilera zabalagoa da; izan ere -RATU *partizipioaren* ohiko egitura [[(gen) - izena-RA]-TU] delarik, -RA motakoa hori baino egitura konplexuagoetan ere erabiltzen da.

2. Azalpen saio bat

2.1. Ezaugarri horien oinarria zein den azaltzen hasi baino lehen, komeni da adlatiboaren berbalizazioa bera zertan datzan argitzea.

Adlatiboak, lekua adierazten duenean, helmuga seinalatzen du, ohiko erabileran; mugimendu bat badela suposatzen da, aditzak adierazia, eta adlatiboak mugimendu horren jomuga adierazten du. Hori gertatzen da, konparazio batera, *etxera joan / inguratu / iritsi / sartu / ekarri / eraman...* esaldietan; aditzak mugimendua adierazten du, eta adlatiboak mugimendu horren helmuga.⁹

Modu batera edo bestera berbalizatzen denean, berriz, helmuga ez, baina helmugaren irispena adierazten du adlatiboak, haren lorpena. Eta, hori horrela izanik, perpausak ez du irispena adieraziko duen beste aditzik behar, adlatibo 'berbalizatu' bera aski baita hori adierazteko. Hitz batean esanda, berbalizatuta, helmuga adieraztetik helmugaren irispena adieraztera pasatu da adlatiboa. Lekua adieraztetik gertakaria adieraztera.

Jakina da aditzak ez direla guztiak lexiko-mota edo aspektu berekoak. Kontu konplexua da hori, baina, gauzak erraztuz, esan dezakegu lau motakoak bederen badirela: batzuek *egoera* adierazten dute (*egon, eduki, jakin*); beste batzuek *ariketa* (*aritu, ibili*); beste batzuek *ekintza* (*eraiki, desegin*); eta beste batzuek, azkenik, *lorpena* (*sartu, atera, joan, etorri*).¹⁰ Azken mota honetakoak dira adlatibo berbalizatuak: *lorpen* bat adierazten dute. Gero, aditz jokoaren aspektuek adieraziko dute lorpen hori burututzat ematen den (*etxeratu da, etxera da*), burutugabetzat (*etxeratzen*

⁹ Alde bat uzten ditugu hemen bestelako adiera duten -RA *ohitu / zaleru* eta horrelakoak.

¹⁰ Ikus *GDLE* 3140 eta 2977-3060.

da), etorkizunekotzat (*etxeratuko da*, *etxerako da*), edo are burutu ondoko egoera adierazten duen (*etxeratua da*).

2.2. Berbalizazio hori, bada, bi modutara egin daiteke, aurreko atalean ikusi dugun bezala. Modurik maizkoena —hau da, -TU atzizkiarekin gauzatzen dena— *berbalizazio morfologikoa* edo *lexikoa* deitu dezakegu, atzizki horren bitartez hitz eratorri berria sortzen baita. Atzizkirik gabea, berriz, —hau da, -RA forma soilari dago-kiona—, *berbalizazio sintaktikoa* deitu dezakegu, horretan adlatiboaz ez baita formaz aldatzen; bere horretan geratzen da, eta perpausean betetzen duen lekuak eragiten du haren berbalizazioa; betetzen duen leku horri eskerrak dakigu partizipioaren zeregina bereganatu duela.¹¹

Aditzaren osagarri doanean (*etxera etorri orduko*, *etxera joan behar duzu* edo *etxera joan zenean*, esate baterako), adlatibo soil da; baina partizipioari dagokion lekuan kokatua dagoenean (*etxera orduko*, *etxera behar duzu* edo *etxera zenean*, konparazio batera), haren zeregina betetzen du. Kokatuta dagoen lekuan kokatua dagoelarik, partizipioaren lekua eta zeregina bereganatu ditu horietan adlatiboak.¹²

Ez da zer zalantzan jarri horrelako berbalizazioa, garbi ikusten baita beste aditzik izan gabe ere ‘perpauza’ dagoela horrelakoetan, dagozkion osagai guztiez hornitua. Hona osagai horiek agerian dituzten adibide batzuk (azpimarrak nireak dira):

- (7) a. Goizaldea etorriko da *oiek etxera orduko* (D. Aguirre, *Garoa*, 94).
 b. *arrantzale begi urdiña errira baiño leen*, erabagiren bat artu bear ebala sinistarazi eutsan Zuriñek bere buruari (E. Erkiaga, *Arranegi*, 177).
 c. *Au [olioa] monjak begietara orduko* bere bista osoarekin, S. Luis alabatzen gelditu zan (A. Cardaberaz, *Justuen Ispillu arguia*, 67).

‘Perpauzak’ dira, bada, etzanean emandako horiek, eta ez dute adlatiboaz beste aditzik, adlatiboak berak betetzen baitu, esan bezala, aditzaren —kasu honetan, partizipioaren— lekua.

Adlatiboaz berbalizatzeko bi modu desberdin dira horiek, eta ez dut uste zuzena denik -RA forma -ratu *partizipioaren* aldaera soiltzat hartzea, hartan -TU atzizkiaren elipsia balego bezala. Berbalizazio bakoitzak bere bidea eta bere ezaugarriak ditu. Lehenean, esan bezala, hitz berria eratzen da eta testuingururik gabe emanda ere hiztunak ‘badaki’ hura aditza dela (aipatu hutsarekin ‘daki’, gure adibidean, *etxeratu* partizipioa dela). Bestean, berriz, ez da hitz berririk, hitzak edo sintagmak testuinguru jakin batean bereganatutako zeregin berria baizik; eta testuingururik ematen ez bada,

¹¹ RAE-ren *Diccionario de la lengua española*-tik hartu ditut termino hauek. Ikus «*Nominalizar*. Convertir en nombre o en sintagma nominal una palabra o una porción de discurso cualquiera, mediante algún procedimiento morfológico o sintáctico; p. ej., *goteo* (de *gotear*); *el qué dirán*». ‘Lexikoa’ eta ‘sintaxia’ aipatzen ditu, halaber, *EGLU I*-ek adlatiboaren kontu hau aipatzen duenean: «Ezin utzi daiteke bidenabar bada ere aipatu gabe, hau berez lexikoari dagokion arren, euskarak berebiziko joera duela adlatiboan dagoen edozein forma aditz bihurtzeko; hala nola, “*etxeratu*”, “*eskuratu*” [...]. Halaber diogun ere, hau sintaxiari gehiago dagokion arren, “*ohera zenean*”, “*gogora zitzaidan*”, “*etxera bezain laster*” eta horien antzekoak betidanikoak ditugula euskaraz» (375).

¹² Agerikoa da -RATU formako partizipioa ere partizipioari dagozkion lekuetan kokatzen dela —partizipio guztiak bezala, jakina—, baina haren berbalizazioa ez da kokapen horren bitartez gauzatzen, -TU atzizkiaren bitartez baizik. Berbalizazio sintaktikoan, berriz, kokapena bera da berbalizazioaren eragilea.

bere oinarrizko zeregina datorkio hiztunari gogora (*etxera*, esate baterako, adlatibo gisa ulertuko du, besterik gabe aipatzen zaionean).

Aurreko atalean aipatu ditudan ezaugarri desberdinak ere bakoitzaren izaerak eragindakoak dira. Hala, -RATU gisakoa eratorritako partizipioa denez, honen zeregin guztiak bete ditzake, eta, joeraz, gehiago da hitza sintagma luzea baino; -RA gisakoa, berriz, partizipio berria izan gabe haren zereginak betetzera mugatzen denez, ez ditu zer bete partizipioaren funtzio guzti-guztiak, eta, bestalde, hitz berria eratzen ez duenez, askatasun handiagoa du oinarrian sintagma luzeak izateko.

Aise uler daitekeenez, kokapenaren 'gardentasunak' erraztu egiten du adlatiboaren berbalizazio sintaktikoa. Izan ere, zenbat eta 'gardenago' izan adlatiboak partizipioaren lekua hartu duela, hainbat errazagoa eta egingarriagoa izango da berbalizazioa.

Denbora-postposizioen aurrean zalantzarik gabea da adlatiboak zer leku betetzen duen. Izan ere, kokapen horretan bi aukera besterik ez dago —aditz jokatu alde bat utzita—: edo denbora adierazten duen sintagma bat dago (*bostak baino lehen, gaua orduko, berandu arte*) edo gertakari bat adierazten duen partizipioa dago (*sartu baino lehen, hasi orduko, afaldu arte*). Leku-adlatiboak denbora esanahia ez duenez, guztiz agerikoa da partizipioaren lekua betetzen duela hor. Horregatik erabiltzen dira hain erraz eta usu *eskolara baino lehen, ohera orduko* eta *adinera arte* bezalakoak.

Nahi izan eta *behar izan* aditzekin ere gauza bertsua dugu. Aditz horien objektua —aditz jokatu alde bat utzita hemen ere— edo izen bat da, 'gauzaren' bat, modu orokorrean esanda, adierazten duena (*dirua nahi dut, bakea behar dute*), edo gertakari bat adierazten duen partizipioa (*zina joan nahi dut, atsedean hartu behar dute*). Adlatiboak ezin duenez 'gauza' adierazten duen izena ordezkatu, agerikoa da hemen ere partizipioaren lekuan dagoela (*etxera nahi dut, basora behar dute*).

Aditz jokatuetan, berriz, zenbat eta adizki laguntzaileari lotuago egon, hainbat 'gardenago' izango da adlatiboak partizipioaren lekua betetzen duela eta, hortaz, hainbat egingarriagoa izango da berbalizazioa. Baiezkoetan argia da lotura hori, hala mendekoetan (*atarira denean, barrura zireneko, gogora zaidan, argitara diren liburuak, ederki argitara dutelako*) nola lokabeetan (*pentsamendu bat burura zitzaien, hori begietara zait, bertara da*). Ezezka, ordea, gauzak zertxobait 'zailago' egiten dira, laguntzailearen ondora pasatzen baita partizipioa, harengandik urrunduz maiz, bien lotura horren 'estua' edo 'agerikoa' ez delarik. Eta horrexegatik, partizipioaren ordezkatzeari horren 'garden' ez denez, urriago erabiltzen da berbalizazio sintaktikoa ezezko esaldietan. Ezin erabilia ez da, noski, adizkien arteko 'lotura' ez baita erabat deusezten. Batzuetan aski erraza da, gainera:

- (8) Holakorik etzaitan burura, kaiolan nintzanean (J. B. Elissamburu; ik. A. M. Labayen, *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak* 216).

Mugatzailearekin ez erabiltzea, berriz, adlatiboa zinezko partizipioa ez izatearen ondorio dela esango nuke. Partizipioa adjektibo edo izen egiten da mugatzailea hartzean (*egina, esana, etorria*), eta adlatiboak perpausean partizipioaren lekua bete bai, baina zinez partizipio bilakatu ez denez, ez du urrats hori egiten.

2.3. Gauzak ondo ulertzeko, baina, erabilerak eragiten duen lexikalizazioa ere kontuan izan behar da. Adlatibo jakin bat maiz erabiltzen bada partizipioaren lekuan

eta haren zeregina betez, berez hitz berria ez bada ere, azkenean, erabileraren erabile-raz, lexikalizatu eta funtzio horretan finkaturiko hitz berri bilaka daiteke.

Lexikalizazio mota hau, jakina, ez da zehazten erraza, eskala moduko bat baitugu horretan ere, beste askotan bezala. Gorago esana dut -RA 'partizipio' askok agerpen bakar batzuk baizik ez dutela. Horiek berbalizazio sintaktikoaren lexikalizazioaren mutur batean daude; ia abiatu ere ez direnen multzoa osatzen dute.

Badira, ordea, finkatze bidean urratsak egin dituztenak eta maizkara erabili izan direnak ere, leku eta garai jakin batzuetan bederen. Halakoak dira gorago, OEH-ri jarraituz, aipatu ditudanak: *argitara / argitaratu, azpira / azpiratu, begietara / begietaratu, eskura / eskuratu, kontura / konturatu, mendera / menderatu, mundura / munduratu, zerura / zeruratu, beregana / bereganatu, elkargana / elkarganatu*. Horrelakoak "es especialmente frecuente el participio sin -tu" edo horren antzeko azalpenarekin ematen ditu inoiz OEH-k. Lexikalizatze bidean dira horrelako adlatiboak, edo, zuzenago esan, hala izan dira modu horretan erabili izan diren leku-denboretan, erabateko lexikalizaziora iritsi ez badira ere.

Beste -RA batzuk, areago, forma erabiliena edo ia bakarra izan dira, inoizko -RATU sinonimoa gorabehera. Hona gorago ere aipatu ditudanak, OEH-ren azalpena ondoan dutela:

- *infernura / infenuratu*: "En los primeros testimonios parecé predominar el part. *ifernura*";
- *eskuetaral eskuetaratu*: "La forma de participio es *eskuetara* (futuro *eskuetarako*) hasta la segunda mitad del s. xx —a partir de la cual tbn. se encuentra -tu— en la acepción de 'poner(se) en manos de'; con el significado de 'apropiarse de' hay ejemplos de *eskuetaratu* ya desde finales del s. xix";
- *gogora / gogoratu*: "En los textos septentrionales, hasta la segunda mitad del s. xix se encuentra sobre todo el part. *gogora*";
- *hara / haratu*: "Hay exclusivamente *hara da, harako da* (*harat, harako* en Larreguy) hasta la segunda mitad del s. xix";
- *kanpora / kanporatu*: "en los textos septentrionales la forma de part. *kanpora* parece la más general".

Esan daiteke, bada, adlatibo horiek partizipio gisa lexikalizaturiko formak direla, esandako garai eta lekuetan bederen.

Are lexikalizatuagoak direnak ere badira, ordea. *Horra izan* hala da zubereran. *Lurrera* 'aditzari' sarrera propioa eskaintzen dio Pouvreauk bere hiztegian, gorago esan dudan moduan. Hiztegiako partizipioa zen harentzat *lurrera*, guretzat *atera* den bezala.

Eta, jakina, zenbat eta eginagoa izan lexikalizazioa hainbat eta zabalagoa da 'partizipioaren' erabilera. Horrela, esate baterako, partizipio gisa maiz erabilitako adlatiboek errazago dute -RAKO forma ere hartzea. Forma hori adlatibo askotara zabalitzen dute Povreauren eta Duvoisinin hiztegiek, gorago ere esan dudan moduan; baina, hiztegiek diotena gorabehera, batez ere lexikalizatze bidean aurrera egin dutenak dira, testuen lekukotasunaren arabera, forma hori garatu duten adlatiboak, nahiz ez diren bakarrak: *argitarako, begietarako, eskuetarako, eskuperako, eskurako, harako, honako, infenurako, inorako, kanporako, lurrerako, menerako, norako, paradisurako...*

Eta, era berean, esan dudan bezala lexikalizatu gisa erabili izan den *lurrera* ‘aditzak’ joko zabala dauka, atzizkiekin eta mugatzailearekin erabiltzeraino hedatzen dena:

- (9) a. Bi belaunak lurrerarik (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa I*, 26).
 b. bere belaunak lurrera ta egiten diote [...] adoranz eta agur aundia (S. Mendiburu, *Idazlan Argitaragabeak I*, 159).
 c. Etsaia ez da lurreraia baizik, behar da lehertu (F. Laphitz, *Bi saindu hes-cualdunen bizia*, 121).

Eta gauza bera esan behar da, azkenik, frogarik behar ez duen *atera* partizipioari dagokionez ere.

Azken hauek, bada, *atera* batez ere, lexikalizazioaren beste muturrean daude: berbalizazio sintaktiko izatetik berbalizazio lexiko izatera pasatu dira, erabileraren erabileraz.¹³

3. Amaitzeko

Aurreko mendeetako lekukotasuna aipatu dut maiz aurreko ataletan. Zer esan daiteke, ordea, gaurko erabileraz? Nola erabiltzen dira gaur egun adlatiboaren berbalizazio mota biak? Ahantzi gabe, bestalde, ‘*adlatiboa + aditza*’ egitura ere hor dela (*etxera joan / etorri / sartu / iritsi / ekarri / eraman...*). Hirurak ez dira guztizko sinonimo, bistan da. Lehenbiziko biak bai, ene ustez (*etxera zen* eta *etxeratu zen*, esate baterako). Eta baita hirugarrena ere, aditzak adiera orokorra duenean (*joan* edo *ekarri*, esate baterako); bes-telako aditzek esanahi zehatzagoa eskaintzen dute.

Hirurek ez dute, hala ere, maiztasun bera gaur egungo hitzunen erabileran, eta ez dute izan historian zehar ere. Eta badira horretarako arrazoiak: -RA formako berbalizazioa trinkoagoa da, nahi bada, baina ez da -RATU bezain esplizitua. Hau baino ‘zailagoa’ da, adlatiboak berez esaten ez duena perpausean hartzen duen lekuak adierazi behar baitu; eta ahulagoa ere bai, ez baitu hitz berria eratzen. Horregatik joan da, nik uste, haren erabilera urritzen denborarekin, *atera* guztiz lexikalizatuaren kasuan eta beste kasu jakin batzuetan izan ezik. ‘Esplizitua’ nagusitzen joan zaio ‘trinkoari’, *infurnuratu*, *eskuetaratu*, *gogoratu* eta horien antzekoen azalpenetan ikusi dugun bezala.

Gaur egun, oker ez banago, honako hauetan erabiltzen da batez ere -RA partizipioa: denbora eta modu postposizioetan (*etxera orduko*, *ohera baino lehen*, *elizara gabe*, *burura ezinik...*); *nahi izan* eta *behar izan* aditzen objektu direnean (*kalera nahi dutenean*, *basora behar dute*). Aditz jokatueta ere inoiz-inoiz erabiltzen da, eta errazago gainera hau mendekoa denean; are gutxiagotan etorkizuneko -RAKO forman (*garaiz etxerako naiz*). Hortik landa, gorago esan dudan bezala, euskara ‘jasoaren’ aldekoek darabilte berbalizazio mota hori inoiz, ‘jaso’ izateak ‘zahar’ ukitua ere baduelarik.

Aldiz, guztiz ohikoa da -RATU *partizipio* ‘esplizitua’ erabiltzea (*etxeratu da* guztiz ohikoa dugu, *etxera da* ez bezala). Guztiz emankorra da berbalizazio morfologiko

¹³ Honek argitzen du, beharbada, Lafitteren goiko aipamen bikoitza: -RA batzuk partizipioak dira, lexikalizatuak («employés comme verbes»): *athera*, *leihorrera*, *lurrera*, *zokora* (201); eta beste batzuk, berriak, partizipioaren balioa dutenak, lexikalizatu ez direnak eta berbalizazio sintaktiko soiletik pasatu ez direnak («L’adlatif d’un mot [...] équivaut souvent à un participe passé»): *hirira*, *norako* (340).

hori gaur egun ere. Horrek argitzen du Lafittek goiko aipamenean dioena: -RA formako 'partizipio' guztiek badutela, lehian bezala, -TU atzizkia duen 'sinonimoa'. Lexikalizaturiko *atera* bera ere ez da salbuespen: *ateratu* forma ere erabilia izan da, zenbait euskalkitan, lekuko zaharretik hasita. Esplizituagoa eta, hortaz, 'errazagoa' baita berbalizazio morfologikoa sintaktiko hutsa baino.

Eta adlatibo konplexuen kasuan, berriz —hau da, -TU atzizkia hain erraz onartzen ez dutenetan (*Guraso antziñakoai eskeñitako lur eder aren ateetara ziren bezalakoe-tan*)—, bestelako aditza duten esaldiak ditugu eskura haien 'ordain' (*Guraso antziñakoai eskeñitako lur eder aren ateetara iritsi ziren*).

Azken oharra

Nola islatu daitezke hiztegieta artikulua honetan aztertu ditudan berbalizazio mota biak? Morfologikoarenak ez du zalantzarik: aipatu nahi direnei bere sarrera propioa eskaintzea da biderik onena. Baina -RA gisako berbalizazio sintaktikoa?

OEH-k, gehienetan, -RATU 'sinonimoaren' artikulua barruan aipatzen ditu horrelakoak (*etxera*-ren agerpenak *etxeratu* sarreran, adibidez). Onar daitezkeen jokabidea da hori, jakina, batoren eta bestearen agerpenak begi kolpe batez ikusteko aukera ematen baitu. Horrela egitekotan, ordea, -RA motako agerpenak azpisarrera batean biltzea izango litzateke egokiena, nire ustez, besteak ez bezalakoak direla erakusteko.

Bada, ordea, beste aukera bat ere. Adlatiboaren barruko izenaren sarreran aipa daitezke agerpen horiek —lexikalizatuak salbu—, adlatiboari propio eskaintako azpisarrera batean, 'partizipio balioan' edo horrelako zerbait erantsiz: *etxe* sarreraren barruan 'ETXERA, partizipio balioan' azpisarrera bat ipiniz, adibidez, non haren agerpen guztiak bil daitezkeen (*etxera, etxerako...*). Horren antzeko zerbait egiten du OEH-k berak, bestetan ez bezala, *ohé* hitzari eskaintako sarreran, 'OHERA BAINO LEHEN(AGO)' bezalako azpisarrerak ipiniz.

Bibliografia

AGOB: ikus Hualde-Ortiz de Urbina.

Bosque, I. & V. Demonte, 1999, *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid.

EGLU I: ikus Euskaltzaindia. 1985; EGLU II: ikus Euskaltzaindia 1997.

Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - I*. Iruñea.

—, 1997, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - II*. Bilbo.

GDLE: ikus Bosque & Demonte.

Hualde J. I. & Ortiz de Urbina, J., 2003, *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.

Lafitte, P., 1962, *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Éditions des "Amis du Musée Basque" et "Ikas", Bayonne.

Michelena, L., 1987-, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*, Editorial Desclee de Brouwer & Ediciones Mensajero, Bilbo [OEH].

OEH: ikus Michelena.

RAE: ikus Real Academia Española.

Real Academia Española, 2001, *Diccionario de la lengua española*.

Adibide gisa aipaturiko testuak: Orotariko Euskal Hiztegiaren Testu Corpusa. Euskaltzaindia, Bilbo.

QUANTIFYING COMPOUNDS

Juan Carlos Odriozola Pereira

UPV/EHU

0. Introduction¹

This paper is concerned with N-N sequences where the second nominal item, which is usually understood as the head of the construction, actually instantiates a quantification of the first noun. The word ‘compound’ in the title of this paper is the label used in the bibliography for such sequences in certain languages. Here we focus on Basque N-N sequences in phrases like *bi ogi zati* lit. ‘two bread piece’ (two pieces of bread), *ogi pitin bat* lit. ‘bread bit one/a’ (a bit of bread), *bi mutil multzo* lit. ‘two boy set’ (two sets/groups of boys) and *mutil pilo bat* lit. ‘boy lot one/a’ (a lot of boys).² Depending on the distribution of quantifiers and (other) determiners, these sequences may take a quantifying reading. Hereafter we will be speaking about quantifying N-N sequences, and quantifying and quantified nouns, without regard to whether in each particular case the quantifying reading appears.

Section 1 analyses these sequences from two different points of view: that of X^o level compounds, and that of the general structure of Basque noun phrases. Section 2 explains the distribution of Basque quantifying and quantified nouns in N-N sequences, N-P-N sequences and measure phrases as a starting point for applied linguistics activities such as language processing and languages for special purposes.

1. Are quantifying N-N sequences compounds?

A revision of the bibliography on what constitutes a compound would exceed the scope of this paper.³ Instead, we will review certain criteria concerned with the

¹ This research is supported by grants no. HUM2004-05658-C02-01 and EHU06/16, from which a few examples from Economics and Natural Sciences are taken, respectively. Some general data of Georgian come from the “Basque-Georgian Comparative Morphology” project directed by professor Tamar Makharoblidze of the Tbilisi State University of Georgia. I would like to thank José María Arriola, Xabier Artiagoitia, Xabier Bilbao, Luis Eguren, Edurne Etxebarria, Deanie Johnson and Ainara Ondarra for their valuable comments and suggestions. All errors are, as always, my own.

² In footnotes, data of a pre-IndoEuropean language like Georgian will be compared to data from a pre-IndoEuropean language like Basque. Some data from Germanic languages (English and German) and Romance languages (Catalan and Spanish) will also be provided. Our purpose is to sketch a starting point for research lines within typology, linguistic theory and applied linguistics.

³ The bibliography on several languages (Becker 1993, Buenafuente 2007, Marchand 1960: §II, Lieber 1993, Pérez-Gaztelu et al. 2004, Rainer & Varela 1993) provides some well-known criteria such

Basque quantifying N-N sequences that appear in (1-2) in determiner/quantifier phrases:

- | | | | | | | | | |
|-----|---|-----------------------|-------|--------|---|------------------|-------|-------|
| (1) | a | bi | ogi | zati | b | ogi | pitin | bat |
| | | two | bread | piece | | bread | bit | one/a |
| | | 'two pieces of bread' | | | | 'a bit of bread' | | |
| (2) | a | bi | mutil | multzo | b | mutil | pilo | bat |
| | | two | boy | set | | boy | lot | one/a |
| | | 'two sets of boys' | | | | 'a lot of boys' | | |

It is clear that in (1-2) the second noun instantiates a kind of quantification of the first. Basque is a head-final language provided with postpositions, but neither a postposition nor any other element is needed between the quantified and the quantifying noun, which contrasts with the case of English and the Romance languages. (1-2) pattern apparently with other Basque N-N sequences included in noun phrases of the type of *bi ogi-denda* lit. 'two bread shop' (two bakeries) and *mutil-dantza bat* lit. 'boy dance one/a' (a dance only performed by boys). (1-2) and *ogi-denda* and *mutil-dantza* all have been explored together and taken as dependency compounds in the bibliography, the noun to the right being taken as the syntactic and semantic head of the construction. However, unlike *ogi-denda* or *mutil-dantza*, the sequences in (1-2) almost never appear in dictionaries as lexical entries. Furthermore, the quantifying reading of (1-2) contrasts with non-quantifying readings in sequences like '*bi ogi zatiak*' lit. 'two piece bread-the' (the two pieces of bread), *bi mutil multzoak* 'two boy set-the' (the two sets/groups of boys). Finally, the noun *pitin* 'bit' is not allowed in article-bearing phrases of the type **ogi pitina* lit. 'bread bit-the'. All these data need an analysis that is more sophisticated than the one where a X^0 N-N compound has a left element that depends semantically and syntactically on the lexical element situated to the right.

Section 1.1 explores the thematic/semantic relationships between the two elements, assuming that they are fully nominal. In section 1.2, we leave aside the nominal compound approach and consider instead the functional quantifier characteristics of the nouns to the right in these sequences.

1.1. Relationships between the elements of quantifying N-N sequences

1.1.1. Thematic relationships

The bibliography on English tends to distinguish two main types of compounds: the so-called root compounds like *skyline* and the so-called synthetic compounds like *skyscraper*. Two crucial characteristics are described for synthetic compounds. Marchand (1960: §1.2.3) and Bauer (2001: §4.3.2, §5.2.8, §6.5) emphasize that the noun *scraper* is not exactly derived from the verb *to scrape* and seems to be cre-

as the X^0 level of the whole structure, non-compositional meaning, unspecific reading of the non-head constituent and a stress structure that is different from that of the phrases. Regarding N-N sequences, not all of them are taken as compounds in all the works concerning English, whereas until now all Basque N-N sequences have been taken as compounds. Regarding compounds in general, the fact is that the set of general criteria mentioned above varies notably inter- and intralinguistically.

ated ad hoc as a pseudo-basis for *sky*. Basque has a word formation case that is still clearer (Euskaltzaindia 1987: 44-45, Euskaltzaindia 1991: §25-60): the suffixes *-gin* (cif. *egin* 'to make'), *-gile* (cif. *egin* 'to make', *egile* 'maker') and *-dun* (cif. *duen* 'which has') give rise to *zapatagin* 'shoemaker' (cif. *zapata* 'shoe'), *langile* 'worker' (cif. *lan* 'work'), *bizardun* 'bearded' (cif. *bizar* 'beard'), although *-gin*, *-gile* and *-dun* only function as suffixes in today's Basque. Therefore, the label of 'synthetic' is initially related to sequences that are on the borderline between the compounding and deriving processes,⁴ where the head of the sequence is close to being an affix.

Professor Tamar Makharoblidze (p.c.) reminds us that the term 'synthetic' comes from typology. In the case in hand, typology can be furthered through morphological productivity (Bauer 2001: §1.1, 2.5.), or the exploration of the ability for forming new words. That is, languages can be taken as (more) analytic when they tend to express new notions by means of syntax, and more synthetic when they tend to use word formation. Therefore, *skyscraper* is (taken as) more synthetic than *skyline* because the former is less syntax-like than the latter. Following Marchand, *skyline* (and not *skyscraper*) seems to be the primary compound type that arises from combining two fully independent common nouns.

The other crucial point is that the noun to the left is taken as an argument of the head of synthetic compounds (Bauer 2001, Grimshaw 1990: §3.4, Lieber 1993, Marchand 1960). Let us informally remember that the argument structure framework is based on the idea that some lexical-conceptual features of a given item are necessarily understood at all linguistic levels and tend to need to be expressed either in morphology or in syntax (Grimshaw 1990, Gràcia 1994, Gràcia et al. 2001). Although the bibliography does not speak about the lexical-conceptual requirements of quantifying nouns (Gràcia et al 2000: §1.4.2.6, Pustejovsky 1998:§ 8), argument structure theory is closely related to thematic theory. Outside the strict argument structure framework, thematic relationships between nouns are explored in works that pay attention to what in general has been taken as possessive thematic relationships. In short, Castillo (2001) and Odriozola (2006b) show that in noun pairs such as *ogilzati* and *mutill/multzo*, the fulfilment of the requirements of *zati/multzo* by *ogil/mutil* is almost as obvious that in the case of *sky* and *scrape(r)*.

So from a lexical point of view, what we call a 'quantifying noun' seems to impose a thematic relationship on what we call a 'quantified noun'.

1.1.2. The items in Basque quantifying N-N sequences have a meronymic relationship

The main semantic/syntactic criteria that the bibliography uses to classify Basque N-N sequences has been outlined by Marchand (1960: §2.1.1, §2.1.2, §2.13), who describes a general pattern for English N-N compounds such as *skyline*, where the

⁴ The term 'synthetic' is related to the particular problem of the borderline between composition and derivation in the standard processes of several languages. Gràcia et al. (2001) and Pérez Gaztelu et al. (2004) point out that the Spanish process in *des-* + *grano* 'grain' + *-ar* > *desgranar* 'to thresh' is a parasyntetic process in that **granar* is not available in the Spanish lexicon. Basque counterparts featuring free derived agents and event nouns are also seen as synthetic (Azkarate 1990: 267-285, Pérez et al. 2004).

right constituent *line* is what he calls the *determinatum*, since the compound expresses a kind of *line*, and the left constituent, *sky*, which is the determinandum. The general criteria used in the Basque bibliography is the (lack of a) dependency relationship between the two constituents of the compound. Azkarate (1990), Odrizola & Pérez-Gaztelu (2002), and Pérez-Gaztelu et al. (2004) basically distinguish Basque N_1 - N_2 sequences where N_1 syntactically and semantically depends on N_2 ⁵ from sequences where a dependency between N_1 and N_2 cannot be confirmed.

Semantically, a dependency compound like *itsasgizon* 'seaman' denotes a subclass within the class denoted by the N_2 *gizon* 'man'. Syntactically, the head imposes its categorial features on the compound.⁶ Under this determinatum/determinandum pattern, both root compounds like *skyline* and synthetic compounds like *skyscraper* are dependency compounds. By contrast, both *ogi zati* lit. 'bread piece' and *mutil multzo* lit. 'boy set' clearly differ from Basque root compounds (*itsasgizon* 'seaman') and Basque synthetic compounds (*kale-garbitzaile* lit. 'street cleaner').

The only specification provided for Basque quantifying N-N sequences (Euskaltzaindia 1987: §11.2) is that they are dependency compounds that have a 'special' head or determinatum. One of the main aims of this paper is to show that the concepts of hyponymy and syntactical dependency between nominal elements are not accurate for Basque quantifying N-N sequences. In Catalan, Solé (2002) was interested in determining —simplifying her large set of data and using her terms in a very broad sense— whether a given element expresses a subclass of a collective noun (in a hyponymic relationship) or whether it expresses a part of the collective noun (in a meronymic relationship). Basque quantifying N-N sequences follow two general patterns. In the first, nominal elements like *zati* 'piece' denote a part of (mass collective) nouns like *ogi* 'bread'. In the second, items like *multzo* 'set' express a (collective) whole and quantified nouns like *mutil* 'boy' denote a (countable) part. In both, the relationship between the nouns is not hyponymic. Making a simplification, we assume that all the relationships involved in Basque quantifying N-N sequences are meronymic, unlike what has been described in the literature.

1.2. To what extent quantifying N-N sequences are not compounds

1.2.1. Quantifying nouns and quantifiers

Even if instead of a hyponymic relationship related to compounds we assume that quantifying N-N sequences have a meronymic relationship, the fact of quantification

⁵ The head parameter and the complement/head relationship (that can be seen in both synthetic compounds and quantifying N-N sequences) is rather misleading: a head-initial language such as English patterns with a head-final language like Basque in that both tend to produce right-headed compounds, whereas a head-initial language like Spanish tends to produce left-headed compounds. This is so for each language, whatever the relationship between compound elements. Of course, the two optional positions for modifiers could recover the X' -grammar inside the X^0 -level.

⁶ In sequences with two Ns, no overt imposition of the category of the head can be confirmed. However, Odrizola & Pérez-Gaztelu (2002) note that the dependency can also be checked in the subcategorizations of both nouns: it is obvious that the subcategory of the compound is matched with the subcategory of the head. That is, given that *itsaso* is not human and *gizon* is human, the compound takes the subcategorization features of the constituent that is taken as the head —i.e. from *gizon*.

itself is not very well captured by assuming a pattern of two nominal elements that are considered to be fully lexical.

This section leaves aside that point of view and aims at relating the optional quantifying reading to a different structure having a functional projection headed by a quantifier phrase. This is not a theoretical paper. Instead, our aim is to account for all descriptive data by making some minimal assumptions about both the structural relationships and the functional/lexical nature of the different elements. Briefly, we assume that phrases are headed by a lexical or functional element that takes a phrase as complement. The concept of extended projection captures the fact that every lexical projection is a complement of a functional category. Both the functional head and the lexical head give some or all of their features to the whole (functional) projection. The position of the complement parametrically varies from a head-initial language like English to a head-final language like Basque. Besides the complement, it is a matter of fact that projections may have a specifier place located to the left in all languages and that it is usually occupied by a phrase.

Borer (2005: §6.1., §6.2) points out that the English article *the* can appear both with numerals like *one* or *three* and with weak quantifiers like *few*, whereas the indefinite article *a/an* cannot. Therefore she claims that *a* and *the* compete for being a head that must be projected by taking a complement that can be either a noun phrase or a quantifier phrase. Numerals and weak quantifiers would be heads of their own projection or head/phrases in the specifier of a noun phrase.

Alderatzen baditugu gure gertueneko hiru hizkuntzak, gaztelania, frantsesa, eta euskara, ikusiko dugu frantsesak betetzen duela aurreko paragrafoa azken aukera hori: frantsesetik badira herskariak, badira igurzkariak, baina ez dago fonema afrikaturik. Gaztelaniaz eta euskaraz hiru trabari motak gertatzen dira: herskariak, igurzkariak eta afrikatuak. Lehen kolpean, beraz, frantsesak dirudi desberdin: ez baitugu afrikaturik frantses estandarren fonema paradigmata. Gaztelaniaz eta euskaraz, berriz, bai. Hizkuntza biok berdin jokatu dute, itxuraz, trabari klaseei dagokienez. Gainera, bat datoz unitate batean: gaztelaniaz eta euskaraz /tʃ/ dago (eusk. “tx”, gazt. “ch”).

Euskarak, noski, beste bi afrikatu ere baditu. Beti hartu izan da euskararen txistukari paradigmako aberastasuna hizkuntzaren ezaugarri nabarmenenetakotzat, euskara eta gaztelania konparatzean. Esan bezala, gaztelaniak aipatu berri dugun /tʃ/ du fonema afrikatu bakarra, euskarak hiru dituen bitartean. Etorriko gara berriz ere horretara, eztabaidarako beharko ditugun gai zenbait mahai gainera ekarri ondoren.

3. Hizkuntzak eta bilakabide naturalak

Fonologia Naturalaren (FN) aldetik hizkuntzek fonema bat edo fonema klase bat izatea edo ez izatea bilakabide paradigmatoak izate edo ez izatearekin lotzen da atzeko aurrera: alegia, fonema edo fonema klase gehiago izateko, hizkuntzak bilakabide paradigmatoak gaintu behar ditu, hiztunak erraztasun (natural) fonetikoak gaintu behar ditu, kontraste fonologiko ugariagoak izango baditu. Ohiko adibide erlatiboki ondo aztertutako bokal sudurkariena da. Jakina da fonetikoki bokal

⁵ “(...) the number of affricates and their occurrence is very much restricted (...)” (Jakobson 1968: 91).

sendo, ahoskaeraz eta entzungarrienak bokal ahokariak direla. Horregatik uler daiteke hizkuntzen joera unibertsalak (paradigmak osatzeko bilakabide naturalak, esango genuke) bokal ahokariak ekartzea. Hala ere, hizkuntza batek, arrazoi historikoak medio, bokal sudurkariak ere behar baditu, ontasun fonetiko horri uko egingo dio, hiztunek bilakabide natural hori gaintitzen ikasi beharko dute, joera fonetiko unibertsalei kontra egin beharko diete, baina fonema klase bat gehiago izango dute beren baliabide fonologikoen artean.

Beraz, afrikatuak izateko, bilakabideren bat gaintitu behar izan du hizkuntzak. Afrikatuen kasuan, FNak oraingoz bilakabide jakinik zehaztu ez duenez, oinarrizkoago eta fonetikoki ezbaigabeak diren bokal sudurkari edo trabari ahostuneren sorrera jasotzen duten bilakabideen testuinguruan, Jakobsonen aurkakotasunetara joko dugu, afrikatuak izateko gaintitu behar liratekeen bilakabideak kokatzeko orduan. Bi dira aukerak, hurrenkera honetan ziurrenik: (a) trabariak → herskari; (b) kirrinkaritasuna → jarraitu. Bi joera natural (fonetikoki motibatutako) horien aurka egiten dute afrikatuek eta bilakabide horiek biak gaintitu beharra dago hizkuntza batek afrikatuak izango baditu bere fonema biltegian. Horregatik, afrikatuak izan orduko, hizkuntza batek baditu herskariak (eta igurzakariak).

Besterik da, haatik, trabari palatalen eremuan. Berriz ere Jakobsoni lapurtuz moldeak eta bere inplikazio arau unibertsaletara joaz, esan dezakegu afrikatuek herskariak eskatzen dituztela dioen arauaren salbuespen dela sabaiko ahoskunea. Sabaikariekin, gainerako ahoskuneetan ez bezala, alderantziz gertatzen da: herskari sabaikaria da afrikatua dakarrena, alegia hizkuntza baten fonemen artean herskari sabaikaria aurkitzen bada, afrikatua ere egongo da. Are zehazkiago esanda, hizkuntza batek /c/ (eusk. "tʰ") fonema erabiltzen badu, /tʃ/ (eusk. "tx") ere erabiliko du. Baina ez alderantziz: izan daiteke /tʃ/ bai, baina /c/ ez izatea, esaterako egungo gaztelaniaz edo Eibarko euskaraz jazo ohi den bezala.

Azterketa fonetikoak erakusten du arrazoi morfologiko-anatomikoak direla medio zail gertatzen zaiola gizakion mihiari ahosabaian ahots-bidearen hersketa garbi bat egitea, zailago behintzat hersketa eta estutzea konbinatzea baino, eta badakigu honezkeren hersketa estutzearekin batzetik hots afrikatuak ateratzen direla.

Horregatik guztiagatik ondoriozta dezakegu afrikatu bakarra /tʃ/ duen hizkuntzak ez duela inolako bilakabiderik gaintitu behar izan afrikatu hori izateko. Hemen gure bide eta helburuetatik aterako gintuzketen aukerak medio, hizkuntzak trabari sabaikaria izatea hautatu duenean, /tʃ/ unitatearen bidez amore eman dio aho-sabaian egin daitekeen trabaririk fonetikoki onena aukeratzen duen bilakabideari. Hala bada, gaztelaniazko /tʃ/ bilakabide fonologiko baten fruitu litzateke. Alderantziz euskarazko afrikatuak bilakabide fonologikoak gaintitze edo ukatzearen ondorio lirateke.⁶

4. Euskarazko txistukariaren ahoskune neutralizazioak: lehengoak eta oraingoak

Txistukari apikariaren ("s") eta lepokariaren ("z") arteko nahaste edo neutralizazio erabatekoa salatzen omen dute xvii. mendeko euskal testuek Mitxelenak dioenez

⁶ Baita /c/rik gabeko hizkeretan ere, afrikatuak beren kide txistukariekiko erlaziotik ulertzen diren neurrian. /c/ edukitzea trabari sabaikariak afrikatu izatea eskatzen duen bilakabidearen ukaziotik sortuko litzateke fonema hori duten hizkeretan.

(FHV, 282). Mitxelenak (op. cit.) salatzen du, halaber, nola nahastea gipuzkeraren eremuan ere ari den hedatzen. Apikariaren eta lepokariaren nahaste hori da euskarari buruzko ohiko lanetan autore gehienek aipatzen duten neutralizazioa. Askok aipatu arren, ez dira nondik norako fonetiko-fonologikoak soberan aztertu egundaino eta mereziko luke, errazegi onartu izan baitugu sutsuen behintzat Txillardegik (1980, etab.) egotzi dion jatorria, alegia, inguruko erdaren eragina. Ezaguna denez, neutralizazio hori igurzkarien sailean ez ezik afrikatuenean ere jazo da.

Oraingo baldintza soziologikoetan gaztelaniaren eragina lehen baino bortitzagoa da euskararen. Besteak beste eta oso modu sinplean eragile nagusienak jaso nahian, batetik, lehen baino askoz gehiago dira lehen hizkuntza gaztelania (bakarrik edo euskararekin batera) duten hiztun elebidunak; bestetik, hedabideen eragina inoiz baino indartsuagoa da.⁷

Egoera honetan bi neutralizazio mota berri ari dira indarra hartzen lehengoaren ondoan. Oso interesgarria litzatekeelarik ere ikustea neutralizazio mota desberdinak (lehengoak eta oraingoak) hiztun tipo desberdinekin lerratzen ote diren, horra bideratutako ikerketa sistematikoa behar dugu gutxieneko ondorioak atera aurretik. Ondokoan afrikatuen eremuaz bakarrik arituko gara, hori dugulako hemen aztergai. Nahiz igurzkarietan gauzak aski paralelo izan, badira beste artikulu baterako adina gai emango luketen diferentzia interesgarriak neutralizazioa gauzatzen duen ahoskunean batik bat.

- a) *3 > 1 neutralizazioa*: Erabateko neutralizazioa gertatzen da hiztun zenbaiten ahoskeretan, alegia ahoskune bakarra dute afrikatuen sailean, sabaikaria. Hiztun hauek afrikatu bakarra lukete beren paradigman, gaztelaniak bezala. Gainera, gaztelaniaz duen gauzatze fonetiko bera du fonema afrikatu bakar horrek /tʃ/ (eusk. “tx” gazt. “ch”).⁸

Jaurlearitxa, hertxaina, bezalako ahoskerak dira neutralizazio mota honen emaitza. Ia ziur esan daiteke neutralizazio mota hau euskaraz ez dakitenean artean aurkitzen dela gehienbat, euskarazko hitz afrikatudunak ebakitzen dituztenean. Gerta daiteke halaber euskararen ezagutza eskasa dutenengan. Esan daiteke, *ceteris paribus*, geroago eta ahulagoa euskararen ezagutza, errazago dela erabateko neutralizazio hau egitea. Dena den, oharpen hau inpresio mailatik baieztapen zehatzagoa izatera iritsiko bada, modu sistematikoan aztertu beharko litzateke zein den hizkuntzaren ezagutza orokorraren (neurri hori hartzea bera ez da txantxetako helburua) eta txistukari afrikatuen neutralizazioaren arteko korrelazioa. Alegia, zer esan nahi dugun “euskararen ezagutza eskasa” esaten dugunean. Txistukarien ahoskera, horrela, hizkuntz gaitasuna zehatzago neurtzeko orduan irizpide eta lanabes izan liteke.

⁷ Gaztelaniaren hedatzeaz gain, gogoan hartu behar da euskarazko emanaldiek euskal eredu neutralizatzaileak zabaltzen dituztela, zer bait zabaltzekotan. Hiztun neutralizatzaileek, txistukarien arteko bereizkuntza ikasi ez dutenek, ez dute bereizkuntza egiten duten esatarien erdua jasoko, normalean ez baitute bereizkuntza fonemikoa hautematen.

⁸ Hiztun horien sailkapenerako eta erabiltzen duten paradigma fonologikoaren ezagutzarako ezinbesteko litzateke ikustea ea /c/ (eusk. “t”) fonema baduten edo ez. Ez du asko laguntzen euskaraz /c/ edo [c] unitateek agertzen duten maiztasun urriak eta distribuzio edo banaketa bereziak. Azterketa ziurtatzeko galdeketa bidezko esperimentera litzateke ziurrenik biderik egokiena, hiztunak aski datu eskaintzen ez badigu hizketa librean.

- b) *3 > 2 neutralizazioa*: Bi ahoskune bereizten dira afrikatuen artean, lehenagotik ezagun genuen neutralizazioan bezala, baina oraingoa apikaria eta sabaikaria dituzte beren inbentarioan hitzunek (vs. neutralizazio zaharraren lepokari eta sabaikaria). Honelako ahoskerek salatzen dute lepokariaren ordez apikaria ager daitekeela: *hertsaina, jaurlaritsa*. Ez da erraz esatea zein den hitzunen lekua hitzun-tipologian, baina lan-hipotesi modura aurreratuko nuke nolabait jakinaren gainean-edo dauden hitzunik direla, badakitela nolabait⁹ ez dagoela ongi “tx” ([tʃ]) ahoskatzea “tz” edo “ts” idatzitakoa. Ez da halaber hutsa aurreko esaldian *idatzia* aipatzea. Izan ere, hitzun alfabetatuez eta idatziaren kontzientzia dutenez ari naiz pentsatzen. Gero horiek besterengan izan dezaketen eragina ere aintzat hartzekoa da noski. Nolanahi ere, sabaikaria ez den beste zerbait egiteko ahaleginak zergatik eramaten dituen hitzun batzuk orain apikaria ebakitzera lehengo lepokariaren ordez gertakari sinkroniko eta aldaketa diakroniko interesagarria da. Fonetikarien laguntzarekin landu behar harko dugu gai hau gertakari fonologikoen arazoak bilatu nahi ditugun fonologialariok. Gaztelaniazko txistukari hobikaria apikaria izatea ez da, noski, ahazteko arazoa. Oraingo gaztelaniaren presio bortitzagoarekin ongi lotzen da, gainera, neutralizazioaren aldaketa diakronikoa, baina orduan ezin zaio lehengoa horren erraz egotzi kanpo eraginari. Egia esan, lehen ere afrikatuetan askoz baldarrago moldatzen zen esplikazio hori igurzkarietan baino, euskarren ondoko erdarek ez baitute afrikatu hobikari bakar bat ere.

FNaren ikusmoldean, neutralizazio fonologikoak bilakabideen nagusitzetik sortzen dira. Hori, noski, desberdintasun fonetikoak fonemiko izateko hizkuntzak bilakabideren bat gaintitu behar duela esaten duen hatsarrearen ideia osagarria da besterik gabe. Aipatu berri ditugun txistukarien arteko neutralizazioak, beraz, txistukarien arteko kontrasteek euskal paradigma fonologikoan ezartzen dituzten bilakabide-ukazioen iraulketa besterik ez lirateke. Horrela, bada, txistukarien artean ahoskune desberdinak bereizteko txistukarien ahoskune onena, fonetikoki sendoena zein den¹⁰ agintzen duen bilakabidea hautsi behar bada, txistukari bakarra izan beharrean bi edo hiru izatea lortzeko,¹¹ hiruren ordez birekin edo bakarrarekin moldatzen den sistemara igarotzeko, direlako bilakabide horiei amore eman behar zaie berriz ere. Bilakabide natural, fonetikoki hobetsi horiek nagusitzeko indarra inguruko hizkuntzetatik atera duten edo hizkuntzaren garabideak bakarrik bultzatu dituen beste maila bateko eztabaida da, dudarik gabe gertaeren esplikaziorako beharrezko dena, baina beste bat.

⁹ *Zehazki nola* fonologia teorikoan interesatuoi ihes egin behar ez ligukeen galdera da zalantzarik gabe.

¹⁰ Ahoskune hori zein den ikertzeko irizpide fonetikoak bilatu behar dira; lagungarri dira, bitartean eta baita gero ere, unibertsal fonologikoak, jabekuntzaren datuak eta orain arte modu harroegian linguistika aplikatuzat jo eta fonologia teorikoak zokoratu egin dituen beste zenbait arlotako ikerkuntzak.

¹¹ Puntu honetan txetxekariak ere txistukarien sailean sartu izana ez da agian egoki, baina hori diakronia erlatiboa eta arrazoi fonetikoaren sinkronia ukitzen dituen ikerketa aurreratuegoetarako gelditzen zaigun galdera irekia da oraingoz. Esan nahi da, ziurrenik txetxekarien sorrera (ergo gaintitu diren bilakabide naturalak) sail sabaikariaren sorrerarekin dagoela loturik euskaraz; gero, sinkronikoki, igurzkari eta afrikatu sabaikariak gainerako txistukariekin lerratzea zenbait jokabidetan beste kontu bat da.

Gaztelaniaren eraginaren indarra bere lekuan jartzeko orduan, ondorio lasterregietara jauzi egin beharrean berehala, komeni da gogoan hartzea, neutralizazio “berrien” arteko lehena (a) egiten duten hiztunak kenduta, gaztelania eta euskararen arteko desberdintasun nagusienak tinko dirauela. Izan ere, hots kirrinkariak igurzkari edo jarraitu egiteko joera edo bilakabide unibertsalari gaztelaniak men egiten dio, euskarak berriz ez. Alde horretatik, euskarak igurzkari/afrikatu korrelazioari —hiru edo bi unitate bidez— eusten dion bitartean, gaztelaniaren eraginaren neurri fonologikoa erlatiboa da (adjektibo horren zentzurik txikigarrienean).¹² Gorago proposatu bezala, gaztelaniazko afrikatu bakarra trabari palatalen afrikatu izateko joera unibertsalarekin lotzen da gauzak fonetikoki esplikatu baditugu.

5. Euskal txistukari afrikatuen berreskuragarritasuna edo irakaserraztasuna

Gai praktikoagoetara etorrira, afrikatuek eta, oro har, txistukariak zenbait arazo sortzen dituzte egungo hizkuntzaren erabileran. Estandarraren ahoskera, euskaldun berrien i(ra)kaskuntza edo hedabideetarako eskakizun mailak zehaztean, esaterako, arazoa da zenbateraino den beharrezko txistukari desberdinen ebakera.

Hiztunak (eragile soziologiko, psikologiko, dialektologikoak medio) bere hizkeran ez baditu euskarak inoiz inon izandako bereizkuntzak eta berreskuratu nahi edo behar baditu, zenbait mailatako zailtasunak irekiko zaizkio.

Ahoskera arazoak konpontzeko, hiztun helduen baliabide arruntena ortografia izaten da, baina ortografia ez da beti nahiko lagungarri egitura fonemikoak berre-raikitzeke. Eraginkorren da hiztunak paradigmak baduen unitate bat ahoskaraztea denean helburu; e.g. bokalarteko ttaka (eusk. “r”) ahoskatzen ez duenak nahiko du irakurtzen ikastea. Bestela esan, [sea] *zera* dela ikusteko eta bere hiztegian forma hori osorik sartzeko (*zea* → *zera* berridazteko), aski du forma idatzia ikustea. Behar bezalako irakaskuntza badu, irakatsiko zaio ahoskera zaindian *zera* [sefa] esan behar lukeela, nahiz etxekoekin [sea] esaten segi dezakeen (eta, are, beharko lukeen).

Askoz zailago dira gauzak (hiztun zenbaitentzat guztiz ezinezko agian) ahoskatu beharrekoa hiztunak bere fonema inbentarioan ez dituen unitateen gainean erakitzen bada. Adibidez, txistukari hobikari bien kontrastea bereganatu behar badu (eusk. “s”/“z”) bakarra duenak, ez da forma lexikoen berridazketa bakarrik lortu behar. Hiztunak buruan ez duen hots kontraste bat sartu behar du bere paradigma fonemikoan; belarritz bereizten eta nahi ahala ahoskatzen ikasi behar du. Beste horrenbeste gertatzen zaigu, ingelesezko edo Iparraldeko zenbait hizkeratako hasperenarekin hitz egiten ikasi nahi dugunean. Ikustea besterik ez dago nola frantses hiztunek “h” hori ez duten ahoskatzen eta gaztelania lehen hizkuntza dutenek edo Hegoaldeko euskaradunok [h] → /x/ bilakabidea ezartzen dugun (ing. *how* edo zub. *hau* gazt. *jamón* hitzaren lehenengo kontsonanteaz ahoskatzen ditugularik).

Gorago ikusi dugu ez dagoen kontrasteak bilakabide baten indarra erakusten duela. Hizkuntza batean gertatutako neutralizazioak, galdutako kontrasteak, fonetikoki motibatutako bilakabide baten gailentzea dakar eta horri kontra egiteak,

¹² Neurri *fonologikoa*z (*linguistikoa*z beraz) ari gara. Horrek ez du ezertan txikitzen hizkuntza horren eraginaren indarra alderdi soziologikotik, horrek noski ondorio linguistikoa izan ditzake eta ditu, baina ez nahitaz zuzenean neurri berekoak.

galdutako kontraste hori berreskuratzeke, zailtasun fisikoak gainditu behar direla esan nahi du. Euskal existukarien arteko bereizkuntzak lehentasunen arabera sailkatu behar genituzke, hurrenkera horretan aintzat hartuz gainditu beharreko bilakabidearen oinarrikotasun fonologiko orokorra eta, beraz, hiztunak egin beharko duen ahaleginaren neurria. Galdutako hotsen auzian ez da nahikoa gaztelaniaren eraginaz hitz egitea. Horrek, gainera, berez behintzat, ez du asko lagunduko galdutakoa berreskuratzen.

6. Ondorioak

Esandakoek erakutsi beharko lukete hizkuntza biren arteko konparantzan ez dela nahiko ikustea zein hots unitate edo fonema bereizten dituen batak edo besteak. Gauzak muturrera eramanda, hizkuntza bik fonema bera izateak ere (esate baterako gaztelaniak eta euskarak /tʃ/ izateak) ez duela esan nahi sakonean egituraketa fonologiko bera dutenik —zilegi bazait—, *hots-gramatika* berdin *bideratu* dutenik.

Oraintxe esandakoak estrukturalisten ikuspegia gogoraraziko dio bati baino gehiagori: /tʃ/ ez da /tʃ/, baizik eta hizkuntzaren barrenean osatzen duen kontraste-sarea, hori izango baita /tʃ/ ikurrak laburtzen duen fonemaren tasun bereizle zerrenda finkatuko duena. Zerrenda hori eta, hartara, fonemaren benetako edukia, aldatu egin daiteke hizkuntza edo hizkera batetik bestera hizkuntza bakoitzean fonema horren bidez osa daitezkeen kontrastei jarraiki. Guk hemen, ideia hori bilakabide fonologikoen bidez gauzatzean, zuzenean erantsi ahal izan diogu fonema egituraketari lehentasun fonetikoekiko lotura eta hortik atera daitezkeen ondorioak alderdi diakroniko eta aplikatueta. Azken batean, fonemek ez baitituzte hitzak elkarren artean bereizten bakarrik, osatu ere egiten dituzte, Donegan eta Stampe-k (1979: 129) ozen aldarrikatu bezala:¹³

Distinctive value was the foundation of the structuralists' functional definitions of the phoneme as an oppositive element (Saussure 1949), definable in terms of its distinctive features (Jakobson 1932a, Bloomfield 1933). This relativistic conception of phonemes, which provided a rationale for concentrating just on the differences capable of distinguishing words, is understandably appealing to the linguist confronted by a growing but somehow irrelevant mass of instrumental phonetic detail. But words are not only *distinguished* by sounds, they are *made up* of them. It is no less important that the sounds that constitute words be distinguishable that they be pronounceable, combinable, and perceivable (articulate, audible).

Horregatik kontakizuna ez da agortzen tasunak eta fonemak zerrendatzean, hori ez da nahiko hotsen arteko erlazio dinamiko sinkroniko eta diakronikoak ulertzeko eta, erlazio horien bidez, hizkuntza bakoitzaren sistemaren antolaketa eta berrantolaketa etengabeak.

Izenburura itzuliaz, beraz, kontua da bilakabideak izatea edo ez izatea dela gehien axola duena hizkuntzen sistema fonologikoa finkatzeko orduan, hizkuntza edo

¹³ Etzanak, nireak. Bestalde, esango nuke aipu luze honetan jasotako lerro bakar batek ez duela gaurkotasunik galdu; areago, tresna bidezko datuen arazoari dagokiona bezala, batzuk indartu egin direlakoan nago.

hizkera baten fonologia beste batekin konparatzeko orduan (berdin dio zein testuingurutan edo zein helbururekin: bigarren hizkuntzen ahoskera, edo elebitasunaren arazoak, edo hizkuntz jabekuntzaren hurrenkera, eta abar). Gauzen axalean geratuko gabela besterik gabeko fonema zerrendak egiten baditugu, ikusi gabe delako fonema edo fonema klasea bilakabide natural bati men egiteari edo ukatzeari dagokion, hau da, fonetikoki gauzak erraztetik edo zailtzetik datorren.

Azken batean fonologia fonetikari ordaintzen diona (eta alderantziz) bilakabidetan neurtzen baita: *ceteris paribus* bilakabideren bat gaintzeko ahalegina egin beharko du hizkuntzak (eta hiztunak) unitate fonemiko gehiago izango baditu eskura hitzak osatu eta bereizi ahal izateko orduan, baina unitate fonemiko guztiak ez dira bilakabide baten gaintzetik sortzen, batzuk, hain zuzen ere, bilakabideari, fonetikari amore ematetik baitatzo eta horiek beti dira "errazago". Hizkuntzek zeren arabera, zenbateraino eta noiz arte eusten dioten erraztasunaren tentaldiari fonologiaren aberastasunaren mesedetan oraindik luze, sakon eta zabal ikertu beharko dugu. Ea bitarte horretan Patxi Goenagaren *ez den* azentuari buruzko erronkari ere erantzuten asmatzen dugun.

Bibliografia

- Donegan, P. J., 1993, "Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer", *LTBA* 16:1, 1-43.
- , & D. Stampe, 1979, "The Study of Natural Phonology", In D. A. Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*, IUP, Bloomington, 126-173.
- , & —, 1983, "Rhythm and the Holistic Organization of Language Structure", in J. Richardson et al. (arg.), *Papers from the Parasession on the Interplay of Phonology, Morphology, and Syntax*. CLS, Univ. of Chicago, 337-353.
- , & —, 2004, "Rhythm and the synthetic drift of Munda", in R. Singh (Edit.-in-Chief), *2004 Yearbook of South Asian Languages and Linguistics*, Walter de Gruyter, Berlin/New York, 3-36.
- Dubois, J. eta beste, 1979, *Diccionario de Lingüística*, Alianza Editorial, Madril.
- Hualde, J. I., 1991, *Basque Phonology*, Routledge, London/New York.
- Jakobson, R. & M. Halle, [1956] 1971, "Phonemic patterning", *Fundamentals of Language*, Mouton, The Hague/Paris, 50-66.
- , [1957] 1971, "Typological studies and their contribution to historical comparative linguistics", *Selected Writings I*, Mouton, The Hague/Paris, 523-531.
- , [1939] 1962, "Observations sur le classement phonologique des consonnes", *Selected Writings I*, Mouton, The Hague/Paris, 272-279.
- , 1968, *Child Language, Aphasia and Phonological Universals*, Mouton, The Hague.
- Jauregi, O. & M. L. Oñederra, 2007, "Phonetic and phonemic implications of nasal-sibilant sequences: Spanish vs. Basque", *Phonetics and Phonology of Iberia 2007* Bilzarrean aurkeztua, Braga (Portugal), 23-25.VI.2007.
- Lázaro Carreter, F., [1968] 1987, *Diccionario de términos filológicos*, Gredos, Madril.
- Michelena, L., [1977]1985. *Fonética histórica vasca* (= FHV), Seminario Julio de Urquijo de la Excm. Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián.
- Oñederra, M. L., 2004, *Fonetika Fonologia Hitzez Hitz*, UPV/EHU, Bilbo.

- , & O. Jauregi, 2005, “Fortitive effects of lenitions in an agglutinative language (Basque)”, *Formal, Functional and Typological Perspectives on Discourse and Grammar*, *Societas Linguistica Europaea*-ren 38. Biltzarrean aurkeztua, Valencia, 7-10.IX.2005.
- Txillardegui [J. L. Álvarez Enparantza], 1980, *Euskal Fonologia*, Ediciones Vascas, Donostia.

KAUSATIBO ALDIZKATZEAK EUSKARAZ ETA INGURUKO HIZKUNTZETAN

Javier Ormazabal

UPV/EHU & HITT

1. Sarrera¹

Azken urteotan, argumentu egituraren teoriak aldaketa sakonak jasan ditu, bai eztabaidan dauden hipotesien arteko planteamendu teorikoen aldetik, baita lehian dauden hipotesi hauek besarkatzen duten eremu enpirikoarenetik ere. Urrun gel-ditu dira Hatsarre eta Parametroen lehen urteetan egiten ziren sarrera lexikoak aditz bakoitzeko argumentu zerrenda bat zehazten zutenak kanpo eta barne argumentua-
ren arteko diferentzia sarreran bertan markatuz. Eztabaida horretan, aditz aldizka-
tzeak erdigunean egon diren egiturak dira, eztabaidagai diren proposamenen arteko
desberdintasunak eta hipotesi bakoitzaren besarkadura enpiriko eta eremu teorikoa
zehazteko orduan duten garrantziagatik. Haien artean, (1) adibideko *kausatibo aldiz-
katzeak* eztabaida askotako gaia izan dira:²

¹ Gure belaunaldiko asko perpausaren egituraren labirintoan *Gramatika Bideetan* liburuaren eta bere egilearen eskolen eskutik sartu ginen lehendabiziko aldiz; askok gogoratzen dugu Patxi eskolara bere liburuaren bigarren ediziorako zuzenketekin etortzen zela, edozein gairekin eztabaida sortuz. Eta gutar-
riko batzuek horrez geroztik ez dugu labirintotik ateratzerik izan. Nire kasuan behintzat —eta, ziur naiz,
nire ikaskide batzuen ere— hogeita lau urte hauek Minotauroarena baino gehiago Ithakako bidaia
luzea izan da, “ple d’aventures, ple de conéixences”. Hortaz, nire omenaldi xume hau bihotzez dedika-
tzen diot bidaia horretan abiarazi zidan maisuari.

Lan honen aurreko bertsio bat Euskal Herriko Unibertsitatean ospatu zen *International Workshop in
the Basque Country-European Research Nets in Linguistics- 1st Workshop*-can aurkeztu nuen. Bertan parte
hartu zutenei —batez ere Hamida Demirdache, Luis García eta Brenda Lacari— eskerrak eman nahi
dizkiet euren iruzkinengatik. Eskerrik asko, baita Aritz Irurtzuni eta nire Euskal Morfologia I.M.A.-ko
ikasleei ere, argumentu egiturari buruzko eztabaida sutsu eta emankorregatik.

Honako erakunde hauek HiTT taldearen lan-proiektuei emandako diru-laguntzaren bidez gure
azken urteotako ikerketa lana ahalbidetu dute: UPV-EHU (*Subvención General a Grupos 9/UPV
00114.130-16009/2004*), Eusko Jaurlaritzza (*Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa-taldeak*, IT-210-07),
Eusko Jaurlaritzza (*Humanitateetan Ikerketa Sareak finkatzeko diru-laguntzak 2006* [“A typological study
of the functional architecture of the clause] eta 2007 [“Licensing conditions at the interface”]), Eusko
Jaurlaritzza eta Akitaniako Kontseilua (*La estructura del sintagma nominal en euskera: sintaxis e interpreta-
ción*, UPV-EHU, CNRS-IKER).

² Oyharçabalek (2002) hemen aztertuko dudana fenomeno bera izendatzeko *kausazio aldizkatzea*
erabili zuen. Ikusiko denez, artikulua honetan aldizkatzearen bi aldaeren arteko erlazioa kausazioa ez den
beste zerbait dela proposatzen dudanez, neutroagoa iruditu zaidan *kausatibo aldizkatzea* erabiliko dut,
kausazioaren hipotesi terminoa Oyharçabalek, beste hainbat ikerlariren artean, defenditzen duen hipote-
siari izena emateko utziz.

- (1) a. Maddik edalontzia apurtu du
- b. Edalontzia apurtu da
- (2) a. Norak liburua irakurri du
- b. * Liburua irakurri da
- (3) a. * Maddik liburua heldu du
- b. Liburua heldu da

Artikulu honen helburua eztabaidara ekarpen txiki bat egiten saiatzea da, kausatibo aldizkatzearen izaera eta propietate formalen azterketa eginez. Argudiatuko dut aldizkatzearen (1a)-ko aldaera iragankor kausatiboaren eta (1b)-ko bertsio iragangaitz inkoatiboaren arteko lotura lehenari erreflexibatze eragiketa baten aplikazioaren bidez eratzen dela, eragiketa honek egitura inkoatiboan ere kausari dagokion geruza mantentzen duela erakutsiz.

Hurrengo atalean kausatibo aldizkatzearen oinarrizko propietateak azalduko ditut. Deskribapen horretan oinarriturik, hirugarren atala kausazioaren hipotesiak proposatzen duen ezakusatibotik iragankorrerako deribazioa ezinezkoa dela erakusteari dedikatua dago. Erreflexibatzearen hipotesi alternatiboa labur aurkeztu ondoren, bosgarren atalean zenbait argudio aurkezten ditut aditz inkoatiboek jatorrizko kausatiboaren kausaren geruza mantentzen dutela defendatzeko; hau da, argudiatuko dut Chierchiak (2004) eta Reinhartek (2000) proposatzen dutenaren kontra erreflexibatze eragiketak ez duela kausaren geruza predikatuaren interpretazio inkoatibotik ezabatzen. Artikulua ixteko, etorkizunean ikerketak hartu beharko lukeen biderei buruzko gogoeta labur bat egiten dut, bertan nire iritziz erreflexibatze prozesuaren birformulazio baterako mekanismo formalak nolako propietateak jaso beharko litzkeen planteatuz.

2. Fenomenoa eta bere ezaugarri nagusiak

Deskripzio mailan, aldizkatzea erakusten duten aditzekin hainbat ezaugarri lotu dira literaturan. Kontuan izan behar da oso fenomeno hedatuaz ari garela; hizkuntzetan zehar morfologikoki adierazpen desberdinak izan baditzake ere, aldizkatzea hizkuntzatik hizkuntzara predikatu multzo berean gauzatzen da.³ Fenomenoa aztertu dutenen zerrenda luzea da eta azalpen teorikoetan ez ezik aldizkatzearen oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko unean ere desadostasunak ikusten dira, baina badira ezaugarri batzuk predikatu hauei buruzko lanetan behin eta berriro errepikatzen direnak.

Ezer baino lehen, badago kausatibo aldizkatzearen kausazioa *arazi*-ren bidezko kausatibo morfologikoetatik erabat bereizten duen ezaugarri bat. Oyharcabalengandik (2002) hartutako ondoko adibideek erakusten dutenez, *-arazi* formarekin sortutako kausatibo morfologikoetan kausazioa zeharkakoa den bitartean, hemen aztertzen ari garen kausatibo aldizkatzearen kausazioa beti da zuzena; hortik Pinkerrek

³ Maiz aski aurkitzen ditugu hizkuntzetan aldizkatzean sar zitezkeen arren forma desberdina erakusten duten aditz bikoteak. Askotan, salbuespen hauek historikoki beste mekanismo batzuen bidez sortutako lexikalizazioen ondorioak dira. Hala ere, hutsuneak hutsune, hizkuntzen konparaketak sistematikotasun sendo bat erakutsi du aldizkatzearen eremuari dagokiola.

fenomeno honi jarri zion ‘directedness effect’ izena (ikus, besteak beste, Fodor 1970, Pinker 1989, Dixon 2000, Oyharçabal 2002, 2003 eta bertan aipaturiko erreferentziak):

- (4) a. * Oswaldek tiroz hilarazi zuen Kennedy
- b. Francok tiroz hilarazi zuen Grimau
- (5) a. Oswaldek tiroz hil zuen Kennedy
- b. * Francok tiroz hil zuen Grimau (Oyharçabalen 2002: (5) adibideak)

Gure deskribapena kausatibo lexikoetara murriztuz, aditz hauek badituzte besteengandik bereizteko erabil daitezkeen ezaugarri propioak. Hasteko, aldizkatzean sartzen diren aditz guztiak egoera aldaketa aditzak dira. Lehen adibideko *apurtu-k*, adibidez, jasailearen posizioa betetzen duen argumentuaren egoera aldaketa adierazten du. Are gehiago, askotan aipatu denez, aditz hauetariko asko eta asko bukaerako egoera adierazten duten adjektiboetatik deribatzen dira.

Aldizkatzea erakusten duten aditzen artean multzo desberdinak bereiz daitezke egoera aldaketaren izaeraren arabera: bereiz ditzakegu, adibidez, egoera fisikoaren aldaketa adierazten duten aditzak (6a), egoera psikologikoaren aldaketarenak —Oyharçabalen (2002) terminologian, “psiko-kausatiboak— (6b) eta toki aldaketa aditzak (6c), besteak beste:

- (6) a. *hustu, zikindu, berotu, hautsi, apurtu, urratu*, etab.
- b. *kezkatu, alaitu, beldurtu*, etab.
- c. *hurbildu, bideratu, aurreratu, atzeratu*, etab.

Aurreko guztiek komunean egoera aldaketa adieraztea badute ere, egoera aldaketa aditz guztiek ez dute aldizkatzea gauzatzen. Alde batetik, badira (7) bezalako aditzak, bertsio ezakusatiboa bakarrik onartzen dutenak.⁴ Bestetik, beste muturrean aldaera iragangaitza ez duten (8) bezalako egoera aldaketa aditz iragankorrak daude:

- (7) a. Fruiturik izango duen zuhaitzak aurretik behar du *loratu*
- b. Nire hilobi gainean hasi da *kimatzen* kardua
- (8) a. Buruko ileak eta arpegiko bizarrak orraztu ditu
- b. * Buruko ileak eta arpegiko bizarra orraztu dira

Ikusiko denez, hiru eremu hauen arteko mugek garrantzi berezia dute aldizkatzearen propietateak zehazteko. Maila deskriptibotik aldendu gabe, badirudi bi ezaugarri nagusi direla hiru multzoen arteko bereizketa egiten dutenak eta, oso interesgarria dena, biek kausazioaren propietate bereziekin zerikusi zuzena dutela esan daiteke.

⁴ Hauetariko aditz batzuek —adibidez, *kima(tu)* eta *luma(tu)* aditzek— badute adiera iragankor bat, baina euren interpretazioa ez da inkoatibo/kausatibo alternantziarena. Hau da, *luma(tu)* (ia)-n ez da, inolaz ere, (ib)-ko *luma(tu)*-ren bertsio kausatiboa baizik eta, zerbait izatekotan, bere antonimoa litzatekeenaren kausatiboa:

- (i) a. Zu oraindik, lumatu gabeko txorikume, kabitik irten gabia zera
- b. Oilo hilak lumatzen ari nintzen

Interpretazio aldaketa hori interesgarria bada ere, artikulua honen eremutik oso urrun gelditzen da.

Hiru predikatu mota hauen artean bereziko duen lehen desberdintasuna egoera aldaketa eragiten duen kanpoko *vs.* barneko kausazioaren kontzeptua da.⁵ Adibidez, landareen berezko propietatea da heltzen zaien urtarotan kimatzen direla. Kontrara, *ireki*, *hausi* edo *jantzi* predikatuek adierazten duten gertaerek —edo, hobeto esanda, egoera aldaketek— gure mundua kontzeptualizatzeko moduan kanpoko kausa bat behar dute, ekintza ahalbidetzen duen norbait edo zerbait, kausa-ondorio kate zuzena eraikiz. Barneko kausazkotzat kontzeptualizatzen diren aditzak irangangaitzen multzoan gramatikalizatzen dira eta ez dira kausatibo aldizkatzean sartzen:⁶

- (9) a. *irakin*, *loratu*, *kimatu*, etab.
b. *flakatu*, *loditu*, *argaldu*, *zabaldu*⁷

Bestalde, iragankorrek diren egoera aldaketa aditzen arteko bereizketa ere kausazioaren beste ezaugarri baten arabera egiten da. Kausatibo aldizkatzeko aditzen kanpo argumentua bertsio iragankorrean —hau da, egoera aldaketaren kausa— semantikoki oso espektro zabalekoa izan daiteke. Propietate hau nabaria da aditz hauek aldizkatzean parte hartzen ez duten egoera aldaketa aditzekin zein beste aditz iragankorrekin alderatzen ditugunean. Hortaz, (10) eta (11)-ko adibide-multzoko aditzen kanpo argumentuaren eremu tematikoa murriztua den bitartean, kausatibo aldizkatzean aditz iragankorren kanpo argumentua EGILEA izan daiteke (12a), BITARTEKOA (12b), GERTAERA bat (12c) eta, oro har, KAUSA zentzu zabal eta lausoenean adieraz dezakeen edozein argumentu mota:⁸

⁵ Beherago ikusiko dugunez (ikus hurrengo oharra eta hirugarren ataleko eztabaida), hiztunek predikatuak multzo batean edo bestean kokatzeko irizpide bat erabiltzeak ez du derrigorrez esan nahi predikatuen ezaugarri horrek euren egitura lexiko edo sintaktikoan isla zuzena izan behar duenik.

⁶ Testuan behin eta berriro azpimarratzen den bezala, kontuan izan behar da gure eredu teorikoan axola zaigun ezaugarria ez dela “mundu errealean gertakariak duen kausazioa” horrelakorik balitz, bai-zik eta guk, gizakiok, kausazio hori nola gauzatzen dugun hizkuntza mailan (Levin eta Rappaport-Hovav (=L&RH) 1995, Rappaport-Hovav eta Levin 1998, Lidz 1999, 2001, Reinhart 2002, Mendikoetxea 2007, Koontz-Gardonen 2007a,b, eta bertako erreferentziak). Adibide bat jartzeagatik, imajina dezagun guk uste dugunaren kontra landareei lore bat sortzen zaien bakoitzean benetan gertatzen dena honako hau dela: bere gainean lore bat daraman animalia mikroskopiko bat sartzen dela landarearen barrutik, egoera egokia denean lore hau landarearen zulo batetik kanporatuz; hau da, animaliarekin ekintza eta loratze gertakariaren artean kausazio kate zuzena, eta ez zirkunstanziala, dagoela eta praktikan animalia dela “landarea loratzen duena”. “Mundu fisikoan” horrela gertatuko balitz ere, guk ekintza bestela kontzeptualizatzen jarraitzen badugu loratze prozesua orain arte bezala landarearen barne-propietate bat dela pentsatuz, guretzat aditzak jarraituko du barne-kausua multzokoa izaten. Aldi berean, interesgarria da ohartzea euskaraz *loratu* iragankorra existitzen ez bada ere, goiko testuinguruan erabili dudan bertsio iragankorra ez zaiela hiztunei horren bitxia egiten “loratze” gertakaria bertan ematen den modura interpretatzeko eskatzen zaienean, interpretazio hori ariketa mental bat besterik ez bada ere.

Hizkuntza naturalean kausa kontzeptualizatzeko prozesuak duen konplexutasuna kontuan izanik, espero daitekeena da barneko kausaren gramatikalizazioan hizkuntzen arteko diferentziak aurkitzea eta hori da, hain zuzen ere, aurkitzen duguna; ikus Mendikoetxearen (1999: 1598-1605) eztabaida eta hizkuntzen arteko desberdintasunak erakusten dituzten adibideak.

⁷ Konparatu frantsesaren laguntzailearen erabilera “l’enfant a grandi/maigri vite” egituretan euskara-
ren “umea luzatu/handitu/flakatu/koskortu da” bezalakoekin.

⁸ Hizkuntzalari askok argudiatu dute aldizkatze aditzen interpretazioaren fokua egoera aldaketan bertan jartzen dela, ziurrenik, predikatu mota hauen kausaren malgutasuna ezaugarri horrekin lotuta dagoela, egoera aldaketa horretara nola heldu den zehaztu gabe gelditzen delarik (“spontaneous” edo “non-volitional” causation aipatu izan dira literaturan, baina ez dirudi termino hauek egokiak direnik, murriz-

- (10) a. Bozeramaileak komunikatua irakurri zuen
 b. * Teletipoak komunikatua irakurri zuen (teletipoa ≠ egilea)
 c. * Gerra egoerak komunikatua irakurri zuen
- (11) a. Aitak umea jantzi zuen
 b. * Soineko urdinak neska jantzi zuen
 c. * Gaueko dantzaldiak gazteak jantzi zituen
- (12) a. Norak atea ireki/itxi zuen;
 b. Giltzak atea ireki/itxi zuen; azken tiroak hil zuen
 c. Haize kolpe batek atea ireki/itxi zuen; gaixotasunak hil zuen
 d. Erabakiak hauteskundeetan aurkezteko gelditzen ziren azken zirrikituak itxi ditu
 e. Prezioen jaitsierak nazioarteko turismoari atea ireki dizkio

Laburbilduz, (i) barneko kausako egoera aldaketaren adierazle gisa hartzen ditugun aditzak (adibidez, *kima(tu)*) iragangaitzak dira, euskaraz gehienetan ezakusatiboak, eta ez dira aldizkatzean sartzen. Kanpoko kausa duten egoera aldaketa aditzak, euren aldetik, bi multzotan bereizten dira: (iia) egoera aldaketaren kausa nahitaez egilea duten aditzak iragankorrak dira, hauek ere aldizkatzetik at gelditzen direlarik; (iib) kausazioa zentzu lauso eta zabal batean onartzen duten aditz guztiek, berriz, iragankor/iragangaitz alternantzian sartzeko multzo naturala osatzen dute. Horretaz aparte, badira bestelako aditz iragankor eta iragangaitzak, hiru multzo hauetan sartu ez izateaz gain kausatibo aldizkatzean parte hartzen ez dutenak.

3. Kausatibo aldizkatzeen norabidea

3.1. Kausazioaren hipotesia

Kausatibo aldizkatzeen analisi klasikoa, *kausazioaren hipotesia* deituko dudana, aditzaren bertsio inkoatibotik abiatzen da, aldaera kausatiboa honetatik deribatuz.⁹ Hipotesiak badu bere logika, analisi hauen irudikapen semantikoa aditz inkoatiboaren egitura sinpleagoa ez ezik egitura kausatiboaren azpi-egitura bat delako. Semantika lexikoaren formalizazio klasikoak argi uzten du propietate hau bi egiturek egoera aldaketa komunean dutelako, aditz iragankorra lortzeko aditz iragangaitz ez-akusatiboaren egituraren gainetik geruza kausatibo bat gehitzea besterik egin behar ez zaiolarik:

- (13) a. Predikatu inkoatiboa: λx [*BIHURTU* <*EGOERA*> (x)]
 b. Predikatu kausatiboa: $\lambda x \lambda y$ [*y ARAZI* [*BIHURTU* <*EGOERA*>(x)]]


tuegiak direlako; eztabaidarako ikus, besteak beste, Hale eta Keyser (1993), (2003), L&RH (1995), Reinhart (2000), (2002), Koontz-Garboden 2007a,b eta bertako erreferentziak). Ikusi, bestalde, Chierchia (2004) bere artikulu klasikoaren argitalpenari egiten dion eranskinean aurkezten duen eztabaida interesgarria kausa posizioan irudikatzen duen gertaerari buruz.

⁹ Ikus Dowty (1979), Jackendoff (1990), Pesetsky (1995), besteak beste. "Neo-konstruksionismo"-aren barruan ere ideia honen zuzperraldi bat egon da: ikus, besteak beste, Arad (2003), Pyllkänen (2002), Oyarçabal (2002, 2003), Ramchand (2006) Folli eta Harley (2007) eta bertako erreferentziak.

Adibidez, (14a) bezalako esaldi baten interpretazioa, *zikin(du)* aditzaren (14b) egitura lexiko-kontzeptualaren gainean eraikia, “lurra egoeraz aldatu da, (*ez-zikin* egotetik) *zikin* egotera bihurtuz” litzateke. Bertsio iragankorrean, berriz, kausa adieraziko lukeen geruza bat gehiago gence predikatuaren egitura lexiko-kontzeptualean (EL-K-n), horren argumentu posizioa sintaxiko subjektu iragankorrak beteko lukeelarik (15b):

- (14) a. lurra zikindu da
 b. *zikin(du)* predikatu iragantzaizaren EL-K: λx [*BIHURTU* [*ZIKIN*(x)]]
- (15) a. Kamioiak lurra zikindu du
 b. *zikin(du)* iragankorraren EL-K: $\lambda x \lambda y$ [*y* *ARAZI* [*BIHURTU* [*ZIKIN*(x)]]]

Halaber, analisi horren berreinterpretazio “konstrukzionista” berriek (ikus azken oharra) desberdintasun nagusi bera onartzen dute, honi izaera sintaktikoa emanez. Analisi hauek aditz iragangaitza —egitura sinplea— islatuko lukeen sintaxi-egituraren gainetik proiektzio bat proposatzen dute beste zeregin desberdinen artean kausaren islada sintaktikoa emango ligukeena. Adibidez, Oyharçabalek (2002, 2003), Pykkänen-en proposamen bati atxikiz, (16a) iragangaitzaren egitura bere baitan hartzen duen (16b) aditz iragankorraren egitura proposatzen du, non *Boz* ardatzaren proiektzioan aditz hauen kausazioa eta kanpo argumentuaren propietateak datzaten:¹⁰



Berriz ere, analisi hauek aditz iragankorraren perpaus egitura aditz iragangaitzaren egituraren gainean eraikitzen dute, egitura konplexua sortzeko gehitzen den geruza beste propietateaz gain kausazioarekin lotuz. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, argudio enpiriko eta teoriko sendoak daude aditz inkoatibo eta kausatiboaren arteko erlazioa hemen eztabaidatutako norabidean eraiki ezin daitezkeela erakusten dutenak. Garrantzitsua da ohartzea argumentu hauek guztiak jotzen dutena ez dela analisi bat edo bestea; argudioek zalantzan jartzen dutena aipaturiko analisisiek guztiak komunean duten oinarrizko abiapuntuaren beraren egokitasuna da.

3.2. Zergatik kausazioaren hipotesia ezin daitekeen zuzena izan

Esan bezala, kausazioaren hipotesiak bere logika du: onartzen badugu aditzaren interpretazio kausatiboa bere kide inkoatiboaren interpretazio osoaren gehi kau-

¹⁰ Eztabaidatzen ari garen arazoarekin zerikusi zuzenik ez duten zehaztasun zenbait sinplifikatu ditut AS-barneko egituran.

sazioaren konbinaketa bat dela, hipotesi sinpleena konbinaketa hori bera eragiketa baten bidez jasotzea da, eragiketa hori sintaktikoa edo lexikoa —teoria bakoitzaren beste oinarrien arabera— izan daitekeelarik. Arazoa da hipotesi sinple hori ez dabilela; alde batetik ebidentzia empirikoek aldizkatzearen norabidea kontrakoa dela dioskutelako; bigarrenik, beste predikatuekin batera analizatzen ditugunean elkarren arteko banaketa oker ateratzen delako, jabe-kuntzarako ere arazo larriak sortuz; eta, azken finean, hurrengo ataletan defendatuko dudanez, oinarritzko aldarrikapena —inkoatiboaren sinpletasun sintaktiko eta semantikoa— erabat oker dagoela pentsatzeko arrazoiak daudelako.

3.2.1. *Distribuzioa, mekanismo teleologikoak eta jabe-kuntza*

Aditz ezakusatiboen multzoa ez da multzo batu bat —dudarik gabe, Perlmutterren (1978) eta Burzioren (1986) analisisiek iradoki nahi zutena baino askoz multzo anitzagoa da— eta bertan jatorri desberdineko predikatuak elkartzen dira. Izate eta gertatze aditzez, mugimendu aditzez eta aditz aspektualez gain,¹¹ egoera aldaketa adierazten duten aditz irangangaitzen artean ere bi multzo bereiz ditzakegu: predikatuaren kontzeptualizazioan egoera aldaketa sortzen duen kausa barnekoa, berezkoa, balute bezala interpretatzen direnak alde batetik, eta egoera aldaketa gertatzeko kanpoko kausa bat behar duten predikatuen multzoan sartzen direnak bestetik. Lehendabizikoak euskaraz (*loratu*, *kimatu*, *koskortu*, eta abar) ezakusatiboak dira gehienbat, eta ez dute aldizkatzean parte hartzen; bigarrenak kausatibo aldizkatzean sartzen direnak dira. Lehenbizikoei buruz onarpen estandarra da barneko kausa ez dutela gramatikalki gauzatzeko, *koskor(tu)*-rako (17b)-n ematen dudana EL-K bezalako egitura izanik.¹² Kausatibo aldizkatzean aditz inkoatiboa hipotesiz kausaziorik gabekoa denez, bere EL-Kk egoera aldaketari dagokion informazioa jasotzen du, (18b)-n bezala:

- (17) a. Umea koskortu da
 b. *Koskor(tu)* predikatu iragantzaizaren EL-K: λx [*BIHURTU* [*KOSKOR*(x)]]
- (18) a. Lurra zikindu da
 b. *zikin(du)* predikatu iragantzaizaren EL-K: λx [*BIHURTU* [*ZIKIN*(x)]]

Ikusten denez, aldagaia kenduta (17b) eta (18b) berdinak izanik, ez dago modurik estrukturalki bereizteko zeintzu diren kausazioa jasoko duten aditzak eta zeintzu ez, beste mekanismo *ad hoc* bat gehitzen ez badugu behintzat. Beraz, ezakusatiboen

¹¹ Aditz irangangaitzen sailkapen desberdinetarako ikusi, besteak beste, Levin (1993), L&RH (1995), Mendikoetxea (2004), Etxepare (2003), Aldezabal *et al.* (2004), Oyharçabal (2002, 2003) eta bertako erreferentziak. Izate eta gertatze/agertze aditzak ezakusatiboak dira:

- (i) a. Sorginak existitzen dira
 b. Ezuste bat gertatu da

Batzuetan diadikoak izan daitezke, baina bi partaideak barne argumentuak dira. Bestalde, aditz aspektualen artean, azpimultzo bat (*saiatu*, *ari*, *hasi*, baina ez *bukatu*, *jarraitu*, *ekin*, *utzi* edo *ihardun*) ezakusatiboen taldean kokatzen da euskaraz.

¹² Atal honetan semantika lexikoaren notazioa jarraituko badut ere, argumentu osoa aplikatu dakieke *mutatis mutandis* aipaturiko analisi sintaktikoei.

multzoaren aniztasun hau kontuan izanik, multzo honetatik abiatzen bagara kausatibo aldizkatzearen xede-multzoa era oinarrituan zehazteko, beti izango dira arazoak, eta ondorioz jabekuntzarako saihestezinezko arazoak sortuko dira.

Ez hori bakarrik, kanpoko kausa duten predikatuen multzoa ere bitan banatzen denez, kausazioaren hipotesiak espektroaren beste muturrean ere arazoak sortzen ditu. Alde batetik iragankorren multzoa dugu (*jantzi*, *orraztu*, etab.), eta bestetik aldizkatzean sartzen direnak, hipotesiz jatorri ezakusatiboa luketenak (*hautsi*, *itxi*, *sartu*, etab.). Salbuespen lexikoak albo batera utzirik, badago irizpide bat —kanpoko kausaren izaera— bi aditz mota hauen artean bereizten duena, predikatu bakoitzeko zein multzotan kokatuko den erabakitzea erraza eginez. (19)-(20)-an errepikatzen ditudan goiko adibide multzoen kontrasteak portaera diferentzia hori erakusten du:

- (19) a. Aitak umea jantzi zuen
 b. * Soineko urdinak neska jantzi zuen
 c. * Gaueko dantzaldiak gazteak jantzi zituen
- (20) a. Norak atea ireki/itxi zuen
 b. Giltzak atea ireki/itxi zuen; azken tiroak hil zuen
 c. Haize kolpe batek atea ireki/ixi zuen; gaixotasunak hil zuen
 d. Erabakiak hauteskundeetan aurkezteko gelditzen ziren azken zirrikituak itxi ditu
 e. Prezioen jeitsierak nazioarteko turismoari ateak ireki dizkio

Kanpoko kausa hori “erabateko egilea” bada, aditza iragankorra izango da, (21b)-ko egitura bakarra izanik; predikatuaren egoera-aldaketaren kausa zabalagoa bada eta zentzu orokor eta malguan har badaiteke, aditza, hipotesiz, iragangaitzen artean kokatuko litzateke, goiko (18b)ko egitura izanik:

- (21) a. Aitak umea jantzi zuen
 b. *jantzi* aditzaren EL-K: $\lambda x \lambda y$ [y *ARAZI* [*BIHURTU* [*JANTZIA* (x)]]]

Baina kontuan izan ondorio honek baduela bigarren buelta bat. Hauetariko aditzen zati bat ezakusatiboen artean sailkatzerakoan, euren kausaren propietateen arabera egiten dugu diferentzia, nahiz eta gero egiturak, (20)koa bezalakoak, kausarik ez duen adierazten. Hau da, kanpo kausa erabiltzen dugu aditza definitzekoan, bere esanahiaren parte bat delako, baina gero horrek ez du isladarik bere egitura lexikoan. Hau, berez, ez litzateke kontraesan bat izango; (17b)-ko egiturak, adibidez, ez du barneko kausa jasotzen, nahiz eta *kimatu* edo *koskortu* aditzak iragangaitzen artean kokatzeko erabiltzen den irizpide nagusia barne kausa den (ikus 7. oharreko eztabaida eta bertan aipaturiko erreferentziak). Baina, barneko kausa duten aditzekin ez bezala, ezakusatiboen artean sailkatzen ditugun kausatibo aldizkatzeko predikatuek bertsio iragankorra izaten bukatuko dute, kausazio eragiketaren bidez sortuko duguna. Hau da, amaieran, kausazio eragiketan definitzeko erabiltzen dugun baina estrukturaliki jasotzen ez dugun predikatuaren KAUSA hori berreskuratu beharko dugu (20)-ko bertsio iragankorra sortu ahal izateko:

- (22) a. Kamioiak lurra zikindu du
 b. *zikin(du)* iragankorraren EL-K: $\lambda x \lambda y$ [y *ARAZI* [*BIHURTU* [*ZIKIN* (x)]]]

Eta irudi honetan, kanpoko kausa duten egoera aldaketa predikatu guztiek bukatzen dute egitura iragankor komun bat jasotzen, baina horietariko baten oinarritzko forma den bitartean, bestera ailegatzeko mekanismo teleologiko susmagarriak erabili behar izan ditugu.

Laburbilduz, kausazioaren hipotesitik abiatuez gero, kausatibo aldizkatzean sartzen diren predikatuak era oinarritu batean zehazteko aukera galtzen dugu, predikatu hauen jabekuntza prozesua guztiz aleatorioa edo *ad hoc* dela ondorioztatuz, eta gainera estrategia teleologikoak, zirkularrak ez badira, proposatu behar ditugu. Interesgarria da ohartaraztea bi arazoak aldizkatze kausatiboa azaltzeko KAUSA-ri dagokion geruzarik ez duen aldaera inkoatibo batetik abiatzetik datozela, aldi berean egoera-aldaketa aditzen arteko banaketa hirukoitzak geruza horren propietateekin erlazio zuzena mantentzen duenean.

Berriz, hasiera puntua egitura kausatiboa bada, arazoa murriztu egiten da zeharo. Lehen atalean deskribatutako irudia gogoratzuz, badirudi interesatzen zaigun banaketa bi irizpide hauen arabera egiten dela: (i) kanpoko vs. barneko kausaren desberdintasunak irudikapen lexiko-semantikokoan edo sintaktikoan predikatua diadikoa ala monadikoa —hau da, iragankorra ala iragangaitza— izango den markatzen du. Horren arabera, kanpoko kausazko predikatu guztiak iragankorrak izango dira oinarrian, euren egiturak kausari dagokion irudikapen estrukturala jasoz; (ii) Kanpoko kausa duen egoera aldaketa predikatutzat hartzen diren hauen artean, KAUSA, zentzu zaballean, vs. EGILEA (ekintzak ezinbesteko borondate/bizitasun maila bat duen partaide bat) diferentziak predikatua kausatibo/inkoatibo aldizkatzean sartzen den ala bakarrik bertsio iragankorra duen markatzen digu.¹³

3.2.2. Hautapen ezaugarriak

Orohar, kausatibo/inkoatibo bikoteen hautapen semantikoei begiratzen badiegu, egoera gehienetan bi aldaerek komuneko murriztapenak erakusten dituzte, batak onartzen dituen objektuak bestearen subjektuak izan daitezkeelarik. Adibide bat jartzeagatik, *hautsi* edo *urra(tu)* aditz iragangaitzak onar ditzakeen subjektu guztiak aditzaren bertsio iragankorraren objektu zuzenak izan daitezke, eta batean onartzen ez direnak bestean ere ezin daitezke osagarri posizioan agertu:¹⁴

¹³ Reinhartek, Levin eta Rappaport-en *barne-kausaren* kontzeptuaren kontra argudiatzeko honen islada lexikoaren eza azpimarratzen du, baina ez dago arrazoirik gure sistema linguistikoak kontzeptu baten ezaugarri guztiak, gizakiarentzat kontzeptua bereizten dituenak, kontzeptuaren lexikalizazioan edo gramatikalizazioan islatu behar dituela asumitzeko. Izan ere, hori da funtzionalismo lexikoak eta, hein handi batean, lehen deskonposizio semantikoek zuten oinarritzko arazoa, ez zutela mekanismo bat inkorporatzen une batetik aurrera deskonposizioa bera gelditzeko gai zenik. Gauza bat da irizpide bat erabilteza kontzeptu mailan gertakarien arteko sailkapena egiteko eta beste bat, zeharo desberdina, irizpide horrek egiturari islada izan behar izatea. Adibide gisa, L&RH-en nahastua dagoela badirudi ere, barne-kausazioak ez du inolako isladarik predikatuen ELK-n eta, ondorioz, ez du eragin zuzenik izango egiturari, baina badu eragina predikatu bat multzo batean edo bestean sailkatzeko unean. Praktikan, gurea bezalako gramatika eredu batean, horrek esan nahi du gizakiok *kima(tu)* bezalako aditz baten kontzeptuan barne-kausaa badagoela interpretatzen badugu ere, barneko kausa horrek ez duela isladarik gure gramatikari, ez lexikoari edo sintaxi-egiturari ezta interpretazio semantikokoari ere.

¹⁴ Hitzunen artean desberdintasunak egon daitezke aditz hauen interpretazioari begira, batez ere *hautsiren* kasuan. Zenbait hiztunentzat esanahi fiabardurak dituzte aplikatzen dakiekeen objektuen izaeraren aldetik;

- (23) a. *Edalontzia/*irratia/papera/jantzia urratu da
 b. Peruk *edalontzia/*irratia/papera/jantzia urratu du
 (24) a. Edalontzia/irratia/(*)papera/(*)jantzia hautsi da
 b. Peruk edalontzia/irratia/(*)papera/(*)jantzia hautsi du

Aurrekoa egoera arrunta bada ere, badira, hala ere, zenbait kasu non bi aditzen arteko desberdintasunak aurki daitezkeen, aditza bere adiera figuratuan erabiltzen denean. Interesgarria da kasu hauetan guztietan bertsio iragankorraren hedadura zabalagoa dela aditz iragangaitzarena baino (ikus L&RH 1995: 84-5 orrialdeak eta bertako erreferentziak):

- (25) a. Mirenenek hitza/kontratua/munduko errekorra hautsi du
 a'. Mirenek legea/ixiltasuna urratu zuen
 b. * Hitza/kontratua/munduko errekorra hautsi da
 b'. * Legea/ixiltasuna urratu zen

Aditz iragankorraren egitura deribatzeke aditz iragangaitzetatik abiatuko bagina, aditz iragankor eratorri horren aukera guztiek euren oinarritzko egitura iragangaitzean ere egon beharko lukete. (25) bezalako adibideek hori horrela ez dela erakusten dutenez, egitura hauen hutsunearen beste azalpenik ezean inkoatibotik kausatiborako deribazioa ezin daiteke egokia izan.

Hori guztia kontuan izanik, bi aukera gelditzen zaizkigu printzipioz aditz hauen arteko erlazioa aztertzeke: edo ukatzen dugu bien arteko historia deribazionala dagoenik (Marantzek 1984, adibidez, kausatibo-inkoatiboaren arteko erlazio erregularrarik ez dagoela argudiatu zuen), edo bestela erlazioaren norabidea kontrakoa da, orain arte konplexuagotzat hartu izan den egitura kausatibotik abiatu eta egitura inkoatiboa, aditz iragangaitzarena, deribatuz. Aurreko ataleko argudioan bezala, honetan ere ondorio hau maila lexiko-kontzeptualeko erlazio bat aldarrikatzen dugun ala hipotesi sintaktiko baten alde egiten dugun eztabaidatzetik independentea da.

3.2.3. *Auzi morfologikoak*¹⁵

3.2.3.1. *Klitiko erreflexiboa*

Chierchiak (1998, 2004) kausatibo aldizkatzearen egitura erreflexiboaren analisia lehendabiziko aldiz aurkeztu zuenean (ikusi hurrengo bi atalak), bere proposamenaren

beste batzuentzat, berriz, aditz hauek oso aditz ez-markatuak dira, ondorioz "hautsi" daitezkeen objektuen eremua oso zabala izanik. Gure eztabaidarekin loturik oso interesgarria dena da hiztunaren juizioak aditz hauen hautapen ezaugarrien inguruan edozein izanik, izan ditzaketen murriztapenak edo murriztapen falta berdin aplikatzen dizkiotela aditzaren bertsio iragankorri zein iragangaitzari. Hau da, hiztun batentzat *urra(tu)* jantzi bati edo paper bati buruz bai baina edalontzi bati buruz predika ezin badaiteke, murriztapenak berdin balio du aditz iragankorarentzat zein bere bertsio iragangaitzarentzat eta *ez* dago *hautsi* aditza bere bertsio iragangaitzean ez-markatuz eta bertsio iragankorrean murriztuagotzat edo alderantziz jotzen duen hiztunik.

¹⁵ Oso garrantzitsua da kontuan izatea atal honetan ematen ditudan argumentuen helburua ez dela, inolaz ere, aldizkatzea unibertsalki kausatibotik inkoatiborako norabidean gertatzen dela argudiatzea. Tipologiaren alorrean egindako zenbait lanek (ikusi, batez ere, Nedjalkov 1969 eta Haspelmath 1993) bi aukerak posibleak direla sujeritzen dute; are gehiago, Davis-ek (1997, 2000) eta Davis & Demirdache-ek (2000) hizkuntza salishtarretan (Kanada-EEBB-etako mendebaldeko mugako lurraldeetan) predikatu guztiek oinarri ezakusatiboa dutela eta predikatu konplexuak hemen argudiatzen ari naizen kontrako norabidean eraikitzen direla pentsatzeko argudio sendoak ematen dituzte.

alde aurkeztu zuen ebidentzia enpiriko nagusia, ia bakarra, hizkuntza erromanikoen aldizkatzeak erakusten duen klitikoen morfologia izan zen. Hizkuntza hauetan, aldaera kausatiboa markatugabea agertzen den bitartean, forma inkoatiboak *se* klitikoarekin markatuta agertzen dira. Ez hori bakarrik, Chierchiak berak iradokitzen duen bezala, aditz ezakusatiboa markatzen duen klitikoa erreflexiboa markatzeko erabiltzen den forma bera da; egia da *se* klitikoak erabilera gehiago ere badituela baina, Chierchiak dioenez, *se*-ren erabilera inkoatiboetan aditz hauen interpretazio erreflexiboarekin bat dator.

Badago egitura hauen morfologian are interesgarriagoak egiten dituen beste propietate bat: konplikazio batzuk alde batera utzirik, ¹⁶ gazteleraz kausatibo aldizkatzean sartzen ez diren aditz ezakusatiboek ez dutela normalean *se* klitikoa onartzen, ondoko aditzen ezintasunak erakusten duenez:

(26) **existirse*, **vivirse*, **durarse*, **persistirse*, **andarse*, **correrse*, **rodarse*

Berriz ere, honek iradokitzen du klitikoa deribatuak diren forma ezakusatiboak markatzen ari dela.

3.2.3.2. Eratorpen atzizki kausatiboak

Hizkuntza erromanikoen morfologiak beste ebidentzia mota bat aurkezten digu kausarik gabeko oinarrizko forma inkoatibo batetik abiatzearen kontra, kausazioaren hipotesia oker dagoela iradokiz. Euren barne-egituraren ikuspuntutik, kausatibo aldizkatzean sartzen diren aditzek jatorri desberdina dute. Aditz hauetariko asko eratorpen atzizki bat adjektibo edo izen erro batekin konbinatuz sortuak dira. Interesgarria dena da hizkuntza erromanikoetan eta, espero daitekeenez, hizkuntza germanikoen latinetik edo erromantzetik hartutako formetan ere, aditz hauek sortzeko erabili izan diren eta oraindik ere erabil daitezkeen bi atzizki bakarrek esanahi kausatiboa dutela:

(27) a. *purificar*, *solidificar*, *unificar*, *sacrificar*, *dignificar*, *simplificar*, *momificar*, etab.
b. *cristalizar*, *democratizar*, *fosilizar*, *fertilizar*, *organizar*, etab.

Izan ere, hauetariko lehen atzizkiaren etimologia latinaren *ficō*, *ficāre* aditza da, *faciō*, *-ere* 'egin' aditzaren alomorfo bat (ikus, adibidez, Pharies 2002). Ez dirudi, baldin eta kausaziorik gabeko inkoatiboa oinarrizko forma izanda patro morfolo- gikoa markatuko lukeena balitz, egituran hitz eratorriaren ardatz posizioan kausazioa adierazten duen elementu batek agertzeko aukera handirik izango lukeenik. Kausazioaren hipotesiaren defendatzaileek beti arrazoitu lezakete bestela izan

¹⁶ Gazteleraz badira *venir(se)*, *llegarse(se)*, *salir(se)* bezalakoak, baina aditz hauek hainbat bitxitasun erakusten dute bestelako arazo batez, ziurrenik aspektu kontu batez, ari garela sujeritzen dutenak: (i) alde batetik, frantsesez edo italieraz, gazteleraz ez bezala, **s'arriver*, **se venir* ezinezkoak dira (cf. *se ramener*). (ii) Are gehiago, gazteleraz ere alde aspektual berezia dute; hortaz, Larouse-k "venirse" frantsesera 'revenir' itzultzen du (nire ustez ez oso itzulpen egokia, bidenabar); Google-etik ateratako ondoko adibideotan, adibidez, leku-aldaketa baino zerbait gehiago adierazten dute aditzek:

- (i) a. Claro que es mas dificil *venirse* de alli que irse desde aca!
b. España ha obrado mal (no por *venirse* de Iraq, sino por hacerlo antes del 30 de Junio como estaba prometido).
(ii) a. [Eso] es como *llegarse* a un entierro para invitar a unas cañas al hambre
b. [...] Simplemente lo que tienen que hacer es *llegarse* hasta estos lares y comprobar que...

Frantsesaren *sortir*, berriz, kausatibo aldizkatzean sartzen da, euskarazko *atera* bezala (ikus gazt. *entrar*).

zitekeela historikoki baina gaur egungo hiztunak ez duela bi atzizkien esanahiaren ezagutza. Hala ere, ez dirudi hipotesi honen oinarritzko abiapuntuek kontrako norabideko testuinguru bat onartzeko leku handirik uzten dutenik, are gutxiago latinetik hizkuntza erromaniko guztietarako bilakaera bat non horrelako aldaketa bat gerta daitekeen. Are gutxiago atzizki hauek gaur egun oraindik ere hizkuntza kultoaren zenbait alorretan emankorrak direla ikusirik. Aukera gehiago du, dudarik gabe, oinarritzko forman kausazioaren geruzarentzat lekua egiten duen hipotesi batek.

3.3. Ondorioak

Kausazioaren hipotesi klasikoak eta bere aldaera konstrukzionista berriek argudiatzen dutenaren kontra, nire ustez, euskaraz eta, oro har, gure inguruko hizkuntzetan kausatibo aldizkatzea ezin eraiki daiteke ezakusatiboaren formatik abiatuta, aukera hau baztertzeko argumentu teoriko eta enpiriko sendoak daudelako. Hurrengo bi ataletan, orain arte argudiatutakoarekin koherentea den bigarren analisi bat aurkeztuko dut labur-labur,aldi berean analisi honek ere berrikuspen sakon bat behar duela pentsatzeko argudioak emanez.

4. Erreflexibatzearen analisisia

Chierchiaren (2004) analisiarekin hasi eta azken urteotan hedatu den analisi alternatibo bat bada literaturan hizkuntza askotan kausatiboa/inkoatiboa aldizkatzeak erakusten duen morfologia erreflexiboaren ildoari jarraitzen diona (ikus 2.2.3. azpiatata). Analisi horren arabera, kausatibo aldizkatzea egitura kausatibotik abiatzen da, eratorria den aldaera inkoatiboa erreflexibatze eragiketa baten bidez deribatuz.

Hipotesi hori plazaratu duten Chierchiak (2004) eta Reinhartek (1996, 2000, 2002) erreflexibatze prozesua argumentu balentzian barne-erredukzioa egiten duen erregela gisa ulertzen dute. Erregela horrek argumentu kopuruaren gutxitzea kanpo kausaren argumentua eta egoera aldaketaren jasailea identifikatuz lortzen du. Ondorioz, erlazio bat denotatzen zuen predikatu diadikoa propietate bat denotatzen duen predikatu monadikoa izatera pasatzen da. Ondoko adibidean jasotzen dudana formulazioa Chierchiak (2004 *postscript*) ematen duena da:

$$(28) \text{REFL}(K) = \lambda u K(u,u)$$

Erreflexibatze analisiaren oinarria ondo dagoela pentsatzen badut ere, hurrengo atalean argudiatuko dut Chierchiak (2004) eta Reinhart-ek (2000) erreflexibatze prozesurako proposatzen duten garatze teorikoa kontraesan teoriko-kontzeptualetan erortzen dela eta enpirikoki ere gaizki oinarritua dagoela. Horren ondorioz, erreflexibatzearen beste formulazio baterako bidea ireki dezakeen interpretazio bat proposatuko dut, bai aditz inkoatiboen egitura sintaktikoan baita euren interpretazio semantikoan ere KAUSA-ri dagokion geruza mantentzen dela aldarrikatzen duena.¹⁷

¹⁷ Berriz ere, proposatuko dudana analisiak ez du aukerarik egiten kontzeptuen islada lexiko-semantikoa postulatzen duen hipotesi baten eta teoria sintaktiko baten artean, eztabaida horretan ondorio bazu atera badaitezke ere. Hurrengo lan baterako uzten dut eztabaida hau.

5. Egitura inkoatiboetan ere KAUSA badago

Hirugarren atalean kausazioaren hipotesiaren kontra argudiatu dudanean bezala, hemen ere maila desberdinetako argudioak aurkeztuko ditut erreflexibatze eragiketak kausaren egitura ezabatzen duelako hipotesiaren kontra, horietako bat maila teorikokoa eta besteak enpirikoak.

5.1. Erreflexibatze eragiketak ezin du KAUSA ezabatu

Chierchiak (2004: 37), ezakusatiboen propietateak aztertzen dituenean honako oharra egiten du: “The reflexive character I am attributing to unaccusatives is of a special, *static* nature”. Hau da, inkoatiboen bihurkari izaera estatiboak mekanismo beraren aplikazioaren bidez egitura erreflexibo arruntak ematen dituzten aditzetatik bereizten ditu. Konpara ditzagun honako adibide hauek:

- (29) a. Norak itsasontzia/laguna hondoratu zuen
- b. Itsasontzia/laguna hondoratu zen
- (30) a. Norak harria/laguna uretara bota zuen
- b. Laguna/*harria uretara bota zen

(29)-ko adibide multzoak ohiko kausatibo aldizkatzearen bikotearen kasua erakusten du eta (30)-eko adibideek kausatibo/erreflexibo bikote bat. Espero daitekeen bezala, (29b)-ko argumentu bizigabeak, *itsasontzia* sintagmak, interpretazio inkoatiboa onartzen du, baina (30b)-ko egitura erreflexiboan argumentua ezin daiteke bizigabea izan, *lagunak* eta *harriak* bikote minimo bat osatuz.

Bestalde, pentsatzekoa da erreflexibatze eragiketak kausatibo aldizkatzeetan eta aditz erreflexiboen testuinguruetan berdin jokatu beharko lukeela, operazio bakarra defendatzen ari bagara. Baina hori hala balitz, ez dirudi eragiketa hori Chierchiak (2004) eta Reinhartek (2000, 2002) proposatzen dutena izan daitekeenik: KAUSARI dagokion geruza ezabatzeak ez dirudi bi predikatu moten arteko desberdintasunak argitzeko bide egokiena denik, geruza honetan baitago beraien arteko bereizketa estruktural eta semantikoen iturri nagusia izan daitekeen desberdintasun bakarra. Erreflexibatze operazioak eragindako KAUSAREN ezabaketaren ondorioz bi egiturak berdindu egiten baditu, ez zaigu aukera handirik gelditzen galdutako diferentziak berreskuratzeko, are gutxiago euren azalpen koherente bat emateko.

Intenbidea, bestalde, ezin da izan bi erreflexibatze erregela desberdin proposatzea, bata ezakusatiboentzat eta bestea *benetako* egitura bihurkariarentzat. Ematen du aukera hori dela Chierchiak berak bidez iradokitzen duena ezaugarri estatiboa jasotzen duen operatzaile bihurkari baten bidez jaso zitekeela esaten duenean. Baina orduan ezakusatiboen eta erreflexiboaren arteko batasuna guztiz nominalista litzateke, proposamen eta mekanismo *ad hoc*-etan oinarritua.

Hortaz, badirudi aztertze bidea egitura iragankorreki aplikatzerakoan emaitza desberdinak sortuko dituen eragiketa formulazio bakarra aurkitzea dela, emaitza desberdin horiek egoera aldaketaren kausa proiektzioaren argumentuak —erreflexibatze eragiketaren bidez jasalearekin erreferentziakidea izango denak— bi predikatu mota hauetan dituen propietate dibergenteetatik deribatuz. Baina horretarako eragiketak kausari dagokion egitura bi kasuetan mantendu behar du, ezakusatiboenean eta

bihurkarienean.¹⁸ Atal honen bigarren zatian ezakusatiboetan ere kausa badagoela baieztatzen duten zenbait argumentu enpiriko aurkeztuko ditut.

5.2. Modifikatzaile agentiboak, helburu perpausak eta egileari begirako aditzlagunak

Aditz ezakusatiboei kausari dagokion egitura falta zaiela argudiatzeko ohikoa da aditz hauek aditz iragankorren egitura pasiboarekin konparatzea, horretarako egiletasunarekin zerikusia duten frogen bateria bat erabiliz. Froga hauek erakutsiko luke tena zera da (33b) bezalako perpaus pasiboetan egilea, “degradaturik” bada ere, egon badagoela; berriz, (33a-a’)-ko ezakusatiboetan kausa erabat ezabaturik legokeela, biek kausazioaren hipotesiak eta goian aurkeztutako erreflexibatzearen hipotesiak esaten dutenarekin bat etorri.¹⁹

- (33) a. Las puertas se cerraron
 a’. Ateak itxi ziren
 b. Las puertas fueron cerradas

Atal honetan, Koontz-Gardoneren (2007a,b) lanari jarraituz eta bere argudioak hedatuz, aipatzen diren test hauek ez dutela ustez erakutsi beharko luketena erakusten argudiatuko dut, egituren kausaren proiektzioa agertzen den ala ezabatu den neurtu baino egile baten presentzia adierazten baitute. Are gehiago, erakutsiko dut frogetan normalean kontuan izan ez diren zenbait auzi jokoan sartzen ditugunean kausaren ezabaketaren aldeko balizko argumentu hauek guztiz kontrakoa —hau da, aldizkatzeko predikatuen aldaera iragangaitzean ere kausa proiektzioa badela— sostengatzen dutela.

Ezakusatibo eta pasiboen arteko konparaketan beti aipatzen den diferentzia bat ezakusatiboen eta egile osagarriaren (“complemento agente”) arteko bateraezintasuna eta, aldiz, predikatu hauek zenbait modifikatzaileekin erakusten duten konpatibilitatea da. Bestela esanda, ezakusatiboak, pasiboak ez bezala, *bere kabuz* edo *berez* eta horrelako adierazpideekin ager daitezke baina inoiz *ez por*-sintagmekin; pasibozko egituretan agertzen diren aditz iragankorrek, berriz, kontrako portaera erakusten dute:

- (34) a. Las puertas se cerraron {por sí solas/*por el portero}.
 a’. Ateak {berez/bere kabuz/*atezainak/*atezainez} itxi ziren.
 b. Las puertas fueron cerradas {*por sí solas/por el portero}.

Kontraste hauek oso interesgarriak dira baina, argudiatu ohi denaren kontra, ez digute ezer argitzen predikatu ezakusatiboen egituretan kausa islatzen den auziari buruz. Aditz ezakusatiboen azpian egitura erreflexibo bat bada, predikatu hauek egile osagarriarekin duten bateraezintasun hori esperoko genukeena da, erreflexibatze eragiketak kausa ezabatu zein ez: pasibo eragiketetan kausak edo, hobeto esanda, egileak eta egoera aldaketaren jasaileak desberdinak izan behar duten bitartean, predikatu

¹⁸ Izan ere, hurrengo atalean ikus daitekeenez, Chierchiaren analisiak praktikan ezakusatiboen interpretazio semantikoan kausa bat mantendu behar du, nahiz eta egitura lexikoan erreflexibatze eragiketak horri dagokiona ezabaten duen.

¹⁹ Euskaraz konparatzeko egitura garbia falta zaigu; hortaz, atal honetako konparazioak gaztelanian er egitura pasiboa euskara eta gazteleraren inkoatiboaren kide hurbilenarekin egingo dut sistematikoki.

ezakusatiboen balizko kausak ondoriozko egoeraren jasailearekin erreferentziakidea izan behar du modu batera edo bestera, predikatua erreflexibizatze prozesuaren bidez lortu baita. Ondorioz, (34a) adibidean *por*-adberbioa jasailearekin erreferentziakidea ez den kausa baten ezintasunak baztertzen du. Arrazoi berberagatik, pasiboak egile osagarria onartzen du eta *berez/por sí solo* eta abar saihesten ditu erreferentziakidetasun horrekin bateraezina delako, hain zuzen ere. Aldi berean, aditz ezakusatiboak, bai euskaraz baita gaztelaniaz ere, kausari erreferentzia egiten dion modifikatzaile bat onartzeak, zerbait erakustekotan, *las puertas/ateak* egoera aldaketaren jasailea izateaz gain aldaketaren kausa ere badela erakusten du.

Ikus dezagun, orain, egileari begirako ('agent oriented') adberbioak eta helburu perpausen kasua. Ezaguna da helburu perpausen subjektua perpaus nagusiko egile batek kontrolaturik agertu behar duela; halaber, *nahita/intencionadamente* bezalako adberbioek modifika dezaketen argumentuak ekintzaren egileak edo izan daitezke bakar-bakarrik. Hori kontuan izanda, (35)-eko egitura ezakusatiboa egileari begirako adberbioarekin eta helburu perpausarekin bateraezina izatea bertako jasalearen alde-tik egiturak zilegiztatzeko ezintasunari leporatu zaio, zilegizta ditzakeen beste argumenturik ez dagoela ondorioztatuz:

- (35) a. * Itsasontzia urperatu zen nahita/aseguruaren dirua kobratzeko
 a'. * El barco se hundió intencionadamente/para cobrar la prima del seguro
 b. El barco fue hundido intencionadamente/para cobrar la prima del seguro

Hemen ere, argumentu piskat desberdina bada ere, mota bereko ondorioa atera dezakegu. Aurrekoan bezala, (35a-a')-n ere ezakusatiboaren egitura erreflexiboak egoera aldaketaren jasailea ez den beste edozein kausa bat saihesten du; hau da, itsasontziak bi eginkizunak, egoera aldaketaren jasailea eta kausa, beteko lituzke. Baina itsasontzia ezin daiteke egilea izan, are gutxiago aseguruaren dirua kobratzeko borondatea izan dezakeen partaide bat. Ondorioz, ezingo du menpeko perpausaren subjektua kontrolatu, ezta adberbioak behar duen egile argumentua izan. Egoera hala izanik, horrek ez du erakusten kausa maila estrukturaliki falta dela, baizik eta bertan datzan argumentuari menpeko perpausako subjektua kontrolatzeko eta adberbioa zilegiztatzeko eskatzen zaizkion egile propietateak falta zaizkiola, aldezturik genekien zerbait.

Artikuluaren zehar behin baino gehiagotan errepikatu den bezala, aldizkatzeko aditzen kausa oso malgua da; ondorioz, ez du nahitaz egilea izan behar, eta kasu gehienetan ez da egilea izango. Baina horrek ez du esan nahi egoera guztietan egilea izan ezin daitekeenik. Egituran kausari dagokion argumentua dagoen ala falta den ikusteko interesatuko litzaigukeena benetazko egile irakurketa bortxatzen —edo, behintzat, ahalbidetzen— duten adibideak aurkitzea litzateke. Koontz-Garbodenek (2007b) hurbiltzen diren (36) bezalako adibideak jasotzen ditu Google-etik:²⁰

²⁰ Luis García (i)-eko kontrasteaz ohartarazten dit, egitura final hauek erreflexibatzearen ondorioz sortutako egilearekin azken finean arazoak dituztela sujerituz:

- (i) a. Y Cristo murió en la cruz para salvarnos a todos los hombres
 b. ??* Y Cristo se murió en la cruz para salvarnos a todos los hombres

Baina euskarazko kidea dexentz hobe dela dirudi:

- (ii) Kristo gizaki guztiok salbatzeko hil zen gurutzean

- (36) a. Y aquel día, hace tres años, cuando Phil se ahogó para salvarle la vida a Jim...
 b. ... como el joven que se ahogó para salvar a una desconocida

Halaber, honako adibide honek testuinguru egokia bilatuz gero egileari begirako adberbioak ere egoera aldaketa ezakusatiboen testuinguruan ager daitezkeela sujeritzen du:

- (37) Ezezagun bat hurbiltzen zaion bakoitzean, nahita biltzen da bere baitara bere burua babesteko asmoz

Xehetasunak xehetasun, irakurketa aktiboago bat ahalbidetzen denean egoera aldaketa ezakusatiboen jasaleak egileari begirako adberbioak eta helburu perpausen subjektua zilegizta ditzakeela, jasailea izateaz gain egoera aldaketaren kausa ere badela erakutsiz.

5.3. Bestela kontraesankorrak liratekeen testuinguruak

Ondoko elkarrizketak guraso eta umeen artean maiz aski errepikatzen den egoera baten adibidea izan daitezke (Koontz-Gardon-en 2007 eztabaidatik moldatua):

- (38) Aita: Zergatik ez duzu beste lapitza erabiltzen?
 Alaba: Apurtu delako.
 Aita: Umm! Utzi ikusten... bai, apurtuta dago; baina susmatzen dut ez dela apurtu,... zeuk apurtu duzula!

Ikus dezagun elkarrizketa hau orain arte aztertu ditugun hipotesien argira. Berriz ere gogora dezagun Chierchia (2004) eta Reinharten (2000) proposamenean erreflexibatze eragiketak geruza kausatiboa ezabatzen duela predikatuaren egitura lexikoan. Ondorioz, aditz inkoatiboak, berriz ere, egoera aldaketa hutsa adierazten du. Azken finean, ezakusatiboaren egitura lexikoa lortzeko modua erabat aldatzen bada ere, sortuko den egitura inkoatiboa bera ez da kausazio hipotesi klasikoan proposatzen zenetik gehiegi aldentzen:

- (39) a. lapitza apurtu da
 b. λx [BIHURTU apurtuta(x)](lapitza)

(39)-ko elkarrizketara bihurtuz, aitak alabari ematen dion erantzunak espreski baieztatzen du lapitzaren egoera. Hau da, alabaren argumentuan aitak onartzen du lapitzaren bukaerako egoera —‘apurtuta dagoela’— egia dela eta, pragmatikoki elkarrizketak zentzuren bat baduela onartuz, biek badakite inoiz lapitza ez dela apurtuta egon. Ondoren datorren esaldian, beraz, aita ezeztatzen ari dena ezin daiteke egoera aldaketa bera izan, hala balitz bere aurreko esaldian baieztatutakoa ukatuko lukeelako eta, ondorioz, bere burua gezurtatuko. Aita azken esaldian ezeztatzen ari dena gertakariaren kausa da, hau da lapitza bukaerako egoerara “be-

Bi hizkuntzen arteko desberdintasunak sujeritzen du (i)-eko kontrastea bestelako arrazoieta oinarrituta egon daitezkeela (nahiz eta oso kontraste aztoragarria dela aitortu behar dudana), batez ere konparaketan sartzen ari garen gaztelarazko *morir/matar* aditza aldizkatzean sartzen ez dela kontuan izanik.

rez” heldu izana. Baina hori hala bada, aitaren *apurtu* inkoatiboaren irudikapena ezin daiteke (39)-ko egitura izan, bertan ez baitago bere azken esaldiarekin ezeztatzen ari den kausari legokiokeen zatirik. Falta zaion kausaren geruza ere eskura izan behar du egituraren, ez bakarrik azkenean fokalizatzen duen alabaren parte hartzearen aditz iragankorrerako, baita ezeztatzen ari den egitura ezakusatiboaren kausarentzat ere.²¹ Ondorioz, aditz inkoatiboaren EL-K (40)-tik hurbilago egongo litzateke:

(40) $\lambda x [x \text{ ARAZI } [BIHURTU [apurtuta(x)]]]$ (lapitza)

Kontuan hartu bi aldaeretan —kausatiboetan eta ezakusatiboetan— kausa mantentzen delako ondorioak predikzio garbi bat egiten duela: testuinguru egokia sortuz gero, goiko elkarrizketan erakutsitakoaren kontrako norabidean ere egiturak lotu ahalko lira-tekeela. Ondoko adibidearen egokitasunak ondorio hori zuzena dela iradokitzen du:

(41) Edalontzi guztiak apurtu dira bat izan ezik. Bat hori nik apurtu dut.

5.4. Elipsia eta “egitura konpatibleak”: ezabaketaren berreraiketa

Bukatzeko, labur-labur aurkeztuko dudan azken argumentua koordinazioaren interpretazioarekin eta elipsiarekin loturik dago. Ezaguna da egoera normaletan argumentu batekiko erlazio tematiko desberdina erakusten duten aditz beraren bi aldaera testuinguru berean erabiltzen direnean, bi aldaera horiek ezin daitezkeela elipsiaren bidez bildu perpaus koordinatu berean (ikus Artiagoitia 2000):

(42) a. * Drakulak umeari musu bat eta susto handia eman zion/zizkion.
b. * Nora alaia eta ikaslea da

Era berean, galdera bati barnean elipsia duten zati koordinatuekin erantzutean, zati horiek ezin dezakete aditzaren bi aldaera desberdinekin lotzen diren argumentu heterogeneoak izan:

(43) Galdera: Zer erakutsi dizute?
Erantzuna: a. Jonek liburua eta Mirenek diska
b. ?* Jonek bidea eta zakurrak hortzak (erakutsi dizkidate)

Egoera honekin kontraste nabaria erakusten dute, berriz, kausatibo aldizkatzeek, non predikatu kausatiboa eta inkoatiboa erraz konbina daitezkeen testuinguru haue-tan:

(44) Galdera: Nork igo ditu umeak?
Erantzuna: Albertok eta nik Nora eta Alaia,... eta Maddi bera bakarrik

²¹ Brenda Lacak ohartarazten didan bezala, egitura hauetan ezeztatzen eta baieztatzen den informazioa fokalizaturik dago. Ingelesezt, adibidez, aitaren erantzuna *just* partikulak lagunduta agertu behar du (Leoraren ohar pertsonala) eta gazteleraz *sólo* bezalako elementu baten (Luis Garcíaen oharra) eta, ondoren, aditz aurreko subjektu baten laguntzak egitura errazten du:

(i) a. Umm! Let me see.. Yes, it is broken; but I guess it is not just broken,... You broke it!
b. Umm! Déjame ver... Sí, está roto; pero creo que no se ha roto sólo,... Tú lo has roto!

Are gehiago, aipaturiko analisisetan proposatu bezala ezakusatiboen interpretazioa kausarik gabekoa balitz, Maddi bakarrik igo den egoera baten aurrean, (44) bezalako galdera baten erantzun arrunta (45) izan beharko litzatekeela, Maddiren igoerak ez bailuke kausarik izango. Erantzun horren interpretazio naturala, berriz, Maddi behean gelditu den egoera bat da, kausarik ezean ukatzen duguna egoera aldaketa bera dela sujerituz:

- (45) Galdera: Nork igo ditu umeak?
Erantzuna: Albertok eta nik Nora eta Alaia, eta Maddi inork ez

Laburbilduz, erreflexibatzearen analisiak kausatibo aldizkatzeak aztertzeko bide interesgarria irekitzen badu ere, Chierchia (2004) eta Reinharten (2000) formulazioan erabiltzen den ideia hori gauzatzeko mekanismoa ezin daiteke egokia izan. Atal honetan zehar zenbait argudio teoriko eta enpiriko aurkeztu ditugu erreflexibatze eragiketak aditz kausatiboaren kausari dagokion egitura ezin ezaba dezakeela ondorioztatzeko, ezakusatiboen “erreflexibatze estatiko” horren arrazoiak beste nonbait bilatzeko behartuta gaudelarik.

6. Azken oharrak erreflexibatze eragiketaren izaeraz

Goiko argudio guztiak kausatibo aldizkatzearen interpretazio bat iradokitzen dute non ezakusatiboek, pentsatu ohi denaren kontra, bertsio kausatibotik abiatuz erreflexibatzearen bidez deribatzean kausari dagokion geruza mantentzen duten, aditz erreflexiboekin gertatzen den bezala. Argi dago, bestalde, (46a)-ko ezakusatiboak eta (46b)-ko egitura erreflexiboak ezaugarri sintaktiko eta interpretazio desberdinak dituztela, eta diferentzia hauek ere deribatu behar ditugu:

- (46) a. Itsasontzia hondoratu zen
b. Laguna uretara bota zen

Pentsa daiteke bi predikatu moten arteko desberdintasun nagusia kausaren argumentu posizioan ager daitezkeen partaideen izaera denez, diferentzia horretatik deriba ditzakegula kausatibo aldizkatzeko aditzen eta aditz erreflexiboen arteko beste diferentzia estruktural eta semantiko guztiak. Hau da, erreflexibatze eragiketa kanpoko kausa duten egoera aldaketa aditz iragankorrei aplikatu dakiekeen erregela orokorra litzateke, operazioaren ondorioak predikatuaren kanpo argumentuaren propietateen arabera desberdinak izanik. Predikatuaren informazio lexikoak kausa identifikatzen duen argumentua egile gisa gauzatzea eskatzen badu (adib. *bota*, *orraztu*, etab.), erreflexibatzearen emaitza ohiko aditz erreflexiboa izango da. Predikatuak egilea baino kausa malguagoa onartzen duten horietarikoa bada, orduan emaitza aditz iragankorren bertsio inkoatiboa izango da. Orain arte argudiatu dugunaren arabera, erlazio erreflexiboa kodifikatzeak partaide bakarrari egoera aldaketaren kausa eta jasailearen lana egiteko aukera ematen dion bihurkaritze mekanismoren bat eskatuko luke bi prozesuetan, bai maila sintaktikoan baita semantikoan ere.

Horrelako analisi bat beharrezkoa dela bi adierak —adiera erreflexiboa eta inkoatiboa— onartzen dituzten aditzek sujeritzen dute. Berreskura ditzagun 5.1. ataleko adibideak, (47)-(48)-n errepikatzen ditudanak:

- (47) a. Norak itsasontzia/laguna hondoratu zuen
 b. Itsasontzia/laguna hondoratu zen
- (48) a. Norak harria/laguna uretara bota zuen
 b. Laguna/*harria uretara bota zen

Gogora dezagun (47b)-ko argumentu bizigabeak, *itsasontzia* sintagmak, interpretazio inkoatiboa onartzen duen bitartean, (48b)-ko egitura erreflexiboan argumentua ezin daitekeela bizigabea izan. Hori kontuan izanik, ikus ditzagun (49)-ko adibideak:

- (49) a. Norak itsasontzia/laguna lehortu du
 b. Itsasontzia lehortu zen
 c. laguna lehortu zen

Adibide multzo honetan interesgarria dena da biak (49b) eta (49c) gramatikalak badira ere, (49b)-k interpretazio inkoatibo bakarra duen bitartean (49c)-k bi interpretazioak onartzen dituela, inkoatiboa eta erreflexiboa, ondoko adibideek agerian uzten duten bezala:

- (50) a. Uretatik atera bezain laster, laguna lehortu zen
 b. Temperatura horren altua zenez, uretatik atera bezain laster lehortu zen, ia konturatu gabe

Ez dirudi bi *lehor(tu)* edo *garbi(tu)* predikatuentzat deribazio desberdina sortuko duten bi aditz iragankor proposatu nahi dugunik: bat egitura erreflexiboa sortuko duena eta bestea kausatibo/inkoatibo aldizkatzean sartzen dena. Besteak beste, multzo horretako aditzek erakusten duten anbiguitatea beti aldaera iragangaitzean izaten delako eta (49a) bezalako egitura iragankorrek, berriz, ez dute inoiz inolako interpretazio bikoizketarik erakusten. Izan ere, aditz hauek beste bi multzoetatik bereizten dituen ezaugarri nagusia da kausatibo aldizkatzeko aditzak izan arren multzoko beste aditzek —adibidez, *itxi*, *hautsi* edo *hondoratu*— baino erraztasun handiagoa erakusten dutela egilea den kanpo argumentua hartzeko. Hori gertatzen denean, egituraren erreflexibatzearen emaitza egitura erreflexiboa da; bestelako kausa bat hartzen duenean, berriz, erreflexibatzea eragiketaren ondorioa interpretazio inkoatiboa izango da.

Hemen aurkeztutakoa ikerketaren hasiera besterik ez da. Egitura erreflexiboen eta kausatibo/inkoatibo alternantzien ikerketek, bakoitzak bere aldetik, mahai gainean jarri dituzte maila askotako arazo eta galdera interesgarriak, biak batu nahi dituen edozein hipotesik erantzun beharko lituzkeenak. Hala ere, hemen iradoki dudana bi-deari jarraituz horietariko batzuri etorkizun hurbilean erantzun interesgarri bat emateko posizioan egotea espero dezakegula uste dut.

Bibliografia

- Aldezabal, I., et al., 2004, “Levin-ek *English verb classes and alternations* (1993) liburuan proposatzen dituen ingeleserako alternantziak euskararekin parekatuz”, eskuizkribua, UPV/EHU-IXA Taldea.
- Alexiadou, A., E. Anagnostopoulou & M. Everaert (arg.), 2004, *The Unaccusativity Puzzle. Explorations of the Syntax-Lexicon interface*, Oxford U. P., Oxford.
- Arad, M., 2003, “Locality Constraints on the Interpretation of Roots: the case of denominal verbs”, *NLLT* 21, 737-778.

- Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta parametroak lantzen*, UPV/EHU-Arabako Foru-Aldundia, Gasteiz.
- Borer, H., 1991, "The Causative - Inchoative Alternation: A Case Study in Parallel Morphology", *The Linguistic Review* 8, 119-158.
- , 2005, *Structuring Sense*, 2 lib., Oxford U. P., Oxford.
- Burzio, L., 1986, *Italian Syntax. A Government-Binding Approach*, Foris, Dordrecht.
- Chierchia, G., 2004, [1989], "A Semantics for Unaccusatives and its Syntactic Consequences", in Alexiadou et al. (arg.).
- Davis, H., 2000, "Salish Evidence on the Causative-Inchoative Alternation", in W. U. Dressler et al. (arg.), *Morphological Analysis in Comparison*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 25-60.
- , & H. Demirdache, 2000, "On Lexical Verb Meaning: evidence from Salish", in J. Pustejovsky & C. Tenny (arg.), *Proceedings of the Workshop on Events as Grammatical Objects*, CSLI Publications, Stanford, 97-142.
- Dixon, R. M. W., 2000, "A Typology of Causatives: form, syntax and meaning", in R. M. W. Dixon eta A. Aikhenwald (arg.), *Changing Valency. Case studies in transitivity*, Cambridge U. P., Cambridge, 30-83.
- Dowty, D., 1976, "Montague Grammar and the Lexical Decomposition of Causative Verbs", in B. Partee (arg.), *Montague Grammar*, Academic Press, New York, 201-245.
- Etxepare, R., 2003, "Valency and Argument Structure in the Basque Verb", in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York, 363-425.
- Fodor, J. A., 1970, "Three reasons for not deriving *kill* from *cause to die*", *LI* 1, 429-438.
- Folli, R. & H. Harley, 2007, "Causation, Obligation, and Argument Structure: On the Nature of Little *v*", *LI* 38: 2, 197-238.
- Hale, K. & J. Keyser, 1993, "On Argument Structure and the Lexical Representation of Syntactic Relations", in K. Hale & J. Keyser (arg.), *The View from Building 20*, MIT Press, Cambridge (MA), 53-109.
- , eta —, 2002, *Prolegomenon to a Theory of Argument Structure*, MIT Press, Cambridge (MA).
- Haspelmath, M., 1993, "More on the typology of inchoative/causative verb alternations", in B. Comrie & M. Polinsky (arg.), *Causatives and Transitivity*, John Benjamins, Amsterdam, 87-111.
- Jackendoff, R., 1990, *Semantic Structures*, MIT Press, Cambridge (MA).
- Koontz-Garboden, A., 2007a, *States, Changes of State, and the Monotonicity Hypothesis*, Doktorego tesia, Stanford University.
- , 2007b, "Anticausativization", eskuizkribua, Univ. of Manchester.
- Levin, B., 1993, *English Verb Classes and Alternations*, Chicago U. P., Chicago.
- , & M. Rappaport, 1995, *Unaccusativity at the Syntax-Lexical Semantics Interface*, MIT Press, Cambridge (MA).
- , & —, 2005, *Argument Realization*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Lidz, J., 1999, "Causativity, Late Insertion and the Projection of vP", *MIT Working Papers in Linguistics* 35, 117-136.
- , 2001, "The Argument Structure of Verbal Reflexives", *NLLT* 19: 2, 311-353.
- Marantz, A., 1984, *On the Nature of Grammatical Relations*, MIT Press, Cambridge (MA).
- Mendikoetxea, A., 1999, "Construcciones inacusativas y pasivas", in I. Bosque eta V. Demonte (zuzen.), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Madril, II, 1575-1629.

- , 2000, “Relaciones de interficie: los verbos de cambio de estado”, in A. Bravo et al. (arg.), *Cuadernos de Lingüística* VII, 125-144.
- , 2007, “En busca de los primitivos léxicos y su realización sintáctica: del léxico a la sintaxis y viceversa”, in T. Cabré (arg.), *Lingüística teórica: análisis i perspectives II*, Catalan Journal of linguistics Monographies, Barcelona, 55-102 orr..
- Oyharçabal, B., 2002, “Kausazio Aldizkatzea euskal aditzetan”, *Lapurdum* 7, 271-294.
- , 2003, “Lexical Causatives and Causative Alternation in Basque”, in Oyharçabal (arg.), 223-253.
- , (arg.), 2003, *Inquiries into the Lexicon-Syntax Relations in Basque*, ASJUren Gehigarriak 46, UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.
- Pharies, D., 2002, *Diccionario etimológico de los sufijos españoles*, Gredos, Madril.
- Perlmutter, D., 1978, “Impersonal passives and the Unaccusative Hypothesis”, in *Proceedings of the 4th Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, Berkeley, 157-189.
- Pesetsky, D., 1995, *Zero Syntax*, MIT Press, Cambridge (MA).
- Pinker, S., 1989, *Learnability and Cognition: the acquisition of Argument Structure*, MIT Press, Cambridge (MA).
- Pylkkänen, L., 2002, *Introducing Arguments*, doktorego tesia MIT.
- Ramchand, G., 2006, “Verb Meaning and the Lexicon: a First Phase Syntax”, eskuizkribua University of Tromsø, CASTL.
- Rappaport-Hovav, M. & B. Levin, 1998, “Building Verb Meaning”, in M. Butt & W. Geuder (arg.), *Lexical and Compositional Factors*, CSLI Publications, Stanford.
- Reinhart, T., 2000, “The Theta-System”, eskuizkribua, OTS.
- , 2002, “The Theta-System-An Overview”, *Theoretical Linguistics* 28: 3, 220-290.
- , eta T. Siloni, 2004, “Against an Unaccusative Analysis of Reflexives”, in A. Alexiadou et al., 159-180.

NATURALIST CONCEPTIONS ABOUT AGGLUTINATIVE LANGUAGES: VINSON'S IDEAS ABOUT BASQUE AND LINGUISTIC DARWINISM¹

B. Oyharçabal
IKER, CNRS

0. Introduction: From Astarloa's Adamic primitivism to Vinson's naturalist primitivism

The writings of the linguist and philologist J. Vinson were largely responsible for introducing to Basque studies *la science républicaine* (a curious expression employed recently by Bidart (2001: 198)) in the half-century between 1870 and 1920. The renowned Bascologist's attitude to the Basque language was double-edged, for while he considered Basque to be of great scientific interest as an ancient tongue, study of which would reveal the 'state of the ancient Basque civilisation' (Vinson 1874: 55), socially, on the contrary, he saw Basque as useless in practice and doomed to disappear: "The Basque language, which is of no practical interest, notwithstanding its enormous scientific importance, is clearly on its way to extinction" (Vinson 1882: 66).

This article aims to clarify certain little-known aspects, especially among Bascologists, of Vinson's linguistic views. These views were in fact quite characteristic of a whole current in French linguistic thought and the broader field of anthropology, to which Vinson pertained.

I shall begin by comparing another view of Basque as a primitive language developed by P. P. Astarloa, a scholar intellectually associated with the eighteenth century, in his *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, written at the beginning of the 1800s but not published until 1883. We shall see that the theorisations of both authors coincide in viewing Basque as a tongue dating from a pre-historical era in the context of a naturalist, mutationist conception of language. Since, however, their conceptual points of departure were quite distinct, both the denotations and the connotations of their respective notions of primitivism differed to the point of being mutual opposites for all intents and purposes.²

¹ This study was realized within the interdisciplinary Project HIPVAL coordinated by IKER-UMR 5478 (Bayonne). HIPVAL is backed up by the Conseil Général d'Aquitaine and the Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques. I thank Ricardo Gomez for helpful remarks on a previous version of this paper.

² A. d'Abbadie's (1836) views reflect this change of perspective and the ambivalence of the notion of a primitive language, which may, depending on one's presuppositions, have either positive or negative connotations; see Oyharçabal (1998).

According to Astarloa (1752-1806), primitive language (in the singular) refers to the form originally taken by human language. In the opinion of this Bizkaian priest, whose reflections on the grammatical structure of Basque fascinated Humboldt in his early days because of their originality and ambitiousness, articulate language was neither a gift from God nor the outcome of some form of progressive adaptation from gestural communication, but a natural attribute peculiar to man. In his view, in line with a naturalisation of the Genesis paradigm to which he remains generally faithful, all languages arose from this first language; their appearance and multiplication through mutation bore witness to a degenerative process which brought about confusion and a proliferation of mutually unintelligible codes. Following a long and naïvely biased demonstration, Astarloa identified this first language, or *lingua primitiva*, not with Hebrew as might have been expected from a plain Bizkaian cleric of his time, but with Basque. Thus his understanding of the notion of a primitive language, granted the highly Cratyllic viewpoint which he applied to sounds and their articulatory features,³ carried for him a positive connotation associated with a notion of primordial integrity in terms of natural adaptation to meaning and the perfection of language (in terms of *propriety*, *economy* and *euphony*: see Gómez 2006: 31-43). Astarloa's primitivist views are included for this reason among those of the Basque apologists for whom they served as inspiration, and were utilised by the radical purist current that became highly influential at the end of the nineteenth century in the western Basque provinces (Laka 1986).

Vinson, separated from Astarloa by a short century, likewise considers languages to represent a natural human property and defends a mutationist view of languages. He further coincides with Astarloa in considering Basque to be a language that takes us back to a 'primitive' state, but his interpretation of this term differs drastically from Astarloa's. As a proponent of naturalist linguistics, Vinson interprets the general evolution of languages not negatively like Astarloa but in terms of an upward progress and the achievement of ever higher degrees of civilisation. He applied this view, borrowed from the German Indo-Europeanist A. Schleicher, to Basque and also to the Dravidian languages which he had studied. In consonance with this overall conception, the linguistic nature of Basque revealed underdevelopment in terms of both language and civilisation. Hence his notion of primitiveness had negative implications for social utility, since it entailed the idea that the language was intrinsically unsuited to the expression of modern civilisation, and doomed to die and give way to 'superior' languages. Despite his significant contribution to Basque studies, Vinson was therefore perceived by his contemporaries to be politically hostile to Basque, the prompt disappearance of which in modern times was, he held, both inevitable and desirable.

The present study discusses Vinson's work, paradoxically far less well known to Bascologists than that of the more obscure Astarloa, whose biography (Uriarte Astarloa 2002) and writings (Laka 1986, 1989, Altzibar 1997, and specially Gómez 2002, 2004, 2006) have attracted greater attention. We shall begin by considering Vinson's scientific and intellectual environment and that of the school of naturalist linguists to

³ On this and the influence of Beauzée and Court de Gébelin, see Gómez (2006: 32).

which he belonged, together with certain ideological and philosophical suppositions which characterised this school (§1). Given that the naturalist linguists' approach owed so much to A. Schleicher, next we shall look at some of the latter's central ideas, focusing in particular on a manner of understanding languages and linguistics that underlies many of Vinson's views (§2). Then we shall explore Vinson's application of Schleicherian concepts to the analysis of the Basque language with respect to two issues: the relationship between language types and stages in the development of human groups (§3), and linguistic Darwinism (§4).

1. J. Vinson and naturalist linguistics

Despite his significant place in Basque studies for over half a century and his many publications, Vinson's intellectual profile is not widely known apart from a few anecdotes and controversies. While the differences he had with other Bascologists of his time, such as Aranzadi, Bonaparte, Campión, Charencey, Dodgson, van Eys and Inchauspe, are familiar on account of his opinions about Basques' language and culture (Granja Pascual 1985, Bidart 2001: 199-205, Gómez 2006: 111-189), Vinson's general scientific approach has received more attention in areas other than Basque studies (Desmet 1996: 397-433). Political and ideological facets of the intellectual current in which Vinson participated have been the subject of a recent comprehensive study chiefly focusing on the scholars involved in anthropological research with special attention to their racialist perspective on human diversity (Reynaud-Paligot 2006).

Active until almost the end of his life in 1926, intellectually Vinson was always a nineteenth century man: all the more so in the field of linguistics, where his training had been autodidactic. Throughout his life he remained faithful to an inherited set of ideas formulated between 1850 and 1865 (see below). He held no official academic position prior to his admission to the School of Living Oriental Languages, initially as a lecturer (1879) and subsequently as a full professor (1882) of Indian and Tamil languages.⁴

As a child Vinson followed his father, a magistrate, to India where he was appointed deputy chief prosecutor to the Appeals Court of Pondicherry (present-day Puducherry). Between 1852 and 1861 the younger Vinson attended a missionary-run secondary school (Lacombe 1927). 'That was how,' he related later, 'having completed all my education in India, where I studied English and the local languages, I acquired a linguistic vocation' (cf. Vinson 1905b).⁵ Back in Europe, he graduating second from the Ecole des Eaux et Forêts at Nancy, and chose Bayonne as his first destination, deciding in late 1866 to study the Basque language⁶ in which, in the

⁴ Besides an important number of articles and reviews on these languages in the *RLPbC*, Vinson published *Le verbe dans les langues dravidiennes: tamoul, canara, telinga, malayala, tulu, etc.* in 1878, *Manuel de la langue hindoustani (urdu et hindi). Grammaire, textes, vocabulaire* in 1899, and *Manuel de la langue tamoule. Grammaire, textes, vocabulaire* in 1903.

⁵ At the age of 21, Vinson, still a student at the school of forestry, was entrusted with the classification of Tamil and Telugu manuscripts of the Imperial Library in 1864, cf. Vinson (1909).

⁶ Vinson (1922a) dates to October, 1866 the start of his efforts to learn and study Basque, on which he published his first article the following year (Vinson 1867).

course of a few years, he was to become a leading specialist. He never relinquished the interest acquired during his youth in the languages of India and in the history of religion and oriental legends.

Vinson's scientific, philosophical and even political leanings were in broad terms those of the group of linguists to which he belonged, referred to by Desmet (1996) as the *Ecole de linguistique naturaliste*. (In this article I will adopt this term for convenience, abbreviated as ELN, even though this was not in use in Vinson's time.) Scientifically the ELN was associated with the Société d'Anthropologie de Paris founded by Broca in 1859; philosophically with the so-called scientific materialism movement,⁷ described by one of its ideologists as 'the avant-garde of free thought' (Lefèvre 1881). As for politics, members were often involved in the republican cause, as in the case of one of the group's founders and its leading figure, A. Hovelacque, who later became president (1886-1887) of the Paris Municipal Council and twice ran successfully as a radical socialist deputy (Reynaud-Paligot 2006: 116).⁸

The ELN formed part of an intellectual current growing out of the positivism that took shape in the 1860s in anthropology and linguistics, characterised by a highly coherent philosophical, ideological and political stand comprising three more or less fundamental tenets: i) scientific materialism; ii) free-thought; iii) republicanism. The presence of all three in Vinson's thinking is illustrated by the fact that when Hovelacque founded a lodge in Paris affiliated to the Fédération du Grand Orient called *Le matérialisme scientifique*, Vinson figured among its members, together with various other members of the Société d'Anthropologie de Paris (Reynaud-Paligot 2006: 112).⁹

A number of questions such as attitudes to human diversity, the monogenesis-versus-polygenesis controversy or the dispute between fixists and evolutionists were closely related to the broader debates current in mid-nineteenth-century French po-

⁷ The term 'scientific materialism' is not to be confused with Marxist materialism. It was a current of thought rooted in the Freemason movement (Desmet 1996: 182) which had met with some success during the last years of the Second Empire and grew after the war of 1870, being represented in both the Municipal Council of Paris and the French Parliament as well as within the (mainly radical) republican movement.

¹⁷ This is not BW's proposal. A hint in this direction is that the language lacks the Basque agreement restriction of note 1, the «Person Case Constraint»: AgrSx is not restricted to 3rd person O/S in the presence of a dative (necessarily non-agreeing, since it is not controlling AgrSx). It seems to be generally the case that where «applicative» constructions are affected by the said agreement constraint, the corresponding prepositional construction is not (Ormazabal & Romero 1998). The class of datives capable of controlling AgrSx in transitives is limited and of variable membership, e.g. the obligatory goal of 'give', the optional goal of 'bring', 'tell', the affected theme of 'watch', the causee of the lexical causative 'make wear'. BW investigate the conditions under which IO vs. O/S control AgrSx: when both are 3rd person, the more topical of the two does; when both are 1st/2nd person either can; and when one is 1st/2nd person, it tends to control AgrSx but, the other can also even though 3rd person. These facts might be related to applicativity as follows: topicality = non-new information, so if new information is VP-peripheral, it will be IO rather than O in the prepositional construction, and O rather than IO in the applicative one.

- b. isx-enk n-zəl-ał-um kza kəma-nk?
 father-LOC IMPRS-give-FUT-1SG.OBJ you me-DAT
 Will father give you to me? (Bobaljik and Wurmbrand 2001: ex. 14b)

The principal difference between Itelmen dative displacement and the Basque one is that 3rd person datives participate in it in Itelmen. Yet they also show themselves thereby not to be the same unmarked 3rd person as are O and S. When a dative is not 3rd person, its control of AgrSx gives the same result as the control of AgrSx by a direct object; not so when it is 3rd person. A 3rd person O/S contribute no person features to AgrSx, which looks to EA à la “ergative displacement”, as discussed. In (8a), this is indicated by the gloss 1 > 3 under AgrSx (cf. Table 4). Remarkably, a 3rd person dative blocks this reference of AgrSx to EA, and provides it with a unique person feature: this is the rightmost column of Table 4 and the AgrSx in (8b).

- (8) a. kma tʃe-ank t-ɬintʃi-čeʔn pexal-eʔn
 I them-DAT 1SG-put-1>3PL hat-PL
 I put hats on them. (Bobaljik and Wurmbrand 2001, ex. 16a)
- b. kma tʃe-ank t-ɬintʃi-peʔnen pexal-eʔn
 I them-DAT 1SG-put-3PL.OBL hat-PL
 I put hats on them. (Bobaljik and Wurmbrand 2001, ex. 16b)

BW propose that 3rd person datives differ from 3rd person O/S in being specified for some variety of person (cf. their note 14). This idea appears in various guises in the literature, e.g. a specification on the dative for [local], [participant], or [-person], vs. its absence on O/S (Anagnostopoulou 2003: 271-2). So the first-look contrast between Basque and Itelmen dative displacement yields a deeper commonality: the phenomenon crucially refers to some person specification. The reason why Basque does not displace 3rd person datives might be localized either in the features of the dative, which in Basque could be person-less like O/S, or in the “cut-off” point for dative displacement: just as Oñate displaces only 1st person datives while Ainhua displace both 1st and 2nd person, Itelmen might go farther still and displace all DPs specified for person. The second suggestion allows the supposition that even Basque datives are more person-like than 3rd person O/S, perhaps as a universal fact about agreeing datives or datives in the “applicative construction” with its familiar animacy / possessor effects (Ormazabal & Romero 1998: 422). Indeed, Basque indicates as much in surface morphology: its (undisplaced) 3SG datives control the suffix *o*, unlike the \emptyset of 3SG ergatives and absolutes, and *o* is revealed as a person marker by comparison with 3PL dative *o-te* (*e*, etc.), 3PL ergative $\emptyset-te$.

Intransitives may also participate in dative displacement in Itelmen. The control of AgrSx then falls not to S, as in a plain intransitive (S column in Table 4), but to IO. S retains its normal control of AgrPx, for which it behaves just like EA (note 16). However, the oblique controller in the intransitive examples is not dative, but a possessor (9a) or a locative (9b). BW suggest a covert affected dative of the type in *My child was crying on me all night*.

- (9) a. ənan p'eč kəma-nk k'ot-it-əs-kinen
 his son me-DAT come-DISTRIB?-PRES-3.OBL
His son keeps coming to me. (Bobaljik and Wurmbrand 2001: ex. 31c)

- b. nt-čaja-kinen ənna-nk
 1PL-drink.tea-3SG.OBL him-LOC
 We had tea at/by him (i.e. 'at his place'). (Bobaljik and Wurmbrand 2001: ex. 33)

A striking commonality between Itelmen and Basque is the interaction of dative displacement with the splittable person-number control of canonically absolutive agreement. In each language's version of "ergative displacement", EA provides the person feature to canonically O-controlled agreement if O is 3rd person, but it does not provide number even if O is singular. Itelmen differs from Basque in that S both controls AgrPx like EA, and provides person and number to AgrSx like O (note 16, S column in Table 4). In dative displacement in both languages, the dative provides both the person and the number features canonically provided by O, and this forestalls all influence on AgrSx by EA/S. Thus in (9b), the 3SG dative is the sole controller of AgrSx (*ki*)*nen*, and the 1PL S influences it neither for person (expected to = 1PL.EA + 3SG.O in Table 4), number (no pluralizer *ʔ*), or both (expected to = 1PL.S).

To this last generalization, BW note an anomaly in the data. In examples like (10), the 3SG dative (covert, corresponding to possessor *his* of the subject) controls AgrSx as in (9a), except that the plural marker *ʔ* turns up. The two examples with this property involve a singular possessor and plural S, which suggests that S is providing the plural feature. One might propose that in dative displacement, the pluralizer *ʔ* is triggered by whichever of the IO or O/S is plural, which seems consistent with the examples in BW. In Basque when the dative controls the canonically absolutive person and number in dative displacement, as in *gattu* 'he is to us' (1PL *g-*, PL *-tt-*), *nau* 'he is to me' (1SG *n*), a plural absolutive controls a second plural marker, *gattuzte* 'they are to us' (3b), *nauzki/naute* 'they are to me'. This second plural is drawn from the same stock of basic pluralizers as the ordinary plural. In the Basauri and Lekeitio varieties, both the normal and second plural can be *s*: Basauri *ga(t)us* 'he has it/them to us', where *-s* tracks both controllers (Arretxe 1994: 152, note 65). It may be that in Itelmen *ʔ* serves as the second plural for S/O in dative displacement, as well as the ordinary plural controlled by the dative.

- (10) ənaʔn ʔqzanom ʔ-qz-aʔ-kineʔn
 his traces be-ASP-FUT-3.OBL
 there should be traces of him (Bobaljik and Wurmbrand 2001, ex. 31a,
 cf. also 31b)

There is a further point shared by dative displacement in the two languages: dialectal and diachronic variation. Basque dative displacement varies chiefly according to the ϕ -features of the dative and the transitivity of the construction. BW report that their consultants have the dative control AgrSx easily for 1st/2nd person as well as 3rd person in transitives, but in intransitives allow it only for 3rd person possessors/obliques. Earlier sources however had found that dative control of AgrSx was limited to 2PL and 3.SG/PL in transitives, while on the other hand it included 2PL for intransitives (BW, note 16 and ex. 34).

4. Georgian

In Georgian, datives also control absolutive-type agreement, obligatorily. The agreement markers of the Georgian verb are given in Table 5. The relevant element is the prefix, a unique position of person exponence (see note 2). The absolutive and ergative compete for its control according to the pattern of Basque ergative displacement: the absolutive controls it if it is 1st/2nd person, otherwise the ergative does if it is 1st/2nd person (Béjar 2003).¹⁸ The dative behaves like the absolutive, and obligatorily controls the prefix if it is present, in which case the direct object controls no agreement: dative displacement.¹⁹ As in Itelmen, 3rd person datives control a prefix marker that is missing for 3rd person absolutives and ergatives, *s/h/∅* in TABLE, indicating that they have a special person specification beyond plain 3rd person (Anagnostopoulou 2003: 271).²⁰

Table 5

Georgian agreement (Harris 1981: 29, Hewitt 1995: 128)

Person	EA, S		O		IO	
	SG	PL	SG	PL	SG	PL
1st	v-__	v-__-t	m-__	gv-__	m-__	gv-__
2nd	∅-__	__-t	g-__	g-__-t	g-__	g-__-t
3rd	__-s/a/o	__-en/es/etc.	∅	∅	s/h/∅-__	s/h/∅-__-t

The particular interest of Georgian, beyond Itelmen, lies in the “object version” marker. This is its analogue of the Basque “dative flag”, a morpheme that correlates with a dative added to a plain (in)transitive in the applicative construction (Harris 1981: chapter 6). (11a) shows the person prefix *m-* controlled by the direct object *me* in a plain transitive. In (11b), this prefix is controlled by the indirect object *me* in an applicative transitive, and the agreement complex includes also the version marker *i*. Thus Georgian dative displacement co-occurs with the version marker, just like Basque dative displacement does in the Oñate mode of

¹⁸ Georgian has a case-marking split according to tense: an ergative-absolutive system beside a nominative-accusative one, where absolutive = nominative. The agreement facts are identical in both, e.g. a direct object controls the same agreement whether nominative/absolutive or accusative. The accusative and the dative happen to be syncretic, but they can be told apart by the fact that the indirect object always retains this «dative-accusative», while the direct object changes it to the absolutive/nominative in the ergative system and under detransitivization. In the text, I speak in terms of the ergative-(dative)-absolutive system for brevity.

¹⁹ In intransitives the subject controls it, but unlike in Basque the morphemes are those controlled by the subject of transitives, i.e. under «ergative displacement» (cf. Itelmen, note 16): as if Basque had *noan* for *nindoan* ‘I went’.

²⁰ As for the number suffixes, any plural 1st/2nd person plural controls them, including the dative. For 3PL matters are complicated and variable, depending on subjecthood, case, etc.: see Tuite (1998).

formation (but with no “doubling”, since there is no dedicated dative agreement in Georgian).²¹

- (11) a. ninom me da-m-xat-a
 Nino.ERG me(NOM) PV-1SG.OBJ-paint-AOR
 Nino painted me (= a picture of me). (Nash 1995: 199)
- b. važam da-m-i-xat-a šeni tav-i (me)
 Vazha.ERG PV-1SG.OBJ-VER-paint.AOR your self-NOM me(DAT)
 Vazha painted you for me. (Harris 1981: 92).

5. Concluding notes

Taking stock across Basque, Itelmen, and Georgian, dative displacement has the properties in (12). I speak in terms of the EA (external argument of transitives) and O (direct object of transitives), with the understanding that the subject of intransitives is included under one or both of these whenever it behaves in the same way for agreement.

- (12) Dative displacement cross-linguistically.
- Basic agreement*: The dative takes control of both person and number from O, and also from EA that would control it when O is 3rd person (“ergative displacement”).²²
 - Contrast with ergative displacement*: The dative’s control of person and number O-type agreement contrasts with EA’s potential control of person alone, not number.
 - Second plural*: 3PL O may continue to control plural agreement, using an extra pluralizer in Basque, possibly the regular O-type one in Itelmen.
 - Dative flag*: may be retained (Georgian, some Basque), perhaps underlying always is.

²¹ It is not in fact clear that 3rd person datives undergo dative displacement. On the one hand, in ABS-DAT structures, the dative beats out the absolutive for the control of person agreement whether 1st/2nd or 3rd person: *m-i-nd-od-i* ‘I wanted you (pl.)’, *u-nd-od-i-(y)* ‘they wanted you (pl.)’, where *u* = the 3rd person prefix *h* of Table 4 + the «version» marker *i*. In both cases 2nd person *g*- is blocked by *m*-, contrast *g-i-nd-od-i* ‘you wanted me’ (examples from Hewitt 1995: 366, with *ginondi* constructed, cf. subjunctive *gindode*; for *u* = *h+i*, see Harris 1981: 90). On the other hand, the interaction 3rd person datives with 1st/2nd ergatives is not straightforward (Hewitt 1995: 133). In Itelmen, Basque, and Georgian, a 1st/2nd O under dative displacement the IO (so always in Georgian if there is an IO), pre-empt the external argument: in 1.EA > 2.O or 2.O > 1.EA, O wins over EA. This is so for Itelmen 3rd person datives under dative displacement as well. For Georgian 3rd person datives, overtness of the exponence of EA seems to matter: 2.EA > 3.IO > 3.O, where 2.EA person is Ø, the dative-controlled *s* appears (Itelmen pattern), *mi-s-c'er* ‘you will write to them’, but in 1.EA > 3.IO > 3.O, the 1.EA *v* wins out, *mi-v-c'er* ‘I will write to them’. Until the mid-twentieth century the latter was *mi-v-s-c'er* ‘I will write to them’, with both arguments agreeing, which suggests that 3rd person datives occupy a different slot from the 1st/2nd person exponence.

²² 1st/2nd person pronouns do not distinguish ergative, dative, and nominate/absolutive case morphology, but a 3rd person in their place would —hence the bracketed indications NOM, DAT in the gloss of *me*.

- e. *Personhood*: 1st, 2nd, and 3rd person datives can participate in dative displacement; participating 3rd person datives are more person-like than non-dative 3rd person (perhaps associated with being a dative generally).
- f. *Parametrization*: Two parameters that systematically govern dative displacement are the transitivity of the construction and the ϕ -features of the dative (Basque, Itelmen), the last possibly underlying the non-participation of 3rd person in Basque.

Examples of (12c), the second plural, have so far been only hinted at in Itelmen, and it is worth adding to the picture second plurals from systems where the indirect object of applicatives behaves fully like the direct object of plain transitives (subject of unaccusatives), as in English (*he baked them a cake, they were baked a cake*). Such languages sometimes provide an extra agreement for the direct object (subject) whose agreement the indirect object assumes (Baker 1996: 194-5): Wichita, Nahuatl, and Southern Tiwa, beside other rich-agreement languages that do not, like Mohawk. The extra agreement is in all cases impoverished with respect to regular agreement, for it reflects only number (and noun class in Southern Tiwa), not person: that is, it is a second plural. (13) shows the second plural *im* in Nahuatl. In Wichita, 3PL indirect + 3PL direct object use the same morpheme *?ak*, giving *?ak-?ak* (Rood 1978: 188), as with Basque that recruits both plurals from the same stock, sometimes reusing the same morpheme (see above).

- (13) Ni-mitz-im-maca in huē-hue'xōlo-'.
 1SG.SUBJ-2SG.OBJ-3PL.OBJ2-give IN RED-turkey-PL
 I give you the turkeys. (Baker 1996: 240 note 12)

The bundling of properties across unrelated languages in (12) suggests that dative displacement is a cross-linguistically coherent phenomenon, like the complex but recurring pattern of target-controller relationships exhibited by ergative displacement. It seems justifiable to add it to the typological repertoire of applicative structures, between the type that treats the indirect object in a fully accusative / absolutive manner, and the type that treats it in a fully dative / oblique manner. Placing dative displacement at their intersection, bundling its properties, and providing the necessary loci of parametric variation, is the task of the theory of the phenomenon. Steps in this direction are the generative treatments in Fernández (2002, 2004), Rezac (2006, to appear). Both for example start out with the same applicative structure as the one underlying non-displaced dative agreement, leading to the expectation that the "dative flag" should appear in both, if it is itself a reflex of applicativity. On such approaches, the patterns of agreement might derive from the general conditions on agreement dependencies that also underlie ergative displacement, the second plural from the need to Case-license the direct object, and variation according to the datives' ϕ -features from the interaction of case and agreement.

The different cross-linguistic settings of the phenomenon might also shed light on its links to other parts of the grammar, synchronically or diachronically. The French and Spanish 1st and 2nd person clitics are syncretic for dative and accusative case, and in Spanish non-clitic pronouns are as well (both are preceded by *a*). Holmer (1964: 87) sees here a connection to dative displacement. Such syncretism is ab-

sent from the morphology of standard Basque itself, as it is from Itelmen, although it fits Georgian. Some Basque dialects do go partly towards creating this syncretism for direct objects through an analogue of the Spanish “leísmo” phenomenon, by which animate direct objects are treated as dative for *both* case and agreement: *Keperi ikusi dio* ‘she (erg) saw *Kepa* (dat), *le vió a Kepa*’ for *Kepa ikusi du* ‘she (erg) saw *Kepa* (abs), *lo vió a Kepa*’. The origin and distribution of leísmo and dative displacement are distinct in Basque, with the latter but not the former found in Labourdin for example, but they do overlap in dialects like Lekeitio, Basauri, Irun, and Hernani, and they can interact in such a way as to nearly cobble together a single paradigm for all combinations of ERG- α .ABS / ERG- α .DAT-3SG.ABS out of the distinct ones proper to each. In the neighbouring Basque Spanish, leísmo is common (*le vi a Kepa*), but an analogue of dative displacement belongs to distinct varieties. This is *laismo* and *loismo*, whereby some 3rd person datives (depending on gender and number) are coded by the clitic-doubling system as accusatives: *A esa camisa la quite el cuello* ‘I removed the collar from this shirt’, *No lo doy ninguna importancia a eso* ‘I give this no importance’ (Fernández-Ordóñez 1999). These datives evidently retain the dative case marker *a*, which here it cannot be the animate accusative marker *a*. If clitics can be treated as agreement markers (Franco 1994), this resembles dative displacement, though an analysis in terms of a surface *le-lo/lla* syncretism might be tenable. This is not a possibility for Basque: its canonically dative and canonically absolutive agreement exponents use radically different positions, forms, and patterns of person-number splitting, and dative displacement can be doubled by canonically dative agreement.

References

- Albizu, P., 1997, “Generalized Person-Case Constraint”, in M. Uribe-Etxebarria & A. Mendikoetxea (eds.), *Theoretical issues on the morphology-syntax interface*, Supplements of *ASJU* 40, UPV/EHU, Donostia, 1-33.
- , 2002, “Basque verbal morphology: Redefining cases”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (eds.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Supplements of *ASJU* 44, UPV/EHU, Bilbao, 1-19.
- Anagnostopoulou, E., 2003, *The syntax of ditransitives*, Mouton de Gruyter, The Hague.
- Arretxe, J., 1994, *Basauriko euskara*, Basauriko Udala, Basauri.
- Azkue, R. M. de., 1923-5 [1969], *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- Baker, M., 1996, *The polysynthesis parameter*, Oxford U. P., Oxford.
- Béjar, S., 2003, *Phi-syntax: A theory of agreement*, Doctoral thesis, University of Toronto.
- Bobaljik, J. D., Wurmbrand, S., 2001, “Notes on agreement in Itelmen”, *Linguistic Discovery* 1.
- Bonet, E., 1991, *Morphology after syntax: Pronominal clitics in Romance*, Doctoral thesis, MIT.
- Collective, 2005, *Oñatiko aditz-taulak*, Badihardugu Euskara Elkarte, Oñati.
- Fernández, B., 2001, “Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren lekualdatzetik datiboaren lekualdatzera”, in B. Fernández & P. Albizu (eds.), *Kasu eta komunztaduraren gainean / On Case and Agreement*, UPV/EHU, Bilbao, 147-165.

- , 2002, “Komunztadura bikoitza eta lekualdatzea,” Ms., UPV/EHU.
- , 2004, “*Gustatzen nau gustatzen dizu*”, in P. Albizu & B. Fernández (eds.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 87-112.
- , Albizu, P., 2006, “Agreement doubling in Basque dialects”, Ms., <http://www.meertens.knaw.nl/projecten/edisyn/>
- Fernández-Ordóñez, I., 1999, “Leísmo, laísmo y loísmo”, in I. Bosque & V. Demonte (eds.), *Nueva gramática descriptiva de la lengua española*, 1, Espasa-Calpe, Madrid, 1317-1397.
- Franco, J., 1994, “The morphological, syntactic, and semantic agreement status of Spanish object clitics”, *ASJU* 27, 707-789.
- Harris, A., 1981, *Georgian syntax*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Hewitt, B. G., 1995, *Georgian: A structural reference grammar*, John Benjamins, Amsterdam.
- Holmer, N., 1964, *El idioma vasco hablado*, *ASJU*, Donostia.
- Hualde, J. I., A. Elordieta & G. Elordieta, 1994, *The Basque dialect of Lekeitio*, Supplements of *ASJU-UPV/EHU*, Bilbao.
- Lafon, R., 1961, “Sur les formes verbales basques qui contiennent un indice datif”, *BSL* 56, 139-162.
- Nash, L., 1995, *Portée argumentale et marquage casuel dans les langues SOV et dans les langues ergatives: l'exemple du géorgien*, Thèse de Doctorat, Université de Paris VIII.
- Ormazabal, J. & J. Romero, 1998, “On the syntactic nature of the *me-lui* and the Person-Case Constraint”, *ASJU* 32, 415-434.
- Rezac, M., 2006, “Agreement displacement in Basque”, Ms., Université de Nantes, <http://loargann.batcave.net/index.html>.
- , to appear, “ Φ -Agree and θ -related Case”, in D. Harbour, D. Adger, S. Béjar (eds.), *Φ theory: Φ -features across interfaces and modules*, Oxford U., Oxford.
- Rood, D., 1976, *Wichita grammar*, Garland, New York.
- Sagarzazu, T., 1994. “Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (eds.), *Euskal Dialektologiako Kongresua*, Supplements of *ASJU* 27, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 589-631.
- Trask, L., 1981, “Basque verbal morphology”, *Iker* 1, 285-304.
- Tuite, K., 1998, *Kartvelian morphosyntax*, Lincom, München.
- Yrizar, P. de, 1992, *Morfología del verbo auxiliar vizcaíno*, vol. 2, Euskaltzaindia, Zarautz.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, Euskaltzaindia, Pamplona.

SATZNAMEN DIRELAKOEN INGURUAN. ERLATIBOZKO PERPAUSETAN JATORRI DUTEN TOPONIMOAK AZTERGAI

Patxi Salaberri

NUP eta Euskaltzaindia

0. Sarrera

Aspaldi ezagutu nuen Patxi Goenaga, Gasteizko apezgaitegi zaharrean, Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea oraindik han zelarrik. Garai hartan Euskal Filologia bukatu berria nuen eta gidaria behar graduko txostena, «tesina» deitzen zena bideratu eta zuzentzeko. Patxik, erakutsi ohi duen gizalege eta adeitasunarekin, bere burua eskaini zuen aipatu lan horretarako, eta hari esker burutu ahal izan nuen *Koordinazioa euskaraz* zitzaion txostena, joskeraren arloan apailatu dudana ia idazki bakarra. Gero onomastikan hasi nintzen eta hor jarraitzen dut, nola-halako lanak eginez, eta arlo horretatik bete nahi ditut orrialde batzuk lehen irakasle nuen eta orain euskaltzainkide dudana Azpeitiko gramatikariaren omenezko libururako, betiere bi jakiteen arteko zubia —edo xubikoa behintzat— egin nahiz.

Hautatu dudana gaia hemendik kanpo (eta bertan ere bai, frankotan) *Satznamen* deitu ohi direnen sailekoa da, hots, esaldietan iturri duten leku izenen barrutikoa, zehazkiroago eta izenburuak dioenari jarraikiz, beste orduz erlatibozko perpausak izanik orain toponimo bihurtu direnen gainean idatzi nahi ditut lerro batzuk. Leku izenak idazteko era dela eta, denak egungo grafiarekin eman ditut, historikoak eta oraingoak, baina lehenetan, toponimoarekin batean hau ageri den data ematen dudanean, dokumentuan izkiriaturik dagoen bezala aipatzen dut. Era berean, grafia historikoa nahasgarria denean erran egiten dut.

1. Historia pixka bat

Mitxelena izan zen gure artean, beste arlo anitzetan bezala, honetaz iharduki zuen lehenetako bat, ez ordea lehena, aurreneko aldiz, errenteriarrek berak dienez (1982: 301), Juan Gorostiagak azaldu baitzuen badirela gure artean ere perpaus-toponimoak. Mitxelenak 1971ko artikuluan (266) hitz egiten du lehen aldiz *Satznamen* direlakoetz, ondoren 1982koan (301-302) eta gero 1985ekoan, G. Lopez de Gereñuk Arabako zerrendetan lehenbizi eta P. Lafitteren omenezko liburuan gero bildutako Kontrastako leku izenak aztertzen dituen lanean. Hondarreko artikulua honek, 1985ekoak, eragin handia izan du —euskalgintzan eragin handiak txikiak ohi badira ere— *Satznamen*-ez arduratu diren ondorengo ikertzaileen lanetan, Segurola, Salaberri, Garzia de Albizu eta Ugarterenetan behinik behin bai, eta Knörrenen ere bai, oker ez banaiz.

Errenteriarrek Urkiola aldeko *hilladazancelaya*, *Illadazancelay* 'hila datzan zelaia' eta Mendarozketako 1776ko *Diraquian* toponimo ustez moztua¹ dakartza gogora, baina dio ohikoenak, Kontrastako zerrendetan segurik, *-dana* bukaera duten toponimoak direla, eta behin, *Urcaacdirana*-n, plurala dagoela, azken hau, dudarik gabe, *Urkaak dirana* irakurri behar baita, hots, 'urkak diren lekua', 'urkak diren mendia'-edo adierazi nahi du, bestetako *Urkabe* edo *Urkamendi*-ren antzeko zerbait.

Mitxelenak Kontrastako *Aizluceadana* toponimoa 'haitz luzea dena' ulertzen du, 'lo que es la peña larga', 'donde está la peña larga' erdaraz, 'donde está Aizluzea' besterik ez bada bederen, eta Jimeno Juriok eta J. M. Lakarrak biltzen duten dokumentazioko *dont saillio el can con el ciervo* edo *sayllio el can con el ciervo*-ren eta *en el lugar o esta el recluso*-ren kidetako ematen du.² Artikulu honetan *Satznamen*-ak ezezagunak ez badira urriak behintzat badirela dio Mitxelenak, eta hori bera edo antzeko zerbait («there is minor evidence of toponyms that are Satznamen») errepikatzen du, euskal onomastikaz mintzo den lan orokor batean, J. Gorrotxategik (1995: 755).

Gipuzkoako maisuaren ondotik Seguroiak (1987) ukitu zuen erlatibo-toponimoen gaia, Amekoako leku izenak aztertzean. Honetarako, batez ere haren 1985eko lana eta Nafarroako ibar horretako toponimoak biltzen zituen L. Lapuenteren 1975eko artikulua hartu zituen oinarritzat. Zernahi gisaz, Amekoakoa ez ezik, Txulapaingo toponimia eta Zizurko zendeakoa ere ukitu zuen Azpeitiko iker-tzaileak, lehena M. Iriarte, J. Urdirutz eta M. Belaskok emandako datuen bitartez, eta bigarrena karrikaratu berria zen Jimenoren 1986ko lana baliatuz. Amekoako datuetarik 1771ko *Aizhunztuna* nabarmentzen du Seguroiak («*Aizhunztuna*, la peña de la yedra en bulgar» dokumentuan, Ameko, Abartzuza, Irantzu eta Ibirikuren arteko elkarrekikoan),³ euskal toponimian holakoak gutxitan agertzen direlako, eta arrazoi handia du.⁴ Honekin batean, 1590eko *Guibeladayzecana*, *Guibelaizecana* ere azpimarratzen du eta dio adizkia, *daizeka*, Leizarragak darabilen *iechequi*-ren moduko aditzari dagokiokela, eta, Mitxelenari jarraikiz, gehitzen du lotura honek Gipuzkoako *izeki* eta nafar otoitz batean ageri den *eraiçeten* kausatiboa dituela bermetzat.

Nire irudiko, aipatu adizkiaren azalpena egiteko denboran ongi hasten da, erraten baitu *gibela daizekan (leku)-a* dagokeela hor, oinarritzat *lekuari gibela daizeka* dukeena, baina gaineratzen du honelako itzuliak euskaraz ezinezkoak direla, eta nik

¹ Aldatzen 1695ean *Arriac atera* (NTEM XLV, 230) ageri da, zein, ongi kopiatua badago bederik, *Harriak ateratzen diren lekua*-ren tankerako baten laburtzea izan baitaiteke. Beste posibilitate bat, Zumarragako *Altzolako lizibajolekua* (Ugarte 1998: 227) eta Gorritiko *Otosaltaleku* (NTEM XLV, 143) toponimoen bidetik, *Harriakateraleku(a)*-ren irudiko zerbaiten laburpena ikustea da. Azpirotzen *Ynchaurraden* dago 1719an (ibid., 239), *Intxaurra dena* baten aldaera «inausia», «morroatu». Eskribauen hutsegite eta erratuak ez dira bakanak.

² Hauetako lehena Galipentzuko *El salto del ciervo* toponimoarekin aldera daiteke (Salaberrri 1994: 462). Cf., gainera, aitzineko oin-oharreko *Otosaltaleku*. Elgoibarren, 1452an, beste hau agertzen da (Aierbe & Etxezarraga 1999: 41): «Ytten la dicha tierra do se mato la cierva avaxo e ateniente al dicho pedazo de tierra de Adozar».

³ Aldazko *Besanga* eta *Besangaduna* biltzen da NTEM XLVen (230), 1704an. *Besanga*-k dukeen adieraz ikus OEH.

⁴ Nik ezagutzen dudan aurreneko lekukotasuna Albeiz eta Araiaren arteko Amamio herri hustuko 1481eko hau da: «... e dende arriba a la peña alta Arrizuloduna a la peña de Vburu [...] ancia la parte de Hallarte en derecho al mortuorio de Alzania», Pozuelo (2001: 60).

ez dakit zergatik, *gibela*-k toponimian, ehunka aldiz, herritik —edo «populaziogunetik», hau nolakoa ere baita— ikusirik atzean gelditzen den aurkintza baten alderdia izendatzen duenez geroztik. Kasu honetan aipatu eremuak ardua sua hartzen bazuen segur aski oihana zegoelako zen, eta, beraz, izendatuaren, adieraziaren aldetik ez dirudi inolako arazorik dagoenik aipatu interpretazioa onesteko. Hizkuntzari doakionez ere, **lekuari* (*aurkintzari, dermioari...*) *sua daizekan lekua* (*aurkintza, dermioa...*) oinarritzotik **sua daizekan lekua* aterako zen lehenbizi, eta *sua daizekana* dokumentatua —grafiak grafia— gero. Erretzearekin loturikako toponimoak anitz dira: Nafarroatik atera gabe *Burlata, Errea, Erredin, Erreta, Errekina, El quemado, La quemada, Los quemados* eta beste aipa daitezke, *Garmendia, Sukia* eta abarretan sartu gabe. Bestelako erlatiboa duen Lizarraga Ergoieneko egungo *Errerrikakoa* (*Errékekoa, NTEM VIII, 52*) 'erretakoa', 'erre dena' edo 'erre zena' ere ekar daiteke hona.

Segurolaren ondotik Salaberrik (1992: 639-640) ukitu zuen erlatibo-toponimoen gaia 1991n Bilbon izandako *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra* delakoan aurkeztu txostenean, eta gero berriz 1998ko lanean (77-78). Egileak, oraingo lan honetan ere ageri diren zenbait lekukotasunez lekora, dialektologiaren aldetik garrantzizkoak diren *bait*-en bidezko erlatibo toponimoak aipatu zituen aurreneko artikuluan. Jakina da Euskal Herriko ekialdean, Nafarroako eremu zabal batean eta Iparraldean ezagunak zirela eta direla honelako erlatiboak:

Cer da gracia? R. Jaungoicoaren adisquidetasumbat eguiten baicaitu Jaungoicoaren Semeac, eta heredereac ceruco gloriarendaco (Berriain 1626: 104).

Garbicenditu becatuen erreliquia, edo señaleac: gure ignorancias, eta descuidos guel-dicen baytire (Elizalde 1735: 77).

Salaberriren ekarpena *bait*-en bidezko erlatiboak (*Arizabaitacoa*, Garaioa, 1783; *Guerezibaitacoa*, Nagore, d.g.; *Gurbeabaita*, Lusarreta, 1758; *Ezpelabaitacoegüia*, Hiriberri, 1872) leku izenetan ere azaltzen direla nabarmentzea eta dialektologiaren ikuspuntutik garrantzizkoak izan daitezkeela azpimarratzea izan zen. Era berean, Mitxelenaoren oinatzetan, euskarazkoen kide diren erdal toponimoek egituratzat *donde + aditza* izaten dutela erran zuen autoreak, edo, bestela, *en el sitio de + izena*. Lehenaren etsenplutzat San Martin Unxeko *Donde murió el mozo* dokumentala eman zuen, zein *Muriomozo* bilakatu baita egun, eta bigarrenaren adibidetako San Martin Ameskoako *en el sitio del pomal* aipatu zuen. Hondarreko hau dela eta, orain, datu gehiagorekin, argitu nahi dut *Gurbiadana* ('gurbea dena' alegia; *gurbea* Nafarroan *poma, pomo* edo *pomero* ohi da, lehena fruitua eta bigarrena zuhaitza) dokumentatzen dela herri horretan 1706an (Artabiako pr., 19).

Salaberriren ondoren B. Garzia de Albizuk ukitu zuen, 1994an, erlatibo-toponimoen gaia (*dana* eta *dirana* adizkiak dituzten edo zituzten Ameskoako toponimoak), baina ikuspuntu linguistiko batetik baino gehiago historikotik aztertu zuen. Lan honen ekarpena ematen duen zerrenda bera da, nire irudiko. Egileak argi ikusi zuen Ameskoako *Satznamen*-en oinarrian gehienetan zuhaitz eta zuhamuxka izenak daudela (ikus beherago dioguna). Toponimoen aspaldikotasunari dagokionez, zaharrena 1607koa dela dio, zuhurtziaz halarik ere, data horren aitzineko dokumentazioa urria baita nafar ibarrean.

Ondoren, J. L. Ugartek (1995) landu zuen laburki perpaus-toponimoen gaia, Lezazpi eta Oñatiren artean zegoen *Donde murió el oso* leku izen dokumentalaren karie-

tara. Ikertzaile honek agirietan azaltzen den *Arçaeraena*-ren erdarazko baliokidetako ematen du (ikus beherago).

Azken aldi honetan H. Knörr arduratu da *Satznamen*-ez: ICOS-en 2005eko kongresuan, Pisan, aurkeztu zuen txostena perpaus-toponimoen inguruan, baina jakina da holako biltzarrak ez direla biziki egokiak gaietan sakontzeko, denbora gutxi izaten baitu hizlari bakoitzak. Argitaratu aitzineko azken bertsioa ez dugu ezagutzen, eta, horregatik, ezin dugu zehaztu gaiari nolako tratamendua ematen dion.

2. *Satznamenak*: egitura eta bilakaera

Toponimian *izena absolutibo mugatuan + adizkia + erlatiboa + artikulua* izan ohi da gehienik errepikatzen den egitura, erraterako *Txaraka txikitzen dena*, *Ura sortzen dena* (Uharte Arakil, *NTEM* XII, 165 eta 166), *Gatza ematen dakion iturria* ('[artaldeari, saldoari] gatza ematen zaion iturria', Unanu, *NTEM* VIII, 77) leku izenetan duguna. Aditza dela eta, eredurik arruntena *izan*-en orainaldiko singularreko hiru-garren pertsona duena da, Tebasako *Elorria dena* (1689), Ziaurrizko *Maspilla dena* ('mazpila dena', 'azpila dena') (1608) edo Enderizko *Mairuichaurra dena* (1615) toponimoetan agertzen dena. Kontua da aipatu ditudan hiru horiek xvii. mende-koak direla eta, oikonimian gertatzen denaren ildo beretik (*Arotzarena* > **Arotzarenea* > *Arotzenea*), egun, franko ardura, *izena + adizkia + erlatiboa + -ea* izaten dugula, toponimoak leku kasuetan ibiltzearen bortxaz (cf. Asteraingo 1665eko *Dorrondoco ychaurra denean*, 1683ko *Erreca bioc pacen diren lecuan* 'erreka biok batzen diren lekuan', Gazolazko *Alayz denean* 'Alaitz izeneko aurkintza den lekuan' [Jimeno 1986: 82, 88, 266] eta Izkueko *Beroquico alorra denean* [Jimeno 1989: 158]).

Beraz, *Haitza denea* (Aderitz), *Aldapa denea* (Arbizu), *Haritza denea* (Aroztegi),⁵ *Harizko denea* (Markalain)... aurkituko ditugu gehienetan egun, maizxko, euskaren bilakaeragatik, bokal arteko horzkari igurzkaria galdu eta bokal horien bakuntza burutu dela, eta artetan, gainera, bukaerakoa ere, inesiboan ageri dena alegia, desagertu dela, gorago aipatu dudan oikonimoaren kasuan (*Arotzenea* > *Arotzene*) agitu bezala: *Aldapania* edo *Aldapaania* (Arbizu, *NTEM* XII, 64), *Arizénia* (Aroztegi, *Ari-zadenea* 1855ean, *NTEM* L, 369), *Elizéne* edo *Amurgingo elizeenia* (hots, *Eliza denea* edo *Amurgingo eliza denea*, Uharte Arakil, *NTEM* XII, 137), *Ganbeláne* eta *Ganbeláneko aska* ('ganbela denea', 'ganbela deneko aska', ibid., 142), *Zubéni*, *Zubéne* ('zubia dena', Mugiro, *NETM* XLV, 174). Artetik errateko, nabarmentzekoa da leku izen hauetan guztietan *da* agertzen dela, gaur egun, zenbaitek behinik behin, *dago* ibiliko genukeen testuinguruetan: *Elorria dagoen (toki)a*, *Mazpila dagoen (dermio)a*, *Mairuixaurra dagoen (leku)a*, e.a.

Anue ibarreko Etsain herrian *Emazte hil zena* azaltzen da 1641ean (*emasteilcena*) eta 1644an (*emazteylçe*[]), eta irudi du Izkueko 1609ko *Sarats denekoa*-rekin (*Saras denecoa*, Jimeno 1989: 178), Uitziko 1710eko *Zubi denea*-rekin (*NTEM* XLV, 202, *Zubiéne* orain) eta Barindaoko 1719ko *Bide partitzen dirana* (*Bideparticedirana*, Garzia de Albizu 1994: 143) bat datorrela. Itxuraz Jimeno Juriok Asterainen bildu zuen

⁵ Toponimoaren ondoko azalpen hau ematen da (*NTEM* L, 36): «*Donde está el roble. Este paraje lo preside un majestuoso y solitario roble, rodeado por los prados que forman la zona más llana de Aróstegui*».

1683ko *Unze erriaren ondoan dagona* (1986: 142; ‘euntze, belar-soro herriaren ondoan dagoena’) aitzineko horietatik bereizi behar da: lehenetan **leku honetan emaztea hil zen* + *-en lekua* → *ø emaztea hil zen lekua* → *emaztea hil zena* → *emazte hil zena*, **leku honetan zubia da* + *-en lekua* → *ø zubia den lekua* → *zubia dena* → *zubia denea* → *zubi denea*, **leku honetan bideak partitzen dira* + *-n lekua* → *bideak partitzen diran lekua* → *bideak partitzen dirana* → *bide partitzen dirana* izan dateke bilakaera. Cf. *goseak pasatua* → *gosepasatua*, *harrak joa* → *harjoa*, eta toponimiako ondoko beste hauek: Markalaingo *Arizcoadena* 1686an / *Aizcodenia* 1894an, *Askodénia* egun; Azpirozko *Arriandiadena* 1720an / *Arriandidenecoa* 1717an (*NTEM* XLV, 237), Makhirriain Ezkabarteko *Eunzeadena* 1783an / *Eunzedenea* 1792an (*NTEM* LIX, 195), Beraizko *Lizarradenea* 1893an / *Lizardenea* 1901ean (*NTEM* L, 207), eta Olaizko *Gurbeadenecoa* 1712an / *Gurbedenea* 1893an (ibid., 208). Asteraingo toponimoaren eboluzioa, berriz, hau izan dateke menturaz: **Euntzea herriaren ondoan dago* + *-en euntzea* → *ø herriaren ondoan dagoen euntzea* → *euntze herriaren ondoan dagoena*. Hortaz, literaturan usu aurkitzen dugun *izenburu aurreratua absolutibo mugagabea* + *aditza* + *erlatiboa* + *artikulua* egitura dukegu,⁶ hots, eta adibidez, lekukotasun hauetan dagoen bera:

... *oroitzen diradela becatu eguin citustenes* (Berriain 1626: 123).

Aditzen da kondenatu zela, zeren etxathera eske ethorri zeikan pobre gose premian zegoenari ezpaitzioen bere mahai asetik, asetzekorik eman eta ez are elikatzeekorik ere (Axular, Villasante 1976: 263).

Jesus demonioa ta onelaco beste itzcuntza eta ezcontza infernuco itsusiac euscaldun ondo aci diranen aoan ceñ gaizqui diruditen! (Kardaberatz 1761, Altuna & Zulaika, 2004: 40).

... *eta au erraz izan diteque becatu larria, batezere guraso, eta ume onra onean vici diranen artean* (Agirre Asteasukoa 1978 [1850]: 63).

Harek eztitzen zuen iguzki ageri zenaren distira (Hiriart-Urruti 1972: 96).

Jimenok 1986ko lanean (124) artikulurik gabeko *Musquil denecoa ychaurraren ondocoa* dakar (Asterain, 1683; *muskila*-ren adiera ‘harri mukurua’ da), eta lan honetan jasotzen diren beste toponimo anitzetan bezala —ez denetan, ez hurbiltzekorik ere—, irudi du berriemailea, hots, ardantzearen, alorraren edo dena delakoaren eroslea euskaraz mintzatu eta notarioak ahal bezala transkribatu zuela hark erranikakoa, ez baitzuen lan erraza. Gauza bera edo bertsua agitzen da, adibidez, beste hauetan ere: *Legarreta çariqueguia aurquam* (*Legarretan, Zarikegiren aurka(n); Legarretan, Zarikegiren aurkasean...*), *Loperena ichaurra gañeco aldea* (*Loperenaren itxaurraren gañeco aldea* edo *Loperen itxaurraren gañeco aldea*), *Marcorena barazeco dachiola* (*Markorenaren baratzeakoari datxiola, Markoren baratzeakoari datxiola, Markoreneko baratzeari*

⁶ Badira euskal toponimian, halaz guztiz ere, hauetaz bestelakoak direnak, nahiz mugagabea egon: *Gari dario* (Zirauki, 1576, Ziraukiko pr., 3; Burutain, 1606, Uharte Eguesibarko pr., 42) edo Uitziko *Artadacar* (1702 eta 1712, *NTEM* XLV, 188), *Artakár, Astakár* bilakatua egun, segur aski *arto dakar*-etik, *arte dakar*-etik datorrelakoa guztiz ezin baztertu badaiteke ere. Bistan da, zernahi gisa, dokumentazioa ikusirik, ezin dela *Artabakar* arautu. Hauek *egur egin, ogi erosi*-ren modukoak dirateke, Asartako *Manacaracoles* (1689, Artabiako pr., 5) erdarazko toponimoaren gisakoak, Eulateko *Badariomarmatilla* (1698, Artabiako pr., 16; *marmatilla, barbatilla, marmaratilla* zuhamuxka baten izena da) delakoaz bestelakoak.

datxiola...), *Marcoren baraze gañe aldean* (Markoren baratzearen gañeko aldean), *Unzearen parean buztinaña* (Euntzearen parean, Buztinga(ñ)an)⁷...

Plurala singularra baino aise gutxiagotan azaltzen da perpaus-toponimo hauetan, baina inoizka aurkitzen dugu hala ere (ikus beherago). Zenbaitetan subjektua pluraleran dago, eta adizkia singularrean, seinale nolabaiteko ihartzea burutu zela, artetan segurik: *Gazarriac denecoa* ('Gatzarriak denekoa', Makirriain Ezkabarte, 1704, Uhartte Eguesibarko pr., 72), *Esquirozeneco guereciac denecoa* (Azotz, 1704, NTEM LIV, 185), *Guilladiac denecoa* (*gila*, *gilda* fruitu zuhaitza da, 'gindondoa', eta *giladia* horren multzokaria, *sagardia* *sagar*-ena den bezala; Ibiriku Eguesibar, 1705, NTEM XII, 74).

Iraganeko adizkiak ez dira ugariak erlatibo-toponimoetan, baina zenbait adiz agertzen dira: Etsaingo *Emazte hil zena*-z landara, *Jaunazenarena* zegoen Elon 1675ean ('jauna zenaren alorra', NTEM XXXVIII, 265), *Osauazenarena* Ibarzabal-tzan 1694an ('osaba zenaren alorra'; Salaberri 1996: 229), *Abadealsasuaerorizaneco-zuloa* ('Abade Altsasua erori zeneko zuloa') azaltzen da Bakaikun 1713an (Salaberri 1992: 640), *Gurbeacenecoa* Añezkarren 1737an (Jimeno 1992: 118), *Capanacenecoa* ('Kapana zenekoa') Iltzarben 1794an (Salaberri 1992: 639), *Lakunzarragalduzanzulue* (hots, 'lakuntzarra galdu zen zuloa') Etxarri Aranatzen 1807an (NTEM XII, 215), *Zurak zeutzan zabala* (1614) eta *Zurak zeutzan zelaia* (1612) Oñatin (Ugarte 2003: 57), eta *Gizona galdu zana* Tolosako dokumentazioan (ez dakigu zer datatan)⁸... Egun *Andres bota zaneko barga* 'Andres erori zeneko barga, haitza' (NTEM VIII, 30^o) dugu Ergoienerriko Dorrao herrian bizirik, eta *Diegoren karroa bota zana* ibar bereko Lizarragan (ibid., 51). Oñatiko *Basaurdia galdu zan erreka* eta *Gizona galdu zan erreka*, itxuraz, gaurkoak dira (Idigorasek bildu eta Ugartek aipatzen ditu, 1995: 709). xv. mendeko *Hartza eraena* eta *Jauna eraena* ere (ikus beherago) iraganekotzat hartu beharko ditugu.

xvii. mendez geroztik-edo biziki ugariak dira leku genitiboaren hondarkia duten erlatibo-toponimoak: Asteraingo *Domingoren ichaur sabalcoa denecoa* ('Domingoren intxaur xabalkoa denekoa'),¹⁰ *Erreca bioc pazen direnecoam* (sic) ('erreka biok batzen diren lekuan') esaldien irudikoak, zein **Domingoren itxaur xabalkoa deneko lekuan*, *Erreka biok batzen diren lekuan* (cf. *Erreca biok pazen diren lecuam* dokumentatua) osoen aldaera laburtuak baitira. Honelakoak ez dira biziro ugariak gure klasikoetan, oker ez bagaude, baina agertzen ez direla ere ezin erran: «... zuhaitz bat bere den-

⁷ Tankera berekoa da Azpirozko 1702ko *Artebakarradenarenaizearen aspicoaldea* (NTEM XLV, 237), menturaz 'arte bakarra denaren, haitzaren aspiko aldea' ulertu beharko duguna.

⁸ *Satzname* hau, beherago agertuko diren herri bereko beste izenak bezala, J. I. Elosegik eta I. Goikoetxeak Tolosako toponimia biltze-lanetan jasoa da. Emaitza bibliografian aipatzen dudana 2006ko liburua da. Honetaz landara bada, berebat, nik esku artean ibili ez dudana CDa.

⁹ Liburuan toponimoaren adiera 'la Peña de la que se tiró Andrés' edo 'la Peña de la que se cayó Andrés', bata zein bestea, izan daitekeela erraten da, baina bistan da bigarrena baizik ez daitekeela izan, bestela *Andresek bere burua bota zueneko barga*-ren moduko zerbait izanen genukeelako. *Barga*-k Sakanan duen erranahiaren berri jakiteko ikus lan bereko 33. orrialdea, edo NTEM XLVeko 215.a.

¹⁰ Hemen *xabalkoa* izenondoa izan liteke beharbada, egungo *handixko*, *erixko*, *ttipixko*-ren modukoa, baina, hola izatera *xabalxkoa* esperoko genuke, edo *zabalxkoa*. Izena ere izan daiteke, ordea; kasu honetan *xabalkoa* Uxuen, Zaraitzun eta bestetan agertzen den *zabala* 'baratza', 'euntzea'... izen arruntaren txikigarria dateke.

bora guztian ondoz eta erroz zure baratzean edo lurrean egon dena, azkenean bertzeren baratzeren edo lurrera makhurtuagatik, eta ebakitzen dutenean bertzeren lur hartara eroriagatik, zure izanen dela, eta ez eroririk datzaneko lurraren iabearen» (Axular, 241. Beltza nirea da). Egun Dorraoko Andres bota zaneko barga eta ibar berean dagoen Unanu herriko Ahuntzak jeixten diraneko zelaia ('ahuntzak jeixten direneco zelaia'), Ganbela daneko txuloa (ibid., 65, 76) ditugu, eta dokumentazioan ere azaltzen dira honelakoak, erran bezala: Xubit(t)oa deneko alorra (Otxobi, Jimeno 1990: 263). Bistan da, nolana ere, eta zehaztu dugun gisan, denekoa arruntaren oinarrian deneko lekua (alorra, aurkintza...) dagoela.

3. Perpaus-toponimoen oinarriaren karietara

Oinarria dela eta, erran dezakegu gehien-gehienetan zuhaitz, zuhaixka edo landare izena + *dana, dena, denea, denekoa, zena, zenekoa* azaltzen dela: *Abustu intxaurra dana, Albizuren intxaurra dana* edo *Albizu intxaurra dana, Artea dana, Artea dena, Artea denekoa, Astigarra deneko alorra, Azkarra dana, Azpila dana, Baratzetako harizko dena, Behengo intxaurra dana, Bengoetxeko intxaurra dana, Elexar motza dana, Elorri handia dana, Elorria dana, Elorria dena, Elorria denekoa, Ezpela dana, Gerezia dena, Gerezia denekoa, Giladiak denekoa, Gilda denea, Gorosti denea, Gurbea dana, Gurbea dena, Gurbea denekoa, Gurbea zenekoa, Haraitz handia dena ('haritz handia dena'),¹¹ Haraitza dana ('haritza dena'), Haritza denea, Harizko dena, Hurra dana ('hurritza dena'), Igun(t)zako arana denea,¹² Ilarra denea, Intsaurra dana, Intxaur denea, Intxaur gozoa dana, Intxaurra dana, Isatsa denekoa, Intsusa dana, Intsusa dena, Irasagar denekoa, Irasagarra denekoa, Itxaur txiki denekoa, Itxaurkoa dena,¹³ Itxaurkoa denekoa, Kerexa dana, Korostia dana, Lizar denekoa, Lizar motza dana, Lizarra dana, Lizarra dena, Lizarra denekoa, Mahatsa danea, Maiatza dana, Makatza dana, Mairuitxaurra dena, Mauruintsaurra dana,¹⁴ Maspila dena, Mazpila dana, Ollarana dana (zuhaitza?), Pago okerra dana, Pasaka dena, Paxaka denea, Planta denekoa, Sagarmina dana, Sagarra dena, Sagarra denekoa, Sagarzurria denekoa, Sandeloako intxaurra dana, Sarats denekoa, Saratsa denekoa, Sarria dana, Txaparra dana, Txaraka txikitzen dena, Udarea denekoa, Zelai intxaurra dana edo Zelaiaren intxaurra dana, Zugar denea, Zugar denekoa, Zugarra denekoa, Zuhatza dana, Zumar denea, Zume dena, Zumea dana, Zumea denekoa...*

¹¹ Errazkinen ageri da, 1716an: *Arayzandiadana* (NTEM XLV, 243). *Haraitza* 'haritza' dagoela argi samar uzten dute ondoko toponimo hauek: *Arayzmacurreta, Arayzti borcaiz* (Arizmakurreta, Ariztiburkaitz, ibid., 243). Uharte Arakilen *Lauareitz* leku izena dago, *Arizbakar*-en aldakan (NTEM XII, 128, 152).

¹² *Igunzaco aranadenea* (Beuntza, 1704, NTEM L, 195). Kasu honetan ez dakit seguru arana ala *harana* ulertu behar den, baina honelako toponimoetan ugarietak zuhaitzak direla ikusirik, uste dut zentzukoena arana-tzat hartzea dela. Cf. gainera, toponimo honekin lotutako *Ygunceatracendena, Iguntze atratzen dena* alegia (ibid., 196). Oraingoan ez dakit *Iguntze* bera ateratzen den ala *Iguntzeren* ateratzen den bidea-edo den azpian dagoena.

¹³ *Ichaurquadena* idatzia (Zulueta 1769, Eloko pr., 33, 48. NTEM XXXVIII, 77)

¹⁴ Irudi du *mairuitxaurra, mairuultxaurra* edo *mauruintsaurra* intxaur mota bat dela; Itza zendeako Atondo herrian ere agertzen da: *Mayru ilchaurra* (1581), *Mayru ychaurra* (1575) (Jimeno 1990: 132).

Bait-en bidezkoetan ere arruntenak fitonimoak dira: *Artea baita*, *Elorria baita*, *Ezpela baita*, *Ezpela baitako hegia*, *Ezpeltzeko zugarra baitakoa*, *Gurbea baita*, *Harrizta baitakoa*, *Lizarra baita*, *Pasaka baita*... Egia erran, landare izenez besterik ez dugu opatu kasu honetan, *Arteka baita* alde batera uzten badugu. Hemen, alabaina, 'arraila', 'arrakala' edo 'zintzurra' ez ezik, *arte* zuhaitz izenaren txikigarria ere ikus daiteke, apika.

Animalia izenak, piztienak batez ere, ez dira anitzetan agertzen, guk erabili ditugun datuetan: *Ahuntzak jeixten diraneko zelaia*, *Basaurdia galdu zan errekoa*, *Hontzak jotzen duena*, *Hartzta eraena* (ikus beherago), *Idiak etzaten dirana*, *Kokoaren behorra hil zeneko gaina*, *Otsoa dena* (*Osoa dena*, 1689, Tebas. Done Bikendi Haranean Ochoadana dago 1648an, Lopez de Gereñu 1989: 363), *Urdeak etziten diren euntzea*, *Urdeak etziten direnekoa*...

Etxeko lanekin, nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin... lotutako eleak, ordea, franko dira: *Arroa dana*, *Beheitiko ardantzea denekoa*, *Berokiko alorra denean*, *Diegorren karroa bota zana*, *Eskorte denea* ('artegia-edo dena'), *Euntza dana*, *Euntze denea* edo *Euntzea dena*, *Ganbela daneko txuloa*, *Ganbela denea*, *Ganbela deneko aska*, *Gatza ematen dakion zelaia*, *Gatzarriak denekoa* (sic), *Gonzalikoren soroa dana*, *Harrobia dana*, *Iturri deneko alorra*,¹⁵ *Langa denekoa*, *Larra dana*, *Larrea dana*, *Nobla denekoa* (*nobla* < *nobela*, 'ardantze landatu berria'), *Oihalak ikuzten dirana*, *Parrala denea* (*parrala* 'parra baratza', 'mahatsondo goratuak dauden baratza'), *Saro[i] itxia dana*, *Soro txarra dana*, *Urdeak etziten dire[n] euntzea*,¹⁶ *Urdeak etziten direnekoa*...

Etxe, baratze-alor nahiz kabalendako baitezpadakoa den ura edo urarekin zerikusia duten gauzak adierazten dituztenak ere ez dira gutxi: *Aska dena*, *Aska denea* edo *Aska denekoa*, *Baltsa denea*, *Iturri denea*, *Iturria dana*, *Iturria dena*, *Iturria denekoa*, *Larrustiko iturri denea*, *Linaputzua dana*, *Putzu dana*, *Putzu denea*, *Ugarka denekoa*, *Ur gazi denea*,¹⁷ *Ura sartzean dan zuloa*, *Ura sortzen dena*, *Ura hondatzen denekoa*.

Erljioarekin erlazioa dutenak ere badira, bereziki orain gutxi arte hain ugariak ziren hilerri, hilarri, gurutze eta ermita-elizei erreferentzia egiten dietenak: *Burnigrutzea dana* (Gollao, *Burnigruceadana* agirian), *Eliza denea*, *Ermita denea*, *Goiko elizea dana* (Kontrasta, *Goicoeliseadana* dokumentuan), *Gurutze dena*, *Gurutze denea*, *Gurutze deneko zelaia*, *Gurutze denekoa*, *Gurutzea denea*, *Gurutzea denekoa*, *Kru(t)zarria dana* (Eulate, *Cruzarria dana* dokumentuan; gurutzea dateke, Garzia de Albizuren arabera, 1994: 145), *Kanposantu denea*, *Matxindoko kanposantu denea*, *Saralegiko kanposantu denea*, *Zabaleko kanposantu denea* (laurak Nafarroako Gaintzan, egun; *NTEM XLVI*, 80-81, 85, 87), *Kurutzea dana* edo *Kurutza dana* (beste aukera 'bidegurutzea' ulertzea da), *Hilarria dana* (*Ylarriadana*, Artatza, 1710, Artabiako pr., 20; Garzia de Albizuk dioenez, 1994: 149, hilarria oraino han da).

Bestelako eraikuntzak ere azaltzen dira: *Borda denekoa*, *Borda zaharra denea*, *Erlategia dana*, *Errota dena*, *Errota denekoa*, *Harrizko zufia dana*, *Horma dena*, *Ikortea*

¹⁵ *Yurrienecoalorra* da dokumentuan azaltzen dena (1834, *NTEM L*, 206).

¹⁶ Agirian *urdeac* esiten dire *uncea* azaltzen da, *Urdeac eçeten dire ondo*-ren aldamenean, Subitzan (Jimeno 1987: 425).

¹⁷ *Urgasirénia* ebakitzen da egun Nabazko toponimo hau (*NTEM LIX*, 131), baina ez dago dokumentaziorik.

(< *idi + gortea*) *dena*, *Kapana denea*, *Kapana denekoa*, *Kapana zenekoa*, *Landabideko xubi(t)toa denekoa*, *Pareta deneko alorra*, *Teileria denea*, *Torrea denea*, *Urkaak dirana*, *Urkabe denea*, *Xubit(t)oa deneko alorra*, *Zubi denea*, *Zubi denekoa*, *Zubia denekoa*, *Zubiko denea*, *Zubito denea*, *Zufia dana*, *Zufikia dana* edo *Zufikoa dana* ('xubittoa dena')... Gollaoko *Gareadana* (1704), *Gariadana* (1840) toponimoen oinarrian garia egon daiteke, baina *garaia* ere ikus liteke, hots, lau zutaberen —edo gehiagoren— gainean eraikitako bihitegia (Garzia de Albizu 1994: 147).

Orografiarekin, erliebearekin, lurrraren nolakoarekin lotutakoak ere ugariak dira; *aldapa*, *barga*, *haitza*, *harria*, *lezea*, *zuloa*... behin baino gehiagotan aurkitzen ditugu: *Abade Altsasua erori zaneke zuloa*, *Aldapa denea*, *Andres bota zaneke barga*, *Arteka baita* (ikus gorago erran dudana), *Ataka denea*, *Erentzauko lezea dana*, *Gaztanzuloa dana*, *Haizerik ez duen harria*, *Harri handia dena* edo *Harri handi denekoa*, *Harri zabal denea*, *Harria denea*, *Harria duena*,¹⁸ *Haurra galdu zan harria*, *Lakuntzarra galdu zan zuloa*, *Lezea dana*, *Lezea denea*, *Lezea denekoa*, *Marga denea* (Nuin, 'barga dena' NTEM LIX-ren arabera, 135), *Troska denea*, *Zabala dena*...

Mitxelenak (1972: 266, 1985: 596) Lopez de Gereñuk (1989: 180, 207 eta 486, orain) biltzen dituen Kontrastako *Euridacar*, *Euridacargaina* (1540), *Uridacarena* edo *Ebridacarena* (1694, 1786) eta *Euridacarbea* (1749) aipatzen ditu, eta honelakoak gure artean bakanak direla erraten. Salaberrik (1998: 78) toponimo horietako batzuk azaltzen diren 1694ko agiriaren pasartea transkribatzen du: bertan *Euridacarrena* bi aldiz agertzen da, eta *Euria dacarrengaña* behin. Franko garbi dago, dokumentua ikusirik, azken bi toponimo hauen adiera 'euria dakarren lekua, aurkintza' eta 'euria dakarren aurkintzako gaina' dela, hots (*Euria dakarren lekua* →) *Euria dakarrena* (→ *Euri dakarrena*) aurkintzaren barnean, beste anitzetan bezala, beheko aldea eta mendia edo gaina bereizten ziren, behiala, dermio beraren barruan alderdi ttiki anitz izendatzen zirenez geroztik. Egun baserriak dauden alderdietan oraindik hola egiten da, baina bestelakoetan, bizimodu aldaketarekin, antzinako izenetako asko desagertu dira.

Zehaztasun irrika hau da, izan ere, *Satznamen*-ak sortzeko arrazoia, Garzia de Albizuk 1994ko artikuluan ikusi zuen bezala. Lopez de Gereñuk jasotzen duen *Euri-dakarbea* agertzeak, **Euri(a)dakarrenbea*-rik azaltzen ez den bitartean, oinarrizko toponimoa **Euri dakar* zela adierazten duke, hots, lan honetan berean aipatzen ditudan *Gari dario eta Artadakar*-en moduko toponimoa zela, aipatua izatean segur aski *Euri dakarrena* → *Euria dakarrena* bihurtzen zena. Hau honela izatera, *Euri dakarrena* aldaera *Euria dakarrena* baino zaharragoa dela pentsatu behar genuke eta artikuludun aldaera esaldiak bulkatua-edo jaio zela. Zentzu horretan mintzo da Azkoitian 1313an aurkitu dugun *Veydacar* «mortuero» (Aierbe 1993: 16) edo herri hustuaren izena, egun *Behi dakar* idatziko genukeena dela irudi baitu.

Beste batzuetan gertakari gogoangarri bat da perpaus-toponimoan atxikitzen dena, pertsona edo animaliarene baten heriotza ardura. Honelakoetan, *hil* aditzarekin batean *bota* 'erori', *erori* eta *galdu* ere kausitzen ditugu: *Abade Altsasua erori zaneke zuloa*, *Andres bota zaneke barga*, *Basaurdia galdu zan errekoa*, *Diegoren karroa bota*

¹⁸ *Arrieduena* biltzen da Aldatzen 1699an (NTEM XLV, 230); izenaren bukaerako *-e* horretaz kestone, cf. herri bereko 1709ko *Anime alorra* (ibid.) edo Gorritiko 1708ko *Iturrirebidecoa* (ibid., 246).

zana, Emazte hil zena, Gizona galdu zan errekoa, Gizona galdu zana, Haurra galdu zan harria,¹⁹ *Hila datzan zelaia, Kokoaren behorra hil zeneko gaina, Lakuntzarra galdu zan zuloa*, e.a. Gaixo abade Altsasuari zer gertatu zitzaion xuxen ez dakigu: menturaz bizirik atera zen zulotik, baina badaiteke, orobat, lakuntzarrari, Gipuzkoako haurrari edo Tolosako gizonari agitu zitzaiena agitu izatea, hots, desagertua, hila izatea. Era berean, ez dakigu Andresi zer gertatu zitzaion, ez eta Diegoren gurdia zer egin zen, zer bilakatu, baina, segur aski, ez bata ez bestea ez ziren onik aterako istripitik. Hamabosgarren mendeko bi lekukotan, bestalde, *ero* aditzetik atera datekeen *era-* dago (ikus beherago).

Nolanahiko gisan, irudi du zernahi ager daitekeela erlatibo-toponimo hauetan, nahiz ildo nagusi batzuk badiren, erran bezala. Adibidez, eta gorago aipatu ditudan *Jauna zenarena* eta *Osaba zenarena*-z landara, *Kruzea dana* edo *Kruzia dana* zegoen Kontrastan ('bidegurutzea dena' segur aski, *Krutzea dana* ebakia, Lopez de Gereñuren 1989ko laneko 1723ko *Cruchadana*-k idarokitzen duenez), *Legua denea* dago orain Arribe-Atallun (*Leguanéa* ebakia, *NTEM XLVI*, 43), *Mojonadena* 'mugarria dena' zegoen Añezkarren 1827an (Jimeno 1992: 129), *Mugadenecoa* Larragetan 1879an (ibid., 357), *Muga denea* dugu egun Arbizun (*Mugania*, *NTEM XII*, 80), *Mugarri txiki denea* Arribe-Atallun (*NTEM XLVI*, 45), *Urdenats deneko triguarria* Uharte Arakilen... Bestalde, oinarrian toponimoa ere azal daiteke, hots, espezifikoa, izen berezia: *Alaitz denean* (Gazolatz), *Oitia dana* (Kontrasta)...

4. Satznamen-ak eta dialektologia

Perpau-toponimoak txoil erabilgarriak dira *dana / dena, diranak / direnak* isoglosa finkatzeko denboran, batez ere euskara galdu den lekuetan, bestelakoetan hizkera bizira jo beste lanik ez baita hartu behar egun ibiltzen denaren berri jakiteko. Hortaz, Arabako Kontrastan 1698an ageri den *Arroa dana* (segur aski lurrak ematen zuen laborearen neurria adierazten zuen; cf. Lusarretako 1788ko *Gaitzurualorra, Gaitzurualorra* 1858an, edo Aroztegiko egungo *Hamabi erreguko alorra, NTEM L*, 38), Galbarrako 1691n *Aiza dana* ('haitza dena'), Alda-Uribarri Haraneko (d.g.) *Sagarmiadana*, Ekalako 1686ko *Araiza dana* ('haritza dena'), Barindaoko 1688ko *Azcarradana*, San Martingo 1706ko *Gurbiadana*, Aranaratzeko 1688ko *Zumeadana*, 1691ko *Elorria andia dana*, 1709ko *Eunzadana* ('euntzea, belar-soroa dena') eta Gollaoko 1704 *Zuficoadana* toponimoek argi eta garbi adierazten dute Arabako ekialdean eta Nafarroako mendebaldean *dana* ibiltzen zela eta ez *dena*, eta hain segur, hauekin baitan *diranak* eta *ziranak* ere erabiltzen zirela, ez ekialderagoko *direnak* eta *zirenak*.

Zentzu berean mintzo dira Kontrastako *Urcaacdirana* eta Zudairiko 1687ko *Oialac ycuztendirana* (Artabiako pr., 4). Hondarreko leku izen hau interesgarria da *dirana* azaltzen delako lehenik, eta *iku*zi 'urarekin garbitu' aditz egun bazterrekoa antzina Ameskoabarrenean ibiltzen zela argi adierazten duelako gero.²⁰ Bestalde, Artatzako

¹⁹ Luis Mari Zaldia urnietarrari zor diogu datua.

²⁰ Cf. Itsasoko 1550eko pasarteño hau: «... la pieca de yrucubieta [...] otra pieca llamada Comportacoa Yten en Ytur aguirrea que tiene otra pieca [...] otra piccita de tierra en la parte llamada equisubia Otra pieca cabo el Rio donde los paños laban que es descendiente de los dcos. de miquelxearena de ychasso» (Atarrabiako pr., 1, 22).

testuak toponimiaren emana berresten du: «*Gouroc baino gueio diranac*» (Salaberri 2004: 538).

Lan honen hasieran erran dugun moduan, *bait*-dun toponimoek agertzen diren lekuetako hizkeren «ekialdekotasuna»ren berri ematen digute. Alderdi honetatik, garrantzizkoa da Orbaibarko Leotz herrian *Elorria baita* aurkitu izana.

5. Erelatibo-toponimoen hedaturaz kestione

Arabán, Lopez de Gereñuren 1989ko lanean, lekukotasun argi hauek kausitu ditut: *Arteadana* (Done Bikendi Harana, 1634), *Ascabacochadana* ('azkar bakarra dena' segur aski, 1722, *ibid.*), *Bagadan* (1750), *Bagadana* (xvii. m., *ibid.*), *Bustinadana* (Bikuña, d.g.), *Crociadana*, *Curceadana* ('bidegurutzeta dena' itxuraz, d.g. lehena, 1732koa bigarrena, Musitu. *Crucearana*, *Curcearana* ere bazen, alabaina, herri honetan), *Curceadana* (Urabain, 1732), *Echachoadana* eta *Ochoadana* (Done Bikendi Harana, 1708 eta 1648, hurrenez hurren), *Elejarmozadana* ('lizar motza dena', *ibid.*, 1648), *Escarradana* ('azkarra dena', *ibid.*, 1792), *Gastanzuloadana* (Izki, 1806), *Iturriadana* (Done Bikendi Harana, 1648), *Leceadana* (Araia-Zalduondo, 1719), *Queresadana* ('gerezia dena', Done Bikendi Harana, 1808), *Sagarminadana* (Alda, Uribarri Harana, d.g.), *Sarriadana* ('sarria, zuhaiztia dena', Durruma, 1625), *Uresarceandansulua* ('ura sartzen den zuloa', Gorbeia, d.g.), *Urquiadana* (Uribarri Harana eta Bikuña, d.g.), *Urradana* ('hurra, hurritza dena', ustez, Alda, d.g.), *Zubidana* (Lagran, d.g.). Agurain aldean (Gonzalez Salazar, 1987) *Chorradana* (Ozeta, Etura), *Ilarra adana* (eta *La Ilarra*, Azilu) eta *Ramariarana* (Egileor, «donde estaba la ermita», *Andra Maria dana* beharbada) ditugu eta ez da zail izanen ale gehiago biltzea.

Probintzian gorago aipatu ditudan Mendarozketako *Dirakian* toponimo moztua, Legazpiko *Zurak zeutzan zabala* eta *Zurak zeutzan zelaia*, Oñatiko *Basaurdia galdu zan errekia* eta *Gizona galdu zan errekia*, Urnieta aldeko *Haurra galdu zan harria* eta Tolosako *Gizona galdu zana* ditugu. Hauetaz landara, *Atea dana*, *Burnigurutzedanea*, *Haritz luzea dana*, *Harrobia dana*, *Liñaputzua dana*, *Pago okerra dana*, *Putzu dana*, *Soro txarra dana* daude Tolosan (Elosegi & Goikoetxea 2006: 81, 88 eta Udalaren webgunea). Bizkaian Mitxelena aipatu zuen *Hila datzan zelaia* dago, eta Gorbeia aldean, baina Araban, aipatu dudán *Ure sartzean dan sulua* dialektologiaren aldetik interesgarria. Arrasateko *idiak kurri zitezkean zelaia*-z ikus beherago diodana.

Lepoa eginen nuke, idazle ezagun batek *Uitzi* toponimoaren etimologia azalpena egitean zioen bezala, sakonki ikertuz gero Araban, Probintzian eta Jaurerrian *Satznamen* gehiago aterako lirakekeela, baina apika zuhurrena gaztaren euskarria jokoz kanpo atxikitzea izanen da, aipatu idazleari gertatuko zitzaiona, norbaitek enbidioa eduki izan balio, gerta ez dakidan. Iparraldea, sail honetan ere, *terra ignota* da niretako eta ikerketak aitzina egiten ez duen bitartean ezin erran gauzak mendiez haraindian nola dauden. Zernahi gisaz, espero izatekoa da egoera Nafarroa Garaiko ekialdean bezalatsukoa izatea, hots, gehienbat *bait*-en bidezko erlatiboak opatzea.

6. Perpaus-toponimoen erdarazko baliokideez

Erdaraz, gorago erran bezala, anitzetan *donde* + *izena* agertzen da: *Donde el nogal*, *Donde la fuente*, *Donde los Pomales*, *Donde los robles*, *Donde San Esteban*... Bestela

donde + *aditza* + *izena* aurkitzen dugu; adibidez, Jimenoren 1986ko laneko Asteringo *Urdeak etziten direnekoan* horren itzulpena, edo hurbileko bertsioa behintzat, *Donde duerme el ganado de cerda* da herri berean. Beste ale batzuk: *Donde cayeron los bueyes de Otegi*, *Donde crió la loba*, *Donde descansa el ángel*, *Donde murió el maestro*, *Donde murió el mozo*, *Donde salta el agua*, *Donde se echa el agua*, *Donde se hunde el agua*, *Donde se reza la salve*²¹... Ikusten den bezala, denak dira gogoan hartzeko moduko gertakizun zenbait biltzen duten toponimoak, euskarazkoetan agitzen den modu berberean. Batzuk zaharrak direla garbi dago, euskarazko leku izenen itzulpenak, baina berriak ere badira, jakina, erraterako Arrietako (Iruraitz-Gauna) *Donde para el auto* (Gonzalez Salazar 1987: 107).

Behin edo beste *aditza* + *izena* hutsa da egitura: *Saltalagua* (Bikuña eta Munain, egun, Gonzalez Salazar 1987: 127 eta 129); cf. aipatu ditudan *Donde salta el agua* eta *Ura sortzen dena*. Zenbait aldiz dokumentazioan perpaus-toponimoa edo honen irudiko azalpena dago erdaraz, eta egungo euskal toponimoa bestelakoa da, ez *Satzname*-a: *cerro donde suelen estar los lobos* -> *Otsamuño* (Legazpiko ibarrean, Ugarte 1995: 710), *donde se juntan los dos arroyos* -> *Trukullu* (Ururkullu-tik Ugarteren arabera, ibid.), *do solían iaser los bueyes* -> *Idin deskantsalekue* (ibid.).

7. *Satznamen*-en aspaldikotasuna dela eta

NTEM liburu bilduman behin eta berriz erraten da perpaus-toponimoak berriak direla, toponimia nagusian ondorengorik utzi ez dutelako. Gorago ikusi dugun moduan, Garzia de Albizuk azaltzen du aurreneko *Satzname*-a, Ameskoan, 1607an aurkitu duela, baina gehitzen du bertako dokumentazioa ez dela askoz lehenago hasten. Nik ezagutzen dudan erlatibo-toponimorik zaharrena Araba, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugakoa da, 1406. urtekoa (Goikolea & Iñurrieta 1998: 11), ez bart arratsekoa beraz:

... e dende al zerro de pago Bacoizaga [...] e dende a Urrutola al lugar que llaman Jauneraena e dende a Viozcorna.

Hemen garbi dago *jauna* dugula, baina tartekoa ez da hain argia. Badaiteke, *Satznamen*-etan *hil*, *galdu*, *erori* eta beste ohikoak direnez gero, *ero* 'hil' *aditza* izatea (cf. *RS*-eko 89. atsotitza: *Otsailgo euriak eraiten dituz onzoeriak*, Lakarra 1996: 274-275), baina, nolana ere, bukaerako *-la* osagarria ez da biziro egokia, erlatiboa espero genuen lekuan. Pentsa daiteke *Jauna eraena* 'jauna ero ebena', 'jauna hil zutena' moduko bat dagoela azpian? Baietz irudi du, urte batzuk beranduago, 1430ean, hau aurkitzen baitugu Oñati aldean (Aierbe 1995: 53):

... el cerro de entre Hocheagorosea e paguola [...] fasta los montes e termino e montes de Onnati e el lugar llamado Jaunaeraena.

Lakarrak, aipatu lanean (291), *RS*-eko *ereçan* aoristoaren oinarrian (*Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian / El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia*) *ero* + *ezan* dagoela dio, eta, bide beretik, nahiz bokal elkarketaren emaitza batean eta

²¹ Lizarraga Ergoienan honen iruditsua den *Errezatzeko bargagaina* 'errezatzen den haitzaren gaineko aldea' dago (*NTEM* VIII, 52).

bestean desberdina den, *eraena*-ren azpian **eraeena* < *eraebena* < *ero ebena* dagoela kontu egin liteke beharbada. Beste aukera bat aditz honek forma trinkoak bazituela pentsatzea da, alegia, *eraena*-ren oinarria **eraebena* ez, baizik *ero* aditza + *-e* pluralgilea + (*n* iraganekoa) + *-(e)na* erlatiboa osagaien batuketa zela kontu egitea, *egien*-en moduko bat alegia, erlatibo-artikuluz horniturik. Mendebaldeko toponimia zaharrean, Erdi Arokoan batez ere (*Landaeta*, *Yraegui*, *Yraeta* Aretxabaletan, *Goronaeta*, *Herrotaeche*, *Ocaheta* Arrasaten, *Ascaeta*, *Debaeche*, *Errlaete* Deban, *Arbiascaeta*, *Tabiraeta*, *Voluaeta* Durangon, *Congaeta*, *Errotaeta*, *Olaeche*, *Thellaeche* Elorrión [baina *Arançaeta* eta *Arançeta*, *Gaçaeta* eta *Gaçeta* batera herri berean, hauek franko berandu, 1494an eta 1504an hurrenez hurren], *Ormaechea*, *Varaenda* Markinan...), maiz opatzen dugu *-a* + *e-* > *-ae-* multzoa, oraindik Arabako *Olaeta*, *Ozaeta*-n (*Ozeta*, *Oleta* arauturik euskaraz) edo Muxikako *Ormaetxe*-n dagoena. Toponimiatik kanpo ere kausitzen dugu, jakina; cf., etsenplu pare bat besterik ez emateagatik, Lazarragaren *comarcaetaco*, *comarcaetan*. Bestalde, eta bistan denez, **eraen* horrek aoristo balioa zukeen, ez baita harritzekoa xv. mendearen lehen erdian (honetaz ikus Lakarra 1996: 177-179).

Agiri bilduma berean (Aierbe 1995: 133 eta 135, 1483. urtea) Legazpiko ibarreko «... en el lugar llamado *Arçarraena*» iluna biltzen da lehenbizi, eta honen aldakan «... en el lugar llamado *Arçaherahena*», zein, bistan denez, Oñati aldeko *Jaunaeraena*-rekin bat baitator, ezbairik gabe. Aldea batean *jauna* eta bestean *hartza* izatean datza. Ugartek (1995) *Arçaeraena* eta *Donde murió el oso* toponimo dokumentalak bat-bertzat hartzen ditu, eta *Jaunaeraena* (egun *Jandoain* Legazpin, *Jaondo* Oñatin) ere osaera berekotzat iruditzen zaio, nahiz erdarazko kiderik ez izateak seguru mintzatzea galerazten dion. Zernahi dela, euskaraz *ero* aditza iragankorra izan da beti, eta, horregatik, irudi du *Donde murió el oso* edo **Donde murió el señor* baino egokiagoak liratekeela *Donde mataron el oso* eta **Donde mataron al señor*, baina, nolahi ere, datuak hor daude eta beude.

1469. urtean ere bada erlatibo-toponimo itxura duen beste lekukotasun bat, Alzaniakoa, baina ez da argi-argia; hau da pasartea (Pozuelo 2001; 381):

... asta donde el mortuero de Olça donde se juntaban las dos agoas, encima el balle de Janlopeasteysarana,²² donde dizen Urhucullua [...] desde la peña de Arllaunbe [...] a la peña de Oreyndacoçaena [...] fasta la peña de Oreyndacoçaena [...] el lugar llamado ururcullua.

Badirudi *orein* artikulugabea dagoela oinarrian (cf. gorago aipatutako Galipentzuko *El salto del ciervo*, Izkoko *Oreinzuloa* eta *Oleta* Orbaibarko *Oreinate*; Morionesko *Oreingaña*, *Oreingibela*, *Oreingibelgaña* ere multzo berekoak dirateke menturaz. Ikus Salaberri (1994: 462 eta 697). Mitxelenak Iruñe ondoko *Ororbia*-ren oinarritako ere *orein* proposatzen du; beste osagaiak *ibi* eta artikulua dira errenteriarren arabera; ikus AV, 496 eta FHV, 418-419 eta 486). Bigarren zatia datekeenak, *-dacoçaena*, *-dacoçaena* delakoak erlatiboz hornitutako adizki trinko baten itxura du, baina burmuinak higatu eta zulaturik ere zaila izanen zaio edonori jatorrizko aditza zein den asmatzea. Izan ere, eta dokumentuan *peña*

²² Honen oinarrian *Jaun Lope Asteis arana* (hots, *Jaun Lope Gasteiz harana*) dago, dokumentuan pittin bat behehitxego ageri den *Jaunlopeasteizarana*-k argitzen duenez.

dela erraten baita, uste dut egokiena oinarrian *Oreinda* toponimoa (cf. *Aranda*, *Bizkarda*, *Legarda*...) + *-ko* + *haitza* (desitxuratua) + identifikatu gabeko osagaia ikustea dela. Erlatibodun adizkirik baldin bada toponimoan, *-ena* horren azpian egonen da.

Arrasaten 1475ean aurkitu dudan lekukoa, bestalde, seguru-segurua da; honela dio testuak (Crespo et al. 1996: 443): "... *la pieça de tierra que ellos tenian labrrado* (sic) *çerca de Ydiacurrçitesqueançelaya*".

Ondoko orrialdeetan berriz azaltzen da:

Este dia, fallaron que tenia el dicho Martin de Salturri entre la heredad que el dicho Miguel ha comprado e la pena de cabe el campo de Ydiacurrizatezqueançelaya (ibid., 1476, 464).

... *por partes del prado de Ydiacurrisatesqusancelaya* (sic; segur aski *s* ulertu du transkribatzaileak dokumentuko <e>, baina jatorrizkoa ikusi ezean ezin jakin hala den; ibid., 470).

Ormaetxeak ere biltzen du toponimoa (1996: 228-229), lehenengoz baina ez oso era argian 1464an, eta gero 1476an (*el campo de ydiac urri çatesquean çelaya, el prado de ydiacurrçatesqueançelaya*) eta 1477an (*çerca de Ydiacurrçitesqueançelaya*). Ikusten den moduan, *-a* / *-i*- aldizkatzea dago lekukotasun hauetan ere.

Hau guztia ikusirik, garbi dago *idiak kurri zitezkean zelaia* edo *idiak kurri zitezkean zelaia* dugula, irudiz egungo *idiak korri zitezkeen zelaia* bera dena, baina ez nago ziur horrela ote den. Perez Lazarragakoak hau dakar (etzana nirea da): «Onela bada Doristeoc eta Sirenak eguin even euren byajea / areanda Silvero egon lecuan *el çitezqueano*», oker ez banaiz egun honela erranen genukeena: Honela bada Doristeok eta Sirenak egin zuten beren bidaia / harik eta Silvero zegoen lekura²³ *heldu ziren arte*. Beraz, eta hau hola bada, Arrasateko lekukotasunean 'idiak korritu ziren zelaia' ere izan genezake, 'idiak korri zitezkeen zelaia' ez ezik. Hemen aintzat hartu behar da, ikusi bezala, *Satzanamén*-etan iraganeko adizkiak badirela, baina ez, dakidala, ahalerakorik. Honek 'idiak korritu ziren zelaia' ulertzera bulkatzen nau; kasu honetan, antza, ez da «idiak lasterka ibili ziren zelaia» adierazi nahi, «idiak toreatu ziren zelaia»-edo baizik (cf. espainoleko *correr* 'lidiar' eta *corrida*). Toponimoa sortzearen arrazoia, beharbada, zezen kontuetan biziro jantzirik ez banago ere, idiak toreatzea hagitz egikari ohoragarria ez izatea dateke. Ez jakinki nik.

Mitxelena aitpatzen duen Bizkaiko *Illadazancelaya* toponimoa 1498an azaltzen den *Yladaçan celeya, Yladaçan çelaya* (Bazán et al. 1999: 8-9) bera izanen da,²⁴ grafiak desberdinak badira ere:

... *de la peña de Anboto al sel de Asunça e Arriluçeaga al sel de Yladaçan çeleya.*

... *so el dicho sel de Avspaçio fasta la dicha tierra de Aramayona e desde al dicho logar de Arriluçeaga e de ende al dicho sel de Yladaçan çelaya.*

²³ Arabako idazleak inesiboa erabili ohi du *heldu* aditzarekin, ez *adlatiboa*. Bestalde, *çatezqueala* singularreko bigarren pertsonan darabil: «... *nic prometietan deusut eçe laster osatu çatezqueala daucaçun gaxaesun orretaric*».

²⁴ Cf. Legazpiko 1483ko hau (Aierbe 1995: 124): «... *e dende adelante al otro mojon que esta donde iasyan las maderas*».

8. Bukatzeko

Uste dut garbi gelditu dela, honaino ikusitakoarekin, erlatibo-toponimoak aski ugariak izan direla gure artean eta oraindik ere hala direla, eta, beraz, *Satznamen* hauen arrarotasun edo bakantasunaz erran dena alde batera utzi behar dela.

Perpaus-toponimoek duten banaketa geografikoa hobeki zehaztu behar da, datu gehiagorekin, baina Hegoaldeko lau herrialdeetan agertzen direla oinarri sendoz baieztatu daiteke, nahiz ez diren ibar eta leku guztietan era berean eta maiztasun berearekin azaltzen. Honen arrazoa azterkizun dago oraino. Azterkizun dago, halaber, Iparraldea, eta, Hegoaldean, oraindik lantegi zabala dago ikertzaileen beha, Bizkaian partikulazki baina baita Araban eta Gipuzkoan ere. Geroztik, badago oraino zer sakondu eta non jostatu.

Laburdurak

d.g.: datarik gabe.

ICOS: *International Council of Onomastic Sciences*.

NTEM: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*. Ikus Jimeno Jurio, bibliografian.

Pr.: protokoloak.

Bibliografia

- Agirre Asteasukoa, 1978 [1850], *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldia*, edizio facsimilea, Euskal Klasikoak 4, Hordago, Donostia.
- Aierbe, M. R., 1993, *Documentación Medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m.s. XIII-1500)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 45, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , 1995, *Documentación medieval del archivo municipal de Legazpia (1290-1495)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 60, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , & Etxezarraga, J., 1999, *Archivo municipal de Elgoibar (1346-1520)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 94, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Axular, 1643, *Gero*, Luis Villasantek paratu edizioa, Editorial Franciscana Aranzazu, Usurbil.
- Bazán, I. et al., 1999, *Colección documental de la cuadrilla alavesa de Zuia. I. Archivo municipal de Aramaio*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 93, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Beriain, J., 1626, *Dotrina Christioarena Euscaras*, Iruñea. Erdarazko titulua *Dotrina Christiana* da.
- Elizalde, F., 1735, *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, Iruñea.
- Crespo, M. A. et al., 1996b, *Colección documental del archivo municipal de Mondragón. Tomo IV. (1471-1500)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 69, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Garzia de Albizu, B., 1994, "La sufijación '-dana' y '-dirana' en la toponimia de Amescosa", *FLV* 65, 139-159.
- Goikoetxea, I. & Elozegi, J. I., 2006, *Tolosako leku izenak*, Tolosako Udala.
- Goikolea, F. J. & Iñurrieta, E., 1998, *Archivo municipal de Salvatierra-Agurain. Tomo II. (1401-1450)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 83, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

- Gonzalez Salazar, J. A., 1987, *Toponimia menor de Salvatierra*, Cuadernos de Toponimia 4, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Gorrotxategi, J., 1995, "Basque names", *Namenforschung. Name Studies. Les noms propres*, R. Eichler, G. Hilty, H. Löffler, H. Steger & L. Zgusta arg., Berlin - New York, 747-756.
- Hiriart-Urruti, J., 1972, *Zezenak Errepublikan*, P. Lafittek paratutako argitalpena, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- Jimeno Jurio, J. M., 1986, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Onomasticon Vasconiae 1, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1987, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Onomasticon Vasconiae 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1989, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Onomasticon Vasconiae 3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1990, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Onomasticon Vasconiae 6, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1992, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin*, Onomasticon Vasconiae 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (zuz.), (1990etik aitzina, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra (NTEM)*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- Kardaberatz, A., 2004 [1761], *Eusqueraren berri onac*, P. Altunak eta E. Zulaikak paratu edizio kritikoa, Euskararen lekukoak 23, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Lakarra, J. A., 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta Edizioa*, Euskararen lekukoak 19, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Lapueña, L., 1975, "Toponimia amescoana", *FLV* 21, 393-410.
- Lopez de Gereñu, G., 1983, "Topónimos de Contrasta", *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2, Euskaltzaindia, Bilbo, 415-423.
- , 1989, *Toponimia alavesa seguido de Mortuorios y despoblados y Pueblos alaveses*, Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mitxelena, K., 1971, "Toponimia, léxico y gramática", *FLV* 71, 241-267.
- , 1982, "Sobre la lengua vasca en Álava durante la Edad Media", *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz, 299-306.
- , 1985, "Algunos nombres de Contrasta", *ASJU* 19: 2, 595-602.
- , 1990 [1977], *Fonética histórica vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, bigarren argitalpena.
- , 1997, *Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia, bosgarren argitalpena.
- Ormaetxea, J. L., 1996, *Arrasateko toponimia*, Onomasticon Vasconiae 15, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Perez Lazarragakoa, J., 2004 (c. 1567), *Juan Perez de Lazarraga Larrea Dorretzeko jaunaren eskuizkribua [1564-1567]*; Gipuzkoako Foru Aldundiak <http://www.gipuzkoakultura.net/lazarraga> helbidean ezarri zuen sarean.
- Pozuelo, F., 2001, *Documentación municipal de la cuadrilla de Salvatierra: Municipios de Asparrena y Zaldondo (1332-1520)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 106, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Salaberri, P., 1992, "Toponimia, dialektologiaren ikerbide", *Nazioarteko Dialektologia Bilzarra. Agiriak*, Iker-7, Euskaltzaindia, Bilbo, 619-645.
- , 1994, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Onomasticon Vasconiae 11, Euskaltzaindia, Bilbo.

- , 1996, “Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez”, *FLV* 72, 223-234.
- , 1998, “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, *Nafarroako Hizkerak*, I. Camino arg., UEU, Bilbo, 49-87.
- , 2004, “Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa”, *FLV* 97, 537-554.
- Segurola, I., 1987, “Notas de toponimia amescoana”, *ASJU* 20: 1, 265-275.
- Tolosako Udala. Honen webgunean, euskara atalaren barnean daude kale izendegia eta toponimia biltzen duten bi artxiboak, nornahiren esku.
- Ugarte, J. L., 1995, “Donde murió el oso”, *ASJU* 29: 2/3, 707-711.
- , 1998, *Urretxu eta Zumarragako toponimia*, *Onomasticon Vasconiae* 18, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2003, *Legazpiko toponimia*, Legazpiko Udala.

HIZTEGI KONTUAK BAZTAN ALDEAN

Pello Salaburu

UPV/EHU

Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* liburua mugarri bat izan zen euskal hizkuntzalaritzan, mugarria edo muga liburua, nahi bada. Ausardia izan zuen orduan gaurko EHUKo irakasleak (garai hartan Deustuko Unibersitateko irakaslea) holako zerbait pentsatu, idatzi, eta, gaia zaila izanik ere, euskara goxo hartan inprimategira eramateko. Bidea ireki zuen, bidea urratu. Chomskyren teoretan oinarriturik, sintaxiari bere tokia eman zion gramatikaren barnean, erdigunea, jakina denez.

Hemen ez ditut, hala ere, sintaxi kontuak ukituko. Era sistematikoan ez bada ere, nire begiak hiztegi kontuetara itzuli nahi ditut, arrazoi garbi bategatik. Hizkuntzaren inguruan denon artean egin dugun batasunak mesede ikaragarriak ekarri dizkio, zinez, euskarari, eta beste maila bat eman dio. Baina, horrekin batera, euskara bera ere, neurri batean bederen, ahuldua bezala gelditu da, batuan eskribitzen dugunen artean, anitzetan, nekez atzematen baita nongoa den idazlea: tonu eta kolore antzekoarekin, berdina ez bada, eskribitzen dugu azpeitiarrek eta arizkundarrek. Eta horrek ere zerbait, ez sobera ona, erran nahi du. Kontua ez da, duda, gibelat egitea, baizik denen onerako eskura dugun hizkera horretan, herrietako ñabardurak sartzea, txokokerietan erori gabe. Uste dut bi gauzak egiten ahal diren.

Ñabardura horietako batzuk sintaxiarekin daude lotuak, eta morfologiarekin ere, nahiz garrantzikoena maila fonikoarekin (fonetika eta fonologiarekin) harreman zuzena duten. Gezurra dirudi, honetaz ez baikara hizkuntzalariak behar bezala arduratu. Ez zaio, zoritxarrez, behar duen tokia eman kontu honi, euskalkien arteko desberdintasunak hizkera "doinuan" oinarritzen baitira, hitzak nola ebakitzen ditugun, esaldiari zer nolako goiti-beheitiak egiten dizkiogun, eta abar. Gramatikaren arlo hau deskuidoan bezala utzi dugu, apaletsia bezala, eta batuaz ongi konpontzen ez diren azken hiztunekin batera joango zaizkigu ezinbertzean holako ñabardura horiek historiaren zulotik.

Bertze berezitasun batzuk hiztegiarekin lotu behar ditugu. Orain, batzuetan baliabideak falta zaizkigula, estilistika aldetik aberatsa izan litekeen sinonimo baten bila gabiltzala, uste dut tenorea den gure begiak euskalki eta herrietako hizkeretara bihurtzeko, bai baitago, doike, han ere zer ikasi.

Hurrengo lerroetan Baztango hiztegiaren inguruko zenbait ohar egin nahi nituzte. Ez dira sistematikoak, ez baitut hasi nahi hemen bereizketak egiten: delako hitz edo sarrera bat Baztanen ibiltzen ahal da, baina beharbada ez da hangoa bakarrik, bertze anitz tokitan ere ibiltzen baita, nahiz batuan ez duen leku gehiegi, non eta ibiltzailea ez den Iparraldekoa. Hitzak, ahal dela, bateranztuak eman ditut, Hiztegi Batuan ez badaude ere: adibidez, Baztanen "altxarraztelue" erraten da, baina nik "altxarrastelu"

jarri dut, “s” rekin, “arrastelu” baita Hiztegi Batuan bildu dena. Edo, guk han “gan” erraten dugu, baina hemen “joan” paratu dut. Holako anitz badira: adibide guztiak ere batuan daude. Baztangoak bai, baina moldatuak, hortaz. Bertzerik gabe, has nadin, bada, honekin.

1. Jo dezagun, konparazione, *abantzu badire bi urte hemen garela* (“ia-ia badira bi urte...”) edo *gure osaba abantzu da* (“gure osaba azkenetan da”) aditzen diogula baztandar bati. *Abantzu* hori Baztangoa da, baina ez hangoa bakarrik. Etxepare bezalako batek ibiltzen du (*ahantxu ene herritarra delakotz*), nahiz euskara batuan ez duen bere zokoa harrapatu. Horregatik, ez dut azterketa sistematikorik eginen, batzuetan kuriositate kontu hutsa ere izan daiteke, baina nahi nituzke kontu hauek hemen bildu, segur bainaiz horrek ere baliabideak emanen dizkiola bertze joko edo giltza batzuk ibili nahi dituen idazleari. Eta hizkuntzari ere aberastasuna ekarriko diola. Bertze modu batera egitea beharrezkoa ikusten ez badut, hango hitz horiek eta adibideak batuan emanen ditut (gaineko adibide hori *gure osaba abantzu de* paratu beharko nuke Baztango hizkeraz, baina horrek adierazi nahi dudana ilundu baizik ez du egiten).

2. Gauzak, aldi honetan, “apurtu” daitezke, eta ausartago bada hiztuna, “puskatu” ere. Edo “xehatu”. Egia erran, ordea, gauzak “hausten” dituztenak gutxiago dira, eta kriseilua beharko genuke *haize honek bazter guztiak abarrikatzen ditu* bezalako zerbait idazten duena aurkitzeko. Alta, *abarrikatu* edo *abarrakitu* bezalakoak eskura izatea arras komenigarria litzateke zenbait kasutan. Hala ulertu izan dute idazle batzuek ere, Aingeru Epalzak, konparazione: “auto abarrikatu baten pusken artetik agertzen diren soin-adar zatikatuak” (*Rock’n’roll*, 203). Bada, hori: batzuetan hotzak abarrikatzen gaitu.

3. Gure aita zenak abatza ibiltzen zuen noizbehinka (gero gauza modernoagoak etorri ziren baserrira) behien esnea biltzeko. Abatzak bi *eskutre* ditu, alde bakoitzean. Handik hartzen zen ontzia. Eskutrea izaten dute ate batzuek ere, eta zernahi tresnak, eskuaren heldulekua eskaintzen badu. OEHk *eskutria* aipatzen du, “manivela” edo, omen delakoan. Ez da hala: “kafia” Baztanen “kafe+a” den bezala da “eskutria” “eskutrea+a”. Eta ez da biradera, baizik gider gisako zerbait, zerbait eskuarekin atxiki nahi denean, horretako balio duena hain zuzen ere: “sega giderraren eskutrea”. Maratilarri ere erraten zaio (“ate horrek eskutrea behar du”).

Behien ondoan “abria” izaten zen etxe batzuetan. Baztanen aberea ez da bertze tokietako aberea, zaldien motakoei bakarrik erraten baitiegu *abere*. Behiak edo ardiak ez dira, hortaz, abereak guretako. Ez eta ahariak ere, *adaje* ederra baldin badute ere.

4. Gazteek (eta ez hain gazteek) bestak egiten dituzte, eta bestetan *panparrotu* egiten dira, edariari gehiegixko ematen badiote segurik. Holakoetan ergelkeriak egiten dituzte, begiak zorrotz-zorrotz dituztela. *Espantuka* ibiltzen dira, espantuz beteak: *espantuntziak* dira. Gazteek *abroka* egiten dutela errango lukete baztandar batzuek: “bere denboran baditik horrek abroka ederrak eginak”. Besta handiak, erran nahi baita. Edaten denean, neurritz goiti edaten denean, jendeak *ziroka* ibiltzeko alimaleko arriskua izaten du, sigi-sagan ibiltzeko joera, bidearen zuzena ezin hartuz: “gizon hori edana dago, ziroka doa bide bazterrean”.

Bide batez, “besta” hitzak jaia erran nahi badu ere, ikusi den gisa, fereka ere erran nahi du, “bestak egin” itzulian: “zer bestak egiten dizkion haurrari!”, “gure mutikoa

bestile porrokatua da". Ez dakit, egia erran, *bestaegile* jarri behar ote nukeen hemen egokiago, batuan paratu nahi baldin badut hitz hori (horrekin batera *pizile/pizegile*, *kakile/kakaegile* ("horiek" egiteko gogo duenari erraten baitzaio). Eta, badakigu zer heldu den besta egin eta biharamunean: *bestondoa*. Hori da, gaztea izan nahiz ez, alkoolak sortzen duen ondoeza.

Gazte edo zahar izatea, ia-ia beti, *adin* kontua izaten da. Horregatik, urte bazuetatik pasatuz gero baduela adina erraten dugu: "adin batetik goiti, gehienak eri", "bazuen adina, ez zen gaztea ere". Eta bi pertsona urte berekoak direla adierazteko "gure seme zaharrenaren adina dela", "nere senarraren adinak dira" edo "nire adina da" erranen dugu, "adin berekoak" bezalako itzuliak bazterrean utziz. Nahiago ditugu bertzeak. Urte berekoak ez, baina hurbilekoak bagara nire adiskide bat eta ni, konparazione, "nire adintsukoa da" erraten dugu, gaur egun idatziz atzenduxe dugun modua hautaturik.

5. Agurrik, ez dugu agurrik egiten "kaixo" edo "agur" erranez. Hori berria da, batasunak ekarri duena. Guk beti "egun on" edo "arratsalde on", edo "hemengo aldi?" bezalakoak ibili izan ditugu agurrak egitean, eta alde egiteko, berriz, ez genuen huts egiten: *adio* eta *adios*. Azkeneko modu honek bazuen aldaera bat aski ibilia gure artean: *adio zuen!* Ikusten denez, modu arkaiko baten aztarna xarmanki gelditu zaigu formula horretan itsatsia.

6. Entzun, egia errateko, guti entzuten dugu. Baztanen meza bakarrik entzuten baita, eta hori ere gero eta gutiago, hor dago kontua. Gainerako guzietan *aditu* egiten dugu: "asotsa aditu", "solask aditu", eta abar. Denek dakigunez, "leku bazuetatik ez da batere ongi aditzen", eta urteak direla eta, "batzuek ez dute aditzen", aitonek (ondorengorik gabe ere, Baztanen aitona izaten ahal da adineko gizon bat) ez dute aditzen. Familietan maiz entzuna: "Ez egin gero holakorik! Aditu duzu?"

7. Bada Baztanen pilota jokatze mota bat beti harritu izan nauena. Garai batean leku anitzetan jokatzen bazen ere (1846an 12.000 lagun elkartu ziren Irunen Gipuzkoa-Frantzia izeneko erronka batean), ia-ia desagertze puntuan zegoen, baina berriz ere piztu zuten Iruritan, eta gaur egun Bidasoa errekan badira herri bat baino gehiago horretan aritzen direnak. Laxoa du pilota joko horrek izena, eta frontoi irekietan jokatzen da, plaza zabaletan: bi talde bata bertzearen kontra, talde bakoitzak lau jokalarik dituela (sakatzailea, numeroa eta bi kuarto). Gauza anitzengatik da ikusgarria (txapelketaren azken partida abuztuko hasieran jokatzen da urtero), baina hemen bat bakarrik aipatuko dut: tenisean bezala kontatzen dira tantoak (15, 30...) joko egin arte. Eta partida bakoitzak 9 joko ditu (lehenago baino 4 gutiago). Iduri du hori zuzenean datorrela "proto-pilota"-tik, nondik sortuko bailirateke tenisa bezalako jokoak ere, berdin kontatzen dutenak. Berez, beldurrik gabe erraten ahal da pilota kontuetan hau dela joko mota zaharretako bat, zaharrena ez bada. Baztanen ez dakigu, ez genekien bederen, zer zen *ados* jartzea politikarien artean. Baztango juntakideak ez ziren ados jartzen (hola edo hala konponduko zituzten beren arazoak, konforme jarritz), baina laxoko pilota joko zuzentzen duen jokozainak ez zuen, ez du, dudarik izaten, eta jokalarien taldeek 30na egiten zutenean, "Ados jaunak, ados!" erraten zuen, eta erraten du. Hori zen guretako ados jartzea, partidaren puntuetara berdintzea. "A dos", bi tantutara (15+15) berdintzea alegia. Hau leitzen

дутен anitzek (anitz badira bederen leitzen dutenak) ez dute, hain segur ere, inoiz ere ikusi pilota joko hori. Aprobetxatu nahi dut abisu bat emateko: partidak luzeak dira, pilotaren bizitasunak arrisku handia du, ez baita babesik, eta arauak biziki samar konplikatua, neurketa kontuetan herri batetik bertzera, plaza nolakoa den, aldatzen baitira. Jokalariak *aidurrak* dira, gogorrak, ia-ia nekatzen ez direnak, eta ez dira erraz *aieika* ibiliko. Arauak ongi konprenitzeko, erran zidan batean horretara zaletasun handia duen norbaitek, bi modu daude: apustua egitea (eta galtzea), edo pilotan aritzea (eta galtzea).

Pilota joko horretan aritzeko eskuan guantea behar da, guante berezi bat, ez baita esku hutsik jokatzen. Horrek ziztu handian botatzen du pilota. Davidek ere, noizbait, indar handiarekin bota zion harria Goliati. Horretarako *afruil*-a ibili zuen. Miguel Angelek egindako eskulturan ikusten ahal da ederki arma hori bizkarrean zintzilik, Florentziako Academia museoa: “afruilarekin harria bota eta hil zuen”. Gazte denboran, hango gehienak ari izanak gara afruillarekin harriak tiraka.

Pilota joko horretan aritzeko behar da, indarraz gain, *adrendu* handia. Eta Goliati kopeta erdian emateko ere. Batzuek, gaur egun gainera sukaldarien kontua modan dagoenez erran beharko, labeari berehala hartzen diote adrendua, eta bai ez dela erraza hori. Batzuek badute josteko adrendua, bertze zenbaitek pilotan aritzeko, edo altzariak egiteko. Edo erraldoia lurrera botatzeko. Denek ez dute gauza guzietako baliyo. Garai hartan *afruiztuka* ibiltzen ginen gazteak, behatzak ahoan sartu eta ziztuka, ez baikenuen Internetik etxean. *Afruiztu* handiak egiten genituen norbaiti deitzeko, edo zakurrari hurbiltzeko erran nahi genionean. *Ariztu* egiten genion: “Hanbateko ariztuak egiten zituzten”. Holakoak dira *afera* hauek.

8. Urdazubiko batek erraten zidan behin, norbaitek ahatea ekarri nahi zuela jateko eta, zer ote zen hori ari zen bere baitan. Ikusi zuenean ohartu zen: “To! Hire ahate horiek gure *piroak* dituk!”. Hiztegi Batuak ahate kumeak direla dio piroak. Hala izanen dira, baina guretako handiak edo ttipiak, denak zaku berean sartzen ditugu, bereizketarik egin gabe. Piroak behar ez den tokian sartzen direnean *aikatzen* saiatzen gara, handik botatzen, traba egiten baitute. *Aikatzen* eta *aizkatzen*: “Egunero ai(z)katzen ditut piroak eta oiloak hemendik, bertzenaz barneraino sartzen baitzaizkigu”. Holako animaliak denak berdintsuak dira guretako, nekez bereiziko baitugu bi piroren artean. Hori pertsonekin gertatzen delarik, eta bi lagunek (oraindik adiskideak eta lagunak bereizteko gai garenez) elkarren artean antz handia dutenean *ahotik botaeak* direla diogu: “Martintxok badu bere aitaren eitea, ahotik botaea da”.

9. Jakina denez, Baztanen *aitzin* eta *gibel* ibiltzen ditugu. Testuinguru anitzetan: *gosalaiztin*, *bazkalaiztin*, *afalaiztin* (eta kontrakoak, jakina: *gosalondo*, *bazkalondo*, *afalondo*) izaten ahal dira pentsatzen hasiz gero gogora etortzen zaizkigun lehenbizikoak. Jakina, dagokien kasuan: “bazkalaiztinetik ari da hor xirrina jotzen”. Edo, *aldare aitzina*, nahi izanez. Baina badira bertze anitz ere: konparazione, *aitzina pasa* da Baztango mutildantzetan egiten den dantza urrats bat da. Arduradun politiko ezagun batek mutildantzak eta “multidantzak” nahasi izan ditu telebista aitzinean, eta baztandarrek “multidantzak” dantzatzen omen ditugu: hori erran zion bederen Espainiako Printzeari denen aitzinean. Norbait moldegabea baldin bada, eta feldera, baina, hala ere, ahalkerik ez badu eta beti aitzinat egiten badu *aitzinat tiratua* dela erranen dugu. Batzuk, hala ematen du bederen, *aitzinekoz gibelera* mintzatzen dira,

erran nahi dutena irauliz. Ez gara han aurrez aurre jartzen, baizik *aitzinez aitzin*. Eta, zerbaitez edo norbaitez ari garela, jo dezagun adierazi nahi dugula noizbait lehenago egon garela berarekin. Holakoetan hau erraten dugu: “*aitzinttoan ikusi nuen*”. Horren aldaera da, aski ibilia, *aitzin horretan*. “Aitzin” honen familia handia da hau, ikusten ahal denez. Bada bat beti harritu izan nauena: Baztanen *-rako* amaiera neketan aditzen da, beti *-ko* egiten baitugu modu sistematiko batean, izenlagunen kasuan eta aditzondoan kasuan (“Hartako adina, badaki”). Bada salbuespen bat, hala ere: baserrietan, batzuetan, aratxeak *aitzinerako* uzten ziren, hau da, ez ziren saltzen, etxean uzten ziren etxeko, etxean gelditzeko. Aitzinerako, alegia. Talde berekoak dira *aitzinalde*, *aitzinatu*, *aitzindu*, *aitzinka* eta *aitzindaria* ere. Aitzindariak armadako buruak dira. Eta hitz honetaz baliaturik egin dugu erranahirua: “aitzinetik ederki, ta ondotik atsiki”, batzuk ezin ederkiago definitzen dituen.

10. Egunero ikusten ditugu hegazkinak airatzen eta lurra hartzen. Baina *airatu* bada bertze zerbait Baztan aldean: urduri jartzea, edo holako zerbait. Gazteak, herriko bestak etortzen direnean airatuak egoten dira, eta umeak ere egun batzuetan, zerbait gertatzen zaiela-eta, arras airatuak. “Airatu” horrek koleraz eta haserreaz bete ere adieraz dezake: “airatua etorri da, bere baitatik aterea”. Norbaitek bertze baten itxura edo antza baldin badu, haren *airea* duela erraten dugu, Iparraldeko zenbait tokitan bezala. Eta, deitu ondoren, presaka eta berehala etortzen bada guregana, *airean etorri* dela, berehala etorri dela adierazteko. Erran dezagun, azkenekoz, ez dakigula ongi han tximista zer den (“zimizta” erraten da batzuetan, hori bai), guretako beti (orain arte bederen hala gertatu da) *aire gaizto* izanen baita zeruan ekaitzetan ikusten dugun bat-bateko distira hori, trumoi asotsa duela giblean: “Aire gaiztoak hil ditu hamar ardi”. Eta aire gaiztoei *aiberra* diegu, ez baitute batere onik egiten. *Aiberkun-dea* eta gorrotoa, bertze hitzetan errateko.

11. Garai batean *aisa* hitza irakurtzen hasi nintzen, eta biziki arrotza egiten zitzaidan, hitz hori arrunta bada ere Baztanen. *Aise* da han ibiltzen dena, eta batasunaren izenean onartu dena. Batzuetan “anitez” hitzaren erranahiarekin ibiltzen dugu, konparazio izenondo baten graduatzaile gisa: “etxe hau bertze hori baino aise handiago da”, “ni baino aise errazago ibiltzen da mendian”. Bertze batzuetan aditzondoa da, bertzerik gabe: “aise eginen duzue zuek ere”, “ez da aise egotea telefonorik gabe baserrian”, edo harriduretan: “Bai, aise!”. Eta hortik sortzen dira *aiseski* (“gure aitaxi aiseski dabil orainik”), *aisetasun* eta *aisetu*: “aisetasun handia duzu zuk gitarra jotzen”, “aisetasuna jendeak maite du”, “makina horrekin ez dakizu zuk nola aisetu diren lanak”, “Internetek aisetzen du informazioa izatea eskura”. *Aitaxi* aipatu dugu adibideetako batean: “aitaxi” (aitaren edo amaren aita, eta aitabitxi) eta “aitona” (gizon xahar bat, agurea) bereizten dira garbi aski. Aitabitxiek *aitaxi opila* ekartzen zuten Pazkoetan bere besoetakoei. Eta familia kontuekin ari garenez, erran dezagun Baztanen umeak *aita zorro* edo *ama zorro* direla, bertze tokietako “aita zulo” eta “ama zulo”.

12. Jendea pozik dagoenean, besta batean, konparazio, barreak egiten ditu, *ajatak*. Jendea, holakoetan, *ajataka* ibiltzen da, algaran: “neska horiek ari dira irriz ajakata”. Irriz urratuak, bertze hitzetan. Hala ibiltzen dira besta *akitu* artio. Eta, gauzak nola diren, berdin da horretarako lodi edo *akal* egon, besta gustatzen bazaizu ez

baita kilo kontua. Barnetik hutsak diren gaztainak akalak dira, baina hemen ez gara horretaz ari, hemen lodiera kontua baita: argala dena akala da Baztanen, meharra.

Urtearen akabailan, lehenago, aitzin hartan, maizterrak ordaindu ohi zion jabeari urteko errenta. Errenta? Ez, *akura* ordaintzen zion. Eta hori egiten zuen urtero-urtero *aldaira* egin arte. Noizbait etxe aldaketa egiten bazuen (aldaira egiten bazuen) maizterrak, eta bertze toki batera joan bizitzera, orduan uzten zion akura ordaintzeari. Bertzenaz ez zuen uzten urte bat ere pasatzera.

13. *Aldi* sarreraren inguruan osa daiteke bertze multzo bat. Sarrera hau gainerako euskalkietan bezala ibiltzen da, baina batzuetan baditugu errateko modu berezi batzuk. Lehen aipatu dugu *hemengo aldi?* galdera, norbait agurtzeko ibiltzen dena. Hori testuinguru zehatzagoetan ere ibiltzen ahal da, hala nola: *mezako aldi?*, eta hori da norbait meztatik atera eta egin dakioken agurra: “Egun on, egin duzue mezako aldi?”. Eta, zinez, “aldi honetan” horrek badu bere kidea, pare-parekoa dena, baina erakuslea aitzinetik paraturik: *honetako aldian*, anitz ibiltzen dena: “honetako aldian denak eritu dira”. Batzuetan hitz “hutsa” da, nolabait esateko, “zera” bezala-edo: “Hemengo aldiak eginen dituk bai, fite!”. Hori errango nioke norbait dagoen tokitik aizkatu nahi baldin badut, handik alde egin dezan eskatzen badiot. Eta holakoak idazten ditudanean aldi oro gauza bera gertatzen zait, “gero eta gehiago” adierazteko hortxe baitugu eskura errazki atzentzen dudana *alditik aldira*: “alditik aldira zuzendari horren filmek arrakasta handiagoa dute”.

14. Gure Baztango herrietan gauzak ez dira gordetzen, baizik altxatzen. Zerbait altxatzea ez da goiti joatea (bide batez, *joan*, laguntzaile iragankorrarekin, da ibiltzen duguna “eraman” errateko ere), goiti eramatea, baizik zerbaiten azpian, zerbaiten gibelean, arropa artean gordetzea. Hortaz, gauzak *altxatu* egiten dira, eta jendea, jakina, batzuetan *altxapeka* ibiltzen da, gaiztakeriaren bat egin baldin badu: “gure mutiko horiek beti altxapeka ibiltzen dira. Altxapeka eta altxaketan”. Ez da harritzekoa, orduan, altxapean izatea zerbait, behar izanez gero. *Altaxu* hitzak, ordea, ez du ikustekorik “altxatu”-rekin. Horrek “goiti-beheiti” erran nahi du: “Etxean sartu eta argirik ez bada, altaxu joaten gara sukalderraino”, “horrek zenbait balio dezakeen? Ez dakit, hola, altaxu, 20.000€ inguru erranen nuke”

15. Baserriko bizimodua gogorra zen, baina, aldi berean, ez ziren gure baserri-tarrak erraz *altaratzen*, denboraren lasaitasuna, guk ez bezala, bertze modu batera neurtzen baitzuten. Egia da batzuetan, lasterka joan beharko zutela (“A, zer ajuta daraman gazte horrek, zer presa”), eta haserretzen zirenean ere baten batek bertzeari ajuta ederra, zanpaldia, emanen ziola, hala suertatuz gero, edo bistatik kentzeko ere zerbait erranen ziola: “Joan hadi hemendik, urde ajuta!”. Ikusten den gisan, *ajuta* hitzak baditu hiru erranahi horiek: lastertasuna, gogor jotzea eta erramoldea, norbait sulfuratua denean ibiltzen dena. Harriduretan, irain hitz gisa ibiltzen dugu *alu* hitza: “joan hadi hortik, arraio alua, beti alukerietan ibili behar! Aluxka ederra haiz hi!”. Hori, jakina, berez *amultsu* den batek ez dizu erranen, holakoak bertzeekin maitagarriak baitira, zuzen jokatzeko dutenak. Gure amatxi, konparazione, beti ikusten dugu *amultsu* eta xalo.

Baserriez ari garela, artzainek aste osoko janaria eramaten zuten mendira batzuetan (*gasna*, txingerra eta ogia, batez ere), eta horrek ere bazuen izen bat, gaur

galdua dena: *akita*. Hemen ikusten dugu: “prestatu duzue gure artzainaren akita?”. Lehentxoago aipatu dugu ez dugula “altxatu” ibiltzen “goratu” erranahiarekin, baina batzuetan gelditu dira horren aztarnak ere, edo, segur aski, trasnak berak ekarri du kanpotik izena berarekin: *altxarrastelu*. Hori da han ibiltzen den sardaren izena: altxatzeko arrastelua dela dirudi, nahiz tresna desberdina den. “Antzarrastelu” ere ibili izan dugu. Hitz horiek, magia bezala hitz konposatuetan-edo ageri direnak, beti gertatu izan zaizkit deigarriak. Hala, konparazione, ez dugu guk “gura” erraiten, baina bai, ordea, *ikasgura*, ikasteko gogoia edo nahia adierazteko: “gure alaba beti leitzen ibiltzen da, horren ikasgura...”.

16. Hitz batzuk, euskaran aski hedatu eta arruntak izanik ere, erranahi berezkoa dute Baztanen. Hori gertatzen da, konparazione, *arotz* familiako hitzekin. Arotza errementeria da Baztanen, zura lantzen duena “zurgina” baita. Arotzaren ingurukoak gauza bera: *arozgoa*, adibidez, errementariaren lanbidea da, baina ez, jakina, “arotzen multzoa”. Arotzek aorztegieta egiten dute lan. Ez dira falta “Arotzenea” izeneko etxeak ere.

Gaztetan *arrain* mota bat bakarrik zen guretzat: “amuarraina”. Horri erraten genion “arrain”. Eta orain ere hala erraten zaio, bertzea “peskadua” baita. Salbuespena, sardinak eta antxoak kendurik, bixigua da, hori, guretako *arrosela* baita. Hortaz, “peskadu” guziak “arrain”, arrosela *baizik* ez. Eta *asanblea* hitza ere ibiltzen dugu, baina ez du erran nahi bilkura, biltzarra edo batzarra. Ez eta “asanblada” ere. Baztanen, “asanblea” izenondoa da, eta “harroputza” erran nahi du, handinahia: “hau duk, hau, gizon asanblea!”

- Chomsky, N., 2000, "Minimalist Inquiries: the Framework", in R. Martin & J. Uriagereka (eds.), *Step by Step: Papers in Honor of Howard Lasnik*, MIT Press, Cambridge MA, 89-147.

- , 2001, “Derivation by Phase”, in M. Kenstowicz (ed.), *Ken Hale: a Life in Language*, MIT Press, Cambridge MA, 1-52.
- , 2005, “On Phases”, Ms. MIT.
- Elordieta, A., 2002, “The Role of Verbal Agreement in Licensing Null Arguments”, in P. Albizu & B. Fernandez (eds.), *Kasu eta Komuntaduraren gainean. On Case and Agreement*, EHU, Bilbao.
- Etxepare, R., 2003, “Urruneko Komuntadura eta menpeko infinitiboak euskaraz”, *Lapur-dum* VIII, 167-206.
- , 2006, “Long Distance Agreement in Substandard Basque”, *ASJU* XL: 1-2, 303-350.
- Farkas, D., 1992, “On Obviation” in I. Sag and A. Szabolsci (eds.), *Lexical Matters*, CSLI, Stanford CA, 85-109.
- Finer, D. L., 1984, *The Formal Grammar of switch-reference*, Ph.D. dissertation, University of Massachusetts, Amherst.
- Goenaga, P., 1984, *Euskal Sintaxia: konplementazioa eta Nominalizazioa*, Ph.D. Dissertation, University of the Basque Country.
- Hornstein, N., 2000, *Move! A Minimalist theory of Construal*, Blackwell, Oxford.
- , & I. San Martin, 2001, “Obviation as Anti-Control”, *ASJU* XXXV-1, 367-384.
- Kempchinsky, P., 1990, “Más sobre el efecto de referencia disjunta del subjuntivo”, in Bosque, I. (eds.), *Indicativo y Subjuntivo*, Taurus, Madrid, 234-258.
- Landau, I., 2001, *Elements of Control*, Kluwer, Dordrecht.
- McCloskey, J., 1996, “On the Scope of Verb Movement in Irish”, *NLLT* 14: 1, 47-104.
- Ormazabal, J., 1995, *The Syntax of Complementation: on the connection between Syntactic structure and selection*, Ph.D. Dissertation, University of Connecticut.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- , 2006, “Nominalizazioak eta Modua: aukera bikoitzeko predikatuak”, in B. Fernández & I. Laka (eds.), *Andolin Gogoan. Essays in Honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, Bilbao.
- Oyarcabal, B., 2003, “Tense, aspect and Mood”, in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin, 249-284.
- Pires, A., 2001, *The syntax of Gerunds and Infinitives: Subjects, Case and Control*, Ph.D. dissertation, University of Maryland at College Park.
- Raposo, E., 1987, “Case Theory and Infl-to-Comp: The Inflected Infinitive in European Portuguese”, *LI* 18, 85-109.
- San Martin, I., 2000, “Control in Basque”, *Proceedings of WCCFL19*, Cascadilla Press.
- , 2004, *On Subordination and the Distribution of PRO*, Ph.D. Dissertation, University of Maryland at College Park.
- , in press, “Beyond the Infinitive vs. Subjunctive Rivalry: surviving changes in Mood”, in L. Eguren & O. Fernández Soriano (eds.), *Issues in Syntax and Interpretation: Coreference, Scope and Focus*, John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia.
- , & J. Uriagereka, 2002, “Infinitival Complementation in Basque”, in Artiagoitia et al. (eds.), 597-610.
- Stowell, T., 2001, *Origins of Phrase Structure*, Ph.D. Dissertation, MIT, Cambridge MA.
- Uriagereka, J., 2001, “Some concepts and questions regarding the I system”, *ASJU* XXXV: 1, 1-28.
- Zabala, I. and J. C. Odriozola, 1996, “On the Relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals”, *Catalan Working Papers in Linguistics* 5: 2, 231-281.

IPARRALDEKO HIZTEGIGINTZA LARRAMENDIREN PARADIGMAREN GARAIAN

Ibon Sarasola

UPV/EHU eta Euskaltzaindia

1. Atarikoak: Larramendi aurreko hizteigintza Iparraldean

Jakina denez, herri gehienetako hizteigintzaren abiapuntua hizkuntza-ukitze egoerei lotua gertatzen da, batez ere atzerritarrek ontzen dituzten hitz zerrenda elebidunen bidez. Ildo horretatik, gurean ezagutzen dugun lehen hitz zerrenda Aimery Picaud frantziar erromesak XII. mendean bildu zuena da, latina-euskara; bigarrena, Arnold von Harff koloniar erromesarena, XV. mendearen azken urteetako, alemana-euskara.

Dena dela, laster hasten dira ontzen eta argitaratzen euskaldunak berak onduriko hitz zerrendak, bai hegoaldean, bai Iparraldean. Hurrengo lerroetan, atariko gisa, Iparraldean Larramendiren Hiztegia argitaratu baino lehen taxaturiko hitz zerrendak eta hiztegiak aztertuko ditut.

Hitz zerrenda eta hiztegi txikiak. Hitz zerrenda eta hiztegi txikiei dagokienez, Iparraldean lehen Leizarragaren *Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliak*, izenekoa da, 1571ean argitaratu zena bere *Iesus Krist gure launaren Testamentu berria*-ren bukaera aldean (á 7 r-v). Hirurogeita hamar bat hitzen zubererazko ordaina ematen du. Hitz zerrenda hori da, sail honetakoen artean artean, euskara-euskara —lapurtera-zuberera, berez— den bakarra; gainerakoak elebidunak dira, atzerritarrek onduriko hitz zerrenden ildotik.

J. A. Lakarrak (1993: 11) zerrenda horren ondoan aipatzen eta aztertzen duen Leizarragaren *Testamentu berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu bere declarationéquin* delakoa ere, bakarra eta berezia da, Lakarrak ongi dioenez, euskal hizteigintza zaharrean, lehen euskal hiztegi definizioduna baita. Nolanahi ere, jatorrizko frantsesaren hitzez hitzezko itzulpena da, izenburutik beretik hasita: *Recueil d'aucuns mots et manieres de parler difficiles du nouueau TeStament, avec declaration*. Leizarragak egin zuen gauza bakarra frantses sarreraren hurrenkera aldatzea izan zen; esaterako, C letrako “Corne se prend pour force & vertu, Luc 1,69” A letran agertzen da Leizarragarenean: “*Adarra*, hartzen da indarragatik eta verthutea gatik. Luc 1.69”. Hortaz, ez dut uste euskal hizteigintzaren historian aparteko lekurik merezi duenik.

Gainerako euskal hitz zerrendak euskara ikasteko eskuliburuetan aurkitzen dira. J. A. Lakarrak (cf. 1993: 38) erakusten duen bezala, lexikografia eredu hori ez da garai hartan European boladan zegoen hizteigintza motaren isla baizik. Horietako

lehena Voltaire-ren *L'interprète ou traduction du François Espagnol & Basque (Hirur lengoajetan tresora)* da, xvii. mendean arrakasta nabaria izan zuena.¹ Obrak, gutxieneko kontuan, sei argitalpen izan zituen, eta horietatik lehena (cf. Vinson 1891-97: 56) 1620koa bide da. *Tresora*-ren bi zati nagusiak hiztegi bat —*Dictionnaire alphabétique depuis lettre A jusques à lettre V*, 41-122 orriak hartzen dituena— eta elkarrizketak dira, frantsesezkoetik itzuliak. Hiztegia, hortaz, frantsesa-euskara da, 1250 bat sarrera, hurrenkera alfabetiko ia orokorrean, ematen dituena. Egileak berak esaten digunez, Donibane Lohizune eta Ziburuko euskara erabili zuen bere itzulpenean. Asko dira hitz zerrenda zabal horretan —liburuaren beste zatietan bezala— agertzen diren lehen lekukotasunak: 170 gutxi gorabahera.²

Garrantzia handikoak dira orobat Martin de Harrietek 1741. urtean Baionan argitaratu zuen *Gramatica escuaraz eta francesez composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* obran ematen dituen euskara-frantses eta frantses-euskara hiztegiak. J. A. Lakarrak (cf. 1993: 131-281, eta 1994a: 75-129) testu kritikaren hatsapenak, besteak beste, maisuki hiztegi gintzara aplikatuz, eta euskal filologiaren historian mugarririk gertatu den ikerlan batean, hiztegi hauen garrantzia ikusarazi du, frogatuz hura izan zela, Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-ren Eranskinetako ez ezik, baita ere Hiztegi bereko iturrietako bat.³

Martin de Harrieten hiztegi horiek aurrekoak baino zabalagoak dira: euskara-frantsesak —*Dictionarioa Escuaraz eta Francesez*— 1570ren bat sarrera ditu, eta frantsesa-euskarak —*Dictionnaire François & Basque*— 3480ren bat. Ikusten denez, frantsesa-euskara alderdia, bestea baino askoz hedatuagoa —bi halako baino gehiago— da. Bestalde, eta hori ere esanguratsua gertatzen da, frantsesa-euskara garbizaleagoa da, eta askozaz hitz eratorri gehiago dakartza: 1026, euskara-frantsesa zatiko 171en aldean.⁴ Ehunekoak, jakina, adierazgarriagoak dira: hitz eratorriak % 10,9 dira euskara-frantsesa zatian, eta % 29,5 frantsesa-euskara zatian.

Oro har, ez dut hitz zerrenda eta hiztegi horien guztien mikroegituraz —hots, sarreren antolakuntzaz— hitz egingo: izan ere, xix. mendea arte, aipatuko diren salbuespenekin, hiztegi eta hitz zerrenda horiek -a artikuluz ematen dituzte izenak eta izenondoak. Aditzei dagokienez, joera nagusia, Iparraldean, aditz izen mugatuaren bidez ematea da, eta Hegoaldean aditzaren era burutu artikulurik gabekoaren bidez.

¹ Antzeko obra da *Modo breue de aprender la lengua vizcayna compuesto por ell dr. Rafael de Micoleta, presbytero de la muy leal y noble villa de Bilbao*, 1653. urtean idatzia, eta 1897an Dogsonek argitaratu zuen arte Londresko British Museum-en «galdua» egon zena. Idazlanaren zati nagusiak, gramatikaz eta bi poesiaz bestalde, hiztegia eta elkarrizketak dira, J. Minsheuren elkarrizketa ospetsuetatik (cf. Sarasola 1983: 188) itzuliak.

² Tamalez, kontrol arazo batengatik, OEHren lehen bost liburukietan ez genuen kontuan izan hiztegi hau. J. A. Lakarrak, hain zuzen, jakinarazi zigun gure hutsegitea.

³ Ez zen izan Larramendi Martin de Harrieten hitz zerrenda hauen baliatu den bakarra, Harriet baita, beheago ikusiko dugunez, Fleury Lécuseren *Manuel de la Langue Basque*-ren bigarren zatia osatzen duten bi hitz zerrendetako sarrera gehien-gehien iturria. Gainera, Lécuseren obraren bitartez, Lhanderen hiztegi nagusiraino heldu ziren hitzok.

⁴ Kalkuluok, Lakarra (1993: 170hh)-etako datuetatik euskal hitz eratorriak baino areago mailegu soilak direnak baztertuz egin ditut.

Hiztegi nagusiak; S. Pouvreuren hiztegia. Hiztegi nagusiei dagokienez bi dira Iparraldean, Larramendi baino lehenagoko epean ontzen direnak: Pouvreurena eta Urterena. Ez bata eta ez bestea ez ziren bere mendean —ezta hurrengoetan ere— argitaratu. Joanes Etxeberri Sarakoa 1712 baino lehen moldatzen hasi zen hiztegiari dagokionez, gaur egungo usteen artean, J. A. Lakarrak (1993: 80) testu kritikaren hatsapenak erabiliaz plazaratu duenak dirudi sendoena: Sbarbiren eskuizkribua ezin izan daiteke Sarako idazlearen hiztegiarena; orobat, ezin daiteke izan 1734an-edo hark Larramendiri utzi zionarena. J. A. Lakarraren frogabidea hau da: agertzen dira hitzak Sbarbiren eskuizkribuan, Etxeberrirenean ezin gerta zitezkeenak: esaterako, 1745 ondoren Larramendik ondu zuen *Diccionario Trilingüe*-ren Eranskineko hutsak, besteak beste.

Larramendiz aurreko hiztegi lan garrantzizkoena Silvain Pouvreau frantses elizgizonak ondu zuen, 1665 arte, antza denez. Pariseko Nazio Liburutegiko *Fonds Celtiques et Basques* direlakoetako 7. eta 8. eskuizkribuetan gordetzen diren hiru idaztalditan heldu zaigu Pouvreuren hiztegi lana, azken urteotan (cf. Kerejeta 1991: 868 h. eta Bilbao 1992: 343) A, B, eta C esaten zaien hiru idaztalditan hain zuzen. Hiruretatik zabalena A da, 209 orrikoa, 7. eskuizkribua ia osorik hartzen duena eta Pouvreauk zirriborro gisa erabiltzen bide zuena. Idaztaldi honek, frantses ordainez bestalde, gaztelaniazko eta latinezko zenbait —geroago idatziak— eta idazleen ai-puak eta atsotizak ere biltzen ditu. B izenekoa, 200 orrikoa, baina lehen 33ak —hasieratik *çafarda*-raino zatia— eskas dituena, 8. eskuizkribuan dago, eta badirudi A-ren garbira pasatze zertxobait murriztua dela; nolana ere A bukatutzat jo baino lehen egin zen B idaztaldia: B ondu ondoren A-n jarraitu zuen Pouvreauk hiztegi gai berriak biltzen. C idaztaldia 8. eskuizkribuan, agertzen da B-ren ondotik; beste biak baino geroago egina da —1665. urtearen erdialdean— eta A-ko zuzenketa eta eransketa guztiak biltzen ditu, baina A-ko zenbait hitz —berak “asmaturiko” hitz eratorri batzuk— bazter uzten ditu. Bestalde, besteak ez bezala, C idaztaldiak Euskara-Frantsesa-Gaztelania-Latina hiztegi baten egitura du, lau zutabetan antolatua. Horrek ere axola du, Pouvreuren asmoa —ik. 8. eskuizkribuaren 244. orria (Vinson 1892: 97-n aldatua)—, antza denez, lau hizkuntzok biltzen zituen hiztegi bat egitea baitzen. Dena dela, hamabi orrialde besterik ez ditu gorde den zatiak, eta *arrayoa-aztoea* bitarteko hitzak biltzen ditu; aurreko hamasei orriak, hasieratik *arrayoa* bitartekoak, Pouvreauk Oihenarteri, zuzendu zitzen, bidali zizkionak bide dira.⁵ Silvain Pouvreuren hiztegia garrantzizkoena ez ezik hedatuena ere bada euskarardara hiztegi zaharren artean, 8.100 bat sarrera baititu.⁶

Iturriei dagokienez, argi dago gaur egun (Kerejeta 1991: 869 oharra) Cesar Oudinen *Thrésoir des deux langues, française eta espagnole* izeneko hiztegitik hartuak direla frantsesezkoen espainolezko ordainak. Latinezko ordaina dutenak, J. Urquijok (Urquijo 1909: 516) zioenez, Etxeberri Ziburukoaren hiztegi desagertutik hartuak dira; badira beste zenbait (Bilbao 1992: 346) Leizarragaren itzulpenetan Vulgatako

⁵ Bilbao (1992: 344). M. J. Kerejetaren ustez (1991: 872), B idaztaldiari falta zaion zatia bidali zion Pouvreauk Oihenarti, eta hori bera uste nuen nik; baina ezin ukatuzkoa da Bilbaoren argudioen pisua.

⁶ «Poco mas o menos diez mil palabras bascongadas con la explicación en francés» Aizkibelen araber, haren hiztegiaren hitzaurrean dioenez.

ordainetik hartuak direnak. Atsotitzak (Lakarra 1995: 24) Oudin-en errefrautegitik jaso zituen, gaztelania-frantsesez, eta C idaztaldian euskal itzulpena gaineratu zien.

Bestalde, jakina da euskal autoreen aipuak biltzen dituela *Pouvreauk*.⁷ Dena dela, arrazoi osoa du J. A. Lakarrak (1995: 12hh) baieztatzen duenean oso gutxi direla *Pouvreagan* —% 9 edo— iturri-aipuz edo erabilera lekukotasunez hornituriko hitzak; bestalde, gehien gehienak —hirutatik bi gutxienez— *Pouvreauk* berak bere hizkuntza gaitasunaz baliatuz —hots, eratorketaren eta elkarketaren legeak aplikatuz— sortuak dira. Hortaz (cf. Lakarra 1995: 43hh) “gaitasunaren eta ez ariketaren” ispilu izan zen *Pouvrearen* euskal hiztegia, garai hartako europar hiztegi gehienien ildotik, hain zuzen.

Esan dugunez, *Pouvrearen* hiztegiak argitaragabe dirau. Halere, beherago ikusiko dugunez, eragina izan zuen Humboltengan eta XIX. mendeko hiztegi-ileengan: Duvoisinek, Maurice Harrietek, Xahok, Aizkibelek eta van Eysek bederen erabili zuten beren hiztegietan. Eta bada euskal idazle bat frantziar hiztegi-ilearen eragin nabarmena agertzen duena: Silvain *Pouvreau* bera, hain zuzen: ondu zituen erlijiozko obren itzulpenetan irakur daitezkeen *besterekikotasun*, *gutiendakotasun*, *leku-guzikotasun*, *botere-guzikotasun*, *ezin-neurt-ditekeientasun* —*tasun* atzizkiari dagokion zenbait baino ez aipatzeko— *Pouvreau* hiztegi-ileari zor dizkio *Pouvreau* idazleak. Bestalde, bada horietako bat bederen, *largoegitasun*, *Pouvreaugandik* bere “aurkari” zen Haranederrengana igarotzen dena, eta Haranederrek, esan zituenak gorabehera, *Pouvrearen* itzulpenak erabili zituela frogatzen duena.

Urteren hiztegia. Pierre Urtek, Donibane Lohitzunetik Ingalaterrara ihes egin ondoren hiztegi bat, *Dictionarium latino-cantabricum* esaten zaiona, ontzeari ekin zion, besteak beste. Urtek ez zuen latina-euskara hiztegi hori burutu, *a-commutus* zatia baino ez baitzuen ondu. Nolanahi ere, zati hori (cf. Urkizu 1987: 117hh) ez da hutsala: 2.457 orrialde hartzen ditu eta 10.000 bat euskal hitz ezberdin aipatzen ditu, gaur egun Urkizuren bihurtetari esker alfabetoren hurrenkeran ordenatuak ditugunak.⁸ Hortaz, orain arte ikusi ditugun hiztegi lanen artean euskal hitz gehien biltzen dituen hiztegia da, *Pouvrearen* hiztegiak baino ia bi mila gehiago baititu.

Badirudi Urtek ez zuela bilketa lan berariazkorik egin bere hiztegia ontzeko. Aitzitik, antza denez, hitzotatik gehienak, bere euskal hizkuntza gaitasuna erabiliaz eta are bortxatuaz sortu zituen, Londresen latina-euskara hiztegi bat ontzea pentsatu zuenean. Aski da hori ikusteko euskal hurrenkeraren araberako lehen hitzak hona aldatzea:

abade, abadesa, abadir, abaila, abailegile, abandonatu, abantail, abantailatu, abantailtzaile, abantailadun, abantailos, abantzarazi, abantzatu, abantzu, abar, abarizia,

⁷ Laburduren kontua argi dago gaur egun, batez ere Mitxelena (1961) eta Kerejetaren (1991: 866) lanei eskerrak: O.: Oihenart, A.: Axular, E.: Etxeberri Ziburukoa, L.: Leizarraga, H.: Harizmendiren *Virginaren Officioa* nahiz Haranbururen *Devocino escuarra*-ren Harizmendiren argitalpena; bestalde, B Behe Nafarroari dagokio, S. M. Hego Zuberoari, hots, Basaburuari; azkenik, S, Zuberoaren nahiz Saugis idazlearen laburdura gertatzen da.

⁸ Bihurketa horretan bada hutsen bat. Adibidez, «*cerdus*: oficio basogilea» sarrera, «*basogile*: cerdo, cochon» agertzen da bihurtzeran; orobat *coropiscopus*: basaapezpikua, «obispo salvaje». Bestalde, *abrelarri* sarrerako *armentinus*-ek *armentivus* izan behar luke.

abarizios, abarizioski, abarizioso, abaxatu, abendo, aberaski, aberastasun, aberastu, aberats, aberbial, aberbialki, aberbio, abersario

Abadir hapaxa-edo alde batera utzirik, itzuliriko obra batean⁹ aurkituko genukeen hitz altxorra dugu hemen, ez besterik.

Ildo beretik, badirudi ez dela egia Urkizuren (1987: 176) ustea, “Urte Larramendi bezala edo antzera ibilia” izango zela “Lapurdi eta Xuberoa aldeko belardi, zelai, soro, mendi eta baserrietan galdezka eta bilduaz arloan hitz sailak”, alegia. Apenas entzun zitzakeen Urtek paraje horietan *abrasendabelar*, edo *abreuli*, edo *adariharabre* esaterako, latinezko “asyla”, “asilus” eta “addax”-en ordain gisa. Horrek ez du esan nahi Urteren horrelako izenek ez dutela interesik. Nik neronek bederen jakin nahi nuke, esaterako, nondik atera zuen *adonislorea*, *anemona*-ren “euskal” kidea.

Ez da hori Urteren lan bakarra euskal hizteigintzan. Bere *Grammaire Can-tabrique Basque*-n bi zerrenda ematen ditu, orain J. A. Lakarraren (1994c: 885-914) edizio fidagarrian kontsulta daitezkeenak. Lehena frantsesa-euskara da eta 750 bat hitz ditu, Mikoletarenak bezala. Lehen zatia, 500 bat hitz hartzen dituena, gaika antolatua da: “des parties de l’oraison; nom substantif, appellatif, etc”, “des choses qui se fondent”, “des choses d’une boutique”, “gens de métier, etc”, “de vers”, “bêtes venimeuses”, “des métiers”, “appartenances de l’ame”, “des sens” “de quelques autres noms substantifs” “nom propre”, “surnom” “nom de villes, etc”; ondoren “nom adjectif” atala (100 bat hitz), eta ondoren “accident”-ak: “accident interrogatif” (*qui, quel...*), “accident reditif” (*çeci, tel...*), “accident numeral” (1, 2...), “accident numeral ordinal” (*premier...*), “accident numeral distributif” (*un a un...*), “accident numeral partitif” (*un chacun...*), “accident numeral universal” (*tout*), “accident numeral particulier” (*quelquun...*), “accident de patrie, national” (*d’Angleterre...*), “accident diminutif” (*roytelet...*), “accident possessif” (*du mien...*), “accident materiel” (*de joye...*), “accident local” (*du ciel...*), “accident adverbial” (*d’ici...*) “accident participial” (*à avoir...*), “accident tiré du verbe” (*aimable...*) eta “accident tiré du nom” (*de l’homme...*).¹⁰ Badira beste bi zerrenda, aditz iragangaitz (55 aditz) eta iragankorrenak (90 aditz) hain zuzen, gramatikak aditzari ematen dion zatian. Aipagarria da aditz sarrera horietan, erroa, era burutua eta aditz izena ematen direla. J. A. Lakarrak azpimarratu duen bezala (Lakarra 1994b: 878hh), gramatikak horrela antolatzea, eta, hortaz, hiztegia nolabait gramatikaren zatizat hartzea, ohiko gauza zen garai hartako europar gramatikagileen artean.

⁹ Ez da ahaztu behar Urterena bezalako hiztegi bat itzulpen lana dela batik bat; alde bakarra, ohiko itzulpenei buruz, hau da: ohiko itzulpenetan esaldiak eta perpausak itzultzen dira; horrelako hiztegiatan, batez ere hitz soilak.

¹⁰ Mikroegituraren aldetik, aipagarria da hiztegitxo honen erdal aldeko hitzak ere artikuluz horniturik agertzen direla askotan: 24 *enfer*, 25 *demon*, 26 *diabie*, 121 *navines*, 28 *faux dieux* baina 17 *un esprit*, 18 *un ange*, 128 *une dent* eta 117 *l’oiel*, 118 *le coin de l’oiel*, 123 *la face*, 113 *les cheveux*. Euskal ordaina, jakina, artikuluduna (-a singularretan, -ak pluraletan) da beti: *ifernüä*, *demonioa*, *deäbrüä*, *sudurçillhoac*, *Jaincofalissoäc*, *izpiritüä*, *aingeruä*, *hortça*, *beguia*, *beguiondoä*, *bissaya*, *illëac*. Bestalde, argi ageri da, are erakusgarri txiki horretan, hitz elkartuak ez ezik, orobat izen + izenondo multzoak tartean zurigunerik gabe idazteko Urteren ohitura. Joera bera atxikitzen du latin-euskara hiztegian.

2. Iparraldeko hiztegi gintza Larramendiren paradigmaren garaian

Larramendiren paradigma. Aita Manuel de Larramendi andoaindar josulagunak, apologia lan bat¹¹ eta gramatika bat¹² publikatu ondoren, hiztegi bat argitaratu zuen, 1745 urtean, Donostian, bi liburuki marduletan, *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín* izenekoa, eragin nabarmena izan zuena Hegoaldeko euskara idatzian eta ez txikia Iparraldekoan, eta erabat markatu zuena euskal hiztegi gintza xx. mendearen hasiera arte.

Hainbat gorabeheratan funtsatzen da Larramendiren lanaren garrantzi ohiz kanpoko hori. Lehenik eta behin, Larramendiren hiztegia argitaratua izan zen. Zertzelada hori, jakina, erabakigarria da. Pouvreauren edo Urteren hiztegiek, interes filologikoa izan dezakete, baina ez dute eraginik —ez dute ia eraginik, argitaragabe dirauten heinean— ez hiztegiaren garaiko hitzun eta idazleengan ez ondoko belau-naldikoetan. Argitaratzen den obra batek, aldiz, interes linguistikoz gain, kultura ondorio bat izan dezake eta are hizkuntzaren historian ere izan dezake eragina.

Bigarrenik, interes hori are handiagoa da ikusten badugu Larramendiren Hiztegia ez dela obra bakartua. Gorago esan dudanez, andoaindar euskaltzaleak hizkuntzaren gorazarre bat eta euskal gramatika bat argitaratu zituen aldez aurretik. Horiek horrela¹³ Larramendiren hiztegia estrategia orokor baten barruan kokatzen da, euskara kultura hizkuntza bihurtu ahal izateko azpiegitura lan nahitaezkoak prestatzeko ahalleginean, hain zuzen (cf. Sarasola 1996: 142). Hirugarrenik, egilearen kultura estrategiaren ildotik, hiztegi hats handiko, handinahi, erraldoi, garaiko kultura hizkuntzen hiztegien pareko bat da, asmoz, Larramendirena: 43.000 bat sarrera eta azpi sarrera ditu —neronek erakusgarri estatistiko batez baliatuz egin ditudan kalkuluen arabera—, Espainiako Errege Akademiaren hiztegiaren arabera taxutuak. Euskal ordainetan, 87.000 testu-hitz¹⁴ gutxi gorabehera biltzen dira, horietako ez gutxi lehen agerraldiak direnak. Hiztegiari gaztelerazko hitzaurre aski luzea ezarri zion; bigarren liburukiaren amaiera aldean *Suplemento* labur bat dator, zortzi orrialde eta 691 sarre-rakoa.

Larramendik, bere helburua betetzeko, garai hartako kultura hizkuntzek zuten hitz altxor nabarrarentzat euskal kideak *proposatu* egin behar zituen ezinbestean, euskal literatura urri eta murriztetik ezin atera zituenez gero. Jakintza eta teknika hitzen¹⁵ puntu honetan, baina ez bestetan, Larramendi garbizale agertzen zaigu. Ez ditu hitzok, oro har, latinetik eta grekotik hartzen, baizik eta, haien eredura, euskal gaiez moldatzen. Horrela jokatzeko hiru arrazoi adierazten ditu:¹⁶ a) hitz teknikook

¹¹ *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas: demostración previa al Arte, que se dará a luz de esta lengua*, Salamanca, 1728an argitaratua.

¹² *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca, 1729an argitaratua.

¹³ Inguruko kultura hizkuntzek —espainolak, frantsesak, italianoak...— egin zituzten urratsei begiratzea aski, denetan lehenik apologia lanak eta gero gramatika eta hiztegiak, ordena horretan eskuarki, moldatzen direla ikusteko.

¹⁴ EJI Ekin *Orotariko Euskal Hiztegi* rako prestatu zuen *Hiztegi Hirukotzaren* alderantzizkoan, erakusgarri estatistiko batez baliatuz, egin ditudan kalkuluen arabera. Ezinezkoa gertatu zait testu-hitz horiei dagokien lema kopurua kalkulatzeko.

¹⁵ «Voces facultativas» deitzen zituen Larramendik.

¹⁶ (Lakarra 1985: 24) *Diccionario Trilingüe*-ren hitzaurrea (xliv orr.) aipatuz.

ez dira jende arruntarentzat; b) hasiera batean ulertzen ez badira ere ez dio axola, erabileraren poderioz erraz ulertuko baitira; c) are jende arruntarentzat, *izarkindea*, esaterako, atzemangarriago gertatzen da *astrologia* baino, lehenak, bigarrenak ez bezala euskal oihartzuna baitu. Alde honetatik, ez dut uste Larramendiren esana, hiru hitz —*sutunpa*, *godaria* eta *surrautsa*— soilik asmatu zituela zioena, haren ateraldi bitxitzat hartzeko arrazoirik dagoenik. Ohiko hitzei dagokienez, aldiz, Larramendi ez da garbizalea, erdibidekoa baizik, “ez ingelesa bezain zabarra, ezta ere frantsesa bezain garbizalea” (cf. Larramendi c. 1754: 294). Ez du inongo eragozpenik literatura tradizioan edo hiztun onengan arrotz gertatzen ez diren formak onartzeko, nondik datozen gorabehera: *abade*, *abadesa*, *abadia*, *abaintailla* (sic) dira *Orotariko Euskal Hiztegi*an dugun *Hiztegi Hirukotzaren* alderantzizkoaren hasieran agertzen diren hitzetarik batzuk, *abadetar* bezalakoekin nahaste, baina *abandonatu*¹⁷ bezalakoak falta direla. Zertzelada honek Larramendiren eta Sabino Aranaren garbizaletasunen arteko erroto aldea eta desberdintasuna erakusten du. Larramendik, Arana Goirik ez bezala, ez du tradizioa hankaz goratzen, garbizaletasunetik osatzen baizik.

Honek guztiak erabateko iraultza ekarri zion Euskal hiztegi-gintzari. Hortaz, aspaldi da, Kuhn-ek zientziaren alorrean gertatzen diren iraultzez diharduela erabiltzen duen “paradigma” hitzaz baliaturik, Larramendiren eta Azkueren “paradigmez” mintzatzen naizela, irudia esanguratsua delakoan. Izan ere, Larramendiren eragina erabakigarria gertatu zen XVIII. mendearen bigarren erdiko eta XIX. mendeko hiztegi-gintza ia osoan —osoa, Salaberri eta Gèzeren hiztegiak alde batera uzten baditugu—. Hurrengo orrialdeetan, eragin hori Iparraldeko hiztegi-gintzan ikusarazten saiatuko nahiz XX. mende arteko hiztegi-gintzan zehar, Fleury Lécuse, Martin Hiribarren, Joseph Augustin Chaho, A. Salaberri, Louis Géze, Maurice Harriet eta Jean Duvoisin-en hiztegien azterketaren bidez. Orobat aztertuko dut Iparraldeko hiztegi-gintzaren barruan, arrazoi metodologien kariaz, Wyllem J. Van Eysen hiztegia.

Lécluseren hiztegiak. Fleury Lécuse, Okzitaniako Tolosako greko eta hebraiera irakasleak *Manuel de la Langue Basque* izeneko euskal ikasbide bat argitaratu zuen, Baionan, 1826an. Horrelako obretan ohi zenez, bi hiztegiak, bata euskara-frantsesa (3.700 bat hitzekoa) eta bestea frantsesa-euskara (3000 bat hitzekoa), osatzen dute ikasbidearen bigarren parteak.

Badakigu (cf. Lakarra & Urgell 1988: 102), Lécusek berak aitortua, Larramendiren hiztegia aurrean izan zuela hark, hiztegi hauek prestatzen ari zenean, eta nabaria da Larramendiren eragina haietan,¹⁸ nahiz eta berrargitaratzaileek dioten bezala (cf. Lakarra & Urgell 1988: 104hh) Martin Harriet den Lécuseren hiztegi-gintza gehien-gehien iturria.

Baina *Manuel*-eko hiztegitxoez gainera, Lécusek hiztegi erraldoi bat ondu zuen *Escuararen gorputza - Lexicon cantabricum* izenekoak, euskara-gaztelania-frantsesa egituraz, ahaztuxeegia genuena. Hiztegi hori galdua bide da, baina inprimarazi zituen iragarkien eta prospektuen bidez (cf. Lakarra & Urgell 1988: 109hh) badakigu bi

¹⁷ *Abandonatu*-ren lekukotasun urritasunaz, ik. OEH s.v.

¹⁸ Bestalde, euskara-frantsesa hiztegiaren «*avertissement*»-ean hitzez hitz errepikatzen du *yaincoquin-dea*, *izarquin-dea*, *zeruquin-dea*, *eraquin-dea* bezalakoekin Larramendiren arrazoibidea, lerro batzuk gorago aipatu dudana.

zutabeko 1.000 orrialdeko bi liburukiko obra zela, “qui referme plus de 40.000 mots ou phrases des différents dialectes, Guipuzcoan, Bizcayen, Labourtain, etc.”. Iragar-kian, *Escuararen gorputza*-ren bi zati aldatzen dira, A letrako 109 lehen sarrerak eta B letrako 100 lehenak. 209 sarreretatik, 206 hitzez hitz —bustiduren ortografia eta beste zenbait huskeria alde batera utzirik— Larramendiren hiztegikoak dira,¹⁹ alderantzizko hurrenkeran; bi, *bacanqui* eta *bacunqui*, Larramendiren *bacanquiro* eta *bacunquiro*-ren ordezkari daude; eta bat “Bacoiti dira, *son nones*, il y a nombre impair”, ez bide dago Larramendirengan, nahiz aurreko sarrera “Bacoitia, *non, nones*, nombre impair”, bai.

Noraino biltzen duen Lécluse-renak *Diccionario Trilingüe*-ren mami osoa ikusteko, erakusgarriak eta *Diccionario Trilingüe*-ren alderantzizkoa erka ditzakegu. Hauek dira Lécluseren lehen hogeita hamar hitzak:

A, Aacala, Aacalcorra, Aacaldu, Aba, Abadea, Abadecharra, Abadesa, Abadetarra, Abadetu, Abadia, Abaintaila, Abalcizqueta, Abaldecoac, Abalia, Abalirpitzta, Aballa, Aballada, Aballaria, Abaninoa, Abarasca, Abarca, Abarcatu, Abarescu, Abarra, Abarraquitu, Abarrategia, Abarrazkoa, Abarreztu, Abarrizketa.

Eta hauek Larramendiren hiztegiaren alderantzizkoaren hogeita hamar lehenak, *Abarcatze* bezalako aditz izenkiak, era burutu mugatuak eta kidekoak alde batera utzirik:

A, Aacala, Aacalcorra, Aacaldu, Aba, Abadea, Abadecharra, Abadesa, Abadetarra, Abadetu, Abadia, Abaintaila, Abalcizqueta, Abaldecoac, Abalia, Abalirpitzta, Aballa, Aballada, Aba(i)llaria, Abaninoa, Abarasca, Abarca, Abarcatu, Abarescu, Abarra, Abarraquitu, Abarrategia, Abarrazkoa, Abarreztu, Abarrizketa.

B letrakoei dagokienez, hauek ditugu hogei lehenak Lécluseren iragarkian:

Ba, baba, babadia, babaismina, babalarrua, babalarutu, babaleka, babazorroa, babazuca, baberrumak, babiaca, babiaccatu, babila, babillatu, bacac, bacaismina, bacalda, bacaldaria, bacaldu, bacallao.

Eta hauek Larramendirenak:

Ba, baba, babadia, babaismiña, babalarrua, babalarrutu, babaleka, babazorroa, babazuca, baberrumak, babiaca, babiaccatu, babilla, babillatu, bacac, bacaismiña, bacalda, bacaldaria, bacaldu, bacalduro.

Ikusten denez, *bakalduro* da Léclusek baztertu duen Larramendirenaren hitz bakarra. Hortaz, nahiz eta erakusgarria txikia den, uste dut esan daitekeela Lécluse Larramendiren hitzak bakarrik eta Larramendiren hitz guztiak-edo jasotzen saiatu zela bere *Escuararen gorputza*-n. Hortaz, erakusgarri hauen arabera bederen, argi dago Lécluse-ren hiztegi nagusi argitaragabe eta, antza denez, galdua, Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-ren alderantzizko bertsioa dela, Aizpitarterenaren ondoren bigarrena.

¹⁹ Esaterako, «Abadecharra, *cleriguillo*, pretolet» —Lar «Cleriguillo, *apaizcharra, abadecharra*»—, «Abecaria, *caballería, cabalgadura*, monture, bête de somme» —Lar «Caballería, bestia, *zamaria, abecaria*»; «Cabalgadura, *zamaria, abecaria*»—. Bestalde Léclusek berak (Lakarra-Urgell 1988: 102 h.) Zabalari eginiko gutunetan aipatzen du hiztegi nagusi hau Larramendiren berrantolaketa dela gehienbat.

Hiribarrenen hiztegia. Martin Hiribarren azkaindar kalonje, *Eskaraz egia*, XIX. mendeko euskal liburu bikainaren egileak, hiztegi bat ondu zuen, euskara-frantsesa, 1862. urtean²⁰ inprentatzeko prest zegoena baina oraindik argitaragabe dirauena. Eskuizkribuak 70 kaier hartzen ditu (cf. Lhande 1926: xx), orriak bi aldeetatik beteak dituztenak. Euskalkiak eta aipuak ez dira ia inoiz adierazten, eta adibideak —aski urriak— egileak asmatuak dira.

Hiribarren ez da libratzen XIX. mendearen bigarren erdialdean euskal hiztegi-gintza joko duen izurritetik, etimologiazalekeriatik, alegia. Lhanderen ustez Hiribarrenen etimologiak “rivalisent d’ingéniosité avec celles de son ami Chaho, celles d’Ybargüen et de d’Iharce de Bidassuet. Ainsi, *andoila*, andouille, vient de «*andan-ohi-il-a*”, le mort qui a coutume d’être mis en suspens!».

Hiribarrenen hiztegiaren iturriez hau dio Lhandek (cf. Lhande 1926: xxi): “Sous la plupart des mots «nouveaux» s’embusque ou un Larramendi ou un Chaho, ou simplement un mot castillan transformé”. Orobat, Hiribarrenen hitzak asmatzeko ahalmenaz mintzatzen da. Horrela, esaterako, *aingira*-tik *aingiradi*, *aingiraketa*, *aingiratz*e, *aingiratu*, *aingiraki*, *aingirakoi*, *aingirakur*, *aingirape* etab. eratortzen ditu. Adierazi behar da hitzotatik bat ere ez datorrela Larramendiren *Dictionnaire Trilingüe*-n;²¹ dena dela ez bide dago dudarik *aingiradi* bezalakoak eratortzen Larramendirenean ikasi zuela Hiribarrenek. Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko eskarmentuaren arabera, esan behar dut nabarmena dela Larramendiren arrastoa Hiribarren hiztegi-gileagan, baina ez inondik ere iturri nagusitzat jotzeko modukoa.

Bada azken alderdi bat azpimarratzekoa: Larramendiren eragin hau gorabehera, Hiribarren idazleak, antza denez, ez du *Eskaraz egian*-en, ez hitz neurtuzko idazlan ugarietan, inongo larramenditar hitzik erabiltzen.

Chahoren hiztegia. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren bulegoan fotokopiez osaturiko liburuki bat dugu, “Bibliothèque de la ville” zigiluaz hornitua, Joseph Augustin Chahok, Baionan, 1855. urtean *Dictionnaire Basque-Français-Espagnol et Latin d’après les meilleurs auteurs classiques et les Dictionnaires des Académies française et espagnole* izeneko liburu bati dagokiona, eta 93 orrialdeko hitzaurrea²² eta, 95-464 orrialdeetan, *Vocabulaire Néologique* baten *A-Maisu* zatia biltzen dituen.

Vinsonek bere bibliografian esaten duenez, hiztegia 1856koa da,²³ 472 orrialde ditu “In-4.ª”, “plus 20 p. prélim. avec titre “la guerre des alphabets” —gurearen “Introduction philologique, grammaticale et littéraire” izeneko hitzaurrean ez dago, ez izenburuan, ez bestetan, horrelakorik—; Vinsonek dioenez 59 “livraisons” publikatu ziren, Atik *Mantelina* hitzeraino.

Vinsonek aipu berean esaten duen bezala *Vocabulaire Néologique* izeneko zati hori, lan osoaren lehen zatia da, maileguzko hitzei dagokiena. Hiztegiak beste parte bat izan behar zuen, euskara hutsezko hitzei eskainia. Bestalde, hitzaurrearen 38. orrial-

²⁰ Lhande (1926: xix). Lhandek berak hurrengo orrialdean esaten duenez, behin baino gehiagotan saiatu zen Hiribarren bere hiztegia inprimarazten.

²¹ Hori buruz ez da ahaztu behar errazago zaiola, jakina, euskara-erdara hiztegi bat ontzen ari denari eratortzeaz «automatikoki» baliatzea, erdal sarrerren euskal ordaina eman behar duenari baino.

²² Ik. hitzaurre horren deskripzio aski egokia Urkizu (1991)-n.

²³ Gure fotokopietan argi eta garbi irakurtzen da 1855.

dean dioenez, 1836an ondu zuen euskal gramatika “deviendra désormais inutile, avec la publication de ce Dictionnaire que la renfermera complète, et dont il ne faudra pas la detacher, si l’on veut étudier la langue basque avec succès”. Hots, badirudi egitasmo osoak gramatika bat ere hartzen zuela. Bestalde, eta bidenabar, aurreko mendeko autoreek, ikusi dugun bezala, hiztegia gramatikaren barnean antolatzen zuten; Chahorentzat, aitzitik, gramatika hiztegiaren zatia da.

Argitaratu zen zatiaren egitura hau da: sarrera-buru gisa euskal hitza ezartzen da; ondoren, frantses ordaina, frantses ordain horren gramatika kategoria eta Frantziar Akademiaren definizioa, frantsesez; gero, barra zut batez bereizia eta gaztelaniaz, gaztelaniazko ordaina. gramatika kategoria eta Espainiar Akademiaren definizioa; segidan, gurutze batez bereizia, latinezko ordaina. Ondoren, paragrafo berean sarrera luzea ez bada, ohar etimologikoak eta bestelakoak; eta bukatzeko, hitza jokatzeko eta eratorriak sortzeko oharrak, irakurlea gramatikako zatira bidaltzen dutenak. Esaterako, hiztegioko lehen hitz *abade*-n, hau dio azken parte horretan: “V. au Tabl. gram. 1° Les règles de la Décl. [...]; 2° La série de ces term. de la Décl. et les particules euphoniques E, I, R, U; 3° Les règles de la Conj. par les term. *Tu, du, Te, turic, tuz, tua, tia, tuco, turen, tute, Tze, tzen, tzea, tzia, tzean, tzian, tzearekin, tziareki, tzeaz, tziatz, tzez*; 4° *Goa, tasun, tarzun*; 5° *Ar, ti, tar, tiar*; 6° *Gai, guei, Gabe, bague, Bear, behar, Nai, nahi, Uste*; 7° *Dun*; 8° *Orde*”. Hortaz, argi dago Chahoren hiztegieta ez dagoela sarrerarik, berez eta oro har, eratorria edo elkartua denik.

Chahok, erdal ordainetan ez bezala, ez du euskal sarreraren gramatika kategoria adierazten. Izenak eta izenondoak artikulurik gabe ematen ditu, ondoan marratxo batez A hori gehituz: “ABADE, -A.”, MAISTER, -RA.” edo “ABARICIOS, -A.”, esaterako, baina “ABADESA.”. Aditzetan erroa ematen du buruan, eta gero era burutua eta ez burutua osatzeko partikulak adierazten dira: “ABISA, *tu, tze*, etc.” esaterako. Izen edo izenondo eta aditz izan daitezkeenetan denak ezartzen ditu, batzuetan bederen:²⁴ “ABIL et ABILL, -A, *tu, tze*, etc.”. Ikusten dugunez, sarrera buruetan hitzen aldaera batzuk ere azaltzen dira batzuetan, nahiz ABIL-en bezala —ABOCAT, ABOCATU, -A, adibidez—, nahiz, maizago, letra xehe etzanetan: “ABILIDADE, -A, *Abilitate, -a*.” edo “ABERTIMENTU, -A, *Abertimentia*.”. Bidaltze sarrerak ere badira: “ABSOLBICIO, -A, *Ab-solbiziño -a, V. Absoluciono*.”

Iturriei dagokienez, ez dira eskas larramenditar hitz berekiak: *abisukida* eta *aboztuki*, bigarren orrialdean. Badira beste batzuk, *abeniko*, esaterako, *Diccionario Trilingüe*-tik nahiz bestetik har zitzaizkeenak. Dena dela, Chahoren hiztegioko bi lehen orrialdeetako 42 sarreretatik, 26 Larramendiren hiztegian datoz; ez daudenak Larramendirentzat “oso erdarazkoak” direnak dira gehienak: *abantzatu, abaricia, abaro* [= zikoitza!], *abusatu*... eta orobat, Iparraldean sustraituko hitzak: *abantzu, abertitu, abocat*. Bada hitzen bat —*abantau*, esaterako— inon aurkitu ez dudana.

Salaberry Ibarrolakoaren eta L. Géze-ren hiztegiak. Bi hiztegi hauek badituzte zenbait alde kidetzen dituztenak. Lehenik, euskalki hiztegiak dira, nolabait esan, Salaberrirena behenafarrerazkoa, Gézerena zubererazkoa. Bigarrenik, bi horiek dira

²⁴ ABARICIOS-en, adibidez, ez dago izenari dagokiona besterik.

xix. mendeko hiztegien artean Larramendiren eraginik ez duten hiztegi bakarrak. Hirugarrenik, biok dira hitz bakoitzaren gramatika-kategoria markatzen duten bakarrak, eta bestalde, izen eta izenondoak artikulatu gabe ematen dituzten lehenak hiztegiileen artean.

A. Salaberri Ibarrolakoaren *Vocabulaire de mots basques bas-navarraïts traduits en Langue Française* Baionan argitaratu zen, 1856an. Liburuak xviii + 252 orrialde ditu. Hiztegiak 1-182 orrialdeak hartzen ditu. Ondoren euskal atzizkien azalpena, euskal poesiari buruzko saiakera bat, zenbait gutun —"Lettres adressées à l'auteur, au sujet de sa Grammaire Basque"— eta euskal aditzen jokamoldea datoz, denak frantsesez. Orobat daude frantsesez Bonaparte Printzeari eskaintza, atariko eta azalpen oharrak.

Atarikoan adierazten duenez, behenafarrera hautatu zuen bere hiztegia ontzeko, bere ama hizkera izateaz gainera, Baigorri inguruko euskara delako, bere ustez, denetan garbiena, hain zuzen. Nolanahi ere "j'ai reuni, dans mon Vocabulaire, tous les mots basques usités en deçà des Pyrénées, ou s'i m'en est échappé, ils doivent être en petit nombre".

Salaberriren hiztegiak 5150 bat hitz dituzenez gero, argi dago egilearen azken baieztapena ez dela erabat zuzena. Baina hiztegi aipagarria da oso, bere euskalkia ongi zekien eta ongi ezagutzen zuen baten lana baita. Argibideak seguruak dira eta hiztegiaren antolamendua aski egokia, oro har. Ildo honetatik, aipatzekoa da, hiztegi honetan, esan berri dugun bezala, euskal hitzen gramatika-kategoria adierazten dela, lehen aldiz gure hiztegi-gintzaren historian, nik uste. Hauek dira erabiltzen dituen kategoriak: *substantif* (s.), *adjectif* (adj.), *pronom* (pr.), *verbe* (v.), *adverbe* (adv.), *post. position* [sic] (p. p.), *conjonction* (conj.), *impératif* (imp.), eta *interjection* (int.).

Punturen batean ez zait oso ekonomikoa iruditzen Salaberriren sarrerak antolatze sistema: aditzak, erroaren eta era burutuaren bidez —era burutuan erroa marratxo batez bereiziz— adierazten ditu: hots *abandona*, *abandona-tu*, hiztegi-ko lehen aditz sarrera aipatzeko. Argi dago, salbuespenen bat gorabehera,²⁵ aski zela bigarrena soilik ematea. Gainera, badirudi antolatze hori, Ibarrolak gramatika-kategorien azalpenean dionaren aurka doala.²⁶

Louis Géze frantziar euskalariaren *Éléments de Grammaire basque, dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire Basque-Français & Français-Basque*, 1873an, Baionan, argitaratu zenak, izenburuak dioen bezala bi hitz zerrenda ditu: euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara. Lehenak 3650 bat sarrera ditu, eta bigarrenak 3000 bat. Hiztegi-
txoak dira, hortaz, baina kontuan izanik hitz eratorri gutxi biltzen dituela Gézek,²⁷ ematen duen baino aberatsagoak dira, batez ere euskara-frantsesa zatia, zeinetan ez baitira falta, bestalde, hitz elkartu eta esapide nagusiak. Ildo berean, euskal zatiko A letran —ez bestetan— sinonimoak ematen ditu zenbait sarreratan, "voyez" hitzaren

²⁵ Esaterako, gramatika kategorien azalpenean aipatzen duen *r* bikoitzaren arazoa, *igor*, *igorr-i* idatiz konpontzen duena.

²⁶ «Nous faisons observer ici qu'ayant démontré, dans notre Grammaire, que les participes passés, comme les participes présents, dérivent du radical du verbe, nous nous sommes contenté de spécifier chaque verbe par son radical que nous faisons suivre du monosyllabe qui le transforme en participe passé (xviii).

²⁷ Dena dela, aurreko orrialdeetan, atzizki nagusien azalpena egiten du, gero hiztegietan sartzen ez dituen adibideekin; orobat, ez du aditz arazlerik biltzen, horiek ere azaltzen baititu.

bitartez. Honen guztiaren ondorioz, Gézerena da, Larrasketen lanen aurretiko epe osoan, zubereraren hitz ondarearen berri jakiteko hitz-altxor hobereana.

Ibarrolarenak bezala, Gézeren bi hiztegitxoetan ere hitz guztien gramatika-kategoria markatzen da, adigai hauen arabera: *adjectif* (adj.), *adverbe* (adv.), *article* (art.), *conjonction* (conj.), *féminin* (F., *edo* féf.), *interjection* (int.), *locution indéclinable* (loc. ind.), *locution interjective* (loc. int.), *masculin* (M., *edo* masc.), *pluriel* (pl.), *participe* (part.), *personne* (pers.), *pronom* (pr.), *préposition* (prép.), *préposition inséparable* (prép. ins.), *substantif* (s.), *singulier* (sing.) eta *verbe* (v.); bestalde, *inséparable* (ins.) eta *trait*. (traitement) laburdurak ere erabiltzen ditu.

Hiztegitzaren aldetik, oro har, ongi eraturiko hiztegitxoak dira. Sarreretako adierak bi barra zut kokatuz (||) bereizten ditu, eta orobat gramatika kategoria aldaketak. Aditzak hiru formen bidez adierazten ditu: lehenik erroa, ondoren aditz izena eta honen atzetik era burutua; adibidez, *abanza*, *abanzatze*, *abanzatu*.²⁸ Sistema honek *aitzina* izena eta *aitzina* aditza sarrera banatan ematera behartzen du: lehena *aitzina*, bigarrena *aitzina*, *aitzinatze*, *aitzinatu*.

Van Eys-en hiztegia. Wyllen J. van Eys holandar hizkuntzalariak *Dictionnaire basque-français* hiztegia 1873. urtean, Parisen, argitaratu zuen. Frantsesezko hitzaurre luzearen hasieran dioenez, lau euskalki biltzen ditu lan horretan: gipuzkera, bizkaiera, lapurtera eta behe-nafarrera. Kontuan izan behar da sei urte geroago argitaratuko zuen *Grammaire comparé des dialectes basques* ere ildo beretik zihoala, hots, euskalkien arteko gorabeheren azalpenetik.

Hiztegi handia da: 415 + xlviii orrialde ditu —"Gr. in-8" Vinsonen bibliografiaren arabera—; hiztegiak 1-394 orrialdeak hartzen ditu, eta gehigarriak 395etik 400erainokoak. Guztira 7.800 bat sarrera. Sarrera horiek bi motatakoak dira: sarrera nagusiak eta bidaltze sarrerak. Bigarren hauek "*Aserie*, v. *ats*, 1" bezalakoak dira, eta lehenak, dagokienean, azpisarreradunak: esaterako "*ats*, 1" sarreraren barnean *aserre* azpisarrera dago, besteak beste. Hortaz, 7.800 bat sarrera aski bitxi horiek hiztegi normaletako 7.800 bat sarreraren kide dira. Adibide hori berariaz hautatu dugu, ikusarazteko azpisarrera gisa ez direla soilik hitz baten ohiko eratorriak ezartzen, baizik eta, orobat, van Eysen ustez harekin etimologikoki loturik dauden guztiak. Zer esanik ez, etimologia hauetako batzuk zuzenak dira eta beste batzuk ez hainbeste: esaterako, gaur ez luke inork esango —van Eysek berak hipotesi gisa ematen du— *burni* latinezko *ferrum*-etik datorrenik. Dena dela, badirudi van Eysek bere garaiko gehienek baino zuhurrago eta zuzenago jokatzeko duela etimologien alor labaingarri horretan.

Hitzaurrearen hasieran dioenez, hauek dira bere hiztegiaren iturri nagusiak: gipuzkerazko hitzetan Larramendi —hitz asmatuak eta etimologiak direla eta, oso gus-tokoa ez duena—; bizkaierazkoentzat ez du iturri nagusirik aipatzen; lapurterazkoentzat S. Pouvreauren hiztegia; behe-nafarrerazkoetan Salaberriren hiztegia eta Leizarragaren Itun Berriaren itzulpena.²⁹ Horietatik at, laburduretan ikus daitekeenez, Oihenart, Lardizabal, Axular, Xurio, Mogel (Juan Jose), Arrue, Olaetxea, Vieuxville, J. K. Etxeberria, Mendiburu eta Añibarro ere erabili ditu, bai sarrerak eta azpisarrerak ontzeko, bai,

²⁸ Sinonimo gisa aipatzen denean, lehen forma erabiltzen du soilik, jakina: «voyez *urhent*», adibidez.

²⁹ Ikusten denez, van Eysentzat, gainerako euskal hiztegitzileentzat bezala, euskararen munduan denbora ez da igarotzen.

orobat, hiztegioko aipuak moldatzeko. Bestalde, sarrera bakoitzean, lehen —hots, buru gisa— gipuzkerazko aldaera ematen da, sistematikotasunaren izenean; gero, bizkaierazkoak, lapurterazkoak eta behe-nafarrerazkoak, hurrenez hurren.

Hiztegiaren mikroegiturari dagokionez —sarrerez eta azpisarrerez, eta aldaeren ordenez aipatu ditugun gorabeherez bestalde— aipatzekoa da izenak eta izenondoak, Salaberrik eta Gézek bezala, baina garaiko beste hiztegiak ez bezala, artikulua gabe ematen dituela. Aditzetan, era burutuaz ezartzen du lehendabizi sarreran, eta ondoren era burutuaz: *ikusi*, *ikusten* esaterako; gainera, “*ikuste*, v. *ikusi*” bidaltze sarrera ere ematen du. Erroak, aditz ez-eratorrietan, lapurterazko eta behe-nafarrerazko aldaeretan ematen ditu: esaterako “*ibilli*, *ibiltzen*, g. b. *ibil*, *ibili*, *ibiltzen*, l. *ebil*, *ebilli*, *ebiltzen*, bn”. Sarrera buruaren ondoren hitzaren frantses kidea ematen du, eta gero, askotan, erabilerari buruzko oharra; eta orobat, askotariko azalpenak, batez ere kritikoak, etimologiari dagozkionak bereziki.

Hizkuntzalari batengandik besterik espero izatekoa bazen ere, van Eysek ez du gramatika kategoriarik adierazten. Horren arrazoia, hiztegiaren helburua izan daiteke: euskara ikasi baino areago, ezagutu —halako xehetasun batez ezagutu— nahi dutenentzat egina dirudi. Oro har, argibideak fidagarriak dira —nolanahi ere bada bederen *babese*, aipuko *babesean*-etik oker eratorria—; eta baliagarria da, orobat, garai hartako hainbat uste oker eta etimologiaren arloko gehiegikeria salatzen.

Maurice Harrieten hiztegia. Maurice Harriet haltsuar apaiza, gorago aipatu dugun Martin Harrieten biloba zen. E. Knörrek (1986: 415) dioenez, frango goiz ekin zion Mauricek bere hiztegi lanari —inoiz kontrakoa esan bada ere—, 1855ean Madrilerara joan baino lehen, antza denez.

Harrieten aagian euskaraz ondu den euskal hiztegiarik handiena: Daranaten kalkulua zuzenaren arabera eskuizkribuak 3.536 orrialde ditu, “letra tipiaz eta halaber garbiaz” (cf. Knörr 1986: 415). Harrieten hiztegiaren alde garrantzizkoena, testuen aipuena da: garai hartan eskumenean ziren euskal testu gehienak erabili zituen Harrietek bere hiztegia ontzeko, erruz erabili ere, bizkaierazkotik hasi eta zubererazkoetan buka. Baina aipuen kopuru handiaz bestalde, bada beste zertzelada bat larritasun hori dakarrena: hitz eratorrien ugaritasuna. Askotan, Harrieten hiztegitik at inongo lekukotasunik ez duten hitzak dira. Esaterako, Larramendik eratua-edo den *leikor* (sic) dela eta, *lehiakor*, *lehiakorkeria*, *lehiakorki*, *lehiakorkiro*, *lehiakortasun*, *lehiakortu* eraten ditu, eta haren inguruan *lehiakoi*, *lehiakoikeria*, *lehiakoiki*, *lehiakoikiro*, *lehiakoitasun*, *lehiakoitu*, bakoitza bere frantseseko definizioarekin. Ezin da automatismo gehiagorik. Bestalde, horiek guztiak soilik Harrieten hiztegian bizi dira: bakar bat ere ez dut ikusi tradizioko inongo testutan. Orobat, ezin sinetsizko neurrietaraino hedatzen ditu *-kidin* eta batez ere *-kizun* atzizkien bidezko eratorriak: *laurdenkizun* “qui doit être divisé, partagé, en quatre. Qu’il faut écarteler” edo *laztan-kizun* “qui doit être embrassé, baisé, aimé”, etab. Bestalde, askotan, frantses ordaina baino areago, definizioa ematen du;³⁰ eta Larramendirengandik jasotako hitzetan, ez gutxitan, andoaindarrak dioenaren glosa egiten du.

³⁰ Esaterako, gorago aipaturiko *lehiakortasun*: «Qualité, caractère de celui qui a facilité, propension à la hâte, à l’empressement, etc».

Sarrereren egiturari dagokionez, sarrera burua letra larrietan ematen da, hitz nagusien kasuan bederen, eta aldaerak ere adierazten dira —“MADARICATZAILEA-TZALLEA”, edo “MAHAS-MAS-TIA”, esaterako—; ondoan euskalki markak —b., g., l., s., B.N., H.N.— ezartzen dira, eta haren ondoren frantses ordaina, sinonimoak eta testu adibideak, askotan aski luzeak, frantses itzulpenarekin guztiak. Adierak bi barra makurtuz “//” eta zenbakiaz bereizten dira. Amaieran, sarrera hitzaren etimologiaz dihardu, ez beti oso zuzen. Bidenabar, aipatu behar da, batzuetan, ez gutxitan, etimologia aurreiritziak hartaraturik, berez bestela inongo euskarririk ez duten adierak erazten dituela Harrietek: esaterako, LINBURDIKERIA sarrerako bigarren adiera, “suggestion, insinuation mauvaise”, *linburdikeria* etimologikoki *limurkeria*-rekin lotzen duelako erazten du, antza denez. Bidaltze sarrerak —“MINASPILLA, v. s.v. mihia” adibidez— ugari dira.

Harrietek ez du gramatika kategoriarik adierazten. Izenak eta izenondoak *-a* artikuluz ematen ditu. Aditzetan, lau forma biltzen ditu, ez oso era ekonomikoan: aditz izena —artikuluduna, jakina—, erroa, era burutua eta era burutugabea, “MARRUSCATCEA marrusca, marruscatu, marruscatzen”, adibidez: argi dago lehena edo azkena, bederen, soberan-edo dagoela.

Así lee Herrera, nos dice Tamayo, pero “mejor Sánchez, a quien sigo, *el brazo alarga*”. La razón por la que prefiere esta segunda opción se basa en que “es locución usada de nuestra lengua” (626).

Égloga II, verso 85

Del estado gozoso, alegre y sano;

Aunque en uno de los manuscritos se lea “gustoso, alegre, ufano” lectura que no califica de mala, se inclina por la ordinaria, por considerarla “más cierta” y por estar “confirmada con otro verso del mismo Poeta”; se refiere a los versos 16 y 17:

podrían tornar, de enfermo y descontento,
cualquier pastor del mundo alegre y sano;

Y continúa “Que aunque aquí es forzosa la correspondencia de enfermo a sano, y descontento a alegre, se ve bien que del uso de la y mal introducida en nuestra lengua de las voces que no son griegas, y de la voz *sano* se hizo la dicción del m.s.”. Por último, añade que “es costumbre de nuestro Poeta a imitación de grandes espíritus imitarse a sí mismos, o repetir lo que una vez acertaron a decir (...)” (633).

Égloga II, verso 134

y a la sazón en la ciudad yo estaba,

En cuanto a la idoneidad del léxico, considera que “no es necesario extrañar en este canto bucólico la voz *ciudad*”. Nuevamente, para mantener esta postura, se basa en la imitación de los clásicos “pues en *Virgil., Ecl.I:*

Pinguis et ingratae premeretur caseus urbi...
Verum haec tantum alias inter caput extulit urbes; (...) (634).

Égloga II, verso 704

con razón aparente a verdadera.

En este caso, propone una modificación puesto que “aunque tiene buen sentido, no sé que sea buena locución española” y así, debido a “nuestro común modo de hablar” prefiere leer “*aparente o verdadera*”. Y, para concluir, alega otra razón “porque tiene más energía esta duda en la disuasión” (638).

Égloga II, verso 769 -773

Quiero llegar allá; quizá, si ella ama, etc.
y no se me da nada, que desbañe
mi alma, etc.

El comentario gira entorno a la voz *desbañe* cuya extrañeza, según el autor, “hace oscuro este lugar”. Se refiere a la anotación de Herrera;¹³ considera que el sevillano “hace un largo y bien ponderado discurso sobre la licencia de introducir voces nuevas con su ocasión,” pero, en su defecto, apunta que “no nos dice qué significa ésta”. Para terminar, únicamente hace una loa de Garcilaso: “Yo alucino, aunque arrojadamente en tanta novedad, fiado en la doctrina de G.L. que en todo lo que escribió tuvo acuerdo particular (...)” (638).

Égloga II, versos 1.415

Apenas tienen fuera a don Fernando,

Se opone abiertamente a los que reprehenden a Garcilaso por el uso de la voz *apenas*, “que dicen que es figura paragoge, o proparalexis, que es adición al fin, porque se debía decir *apena*”; explicación que conduce, además, a interpretar que cuando en las numerosas ocasiones que el poeta utilizaba el término lo hacía aprovechándose de la licencia que le permitía la mencionada figura. Tamayo aprovecha la ocasión para hacer una encendida loa de la lengua española cuyas virtudes le eximen de someterse e imitar a otras pues “inútil cosa es, y aun de poca opinión querer que nuestra lengua siga las huellas de la Italiana, no debiéndola nada en antigüedad, excelencia de origen, y elegancia”. Cada lengua debe tener sus expresiones propias, por lo que “digan en hora buena los de Italia *apena* por tener otros adverbios semejantes, mas nosotros, pues decimos *a ciegas, a solas, a vueltas, a oscuras, a cuestras*, etc., digamos *a penas* sinreheprensión alguna, ni sin ayuda de figuras” (645-6).

Égloga II, verso 1.580-1.581

del caso la grandeza trae consigo
el pensamiento amigo del remedio.

Tamayo, aun reconociendo que “Así se ha leído siempre este lugar”, propone “aun que osada, creo que acertadamente” esta otra lectura:

Trae consigo
el pensamiento ambigo del remedio.

Consciente de la dificultad de su propuesta y para facilitar “la dureza del consonante” no duda en ofrecer otros testimonios basados en la “autoridad del insigne Poeta (...) J. De Mena, c.273 de la Orden de saturno:

Será olvidado lo más de lo antiguo(...)

Y en la “del venerable P. F. Luis de León, honor grande de los ingenios y letras de España, en aquella imitación o versión de Horacio:

Dichoso el que de pleitos alejado
cual los del tiempo antiguo (...)

¹³ El comentario de Herrera tiene, a nuestro juicio mayor interés. En este sentido, véase Túrrez (1999).

Por si quedase algún atisbo de duda, se refiere a otro pasaje por el que afirmar que “El sentido de Garcí-Lasso es llano por haber dicho antes:

César que en su seno está penoso
del suceso dudoso de esta guerra

De esta manera concluye que “lo que aquí llama dudoso, y antes dubio, dice ahora ambigo elegantemente” y muestra su extrañeza por no haber sido interpretado adecuadamente antes, ya que “el sentido de la lección vulgar lo es tanto, que no sé cómo no se ha advertido antes por tan buenos ingenios como han dado su cuidado a Garcí-Lasso”. A modo de colofón, realiza una pregunta retórica “porque ¿qué necesidad había de decir, que era amigo de remedio el pensamiento del César, si sólo por ponerle a las cosas del mundo pasó tanto?” que le da la oportunidad de alabar, nuevamente, a Garcilaso “Bajísimo modo de hablar y de pensar fuera sin duda y indignísimo de la grandeza de nuestro Poeta, y yo, no puedo (confiésole con ingenuidad) dejar de contentarme de esta advertencia” (650-1).

5. Conclusión

En resumen, la selección de referencias ha puesto de manifiesto la actitud de Tamayo ante diversos aspectos lingüísticos tales como el concepto de uso, la diferenciación de registros, la incorporación de términos (préstamo lingüístico), la comparación de estructuras; la valoración de la lengua vernácula, entre otros. En suma, aspectos tanto inter como intralingüísticos que confirman la importancia que adquieren este tipo de obras para el estudio de las ideas lingüísticas.

Bibliografía

- Alatorre A., 1963, “Garcilaso, Herrera, Prete Jacopin y don Tomás Tamayo de Vargas”, *Modern Language Notes* 78, 126-150.
- Aldrete, B., 1606, *Del origen y principio de la lengua castellana o romance que oi se usa en España*, Roma, acerca de Carlo Wllieto (sic), ed. facs. y estudio de L. Nieto, 2 vols. CSIC, Madrid, 1972-1975.
- Alemán Illán, J., 1997, “Una traducción inédita del Ars Poetica de Horacio, por Tomás Tamayo de Vargas”, *Criticon* 70, 107-148.
- Álvarez Martínez, M., 2004, “Gramática y retórica en el XVIII: Coincidencias y divergencias”, in *Nuevas aportaciones a la historiografía lingüística. Actas del IV Congreso Internacional de la SEHL*, La Laguna, Tenerife, 22-25 de octubre de 2003, Arco, Madrid, t. I, 237-244.
- Gallego Morell, A., 1972, *Garcilaso de la Vega y sus comentaristas*, 2.^a ed. revisada y aumentada, Gredos, Madrid.
- García Berrio, A., 1977, *Formación de la teoría literaria moderna*, Cupsa, Madrid.
- , & Hernández Fernández, T., 1988, *La Poética: tradición y modernidad*, Síntesis, Madrid.
- Girón Alconchel, J. L., 1986, “Nebrija y las gramáticas del español en el Siglo de Oro”, in A. Quilis y H.-J. Niederehe (eds.), *The History of Linguistics in Spain*, Language Arts & disciplines.

- Kristeller, P. O., 1965, "The Modern System of the Arts", *Renaissance Thoughts II*, Nueva York, 162-227.
- , 1982, *El pensamiento renacentista y sus fuentes*, Fondo de Cultura Económica, México.
- Lausberg, H., 1975, *Manual de retórica literaria*, Gredos, Madrid.
- Lope Blanch, J. M., 1990, *Estudios de historia lingüística hispánica*, Arco libros, Madrid.
- López Grigera, L., 1986, "Estela del erasmismo en las teorías de la lengua y del estilo en la España del siglo xvi" en *Erasmus y España. Actas del Simposio E y E*, Santander, 10-14 de junio de 1985, Biblioteca Menéndez y Pelayo, Santander, 491-500.
- Maquieira, M., 2004, "Ideas lingüísticas en la prosa del siglo xvi: *El Viaje de Turquía*", en *Nuevas aportaciones a la historiografía lingüística. Actas del IV Congreso Internacional de la SEHL*, La Laguna, Tenerife, 22-25 de octubre de 2003, Arco, Madrid, t. II, 1009-1020.
- Menéndez Pelayo, M., MCMCI, *Bibliografía hispano-latín clásica*, CSIC, Aldus, Santander.
- Nebrija, Elio A. de, 1517, *Reglas de orthographía en la lengua castellana*, Alcalá de Henares, Arnao Guilén de Brocar, ed. y estudio de A. Quilis, Bogotá, Publicaciones del Instituto Caro y Cuervo, XL, 1977.
- Pozuelo, J. M., 1984, "Norma, uso y autoridad en la teoría lingüística del siglo xvi", *Historiographia Lingüística* 11, 77-94.
- Ramajo Caño, A., 1987, *Las gramáticas de la lengua castellana desde Nebrija a Correas*, Ediciones Universidad, Salamanca.
- Rico, F., 1978, *Nebrija frente a los bárbaros*, Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Robins, R. H., 1987, *Breve historia de la Lingüística*, Paraninfo, Madrid, 5.ª ed.
- , 1990, "Historia de la lingüística", en F. J. Newmeyer (compilador), *Panorama de la lingüística moderna*, Madrid, Visor, 1.ª ed. 1988, t. I, 529-549.
- Swiggers, P., 2004, "Modelos, métodos y problemas en la historiografía de la lingüística", in *Nuevas aportaciones a la historiografía lingüística. Actas del IV Congreso Internacional de la SEHL*, La Laguna, Tenerife, 22-25 de octubre de 2003, Arco, Madrid, t. I, 113-146.
- Tamayo de Vargas, T., 1622, "Comentarios de Tomás Tamayo de Vargas", in Gallego Morrell, 1972, 596-664.
- Túrréz, I., 1991, "Las *Anotaciones* del Brocense y Herrera: dos perspectivas de la preceptiva renacentista" en *Retórica y Poética*, Universidad de Cádiz, Cádiz, 271-281.
- , 1999, "Lingüística y preceptiva en el siglo xvi (A propósito de las *Anotaciones* de Fernando de Herrera)," en *Lengua y discurso. Estudios dedicados al Profesor Vidal Lamiquiz*, Arco, Madrid, 987-997.

BERRIEMAILEEN GAITASUNA ETA EREDU LEXIKOGRAFIKOAREN ERAGINA LANDUCCIREN HIZTEGIAN

Blanca Urgell
UPV/EHU eta JUMI

0. Sarrera¹

Lan honetan, Mitxelenaren (1958) ikuspegiaz bestelakoxea den batetik aztertuko dut Landucciren hiztegia, gure maisuaren lana berak ukitu ez zituen edo zeharka baino ukitu ez zituen zenbait alderdirekin osatzeko asmoz. Izan ere, gero eta ageriago dago hiztegietakoko lekukotasunak zuzen ulertzeko eta dagozkien lekuan —ez gorago, ez beheago— kokatzeko ezinutzizkoa dela “lexikografikoa” dei dezakegun azterketa mota, hots, delako lekukotasuna formaren aldetik hiztegia dela ezer baino lehenago kontuan hartzen duena eta, izenak izen, testukritika hiztegiek testu gisa dituzten berezitasunei egokitzeko saio bat baino ez dena (Lakarra 1991, 1993, 1994a, 1996b, etab.).

Azterketa lexikografikoa orain artean oso emankorra suertatu denez gero gure esparruan, corpus zabalagoko hizkuntzetan baino hiztegietakoko lekukotasunen behar handiagoa izanik, Landucciren hiztegiarekin saio bat egitea erabaki dut, gure hiztegi garrantzitsuenetako bat delako, zehazki hiztegia den aldetik ez bada ere: izan ere, ezaguna da euskalki galdu baten —Arabako euskararen— lehen lekukotasun ezaguna eta, Lazarraga agertu aurretik bederen, lekukotasunik aberatsena dugula, eta zaz-pigarren alabaren euskara arkaiko hura erabakigarri izan da (eta izango oraino ere) —aztertuago eta argiago den bezala— euskalkien bilakabidea ezagutzeko (Lakarra 2004).

Landucciren testuarekin egiteko daudenen artean (batzuk lanean zehar nabarmenduko dira), eta zehatzago azterketa lexikografikoaren alorrean sartzen diren gaien artean, gaitasuna hautatu dut xede nagusi batekin: Patxi Goenagari —gramatikan irakasle, lanean lagun eta euskararen maisu dudan horri— buruan darabiltzadanan artean beharbada jakingarriago egingo zaion gai bat eskaintzeko, hain zuzen.

“Gaitasun” hitzaz mintzo naizenean, bi kontzeptu aski ezberdini nagokie: batetik, adiera hedatuenari, EGA laburdurak islatzen duen horri, hots, delako hizkuntza ba-

¹ Lan hau Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzaturako eta Joseba A. Lakarrak zuzendutako «Fundamentos para unos *Monumenta linguae vasconum*: historia, crítica y edición de textos vascos (II)» (HUM2005-08047) ikerketa proiektuaren barruan egina da. Ricardo Gómez eta Joseba Lakarrak beren ohar ordainezinekin lan hau zuzentzen lagundu didate.

tean pertsonak duen ezagutza-mailari; bestetik, eskuarki ofiziokoek bakarrik darabilgun adiera horri, hots, hiztunak hizkuntzaz duen ezagutzari, perpaus (eta bestelako osagai) kopuru amaigabe bat sortzeko eta ulertzeko duen ahalmenari. Gaitasuna zehazki zer ote den, eztabaida horretan sartzeko inolako asmorik gabe, haren alderdi zenbait miatu nahi nituzke Landucciren testuan, hain zuzen ere hiztegien formazko azterketaren ildoan, ziur aski hiztun lañoen lekukotasunak direla gogoan harturik. Lan honetan ikusiko dugu hiztegiak ematen digun informazioaren barruan badirela gaitasun mota biei buruz zenbait aztarna eskaintzen diguten osagaiak.

Bestalde, gaitasunaren gaiari behar bezala heltzeko, ezinbestekoa da aldi berean —kontrapisu erara edo— lexikografi ereduaren gaia jorratzea (Urgell 1998a, 1998b, 1999, 2001a eta 2001b). Gaitasunaz dihardugunean, hiztunak bere kasa egiten dituen zerez ari garen bitartean, ereduaren azterketak erakutsiko digu —erakusten du etengabe— hiztegiak maiz ez dabilzala erabat beren kasa, batez ere beste hizkuntza bateko hiztegiaren moldearen arabera hiztegi elebidunak biltzen dituztenak: ereduak eragindako hamaika kontu daude, bildutako informazioaren nolakoa beti ere zerbaitetan —batzuetan zeharo— baldintzatzen dutenak.

Zeharka baino ez bada ere, azkenik, uste dut hemen baliatuko ditugun azterbi-deetako zenbait lagungarri izan daitezkeela duela gutxi gure artean ezagutzera eman den 1664ko Willughby glosategiari (Trask & Coates 2006) heltzeko, gure hau bezalaxe hura ere lexikografikoki ezdeusa izan arren, hiztun laño baten aspaldi hartako lekukotasun bakanetakoa delako, berez bakanak diren gure gainerako lekukotasunen artean, Landuccirena baino are lañoagoa, lehen begiratuan hartu diogun itxuraren arabera behintzat.²

Lanaren egiturak, berriz, orain arte esan duguna atzekoz aurrera jartzen du lehen une batean, Landucciren hiztegiaren idazketan parte hartu zuten eskuen aurkezpenetik hasita (§ 1), corpus mugatu batetik erdietsitako datuak oinarri (§ 2), eredu lexikografikoak Landucciren hiztegiaren izan zukeen eraginaz hausnarketa egingo dugu (§ 3), bai eta Landucciren berriemaile nagusiak euskaraz eta erdaraz zeukan gaitasunaz ere (§ 4). Corpus beretik ateratako datuekin, azkenik, honen gaitasun chomskyarra hartuko dugu hizpide (§ 5).

1. Eskuizkribuko eskuen aurkezpena

Landucciren eskuizkribuak³ orotara hiru hiztegi biltzen ditu: gaztelania-italiera, gaztelania-frantsesa eta gaztelania-euskara, hurrenez hurren. Hirugarrena bakarrik argitaratu denez, zoritxarrez, testuinguruaz axaetik baino ezin dugu hitz egin.⁴ Dakiguntxoaren arabera, gaztelaniazko nomenklatura bera edo beretsua erabili da hiruretan, Nebrixaren gaztelania-latina hiztegitik (*Vocabulario de Romance en Latín*,

² Argitalpena dazauenak badakike testuari berari beste begiratu bat eman beharko zaiola, ez baitu hark betetzen *TPS* bezalako aldizkari batean espero ditugun gutxienekoak ere.

³ Madrilgo Biblioteca Nacional-ean aspalditik gordea, Mayans-en garaitik gutxienez (1737: 347), eskuizkribuen katalogoko 8431. zenbakiarekin (zehaztasun gehiagotarako, ik. Bibliografia).

⁴ Liverani-k (2004: 142) zehazten du italierazko hiztegiaren ondoan bi zerrenda agertzen direla, hizkuntza honetako alfabetoaren grafemena eta ohiko laburdurena, faltan eman dugun testuinguru hori zertxobait argituz.

c. 1495)⁵ hartu eta laburtua, batez ere adieren aldetik. Italiarazko hiztegiaren aldean, euskarazkoa are laburragoa da, jatorrizkoaren erdia baino gutxiagokoa.⁶

Garrantzi handikoa litzateke guretzat hiztegia nola egin zen xeheki jakitea, baina egiazki ez dugu ezer, eskuizkribuak berak ematen dizkigun datu oso urriez eta testukritikak argitutako alderdiez besterik. Alde honetatik, Mitxelenak egindako hipotesi kate ondo funtsatuan oinarritzen gara:

1.1. Beste bi hiztegiak osoki bere eskutik bide diren bitartean (Gallina 1959), euskal hiztegian lau esku antzematen dira, bat eta bakarra gaztelaniazko sarreretan, eta gainerako hirurak euskal ordainei dagokien zutabeen. Suposa dezakegu (nahiz guretzat honek garrantzi berezirik izan ez une honetan) lehen eskua Landuccirena dela. Euskal zutabeen, berriz, euskaldunak erabiliko zituen xede-hizkuntzari dagokiona osatzeko, jadanik Larramendik (1745: xxxv-xxxvi) pentsatu bezala: hiru esku identifikatu dira (argitaratzaileek A, B eta C izendatuak), letraz aski ezberdinak, baina hizkuntz ohiturez are ezberdinagoak.⁷ Baliteke, beraz, Landuccik kontrolatzerik ez izatea nolako euskara jasotzen zuen, baina esan ere egin behar da ez dakigula bere helburua zein zen.⁸ Nolanahi ere, A-C-B hurrenkeran lan egin zutela aski argia da.

1.2. Hiztegia bukatu gabe geratu zen: “sastra muger” sarreratik aurrera “verga o vara” arte euskarazko zutabea hutsik dago, V letran osatu ziren sei sarrerez gainerakoa, eta aurreko zatian ere han-hemen hutsuneak daude. Halere, sarrerren % 6-7 inguru baino ez dugu falta, Sarasolak (1998: 31) ateratako kontuen arabera, 5.630 bat jotzen baitizkio gutzira, “...344 bat ez beste guztiak euskal ordainez hornituak”.

⁵ Salamancako lehen argitalpen honen data ez da ziurra, gabe irten baitzen, baina 1494-1495 arteko behar du izan (Guerrero Ramos 1995: 19); handik eta Landuccik berea datatu bitartean Nebrixaren hiztegien hainbat argitalpen egin ziren (ik. *ibid.* 53-93), eta *Vocabulario*-ari dagokionez denetan garrantzikoena Sevillako 1516koa dugu, egileak berak zuzendu eta emendatua delako («...plusquam decem mille vocabula»). Argitalpen honen berezitasunez ik. MacDonald (1973: v eta viii-ix). Ez dakigu bietatik zein erabili zuen gure italiarrak, baina oinarri gisa balia dezakegu Liverani-ren ustea (2004: 144), alegia, Landucciren hiztegiak Salamancakoaren ildotik datozkeela, eta ez Sevillako berritik, «...perché in Landucci sono presenti lemmi assenti nella sivigliana, ma presenti in quella del 1495 quali, ad esempio, *vi-huela e victoria*».

⁶ *abad-abaxar* zatia konparatu ahal izan dut (italiarazkoa ap. Gallina 1959; diodan bidenabar, honek emandako testu eskasa MacDonald-en (1973) argitalpenarekin zuzendu behar izan dudala, zenbait sarrera ulertu ahal izateko). Hauek dira erkaketeren ondorioz garrantzizkoenak (Urgell 2002): Sarrerak ere bakundu dira, gehienetan sarrera-hitza bakarrak utzita, eta euskal hiztegiaren nomenklatura zuzenean Nebrixarenetik ez, baizik eta ematen du italiarazkotik hartu duela, hots, euskal hiztegia honen mendekoa dela, edo honen ondokoa gutxieneko kontuan. Liverani-k (2004: 143) ematen dituen datuen laguntzarekin gure erkaketa txiki haren emaitzak berma eta zehatz ditzakegu: Nebrixaren hiztegiak A letran 2.413 sarrera izanik, Landucciren gaztelania-italiera hiztegiak 1.018 ditu (% 42), eta gure kalkuluen arabera gaztelania-euskarak 805, hots, Nebrixarenaren herena (% 33) eta italiarazkoaren lau bostenak (%79).

⁷ Gallina-k (1959) esku bakarrari egotzi nahi zion euskarazko osoa ere, pertsona beraren adin ezberdinetako letrak direlako hipotesiaren bitartez. Eztabaida honetaz, ik. Mitxelena (1959: 785) eta Lakarra (1993: 93-96). Errepikatuko dut, badaezpada, Mitxelenak bildutako argudioak (letra, grafia eta hizkuntza) filologikoki aitzakiezinak direla.

⁸ Gallina-k (1959: 130) iradoki du ezen, gaztelania izanik hiru zatietako hizkuntza nagusia, balitekeela espainolentzat pentsatutakoa izatea, zehatzago merkataritzagatik edo beste edozergatik Italian, Frantzia eta Euskal Herrian egon beharra zutenentzat. Helburu zehatza iluna izan arren, xede-hizkuntzaren zutabeen ere gaztelania metahizkuntza gisa agertzea, honek argi aski uzten du bilatutako erabiltzailea nolakoa zen (Liverani 2004: 150).

1.3. Esku nagusiak —“A esku” deritzagunak— hiztegia ia osorik bete zuen (5.100 bat sarrera, hiztegiak izan behar zuenaren % 90,6). Beste bien ekarpenek ez dute ezta alderatzerik ere honekin, baina aski hurbil daude bata bestetik kopuruetan. C eskuak A-ren hutsuneetako zenbait bete eta sarrera batzuetan ordainak gehitu zituen (guztira 109 sarrera ziur, eta 8 zalantzazko; % 2,1); ez bide zen bukaeraino iritsi, ordea: esku honen azken eransketa ziurra “huso para hilar”-ekoa da, hiztegiaren erditsuan. B-k aurrekoak egindakoa osatzeari ekin, baina honek ere ez zituen S-tik aurrerako sarreretan V letrako batzuez gainerakoak ukitu (guztira 137 sarrera, ziur eta zalantzazkoen artean; % 2,4).⁹

1.4. Mitxelenak (1958: 47) iradoki zuen, bidenabar bada ere, hiru esku hauek agian berriemaileren bat erabiliko zutela eurek ez zekitena osatzearren. Zilegi bekik honetan Okham-en labana erabiltzea, zeren eta, zehatz daitekeen heinean, bakoitzak hizkera mota bakarra ordezkatzeko baitu, nahasi gabea eta, hortaz, hiztun bakarrari dagokiokeena. Dena den, esan beharra dago beherago (ik. 59. oh.) agertuko direla ahozko berriemaileren hipotesiari bide eman liezaioketen datu zenbait.

1.5. Hizkuntz azterketak eraman zuen Mitxelena A arabarra zela pentsatzera, ziurrenik C bezala. Nahiko euskara zabarrekoa, okerrez eta mailegu gordinez bete, arkaismo eta hapax ugari ditu bestalde, bazter-hizkera baten lekuko delako seinale. Baserriko lexikoa nekez eta hirikoa ondo menderatzen duenez gero, gainera, gasteiztarra zelakoan gaude (honetaz beherago luzatuko gara: ik. § 4.1). B eskua, ordea, ekialderagoko —gipuzkeratik gertuagoko— hizkeraren baten ordezkariatzat jo zuen, Arabakoa bertakoa edo agian Gipuzkoakoa: ez jakin; honen euskara zuzen eta garbiagoa da, ziurrenik ingurune euskaldunago batekoa, eta ez du arkaismorako A-k adinako joerarik (esku honetaz, ik. Mitxelena 1958: 18-20).

1.6. Erabat okertzeko dudan arriskua gorabehera, Landucciren A berriemaileren irudia zirriboratu nahi nuke, zeren eta inork ere esplizitatu ez duenez buruan zer darabilgun, beldur bainaiz ez ote dugun nork geurea eratu, eta ez ote dugun, beraz, irudi horren arabera hiztegia nork geure erara ulertzen. Ematen du, gainera, ez dela hain zaila gaia zertxobait mugatzea, argi eta garbi ezinezkoak diren zenbait aukera —edo egiantz handirik ez dutenak behintzat— alde batera utzirik.

Adituek diotenaren arabera, ez dago alfabetatuen egiazko tasa ezartzerik halako garaitan eta halako lekutan, gugandik oso gertu dagoen une batetik aurrera baizik, erregistro egokirik ezean ez baitago ganorazko hurbilketa estatistikorik egiterik (Bouza 1999: 79, Casado de Otaola 2002: 118, Castillo 2002b: 195-196, Viñao 1999: 43-44). Are lantegia zailago bihurtzen da kontuan hartzen dugunetik arloa ez dela bitan banatzen, alfabetatuak eta analfabetoak: aitzitik, idazkeraren menderakuntzan era askotako mailak daude, sinadura nekez egin eta *Gero* idazteko gauza izan artean, noski (Viñao 1999: 41-42).

Historiara igarotzen bagara, ezaguna da, oro har, Erromako inperioaren behal-diarekin bat idazkera gizartean oso bazterturik geratutako garaia ondoren, Behe Erdi Aroan berriz hasi zela lehengo garrantzia berreskuratzen, eta honek bultzatu

⁹ Paragrafo honetako kopuruak ere Sarasolarenetik (*loc. cit.*) hartu dira guztiak, salbu eta chuneok. Are datu zehatzagoak ere bildu ditu, jakin-mina duenarentzat.

zituen gizartearen zati gero eta zabalagoak alfabetatzera, mailaren batean bederen. Espainiako Urrezko Mendeetan (xvi-xvii) idazkera dagoeneko eguneroko gauzatzat jo behar dugu, baita letrak ezagutzen ez dituenarentzat ere (Bouza 1999, Cardim 2002).

Ez da erraz jakiten, beraz, Gasteizen 1562an zenbatek zekiten irakurtzen eta idazten, hainbat gutxiago Landuccirenean A-k egin zuen lana egiteko heinean. Ez zenbaterik, ezta nolakoak ere, lehen begiratuan bederen: kultura idatzia indarrez hedatzen ari zenez, gizarte mailen arteko mugak maiz ez dira batere argiak honetan.

Hurbilago jotzeko, gogoan har ditzakegu Espainiako egoera orokorraz egin diren estimazioak. Gaingiroki hitz eginez, beraz, badirudi "...analfabetoak %80-85 izan zitezkeela xvi-xvii. mendetan, nekazari ia guztiak eta hirietako artisauen zati handi bat ere barne. (...) Sinplifikaturik, esan genezake badela erlazio zuzenik, zenbat lanean idazmena eta irakurmena beharrago, alfabetatuago. Beraz, elizgizon eta noble gehienek bazekiten idazten eta irakurtzen, hala nola funtzionario, legegizon, sendagile eta lanbide liberalekoek oro har, bai eta maila bateko dendari eta merkatariek ere; baina ez nahitaez beren emazteek. Beharbada artisau eta salerosleetan hirutik batek baino gehiagok bazekien idazten eta irakurtzen; baina euren emazte gehienek ez. Nekazari, eguneko soldatapeko eta peoiak ia guztiak analfabeto ziren, baita beren emazteak ere" (Rodríguez-San Pedro & Sánchez Lora 2000: 200; B.U.-ren itzulpena).¹⁰

Eliminazioz beste biderik ez izanik,¹¹ hasiko naiz esanez ezen, itxura guztien araber, A eskua nekez bai nekez izango zela baserritar edo artzain, peoi edo mirabe, ezta emakume ere ausaz. Lehen bi aukerak, gainera, lehendik ere baztertuak genituen hizkuntz arrazoengatik, hiritar peto gisa ezaugarritzatu dugunez gero (§ 1.5). Hiritarra, bada, baina berdin hiri-gauzetan nola eliz gauzetan aditua izanik, ez dago esan beharrik ere Eliza aukera ona zatekeela: ez daukat honi aurre egiteko hizkuntz argudio txiki —eta agian anakroniko?— bat baizik: *apaezandrea* "mançeba o amiga" sarrera, Elizaz atetiko ikuspegi bat eskatzen duelakoan.

Gauza batean behintzat badugu ziurtasunik: A eskua ez da alfabetatu arrunt bat, ezpada letren munduarekin —zaletasunez zein lanbidez— estuki erlasionatutako norbait; hain estuki non arreta handi xamar bat jarri baitzuen hizkuntzaren hotsak idatziz islatzerakoan (Mitzelena 1958: 20-22). Zehatzago, oso esanguratsua da <şç> (ia) sistematikoki erabili izana txistukari afrikatuak islatzeko; xehetasun honek euskaldunen artean oso leku goran jartzen du: euskara arkaiko eta zaharrean (1700 arte, demagun) Hegoaldean afrikatuak frikariatetik grafikoki bereizteko ahalegina —ahalegina bederen— egin zuten gutxien baltsan, Madariaga, Garibai eta *Refranes y Sentencias*-en egilearekin batera (eta Lazarragaz beste talde batean, bidenabar).¹² Lehen biak nor diren ondo jakinik, eta hirugarrenaz Lakarrak (1996a: 133-136) iradokitakoak gogoan harturik, letretan oso ohitua eta oso trebatua zen gizon batengan pentsatu behar, inolaz ere: agian eskribau edo idazlari batean aiseago, bestetan baino.

¹⁰ Hurbilketa zehatzago baterako ik. Viñao (1999: 44).

¹¹ Badakit, halaber, lanbidearen araberako sailkapena baino ez erabiliz, gizartearen kontzeptio motz bat baino ez dugula erabiltzen (Chartier 1996: 27-28), bestelako aldagarriak alde batera utzirik, baina gure egoera eskasari ezinbestean hurbilketa bakun bat baino ezin egokitu.

¹² *Refranes y Sentencias*-i buruz, ik. Mitxelena (1979: 420-421); hiruz, ik. Lakarra (1996a: 18-19 eta 23); eta Larramendi aurreko Hegoaldeko goeraz, ik. Lakarra (1985: 243-245).

2. Aztertutako corpusaren aurkezpena

Zenbait datu zehatz lortzeko asmoz, Landucciren hiztegiko A eta B letrak osoki aztertu ditugu: 805 sarrera batetik eta 287 bestetik, hots, 1092 sarrera guztira, hiztegiaren bostena (% 19,4, zehazki).¹³ Hauxe da berriemaileen arabeko banaketa, kontuan izanik hainbat sarreratan euskal ordain bat baino gehiago daudela, esku beretik zein ezberdinetik:

	osatutako sarrera berriak			euskal ordainak		
	A letra	B letra	orotara	A letra	B letra	orotara
A eskua	730 (% 91)	256 (% 89,2)	986 (% 90,3)	779 (% 90)	266 (% 93,6)	1.045 (% 92,9)
B eskua ¹⁴	3 (% 0,4)	6 (% 2,1)	9 (% 0,8)	8 (% 0,9)	10 (% 2,7)	18 (% 1,6)
C eskua	44 (% 5,5)	11 (% 3,8)	55 (% 5)	51 (% 5,9)	11 (% 3,7)	62 (% 5,5)
hutsik	28 (% 3,5)	14 (% 4,9)	42 (% 3,8)	—	—	—
guztira	805	287	1.092	838	287	1.125

Esku guztiak sartu ditut corpusean, nahiz A eskuaren datuei erabateko lehentasuna emango diegun, berak bakarrik eskaintzen dituelako bere buruaz halako ziurtasun batez hitz egiteko lain direnak.

A eskuaren sarrera horietan ikusten nituen gertakari ezberdinak nolabait islatu nahirik, honako sailkapen hau osatu dut, gaztelaniatzko input-aren eta euskarazko output-aren arteko erlazioaren arabera:

	A letra	B letra	guztira
Aztertutako sarrerak guztira	805	287	1092
1. <u>Gaztelaniatzko sarreraren euskarazko ordain arrunta</u>	[321 (% 39,9)]	[113 (% 39,4)]	[434 (% 39,7)]
1.1. Euskal hitzak	267	95	362
1.2. Gaztelaniako sarrerak iradoki ez dituen maileguak	48	12	60

¹³ Testuak bi argitalpen izan ditu: Agud & Mitxelena (1958) eta Knörr & Zuazo (1998). Bigarrenak gauza bakar baina oso garrantzizko batean gairatzen du lehena: honek falta zuen 238r orrialdeko 31 sarrerak (*atormentar-aventura* bitartekoak) erantsi dira, zentzuz eta tentuz erantsi ere. Gainerakoan, lehenaren erreproduzio hutsa da. Erantsitako tarterako, beraz, bigarrenaz baliatu gara, baina gainerakoan lehendabizikoaz; jatorrizkoaren argazkiak ere ikusteko parada izan dugu (ik. Bibliografia). Irakurketa zalantzak izandako bakoitzean bigarrena ere begiratu dugun arren, jakintzat emango dugu, Agud & Mitxelenaren irakurketa berdintzen duen guztietan (eta ez dut salbuespenik aurkitu), erreferentziak alferrik ez ugaltzeko. Pena da aukera ez erabili izana aurreko edizioa hutsez arintzeko, baina egia da ez dela gure artean erraz aurkituko testu honen eskuizkribuari berriz ekin nahiko (eta ahalko) dionik: beharrik badago, osteria (ik. § 3.7).

¹⁴ Galdera-markarekin emanak barne.

	A letra	B letra	guztira
1.3. Bitarikoak (euskal hitza gehi mailegu askeak)	2	3	5
1.4. Sarrera-hitza ez, haren sinonimoa hautatua ¹⁵	4	3	7
2. <u>Lexikografi ereduaren eraginari buruzko indizeak</u>	[298 (% 37)]	[124 (% 43,2)]	[422 (% 38,6)]
2.1. Sarrerarekiko antzekotasun edo berdintasunak	[277]	[116]	[393]
2.1.1. Gaztelaniazko sarrera berdintzen duten maileguak ¹⁶	73	35	108
2.1.2. Aldaketa automatikoren bat jasandakoak ¹⁷	118	56	174
2.1.3. Egokitzapen fonetikoren bat jasandakoak	18	4	22
2.1.4. Aldamenak dituztenak ¹⁸	51	20	71
2.1.5. Bitariko sarrerak ¹⁹	17	1	18
2.2. Itzulpenak ²⁰	21	8	29

¹⁵ Talde honetan sartu ditut, ereduaren nolabaiteko eragina egotea litekeena izan arren, hiztunaren hautu argien aurrean gaudelako: “baçin, servidor, *servidorea*”, “braña o mata, *matea*”, “buelto o revuelto, *errevolidua*”... Hauen artean harrigarri gerta dakigukeenik ere badago, hala nola “ansia o congoxa, *congoxea*”, *antsia* hitzak duen tradizio ugaria kontuan izanik.

¹⁶ Gaztelaniazkoaren berdinez gainera, artikulua (sing. zein plur.) baino gehitu *ez* zaienak ere sail honetan daude.

¹⁷ Sail honetan honakoak daude bilduta: artikulua gehitzean *a + a > ea* aldaketa pairatuak (*albondiguea* “albondiga”), bukaeran *o > u* aldaketakoak (*antojua* “antojo”, baita *arrepentidua* “arrepentido” erakoak ere), adjektibo femeninoa forma maskulinoan mailegatua (“*agra cosa, gauça agroa*”), baita euskaratzerakoan beste aldaketa automatiko xamar batzuk jasandakoak ere (*-on* → *-oya*, *-an* → *-aya*, *-or* → *-orea*, *-al* → *-alea*, *-ción* → *-zioa*...: *aborreçedorea* “aborreçedor”, *acusaçioa* “acusaçion”, *açafraya* “açafran”, *algodoya* “algodon”, *animalea* “animal”...).

¹⁸ Hemen bildu ditut euskal ordaina gaztelaniazkoaren berdina izanik (aurreko kasu guztiak kontuan hartuta, jakina), aldamenak (zehaztapenak, etab.) itzulita daramatenak (“*agalla de arboles, errexalan agallea*”), bai eta halakoak kontuan hartu gabe ordezkatutakoak ere (“*acusar en juicio, acusadu*”).

¹⁹ Ordain arrunta (1. sailekoa) eta gaztelaniazkoaren berdina (2. sailekoa), biak biltzen dituzten sarrerak, alegia. Honelakoek A lettran 37 item biltzen dituzte, 17tan ordain bikoitza eta batean hirukoitza baitago.

²⁰ Honelakoetan euskal ordainak gaztelaniazko sarrera osoa erreproduzitzen du hitzez hitz-edo (bartzuetan ordena eta guzti): “*acoger en casa, essean artu*”, “*ayrado con yra, aserratua yraquin*” edo “*aquedar lo que anda, dabilena gueratu*”, esate baterako. Hemen sartu ditugu gaztelaniazko sarrera-buruaren sinonimoa edo azalpena itzultzen dutenak ere: “*babear, echar babas, babac eguosci*”; hona C eskuaren beste adibide argi bat: “*abortar, malparir, (C) gaicqui erdiu*”.

	A letra	B letra	guztira
3. <u>Hutsak eta ordain zehazgabeak</u>	[186 (% 23,1)]	[50 (% 17,4)]	[236 (% 21,6)]
3.1. Ordainik gabekoak	28	14	42
3.2. Berak ez beste eskuek osatutakoak	47	17	64
3.3. Bukagabeak	1	1	2
3.4. Okerrak eta gaizki-ulertuak	36	2	38
3.5. Formaren aldetiko desegokitasunak ²¹	22	2	24
3.6. Ordain bitxiak (formaz zein esanahiaz)	19	2	21
3.7. Ordain zehazgabeak (hiperonimoak, etab.)	16	3	19
3.8. Ordain definitzaileak	17	9	26

Lehenengo begiradan antzeman daitekeena laburbildurik, 1. atalean bildu dugu eskarmentu gabeko behatzaile batek hau bezalako hiztegi bakun batean espero bide duena, alegia, erdal sarrerak era bateko edo besteko euskal ordainekin hornituak izatea; beste bi ataletan, berriz, hausnarketarako ziorik ematen digutenak: 2. atalean, erdal erduaren eraginik badela pentsarazten eta norainokoa den neurtzen lagunduko diguten datuak; eta 3. atalean, Landucciren berriemailearen irudia hizkuntz ezagutzaren aldetik taxutzen lagunduko digutenak.

Esan gabe doa 1. atalaren mugak lausoak direla; bi aldetatik, izan ere:

- a) Mailegutza erabat mugatzea ezinezkoa da, ezaguna denez, eta ez da gure helburuetan ere sartzen, gainera. Honegatik, eta hasteko, ez dugu hemen sartu erdal sarreraren berdina den ezer, erabilera gorabehera. Gero jardungo dugu arazo honetaz interesatzen zaigun ikuspegitik, hots, erdal sarreraren eraginarenetik (§ 3).
- b) Etsita nago berriemaileak sormena ere baliatu duela, baina iruditu zait parametro hau hasieratik sartzeak kontuak ilunduko zituela, agian objektibotasunaren kaltean. Beraz, hemen horrelakorik erabaki gabe, bestela sailkatu ez ditudanak guztiak ordain arruntzat jo ditut. Gero, berriemailearen sormenari dagokion atalean (§5) saiatuko gara honi buruzko irizpideak zorrozten.

Aztertutako bi letren arteko konparaketari dagokionez, ohargarria da B letrean okerrak eta arazoak (3.4, 3.5, 3.6 eta 3.7. atalak taulan) gutxiago direla, eta atal honen gaitzen duena, erduaren eraginari egotzi diogunak irabazi duela (2. atala taulan), ordain arruntak antzeko chunekotan murgiltzen diren bitartean (1. atala taulan): honen iradoki lezake lanean aurreratu ahala A eskua gutxiago arriskatu zela, baina kon-tuan har bedi B letra txiekia dela datuotatik erabateko ondorioak ateratzeko.

²¹ Gramatika-kategoria eta kidekoak (aditz jokatu / jokatugabe oposaketa ere, esaterako) errespetatu gabe egindakoak; hona adibide argi bat: "avenida del rio, *erreccac aundiacc dato[z]*".

3. Nebrixaren itzal luzea

3.1. Hiztegitzinta oso lan gogorra izanik, nekez aurkitzen da zerotik hasitako hizteirik. Alderantziz, maiz —batez ere XIX. mendetik atzerantz, baina ez bakarrik— aurreko lanetan hartzen dute oinarri hiztegitzileek, aurreko hiztegi bat edo batzuk erabiliz. Hiztegitzileari praktika honek kentzen dizkion lanen artean handienetako bat nomenklatura da, sarrera-hitzen zerrenda, bakanetan baizik ez baita uzten gizaki bakar baten oroimen mugatuaren baitan, batez ere hiztegi elebidunen kasuan: aitzitik, oso-oso maiz elebidunak (eta eleaniztunak) beste hizkuntza bateko elebidun baten nomenklatura (osoa edo hautuzkoa) kopiatuz hasi dira.

Prozesu horretan ibili diren hiztegi zaharretan ospetsuenetako bat, eta sarrera-hitzak latinaz beste hizkuntza batean ematen dituztenetan ospetsuena, XVI-XVII. mendeetan behinik behin, Nebrixaren *Vocabulario*-a dugu (hemendik aurrera *VRL*), hizkuntza klasikoari nomenklatura kendu zion lehen hiztegi modernoa baita.²² Garai hartan, arrazoi ezberdinengatik, Europako eta bestetako hizkuntzak binaka biltzen zituzten hiztegi elebidunak aski ugaltu zirelarik, Nebrixaren gaztelaniazko nomenklaturan oinarri harturik, bada, hainbat osatu ziren, arabe (Alcalá, 1505), italiara (Las Casas, 1570), ingelesa (Percyvall, 1591) eta frantsesa (Hornkens, 1599), besteak beste (ik. Guerrero Ramos 1995: 99-143, eta Azorín, 2000: 51 eta hur., adib.), “misiolarien hiztegiak” deritzenak —hots, Ameriketako eta beste kolonietako hizkuntzen lehenak— ere barne (ik. Acero 2003: 186 eta hur.). Ez lehena, ez azkena ez delarik, Landucci giro honen barruan kokatzen da bete-betean, osatu zituen hiru hiztegitxoekin, lehenengo Gallina-k (1959: 129) gaztelania-italiera hiztegitzira erakutsi bezala.

3.2. Ez da batere erraza elebidunetan sarrera-hitzen ordain egokiak ematea (ik. Zgusta 1971: 294-344), eta uste izatekoa da zailtasuna areagotu baino ez dela egingo beste hizkuntza batzuetarako (gaztelaniatik latinera iristeko, adibidez) pentsatutako nomenklaturan oinarri hartzen denean. Kinka horretan, hiztegitzilearen senaren, trebetasunaren eta arduraren baitan dago, baldin eta xede-hizkuntza zintzo islatu nahi badu, ereduak ezartzen dizkion mugak ahaleginean gaintitzea ala haietara makurtzea.

Mitxelena (1958: 39-40) jadanik hartu zuen gogoan ezin direla axolagabekeria edota trebetasunik eza baztertu A eskuaren datu berexi zenbait azaltzerakoan, batez ere mailegu gordinen ugaritasunaz den bezainbatean, nahiz berak ez zuen arlo hau arretaz aztertzeke inolako asmorik, berriemailearen hizkeraren isla diren heinean bakarrik hartu baitzituen aintzat.

Halere, aitortu behar dugu, hanbatik hanbatean, ez dakigula zehazki zein den mailegu gordinek hain leku handia izateko arrazoi nagusia: bere hizkeraren egoera (erromantzeak oso kutsatua), bere izaera (euskaldun eskas? oroimen txarreko?) ala bere egoera (axolakabe? nekatu edo aspertua?). Bada, hurrengo lerroetan erakutsi nahi nuke bere hizkeran maileguek zuketen pisua ezinbestean areagotu egin dela gaztelaniazko nomenklaturak eskaintzen zuen erraztasunaren aldetik, hain zuzen.

²² Hobeto esanda, aintzakotzat hartua izan ohi zena (eta dena): egiazki, saio txiki batzuk gorabehera, katalanak hartu zuen aurrea, Joan Esteve-ren *Liber Elegantiarum latina et valentiana lingua*-rekin (Venecia, 1489).

Gai honi ekin baino lehen, ordea, ikus ditzagun ereduaren eraginaren alderdi begi-bistakoenak.

3.3. A eskuak ez daki sarrera-hitza gainerakotik bereizten: maizenik aldamenak eta guzti itzultzen du, beharrezkoak ez direnean ez ezik, nahasgarriak direnean ere.²³ Nebrixak aldamenok bi helbururekin jarri ohi ditu: (a) kategoria zehazteko (*cosa* hitzak adjektibo kategoria markatzen du; cf. MacDonald 1973: xiii); (b) adiera zehazteko. Bietan ditugu adibide ederrak:

- a) “agra cosa, *gauça agroa* (...)”, “alborotada cosa, *gauça alborotada*”, “alta cosa, *gauça luça, andia*”, “amable cosa, *gauça amorosa*”...
- b) “acoçar atrás, *asseruz ostico egozi*” (“acoçar, *ostico emon*”-en ondoan),²⁴ “agudeza con maliçia, *agudezea maliçiaquin*” (vs. “agudeza de ingenio”), “alcançar lo que huye, *alcançadu gura ezteuena*” (eta jarraian: “alcançar lo desseado, *alcançadu desseo deuená*”, “alcançar lo alto, *alcançadu gauça andia*”...), “amado honestamente, *amada honestidadequin*” (VRL-n lat. *caro*), “andar de andadura, *andadurian ybili*” (“andar, *ybili*”-ren ondoan; VRL-n lat. *gradatim eo is*, hots, ‘urratsez urrats’), “aquí donde yo estoy, *euen ni naguean lequan*”, “armar con armas, *armadu armaquin*” (VRL-n “armar en derredor”, “armar engeño para tirar”, etab. bereizten dira), “azeytuna fruta, *azeytunea frutua*” (vs. “azeytuno arbol”; VRL-n “azeytuno arbol” eta “azeytuna fruta del” dugu)...

Adibideok aldi berean erakusten digute gure berriemaileek lexikografian eta itzul-pengintzan eskarmentu gutxi zutela (Mitxelena iradoki bezala: 1958: 39 eta 40).²⁵ Denetan nabarmenenak bereizi ditut, honen erakusgarri; batetik, A-rena: “aspero al gustar, *jatorduan lasç*”; eta bestetik C-rena: “arar como quiera [hots, ‘oro har, edozein adieratan’; cf. MacDonald *loc. cit.*], (C) *eyçatu edonolan*”.

3.4. Eredua eragina are nabarmentzenago da sarrera-hitza eta aldamenak itzultzean jatorrizko ordena mantendu dutenean, bestetan ikusi dugun egokitzapena egin gabe: *açeptadu prometid[ua]* “açeptar lo prometido”, *açertadu çerbaytean* “açertar en algo”, *adoradu vesteyc* “adorar a otro”, *egoszi ur ardaolan* “aguar vino”...²⁶

3.5. Gauzak horrela, pentsa dezakegu Mitxelena A-ren euskarari egotzi zizkion mailegu erromantze gordinetako batzuk ez ote diren axolagabekeriaz, errazkeriaz edo trebetasunik ezagatik ereduaren eraginez itzuri.

²³ Ohitura bera antzeman du Liverani-k (2004: 147-148) gaztelania-italiera hiztegian, bai eta gero aipatuko ditugun beste zenbait ere. Honi dagokionez, hau da bere epaia: «...é evidente una forte dipendenza dalla fonte» (*ibid.*), jakina.

²⁴ Euskaraz zentzurik ez duen bikoiztasun hau gaztelaniaz ere ez da zentzuzkoagoa; latinak azaltzen bide du, ordea; cf. VRL: «acoçar tirar coces *calcitro -as -avi*» vs. «acoçar hazia atrás *recalcitro -as -avi*». Badirudi halaxe gertatzen dela bildu ditugun adibide gehiagotan ere.

²⁵ Ez du ematen Landucci bera oso ezberdina zenik: R. Gómez-ek (a.e.) hori ondorioztatzen du Nebrixaren sarrera-hitzetatik zer kopiatu zuen eta zer ez aintzat hartuta, eta ondorio berera irits daiteke Liverani (2004: 146-150) ematen dituen adibideetatik.

²⁶ Badirudi Mitxelena (1958: 40) honelako adibideak zituela buruan hitz-ordenan ere erromantzearen eragina sumatzen dela baieztatu zuenean (adibiderik gabe, ordea), «...aunque esto puede deberse en parte a falta de soltura en el traductor» erantsi baitzuen: *en parte* hori aztertu beharko.

Bide malkar honetan barrena abiatu baino lehen, komeni da zerbait bederen argi gera dadila, badaezpada: Ez dut esan nahi A-ren maileguak, denak halakoak direnik, ezta hurrik eman ere. Mitxelenak berak (*ibid.*) baztertu zuen aukera hori, eta ez da lan askorik behar zergatia erakusteko, zeren argi baitago, egon ere, mailegu asko euskaraz denborarekin hartutako berezko formak berak bermatzen dituela (*araya* “alano perro”, *barea* “pala”, *goylarea* “cuchara”, *beaça* “amença”...), eta beste asko ez direla ereduak iradokitakoak (*finea* “acabamiento”, *esquina guztietan* “a cada canton”, *perroquia guztietan* “a cada collaçion”, *arremetidu* “acometer”, *letoya* “açofar”, *escofia* “alvanega”...). Uler bedi, beraz, erdal sarrera nola edo hala (gorago adierazitako neurrien barruan: ik. § 2, 14 eta 15. oh.) berdintzen duten maileguez ari garela, alegia, *abolorioa* “abollorio” eta *aborreçedorea* “aborreçedor” bezalakoetz. Corpusaren aurkezpenean (§ 2) 2.1. zenbakiaren azpian bildu ditugun 393 sarreretakoak, zehatzago.

3.6. Zehatzapen hori egin eta gero ere, ezin dugu besterik gabe erabaki 393ak ereduaren eraginari zor zaizkiola, litekeena baita, izan ere, garai hartako euskarari jadanik sartuak egotea, erromantzeak oso kutsatutako hizkera batean espero ditugun erdarakadak baino ez balira ere, Mitxelenak uste bezala.

Zalantza horrek estualdian jartzen gaitu, ez baita erraza zehazki jakitea Landuccik lekukotzen dituen mailegu erromantzeetatik zein ziren nola edo hala erabiliak: garai hartako lekukotasunak urriak dira, gerokoak ere ez dira gai guztietakoak,²⁷ eta gaiak ugaltzen hasitakoan ere (xix. mendearen erdialdetik aurrera, demagun) egianta erabiltzen diren maileguak jasotzeko uzkuratasuna pairatu genuen, noiz gehiago noiz gutxiago. Halere, daukagunarekin jokatzear beste biderik ez dugunez, *OEH*-k, *MTLV* eta *ETG*-k lagun diezagukete ereduaren eraginpekotzat jo ditzakegun hitzak dagoeneko mailegatuak zirentz egiaztatzen:²⁸

	Guztira	393
a)	Landucciz beste bi lekukotasun edo gehiago — 1745 baino lehen.....115 — 1745 aurretik beste bat, baina gero bat baino gehiago.....30 — 1745 ondoren.....61	206 (% 52,4)
b)	Landucciz beste lekukotasun bat bakarrik — 1745 baino lehen.....8 — 1745 ondoren.....25 — bat 1745 aurrekoa eta beste bat ondokoa.....8	41 (% 10,4)
c)	<i>OEH</i> -k ez besteek jaso ez dituztenak, edo Landuccirenean bakarrik	146 (% 37,2)

²⁷ Buruan daukat Lakarrak euskal corpusaren «homogeneotasuna» deritzona (eskoletan entzuna), alegia, eliz gaien erabateko nagusitasuna, guri orain interesatzen ez zaizkigun beste alorrez gainera, lexikoaren esparru zabalak ia lekukotasunik gabe utzi dituen oso berandu arte, batzuetan xx. mendera arte ere.

²⁸ Aukera baliatuko dut ohartarazteko *OEH*-ak ez dituela beti jasotzen Landucciren halako lekukotasunak, nahiz ia beti lehenengoak izan (eta ziurrenik Larramendiren hainbaten iturria; cf. Urgell 2000): cf. *boveda* «boveda» (s.v. *bobeda*), *bazia* «baçiã» (s.v. *pazia*), *bordoya* «bordon» (s.v. *pordoi*) eta *botea* «bote de conserva» (s.v. *I pote*), besteak beste.

Baliteke (b) atalekoak zalantzazkoak izatea (nork daki zergatik lekukotu diren hain gutxi: erabilerarik ez? aukera falta? garbizaletasuna?), baina bi muturretakoak lekukotasun argiak iruditzen zaizkit, bakoitza berez ez balitz ere, multzo gisa behinik behin:

- a) Ugari lekukotzen direnek aztertzen ari garen maileguen erdia osatzen dute. Batzuk aipatzeak berak argituko dizkigu kontuak: batetik, *abarquea*, *abba-deseá*, *abitoa*, *abogada*, *absoluçioa*, *acabadu*, *accusadu*, *acordadu*, *açotea*, *adoradu*, *alabançea*, *alcançadu*, *amadu*... bestetik, *bañatu*, *bañoa*, *barquea*, *vatela*, *vesperac*, *bolsea*, *botiquea*, *votoya*, *burladu*, *burlea*... Denak ere, edo gehienak, testu zaharrak ezagutzen dituztenentzat erabat ohikoak dira, edota ahozko hizkuntzan trebaturik daudenentzat. Badirudi, beraz, A eskuak halako kasuetan euskarari —gutxienez erdarara irekiago zeuden hizkeretan— aspalditxotik sarturik zeuden edo bitartean sartuz zihoazen maileguen lehen lekukotasunetako batzuk jaso zituela.
- c) Berak bakarrik jaso dituenetan, esan gabe doa hauetan ere, (b)-koetan bezalatsu, badugula zalantza izpi bat, ez ote diren aukera ezaren edota garbizale-tasunaren erruz bestetan jaso gabe geratu. Halere, ematen du hori hala izatekotan, ehuneko txiki batean datekeela, multzo honen ugaria ikusita ez ezik (maileguen herena pasa), haren osagai askoren itxurari begira ere, zeren eta euskaraz ordain arrunt eta orokorrik dutenak baitira maiz: *açicaladu*, *afiladu*, *aguadu*, *aguijoya*, *aguila*, *alargadu*, *allanadu*, *antorchea*, *anzueloa*, *apedreadu*, *apretadu*, *astutoa*, *ateridu*, *atizadu*, *atravesadu*, *aullidoa*, *azemilea*, *bramadu*, *bramiduac*, *bellotea*, *vuhoa*...

3.7. Badirudi aukera handia dagoela (c)-koen artean bertan egotea Nebrixaren nomenklaturaren kalko erabatekoak. Baditugu zenbat datu hau sendotzeko:

- a) Espero genezakeen ordain arrunta (edo haietako bat) ere era batera edo bestera hiztegian agertzen da, noiz prestigio kontuengatik, noiz arinkeriaz, behar bada:
 - a1. Sarreraren bertan: “aborreçer, *aborreçidu*, *equisigura es*”, “agra cosa, *gauça agroa*, *ozpina*”, “ascua o brasa, *yncarra*, *braseá*”, “astuto, *jaquinduna*, *astutoa*”...
 - a2. Beste testuinguru batzuetan: *burniazco gauçea afileadu* “afilatzen da yerro”, baina *burnia çorroztu* “amolar yerro”; *açicaladu* “açicalar”, baina *apayndu andrea* “afeytar la muger”; *temporea alargadu* “alargar el tiempo”, baina *luçatu* “crecer”...
- b) Nola edo hala lekukotzen direnetako batzuk ez dira A-k emandako forman agertzen, eta honen forma, esanguratsuki, erdaraz emandako bera da (*alcarchofea* “alcarchofa”, *artillera* “artiller”...), edo erdal sarreraren txandakatzek kalkatzen ditu (*absoluidu* “absoluer”, *absoluçioa* “absoluçion”, baina *asolvidua* “assuelto”).²⁹

²⁹ *assuelto de peccado*-ren ordez, Agud & Mitxelenarenean (1958) *assalto de peccado* ageri da, nahiz eskuizkribuko irakurketa argia izan: garbi ikusten da <ss> eta <lto> bitartean bi letra daudela, eta *peccado* laburduraz dago adierazita, baina letra handiz datorrena ez da *peoc* —zer dela eta?—, *pecc* baizik (cf., bost sarrera gorago, «absolver de peccado» ere).

- c) Agertzen diren hitzetako batzuk ez bide ziren oso ohikoak erdaraz ere. Esan gabe doa gai honi tentuz heldu behar zaiola, zeren gaurko hiztunarentzat erabat ezegunak diren hitz asko eta asko (*acetre*, *alcaçer*, *almoxarife*, *alhombra*, *boçal*,³⁰ *baldrés*³¹...) oso ondo lekukotzen baitira garai hartako gaztelaniazko testuetan, eta alderantziz.³²

Gaur dukegun ustea gorabehera, beraz, honako hitz hauek ez dira behin ere lekukotzen CORDE-n 1600 artean:³³ *abarcado* ("calçado con ella [abarkarekin]" azaltzen du Nebrixak, eta hala ulertzen du berriemaileak ere: "abarcata, abarcac jançic"),³⁴ *atabalera*, *atacadura*, *atruaqueru*, *bellotero*, *borzeguineria*, *bosladera*³⁵ eta *broquelado*;³⁶ eta honako hauek 10 dokumentu ezberdin edo gutxiagotan:³⁷

aborreçedor (10; DHLE 8, N barne), *abotonar* (1, -ado 3; DHLE 5, N barne, denak lex.), *abrochar* (5, -ado 6; DHLE 8, N barne), *açelga* (9; DHLE 7, N barne), *acetre* (7; DHLE: ugari Erdi Aroan), *açicalar* (3; *acicalado* hobeto: 13; DHLE ugari), *adargar* (3; DHLE 7, N barne) y *adargado* (1; DHLE 2, biak zaharragoak), *ahao* (2), *albeyteria* (5), *alcabuetea* (2, -ado 0), *alcabueteria* (6), *alcavalero* (2), *alcoholar* (2, -ado 1), *alcorque* (2), *altanero falcon* (3), *alfenique* (6), *almagrada* (4, -ado 3), *almorrana* (3), *aloxa* (5), *amaçar* (9, -ado 10), *angustiar* (9, baina *angustiado* 50), *apreçador* (9), *apremiadura* (1), *argumentador* (1), *arremangar* (4; baina *arremangado* 21), *asmatico* (1), *atabalero* (3), *atizador* (8), *baboso* (8), *baçia* (8), *baladron* (10), *ballestear* (1), *barberia* (9), *barrendera* (4), *batañar* (0, -ado 1), *bavadero* (1), *betunar* (0, -ado 2), *bigot* (0, baina *bigote* 5, -s 18), *bisnaga* (1), *blandon* (9), *bodegenera* (4), *boñuelo* (3, *buñuelo* 11), *botana* (5), *bufar* (4, -ando 10).

3.8. Amaitzeko, seinalatu nahi nuke esan orduko begi-bistakoa dirudien zer-bait: ezin daiteke hiztegi bat argitaratu —behar bezala argitaratu, alegia— haren eredu lexikografikoa kontuan hartu gabe. Izan ere, erabili dudana corpus laburrean badira argitalpenetan kritikarik gabe jaso diren gaztelaniazko iratxo zenbait, batzuk Landucciri egotzi beharrekoak, eta bestetzu argitaratzaile modernoiei, eta erraz zu-

³⁰ Cf. *DAut*: «El inculto, y que está por desbastar y pulir».

³¹ Cf. *DAut*: «Cuero de oveja, o carnero curtido (...). Es el ínfimo, y menos fuerte».

³² Hemendik aurrera honelako baieztapenak CORDE-ko datuetan oinarrituko dira beti ere.

³³ Aukera dagoen A-ALA zatian, DHLE ere erabili dut; «N barne» oharpenak «Nebrixa barne» adierazten du, eta «denak lex.»-ek han bildutako lekukotasun guztiak lexikografikoak direla.

³⁴ DHLE-n (s.v.) Nebrixagan hasten den tradizio lexikografioan bakarrik jasoa.

³⁵ VRL-n (bi edizioetan) *bosladera* dago, baina familiakideak *boslar*, *boslada* eta *boslador* izan. *DAut*-en jaso ez denez, ezin dut esan Landucciren forma zuzena denentz. Edonola ere, CORDE-n ez dago, ez batera, ezta bestera ere, eta familiako hitzak Nebrixaren lanetan bakarrik.

³⁶ Ohartu denak ere eratorriak direla, Nebrixak ere bereak egin zituelako aztarna aski argia (cf. La-karra 1995: 30-31, eta bertan aipatutako bibliografia).

³⁷ CORDE lematizatu gabe dagoenez, saiatu naiz grafia guztien arabera aztertzen, eta izenkiak pluralean ere begiratu ditut (ez generoaren arabera, sarritan ezberdintasun hau esanguratsua delako gure hiztegian). Aditzei dagokienez, infinitiboa eta partizipioaz gainera, forma errazena ere miatzeko aha-legina egin dut, baina ez dut denak egiterik izan: baliteke, beraz, adibideren bat edo beste itzuri izana. Dokumentu ezberdinen arabera neurtu dut, bestalde, eta ez agerraldien arabera, nabariak diren arrazoiengatik.

zen zitezkeenak; baten bat zuzendu dut lehenago, baina hona larrienak: ***angarilla* (arraina)³⁸ eta ***antruyarse*.³⁹

4. A berriemailearen gaitasuna euskaraz (eta erdaraz)

4.1. A eta C berriemaileek ezagutzen zituzten bi hizkuntzetatik Mitxelenak euskaraz zeukaten mailari bakarrik erreparatu zion, normala denez, lekukotzen duten euskal hizkera ezaugarritzatzeko eta 1562ko Euskal Herriko mapan kokatzeko helburuarekin ari zen eta.

Alor horretan, gaztelaniazko sarreretarako euskal ordainak emateko orduan berriemaileak nagiak, zabarrak edota eskarmenturik gabekoak izan zitezkeela onarturik ere (cf. § 3.2), Mitxelenak (1958: 39-40 eta 46-47) erakutsi zuen hiztegian zehar ugari baino ugariagoak direla euskal ordain horietan gure egunotan hutsegite edo hutsunetzat hartuko genituzkeenak, edo euskaldun batengan harrigarri begitantzen, zaizkigunak, eta datuotan oinarriturik hizkera ez ezik, hiztunak ere ezaugarritzatzera iritsi zen. Gogora ditzagun bere ondorioak:

- a) Hizkera erromantzearekin ukipen estuan zegokeen, honen eragina sakon pairatu baitu, hala lexikoan, nola joskeran. Lexikoaren alorrean Mitxelenak iritzira esandakoa gorago egiaztatu dugu zenbakietara joaz (§ 1), A berriemailearen A letrako euskal ordainen % 40tik gora mailegu argiz osaturik dagoela irten baitzaigu han bildutako datuetatik.
- b) Hiztunak hirikumeak bide dira, eta hala-holako euskaldunak, beharbada euskaraz lantzean behin baizik hitz egiten ez zutenak.

b1. Hirikumeak ez eze, halako tamainako hiri batekoak ere baziratekeen, zeren baserri munduari dagokion lexikoan hutsune handiak baitituzte, kaleko gauzetan (hiriko karguak, hiriko gozamenak) eta eliz terminologian oso jantzita dauden bitartean. Cf., batetik, “enzina” itzuli gabe utzia eta *paguoa* “roble” edo *arecha* “haya”; bestetik, *amauia* “jurado en la ciudad”, *merioa*, *fiela* “almotaçen”, *orri verdea* “hojaldre”, *abilesan plaçea* “cosso del toro”; eta bestetik, azkenik, *croçea epizticoana* “mitra de obispo”, *elexa oscaría* “sacrilego” (denak ap. Mitxelena 1958: 46-47). Bidenabar, kostaldekoak ere ez ziren izango: “abbadejo, *arraya*”, “anchova, peçe, *sardina chipia*”, “pescador, *pescadorea*”, “red, *erredea*”...

b2. Euskaraz gutxi eta nekez egingo zuten, zeren eta Mikoletaren arabera ehun urte beranduago Bilbon zegoena baino are gaztelaniaren eragin

³⁸ Landucciren iratxoak dugu honako hau: *VRL*-ko «angarillas» - «anguilla, pescado conocido» segidaren ordez, «angarillas» (ez «angarilla», Agud & Mitxelenak dakarten bezala) eta «angarilla, pescado» dakar italiarrak. Hiztegietatik (zerrendetatik oro har) kopia egiterakoan oso ohikoa dugu akats hau, noski; gainera, sarrera bata orri baten azken lerroan eta bestea hurrengoaren lehenengoan doaz Landucciren zerrendan, begi-bistakoa izan zitekeen akatsa ezkutatzeko moduan-edo.

³⁹ Iratxo hau, ordea, moderno da, irakurketa txar baten ondorio: Nebrixaren hiztegiari joz gero, berehala ikusten da eskuizkribuan ere *antuiarse* jartzen duela. Ondorenak izan ditu, halere, gaztelaniazko lexikografian, Agud & Mitxelenaren irakurketan fidatuta, nonbait, Landucciren beste bi hiztegietakoa irakurketatzat ere eman baitute *NTLE*-n, are iratxo handiagoa den *antruejar** sarrera eratuz, hurrengo orrialdean, *antuiar* sarreran, Nebrija 1495?-ko lekukotasuna bilduta izan arren: “antruijarse, ital., *auansarsi*; fr. *savanser*; [sin equivalente en vizcaíno]».

sakonagoa baitute, *musloa* “muslo” eta *estrellea* “estrella” bezalako ezustekoek erakusten digutenez.

- b3. Mitxelenak egiantz handikotzat jotzen du —eta harrezkero guztiok— hiri hura Gasteiz izatea, eta hori erakustearren gogora dakar Navaggieroren arabera (1528) gasteiztarrek erdaraz hitz egiten zuten arren euskaraz ulertzen zutela, eta Venturinoren arabera (1571) handikiak erdaraz eta jende xehea euskaraz mintzo zirela (Mitxelena 1958: 47-48). Bidaiarien esanak beti ere kontuz hartu beharrak badira ere, Venturinoren esan hori lot dezakegu gorago (§ 1.6) iradoki dugunarekin, alegia, A eskua nolana-hikoa ez bide zelako hipotesiarekin: mailaz gorago eta euskaraz gutxiago, alegia.

Ados egon behar, jakina. Halere, zehaztasun bat bederen egin nahi nuke euskal gaitasunaren alorrean, lehenik, eta gero zenbait berri eman berriemaileon gatzelaniazko gaitasunari buruz.

4.2. Badago halako joera bat gure artean —diglosiak eragindakoa hau ere, asaz—, euskaldunen gaitasuna errukirik gabe epaitzeko (hemen oker dabil, han huts egin du...), irudi aski ezkorrek eratuz, erdaraz dituzten ezaugarrietan harrigarriki erreparatu gabe. Harrigarriki diot, ezen orain ere ni bezalako erdaldun zaharraren be-larriarentzat nabarmen-nabarmena bada pertsona euskaldun zaharra den, pentsatzen dudalako are nabarmenagoa izango zela xvi. mendean, euskaldun hutsak ez ezik are elebidunak ere euskaldunago izango ziren aspaldi hartan, eta egingo nuke, halere, ez gaudela honelako lekukotasunak ere erdeinatzeke paradan. Harrigarria egiten zait, halaber, denok baitugu buruan ordutsuan jaioko zela, oker ez banago, “bizkaino” ha-ren irudia, euskaraz ahaztu-edo, eta erdaraz behin ere ongi ikasi ez zuena (cf. Legarda 1953 eta Echagüe 2006).

Nire helburua hauxe da, alegia, A eta C erdaldun petoak ere ez zirelako ideia eztabaidapean jartzea, Larramendirekin bat etorririk: “...muy mal bascongado, y no muy buen castellano” (1745: xxxv).⁴⁰ Konparazioa onartzen bazait, eta badakit denak eskasak direla, uste dut orduko gasteiztarrek egun Durangon zein Tolosan (are Donostian ere, baina nekezago Bilbon) entzuten ditugun erdaldun berri edo berritzako horiengandik gertuago egongo liratekeela; bestela esanda, inork ez zituela valladolidtartzat hartuko, entzun orduko “bizkainotzat” baizik, hain zuzen.

4.3. Euskarazko gaitasunari dagokionez, erabili dugun corpusean badago oso adierazgarritzat daukadan adibide pare bat (pentsatzen dut gehiago ere badaudela, noski, bertan edo gainerakoan), A berriemaileak “hizkuntzaren arima” —Larramen-dik zioenez— izan bazuera erakusten diguna, lexikoko “xehetasunak” gorabehera: “atererse de frio, *osçac ateriduic*” eta “pliego de papel, *pliego bat paper*”. Honek na-hikoa urruntzen du A eskua egun “aita”, “ama”, “agur” eta “zorianak” baino erabil-tzen ez dituztenengandik, estalkirik gabe esanda.

⁴⁰ Oro har Larramendiren deskripzioa (1745: xxxv-xxxvi) ez da batere urruntzen gero Mitxelenak egingo zuenetik, gaiari helburu ezberdin batekin heldu izanak idatzarazitako adjektiboren bat gorabehera.

4.4. Gaztelaniazkoari ekin aurretik, zenbait bereizkuntza egin behar ditugu, kon-
tuak nahasten ez ibiltzeko. Lehenik, gogoratu behar da aski nabarmena dela hiztegie-
kin eskarmentu gutxi bide zutela gizon haiek (ik. § 3.2).

Bestalde, hizkuntza batez lekukoak duen ezagutza neurtzeko ez dira esangu-
ratsuak ordain zehazgabeak eta definitzaileak (corpusean 3.7 eta 3.8. zenbakiekin
markatuak), edo ez dira diruditen bezainbat bederen, zeren eta garai zaharretako hiz-
tegi elebidunetan usu aurkitzen baitira, Nebrixaren latin-gaztelania hiztegia lekuko
(cf. Urgell 2001a: 119-122): hasikinetan dagoen hiztegitzaren gorabeherak baino
ez dira, oro har.

- a) Zehazgabeak: “abrigo⁴¹ viento, *axea*”, “aguja paladar, *arraya*”, “aljava, *çurroya*”...
- b) Definitzaileak: “adulterar, *vesteren emazteaquin essin*”, “alguazilazgo, *algua-
zilan offiçioa*”, “amonestador, *auisaytan deuena*”, “antepuerta, *atean aurecco
mantea*”, “assoleado al sol, *yguzquitan eguon dan gauçea*”...

4.5. Zaku beretsuan sartuko nituzke, baina hiztegitzaren maila apalago batean
oraindik, formaren aldetik desegokitasun nabarmenak dituztenak, hala nola ondoan
bildu ditudan sailetakoak:⁴²

- a) Infinitiboa forma jokatuarekin ordezkaturak: “abastar, *asco da, ez queao*”,
“abondar, *goraz eguiten du, a[s]co da*”, “aclerar el día, *arguiquetan du eguna*”,
“amanecer, *egun eguiten du*”, “amarilleçerse, *oriquetan da*”, “arreziar de dolen-
zia, *obaytan da*”, “aver gana de mear, *chixacurric nago*”, “bahear, echar vaho,
lurruña dacarr”...
- b) Aditzetik sortutako izena aditz jokatuarekin ordezkaturak: “acometimiento,
arremetidu çan”, “avenida del río, *errecac aundiac dato[z]*”...
- c) Izen abstraktua ‘izen zehazgabea + abstraktuari dagokion adjektiboa’ egitura-
rekin: “anchura, *lecu çavala*”, “angostura, *locu (sic) chiquirra*”⁴³...
- d) Infinitiboa izenarekin edo izen sintagmarekin: “afear, (C) *gestu dullorra*”,
“aguijonar con aguijon, (C) *aculladea*”, “alaridos dar, *ayuiby*” (argitaratzaileek
azken honi dagokion oharrean iradokitzen dute *egin* edo *emon* ahaztu ez ote
zuen)...
- e) Infinitiboa erlatibozkoarekin: “arraygar, hazer raíces, (C) *guiçon lur asco
daucana*”.⁴⁴

⁴¹ Edizioan (Agud & Michelena 1958) *abrigo* forma «sic» batez lagunduta dago, baina horixe da
Nebrixak dakarrena. Cf. gorago esana (§ 3.8).

⁴² Honetan kidesan nabarmenak ditu Willughby glosategiarekin: «Perfidia, *unec ostuten daqui*»
(166), «fortitudo, *amino dauco [amino ez ote?]»* (168), «pulchritudo, *ederra dala andrea*» (180), «bene-
dictio, *bendicinoac esarden deuço [ziurrenik ezarten deuso]*» (204), etab.

⁴³ Edizioan zuzendu ez bada ere, agian etimologian pentsaturik, badirudi *lecu* ziurra dela, hainbat
aldiz agertzen baita, eta guztietan berdin: *lecu bat[e]rusç equin* «allegar», *lecu biribilla* (C) «circulo re-
dondo», *ynolaco lecuon* (B) «en ningun lugar», *veste lequan* «en otro lugar», *lecu* «lugar»...

⁴⁴ Ematen du C berriemailearen bereizgarri dela espero ez dugun kategoriarekin ordezkatzeko: Mitxe-
lenak jadanik seinalaratu zuen erdal infinitiboa euskal partizipio mugatuarekin ordezkatzeko daukan joera
(1958: 17-18), eta (d) ataleko hiru adibidetan bi bereak dira; horrezaz gainera, deigarria da osagarri ad-
berbiala zein adberbioa ere partizipioarekin ordezkatzeko gauza dela: «a porfia, (C) *porfiadua*», «apreta-
damente, (C) *ondo estua*». Ez dakit nola interpretatu behar den.

4.6. Mitxelenak euskal zutabeko hutsuneak berriemaileek euskaraz duten zailtasunari egozten dizkio, eta ez dago dudarik aintzakotzat hartzekoak direla gure corpusen direnetako zenbait, hala nola “ençina” bera, edo beharbada “alfalfa”, “argamassa”, “artejo”, “barroso”, “buitre”, bai eta hortik kanpoko hainbat ere, hala nola *r* letran batu ditudanok: “rastros de pisada”, “redondo”, “relinchar cavallo”, “rio”.

Halere, azaldu berri dudak ikuspegitik, denak halakoak ote? Beti euskal ordainik ez izanak isilduko zuen, ala ez ote zen erdara ulertu ezinik edo zehazki zer zen asmatu ezinik ere geratuko, batzuetan bederen? Ezen batzuk orduko gaztelanian ez bide ziren oso ohikoak, zenbait inguruetan izan ezik beharbada, CORDE-ren datuen arabera erabaki behar badugu, behintzat: *aguija* (0),⁴⁵ *almojavana* (0),⁴⁶ *anadear* (0),⁴⁷ *an-tuviarse* (0),⁴⁸ *añino* (1),⁴⁹ *atormeçimiento* (1),⁵⁰ *alguirnalda* (3),⁵¹ *almadrava* (8),⁵² *baladrear* (4),⁵³ *blanquibol* (0).⁵⁴ Adibideok erakusten digute, gainera, A eskua ez zela beti jausi errazkerian, erdal zutabeen zekusana euskaraz ere emanez beste gabe: noiz-bait bederen, benetan ez zuen erantzunik aurkitu, gaztelaniazko hitzaren aditzerik ez zuelako, agidanez.

4.7. Bestelako azalpenik izan lezaketen arren, behin honetaraz gero bide beretik uler daitezke hitzen esanahiaren interpretazioan egin dituzten akatsak: “aguiloch, *aguila arra*” (‘arranokumea’; cf. *VRL*), “aguaducho, (C) *ur joana*”,⁵⁵ “agenar el hijo en vida, *umea viçian negatu*”,⁵⁶ “anadino, *ataçaya*” (‘ahatetxoà’; cf. *DAut*), “a menudo, *gutica gutica*”⁵⁷, “boço de barba, (C) *cocoça*”⁵⁸...

4.8. Hipotesiaren alde nekezago erabil daitezke, berriz, erdara irakurtzean egindako akatsak, kopiaketaren beraren ohiko gertakariak diren heinean behinik behin: “ahuyentar, *ausentadu*”, “assaz, *erraytea*”, “assestar tiro, *açertadu*”, “açada,

⁴⁵ Latinez «glarea» eta «calculus fluvialis» Nebrixaren *VRL*-n; ‘legarra’ edo ‘errekarría’-edo, ezagunago den *guijarro*-ren familiakoa, beraz. CORDE-ko adibide guztiak, *aguijar* aditzarenak dira, oso oker ez bago.

⁴⁶ *DAut*-ek bai («ALMOJABANA. s.f. Cierta torta que se hace de massa con queso y otras cosas»), baina Nebrixa eta Covarrubias-en lekukotasunarekin bakarrik.

⁴⁷ Beste hainbeste gertatzen da hitz honekin ere: hiztegi horiezaz beste lekukotasunik ez *DAut*-ek.

⁴⁸ Gorago (39. oh.) azaldu dugu edizioan gaizki irakurri dela (***antruiarse*). Cf. *DAut*: «ANTUVIAR. v.a. Apresurar o hacer alguna cosa intempestivamente (...)».

⁴⁹ «vellus agninum» (*VRL*). Cf. *DAut*: «AÑINOS. s.m. El vellon fino del cordéro de un año».

⁵⁰ «stupor» (*VRL*). *DAut*-ek ez dakar.

⁵¹ «Lo mismo que Guirnalda. (...)». Trahela Nebrixa en su Vocabulario [*VRL* bera], y tambien el P. Alcalá; pero no tiene uso con el artículo Al» (*DAut*).

⁵² Cf. *DAut*: «ALMADRABA. s.f. La pesquería de los atunes, el sitio, barcos y redes y demás menesteres para ejecutarla».

⁵³ Cf. *VRL*: «baladrear o hablar *blatero* -as -avi». Ez dator *DAut*-en, *baladronear* bakarrik baizik.

⁵⁴ Cf. *DAut*: «BLANQUIBOL. s.m. Trahe esta voz Nebrixa en su Vocabulario, y la pone por synónimo de albayalde. Vease. Es voz antiquada».

⁵⁵ *VRL*: «aqueductus, aquagium -ii». *DAut*: «Lo mismo que Aguacero. Vease. Es voz antiquada».

⁵⁶ *VRL*: «agenar el hijo en vida, *abdico* -as -avi». *DAut*-ek dio hitz zaharkitua dela, eta «enajenar»-era bidaltzen du. «ENAJENAR. Dar a otro alguna cosa, transfiriendo en él el señorío u dominio (...)».

⁵⁷ Badirudi *menudo* adiera hertsian hartu duela. Cf. *VRL*: «frequent, crebro, saepe».

⁵⁸ Cf. *VRL*: «lanugo barbae»; *DAut*: «El primer vello que apunta a los juvenes sobre el labio superior» eta «Se dice tambien la parte superior del labio donde nace el bozo»

guztietan”...⁵⁹ Oso polita da hurrengoa ere, gaizki irakurritako hitza A-rentzat oso ohikoa ez zela adieraz baitezake: “anidar azer nido, *ybili afia eguiten*” (hots: *andar anidar*-en ordez).

4.9. Hiztunik jantzienari ere gertatzen zaio hitzen bat ez ezagutzea, halere. Ezin dugu hortik ezer eratorri, ezpada bistan dena: ziurrenik ez zituen hitz horiek ezagutzen. Gorago egin dudan baieztapena agerian jartzeko, alegia, erdaldun eskasa ere bazitekeela, hori baino sendoago den zerbait beharko nuke, jakina. Eta nago horrelako zerbait ediren dudala morfologiaren zertzeladen artean:

- a) Gaizki dabil genero gramatikaren *ñ*abartasunez oartzeko: “*azeytero, ollera*” (cf. *VRL*: “*azeytero, que lo vende*” vs. “*azeytera, vaso*”),⁶⁰ “*ydolatra, andra ydolatre*”,⁶¹ cf. beharbada baita goraxego aipatutako “*aguilocho, aguila arra*” ere.
- b) Hitz hasieran *a* egon eta, aukera dagoen bakoitzean, *a* preposizioztat hartzeko joera handia du: “*aca donde yo estoy, ona, ni nagoan lecura*”, “*açerca, aldera*”, “*alla, ara*”, “*aventura, venturan*” (cf. *VRL*: “*aventura o ventura, fortuna -ae*”)...

4.10. Uste dut argi geratu dela, gutxieneko kontuan, ez dela erraza erabakitzea gure berriemailearen arazoak zein hizkuntzak sortzen dizkion, zeren eta ezer ezin itzulirik gera baitaiteke hala euskal ordainik ez zaiolako bururatzen, nola erdal hitzaren esanahia ez dakielako. Horrezaz gainera, ikusi ahal izan ditugu erromantzearen aldetik zituzkeen gabezien edo bereizgarrien aztarren batzuk.

Behin arloa honela irekiz gero, espero dut aurrerantzean corpusetik kanpo geratu diren sarreren emaitzak ebazterakoan, A eta C eskuen gaztelaniazko mailari ere erreparatuko zaiola azalpenaren bila.

5. Gaitasunaren hiztegi berezi bat?

5.1. “Gaitasunaren hiztegi” kontzeptua Lakarrak sortu zuen Pouvreau eta Urteren hiztegiak definitzeko, eta hauen eta Larramendiren hiztegiaren artean gure arbasoek aurreiritziz sortu zuten tartea gutxitzeko (Lakarra 1993, 1994b eta 1995), Europako lexikografian antzemandakoa gure kasuari egokituz (cf. Seiffert 1990 eta Jones 1991, Schottelius-i buruz). Labur esanda, hiztegitagileak berak zekiena edota auzoengandik jaso ahal zuena bakarrik bildu beharrean, hizkuntzaren sorbideak ere baliatu ditu, dudarik gabe —aldez bederen— kanpoko ereduak behartuta, Urte eta Larramendiren kasuetan bezala, baina baita hizkuntzaren formazko aberastasuna (Larramendiren terminologia erabiliz; cf. Lakarra 1995: 32-39 eta Urgell 2004: 302)

⁵⁹ Aipatutako adibideetatik azkena bakarrik (*a cada açada*-ren ordez) eman daiteke irakurketa huts argitzat: besteek azalpen hori arazorik gabe onar dezaketen arren (**ahufentar* eta **assar* irakurri balu), berraz egindakoak ere izan daitezke ederki asko. Mereziko luke alde honetatik ezer gehiago atera ote daitezkeen begiratzea. Nolanahi ere, oraingoz ekonomikoagotzat izan behar dugu berriemailea eta idazlea bat direlako hipotesia, hasieratik ezarri dugunez (§ 1.4).

⁶⁰ Nebrixak hurrenkera honetan dakartza: «*azeyte*» - «*azeytero, que lo vende*» - «*azeytera, vaso*». Landuccik lehen biak bakarrik kopiatu ditu.

⁶¹ Mitxelena (1958: 18-19, 11. oh.) honako hau idatzi zuen sarrera honi buruz: «Hay también alguna traducción de A que le acredita de descuidado si no queremos mantener el calificativo de ‘no muy buen castellano’ que le atribuyó Larramendi. (...) Para él, por lo visto, no había idólatras más que del sexo femenino».

edota, gaurko erara esanda, haren sormena probatzeko eta frogatzeko plazer hutsagatik ere, Pouvreak erakusten digun bezala.

5.2. Orain arte seinlatu diren aleok (erants bekie Martin Harriet ere: cf. Lakarra 1994a) hiztegitik mota jakin bati dagozkio guztiak: gramatikagile ere badenari, alegia, hala adiera hertsia baina axalekoenean —gramatika egile izateagatik— nola sakonago batean: hizkuntzaren balizko altxor lexikora hurbiltzeko sarrera gisa gramatika aztertu duena izateagatik (Larramendik oso argi adierazten du bigarren adiera hau: cf. Urgell *loc. cit.*).

Ez horrelakorik Landuccirenean: lehen batean, goian (§ 1.6) egin ditugun ahaleginak gorabehera, maila ezezaguneko euskaldunetz ari gara, nahiz egiantz handiz esan dezakegun —esan ere egin dugu gorago— ziurrenik hitzun lañoak zirela, euskal gramatikaren ezagutzarik gabekoak, erabilerak erakusten duenaz gainerakoan bederen, Mitxelenak adierazi bezalaxe (1958: 39). 1562an euskararen egoera zein zen gogoratzea aski berme dateke horretarako. Eta, halere, berehala ikusiko dugu hiztegiaren egiturak berak gonbidatzen duela A berriemailea bere gaitasuna hiztegiaren mesedetan erabiltzera eta, beraz, hitzak sortzera.

Zehatz dezagun: “hitzak” esan dut, baina beste era batzuetako erantzunak ere baidu gaztelaniak dakartzkion arazoetarako. Izan ere, automatismoa eratorpenean bilatzeko joera badugu ere, eratorpen aberats eta erregularra haren islarik onena delakoan baikaude (cf. Lakarra 1991: 241-243, besteak beste), gaitasunaren eraginaz dugun kontzeptua beste automatismo mota batzuetara zabaldu beharrean gaude hemengo lekukotasunen argitan, berehala ikusiko dugunez.

5.3. Erdarazko hitz familiek portzentaia oso gora batean joera dute familia bereko euskal ordainekin ordezkaturata egoteko, normala denez: “abil cosa, *jaquinduna*”, “abilidad, *jaquitea, ingenioa*”, “abilmente, *jaquinduna leguez*”; “acaecer, *apucadu*”, “acaecimiento, *apucaytea*”; “acoçar, *ostico emon*”, “acoçador, *osticaria*”; “alegre, *gozosa*”, “alegremente, *gozoquin*”, “alegria, *gozoa*”, “alegrarse, *gozatu*”...

5.4. Hau ez litzateke harrigarria izango, ordezkotzan automatismoaren aztarna argiak aurkituko ez bagenitu. Adibidez, *-mente* (ia) automatikoki ‘izenki mugatua + *legez*’ egiturarekin itzultzen du A berriemaileak; gainera, ia sarrera guztiak dagozkien adjektiboaren alboan daude eta haren mendekoak dira:

“abilmente, *jaquinduna leguez*” (“abil cosa, *jaquinduna*”), “agudamente, *çorrosza leguez*” (“agudo como quiera, *çorrosça*”), “amablemente, *amorosoa leguez*” (“amable cosa, *gauçã amorosa*”), “amorosamente, *amorosoa leguez*” (“amoroso, *amorosa*”), “apresuradamente, *apresuradua leguez*” (“apresurado, *apresurado* (sic)”), “argullosamente, *revoltosoa leguez*” (“argullosa cosa, *gauçã revoltosa*”), “arreatadamente, *arreatadua leguez*” (cf. “arreatar, *arreatadu*”), “astutamente, *astutoa leguez*” (“astuto, *jaquinduna, astutoa*”), “bien aventuradamente, *bienaventuradua leguez*” (“bienaventurado, *bienaventuradua*”), “blandamente, *veratua leguez*” (cf. “blando, *verea*”), “bravamente, *brabua leguez*” (“brava cosa, *gauçã bravua*”), “brevemente, *chipia leguez*” (“breve cosa, *gauçã chipia*”).

Hiztegian zehar aukera gehiago daude *-mente* ordezkatzeko, baina aurrekoa da automatikoa dirudien bakarra. Zenbakietara joaz, 18 *-mente*-dun aditzondotatik 12 dira aipatu dugun erakoak, eta gainerakoak honela banatzen dira: (1) soziatiboarekin

ordezkatuak: “alegremente, *gozoquin*”, “amado honestamente, *amadua honestidadequin*”, “artificialmente, *artifiçioquin*”; (2) inesiboarekin: “anchamente, *çavalean*” eta “antiguamente, *tempora yraguetam*”; (3) atzizkiduna: “buenamente, *ondo*”.⁶²

5.5. Zenbait erlazio-izenondo ere perifrasi beraren bidez itzuli ohi ditu: “açucarado, *açucrez betea*”, “ahumado, *quez betea*”, “ayrosa cosa, *gauça azez betea*”, “alvayaldado, *alvay[al]dez betea*”, “berrugoso, *vixigaz betea*”.⁶³

5.6. Are jakingarri eta nabariagoa da *-miento* atzizkiarekikoa. (Ia) automatikoki aditzenarekin itzultzen du A berriemaileak; 17tik 13 adibidetan hala da (salbuespen argiak: “atrevimiento, *atrevimentua*”, “averiguamiento, *averiguança*”, “bastimiento, *bastimentua*”), eta bide beretik dabil baita aditzetik izena egin ohi duten beste zenbait atzizkitan ere (*-ción* eta batez ere *-dura*). Kasu guztietan (“ayramiento” eta “amassadura”-n izan ezik) aditzaren alboan daude eta haren eratorriak dira, aditzoi-nari aditzenaren marka erantsiz beste gabe:

-MIENTO: “acaçimiento, *apucaytea*” (“acaecer, *apucadu*”), “agenamiento, *negaytea*” (“agenar el hijo en vida, *umea viçian negatu*”), “ayramiento, *yraquetea*” (cf. aurreko sarrera: “ayrado con yra, *aserratua yraquin*”), “alumbramiento, *arguy eguitea*” (“alumbrar, *argui eguin*”), “anegamiento, *undiquetea*” (“anegarse la nave, *unditu navioa*”), “apagamiento, *yşcauntea*” (“apagar fuego, *sua iltu, sua yşcaungui*”), “apartamento, *apartaytea, urraytea*” (“apartar, *apartadu, urratu*”), “apeamiento, *jastea*” (“apearse, *jaşçi*”), “apegamiento, *yşcaztea*” (“apegarse, *yşcaşçi*”), “arrebataamiento, *arriba[ta]ytea*” (“arrebatar, *arrebatadu*”), “assentamiento, *jarritea*” (“asentarse a la mesa, *garri* (sic)”), “aventamiento, *eraxaytea*” (“aventarse el trigo, *garia eraxo*”), “bolvimiento, *viurtea*” (“bolver, *viurtu*”). Berbera egiten du C-k ere aukera duen bakarrean: “apretamiento, (C) *esquetea*”.⁶⁴

-DURA: “amassadura, *amassaytea*” (cf. “amassar, *masseu eguin*”), “aojadura, *veguiaz eguitea*” (“aojar con los ojos, *veguiaz eguin*”), “arrodilladura, *velaurico jarritea*” (“arrodillar, *velaurico jarri*”), “assoladura, *lurrera eguoztea*” (“assolar lo poblado, *poblada lurrera eguosçi*”), “blanqueadura, *çuriquetea*” (“blanquear hazer blanco, *çuritu*”).⁶⁵

-CIÓN: “antiçipacion, *antiçipaytea*” (“antiçipar, *antiçipadu*”).⁶⁶

⁶² Esan gabe doa, bidenabar, de Rijk-en (1995) hipotesia bermatzen duela honek (berriro bermatu ere: cf. Urgell 2000), alegia, modu-aditzondoak egiteko erator atzizkiak berandu hedatu direlako, eta berandago Mendebaldean: ez dago behin ere eratorpenik modu-aditzondoan atal honetan, *ondo* apaletik at, Larramendi aurreko Nafarroaz besteko Hegoaldeko testu batean espero bezala, edo areago (hiztegi osoko datuen gainean erabaki beharko).

⁶³ Zuzenketa gurea da: cf. «alvayalde, *alvayalde*» aurreko sarreran.

⁶⁴ Bazuen beste aukera bat, baina bestelako irtenbidea eman zion: «apaçentamiento, (C) *campu paçietacoac*».

⁶⁵ Aditzena erdal sarreretak eskumenean jarritako *-dura* berarekin dago norgehiagokan (ez beti maillegu zuzenez, gainera): *çerçenadurac* «açepilladuras», *alturea* «altura», *moldurac* [*moladurac*-en ordez?] «amoladuras», *añadidurea* «añadidura», *apremiadurea* «apremiadura», *atacadurea* «atacadura»... Bidena-bar, *-dura*-ri dagozkion sarrera guztiak batera aztertzean duda sortu zaigu, ea ez ote den batzuetan atzizkiko bokal arteko *r* erori: «ahechaduras de trigo, *gari garvituaç*», «alimpiadura[s], *garvituaç*», «apreçiadura, *apreçiadua*», «blandura, *veratua*»; edonola ere, tiau berbereko ordezkioa dugu «amorteçimiento, *iltua*» ere, Larramendik ere *iltura* ulertu (ala osatu?) zuena (cf. Urgell 2000).

⁶⁶ *-ción*-en ordezkorik ohikoena *-zio* bera da (8/9): *absoluçioa* «absoluçion», *accusaçioa* «acusaçion», *alteraçioa* «alteraçion», *apelaçioa* «apelaçion», *aprobaçioa* «aprobaçion», *atençioa* «atençion», *governaçioa* «administraçion» eta *bendiçioa* «bendiçion».

Gure interpretazioaren arabera, beraz, hauek denak, edo gehienak behinik behin, eratorri automatikoak dirateke. Azpimarratzekoa da, bestalde, ekintza-izenak eratzea ez dela baliabide honen egiteko bakarra: aitzitik, ‘nolakotasuna’ adierazten duten izen abstraktu zenbait ere eratzeke baliatu du A-k, beti ere adjektiboaren bide beretik: “abilidad, *jaquitea*, *ingenioa*” (“abil cosa, *jaquinduna*”), “amargura, *mintea*” (“amargo, *mina*”), “agudeza de yerro, *çorrosztea burnianá*” (“agudo como quiera, *çorrosza*”).

Bigarren honetaz erreparatua zen Mitxelena, zeharka bada ere, filologikoa baino gehiago arauemaile-edo dirudien ikuspegi batetik, ordea:

Es notable también, por más que la causa puede ser otra, la falta casi completa del sufijo *-tasun* (...). En sustitución se apela a distintos recursos, ninguno de ellos muy bueno: adopción de sufijos romances (*durezea* “dureza”, etc.), empleo del mismo adjetivo (*lasça* “aspezea”, etc.), de sustantivos verbales (*vequetea* “delgadez”, lit. “enflaquecimiento”) o de perífrasis con “ser” (*ederr yçatea* “hermosura”, lit. “el ser hermoso”) (Mitxelena 1958: 40).

Lakarraren hipotesiak gure egingo ditugu hemen guk bildutakoa eta Mitxelenak antzemandakoa elkarrekin azaldu nahian: alegia, euskara gure aroan zehar atzizkidun(ago) bihurtzen joan dela, 1545ean oraindik ere urrun zegokeela orain dakusagun atzizkien erabilera aberats eta finko xamarretik, eta aberastasun eta finkotasun horiek, hizkuntzaren berezko joerari ez ezik, neurri batean edo bestean literatur hizkuntzaren garapenari ere zor bide zaizkiola, ohikoa ere den bezala (ik. Sarasola 1986 eta 1997: 634-637; Lakarra 1992: 292-294; Bueno 2004 eta 2006). Honen argitan, goiko gertakarietatik hiru ondorio historiko atera ditzakegu:

- a) Aditizena oso emankorra zen hizkera hartan izen gisa. Ezin erabaki dezakegu adizki gisa gramatikaldu aurretik zer-nolakoa zatekeen, gainera, baina dauzkagun aztarnen arabera, hartarako ditugun atzizkiak ez ziratekeen jatorriz ekintza-izengile, ez denak behintzat,⁶⁷ zeinagatik pentsa baitezakegu ‘ekintza’ adiera —oro har egun onartuko genukeen bakarra— gramatikaltzearen arrazoitzat baino errazago, agian, ondoriotzat har litekeela, edo esanahi espezializazio baten ondorio gisa azaldu behinik behin. Beste era batera esanda: baliteke Mitxelenak egoera kaotikotzat hartu eta inplizituki A eskuaren euskara eskasari egotzitakoak egiazki arkaismo handiak izatea, bai egoera bera (hiztunak ez dauka abstraktuak egiteko baliabide finkorik), bai atzizkiaren erabilera ere (aditizena abstraktuak egiteko).
- b) Gainerako atzizkiak baino anitzez errazago baliatzen du A-k; honek agian berma lezake erator atzizkien artean gramatikatik kanpora ere emankor izan zen lehen atzizkietako bat dugula, zeren eta 1562 inguruan gauzak hala bazeuden (eta ez oso ezberdin agian 1745 arte bederen: cf. Urgell 2000), gero aldatu baitira: egungo hiztunek ez lukete erabiliko, dakidalarik, Hegoaldean bederen.

⁶⁷ *-te*-k agian ‘x-tarako edo x-tzeko denbora’ adieraziko zuen antzina (*lehorte*-n bezalatsu, eta cf. agian *aste*, *urte*...; cf. Trask 1995, eta berriki Urgell 2006); *-(k)eta* multzokaritzat joa dugu deklinabideko atzizki bera delakoan gaudenez gero (Mitxelena 1971), eta ez da hortik urrunegi ibiliko *-tze* atzizkia ere, behar bada (cf. *dirutza* / *-tze*, *jendetzal-tze*, etab.).

- c) Hain zen aditzizenen atzizkia emankorra, nonbait, non automatismoa erabileratik kanpora jausten diren mugetara ere iristen baita: *inconvenientan dan gauçea* “inconveniente cosa” genuke adibide adierazgarri bat,⁶⁸ jakintzat ematen badugu, noski, erdal sarrerak iradokitako itzulpena dela, hots, **inkonbenidu-rik* ez zegoela.

5.7. Ildo honen barruan, aipatzekoa da erdal *-oso* erraz onartzen duela mailegutan (*amorosoa* “amable”, “amigable”, “amoroso”, *revoltosoa* “argullosa cosa”, *animosoa* “animoso”, “baboso, *babosoa* ...), corpusean *-tsu* bakarra dugun bitartean (*gozozçua* “alegre”). Onartu ez ezik, esango nuke emankor ere bihurtu duela (edo bihurtua zela bere hizkeran?): *cusumosoa* “ascoroso” (cf. *cusuma* “asco”), *achayquiosoa* “achacoso” (cf. “achacar, *achayquia yfñi*”), *erroytosoa* “bolliçioso” (cf. “bolliçio, *erroytua*”).

5.8. Atzizki emankorren eta emankor ez direnen arteko muga nabarmena ikus dezagun, komeni da, amaitzeko, erdarazko *-dor* atzizkiaren ondorenak aztertzea, zeren eta corpusean eskaintzen dituen 29 aukeratatik 15tan bere hartan geratu baita, eskura izan ohi ditugun atzizkietan ematen dituen bosten aldean:⁶⁹

-DORE: *aborreçedorea* “aborreçedor”, *arremetedorea* “acometedor”, *acusadorea* “acusador”, *administradorea* “administrador”, *andadorea* “andador”, *apamadorea* “apamadador”, *apartadorea* “apartador”, *apreçiadorea* “apreçiadador”, *argumentadorea* “argumentador”, *atizadorea* “atizador”, *atormentadorea* “atormentador”, *servidorea* “baçin servidor”, *bolteadorea* “boltejador”, *bordadorea* “bordador”, *burladorea* “burlador”.

-ARI, -LE eta -GIN: *osticaria* “acoçeador”, *lagunçallea* “ayudadora”, *oquina* “amassador”, *çelataria* “assechador”, *dançaria* “baylador”.

Pentsatzekoa da, beraz, lexikalizatutako eratorriak baino ez dituela jaso, eta honek ikusarazten digu ziurrenik ez zuela *-dor* atzizkia automatikoki ordezkatzeko biderik ez ohiturarik. Halere, *-ero* *-ari*-rekin egiteko joera zalantzati bat bederen lekukotu dugu: *ballesteroa* “ballestero”, baina *ballestarian verar[ra]* “yerua de ballestero”.

⁶⁸ Aurreko lan batean (Urgell 2006: 933), talde honetan sartu nituen baita *verbaytan* «en hablar» y *esporaitako mutila* «mozo despuelas» ere, baina orain neure burua zuzentzeko aukera hartuko dut, itxurak itsututa sailkatu nituelako hala: *ae* > *ai* egiten zuen hizkera hark (baita *oe* > *oi*, etab.), ez bakarrik *-eta* aditzizenetan, baita deklinabideko *-eta*-n ere: *berbaetan* (gaur *berbetan* Mendebaldeko hainbat hizkeratan) > *berbaitan*, eta *esporaetako* > *esporaitako*, bi adibideok deklinabidekoak dira (bien bitarteko mugak argiak diren heinean, noski), inolako zalantzarik gabe. Bide batez, *OEH*-k **esporai* forma inferitu du (s.v. *ezproi*) eta, gainerako aldaerak ikusita erakargarri izan arren (baina lekukotasun on guztiak erdialde edo ekialdekoak dira: cf. fr. *éperon*), uste dut gazt. *espuelas* plural hori (eta ereduaren eraginaz esan dugun guztia) **espora-eta-ko* ulerkeraren alde datorrela, eta **esporai-ta-ko*-ren aurka; honela balitz, hapax baten aurrean geundeke (*espora* mailegu zahar xamarra, bokal arteko *l* > *r* araua pairatua).

⁶⁹ *Okina* bederen, begi-bistan da aspalditxo ihartu zela. Goian aipatuez beste irtenbide batzuk ere erabili ditu; errepikatuena, erlatiboaren bidezko ordain perifrastikoa: *guiçonan afixionaytan dan andrea* «amadora de varones», *avisaytan deuena* «amonestador», *arrobeaz pesaytan deuena* «arrovador que mide», *bañaytan dana* «bañador», *ycusiten deuena* «barredor», *ondo edaten deuena* «bebedor».

6. Ondorioak

Bi eratako ondorioak erdietsi ditugu lanean zehar: A berriemailearen izaerari dagozkionak dira batzuk (§§ 6.1 eta 6.2), eta bere lekukotasunen kalitateari dagozkionak besteak (§§ 6.3, 6.4 eta 6.5).

6.1. XVI. mendeko kultura idatziaren egoeraz dakiguna baliatuz ezer baino lehenago saiatu gara Landucciren hiztegiko A eskua nolatsukoa zatekeen pentsatzen, Mitxelenak haren hizkuntzatik ateratako aztarnetatik aurrera, eta maila batekoa bide zela ondorioztatu dugu, hipotesi gisa, haren euskara maila apalean ez eze, hotsak idatziz adierazteko izan zuen arreta berezian oinarrituta.

6.2. Hizkuntzen ezagutzari dagokionez, berriemailea gaztelaniazko hitz baten aurrean isiltzen denean edo gaizki itzultzen duenean, ez dago argi jakiterik ea euskaldun eskasa den (Mitxelenak definitu bezala), edo erdaldun eskasa, edo bietatik ote dagoen (Larramendik pentsatu bezala). Mitxelenak argi erakutsi zuen A-k gabeziak zituela euskaraz, eta hemen saiatu gara erakusten, Larramendiren ildotik, erdaraz ere ez zela primerakoa.⁷⁰ Azpimarratu nahi nuke bide honetatik Gasteizko egoera soziolinguistikoa irudi zehatzago bat lor genezakeela.

6.3. Testu idatziak ahozko hizkuntzarekiko zintzoak diren ala ezeko gai orokorren barruan —Caminok (2003: 33 eta 42-50) berriki bikain azaldu eta zentzuzko irtenbidea eman dio—, bigarren mailako lekukotasunek (hiztegiek, gramatikek...) arazo bereziak dakartzate, zeren eta ez baitira aski delako forma delako garaian benetan existitzen zela frogatzeko (Osselson 1989: 183),⁷¹ nahiz guztiok aintzat hartu ohi ditugun —normalean behar besteko neurriak hartuz, hori bai—, batez ere beste irtenbiderik ez dugunean, Arabako euskararen gertatzen zaigun legez. Honen jakitun izateak ez du arazoa saihesteko modurik ematen; aitzitik, garrantzikoago bihurtzen du, baita interesgarriago ere, erronka filologikoak maite dituenarentzat bederen.

Ildo horretatik, baliteke gaztelaniazko sarrera-hitza erreproduzitzen duten mailegu gordinetako batzuk —ez guztiak nahitaez— berriemailearen axolagabekeriari edo nagitasunari egotzi behar izatea, bere eredu lexikografikoaren esanetara errazegi lerratu izanari. Ezin hori esan, ostera, gaztelaniazko sarrerari erantzuten ez dioten mailegu ugarietara buruz. Beraz, ereduaren eraginak funtsean ez ditu Mitxelenak A-ren hizkeraz egin zituen hipotesiak hondatzen, baina bai hemendik aurrera kontuan izan beharko diren *ñabardura* zenbait erantsi.

6.4. Arazoaren beste muturrean, nolabait esateko, lan honetan ikusi ahal izan dugu “gaitasunaren hiztegi” kontzeptua hitzberrigile handiengandik (Pouvreau, Urte, Larramendi...) oso urrun dauden hiztegiei ere egoki dakiekeela: hitz berriak egiteko entrenatzerik edo alde zuzeneko joerarik ez dutenek egindakoei, zehatzago. Honen arrazoia argia da: Hiztegi elebidunaren egiturak berak —hiztegi elebidunak egiteko

⁷⁰ Liverani-k (2004: 150) oztupo bera aurkitzen du gaztelania-italiera hiztegian, alegia: «...è difficile comprendere se fosse la lingua spagnola a non essere dominata perfettamente, o se fosse quella italiana ad essere arrugginita».

⁷¹ Gómezek (1997: 395-396) hainbat euskal adibide argi bildu ditu, bai asmatuak, bai hutsak, baita hiztegi-gramatiketan bakarrik iraun duten arkaismoenak ere.

prozedurak berak— hiztezigilea behartzen du erdal sarreraren ordainak nola edo hala aurkitzera eskura dituen baliabideen bitartez; esan gabe doa, berriz, baliabide hauen barruan berez duen hizkuntz gaitasuna ere badagoela: bere hizkuntzan ekoizpen berriak (perpauasak, sintagmak, hitzak...) sortzeko duen gaitasuna. Beraz, esan ahal da, gainera, Landuccirena bezalako hiztegi itzultzaileen egiturak badukeela gaitasun sortzailea era berezi batean kitzikatzeke ahalmena.

6.5. Hau guztiau kontuan harturik, argi dago alde honetatik ere ezin ditugula hiztegiatako lekukotasun guztiak garai eta leku bateko hizkera arruntaren isla zintzoak balira bezala erabili, ez kritikaren bahetik igaro gabe, behintzat.

Kasu honetan, ordea, dokumentazioaren zehaztasunean galtzen duguna (ezin sinistu *iraketea* eta *aborrezedorea* xvi. mendeko Gasteizko hizkuntzan ohikoak zirenik), gai ezezagunago batean irabazten dugu, hitz jakin baten lekukotasuna baino garrantzikoagoa bide den batean, hain zuzen, hitzun laño baten gaitasunaren zenbait izpi berreskuratzeke modua aurkitu baitugu. Honek alde berederen emendatu egiten du lekukotasunaren balioa, zeren eta gardenki erakusten baitigu zein baliabide ziren emankor berriemaileraren hizkeran, eta zein ez, itxuraz behintzat.

6.6. Azpimarra dezagun, amaitzeko, bide horretatik aurkitu dugula, ezustean aurkitu ere, erator atzizkien ugaltzea arestikoa dela sinesteko eta literatur hizkuntzaren garapenarekin uztartzeko beste argudio bat: (1) Landucciren berriemaile lañoak baditu gaztelaniazko erator atzizkiak ordezkatzeko automatismoak, baina ez dira guztiak atzizki bidezkoak, ez eta hurrik eman ere; (2) honegatik, aditzizenaren emankortasun handia are eta azpimarragarriagoa da, hizkera hartan zukeen besteez ez bezalako bizitasunaren seinale; (3) halaber, haren balioa uste baino ñabarragoa zela ohartzeko parada izan dugu, agian aditzarekiko lotura estuagatik 'ekintza' adieran finkatu aurreko egoera arkaiko baten azken lekuko (lekuko bakar?) legez.

7. Eranskina. Aipatutako hitzen zerrenda

Lanean zehar aipatutako hitz edo ordainak zerrendatu ditugu. Euskarazkoak, aipatutako guztiak bildu dira, eskuarki jatorrizko itxuran: forma biluzia inferitu den guztietan izarrak markatua dago, eta ondoren jatorrizkoa parentesi artean. Erdarazkoak, eurak aztertu direnean bakarrik, eta maiuskula txikiz bereizi dira. Zuzendu beharreko formak bi izarrez markatu dira, eta gure ustez ordainari ez dagozkion sarrerak (itzulpen hutsak zein kopia hutsak izan) "[i.o.]" laburduraz. Kakotx artean sarrera-hitza eman dugu, eta parentesi artean eskua (A ez beste bat denean soilik) eta eskuizkribuko orrialdea.

abarcatura, abarcac jançic "abarcado" (227r)
 abarquea "abarca" (227r)
 abbadesea "abbadesa" (227r)
 abilesan plaça "cosso del toro" (252r)
 abitoa "abito" (227r)
 abogadua "abogado" (227r)
 abolorioa "abollorio" (227r)

aborreçedorea "aborreçedor" (227r)
 aborreçidu, equsigura es "aborreçer" (227r)
 abotonadu "abotonar" (227v)
 ABRIGO viento (227v)
 abrochadu "abrochar" (227v)
 absoluçioa "absoluçion del [peccado]"
 (237r)

- absolvidu "absolver de peccado" (237r)
 acabadu "acabar" (227r)
 açafraya "açafra" (228r)
 accusaçioa "acusaçion" (228r)
 accusadu "acusar en juizio" (228r)
 açelguea "açelga" (228r)
 açeptadu prometid[ua] "açeptar lo prometido" (228r)
 açertadu "assestar tiro" [i.o.] (237r)
 açertadu çerbaytean "açertar en algo" (228r)
 açetrea "acetre" (228v)
 achayquia "achacar" (228v)
 achayquioso "achacoso" (228v)
 açicaladu "açicalar" (228v)
 acordadu "acordarse" (228r)
 açotea "açote" (228v)
 açucrez betea "açucarado" (228v)
 aculladea "aguijonar con aguijon" (C, 229r)
 acusadorea "acusador" (228r)
 adargadu "adargarse" (228v)
 administradorea "administrador" (229r)
 adorado vesteyc "adorar a otro" (229r)
 afiladu "afilarse" (229r)
 agallee "agalla de arboles" (229r)
 aguadu "aguado no beve vino" (229v)
 agudezea maliçaquin "agudeza con maliça" (229v)
 AGUIJA piedra (229r)
 aguijuya "aguijon de yerro" (229r)
 aguila arra "aguilocho" [i.o.] (229r)
 aguilea "aguila, ave" (229r)
 ahao "ahao, adverb" (230r)
 alabança "alabança" (230v)
 alargadu "alargar el tiempo" (230v)
 albeyteria "albeyteria" (230v)
 alçaçera "alçaçer" (231r)
 alcahueteadu "alcahuetear" (231r)
 alcahueteria "alcahueteria" (231r)
 alcançadu "alcançar lo que huye" (231r)
 alcarchofea "alcarchofa" (231r)
 alcavalea "alcavalea" (231r)
 alcoholadu "alcoholar" (231r)
 alcorquea "alcorque" (231r)
 alcoy altaneroa "altanero falcon" (232v)
 aldera "açerca" (228r)
 ALFALFA (231v)
 alfiniquea "alfenique" (231v)
 algodoya "algodon" (231v)
 alguazilan offiçioa "alguazilazgo" (231v)
 ALGUIRNALDAS (231v)
 alhombrea "alhombra" (231v)
 alhondigüea "alhondiga" (231v)
 allanadu "allanar" (231v)
 ALMADRAVA (232r)
 almagradua "almagrada cosa" (232r)
 ALMOJAVANA (232r)
 almorranea "almorrana" (232r)
 almoxarifea "almoxarife" (232r)
 aloxea "aloxa" (232r)
 altaneroa "altanero falcon" (232v)
 alteraçioa "alteraçion" (232v)
 alturea "altura de monte" (232v)
 alvayaldea "alvayalde" (232v)
 alvay[al]dez betea (232v)
 amadu "amar" (233r)
 amadua honestidadequin "amado honestamente" (232v)
 amagadu "amagar" (232v)
 amassaytea "amassadura" (233r)
 amavia "jurado en la çiuad" (282v)
 amorosoa "amable cosa" (232v)
 amorosoa leguez "amablemente" (232v)
 ANADEAR (233v)
 añadidurea "añadidura" (234v)
 andadorea "andador" (233v)
 andadurian ybili "andar de andadura" (233v)
 andra ydolatrea "ydolatra" (283r)
 ANGARILLA**, pescado conocido > anguilla (234r)
 ANGUILLA: ik. angarilla**
 angustiadu "angustiar" (234r)
 animalea "animal" (234r)
 animosoa "animoso" (234r)
 ANSIA ik. congoxea
 antiçipadu "antiçipar" (234v)
 antiçipaytea "antiçipaçion" (234v)
 antojua "antojo" (234v)
 antorchea "antorcha de çera" (234v)
 ANTRUYARSE** > antuviarse (234v)
 ANTUVIARSE: ik. antruyarse**
 anzueloa "anzuelo" (234v)
 AÑINO (234v)

- apaezandrea “mançeba o amiga” (290r)
 aparadorea “aparador de vasos “ (235r)
 apartadorea “apartador” (235r)
 apayndu “afeytar la muger” (229r)
 apedreadu “apedrear” (235r)
 appelaçioa “appellaçion” (235r)
 apreçiadorea “apreçiator” (235r)
 apreçiadua “apreçiadura” (235r)
 apremiadurea “apremiadura” (235r)
 apresuradu “apresurado” (235r)
 apresuradua leguez “apresuradamente”
 (235r)
 apretadu “apretar” (235r)
 aprobaçioa “aprobaçion” (235v)
 apucadu “acaecer” (227v)
 apucaytea “acaecimiento” (227v)
 ara “alla” (231v)
 araya “alano perro” (230v)
 arecha “haya arbol” (279v)
 ARGAMASSA (236r)
 argui eguin “alumbrar” (232v)
 arguiquetan du eguna “aclarar el día”
 (228r)
 argumentadorea “argumentador” (236r)
 arguy eguitea “alumbamiento” (232v)
 armadu armaquin “armar con armas”
 (236r)
 arraya “abbadejo”, “aguja, paladar” (227r)
 arrebatadu “arrebatar” (236r)
 arrebatadua leguez “arrebataadamente”
 (236r)
 arreba[taly]tea “arrebataamiento” (236r)
 arremangadu “arremangar” (236r)
 arremetedorea “acometedor” (228r)
 arremetidu “acometer” (228r)
 arremetidu çan “acometimiento” (228r)
 arrepentidua “arrepentido” (236r)
 arrobeaz pesaytan devena “arroador que
 mide” (236v)
 ARTEJO (236v)
 artificioquin “artificialmente” (236v)
 artillera “artiller m^o della [artilleria]”
 (236v)
 asco da, ez queao “abastar” (227r)
 aserratua yraquin “ayrado con yra” (230r)
 asmaticoa “asmatico” (236v)
 asolvidua “assuelto de peccado” (237r)
 ASSALTO DE PEOCADO** > assuelto de pec-
 cado (237r)
 asseruz ostico egozi “acoçar atras” (228r)
 ASSUELTO: ik. assalto de peocado**
 astutoa “astuto” (237v)
 astutoa leguez “astutamente” (237v)
 atabalerea “atabalera” (237v)
 atabaleroa “atabalero” (237v)
 atacadurea “atacadura” (237v)
 ataçaya “anadino” [i.o.] (233v)
 atean aurreco manta “antepuerta” (234v)
 atençioa “atençion” (237v)
 ateridu* (ateriduic) “atererse de frio” (237v)
 atizadorea “atizador” (237v)
 atizadu “atizar” (237v)
 ATORMEÇIMIENTO (237v)
 atormentadorea “atormentador” (238r)
 atravessadu “atravessar” (238r)
 atrevimentua “atrevimiento” (238r)
 atriaqueroa “atriaquero” (238r)
 aullidoa “aullido” (238r)
 ausentadu “ahuyentar” [i.o.] (230r)
 averiguança “averiguamiento” (238v)
 avisaytan devena “amonestador” (233r)
 axea “abrigo viento” (227v)
 axez betea “ayrosa cosa” (230r)
 ayuibi “alaridos dar” (230v)
 azemilea “azemila” (239r)
 azeytunea frutua “azeytuna fruta” (238v)
 babac eguosoçi “babear, echar babas” (240r)
 babosoa “baboso” (240r)
 bazia “baçia” (239r)
 BALADREAR (239r)
 baladroea “baladron” (239r)
 ballestadu “ballestar” (239v)
 ballestari* (ballestarian) “yerua de balles-
 tero” (283v)
 ballesteroa “ballestero” (239v)
 bañatu “bañar” (239v)
 bañaytan dana “bañador” (239v)
 bañoa “baño” (239v)
 barberia “barberia” (240r)
 barea “pala” (300r)
 barquea “barca” (239v)
 barrenderea “barrendera” (239v)
 BARROSO (239v)
 bastimentua “bastimiento” (240r)

- babaderoa "bavadero" (240r)
 BATAÑAR (240r)
 bazia "baçia" (239r)
 beaçã* (beaçã eguilea) "amenazador" (233r)
 bellotea "bellota" (240v)
 belloteroa "bellotero" (240v)
 bendiçioa "bendiçion" (240v)
 betunadu "betunar" (240v)
 bienaventuradua "bienaventurado" (240v)
 bienaventuradua leguez "bien aventurada-
 mente" (241r)
 BIGOT (241r)
 bisnagua "bisnaga" (241r)
 blandoea "blandon de çera" (241v)
 BLANQUIBOL (241v)
 bodegone[rea] "bodegonera" (241v)
 bolsea "bolsa" (242r)
 bolteadorea "boltejador" (242r)
 BOÑUELO (242r)
 bordadorea "bordador" (242r)
 bordoya "bordon" (242r)
 borzeguineria "borzeguineria" (242r)
 bosladerea "bosladera" (242r)
 BOTANA (242v)
 botiquea "botica" (242v)
 bovedea "boveda" (242v)
 bramadu "bramar los bueyes" (242v)
 bramiduac "bramido" (242v)
 bravua "brava cosa" (242v)
 brabua leguez "bravamente" (242v)
 broqueladua "broquelado" (242r)
 bufadu "bufar" (243r)
 buñueloa "boñuelo" (242r)
 burladorea "burlador" (243r)
 burladu "burlar" (243r)
 burlea "burla" (243r)
 BUYTRE (243r)
 brasea, yncarra "ascua o brasa" (236v)
 campu paçietacoac "apaçentamiento" (C,
 234v)
 çavalean "anchamente" (233v)
 çelataria "assechador" (237r)
 çerçenadurac "açepilladuras" (228r)
 chipia "breve cosa" (242v)
 chipia leguez "brevemente" (242v)
 chixacurric ago "aver gana de mear" (238v)
 cocoça "boço de barba" [i.o.] (C, 241v)
 congoxea "ansia o congoxa" (234r)
 çorrosça "agudo como quiera" (229v)
 çorrosza leguez "agudamente" (229v)
 çorrosztea "agudeza de yerro" (229v)
 çorroztu "amolar yerro" (233r)
 croçea epizticoana "mitra de obispo"
 (293v)
 çuriquetea "blanqueadura" (241v)
 çuritu "blanquear hazer blanco" (241v)
 çurroya "aljava" (231v)
 cusuma "asco aver de" (236v)
 cusumosoa "ascoroso" (236v)
 dabilena gueratu "aquedar lo que anda"
 (235v)
 dançaria "baylador" (239r)
 edonolan "arar como quiera" (C, 235v)
 egoszi ur ardaoan "aguar vino" (229v)
 egun eguiten du "amanecer" (232v)
 elexa oscaría "sacrilego" (314v)
 ENZINA (270r)
 eraxaytea "aventamiento" (238v)
 eraxo "aventarse el trigo" (238v)
 erraytea "assaz" [i.o.] (237r)
 errecac aundiac dato[z] "avenida del río"
 (238v)
 erredea "red" (310v)
 errevolvidua "buelto o rebuelto" (243r)
 errexalan agallea "agalla de arboles" (229r)
 escofia "alvanega" (232v)
 espora* (esporaytaco mutila) "moço des-
 puelas" (293v)
 esquetea "apretamiento" (C, 235v)
 esquina guztietan "a cada canton" (227r)
 essean artu "acoger en casa" (228r)
 estrellea "estrella" (274r)
 even ni nagan lequan "aquí donde yo es-
 toy" (235v)
 eyçatu edonolan "arar como quiera" (C,
 235v)
 fiela "almotaçen" (232r)
 finea "acabamiento" (227v)
 gari garvituac "ahechaduras de trigo"
 (230r)
 garvituac "alimpiadura[s]" (231v)
 gauça agroa, ozipina "agra cosa" (229v)
 gauça alborotadua "alborotada cosa" (231r)
 gauça amorosoa "amable cosa" (232v)

- gauça luçea, andia “alta cosa” (232v)
 gestu dullorra “afear” (C, 229r)
 goraz eguiten du “abondar” (227r)
 governaçioa “administraçion” (228v)
 goylarea “cuchara” (253v)
 gozatu “alegrarse” (231v)
 gozoa “alegria” (231v)
 gozoquin “alegremente” (231v)
 gozosçua “alegre” (231v)
 guiçon lur asco daucana “arraygar, hazer
 raizes” (236r)
 gutica gutica “a menudo” [i.o.] (233r)
 guztietan “açada” [i.o.] (228r)
 honestidadequin “amado honestamente”
 (232v)
 iltua “amorteçimiento” (233v)
 inconvenietan dan gauçea “inconveniente
 cosa” (284r)
 jaquinduna “abil cosa” (227r)
 jaquinduna leguez “abilmente” (227r)
 jaquitea “abilidad” (227r)
 jarri <g-> “assentarse a la mesa” (237r)
 jarritea “assentamiento” (237r)
¹¹ In an earlier version of this paper I assumed that a focus Q always pied-pipes its AS, so that when the AS is topic it later undergoes movement from the pied-piped phrase to a more left peripherical topic position (i). First of all, this is problematic because extraction would be taking place from a moved phrase. But even if we assumed this type of movement to be legitimate —see the English examples in (ii) that many native speakers of English consider grammatical—, allowing the pattern of movement in (i) for Spanish would wrongly predict the grammaticality of (iii).

- (i) ... as_i ... [FQ t_i]_j ... t_j ...
- (ii) [Which author]_j did you say that [pictures of t_j]_i you would never buy t_i ?
- (iii) *[De Luis]_j yo creo que [A UNA HERMANA t_i]_i conozco t_i.

The derivation of (33b) is as illustrated in (48a), where 'LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' undergoes movement to [Spec,FocP] of the high periphery and the FQ remains in situ. In (48b), the representation of (33c), 'LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' undergoes movement to [Spec,FocP] of the low periphery and the neutral FQ remains in situ. This case is interesting, as it constitutes evidence that focal subjects in postverbal non-final position are not in situ; if that were the case, the floating quantification pattern in (48b) would be impossible.

- (48) a. [_{FocP} [LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA]_i] [_{IP} han conseguido [_{VP} [todos t_i] beca]]]
 b. [_{IP} Han conseguido [_{FocP} [LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA]_j] [_{VP} [todos t_j] beca]]]

3.2. Focal FQs and ASs in final position

In (49) we have the two instances of floating quantification in which the [Foc] FQ and AS are in final position. The analysis of these is more complex and different alternatives must be considered. In the general case, subjects in final position like (50a) can be approached in four different ways. Torrego (1984) argues that they are the result of adjunction to the right [50b]. Ordóñez (1997) proposes that they are in [Spec,VP] but end up being in final position as a result of scrambling of the object to some functional projection below the landing position of the verb [50c], and for Zubizarreta (1998), too, they are in situ but their final position is the result of p(rosodically motivated)-movement of the material which initially appears after the subject; specifically she proposes that VP adjoins to vP [50d]. An alternative analysis, defended for some cases in Etxepare and Uribe-Etxebarria (2005), would be that in which the subject in final position is in fact in the specifier position of the FocP of the left periphery with subsequent movement of the remnant to the specifier of TopP [50e]. As I assume Kayne's (1994) ban on movement to the right, I will only consider the alternatives in (50c-e).

- (49) a. Los estudiantes de física han conseguido beca TODOS.
 b. Han conseguido *todos* beca LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA.
 (50) a. Consiguieron beca todos los estudiantes de física.
 b. [_{IP} t_i consiguieron_v [_{VP} [_{VP} t_v beca] [todos los estudiantes de física]_i]]
 c. [_{IP} consiguieron_v [_{XP} [beca]_i [_{VP} [todos los estudiantes de física] t_v t_i]]
 d. [_{IP} consiguieron_v [_{VP} [_{VP} t_v beca]_i [_{VP} [todos los estudiantes de física] t_i]]
 e. [_{TopP} [_{IP} consiguieron_v [_{VP} t_v beca]]_j] [_{FocP} [todos los estudiantes de física]_i t_j]]

If we assume Ordóñez (1997), the derivation of (49a) would be as in (51a), where the AS has moved to [Spec,TopP] of the matrix clause and the DO 'beca' has scrambled to the left of [Spec,VP] occupied by 'TODOS'. However, deriving (49b) is impossible within his approach: if, as Ordóñez assumes, the subject 'TODOS LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' stays in situ, scrambling of the object would never result in the surface order in which the DO 'beca' intervenes between the Q and its AS.

Let us consider the consequences of assuming Ordóñez's (2007) proposal that postverbal subjects are in [Spec,VP] in the VOS order, with the object obligatorily moved to the specifier of a functional projection (FP) above FocP of the low periphery [52a], and in the specifier position of SubjP, a projection which contains an EPP-

feature located between the landing site of the verb and the position occupied by the moved object, in the VSO order. If this is the correct analysis, (49b) could be derived assuming that the neutral FQ has moved to [Spec,SubjP] leaving 'LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' stranded in [Spec,VP]. But the problem with this solution is that the Q should pied-pipe its AS even if Q is neutral and AS is [Foc], as this is an instance of A-movement not driven by discourse-related features but by the EPP-feature in the head of SubjP.

- (51) a. [_{TopP} [los estudiantes de física]_j [_{IP} han conseguido_v [_{xP} [beca]_i [_{VP} [TODOS t_j] t_v t_i]]]]]
 b. Han conseguido_v [_{SubjP} todos_q [_{FP} beca_o [_{VP} [t_q LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA] t_v t_o]]]
 (52) **VOS**: [_{TP} V_v [_{SubjP} [_{FP} O_o [_{FocP} [_{VP} S t_v t_o]]]]]] (Ordóñez 2007)
VSO: [_{TP} V_v [_{SubjP} S_s [_{FP} O_o [_{FocP} [_{VP} t_s t_v t_o]]]]]]

Assuming Zubizarreta's (1998) analysis, (49a) could be derived via movement of the AS to [Spec,TopP] of the left periphery and p-movement of VP adjoining to vP [53a]. As in Ordóñez's approach, (49b) cannot be derived if the subject 'todos LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' is assumed to be in situ, as p-movement of vP would never break the adjacency between the Q and its AS. It could only be derived via movement of 'LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' to [Spec,FocP] of the low periphery and p-movement of the vP adjoining to FocP [53b]. But then in order to be coherent we should revise the derivation for (49a) suggested in (53a) along the lines of (53c), where 'los estudiantes de física' is in [Spec,TopP] of the left periphery, 'TODOS' is in [Spec,FocP] of the VP-periphery and the vP has undergone p-movement adjoining to FocP.

- (53) a. [_{TopP} [los estudiantes de física]_j [_{IP} han conseguido_v [_{vP} [_{VP} t_v beca]_i [_{vP} [TODOS t_j] t_i]]]]]
 b. [_{IP} han conseguido_v [_{FocP} [_{vP} t_v [todos t_j] beca]_p [_{FocP} [LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA]_j t_p]]]
 c. [_{TopP} [los estudiantes de física]_j [_{IP} han conseguido_v [_{FocP} [_{vP} [t_f t_j] beca]_p [_{FocP} [TODOS]_f t_p]]]]]

A r-(emnant)movement analysis as in Etxepare and Uribe-Etxebarria (2005) could derive (49a) in two possible ways. As shown in (54a), 'TODOS' might have moved to [Spec,FocP] of the left periphery with subsequent r-movement of the IP 'los estudiantes de física han conseguido beca' to [Spec,TopP] of the left periphery. Alternatively, it might be derived as in (54b), where 'TODOS' is in [Spec,FocP] of the left-periphery, 'los estudiantes de física' has undergone movement to a topic position in the left periphery followed by r-movement of the IP 'han conseguido todos beca' to another topic position in the left periphery. (49b) could be derived as in (54c), where 'LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA' has moved to [Spec,FocP] of the left periphery and the remnant has moved to [Spec,TopP] of the left periphery.

- (54) a. [_{TopP} [[los estudiantes de física]_a han conseguido [t_f t_a] beca]_r [_{FocP} [TODOS]_f t_r]]]
 b. [_{TopP} [los estudiantes de física]_a [_{TopP} [han conseguido [t_f t_a] beca]_r [_{FocP} [TODOS]_f t_r]]]
 c. [_{TopP} [los estudiantes de física]_a [_{TopP} [han conseguido [t_f t_a] beca]_r [_{FocP} [TODOS]_f t_r]]]]

- c. $[_{TopP} [han\ conseguido\ [todos\ t_i\ beca]_r\ [_{FocP}\ [LOS\ ESTUDIANTES\ DE\ FÍSICA]_f\ t_r\]]]]$

Etxepare and Uribe-Etxebarria (2005) provide the examples in (55) and (56) which independently justify the remnant movement strategies illustrated in (54a) and (54b) respectively. Interestingly, r-movement as illustrated in (54a) and (55a) is also the only way of deriving the instance of floating quantification considered in (18e), repeated in (57) for convenience.

- (55) a. Tu hermano ha comprado creo que UN TOYOTA.
 your brother has bought I-think that a Toyota
 b. $[_{TopP} [_{IP}\ Tu\ hermano\ ha\ comprado\ t_i]_j\ Top^o\ [creo\ que\ [_{FocP}\ [UN\ TOYOTA]_f\ F^o\ t_j\]]]]$
- (56) a. Tu padre ha comprado ¿QUÉ?
 your father has bought what
 b. $[_{TopP}\ tu\ padre\ Top^o\ [_{TopP}\ [_{TP}\ ha\ comprado\ t_i]_j\ Top^o\ [_{FocP}\ qué_i\ F^o\ t_j\]]]]$
- (57) a. Los estudiantes de física han conseguido beca creo que TODOS.
 the students of physics have got grant I-think that all
 b. $[_{TopP} [_{IP}\ [Los\ estudiantes\ de\ física]_i\ han\ conseguido\ [t_f\ t_i\ beca]_j\ Top^o\ creo\ que\ [_{FocP}\ [TODOS]_f\ F^o\ t_j\]]]]$

Thus, the discussion so far has shown that in order to account for the paradigms of floating quantification in which either the FQ or its AS receive a focus interpretation in absolute final position, movement of the focal element [Spec,FC] of the left- or VP-periphery must be assumed. This is not an unwelcome result, as it is consistent with the mechanisms that we have utilized when explaining the other cases of floating quantification in which one of the members of the quantification was focus. Now, whether the operation responsible for the absolute final position of the focal element —not only in contexts of floating quantification but in the general case— is p-movement or r-movement is an open question.

3.3. Floating quantification and the position of neutral postverbal subjects

So far the analysis of the different floating quantification patterns presented here has crucially relied on the idea that neutral FQs sit in [Spec,VP], a direct consequence of assuming with Ordóñez (1997) and Zubizarreta (1998) that postverbal subjects in the general case are in situ. However, when discussing the cases in (49) we have considered Ordóñez's (2007) proposal that there are two neutral positions for subjects below the surface position of the verb: [Spec,SubjP] and [Spec,VP]. If this is correct, we would perhaps expect there to be more possibilities of floating quantification in the postverbal domain, as in that scenario the AS could in principle move from [Spec,VP] to [Spec,SubjP] leaving the Q stranded [58].

- (58) ... V $[_{SubjP}\ AS_i\ Subj\ [...\ [_{VP}\ FQ\ t_i\]]]]$



As a matter of fact, Ordóñez (2007) considers the floating quantification data in the postverbal domain provided in (59), which he considers to be acceptable, as evidence supporting the existence of (movement to) [Spec,SubjP]. Floating quantification in the postverbal domain, he claims, can only be possible if there is a position, [Spec,SubjP], to which the subject can move leaving the Q stranded in its original position. Those sentences are severely deviant to my ears—hence the judgement assigned—and Ordóñez himself notes that some speakers consider them degraded or ungrammatical. Ordóñez ascribes the deviance of these sentences for some speakers to the fact that in those dialects FQs are not allowed in an in situ position inside the VP. This cannot be the correct explanation, as we have seen above many cases of FQs in postverbal neutral position which are perfectly natural for the speakers who reject (59).

- (59) a. *Entonces trataban *mis vecinos* cuidadosamente *ambos* a su hija.
 then treated my neighbours carefully both their daughter
 b. *Por no hablar *los profesores* pacientemente *todos* a sus respectivos
 for not speaking the professors patiently all to their respective
 estudiantes.
 students

Notice also that Ordóñez's (1997) examples of impossible floating quantification in the postverbal domain of questions like (60), which he takes as supportive of his claim that postverbal subjects in questions are not in [Spec,IP] but in a lower position, should in fact be possible within his (2007) proposal that movement of the subject to [Spec,SubjP] can trigger floating quantification, as (60) would have the representation in (61).

- (60) *_[CP] ¿De dónde vienen estos turistas _[VP todos]? (Ordóñez, 1997: 140)
 from where come those tourists all
 Where do all those tourists come from?
 (61) *_[CP] ¿De dónde vienen _{[IP} _[SubjP] estos turistas_i _[VP todos t_i]]?

The problem now is thus why floating quantification in these cases is impossible, assuming, as I do, that the rest of the evidence that Ordóñez provides is enough to justify the presence of (subjects in) SubjP. But the impossibility of (59) and (60) receives a natural explanation under the theory of floating quantification I am defending here; the split is impossible because in the cases under consideration the Q and its AS do not differ in their discourse-related feature composition—as a matter of fact neither of them is [Top] or [Foc]—and must thus move as a unit, triggering non-floating quantification. The impossibility of floating quantification in these contexts thus does not undermine Ordóñez's argument in support for two A-positions for postverbal subjects, as it is independently explained on the basis of the conditions imposed on the split of the Q and its AS. So, assuming Ordóñez (2007), in the cases of neutral FQs considered above it might well be the case that these are in [Spec,SubjP], and not in [Spec,VP] as I have been assuming.

3.4. Long distance dependencies

In the long-distance dependencies considered above and repeated in (62), the AS is in all cases in [Spec,TopP] of the left periphery of the main clause, and the FQ is in [Spec,FocP] of the left periphery of the main clause in (62a), in [Spec,FocP] of the left periphery of the embedded clause in (62b), in [Spec,FocP] of the VP-periphery of the embedded clause in (62c), in [Spec,FocP] of the left or VP periphery followed by p- or r-movement in (62d), and in [Spec,SubjP] or [Spec,VP] in (62e).

- (62) a. Los estudiantes de física TODOS creo **que** han conseguido beca.
 the students of physics all think-I that have got grant
 b. Los estudiantes de física creo **que** TODOS han conseguido beca.
 c. Los estudiantes de física creo **que** han conseguido TODOS beca.
 d. Los estudiantes de física creo **que** han conseguido beca TODOS.
 e. Los estudiantes de física creo **que** han conseguido *todos* BECA.

There are even more complex and interesting cases of long distance floating quantification in which a FQ and AS generated in the most embedded clause of a three-clause sentence appear in [Spec,FocP] of the first embedded clause and in [Spec,TopP] of the matrix clause respectively [63a,b]. These patterns support the analysis proposed so far.

- (63) a. Los estudiantes de física creo que TODOS dice Luisa que han.
 the students of physics think-I that all says Luisa that have
 conseguido beca
 got grant
 b. [_{CP1} [_{TopP} los estudiantes de física_i creo que [_{CP2} [_{FocP} TODOS_j dice Luisa
 [_{CP3} que han conseguido [_{t_i} beca]]]]]]]

3.5. Direct and indirect object-related floating quantification

The basic properties of direct and indirect object-related floating quantification are similar to those of subject-related floating quantification. In (64) there are examples of direct object-related floating quantification. Focal direct object-related FQs can surface in four different positions, as they can occur with subjects in final position [64a,b], postverbal medial position [64c] and preverbal position [64d]. In (64a) the subject could be in [Spec,VP] or [Spec,SubjP], in (64b) the subject could only be in [Spec,VP] if, as suggested in Ordóñez (2007), [Spec,SubjP] is higher than [Spec,FocP], and in (64c) it would be in [Spec,SubjP].

- (64) a. A los estudiantes de física A TODOS les ha felicitado el decano.
 to the students of physics to all clit. has congratulated the dean
 'The Dean has congratulated all the students of physics.'
 b. A los estudiantes de física les ha felicitado A TODOS el decano.
 c. A los estudiantes de física les ha felicitado el decano A TODOS.
 d. A los estudiantes de física el decano les ha felicitado A TODOS.
 e. A los estudiantes de física les ha felicitado *a todos* EL DECANO.
 f. *A los estudiantes de física a todos les ha felicitado EL DECANO.

- g. *A TODOS les ha felicitado el decano *a los estudiantes de física*.
- h. *A TODOS les ha felicitado *a los estudiantes de física* el decano.
- i. A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA les ha felicitado *a todos* el decano.
- j. *El decano les ha felicitado A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA *a todos*.
- k. Les ha felicitado *a todos* el decano A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA.

As for indirect object-related floating quantification, the relevant patterns are those of (65), which can only be explained on the basis of the approach to floating quantification presented here combined with Ordóñez's (2007) analysis of postverbal subjects.

- (65) a. A los estudiantes de física A TODOS les ha dado beca el decano.
to the students of physics to all clit. has given grant the dean
'The Dean has given a grant to all the students of physics.'
- b. A los estudiantes de física A TODOS les ha dado el decano beca.
 - c. A los estudiantes de física les ha dado A TODOS beca el decano.
 - d. A los estudiantes de física les ha dado A TODOS el decano beca.
 - e. A los estudiantes de física les ha dado beca A TODOS el decano.
 - f. A los estudiantes de física les ha dado beca el decano A TODOS.
 - g. A los estudiantes de física el decano les ha dado beca A TODOS.
 - h. A los estudiantes de física el decano les ha dado A TODOS beca.
 - e. A los estudiantes de física les ha dado el decano beca A TODOS.
 - f. A los estudiantes de física les ha dado el decano A TODOS beca.
 - e. A los estudiantes de física les ha dado *a todos* beca EL DECANO.
 - f. A los estudiantes de física les ha dado beca *a todos* EL DECANO.
 - g. *A los estudiantes de física a todos les ha dado beca EL DECANO.
 - h. *A TODOS les ha dado beca el decano *a los estudiantes de física*.
 - i. *A TODOS les ha dado beca *a los estudiantes de física* el decano.
 - j. *A TODOS les ha dado el decano beca *a los estudiantes de física*.
 - k. A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA les ha dado beca *a todos* el decano.
 - l. A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA les ha dado *a todos* beca el decano
 - m. *A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA les ha dado el decano beca *a todos*.
 - n. El decano les ha dado A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA *a todos* beca.
 - o. El decano les ha dado *a todos* beca A LOS ESTUDIANTES DE FÍSICA.

4. Conclusion

Asking ourselves why the floating quantifier phenomenon exists has allowed us to understand the distribution of Spanish FQs and to determine their structural position. I have shown that floating quantification is triggered by movement of the floating quantifier and its associate to different syntactic positions as a result of the mismatch in their information structure-related feature composition. We have also seen that, contrary to what has been assumed in the literature, FQs are not inert elements.

The economy issue does not arise within the present account; floating and non-floating quantification derivations do not compete in terms of economy because they are the result of numerations containing lexical items with different feature-compo-

sition. As expected, then, floating quantification is not optional, i.e. the movement operations which result in floating quantification are obligatory. Additionally, these findings lend support to the theory of focus in which all focal elements are in syntactically-marked focus positions

Important questions remain to be answered. The first is whether the core of this proposal can also explain the properties of floating quantification in other free word order languages and the discontinuous constituent phenomena of so-called 'non-configurational' languages. Also an important issue is what triggers floating quantification in English-type languages in which the phenomenon does not seem to be sensitive to information-structure. But these are topics for other papers.

References

- Baltin, M. R., 1978, *Towards a Theory of Movement Rules*, MIT PhD Dissertation.
- Belletti, A., 1979, "On the Anaphoric Status of Reciprocal Constructions in Italian", MIT talk.
- , 2004, "Aspects of the low IP area", in L. Rizzi (ed.), *The Structure of IP and CP: The Cartography of Syntactic Structures*, vol. 2, Oxford U. P., New York.
- , 2005, "Extended doubling and the VP periphery", *Probus* 17, 1-35.
- Bowers, J., 1993, "The Syntax of Predication", *LI* 24, 591-656.
- Cardinaletti, A. & G. Giusti, 2006, "The Syntax of Quantified Phrases and Quantitative Clitics", in M. Everaert & H. C. van Riemsdijk (eds.), *The Blackwell Companion to Syntax*, Blackwell, Oxford.
- Ettxepare, R. & M. Uribe-Etxebarria, 2005, "In-situ Wh-phrases in Spanish: Locality and Quantification", *Recherches Linguistiques de Vincennes* 33, 9-34.
- Horvath, J., 2005, "Separating "Focus Movement" from Focus", Tel-Aviv University ms.
- , 2006, "Pied-Piping", in M. Everaert & H. C. van Riemsdijk (eds.), *The Blackwell Companion to Syntax*, Blackwell, Oxford.
- Jaeggli, O., 1981, *Topics in Romance Syntax*, Foris, Dordrecht.
- , 1985, "On Certain ECP Effects in Spanish", University of Southern California ms.
- Irurtzun, A., 2007, *The Grammar of Focus at the Interfaces*, UPV/EHU PhD Dissertation.
- Kayne, R., 1994, *The Antisymmetry of Syntax*, MIT Press, Cambridge.
- Ordóñez, F., 1997, *Word order and clause structure in Spanish and other romance languages*, CUNY at New York PhD dissertation.
- , 2007, "Cartography of postverbal subjects in Spanish and Catalan", in S. Baauw, F. Drijkoningen & M. Pinto (eds.), *Romance Languages and Linguistic Theory 2005*, 259-280.
- Rizzi, L., 1997, "The Fine Structure of the Left Periphery", in L. Haegeman (ed.), *Elements of Grammar*, Kluwer Academic Publishers, Dordrecht, 281-337.
- Sánchez, C., 1993, *La cuantificación flotante y otras estructuras conexas*, Universidad Complutense de Madrid PhD Dissertation.
- , 1999, "Los cuantificadores: clases de cuantificadores y estructuras cuantificativas", in I. Bosque & V. Demonte (eds.), *Gramática descriptiva de la lengua española, vol. 1.*, Espasa Calpe, Madrid.
- Shlonsky, U., 1991, "Quantifiers as functional heads: A study of Quantifier Float in Hebrew", *Lingua* 84, 159-180.

- Sportiche, D., 1988, "A Theory of Floating Quantifiers and its Corollaries for Constituent Structure", *LI* 19, 425-449.
- Torrego, E., 1984, "On inversion in Spanish and some of its effects", *LI* 15, 103-130.
- Uribe-Etxebarria, M., 1992, "On the Structural Positions of the Subject in Spanish, their Nature and their Consequences for Quantification", in J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (eds.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Supplements of the *ASJU* 27, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 447-491.
- Zubizarreta, M L., 1998, *Prosody, Focus and Word Order*, MIT Press, Cambridge.
- , 1999, "Las funciones informativas: tema y foco", in I. Bosque & V. Demonte (eds), *Gramática descriptiva de la lengua española, vol. 3*, Espasa Calpe, Madrid.

EUSKARA (BATU)AREN HISTORIRAKO

Koldo Zuazo

UPV/EHU

1973an joan nintzen Bilbora unibertsitate ikasketak egitera eta, hara heldu berri-tan, alfabetatze eta euskalduntze ikastaroen iragarkia ikusi nuen Deustuko Unibertsitatean, bertako ikasleek osatzen zuten Euskal Kultur Mintegiak (EKM) jarrita. Izena ematea erabaki nuen, eta horrela murgildu nintzen lehen aldiz euskararen barrenean. Irakasle bi eduki genituen: Patxi Goenaga eta izena isildu nahiago dudana beste bat.

Ez zen izan gozoa euskararekin eduki nuen lehen hartu-eman, baina 34 urte igaro direnean, ikasgai aberatsak jaso nituela onartu eta aitortu behar dut. Betiko markatu ninduen ikastaro hark, eta urte haietan Bilbon bizitakoak ere ahaztu ezineko aztarna utzi zidan.

1. Bilbon, 1973an

Bizimoduko esparru guztietan ezagutu genituen gogortasuna eta garratzasuna garai hartan. Esate baterako, 1973ko irailaren 11n, Bilbora joan aurretixoan, Salvador Allende presidentea hil eta militarrek hartu zuten Txileko agintea. Atxilotuak, torturatuak, hilak eta desagertuak ziren handik heltzen zitzaizkigun hitzak. Aldeak alde, hitz berdintsuak entzuten ziren Hego Euskal Herrian, Franco jeneralaren diktadurapean.

Euskararen esparruan ere gauzak ez zeuden bare. Euskara batuaren auziak bazterrak astindu zituen. Hego Euskal Herrian eta, gehienbat, Bizkai-Gipuzkoetan eten garbia gertatu zen gizartearen. Dena dela, eta oztopoak oztopo, 1973 hartan erabaki eta plazaratu zen aditz laguntzaile batua (in *Euskera* 18 (1973): 5-74) eta, horrenbestean, euskara batuaren korapilorik zailena askatzea lortu zen.

Niri neuri ere gogorra eta garratza gertatu zitzaidan Bilbora joatea. Deserrian ikusi nuen neure burua, Gaztelan banengo bezala. Ez nentorren herri euskaldun peto bate-tik, erdara erruz entzuten eta egiten zelako Eibarren, baina, hala eta guztiz ere, herri euskalduna zen Bilboren aldean. Izan ere, apurra zen garai hartan Bilboko kaleetan entzuten zen euskara, eta herri euskaldunetatik etorritakoak ziren, gehienbat, apur hori egiten zutenak. Haietako ere, gainera, erdarara jotzen zuten sarritan, askori eta askori lotsaria iruditzen zitzaielako euskaraz jardutea Bilbo erdaldunean. Hori bai, baziren bilbotarren artean hitzetik hortzera entzuten ziren euskarazko berba bi: *agur*, eta ni-retako hain harrigarria zen *los aitas* hura. Labur esateko, horixe izan zen Bilbon hartu nuen lehen ezusteko mingotsa: ia erabat erdalduna izatea Euskal Herriko hiri nagusia.

Bigarren ezustekoa ez zen gozagoa izan. Bilboko euskaldun eta euskaltzale apur-rak bitan banatuta ikusi nituen eta, zer da kontua eta, euskara batua zen zatitzeko

eta bereizteko arrazoia. Ikastola sare bi zeuden, bata euskara batuan eta bestea euskara bizkaitarrean. Gau-eskola sare bi ere bazeuden, eta baita euskarazko aldizkari bi ere: *Anaitasuna*, euskara batuan, eta *Agur*, euskara bizkaitarrean.

Eibarren ere bizi izan nuen euskara batuaren gaineko eztabaida, eta han ere ezagutu nituen aldekoak eta aurkakoak, baina egoera ez zen Bilboko bezain eroa eta beroa. Sarritan bezala, gauzak aurkezteko moduan egon zen gakoa. Hiru euskaltzain zeuden sasoi hartan Eibarren: euskaltzain osoa zen Juan San Martin eta euskaltzain ordezkoko edo, Euskaltzaindiak erabiltzen duen izen bitxiarekin deitzeko, euskaltzain "urgazleak" Imanol Laspiur eta Serafin Basauri. Hirurak ziren euskara batuaren aldekoak eta hirurek egin zuten lan handia eredu hori zabaltze aldera, baina nire iritzian, egokia eta zentzuzkoa zen euren mezua: zazpi herrialdeetako euskaldunek bata besteari erraz ulertzeko eta liburuetan erabiltzeko zen euskara batua eta, aldiz, herri, eskualde edo herrialde barruan eta, jakina, lagunarte giroan erabiltzeko ohiko hizkerak edo euskalkiak. Horren erakusgarri, eibartarron aurrean Eibarko hizkeran egiten zituzten hiru euskaltzainok euren hitzaldiak eta azalpenak.

Gauzak zeharo bestela ikusi nituen Bilbon. Bata bestearen etsai amorratuak ziren han batuzaleak eta euskalkizaleak. Batuzaleek gaitzetsi edo, behintzat, gutxietsi egiten zituzten herri hizkerak eta euskalkizaleek, era berean, euskararen pozointzat hartzen zuten batua. Ulertezina egiten zitzaidan herri hizkerak, euskara biziaren helduleku bakarrak gaitzestea, baina ulertezina egiten zitzaidan, era berean, batuaren aurkako jarrera. Ulertezina zazpi herrialdeetako euskaldunak elkartzeko ahaleginari oztopoak ipintzea. Ulertezina hizkuntza zehatz arautzeko proposamenari erabateko ezetza ematea eta, jakina, zehatz araututako hizkuntza behar zuten ikastoletako eta gau-eskoletako irakasleek, testugintzan zihardutenek, idazleek, kazetariak eta, azken batean, ordu arte erdarenak ziren esparruak euskararekin ordezkatu nahi zutenek.

Ulertezinak iruditzen zitzaizkidan, era berean, euskara batuaren aurka ematen zituzten arrazoiak, hizkuntzarekin barik, politikarekin, erlijioarekin eta beste arlo batzuekin zerikusia zutenak. Gehienbat, hizkuntzazko arrazoi bakarra aipatzen zuten euren erasoan, *h* grafema sartu izana, eta txikikeria hori ez zitzaidan iruditzen ez nahikoa ez egokia. Orduko giroa eta orduko iritziak ezagutu nahi dituenak badauka horretarako aukera Josu Arenazaren liburuan, *Tus hijos y el euskera (El mito del "batua")* (1974) izenekoan. *Agur* aldizkariako eragile nagusienetakoa zen Arenaza, euskara batuaren aurkari gogorra. Liburu horretako hiru pasarte dakartzat Bilboko orduko giroa erakuste aldera. Hona hemen lehena (84-85. or.): "La H es un símbolo político aunque lo nieguen muy sesudos señores, aunque vayan vestidos de seráficos hábitos. Tan político como pueda ser la hoz y el martillo, la cruz gamada o las dos a la vez".

Hauxe zioen beherago (93. or.):

La ortografía hachista no es más que un intento de politizar el euskera, rompiendo los moldes tradicionales, como una rama más de lo que se intenta romper: la familia, el derecho a la educación cristiana, nuestras costumbres peculiares, nuestra personalidad, etc., como medio para conseguir una juventud sin moral, sin sentimientos, ni conciencia de pertenecer a un pueblo con unas costumbres discutibles pero indudablemente mejores que las que nos proponen a juzgar por las muestras que vemos. Una juventud neutra es el primer paso para el trabajo de los profesionales del marxismo.

Eta honako hau ere idatzi zuen (93-94. or.):

No hay duda de que todos los enemigos (abiertos o camuflados) de la Iglesia usan la H de cuya utilización son propugnadores y forzadores. Esto no quiere decir que todos los que usan la H lo sean, pero sí que todos los que son la usan; lo cual no es lo mismo, pero sí sintomático.

Gaurko begiekin begiratuta, harrigarriak iruditu dakizkiguke Arenazak esandakoak, baina gauzak bere garaian kokatu beharra dago eta antzeko desarrazoiak entzuten ziren batuaren aldeko zenbaiten jardunean. Horren adibide ona daukagu Xabier Kintanaren "Ukronia" izeneko ipuinean; irain gogorrek egin zizkion EAJ alderdiari bertan (ikus Kintana 1972a: 77-113).

Dena dela, batuzaleek eta bizkaitartzaleek elkarrri egiten zizkieten erasoz gainera, batzuek eta besteek erabiltzen zuten euskara ere bazen niretako harrigarria, euskaldunok eguneroko jardunean egiten genuenarekin inolako zerikusirik gabea.

Bizkaitartzaleei dagokionez, ez zituzten Bizkaiko herri euskaldunetako hizkera bi-ziak babesten, aztertzen, ikasten eta erabiltzen. Bai zera! Azken batean, bizkaitar batu bat erabiltzen zuten eurek ere, ondorengo lau osagaiok zituen:

1. *Arkaismoak*, xx. mendeko bizkaitarrek ulertzen eta ezagutzen ez zituztenak. Adibide bat aipatzeko, (*egin daroa* '(egin) ohi du' egitura daukat buruan. Sarri agertzen zen bizkaitartzaleen jardunean, nahiz eta xx. mendearen amaiera hartan zeharo arrotza izan Bizkaiko hitzun arrunten artean.
2. *Txokokeriak*, Bizkaiko bazterren bateko hitzunei entzundako bereizgarriak. Horren lekuko, *pilotalekua ellexeri "deutsola" dago* egitura, bizkaitar arrunten ahoan ez, baina bizkaiera idatzian hain ugari erabiltzen zena.
3. *Bizkaiko sartaldeko bereizgarriak*, mendebaleko euskalkiaren barruan hitzun gutxien dagoen alderdikoak eta, euskararen osotasunari begira, ezezagunenak eta arrotzenak gertatzen zirenak, esate baterako, *asago* 'urrun' edo *firu* 'haria' tankerako hitzak eta *dauz* 'ditu' eta *nenduzen* 'nituen' bezalako adizkiak.
4. xix. mende amaieran hasi eta xx. mendean zehar eraikitako *euzkera barria*-ren eraginpeko hitzak, garbizale girokoak, *akeita* 'kafea', *txaide* 'kalea', *orlegi* 'berdea', *urrutizkina* 'telefonoa' sailekoak.

Eta hori bezain bitxia eta berezia zen, era berean, Bilboko euskara batua, ondorengo lefroetan sakonago erakutsiko duguna.

2. Bilboko batua

Federiko Krutwig bizkaitarrak eragin handia eduki zuen euskara suspertzeko eta bizkortzeko ahaleginean gerra osteko garaian. Besteak beste, hizkera estandar baten aldarria egin zuen eta, horretarako, xvi. mendeko Joanes Leizarraga itzultzaile lapurtararen hizkera hartu zuen eredutzat.

Krutwigen aldarriak bazuen bere alderdi ona. Ezinbestekoa zen euskarak bere hizkera estandarra izatea, erdarek aspalditik zeukaten lekua bete eta zazpi herrialdeetako hitzunez erabili ahalko zutena. Aldiz, eredu horren bila xvi. mendera jotzea ez zen hain zentzuzkoa, kontuan edukita, gainera, Leizarragaren hizkera oso berezia zela, geroztik beste inork sekula erabili gabea. Gauza da Krutwigen proposamenaren

inguruan Bilbo aldeko lagun esanguratsu zenbait batu zirela: Lino Akesolo fraide karmeldarra, Mikel Arruza, Imanol Berriatua fraide frantziskotarra eta *Anaitasuna* aldizkariko hizkuntza zuzentzailea, Bernardo Garro "Otxolua" idazlea, eta Eusebio Erkiaga, Juan Gorostiaga eta Luis Villasante euskaltzainak.

1964az gero, euskara batua jendaurrean aurkeztu ondoren, haietako zenbaitek bertan behera utzi zuten aukera hori, baina aldi berean beste joera bat agertu zen ildo horren barruan: lapurtera klasikoa euskara batuan txertatzearen aldekoa. Xabier Kintanak egin zuen horren buru eta, zuzenean edo zeharka, eragin handia eduki zuen, Bizkaian bereziki, baina Euskal Herri osoan ere bai, eta gaur egun ere, gainera, eragin hori ez da erabat itzali. Une honetan ere uste den baino handiagoa da Lapurdiko euskara zaharrak gure artean daukan itzala.

Anaitasuna aldizkaria izan zen hizkera eredu hori zabaltzeko bitartekoa. Euskara ikasteko metodo bat ere argitaratu zen, *Euskalduntzen* izenekoa, Euskal Herri osoan erruz zabaldu zena eta, 1977an, *Euskal hiztegi modernoa* argitaratu zen, euskara erabiltzen, ikasten eta irakasten genuen guztiok baliatu genuena. Xabier Kintana egon zen egitasmo horien guztion atzean, gehienetan Imanol Berriatua lagun zuela.

Gipuzkoan, bereziki, beste ikuspegi eta beste jokabide bat zegoen, Gipuzkoako bertako edo, zehatzago esateko, erdialdeko euskara bizia oinarritzat hartzen zuena, gehienbat aditzari zegokionean. Egiari zor eta gauzak hotzean ikusita, horixe zen euskaldun multzo haziak erabiltzen zuen hizkera eta horixe, era berean, euskaldun guztiak errazen eta erosen ulertzen zutena, baina Bilbo aldeko gipuzkoarren nagusikeria, alderdikeria, setakeria eta itxikeria iruditzen zitzaien. Koldo Mitxelena, Patxi Altuna eta Txillardegi ziren aukera horren aldeko lagunak esanguratsuenak; hirurak gipuzkoarrak eta, beraz, hirurak "susmopekoak".

Hain zuzen, 1970ean idatzitako "Aditz batuaz" izeneko txostenean aurkeztu zituen Mitxelenak aukera horren aldeko arrazoiak (in Altuna 1972: 119-125). Erabakiak hartzeko orduan, mota biko irizpideak zeudela zioen, hizkuntzazkoak eta soziolinguistikoak, eta bigarren horiek zutela lehentasuna. Hona hemen haren hitzak (Altuna 1972: 122-123):

Gipuzkoako aditza hartu behar da oinarri, ezpairik gabe. Gipuzkoa eta Nafarroa garaikoa (Nafarroa garaiko euskaldunik gehienena, ez baztandarrena edo Pirinio-ibarretan gelditzen diren zenbait aetz eta gainerakoena). Lapurterra, klasikoa eta ez hain klasikoa, berek bertan behera utzia dute, Iratzeder edo kentzen badugu. Eta ez dut uste gure artean, gure eskualdean eta oraingo gure eskualdeko idazleen artean, "navarro-labourdin littéraire" delakoa ontzat hartuko denik, ezta ere ontzat har behar litzakeenik.

Oraingoz euskarak duen indar urria Gipuzkoan dago, batez ere, eta Gipuzkoaren inguruan. Ikus: a) ikastolak non hasi eta lehenik zabaldu ziren, b) euskal liburuak non erosten (eta behar bada irakurtzen) diren, c) Kintanak argitara zituen datuak gorabehera, ez dut uste lumeroak Gipuzkoaren kontra daudenik.

Eta beheraxeago, hauxe erantsi zuen:

Izanaz gainera, "irudia" dago, eta badirudi gipuzkeraren irudia dotoreago eta liluragarriago agertzen dela azken urte hauetan, Bidasoaz honaindi behintzat. Giputz aditza erabili dute, esate baterako, Arestik eta Villasantek maiz, Mirande eta Peillenek sarritan. Lehen, gerla-aitzinean, Orixek bizkaieraz zerbait idatzi zuen; gerla-ondoan, ezin daiteke horrelakorik pentsa ere.

Euskara batua ulertzeko eta eraikitzeko orduan, beraz, jokabide nagusi bi zeuden eta Euskaltzaindiak aditza bateratzeko sortu zuen batzordean agertu ziren jarrera biak aurrez aurre. Ez dirudi lankidetzaz gozoa eta atsegina izan zenik. Patxi Altuna izan zen batzordeko idazkaria eta, urte batzuk geroago, honelaxe azaldu zuen hango giroa (Altuna 1977: 668-669):

Lehen egunetik bertatik (...) bi joera nabarmendu ziren batzordekoen artean eta bi taldetan sailkatu ginen: nolazpait esateko, antzinako jatortasun-aberastasunak zernahiren gaindik gorde nahi zituztenena eta euskal aditz laguntzaile osoa inoiz izan dituen eta izan ez dituen, baina izan zitzakeen, forma guztiekin (baita hitanozkoekin ere) berehala batu nahi zutenena, batetik; eta, bestetik, eguneroko premiari besteek baino gehiago, ustez bederen, begiratu, formarik erabilienak, maizenik ahotan eta lumatan hartzen ditugunak, finkatu nahi zituztenena (...). Bestela esan, (...) lehenek euskal aditz laguntzaile sistema osoa nahi zuten bertantxe bateratu, aditz aberatsa, joria eta ugaria izan genezan, eta horretarako adizkirik gehienak erabili zituzten antzinako euskal autoreengana zuten isuri nabaria; bigarrenak, berriz, aberatsa baino bizia eta gaurkoa hobe zelakoan, egungo egunean Euskal Herriko lagunik gehienek eta egungo eguneko idazlerik gehienek, hoberenak ez badira ere, erabiltzen dituzten adizkiak zituzten maiteago.

Zuzen islatu zuen Altunak Bilbo aldekoen jokabidea: aditz guzti-guztia eta berehala arautzeko grina, antzinako idazleek erabilitako bitxikeria eta txikikeria guztiak gaurkotuaz eta, antzinako lekukotasun idatzirik ez zenean, euren kolkotik berriak asmatuaz. Ez zioten arreta handiegirik egiten euskara biziari eta ez zuten kontuan hartzen hitzun xeheak euskara batua onartuko eta bereganatuko bazuen, astiro eta urratsak ondo neurtuaz ekin behar zitzaiola bideari.

Koldo Mitxelenak Luis Villasanteri egindako gutun batean ere agertzen da salaketa hori eta oraingo honetan, gainera, argiro azaltzen da nortzuk ziren jokabide horretakoak: Berriatua eta Kintana. Adibide jakin baten ingurukoa da Mitxelenaren oharra, **io* aditzaren plurala osatzeko moduz. Jakina denez, mendebaleko *-z* auke-ratu zen horretarako, euskara batuaren sisteman guztiz lekuz kanpo zegoena, eta honela azaldu zuen Mitxelenak horren zergatia (in Urkizu 2004: 204):

Ez dut uste *dio*-en pluralaren premia gorrian gaudenik eta, nahiz Bizkaian *dioz* (*diodaz* edo antzekorik) eta Donostian, inoiz, *dizkiot* erabili, klasikoek erabiliak ez direnez gero, nik ez nituzke inolaz ere sartuko. Horrek ez du esan nahi inori holakorik erabiltzea debekatzen diogunik: nahi duenak, erabil bitza. Baina gauza bat da ez debekatzea eta oso bestea agintzea edo, bederen, konseilatzea. Hortan ez nator bat Berriatua eta Kintanarekin: lehen ere gehiegi sartu dituzte inongo testuren lekukotasunik gabe, ez dakit ongi zertarako. Izugarri gisa, beharbada, euskal ikasleen izugarri.

Hainbeste adizki bitxi sartzea “euskal ikasleen izugarri” izan zitekeela zioen Mitxelenak, eta zin egiten dut hala zela, sasoi hartantxe egokitu zitzaidalako ikasle izatea.

NOR-NORI-NORK saileko adizkiak arautzeko orduan ere eztabaida gogorak izan ziren. Erdialdean erabiltzen den sistemaren alde egin zuten gipuzkoarrek eta, aldiz, Lapurdikoak Gipuzkoakoekin nahastea zen Bilbo aldekoen nahia. Hitanoan, gainera, ilun eta nahasbide gertatzen omen zen Gipuzkoako aditza. Horixe esan zuen Kintanak *Anaitasuna* aldizkarian argitaratutako hiru artikulutan eta, niretako behintzat,

benetan harrigarria da haren arrazoibidea. Pasartetxo bat aldatuko dut hona (*Anaitasuna*, 1972/01/15, 226. zenb., 16. or.):

Gipuzkera puntu askotan bizkaiera baino aberatsago, goxoago eta egokiago dela aitortzen dudana bezala, lapurtera are bizkaiera eta gipuzkera baino osoago eta aberatsago dela aitortu beharrez nago; eta, berau frogatzeko, aski dateke ondoko esaldi hau gipuzkeraz nola ematen den ikustea (besterik ez jartzeagatik): *ez dauat esan, baina hori askotan esan diat*. Gipuzkeraz: *ez diat esan, baina hori askotan esan diat* (!?), hau da, beti ilun, argitasunik eta zehaztasunik gabe, lapurtera —eta honetan bai bizkaierak eta zubereroak ere— gauza biak ezin garbiago adierazten dauzkigun artean.

Harritzekoa da euskalki batzuk besteak baino aberatsago, goxoago, egokiago eta osoago direla pentsatzea eta esatea. Harritzekoa belaunaldiz belaunaldi milaka giputzek erabili duten hizkera iluna eta argitasunik eta zehaztasunik gabea dela pentsatzea eta esatea. Baina harrigarriagoa zen Kintanak aurkezten zuen irtenbidea: Gipuzkoako eta Lapurdiko aditz sistema biak uztartzea euskara batuan. Haren arabera, NOR-NORK sailerako utzi behar ziren *diat* tankerakoak eta *dauat* gisakoak hartu NOR-NORI-NORK sailean. “Iluntasuna” eta “nahasbidea” saihesten omen ziren horrela jokatuta.

Koldo Mitxelena “Azken ordukoak” saioan eman zion erantzuna (in Altuna 1972: 365-401). Hasteko, argi eta garbi utzi zuen ondorengo “Pernandoren egia” hau, Kintanak, nonbait, ezagutzen ez zuena (386. or):

Ez dela hizkuntzarik berez eta izatez beste edozein hizkuntza baino hobea eta egokiago denik. Landuagorik, bai, jakina, zenbait mementutan honelako edo halako premiatarako trebeagorik. Ez ote zaizue, bada, miresgarri iruditzen, goi eta behe mailako hizkuntzarik ez baldin bada, euskalkiren bat (aski landua bera) besteak baino behartsuago eta errume-sago gertatzea, adimenduaren trabagarri, ez laguntzaile?

Kintanak jarritako adibidea hizpide hartuta, berriz, hauxe esan zuen (388. or):

Egin diat eta gainerakoak bitara har daitezke. Nik ez dut esango horrelako anbiguitateak hizkuntzaren onerako direnik; ezta ere, ordea, kaltegarri eta are galgarri direnik. Non bizi gara? Ez ote zen Chomsky aspaldi jaio? Ez ote dakite kaleko zakur-katuek ere (edo, hobeki esan, ez ote lukete jakin behar) hizkuntzak, edozein hizkuntzak, anbiguitatea berezko duela?

Antzeko arrazoiak erakutsi zituzten Patxi Altunak eta Txillardegik *Zeruko Argia* aldizkarian. Lehenarena da “Aditz batua” (1971/11/07, 454. zenb., 12. or) eta Txillardegirenak “Bide bat behar” (1972/01/02, 461. zenb., 3. or) eta “Andolin Eguzkitzari erantzunez” (1972/03/05, 470. zenb., 3. or). Jakina, *Anaitasuna* aldizkarian Berriatua eta Kintanaren bideari jarraitu zitzaion. Halaxe azaldu zuten irakurleei egindako oharrean (1972/02/15, 228. zenb., 15. or):

Garrantziko arrazoi honegatik bereizten ditugu ANAITASUNAN *diat/dauat, nian/neuan, dizut/dautzut, nizun/neutzen*, gipuzkera beste euskalkietako aberastasunekin osatu nahirik.

Esan dezagun, honen guztionen harira, euskara hizkuntza “argia” egitea zela Berriatua-Kintana bikotearen grina, “iluntasunak” eta “nahasbideak” saihestea. Hori dela eta, esate baterako, *hauek/hauek, horiek/horik, haiek/haiek* erakusleak bereiztea erabaki zen *Anaitasuna*-n: iragankorrak ziren batzuk (*neska hauek ekarri dute*) eta

iragangaitzak besteak (*neska hauk etorri dira*). Halaxe irakasten zen *Euskalduntzen* metodoko lehen ikasgaiari hasita ere.

Iraganaldiko adizkietan, era berean, nahasbidea sortzen omen zen erlatibozko adizkien eta iraganaldi soilen artean eta, hori saiheste aldera, erlatibozkoetan azentu grabea idaztea erabaki zen *Anaitasuna* aldizkarian (1972/03/15, 230. zenb., 15. or): *atzo etorri zèn gizona* (atzo etorritakoa) vs *atzo etorri zen gizona* (iragan soila).

3. Bilboko euskara bide berrietan barrena

Lapurdiko euskara zaharra berpizteaz gainera, euskara “moderno” eraikitzeko grina ere bazen Bilbo aldean, eta 1977an Xabier Kintanaren ardurapean osatutako *Euskal hiztegi moderno* izan zen ahaleginaren gailurra.

Batetik, latinetik eta grekotik zetozen hitzak jatorrizko ortografian idaztea erabaki zuen, eta horren lekuko dira hiztegi horretan agertu ziren *ammoniako*, *amphitryoi*, *arrythmiko*, *asphalto*, *asphyxiatu*, *authentiko*, *errhetorika*, *errheuma*, *katarrho*, *labyrintho*, *pamphleto*, *psykhophata*, *rythmo*, *semaphoro*, *sympathia*, *synkhronia*, *zyanuro*... tankerako grafiak. Ikaragarria zen horrelako idazkerak ikustea eta erabili behar izatea xx. mendearen hondarretan; ezbaierik gabe euskara bertan behera uzteko eta erdarari lasai babesteko aitzakia eta arrazoi nahikoa.

Bestalde, aurrizkiei eta atzizkiei etekin handiagoa atera nahian, hainbat hitz berri eta bitxi asmatu zituen Kintanak. Hona hemen zenbait adibide:

- AIA: *bandidaia* ‘bandidaje’, *lumaia* ‘plumaje’, *voltaia* ‘voltaje’...
- BIR-: *birbalidapen* ‘reválida’, *birplanteiu* ‘replanteamiento’, *birsaltzapen* ‘reventa’...
- DES-: *desastundu* ‘desgravar’, *desbabe* ‘desamparo’, *dezehatz* ‘inexacto’...
- EIU: *brontzeiu* ‘bronceo’, *dantzeiu* ‘bailoteo’, *frankeiu* ‘franqueo’...
- EZ-: *ezbete* ‘incumplido’, *ezelastiko* ‘inelástico’, *ezgizakor* ‘inhumano’...
- (G)AILU: *aparailu* ‘aparato’, *berretgailu* ‘refuerzo’, *edergailuztatu* ‘adornar’...
- GARRI: *bideragarri* ‘viable’, *edangarri* ‘potable’, *eskagarri* ‘exigible’...
- GO: *entzulego* ‘audiencia’, *funtzionalgo* ‘funcionariado’, *merkatalgo* ‘comercio’...
- KETA: *adaptaketa* ‘adaptación’, *botaketa* ‘votación’, *harrijasoketa* ‘levantamiento de piedra’...
- PEN: *eguzkitzapen* ‘insolación’, *harritzapen* ‘asombro’, *moltsapen* ‘aglomeración’...

Horrelako hitz martzianoak erabiltzen genituen garai hartan Bilbon egokitu ginenok eta, okerreana dena, gaur egun ere bizirik daude gutako askoren jardunean, batez ere *bir-*, *ez-*, *-garri*, *-keta* eta *-pen* osagaiak dituztenak. Hitzetik hortzera entzuten ditugu *birpasatu* ‘berriro ikusi’, *ez-euskaldunak* ‘erdaldunak’, *jangarria* ‘jateko ona’, *zarama bilketa* ‘zarama biltzea’, *beherapenak* ‘merkealdiak’ tankerakoak.

4. Alfabetatze ikastaroan

Erakutsi ditut 1973 inguru hartako zenbait zertzelada eta, hain zuzen, euskara batuaren barruan zeuden joera bietako irakasleak egokitu zitzaizkidan Deustuko Unibertsitateko ikastaroan. Erdialdeko euskalkian oinarritako euskara batua irakatsi zigun Patxi Goenagak eta, nik neuk behintzat, hura ulertzeko eta ikasteko ez nuen inolako arazorik eta zailtasunik izan. Mendebalekoa nintzen euskalkiz, baina eus-

kara batu hura ez zitzaidan Bilbo aldekoek esaten zuten bezain “giputz-zentrista” eta “inperialista” iruditu. Alderantziz, gertukoa egin zitzaidan, gertukoa zen bezala Patxi Goenaga bera, pertsona eta irakasle bezala. Aldiz, Bilboko joeran ondo sustraitutakoa zen beste irakaslea eta haren eskoletatik zeharo harrituta eta etsiak jota irten ohi nuen sarritan.

Ikastaroa hasi zen lehen egunean bertan, testu bat irakurtzen ziharduela, /h/ ahoskatzen entzuteak sekulako zirrada egin zidan. Bitxia zen Bilbon /h/ ahoskatze hutsa, baina bitxia zen, gainera, irakaslearen ahoskatzeko taiua. Ez zituen egiten Ipar Euskal Herriko euskaldunen moduan, ia-ia [x] balira bezala baizik. Horrela entzunda, zeharo arrotza gertatu zitzaidan neure hizkuntza, alfabetatzen hasi berri hartan.

Handik lasterrera jakin nuenez, /h/ ahoskatzea ez zen gure irakaslearen txorakeria. *Euskalduntzen* ikasbidearen hitzaurrean honako aholkua egiten zitzaien irakasleei (*Euskalduntzen*-1: 5):

H-ak, irakurtzerakoan behintzat, esan erazi behar dira (espainolezko *j* bigunak bezala), eta komenigarria litzateke, hasteko, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkietan *H*-ren tokian beste letra batez edo bi bokal berdinez moldaturik dauden hitzetan (*100 = egun, bihar = bigar, mahats = marats, sahatz = sarats, zahar = zaar, bihotz = bi-gotz, zuhaitz = zugaitz...*) *H* horik hitz egitean ere *h*-tzat ebakitzea. Honek, noski, alde bateko eta besteko euskaldunen fonetika berdindu eta elkar ulertzea erraztuko luke.

Horixe zen ikasliburu haren hitzaurrean euskararen fonologiari egiten zen ohar bakarra. Azentuaz, adibidez, ez zen ezer esaten, nahiz eta euskara ikasi eta Euskal Herrian bertakotu nahi zutenendako /h/-ak ahoskatzen jakitea baino baliagarriagoa izan.

Beste gertakari bitxi bat bizi izan nuen ikastaroa hasi berri hartan, neure hizkuntza ez nekiela sinestarazi zidana. Eskolan ikasle gutxi geundela ikusita, horren zergatia galdetu zuen irakasleak, eta neuk eman nion erantzuna:

—*Euren herrietara joango ziren, esan nuen, asteburuaren atarian geundenez.*

Irakasleak, bekozko beltza jarrita, hauxe esan zidan:

—*Niri euskaraz egidazu, mesedez!*, eta euskara zuzenean *beraien herrietara joan dirateke* zela esan zidan. Laster ohartu nintzen horrelako adizkiak etengabe erabiltzen zirela *Anaitasuna* aldizkarian eta, geroago jakin nuen, euren aldeko aldarria egina zuela Xabier Kintanak bertan (1970/12/30, 202. zenb., 15. or).

Ziurrenera, nik izandako sentipen bera bizi izan zuen beste ikaskide batek handik lasterrera, *ikusi izan dut* berak esan eta irakasleak *ikusi ukan dut* zela zuzena esan zionean. Konturatu nintzenez, *ukan* aditz hori ere ohikoa zen *Anaitasuna* aldizkarian.

Jakina, aditzaren ikasgaiak jarri zuen nire ezjakintasuna erabat agerian eta, horrenbestean, handitu egin zen euskarari hartua nion izua. Gure irakaslearen aurkezpenaren arabera, benetan ugaria, joria, aberatsa eta oparoa zen euskal aditza eta benetan urria eta gutxia, berriz, nik hartaz nekiena. Irakasleak, gainera, hitzetik hortzera erabiltzen zituen *demagun, derradan bidenabar, dagit, dager, dakikezuenez, dakusazuenez...* tankerako adizkiak, ordu arte sekula entzun gabe nituenak.

Deklinabidea azaltzerakoan hartu nuen ikastaroko pozaldi bakarra. Mendebalean *-a* berezkoa zuzen erabiltzen genuela esan zigun irakasleak (*makila bat*, ez **makil bat*), baina gutxi irauin zuen alaitasunak, komunztadura egiten genuelako gaizki. Gaztelaniaren eraginez, nonbait, *zenbat urte dituzu?* esaten genuen eta ez *zenbat urte duzu?* euskara jatorrean beharko lukeen bezala. Eta halaxe esaten zen garai hartan eskuartearen erabiltzen genuen gramatikan, Larresororen —Alvarez Enparanza “Txillardegi”-ren beste ezizenetako bat— *Sustrai bila* saioan.

Horrela joan zen ikasturtea eta, amaieran, ondo iltzatutako iritzi bakarra neukan neure barrenean: nire euskara guztiz ezgauza zela, eta Leizarragak eta Axularrek erabilitako hura ikasi beharko nuela. Lehendik ere entzunda neukan Eibarko euskara txarra zela, baina ikastaro hartan uste horren zuzentasunaz jabetu nintzen erabat. Orduetik aurrera, etxean eta kalean ikasita neukana alde batera utzi eta *Anaitasuna* aldizkariaren eredura idazten eta hitz egiten ahalegindu nintzen.

5. 34 urte geroago

Ikastaro hark eta Bilbon bizi izandako garaia zeharo markatu nindutela esan dut hasieran eta horren inguruan egin nahi ditut gogoeta zenbait saioaren hondarrean.

Lehenengo eta behin, orduan eta orain, euskara batuaren aldekoa naiz, baina zenbait gauza oker egin direla eta oker egiten ari garela iruditzen zait.

Alde batetik, bat-batekoa, erabatekoa eta goitik beherakoa izan da euskara batua ezartzeko modua. Ziurrenera, ezinbestean egin da horrela, hil edo bizikoa zelako euskararen egoera eta frankismo garai zailean egin zelako batasuna. Dena dela, garaia aldatu direnez, orain arteko jokabideak ere aldatu egin behar genituzke.

Lehenengo eta hasteko, euskara batuaren esparruak ondo zehaztu behar lirateke, hitzunak jakin dezan ez dela nonahi eta noiznahi nahitaez batua erabili behar eta beste hizkera batzuek ere badutela euren lekua: euskalkiek, lagunarteko hizkerak, lanbideetako hizkerak, gazte hizkerak...

Aldatu egin behar litzateke, era berean, euskara batua euskara onarekin berdintzeko joera. Ona da euskara batua, baina gainerako hizkerak ere onak dira. Beste era batera esanda, hizkera bakoitza berari dagokion esparruan erabiltzen jakitea da ona.

Euskara batua gizarteratzeko orduan alderdi euskaldunak eta alderdi erdaldunak bereizi behar lirateke, ez direlako berdin Lekeitio eta Tuteran. Herri euskalduna da Lekeitio, bere hizkera berezia daukana, eta zentzuzkoa da bertako hizkera horri etekina ateratzea, eta zentzugabea, berriz, guztiz herri erdalduna balitz bezala jokatzeko.

Alderdi euskaldunen eta alderdi erdaldunen barruan ere, gainera, ez dago denetan zertan modu berebean jokatu. Herri euskaldunak dira Lekeitio eta Senpere, baina euskalki banakoak, eta zentzuzkoa da euskalki berezi horiei etekina ateratzea. Hain zuzen, bertako euskalkietara egokitutako euskara batua erabil daiteke herri euskaldunetako zenbait esparrutan: eskolan, lantegietan, administrazio erakundeetan, herri barruko aldizkari, agiri, mezu eta iragarkietan...

Herri erdaldunetan ere ez dago zertan berdin jokatu; Tuteran eta Baionan, esate baterako. Nafarrekin izango du tuterarrak hartu-emanik sarriena eta Lapurdi eta Nafarroa Beherekoekin, berriz, baionarrak. Garbi dago, beraz, leku bakoitzeko beharri-zanak kontuan hartu behar direla.

Euskara batuaren egiturari dagokionez, azkenik, gaur egungo euskaldunek errazen eta erosoan ulertzen dutena erabiltzea komeni da. Neurritz erabili behar lirateke, beraz, euskara zaharreko ezaugarriak, neurritz euskalkietako ezaugarriak, eta neurritz mugaren alde bietako erdara bien ezaugarriak.

Herri hizkerari dagokienez, esan dut, dagoeneko, etekina atera behar zaiela. Babestu, aztertu eta erabili egin behar dira. Beste kontu bat da literatura euskalkiena. Niri neuri iraganeko tresnak iruditzen zaizkit. Gaur egun, euskara batua eskura edukita, ez diet ikusten leku handirik. Ez, behintzat, Gipuzkoan eta Nafarroan. Ipar Euskal Herriko egoera —batez ere Zuberoakoa— berezia denez, oraindik ere lagungarri gerta daitezke, eta baita Bizkaian ere, beharbada. Dena dela, euskara batuaren gainean esan dudana errepikatuko dut: hiztunik gehieneguneko jardunetik ahalik eta gertuen ibiltzea komeni dela.

Ez dezagun ahaztu, horren harira, XIX. mendean literatura euskalkiak lantzen eta garatzen hasi zirenetik euskalkien arteko aldeak zabaldu eta sakondu egin direla, eta euskararen batasuna lausotu eta galdu. Bizkaian bereziki, hainbat bitxikeria piztu eta hainbat txikikeria puztu dira eta gainerako euskaldunetako eten nabarmena gertatu da. Eta gaur egun bertan ere, jakinaren gainean edo oharkabean, ahalegin hori nabari da Bizkaiko elkarte jakin batzuen jardunean.

Hitz bitan laburbiltzeko, euskararen estandarizazioarekin lotutako hiru zeregin nagusi dauzkagu une honetan esku artean: a) euskara batua egokitzea eta hobeto gizarteratzea, b) herri hizkerak babestea eta erabiltzea eta c) herri euskaldunetan herri barruko zereginetarako “tokiko batuak” egituratzea.

Horixe da Bilbon bizi izandakotik atera dudana ondorioa. Latza eta garratza izan zen niretako euskara batua ikastea eta gaur egun bertan ere hainbat gorabehera izaten dituzte euskara ikasi edo hobetu nahian dabilzanek. Arreta eta begirune handiagoa eduki behar genuke euskarara gerturatzen diren horiekin, bertatik betiko urrundu eta alden du ez daitezten.

Argibide bibliografikoak

- Altuna, P. (arg), 1972, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Mensajero, Bilbo.
 —, 1977, “Aditz laguntzaile batuaren gorabeherak”, *Euskera* 22: 2, 667-672.
 Alvarez, J. L. [“Larresoro”], 1970, *Sustrai bila*, Donostia.
 Arenaza, J., 1974, *Tus hijos y el euskara (El mito del “batua”)*: La Editorial Vizcaína, Bilbo.
 Badiola, R. et al., 1972, *Euskalduntzen*, Cinsa, Bilbo.
 Kintana, X., 1972a, *Behin batean*, Lur, Donostia.
 —, 1972b, “Aditzaren batasunaz gauzak argiro”, *Anaitasuna* 226, 227 eta 228 zenbakiak.
 Urkizu, P. (arg), 2004, “Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)”, *Bilduma-18*: 13, 223, Errenteria.

ZENBAIT IRAIN-HITZEN ERABILERA. DEKLINABIDE-KASU HAUTSIAK

Juan Joxe Zubiri eta Patxi Salaberri

NUP

1. Aztertutako irain-hitzak

Irain-hitzekin handik eta hemendik lardaskan genbiltzala konturatu ginen zenbait birao-hitz berezi samarrak zirela erabileraren aldetik eta hauen berri ematea komenigarria izanen litzatekeela. Horretarako, egokiena zein irain-hitz diren eta nola erabiltzen diren argitzea dela gogoratu zaigu. Ondoko hauek dira, hain zuzen ere, aipatu nahi ditugun hitz horiek: *arraio*, *deabru*, *demontre(s)*, *kristo*, *mirakulu*, *ostia(s)*, *ostra(s)* eta *puñeta(s)*. Hauei buruz ondorengo puntuan xehetasun gehiago emanen baditugu ere azal ditzagun, irazean bederik, banan-banan.

Arraio

Oso interjekzio arrunta da; harridura eta haserrea adieraz ditzake. Gehienetan esaldiaren hasieran kokatzen da bakarrik agertzen denean; horrelakoetan aukeran erabiltzen da artikulua (cf. *arraio!*, *arraioa!*), bestelakoetan edozein izenordain galdetzaileren ondotik joaten da artikulurik gabe, jakina (cf. *zer arraio*, *nor arraio*, *non arraio*...).

Demontre(s)

Interjekzio hau *arraio*-ren parekoa edo kidea da; bi aldaera daude: bata bukarako *-s*-rekin eta bestea *-s*-rik gabe. Erabilera dela eta, *arraio*-ren testuinguru berberetan aurki dezakegu.

Deabru

Artikularekin edo gabe erabil daiteke interjekzioa denean. Orokorra den arren, iparraldean gehiago erabiltzen da, bereziki galdetzailleekin batera doanean (cf. *zer deabru*, *nondik deabru*...). Azken erabilera hau dela eta, esanahiaren aldetik *kristo*-ren paretsukoa da.

Kristo

Badirudi *arraio* eta *demontre(s)* hitzek baino indar gehiago ematen diola esaldiari honako honek, edo bestela esan, gogorxeagoa suertatzen dela. Aldaeren artean *krixto* eta *rekristo/rekrixto* aurki daitezke. Esaldiaren hasieran, bukaeran eta edozein galdetzaileraren ondotik joaten da; harridura edota haserrea adierazten du. *Arraio* eta tankerakoen zentzua izaten du.

Mirakulu

Iparraldean, galde hitzekin erabiltzen denean *arraio*, *deabru* eta besteen esanahia hartzen du (cf. *zer mirakulu egiten duzue zuek hemen, tenore honetan?, norat mirakulu doa hori?...*).

Ostia(s)

Harridurazko interjekzioetako erabil daiteke. Aldaera dextente daude: *ostia*, *ostias*, *ortzia*, *laostia*, *reostia*, *larreostia*, *ostiabiri*, *laostiabiri*, *ostiakopon*, *laostiakopon...* Oro har, *arraio*, *kristo* edo tankerakoen sinonimoa izaten da, baina aurkezten ditugun hitzetan gogorrena izanen da segur aski. Bestalde, edozein galdetzailerekin azaltzen da; orduan, *ostia* aldaera da erabiliena (cf. *zer ostia, non ostia...*).

Ostra(s)

Aurrekoaren kide leuna da; hotsen antzekotasunagatik erabilia ziurrenik. Honek ere hainbat aldaera baditu; erabilienak: *ostra*, *ostras*, *laotra*, *laostrabiri...* Galdetzailerekin ere erabiltzen da (cf. *zein ostra, non ostra...*).

Puñeta(s)

Interjekzioetako erabiltzen denean aurrekoen antzekoa da, ez *ostia* bezain gogorra. Itxuraz desberdinak diren formak aurkitzen dira: *puñeta*, *puñetas*, *lapuñeta*; eta honen aldaera gogorragotzat har ditzakegu beste honako hauek ere: *puta*, *putas*, *reputa*, *reputas*, *laputa...* Galdetzailerekin batera ageri den arren, ez da hain usu —aipatutako beste irain hitzak bezain usu— erabiltzen (cf. *non puñeta(s) sartu ote da?*).

Ikusi dugun bezala, denak sinonimoak dira eta antzetsuko erabilera dute (bestelako desberdintasunak eta berezitasunak aurreraxeago azalduko ditugu). Hauen artean, batzuk Iparraldean gehiago —edo bereziki Iparraldean— erabiltzen dira, hala nola *deabru* eta *mirakulu*; beste batzuk berriz maizago hegoaldean: *ostia(s)*, *ostra(s)*, *puñeta(s)*; eta beste batzuk bai batean eta bai bestean: *arraio*, *kristo* (azken hau urriago Iparraldean).

Irain-hitz hauen gogortasun-mailari gagozkiola, esan behar da gogorrenak *ostia(s)* eta ondoren *puñeta(s)*, ordena honetan, izanen direla segur aski; gero, *kristo*, *deabru* eta *ostra(s)* paretsuan ezarriko genituzke, eta azkenik, arinenak, *arraio*, *mirakulu* eta *demonstre* izanen lirarteke.

2. Erabilera

Esan daiteke, oro har, hitz hauen erabilera dela eta, testuinguru berdintsuetan ibiltzen direla. Interjekzioetat, harridura edota haserrea adierazteko, erabiltzen direnean esaldiaren hasieran edo bukaeran kokatu ohi dira (cf. *arraioa, hori indarra!*). Aipatu bezala, edozein galdetzailereren ondotik ere joan daitezke (cf. *zer arraio gertatzen da hemen!*). Orain arte ez badugu esan ere, izenondotako agertzen da (cf. *neska arraio hau zer ari da!*), bai eta beste izenondo batzuen indargarritako ere (cf. *arraio zorrizua!*).

Aipatu ditugun “irain-hitza” hauen antzekotasunak aipatu ondoren, esan behar da desberdinasunak ere badirela, bereziki izenlaguntzat ibil daitezkeen edo ez kontuan hartzen badugu. Ondoan agertzen ditugu xehetasun eta adibide gehiagorekin aipaturako erabilera guztiak. Adibide gehienak Salaberri & Zubiri (2007) lanetik hartuak dira ia beti.

2.1. Harriduretan

Askotan harridura, txundidura, mirespena, haserre, errabia, sumina, amorrua, ezustea, ustekabea, beldurra, ikara, e.a. agertzeko erabiltzen dira. Gehienetan esaldia-
ren hasieran azaltzen dira, nahiz eta zenbaitetan bukaeran ere koka daitezkeen:

- *Arraioa!*, nonbait ere dirua bazegok!
- *Kristo*, non sartu haiz!
- *Ostia*, a zer eskapada egin duena kotxe horrek!
- *Ostias*, hori zanpatekoa!
- *Ostia!*, kasu egin ezak non sartzen haizen!
- *Ostra*, hori belozidadea hartu du!
- *Ostras!*, zer kasketakoa hartu duen!
- *Lapuñeta*, hau hemengo nahasmena; ez dakit nondik hasi!
- *Lapuñeta*, orain agertu behar buen hik ere!
- «Baina gure aitona haserre: “*Puñetas*, nik ahariak zuri salduta nola joan behar dut orain Lekunberrira!”» (Perurena 1996: 264).
- *Laputa!* Ez duk hori berehala bukatzekoa!
- Ederra egin diagu orain! *Laputa!*
- *Laputa*, zer suertea duen alu horrek!
- *Laputa*, hi! Horiek lanak egin dituzue!
- *Reputa!* Ez zian lehenago erraten ahal?
- *Larreostia!* Nola egin daiteke lana hain gaizki?
- *Reostia!* Zenbat aldiz errepikatu behar zaik gauza bera?

2.2. Izenondoa

Aipatu ditugun “irain-hitza” horien artean zenbait (cf. *arraio*, *ostia*, *deabru*, esaterako) izen baten arrimuan jartzen dira. Noizik behin izenaren ezker aldean ere azaltzen da (cf. *arraio mutilak*):

- Hau *arraioa!*
- *Kaka arraioa*, egon hadi isilik!
- Orain ere hor zegok *saltsero arraioa!*
- *Neska arraio honek* ez baitit gauza onik egiten!
- *Arraio mutilak!*, hau ere badiagu!
- Pakea emazu, *asto arraioa!* (Larzabal 1991: 279)
- Ikusten al duzu *ume deabru* horien egitekoa?
- Nundik demuntre ezagutzen ahal nu *asto debru* horrek? (Manezaundi 1990: 58)
- *Ikusi orduko pentsatu nuen, sorgin debru bat bezala* (Duny-Pétre 1996: 160)
- *Andre debrusa*; zer den haatik! Jaun ona duela berak erraiten eta halere beti mokoka hari behar (Larzabal 1991: 21)

- *Emazte deabrua! Honek nahi dituen guziak beti egin behar!* (Larzabal 1991: 102)
- *Bertzerik ezin eginez, ene buruarekin ari nintzen balinba muthurraren gainerat azkenean zapart eginen ziotela tresna deabruak.* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 211)
- *Sar, sar... Emazte demontria, tira zazu zuzen!* (Larzabal 1991: 102)
- *Gizon ostia horrek egitekoa ez da handia!*
- *Kaka ostia bat eginen dik horrek!*
- *Errekaldeko Inaxio? Larreostia duk hura!*
- *Mutiko ostra hori non sartu ote da?*
- *Gizon puta hori ibiliko da, bai, hor tartean!*

2.3. Galdetzaileekin batera

Edozein izenordain galdetzaileraren ondoren ager daitezke. Puntu hau korapilatsu samarra denez, zehaztasun gehiago emanen ditugu 3. atalean; oraingoz behintzat, derragun *zer, zein, nor, nola* eta *non* bezalako galdetzaileekin azal dakizkigukeela:

- *Zer arraio egin duk?*
- *Zer arraio pasatzen da hemen?*
- *Baina, nola arraio esan behar diat horra ez joateko!*
- *Baina, zer arraio duk hau!*
- *Ze arraio! Nork eztu noizean bein astakeriren bat egiten?* (Agirre, T. 1966: 94)
- *Zer arraio ote dute emakume sorgin oiek?* (Salaberria 1997: 14)
- *Zer deabru sartu zaio begian?*
- *Ze deurru pasten da hemen?* (Kamino & Salaberri 2007: 49)
- *Ze mila deurru pasten da hemen?* (Kamino & Salaberri 2007: 49)
- *Bainan zer debru sarthu zaioite buru kaskoan holako harrigarriko itzulipurdia egiteko?* (Manezaundi 1990: 220)
- *Aluita halakoa! Zer demontre nahiko ote dik orain burlontzi zikin horrek?*
- *Non demontre sartu ote ditut nik giltzak?*
- *Non demontres ote dago?*
- *Zer demontre! Goazemak!*
- *Zer demontre egiten duk hemen?*
- *Zer demontre pasatzen da hemen?*
- *Ze demontre! Fuera bizarrez! Zabaletan etzan bear biboterik* (Agirre 1966: 110),
- *Ze demontre othe zuten sakien barnian (...)?* (Manezaundi 1990: 61),
- *Eta gutizia hortarik kotsatuak erabaki zuten lauek hek ere, zer demontre, behar zutela gorputzari eman eskatzen zuen inharroste eta bozkarioa* (Manezaundi 1990: 337),
- *Eta Batan delako hori, zein kristo ote zen?*
- *Sei familia etortzen dituk; ez zekiat zer kristo aritzen diren!*
- *Nola kristo ailegatu ote da hori hona!*
- *Ez da ezagun krixtorik. Nun mirakulu dire?* (Saint Pierre “Antsuberro” 1998: 59)
- *Nola mirakulu ezagut badutenetz, azalean edo barnean makur zerbait?* (Etxepare medikua 1985: 229)

- *Ez da ezagun krixtorik. Nun mirakulu dire?* (Saint Pierre “Antsuberro” 1998: 59)
- *Nola mirakulu ginauzkan otso, holako bildots maitagarriak?* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 103)
- *Nola mirakulu ezagut badutenetz, azalean edo barnean makur zerbait?* (Etxepare medikua 1985: 229)
- *Zer ostia pasatu da hemen?*
- *Zer ostias ari haiz hor bustitzen? Hator hona lehorrera, deabru zozokapelua!*
- *Zer puñetas egiten duk hik hemen inori ere ezer esan gabe?*
- *Zer puñeta ari da hori hemen!*

2.4. Indargarriak

Arlo honetan esan behar da sakreei indar gehiago emateko badaudela hainbat baliabide: ahotsa nabarmen goitzea, entonazioa markatzea, azentu desberdina ematea, hainbat partikula errepikatzea, sakreak elkarren ondoan metatzea...

Hemen *indargarri* ondoko izen edo izenondoari indar handiagoa emateko edo adierazkortasun maila handitzeko erabiltzen den hitzari esaten diogu (cf. *alantako*, *alena...*). Badakigu zenbaitetan ez dela erraza bereiztea izenondo metatze hutsa den (eta horren ondorioz adierazkortasun zama hori areagotzen den) edo ondoko izenkia indartzeko baliabide beregaintzat har daitekeen. Guk bigarren aukera honen alde egiten dugu aipagai ditugun zenbait irain-hitzetan. Hona ale batzuk erakusgarritako:

- *Arraio zikina, hor hago!*
- *Halako etxeko jauna begira egoki eta esan omen zion: Arraio aztal zikina!*, *bahuen bai beharra!*
- *Arraio alua, hirekin ez zegok fidatzerik!*
- *Arraio astoputz halakoa! Zer uste duk, hiri kasu eginen diala? Egon hadi ametsetan!*
- *Arraio demonioak!*
- *Arraio zorrizu zikina! Zertara etorri haiz hona, bazterrak nahastera?*
- *Ez diat ikusi hi bezalako gizon milindrerik inoiz!, ikas ezak denetarik jaten, arraio linbresa!*
- *Deabru ahalkegabea!, hobe luke isilik egon!*
- *Deabru akala! Non dituk indarrak hik?*
- *Deabru ergela!*
- *Deabru kakazu zikina!, hoa hemendik bistatik, bertzenaz zanpatuko haut burutik beheiti makila honekin!*
- *Deabru lepamehea, hoa hemendik hire tokira!*
- *Iduri dik to, pagatu behar zaiola hitz egiteagatik! Deabru muturluzea!*
- *«Deabru kaka mokordoa»* (Estornés 1985: 60).
- *Debru frantximent lizuna hail hementik orai berian. Alaintso, norekin uste duk hintzala?* (Manezaundi 1990: 34)
- *Alo, debru erhoak, nahi duzea ixilik eta geldirik egon?* (Manezaundi 1990: 46)
- *Debru emazteak! Zoin ausartak diren zombait.* (Manezaundi 1990: 86)
- *Debru sorginak! Badakite, ba, ibiltzian eta belhauna aitzinatuzian, buluzia agertzen delarik, gizonak han finkatuko diela behakoa.* (Manezaundi 1990: 243)

- *Debru pitauna! Nahi nitek, to, ikhusi hire kalipu eta bihotza ene lekhan izan babintz gain hartan.* (Manezaundi 1990: 94)
 - *Hori, ximino haren itzuliphurdiak eta lasterkak, soldado soinekoekin jauntzia, xixpa bat bizkarrian. Debru apko tresna irringarria!* (Manezaundi 1990: 91)
 - *Debru zirtzila! Badik usaia lehen ere: Ene astoa ezin baitu ikusi* (Larzabal 1991: 133)
 - *Debru kamartza zizta!... Hortako hobe hitake ba, hi!* (Larzabal 1991: 288)
 - *Demonio arraioa!*
 - *A demonio belarriaundia hi!*
 - *A demonio zerria!*
 - *Demonio iskixua, hago isilik!*
 - *Demonio txoro ergela, hi!*
 - *Demonio satitsua berriz!*
 - *Demonio txatxua berriz! Euria zalapartaka eta hik leihoa irekirik utzi!*
- Ederki zegok!*
- *Demonio zorrizua, nola igo da goiti!*
 - *Hau demonio astazakila!*
 - *Zer fundamentu eginen duzu ba zuk, demonio kaiku zepela!*
 - *«Demonio beltza, harrapatzen bahaut!»* (Arana 2003: 79)
 - *«Egarria edukiko hik, egarria “Edan ezak demonio tontoa!” esan zion zakurrari»* (Perurena 1996: 278)
 - *Demonio mutur zikiña, ik ere oinbeste jakin!* (Muxika 1996: 90)
 - *Demontre alua! Egon hadi isilik!*
 - *Demontre ergela!*

2.5. Mailakatzaila

Zenbaitetan *arrunt, oso, aski* mailakatzailen ordezkotzat har daitezke adizlagunari nolabaiteko maila edo intentsitatea emanez (cf. *agudo aski joan zen etxetik*).

- *Agudo arraio joan zen etxetik!*
- *Aire demonio hoa hemendik bistatik!*
- *Agudo demonio martxa egin zuen bileratik!*
- *Fite deabru jin zen!*
- *Fite déurru jin zukán!* (Kamino & Salaberri 2007: 49)
- *Burdin guria ukitu zuenean azkar demontre kendu zuen, bai, eskua!*
- *Usu ostia aienatu zen handik!*

2.6. Izenlaguna

Hauetako zenbait hitzek, esaterako, *kristo, ostia* eta *ostra* sakreek, izenlagun moduan erabiltzen direnean ‘ikaragarria, izugarria, galanta, handia’, ‘ederra, polita, ona’ esanahia hartzen dute, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- *Kristoren etxea dute herrian!*
- *Jesukristoren gezurrak esaten ditu mutiko horrek!*
- *Ostiaren kotxea erosi du Jonek!*
- *Ostiaren ziztuan igaro da!*
- *Ostraren arrazoiak botatzen ditik horrek!*
- *Ostraren barrabilak behar dituk hori egiteko!*

2.7. Bestelakoak

Gainerakoak, edo ez dira aurreko puntuan aipatu dugun modu honetan erabiltzen, edo erabiltzen direnean beste zentzu bat hartzen dute:

- *Arraioaren umea, ez ote da sekulan isilduko!*
- *Demonioaren arraioak!*
- *Nausiak, haurraren ondotik: ago, ago!... Debruen mutiko txarra!* (Duny-Pétré 1996: 65)
- ... baratzian zerba, haren ondoan perexila, Ago ixil-ixila, *debruen xirtxila!* (Duny-Pétré 1996: 126)
- *Debruen mozkor tzarrak zuek!* (Larzabal 1991: 123)
- *Bakea emazu zuen tetelekeria eta tresna zikinekin... Debruen basak!* Beharrik dut osagarri azkarra! (Larzabal 1991: 179)
- *Debruen urdeak, ez othe dut bada oraikoan enea hilen!* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 63)
- *Debruen bisaia! Hau pollita dugu?* (Lafitte 1982: 101)
- *Debruen figurak! Gure gaberako lagunak ditugularik, ez da errana ez dudala lepoa bati bihurtuko, tokia hustu baino lehen* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 158)
- *Debruen arima, Joanes (dio batek), egundaino ez nitek sinetsi bazirela holako zezen errabiatuak* (Manezaundi 1990: 339)
- *Debruen arima! Urde kaskoin tzar hura ene eskien artean banu, itho nezakek, to!* (Manezaundi 1990: 47)
- *Debruen bisaia! Mundu madarikatu eta iguingarri hortan bano goxoago bizi nuk, to, artho jorratzen!* (Manezaundi 1990: 71)
- *Debruen bisaia! Ze bustialdia jasan nien!* (Manezaundi 1990: 87)
- *Ai!... Ausiki egin daitak... Debruen urdia!... Agian ez da errabiatua!* (Larzabal 1991: 172)
- *Ez ziren lanik gabe amak; ez eta, demuntren dela, jaun mera ere; hainbertze emazteren gobernatzea, karatxo, zer lana!* (Etxepare medikua 1985: 275)
- *Debruen dela, bizi da, bizi oraino lana* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 88)
- *Debruen sar badakio!* (Manezaundi 1990: 27)
- *Debruen sar dakio!* Ez liteke ase gure phentzatakoeekin, dio Pellok (Manezaundi 1990: 57)
- *Deurria sar dákjon!* (Kamino & Salaberri 2007: 48; ikus *déurru* sarrera)
- *Orai artio iretsiak ezin lixerituz, leher egin beharko du, debruak ez badu!* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 74)

2.8. Alderaketa

Orain arte azaldu ditugun irain-hitz hauek, elkarrekin alderatuz, badituzte ezau-garri batzuk komunak dituztenak eta beste batzuk elkarrengandik desberdintzen dituztenak. Ondoko koadroan laburbiltzen dugu zein den birao-hitza eta nolako erabilera duen.

Aztergai ditugun irain-hitzen arteko alderaketa

	Harridura	Izenondoa	Galdetzai- leekin	Indar- garria	Mailaka- tzaila	Izenlaguna
Arraio	+	+	+	+	+	-
Deabru	+	+	+	+	+	-
Demontre(s)	+	-	+	+	+	-
Kristo	+	-	+	-	-	+
Mirakulu	+	-	+	-	-	-
Ostia(s)	+	+	+	-	+	+
Ostra(s)	+	+	+	-	+	+
Puñeta(s)	+	-	+	-	-	-

Aipatutako hitz guztiek bi ezaugarri dituzte berdinak (goitik beheiti begiraturaz): 1) harriduretako erabiltzen direla, eta 2) galdetzai-leekin ager daitezkeela. Izenlagun gisa ‘ederra, handia, ona, polita...’ zentzuarekin ibiltzen direnak hiru hitz dira: *kristo*, *ostia* eta *ostra*. Indargarritako, aldiz, *arraio*, *deabru* eta *demontre*; eta mailakatzailatzat, azken hauetaz gain, *ostia* eta *ostra* hitzak ere bai.

Beste aldetik, oraingoan zeharka begiraturaz, ikus daiteke *arraio* eta *deabru* hitzak alde baterik, eta *ostia(s)* eta *ostra(s)* hitzak beste aldetik, testuinguru beretan erabiltzen direla; lehenengoak izenlagunaren funtzioan ez gainerako guztietan, eta bigarrenak indargarri ez beste guztietan. *Mirakulu* eta *puñeta(s)* hitzak dira harriduretan eta galdetzai-leekin soilik agertzen direnak. Eta azkenik, *demontre* hitza *arraio* eta *deabru*-ren parekoa dugu, baina beste horien kasuan ez bezala, ez dugu izenondotako aurkitzen.

3. Deklinabide-kasu hautsiez

Beste edozein gauza baino lehen, kasu-marka “haustea” —zer den berehala azalduko dugu— aukerako zerbait dela ematen duenez, ager ditzagun lehenbizi egoerak eta gero iritsiko gara ondorioetara.

3.1. Deklinabide-kasu hautsiak¹

Hizkuntzaren egiturari erreparatzen badiogu seguruenik alderdirik interesgarriena honako hau dugu. Labur eta argi erakusteko, ondoko esaldi hau: *nondik etorri ote da?*, beste esaldi honekin alderatuz gero: *non arraiotik etorri ote da?*, ikus daiteke

¹ Lan honetan alde batera uzten dira, esaterako, *-xe* indartzailearekin suertatzen diren kasu hautsiak (cf. *hemengoxe vs. hementxeko*, *horkoxe vs. hortxeko*, *hemendixe vs. hementxetik*, *hone-laxeko vs. hone-laxeko...*), bai eta *-tsu* “gutxigoraberasuna” adierazten duen atzizkiarekin gertatzen direnak ere (cf. *pare-kotsu vs. paretzuko*, *berdintsutik*, *noiztsuko*, *antzetsura...*).

lehenengo esaldiko galdetzaila bigarrenean banandu, zatitu, hautsi egin dela, alde batetik *non* gelditu delarik aieka batean, bakarrik, eta bestetik *-tik* kasu atzizkia *arraio* hitzak hartu duelarik. Gertakari honi —eta ikusiko ditugun beste antzekoei— deitu diogu deklinabide-kasu hautsia, nolabait bi zatitan banatzen edo hausten delako.

Terminologia dela eta, gertakari hau izendatzeko zalantzan egon gara *banandua* edo *hautsia* hitza erabili. Esanahiari begiraturaz, zerbait hausten denean nonahitik edo nolanahi hausten da (edalontzi bat, esaterako), baina banantzen denean, banandutako zatiek beren hasierako edo jatorrizko nolabaiteko nortasuna izaten jarraitzen dute (gure kasuan, alde batetik galdetzaila eta bestetik deklinabide-kasu atzizkia); honenbestez, zuzenago iruditzen zaigu *banandua* terminoa erabiltzea *hautsia* baino. Irizpide honi jarraituz *izen sintagma bananduaz* hitz egiten genuen beste lan batean (Zubiri 2000). Baina bereziki azken urteotako tradizioari begiraturaz, badirudi *hautsia* terminoa erabiliagoa izan dela. Esaterako, hizkuntzalaritzan Dixonek (1994) *ergatibitate hautsia* deitzen dio, Huartek ere (2007), Dixoni jarraituz, *ergatibitate hautsia* erabiltzen du, eta Hidalgo (2002), berriz, *erlatibo hautsiez* mintzo da; literaturgintzan ere erabili izan da hitz hau eta, adibidez, Mujikak (1975), ez oraintxe, *Zortziko hautsiak* izenburua paratu zion bere poesia-liburu bati. Badirudi, bestalde, *hautsi* hitza sarkorragoa, irudikagarriagoa dela *banandu* hitza baino.

Hortaz, honengatik guztiarengatik, *hautsia* hitzaren alde lerratu gara eta *deklina-bide-kasu hautsiak* izena erabiltzea erabaki dugu.

Baina deklinabide-kasuez hitz egiten dugunean, argitu behar dugu zein kasuz ari garen. Horretarako, aipagai ditugun irain-hitzak aintzakotzat hartuz, kasuz kasuko adibideak emanez joanen gara.

Absolutiboa

Kasu-marka \emptyset denez ezin da argi ikusi zinetan kasu-marka hautsirik baden edo ez (cf. *zer arraio \emptyset gertatu da?*; ikus adibide gehiago 2.3. puntuan).

Ergatiboa

- *Nor arraiok egin du hori!*
- *Nor arraiok egin ote du hori?*
- *Nor arraiok atera ote du zalaparta hori dena?*
- *Zein demontrek hautsi ote du kristala?*
- *Zein kristok bultzatu ote du hori sekta horretan sartzera?*
- *Badakit zein ostiak egin duen lan hau!*
- *Zein ostrak egin ote du pareta hain okerra?*
- *Zein puñetak egin dio ba horrelako alukeria?*

Datiboa

- *Nor arraiori eman diozu zaplastekoa?*
- *Zein arraiori eman ote dio honek dirua?*
- *Zein demotreri galdu ote zaio kartera?*
- *Nor ostiari tokatu ote zaio loteria?*
- *Zein ostrari pasatu zaio ba hori?*
- *Zein puñetari ikusi dio honek horrelako jostailua?*

Soziatiboa

- *Nor arraiorekin joan ote da?*
- *Zein arraiorekin ibili ote da neska hau goizaldera arte?*
- *Nor demontrekin hitz egiten ote du dena hain ongi ateratzeko?*
- *Zein kristorekin sartu ote da mutiko hau?*
- *Zein ostiarekin alde egiten ote du etxetik?*
- *Nor ostrarekin etorri ote nintzen ni festa haietatik?*
- *Zein puñetarekin egiten zenuen lan garai hartan?*

Genitiboa

- *Nor arraiorenak ote dira giltza hauek?*
- *Zein arraiorenak ote dira galtza hauek?*
- *Nor demotrerenak ote da eskularru hau?*
- *Zein kristorena izanen ote da letra kaxkar hau?*
- *Zein ostiarena da traban dagoen kotxe hori?*
- *Zein ostrarena izanen ote da bankuaren gainean dagoen motxila?*
- *Horko jertse hori zein puñetarena ote da?*

Ohartu genitiboaren kasu-marka *-(r)en* den arren, adibide guztiak artikulatu itzatsiarekin (eta behar denean pluralgilearekin) doazela. Horiek dira erabilerarik ohikoenak. Baina zailagoa da zuzen dauden edo ez zehaztea izenlaguntzat, beste izen baten laguntzarekin, erabiltzen direnean. Badirudi posible dela ondokoak bezalako esaldiak ontzat hartzea, nahiz eta askozaz ere erabilera urriago eta bakanagoa izan (cf. ikus halaber leku genitiboarekin gertatzen dena).

- *Nor arraioren giltzak ote dira hauek?*
- *Nor demotreren kotxea ote da hor traban dagoena?*

Garbi dagoena da *kristo*, *ostia* eta *ostra* irain-hitzekin ezin direla horrelako egiturak erabili, segur aski, 2.6. puntuaren ikusi dugun bezala, izenlaguntako ibiltzen direnean beste esanahi bat hartzen dutelako. Ikus ondoko adibideak:

- **Nor kristoren letra izanen ote da hau?*
- **Nor ostiaren kotxea da honako hau?*
- **Nor ostraren abarkak dira horiek?*

Destinatiboa

- *Nor arraiorentzat egin behar duk lan hori?*
- *Nor demotrarentzat erosi dituzu hainbeste goxoki?*
- *Eta izenik gabeko gutun hauek nor kristorentzat ote dira?*
- *Zein ostiarentzat ote ditu trapu zahar horiek?*
- *Zein ostrarentzat ote dira isilpean erosi dituen loreak?*
- *Nor puñetarentzat dira ba laudorio horiek denak?*

Inesiboa

- *Non arraio dago Mikel!*
- *Non demontre sartu dira denak?*

- *Non kristo ote daude nire zapatak?*
- *Non ostia ibili ote da mutiko hau horrela arropa guztia zikintzeko?*
- *Aluita hori, non ostra gorde ote da?*
- *Non puñeta sartu dut ba nik boligrafoa?*

Kontuan izan, orain arte ikusi ditugun kasu guztietan galdetzailea haustea posible bada ere, kasu honetan irain-hitzek ez dutela kasu markarik hartzen eta ez dutela, era berean, onartzen:

- **Non arraion dago?*
- **Non ostian egon ote da?*

Ablatiboa

- *Non arraiotik etorri ote da?*
- *Non demontretik sartu ote da azeria oilategira?*
- *Non kristotik heldu haiz ordu hauetan?*
- *Non ostiatik azaldu da ero hau!*
- *Non ostratik sartu du honek txanpona sakelara?*
- *Non puñetatik atera du azti horrek untxia?*

Leku genitiboa

- *Non arraiokoak ote dira turista horiek?*
- *Non arraiokoa da ba atzoko dantza-taldea?*
- *Non demontrekoak dira antxoak hauek?*
- *Non kristokoa da fruitu arraro hau?*
- *Non ostiakoak dira motorrari kendu dizkiodan pieza hauek?*
- *Non ostrakoa da ba Oihan, hemengoa ez bada?*
- *Non puñeta(se)koa da ba, orduan, bananarik hoberena?*

Beste genitiboarekin gertatzen den bezala, lekuzko honekin ere artikulua —eta behar denean, pluralgilea— agertzen da kasu-atzizkiari lotua. Ez dirudi ondoko erabilera hauek gaizki daudenik, baina beste genitiboaren kasuan gertatzen den bezala, artikuluaekin (edota pluralgilearekin) doazen esaldiak baino ez-ohikoagoak direla iruditzen zaigu:

- *Non kristoko atsoak dira ba orduan?*
- *Non ostiako dantzariak dira ba?*

Adlatiboa

- *Nora arraio(ra) joan ote dira nire lagunak?*
- *Nora demontre(ra) abiatu ote dira horrelako ziztuan?*
- *Nora kristo(ra) ote doaz halako abiaduran?*
- *Nora ostia(ra) bidali duzue, ba, gutuna?*
- *Nora ostra(ra) eraman ote ditu mutiko honek nire zapatak?*
- *Nora puñeta(ra) sartu da ba pilota?*

Deklinabide-kasu hau dela eta, ohartu parentesi artean paratu dugula atzizkia. Honekin adierazi nahi dugu kasu-marka birao-hitzean paratzea hautazkoa dela;

zenbaitetan erabil daiteke eta beste zenbaitetan ez, hiztunen arabera. Erabiltzen ez denean, inesiboak bezalaxe jokatzen du, hau da, kasu-marka galdetzailean bakarrean agertzen da, edo beste modu batera esanez, ez da kasu-marka hautsirik suertatzen. Baina erabiltzen denean, kasu berezizat har daiteke, zeren bi alditan errepikatzen baita kasu-marka: galdetzailean eta irain-hitzean; orduan, berez, ezin geniezaioke kasu hautsia deitu.

Bestalde, badu kasu honek beste aldaera bitxi samarra. Zenbait hiztunentzat onargarriak izanen dira, apika, ondoko adibideak, nahiz guretzat zalantzazkoak diren:

- ?? *Non arraiora joan ote dira?*
- ?? *Non ostiara eraman dute nire kotxea?*

Eta gure zalantzak areagotu egiten dira muga adlatiboan, gutxienez hiru aukera baititugu:

- *Nora arraioraino iritsi ote da bota duzun harria?*
- ?? *Noraino arraioraino joan ote da?*
- ?? *Non arraioraino ailegatu zara ba?*

Aipatutako lehenbiziko adibidean, galdetzaileak kasu-markaren zati bat hartzen du (adlatiboarena) eta irain-hitza kasu-marka osoa eransten zaio. Bigarren adibidean, galdetzailean eta irain-hitzean errepikatzen da kasu-marka ber-bera (adlatiboan gertatzen den bezala). Eta azkenekoan, kasu desberdinak nahasten dira.

Motibatiboa

- *Zer arraiorengatik hartu ote du su etxeak?*
- *Arrunt berandu da jada, eta zer demontrengatik ez dira etortzen?*
- *Ez dakit zer kristogatik ez duen arrankatzen kotxe honek, bateria berria izaki eta!*
- *Zer kristorengatik egin ote du hori?*
- *Zer ostiarengatik ez haiz alkatetako aurkeztu?*
- *Zer ostragatik ez du ematen, orduan, aurpegia?*

Segidan aipatuko ditugun adibideak orain arte eman ditugun kasuen barrenean sar badaitezke ere, bereiz agertzea erabaki dugu beste multzo batean. Azaldu nahi dugun multzo honetan *zertan*, *zertara*, *zerta(ra)ko* eta *zertatik* galdetzaileei dagozkien kasu hautsiak sartzen dira. Horrela egiteko arrazoia zera da, kasu-atzizkia ez ezik *-ta* artizkia ere berekin batera garraiatzen duela birao-hitza.

Zertan

- *Zer arraiotan zabiltzate horko zuhaitz guztiak moztzen?*
- *Zer demontretan ari zara?*
- *Zer kristotan ari ote ziren han, ilunbetan?*
- *Zer kristotan sartu ote da oraingo honetan?*
- *Zer ostiatan ari ote da agure hori?*
- *Baina mutil horiek zer ostratan sartu ote dira oraingo honetan?*
- *Jakinen banu zer puñetatan ibili diren!*

Zertara

- *Zer arraiotara sartu behar du Beñatek hor...* (Izagirre 2002: 72)
- *Zer demontretara hurbildu da hainbeste halako koskaren ertzera?*
- *Itxura horrekin zer kristotara joan ote da hara?*
- *Zer ostiatarara doa dagoeneko diskotekara?*
- *Zer ostratarara joan da eguzkitara, komeni ez eta!*
- *Zer puñetatarara zoaz orain kalera?*

Zerta(ra)ko

- *Amaiak zer arraiotarako gonbidatu du Felix?*
- *Zer demontretako balio du txanpon txar honek?*
- *Zer kristotarako ote da tramankulu hau?*
- *Eman egin dik? Izor hadi! Zer ostiatarako hurbildu haiz beregana?*
- *Jonek zer ostratarako ote du plastiko zar zikin hau!*
- *Zer puñetatarako hasi da erretzen umemukizu hori?*

Zertatik

- *Zer arraiotatik zatozte tenore honetan?*
- *Baina zer ostiataratik heldu zarete orain?*

3.2. Deklinabide-kasu hautsia erakusten ez duten adibideak

Dena dela, mintzagai ditugun irain-hitz guztiak aintzat hartzen baditugu, esan behar da *deabru* eta *mirakulu* hitzek —bereziki Iparraldean erabitzen direnek— ez dutela kasu hautsirik onartzen.

- *Non deabru daude!*
- *Nongoa deabru ote da neska hori!*
- *Nora deabru doa orain!*
- *Zertan deabru ari ote da!*
- *Zergatik deabru joan behar zuen teilatura?* (Landart 1999: 21)
- *Nork mirakulu behar ditu gozatu hainbertze gerezi?* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 134)
- *Non mirakulu ote dago?*
- *Ez da ezagun krixtorik. Nun mirakulu dire?* (Saint-Pierre “Antsuberro” 1998: 59)
- *Nora mirakulu iritsiko ote gara?*
- *Nuat miakulu dua hori?* (Kamino & Salaberri 2007: 137)

Aitortu behar da, halaber, egitura mota hauetan ez direla beti deklinabide-atzizki hautsiak kausitzen, eta hautsi gabeko formak ere badirela.

- *Nork arraio egin du hau?*
- *Nork demontre hartu du hemendik boligrafoa?* (Jaio 2007: 9)
- *Zeinek ostia hartu ote du nire liburua?*
- *Nori arraio utzi ote dio ume honek bere jostailua?*
- *Norat arraio joan haiz metaziri eske?*
- *Nora kristo hoa motel!*

- *Hemen hiru bide dira. Nondik arraio joan ote da?*
 — *Bainan, nondik demuntre ezagutzen ahal nu asto debru horrek?* (Mane-
 zaundi 1990: 58)

3.3. Ondorioak

Orain arte azaldutakoa laburtuz, hasteko esan behar dugu, 3. atalaren aitzinean aipatu dugun bezala, forma hautsien auzi hau aukerakoa dela kasurik gehienetan, nahiz eta guk ahaleginik gehiena hautsitako formak erakusten egin dugun (cf. *nor arraiok vs. nork arraio*, *nor demontrek vs. nork demontre*).

Bereziki Iparraldean erabiltzen diren *deabru* eta *mirakulu* hitzek ez dute aldaera hautsirik onartzen (cf. *nork deabru*, *nork mirakulu*, *nondik deabru*, *nondik mirakulu*).

Hausten diren formak direla eta, erabilerari dagokionez, badirudi zenbait aldaera hautsi askotaz erabiliagoak direla beren pareko hautsigabekoak baino (cf. *non kristotik/nondik kristo*, *zer arraiotara/zertara arraio...*).

Deklinatzen diren galdetzaile guztiekin ager daitezke forma hautsiak (cf. *nor arraiok*, *nor arraiori*, *nor arraiorentzat*, *nor arraiorekin*, *non arraiotik*, *non arraiokoa...*). Galdetzaileen barnean sartu ditugu, baita ere, *zertan* eta bere kideak (cf. *zer arraiotan*, *zer arraiotara*, *zer arraiotako*, *zer arraiotatik*), kontuan hartuta *-ta-* + kasuatzikia hartzen dutela. Salbuespen bakarrak lekuzko bi kasu dira: *inesiboa* eta *adlatiboa* (muga *adlatiboa* azken honen barranean sartu dugu); *lehenbizikoan* ez da forma hautsirik agertzen (cf. *non arraio*), eta bigarrenean bi aukera daude: alde batetik, hautsigabeko forma erabil daiteke (cf. *nora arraio*), edo beste aldetik, kasu-marka galdetzailean eta irain-hitzean, *bietan*, ager dakiguke (cf. *nora arraiora*). Zalantzakoa goak dira kasu desberdinak nahasten dituzten aldaerak (cf. *??non arraiora*).

Azkenik, eman ditugun adibideak ikusita, esan behar da hautsitako formak galdetzaileekin eta aipatutako irain-hitzeekin baizik ez direla agertzen. Beraz, zuzenago dirudi 'deklinabide-kasu hautsiak' erabiltzea baino 'deklinatutako galdetzaile hautsiak' ibiltzea, hortara, *zer arraiotan* eta hauen modukoak horren pean egokiro sailkatuko lirarteke.

Bibliografia

- Agirre, Tx., 1966, *Garoa*, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati.
 Arana, A., 2003, *Zaraitzuko Hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Alegia.
 Dixon, R. M. W., 1994, *Ergativity*, Cambridge U. P., Cambridge.
 Duny-Pétre, P., 1996, *Xirula-mirula*, Donibane Garazi.
 Estornés, J., 1985, "Zoilo'ren uzta. La cosecha de Zoilo", *FLV* 45, 31-93.
 Etxepare, J., 1985, *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) Idazlanak. II Mediku-solas*, P. Charritonek paratu edizioa, Elkar, Donostia.
 Hidalgo, V., 2002, "Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)", *FLV* 89, 27-80.
 Huarte, M., 2007, *Ergatiboaren jakakuntza: ikerketa experimental bat eta beraren emaitzak*, Doktorego tesia, EHU, Gasteiz.
 Izagirre, K., 2002, *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak*, Elkar, Donostia.
 Jaio, K., 2007, "Zero akats", *Administrazioa euskaraz IVAP*, 56.

- Kamino, P. & Salaberri, P., 2007, *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Mendaubilduma, Iruñea-Bilbo.
- Lafitte, P. [P. Iturralde], 1982, *Murtuts eta bertze...*, Elkar, Lizarra.
- Landart, D., 1999, *Anaiaren azken hitzak*, Elkarlanean, Donostia.
- Larzabal, P., 1991, *Piarres Larzabalen Idazlanak I. Etxahun eta...*, P. Charritonek paratu argitalpena, Elkar, Donostia.
- Manezaundi, 1990, *Artikulu bilduma*, R. M. Pagolak prestatu argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, Klasikoak 41, Bilbo.
- Mujika, L. M., 1975, *Zortziko hautsiak. Barren ibarrak*, Kriselu, Donostia.
- Muxika, T., 1996, *Errekaldeko intxaurraren itzala*, Auspoa 235, Oiartzun.
- Perurena, P., 1996, *Leitzako Errege-erreginak*, Euskaltzaindia & Bilbao-Bizkaia Kutxa, Bilbo.
- Saint-Pierre, J. «Antsuberro», 1998, *14eko Gerla Handia*, P. Charritonek paratu argitalpena, Klasikoak 85, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- Salaberri, P. & Zubiri, J. J., 2007, *Biraoak. Nafarroan bilduak*, Pamiela, Iruñea.
- Salaberria, S., 1997, *Sagardotegiak*, Auspoa 247, Oiartzun.
- Zubiri, J. J., 2000, "Izen sintagmaren egitura determinazioaren arabera", *FLV* 85, 367-403.

- XXX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, V. Galani-Iloza*, 1992. 8 €.
- XXXI. KARLOS OTEGI, *Lizardi: lectura semiótica de "Biotz-begietan"*, 1993. 18 €.
- XXXII. AURELIA ARKOTXA, *Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti (1933-1975)*, 1993. 18 €.
- XXXIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VI. Ilpiztu-Korotz*, 1993. 8 €.
- XXXIV. JOSÉ I. HUALDE - GORKA ELORDIETA - ARANTZAZU ELORDIETA, *The Basque dialect of Lekeitio*, 1994. 18 €.
- XXXV. GEORGES REBUSCHI, *Essais de linguistique basque*, 1997. 18 €.
- XXXVI. XABIER ARTIAGOITIA, *Verbal projections in Basque and minimal structure*, 1994. 12 €.
- XXXVII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VII. Korpa-Orloi*, 1994. 8 €.
- XXXVIII. PATXI GOENAGA (ed.), *De grammatica generativa*, 1995. 18 €.
- XXXIX. ANTONIO CID, *Romancero y balada oral vasca. (Literatura, historia, significado)*. En preparación.
- XL. AMAIA MENDIKOETXEA - MYRIAM URIBETXEARRIA (eds.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*, 1997. 21 €.
- XLI. BERNARD HURCH - MARÍA JOSÉ KEREJETA, *Hugo Schuchardt - Julio de Urquijo: Correspondencia (1906-1927)*, 1997. 21 €.
- XLII. JOSÉ I. HUALDE, *Euskararen azentuerak*, 1997. 15 €.
- XLIII. RUDOLF P. G. de RIJK, *De lingua Vasconum: Selected Writings*, 1998. 15 €.
- XLIV. XABIER ARTIAGOITIA - PATXI GOENAGA - JOSEBA A. LAKARRA (arg./eds.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, 2002. 30 €.
- XLV. JOSEBA A. LAKARRA, *Ikerketak euskararen historiari eta euskal filologiari*. Argitaratzeko.
- XLVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*, 2003. 18 €.
- XLVII. BLANCA URGELL, *Larramendiren "Hiztegi Hirukoitza"-ren Eranskina: saio bat hiztegi-gintzaren testukritikaz*. Argitaratzeko.
- XLVIII. ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ, *"Aitorkizumen" historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren ediziora*, 2003. 21 €.
- XLIX. GOTZON AURREKOETXEA - XARLES VIDE-GAIN (arg.), *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, 2004. 21 €.
- L. JOSEBA A. LAKARRA, *Raíz y reconstrucción del protovasco*. En prensa.
- LI. XABIER ARTIAGOITIA - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. 36 €.

